

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.
Iparagirre. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.
Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006), 2006
4. MIQUEL GROS I LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/
EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientabide erregistroen trataera. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008
8. MIQUEL GROS I LLADÓS
El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
Ikastola mugimendua. Dabilen herria. 2010
11. MIKEL ZALBIDE
Euskararen legeak bogeta bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. 2010
12. JUJE ETXEBARNE
Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz. 2010
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha. El modelo Ikastola 1960-2010. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa. 2011
15. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord. 2012.
16. PAULA KASARES
Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan. 2013

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertuz, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Euskaltzaindia
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque



Laguntzaileak:



P a u l a K a s a r e s

Euskaldun hazi Nafarroan

Euskararen belaunez belauneko jarraipena
eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan



Paula Kasares (Iruñea, 1969) Euskal Filologian zein Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatu zen eta ondotik Hizkuntza Plangintzan eta Antropologian graduondoko ikasketak egin zituen. 2013an doktore maila erdietsi zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUPen).

Lanbidea euskararen alorrean jorratu du. 2001etik 2003 bitarte Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria izan zen. Egun Baztango Udaleko euskara teknikari eta NUPeko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko irakasle jarduten du. 2006tik euskaltzain urgazlea da.

Argitalpenei dagokienez, *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian: zer eskubidez ari garen eta zertan diren* (2004) liburuaren eta hainbat artikuluren egilea da.



EUSKALTZAINDIA

PAULA KASARES

EUSKALDUN HAZI NAFARROAN

EUSKARAREN BELAUNEZ BELAUNEKO JARRAIPENA
ETA HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA FAMILIA EUSKALDUNETAN



PAULA KASARES

EUSKALDUN HAZI NAFARROAN

EUSKARAREN BELAUNEZ
BELAUNEKO JARRAIPENA
ETA HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA
FAMILIA EUSKALDUNETAN



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO

2014

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzain diaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.net/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.net/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.net/azkue

Hizkuntza-orrasketa: Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

© Paula Kasares

Diseinua: Ikeder, S.L.

Aurreinprimatzea: Rali. S.A.

Inprimatzea: Gráficas Lizarra, S.L.

ISBN: 978-84-94071-78-2

Lege-gordailua: NA 1787-2014

PAULA KASARES

EUSKALDUN HAZI NAFARROAN



«... à transmettre: à faire aimer en faisant connaître»
Hélène Cixous (1986: 68)

*Honainoko bidea goxatu didaten
ene bihotzeko Ainhoa eta Olgari.
Beñat, Nerea, Iñigo, Lzei, Naroa, June eta Unairi,
baien aita-amei eta aitatxi-amatxiri.*

Ikerlan hau nire doktore tesia da, Patxi Salaberri Zaratiegik zuzendua eta 2013ko uztailaren 4an Nafarroako Unibertsitate Publikoko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Sailean irakurria. Tesiaren epaimahaia Pello Salaburu, Iñaki Camino eta Juan Jose Zubiri doktoreek osatu zuten eta ikerlanari bikain *cum laude* iritzi zioten aho batez.

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa. Jean-Baptiste Coyos (Euskaltzaindiaren Jagon Sailburua)	15
Esker onak	17
Alderdi formalen gaineko oharrak	19
Laburtzapenen zerrenda	21
I. ATARIKOA. EUSKARAREN JARRAIPENA AZTERGAI.	23
I.1. Euskararen belaunez belauneko jarraipena Nafarroan.	23
I.2. Hizkuntza gutxituen iraupena, mundu mailako arazoa.	26
2. HIZKUNTZA GUTXITUEN ETA EUSKARAREN JARRAIPENA.	31
2.1. Hizkuntza gutxituen jarraipena literatura sozioantropologikoan	31
2.1.1. Hizkuntzak ukipenean. Uriel Weinreich	32
2.1.2. Hizkuntza atxikipen eta ordezkapena	34
2.1.2.1. Ikermolde soziolinguistikoa.	34
2.1.2.1.1. Joshua Fishman.	35
2.1.2.1.2. Hizkuntza gutxituen jarraipenaren gaineko zenbait azterketa soziologiko	40
2.1.2.2. Ikermolde antropolinguistikoa	41
2.1.2.2.1. Ralph Fasold	42
2.1.2.2.2. Hizkuntza gutxituen jarraipenaren gaineko zenbait azterketa etnografiko.	43
2.1.3. Hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloa.	47
2.1.3.1. Hizkuntzaren eta kulturaren jarraipenerako paradigma.	48
2.1.3.2. Hizkuntza sozializazioa inguru eleaniztunetan. . . .	54
2.1.3.3. Hizkuntza sozializazioa aztertzeke metodologia	57

2.1.3.4.	Hizkuntza sozializazioa Europako mintzaira gutxituetan	58
2.2.	Euskararen jarraipena ikerketetan	59
2.2.1.	Nafarroako euskararen iraupenaren gaineko lehen kezak	59
2.2.1.1.	Nafarroako Euskarazko Elkargoa eta haren eraginak	60
2.2.1.2.	Nafarroako euskararen geografia historikoa	64
2.2.1.3.	Lehen ikerlanen azterketa kritikoa	69
2.2.2.	Mugarri ikerketak eta euskararen jarraipenaren azterbideak	71
2.2.2.1.	Mugarri ikerketak eta euskal soziolinguistikaren sorrera	71
2.2.2.2.	Euskararen jarraipenaren azterbide soziologikoa	73
2.2.2.3.	Euskararen jarraipenaren azterbide etnografikoa	75
2.2.2.3.1.	José M ^a Sánchez Carrión <i>Txepetx</i>	76
2.2.2.3.2.	Xabier Erize	85
2.2.2.3.3.	Jone Miren Hernández	88
2.3.	Hizkuntza gutxituen eta euskararen jarraipena. Ekarpunen ondorioak	90

3. IKERKETAREN ALDERDI TEORIKO, EPISTEMOLOGIKO ETA METODOLOGIKOA 95

3.1.	Oinarrizko kontzeptuak	95
3.1.1.	Hizkuntza sozializazioa	96
3.1.2.	Familia euskaldunak	100
3.2.	Ikuspegi epistemologikoa	107
3.2.1.	Diziplinaz gaindiko hurbilpena	108
3.2.2.	Hizkuntza sozializazioaren etnografia	109
3.3.	Metodologia	110
3.3.1.	Ikerketa diseinua: kasu azterketak	111
3.3.2.	Laginketa	112
3.3.3.	Datuak biltzeko eta aztertzeko teknikak	113
3.4.	Euskararen belaunez belauneko segida eta hizkuntza sozializazioa aztertzeko jarraibidea	117

4. EUSKALDUNAK ETA EUSKARA NAFARROAKO HISTORIA HURBILEAN 121

4.1.	Aurrekariak eta 1970eko egoera	121
4.1.1.	Gerra Zibilak eteniko aukerak eta ekimenak	123
4.1.2.	Euskararen jarraipena hizkuntzaren geografia historikoaren argitan	123
4.1.3.	Nafarroako Foru Aldundiaren ekimena euskararen aldera	127
4.1.4.	Nafar euskaldunak 1970ean	135
4.2.	Euskararen berreskurapenaren hastapenak eta araubidetzea	139
4.2.1.	Berreskurapenaren lehen zantzuak	140
4.2.2.	Euskararen araubidetzearen oinarriak	144

4.2.3. Euskararen gizarte egoera 1980ko hamarkadan	I46
4.2.4. Euskarari buruzko Foru Legea.	I48
4.3. Nafar euskaldunak XXI. mendearen hasieran	I53
4.3.1. Euskararen Foru legearen garapena eta hizkuntza politika.	I53
4.3.2. Euskararen gizarte bilakaera.	I55
5. IRURITAKO LANDA IKERKETA	I61
5.1. Metodologia xehetasunak	I61
5.2. Iruritaren historia soziolinguistiko hurbila	I62
5.2.1. Kokapena eta herriaren morfologia	I62
5.2.2. Bilakaera soziolinguistikoa.	I65
5.2.3. Baztango euskararen gainekoak	I69
5.3. Lekukotasunik esanguratsuenen aurkezpena eta azterketa	I71
5.3.1. Iruritako hiztunak eta familiak	I71
5.3.1.1. Hitztunak.	I72
5.3.1.2. Familiak	I73
5.3.2. Herrigunea eta baserriak	I76
5.3.2.1. Herrigunearen erdalduntzea.	I78
5.3.2.2. Baserritarrak euskaldunak	I81
5.3.2.3. Baserritarrak Karrikan	I82
5.3.2.4. Baserritarren eskolaren itxiera	I84
5.3.3. Herrigunean 1970eko hamarkadan hazitako iruritarrek	I86
5.3.3.1. Familia bidezko euskarazko sozializazioaren etena	I88
5.3.3.2. Erdara hutsezko eskolaren eragina.	I89
5.3.3.3. Gurasoen jarrerak ego belaunaldiak euskara atxiki zezan.	I92
5.3.3.4. Ego belaunaldia haurretan erdaldun	I94
5.3.3.5. Euskarazko eskolatzearen hastea eta haren eragina.	I94
5.3.3.6. Euskararen aldeko giro berria	200
5.3.3.7. Ego belaunaldiaren hizkuntza portaeren aldaketa.	204
5.3.3.8. Ego belaunaldiaren hizkuntza identitatearen eraketa	208
5.3.4. Euskaldun hazi 2010eko Iruritan	209
5.3.4.1. Ego belaunaldia umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean	209
5.3.4.2. Haurrekiko hizkuntza portaeraren gizarte arauaren aldaketa.	214
5.3.4.3. Haurren hizkuntza portaera.	217
5.3.5. Ingurunearen eta baldintza makrosoziolinguistikoen eragina.	221
5.3.5.1. Haurren eskolaz kanpoko jarduerak	221
5.3.5.2. Eskola, euskararen eta euskal kulturaren eragile	222
5.3.5.3. Hedabideak eta kultura erreferentziak	225
5.3.5.4. Erdararen presioa eta euskararen zilegitasuna	226
5.3.6. Belaunaldien eta guneeen hausturak eta josturak	228
5.3.6.1. Euskara berreskuratuz, herria osatu.	229
5.3.6.2. Haur iruritarren besta. 2011eko Orakunde	230

6. IRUÑEKO LANDA IKERKETA.....	235
6.1. Metodologia xehetasunak.....	235
6.2. Euskara eta euskaldunak Iruñearen historia hurbilean.....	237
6.2.1. Iruñeko euskaldunak, lehengoak eta oraingoak.....	238
6.2.2. Iruñeko euskararen gainekoak.....	245
6.2.3. Amaiur ikastola Iturrama auzoan.....	247
6.3. Lekukotasunik esanguratsuenen aurkezpena eta azterketa.....	248
6.3.1. Iruñeko hiztunak eta familiak.....	248
6.3.1.1. Hiztunak.....	249
6.3.1.2. Familiak.....	254
6.3.2. Iruñean 1970eko hamarkadan hazitakoak.....	255
6.3.2.1. Euskara familiaren jatorrian: galeraren oroipena... .	255
6.3.2.2. Ego belaunaldia haurtzaroan erdaraz.....	257
6.3.2.3. Iruñerriko ikastoletan eskolatuak.....	259
6.3.2.4. Ego belaunaldiaren euskalduntzea.....	261
6.3.2.5. Hizkuntza aldaketa eta identitatearen eraketa.....	265
6.3.3. Euskaldun hazi 2012ko Iruñean.....	269
6.3.3.1. Euskaraz bizi diren familiak.....	270
6.3.3.2. Guraso bakarra euskalduna duten familiak.....	277
6.3.3.3. Euskara haurren bidez etxean sartu zaien familiak..	282
6.3.3.4. Haurren hizkuntza portaerak.....	289
6.3.3.5. Haurrak eta helduak elkarreraginean.....	292
6.3.4. Ingurunearen eta baldintza makrosoziolinguistikoen eragina..	294
6.3.4.1. Euskarazko irakaskuntza lau hamarkadaren ondotik	294
6.3.4.2. Haurrak ikastolan eta ikastolatik at.....	298
6.3.4.3. Ikastola eragile eta bilgune.....	301
6.3.4.4. Hedabideak eta kultura erreferentziak.....	305
6.3.4.5. Erdararen presioa eta euskararen zilegitasuna.....	306
6.3.5. Euskararen hutsarteak.....	309
6.3.5.1. Euskara, uhartea.....	310
6.3.5.2. Gaztaroko basamortua.....	313
7. EUSKARAREN JARRAIPENA ETA EGUNGO NAFARREN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA DATUEN ARGITAN.....	317
7.1. Euskararen jarraipena, urradurak eta estekadurak hizkuntzaren irautean.....	317
7.2. Nafar euskaldunak, askotariko ibilbideak euskararen aldera.....	324
7.3. Euskaldun hazi Nafarroan, euskaraz sozializatzeko aukera eta baldintzak.....	332
8. ONDORIOAK.....	337
9. ERANSKINAK.....	349

1. Nafarroako Foru Aldundiak 1960an emandako diploma	350
2. Nafarroako Foru Aldundiak 1961ean emandako aurrezki-libreta	351
3. Etsaingo hilarria, herriko azken euskaldunaren lekukotasuna	352
4. Hizkuntza ikasereduen bilakaera Nafarroan.	353
5. Hizkuntza ikasereduen bilakaera Baztanen.	354
6. Hizkuntza ikasereduen bilakaera Iruñerrian	355
7. Berriemaile adituen azalpen biografikoak	356
8. Glotobiografiak osatzeko gidoia	357
9. Glotobiogramak	359
10. Glotohistoriogramak	363
11. Iruritako eskolak emandako datuak hiru urteko ikasleen lehen hizkuntzaz	366
12. Amaiur Ikastolako hiru urteko ikasleen gurasoek emandako datuak: gurasoen hizkuntza gaitasuna eta etxeko euskararen erabilera	367
13. Amaiur Ikastolako hiru urteko ikasleen gurasoek emandako datuak: bitariko bikoteen familiak eta etxeko hizkuntza erabilera	368
14. Familien glotohistoria laburtuak	369
10. BIBLIOGRAFIA.	441



AITZINSOLASA

Jean-Baptiste Coyos
Euskaltzaindiaren Jagon Sailburua

Urtero, euskararen erabileraren nondik norakoak aztertzeke, Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren Sustapen batzordeak Jagon jardunaldiak antolatzen ditu. Hizkuntzaren corpusaz arduratzen baldin bada ere, halaber, euskararen estatus sozialaren arreta hartzen du Euskaltzaindiak, 1920ko sortarauek erraten duten bezala. Euskararen sustatzea, erabileraren zabaltzea, hizkuntzaren kalitatea bermatzea eta hiztunen eskubideak zaintzea, horiek dira Jagon Sailaren eginkizun nagusiak.

2013an, Jagon Sailaren Sustapen batzordeak Nafarroan, Iruñean, jardunaldiak antolatu zituen. Jardunaldi horiek erakutsi nahi zuten elkarteek, erakundeek nola lan egiten zuten euskararen alde, zein ziren alde itxaropentsuak eta besteak, eta, aitzina begira, lan egiteko norabide berri eta eraginkorrak zein izan zitezkeen.

Jardunaldietako ekarpenen artean bat zinez azpimarratzekoa izan zen, Paula Kasares euskaltzain urgazlearena. Paula Kasares Baztango Udaleko euskara teknikaria da eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko irakaslea ere. Bi kargu horiek erakusten dute landa-lana ezagutzen duela baina bai ere soziolinguistikan teoriak hizkuntzen transmisioaz, hizkuntzen erabileraz ekartzen dutena.

Ber urtean, 2013an, Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktore maila erdietsi zuen Paula Kasaresek. Doktorego-tesi hori da Euskaltzaindiak hemen argitaratzen duena, Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin.

Euskaldun hazi Nafarroan izenburua duen ikerlan honek Irurita (Baztan) eta Iruñeko Amaiur ikastolako haurrak oinarritzat hartzen ditu. Bi ikergune soziolinguistikoki oso ezberdin aztertuz, euskararen belaunez belauneko jarraipena nola gauzatu den eta gaur egun haurrak zein egoeratan bilakatzen diren euskaldun argitzen du.

Hizkuntza baten transmisioa, erabilera eta jarraipena sozialak diren neurrian, ikuspegi soziologikotik, soziolinguistikotik eta antropologikotik aztertzea komeniko litzateke. Psikolinguistikaren ikusmoldea ere emenda nezake, hizkuntza(k) norbanakoaren ezaugarrietarik bat d(ir)en neurrian. Paula Kasaresek lehen hiru alderdi ezberdin horiek aztertzen ditu, sozioantropologikoa bereziki, nahiz nazioarteko ikerketen bidez, nahiz euskaldunen bidez. Ikus bibliografiaren aberastasuna. “Hizkuntza sozializazioa” da haren ustez kontzeptua emankorra. Gehiago ere, alde zenbaitetan nafar ikertzailea berritzailea agertzen da, adibidez euskara gurasoenganik haurrengana ez

dela baizik transmititzen, baina bai ere haurrenganik gurasoengana egiten dela erakusten duenean.

Hain zuzen, lan honetan jarraipena denboran zehar eta haurren oraingo euskalduntzea aztertzeko, alderdi teorikoak, epistemologikoak eta metodologikoak eraiki izan behar ditu. Jarraipenari buruz, Iruritan garai batean gertaturiko etena nola gelditu den eta euskara atzera egitetik nola berriz indartu den aztertzen ditu. Halaber, Iruñean euskarazko sozializazioak izaniko hutsarteak aztertzen du eta gurasoen jarrerak izan duen garrantzia erakusten du, egoera hori aldatzeko.

Bistan da, ikerlan horrek erakusten du euskararen jarraipena eta oraingo erabilera askotariko eragileek eragiten dituztela, jarraipena lineala ez dela, baina bai gorabeheratsua. Paula Kasaresen ustez: “Euskarak iraun dezan belaunaldi bakoitzak mintzaira beretakotu behar du eta horretarako *gizarte aukera egokiak* beharrezkoak ditu ezinbestez” (346. or.).

Oro har, Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan izeneko ikerketa baliotsu honek Jagon saila bilduma era ederrenean osatzen du, Euskal Herrian soziolinguistika ikerkuntza puntakoa dela erakutsiz. Horrengatik, Paula Kasaresi esker beroenak eman behar dizkiogu.

ESKER ONAK

Tesi honetan nire bizitzaren zati handia dago, hondar urteotan azterlana burutzeak denbora, indarra eta baliabide anitz eskatu dizkidalako, eta ikerketa hau nire bizi eta ikaste ibilbidearen kezka nagusietako bati eskaini diodalako.

Euskararen gizarte egoerak aspaldian piztu zidan arreta eta hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenaren erro-abarretan hasi nintzen arakatzan. 2009an lotu nintzaion ikerketari eta, hasi bezala, osoki garatu eta burutu dut, emeki bada emeki, nekez bada nekez, inolako beka edo diru laguntzarik gabe. Bide luze —eta anitzetan malakar— hau ibilgarri egin didaten guztiekin aitor onekoa izatea dagokit eta nire esker onak jasotzea merezi dutenak anitz dira.

Ikerketaren proiektua zehaztean eta aztergaia zedarritzean alderdi xeheen inguruan sakontzea ahalbidetu didaten Sagrario Aleman, Joseba Igarabide eta Martin Garde ibilbide luzeko berriemaile adituak.

Azterlan honen lehengairik behinena eskuratzen lagundu didaten pertsona guztiak, beren denbora eskaini eta beren bizitza ezagutzeko aukera emateagatik. Berriemaile horiek dira lan honen harrobia. Baztango herrietako eskoletako maisu-maistrak eta, batik bat, Iruritako eskolakoak: M^a Eugenia Urrutia, orain erretiroa hartua, eta 2010-2011 ikasturtean lanean ziharduten Kontxi Zeberio zuzendaria eta Kruzi Delgado, Jon Barberena, Amaia Saldias, Katrin Kanpo, Miren Couso, Xabi Nuñez, Rakel Fagoaga eta Itziar Zabaltza irakasleak. Iruritako Eskolako eta Herriko guraso elkarteak, Alfonso Gartzandia herriko apezka, herriko familiak eta, oro har, Irurita herria.

Iruñeko Amaieur Udal Ikastolako Pello Eguren zuzendaria, maisu-maistrak, partikulari Loredi Egino eta Ana Los Arcos; ikastetxeko bulegari, atezain eta zaindariak; guraso elkarteak eta aita-amak eta 2011-2012 ikasturtean ikastolan eskolaz kanpoko jardueretako monitore, begirale edo entrenatzaile zihardutenak.

Zizur Txikiko San Fermin Ikastolako Pilar Vicente zuzendari-kudeatzailea, Eduarne Pozueta DBHko eta Batxilergoko zuzendaria, Ane Apezetxea irakaslea eta gainerako irakasle-langileak.

Ikerlana garatzean informazioa edo iturri bibliografikoak aholkatzen nahiz eskuratzen laguntzeagatik, beti lagunkoi, Eduardo Aldasoro Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuko Euskara atalburua eta Jone Miren Hernández EHUKo irakaslea.

Gogoetagai iradokitzailleak piztu dizkidan Aitzol Mendiola eta Iruritako informazioa osatzen lagundu didan Pello Iriarte.

Baztandarren mintzoak transkribatzeko jarraibideak aholkatu dizkidan eta ikerlanaren dokumentu osoa orraztu duen Paskual Rekalde laguna.

Glotobiogramak eta glotohistoriogramak ordenagailuz lagunduriko diseinu bidez marraztu dituen Amaia Pérez Ezkurdia NUPeko irakasle eta adiskide mina, eta Nafarroako euskararen araubidetzearen dokumentazioa biltzen lagundu didan Olga Artozki *legemakume* eta bidaidea.

Tesia egiteko prozesuan jarraipen saioko nahiz irakurrialdiko epaimahaikideak izan ziren Juan Jose Zubiri, Juan Karlos Lopez-Mugartza, Iñaki Camino eta Pello Salaburu doktoreak.

Ikerketan zuzendari eta adore emaile izan dudana Patxi Salaberri Zaratiegi doktorea.

Nire familia, euskarri sendoa, eta bakar-jardun osoan aldi oro hauspotzen sumatu ditudanak.

Eta azkenik, ikerlan honen argitaratzailea, Euskaltzaindia.

Guztiei esker mila.

ALDERDI FORMALEN GAINEKO OHARRAK

Lan akademikoen zenbait alderdi formalen inguruan adostasun osorik ez baitago, ikerlan honetan xehetasun formal batzuei loturiko hautuak egin behar izan ditut. Horiek azaltze aldera, hona hemen ohar hauek:

- Bibliografia erreferentziak emateko egile-urtea modua aukeratu dut, bide horrek dituen abantailak kontuan hartuta (Eco, 1994: 209-214). Beraz, testuan aipatzen diren dokumentuen erreferentzia guztiak bibliografian eman ditut.
- Ikerketa egiteko esku artean izan ditudan liburuak lehen argitalpenak ez diren kasuetan, erabili dudana argitalpenari eman diot lehentasuna. Dena dela, lehen argitalpenaren urtea bereziki adierazgarria bada, biak aipatu ditut. Edonola ere, bibliografian liburuen erreferentzia osoa dago, lehen argitalpenaren urtea eta guzti (liburuan bertan agertzen den edo ezagutzen dudana kasuetan).
- Testuan aipatu ditudan egileen izenak erabilitako liburu, artikulua eta dokumentuetan agertu bezalaxe idatzi ditut, bai aipuetan bai bibliografian. Halere, egile baten argitalpenetan haren izena bi modutara agertzen bada (J.A. Irigaray eta J.A. Irigarai, adibidez), euskaraz idatzitako deitura hartu dut, hala aipuetarako nola bibliografiarako.
- Argitalpen tokiak dokumentuetan agertu bezala eman ditut, erdaraz daudenak euskaratu gabe. Euskaraz eta erdaraz agertzen diren kasuetan euskal toponimoa hobetsi dut, hau da, hainbertzetan kausitzen den *Iruña-Pamplona* bikotetik *Iruña* hutsa hartu dut —edo *Iruñea*, liburuan hala badago—. Salbuespena *Vitoria-Gasteiz* izendapen ofiziala da, kasu horretan biak eman baitituz.
- Dokumentu honetara egileen hitzez hitzeko aipamenak ekarri ditudalarik, egileek idatzi bezalaxe eman ditut, euskarazkoen kasuan grafia batua erabili ez delarik ere.
- Familien glotohistorietan ez dira berriemaileen eta haien ahaideen benetako izenak eman. Hemen agertzen diren deiturak nik asmatuak dira pertsona horien anonimotasuna eta pribatutasuna babestearren.
- Bertzalde, ikergaia kontuan hartuta, ez da transkripzio fonetikorik egin eta berriemaileen mintzoak idatziz adierazteko idatzarau estandarretara ekarri dira, euskara nahiz gaztelania izan haien adierazpidea. Berriemaileek herriko hizkeraz errandakoak (*gan gintuen, erten zatan...*) euskara batuan eman ditut (*erman genituen, erraten zidan...*).

- Transkribatzean *ja* ([ya] ‘jada’, ‘jadanik’) eta *ja* ([xa] ‘deus ez’) ez nahasteko, bigarrenari ahoskeraren argibidea paratu diot ondoan: *ja* [xa]. Bertzalde, *ia* idatzi dut ‘kasik’ erran nahi duelarik. Hala berean, *jo* aditza eta *jo* interjekzioa bereizteko, bigarrenari ahoskera atxiki diot, honela: *jo* [xo].
- Berriemaileen ahotik bildutakoak gramatikalki zuzenak ez direlarik bere horretan utzi ditut, zuzendu eta agramatikaltasunaz ([sic] idatzirik) ohartarazi gabe.

LABURTZAPENEN ZERRENDA

AA	Ane Apezetxea berriemaile aditua
AEK	Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea
ALA	Ana Los Arcos berriemaile aditua
AS	Amaia Saldias berriemaile aditua
<i>ASJU</i>	<i>Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”</i>
BAEN	Belaun Arteko Etenaren Neurria (ingelesez GIDS)
<i>BAP</i>	<i>Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País</i>
BBB	Batxilergo Bateratu Balioanitza
BOE	Boletín Oficial del Estado
CDN	Convergencia de Demócratas de Navarra
CIS	Centro de Investigaciones Sociológicas
DBH	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
EAJ	Eusko Alderdi Jeltzalea
EB	Ezker Batua
EE	Euskadiko Ezkerra
EFL	Euskarari buruzko Foru Legea
EGA	Euskararen Gaitasun Agiria
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
EIRE	Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkarte
EITB	Euskal Irrati Telebista
ETB	Euskal Telebista
FG	Familiaren glotohistoria
<i>FLV</i>	<i>Fontes Linguae Vasconum</i>
GIDS	Graded Intergenerational Disruption Scale (euskaraz BAEN)
HAEE	Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea (gaztelaniaz IVAP)

HB	Herri Batasuna
HEO	Hizkuntza Eskola Ofiziala
HH	Haur Hezkuntza
HINBE	Hizkuntza Indarberritzea (ingelesez RLS)
HTI	Hizkuntzen Tratamendu Integratua (gaztelaniaz TIL)
IEA	Iruritako Elizako Agiritegia
IKA	Ikastari Kultur Elkarte
INE	Instituto Nacional de Estadística
IVAP	Instituto Vasco de Administración Pública (euskaraz HAEE)
IVEF	Instituto Vasco de Educación Física (euskaraz SHEE)
JJ	Joseba Igarabide berriemaile aditua
KK	Katrin Kanpo berriemaile aditua
KZ	Kontxi Zeberio berriemaile aditua
LH	Lehen Hezkuntza
LBH	Lanbide Heziketa
LE	Loredi Egino berriemaile aditua
LK	Landa koaderno
LTD	Lurreko Telebista Digitala
MC	Miren Couso berriemaile aditua
MG	Martin Garde berriemaile aditua
MEU	M ^a Eugenia Urrutia berriemaile aditua
NU	Nafarroako Unibertsitatea
NUP	Nafarroako Unibertsitate Publikoa
OHO	Oinarrizko Heziketa Orokorra
PSOE	Partido Socialista Obrero Español
PSN	Partido Socialista de Navarra
PP	Partido Popular
<i>PVEG</i>	<i>Príncipe de Viana, Euskera Gebigarria</i>
TDT	Televisión Digital Terrestre (euskaraz LTD)
TIL	Tratamiento Integrado de Lenguas (euskaraz HTI)
RLS	Reversing Language Shift (euskaraz HINBE)
<i>RIEV</i>	<i>Revista Internacional de Estudios Vascos</i>
SA	Sagrario Aleman berriemaile aditua
SHEE	Soin Heziketarako Euskal Erakundea (gaztelaniaz IVEF)
UBI	Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea
UCD	Unión de Centro Democrático
UNED	Universidad Nacional de Educación a Distancia
UPN	Unión del Pueblo Navarro
USB	Universal Serial Bus
XN	Xabi Nuñez berriemaile aditua

I. ATARIKOA. EUSKARAREN JARRAIPENA AZTERGAI

Ikerketa honek Nafarroako¹ historia hurbilean (hondar lau hamarkadetan, 1970etik 2012ra) euskararen belaunez belauneko jarraipena nola gauzatu den eta egungo haur nafarrak zer egoeratan bilakatzen diren euskaldun argitzea du xede.

Ikerlan honetan euskararen gizaldirik gizaldiko segida arakatzeko egin dudan inguratzean, umeak euskaldun haztea kodeaz jabetzeko edota hizkuntza gaitasuna eskuratzeko prozesutako ikusi beharrean, hiztunen, hizkuntzaren eta komunitatearen arteko elkarreaginak aztertzeko gertakaritzat hartu dut. Hau da, euskararen jarraipenari so eginda, mintzairaren iraupenaren oinarrian dauden gizarte prozesuak nahiz norbanakoen bilakaerak agerian uztea izan da nire helburua.

Ume orok inguruko hizkuntzan mintzatzen ikasten du, aldi berean edo hurrenez hurren bertze hizkuntza batzuk bereganatu edo ez. Euskaldun hazteak eguneroko bizi egoera arruntetan, haurrek euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera ohikoa eta nahikoa izan dutela adierazten du. Mintzairaren gizaldirik gizaldiko segida belaunaldi berrien hizkuntza sozializazioan funtsatzen da eta euskararen jarraipenak ere umeak hiztun bilakatzeko prozesua du oinarri. Gertakari horri heldu nahi izateak gurasoek seme-alabak euskaraz hazteko edo txikitatik euskaraz jabe daitezen ahalbidetzeko izan dituzten jarrerak eta portaerak ez ezik, hiztunen inguruetako gizarte aukerak nahiz hizkuntzaren beraren egoera ere aztertzea eskatzen du. Hori da ikerlan honek bere gain hartzen duen eginkizuna.

Atariko atal honetan ikerketaren aztergaiaren gain-azpiak aurkeztu eta hizkuntza gutxituen iraupenaren arazo orokorraren testuinguruan kokatuko ditut.

I.1. EUSKARAREN BELAUNEZ BELAUNeko JARRAIPENA NAFARROAN

XIX. mendeaz geroztik izen handiko pentsalariak (Reclus, 1867/1929; Vinson, 1882; Unamuno, 1884-1936/1968 edo Humboldt, 1889/1998, bertzeak bertze) euskararen desagertzea iragarri bazuten ere, XXI. gizaldia hasita oraindik hizkuntza bizia da, hala Nafarroan nola Euskal Herriko gainerako herrialdeetan ere. Hori, fun-

¹ Nafarroa hutsa idazten badut ere ikerketa hau Nafarroa Garaia dagokio, hau da, Nafarroako Foru Komunitateari.

tsean, euskararen jarraipena erabat eten ez delakoz gertatu da. Hau da, Nafarroako hainbat herritan euskarak etxe-familia eta auzo giroan bere tokia izaten segitu duela-koz, edo bertze hitzetan erranda, belaunaldi bakoitzeko nafar batzuek euskaldun hazteko edota euskara beretzeko baldintzak izan dituztelakoz.

XX. gizaldiaren lehen laurdenetik aitzina Nafarroako euskararen gibelatzearen lekukotasunak utzi zizkiguten ikertzaileek (erraterako, A. Irigaray, [Irular] 1925, 1935, 1956 edo Morales de Rada, 1963) hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioaren etenaren aipamenetara jo zuten usu, herri bateko haurrek gurasoen mintzaira ez jakitean euskararen galbidearen seinalerik garbiena zekusatela. Izan ere, sorraldi berriak hizkuntzaz jabetzea eta euskaldun hazteko prozesua euskararen jarraipenerako harrointzat jotzean bat heldu dira euskalariak.

Halaz guztiz, berriki artio ez ikertzaileek² ez hizkuntza politikaren arduradunek³, oro har, ez diote euskararen gizaldiz gizaldiko segidari arreta berezirik eman. Euskararen jarraipena bermatzeko eta haren ezagutza nahiz erabilera zabaltzeko 1970eko hamarralditik aitzina egindako ahaleginek eskolaren edo heziketa formalaren esparrua lehenetsi zuten. Hizkuntzaren premia kuantitatiboei erantzun behar zitzairen, nahitaez; euskarak hiztunak behar zituen eta ikastolen zein gau eskolen gizarte mugimendua Euskal Herri osora hedatu zen. Ondotik, ele biko irakaskuntzak, euskara bigarren hizkuntza duten ikasleen gaitasunak eta euskararen transmisio kulturalari dagozkion halako gaiek jaso zuten, batik bat, ikertzaileen ardura. Hondar urteotan aldiz, zenbait hamarkadatak eskarmentua metaturik, esparru informalarik, alegia, familia bidezko transmisioari eta, oro har, hizkuntza sozializazio prozesuari euskara indarberitzeko duen funtsezko zeregina aitortzen hasi zaio⁴.

Euskararen belaunik belauneko jarraipenaren eta gizaldi berrien euskarazko gizarteratzearen gainean ez da ikerketa lerro sistematikorik jorratu. Egin diren lan gehienak eskala makroko eta izaera kuantitatibokoak dira. Horien arteko lehenbizikoetako batek, familia bidezko hizkuntza transmisioaren gainean Euskal Herri osoan egindako ikerketa zabalak (Siadeco, 1994ab) 1970eko hamarkadan euskararen ondorengoenganatzeari nolabaiteko inflexio-puntua antzeman zion. Hamarraldi horretan aitzineko belaunaldietan nabaria zen hizkuntzaren gibelatze-joera gelditu zen, hiztun galerak gutxitu eta lehen baino guraso gazte euskaldun gehiago umeak euskaraz hazten hasi ziren.

² Iñaki Arruti (1997: 73) euskara teknikariak honela dio: «Mende honi bagatzezki, euskararen familia bidezko jarraipenak izan duen higadura hori begi-bistakoa bada ere, ezaguna da euskarak mende honetan izan dituen urterik zailenetan (Hego Euskal Herrian) familian euskaraz hitz egiteak izan duen garrantzia agian erabakigarria. Hala ere, orain dela gutxi arte ez dugu izan gorabehera horiek zehaztu, zenbatu eta irakurriko zituen azterketarik».

³ Josune Iraola (2002, I. lib.: 24) ikertzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza politika aztertuta honela idatzi zuen: «Ez da, beraz, familia bidezko euskararen jarraipenaren aldeko apustua egin duen hizkuntza politika sendo eta jarraiturik egon». Nafarroako Gobernuak euskararen belaunez belauneko jarraipenaren gainean egindako politikaz ezin liteke balioespen hoberik egin.

⁴ Koldo Zuazo (2001: 131) hizkuntzalariak ideia hori hitz esanguratsu hauen bidez azaldu zuen: «1960ko Iraultza abian ipini zen sasoi hartan, sarri egin ohi zen honako iragarpen hau: *Euskara eskolan eta telebistan sartzen denean, betiko salbatuta izango da*. Joan dira urteak aurrera, sartu da euskara eskolan eta sartu da euskara telebistan, eta, ostera, ez dago inondik inora ere salbatuta. Orain ohartu gara eskola eta telebista behar-beharrezkoak izan arren, beste osagai batzuk ere badirela. Orain ohartu gara familia eta lagunartea, esate baterako, ezinbesteko ardatzak direla. Orain ohartu gara, hizkuntzaren "transmisioa", belaunaldi batzuen eta besteen arteko hizkuntza lotura sendotzea eta estutzea, nahitaezkoa dugula. Bazen begiak zabaltzeko garaia!».

Aipatu ikerketak agerian utzi bezala, euskararen transmisioaren bilakaeran aldaketa gertatu zen eta molde berrien familiaz kanpoko baldintzek sendiaren barnekoek baino eraginkorrago jokatu zuten. Izan ere, lehen euskararen transmisioa familian, prozesu *natural* baten bidez gertatzen zen, baina 1970etik aitzina bide *kulturalez* ere gauzatu joan zen, euskarazko irakaskuntzak, helduen euskalduntzeak, hedabideek eta administrazio publikoen hizkuntza politikak ahalbideturik. Euskararen transmisioari lagundu zioten bide kultural horiek sortutako giroak ordea, ez zieten Euskal Herriko lurralde eta eremu soziolinguistiko guztietako familiei modu berean eragin. Emaitzek argiro erakutsi zuten bezala, hizkuntzaren jarraipena gizarte gertakaria baita, haren iraupena ere jendarte osatzen duten alderdien eraginpekoa da.

Euskararen belaunik belauneko jarraipenaren gaineko azterketa kualitatiboa hagitzez urriagoa izan da. Partikulariki Nafarroari dagokionez, euskararen historia hurbilean belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa bereziki aztertu duen ikerlanik ez dago. Izan badira ikerketa batzuk kezka soziolinguistiko zabalago batetik Nafarroako euskararen transmisioa alde edo moldez ukitu dutenak (erraterako, Sánchez Carrión, 1981a; Ramos, 1995; F. Zabaleta, 1997), baina nafarren euskarazko hazibideari buruzko azterketa sakona oraindik egiteke dago.

Egun euskararen etorkizun hurbileko iraupenaren gaineko kezka, oraingo haur-gaztekoen biharko hizkuntza portaeretan paratzean irizkidetasun handia dago. Hain zuzen ere, gaurko hiztun gazteek —gehienak eskolan euskaldunduek— hurren hamarraldietan, umeak dituztelarik, seme-alabei hizkuntza transmititzean jokatuko duten moduak baldintzatuko du, hein handi batean, euskararen geroa⁵.

Gazte jendearen erabileraren gainean ditugun hondar ikerketek (adibidez, Soziolinguistika Klusterra et al., 2009) haurtzaroko hizkuntza bizipenen garrantzia iradoki dute. Neska-mutikoak hazten diren ingurune hurbiletako —familiako, eskolako eta auzoko— hizkuntza errealitatea gaztekoen erabilerari eragiten dioten faktore multzo nagusietako bat da. Beraz, euskararen indarberritze aldera, egungo haurren hizkuntza sozializazio prozesua sakonki ezagutu eta ulertzeak berebiziko garrantzia du.

Hori horrela, ikerlan hau argitu nahi dituen galdekizun hauetatik abiatu da: a) azken lau hamarkadetan nola gauzatu da Nafarroako euskararen jarraipena? Zer gizarte prozesu dago euskararen segidaren gibelean?; b) Norbanakoen zer hautuk, jarduerak edo portaerak ahalbidetu du euskararen belaunez belauneko jarraipena? Zer bilakaera izan dute hiztunek euskararen aldera? Aitamate direlarik nola jokatu dute umeen hizkuntza hazieraren aitzinean?; eta c) Nolakoa da oraingo haur nafarren, 2000tik 2010 bitartean sortuen euskarazko sozializazioa? Neska-mutiko horiek zer egoeratan ari dira euskaldun bilakatzen?

⁵ Patxi Baztarrrika (2010: 151) Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak honela dio: «Today's bilinguals do not use Basque more than the bilinguals of 15 years ago. The use of the language has gone up because the number of speakers has increased, not because today's speakers use it more than those of yesterday. In addition, if the young people who are new Basque-speakers today want to have, and are successful in having, Basque as their family language in the future, 15 years from now when they become parents, then that will give a tremendous boost to Basque in the future. Universalising family language transmission will be utterly decisive in 20 year's time».

Jon Sarasua (2012: 17) irakasleak ere horri heldu dio: «... mende honetan, gure belaunaldian —eta gure haurren belaunaldian— hiztun-hautu subjektiboa izango da giltzarri nagusienetakoa hizkuntzaren kinkan. Ez bakarria, baina bai errealitatearen osagai inportantea».

Ikerlan honetan aztergai hartu dudan gertakaria, euskararen jarraipenerako bezalaxe, munduko hainbat hizkuntza gutxituren iraupenerako ere funtsezkoa da. Hurbilen ataltxoan, lan honen ikergaia kezka zabalago batean txertatuko dut.

I.2. HIZKUNTZA GUTXITUEN IRAUPENA, MUNDU MAILAKO ARAZOA

Hizkuntzen belaunez belauneko jarraipena haurrak hiztun bilakatzeko prozesuan oinarritzen da. Haurrak familian eta eguneroko hurbileko harremanetan, sozializazio prozesuan, jabetzen dira lehen hizkuntzaz (edo hizkuntzez).

Gizarte batean nagusi den mintzairako hiztunek ez ohi diote beren buruari galdegiten umeekin zer hizkuntzatan mintzatuko diren. Halakoetan, mintzairaren transmisioa jendeak auzitan jartzen ez dituen gertakarien artean dago, komunitatearen zentzu komuneko kontua da. Mintzaira bakarra duten erkidegoetan, gizarte eragile guztiek sorraldi berrien hizkuntza sozializazio prozesuari laguntzen diote gaitasunak metatuz eta zabalduz.

Aldiz, euskaldun jendeak bezala hainbat hizkuntza gutxituren⁶ hiztun taldeek, historian zehar mintzaira nagusi bat(zu)en presio handia nozitu dutenek, ez dute belaunaldi berrietako kide guztiak mintzairaz jabetuko direla bermatzen ahal, haurrak hiztun bilakatzeko egoerak eta baldintzak kaskaildurik edo eragotzirik dituztelako; alegia, hiztunei hizkuntza ahulean sozializatzeko eta bizitzeko aukerak bortizki higatu edo hondatu zaizkielako.

Hizkuntza gutxituen egoera *gutxitze prozesu* baten ondorioa da. Ahuldutako mintzairaren hiztunen bilakaerak ulertzeko hainbat gako prozesu horren barnean daude. Bilakabide horrek argitzen digu, erraterako, mintzaira baten belaunez belauneko jarraipena nola iritsi den arriskuan egotera edo, zenbait aldiz gertatu dena, gizatalde bat nola ailegatu den bere hizkuntza historikoa izan dena umeei ez transmititzera.

Hiztun taldeen abultze prozesua

Historian gizatalde anitzen hizkuntzak makaldu dira bertze talde ahaltsuago bat(zu)en mintzairak ezarri eta beharrezko bilakatu direlako. Ikertzaileek hizkuntzen gutxitze edo ordezkatzeko prozesu hori erruz deskribatu eta dokumentatu dute (horren ikusbide lan hauek: Weinreich, 1979; Denison, 1977; Dorian, 1981; Sánchez Carrión, 1981ab, 1987; Fasold, 1995; Montoya, 1996; Fishman, 1997; Junyent, 1997; Crystal, 2001, 2007 eta Martí et al., 2005).

Hizkuntza gutxitze prozesua mintzaira ukipen egoera betean hasten da. David Crystalek (2001: 94-95; 2007: 69-70) ohartarazi duenez, hizkuntza batek bertzea asi-

⁶ Euskaraz *hizkuntza gutxitua* erabiliko dut ingelesezko literatura soziolinguistikoa batik bat *endangered language*, *threatened language*, *minority language* edo *weakened language* izenez adierazi den mintzairari errateko. Egile guztiek kontzeptu horiei esanahi berbera ematen ez badiete ere, funtsean, *hizkuntza gutxituak* gizartean gutxituta edo ahulduta dauden mintzairak dira, hots, hiztunak eta erabilera esparruak galdu dituztelako gizarte funtzio gutxiagotan erabiltzen direnak eta, anitzetan, jarraipena arriskuan dutenak. *Soziolinguistika hiztegiak hizkuntza gutxitua* honela definitzen du: «Hizkuntza-gatazkako egoeran, mintzaira menderatzailearen esku hainbat esparru eta funtzio galdu dituen hizkuntza» (Eusko Jaurkitza, 2010: 43). Mikel Zalbidek (2003: 3) mintzaira egoera horretarako *ahuldutako hizkuntza* nahiago izan du.

milatzen duelarik toki guztietan gertaera-segida bertsua agitzen da. Laburbilduz, hiru fase bereizten ditu: lehenbizikoan ekonomia, gizarte edo politika arloetatik jendeak hizkuntza berria hitz egin dezan presio larria hasten da ezartzen; presio hori hiztunei bide bakar batetik baino gehiagotatik hel dakieke, goitik beheiti (boterearen aholku edo gomendio, pizgarri, lege arau edo agindutako), behetik goiti (erraterako, gizartean zabaltzen diren moden bidez) edo norabide argirik ezean, eragingarri soziopolitikoaren eta sozioekonomikoen arteko elkarreaginaren ondorioz. Nolanahi heldu dela ere, hizkuntza berriaren aldeko presio horrengatik hiztunek gizarte bizitzako zenbait zereginetarako ordura artio egiten ohi zuten hizkuntza erabiltzeari utzi eta mintzaira berrian ihardukitzen hasten dira. Horrek gizataldean elebitasuna hedatzea dakar. Bigarren fasean, hiztun gehienek hizkuntza berria badakite eta gainera, horretan mintzatzeko erraztasun gero eta handiagoa dute, nahiz eta beren mintzaira historikoari eutsi. Orduan —eta batzuetan biziki arin— elebitasuna gainbehera hasten da, hizkuntza berriko elebakarrak ugaritzen dira eta mintzaira hori gizarte bizitzan nagusi bihurtzen da. Hirugarren fasean, belaunaldi berriek hizkuntza nagusia ongi ikasi ez ezik beretakotu ere egiten dute, eta jatorrizko mintzaira ez-baliagarritzat ikusten hasten dira.

Egoera horretan hizkuntza berria familiaren harremanak eta haurren haziera oinarritzen diren elkarrekintzak hartzera iristea gerta daiteke. Azaldu bezala, hainbat gizatalderen hizkuntza gutxitza eta, batzuetan, are ordezkatza ere eraman duen bilakaera etxek eta familiaz kanpotik, goiko eremu formaletatik hasi ohi da. Ukipenean dauden mintzairaren arteko botere harremanak, prestigioa, estatusa... nabarmen asimetrikoak izateak, hots, hizkuntzen arteko parekotasunik ezak azkenean mintzaira gutxituaren sozializazio baldintzak ukitu eta honda ditzake. Halakotz, hizkuntza ordezkatze bilakaera etxetik urrutien dauden eremuetatik hasten bada ere pixkanaka familia eremuraino sar daiteke, munduko hizkuntzen txostenak (Martí et al., 2005: 284) ohartarazi bezala:

Horren guztiaren ondorioz, prestigiodun hizkuntza erabiltzeko kanpoko presioak areagotuz gero —eta oso litekeena da hala gertatzea, kanpo erabilerraren eremuetan uniformizazio joera nagusitzen ari dela ikusita—, hizkuntz aldaketak harreman pribatuei ere eragingo die, eta espero izatekoa da gaur egun normaltasunez transmititzen diren hizkuntzen transmisioa eteten hastea.

Halako egoeretan gurasoak umeei beren hizkuntza irakasteak ez duela zentzurik has daitezke pentsatzen eta hori gertatzea hizkuntza nagusiaren gibelean dagoen ideologia barneratu den seinalea da. Haur guztiek beren familiaren ohiko mintzaira izan dena ikasten ez dutelarik, hizkuntza transmisioa *erasanda* dagoela erraten da. Eragina erabatekoa delarik, hau da, hizkuntzaren transmisioa eteten delarik, hizkuntza *ordezkapena* da emaitza. Orduan agertzen da umetako hizkuntza sozializazioan jatorrizko mintzaira ongi ikastera iritsi ez den lehen belaunaldia. Anitz hiztun talderendako hori izan da hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko jarraipenaren katea hautsi den kate-begia.

Mintzairaren ondorengoenganatzea haustera iritsi gabe ere, hizkuntza gutxituen belaunez belauneko segida arriskuan egon daiteke. Jakina da hiztunek mintzaira ahulean ihardukitzeko gizarte esparru eta aukera gero eta gutxiago dutelarik, haren erabilera etxe-familia barnera mugatzea jotzen dutela. Orduan umeei hizkuntza gurasoekin eta bertze ahaideekin ikasten dute, baina gainerako gizarte bizitza mintzaira nagusian egiten dute, hau da, haurrei familiaren hizkuntza ikasi eta erabiltzeko aukerak etxera mugatzen zaizkie. Hori hainbat hiztun talderen egoera da eta, familian umeei irakasten bazaie ere,

mintzaira horien jarraipena ia etentzat ematen da (Martí et al., 2005: 283). Izan ere, belaunaldi berriak hizkuntzaz jabetzean hainbat eragilek jokatzen dute (familiak eta bertze frankok: auzo-erkidego hurbilak, eskolak, hedabideek, lan esparruak, administrazioak, bertzeak bertze) eta etxeaz gain bertze ezein arlok umeez mintzaira ikastea bermatzen ez duelarik, hizkuntza sozializazio baldintzak aski kaskailak dira.

Ikerlan anitzek hizkuntzaren atxikitzearen eta ordezkapenaren arazoak argitu nahi izan dituzte. Hizkuntzaren transmisioa etetearen arazoitzat hauek aipatu dira: 1) bertze kultura edo hizkuntza batzuen presioa; 2) administrazio publikoek hizkuntza ofiziala ikasteko egindako presioa edo hezkuntza sisteman erkidegoarena ez den bertze mintzaira bat ezartzea; eta 3) eragile demografikoak, lekualdatzeak edo migrazioak eta bikote mistoen eragina (Martí et al., 2005: 286-293). Aldiz, zenbait hizkuntzaren gizaldiz gizaldiko jarraipenaren alde jokatu duten elementutako hauek aletu dira: 1) mintzairak hizkuntza ofizialaren estatusa eskuratu izana; 2) aitatxi-amatxik bilobei hizkuntza transmititzea nahiz eta seme-alabei irakatsi ez izan; eta 3) nork bere hizkuntzaz egitearen atsegina (ibid., 293-294).

Ikerketarik gehienak *post hoc* eta deskriptiboak izaten dira eta gizatalde jakin batek bere hizkuntzari eutsiko dion edo bertze batez ordezkaturiko duen aurreikustea ez dute ahalbidetzen. Hori horrela, oraindik ez dago hizkuntza taldeek beren mintzairari eustearren gaineko teoria osorik eta hizkuntza ukipen egoerak askotarikoak baitira, egileek (Fishman, 1972: 122-123, konparazione) mintzaira ororendako iraupen edo ordezkapen eragingarri unibertsalak proposatzean, zuhurtzia handiz jokatu beharra nabarmendu dute.

Alde horretatik, mintzaira anitzen bilakabideen ikerketa sakonek hiztun taldeen prozesu eragingarrien gainean argi egin dezakete.

Belaunaldi berrien hizkuntza sozializazio prozesua, mintzairaren iraupenaren barroina

Azken hamarkadetan bioaniztasunaren galeraren ohartarazpen kezkarriekin batera, kultura eta hizkuntza aniztasuna ere larriki urritzen ari dela dioten ikerketa zientifikoak ugaritu dira (Krauss, 1992; Wurm, 1996, 2001; UNESCO, 2003, bertzeak bertze). Munduko hizkuntzen egoera aztertzen duen txostenak (Martí et al., 2005) agertu duenez, aztertutako hizkuntzen % 43k normaltasunez transmititzeko arazoak ditu. Hau da, munduko hizkuntzen ia erdiak ez du epe labur-ertainean jarraipena ziurtaturik. Europako mintzaira gutxituen egoerari so egiten dion *Euromosaic* (Nelde et al., 1996) ikerketa zabalak ere ondorio ilunxko bertsua iritsi du.

Ikertzaileek munduko hizkuntzen galtzeko arriskua zehazteko, hiztun taldeetan zenbat hurrek ikasten duten mintzaira hartu izan ohi dute irizpide nagusitzat. Hala bada, munduko hainbat hizkuntza erkidegok belaunez belauneko jarraipenerako baldintzak eta kide berriak hiztun bilakatzeko bideak arras hondatuak dituzte. Hori horrela, munduko mintzaira gehienak iraungitzeko arriskupean daude eta horrek hizkuntza aniztasunaren galera mundu mailako arazo bihurtzen du.

Hondar urteotako ikerketa batzuek (Williamson, 1991; Fishman, 1997, 2001) hizkuntza gutxiti anitzen familia bidezko transmisioaren edota familia-auzo-eremuko erabileraren ahultasuna eta indartzeko zailtasunak utzi dituzte agerian. Alegia, ikerlanek mintzaira baten belaunez belauneko jarraipena hausten delarik hura berruzartzea zer nekeza izaten den erakutsi dute: «It cannot be over-stressed how difficult the attainment of this stage [familia bidezko transmisioa] is once it is lost» (Hornberger

& King, 2001: 175). Izan ere, hizkuntza gutxituei gaitz gertatzen zaie haur-gazte jendeak familian usu egiten ez duen mintzaira, eskolan landua bada ere, ikastetxetik at erabil dezan erdiestea eta hori, hain justu, mintzairaren ahultasunaren seinaleztat hartu izan da: «The most frequent reason given for decline of the ML [Minority Language] is its absence among the young» (Williamson, 1991: III).

Literatura soziolinguistikoa kontinente guztietako hizkuntza gutxituek haur eta gaztetxoek erabilera berezkoa lortu ezinaren edo horretarako dauden zailtasun handien aipamenez josita dago. Bakar batzuk baizik ez aipatzearen, European eskozieraren kasua (MacKinnon, 1991; MacKinnon & MacDonald, 1980), gaelerarena (Ó Laoire, 1996; Ó Riágain, 2001) eta katalanarena (Alacanten Montoya, 1996; Bartzelonan Galindo & Vila, 2009); Ozeanian maorierarena (Benton & Benton, 2001) eta Amerikan navajo hizkuntzarena (Lee & McLaughlin, 2001).

Bide beretik, familia bidezko transmisioa mintzaira geroratzeko funtsezkoa izateaz gain, hizkuntzaren gizarte egoeraren eta hiztun taldearen bizitasunaren balio handiko erakusle kualitatiboa baita, hizkuntzen *osasuna* neurtzeko belaunaldi berrien erabilari begiratu ohi zaio (UNESCO, 2003). Hori dela eta, ahuldutako hizkuntzak indarberritu eta iraunarazteko proposamenek belaunez belauneko jarraipena bermatzea ziurtatu beharreko premiazko eta lehentasunezko funtzioztat jo dute (Fishman, 1997, 2001).

Literatura soziolinguistikoa, gizaldirik gizaldiko segida kaskaildurik edo etenik egonda hura berrestekatu eta mintzairaren erabilera belaunaldi berrietan sendotu duten hizkuntzen ereduak hagitz bakanak dira. Adibidez, XIX. mende bukaerako eta XX.aren hasierako hamarkadetan hebreeraren kasu arrakastatsuan horixe izan zen gertatutako *great leap* (Nahir, 1988), jauzi handia hizkuntza indarberritzearen aldera: haurrek eskoletan ikasitako hebreera ikastetxetik kanpo hasi ziren erabiltzen. Neska-mutikoen bat-bateko edo berezko erabilera informala eskolatik at, mintzairaren suspertzearen seinale adierazgarritzat jotzen da eta hori gertatzea eta orokortzea lortzen ez delarik, aldiz hizkuntzaren indarberritze ahaleginek beren xedea erdietsi ez dutela uste izaten da. Hala gertatu zen Irlandan XX. mendearen bigarren eta hirugarren hamarraldietan; irlanderaren berreskurapenaren porrota gazte jendeak ikasgeletan ikasi zuen mintzaira eskolaz landara, karrikara eta etxeetara, eraman ez izanari egotzi zaio (Ó Laoire, 1996: 61).

Hala bada, haur-gaztetxoek hizkuntza gutxitua berenganatzeagatik ikusbide gerta dakizkigukeen kasuak hagitz urriak dira. Ikerketa hutsune hori betetzen laguntzea ere, bada ikerlan honen xedea. Izan ere, ikerketa honek euskararen irautearen oinarrian dauden gertakariak ditu aztergai eta erantzun behar dituen galdekizunei Nafarroako gizartearen bilakabidearen berezitasunetik ihardesten die. Halere, ikerketaren ondorioak arazo zabalago bati lot dakizkioke eta euskara bezalako munduko hainbat hizkuntza gutxituren belaunez belauneko jarraipenaren gakoak hobeki ezagutzeko baliagarri gerta daitezke.



2. HIZKUNTZA GUTXITUEN ETA EUSKARAREN JARRAIPENA

Atal hau hiru azpiataletan antolatu dut. Lehendabizikoan, mintzaira gutxituen belaunez belauneko jarraipena hizkuntza-ukipen gertakari zabalean kokatuko dut, zehazkiago, hizkuntza atxikipen-ordezkapen prozesuetan. Horri loturiko literatura sozioantropologikoaren proposamen teoriko-metodologiko nagusiak ekarriko ditut hona.

Bigarrenean, euskararen gizaldirik gizaldiko segidari nola so egin zaion arakatuko dut. Hizkuntzaren iraupena kezka bide izan zuten euskaltzaleen eta lehen ikertzaileen ikusmolde epistemologikotik hasi, egungo euskal soziolinguistikan euskararen jarraipenari heltzeko landu diren hurbilpenak agertu, eta ikerketa honen ikuspegitik interesgarrienak iruditu zaizkidan egileen ekarriak jorratuko ditut, hauek xehekiago.

Azkenik, hizkuntza gutxituen eta euskararen jarraipenaren gaineko literaturaren ekarpenak laburbilduz emanen diot amaiera atalari.

2.1. HIZKUNTZA GUTXITUEN JARRAIPENA LITERATURA SOZIOANTROPOLOGIKOAN

Gauza ageria da hizkuntzen iraupena belaunez belauneko jarraipenean funtsatzen dela. Halaz guztiz, mintzairaren gizaldirik gizaldiko segida ez da soziolinguisten arreta bildu duen gaia izan. Literatura zientifikoan urrixko dira hizkuntza atxikitzea eta beraz, belau-naldi berriek hura ikasi eta erabiltzeko baldintzak bermatzea erdietsi duten hiztun taldeen adibideak. Orobat, bakan batzuk baizik ez dira galera prozesu historiko baten ondoren, gizarte erabilera apal-apala izanda indarberritu diren hizkuntzen kasu dokumentatuak.

Mintzaira ordezkatzeko bilakaera, ordea, hagitzez sarriago eta zehazkiago jorratu izan da eta beraz, egun hobeki ezagutzen dugu hiztun talde baten hizkuntza historikoaren jarraipenaren etena eta ordezkapena, erasanda dagoen mintzairari eutsi eta hura suspertzeko motibazio eta bideak baino⁷.

⁷ David Crystal (2001: 145-146) hizkuntzalariak honela dio: «... la mayor parte de las situaciones donde hay peligro no admiten [sic] un análisis fácil, como tampoco se comprenden en su totalidad los diversos factores ni cómo interactúan. Sabemos mucho sobre por qué las lenguas sufren el peligro de extinción y mueren, y por qué la gente cambia de una lengua a otra (...), pero sabemos muy poco de por qué se mantienen, y por qué la gente les sigue siendo leal».

Ralph Fasoldek (1995: 227) salatu bezala, literatura soziolinguistikoan ikertzaileen interesa ez ohi da hizkuntza gutxituen atxikitzeke gertakarietara zuzendu (migratutako taldeen kasuan izan ezik) eta hizkuntza horiei iraunarazteko ahalegin eta gizarte aldaketak maiz ikusezinak izan dira gizarte zientzien literaturarako. Ikertzaileek *tradizioaren irautea* ikusi dute, ez *tradizioari eustea* edo *tradizioari iraunaraztea*, Joshua Fishmanek (1997: 389) ohartarazi duenez: «Voluntarism is assumed only in the destruction of tradition and never in its implementation, development, recovery or defense».

Kritika hori egunik, zenbait egile (Burke, 1987; Fasold, 1995; Fishman, 1997) hizkuntzen eta kulturen iraupenaren oinarrian hiztunen eta hiztun taldeen hautu-erabakiak daudela onartzean irizkide agertu dira. Haien ustez mintzairaren iraupena (eta irauingipena) hiztunen hizkuntza hautuek azkenean dakartzaten emaitzak dira (Fishman, 2000: 93), edo bertze hitzetan erranda, norbanakoen hizkuntza-hautu eredu koherenteek epe luzera duten gizarte ondorioa (Fasold, 1995: 213 eta 239). Alde horretatik, hizkuntza gutxituen atxikitzea eta ordezkatzeta txanpon beraren bi aldeak dira (ibid., 213), bi prozesuen gibelean hiztun elebidunen hautuak baitaude.

Ikerketa honetan, hizkuntzen biziaren eta iraupenaren muina den belaunez belau-neko jarraipenaren oinarrian hiztun elebidunen hautu-erabakiak daudela aitortzen duten egileak izanen zaizkit bereziki ernagarri. Hurren ataltxoetan aztergai dudan prozesuari heltzeko erreferentzia teoriko-metodologiko nagusiak aipatuko ditut, hizkuntza-ukipen gertakaritik hasita.

2.1.1. Hizkuntzak ukipenean. Uriel Weinreich

XX. mendearen erdialdean *Languages in Contact* liburuan hizkuntza ukipenaren aitzin-gibelak eta aurki-binperrak arakatu zituenetik, Uriel Weinreich teoriarari lituaniar-iparramerikarra elebitasuna jorratzen duen soziolinguistikarako baitezpadako erreferentzia bilakatu da. Elebitasunari lotutako gaien ikerketan, aitzindari eta bidegile nagusi horren lanek ondoko soziolinguistei biziki eragin diete. Ikerketa honen aztergaiaren ikuspegitik bereziki baliagarri gertatu zaizkidan alderdiak aipatuko ditut.

Weinreichek hizkuntza ukipenaren alde soziokulturalari doakionez, hiztun elebidunen portaerak ulertzeko gizartetik eta kulturatik datozen eragingarrien garrantzia nabarmendu zuen.

Egile honendako, hiztun elebidunek hizkuntzekin dituzten harremanak ez dira zurrinak edo mugiezinak, aldagarriak eta mintzairaren gizarte egoerari lotuak baizik. Hiztunak dakizkien hizkuntzekiko bere burua nola kokatzen duen azaltzeko irizpide psikologiko batera jo zuen: *dominance* edo nagusitasunaren irizpidera (Weinreich, 1979: 74-75). Hiztun batendako hizkuntza nagusia zein den zehaztea ez da erraza, eta irizpideak askotarikoak izan daitezke: hiztunak mintzaira batean eta bertzean dituen gaitasunak, irakurtzen eta idazten ote dituen, zein ikasi zuen lehena, hizkuntzek komunikatzeko duten erabilgarritasuna, hiztunak mintzaireri zer emoziozko atxikimendu dien, hizkuntzek gizartean goiti egiteko balio ote dioten, hizkuntzen literatura eta kultura balioekiko dituen jarrerak... (ibid., 74-79). Irizpide horiek ez dute elkar baztertzen eta Weinreichek batera hartzea proposatzen du, hiztunen hizkuntza nagusitasunaren irizpideen konfigurazioa («configurations of dominance criteria», ibid., 75) delakoa eratu eta, behin hori eginez gero, hiztun elebidunen hizkuntza portaerarekin alderatzeko. Haren ustez, hizkuntza bat baino gehiago dakizkiten hiztunen barnean mintzairak duten estatusa denboran zehar alda daiteke.

Soziolinguistaren iritziz (ibid., 76), lehen hizkuntza definizioz hiztunaren mintzaira nagusia, *dominant*, izaten da: «The distinction of having been first is so great that the first-learned language, the ‘mother tongue’, is generally considered dominant by definition». Ama hizkuntzari hiztunaren gaitasunik onena eta atxikidura emozionalik sendoena esleitzen badizkio ere, gizarte eta kultura eragingarrietakoren bat bertzelakotzen bada, hiztunaren baitako mintzaira nagusia ere alda daiteke (ibid., 76-78).

Weinreichek norbanakoaren hizkuntza erabileratik abiatuta hiztun talde handien hizkuntza portaera aztertu zuen. Izan ere, hiztun baten baitan mintzaira bat nagusi izatea dakarten zenbait faktore (komunikatzeko erabilgarritasuna, gizartean goiti egiteko baliagarritasuna...) ingurutik datoz zuzen-zuzenean eta horregatik, hiztunaren baitan hizkuntza batek duen nagusitasuna hiztun taldera ere heda daiteke: «It is clear that of the factors which make a language dominant for a bilingual (...) are given to the individual by his surroundings; the relative status of the language is therefore likely to be the same for most bilinguals in an undifferentiated environment» (1979: 83).

Hizkuntza ukipeneko gizarte egoeran mintzaira baten nagusitasunari eragiten dioten alderdien artean, honako hauek aipatu zituen Weinreichek: hizkuntzen funtzioak, hizkuntzen arabera bereizketak eta bertzelako ezaugarri soziokulturalen (gizarte mailaren, kultura mailaren, nekazari bizimoduaren/hiritar bizimoduaren, erlijioaren...) arabera bat etortzea, hiztunen hizkuntza leialtasuna eta hizkuntza ukipenak iraun duen denbora (ibid., 87-108).

Soziolinguista lituanier-iparramerikarrak hizkuntza ordezkapena honela definitu zuen: «... the change from the habitual use of one language to that of another» (ibid., 68 eta 106). Haren definizioan, hizkuntzaz aldatzea *erabileraren obikoari* dagokio, ez hizkuntza gaitasunari. Hiztun elebidunek dakizkiten bi hizkuntzak erabil ditzakete eta beraz, hauta dezakete. Prozesu horri dagozkion inguruabarrak erabat hizkuntzaz kanpoko kontuak dira eta ukipenean dauden mintzairaren funtzioen arabera aztertu beharrekoak, soziolinguistaren iritziz (ibid., 106-107). Horretarako, Weinreichek ama hizkuntzaren arabera taldeak banatu eta biak bereiz aztertzea proposatu zuen. Talde batean hizkuntzak bete dezakeen funtziorik erabakigarriena familiaren mintzaira izatea da eta hor hizkuntza aldaketa gertatzen denean, ordezkapena burutu dela erran liteke. Izan ere, zenbaitetan funtzio horri begiratu izan zaio batik bat hizkuntza ordezkapena gertatu den ala ez ebazteko: «... rather than examine the shift function by function, Selk concentrated on the family level and consequently reported only the total shift» (ibid., 109).

Hautzaroko hizkuntzari, hiztunen ama hizkuntza izaten ohi den horri, esleitu zizkion Weinreichek atxikimendu afektiborik sendoenak: «... it is usually the childhood language, or mother-tongue, which enjoys the resulting strong attachments» (1979: 109). Orobat, lehen edo ama hizkuntzari loturik azaldu zuen hiztunaren hizkuntza leialtasuna, «*Language Loyalty*», honela definituta (ibid., 99): «... a principle—its specific content varies from case to case—in the name of which people will rally themselves and their fellow speakers consciously and explicitly to resist changes in either the functions of their language (as a result of a language shift) or in the structure or vocabulary (as a consequences of interference)».

Weinreichen ustez, hizkuntza leialtasuna eta horri doazkion bertze gertakariak sistematikoki landu beharrekoak dira. Haren iritziz, hizkuntza leialtasuna hiztunek beren ama hizkuntzari dioten berezko atxikimenduan dago errotuta (ibid., 99-100): «One would suspect that a rudiment of this feeling is natural in every user of language,

because the inescapable emotional involvement with one's mother-tongue as one learned it in childhood (...) makes any deviation seem repugnant».

Mintzaierek taldeen sinbolotzat jokutzen baitute, hizkuntza leialtasuna bereziki hizkuntza ukipen egoeretan agertzen da eta hiztunak mintzairaren kontrako mehatxuen —izan benetakoen, izan irudizkoen— aurka ateratzera bultzatzen ditu (ibid., 100). Halere, batzuetan hiztunek beren ama hizkuntzari dioten leialtasun hori hauts daiteke eta jokaera desberdinak kausi daitezke menpeko taldeko kideen artean (ibid., 101):

The more “realistic” members of an objectively dominated group may attempt to better their lot by associating themselves with the dominant group. The sight of such “betrayals” invariably causes resentment among the more steadfast members of the dominated group, a resentment which brings with it unswerving language loyalty. Divergent reactions and consequent resentful loyalty can be found in almost any type of group contact congruent with a mother-tongue division: ethnic and cultural contact, immigrant and indigenous populations, lower and higher social strata, rural and urban sections, old and young age groups. The way in which the dominated group splits can sometimes be explained by its internal makeup.

Halakotz, hizkuntza leialtasuna ez da hain atxikimendu *berezkoa* eta ordezkatzeko prozesuetan bereziki hiztunen artean portaera desberdinak ager daitezke.

Metodologikoki Weinreich (1979: 4-5) diziplinartekotasunaren beharra aldarrikatu eta batik bat hizkuntzalaritza, antropologia eta psikologia jakite arloetako ekarpenak uztartzearen alde egin zuen: «... they are all essentially complementary in understanding a phenomenon of so many dimensions». Egile honek itzal handia izan du XX. gizaldiaren erdialdetik aitzina garatu den soziolinguistikan.

2.1.2. Hizkuntza atxikipen eta ordezkapena

Ikerketa anitzek hizkuntza atxikitzeari edo ordezkatzeari eragiten dioten faktore bertsuak aipatzen dituzte (migrazioak, industrializatzea eta bertze aldaketa ekonomiko batzuk, hizkuntza eskolan irakastea eta gobernuaren bertzelako erabakiak, urbanizatzeko prozesuak, hizkuntza ordezkatzailaren prestigio handiagoa edo mintzaira ordezkatuaren komunitateak hiztun gutxiago izatea, bertzeak bertze). Halaz guztiz, oraindik ez dago eredu teoriko osorik aurreikusteko noiz gizatalde batek eutsiko dion bere hizkuntzari eta noiz bere mintzaira ordezkatu duen: «In fact, there is considerable consensus that we do not know how to predict shift» (Fasold, 1995: 217).

Hizkuntza atxikitze eta ordezkatzeko gertakariak ikermolde batetik baino gehiagotatik aztertu dira, soziologiatik eta antropologiatik batik bat (ibid., 8. kap.). Hurren ataltxoetan horri helduko diot.

2.1.2.1. Ikermolde soziolinguistikoa

Soziologo eta soziolinguistek ikerketa kuantitatiboak nahiago izan dituzte eta batik bat zentsu-errordia eta inkestetako datu estatistikoez baliatu dira. Hizkuntza atxikipen eta ordezkapen prozesuen azterlan anitzek maila makroko eragingarriak dituzte oinarri: hizkuntza politika, hizkuntza jarreraren gaineko neurketak edo hizkuntza portaerei buruzko inkesta eskala handikoak. Ikermolde honetan Joshua Fishmanek leku berezia merezi du.

2.I.2.I.I. Joshua Fishman

Joshua A. Fishman soziolinguista estatubatuarrak hizkuntza-atxikitze eta ordezkatzeko —*language maintenance and shift*⁸— ikerketa arloan, ekarpen handiak egin ditu eta mintzairaren eta kulturaren belaunez belauneko transmisioa bere ahalegin soziolinguistikoen helburuan txertatu du. Izan ere, Fishmanek hizkuntza gutxituen iraupena zertan datzan aztertu eta horri laguntzen dioten eragingarrien eredu teorikoa proposatzea izan du xede: «... concerns, all of which together, constitute a theory and a model of the intergenerational transmission of language, culture, society and identity» (1997: 396).

The Sociology of Language liburuan, hizkuntzaren iraupen eta ordezkapen prozesuak aztertzeko hiru azpisail proposatu ditu (1972: 7. kap.):

a. Hizkuntzaren erabilera ohikoa denboraren eta espazioaren puntu batean baino gehiagotan aztertzea.

Hizkuntzaren iraupenaren eta ordezkapenaren azterketarako oinarritzko datua hizkuntzaren ohiko erabilera eredian aldaketa frogatua gertatu izana dugu (ibid., II0). Hizkuntzaren erabileraren antolaketa atzemateko funtsezko kontzeptua *domain* da, hau da, jardungunea⁹ edo erabilera esparrua¹⁰. Fishmanen iritziz, jardungunearen itxuratzea elebitasunaren eta hizkuntzaren iraupen eta ordezkapen prozesuen ikertzai-leendako erronka handia bezain zaila da (ibid., II9).

b. Hizkuntzaren iraupen edo ordezkapenak eta hori gertatu aurreko, aldibereko eta ondoko prozesu psikologiko, sozial eta kulturalek elkarrekin duten harremana aztertzea (ibid., I22).

... the understanding of language maintenance or language shift must depend on a theory of sociocultural contact and sociocultural change (...). Thus the selection of psychological, social, and cultural variables for the study of language maintenance and language shift may well be guided not only by impressions of what seem to be the most relevant processes in a particular contact situation but also by more general theories of personal, social, and cultural change.

Hizkuntzaren iraupenari eta ordezkapenari eragiten dieten faktore batzuek egotzen arabera hala iraupenerako nola ordezkapenerako lagungarri direla ikusita, hizkuntza atxikitze eta galtzearen eragileen gaineko erregulartasun unibertsalik ezartzerik ez dago (ibid., I22-I23).

c. Hizkuntzaren gaineko jarrerak eta hizkuntzari irauaraztera edo mintzaira ordezkatzera zuzendutako jarduerak aztertzea.

Hizkuntza jarreraren hiru oinarritzko kategoria bereizi ditu: i) hizkuntzaren gaineko jokaera afektiboak eta emozioak: leialtasuna, gorrotoa, aurreiritziak (ibid., I40-I43); ii) hizkuntzaren inguruko jarduera eta ekintzak: hizkuntzaren aldeko mugimenduak, hizkuntza plangintza, hizkuntza hezkuntza sisteman sartzea, bai eta hizkuntza erabiltzeko eragozpenak eta debekuak ere (ibid., I43-I44); iii) hizkuntzari lotutako alderdi kognitiboak: hizkuntza kontzientzia, hizkuntza gaitasuna, hizkuntzaren lanketa estilistikoa eta haren ezagutza, nork bere taldearen gainean duen hautematea, hizkuntzaren aldetik (ibid., I45-I49) eta iv) interferentzien aurreko jarrerak (ibid., I49-I50).

⁸ Fishmanek (1964) sortutako kontzeptu eta ikerketa arloa.

⁹ Zalbidek (2009) euskaraz *jardun-gunea* emana.

¹⁰ Erizek (1997) euskaraz hala emana.

Fishmanek hizkuntzaren iraupen eta ordezkapen prozesuetan joera ezberdinak erakutsi dituzten bi eredu soziolinguistiko historiko aipatu ditu:

a. Hizkuntza talde dislokatuak, hizkuntzak jardungune edo erabilera esparruetan funtzionalki bereizirik izateko gai izan ez direnak eta, hizkuntzak funtzionalki bereizita ez egonda, taldearen nortasunean, hala etxe-auzoan nola taldearen barne bizitzaren bertze arloetan ere hizkuntza beharrezkoa ez izatera iritsi direnak. Horrela nagusitu da ingelesa Ipar Amerikako hirietara migratutako hizkuntza taldeen artean, errusiera gutxiengo sobietarren artean, gaztelania Hego Amerikako hirietara bildutako talde indigenen artean, edo wolofera Dakarrera aldatu ziren Senegalgo taldeen artean (1972: 152-153).

b. Hain dislokatura ez dauden hizkuntza talde sedentarioak politika, hezkuntza, gizarte eta ekonomia mailako kanpoko eraginei aurre egiteko gai izan direnak. Horren erakusgarri honako hauek eman ditu: Quebec, non frantsesaren erabilera gero eta gehiago nagusitu baita hezkuntzan, industrian nahiz administrazioan; eta Puerto Rico, Tanzania, Kenya, India, Pakistan, Malasia eta Filipinak ingelesaren edo mendebaldeko bertze hizkuntza bat(zu)en aitzinean beren mintzairak sendotuz joan baitira (ibid., 154).

Reversing Language Shift liburuan, hizkuntza mehatxatuen aldeko mugimenduen eta haien oinarri teorikoen gainean jardun du Fishmanek. Lan horretan hizkuntza ordezkapena iraultzeko (*Reversing Language Shift [RLS]*¹¹) eredu teorikoa eta hainbat hizkuntza komunitateren kasu azterketak eskaini ditu. Kulturaren jarraipena eta aldaketa elkarloturik dauden prozesutako hartzen ditu Fishmanek: «Cultural continuity and cultural change are always and inevitably intertwined with each other» (1997: 34). Hizkuntzari irauarazte eta mintzaira ordezkatzeko prozesuei ikuspegi etnokulturetik so egin die eta hurbilketa horretan autoerregulazio etnolinguistikoaren ideia eta muga soziokultural kontzeptua jorratu ditu (ibid., 5)¹²:

... sociocultural boundaries: values, rituals, traditions, belief-systems and unifying and encompassing vision of 'being an Xman-via-Xish', i.e. of using the traditional own-ethnicity-associated language for purposes of ethnic self-definition and association. Indeed, intimacy, family, community, identity and affiliation are essences of ethnocultural creativity and continuity...

Izan ere, soziolinguista honendako ahuldurik eta galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen kulturek ezin dute segitu, hein handi batean, beren kideen eguneroko bizitzak erregulatzeko: «... weakened and endangered pertain to cultures that no longer significantly regulate the daily lives of their members» (1997: 8). Hau da, hiztunek ezin dute beren gizarte funtzio nagusiak hizkuntza horretan (Xeraz) egin: lana, erosketak, kirola, aisia, kultura... Fishmanen iritziz, hizkuntza taldeek beren autoerregulazio etnokultureala bermatzeko komunitatearen eguneroko bizitza arrunta da lehenetsi behar dena, horren barnean gauzatzen baita hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa.

¹¹ Zalbidek (2003) HINBE (Hizkuntza INdarBerritzea) akronimoa eman du *RLS* siglen euskal ordaintako.

¹² Fishmanek (1997) hizkuntza ahuldu, mehatxatu edo arriskupekoari errateko *X* erabiltzen du (Xera [*Xish*] eta Xduna [*Xman*]) eta *Y* mintzaira nagusia —*Big Brother* (2001) delakoa— adierazteko (Yera [*Yish*] eta Yduna [*Yman*]).

Fishmanek hizkuntza komunitatearen eta harreman sareen gizaldirik gizaldiko dislokazio soziolinguistikoa («sociolinguistic disruption») neurtzeko eskala, *Graded Intergenerational Disruption Scale* (GIDS), euskaraz Belaun Arteko Etenaren Neurria (BAEN)¹³, proposatu du. Eskala horretan zortzi maila soziolinguistikoko antolatuta daude behetik goiti. 8. mailari dislokazio soziokulturalik handiena dagokio: «... the higher the GIDS rating the lower the intergenerational continuity and maintenance prospects of a language network or community» (ibid., 87).

8. mailari dagokion egoeran dauden hiztun taldeek eten-hauste orokorra izan dute. Egon ez dago hiztun talderik ez eta harreman sarerik ere, egunez eguneko bizitza mintzaira horretan egiterik ahalbidetzen duenik, hiztun adindun bakan batzuk baizik ez baitira gelditzen. Hizkuntzaren jarraipen eten ia erabateko egoera horretatik abiatu du Fishmanek bere eskala eta goiti egin ahala (zenbakietan beheiti), hiztun taldearen osaera eta autoerregulazio soziokulturala hobetuz doaz. Maila bakoitzean (goikoak azpikoak barnebiltzen dituela) bermatu beharrekoa adierazita, honela aurkeztu du Fishmanek aipatu eskala:

Taula
Fishmanek proposatutako BAEN

HIZKUNTZA INDARBERRITZEKO MAILAK
BELAUN ARTEKO DISLOKAZIOAREN LARRITASUNA

(behetik goiti irakurtzekoa)

1. Hezkuntza, lan arloa, hedabideak eta gobernu ekintzak goi eta nazio mailetan.
2. Tokiko/herrialdeko hedabideak eta gobernuko zerbitzuak.
3. Tokiko/herrialdeko (i.e ez auzoko) lan arloa, Xdunen artean eta Ydunen artean.
- 4b. Eskola publikoak haur Xdunendako, irakaskuntzaren zati bat Xeraz eskainiz baina funtsean *curriculum*a eta langileak Yeraren kontrolpean.
- 4a. Eskolak, derrigorrezko hezkuntzatik kanpo daudenak, eta funtsean *curriculum*a eta langileak Xeraren kontrolpean.

II. Behin diglosia erdietsiz gero, hura gainditzeko HINBE,

5. Alfabetatzeko eskolak, helduendako nahiz gazteendako, eta ez derrigorrezko hezkuntzaren ordeztu.
6. Belaunik belaun eta demografikoki kontzentratuta dagoen etxe-familia-auzoa: ama hizkuntzaren transmisioaren oinarria.
7. Kultura elkarrekintza Xeraz batik bat komunitateko belaunaldirik zaharrenean.
8. Xeraren berreraketa eta jende helduak Xera bigarren hizkuntza gisa ikastea.

I. Diglosia erdiesteko HINBE (aldeztu aurreko argitze ideologikoa jakintzat emanda)

Iturria: Fishman (1997: 395) (nik euskaraturik)

¹³ Zalbidek (2004) horrela itzulita.

Eskalako 6. maila etxe giroko, auzo inguruko eta hurbileko komunitateko hizkuntza erabilpenari esleitu dio, hau da, ama hizkuntzaren eta transmisioaren oinarria den guneari. Fishmanek maila hori funtsezkotzat jo du: «... stage 6 is such a crucial stage, the stage of daily, intergenerational, informal oral interaction, that it requires full appreciation and extra-careful attention. The core of this stage is the family» (1997: 94).

Familia bidez transmititzen diren munduko hizkuntzarik gehienak maila horretan daudela dio Fishmanek, bizirik dirautela eta, zenbait kasutan hazi ere egin direla, dislokazio maila larriagoetara pasatu gabe (1997: 92). Honela deskribatzen du 6. mailako hizkuntza erabilera (ibid.): «At this stage, Xish is the normal language of informal, spoken interaction between and within all three generations of the family, with Yish being reserved for matters of greater formality and technicality than those that are common fare of daily family life».

Mehatxatutako hizkuntza berrindartzeko 6. maila horretako xedeak honako hau behar du izan Fishmanen iritziz: a) utzi atzean ordura artio izandako *modus vivendi* soziolinguistikoa eta b) sortu bertze bat demografikoki kontzentratua eta belaunez belaur jarraitua (ibid., 92). Finean, ahalbidetu behar dena honako hau da (ibid., 92-93): «Xish-speaking young folks with additional vital opportunities for the formation of new 'families of procreation' and for informal interaction outside of the confines of their 'families of orientation'».

6. maila horretan, familia gunetik hasita gizarte antolaketa handiagoetara igotzea, hau da, mintzaira gutxitua familiaren barneko hizkuntza izatetik familien arteko elkarrekintzen hizkuntza izatera igarotzea da Fishmanek ezarri xedea. Maila horrek auzo eta komunitateko (tokiko) erakunde ekonomiko, erlijiozko, kultural eta aisialdikoak biltzen ditu (1997: 93). 6. mailak hizkuntza komunitatearen eguneroko bizitza informala biltzen du (ibid.), baina kontzentrazio demografikoa edo Xeraz funtzionatzea ezinezkoa zaien mintzaitararako bertzelako estrategia eta taktikak ere lagungarriak izan daitezke, tokiko hedabideak, kasu.

Beraz, hizkuntza indarberritzeko Fishmanen eredian bereziki sendotu beharrekoa etxe-familia-auzo-komunitate hurbileko esparrua da, haurtzaroko bizitzaren eta belaunez belauneko ama hizkuntza transmisioaren *mundu osoa* baita: «The home-family-neighborhood-community complex is the normal 'whole' of childhood life and of intergenerational mother tongue transmission» (1997: 95).

Hizkuntza indarberritzeko prozesuan Fishmanek hizkuntzaren familia bidezko transmisioari ematen dio lehentasuna, eskolaren, hedabideen, arlo sozioekonomikoaren eta bertzelako eremuen aitzinetik. Izan ere, 6. mailaren *berotasunik* gabe, HINBE mugimenduek lotura pertsonal eta emozionalatik urrun geratzeko joera izanen dute (ibid., 95). Eskolatzearan inguruan, Fishmanek oso garbi du eskolak ama hizkuntzaren transmisioa osatu eta gero (eta ez lehenago) etorri behar duela (ibid., 103): «... schooling comes after (not before) mother tongue transmission has already transpired. Its role in RLS is dependent on its ability to connect back with and reinforce the Xish family-home-neighborhood-community nexus in a supportive fashion, while children are still impressionable».

Azken batean, Fishmanek hizkuntza transmisioan komunitateak duen garrantzia nabarmendu du. Haren ustez, hizkuntza erabiltzen duten familien eta auzoen komunitateak baizik ez baitu ziurtatzen hizkuntzaren transmisioa (1997: III): «... only such a community, made up of demographically concentrated Xish-using families and

neighborhoods, can provide the basic mechanisms that safeguard the processes of intergenerational mother tongue transmission».

Reversing Language Shift lehen aldiz argitaratu zenetik hamar urte bete zirelarik, 2001ean, soziolinguista estatubatuarrak hizkuntza indarberritzeko ereduaren berrikuspen lana argitaratu zuen eta bortz kontinenteetako mintzaireren egoeren azterketak bildu. Bere proposamen teorikoa mundu zabaleko hizkuntza egoera desberdinetara aplikatu eta ondoan Fishmanek ereduari nabardura batzuk egin zizkion. Arriskupeko hizkuntzek beren baliabide ahuleko egoerari ahal den abantaila gehien ateratze aldera 1) *funtzioen lehenasuna* eta 2) *funtzioen arteko loturen lehenasuna* ezartzea proposatu zuen (2001: 14). Funtzioek elkar josi behar dute, erraterako, eskola eraginkorra izanen bada, haurrak ikastetxearen bidez Xeraz jabetu baino lehenago (edo aldi berean) helduek bigarren hizkuntzatarako ikasi beharko lukete eta funtzioen arteko estekatze horrek gaztetxoek eskolaldia bukatu eta ondoren ere segitu beharko luke (ibid., 15): «It is the linkage that enables the threatened language to become a first language of a new generation and that enables the school for children to be more than constantly (intergenerationally) a second language teaching institution».

HINBERen aplikagarritasunaren behaztopak eta ereduari egindako kritikak

Zenbait egilek (Appel & Muysken, 1990; Nelde et al., 1996), deterministatzat jo dute ikusmolde makrosoziologikotik, eta bereziki *domain* eta *diglossia* kontzeptuetatik, eraturako ereduak batik bat jardungune jakinetan indarrean dauden gizarte arauetara begiratzen baitie: «... the emphasis lies on a set of given societal norms rather than on the ways speakers construct, interpret and actively transform social reality» (Appel & Muysken, 1990: 23).

Friedmanek (2012: 632) jaso duenez, zenbait ikertzailek ere zalantzazko jo dute Fishmanen mintzaireren belaun arteko etena neurtzeko eskala, komunitate indigenen —adibidez, kitxua taldeen (Hornberger & King, 2001: 185)— hizkuntza indarberritze bilakabideak azaltzeko egokia ote den.

Bertzalde, hizkuntza gutxitu batzuen suspertze prozesua azaltzeko BAEN ereduko funtzioen hurrenkera eta haien arteko harremanak eragozpenzat aipatu dira. Katalanaren egoerari so eginda, hizkuntza politikak familiaren eremuan duen eragin nabaria aipatu dute (Strubell, 2001: 268). Irlandan gaiera irakasbide duten eskolek ikasleen familien barnean hizkuntza gutxituaren oinarritzeko erabilera sustatzen dutela utzi dute agerian (Ó Riagáin, 2001: 203). Euskal Herriaren kasuan, Azurmendik, Bacheoek eta Zabaletak (2001: 256-258) eskolaren eta etxe-auzo eremuaren arteko eragina eta elkarrekiko menpekotasuna nabarmendu dute: «... the current trend of interdependence between education and the home-neighbourhood-community sphere, with respect to the intergenerational transmission of Euskara» (ibid., 252). Aipatu hiru euskal egileek lurralde administratiboan (EAEren, Nafarroaren eta Iparraldearen) artean dauden aldeak begi bistakoak direla erranda, 1990etik 2000ra euskara indarberritzeko bilakaerak aitzina egin duela ondorioztatu dute, baina horrekin batera, oro har, bilakaeraren azterketa egiteko Fishmanen eredu bere osoan aplikatu ahal izatea auzitan paratu dute. Haien ustez, euskararen egoeran BAEN ikermoldea zatika baizik ezin da aplikatu:

The process followed for the recovery and normalisation of Euskara has not been entirely linear, but rather spiral, and with a some overlapping. That is,

goals corresponding to different stages on the GIDS model have been pursued simultaneously. The GIDS model has been followed in terms of establishing priority goals for the recovery and normalisation of the use of Euskara in the home-family-neighbourhood-community spheres, and the intergenerational transmission of Euskara as an LI. These goals have been present throughout the entire Euskara recovery process. There are different reasons for this (...). But there is still not enough research on the matter (Azurmendi, Bachoc & Zabaleta, 2001: 257).

Fishmanek (2001: 16) bere ereduaren aplikazioan atzemandako behaztopen aitzinean HINBERen baliagarritasuna defendatu eta funtzio mailen arteko estekak, alde aurretikoak nahiz ondorengoak, iradoki ditu: «RLS theory does not posit any evolutionary, inescapable or obligatory sequence of functional stages: it merely posits that there must be strategic support or linkage stages, both anticipatory to and subsequent to any crucial target function».

Metodologia

Fishmanek diziplinartekotasunaren alde egin du eta hizkuntzen iraupen eta ordezkapen prozesuak, eta horren barnean gutxiengoan ama-hizkuntzen belaunez belau-neko jarraipena, ikuspuntu etnokulturaletik aztertu ditu, gizataldearen beraren ikusmoldea (*emic* ikuspegia) hobetsiz. Soziolinguista estatubatuarrek erregulartasun kulturalak eta diakronikoak bilatzeko, metodo konparatiboa ezinbestekotzat eman du (1972: 139). Aztertzen diren egoerak ahal den sakonkien ezagutzera jo behar dela aldeztu du eta horretarako, teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak, eskala handiko ikerketa zabalak eta eskala txikiko ikerketa zehatzak uztartzearen alde agertu da (Fishman, 1972, 1984, 1997).

2.1.2.1.2 Hizkuntza gutxituen jarraipenaren gaineko zenbait azterketa soziologiko

Mintzaira gutxituen belaunez belau-neko jarraipena aztermolde makrosoziologikotik arakatu duten ikerketen artean, Europar Batasuneko gutxiengo hizkuntza taldeen produkzioa eta erreprodukzioa aztertu dituen *Euromosaic* (Nelde et al., 1996) txostena dago. Spolskyk (1996) ikuspegi makroko azterketa soziolinguistikoa egin du hebreeraren eta maorieraren indarberritzearen baldintzen gainean. Gure inguruko hizkuntza gutxituen transmisioa aztergai hartu duten ikerketa batzuk ikuspegi soziologiko-kuantitatibo horretatik eginak daude, erraterako galesarena (H. M. Jones, 1995, 2008), eskozierarena (MacKinnon & MacDonald, 1980), katalanarena (Vila, 1993; Melià & Villaverde, 2008) bai eta euskararena ere, gero azalduko dudanez.

Zenbait egilek (MacKey & Cartwright, 1979; Lieberman, 1980), ordea, metodologia kuantitatiboaren bidez eskuratzen diren datuak, gehienetan hiztunek berek aitortuak, ongi ez interpretatzeko arriskuaz ohartarazi dute, eta Fasoldek (1995: 216) estatistika datu hutsek hiztunek hizkuntza aldatzeko dituzten arrazoiak azaleratzeko duten balio eskasa aipatu du: «Another problem in using survey data on language shift is connected with the discovery of causes».

Hizkuntza gutxituen jarraipena aztertze bertzeko ikerketa soziolinguistiko batzuek ikuspegi kualitatiboagoa eta, gehienetan, mikroagoa hautatu dute, adibidez Günter Behlungek (1996) eta Steven Chrispek (2005). Lehenak Languedoc-Roussillon eskualdean kultura eta hizkuntza okzitaniarren transmisioaren aldeko motibazioak aztertu ditu. Okzitanieraz eskolatutako umeen gurasoei egindako inkestak eta ikasle nerabeekin izandako elkarrizketak datu iturri nagusi izanda, Behlungek gurasoen nahiz ikasleen okzitanierarekiko motibazioak batik bat alderdi afektibo eta subjektiboei loturik kausitu ditu.

Chrispek (2005) Zeelanda Berriko maorieraren belaunez belauneko transmisioari laguntzen dioten eta belaunez belauneko hizkuntza jarraipena sendotzen duten faktoreen azterketa egin du. Ikerketa honek maoriera-ingelesa elebidunak diren gurasoen hizkuntza jarduera eta jarrerak aztertze metodologia kualitatiboa (oinarrizko galde-tegiak, eztabaida taldeak eta elkarrizketak) baliatu eta elebidunen artean hizkuntza hautuari eragiten dioten faktoreak aztertze eredu proposatu du, lau zutabeok aintzat harturik: a) *Hizkuntza ezagutza* (guraso elebidunen hizkuntza gaitasuna *continuum*tzat hartuta, hizkuntzak ikaste adina, modua...); b) *Egoera* (inguruko eragileak, batzuetan maila makrokoak baina hiztunaren hizkuntza hautuari eragiten diotenak); c) *Motibazioa* (hizkuntza gaitasunak ez baitakar zuzenean erabilera, gurasoek hizkuntza erabiltzeko gogoia izan behar dute); d) *Kontzientzia kritikoa* («critical awareness», gurasoek hizkuntza beren seme-alabei transmititzeko har dezaketen erabakien eta erabaki horiek dituzten ondorioen jabe diren ala ez). Eredu horretan, hiztunen alderdi psikolinguistikoei dagozkienak (ezagutza, motibazioa eta kontzientzia kritikoa) nagusi dira egiturazko alderdien (egoeraren) aldean.

Azken hamarkadetan, soziolinguistek eta antropologoek beren metodologiak hurbiltzera jo dute; halaz guztiz, oraindik bi jakite arlo horietako ikertzaileen artean alde metodologiko handia dago, batik bat ikermolde mikrosoziolinguistikoaren eta makrosoziolinguistikoaren arteko hausturei —edo *continuumari*— doakienez.

Ikusmolde soziologikoak dituen mugak Appelek eta Muyskenek (1990: 32-33) ere aipatu dituzte. Hizkuntzalari horiek ohartarazi bezala, mintzaira atxikitze edo ordezkatzeko prozesuetan eragiten duten faktoreak ikasteak ez digu hizkuntzaren jarraipen-eten bilakaeraren ezagutza sakona bermatzen. Izan ere, funtsaren funtsean, eragingarri eta arrazoiak askotarikoak izanda ere, hiztunen eguneroko hizkuntza elkarrekintzetan daude sustraituak, eta maila horretan aurkitu behar dira: «Knowledge of these factors does not guarantee insight into the process of language shift, since people bring this about in their daily speech, and it is on this level that explanations for shift must be found».

Bide beretik, Fasoldek (1995: 216) oinarri kuantitatiboa eta hurbilpen soziologikoa duten lanen aldean, ikusmolde antropologikodun ikerketa hobetsi du —hurbilen atalñoan agertuko dudak bezala—, hiztunen balio kulturei bereziki so egiten dien ikuspegiari atxikirik: «Unlike anthropological participant-observation, survey data are very unlikely to provide information on cultural values».

2.1.2.2. *Ikermolde antropolinguistikoa*

Hizkuntzaren atxikipen-ordezkapena aztertu duten antropologoek eta antropologiaren metodologiari darraizkion hizkuntzalariak —soziologoek ez bezala— azterketa eta teknika etnografikoak erabili izan dituzte. Denbora luzez aztertu dituzten

komunitateetan bizi izan dira eta informazioa eskuratzeko berriemailei elkarriketak eta galdetegiak egin badizkiete ere, datuak jasotzeko bide nagusia aztertu dituzten pertsonen ohiko jokaerari behatzea izan da. Antropologoaren metodologia, gizatalde zehatzetan sakonki eta luze ikertzea dakarren azterbide etnografikoa, hizkuntza atxikitze eta ordezkatzeko prozesuak arakatzeko bereziki egokia da.

2.1.2.2.1. Ralph Fasold

Ralph Fasolden (1995: 213) iritziz, hizkuntzaren atxikipen eta ordezkapena txanpon beraren aurki-binperrak dira. Mintzaira hautapen, atxikipen eta ordezkapen prozesuak aztertu dituzten hiru jakiteek (soziologiak, gizarte psikologiak eta antropologiak) jorratutako ikuspegiak aintzakotzat hartu baditu ere, Fasoldek antropologiaren ikuspegi lehenetsi du. Jakite arlo horretan aritzen diren ikertzaileek hizkuntza hautatzea, atxikitzea eta uztea gertakari oso baten alderditako hartzen dituztela nabarmendu du eta haien metodologiaren egokitasuna dela eta, antropologiari aitortu dio ikerketarako sakontasun handiagoa (ibid., 214): «... anthropologically oriented investigators usually study language choice and maintenance and shift simultaneously as part of the same phenomenon. The traditional interest of anthropologists in the intensive study of individual communities makes this a reasonable approach».

Hizkuntza hautaketaren ikusmolde antropologikoak gizataldeen *balioak* eta horiek azaltzen dituzten jokamolde arau kulturalak aurkitzea du xede, balio horiek hiztunen hizkuntza portaeren funtsa direlakoan: «Anthropologists are most interested in discovering the *values* of a sociocultural group, and the cultural rules of behavior that reveal those values» (1995: 192). Hizkuntza antropologoendako hiztunek hizkuntza hautuen bidez beren kultura balioak adierazten dituzte: «The choices made by the members of a particular speech community, reflecting their cultural values, add up to shift or maintenance in that community» (ibid., 214). Hizkuntza hautua momentu batean hiztunek gizarteko talde bati edo bertze bati dioten atxikimenduaren eta, azken batean, haien identitatearen seinale da (ibid., 208):

The anthropological perspective looks for explanations for language choice in the speakers' perception of himself as a member of only one community, or as a concurrent member in two or more. Language choice at a particular moment is seen as evidence of a person's desire to be associated with the values of one speech community or another.

Hiztunen kultura balioak adierazten dituzten hizkuntza hautu horiek mintzairaren iraupen edo ordezkapenari eragiten diote (1995: 214). Azken finean, mintzairaren iraupen eta ordezkapena hizkuntza hautaketa kolektiboaren epe luzeko emaitzak dira (ibid., 213). Iraupena komunitateak tradizionalki erabili d(it)uen hizkuntza(k) erabiltzen segitzea erabakitzen duelarik gertatzen da: «In language *maintenance*, the community collectively decides to continue using the language or languages it has traditionally used» (ibid.). Beraz, hizkuntzaz aldatzea eta hizkuntzari eustea komunitate bateko kideen erabakitzat azaltzen du Fasoldek, hizkuntzaren iraupen eta ordezkapen prozesuei eman izan zaizkien azalpen mekanikoen ordez.

Iraupen eta ordezkapenaren alorrean, soziolinguistikaren egitekoa hizkuntza komunitatea hizkuntzari eustea edo hizkuntzaz aldatzea hautatzera daraman arrazoi multzoa

agertzea da (1995: 214). Fasoldek hizkuntza ordezkapenaren eragiletzat gehienetan josten diren faktoreak aipatu ditu: migrazioa, industrializazioa edota ekonomia aldaketak, gobernuaren presioak, urbanizazioa, prestigioa eta demografia, bertzeak bertze (ibid., 217). Halaz guztiz, arrazoi horien eraginaren inguruko teoria osorik ez dago eta hizkuntzaren iraupen eta ordezkapenerako balio unibertsaleko azalpenak erkidegoz erkidego egindako ikerketa sakon kopuru handi baten azterketa konparatibotik soilik lor daitezkeelakoan dago (ibid., 214). Hala bada, metodologikoki, haren ustez komunitatez komunitate egindako ikerketa etnografikoek eginen dute argi hizkuntza aldaketa prozesua gertatzen ari denetz jakiteko: «Community-by-community ethnographic research is the best way to discover whether language shift actually *is* going on» (ibid., 241).

Funtsean Fasoldek —arestian aurkeztutako Fishmanek bezala— *nortasun etnolinguistikoa* kausitu du hizkuntzari irauraraztearen eta haren ordezkapen prozesuen oinarrian (1995: 208-209).

2.1.2.2.2. Hizkuntza gutxituen jarraipenaren gaineko zenbait azterketa etnografiko

Komunitate bateko hizkuntza atxikipen eta ordezkapenaren gaineko lehen ikerketa monografikoan artean, Susan Gal (1979) eta Nancy Dorian (1981) hizkuntzalarien etnografia zehatzak ditugu. Bi ikertzaileek gizatalde batek bere hizkuntza historikoa ordezkatu duen prozesua aztertu dute: Dorian 1960ko hamarkadan hasi zen Eskoziako ipar-ekialdeko arrantza herrixka batzuetan gertatutako aldaketa ikertzen eta Galek ondoko hamarkadan ekin zion historikoki hungarieraduna izan zen Austriako ekialdeko herri bateko mintzaira ordezkapen prozesua aztertzeari. Fasoldek (1995: 218-227) hizkuntza ordezkapena ikermolde antropologikotik aztertu duten bi ikerlan ezagun horien alderaketa egin du eta, funtsean, Dorianek deskribatutako eskozieratik ingelese-rako aldaketa bilakaerak eta Galek ikertu zuen hungarieratik alemanerakoak beren artean ez ezik Frantzian gertatutako bretoieratik frantseserako hizkuntza mudantza prozesuarekin ere antzekotasun handiak dituztela utzi du agerian (ibid., 227. 10. oin-oharra). Prozesuaren ikusbide, ikerlan horietako bat azalduko dut xehekiago.

Herri txiki bateko hizkuntza ordezkapenaren ikerketa xehea

Susan Galek (1979) Austriako ekialdean, Burgenland eskualdean, Hungariako mugatik hurbil dagoen Oberwart/Felsöör herri elebidunean egin zuen landa lan etnografikoa, hungariera eta aleman hizkuntzak hautatzeko eruedetan gertatutako aldaketa («change in patterns of language choice») eta abian zen hizkuntza ordezkatzeko prozesua («language shift in progress») ikertzeko. Hizkuntza antropologo estatubatuarrak aztertu zuen gizartea, transizioan zegoen gizataldea zen: oberwartarrak nekazariak eta hungariera hiztunak izatetik herri industrializatu, modernizatu eta etnikoki anitzagoa izatera pasatu ziren. Aldaketa hasi zelarik, XX. mendearen lehen hamarraldietan, oberwartarrak elebidunak ziren eta alemana bazekiten ere kanpotarrekin baizik ez zuten egiten. Iragate horretan, eta bereziki II. Mundu Gerraren ondotik, aleman hiztun elebakarrak gehiengo bilakatu eta hungariera hiztunak erabilera esparru gero eta gehiagotan alemanez egiten hasi ziren. Hungariera nekazarien betiko bizimoduari lotuta zegoen bitartean, alemana soldatiko langileen hizkuntza zen, modernitateari eta hobetze ekonomikoari zegokiona (Gal, 1979: 106):

It would not be too extreme to say that Hungarian spoken mostly by peasants and former peasants symbolizes the old way of life, the old forms of prestige of the peasant community. These values are now being rejected by all but the oldest bilingual Oberwarters. In contrast, the educated upperclass of Oberwart consists of German monolinguals. The world of schooling, of employment, and of material success is a totally German-speaking world. The language itself has come to symbolize the higher status of the worker and the prestige and money that can be acquired by wage work. While Hungarian is the language of the past and of the old, German is seen as the language of the future, of the young people who are most able to take advantage of the opportunities that Oberwarters feel exist in the German-speaking world.

Hiztunen eta hiztun taldeen hizkuntza erabilerarako eredu aldaketa nola eta zerk bultzaturik gertatzen den argitzea du xede Galek bere ikerlanean. Horretarako, Oberwarteko hizkuntza heterogeneotasun sinkronikoaren gizarte xehetasunak ulertzeko, ikertzaileak bi alderdi hartzen ditu kontuan: hiztunek beren burua aurkezteko modua («linguistic presentation of self») eta hiztunen gizarte sareek ezarritako baldintzak («the constraints placed on it by speakers' social networks»). Oberwarten gertatutako aldaketa ekonomiko eta sozialek zuzenean baino gehiago zeharka eragin diete hungariera hiztunei modu honetan (1979: 17):

... the effect of these changes on strategies for language use in particular situations was felt only indirectly, when they caused a change in Oberwarters' evaluations of their languages and in the processes maintaining older patterns of language choice. Specifically, language shift began when German gained prestige because choice of it, as opposed to Hungarian, came to symbolize the speakers' claim to worker rather than peasant status. Speakers started to present themselves as workers and not peasants in everyday conversations as their social networks changed, weakening previous constraints to claim only peasant identity in speech.

Hau da, eskala handiko bilakaera historikoek norbanakoen eguneroko elkarrekintzetako hizkuntza hautuei eragiten diete, baina ez zuzenean, hiru arlotan dituzten ondorioen bidez baizik (1979: 17): «In sum, it is through their effects on the shape of social networks, on the statuses speakers want to claim, and on the cultural association between linguistic varieties and social groups that macrosociological factors can influence the language choices of speakers in everyday interactions».

Hungariera hiztun zaharrek hizkuntza erabilera eredu zaharrari lotuta segitu dute: «... the present pattern used by older speakers is in fact an older pattern» (ibid.). Hizkuntza ordezkapenaren eragileak hiztun belaunaldi berriak dira, baldin eta eguneroko elkarrekintzetan beren identitate eta asmoak adierazteko eskura dituzten mintzaireren esanahi berriei baliatzen badira (ibid., 21):

In the case of Oberwart, while large-scale social changes lead to changes in the statuses and networks of speakers and in the association of languages with social identities, language shift occurs only when new generations of speakers use the new connotations of the linguistics variants available to them in order to convey their changing identities and intentions in everyday linguistic interaction.

Belaunaldien komunikazio eredueta gertatutako mintzaira ordezkapenaren seinaleetako bat, haurren hizkuntza sozializazio moldeak aldatu izana da. 1920an Oberwart/Felsőör herriko neska-mutikoez elkarren artean hungarieraz baizik ez zuten ihardukitzen. Galek landa lana egin zuelarik —1974tik aitzina— ordea, hamabortz urtetik behereko haur-gaztetxoak alemanez mintzatzen ohi ziren beren adinkideekin. Aita-ama gazteek gehienetan alemanez egiten ohi zieten seme-alabei —ez hungarieraz, gurasoek beraiei egin zieten bezala—.

Galek hungarieraren galera, bizimodu tradizionalari lotutako komunikazio molde zaharretik modernitateari atxikitako molde berrira doan aldaketa prozesuaren logikaren baitan azaltzen du, belaunaldien segidan hizkuntza gutxituaren ordezkapena komunikazio eredu zaharrak bazter uztea balitz bezala (1978b: 233-234):

From older informants' reports of language use in their childhood, it is clear that the pattern used today by the oldest peasants, that of speaking Hungarian to everyone but outsiders and strangers, is also historically the oldest pattern (...). The synchronic patterns of language use already described can be reinterpreted as reflections of diachronic change, with the oldest usage represented by oldest informants and the newest represented by youngest speakers.

Eraketa horren harroinetan, hungariera eta aleman hizkuntzen kategorizazio desberdinak daude (1978b, 1979): lehena, baserritarren hizkuntza, prestigio gabea eta komunikazio eredu zaharrari lotua da; bertzea, aldiz, soldatako langileen mintzaira, prestigioa eta erabilera eredu berriari dagokiona.

Hala bada, ikerketa honetan, hizkuntza nagusiak herri nekazari bateko mintzaira historikoaren erabilera ohikoa ordezkatzeko, bizimodu modernoak ezinbestez dakarren hizkuntza aldatzeko aurkezten da. Azalpen molde horrek hizkuntza gutxituaren galtzea, garapenak baitezpada dakarren ordaintzat eta, nolabait, *naturalizat* jotzen du. Euskararen historiografian ere kausi daitekeen ikusmolde horri kritikoki begiratu diot.

Valentzieraren transmisioaren etetea

Brauli Montoya (1996) hizkuntza historikoaren galtze prozesuak herrixketan ikertzeko joeratik alendu da eta Alacant hiriko katalanaren ordezkapen bilakaera aztertzen du etnografikoki. Alacanteko Unibertsitateko katedradunak katalana indarberri-turiko hizkuntzarako aurkezten duten egileen ikuspegi ez osoa kritikatu eta katalana galtzeko prozesua indarrean dagoen lurraldeak ere badirela aintzat hartu du.

Montoyak belaunez belauneko transmisioaren etena, hizkuntza ordezkapenaren azken kausatzat ikusten du eta gertakari hori da bereziki aztertzen duena. Alacanten katalanaren gizaldirik gizaldiko jarraipenean, XX. mendearen erdialdean burututako etena eta haustura, eta horren arrazoiak miatu nahi izan ditu. Metodologikoki, hiriaren historia soziolinguistikoz ez ezik alacantarren hizkuntza historiez eta familien hizkuntza-transmisioa zuzenaz baliatu da. Alacanten honako egoera hau kausatu du katalanaren belaunez belauneko jarraipenari dagokionez (1996: 83):

... ens permet confirmar la nostra hipòtesi de partida que ja no queden alacantins menors de 50 anys que hagen rebut el català en família. D'altra banda, els més jòvens d'aquesta edat que l'an adquirint després de la seua infantesa, no baixen dels 30 anys. Per tant, cap dels menors d'aquesta darrera edat que haja

nascut a Alacant fill de pares alacantins (excloem d'aquesta mostra els no autòctons), amb tota seguretat, ni li ha estat transmès el català per família ni ha tingut ocasió d'aprendre'l en ambients "naturals" com els que encara han pogut conèixer els majors de 30 anys. Llevat de clares excepcions, doncs, el català que arriba hui en dia als infants i als adolescents alacantins ho fa per via escolar, i aquesta via és clarament insuficient per a reintroduir-lo en l'ús quotidià.

Soziolinguistik hemendik urte batzuetara katalana lehen hizkuntza izan zuten alacantarren azken belaunaldia —1990eko hamarraldian 50 urte inguru zituztene-na— hiltzen delarik, galdutzat ematen du mintzaira hirian (ibid., 216):

Després d'aquesta data, a part dels qui l'hagen après a l'escola (...), només restarà una minoria exigua de parlants incomplets de català, que són els qui ara compten entre 30 i 49 anys. Fet i fet, cap a la mitjanía del segle XXI, si la tendència actual no s'invertix, no quedarà cap alacantí autòcton amb un coneixement naturalment adquirít del català. Haurà calgut, doncs, el transcurs de dos segles (des de mitjan XIX fins a mitjan XXI) per a l'extinció total de la llengua catalana a la ciutat d'Alacant.

Montoyak katalanaren ordezkapen bilakaeraren aitzinean, Fishmanek (1997) planteatzen duen prozesu itzularazpenerako zer aukera dagoen hausnartzen du. Lehentasun osoa BAEN eskalaren 6. maila, familia bidezko transmisioari dagokiona, erdiestea da eta horretarako erakunde publikoen esku-hartzea beharrezkotzat jotzen du.

Azaldutako azken lan honetan ere hizkuntza-ordezkapen prozesuan ardaztutako ikusmoldea da nagusi. Montoyaren ikerlanaren metodologia etnografikoa gertatu zait bereziki interesgarri, baina hizkuntza gutxituaren galeraren narrazioek hartu dute nagusitasuna. Aldiz, hiriko katalan hitzunen sorraldi berriek mintzairarekiko nola kokatzen duten beren burua eta seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean nola jokatzen duten ez du arakatu. Nire ustez hor daude, hain zuzen ere, hiri horretan hizkuntza historikoa indarberritzeko gakoak. Bertzalde, Montoyaren ikerlanak garbi agertu du mintzaira baten errealitatea ez dela bakarra eta beti-batekoa, eta hizkuntzen egoera baino gehiago hitzun taldeena dela aztertu beharrekoa.

2011 In Brauli Montoya eta Antoni Mas irakasleek *La transmissió familiar del valencià* ikerlana argitaratu zuten. Montoyak Alacant hirian eginiko azterketa moldea Valentiako Erkidegora zabaldu zuten, hondar hamarkadetan valentzieraren gibelatzearen, familia transmisioaren etetearen eta ondoko berreskuratzearen prozesua aztertu eta haren gakoak argitzeko.

Ikerketa kuantitatibo-kualitatiboa da, 14 hiri-herriko 622 lagunen lekukotasunen gainean eraturia, eta, Alacant hirian buruturikoan bezalaxe, hitzunek jokoan zeuden hizkuntzen gainean zuten gizarte irudikapenei bereziki so egiten diena.

Halere, batik bat azken urteotan nabari egin den gertakaria izateagatik, ikerketa honek, Alacant hirian egindakoaren aldean, valentzieraren *revernacularització* edo berretzeko-tze prozesua sakonago arakatu du. Gurasoen lehen hizkuntza eta bikotekideek beren artean egiten duten mintzaira aintzat harturik, Montoyak eta Masek umei valentziera irakasten dieten familien bederatzí tipologia bereizi dituzte. Kasuak askotarikoak dira eta valentzieraren transmisioaren eteteko prozesuari itzularazteko joera agerikoa bada ere, hiri txikiagoetan nabarmenagoa da hirigune handietan (Valentzian, Alacanten eta Castellonen) baino. Gurasoek umeak bertako hizkuntzan hazteko hautuetan, valentzierazko eskolatzea funtsezkotzat jotzen dute (Montoya & Mas, 2011: 429-430):

L'abast del retorn de la llengua a les llars familiars és encara molt limitat (...) el moviment revernacularitzador s'ha estès per tota la comunitat de parla valenciana, fins i tot a la ciutat més castellanitzada de totes: Alacant. Aquest procés té com a motor principal les línies educatives en valencià; per això, la seua evolució en els propers anys estarà condicionada a l'increment d'aquestes línies.

Bi irakasleek valentzieraren berretxekotze prozesuaren eta hizkuntzaren transmisioaren etetea ekarri zuen prozesuaren artean, kidesunak atzeman dituzte. Alde bate-tik, etxeko hizkuntzaren eta eskolaren artean dagoen lotura, gaztelania hutsezko derri-gorrezko eskolatzearen garaian bertako mintzairaren kontra jokatu zuena, eta, orain aldiz, valentzierazko eskolatzeari esker tokiko hizkuntza hainbat familian berrerrotzea ahalbidetu duena. Bertzalde, valentzieraren galtze eta berreskuratze prozesu historikoaren artean kausitu duten bertze antzekotasun bat, seme-alabei mintzatzeko orduan gurasoek beren bigarren hizkuntzaren alde egin izana da. Orain hamarraldi batzuk aita-amen bigarren hizkuntza gaztelania zen eta mintzaira hori hautatu zuten umeak hazteko. Orain berriz, guraso gehienek bigarren hizkuntza valentziera da eta seme-alabei mintzatzeko horren aldeko aukera egiten dute. Valentzieraren egoerari oharturik, Montoyak eta Masek etxeko harremanetan ahuldu eta desagertu zen mintzaira berriz etxekotzeko prozesua, zailko irudikatzen dute.

Ataltxo honi bukaera emateko hurbilpen etnografikoaren baliagarritasuna nabarmendu nahi dut. Adibide franko daude egokitasun metodologiko hori sendesten dutenak, baina niretako interesgarrienak gutxiengo hizkuntza komunitateen rolari bereziki erreparatu dioten eta hizkuntza sozializazio kontzeptua ardatz hartu duten ikerketak dira, ondoko atalñoan azalduko dudak bezala.

2.1.3. Hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloa

Literatura antropolingüistiko anglosaxoian, hizkuntza transmisioa *language socialization* ikerketa arloan jorratu da. 1980ko hamarkadaren erdialdean, Estatu Batuetako zenbait hizkuntzalari eta antropologo *hizkuntza sozializazioaren* ikerketa lerroa garatzen hasi ziren. Arlo horretako ikertzaileek giza garapenera hurbiltzeko diziplina desberdinak izan dituzte abiaburu (antropologia, [sozio]linguistika, soziologia eta psikologia), aztertzen dituzten gertakarien ikusmolde ahal den holistikoena eta integratzaileena eratzeko.

Sozializazioa —handi-handika harturik— haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da. Prozesu hori —berez, elkarri estuki loturik dauden prozesu multzoa— hein handi batean hizkuntzaren erabileraren bidez burutzen da, mintzaira baita kulturaren ezagutza komunikatu eta irudikatze, negoziatu eta auzitan paratzeko, birsortu eta eraldatzeko bide sinbolikorik behinena.

Elinor Ochs eta Bambi B. Schieffelin (1984/1992) egileen ikusmoldean, sozializazioa prozesu jarraitu eta amaigabea da, haurtzarora mugatzen ez dena, heldu jendeak jarrai baitezake sozializatzen rol, estatus edota jarduera berrietan. Hizkuntza sozializazioa haurraren harreman sozialak hasten diren unean abiatzen da —hizketan hasi baino lehenago ere— eta gizon-emakumeen bizitza osoan jarrai dezake. Hizkuntza sozializazio ikerketa arloak «... the understanding of how persons become competent

members of social groups and the role of language in this process» (Schieffelin & Ochs, 1986: 167) du helburutzat. Hala bada, hizkuntza sozializazioak mintzairaren ikastea baino gehiago biltzen du bere baitan, giza garapenaren alderdi guztiak ukitzen dituzten kultura eraginak. Hauen artean hizkuntzaz jabetzea bat gehiago da, funtsez-koenetako bat, halere, alderdi askotariko hari hertsiki loturik daude eta.

2.1.3.1. *Hizkuntzaren eta kulturaren jarraipenerako paradigma*

Hizkuntzaren eta kulturaren elkarrekiko menpekotasuna

Hizkuntza sozializazioa gizatalde bateko kide gaitua bilakatzeko prozesuaz eta taldearen sinesmen, balio eta jokaeretara egokitzeko bilakabide horretan, mintzairak jokatzen duen rolaz arduratzen da. Hori horrela, hizkuntzaz jabetzea eta taldeko partaide bihurtzea elkarri atxikitako prozesuak dira. Halaz guztiz, hizkuntzaz jabetzea («acquisition of language») eta hizkuntzaren bidezko sozializazioa («socialization through language») bi prozesu bereizitatzat jo dituen ikuspegia nagusi izan da. Izan ere, ikertzaileek gizarte antolaketa edo tokiko sinesmen sistema bezalako kultura faktoreek hizkuntzaz jabetzeko prozesuari gutxi eragiten diotela pentsatu ohi dute. Faktore horiek testuingurutzat (*context*) hartu dira, hau da, hizkuntzatik beretik edo hartaz jabetzeko prozesutik bereizgarria den zerbaitzat. Sozializazioaren gaineko ikerketa antropologiko gehienek ere ikuspegi horri jarraitu diote. Ochsek eta Schieffelinek (1992: 277), aldiz, bereizketa hori kritikatu eta ikusmolde integratua proposatu dute bi baieztapen hauetan bilduta.

Lehenik, gizataldeko kide gaitua bilakatzeko prozesuak zerikusi handia du hizkuntzaren jabetzarekin. Hau da, gizarte antolaketak, hizkuntza erabileraren gizarte arauak, hizkuntzen pertzepzioek eta bertzelako alderdi soziokulturalek hizkuntza ikas-teko prozesuari eragiten diote.

Bigarrenik, gizataldeko kide gaitua bilakatzeko prozesua, hein handi batean, mintzairaren bidez burutzen da, hizkuntzaren funtzioez, gizarte antolaketaz, sozialki definitutako egoerez eta haien arteko interpretazioez jabetu ahala. Hau da, gizataldeko kideak egoera jakinetan gertatzen diren hizkuntza elkarrekintzen bidez bilakatzen dira gizataldeko kide gaituak.

Egileek ondorioztatu bezala, hizkuntza ikastea eta ezagutza soziokulturalaz jabetzea elkarri jositako bi prozesu dira: «... the process of acquiring language and the process of acquiring sociocultural knowledge are intimately tied» (Ochs & Schieffelin, 1992: 310). Hizkuntza sozializazioa gertatzen den egoerek eta elkarrekintzek, bai eta horretan parte hartzen duten helduek eta haurrek ere kultura sinesmenen, balioen eta gizarte antolaketaren eragina jasotzen dute nahitaez (*ibid.*):

Caregiver's speech behavior expresses and reflects values and beliefs held by members of a social group. In this sense, caregiver's speech is part of a larger set of behaviors that are culturally organized (...). Not only caregivers' but children's language as well is influenced by social expectations (...). In this sense, the process of language acquisition is part of the larger process of socialization, that is, acquiring social competence.

Mintzaira sozializaziorako baliabidea da. Gizatalde bateko kideek hizkuntza baliabideak eskura dituzte gizarte ekintzak eratu (*construct*) eta ulertzeko. Halaz, hiz-

kuntza sozializazioaren ikusmoldetik ikertzaileek argitu nahi dutena da «... how these linguistic resources organize interactions between small children and their peers, older siblings, and adults in their day-to-day environments» (Schieffelin & Ochs, 1986: 171). Ikertzaileek elkarrekintza horiek hizkuntza komunitate baten barnean nahiz komunitate desberdinen artean nola aldatzen diren ezagutzea izaten dute helburu (ibid.).

Hizkuntza sozializazioaren lehen oinarri hau, mintzairaren eta kulturaren elkarrekiko menpekotasuna, bertzela ere adieraz daiteke, erranez paradigma honen kezka honako hau argitzea dela: haurrak edo heldu hasiberriak nola diren sozializatuak bai hizkuntzaren bidez bai hizkuntza erabiltzeko kultura modu jakinetan. Hurbilen puntuan ideia horri helduko diot.

Hizkuntzaren bidezko sozializazioa eta hizkuntza erabiltzeko sozializazioa

Hizkuntza sozializazioak bi dimentsio nagusi aztertzen ditu: haurrak nola diren sozializatuak hizkuntzaren bidez eta haurrak nola diren sozializatuak hizkuntza erabiltzeko (Schieffelin & Ochs, 1986: 184).

Hizkuntza erabiltzeko sozializazioaren arloan ikertzaileek aztertu izan dutena da haurrek zer nolako hizkuntza portaera duten beharrezkoa, eguneroko gizarte bizitzan egoki parte hartzeko. Ikerketa horiek sozializazio ingurune desberdinetan egin dituzte (ingurune kulturabakar eta elebakarretan, kulturantzun baina elebakarretan nahiz kulturantzun eta eleaniztunetan). Azterketa horiek guztiek gizarte eremuetan (etxean, eskolan, erlijio jardueretan, aisialdian...) dauden hizkuntza jokaera egokiari dagozkion itxaropenen («expectations») jarraipena eta etena («continuity and discontinuity») nabarmendu dute (Schieffelin & Ochs, 1986; Garrett & Baquedano-López, 2002). Hau da, haurrak hizkuntzaren erabilerarako arauz jabetzen dira hizkuntza gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita eta egoera horietan parte hartuta: «Children acquiring language acquire knowledge of the language or languages in their sociolinguistic environment» (Schieffelin & Ochs, 1986: 171). Beraz, haurrek hizkuntza —kodea— ez ezik hizkuntza erabiltzeko gizarte arauak, mintzairaren arteko hierarkia eta bertze ere barneratzen dituzte.

Ikerketa metodo etnografikoetan eta interakzio-hurbilketan oinarriturik, alor honetako lanek agerian utzi dute nola haur-zaintzaileek (gurasoek nahiz haurren kargu hartzen duten bertzelako helduek) jardueretan mintza portaeraren irakaspen esplizitua egiten duten (hizkuntza erabiltzeko sozializazioa), eta nola egoera horietan parte hartzaileak beren eta bertzeen gizarte posizioez jabetzen diren (hizkuntzaren bidezko sozializazioa) (Lamarre & Rossell, 2003: 62-63).

Hizkuntzaren bidezko sozializazioan, haur-zaintzaileen xede nagusia haurrek gizarte egoeretan egoki jokatu dutela eta jokabideak ulertuko dituztela ziurtatzea da. Hori erdiesteko bide nagusia mintzaira da. Hizkuntzaren bidezko sozializazioan haurrak jakintza soziokulturalez jabetzen dira, eguneroko hizkuntza harremanetan ikusle-entzule izanez eta parte hartuz. Kontuan eduki behar da haurrekin aritzen diren gizarteko kideen balio eta sinesmenek etengabe eta selektiboki eragiten dietela haurren jokabideei —hala hizketan hasi baino lehenago nola hizketan hasi eta gero—. Tokiko kulturaren prozesuak haur batek dioena nahiz errateko modua ukitzen ditu (Ochs & Schieffelin, 1992; Schieffelin & Ochs, 1986).

Hiztunak gizarte eta hizkuntza aldatetara egokitzeko gauza

Hizkuntza sozializazio prozesua inguruabar soziokulturalek eraginda egoteak ez dakar berekin subjektu guztiek jokabide eredu finkorik izatea. Ochs eta Schieffelin (1992: 311) defendatzen duten ikuspegiak gizakiak malgutzat eta gizarte eta hizkuntza aldatetara egokitzeko gaitzat hartzen ditu. Beraz, egile horiendako sozializazioa ez da prozesu mekanikoki determinatua, gizon-emakumeak aldatzeko gauza baitira:

We advocate a view that considers human beings to be flexible and able to adapt to change, both social and linguistic, for example, through contact and social mobility. The ways in which individuals change is a product of complex interactions between established cultural procedures and intuitions and those the individual is currently acquiring. For our perspective, socialization is a continuous and open-ended process that spans the entire life of an individual.

Gainera, hizkuntza sozializazioaren arloko ikerketek —*erreproduktzio* ideiarekin kutsu mekanikoaren aurrean— haurrak hizkuntzaz jabetzeari gurasoen erabakiek eta nahiek ez ezik bertze anitz faktore gehiagok ere eragiten diotela nabarmendu dute (Kulick, 2004). Hala bada, sozializazio kontzeptuak gainditu egiten du egitura sozialaren erreproduktzio hutsaren ideia eta ingurura doitzeko prozesuan gerta daitezkeen *desbideratzeak* ere kontuan hartzeko bide ematen du.

Hori horrela, ikertzaileek ohartarazi bezala, hizkuntza sozializazioaren ikerketa alorrek jarraipen eta aldaketa soziokulturala, biak ditu aztergai: «The language socialization paradigm offers a socioculturally informed analysis of life course and historical continuity and transformation» (Ochs & Schieffelin, 2008: II). Orobat, zenbait ikerketak hizkuntza sozializazioa gizarte eta kulturaren eraldaketa eta aldaketa prozesu dinamikoetan funtsezkoa dela nabarmendu dute: «... recent studies also emphasize that language socialization is central to —and in some cases a driving force in— dynamic processes of transformation and change» (Garrett & Baquedano-López, 2002: 355).

Hizkuntza sozializazioaren izaera elkarreragilea

Mintzairaren gaineko teoria bat baino gehiago hizkuntza sozializazioa teorikoki taxutzen saiatu dira. Horren gaineko literaturan nabarmenen agertzen den ideietako bat —hainbat egilek (Schieffelin & Ochs, 1986; Garrett & Baquedano-López, 2002; Bayley & Schecter, 2003; Ochs & Schieffelin, 2008) bereziki azpimarratu dutena— sozializazio prozesuaren izaera elkarreragilea da, hau da, haurra edo heldu hasiberria ezagutza sozialaren hartzailer pasiboa baino gehiago, gizataldeko bertze kideekin dituen elkarrekintzetan esanahi eta emaitzen emaila aktiboa da: «We advocate the view that young children and other novices (including adults in secondary socializing contexts) take active and selective roles in socializing contexts» (Schieffelin & Ochs, 1986: 170).

Sozializazioaren ikusmolde hori interakzionismo sinbolikoaren eta fenomenologiaren hurbilketetatik sortua da eta Vygotskyk landutako garapen psikologikoaren ereduaren ere leku nabarmena izan du, *baldintza soziobistorikoen* eraginarekin batera. Sozializazioaren izaera elkarreragileak kasu batzuetan hasiberriek gaituak (hau da, haurrek helduak, adibidez) sozializatzeke ahalmena dutela erran nahi du, eraginak bi noranzkoetan baitoaz, goitik beheiti nahiz behetik goiti («bidirectionality in socialization» [Garrett &

Baquedano-López, 2002: 346] edo «multidirectionality», adinkideen arteko eraginak, nolabait ezker-eskuin doazenak ere kontuan hartuta [He, 2012: 594]).

Hizkuntza sozializazioaren izaera elkarrengatik gaintu egiten du hizkuntza *transmisioaren* ideia, hau da, goitik beheko eta noranzko bakarreko (gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana) prozesua izatearena. Ikusmolde honetan, haurren hizkuntza sozializazioa noranzko bakarreko prozesutako ikusi beharrean, familiaren elkarrekintzen sare dinamikotako ikustea erabilgarriagoa da. Izan ere, gurasoek haurren hizkuntza jarduerak eta jarrerak eratzten dituzte, baina familiaren “hizkuntza ekologian” haurrak eragile dira objektu baino gehiago: «For this reason, socialization should be viewed in terms of ‘participation’, rather than merely ‘transmission’» (Luykx, 2003: 41).

Eguneroko hizkuntza jarduerak eta errutinak

Hizkuntza sozializazioaren gaineko ikerketek egin duten ekarpenik handienetako bat eguneroko bizitzari aitortu dioten garrantzia da: «... everyday life —the mundane activities and interactions in which ordinary individuals participate, constituting the warp and woof of human sociality» (Garrett & Baquedano-López, 2002: 343). Eguneroko solasaldi arruntak bide sozializatzaile eraginkorrak dira eta horiek hizkuntza jarduera gisa ikusteak mintza-errutinei erreparatzeko aukera ematen du. Azken finean, sozializazio prozesuan helduek haurri eguneroko mintza-jardueretan (errutinetan) parte harrarazten diote (Schieffelin & Ochs, 1986).

Paradigma etnometodologikoan errotuta, eguneroko elkarrekintzen oinarrian dauden kultura ezagutzarik gehiena ezkutua edo adierazi gabekoa dela onartzen dute, hau da, kontzientzia praktikoa («practical consciousness») delakoaren zati dela, baina ez kontzientzia diskurtsiboa («discursive consciousness») deritzanarena (Giddens, 1990) eta ondorioz, ez da horren gainean mintzatzeko.

Interakzioarako hurbilketa fenomenologikoetan oinarriturik, hizkuntza sozializazioaren gaineko ikerketek errutinaren izaera irekia, negoziatua, batzuetan kontra-egilea azpimarratu dute eta, bide beretik, errutinak bere baitan berrikuntza eta aldaketarako duen ahalmena aitortu (Garrett & Baquedano-López, 2002: 344). Beraz, errutinaren gaineko ikusmolde bikoitza darabilte: errutina sozialki egituratua eta iraunkorra da, baina, aldi berean, kokatua (*situated*), testuinguruan oinarritua. Errutinaren ideia hori Bourdieuk (1989) eta Giddensek (1990) landu zituzten *habitus* eta *duality of structure* —hurrenez hurren— kontzeptuetatik garatu dute ikertzaileek azken hamarkadetan, kontzeptu horiek batik bat gizarte egituren erreproduzioaz arduratzen diren arren, aldaketarako ahalmena ere hartzen baitute kontuan (Garrett & Baquedano-López, 2002: 344).

Jarduerak eta ekintzak

Hizkuntza sozializazioaren ikerketa paradigmatikoen formulazioan, *jardueraren* teoria funtsezkoa izan da eta eredu indartsu baina malgu garatu du errutinetan eta ekin-tzetan oinarritutako hurbilketa analitikorako.

Hizkuntzaren erabilera (eta, oro har, komunikazio portaera) aztertzekeo jardueretan oinarritutako hurbilketak onarpen zabala duten bi ideia hauetan ditu oinak: I) hizkuntza ez da sistema itxia, hiztunen mundu soziokulturalen eraginik gabekoa; aitzitik,

mundu kultural horiek eta hiztunek sakonki eragiten diote mintzairari. Ideia hori Mikhail Bakhtin (1986) filosofo eta hizkuntzalari errusiarraren ekarpenen zordun da, egile horrek hizkuntzaren irudi abstraktua, gizarte eraginik gabekoa eta eguneroko erabileratik bereizia bortizki kritikatu baitzuen. 2) Hizkuntza, kultura bezala, hiztun ororen gainetik dago, hau da, ezin da hiztun bakarrarengan bildu eta, ondorioz, hiztunen artean hizkuntza aldaketak daude, sozialki egituratuak eta, bide batez, gizarte dinamiken garapenaren sorburu dira (Garrett & Baquedano-López, 2002: 344-345).

Hizkuntzaren aldakortasunaren eta hiztunen heterogeneotasunaren aitzinean hizkuntza sozializazioaren ikerketak funtsean aztertzen duena da, haurrek eta bertzelako hasiberriek nola garatzen dituzten beren trebetasunak bertzeekin, nolabait erran, joera elkarrekikotasuna erdiesteko: «... is fundamentally concerned with how children and other novices develop their abilities to achieve just such mutuality of orientation with others» (ibid., 345). Xede horretarako hizkuntza sozializazioaren paradigmak jarduerara (*activity*) jo du bere azterketa unitatetzat (ibid.):

... activities provide the raw materials of empirical analysis and serve as windows on underlying principles of social organization and cultural orientation. Methodologically, a focus on activities demands that researcher be attentive to the larger sociocultural framework in which they are embedded and from which they derive their significance for participants.

Gaitasunaren berrikuspena

Hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloa komunikazio gaitasunaren mikrogenesiaz arduratzen da (Schieffelin & Ochs, 1996). Komunikazio gaitasunak («communicative competence» [Hymes, 1972]) —hizkuntza gaitasunaz haratago— mintzaira gizarte tresnatzat erabiltzeko, hizketan aritzea ekintzat hartzeko eta esanahidun testuinguru elkarrengileak eratzen laguntzeko beharrezkoa den ezagutza praktikoa biltzen du (Garrett & Baquedano-López, 2002: 345): «... language socialization research is concerned with all of the knowledge and practices that one needs in order to function as—and, crucially, to be regarded by others as—a competent member of (or participant in) a particular community or communities, however broadly or narrowly defined».

Gaitasun kontzeptu laxo-zabal horretatik bi ideia nagusi sortu dira. Alde batetik, haurrak edo hasiberriak, duten gaitasuna dutela, ez direla jasotzaile pasibo hutsak, badutela adituak sozializatzeko ahalmena (arestian aipatu dudana sozializazioaren noranzko bikotasuna: «bidirectionality in socialization», Garrett & Baquedano-López, 2002: 346). Bertze aldetik, kulturaren berezko heterogeneotasuna aintzat hartzen duen gaitasun kontzeptua. Lan batzuek gaitasun ideia, gehienbat, parte hartze eraginkorraren kontua dela iradoki dute. Azken finean, proposamenek tokian-tokian eratzen den gaitasun ideia baten alde egiten dute: «... transforming the notion of competence from abstract and static to empirically grounded and dynamic» (ibid., 346).

Komunitatea auzitan paratuz

Hizkuntza sozializazioaren ikerketak haur edo hasiberriek talde(ar)ekin dituzten harremanetan etengabe garatzen ari diren aldaketa dinamikoak aurreikusten ditu.

Talde hori(ek) *komunitate* gisa kontzeptualizatu d(ir)a. *Komunitate* kontzeptua gizarte zientzietako eztabaida luzeen erdigune izan da haren definizio teorikoari eta gauzatzeko metodologikoari dagokienez irizkidetasunik ez baitago. *Komunitate* kontzeptua eratzeko zailtasunak antropologian, soziologian eta bertzelako jakite arlo hurbiletan bizi-rik dauden zenbait aspaldiko antinomiaren gaineko eztabaidetatik datoz, neurri batean. Aspaldiko antinomia horiek —*structure/agency, structure/history, subjectivity/objectivity, synchrony/diachrony*— gizarte zientzietako trabarik handientzat definitu dituzte teorialari batzuek, Bourdieuk eta Giddensek bertzeak bertze, eta halako dikotomiak gainditzearen alde agertu dira.

Komunitate adigaiari zuzendu zaion kritika nagusia bere baitan dakarren homogeneotasun irudiari dagokio. Mary Louise Prattek (1989: 59) *komunitatearen hizkuntzalaritza* deitu duen egungo hizkuntzalaritzaren dimentsio utopikoa kritikatu du gizarte errealitate askotarikoaren irudi bateratua idealizatzen duelako: «... nuestra lingüística moderna del lenguaje, el código y la competencia postula una realidad social unificada y homogénea en la cual la lengua existe como patrimonio común, precisamente como mecanismo para imaginar la comunidad».

Prattek agerian utzi du joera homogeneizatzaile hori bereziki problematikoa dela jarduera barrenkoi eta lagun artekoak nahiz umeen zaintzari eta sozializazioari lotutakoak aztertzeko. Horiek guztiak komunikazio eta elkarrekintza molde *obiko* eta *arrunta* zer den ezartzen jarraitzen duten teoretatik kanpo geratu ohi dira.

Hein batean garapen teoriko kritiko horiei ihardetsiz, gizarte (eta giza) zientzien ikuspegi analitiko eta teorikoetan aldaketa gertatu da: norbanakoaren eta taldearen arteko tentsio dialektikoei nahiz harreman horien izaera kokatu (*situated*) eta dinamikoari gero eta arreta handiagoa eman zaie (Garrett & Baquedano-López, 2002: 347): «There has likewise been greater acknowledgment of heterogeneity and increased attention to the multiple cross-cutting divisions and tensions (if no conflicts) that inhere in any group or community».

Azken urteotan, hizkuntza sozializazioaren ikerketarako geratu den eredurik erakargarrienetako bat *jarduera komunitatea* (*community of practice*) da edo hobeki, *jarduera komunitateak*, kontzeptu hori norbanakoak bere bizitzan komunitate anitzetan parte hartzen duela onartzetik abiatzen baita. Adigai horrek bere kideen (hizkuntza zein gizarte) jarduerari behatzen die, Bethan Daviesek (2005: 557) azaldu bezala: «Communities of practice characterize membership as being created and maintained through social practices (linguistic or otherwise) at a local level, rather than global categories being imposed on individuals».

Ikaste teoria sozial orokorraren zati gisa, jardueran oinarritutako hurbilketa batek abantaila batzuk ditu komunitate kontzeptua eratzeko orduan, taldearen eta norbanako eragilearen artean dauden tirabira teorikoak agerian uztera jotzen baitu. Honela diote Paul Garrettek eta Patricia Baquedano-Lopezek (2002: 347):

It [community of practice] seeks to address explicitly the theoretical tensions between group and individual agent that are generated by such pairing as structure and agency, collectivity and subjectivity, power and meaning, practice (as socially constituted ways of engaging with the world) and identity (as a function of the mutual constitution of group and self). It defines community not in terms of geography, languages(s) spoken, or broad presupposed social categories such as race or ethnicity, but in terms of mutual social and interactive engagement.

Hori horrela, *jarduera komunitatea* ez dute kideek bakarrik definitzen ez eta jarduerak bakarrik ere, biak lotzen dituzten harreman kontzeptuek baizik. Horrek dakarren ondorioetako bat komunitatearen ertzak lauso eta nahiko irekitzat ikustea da. Jarduera komunitatearen ereduak edozein taldetan aniztasuna dagoela aurreikusten du eta komunitate batean baino gehiagotan (sarritan gainjarrita egonda) parte hartzeko eredu dinamiko eta aldakorak onartzen ditu.

Komunitatearen gaineko ideia zaharrek gero eta arazo handiagoak ematen dituzte, zenbait muga sozial eta geografikok (lurraldetasunari edo nazio-estatuari lotuek) zein gizarte erreferentziarako zenbait irizpidek (naziotasunak edota arrazak) egun garrantzia galdu baitute. Hizkuntza sozializazioaren alorrean egun ikertzen diren komunitateek etnien, nazio-estatuaren edo eskualdeen muga tradizional horiek gaindi ditzakete eta iker-tzaileek bertze errealitate batzuk (muga-komunitateak edo estatuz gairako gizarte gertakariak) aztertzeko bideak behar dituzte. Azkenean, inoiz baino gehiago, gaurko aztertzaileek honako honi begiratu behar diote: norbanakoak (ez taldeak) nola oinarritzen diren hizkuntzan eta bertze baliabide semiotikoetan beren identitate askotarikoak, aldeanitzak eta aldakorak eratu eta indexatzeko (Garrett & Baquedano-López, 2002: 348).

Bertzalde, hizkuntza sozializazioaren paradigmak ekarpen funtsezkoa egin du norbanakoaren, taldearen eta gizarte antolaketaren arteko harremanak aztertzeko ikusmolde mekaniko, determinista edo auzirik nahiz gatazkarik gabekoa gaintuz: «A significant contribution of the language socialization paradigm has been its problematization of the relationship among the individual, the group, and the social order» (ibid., 352).

2.1.3.2. *Hizkuntza sozializazioa inguru eleaniztunetan*

Azken urteotan, hizkuntza sozializazioaren gaineko ikerketa franko ingurune elebidun eta eleaniztunetan (edo hizkuntza aldakortasun handiko inguruetan) egin dira. Komunitate batean bi hizkuntza baino gehiago izatea —edozein direlarik hizkuntza horiek ingurune berean elkartu dituzten baldintza soziohistorikoak— hagitz bakanetan da gertaera neutral edo arazorik sortzen ez duena. Alderantziz ere, hizkuntza ukipen hori kultura eratzearen eta gizarte gatazkaren funtsezko gune izaten da eta bertze elementu batzuekin harreman konplexuak ditu (Garrett & Baquedano-López, 2002: 350). Izan ere, hizkuntza desberdintasunek (errealak edo irudizkoek) gizarte kategoriak esleitu eta indexa ditzakete edo bertze gizarte kategoria eta banaketa batzuen mugak —etnizitatea, nazionalitatea, arraza, klasea, generoa, erlijioa edo belaunaldia bezalako ideietan oinarrituak— eratzeko edo indartzeko erabil daitezke (Irvine & Gal, 2000).

Ingurune elebidun edo eleaniztunetan haurrak komunikazio jarduera jakinetan sozializatzear gain, hizkuntza portaerei lotutako alderdi kulturalen ezagutzan ere gizarteratzen dira. Ingurune horietan etnia, kultura, identitate, moral eta gizatasuna (*personhood*) kontzeptuek hizkuntza sozializazioari eragiten diote. Komunitateak (berr)eratzten eta (ber)definitzen dira eta hizkuntza sozializazioa ikertzen dutenek honako hau aztertzen dute: norbanakoek nola berresten eta negoziatzen dituzten beren identitateak, batzuetan aldakorak direnak, ingurune heterogeneo horietan (Garrett & Baquedano-López, 2002).

Robert Bayleyk eta Sandra R. Schecterrek argitaratutako *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* liburuan, inguru elebidun eta eleaniztuneko esparru desberdinetan (etxean, eskolan, komunitateetan, adinkideen taldeetan nahiz lantokian)

hizkuntza sozializazioa aztertu duten ikerlanak bildu dituzte. Aipatu liburuko artikuluan batean, Lucinda Pease-Alvarezek (2003) hizkuntzaren transmisioa ikuspegi sozio-kulturaletik aztertuta hizkuntzaren sozializazio prozesuaren dinamikotasuna agertu du. Jatorri mexikarreko gurasoek hizkuntzen, elebitasunaren eta hizkuntza ikastearen gainean pentsatzen dutenak, beren esperientziaren alderdi desberdinekin, horien artean, haien historiekin, kultura jarduerekin eta gizarte kokapenarekin zerikusia duela utzi du agerian egileak. Artikuluak honetan paratu du bereziki arreta, denboran nola aldatzen diren gurasoen ikuspegiak eta aita-amen eta haurren bizipenak nola bilakatzen diren aldaketarako baliabide: «... how over time the lived experiences of parents and children become resources for change» (ibid., 23).

Liburu bereko bertze artikuluan batean, Ayrolyn Luykxek (2003: 41) sozializazio elebiduna izan duten hurrek bi hizkuntzak ikastearekin batera bi kodeak nola erabili, non, norekin eta zertarako, bi kodeak noiz bereizi eta noiz nahasi ere ikasten dutela erakutsi du: «It includes not only their formal features (phonological, grammatical, semantic, pragmatic), but also conventions around how and when to combine them, the social meanings of different varieties and combinations of varieties, and local ideologies about all of these».

Luykxek hizkuntza sozializazioaren ikuspegi dinamiko eta zabal baten beharra aldarrikatu du (ibid., 40-41): «... a dynamic view of language socialization shows that it is not limited to the family or to early childhood. Language competencies, choices, and ideologies change over a speaker's lifespan, reflecting changing social networks, pressures, and opportunities».

Hizkuntzei buruzko ideologiak

Hizkuntzaren gaineko ideologiak ingurune eleaniztunetan dira bereziki nabarmenak. Hizkuntzaren gaineko ideiak —hau da, hizkuntza bera zer den eta kultura identitatearekin eta norbanakoaren identitatearekin zer harreman duen—, alda daitezke komunitateen artean ez ezik komunitate bakar baten barnean ere (Garrett & Baquedano-López, 2002: 354): «... ideologies are not uniform within any given social group, but rather are multiple, situated, and “interested”, i.e., rooted in individual experiences of the social order that vary with class, age, gender, etc».

Jendeak hizkuntzaren gainean dituen ideiek haren hizkuntza jarduera eta portaerei eragiten diete. Alderdi horiek hizkuntza ordezkatzeko, atxikitze edo indarberritzeko bilakabideetan, eragingarri garrantzitsuak dira. Horren erakusgarri, mintzaira atxiki eta suspertzeko saioetan hizkuntzaren eta komunitatearen edo kulturaren arteko lotura hagitz nabaria da.

Hizkuntza sozializazioaren gaineko ikerketek hizkuntzari eusteko edo biziberritzeko ahalegin ahulak (baina ideologikoki ongi hornituak) dokumentatu dituzte. Kasu horietan, hizkuntza suspertu nahian aritzen direnek maiz beren burua komunitatea eta “tradizioa” (edo “kultura” edo “ondarea”) gordetzen ariko balira bezala ikusten dute.

Hala bada, Garrettek eta Baquedano-Lopezek inguru elebidun eta eleaniztunetan bereziki hizkuntzei buruzko ideologiaren arakatzea biziki emankortzat aitortu dute (2002: 354-355):

... language socialization researchers are finding that ideologies of language intersect in complex and interesting ways with local notions of cultural and

group identity, nationhood, personhood, and language acquisition as a developmental process. While the specific language socialization practices motivated by these intermeshing systems of ideas and beliefs are always a central concern, these studies stress the inherent dynamism and mutability of language socialization, as a locus of reproduction as well as change, by exploring the channels of mutual influence linking ideology, practice, and outcome.

Azken batean, hizkuntza sozializazioa momentu-testuinguru zehatzari dagokio. Hau da, hizkuntz(ar)en pertzepzio edo hizkuntzen gizarte banaketa bezalako faktoreen araberrakoa da. Horregatik, hizkuntza sozializazioa ez da beti-batekoa edo monolitikoa, ez eta molde unibertsalekoa ere, eta hizkuntza erabilera ez-homogeneoa izaten du. Bertzalde, hizkuntza erabilera eredu horiek denboran alda daitezke, zenbait faktoreen arabera.

Hizkuntza sozializazioa eta ordezkatzeko atxikitze-indarberritze prozesuak

The Handbook of Language Socialization (Duranti et al., 2012) liburuan, mintzaira ordezkatzeko eta indarberritze prozesuetako hizkuntza sozializazioari buruzko zenbait artikulua daude, orain artio ikerketa arloa jorratu duten ikertzaileen ekarri nagusiak biltzen dituztenak. Egile gehienek (Garrett, 2012; Friedman, 2012; Nonaka, 2012) espresuki defendatu dute hizkuntza sozializazioaren ikerketa paradigmak erabiltzen dituen metodologia, hurbilpen analitiko eta ikuspegi teorikoengatik hizkuntza gutxiagotze eta ordezkatzeko prozesuak ez ezik, mintzaira atxikitze eta indarberritzeko bilakaerak ere ulertzeko ekarpen handia egin dezakeela. Hala eta guztiz ere, hizkuntza sozializazioaren arloko ikerlan gutxi hartu du mintzaira gutxituen egoera aztergai eta, gainera, horietako gehienek landa eremuko nekazaritza komunitate txikiak ikertzeraz jo dute (Nonaka, 2012).

Hizkuntza ordezkapena abian den inguruetako sozializazioaz, Garrettek (2012) ukipenean dauden taldeen arteko parekotasunik eza nabarmentzen du. Hala bada, hizkuntza ordezkapenaren azterketak arreta berezia jarri behar dio botereak hizkuntzan berean bai eta hizkuntzaren bidez ere eragiten duen moduaren azterketari. Hizkuntzaren ekonomia politiko eta ideologia arloetako ikertzaileek erruz egiaztatu duten bezala, mintzaira botere harremanak ezarri, birsortu eta horiei aurre egiteko gunea eta baliabidea da: «... language is both a site and a resource for the constitution, reproduction, and contestation of power relations» (Garrett, 2012: 515). Botere harreman horien eragina, hiztunen aurrez aurreko lagunarteko elkarreraginetaraino iristen da (ibid., 516).

Hizkuntza ordezkapen prozesuak aztertu dituzten hizkuntza sozializazioaren arloko ikertzaileek zenbait lan kontzeptu eta hatsarre teoriko aski hedatu berrikusi behar izan dituzte. Komunikazio jarduera modu hibrido, sinkretiko eta heteroglosikoak azaldu beharrak, adibidez, eraman zituen ikertzaileak hizkuntzen arteko *berezitasunari* (*discreteness*) eta *mugatasunari* (*boundedness*) buruzko onarpen implizituak birpentsatzeraz (ibid., 516-517). Hizkuntza-ukipen egoerak, iraunkorrak diruditenetik hizkuntza ordezkapeneraino doazen maila guztietan, bilakabide dinamikoak dira berez, bai norbanakoei bai taldeari dagokienez (ibid., 517):

Any 'bilingual' individual's proficiency in one or the other language is better conceptualized as a process than as a state, in that it is constantly strengthening or weakening, increasing or diminishing, depending upon such factors as the

degree to which the language is deemed acceptable or preferable for use in particular kinds of interactions and the degree to which the individual conforms his or her usage to such expectations and preferences. Similarly, at the level of the social group, the relative stability of bilingualism in a particular community is contingent on demographic and macro-economic factors as well as less obvious ones such as ideological shifts.

Hizkuntza-ordezkapen egoerak dinamiko eta aldakorak direnez gero, dimentsio soziohistoriko eta diakronikoan aztertu behar dira, aztermaila makroan zein mikroan, eta hizkuntza ukipenaren ondorioak ezin dira egonkortzat edo komunitateen edo hiztunen jabetzat hartu, bilakaeran dauden egoeratzat baizik (Garrett, 2012: 518).

Mintzaira indarberritzeko prozesuei dagokielarik, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak ez ditu anitzetan hizkuntza egoera horiek bereziki aztergaitzat jo. Debra Friedmanek (2012) mintzairen biziberritze prozesuak hizkuntza sozializazioaren paradigmatic egindako ikerketetan, bereziki aipatzen dituen alderdietako bat haurren egintzailetasuna (*agency*) da. Ikertzaileek hizkuntza indarberritze prozesuetan haurrek jokatzen duten rolari jarri diote arreta: neska-mutikoak eraldatzaile aktiboak dira, ez heldu eta zaintzaileen ideologia eta portaeren jasotzaile hutsak. Horretaz gain, sozializazio prozesuan adinkideen eragina ere nabarmendu dute.

2.1.3.3. *Hizkuntza sozializazioa aztertze metodologia*

Hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloa diziplinartekoa da, auzo jakiteen (antropologiaren, soziologiaren, hizkuntzalaritzaren eta psikologiaren) ikusmolde teoriko-metodologikoak bere egin ditu (Schieffelin & Ochs, 1986: 183-184) eta ikuspegi holistikoa edo orohartzailea eta integratzailea hartzen du.

Hizkuntza sozializazioaren izaera dinamiko, aldakor eta ez-zurrinari erantzuteko moduko hurbilpen teoriko eta metodologiko malguak garatu behar izan dira, azterketa maila mikro eta makroa uztartzen dituztenak, hiztunen bizi ibilbide ez-linealak azaltzea eta horiek jarraipen eta eraldaketa soziokulturalerako nola jokatzen duten aztertzea ahalbidetzen dutenak (Garrett, 2012).

Hizkuntza sozializazioak subjektuen historiari begiratzen dio, sozializazio elkarrenginaren azpian dauden ideologiei eta botere harremanei antzeman nahian (Garrett & Baquedano-López, 2002). Hizkuntza jokabidearen eta kultura ideologiaren arteko harremana aztertze, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak teknika etnografikoaren alde egin du (Schieffelin & Ochs, 1986: 168-169):

The relation between language behavior and cultural ideologies is not explicit or obvious but must be constructed from a range of ethnographic data, including interviews, observations, transcripts. The recordings of children's or novices' verbal activities with others form one part of a larger data base used in proposing generalization concerning local social practices and cultural patterns.

Ikerbide etnografikoa oinarri duela, iraupen luzeko azterketak jorratzen ditu. Behaketa eta elkarrekintzak batik bat etxe-familia inguruan egiten badira ere, arakatzeko etnografikoak gune desberdinak hartzen ditu. Ikerketa ez da etxe-barrenera, ez eta etxe-koen arteko eguneroko elkarrenginetara ere mugatu behar (Luykx, 2003). Hizkuntza gutxiak atxiki eta garatzeko prozesuak aztertzeari begira, ikertze ahaleginak eman-

korragoak izanen dira baldin eta eskola bezalako eremu formal eta instituzionalarekin batera, etxearen eta komunitate hurbilaren moduko arlo informaletako hizkuntza-portaera ereduak ere kontuan hartzen badira (He, 2012: 594).

Aztergaia hizkuntza formak nahiz testuinguru soziokulturala izateak bide ematen die ikerketa arlo honetako ikertzaileei maila mikro eta makro bateratzeko: «Language socialization research that links micro and macro levels of analysis by examining individual developmental trajectories in the context of broader societal trends and sociohistorical trajectories provides a means of exploring the relationships between linguistic form and communicative practice» (Garrett, 2012: 517).

Konparazio kulturartekoa du xede eta, hori erdiesteko, ikerketak denbora eta gune desberdinetan egiten dira, kulturak eta hizkuntzak izan duten aldaketa atzema-tearren (Ochs & Schieffelin, 1992; Garrett & Baquedano-López, 2002). Izan ere, hizkuntza sozializazioaren paradigmak hizkuntza eta kulturaren jarraipena eta eraldaketa hartzen ditu aztergai: «This has proved to be one of the paradigm's greatest strengths, allowing researchers to capture continuity as well as change in language and culture alike» (Garrett & Baquedano-López, 2002: 342).

Hori horrela, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloa bereziki egokia suertatu da, hizkuntza ordezkatzeko prozesuei, indarberritzeko mugimenduei nahiz mintzairari lotutako bertzelako aldaketa soziokulturalari heltzeko.

2.1.3.4. *Hizkuntza sozializazioa Europako mintzaira gutxituetan*

2008an Ochsek eta Schieffelinek “Language Socialization: An Historical Overview” artikuluan, hizkuntza sozializazioak eta hizkuntza eta kulturen jarraipen eta ordezkapen prozesuek duten elkarreragina aztergai izandako ikerlan batzuen berri eman dute. Azterlanak jorratu diren eremu geografikoak ikusita, mirestekoa da ikerketa lerro horrek Europan izan duen oihartzun txikia. Delyth Morrisek eta Kathryn Jonesek (2008: 127) ere gabezia hori bera utzi dute agerian: «The body of language socialization research that has developed over the last 20 years (...), by North American scholars in particular, is currently very limited in the European context». Izan ere, gutxi dira hizkuntza sozializazioa Europako hizkuntza gutxituen edo dialektoen sozializazio esparruan egindako ikerlanak (ibid., 127): «... very little detailed work in the ‘language socialization’ tradition has been carried out on the language practices of the various minority language groups in Europe which are concerned with their language maintenance and revitalization».

Dauden urrien artean hiru aipa daitezke, 2002ko Fellinena, 2008ko Morris eta Jonesena eta 2009ko Jones eta Morrisena.

Luciana Felinek Italiako Alpeetako Revò herrian ikerketa egin zuen *nones* izeneko mintzairazko sozializazio moldeek hizkuntzaren indarberritzeari nola eragiten dioten ikusteko. Felinek azterketak agerian utzi duenez, batzuetan hitzunen adierazten dituzten hizkuntza ideologiek eta haien hizkuntza jarduerak ez dute bat egiten eta berak arakatu testuinguruan, horrek hizkuntza gutxituaren alde egin du: «The mismatch between their explicit language ideologies favouring Italian and the implicit ones privileging Nones that surfaced in their actual practices...» (Fellin, 2002: 55). Helduen hizkuntza jarduerak —ohartuki ez bada ere— bertako identitatea eta mintzaira indartu egiten dute (ibid., 55-56): «... Nones identity and language are acquiring a more

powerful role. Speaking Nones marks community membership and local identity, which in the current situation are the more valuable symbolic capital for participants (...). This novel orientation is at the heart of the revival process in the community».

Delyth Morrisek eta Kathryn Jonesek Galesen egindako ikerketek haurren gales-tar sozializazioari eragiten dioten faktoreak argitzea izan dute xede. Gurasoen generoak eta mintzaira balioek umeen hizkuntza hazierarekin duten zerikusia aztertuta, bi eragingarrien garrantzia nabarmendu dute (Jones & Morris, 2009: 136): «... young children's language socialisation can only partly be explained by the gendered parenting roles of their fathers and mothers (...) we also need to take account of parents' language values to see how these shape each child's family life and language practices».

Aipatu ikerketa horietatik landa, hizkuntza sozializazioaren paradigmatik ez du gure inguru akademikoan Europako hizkuntza gutxituen ikerketetan aplikazio handirik izan. Euskararen indarberitze prozesua edo belaunik belauneko jarraipena ere ez da orain artio hizkuntza sozializazioaren ikermoldetik aztertu.

Ikerketa honetarako hizkuntza sozializazioaren paradigma, hala teorikoki nola metodologikoki, bereziki baliagarria gertatu zaidala nabarmenduz emanen diot amaiera ataltxo honi.

2.2. EUSKARAREN JARRAIPENA IKERKETETAN

Hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko jarraipena, hau da, belaunaldi berriak euskaldun haztea euskararen iraupenerako baitezpadakoa dela aspaldian jakina eta onartua bada ere, ez da gertakari-prozesu horren gaineko ikerketa sistematikorik izan. Jone Miren Hernandezek (2001) agerian utzi bezala, euskararen transmisioa aztergai izan duten ikerlanak, alde batetik, gutxi dira, eta bertzetik, lan urri horiek ez diete funtsaren funtsean, gaiaren sakoneko arazoei erantzun.

Atal honetan euskararen jarraipena azterlanetan nola landu den arakatuko dut. Aurrena, laburki, euskararen iraupenaren gaineko lehen interesa kokatu eta Nafarroako euskararen geografia historikoaren ikerketa arloan txertatzen diren lanen ezaugarriak agertuko ditut, ikerlan horiek euskararen jarraipena aztertzeko moduari eragin diotelakoan. Ondotik, azken lau hamarkadetan gaiari heltzeko jorratu diren azterbide nagusiak (soziologiko-kuantitatiboak eta etnografikoak) azalduko ditut eta azken ikermolde horretatik burutu diren zenbait ikerlanetan barnatuko naiz, horiek baitira, nire idurikotz, egun euskararen jarraipena arakatzeko aurrekaririk ernagarrienak.

2.2.1. Nafarroako euskararen iraupenaren gaineko lehen kezka

Atalño honetan, euskal soziolinguistika eratu artio euskararen jarraipena eta transmisioa nola ikusi eta aztertu den azalduko dut, nahiz eta laugarren atalean zenbait arlo xehekiago jorratu. Hala bada, nire xedea ez da garai historiko horretako diskurtso eta ideietan sakonki barrentzea¹⁴, ondoko ataltxoetan agertuko ditudan ikusmoldeen eta azterlanen erro-abarrak aipatzea baizik. Izan ere, Nafarroan XIX. gizaldiaren hon-

¹⁴ Horretarako honakook dira egokiak, bertzeak bertze: Corcuera (1979), Intxausti (1990: 105-145), Tejerina (1992: 86-112), Urmeneta (1996), Jimeno Jurío (1997: 205-227), Erize (1997: 459-521) eta Jimeno Aranguren et al. (2000).

dar hamarkadetako intelektual euskaltzaleek euskararen egoeraren aitzinean izan zituzten ikuspegiak eta ideien arrastoa, anitz hamarkada geroago, XX. mendeko Gerra Zibila ondotik, zenbait nafar euskaltzale eta ikertzaileen ikusmoldeetan kausi daiteke.

Euskararen gizarte egoeraren gaineko kezka, alde edo molde, euskarazko literaturaren hasikinekin batera, XVI. gizaldiaren erdialdetik aitzina agertzen badira ere¹⁵, hizkuntzaren iraupenari buruzko ardurak batik bat mintzairaren gibelatze eta galtze larriaren oharrena nagusitu zen garaian orokortu zen, XIX. mendean.

Egile batzuek aipatu bezala (Jimeno Aranguren et al., 2000), Hego Euskal Herrian euskal Errenazimentua ez zen Europako gainerako herrietan bezala XVI. gizaldian loratu, XIX. mendean baizik; hain zuzen ere, 1876an azken karlistaldia akitu zenetik 1936 artio. Data honetan, Gerra Zibilak euskal mugimendu soziokulturala bortizki geldiarazi zuen. *Eusko Pizkundera* deitu izan den aldi hori euskararen aldeko diskurtso eta ekimen ugari —ez hainbertze ikerketako— garaia izan zen, ondoko hamarkadetan eragin bizi izan zuena.

Euskal kulturaren loraldi horrek Nafarroan, Iruñean bereziki, izan zuen indarrik biziena. Euskararen gizarte balioespen eskasaren eta galeraren aitzinean zenbait intelektual euskaltzalek hizkuntzaren iraupena kezka bidez hartu eta elkarte osatu zuten, Nafarroako Euskarazko Elkargoa hain zuzen, Eusko Pizkunde mugimenduaren aitzindaria izan zena. Ondoko puntuotan Nafarroan ernamuindu zen euskaltzaletasuna izanen dut aztergai, eta bi alderdi hauek jorratuko ditut: lehenik, euskararen iraupenari ematen zitzaion esanahia eta, bigarrenik, hizkuntzaren jarraipenari begiratzeko moldea.

2.2.1.1. Nafarroako Euskarazko Elkargoa eta haren eraginak

Nafarroako Euskarazko Elkargoa – Asociación Euskara de Navarra Iruñeko intelektual euskaltzale talde batek 1877an sortu eta hogeitaz jardun zuen. Elkarrekin *Revista Euskara* aldizkaria (1878-1883) argitaratu zuen. Iruñekoei jarraikiz ekimen horien ideia Hego Euskal Herriko gainerako herrialdeetara hedatu zen, eta halako taldeak eta aldizkariak sortu ziren Donostian, Gasteizen eta Bilbon.

Euskarazko Elkargoko kideen —*euskaroen*— artean, Arturo Campión, Juan Iturralde y Suit, Hermilio Oloriz, Estanislao Aranzadi, Nicasio Landa, Florencio Ansoleaga eta Esteban Obanos zeuden, bertzeak bertze, garaiko Iruñeko intelektual eta gizarte itzal handiko gizonak. Nafarroako euskararen gibelatzerik handieneko garaia zen eta haien diskurtsoan foruzaletasunak, horri loturiko gai politikoek eta Hegoaldean zegoen krisiak lekua bazuten ere, euskararen etengabeko galera egin zitzaizen bereziki mingarria eta hizkuntzaren egoeraren aitzinean nafarren eta Nafarroako erakundeen kontzientzia inarrosi nahi izan zuten. Izan ere, hainbat egile (Tejerina, 1992; Erize, 1997; Nieva, 2000; López Antón, 2000) bat heldu dira erratean euskararek euskara (foruekin batera) Nafarroaren eta Euskal Herriaren izaerari loturiko osagarririk funtsezkoentzat jotzen zutela.

Hernandezek (2007: 70-80) euskararen *iconicity* prozesua ikertu du, alegia, mintzairaren eta haren gizarte irudikapenaren arteko harremana: «En el caso del euskara

¹⁵ Euskal Ietren estreinako saioan berean, Bernat Etxapare (1545/1987: 5-6) jakitun da kultura jauzi horren premia, aitzinsolasean arrangurati dioelarik libururik ezean euskara «... abataturic eceyn reputacione vague» zegoela eta «... berce nacione oroc vste dute ecin deusere scriba dayteyela lengoage hartan nola berce oroc baitute scribatzen beryan».

este proceso de iconización se completa de manera intensa, perfilándose una relación directa entre lengua (euskara) y código identitario —o modelo de identidad—» (ibid., 70). Hala mintzairaren eta identitate kolektiboaren arteko harremana aztertu dutenek (erraterako Azcona, 1984; Apaolaza, 1998; Zulaika, 1996) nola hizkuntzak eremu politikotik sortu diren irudikapenetan nahiz diskurtsoetan izan duen lekua arakatu dutenek (konparaziorako, Herberg, 1991; Tejerina, 1992; Apaolaza, 1993) euskara balizko euskal nortasunari hertsiki loturik joan dela agerian utzi dute. Euskararen ikonizatze prozesu horretan, Eusko Pizkundean euskararen gainean garatu ziren ideia eta irudiek leku nabarmena dute euskal etnogenesisian eta gorpuztu zen ideologia abertzalean: «... el movimiento euskerista capitaneado por Campión contribuye al proceso de centralidad que irá adquiriendo la lengua en la sociedad vasca al considerar el propio Campión el euskera como corazón del pueblo vasco, soporte de la raza y transmisor de la cultura» (Herberg, 1991: 79).

Ikerlan honetan euskarak euskal nazionalismoan hartu zuen lekuan sakontzea ez dagokit, baina bai euskarok Nafarroako euskararen jarraipenaren gainean garatu eta hedatu zuten irudikapena azaltzea. Euskararen belaunez belauneko jarraipena mugimendu horren lehentasunetako bat izan zen, baina beti balio jakin batzuen segidari loturik. Euskara euskal kontzientzia historikoaren gordailutzat ikusten zuten eta haren iraupena erlijioaren, euskal familiaren eta moralaren bermetzat. Euskararik gabe herriak identitate ezaugarri nagusia galduko luke, haren alderdi tradizionalak (erlijiotasuna, ohiturak, instituzioen autonomia...) hizkuntzari atxikirik ikusten baitzituzten: «La lengua cumple una función moral explícita. Es la portadora de las buenas costumbres o instrumento de permisividad y amoralización» (López Antón, 2000: 69).

Euskarokendako euskararen gainbehera Nafarroaren eta Baskonia osoaren endekapenaren seinalea zen. Campionen ustez, euskararen galerak eta belaunaldien arteko kultura haustura horrek herriaren tradizioa lehertzen zuten. 1901ean Azpeitiko Lore Jokoetan politikari iruindarra honela solastu zen (López Antón, 2000: 69):

La familia, lingüísticamente homogénea antes, es substituida por otras dualistas en el período intermedio, de las que hay tantos lamentables ejemplares en Navarra. Los abuelos hablan exclusivamente el baskuenze, los hijos mal en baskuenze y el castellano, los nietos exclusivamete el castellano; un castellano toscó, incorrecto, con ribetes de bárbaro; castellano de Aragón y la Rioja; vehículo de groserías, obscenidades y blasfemias.

Campionen hitzetan, euskararen galerak herriaren beraren ezabatzea zekarren eta euskarari eta tradizioei irauarazi zien belaunaldi kateari eutsi ez zioten guraso axolagabeen jokaera gaitzetsi zuen. Aldiz, baserria laudatu zuen, hura baitzen euskararen eta horri loturiko on guzien bihotz gune eta sorburua. Horren erakusbide, iruindar politikariak 1903ko Irungo Lore Jokoetan errandako hitz hauek (ibid., 69-70):

Los niños de la calle hablan baskuenze. Que les han enseñado a esos niños? [sic] que el baskuenze es obscurantista? que el baskuenze no se cotiza en Bolsa? Fríos, indiferentes, sin amor ni odio, los padres asisten a la ruptura de esa cadena de oro, el lenguaje patrio, que enlaza a las generaciones y hace del último de los pescadores un compatriota de Elkano. Baskonia reaparece en las laderas de esas colinas donde se pisan argomas y helechos. El caserío, madre de donde fluye perenne la renovación de la raza, ejerce el oficio de las antiguas vestales. Cuando el caserío, a su vez, venci-

do por el mal ejemplo de quienes debieron dárselos mejores, se rinda y capitule, ya no será el crepúsculo, será la noche la que cierre sobre Euskaria degenerada.

Campionek orduko Nafarroak pairatzen zuen krisialdi gogorra gaintitzeko irtenbidea euskararen sendotzean ikusten zuen (Erize, 1997: 476). Ildo horretatik, mugimendu euskaltzaleak, hizkuntzaren aldeko aldarrikapena egiteaz landara, egitasmoa zehaztu zuen eta hainbat arlotan jarduerak antolatu (ibid., 477-482 eta 496-513). Tejerinaren (1992: 103) ustez, Campionen eta Eusko Pizkundearen ekarpen nagusia horretan datza, hain justu, euskararen galbidearen arrazoieta sakontzean ez ezik, gizartea horretaz ohartarazteko nahiz egoera uzkaileteko kultura ekimen askotarikoak proposatzean ere.

Arreta berezia euskara bizirik zegoen herrietan paratu zuten, hala hizkuntza suspertzeko Lore Jokoak bezalako ekitaldiak antolatzeko orduan nola euskarazko irakaskuntza planteatzeko tenorean ere. Berebat, garrantzi handia eman zioten euskarak Nafarroan izan zuen hedapen eta ibilbide historikoak erakusteari. Erizeren ustez (1997: 470) Campionek eratutako sistema ideologiko koherente eta eguneratua, geroagoko mugimendu euskaltzaleen hezurdura izan da.

Campion eta bere lankideak diskurtso apologistaren mugez ohartu ziren eta horiek gaintitze aldera hizkuntzaren dimentsio soziala erdigune zuen diskurtso berria eratu zuten. Honako hau da Erizek (1997: 461) aitortzen dien ekarpenik behinena: «... euskal tradizioan eta Europako hizkuntzen mugimenduetan oin bana jarri eta egoerari aurre egingo zioten sistema ideologiko eta berau bultzatzeko erakundeak lehendabiziko aldiz antolatzea».

Euskarazko Elkargoak 1877tik 1897 artio jardun zuen. Ondotik bertze elkarte batzuk eratu ziren: Euskal-Esnalea (1907-1931) eta Euskeraren Adiskideak (1925-1936). Hiru elkarte horietan euskaltzale nafarren hiru belaunaldik hartu zuten parte. Euskarazko Elkargoak jarduteari utzi eta gero zenbait euskarok euskararen aldeko lanetan segitu zuten euskaltzaleen gizaldien arteko zubia eginez; Campionek horrela egin zuen ondorengo euskaltzaleekin. Bigarren belaunaldian, Pablo Fermin Irigaray *Larreko*, Cruz Goyeneche, Damaso Intza, Enrique Zubiri *Manezaundi*, Jose Agerre, Ziriako eta Federiko Garralda zeuden, bertzeak bertze, eta hirugarrenean, Ángel Irigaray —Pablo Fermin Irigaray *Larreko*ren semea—, Miguel Inchaurre, Blas Fagoaga, M^a Paz Ziganda eta abar.

Zenbait egilek (Satrustegi, 2000: 311-312; Jimeno Aranguren, 2000: 10) Euskarazko Elkargoaren eraginen artean, Eusko Ikaskuntza (1918) eta Euskaltzaindia (1919) erakundeen sorrera aipatzen dute, bai eta —denboran urrutiago joanez— Nafarroako Vianako Printzea Kultura Erakundearena ere (1939) (Iriarte, 2000: 319).

Izan ere, euskaroen eta Gerra Zibilaren ondoko euskaltzaleen ideien arteko loturak agerikoak dira hainbat ikertzaileentzako. Erraterako, euskararen gaineko diskurtsoari dagokionez, Iñaki Iriartek (2000) *Revista Euskara* aldizkariaren (1878-1883) eta hura baino lauretan hogeita hamar urte geroago sortu zen *Príncipe de Viana, Euskera Gebigarria* (1966-1985) agerkariaren arteko antzekotasunak agerian utzi ditu: euskararen galerak sortzen zien mina, hizkuntzaren iraupenaren gaineko ezkortasuna eta euskara Nafarroan desagertuko zela iragartzea, hizkuntzarekin batera herriaren nortasuna galduko zela sinestea... Adibidez, honelako testuak argitaratzen ziren *Príncipe de Viana, Euskera Gebigarria*: «Ordu da konturatzen asteko, euskara gibelerazten den lekuan... sinestena ere atzeraka joaten dela. Non dago sinestena bizi eta sendoago, Nafarroako erdal Erriberan... edo mendiari josita dauden euskal herrietan...?» (Iriarte, 2000: 323).

Diskurtso mailan ez ezik, proposatzen zituzten jardueretan ere agerikoa da XX. mendearen erdialdeko euskaltzaleen eta euskaroen arteko harremana. Adibidez, 1956an Vianako Printzea Kultura Erakundearen *Euskera Bizkortzeko Saila* sortu zelarik, abian paratu zituen lehen ekimenetako bat Mendialdeko herrietako haurrei euskara jakiteagatik dirua eta diplomak partitzea izan zen (4.1.3 ataltxoan xeheki azalduko dudan bezala. Ikus I. eta 2. eranskinak). Ideia hori ez zuten Euskera Bizkortzeko Sailean zihardutenek, Pedro Diez de Ultzurrun buru zutela, *ex novo* sortu. 1925ean A. Irigarayk, *Irular* goitizenez sinaturik, Nafarroako euskararen gibelatzearen lekukotasunak eman eta orduko hegoaldeko muga zedarritu zuen artikuluxka batean, hizkuntza larriki galtzen ari zela oharturik honela proposatu zuen:

En vista del poco sentimiento vasquista de nuestros euskaldunes, tanto letrados como rústicos, para detener la desaparición del vascuence, no hay otro medio que el dinero. Otorgar premios en metálico a los chicos que mejor lo hablen, en los pueblos en que pueden ser enseñados por sus padres que aún no lo han perdido; de ésta manera se incitaría la codicia de los padres, que pueden satisfacerla, enseñándoles a hablar a sus hijos.

Ideia hori bera 1925ean sortutako Euskeraren Adiskideak elkarteak bere egin zuen. Elkarte honek Nafarroan euskara sustatzeko burutu zituen jardueren artean¹⁶ garrantzitsuena haur euskaldunei zuzendutakoa izan zen. 1928 eta 1933 urte bitartean proba baten bidez euskara bazekitela erakusten zuten haur nafarrei diru sariak partitu zizkieten¹⁷.

Irene López-Goñik (2002: 158) Vianako Printzea Kultura Erakundearen Euskara Sailearen sortzearekin, Nafarroako Gerra Zibilaren aitzineko euskaltzaleen eta Gerra ondoko mugimenduaren arteko zubia gauzatu zela nabarmendu du eta lotura hori proposaturiko jardueretan nahiz bi garaietan jardun zuten hainbat lagunengan ezagun da. Izan ere, Euskara Sailean laguntzaile izandakoen artean Euskera Adiskideak elkartearen batzordekide izandakoak –zuzenean edo familiako baten bat haien ize-nean– zeuden: M^a Paz Ziganda, M^a Puy Ruiz de Alda, Dolores Baleztena, Francisco Tirapu eta Ángel Irigaray (ibid., 159). Azken izen hau Gerra aitzineko eta ondoko

¹⁶ Xabier Erizek (1997: 504-508) aletu dituenetatik batzuk hauek ditugu: euskal jaiak Nafarroako hainbat herritan, literatura lehiaketak, Lekarozko Nuestra Señora del Buen Consejo Ikastetxeko ikasturte amaierako euskal bestak, haur euskaldunaren eguna eta haur euskaldunendako jaiak.

¹⁷ Josu Chueca (1999: 154) historialariak honela dio Euskeraren Adiskideak elkarteaz: «Pero su actividad más importante sin lugar a dudas era la destinada a promover el uso del euskera entre los niños. Para ello llevó a cabo campañas en las zonas en las que el euskera se encontraba en retroceso, mediante incentivos materiales a favor de aquellos que lo hablaban. Los premios consistían en la apertura de libretas en la Caja de Ahorros y se daban tras la realización de unos exámenes en los que se medía el nivel de conocimiento respectivo. La memoria de 1928 nos informa de que aquel año se habían repartido premios en Olagüe, Etulain, Leazcue, Lanz, Orbaiceta, Aria, Aríbe, Urdaniz, Garralda, Arizu y Ochagavía. En 1930, además de gratificar a los niños de Oroz-Betelu, Esteribar y Araquil se realizaron exámenes en Pamplona para ‘estimular dentro de la capital de Navarra a los padres que con no pequeño sacrificio suyo han conseguido que sus hijos sepan y hablen euskera’».

Irene López-Goñik (2002: 158-159, 99. oin-oharra) jaso duenez, Euskeraren Adiskideak elkarteak 1933 urteko *Txostenean* honela zioen: «Se han distribuído los pasados años premios en libretas generosamente donadas por la Caja de Ahorros de Navarra y particulares (merecen especial mención la señorita María Paz de Ciganda y don Fermín Irigaray), a los niños de Lanz, Arizu, Ochagavía, Atez, Ulzama, Iruña, Erro, Esteribar. En el año de 1933, a los de Garayoa, Garralda, Abaurrea-Alta, Esaarza [sic] de Salazar, Oronz y Ezcaroz, en número de 103 niños y pesetas 1.350».

euskaltzaletasunaren lokarri izan zirenen artean bereziki nabarmentzen da. Ángel Irigarayk, Nafarroan euskara galbidera zeraman egoeraz hainbertze arduratu eta idatzi zuen Larrekoren semea zenak, Campionek eta bertze batzuek hasitako ikerketa lerroari segitu zion, hurren ataltxoan azalduko dudan bezala.


2.2.1.2. Nafarroako euskararen geografia historikoa

1925ean (eta berriz 1930ean) Ángel Irigaray beratarrek (*Irular* goitizenaz sinaturik) “El vascuence en Navarra” artikuluxka argitaratuta aitzineko mendean Arturo Campionek hasitako tradizioari segitu zion. Tradizio horrek euskararen geografia historikoa osatzea, hau da, Nafarroan euskaraz mintzatu izan den eremuaren hedadura historikoki nola txikitu den azaltzea zuen helburu eta ikertzaile anitzek egin izan dute beren ekarpena arlo horretan. Batzuk baizik ez aipatzearren: Julio Urquiyo, Julio Caro Baroja, Eufrasio Munarriz, Jose Miguel Barandiaran, Jose M^a Lacarra, Angel Irigaray (*Irular* edo *Apat-Echebarne*), Blas Fagoaga, Bernardo eta Mariano Estornés, Koldo Mitxelena, Fernando González Ollé, Ana M^a Echaide eta José M^a Jimeno Jurío.

A. Irigarayk (1935: 623) Espainiako Gerra Zibila hastear zegoelarik Nafarroako euskararen hegoaldeko muga zedarritu zuen: Ziordia, Lizarraga, Urritzola, Aristregi, Markalain, Nabatz, Otsakain, Zuriain, Galdurotz, Gurpegi, Artozki, Azparren, Gorza eta Izaba-Uztarroze. Marra horretatik Iparraldera zeuden herriak euskaldunak ziren. Euskalduntzat jotako eremuaren barnean, halere, zenbait eskualdetan euskarak trinkotasun ahula zuela ohartarazi zuen. Eskualdeotan gazte jendeak ez zuen orduko euskaraz egiten: Arakilen, Gulian, Txulapainen, Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren, Zaraitzun eta Erronkaribarren. Eskualde horietako zenbait herritan, dena dela, euskarak bizitasun handia zuen: Usetxin, Iragin, Eugin, Lizoainen, Mezkitritzen, Ardaitzen eta Espartza Zaraitzun, bertzeak bertze.

Mapa

Nafarroako euskararen mugak hizkuntzaren geografia historikoaren ekarpenen arabera



Iurria: Erize (1997: 214)

Hizkuntzaren hedapen geografikoa mugarriztatzeaz gain, mediku beratarak ia ez zuen bertzelako informazioarik eman Gerra Zibila hasi hurren euskara zertan zen ezagutzeko. Euskal Herriko buruzagiek eta intelektualek euskarari historikoki izan dioten erdeinua eta harekiko utzikeria salatuz, euskaldun jendeak bere hizkuntzari izan dion atxikimendu eta maitasuna nabarmendu zituen. Euskararen galtzean eragin izan duketen arrazoen artean pasarte interesgarriak idatzi zituen, handik hamarkada batzuetara ondoko ikertzaileek garatu eta sakondu zituztenak: arrazoi soziopolitikoak (elite erdaldunak, komunikazio bideak, gerrak), arrazoi psikolinguistikoak (euskaldunak gutxietsirik zeuden) eta arrazoi soziolinguistikoak (euskara baino ez ezagutzea, euskarari eusteko elebitasuna lagungarritzat jo baitzuen). Dotrina euskaraz egin ez izanak ere ondorio latzak ekarri zizkion euskarari, haren ustez.

1956an Nafarroako euskararen egoeraren gainean adierazitakoa zehaztu nahi izan zuen: «... y sentar las bases de un estudio geográfico lingüístico más exacto» (A. Irigaray, 1956: 41). 1935eko euskararen hegoaldeko mugako herrietan euskarak zuen gizarte erabilera desberdinez oharturik, herri horiek euskararen ezagutzaren eta erabileraren araberako zazpi mailatan sailkatu zituen. Hona hemen berak zerrendatua taula batean antolatuz:

Taula

Ángel Irigarayk 1935ean Nafarroako euskararen hegoaldeko muga zehaztean aipaturiko mugako herriak berak bereizitako zazpi mailatan sailkatuz¹⁸

I. Hurrek euskara badakite eta euskaraz egiten dute

Jaurrieta, Espartza (Zaraitzu); Hiriberri, Abaurregaina, Abaurrepea, Orbara, Aria (Aezkoa); Mezkiritz, Lintzoain (Erroibar); Eugi, Iragi, Usetxi, Leranotz (Esteribar); Etulain, Leazkue, Egozkue, Aritzu (Anue); Latasa (Odieta); Eltso, Iraizotz (Ultzama); Beratsain, Ziganda (Atetz); Muskitz (Imotz); Irañeta (Arakil).

II. 30 urtetik goitikoek euskaraz egiten dute, hurrek ez

Orontze (Zaraitzu); Garralda (Aezkoa); Olondritz, Loizu, Urniza, Aintzinoa, Ardaitz, Larraingoa (Erroibar); Urtasun, Saigots, Akerreta, Inbuluzketa, Setoain, Ezkirotz, Ilarratz, Osteritz, Sarasibar, Ilurdotz (Esteribar); Lantz (Anue); Arraitz (Ultzama); Amalain (Atetz); Beorburu (Txulapain); Ihaben (Basaburua), Latasa (Imotz).

III. 30 urtetik goitikoek euskaraz badakite baina ez dute euskaraz egiten

Uztarroze (Erronkaribar); Gorraitz, Azparren (Artzibar), Urritzelki, Aurizperri (Erroibar); Zilbeti (Esteribar); Erripa (Odieta); Zia, Aginaga¹⁹ (Itza); Urritzola (Arakil).

IV. 50 urtetik goitikoek euskaraz egiten dute, 30 urtekoek ez

Orbaizeta, Garaioa (Aezkoa); Auritz; Orreaga; Hiriberri, Arrieta, Saragueta, Uritz, Orotz-Betelu (Artzibar); Esnotz (Erroibar); Urdaitz, Zubiri, Zuriain (Esteribar); Burutain, Etsain, Olague (Anue); Anotzibar (Odieta); Lizaso, Larraintzar (Ultzama); Eritze (Atetz); Satrustegi, Ihabar (Arakil).

V. 30 eta 50 urtekoek euskaraz badakite baina ez dute euskaraz egiten

Itzaltzu, Otsagabia, Ezkaroze (Zaraitzu); Idoi (Esteribar); Ziaurritz (Odieta); Aroztegi, Eguarats (Atetz); Nabatz, Beltzuntze (Txulapain).

¹⁸ Zerrendan eman zituen herriak baina ezin mailatan sailkatu gabe, alde batetik, Galdurotz (euskaldun bakarra zuena); bertzetik, Aristregi, Izurdiaga, Usi, Zabaldika eta Zuntzarren (euskaldunik ez zuten herriak).

¹⁹ Zia eta Aginaga Itzan sartu ditut egun administratiboki hara biltzen baitira. Ikuspuntu etnosoziolinguistiko batetik, aldiz, Gulibarren sartzeara egokiagoa izanen litzateke.

VI. 50 urtekoek eta hortik goitikoek euskaraz badakite baina ez dute euskaraz egiten

Izaba (Erronkari); Igari (Zaraitzu); Aribe (Aezkoa); Lusarreta, Imizkotz, Lakabe, Gurpegi (Artzibar); Gerendiain, Erro (Erroibar); Larrasoaña, Irotz (Esteribar); Otsakain, Zandio, Beraitz (Olaibar); Ostitz (Odieta); Larraiotz, Osinaga (Txulapain); Larunbe²⁰, Gulia (Itza); Aizkorbe, Etxaberri, Egiarreta, Errotz, Ekai, Etxarren, Zuhatzu, Hiriberri (Arakil).

VII. Zaharrek baizik ez dakite euskaraz baina ez dute euskaraz egiten

Urzainki, Bidankoze, Erronkari (Erronkaribar); Sartze-Ibiltzieta, Gorza (Zaraitzu); Elia (Eguesibar); Biorreta, Espotz, Asnotz (Artzibar); Sorrauren (Ezkararte); Otsabide (Olaibar).

Iturria: A. Irigarayren (1956) zerrendaren arabera nik apailatutako taula.

Erakutsi bezala, mailakatze horren lehen multzoan sartutako herrietan haurrek euskaraz bazekiten eta egiten zuten; ondoko mailetan euskararen ezagutzak eta erabilerak adin taldeetan goiti egiten zuten, eta azken multzoan sailkatutako herrietan zaharrek baizik ez zekiten euskaraz, baina ez zuten egiten. Ondoko ikertzaileek sailkapen horri usu egin zioten aipu. Izan ere, Nafarroako euskararen geografia historiko zehatzago baterako elementuak ekartzea xede zuen lan horri, ondotik heldu ziren bertze lan osoago batzuen oinarri eta aurrekaria izatea aitortu behar zaio.

Ángel Irigarayren lanaz geroztik eta 1970 bitarte, lan gutxi batzuk baizik ez dauke Nafarroako euskararen egoera alde edo moldez gogoetagai izan zutenak: Julio Caro (1941, 1945/1990), Bernardo Estornés (1960), Blas Fagoaga (1962), Joaquín Morales de Rada (1963), Mariano Estornés (1963) eta Ana M^a Echaide (1966). Lan horiek, oro har, euskara adierazpide zuten nafarren gainean informazio arras urria ematen dute. Lanak, laburrak eta azalekoak, Nafarroako euskararen galeraren lekukotasunak bildu, atzerakadaren marra kokatu eta, batzuetan, gibelatze horren arrazoiak argitzera ere zuzenduta zeuden. Ondoko egileek aldian-aldian A. Irigarayk azaldutako egoera makurrago irudikatu eta euskararen hego-marra atzerago marratzu zuten.

1960an Bernardo Estornésen “Área lingüística” argitaratu zuen *Geografía histórica de la lengua vasca* talde lanean. Euskararen gibelatzearen larritasuna agertu eta hizkuntzaren bizitasunari kalte egin izan dioten faktore batzuk aipatu zituen: migrazioak, bizi-modu aldaketa, hizkuntzaren babes ofizialik eza, eskolan irakatsia ez izana... Euskal hiztun tipologiaren sailkapena egin zuen euskarak hiztunengan zuen bizitasunaren arabera: (euskal) elebakarra —gero eta bakanago agertzen zen hiztun mota eta zenbait kasutan euskaldunen *vasocofobiaren* kausa izan zitekeena—, elebiduna —elebitasun simetriko eta orekatu gisa azalduta eta berak hobesten zuen tipologia— eta (erdal) sasi-elebiduna —euskara jakin arren erabiltzen ez zuena— bereizi zituen. Euskal-sasi-elebidunaren tipologia ez zuen aipatu ere egin. Euskarak hiztun berriak irabazi izanaren kasuen aipua ere egin zuen, azalkiro bada ere: «También se dan otros, hoy frecuentes, de aprendizaje del vasco por el cónyuge que no lo sabía y hasta la re-euskerezaciones completas de toda la familia» (B. Estornés, 1960: 19). Euskarak zituen irabazi horiek non eta zein egoera soziolinguistikotan gertatzen ziren ez zuen argitu.

1961ean Joaquín Morales de Radak (1963: 20) egindako inkestaren berri “De ‘re’ Vasconica” artikuluan eman zuen:

²⁰ A. Irigarayk egindako oharra: Larunben hogeita lau etxetatik lauretan euskaraz egiten dute, gainerakoa VI. mailan.

El resultado de nuestro sondeo es desconsolador; acusa un retroceso horizontal o territorial y un retroceso vertical o de densidad. Retroceso territorial porque la frontera idiomática está sensiblemente al Norte de la que marcó don Angel Irigaray y retroceso de densidad porque en burgos donde tanto en 1935 como en la actualidad existían y existen vasco-hablantes, hoy, para escuchar euskera hay que acudir a individuos de más edad que entonces.

Ikerlanak euskararen gizarte erabileran izandako aldaketak jaso zituen. Adibidez, Ángel Irigarayren I. multzoan, hau da, 1935ean hurrek eta 30 urtekoek euskara jakiteaz gainera erabiltzen zuten herrietako zenbaitetan (Aritzun, Irañetan, Mezkitritzen, Iraizotzen eta Aezkoako Hiriberrin), 1961ean haur eta 30 urteko gutxi batzuek baizik ez zuten euskaraz ihardukitzen.

1963an Mariano Estornesek “Los últimos euskaldunes de Izaba (Roncal)” artikulutxoan, lekukotasun hunkigarria utzi zuen Izaban geratzen ziren azken hamalau euskal hiztunak (hamahiru hiztun, oin-oharra irakurrita) zerrendatzean²¹.

1966an Ana M^a Echaidek “Regresión del vascuence en el valle de Esteribar (Navarra)” artikuluan, 1965ean Esteribarren bildu zituen datuak Ángel Irigarayk 1935ean haran horretan berean bildutakoen aldean paratu zituen. Alderaketak Esteribarren euskara gainbehera heldu zela erakusten zuen: «... refleja la regresión del vascuence en el valle» (1966: 257). Zenbait herritako garapena aztertuta (ibid.):

Poblaciones como Eugui, Iragui y Leránoz, de las que A. Irigaray nos dice que en el año 1935 hablaban vasco los niños, hoy saben hablarlo personas de 35 años en adelante. En Eugui es donde, en números absolutos, habla más gente el vasco, si contamos los que viven fuera del casco de la población. Sin embargo es en Iragui donde se oye hablar más y algunas familias enseñan también a los niños.

Hizkuntzalari donostiarraren ikerketak honako ondorio hau eman zuen: 1935. urtetik 1965 bitartean Esteribarko hamar herrik galdu zuten erabat euskara: Urtasun, Saigots, Akerreta, Inbuluzketa, Setoain, Ezkirotz, Ilarratz, Osteritz, Sarasibar eta Ilurdotz herriek²². Hizkuntzaren gizarte gibelamendua erakutsita, honela adierazi zuen (ibid., 259. Azpimarra nirea da):

En poblaciones como Urtasun, Saigós, Aquerreta, Imbuluzqueta, Setuáin, Esquíroz, Ilárraz, Ostériz, Sarasibar e Ilúrdoz, en las que Irigaray encontró que hablaban vasco a partir de los 30 años, la regresión ha seguido su marcha normal y el vascuence ha desaparecido totalmente en tres de ellos y, salvo en Urtasun, lo hablan menos de 10 personas (...) es nuestra intención irles informando acerca de la regresión del vascuence en el resto de Navarra a medida que vayamos reuniendo los datos necesarios.

Echaidek Esteribarko euskararen galera dokumentatu zuen eta etorkizunean Nafarroako bertze toki batzuetan ere horren berri ematen segitzeko asmoa zuela adie-

²¹ Mariano Estornesek 1963an zerrendatu zituen izabar euskaldun berriki hil horietako batzuei egin zieten hamar urte lehenago, 1953ko azaroaren 23an, grabaketa dialektologikoa Koldo Mitxelena (1953) eta bere laguntzaile batzuek erronkaria aztertzeko.

²² Oin ohar batean, herri bakoitzean gelditzen ziren euskal hiztunen kopuruak, tokian tokiko apezek jakinaraziak, eman zituen: Zilbetin 10, Eugui 40, Urtasun 24, Iragin 15, Usetxin 10, Saigotsen 5, Leranotzen 12, Agorretan 7, Zubirin 9, Inbuluzketan 7, Osteritzen 5, Urdaitzen 12, Ilarratzen 3, Ezkirotzen 5, Setoain 6 eta Errean 3.

razi. Aitzineko hamarkadetan euskararen gaineko ikerketa guztiek salatutako atzerakada ohiko bilakatua zen ikertzaileen begietan eta, horregatik, mintzairaren gibelatzeak ez zuen hizkuntzalaria harritu; aitzitik, horixe espero zuela ematen du.

Echaidek euskara galduz joatea normalizat jotzen duen jarrera intelektuala hartu zuen eta horretan Donostiako ikertzailea ez zen bakarra izan; erraterako, José M^a Sánchez Carrionek (1972) Mendialdeko hainbat herritan euskararen galera iragarri zuen, Julio Caro Barojak (1986) ere hala egin zuen *De la vida rural vasca (Vera de Bidasoa)* 1944ko argitalpena hogeita hamar urte geroago, 1974an, berrikusi eta iruzkindu zuelarik.

Azken adibide honi helduta, Carok Berako eta inguruko nekazari bizimodua eta baserritarren bizi ikusmoldea xeheki azaltzean, euskararen gizarte egoerari bereziki so egin ez bazion ere, hizkuntza galduko zela ziurtat eman zuen. Hizkuntzari eskainitako atal berezirik ez dago baina aipamentxo adierazgarri batzuk utzi zizkigun²³. Umezarotik ezkondu artioko bizialdia xehe-xeheki deskribatu zuen, halaz guztiz, haurtzaroko hizkuntza hazteaz honako aipamen soil hau baizik ez zuen eman: «Pasan los años, el niño aprende a hablar en vascuence; luego comienza a ir a la escuela y a aprender castellano» (Caro, 1986: 228).

Carok ez zuen bertzerik erran Berako gizartean gaztelaniak zuen sarbideaz edo baserritar euskaldunek (zenbaitetan euskaldun hutsek) ordurako erdaldundu samarra zegoen Berako herrigunearekin zituzten harremanez, XX. mendearen lehen hamarkadetan hasi baitzen Berako Karrikan (herrigunean) gaztelania zabaltzen. Ángel Irigarayk (1956: 41) 1935erako Beran euskara gutxi entzuten zela aitatu zuen, nahiz eta baserriak euskaldun garbiak izan. Carok (ibid., 333) 1944an horren gainean egindako aipamen bakarra oin-ohar batean dago:

El habla castellana, va introduciéndose cada vez más en la parte de la calle, a causa de la gran cantidad de carabineros y soldados que hay en ella. Menos se habla en los caseríos y aún menos en los pueblos vecinos de Yanci y Aranaz. Incluso en Lesaca, ahora, creo que se oye más vasco que en Vera. Por eso no nos chocará que en pasados siglos muchos de los vecinos desconocieran en absoluto la lengua castellana, por lo cual era necesario traducir, aunque fuera oralmente, a la lengua vasca las disposiciones y mandatos, tanto civiles como eclesiásticos; enseñándose de la misma forma la doctrina cristiana.

Ikertzaileak hizkuntza ordezkapen prozesua begi aurrean zuen baina ez zion horri bereziki so egin. Deus ez zuen erran garai horretaz, adin taldeen hizkuntza erabilez edo euskarak herriaren gizarte bizitzan betetzen zuen lekuaz. Hizkuntza gutxituaren gibelatzeak ez zion atentziora eman, ziur asko gibelatzea bertzerik ez baitzuen espero. Euskara bezalako herri mintzaira baten bilakaera aurreikusgarria zen: luze gabe iraungitzea. Hala bada, 1974an idatzitzako gibel solasaren lerro hauekin eman zion amaiera *De la vida rural vasca (Vera de Bidasoa)* liburuari (ibid., 352. Azpimarra nirea da):

El viejo etnógrafo recoge sus bártulos, se retira y cede el paso a los sociólogos, economistas, planificadores, etc. Su lenguaje es para ellos tan ininteligible

²³ Horren erakusbide, baserritarrek beren etxeetako ateetara hurbiltzen ziren eskale erdaldunen aldera izaten zuten mesfidantza azaltzen duen aipamena (Caro, 1986: 328). Liburua euskarazko hitzez eta esaldiz zipriztinduta dago, baina horietako batzuk franko ulergaitzak dira erabilitako grafiagatik.

como el vasco que, a la vuelta de unos años, también desaparecerá. Y esta desaparición cerrará, no uno, sino varios ciclos históricos.

«Itzea», 21 de julio de 1974

Nire ustez, euskararen gibelatzea eta galera bera arazotzat ikusten ez zuen eta normaltzat jotzen zuen jarrera intelektual horrek hizkuntzaren egoera objektiboa ez ezik, Nafarroan euskararen geografia historikoa jorratu zuten ikerlanen tradizioak ezarritako pentsamendu ildoak ere bazuen harroin.

Bitartean, herri euskaldunetan euskarari eusteak eta belaunaldi berriak euskaldun hazteak ez zuten ikertzaileen interesik piztu. Ez dugu ikerlanik euskarak hainbat herri-tan zuen bizitasunari bereziki begiratzen dionik; eremu euskalduneko herri euskaldun-ek, hau da, belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa bermatzeko baldintzak zituzten herriek ez zuten euskalarien arreta jaso.

Oro har, hagitz nabarmenak izan artio, ikertzaileak ez zaizkie euskararen bizitzaren zantzuei, ez eta euskara galtzeko joera iraultzen ari zela erakusten zuten seinaleei ere bereziki ohartu. Gurean, euskararen egoeraz arduratzean, gibelatzeari eta galtzeari —euskararen jarraipenaren baldintzak azaleratzea xede duen ikuspegiaren kontrakoari, alegia— lehenasuna eman dien ikusmoldeak tradizio luzea izan du.

2.2.1.3. *Lehen ikerlanen azterketa kritikoa*

Nafarroako euskararen geografia historikoa ikerketa arloan txertatzen diren lanek hizkuntzaren gaineko egoera hagitz azalkiro baizik ez zuten eman, gehienez ere tokiko euskararen hiztun kopurua, adin taldeen ezagutza maila eta, batzuetan, erabileraren eta familia transmisioaren azaleko zertzeladak ere bai. 1970 artioko Nafarroako euskaldunen gaineko lanak arrunt bakan dira eta funtsean, alde bakarrekoak guztiak, hau da, ikertzaileen arreta euskararen galera prozesu historikoak bildu zuen eta logika horrek gidatu zituen beren jardunean. Lan multzo horren ezaugarriak kritikoki aztertuko ditut:

1. *1970 bitarte Nafarroako euskararen egoeraren gaineko lanen urritasuna*. Kopuruan lan gutxi izateaz gain, azterlan horietan orduko euskararen egoera aztertzeari eskainitako lekua arrunt xumea da kasurik gehienetan. Francoren agintaldiaren urte horietan guztietan —1972an Sánchez Carrionek bere ikerketaren datuak argitaratu zituen artio— Ángel Irigarayren 1935eko datuak ez ziren osorik berraztertu eta eguneratu euskara gibelka zihoalako ustea orokorra bazen ere. Aipatu ditudan ikerketa zehatzak (Morales de Rada, 1963; Echaide, 1966) kenduta, egileek Nafarroako euskararen egoeraren berri emateko A. Irigarayren (1935, 1956) datuetara jotzen ohi zuten. Beraz, 1935etik 1970 bitartean Nafarroako euskararen egoera ez zen bereziki arakatu eta horri heldu ziotelarik ikertzaileek ikusmolde zehatz batetik behatu zioten errealitateari, ondoko puntuan azalduko dudana bezala.

2. *Ikerlanen helburua: Nafarroako euskararen galera dokumentatzea*. Aitatu ditudan lanak Arturo Campionek XIX. mendean hasitako tradizioa lerraturik, batik bat euskararen geografia historikoa osatzera zuzendu ziren. Hizkuntzaren gibelatze geografiko eta gainbehera demografiko larria dokumentatu eta galtze historikoari zegozkion euskararen hedadura mugak aldi-aldi marraztu zituzten, mintzairaren gizarte bizitasunean sakondu gabe. 1970ean Fernando González Ollek (1972: 43) agerian utzi bezala, anar-

terainoko lanek Nafarroako euskararen egoeraren gainean eman zuten informazioak ez zuten Nafarroako eskualde euskaldunetan zegoen elebitasun mota benetan argitzen:

... las condiciones de ese bilingüismo, de la actitud de los hablantes de cada lugar hacia su lengua nativa (la saben, pero no la usan; sólo la saben o usan las personas de determinada edad o condición, etcétera), dato más significativo muchas veces, para juzgar de la vitalidad de una lengua que un límite territorial, casi nada se conoce hasta tiempos muy recientes.

XX. mendeko Nafarroako euskararen gaineko ikerketen lan aitzindari horiek, modu azalekoan bada ere, euskararen gizarte erabileraren gertakari konplexua hasi ziren aztertzen: euskararen egoerari eragiten zioten faktoreak (soziopolitikoak, psikolinguistikoak, soziolinguistikoak) azaldu zituzten, bai eta euskarari eusteko funtsezkoak ziren eragileak ere (familia bidezko transmisioa, erakundeen babesak,...). A. Irigarayren lanetan (1935, 1956) ez da euskararen hedapenaren marra garbia agertzen, zuri-bel-tzean baino gehiago grisen *continuum* luzean irudika daitekeen elebitasun egoera konplexuak baizik. Nafarroako euskararen egoera azaltzeko zailtasun teorikoak handiak ziren marko kontzeptual osoa falta zelakoz. Egoera soziolinguistikoaren barru etiologikoa, hau da, euskara gutxi-asko oraindik mintzatzen zen herrietan hiztunek zer harreman zuten hizkuntzarekin, hizkuntzak zer leku betetzen zuten gizatalde horren bizitzan eta harremanetan; hiztunek mintzairaren gainean zer narrazio egiten zuten, belaunaldi berrien hizkuntza sozializazioa nola gertatzen zen... azaltzea ez zegoen lan horien helburuetan. Orobat, ez dago ikerlanik euskarak hainbat herritan zuten bizitasunari bereziki begiratzeko dionik. Belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa bermatzeko aski baldintza zituzten herri euskaldunek ez zuten ikertzaileen arreta jaso.

3. *Euskararen belaunez belauneko jarraipenaren etena eta hizkuntzaren galera naturalizat jotzen dituen ikuspegia*. 1970 artiko hamarkada horietan hizkuntzaren egoera tamalgarría zen. Nafarroako euskararen eremua txikitzen ari zen urtetik urtera. 1935 eta 1970 urteen bitartean egindako lan bakanez gutxi-asko dokumentatu zuten euskararen oihal zarpailduari nola ari zitzaizkion azpildurak zirpiltzen eta, sutsak zulatuta balego bezala, nola ari ziren zenbait eskualde euskaldunetan ere erdararen guneak handitzen. Egoera horrek ez ezik Nafarroako euskararen geografia historikoa jorratu zuten ikerlanen tradizioaren pentsamendu ildoak ere eragiten zioten ikertzaileen begiradari eta, horren ondorioz, batzuek mintzairaren atzerakada eta galtzea bera normalizat hartzen zuten jarrera intelektuala hartu zuten. Fishmanek (2001: 454) gutxiengo hizkuntzen heriotzaren *normaltasunaren* tranpa ideologikoz ohartarazi du («The 'normality' of minority language death») eta Xabier Erizek (1997: 53) *euskararen edo herri hizkuntzen heriotzaren paradigmak* sortzen duen zentzu komuna, kasu honetan, ikertzailea euskarak hiztun guztiak galtzea naturalizat jotzera eraman zuena. Berebat, landu dudan epean lanek deskribatutako egoeretan azken euskal hiztunen aipamenak usuak dira. Izan ere, hizkuntzaren heriotzaren prozesuaren hondar urratsetan *azken hiztunen* gertakari soziolinguistikoa agertzen ohi da. Carme Junyentek (1997: 14) agerian utzi du hizkuntzalaritza *azken hiztunen* nekrologikaz josirik dagoela. Gurea ez da salbuespena izan, A. Irigarayk (1956: 44), Mariano Estornesek (1963) eta Ana M^a Echaidek (1966) hondarreko hiztunen leku-kotasuna eman zuten Galdurotzen, Izaban eta Esteribarren, hurrenez hurren²⁴. Baina azken

²⁴ Geroko lan batzuetan ere (Sánchez Carrión [1972: 133] eta Irizar [1973a]) Nafarroako hainbat herritako azken euskal hiztunen aipamenak daude. Azken hiztunak ez dira mintzairaren desagertzearen

bi egileen artean bada alde: Mariano Estornesen lekukotasun hurbil eta hunkituaren aldean Echaideren jarrera intelektual urruna dugu²⁵. Hizkuntzalaria tokiko euskararen heriotza-agiria emaila ikusteak harritu egin nauela ezin ezkutatu²⁶. Hamarkada horietan hainbat herritan euskararen atxikitzeak ez zuen ikertzaileen interesa piztu.

2.2.2. Mugarri ikerketak eta euskararen jarraipenaren azterbideak

1970eko hamarkadan euskararen atzerakako joeran nolabaiteko iraultze seinaleak hasi ziren antzematen, bai eta hizkuntzaren biziberritze zantzuak ere Iruñean eta bertze hiri erdaldunduetan batik bat. Euskararen aldeko jarrera sozialak indartu egin ziren eta 1960ko hamarkadako euskararen irakaskuntzaren hastapenei 1970eko hamarraldiko ikastolen gizarte mugimenduaren sendotzeak jarraitu zien. Garai horretan hasten dira argitaratzen atalxo honetan aztergai izanen ditudan lanak.

2.2.2.1 Mugarri ikerketak eta euskal soziolinguistikaren sorrera

José M^a Sánchez Carrión *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo* ikerlanean izan zen lehena agerian utzi zuena 1970eko Nafarroako euskararen egoera konplexua azaltzeko geografia linguistiko historikoari lotutako ikermolde eta ereduak jadanik ez zutela balio. Lan hori anartean

eragileak, hizkuntza heriotzaren prozesuaren egiaztapena baizik (Martí et al., 2005: 315). Hamarkada horietan Nafarroako hainbat herritan hondar euskaldunak hil zirela ikusi zuen jendeak. Horren lekukotasuna kausitu dut Etsain (Anue) herriko hilerrian; hemen testu hau duen hilarria dago: EMEN DATZA ERRO YABENDAR URBANO LANDA ETXEKO SEMEA GOYAN BEGO ERRIONTAKO AZKENEN EUSKALDUNA 1953 URTE. Aztarna horrek (ikus 3. eranskina) Urbano Erro Yaben jauna zendu zelarik haren herrikideek herriko azken euskalduna joana zela bazekitela eta horri hilarrian idatzita uzteko bezainbertzeko garrantzia eman ziotela adierazten du. Ez dakigu, euskararen galtzearen gertakariak arduratu diren ikertzaileen ahotik ez bada, azken euskal hiztunaren heriotzak gizatalde baten oroimen kolektiboari zer erasan egin zion. Lekukotasun horrek A. Irigarayk (1956) 1935ean bildutako datuekin bat egiten du: Etsain IV. multzoan sartu zuen, hau da, euskaraz berrogeita hamar urtetik goitikoek baizik egiten ez zuten herrien multzoan. Beraz, daitekeena da herri horretako azken euskal hiztuna 1953an zendu izana.

Hizkuntza galtzea eta heriotza aztertu dituzten ikertzaile batzuek izaten diren erresistentzia moduko gertakariak erreparatu diete. Nancy Dorianek (1980: 92), erraterako, hizkuntza ordezkatzeko prozesua baino gehiago gibelera doan hizkuntzari eusten dioten hiztunen kasuak bereziki azaltzea jo zuen beharrezkotzat: «Where the circumstances which favor one language over another in a language-contact situation are rather overwhelming, it seems to me that explaining resistance to shift demands more of our attention than explaining language shift».

²⁵ Euskararekiko jarrera bertsua antzematen zaio Echaideri *Castellano y vasco en el habla de Orío. Estudio sobre lengua tradicional e importada* ikerlanean.

²⁶ Hainbat egilek galtzeko arriskuan dauden hizkuntzen hiztunekin lan egiteak ikertzaileari dakartzkion erantzukizun etikoak aipatu dituzte. David Crystal (2001: 163-164) honela mintzo da: «La idea de que existen lingüistas trabajando con estas lenguas, pero sin otro interés en las personas que las hablan que el de utilizarlas como fuente de datos para su tesis o publicación, es o debería de ser una noción tan inaceptable como la de que los doctores elaborasen el historial médico de sus pacientes sin importarles lo que pudiera sucederles en el futuro. No subrayaríamos este punto si no sucediese con frecuencia y, de hecho, una vez formó parte de un *ethos* de investigación». Bide beretik, Florian Coulmasek (2000: 269-270) honela dio: «Working FOR and WITH the people means linguists getting involved in language maintenance and language revitalization projects. It also means building into the work the training of native and regional linguists whenever possible (...). For those of the linguistic profession who believe it is, the question then turns to whether “reversing language shift” is possible, and if it is, what the responsibility of the linguists in the process might be».

egindakoetatik haren azterketaren sistematizazio eta sakontasunagatik hastantzen da. Iñaki Larrañaga (1987: 9) soziolinguistaren ustez, lan hori dugu «... gure artean egin den lehendabiziko ikerketa sistematizatua. Bertan, hizkuntz komunitate baten egoera aztertzeaz gainera, teoria aldetik esplikazio bat, oraindik era elemental batean besterik ez bada ere, ematea lortzen da».

Lan mugari horretaz gain, Pedro Irizarrek (1973a) “Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico” ikerlanean, 1970. urtean Nafarroan ziren euskaldunen gaineko informazio kuantitatibo aski zehatza eman zuen.

Aipatu bi ikerketak, Jose Anjel Irigarairen *Euskera eta Nafarroa* eta Ángel Irigaray *Apat-Etxebarrenen Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra* lanekin batera, euskal soziolinguistikaren hastapenak dira, Larrañagaren iritziz (Odriozola & Esnaola, 2000: 118).

Azterlan horiek guztiak Nafarroako euskararen historia hurbileko une bati —1970. hamarkadaren lehen urteei— itxura hartzeko baliagarriak dira. Izan ere, ordu-arta artio arrunt lan gutxi eta azalekoak ditugu Nafarroako euskararen egoera ezagutzeko.

1973an, Ángel Irigarayren semea den Jose Anjel Irigaraik (1973: 40) ere, bat egin zuen Sánchez Carrionekin «... gaur egun, euskeraren bizitasuna eta egiazko egoera adierazi ahal izateko, koordinada asko beharko lirateke, eta hori dena ez da muga simple batetan ematen ahal» dioenean. Irigaraik (1973) Nafarroako euskararen indartze edo berreskuratze zantzuak aipatzen ditu lehen aldiz modu garbian, eta ondoko lan batean (1977: 298) euskararen inguruko dinamika berria bete-betean agertzen da, batik batik herri-hiri (batzuk aspaldian) erdaldunduetan:

Correspondiendo a la situación de la conciencia y de los medios con que se cuenta, primero surgirán, tímidamente, en los medios urbanos. Poco a poco se irán extendiendo a medios más rurales, llegando a puntos y zonas donde el euskera se había perdido hacía años e incluso siglos (casos de localidades meridionales navarras, como son Pamplona mismo, Aoiz, Estella, Tafalla, etc.).

Así, en un ambiente desfavorable, en una decena de años se logra sobrepasar la cifra de 30.000 niños escolarizados en ikastolas repartidas por todo el país. Y el deseo de aprendizaje se extiende. Radio, prensa, publicaciones, etc., cada vez tienen más necesidad de utilizar el euskera.

Urte horietan Siadecok²⁷ lehen lan soziolinguistikoak, berariaz hala deituak, argitaratu zituen (1975, 1977, 1978) eta Euskaltzaindiak ere euskararen egoeraren diagnosi moduko azterlanak kaleratu zituen (1977, 1978, 1979). Horietan, euskararen atzerkadaren joera historikoarekin batera, euskara indartzeko gizarte joera berriaren seinaleak are argiago agertu ziren. Euskaldun berrien gizarte gertakariak eta euskararen hedatze geografiko-sozialak hizkuntza egoera bertzelakoaren aitzinean paratzen zituen ikertzaileak. Hona Mitxelenaren hitzok (1978: 24):

²⁷ Siadeco (Sociedad de Investigación Aplicada para el Desarrollo Comunitario) 1967an Donostian sortutako kooperatiba mugatua da. Hasierako urteetan egoera politikoak euskararen gaineko ikerlanak egiteko aukerarik ematen ez bazion ere, bertzelako gaiak (hirigintzari, ekonomiari eta halakoei) begirako azterketetan euskararen egoeraren gaineko datuak ere jasotzen hasi zen. Lehen lan soziolinguistikoak, propio hala deituak, 1975etik hasi ziren. Siadecok bai Euskal Herriko hizkuntza egoera orokorraren azterlanak, bai herri anitzetako diagnosiak eta arlo jakinei bideratutako plangintzak egin ditu. 1988. urtean taldearen zati bat banandu eta Prospektiker sozietate anonimoa sortu zuen.

Liburu hutsetan ikasi ez duen euskaldun berria gero eta ugariago eta eragileagoa da gure herrian. Hau dela eta, gure kultur gidariak litezkeen prestakuntza (ez gara gizarteko etorkiaz ari) oso bestelakoa da noizpatekoaren aldean; aldaketa honek oraindik behar adina aztertu ez den beste modu batez ikustarazten ditu gauzak. Gaur egun gure herrian ezin berez daitezke, Estatutoan egiten zen bezala, eskualde euskaldunak eta erdaldunak (...). Irudi berria, bada, bere horretan hartu beharko dugu, iraganarenak itsu ez gaitzan.

Garai horretako lanak 1970 bitarteko ikertzaileek euskararen gizarte egoera itxuratzeko marraztutako marrazkiak auzitan jartzen hasi ziren garaiko egoera soziolinguistikoaren datuen argitan (Euskaltzaindia, 1979: 15). Izan ere, euskara aldi berean «... atzerapen, kontserbazio eta berreskuratzeko» (ibid., 191) prozesuetan zegoen baina, batik bat, hizkuntzaren indartze seinaleak agertzen ziren inoiz baino argiago (ibid., 193).

Halakotz, 1970eko hamarkadan hasi ziren agerikoak izaten euskara aupatu nahi zuten gizarte eragileen emaitzak eta hamarkadaren bukaera aldean, erabat zentzugabe bihurtu zen Nafarroako orduko euskararen egoera hizkuntzaren hedapenaren muga markatzen zuten mapetako marren bidez adierazi nahi izatea. Hala eta guztiz ere, ondoko urteetan ere euskararen geografia historikoaren bidetik Nafarroako mapan euskararen mugak eguneratzera zuzendutako lan batzuk gehiago argitaratu ziren (A. Irigaray [Apat-Echebarne], 1974; Elgoibar et al., 1987 edo Artola & Tellabide, 1990).

Nafarroako Mendialde euskalduneko hainbat herritan, aldiz, euskararen erabilera soziala makaltzen hasia zen eta, erabilera huts egiten hasitako tokietan hizkuntzaren galerak aitzina segitu zuen, etxe-familia eta auzoko harremanak ere —belaunez belau-neko transmisioa barne— ahulduz. 1980ko hamarkadan ditugu Nafarroako Mendialdeko egoera soziolinguistiko konplexua arakatu zuten lehen ikerlan kualitatiboak, José M^a Sánchez Carrionena (1981a) eta Jesús Azconarena (1985).

Euskal soziolinguistikaren hastapen horretatik euskararen jarraipenari oro har bi aztermoldetatik oratu zaio, soziologiko-kuantitatibotik eta etnografikotik. Ondoko puntuetan jorratuko ditut.

2.2.2.2. *Euskararen jarraipenaren azterbide soziologikoa*

Gurean, euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipena batik bat metodologia soziologikoz egindako ikerketa eskala handikoen (makroen) eta, eskuarki, kuantitatiboen bidez aztertu da: Iñaki Larrañaga (1986), Siadeco (1994ab), J. Francisco Zinkunegi (1995), Iñaki Arruti (1997), Eusko Jaurlaritza (2005ab, 2008a), Pablo Sagardoy (2008) eta Mikel Zalbide (2009), bertzeak bertze. Ikerketa molde horrek guraso euskaldunek beren ondorengoei euskara transmititzean izan duten joera itxuratzeko zentzua datu kuantitatibo eman ditu. Datu horiek aldagai batzuekin (gurasoen hizkuntza gaitasunarekin edota bizitokiko ezaugarri soziolinguistikoekin) gurutzatu dituzte baina, oro har, datu kuantitatibo horietaz gain, euskararen transmisioari eta belaunaldi berrien euskarazko sozializazioari loturiko bertzelako azalpen kualitatiborik ez dute adierazi. Nafarroako eremu geografiko zehatzagoetara mugatutako ikerketa soziolinguistiko gehienek ere molde kuantitatibo horretan landu dute euskararen transmisioa, *Euskararen egoera Sakanan. 2007* (Nafarroako Gobernua, 2009a) konparaziorako.

Hizkuntza transmisio kontzeptuan bi maila edo bide bereizi izan dira: transmisio informala eta transmisio formala. Transmisioaren maila informala familian, auzoan edo hur-


bileko komunitatean gertatzen den hori da, familia erdigune duena eta, horregatik, usu *familia bidezko hizkuntza transmisioa* edo *transmisio naturala* deitu izan da. Transmisioaren maila formala, aldiz, hizkuntza modu kulturean jasotzeari dagokiona da, eskola erdigune duena eta, horregatik, *irakaskuntza bidezko hizkuntza transmisioa* edo *transmisio kulturala* deitu izan da (Zinkunegi, 1995: 76). Oro har, ikerketek hizkuntza transmisioaren bi bideei bereiz heldu diete, biak uztarturik edo elkarreaginean aztertzeke joerarik izan ez dela.

Azken urteotan euskararen erabilerari eragiten dioten alderdiak biltzen dituzten zenbait eredu (Martínez de Luna, 2001, 2004, 2012; Soziolinguistika Klusterra et al., 2009; eta Soziolinguistika Klusterra, 2011) proposatu dira eragingarri mikrosoziolinguistikoen eta makrosoziolinguistikoen arteko elkarreaginean funtsatuak.

Fishmanek (1972) hizkuntzaren erabilerari heltzeko proposatzen dituen hiru dimentsio (norbanakoarena, mikrosoziala eta makrosoziala) aintzat harturik, Iñaki Martínez de Lunak euskararen erabilera maila desberdinetan jokatzeko duten hiru faktore multzoren (norbanako mailakoen, gizarte harremanen mailakoen eta gizarte erakunde mailakoen) elkarreaginaren ondorioztat hartzen du.

Soziologoak dioenez, hiru dimentsioen arteko harremana ez da makrotik behe-ranzko joera mekaniko eta deterministatzat ulertu behar; aitzitik ikuspegi konstruktibista batetik so eginik: «... hiru dimentsio horiek elkarri eragiten diote eta, continuum bat osatuz zein hizkuntzaren askotariko izaera aintzat hartuz, hizkuntzaren ikuspegi holistikoa eskaintzen dute» (Martínez de Luna, 2012: 126).

Eredu horrek hitzunen jarduna hiru maila desberdinetako eragingarrien arteko elkarreaginaren jokoan kokatu du: «... norbanako dimentsioak, dimentsio makrosozialak eta dimentsio mikrosozialak *continuum* bat osatzen dute eta hiruek [sic] eragiten diote elkarri» (ibid., 132).



Iturria: Martínez de Luna (2004)

Soziolinguistika Klusterrak (2011) ere antzeko eredu dinamikoan funtsatu du gazteen euskararen erabilerari eragiten dioten alderdien azterketa. Eragingarriak, elka-

rreraginean daudenak, honela multzokatu dituzte: a) norbanakoarenak, b) ingurune hurbilekoak eta c) gizarteari dagozkionak, ondoko taulan adierazi bezala.

Taula
Erabileraren GPSa (gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak)

<i>Gizartea</i>	Kontsumo eskaintza (produktuak eta zerbitzuak)
	Input mediatikoak Testuinguru politikoa
<i>Ingurune hurbila</i>	Pertsona eta talde erreferenteak
	Harreman sareetako hizkuntza arauak eta ohiturak
	Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa
<i>Norbanakoa</i>	Hizkuntza gaitasuna
	Hautzaroko hizkuntza ingurunea
	Jarrera eta portaerak Identitate kolektiboak

Iturria: Soziolinguistika Klusterra (2011)

Gurera etorrira, hizkuntza sozializazioa mintzairaren erabileraren bidez gauzatzen baita, proposamen horiek haurrak euskaraz haztea gurasoen hizkuntza gaitasun nahiz gogo-nahien mailan ez ezik, ingurune egoera soziolinguistikoan, harreman sareetan, mintzairaren estatusen eta gizarte oharrena bezalako alderdi mikro eta makrosoziologikoen mailetan ere kokatu beharra dagoela iradoki dute.

Martínez de Lunaren eredu dinamikoak azterketa maila mikro eta makroak bateatzen ditu dimentsio desberdinetako faktoreei eta haien arteko eraginei oharturik. Azterketa jarraibide horri oso egokia deritzot haurren euskarazko sozializazioa ahalbidetzen duten hautu, egoera eta baldintzak gorabehera soziohistorikoei loturik aztertzeko aukera ematen baitu, erran nahi baita, familiarekin batera haurren ingurune soziolinguistiko osoa eta horien gainean dauden gizarte egiturazko eragingarriak ere (hizkuntzaren estatusa, gizarte egoera...) aintzat hartzen baititu. Halaz guztiz, euskararen belaunez belauneko jarraipenari begira alderdi subjektiboak, inguruneak eta egiturazkoak uztartzen dituen ikuspegia ia ez da jorratu.

2.2.2.3. Euskararen jarraipenaren azterbide etnografikoa

Ikerketa mikrokualitatiboak urriagoak dira; ikusmolde kualitatiboa estreinako aldiz erabili zuten lanak Sánchez Carrionenak (1972 eta 1981a) ditugu. Aztergaitzat euskararen transmisioa zehazki ez bazuten ere, gaia ordura artio landua ez zen modu kualitatibo eta sakonean jorratu zuten. Ondotik, interesa euskararen belaunez belauneko segidan —bete

-betean edo hein batean bederen— paratu duten azterketa kualitatibo hauek ditugu: Urla (1987), Del Valle (1988), Erize (1997), Iraola (2002) eta Hernández (2007).

Bizitza-historiez baliatu den Hernandezen (2007) lanaz gain²⁸, hiztunek bizi ibilbideetan hizkuntz(ar)ekin izan dituzten bizipenak, garatu dituzten harremanak edo harreman horiek nola doazen gorpuztuz eta eraldatuz, ez dira sakonki aztertu.

Hondar urteotan transmisioari heltzeko hiztunen subjektibotasunari eta hizkuntzei lotutako emozioak aztertzea proposatzen duen ikusmoldea hasi da garatzen gure artean. Euskararen familia transmisioaren arloan berriki egin diren azterketa eta esku hartzeko programek emozioen garrantzia nabarmendu dute (Jauregi & Suberbiola, 2009; Elortza et al., 2009). Funtsean, gizataldeetako kideen arteko harreman gozoen eremuan sortu zen hizkuntza eta horri atxikirik darraio egun, milioika urte geroago (Jauregi, 2009).

Euskararen gizaldiz gizaldiko transmisioaren gaineko ikerlanetan aztermolde kuantitatiboa eta kualitatiboa bereizirik (ez uztarturik) joan izan dira²⁹. Ikerketa honen ikuspuntutik azterbide etnografikoa bereziki interesgarria zait eta hurrengo puntuetan metodologia horri atxiki zaizkion zenbait lanen aipamen kritikoa egingen dut.

2.2.2.3.I. José M^a Sánchez Carrión *Txepetx*

José M^a Sánchez Carrión soziolinguista cartagenarrak Nafarroako euskararen egoera aztergai izan du zenbait ikerlanetan. Horietarik lehenean, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo* izenekoan, Ángel Irigarayren (1935, 1956) euskararen muga eguneratu nahi izan zuen eta horretarako, 1970eko udan Nafarroa euskalduneko herriz herriko landa lana egin zuen eta inkesta bidez —baita behaketez eta elkarrizketez baliaturik ere— eskuratutako datuekin euskara gutxi-asko gordetzen zuen Nafarroako Mendialdearen erradiografia soziolinguistikoa osatu. Irigarayk (1935: 623) agerian utzitako gabeziei erantzun nahian, Txepetxen ikerlanaren xedea honako hau izan zen: «... aportar luces sobre las causas de la deseuserización, los medios de defensa de la lengua hoy, los puntos más necesitados de ayuda inmediata y por dónde debe encauzarse ésta» (Sánchez Carrión, 1972: 18-19).

Euskal hiztun kopuruaren gaineko zenbait datu kuantitatibo ez ezik, egoera ulertzeko azalpen kualitatiboak ere eman zituen aurreko lanek baino hagitzez luze-zabalago eta sakonago: euskararen galeraren bideak eta eragileak, gizarte elebitasuna eta norbanakoaren elebitasuna, elebidun tipologiak, adin taldeen nahiz emaztekien eta gizonezkoen hizkuntza jokabide desberdinak, erdalduntzearen bultzagarriak, euskarari eusten laguntzen ziotenak eta hizkuntzaren alde egiteko garaiko bideak jorratu zituen.

Ikerlanak Nafarroako euskararen egoera larria salatu zuen: euskara gain behera heldu zen (horren azalpen xeheago 4.1.4 ataltxoan dago). Atzerakada goiti-beheiti,

²⁸ Antropologiak narrazio biografikoak eta bizitza-historiak jorratu ditu. Azterketa molde horiek, erraterako Del Valle (1997) eta Esteban (2004), hiztunen bizi ibilbideetan hizkuntzari loturiko bizipenak miatzeko iradokitzaileak izan daitezke.

²⁹ Kritika bertsua egin diete Mas eta Montoya (2011) soziolinguistek katalanaren familia bidezko transmisioaren gaineko ikerlanei.

artean baziren Nafarroaren ipar-mendebaldean euskara bizi-bizia zuten herriak, baina horietako zenbaitetan ere euskararen egoera kaskailtzen hasia zen.

Murtziako soziolinguistaren ustez, lehenagotik heldu ziren euskararen geografia historikoaren azterketa moldeek (garaian garaiko euskararen hedapena zedarritu eta, eremu oraindik euskaldunak eta orduko erdaldunduak bereizteko hizkuntzaren atzerakadaren marrak ezartzen zituztenek) jadanik ez zuten balio euskararen gizarte gertakari dinamiko eta mudakorren errealitatea azaltzeko (1972: 22). Txepetx euskararen geografia historikoaren ikerketa arloaren baliagarritasuna auzitan paratu zuen lehendabizikoa izan zen. Geroko ikertzaileei egoera soziolinguistiko nabarra gero eta nahaspilatsuagoa egin zitzaizen euskaldunak jatorrizko eremu horietatik kanpo ere nabarmen egiten hasi zirelarik.

Hizkuntzen arteko harremanen konplexutasunaz ohartuta, elebitasunaren gertakariari arreta handia eman zion eta elebitasun mota bi bereizi zituen: *elebitasun horizontala*, herri batean dagoen elebitasuna, eta *elebitasun bertikala*, pertsona baten baitan dagoena (elebiduntasuna) (ibid., 192)³⁰. Hitzunaren baitan bi mintzairen artean izan daitezkeen harreman askotarikoen ikuspegitik elebiduntasun tipologia hauek bereizi zituen: euskal elebakarra, euskara baizik ez dakiena; euskaldun sasielbiduna («pseudobilingüe vascófono») biak dakizkiena baina eskolan ikasitako gaztelania arras ongi ez baitaki, euskaraz egiten ohi duena; elebiduna, bi hizkuntzak jakiteaz gain biak erabiltzen dituen; erdaldun sasielbiduna («pseudobilingüe castellanófono»), bi hizkuntzak jakin arren gaztelaniaz soilik ihardukitzen duena; eta erdaldun elebakarra, gaztelania baizik ez dakiena. Euskaraz mintzatzen zen herrietako hitzunendako euskaldun sasielbidun tipologia jo zuen egokientzat, hori baita gaztelania ez jakitearen konplexu eta beldurretatik libre izanik zernahi arlotan eta beti euskaraz aritzen den euskal hiztuna³¹ (ibid., 197). Elebiduntasun gertakariaren konplexutasunaz ohartzea eta horren gaineko azterketa sakona egitea da Sánchez Carrionen ekarpen handienetako bat.

Elebiduntasun tipologia hizkuntza transmisioarekin harremanetan jarri zituen baita, batez ere, hitzunen alderdi psikolinguistikoei —eta ez hainbertze hizkuntza gaitasun hutsari— paratu zien arreta. Txepetxek hitzun elebidunen jokabidearen oinarrian dauden arrazoi psikologikoak nabarmendu zituen bereziki. Erraterako, herrien erdalduntzea indartu duten faktoreen artean erdarazko eskola eta erdal jendearen immigrazioa baino eragingarriagozat alderdi psikologikoak jo zituen (1972: 200): «Los principales factores son, con todo, los psicológicos, que producen la desvalorización de la lengua materna en el individuo, incitándole a desprenderse del idioma propio (...)».

Aipatu zio psikolinguistikoen artean honako hauek daude: hitzunek duten mintzairen bizipen eta hautematea, hizkuntzarekiko atxikimendu erreflexu edo oharkabea, hizkuntza kontzientziarik (edo atxikimendu kulturalik) eza eta euskaldunak bere burua gutxiestea edo *baxerritar* konplexua izatea. Honela mintzatu zen Iturmendi herriaz (1972: 38):

[Iturmendi] Como el párroco y los jóvenes usan el castellano, el sentimiento de inferioridad del vascohablante se va extendiendo y uno tras otro van sustituyendo el

³⁰ Bereizketa molde hori Joaquín Morales de Radak proposatu zuen 1961ean, A. Irigarayren 1935eko datuak eguneratzen saiatu zelarik: «El resultado de nuestro sondeo es desconsolador; acusa un retroceso horizontal o territorial y un retroceso vertical o de densidad» (Morales, 1963: 20).

³¹ Bernardo Estornesek (1960) proposatu elebidun tipologiaen artean euskaldun sasielbiduna ez zuen aipatu ere egin eta Sánchez Carrionek (1972: 197) horri kritika egin zion.

idioma invasor por el propio [sic]. El proceso adquiere carácter irreversible cuando deja de ser transmitido a los niños en el hogar; entre otros motivos porque se piensa que el vasco dificulta al niño para llegar al dominio del castellano, lengua que «al fin y al cabo es la única que les ha de servir». «Zetako euskera? Obe degu erdara ongi jakiten» [sic]. Es frase por desgracia demasiado oída en labios euskaldunes.

Txepetxen iritziz, neskak alderdi psikologikoekin sentiberagoak izaten dira arrazoi hauek ukituta: herri euskaldunetan erdaldunek duten estatus eta prestigio handiagoak (*baxerritar* konplexua sorrarazten duenak), erdarazko hedabideek (kultura hizkuntza erdara baizik ez dela sinetsarazten dutenek) eta garraibideen ugaritzeak (herri euskaldunetako herritarrei kanpoko erdal mundua hurbiltzen dienak) (1972: 199-201).

Sánchez Carrión euskararen eta gaztelaniaren bizipen eta oharren desberdinak azaltzeko antinomietan antolatutako hizkuntzen kategorizazioaz baliatu zen: euskara/gaztelania, tradizioaren hizkuntza/modernitatearen hizkuntza (1972: 53), barnekoa/kanpoko (ibid., 55), berekia, afektiboa/bertzeena, narratiboa (ibid., 113, 148 eta 167-168), herrikoa/hirikoa (ibid., 84). Hizkuntzen oharkera horiek hiztun elebidunen hizkuntza hautuetan rol garrantzizkoa jokatzen dute (ibid., 168): «[Luzaide] ... entre los criterios de selección lingüística en el sujeto bilingüe, uno de los más importantes, el más profundo tal vez, es el (...) de «lo íntimo-externo». El euskera, lengua de lo suyo y de los suyos; el castellano como lengua narrativa».

Euskararen iraupenari lagundu dioten faktore hauek aipatu zituen: isolamendua, inkomunikazioa (anakronismoa, nekazalgoaren bizimodu tradizionala, erdaraz ez jakitea); behin erdara jakinez gero, hizkuntzaren erabilgarritasuna (mugako herrietan, adibidez), hizkuntzarekiko atxikimendu erreflexua, elebitasuna («... libera al individuo de prejuicios y lo protege de complejos infundados») eta hizkuntza kontzientzia («... actualmente excepcional») (1972: 201-204).

Haurrak euskaldun haztearen alde jokatzen duten faktoreen artean honakook ematen zituen: tradizioa, gurasoen hizkuntza kontzientzia (alderdi psikolinguistikoak), ikastolak, euskararen erabilgarritasuna, liturgia eta katekesia euskaraz izatea, bai eta pezen euskararen aldeko jarrera eta lana ere.

Aldiz, haurren euskarazko sozializazioa ahultzen duten eragingarritako hauek aletu zituen: gurasoen axolagabekeria edota interes edo kontzientzia falta, nesken/emakumeen/amen erdararen aldeko jokaera, euskararen erabilgarritasun eta prestigio-rik eza, euskaldunen —bereziki nesken— *baxerritar* konplexua, euskal hiztunen beren buruarekiko balioespen eskasa, etorkin erdaldunak, gaztelania hutsezko eskola, eskolan ikasteko euskara eragozpena dela uste izatea eta telebista (erdara hutsezkoa, noski).

Sánchez Carrionek genero biek dituzten hizkuntza jokaera desberdinei erreparatu zien eta eredu sexuglosiko³² batean oinarrituta eratu zuen hizkuntza sozializazioaren

³² *Sexuglosia* generoen artean gertatzen diren hizkuntza portaera desberdinak gizezkoen eta emakumezkoen rol-estatus diferentei esleitzen dizkien kontzeptua da. Honela definitzen du M^a Jesús Buxó (1983: 51) antropologoak: «A nivel intrasocial, la diglosia es aplicable a las relaciones socialmente asimétricas que se establecen, entre otros, en los comportamientos lingüísticos del hombre y la mujer. La relación de rol-estatus diferencial que se produce entre los comportamientos lingüísticos relativos a cada sexo, la denominamos *sexoglosia*. La *sexoglosia* es una relación sexo-sociolingüística asimétrica que en situaciones de aculturación y de cambio social, puede hacerse extensiva a la elección y el uso de otros códigos o variantes cuya valoración sexo-social positiva o negativa se hace en términos de los grupos dominantes y dominados».

gaineko teoria. Izan ere, hizkuntzen kategorizazioak ez die —Txepetxen azalpenetan— berdin eragiten gizonezkoei eta emakumezkoei (1972: II3).

[Etxalar] ... la recuperación del vasco por los chicos con una formación castellana eficiente. Hecho que no se produciría si la lengua vernácula, mamada de la madre, no creara en él unos lazos psicológicos y afectivos muy grandes: la siente como algo suyo; con sus amigos no hablará más que en vascuence. El vasco es para él la lengua de lo «íntimo». Y hay una cierta temática —afectiva, casera, agrícola—, en la que sólo en vasco encuentra cauces adecuados de expresión. La mujer no siente ese vínculo, es marginal.

Familiaren barnean seme-alabak euskaraz haztea eta, oro har, hizkuntzari eustearen arazoa bera, ezkontideen hizkuntza harremanaren moldean erabakitzen da, sozio-linguista murtziarraren iritziz (1972: II3-II4):

El problema del vasco, de la pervivencia del vasco, se reduce entonces a la relación idiomática que rija entre los dos sexos después del matrimonio. Si la chica se casa con un marido vascófono lo normal es que vuelva, de un modo real, al vasco. Es entonces cuando se produce en ella, a costa de cuántos esfuerzos a veces, la recuperación de una lengua desatendida durante largo tiempo, y se la enseña a sus hijos. A través de este círculo el futuro de la lengua no ofrece peligro. El riesgo está en que en cada vuelta la chica haya llegado a olvidarlo, y en que cada vez más por factores psicológicos y sociológicos la chica se casa dentro o fuera del pueblo con hombres de habla erdaldun y entonces en el 99 por ciento de los casos los niños no aprenden el vasco.

Behin familia osatuz gero, amek umeen hizkuntza sozializazioari dagokionez ez dute semeekin eta alabekin berdin jokatu (1972: II4):

El fenómeno es apasionante. La madre enseñará a sus hijos el vasco; y en el hijo este hecho de haber sido el euskera la lengua aprendida de los labios maternos, será decisivo para su recuperación, porque siente el vascuence «como algo suyo» y crea un vínculo, que liga lo idiomático con lo afectivo, que hace que hijo y madre se hablen siempre en vasco. La hija aprende también el vasco de la madre pero como ésta [sic] antes, es marginal. Hasta tal punto que la relación idiomática que rige entre madre e hija, es con frecuencia en castellano, en medio de un ambiente vascófono. Influyen también en ello motivaciones profundamente enraizadas en la psicología femenina: la relación madre-hija es distinta de la de madre-hijo. La mujer tiene un sexto sentido encaminado a crear su nido. Y la madre orienta, ayuda a su hija en este aspecto. Y no hay duda que con los condicionantes culturales de la Vasconia de nuestros días, el castellano le es en este sentido más útil que el vasco: le da cierto aire de «señorita», le abre nuevos caminos, nuevas posibilidades.

Pero la chica en realidad es bilingüe. En todo caso las relaciones con el padre, con los hermanos, son en vasco. Con la madre es una excepción... cuando están solas.

Nesken erdararako joera, haien euskara gaitasun txikiagoa, behin esposatuz gero hizkuntza seme-alabei irakasteko duten jarrera ezkorra eta, batzuetan, euskara ondorengoei erakutsi nahi ez izatea ere hainbertze aiputan bildu ditu Sánchez Carrionek.

Nafarroako neska euskaldunen hizkuntza jokaera erdaltzalearen aipamenak bertze egile batzuen lanetan ere agertzen dira (Morales de Rada, 1963; Yrizar, 1973a), baina Txepetxek hizkuntza sozializazioaren eredu sexuglosikoa eratu du eta emakumeen hizkuntza erabilera gaitzetsi³³. Egile batzuk ez dira azalpen molde horrekin bat etorri (Fernández, 1994: 271-274; López-Goñi, 2002: 195; Hernández, 2007: 99-100). Ni horien irizkide naiz, ez baitut uste gure historia hurbileko eta egungo euskararen jarraipena ulertzeko euskal emakumeen erdararen aldeko joera-hautua azalbide egokia denik. Hainbat ikerketak (konparaziorako, Vilches 2002a) emakumeen euskara gaitasun, erabilera eta jarrerak gizonezkoenak baina hobekak izaten direla azalatu dute.

Txepetxek azpimarra alderdi psikolinguistikoetan ezarriagatik, euskararen egoera ere (bai makroa, hau da, Nafarroakoa, bai mikroa, aztertzen duen herri bakoitzekoa) hizkuntza sozializazioari eragiten dioten faktore nagusitako hartzen du. Izan ere, euskarari irauarazteko bidea —haren ustez— hizkuntza erabilgarri egitea da («... hacer útil la lengua», Sánchez Carrión, 1972: 205), eta horretarako urrats hauek proposatzen ditu: herri euskaldunetako lehen hezkuntzan elebitasuna sartzea («La lengua familiar del niño deber ser también su lengua de cultura», ibid.) eta euskara hiriratzea (ibid., 206):

Hay que llevar el vascuence a todas las actividades de la ciudad: a la enseñanza primaria, al bachillerato, a la Universidad, al deporte, a los espectáculos, a la prensa, a la radio, a la televisión, a los actos públicos. Pero es que además, la ciudad es el espejo en que se miran las gentes de campo. Asentando el vascuence en ella lo habremos instalado definitivamente en las zonas rurales.

Horrek denak hizkuntzaren gizarte balioespenari eragin behar zion, euskara balio eta babesgabe baitzegoen hizkuntza ofizialaren prestigioaren aldean (ibid.).

Eskola —gatzelania hutsezkoa— eragile erdaratzaile nagusia izan da, batzuetan familiaren euskarazko sozializazioa ahuldu eta, kasuren batean, haurra azkenean erdarara lerrarazi duena. Dena den, eskola soilik ez zen nahikoa izan haurrengan erdara nagusiarazteko herriko euskal giroa (etxean, karrikan) aski indartsu bazegoen (ibid., 199).

El castellano ha comenzado siempre a introducirse por aquí [eskolatik], pero sin la interferencia de otros factores la castellanización raramente ha sido deseuskerización. Si el ambiente es cerradamente euskaldun el niño siempre vuelve al vasco; si es bilingüe ya no y entonces la importancia de la escuela es tan decisiva que en la mayoría de los casos los chicos no recuperan el vasco.

Aldiz, ikastolak (1970ean euskarazko irakaskuntzaren bertze erreferenterik ez baitzegoen) haur euskaldunen lehen hizkuntza sendotzeko eta ziurtatzeko bidetzat ez ezik, gurasoen kontzientziaren seinaleztat ere hartu zituen (1972: 67): «[Lekunberri] La 'ikastola' evidencia una concienciación por parte de los padres, la de valoración lingüística, surgida sólo tras un cierto nivel cultural. Y este es el 'giro', el clima que para su subsistencia necesita hoy la lengua vasca».

³³ Dena dela, bi lerro eta erdietan bada ere hizkuntza berreskurapenerako gizarte dinamikan emakumezko batzuek jokatu duten rol aktiboa aipatu du: «... cuando las primeras maestras han salido de los pueblos navarros hemos visto a las 'neskak', frente al absurdo desapego de sus paisanas, ponerse al frente de las 'ikastolas' en Elizondo, Pamplona u Olazagutía» (Sánchez Carrión, 1972: 207).

Sánchez Carrionek 1970ean Nafarroako Mendialdean egindako landa ikerketan sei ikastola aipatu zituen: Altsasu, Olatzagutia, Etxarri Aranatz, Lekunberri, Leitza eta Elizondo herrietakoak. Nafarroako ikastolen mugimendua, halere, ez zen Mendialde euskaldunera mugatzen. Urte horretan Nafarroan lau ikastola zeuden Sánchez Carrionek aztertu zuen eremutik kanpo: bi Iruñerrian eta bana Lizarran eta Tafallan. Euskara gertakari hiritarra izaten hasia zen Nafarroan, Mendialdetik landa. Francoren agintaldian Iruñeko lehen ikastola 1965ean zabaldu zen eta 1969-1970 ikasturterako 348 ikasle zituen, 12 andereño eta hiru egoitza (López-Goñi, 2002: 250). Orduko euskarak herria/hiria, baserria/kalea bereizketak gainditzen hasiak zituen. Txepetxek Nafarroako eremu erdaldunduko hainbat herritan eta, batez ere, Iruñean euskara indarberritzeko hasitako dinamika (ikastolak, gau-eskolak, kultura jarduerak...) ezagutu behar zuen. Berak aitortu zuenez, Nafarroan nabari zen «... un cambio de posición (...). Ahí están las 'ikastolas'. Ahí está la labor de la Institución 'Príncipe de Viana'» (Sánchez Carrión, 1972: 19). Baina, tamalez, euskararen geografia historikoaren tradizioak eta segur aski, Ángel Irigarayren datuak eguneratu nahi izateak euskararen bertzelako egoera horretaz ez kezkatzeraz eraman zuten ikertzailea, haren helburua honako hau izanda ere: «... dar una imagen, lo más exacta posible, de la situación lingüística de Navarra en el verano de 1970» (ibid., 29).

Orobat, Mendialdetik lekora euskarara biltzen hasia zen gizartearen gertakaria eta, batik bat, gau-eskolen eta ikastolen bidez euskalduntzen zen heldu eta haur jendea Nafarroako hizkuntza egoeraren argazki zehatz horretatik kanpo uzteak euskararen jarraipenaren gaineko ikusmolde jakina salatzen du, nire ustez: familia bidezko belaunez belauneko transmisioari lotutako jarraipena, alegia. Bertzalde, Txepetxek ez dirudi eskola bidezko elebitasun goiztiarraren alde egiten duenik (1972: 191), horregatik agian herri erdaldun(du)etako ikastoletan euskalduntzen ziren haurrei ez zien bereziki begiratu.

Orain artio jorratu dudana apailatu zuenetik hamar urtera “La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun” ikerlana argitaratu zuen (1981a: 21): «En cierto sentido este trabajo es complementario de aquel: aquel es un análisis global valle por valle y pueblo a pueblo de la situación de la lengua en Navarra. Este es el estudio pormenorizado de la vida lingüística de una pequeña comunidad euskaldun».

Azterbide etnografikoa erabiliz, Malerrekako adin eta genero taldeetan, eta haien arteko elkarreraginetan euskararen lekua sakon ikertu zuen eta aurreko ikerlanean azalduetako alderdi psikolinguistikoak garatu. Hizkuntzaren transmisioari doazkion hizkuntza erabilera ereduak eta hiztunen hizkuntza jarrerak aztertu zituen eta hori da Nafarroako euskararen historia hurrekoan transmisioa eta sozializazioa landu dituen ikerketa kualitatibo bakarra.

Sánchez Carrionek aurreko lanean hasitako antinomien edo kategoría dikotomikoen ereduari jarraikiz, herria/hiria, *baxerritarra*/moderno, barneko/kanpoko aurkako bikoteak hemengoa/hangoa oinarritzko kategoría eraketan sartu zituen, horren bidez, hiztunek euskararekin eta gartzelaniarekin dituzten harremanak arakatu eta azaltzeko (1981a: 45):

He querido entresacar, y analizar (...) alguna de las implicaciones de esta oposición básica entre tradicional/moderno, rural/urbano, encuadrándola dentro de esta configuración categorial mínima: emengoa/angoa [sic], porque me parece que

es el eje alrededor del cual se constituyen, con todas sus diferenciaciones, las unidades lingüísticas sociales de uso lingüístico en la sociedad navarra de nuestros días.

Hori horrela, haurren hizkuntza sozializazioa azaltzeko ere aurkakotasunean oinarritutako eredua proposatu zuen. Alde batetik, etxeko hizkuntza/eskolako hizkuntza aurkaritza: «... en el área rural vascofona de Navarra el primer conflicto lingüístico del niño se producía como una oposición entre lengua materna y lengua escolar» (1981a: 57). Bertze aldetik —eta bereziki— gizonezkoak/emakumezkoak aurkako pareta: «... el comportamiento lingüístico de niños y niñas difiere notablemente entre sí desde la más tierna infancia» (ibid., 62). Genero talde batekoen eta bertzekoen euskararekiko jokaera desberdinak mutikoen eta neskatikoen sozializazio molde desberdinei egotzi zizkien (ibid., 64):

... la niña se orienta, casi instintivamente hacia el idioma de la 'sociabilidad', tal y como ella lo percibe, aun cuando éste no haya sido su primer idioma, pues es esa sociabilidad la que va reordenando sus agrupaciones afectivas. En el varón, sin embargo, la afectividad viene dada por vínculos previos: la madre, la casa, la tierra, la familia. Y la sociabilidad, cuando no es vista como una fuerza alejadora de estos vínculos esenciales, incorpora a estos vínculos, integrándolos, las nuevas relaciones [sic].

En nuestro caso concreto ello produce en la niña la rápida atrofia del euskara debido a su postración como lengua social. Y en el niño su mayor fijación al euskara, dada su condición de lengua de identidad.

Soziolinguista murtziarrak Nafarroako Mendialdeko komunitate euskaldunaren trinkotasuna gizonezkoen arteko kide-tasun harremanetan zurkaizturik ikusi zuen: «... la cohesión de la sociedad rural vascofona de Navarra se mantiene y perpetúa a través de la cohesión del sentido de grupo de sus varones» (1981a: 68). Txepetxen ustez, komunitatea batzeko elementuak, funtsean, gizonezkoenak ziren: jaia, jokoa, kirola, aisialdia, dantza, musika... (ibid., 67).

Sánchez Carrionek taldearen trinkotasuna bereziki gizonezkoengan ikusi eta agerikoak diren sozializazio esparru horietan atzeman zuen. Eguneroko bizitzako bertzelako elkartasun harremanak (haurren hazteari, zaharren eta gaixoen zaintzeari edo lagun hurkoaren laguntzeari lotuak, konparaziorako), usu emakumezkoen esku egon izan direnak eta etxe barnekoak izan ohi direnak aldiz, ez zituen taldearen trinkotasuna indartzen zuten elementutako jo. Txepetxi gizartearen bizitzaren oinarrian dauden emakumeen elkartasun gune eta bideak ikusezin gertatu zitzaizkion. Alderdi horri hizkuntza komunitateen azterketa androzentrikoaz Prattek (1989: 63) egindako kritika hagitz egokia zaio:

La marginación de formas de habla asociadas a la mujer y al mundo de la mujer es síntoma no sólo del androcentrismo de la lingüística, sino también de una concepción sorprendente, de estrechez verdaderamente patológica, de lo que es «el sistema normal» o «la comunidad abierta». Las teorías excluyen rutinariamente todas las formas de actividad lúdica y otras prácticas asociadas normalmente a la nutrición, las relaciones íntimas y la socialización.

Bertzalde, zalantzan paratu behar ditut Sánchez Carrionen hitzun elebidunen hizkuntza hautua azaltzeko erabiltzen dituen antinomiak. Ikerketa soziologikoetan diko-

tomia pareetan eratutako azterketak usuak izan dira, eta eraginkorragoak *continuum*eko azalpenak baino. Halere, ez dut uste egungo Nafarroako euskaldunen errealitatea ulertzeko Sánchez Carrionek darabiltzan dikotomia pareak (herria/hiria, *baxerritarra*/moderno, barnekoa/kanpoko, hemengoa/hangoa, bai eta euskaldunak/erdaldunak bezalako antinomiak ere) baliagarriak zaizkigunik.

1987an Sánchez Carrionen *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas* doktore tesia plazaratu zen. Hizkuntzen teoria sozial eta politikoa (hau da, botereari lotua) jorratzeko xedez egindako ikerlan horretan hizkuntzaz jabetzeari eta ikasteari buruzko eredu teorikoa eratu zuen. Horren arabera, hizkuntza batez jabetzean oinarritzko hiru faktore hauek jokatzen dute: *motibazioak*, *ezagutzak* eta *erabilerak*. Hiru eragingarri horiek elkarren osagarri eta menpekoak dira (1987: 35). Hizkuntzaren ikaste naturala (familia bidezko hizkuntza sozializazioan gertatzen dena) erabileratik hasi eta, ezagutzaren bidez, motibaziora iristen da (A ibilbidea). Aldiz, hizkuntzaren ikaste kulturalak, heldutan egiten denak, motibaziotik abiatu eta, ezagutza dela medio, erabilerak du helmuga (B ibilbidea). Honela dio lehen hizkuntzaren jabetzaz (ibid., 52-53):

... el proceso en el recorrido primario: el recorrido que va desde el uso a la motivación (...) en el aprendizaje natural de la lengua que se suele llamar **materna**.

El infante empieza a entrar en contacto con la lengua a partir de su contacto con el uso lingüístico de la sociedad en la que vive. Recibe la lengua en el uso y la recibe para el uso. Por tanto, recibe, por definición, la lengua que se usa en los espacios lingüísticos en los que progresivamente se va adentrando, llenando estos espacios lingüísticos con las funciones de las lenguas que *están ya allí*: no importa cuáles sean y pudiendo, de hecho, ser lenguas extraordinariamente disemejantes a las que sus progenitores tuvieron como nativas...

En la adquisición del lenguaje por el niño, el factor que aparece como impulsor del proceso es el uso. Y en relación estrecha con él, el tiempo (...). El niño aprende un idioma en la medida en la que se ve expuesto a un uso abundante del idioma a lo largo de un periodo suficiente de tiempo.

Hala bada, hizkuntza ikasten ari den haurrak bidea ongi burutzeko erabilerak da prozesuaren bulkatzailea: «Para que el niño (...) alcance la conciencia lingüística en su lengua nativa (...) es necesario que el niño tenga el máximo de uso del idioma (...)» (1987: 40).

Sánchez Carrionek proposatu ikasketa bideak (A eta B) ibilbide osagarriak dira eta bi zirkuitu mota osatzen dituzte: AB eta BA. Beren lehen hizkuntzan kulturizatu diren AB hiztunek («nativos cultivados») eta bigarren mintzairatzat ikasi eta horretan jatortu diren BA helduek («adultos nativizados») hizkuntza komunitate egituratuaren erdigunea, gune sinboliko delakoa, osatzen dute (1987: 98). Hizkuntza orok, biziko bada, gune sinboliko hori ezinbesteko du.

Txepetxek hizkuntzaren zazpi funtzio nagusi bereizi zituen, behetik goiti eta goikoek azpikoak barnebiltzen dituen moduan emanda: identitatekoa, familiakoa, lan arlokoa, eskualdekoa, naziokoa, kultura edo zibilizaziokoa eta nazioarteko hizkuntza funtzioak. Zazpi funtzioetatik oinarritzkoenak identitate eta familia funtzioak dira eta biak haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren menpe daude (1987: 75):

De estas siete funciones las dos de abajo (función de lengua familiar; función de lengua de identidad) dependen enteramente de la adquisición natural. Si la lengua no tiene sujetos que la adquieran inicialmente como única lengua materna estas funciones no aparecen, aunque puedan a veces *insinuarse*. La resurrección del Hebreo, por ejemplo, consistió propiamente en desamortajar a la lengua preservada artificialmente en funciones muy exteriores para darle vida a estas funciones nucleares...

Txepetxen teorian, familia transmisioa hizkuntzaren bizitzaren funtsa da. Hizkuntza komunitateak hizkuntzaren irakaskuntza naturala (lehen hizkuntza bezala) eta kulturala (bigarren hizkuntza gisa) bermatuak behar ditu (1987: 96). Horregatik, hizkuntza komunitate trinkotu baten barnean hizkuntzaren birsortze eta transmisio osoa dira hiztunen helburua eta eskubidea (ibid., 174, 304-305). Hizkuntza plangintzaren helburua —euskararen normalizazioa, alegia— buruturik egonen da komunitateko haurrek euskara bide naturalean eta kulturean jasotzen duten modua ahal den onena delarik. Eta horrek ez luke bi belaunaldi baino gehiago iraun beharko (ibid., 235):

... el objetivo fundamental: que a partir de un momento concreto, del momento \emptyset que determina la puesta en marcha del proceso social de recuperación del idioma, todos los niños que nacen en el territorio lingüístico reciban el idioma en las mejores condiciones posibles para llegar a adquirirlo de un modo completo. Y la normalización está consumada cuando esas condiciones en las que los niños euskaldunes reciben la transmisión natural y cultural del Euskera sean óptimas. Ello no debe suponer más de dos generaciones: exactamente las mismas que consuman un proceso en sentido contrario (expatriación).

Txepetxendako, normalizazioa den prozesu hori gizarte ibilbide osagarriak eratzean datza, hala belaunaldien arteko zubiak nola haurren eta ingurune soziolinguistikoaren artekoak (Sánchez Carrión, 1987: 307):

El proceso consiste en establecer circuitos sociales complementarios. Quiere decir que el conocimiento incompleto del Euskara de un padre es utilizado como *punte* para lograr un aprendizaje completo del hijo en la generación siguiente. Y que el uso del Euskara en el **entorno** es utilizado como puente para permitir la nativización de un niño cuyos padres no han logrado euskaldunizarse. De ese modo la posibilidad de recuperar una lengua se basa en la posibilidad de articular recorridos incompletos, pero funcionando completamente (...). Esto hace que el niño dependa, simultáneamente, del adulto (padres, maestros, etc.) **y del uso en general.**

Hizkuntza sozializazioaren inguruko hausnarketa batetik, Sánchez Carrionek (1987) euskara berreskuratzeko proposatu duen eredu teorikoan hizkuntza transmisioa funtsezko giltzarria da. Hizkuntza sozializazioaren bi aldeak, naturala eta kulturala bereizten ditu, eta hala norbanako mailan nola gizataldearenean, elkarren osagarriak dira. Halere, Txepetxek proposatzen dituen bi jabekuntza bideak hain bereizirik ez daudelakoan nago. Egun, anitzetan hizkuntzaren ikasketa naturala eta kulturala bereizgaitzak suertatzen dira. Familia euskaldunetan haurrak hizketan ikastearekin batean jasotzen ohi du euskararen hautemate kulturala. Euskara etxe-familian jaso ez

duzen haurrak ere anitzetan oso goiz eta bateratsu —ez batzuk bertzeen ondotik— hasten dira hizkuntza gaitasun mintzatuak eta idatziak berenganatzen irakurketa-idazketa prozesuaren hasi-masietan, hizkuntzaren didaktika arloan egindako ikerketek agerian utzi bezala (Oihartzabal, 2000).

Sánchez Carrionen ekarpenak, nahiz eta zenbait alderdiri egungo egoera aztertze-ko egoki ez iritzi, baitezpadako erreferentzia dira. Egile horri euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipenaren gaineko lehen azterketa kualitatiboa egin izana aitortu behar zaio.

2.2.2.3.2. Xabier Erize

1997an Xabier Erize soziolinguista iruindarrak *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863–1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza* doktore tesia argitaratu zuen. Erizek soziolinguistikaren barruti zientifikoa kokatu zuen ikerketa: Nafarroako euskal hizkuntza komunitatearen bizitza, haren bilakabidea 1863tik 1936 bitartean, Nafarroako erdal hizkuntza komunitatearekin harremanetan aztertua, hau da, Nafarroako bi hizkuntza komunitate historikoak bizi izan diren ukipen egoeraren testuinguruan. Lanaren ekarpena honetan datza, egileak berak laburtu bezala (Erize, 1997: 34):

Bi hitzetan esanda, ikergai berri bat proposatzen da: euskararen bizitzaren sustrai historikoak, eta horrekin batera, orain arte kasik jorratu ez diren iker-bideak ere iradokitzen dira: euskal hizkuntza komunitatea, bere portaera-arauak, bere egitura, bere baloreak eta bere mundu sinbolikoa. Bestalde, esan beharrik ez dago, euskararen jarraipena aztertzeak atzerkadaren arrazoiak ere ulertzea eramaten gaitu.

Horretarako, Erizek bere ikerketaren ikuspegia euskaldunengan kokatu zuen, euskararen historiografian ia behin ere erabilia izan ez den ikusmoldea, sakontasun handiko ikerbide suertatu zitzaiona (1997: 31): «Lanak plazara dakarren arazo intelektual nagusia *ikuspuntua finkatzea* da: ohiko moldeak gainditu eta euskararen historia euskaratik bertatik egitea, bilakabidearen subjektu edo protagonistatzat euskaldunak —euskal hizkuntz komunitatea— hartuz».

Ikertzaile iruindarrak hizkuntza gutxituen bizitzan bildu zuen arreta, bertze ikertzaileek egin izan ez dutena, mintzairen ordezkapen edo heriotza prozesuei baizik ez baitiete so egin. Hautatu ikusmoldeak eta herri hizkuntzen historiografian jokatu duten postulatu inplizituei kritika egiteak hiru ondorio ekarri zizkion Erizeren ikerketari:

– *Euskararen bizitza, bere biziraupen historikoa, ikergai bihurtzea*, ordura artio egin ez zena. Horrek inertzia edo isolamendua gisako sasiazalpenak bazter uztea izan zuen ondorio. Ohiko azalbide horiek alboraturik, euskal hizkuntza komunitatearen egitura, balioak, portaeren sistema eta ugalketa bezalako gaiak azaleratzen dira eta horien iker-tzeari heldu dio Erizek (1997: 524):

Euskararen eta herri hizkuntzen historiografian ere ikerkuntza-programa edo paradigma moduko bat egon da indarrean hamarkada askotan zehar. Programa hau atzerkadaren ideia-aren inguruan eratu zen eta ikerketa gehienak arazo hori azaltzera bideratu ditu orain arte. Gure artean finkatu zuena Arturo Campion izan zen batez ere (...). Paradigma horri euskararen edo herri hizkuntzen 'heriotzaren paradigma' dei dakioko.

— “*Euskararen heriotzaren*” *topos edo diskurtsoa gainditzea*. Diskurtso horrekin, errealtatea desitxuratzeaz gain —euskara bizirik dago—, euskarari eta euskaldunei protagonismoa kendu eta objektu pasibo direla aditzera ematen da zeharbidez (1997: 524-525):

... hizkuntza gutxituen bizitza historikoak ez du ikertzaileen arretarik merezi izan (...) hizkuntza hauen historiaren gunea izan dena, beren hitzunen eguneroko bizimodu eta bizipenak, alegia, ikustezin [sic] bihurtzen dute hizkuntzen heriotzaren paradigmapeko ikertzaileek, ez gaiak berez garrantzirik ez duelako, eskematik kanpo gelditzen zaielako baizik.

— *Nafarroan bi hizkuntza komunitate daude, euskalduna eta erdalduna*. Bien arteko ukipena gertatu da eta bi hizkuntza komunitateek elkarrekiko portaera guztiz desberdina izan dute (1997: 525):

Oso-osoa argigarria da ikuspegi hau [hizkuntza komunitateak bereiztea], guztiz desberdinak izan baitziren euskaldunen erdaldunekiko jokamoldeak eta erdaldunen euskaldunekikoak. Honek komunitate bakoitzaren sakoneko baloreak ezagutzera bultzatzen gaitu.

Bide beretik ulertzen da *Nafarroako hizkuntza desoreka estrukturala* deitu izan duena (ibid., 531):

Gizarte kulturalki konplexua da Nafarroa erresumaren lehen garaietatik eta bertan bi mundu geografiko-kultural desberdin izan dira historikoki: euskal mundua eta erdal mundua, gehi bien arteko ukipen eremu zabal eta aldakorra. Hala ere, Nafarroa erdal komunitatetik eta linguistikoki bere zerbitzura antolatutako estatu edo egitura politiko-soziala izan da nire ustez. Mendeetan zehar iraun duen gertaera honi ‘Nafarroako hizkuntza desoreka estrukturala’ deitzen diot (...). Euskararen bazterketaren sustraiak hor bilatu behar ditugu nagusiki.

— *Hizkuntza komunitatearen azterketarako eredu*. Max Weber eta Leonard Bloomfield klasikoekin eta José M^a Sánchez Carrión eta Ralph Fasold garaikideekin batera, hizkuntza komunitatea berezko izaera duen gizarte-egituratzat hartzen du. Soziolinguistikaren eta soziologiaren arloetako ekarpenak uztartuz, honako eredu hau eratu zuen hizkuntza komunitatearen bilakaera bere konplexutasun osoan arakatzeko (1997: 525):

1. maila: aparatu sinbolikoa, baloreak...
2. maila: hizkuntza komunitatearen egitura
3. maila: hizkuntza portaeren sistema (hizkuntza komunitatearen gizarte-ekintza)
 - hizkuntza ezagutza, edo hizkuntza gaitasuna
 - hizkuntzarekiko jarrerak
 - hizkuntzaren hautaketa
 - hizkuntzaren erabilera
 - hizkuntzaren egoera aldatzeko ekintzak (aldeko zein kontrako mugimenduak, azterketa zientifikoak...)
4. maila: komunitatearen ugalketa

Erizeren ikerlanak kasu azterketa bat biltzen du, Larraungo Uitziz herrian egindako landa ikerketa (1997: 528): «Euskarak Nafarroan iraun badu, Uitziz bezalako herri anitzetako bizilagunek euren hizkuntzari eutsi diotelako izan da, bertako sistema etnolinguistikoak biziraun eta egoera berriei egokitzeko bizitasuna izan duelako, beste hitzetan esanda, eta euskararen historiaren erdigunea den gertaera hau da, hain zuzen ere, Uitzizko ikerketaz azaldu nahi izan dudana».

Landa ikerketaren ondorio gisa honako hau eman du (1997: 530): «Euskarak iraun du azpian gizarte edo komunitate egituratu bat izan duelako; bertan euskalduna izatea balore bat zen, prestigioa zuen, eta, oro har, hizkuntza portaera euskalduna — non erdara bigarren hizkuntza zen— garatzen eta transmititzen zen. Isolamendua eta inertzia baztertu beharreko sasiatzalpenak dira nire ustez».

Ikertzaile nafarrak hizkuntza transmisioa, «... hizkuntz komunitatearen ugalketa», aztertu zuen Pierre Bourdieuren kultura ugalketa, hizkuntza azoka, lan pedagogikoa eta, batik bat, *habitus* kontzeptuez baliatuta (1997: 357-358):

Orokorki, Uitzizko hizkuntz komunitatearen *ugalketa* edo jarraipena aztertzen ari gara. Hizkuntz komunitateak portaera arau eta balore jakin batzuk zituen eta *hizkuntz elkartrukeen azokan* bereak beste batzuekin alderatu eta balioztatu egiten zituzten. Hizkuntz azoka bikoitza zen: eremu euskaldunekoa eta Nafarroa osokoa. Eremu euskalduneko azokak euskara egoera askotarako hizkuntza baliotsua zela adierazten zien; Nafarroa osoko azokak, ordea, erdal komunitateak antolatua, gaztelaniaren balioa erakusten zien. Ereditu, arau eta irizpide horiek guztiak *lan pedagogikoaren* bidez ikasi eta barneratzen zituzten haurrek, Uitzizko euskal hizkuntza komunitatearen *habitus* edo kultur eta hizkuntz gaitasuna finkatuz. Uitzizko bizilagunek, behin euskarari oinarritutako *habitus* beren baitan eratu eta gero, haren arabera jokatzeko zuten praktikan eta hura zen, halaber, ondorengoei irakasten zieten, euskararen ugalketaren zirkulua itxiz.

Komunitate euskaldun horretan oinarrituta egileak itxuratu zuen euskararen familia transmisio moldeak ez zuten etenik izan. Erizek aztertu zuen garaian (1863–1936) Uitzizko euskaldunek seme-alaba euskaldunak hazten zituzten, erdaldunek seme-alaba erdaldunak hazten zituzten bezala. Bi taldeak, euskaldunak eta erdaldunak, ongi bereizirik zeuden eta familia bidezko transmisioan galerarik ez zen, nahiz eta eskolari zegokion lan pedagogikoak euskararen kontra egin (1997: 359): «Familiako lan pedagogikoak eutsi egin zion euskarari, baina eskolak, lagundu beharrean, oztopo eta eragozpenak baizik ez zituzten jartzen eta, ondorioz, Bourdieuren haritik tiratuz, eskolak Uitzizko hezkuntza garapena zatitu eta kaltetu egiten zuela esan dezakegu, beren ahalmena biderkatu beharrean».

Nafarroako Mendialdean euskaldun izateari eutsi dioten herrietako hizkuntza egoera historikoa —eta horren barnean euskararako sozializazioa— ulertzeko erreferentzia baliotsua da Erizeren lana. Halere, ikerketa honen ikuspegitik, hizkuntza komunitatearen ugalketaren gainean Erizek duen ikusmoldearekin honako desadostasun hauek azaldu nahi ditut:

Alde batetik, bere lanean oinarritutako kontzeptua den hizkuntza komunitatea — Bloomfielden *speech community* adiera klasikoan hartua— mintzairak osoki definitzen duen gizataldea dugu. Kontzeptu horretan oinarritu zuen Erizek —Weinreichekin (1979) bat zetorrela— ama hizkuntzaren araberrako taldeen (euskaldunen eta erdaldu-

nen) azterketa. Hizkuntza komunitate kontzeptu horrek kritikak jaso ditu (Fishman, 1988: 56-57; Pratt, 1989: 59; Hernández, 2007: 79-80) mintzairari lotuegia egon eta izaera homogenea hanpatzeagatik. Dena dela, kontuan hartu behar da Erizek ikerketa zedarritu zuen garaian (1863-1936), euskara lehen hizkuntza zuten nafarrak eta ez zutenak bi gizatalde bereizitatzat hartzeak zentzua bazukeela. Testuinguru historiko horretan, euskaldun berrien gizarte gertakaria ez zen artean nabarmena. 1970eko hamarkadatik aitzineko egoera soziolinguistikoa aztertzeo, ordea, kontzeptu horri behaztopa teoriko eta metodologikoak antzematen dizkiot. Hizkuntza komunitate adigai hori gaurko euskaldunek euskararekin eratzen dituzten harremanak ulertzeko baliagarria ez delakoan nago, duela hiru hamarkada luze Mitxelenak (1978: 24) berak ohartarazi zigun bezala.

Bertze aldetik, Erizek azaltzen duen hizkuntza sozializazio egoera —familia bidezko transmisio bete-betea, ez galera ez irabazirik ez zuela— haren testuinguru historikoan kokatu behar da. Nafarroako Mendialdeko hainbat herritan bezala, Uitzin ere haurren hizkuntza sozializazio eredian aldaketak gertatu ziren. Sánchez Carrionek (1972: 74), adibidez, honela dio Uitzin herriaz ari zelarik: « [Uitzin] ... algunos padres, aún minoría, han dejado de enseñar el vascuence a sus hijos en casa como lengua preescolar (...). Por eso Huici (...) evidencia la amenaza de una próxima generación de niños castellanófonos (que ya no recuperarán el vasco)».

Irizarrek (1973a: 41-42) ere gertakari bertsua dokumentatu zuen. Hala bada, nire iritziz, azken berrogei urteotan Nafarroan euskal jendeak bizi izan dituenak ulertzeko ideia desagokia da euskararen ugalketa molde biribil eta etenik gabeko hori. Izan ere, egun euskaldunak izaten segitu duten Mendialdeko hainbat herritan ikertzaileek hondar hamarkadetan euskararen familia bidezko transmisioaren etenak dokumentatu dituzte. Herri horietako bat Elizondo, adibidez, nahikoa agertzen da dokumentazioan (A. Irigaray, 1956: 41; B. Estornés, 1960: 10; Morales de Rada, 1963: 21-22; Sánchez Carrión, 1972: 116; Izeta, 1999: 29-31; Azcona, 1985: 229-235). Halere, badirudi azken urteotan familia bidezko hizkuntza sozializazio eredia moldatu eta sendietan haurrak euskaldun hazteko joera nagusitu dela (Taller de Sociología, 1999). Hala bada, nire idurikotz, ez daiteke Nafarroako euskararen historia hurbila azal hizkuntza sozializaziorako jokamolde ereduak aldatu direla kontuan hartu gabe. Beraz, euskararen jarraipenean eten-jarraipenak edo haustura-loturak, biak dira aintzat hartzeoak.

2.2.2.3.3. Jone Miren Hernández

Jone Miren Hernández (2007) lasartearrak euskararen transmisioaren gaineko ikerketa antropologikoa egin du, Alessandro Durantik (1997: 2) hizkuntza antropologia diziplinari atxikitako ikusmoldeari jarraikiz. Ikuspegi horrek hizkuntza kulturaren baliabidetzat aztertzen du, eta hizketa kulturaren jardueratzat.

Soziolinguistika tradizionalaren zenbait kontzeptu zurrunen aitzineko jarrera kritikoa eta bokazio dekonstruktibista duela, Hernandezek (2007: 23) hizkuntza bera baino gehiago haren transmisioa ahalbidetzen duten elementuak hartu ditu aztergai: «... los elementos que convierten la lengua —en este caso el euskara— en un mecanismo de expresión comunitaria y deseo de relación con el entorno, generando así las condiciones básicas para su transmisión» (ibid.). Hizkuntzan eta horren transmisioan ez ezik, elementuotan ardaztu du ikerketa: «... los elementos que en la práctica dotan

de realidad y sentido a estas nociones: los deseos, la memoria, el paisaje, las relaciones, la cotidianeidad» (ibid., 24).

Antropologoak egindako landa ikerketa etnografikoan oroimenaren garrantzia nabarmendu du azken hamarkadetan euskararen transmisioa erraztu duen elementutako: «... defino la transmisión como la lucha contra el olvido; lucha que implica un esfuerzo paralelo por construir la memoria» (2007: 127).

Epistemologikoki ikertzailea teoria feministei, identitate konplexu eta dinamiakoak —polifonikoak— aintzat hartzen dituzten teoriari eta alderdi subjektibo, pertsonal eta erreflexiboak jorratzen dituzten teknikei atxiki zaie (2007: 29-33).

Soziolinguistika klasikoaren —eta euskal soziolinguistikaren— zenbait oinarriko kontzeptu zalantzan paratuta, egungo hizkuntza antropologian erabiltzen diren ideiak proposatu ditu: *heteroglossia* (Bakhtinen kontzeptua, hizkuntza homogeneousaren ordeza) eta *community of practice* (*speech community* kontzeptutik aldentuta) (2007: 46-52; 2008). Hitzunen eta hizkuntzaren artean eratzen diren askotariko harremanak arakatu nahi izateak subjektibotasunaren eremura sartzen du ikerketa, hau da, hitzunen bizipen, emozio, nahikari, oroitzapen eta, oro har, nitasunaren eratzean jokatzeko duten elementuen arlora. Funtsean, Hernandezek ikusmolde teorikoa eratu du norbanakoek elkarren artean eta inguruarekin garatzen dituzten harremanetan beren biziak egokitzearen egiten dituzten *hausturak* (*transgresiones*) ere ikusi ahal izateko. *Haustura* horiek historiaren, taldeen eta biografien balizko determinismoa gainditzen dute.

Metodologikoki, gerturapen etnografikoan kokatuta, teknika biografikoak (bizitza-historiak) erabili ditu. Ikerketarako landa lana, Lasarte-Orian (Gipuzkoa) egin zuen. Azken berrogei urteotan hiritartu, industrializatu eta erdaldundu den udalerriri hori kasu azterketarako hautatzearekin ikertzailea euskararen transmisioa herririka euskaldun eta nekazarietan aztertzeko joeratik —euskal soziolinguistikaren nagusi izan den jaidura horretatik— ohartuki hasandu zen (2007: 23)³⁴. Historia hurbilean aldaketa sakonak jasan dituen eta euskararen belaunez belauneko jarraipena ikertzeko aski ezohikoa den inguruan, hizkuntzak eta haren transmisioak komunitatean betetzen duen lekua aztertu du ikusteko nola (ibid.):

... el euskera ha seguido vinculado a la necesidad —sentida por muchos y muchas— de expresar un modo de ser, estar y relacionarse con el entorno. Planteo que es precisamente esa necesidad la que está en el origen de la transmisión, y dependerá del contexto, del momento histórico y, evidentemente, también de la capacidad lingüística de sus protagonistas para que esta transmisión culmine en nuevas generaciones de vascoparlantes.

Hernandezen lana gurean egiteke zegoen euskararen transmisioaren azterketa semiotikoa da. Haren ikerketak euskararen transmisioari loturiko esanahiak eta hitzunen hizkuntza atxikimenduen oinarrian dauden zentzuak arakatu ditu. Antropologoak darabiltzan ikuspegi teoriko zein metodologikoagatik eta soziolinguistikaren nagusi izan diren zenbait eredu nahiz kontzepturen aitzineko jarrera kritikoagatik, Hernandezen

³⁴ Euskararen belaunez belauneko jarraipena inguru hiritartu eta industrializatu batean aztertu duen lehen ikerketa kualitatiboa Josune Iraolak (2002) Pasaian (Gipuzkoa) burutu zuen transmisioaren gaineko ikerlana da.

ikerlana egun euskararen belaunez belauneko jarraipenari heltzeko erreferentzia biziki ernagarria da.

Halaz guztiz, oraindik ez dugu euskararen segidaren izaera elkarreagilea eta orohartzailea aintzat hartuta, egungo haurrak euskaldun hazteko prozesuari oratu dion ikerlanik.

2.3. HIZKUNTZA GUTXITUEN ETA EUSKARAREN JARRAIPENA. EKARPENEN ONDORIOAK

Atal honetan egin dudan ibilbidean azaldu dudanez, belaunez belauneko jarraipena hizkuntzen bizitza eta iraupenerako funtsezkoa dela literatura sozio-antropolinguistikoaren axioma da. Halaz guztiz, ageriko paradoxa dugu maila teorikoan haren garrantzia aho batez onartuta egonagatik ere, hala ikerketetan nola soziolinguistika aplikatuan, hizkuntzen gizaldirik gizaldiko segidaren prozesuari jorratze sistematiko eta bereizi urria eman izana. Azken urteotan, mintzaireren belaunez belauneko transmisioari leku berekia aitortzen hasi zaio soziolinguistikaren barnean, baina oraindik corpus teoriko-metodologiko nahikoa garatu gabe du.

Ikertzaileek hizkuntza gutxituen belaunez belauneko jarraipena ikuspegi eta diziplina desberdinen azpian, baita kontzeptu desberdinen kategorizazioaren azpian ere aztertu dute. Literatura soziolinguistikoan batik bat *language transfer* edo *transmission* (Fishman, 1997) eta *reproduction* (Nelde et al., 1996; Ó Riagáin, 2001) erabiltzeko joera izan da. Euskaraz, *transmisio* hitzaz gain, honako hauek erabili dira gertakari hori izendatzeko: euskararen *jarraipena* (Eusko Jaurlaritza, 1995; Arruti, 1997; Iraola, 2002), hizkuntza komunitatearen *ugalketa* (Erize, 1997) eta euskara *ondorengoetaraztea* (Eusko Jaurlaritza, 1999).

Nafarroan euskaldun haztea aztergai duen ikerketa honetarako bereziki interesgarriak izan zaizkidan alderdi teoriko-metodologikoak bi ataletan banatuko ditut: alde batetik, euskararen jarraipena aztertzeak dakartzan eginbideak eta bertze aldetik, literatura sozio-antropolinguistikoaren ekarpenak.

Euskararen jarraipena aztertzeak dakartzan eginbideak

XIX. mendetik heldu den tradizio bati jarraikiz, Nafarroako euskararen egoera jorratu duten ikerketak partikularki euskararen gibelamenduari eta galerari ohartu zaizkie. 1970eko hamarkada artioako azterlanek batik bat hizkuntzaren atzerakadari begiratzen zioten eta ikertzaile batzuei euskararen belaunez belauneko jarraipenaren etena arazotzat hartzen ez zuen eta are naturalizat jotzen zuen jarrera intelektuala igartzten zaie. Hortik aitzina euskararen gizarte egoera —hizkuntzaren gizaldiz gizaldiko segida barne— aztergai hartu duten ikerketak batik bat azterbide soziologikora, maiz makrokantitatibo hutsera, lerratu dira. Azterketa horietan hizkuntzaren transmisioa familiara mugaturik arakatu ohi da. Ikermolde horretan txertatzen diren lanek bi transmisio era bereizi ohi dituzte: bat familia bidezkoa, usu *naturala* deitu izan dena; eta bertzea eskolan gauzatzen dena, *kulturala* deitu zaiona.

Hurbilpen soziologiko horrek aita-amen hizkuntza gaitasuna izan du irizpide nagusi, eta guraso euskaldunen seme-alabei euskara transmititzeko joerak itxuratzeiko zenbait datu kantitatibo eman baditu ere, oro har hizkuntza ondorengoenganatzearen gaineko bertzelako azalpen kualitatiborik ez du eskaini.

Bertzalde, gutxi dira euskararen belaunez belauneko jarraipena —bete-beteen (Hernández, 2007) edo hein batean bederen (Sánchez Carrión, 1972, 1981a; Erize, 1997)— azterbide etnografikotik landu duten ikerlanak. Aipatu hiru egileek hizkuntzaren alderdi kultural eta komunitarioa nabarmentzen duen ikuspegiarekin bat egin dute eta horiexek dira, nire idurikotz, aztergai dudan prozesuaren azpi-gainak miatzeko sakontasunik handiena erdietsi duten azterlanak.

Nire ikerketak egun haur nafarrak euskaldun haztea ahalbidetzen duten inguruabar eta baldintzak arakatzeari du xede, hau da, Nafarroako euskararen belaunez belauneko jarraipena zertan datzan argitzea. Horretarako ikerlan honek ez du aurrekari zuzenik. Alegia, hondar hamarkadetan nafarren belaunaldi berriak nola bilakatu diren euskaldun eta hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko segida zertan egon den bereziki aztertu duen ikerlanik ez dago.

Historia hurbileko euskararen jarraipenari eta horren barnean egun nafar belaunaldi berriak euskaldun hazteko bilakabideari heldu nahi dion ikerketa batek honako alderdi hauek kontuan hartu behar ditu baitezpada: a) euskararen jarraipena eta etena nola bildu, b) euskararen gizarte berreskuratze prozesuari nola heldu eta c) hiztunen heterogeneotasuna nola jaso.

a) *Euskararen jarraipena eta etena nola bildu.* Euskararen historia hurrekoan hizkuntzaren belaunez belauneko segida prozesu lineala izan al da? Ez dirudi. Aitzitik, badirudi hondar hamarkadetan mintzairaren jarraipen eta eten prozesuek batera jokatu dutela. Nafarroako euskararen iraganaldi hurbila ez daiteke hizkuntzaren jarraitutasun hutsa ardatz duen azalbide batez argitu. Egundako euskaldunak hiztun bilakatzeko prozesuak ezin dira azaldu hizkuntza sozializaziorako jokamolde ereduak aldatu direla kontuan hartu gabe. Euskararen gizaldirik gizaldiko segida bete-betea eta etengabea ez ezik hizkuntzaren belaunez belauneko etendura eta uztardura gertakariak ere maizkoak dira. Beraz, euskararen iraupenean eten-jarraipenak edo haustura-josturak, biak dira aintzat hartzekoak. Horrekin bat, ikerketa historia hurbilean euskararen galera-berreskurapen prozesua izan duten herrietan, inguru erdaldun(du)etan ere egiteari ezinbestekoa deritzot, xedea Nafarroako euskararen jarraipenaren irudi osoa eratzea bada. Horri loturik, lehendabiziko egoera —belaunez belauneko hizkuntza transmisio etengabea— ulertzeko jorratu diren azalbide eta euskarri teoriko batzuk (adibidez, Erizek [1997] *habitus* kontzeptu soziologikoan funtsatutako hizkuntza komunitatearen ugalketa [erreproduktzio] ideia) nekez dira baliagarriak bigarren errealitatei —gizaldirik gizaldiko hizkuntza transmisioaren etendura-estekadura izan duten gizataldeei— ihardesteko orduan.

b) *Euskararen gizarte berreskuratze prozesuari nola heldu.* Hondar hamarkadetako euskararen historiari so egitean hizkuntzan aldaketa nabarmenak azaleratzen dira. Nafarroako hainbat lekutan, hala Mendialdeko herri euskaldunetan nola inguru erdaldun(du)etakoetan, euskararen gizarte egoera erabat birmoldatu da. Horrek orain artio erabili izan diren tresna teoriko-metodologiko batzuk berriz pentsatzera garamatza. Erraterako, euskararen azterketetan sarri erabili diren eta agian orain hamarraldi batzuk eragingarriak ziren hizkuntzari loturiko kategorizazioak, antinomia gisa (hemengo/hangoa, herria/hiria, *baxerriarra*/moderno, barnekoa/kanpokoa, gizonezkoa/emakumezkoa, etxea/eskola) formulatuta, gertatu zaizkit bereziki arazotsu. Nire irudituan, euskararen gizarte zabaltzea aintzat harturik, planteamendu dikotomiko horiek nekez izan daitezke baliagarriak euskararen egungo gizarte dinamikak azaltzeko.

Bertzalde, euskararen gizarte berreskuratzeak belaunaldi berriak euskaldun haztea ekarri ohi du berekin eta prozesu hori ikerketa honen aztergai izanda, orain artio erabili den *hizkuntza transmisio* kontzeptuarekin egiten dut talka. Nire idurikotz, transmisio adigaia egungo Nafarroan —ingurune erdaldun(du)etan batez ere— haurrak euskaldun hazten diren egoerei antzemateko desegokia da. Nola aplikatu transmisioaren ideia guraso erdaldunak dituzten haurren euskaldun hazteko prozesuari? Nola barnebildu transmisio ideia horretan ez goitik beheiti, baizik eta behetik goiti (haurrengandik gurasoengana) nahiz ezker-eskuin (adinkideen artean) gertatzen diren elkarrenginak? Orobat, euskararen transmisioa etxe-familia esparruari loturik joan da (etxea/eskola dikotomiaren eskeman) eta euskaldun hazteko prozesua ez ohi da bere osotasunean aztertu. Hizkuntza sozializazioaren testuinguruko konplexutasunari behatzeko dikotomia zurrinak desegokiak diren bezala, haurrak hiztun bilakatzeko prozesuan hizkuntzaz jabetze *naturala* eta *kulturala* bereizten dituen ere lausotuta dagoelakoan nago. Bi ikasbideak uztarturik daude, izan ere euskaldun hazteko prozesua ez da etxe-familiaren eremura mugatzen, komunitatearen barnean gertatzen baita. Haren dinamiketan eta hark ahalbidetzen dituen aukeretan —eskola barne— dautza euskaldun bilakatzeko gakoak, arrazoiak, motibazioak eta bideak.

c) *Hiztunen heterogeneotasuna nola jaso*. Euskalduna/erdalduna dikotomia zurrinak ere eraginkortasuna galdu du, nire ustez. Horri loturik, egun, duela hiruzpalau hamar-kada ez bezala, haur nafarrak euskaldun bilakatzeko diren inguruneen heterogeneotasunak «hizkuntzan guttiz ardatzurik ez dagoen hizkuntza komunitate» kontzeptura eramane behar gaitu.

Alderdi horiek kontuan hartuta, betekizun metodologiko batzuen premia agertu da. Lehenik, ikuspegi etnografikoak aztertu nahi dudana gertakariaren ezagutza sakone-rako duen balioa erakutsi du. Alor honetako ikerketa uztarik emankorrena azterbide horretan delakoan nago. Berebat, hurbilpenak eragingarri makroen eta mikroen arteko uztardura bermatu behar du. Hizkuntzaren jarraipena hiztunen hautu-erabakiei loturik egoteaz gainera, baldintza soziohistorikoen eta politiko-ideologikoen arabera ere bada, eta prozesu horiek ez egoeraren azalpen sinkroniko-estatikoan, baizik dimentsio zinetiko-dinamikoan azaldu behar dira. Nafarroako euskararen segidaren ondorioak egonkortzat eta berezkotzat ez hartzea da nire proposamena; izan ere, hizkuntzaren jarraipenean egoerak baino gehiago hiztunen bizi bilakaerak eta hizkuntzekin eratzen dituzten harreman dinamikoak azaleratzea zait ernagarriago.

Bertzalde, hizkuntza sozializazioaren azterketa kualitatiboak Nafarroako Mendialdean egin dira, herri nekazari euskaldunetan (Malerrekan eta Uitzin) hain zuzen, baina oraindik deus gutxi dakigu Nafarroako hirigune erdaldunetan bizi diren familia euskaldunen hizkuntza sozializazio moldeez. Nire ustez, egun planteatzen den ikerketa batek euskara gertakari hiritarra ere badela kontuan hartu behar du. Dimentsio hori gabe Nafarroako euskararen argazkia hagitz mugatua izanen litzateke.

Literatura sozio-antropolinguistikoaren ekarpenak

Nafarroako euskararen belaunaldi berriaren azterketari heltzeko literatura sozio-antropolinguistikoaren zer ekarpen zaizkit bereziki baliagarri?

Weinreichek testuinguru elebidunetan norbanakoaren elebitasunak hizkuntzaren gizarte egoerarekin zerikusi estua duela ohartarazi zuen, hau da, kultura-gizarte maila-

ko faktoreek hiztun elebidunaren portaerei eragiten dietela eta eragingarri horien araberako hiztun elebidunaren baitan mintzairak duten nagusitasuna alda daitekeela.

Fishman eta Fasold soziolinguistek hizkuntza transmisioa mintzaira atxikitze eta ordezkatzeko prozesuetan kokatu dute eta prozesu horiek gizarte jarraipen eta aldaketaren testuinguruan aztertu dituzte. Hizkuntzaren iraupena edo galtzea hiztunen hautu eredu koherenteek epe luzera dakarten ondorio soziala dira. Erran nahi baita, hizkuntzaren jarraipena ez da gertakari mekanikoa, hiztunen hautu-erabakien emaitza baizik. Alde horretatik, hizkuntzaren atxikitzea eta ordezkatzea txanpon beraren aurki-binperrak dira, eta hiztunen erabaki eta portaerek mintzairaren jarraipen-etenean jokatzeko dute.

Hizkuntzaren belauneko belauneko jarraipena aztertzekeo hurbilpen antropologikoaren artean, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloaren ekarpen teorikoa izan zait bereziki iradokitzailea. Ochs, Schieffelin, Garrett —bertzeak bertze— egileen ikusmoldean hizkuntza sozializazioa prozesu jarraitua, amaigabea —hau da, haurtzarora mugatu gabe bizialdi osora hedatzen dena—, dinamikoa, elkarreragilea eta inguruneari lotua da. Ikertzaile horiek hizkuntzaz jabetzea eta hizkuntzaren bidezko sozializazioa bi prozesu berezitat jo beharrean, bilakaera beraren aurki-iferentziaz hartu dituzte. Ildo horretatik, ikertzaileek hiztun bilakatzeko prozesua haren testuingurutik bereizirik ez daitekeela har defendatu dute, hiztunak ingurune zehatzetan jabetzen baitira hizkuntzaz, alegia, prozesu horri alderdi soziokulturalek (gizarte antolaketak, tokiko sinesmen eta balioek, hizkuntza erabileraren gizarte arauak, hizkuntzen perzeptzioek...) sakonki eragiten diote. Hizkuntza sozializazioaren barnean, hizkuntzaren bidezko sozializazioa eta hizkuntzaren erabilerarako sozializazioa bereizi dituzte eta ekintza sozializatzailea bi maila horietan aztertu dute.

Paradigma hau ingurune eleaniztunetan aplikatu denean haurrak hizkuntzak ikasten dituelarik mintzairaren gizarte egoera ere barneratzen duela nabarmendu dute. Hau da, umeak ez du hizkuntza —kodea— soilik ikasten. Hizkuntzaz jabetzeko prozesuan haurrek hizkuntza erabiltzeko gizarte arauak, hizkuntzen arteko hierarkia, non erabili, non ez, zertarako erabili, zertarako ez eta bertze ere ikasten dituzte. Halere, komunitatearen ideia homogeneizatuaren aitzinean gizatalde batean jendeak hizkuntzen gainean dituen ideologiak ez direla homogeneoak azpimarratu dute. Ideologia horiek norbanakoaren bizipen eta esperientzietan errotuta daude eta gizarte maila, adin eta generoaren arabera alda daitezke. Hiztunek hizkuntzen gainean dituzten ideiek haien hizkuntza jarduerari eta jokamoldeari eragiten diete.

Hizkuntza sozializazioari lotutako jarduerak hizkuntza ordezkapenerako eta indarberritzerako bide garrantzitsuetakoak izan daitezke. Hizkuntza sozializazioaren izaera dinamiko, aldakor eta ez-zurrunari erantzuteko moduko hurbilpen teoriko eta metodologiko malguak garatu behar izan dira, azterketa maila mikro eta makroa uztartzen dituztenak, hiztunen bizi ibilbide ez-linealak azaltzea eta horiek jarraipen eta eraldaketa soziokulturalerako nola jokatzeko dute aztertzea ahalbidetzen dutenak.

Mintzaira gutxituen atxikitze eta indarberritze prozesuei heltzeko hizkuntza sozializazioari aitortu zaion baliagarritasuna gorabehera, ikerketa lerro hau batik bat Estatu Batuetan garatu da, eta Europan arlo horretako ikerlanak oso bakanak dira oraino. Euskarari dagokionez, huts egiteko beldurrik gabe erran dezaket belauneko belauneko jarraipena aztertzekeo hizkuntza sozializazioaren paradigma ez dela erabili.



3. IKERKETAREN ALDERDI TEORIKO, EPISTEMOLOGIKO ETA METODOLOGIKOA

Gizarte zientzien metodologiaz aritu diren egileek (Bourdieu et al., 1983; Quivy & Campenhoudt, 1997) ekintza epistemologikoen hierarkia proposatu dute: *hautsi, eratu eta egiaztat*u. Ikertzeko prozesuaren etapa horietan ezagutza zientifikoaren lehen ekintza *haustura* da: aztergai bati begiratu izan zaion zentzu komunetik, aurreiritzietatik edo ageriko ilusio faltsuetatik ihes egin, horiekiko lotura moztu eta azaleko errealitatearen azpian dauden prozesuak, dinamikak eta erlazioak agertzeraz eta ulergarri egitera zuzendutako ikusmolde egokia sortzea —Millsek (1993) *irudimen soziologikoa* deiturikoa lagun—. *Eraketan* ikuspegia ezartzen da. Zenbait teoriarik (Bourdieu et al., 1983: 51) ohartarazi dutenez, ezagutu nahi den gertakariari so eginen zaion ikusmolde epistemologikoa finkatzeak ikergaiari eragiten dio zuzenean, alegia, ikuspuntuak berak sortzen du aztergaiari.

Atal honetan ikerketaren alderdi teoriko, epistemologiko eta metodologikoak jorratuko ditut, hots, ezagutu nahi dudan horri heltzeko baliatu ditudan kontzeptuak, aztergaiari begiratzeko hartu dudan ikuspegia eta arazo bihurtu dudan gertakaria arakatzeko erabiliko dudan metodologia. Nafarroako euskararen historia hurbilean hizkuntza sozializazioa aztertzeko neure *bebatokia* eraiki behar izan dut eta eratze horrek aitzi-*netik* ezarrita zeuden ikusmoldeetatik nolabaiteko haustura egiteko eskatu dit, edo hautsi gabe bai bederen urruntze kritikoa, neure ikerbidea jorratze aldera.

Horixe azalduko dut atal honetan, lau azpiataletan antolatuz. Lehendabizikoa ikerketa honen oinarriko bi kontzeptu, *bizkuntza sozializazioa* eta *familia euskaldunak*, azaltzeari eskainiko diot eta adigaiak teorikoki kokatzeaz gain horien aldeko hautua argudiatuko dut. Bigarrenean ikerlan honen ikuspegi epistemologikoaren bi alderdi argituko ditut: diziplinartekotasuna alde batetik, eta azterbide etnografikoa bertetik. Hirugarrena alderdi metodologikoak adierazteko erabiliko dut: ikerketaren diseinua, laginketa eta datuak biltzeko nahiz aztertze teknikak. Azkenik, euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa ikertzeko eredia proposatuko dut.

3.1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Bi dira ikerketa honen oinarriko kontzeptu ontologikoak: *bizkuntza sozializazioa* eta *familia euskaldunak*.

3.I.I. Hizkuntza sozializazioa

Aurreko ataleko 2.I.3 puntuan hizkuntza sozializazioa ikerketa arloan barnatu naiz eta nire azterlanerako bereziki baliagarri zaidala aurreratu dut. Atalño honetan sozializazio kontzeptuan —batik bat Soziologian eta Antropologian izan duen jorran— sakondu eta nire ustez aztergai dudan gertakariari heltzeko erabili diren *transmisio* eta *erreproduktzio* ohiko kontzeptuen aldean tresna teorikotzat dakartzan abantailak aipatuko ditut.

Soziolinguistek hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena aztertzean funtsean *transmission* (transmisio eta ondorengoetaraztea) eta *reproduction* (erreproduktzio eta ugalketa) darabiltzate. Adigai horiek ez dira izendatze hutsa, mintzairen gizaldirik gizaldiko segidaren gaineko ikusmolde jakin bat ekarri dute berekin.

Hondar hamarraldiotan haurren hizkuntza jabetzearen gaineko zenbait alderdik begia jo diete ikertzaileei: sozializazioaren izaera elkarreragileak, haurrek jokatzen duten rola edota gurasoen erabaki eta nahiek ez ezik prozesuan zerikusia duten bertze faktore anitzek ere duten eragina. Hizkuntza antropologoak izan dira 1980ko hamarkadaren erdi aldean *language socialization* ikerketa arloa eratu eta sozializatzean hizkuntzak betetzen duen egitekoa bereziki aztertu dutenak. Ikertzaile horiek Soziologian landu den *sozializazio* kontzeptua³⁵ (Rocher, 1969/1995; Giddens, 1979/1990) izan dute beren teorizaziorako habeetako bat. Ondoko puntuan Soziologian *sozializazio* kontzeptua nola jorratu den laburki azalduko dut.

Sozializazio kontzeptu soziologikoa

Guy Rocherrek (1995: I31-I33) dioenez, Soziologiak gizarte gertakariak osotasunean ulertu ahal izateko alderdi psikikoen eta sozialen elkarrekikotasuna landu du. Gizarte psikologian *sozializazio prozesua* deitu izan den ikerketa arloaren xedea gizarte eta kultura sistemek nortasunarekin duten harremana argitzea izan da. Hau da, norbana-koari eta sistema soziokulturalei dagozkienek nola jokatzen duten batera eta nola eragiten dioten elkarri. Sozializazio prozesuan gizon-emakumeak bizialdi osoan inguruko elementu soziokulturelez jabetzen dira, ikasi, barneratu eta beren nortasun egituran sartzen dituzte eta horrela, bizipen eta sozializazio eragile adierazkorren bidez, bizi diren gizarte ingurura egokitzen dira. Soziologo kanadiarrak (ibid., I68) azaldu duenez, sozializazio prozesuak gizartearen jarraipena nahiz aldaketa, biak biltzen ditu:

... tout processus de socialisation a comme objectif d'adapter la personne à son milieu. Mais adaptation sociale ne veut pas nécessairement dire conformité: l'adaptation à un milieu peut aussi signifier le désir d'innover dans ce milieu ou de le modifier. Le processus de socialisation peut aussi bien engendrer des agents dynamiques et novateurs, des personnes anti-sociales que des sujets conformistes ou passifs.

Rocherrek (1995: I31-I36) sozializazioaren mekanismo edo bideak, eragileak eta bitartekoak aipatzen ditu. Eragileen artean familia eta eskola jotzen ditu garrantziz-

³⁵ Antropologo batzuek sozializazio kontzeptuaren ordez *enculturation* edo *endoculturation* adigaiak (subjektuek kultura barneratzea edo beretzea adierazten dutenak) erabili dituzte. Marvis Harrisek (2004: I44-I48) *endokulturazio* kontzeptua kulturen belaunez belauneko jarraipenaren oinarrian dagoen ikasketa (oharkabe edo ohartuki egindako) prozesutzat definitzen du.

koentzat, biek baitute sozializazioa ageriko xede; baina horietaz gain, adin berekoen taldeak, enpresak, sindikatuak, gizarte mugimenduak eta hedabideak ere sozializazio eragingarriak dira (ibid., 148-155). Gizarteratzearen bi bitarteko bereizten ditu: «milieu d'appartenance» eta «milieu de référence» (ibid., 155-161). Alegia, subjektua partaide den taldea(k) (familia, talde etnikoa edota gizarte-klasea, adibidez) eta subjektua partaide izan gabe, bere sozializatorako erreferentzia, eredu eta inspiraziotzat hartzen d(it)uen taldea(k) (bertze talde etniko bat, bertze gizarte-klase bat, kasu): «... le [sic] milieu auxquels ils appartiennent» eta «... les milieux dont ils s'inspirent dans leur œuvre de transmission des modèles, des valeurs et des symboles» (ibid., 155). Biak dira, Rocherren ustez, bitarteko edo talde sozializatzaileak.

Anthony Giddens (1990: 120) soziologoari narraiola, gizarte azterketa ez da ez subjektuaren kontzientzian edo jardueretan soilik, ez eta objektuaren (gizartearen) ezaugarri hutsetan ere funtsatu behar, egituraren bitartasunean («duality of structure») baizik. Halaz guztiz, soziologo britaniarrak dualismo hori —bereziki sozializazio teorian agertzen den moduan— gainditu beharrekotzat jotzen du. Giddensen iritziz, sozializazioaren gaineko bi adierok dira ekiditekoak: bata, subjektua gizarte objektuak mugatua edo determinatua (hau da, norbanakoa gizarteak 'moldatutzat' baizik ez) dela dioena; eta bertzea, subjektibotasuna gizakiei emantzat jotzen duena, gizatasunari legokiokkeen berezko ezaugarri multzoa balitz bezala eta, beraz, azaldu beharrik ez dakarrena. Bi hurbilpenek 'subjektuaren teoria' baten falta dute: «... since the first reduces subjectivity to the determined outcome of social forces, while the second assumes that the subjective is not open to any kind of social analysis» (ibid.).

Giddensek (1990: 128-130) gizartearen hertsidura norbanakoa baino lehenago dela eta haren gainetik dagoela irudikatzen duen Durkheim soziologo frantsesaren sozializazio kontzeptuari zehaztapen hauek egin dizkio: lehenik, sozializazioa behin ere ez da gizarteak ezarri eta norbanakoak pasiboki jasotakoa; aitzitik, haurra gizarteratze prozesuan lehen bizipenetatik beretatik partaide aktiboa da. Bigarrenik, sozializazioa ez da norbanakoaren bizitzaren une jakin batean bukatzen behin pertsona hori gizarteko kide heldua bilakatu delarik. Sozializazio kontzeptua erabili duten anitzek haurtzarora edo, gehienez, nerabezarora mugaturik ikusi badute ere soziologo britaniarren ustez norbanakoaren bizialdi osoari dagokio. Izan ere, gizartea zerbait estatiko edo amaitutzat hartu beharrean, denboraren eta prozesuen elkarrekikotasuna («mutuality of time-process») aitortzen du Giddensek. Hirugarrenik, ez dago sozializazio prozesu batez zehazki hitz egiterik ez bada handi-handika erranda, sozializazio prozesu bat izateak estandarizazio edo uniformetasun handia eskatzen baitu, norbanakoek jarraitzen dioten molde bereko prozesu bakarra balitz bezala edo norbanako bakoitza sozializatua den adostutako batasun bat balego bezala.

Britaniar soziologoaren iritziz sozializatzea gaitasun batzuk eskuratzean baino gehiago komunikazioaren testuinguru "dialogikoez" ongi jabetzean datza. Ezagutza hori ez da osorik diskurtsiboa, gizarte elkarrekintzaren produkzio eta erreproduzioan baliatzen diren abenikoen ezagutza praktikoa metatua ere biltzen du. Sozializazioak haurrak —rol aktiboan— bezala gurasoak eta gizartearen bertze partaideak ere ukitzen ditu.

Soziologiak sozializazio kontzeptua bizitza osoko prozesu elkarrengaitzat taxutu du. Sozializatzean hurrek beren inguruan mintzaten den hizkuntza (bat bederen) ikasten dute guraso, familia eta komunitatearekiko harremanetan. Prozesu horretan hizkuntzak duen lekuari eta hitzun bilakatzeko prozesuari bereziki *language sozializazioa*

jorratu duten hizkuntza antropologoen begiratu diete. Ildo horretatik, ikerketa honen aztergaia, Nafarroako haurrak euskaldun haztea, sozializazio kontzeptuaren bidez arakatzeari biziki egoki iritzi diot, hurrengo puntuan azalduko dudana bezala.

Hizkuntza sozializazio adigaiaren biztun bilakatzearen prozesuari buruzko

Euskararen belauneko belauneko prozesua eta egun haur nafarrak euskaldun hazteko baldintza eta inguruabarrak aztertzearen *sozializazio* kontzeptua hobetsi dut, orain artio gure tradizio soziolinguistikoko ohikoak izan diren *transmisio* (eta *ondorengoetaratze*) eta *erreproduktzio* (edo *ugalketa*) adigaien aldea. Hauek dira sozializazio kontzeptuari nire ikerketarako ikusi dizkiodan onurak, oro har teorialari anitzek kontuan hartzeko alderditzat aitortu dituztenak:

Lehenik, sozializazioa ez da haurtzarora mugatzen, norbanakoaren biziaro guztiak hartzen ditu (Rocher, 1995; Giddens, 1990). Hitzunaren bizialdi osoa biltzean bizi-ibilbideak eta bilakaerak azaltzen dira: pertsonen bizipenak, hautu-erabakiak, hizkuntzekin eratu dituzten harremanak... egoeratzat baino hobeki prozesutako ikusi beharrek direnak. Hitzun elebidunen baitan mintzairak duten nagusitasuna bizitzan barna alda daitekeela erran zuen Weinreich (1979) eta moldakortasun horri eragiten dioten faktoreetan barrendu zen MacKey (1976). Horri loturik, sozializazioa ez da beti bat. Hitzunen bizi-ibilbideak (mintzairaz jabetzeko moduak, hizkuntza portuak...) askotarikoak izan daitezke. Alderdi horietan funtsatu dira *language socialization* ikerketa arloko egileak. *Transmisio* edo *erreproduktzio* ideietan ardatzuta ikusmoldeak estatikoagoak dira eta ez ohi zaizkie hitzunen bilakaera eta eraldaketei oharitzen.

Bigarrenik, sozializazioaren atzean dagoen giza egintzailetasuna, subjektuen nahia eta ekimena, Rocher (1995) eta Giddens (1990) soziologoek nabarmendu duten alderdia. Peter Burke (1987: 69) historialari britainiarrek ere kulturaren eta hizkuntzaren jarraipena ez dela *berez* gertatzen eta ez dela mekanikoki ulertu behar oharatzen du:

Las tradiciones no persisten automáticamente, por “inercia”, como a veces dicen los historiadores. Son el resultado de un gran esfuerzo por parte de padres, profesores, sacerdotes, patronos y otros agentes de la socialización. El concepto de “reproducción cultural” dirige la atención al esfuerzo requerido en el momento presente, para mantener una sociedad dada más o menos como es.

Hizkuntzaren jarraipenari dagokionez Fasold (1995) eta Fishman (1997) ere ideia horren irizkide agertu dira eta mintzairaren iraupenaren gibelean hitzunen hautu-erabakiak kausitu dituzte.

Hirugarrenik, sozializazioa gizartearen, kulturaren eta hizkuntzaren jarraipenerako modua ez ezik haien aldaketarako bidea ere bada. Sozializazioa ez da gizarte erreproduktzio hutsa. Alegia, jarraipenak ez du aldaketa ukatzen, ez da aldagaitza. Hizkuntza gutxituen segidari dagokionez, jarraipena eta aldaketa bata bertzearekin loturik dauden prozesutako hartu izan dira (Fasold, 1995; Fishman, 1997). Ikerketa honek aztergai duen gertakaria eta ikertzen duen epea (azken lau hamarraldiak) aldaketa bortitzekoak izan dira eta *erreproduktzio*, *ugalketa* edo *habitus* kontzeptuek mugak dituzte hori azaltzeko. *Erreproduktzio* ideia —Bourdieuaren *habitus* kontzeptua bezala— auzitan jarri da kulturaren eta hizkuntzaren jarraipenaren adiera sozialki egituratu eta iraunkorra emateagatik. *Habitusak* gizarte jarraipena azaltzen du, baina nekez aldaketa eta berrikuntza, Patrice

Bonnewitzek (2002: 73) adierazi bezala: «Les effets d'inertie et l'hystérésis de l'habitus empêchent de faire de ce concept un outil opérationnel pour décrire les mutations sociales importantes qui se sont produites au cours des dernières décennies».

Hizkuntza sozializazioaren arloko ikerketek —*erreprodukzio* ideiaaren kutsu mekanikoaren aurrean— haurrak hizkuntzaz jabetzeari gurasoen erabaki eta nahiez gainera bertze anitz faktorek ere eragiten diotela nabarmendu dute (erraterako, Kulick, 2004).

Laugarrenik, sozializatzean hurrek rol aktiboa dute, ez dira helduengandik heldu zaizkien eraginen jasotzaile hutsak eta gurasoen sozializatzaileak ere izan daitezke (Rocher, 1995; Giddens, 1990). Ideia horrek, *language socialization* ikerketa arloko egileek (Schieffelin & Ochs, 1986; Garrett & Baquedano-López, 2002; Bayley & Schechter, 2003; Ochs & Schieffelin, 2008) ere hainbertze nabarmendu dutenak, *transmisioak* duen adiera goitik beheitikoa (helduengandik haurrengana edo gurasoengandik seme-alabengana) gainditzen du. Izan ere, *transmisio* ideiak norabide bakarrek bertikal-tasun kutsua du bere baitan, alegia, transmisioan batzuek transmititzen dute eta bertze batzuek jasotzen. Transmisioaren ikuspegiak euskararen belaunez belauneko jarraipenaren inguruan egindako ikerketetan eragina izan du, batik bat gurasoen seme-alabekiko jardun eta jokamoldeari behatu baitzaie eta sozializazio prozesuan parte hartzen dutenen arteko elkarrekikotasunari ez baitzaio erreparatu. Nire ikerketan egun haur nafarrak euskaldun haztea zertan dagoen aztertu nahi izateak gurasoengandik seme-alabenganako eraginetara ez mugatzea dakar. Zer agitzen da —eta halako kasuak ez dira gutxi gure artean— familia batean haurrak direlarik euskaldun bakarrak, hau da, etxe batera euskara umeen bidez sartzen delarik?

Borzgarrenik, sozializazioa ez da familia eta etxera mugatzen. Rocherrek (1995) sendia eta eskola sozializazio eragile nagusitzat jo ditu, biek baitute haurren sozializazioa helburu bereki; baina horietaz gain, adin berekoen taldeak, enpresak, sindikatuak, gizarte mugimenduak eta hedabideak ere sozializazio eragingarritako hartu ditu. *Language socialization* ikerketa arloko egileek ere hizkuntza sozializazioaren izaera holistikoa edo orohartzailea onartu eta jorratu dute familiaz eta etxeaz landako alorrak ere beren azterketa gunetzat joaz.

Fishmanen (1997) ikuspegi etnolinguistikoa komunitateak duen garrantzia goiti-beheiti, *transmisio* kontzeptupean garatu diren ikerketak gurasoen eta seme-alaben arteko elkareraginetara eta etxearen arteko hizkuntza erabilera tasara mugatu ohi dira, mintzaira gutxitua lehen hizkuntza duten hiztunen ehunekoaren bilakaera eta horretan faktore batzuek (gurasoen hizkuntza gaitasunak edo ingurune soziolinguistikoa, kasu) familia barneko hizkuntza jokamoldeei nola eragiten dieten neurtzen dira. Baina ikuspegi hori murriztegi gertatzen da hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena eta hiztunen azken belaunaldiaren hizkuntza sozializazio baldintzak aztertzeke.

Munduko hizkuntzen egoera aztertzen duen txostenak (Martí et al., 2005: 283) transmisioa familiaren barnean soilik egiten duten hizkuntzen jarraipena ia etentzat ematen du. Izan ere, familiaz landa auzo-komunitateak hurrek hizkuntza ikastea bermatzen ez duelarik, hizkuntza sozializazio baldintzak larriki higatuta daude.

Bide beretik, familia mugatutako hizkuntza transmisioaren ikerketek egoera soziolinguistikoa nekez azal dezakete, ez sinkronikoki ez diakronikoki, erraterako, haurren hizkuntza sozializazioan adinkideekiko harremanen —harreman eszentrikoen— eragina. Transmisioan ardaztutako ikerketek ez ohi dituzte adinkideen arteko elkareraginak behar bezala balioetsi, soziolinguistikoki ingurune elebidunetan hurrek

gurasoen hizkuntzara baino gehiago adin berekoen mintzamoldeari egokitzeko joera izaten dutela ezaguna izanda ere (Chambers, 2003: 175-185, Barron-Hauwaert, 2004: 57-59). Nafarroako gazte euskaldunekin egin ikerketatxo batek ere (Kasares, 2010) harreman eszentrikoen garrantzia iradoki du.

Orobat, azterbide soziologikoko ikerketetan batik bat, *familia bidezko hizkuntza transmisioa* (informala edo naturala) eta *eskolaren bidezko transmisioa* (formala edo kulturala) bereizi dira, biak uztarturik edo elkarreaginean aztertzeke ohiturarik izan ez dela. Nire ikerketaren aztergaia Nafarroako historia hurrekoan euskararen belaunez belau-neko jarraipena izanik, gizarte arlo desberdinen —eta bereziki etxearen eta eskolaren— arteko eraginak miatzea biziki ernagarri izan zait.

Hori horrela, *transmisio* eta *erreproduktzio* adigaiak duten mugen aldean, abiapuntu-tako *sozializazio* kontzeptu soziologikoari egokiago iritzi diot. Hortik goiti, hizkuntza antropologoek garatu duten *hizkuntza sozializazio* adigaiaren eraketa teorikoa eta aplikazio metodologikoa izan zaizkit bereziki iradokitzaile eta baliagarri.

3.1.2. Familia euskaldunak

Ikerketa honen oinarriko bertze kontzeptu bat *familia euskalduna* da. Familiaren definizio sozio-antropologikoan barrendu gabe, Nafarroan umeak euskaldun hazten dituzten sendiak soziolinguistikoki zedarritzea ahalbidetuko didan kontzeptua azaltzera joko dut.

Familia euskaldun zer hartuko dudan erakusteak hizkuntzaren eta hiztunen arteko harremanak ulertzeko modua argitzea dakarkit eta hortik zuzenean eratortzen diren *euskaldun* eta *euskal hizkuntza komunitate* adigaiak jorrotzea eskatzen dit. Funtsean, *familia euskaldun* kontzeptua *komunitatearen* adierari lotu diot, bigarrenaren gainean egindako hautu teorikoak lehendabizikoa ukitzen baitu baitezpada, ondoko puntuetan garatuko dudanez.

Hizkuntza komunitatea, kontzeptu arazotsua

Komunitate adigaiak historia luze eta arantzatsua du soziologian eta antropologian, *bizkuntza komunitateak* soziolinguistikian bezala. *Komunitate* lan-kontzeptutzat ezinbestekoa dela onartzean irizkidetasun zabala badago ere, zaila da hitzartzea nola egon beharko lukeen teorikoki definitua eta metodologikoki mamitua. Zailtasun horiek antropologian, soziologian eta bertze auzo jakiteetan zenbait aspaldiko antinomiaren gainean bizirik dirauten eztabaidetatik datoz, neurri batean. Zenbait teoriararik, Bourdieuk eta Giddensek bertzeak bertze, antinomia klasiko horiek —egitura/historia, subjektibotasuna/objektibotasuna, sinkronia/diakronia— gizarte zientzietako trabarik handientzat jo dituzte eta, haien ustez, gainditu beharrekoak dira.

Hizkuntza komunitate kontzeptuaren gaineko eztabaidek, funtsean, bi aukeraren gainean jardun dute: alde batetik, gizataldea hizkuntza jarduerak edo gizarte jarduerak definitu behar ote duten; eta bertzetik, komunitateak homogeen edo heterogeneotzat jo behar ote diren. Adibide banarekin azaltzearen: hizkuntza komunitate kontzeptuaren osagai soziologikoan oinarritu diren definizioen artean Pierre Bourdieurena (1989) dago. Definizio horretan zilegitasuna duen araua da nabarmendutako adiera. Hau da, heterogeneotasun sozial eta linguistikoko nolabaiteko homogeenotasun instituzionala kausitzen da, Estatu-nazio frantsesaren politika kulturari hertsiki lotua.

Hizkuntza komunitate kontzeptuan osagai linguistikoa lehenetsi duten definizioen artean William Labov (1972) soziolinguistarena dago. Laboven hizkuntza komunitate kontzeptuan partekatutako arau multzo batean parte hartzea da oinarria, hau da, arau multzo batek batutako heterogeneotasuna. New Yorkeko ingelesaren mailakatze soziala aztertu zuelarik soziolinguistikak lagin aski homogenea hartu zuen. Laboven hizkuntza komunitatearen homogenezitatea espresuki bilatutakoa da (artifizialki homogeneizatua dio Blanchetek, 2000: 118) eta Pratten (1987: 65) iritziz «... revela de forma no poco asombrosa las limitaciones de un proyecto basado en una ideología de la autenticidad».

Hala bada, homogenezitatea izan da hizkuntza komunitateari nahitaz esleitu nahi izan zaion ezaugarria. Francisco Moreno Fernández (2009: 24) hizkuntzalariaren iritziz komunitatearen ertz-mugak zedarritzea eta haren heterogeneotasun maila dira, hain zuzen, hiztun-komunitate kontzeptuak dituen bi eragozpide teorikoak. Izan ere, komunitateetan gizarte adostasuna eta homogenezitatea ikusteko joera izan da, eta hizkuntza aldakuntza nahiz gatazkak, aldiz, ganduturik —eta batzuetan ikusezin— geratu dira ikertzaileen soan (Burke, 1996: 18; Pratt, 1989). Burkek (2006: 12) honela ohartarazi zuen:

El peligro de usar el término «comunidad» —como el término «cultura»—, estriba en que parece implicar una homogeneidad, una delimitación y un consenso que, simplemente, no se encuentran cuando uno se compromete a llevar a cabo una investigación sobre el terreno, sea su «campo de trabajo» histórico, sociológico o antropológico (...) el término «comunidad» parece establecer una frontera demasiado clara entre aquellos que pertenecen a ella y aquellos que no, cuando en la práctica las fronteras entre lenguas son a menudo vagas, y es más exacto hablar de zonas de bilingüismo y de mezcla de lenguas, que de líneas divisorias claras.

Azken urteotan jakite desberdinetako ikertzaileek hizkuntza bera zer den eta beronen, hiztunaren eta identitatearen arteko harremanak —hizkuntza komunitate kontzeptuaren gibelean daudenak— zertan diren kritikoki berrikusi eta azterketa soziolinguisten azpian egon ohi diren zenbait aurreiritzi agerian utzi dituzte. Jone Miren Hernandezek (2007: 44) honela laburbildu ditu mintzairaren gaineko azterketetan indarrean egon diren eta hizkuntza antropologiaren aniztasun ikusmoldetik zalantzan jartzekoak diren hatsarreak: 1) hizkuntzen eta haien ordezkari diren hiztunen, hiztun komunitateen edo hizkuntza identitatearen arteko erlazio noranzko bakarreko, uniboko eta zurruna aurreikusten dute; 2) irudikatzen duten identitate eremuan hizkuntza hiztuna ingurune edo gizarte egitura bati lotzeko ainguralekua edo euskarria da; 3) espazio soziolinguistikoaren bilakaeran eta hiztunen jokaeren sortzean nahiz birsortzean elementu ideologikoen eta balioen sistema hegemonikoak jokatzeko duten rola gabe gaineko gogoeta ez dute aintzat hartzen.

Hizkuntzaren eta identitatearen arteko harreman hertsatzaile horiei egotz dakiekeen hobena funtsean, hizkuntza gertakari naturaltzat ematean datza. Ikuspegi horretatik sortzen den hizkuntza komunitatearen adierak hizkuntza eta hiztunak zer diren eta komunitatearen ertzak non dauden modu zehatz batean ematen du ezagutzera.

Arazo horri aurre egin behar izan dio ikerketa honek erabili duen *euskal hizkuntza komunitatea* —eta horri atxikirik, *familia euskalduna*— mugarrizteko. Haur nafarren euskarazko sozializazioa aztertu nahi izateak interesa euskararekin harremanak eratu dituzten subjektuengan bereziki paratzea dakar, ez subjektu horiek ikergai-objektu gisa kanpotik arakatzeko, aztergai-subjektutzat hartzeko baizik, umeen hizkuntza soziali-

zazioaren aitzinean hautu, jokabide eta estrategia desberdinen subjektu diren aldetik. Berebat, hiztunek mintzairarekin jorratu dituzten atxikidura askotarikoak onarturik horiei guztiei leku egiten dien komunitate kontzeptua zait beharrezko.

Nafarroako euskararen gaineko ikerketen artean subjektu-aztergaia hautatzeko bide desberdinak urratu dira. Alde batetik, nafarrak, hau da, Nafarroako gizarte osoa, euskaldunak eta erdaldunak bereizi gabe hartu dituzten ikerlanak ditugu. Horren ikus-bide Blanca Urmenetaren *Navarra ante el vascuence. Actitudes y actuaciones (1876–1919)* dugu. Bertzaldetik, hizkuntza taldeak (euskaldunak eta erdaldunak) bereizirik euskaldunengan ardaztu diren lanak ditugu, erraterako Xabier Erizeren *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863–1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*.

Ikerketa honek euskaldunak jo ditu subjektu-aztergaitzat, baina hiztunen heterogeneotasuna aurreikusten duen ikusmoldean funtsatuta. Nire idurikotz, egun haurrak euskaldun hazteko bidean inplikaturako subjektuek euskararekin eratu dituzten askotariko harremanen aniztasunak euskal komunitatearen balizko irudikapen homogeneoa pitzatu eta hizkuntzari guztiz loturiko adigaia baliatzea ezinezko bihurtzen du. Hori horrela, Erizek (1997) erabilitako *Nafarroako euskal hizkuntza komunitate* ideia, Leonard Bloomfield (1933/1984) hizkuntzalararen *speech-community* kontzeptu klasikoan oinarritua, nekez izan dakiguke egun baliagarri. Izan ere, euskal hizkuntza komunitatea askotarikoa da eta haren ertzak ez dira garbiak. Hala utzi zuen agerian 1990eko hamarraldiaren hasieran *Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa. 1991. Biztanleria euskaldunaren dinamika eta bilakaera* lanak (F. Zabaleta, 1997) eta aise nabarmenagoa da egun —hogei urte igarota— euskaldunak/erdaldunak dikotomia zurrunak ez dituela nafar gizartearen euskararekin dauden harreman konplexuak osoki irudikatzen. Horren ikusbide, hona hemen Nafarroan aski arrunta datekeen lekukotasuna, Jose Angel *Cuco* Ziganda (2008) Osasuna futbol taldeko jokalaria eta entrenatzaile ohiak emana:

Nací [1966an] en un pueblo de la Ultzama —Larrainzar—, rodeado de animales, montes, campos y frontones. Vivía en un caserío grande de tres plantas: la de abajo para el ganado, la del medio para la familia, padres y siete hermanos, y la de arriba, el *sabai*, donde almacenábamos la hierba seca para el ganado. Como todos los niños de entonces pasábamos el día jugando en la calle (gaztelu, pelota, fútbol...). Son recuerdos imborrables que están en mi memoria y que nunca olvidaré, como tampoco el hecho de que mi padre, que habló euskera durante su niñez, dejó de hacerlo porque estaba mal visto política y culturalmente. A un hombre que había trabajado toda su vida para criar y mantener a su familia, le impedían hablar el idioma con el que había crecido

(...). Por ello mis hijas estudian, aprenden y se expresan en esta lengua (...) yo entiendo el euskera desde el respeto a una tradición, como una forma de conservar y valorar a nuestros antepasados. (...) mi padre, se sentiría orgulloso y emocionado hablando con sus nietos en euskera (...).

Bizipen hori ez da bitxikeria. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta egungo haurren euskarazko sozializazio baldintzak aztertzean eskuartearen izan ditzakedan kasuen artean ez da salbuespena; aitzitik, berriemaileen sendiengana hurreratzean halako historiari usu agertu izan zaizkit. Oraintsu hona ekarri dudak lekukotasun horretan euskararen segidari begiratzean alderdi esanguratsu batzuk geratu dira agerian: belaunaldien arteko hizkuntza hausturak (aitatxiren eta biloba euskaldunen artean euskara ikasi ez duen gura-

soa dago), hiztunen bilakaerak (aitatzik txikitako euskara ia galdu zuen), hautuak (gurasoek alabak euskaraz eskolatzea erabaki izana), hizkuntzarekiko atxikidura subjektiboak (ingurune batekiko identifikazioa, bizimodua, familia, maitasunezko harremanak...) eta oroimena (haurtzaroko bizipenak...). Alderdi horiek subjektu horren baitan umeak euskaldun haz daitezzen nahi izatearen alde jokatzten duten eragingarriak dira.

Hala bada, hiztunek euskararekin eratzen dituzten lokarrien bilbe askotarikoak aintzat hartzen ez dituen eta hizkuntza gaitasunari soilik lotzen zaion hizkuntza komunitatearen ideari ez deritzot nire ikerketarako egoki. Euskara jakitean ardaztutako euskal hizkuntza komunitateak (eta beraz, familia euskaldunak) ez lidake egun euskaldun hazten diren nafarren errealitate osoari lotzea ahalbidetuko. Sendi euskalduna gaitasunari josirik zedarritu eta ikerketarako lagina horren arabera osatuko banu, zer familiarara jo nezake haurren euskarazko sozializazioa aztertzeke, zein familia hartuko nuke euskalduntzat? Kide guztiak euskaldunak dituzten sendiak soilik? Gurasoak bederen euskaldunak dituztenak? Galdekizun horri hurrengo puntuotan emanen diot erantzuna.

Heterogeneotasuna biltzen duen komunitatea, familia euskaldun adigairako oinarriak

Soziolinguistikan —Euskal Herrian garatu denean ere bai— jokatu duten aurreiritzi batzuek sarri hizkuntza gertakari natural, estatiko, mugarritu eta aldagaiztako hartu dute eta mintzairaren, hiztunaren eta identitatearen artean erlazio uniboko eta zurrunkak ikusi dituzte. Elebitasun egoerak aztertzeke maiz baliatu diren kategoria dikotomikoek ez dute mailei eta *continuumei* erreparatzen uzten (cf. MacKey, 1976: 446-447; Rocher, 1995: 244-246) eta hiztunen heterogeneotasunari eta bizi-bilakaerei so egin nahi dien ikuspegi batean arazotsu gertatzen dira. Horren aitzinean, ikerketa honetan euskararen ingurura bildu diren harreman eta ehundu diren estekadura askotarikoek leku eman nahi diet eta horrek orain artio elebitasun egoerak aztertzeke erabili diren kategoria dikotomiko batzuk kritikoki berraztertzeke eraman nau. Halakotz, euskararen gizarte egoera azaltzeke antinomia paretzat antolatutako kategoriak (euskara/erdara, barnea/kanpoa, behekoa/goikoa, herria/hiria, gu/bertzeak, euskalduna/erdalduna. Sánchez Carrión, 1972, 1981ab; Erize, 1997), gure artean maiz jorratu direnak, egungo nafarren euskarazko sozializazioa aztertzeke baliagarri ez zaizkigulakoan nago.

Dikotomia horiei kritikoki begiratu dieten eta egungo egoera azaltzeke egokia-koak diren ikuspegi eta kontzeptuak jorratzen hasi diren bertze ikusmolde batzuetan sakontzeke interesgarriagoa iruditu zait. Nire ikerketan eragingarria izanen den *familia euskaldun* kontzeptua zehazte aldera, bi proposamen izan zaizkit bereziki esanahitsu: hizkuntza antropologoek *jarquera komunitatea* (*community of practice*) eta etnosoziolinguistek *komunitate etnosoziolinguistikoa*.

Hizkuntza antropologiak mintzairaren aniztasuna eta haien aldakortasuna hartu du, hain zuzen ere, hizkuntzaren gaineko teorizazio eta ikerketetarako abiapuntu (Duranti, 1997). Ildo horretatik, hizkuntzaren eta identitatearen arteko jokoan barrendu diren zenbait egilek (Duranti, 1997; Pujolar, 2001 eta Hernández, 2007, erraterako) Mikhail Bakhtinen (1981) *heteroglossia* kontzeptua bereziki iradokitzailetzat jo dute. Hizkuntzalari errusiarra hizkuntzaren gaineko homogeneousotasun ikusmoldea konstruktua ideologikotako hartu eta identitate nazionalak bideratzeke baliatu izan den mintzaira bateratuaren idearen aitzinean hiztunak ahots askotarikoek eratuta daudela proposatu zuen.

Hiztunaren ahots horiek hizkuntza erabiltzen duten talde desberdinek (jatorri geografikoan, gizarte mailen, lanbideen edo belaunaldien arabera) eratzten dituzten forma eta esanahietan mailakatuta leudeke eta ezaugarri sorta horri deitu zion Bakhtinek (1981: 291) *heteroglossia*: «... the co-existence of socio-ideological contradictions between the present and the past, between differing epochs of the past, between different socio-ideological groups in the present, between tendencies, schools, circles and so forth».

Heteroglossia adigai horrek iradokita, egun ikertzaile frankok inguru eleaniztunetan hiztunen ahots askotarikoek hartzen duten esanahiei begiratzeaz landara, hiztunek dituzten hizkuntza jarrera eta portaerak subjektu horiek gizarte, ekonomia eta politika egituretan duten kokapenarekin alderatu dituzte. Hurbilketa hori estruktural-funtzionalismoan nagusi izan den ikuspegitik aldendu da, Pujolarrek (2001: 129) ohartarazi bezala, estruktural-funtzionalismoan hizkuntza aldaerak «... as conveying social meanings whose origins is to be found in the social or cultural system» hartu baitira.

*Heteroglossia*ren alorrean hizkuntzaren erabileraren eta hiztunek mintzairarekin eratzten dituzten harremanen gizarte izaera gelditzen da agerian, Hernandezek (2007: 47) bereizten dituen bi zentzuotan: «... como actividad o actitud que tiene su origen en una sociedad o entorno determinado; y como actividad o actitud que es (re)producida o transformada por las personas en tanto que actores sociales».

Alde horretatik, hizkuntza aldaerak eta horiei esleitzen zaizkien esanahi desberdinak ez dautza ezaugarri soziolinguistiko batzuen erreproduzio pasibo hutsean. Aitzitik, Pujolarrek (2001: 129) nabarmendu duenez «... [they] are actively produced through these processes of appropriation and recentration». Hiztunen ahots aniztasun edo polifonia testuinguru horretan mintzatzea diskurtsoaren antolatzea da, «... the way in which speakers see their own identity and their particular relationships vis-a-vis other social groups and identities» (ibid.) adierazteko.

Bide beretik, hondar hamarkadetan egoera elebidun eta eleaniztunetan hizkuntzaren jokalekua eta bertan gertatzen diren harremanak ikuspegi konplexu eta sortzaileagotik aztertzeke proposamenak jorratu dira (cf. Rampton, 1998). Izan ere, hizkuntzaren eta hiztunen arteko harremanak irudikatzeke saiakeretan paradigma aldaketa bat gertatu da eta teoriarariak hizkuntza komunitate ideia bera zalantzan paratzera iritsi dira. Ikusmolde berrian hizkuntza ez da komunikazio edo adierazpide tresna hutsa, pertsonak beren identitateak eratu, berrerratu edo adierazteke bidea baizik. Proposamen horrek identitatea prozesu eta jardueratzat ikustea eskatzen du, tokian tokikoari eta hurbilekoari (hiztunarengandik hurrenari, haren nahikariei eta gogoei) loturik (Hernández, 2007: 48-49). Kokapen teoriko horrekin bat hizkuntza komunitatea irudikatzeke bertze kontzeptu batzuk agertu dira, *community of practice* edo jarduera-komunitatea kasu (ikus 2.1.3.I atalñoaren azken puntua).

Ikaskuntza erduei loturik sortu zen *community of practice* ideia Penelope Eckert eta Sally MacConnell-Ginet (1999: 186) ikertzaileek jorratu zuten:

... a CofP [Community of Practice] is an aggregate of people who, united by a common enterprise, develop and share ways of doing things, ways of talking, beliefs, and values—in short, practices. A CofP can develop out a formally or informally constituted enterprise (...). Once launched, it has its own life and develops its own trajectory. The development of shared practices emerges as the participants make meaning of their joint enterprise, and of themselves in relation to his enterprise.

Eckertek eta MacConnell-Ginetek landutako kontzeptuaren gakoa jarduera da: pertsonak egiten dutena, ekintza horiek subjektuek taldeari atxikitzeak dituzten asmo eta gogo-nahien adierazpidea dira. Jarduera horiek mintzamoldeen, diskurtsoen edo komunikazio elkarrekintzen zenbait alderdirekin zerikusia duten jokamoldeei doazkie. Hala bada, jarduera komunitatea ez dute bakarrik kideek definitzen ez eta bakarrik jarduerak ere, biak lotzen dituzten harremanek baizik. Hitzunak taldeko kide bilakatzeko, hizkuntza alderdiez nola baliatzen diren aztertzeko egokia suertatu den ideia horri bereziki genero ikuspegia landu duten hizkuntza ikertzaileek heldu diote. Egile horietako batek, Mary Bulcholtzek (1999) *speech community* ereduak kritikoki aztertu eta horren aldean *community of practice* ideiak dakartzan hobariak utzi ditu agerian, funtsean hizkuntzan baino gehiago hiztunen elkarrekintzetan oinarritzea.

Jarduera komunitatearen ereduak edozein taldetan aniztasuna dagoela aurreikus-ten du eta komunitate batean baino gehiagotan (sarritan gainjarrita egonda) parte hartzeko eredu dinamikoa eta aldakorrak onartzen ditu. Horrek dakarren ondorioetako bat komunitatearen ertzak lauso eta nahiko irekiztat ikustea da.

Hernandezek (2007: 49-53, 2008) euskararen transmisioa aztertzeko jarduera-komunitate kontzeptuaren baliagarritasuna defendatu du eta ikertzaile horri aitortu behar zaio adigaia euskal soziolinguistikaren alorrera estreinakoz ekarri izana.

Nire ikerketan eragingarria izanen den *familia euskaldun* kontzeptua zehazte aldera, hizkuntza antropologok garatu duten *community of practice* kontzeptua bereziki iradokitzaile gertatu zait. Dena dela, jarduera komunitatea adigaia ez da *speech community* eredu-tik kritikoki alden du kontzeptu-proposamen bakarra; Philippe Blanchetek (2000: 119) *komunitate etnosoziolinguistikoa* plazaratu du, hizkuntza komunitate kontzeptuaren eraketa biltzaile baten bide dialogikoa hobetsiz:

Le concept de *communauté ethno-sociolinguistique*, fondé sur l'articulation des points communs et des différences, pourra être opératoire à des niveaux divers, qu'il réfère notamment: 1) au groupe des locuteurs d'une *variété* linguistique, construit à l'instar de la *variété* par l'identification subjective de caractéristiques ethno-sociolinguistiques emblématiques et spécifiques relativement largement partagées/pratiquées; 2) ou au groupe de locuteurs partageant relativement des connivences et conceptions ethno-socioculturelles (donc capables d'interpréter des *variations* en contexte), ces deux types de groupes interagissant et s'englobant mutuellement.

Les critères d'identification sont également «linguistiques» et «ethno-sociologiques», l'homogénéité s'y négocie avec l'hétérogénéité. Le concept de *communauté* signifie «avoir quelque chose en commun» mais pas *tout* en commun. Selon le point de vue et les critères adoptés, cette communauté pourra avoir un fondement plutôt territorial, politique, socio-économique, linguistique, etc., les paramètres pouvant s'additionner ou se relativiser.

Komunitate etnosoziolinguistikoa definitzean ardaztat partekatutako hizkuntza-kode hutsa hartu beharrean, Blanchetek jardueren alderdi linguistikoak nahiz etnosoziolinguistikoak, homogeneotasuna nahiz heterogeneotasuna hartzen ditu irizpide. Adiera horretan hiztunen gaitasunen *continuum*a eta haien bilakaerak biltzen dira:

La *communauté ethno-sociolinguistique* reste une *punctuation* du continuum des locuteurs, fonctionnelle parce que produite, ressentie et intégrée dans les pratiques et les consciences des locuteurs, acceptable pour autant qu'on garde à l'esprit sa

relativité, son caractère subjectif, les variations que existent en son sein et les relations dialogiques d'interactions et d'englobements complexes entre diverses communautés, *via* les appartenances [sic] et évolutions multiples des acteurs sociaux (Blanchet, 2000: 119).

Jarduera komunitatea eta komunitate etnosoziolinguistikoa Hizkuntza komunitate kontzeptu soziolinguistikoa klasikotik aldendu eta komunitatearen barneko heterogeneotasuna, *continuumak*, bilakaerak eta gatazkak hobeki atzemateko landutako adigaiak dira. Nafarroako haurren euskarazko sozializazioaren ikerketa ezin dut euskaldunetara —*stricto sensu*— mugatu, egungo Nafarroan muga hori hagitz gesaldurik agertzen baitzaigu eta nire interesa hizkuntza gaitasun oso desberdina duten hiztunen arteko elkarreraginak aztertzea baita.

Ikerlan honen oinarrian dagoen *komunitate* kontzeptuak, subjektuen heterogeneotasuna behar bezala atzeman eta arakatzeko bide eman behar dit, *a priori*ko planteamendu esentzialista eta naturalizatuetatik aldentuta, euskara ez baita pertsonak aldez aurretik partekatzen duten ezaugarri zurrun eta mugiezina, ingurunean txertatu eta komunitateko bertze kideekin elkarreragiteko subjektuen baliabidea baizik, hiztun horien subjektibotasunari lotua eta jarduera gisa gauzatzen dena.

Familia euskaldunak

Ikerketa honetan Nafarroako haurrak euskal hiztun bilakatzeko gizarte prozesua dut aztergai eta hori miatzeko batik bat familia gizarte-unitateari begiratuko diot. Hiztun komunitatearen ez-homogeneotasunari buruz errandakoa familia gizarte-unitaterako ere baliagarria da, eta mintzaira gutxituen kasuan are nabarmenago da hizkuntza aldetik familiak heterogeneoak izaten direla. Gurean, euskararen galtze eta berreskuratze prozesuak familien eraketa soziolinguistikoa ondorrio zuzenak izan ditu; alegia, hizkuntzaren jarraipenaren eten eta estekatze prozesua bizi izan duten herrietako familiak hizkuntza aldetik ez-homogeneoak izaten dira.

Hori horrela, ikerketa honetan *familia euskaldunak* umeen euskarazko sozializazioan nolabait inplikatzeko direnak dira, hau da, umeak euskaldun hazten dituen edota bere jarduera sozializatzailean euskara kontuan hartzen duen familia oro. Hizkuntza gaitasuna baino gehiago mintzairaren jarraipenaren aldeko jarduerak eta atxikimenduak daude familia euskaldun kontzeptuaren oinarrian. Sendi horiek euskararekin oso harreman desberdinak izan ditzakete baina batzen dituen alderdia umeen hizkuntza sozializazioarekiko jarrerak dira. Adiera horretan azken hiru belaunaldiak euskaldunak dituzten familiak sartzen dira, bai eta hizkuntza aldetik bitariko bikoteek osatuak edota haurrak ez bertze guztiak erdaldunak dituzten familiak ere. Umeak ttikitatik euskararekin harremanetan jartzea, euskaraz eskolatztea, euskaldun haztea, euskaraz bizitzea... asmo desberdinak dituzten gurasoen familiak besarkatzen ditu ikerketa honetan darabildan *familia euskaldun* adigaiak.

Euskararen gizaldirik gizaldiko segidaren haustek eta birlotzeak familietan izan duen eragin soziolinguistikoa aztertzeko sendi euskaldunen nolakoari ohartu natzaio. Honako hau da euskararen belaunez belauneko jarraipena arakatzeko eratu dudana familia euskaldunen tipologia soziolinguistikoa:

— *Familia euskaldunbeteak* belaunaldi guztietan (oro har, azken hiruretan) kide euskaldunek osatutakoak dira, hau da, hiru gizaldietako kideak euskaldunak dituenak.

Sendi horiek hagitz urri izaten dira herri edo ingurune oso euskaldunetatik at. Familia mota horiek kide berrien euskarazko hizkuntza sozializaziorako egoerarik hoberena dute, hala belaunaldien arteko nola adinkideen arteko harremanetarako.

– *Familia euskaldun ez-osoak* azken belaunaldia (haurrena) euskalduna edo euskaldun bilakatzeko bidean dutenak baina bigarren eta hirugarren gizaldietan (gurasoen eta aitona-amonen artean) kide euskaldunak eta erdaldunak dituztenak dira. Sendi tipologia hau euskararen galera-berreskurapen historikoa izan duten herrietan usua izaten da eta kideen hizkuntza heterogeneotasun —gaitasun aldetik *continuum*— anitzetarikoa izaten du ezaugarri, hau da, hizkuntza aldetik bereziki ez-homogeneoa izaten da. Bertikalki —belaunez belaun— euskararen jarraipenaren haustura-estekadurak agertzen dira eta horizontalki —belaunaldi berekoen artean— euskara dakitenak eta ez dakitenak egoten ohi dira (bikotekideen artean, adibidez). Familia hauetan euskararen transmisioaren eten-jarraipen historiak ohikoak dira, hots, gizaldirik gizaldiko hizkuntza galera eta berreskurapena hiru belaunalditan.

– *Familia euskaldunberrituak* kide euskaldunak azkeneko belaunaldian baizik ez dituztenak dira. Herri-hiri erdaldun(du)etan izaten dira arruntak. Familia horietan haurrak eskolaren bidez euskaldundu dira eta etxean ez dute euskaraz aritzeko aukerarik izaten, aitzineko gizaldietakoekin bederen. Tipologia honetako familietan, inguruneak ez badu laguntzen, muga estuko euskal hitzunik hazten ohi dira.

Proposatutakoa familia euskaldunen tipologia laxoa da eta azken hiru belaunaldietan familiakide euskaldunak dauden ala ez baizik ez du argitzen. Bertzalde, zail gertatzen da subjektuen (eta beraz, familien) hizkuntza heterogeneotasuna biltzea eta, alde horretatik, sailkapena ez da asebetegarria. Halaz guztiz, tipologiek aniztasuna antolatu eta *continuum*ak atzemateko sistematizazioa eskaintzen dute eta euskararen galtze-berreskuratze prozesuak familietan izan duen eragina ikusgai uzten du.

Egoera elebidunetan hitzunen hizkuntza gaitasuna egoera estatikoa baino gehiago *continuum* dinamikoa den bezala, familia euskaldunen sailkapena ere ez da estatikoa, aldakorra baizik denboraren joanean familiakideen hizkuntzen ezagutza garatzearekin batera moldatzen baita. Azken finean, familia tipologiek euskararen gizarte hedapena islatzen dute eta hizkuntzaren gizarte egoeraren bilakaeraren arabera euskara familiakide gehiagoren edo gutxiagoren mintzaira izan daiteke. Hau da, belaunaldien joanean kideak berritzearekin batera edota kideen hizkuntza sozializazio berantiarrari esker sendien tipologia soziolinguistikoa muda daiteke. Euskararen galtze-berreskuratze prozesuak ukitu dituen herrietan bilakaera hori usua izaten da eta familia erdalduna³⁶ euskaldunberritua izatera igaro eta hogeitaz urteren buruan familia euskaldun ez-osoak bilaka daiteke, edo kide erdaldunak euskaldundu direlako familia euskaldun ez-osoak zena euskaldunbete bihurtu daiteke.

3.2. IKUSPEGI EPISTEMOLOGIKOA

Atal honetan aztergaiari so egin eta horren ezagutzera hurreratzeko ikusmolde epistemologikoa azalduko dut.

³⁶ *Familia erdalduntzat* hiru belaunaldietan kide guztiak erdaldunak dituen jotzen dut.

3.2.I. Diziplinaz gaindiko hurbilpena

Philippe Blanchetek (2000: 71) argudiatu bezala, diziplinartekotasuna —edo diziplina zeharkakotasuna— hautu metodologiko, teoriko eta epistemologiko funtsezkoa da. Jakite bakarreko begirada estuxkoa dela sinetsirik, ikerketa honetan aztergaira hurrantzeko ikuspegi osatua eratu nahi izan dut. Nago, hizkuntza sozializazioa den gizarte gertakari konplexuari heltzean, jakite arloen banaketa ohikoa gainditu behar dela, eta horregatik, hizkuntzaz arduratu diren eta haren azterketan ikusmolde desberdinak hanpatzen dituzten hizkuntzalaritzaren auzo diziplinetara (soziologiara, antropologiara eta gizarte psikologiara batik bat) jo dut naturaltasun osoz.

Izan ere, hizkuntzaren, kulturaren eta gizartearen arteko harremanen ikerketa zientzia alor diziplinartekoa da eta hala iritzi diote bertze jakiteetatik, hizkuntzalaritzatik abiatuta, edo soziologiatik gertuago, edo antropologiatik hurbil, edota psikologia sozialera lerraturik aztergai horri oratu dioten hainbat egilek (lan honetan aipatzen ditudan izenen artean batzuk ematearren: Weinreich, 1979: 5-6; Hymes, 1993: 218; Fishman, 1972: III, 1997: I; Fasold, 1995: 209; Schieffelin & Ochs, 1986: 183-184; Appel & Muysken, 1990: 7-9; Sánchez Carrión, 1987: 19; Duranti, 1997: I; Erize, 1997: 537; Blanchet, 2000: 71-85; Garrett & Baquedano-López, 2002: 341-342; Hernández, 2007: 125; Mas & Montoya, 2011: 96). Autore batzuek (Morin, 2006 erraterako) diziplinartekotasunetik haratago *hizkuntza, gizarte* eta *kultura* hirukoteak banaezinezko esparrua osatzen duela defendatu eta jakite arlo beregain eta askeen begirada banakoak bereizteko saiakera ez-errealistatza jo dute.

Orain artio, gure inguruko esparru akademikoan soziolinguistika jorratzean partikularki hizkuntza eta gizarte alderdiei eman zaie lehentasuna. Kultura arloan herren egin du gure ohiko soziolinguistikak. Baina egun, kultura maingukeria horrek ohiko soziolinguistikaren hurbilpena are eskasagoa egiten du. Izan ere, gure gizarte askotariko eta konplexuetan mintzaira gutxituen jarraipenaren inguruan dauden arazo eta erronkei erantzunen badiegu, hizkuntzaren gaineko ikerketa gizartearen eta kulturaren bilbean kokatu beharra dugu baitezpada.

Ikuspegi diziplinartekoaren bidez hizkuntzei —gizarte gertakari gisa— lotutako alderdi guztiak besarkatzen dituen ikusmolde orohartzailea erdietsi nahi izan dute zenbait ikertzailek eta hizkuntzari mugatutako ikuspegia eskastzat aitortu dute. Erraterako, Sánchez Carrionek *hololinguistika* aldarrikatu du (Sarasua, 1997), Fishmanek (2002) *linguacentrism* deitu duen ikuspegi murrizta kritikatu du, Hernandezek (2007) hizkuntzaz haratago begiratzeko beharra aipatu du eta Urlak (2010) hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa ez isolaturik, baizik hitzun komunitatearen bizimodu eta bizitza baldintzetan sarturik ikertzea proposatu du.

Kultura alderdiaren gabezia hori Euskal Herrian hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena aztergai izan duten ikusmoldeei nabari zaie. 2.2.2.2 atalñoan azaldu bezala, gurean euskararen transmisioa batez ere molde soziologiko, makro eta kuantitatiboen bidez aztertu da. Ikerbide antropologikoa —mikro eta kualitatiboa— jorratu duten azterlanak aldiz, urriak baina oro har, sakonagoak izan dira.

Agian —Blanchetek (2000: 76-77) proposatu bezala— *etnosoziolinguistika* izendapena aldarrikatu beharko genuke alde komunitario eta kulturala ere —edo horiek bereziki— kontuan hartu nahi dituen soziolinguistika diziplina *osatu* horrendako:

... l'étiquette ethno-sociolinguistique, malgré sa longueur, présente l'avantage majeur de signifier ouvertement le double aspect ethnologique (incluant les

questions de communauté ethnoculturelle, d'identité, de représentation du monde par le langage, de micro-interactions) et sociologique (incluant les questions de stratifications sociales, de conflits sociaux, de politiques linguistiques et éducatives, de macro-variations), recouvrant de la sorte l'ensemble du champ des usages des langages humains (notamment des langues) (...).

Nafarroako historia hurbilean haurren euskarazko sozializazioa aztertzen duen ikerketa honetan, hizkuntza prozesuen dimentsio komunitario eta kulturalari sakontasuna aitortzen dion ikuspegiari atxiki natzaio. Horretan bat datoz Fishman (1997), Fasold (1996), Sánchez Carrión (1981ab, 1987), Erize (1997) eta Zalbide (2009) soziolinguistak, bai eta Urla (1987), Del Valle (1988) eta Hernández (2007) antropologoak ere. Orobat, ikuspegi horrek bat egiten du Blancheten (2000: 79) etnosoziolinguistikaren helburuarekin:

... une ethno-sociolinguistique intègre clairement cette question au domaine, qui devient explicitement *l'étude des rapports entre langues, sociétés, cultures, discours et communication*. Le terme *communication* inclut évidemment ici les interactions entre individus, et le terme *culture* inclut la dimension psycholinguistique de la construction de l'identité individuelle et des relations langue/pensée ou langue/cognition.

3.2.2. Hizkuntza sozializazioaren etnografia

Etnografia elebitasun-gertakariak ikertzeko ikusmolde metodologiko ohikoa da; hala da Ipar Amerikako Estatu Batuetan, adibidez, non etnografiak tradizio luze samarra izan baitu hizkuntza antropologiaren barnean.

Monica Heller (2008: 249-250) soziolinguistak «Why do ethnographies of bilingualism?» galderari emandako erantzunean etnografiak hartu ohi duen jarrera interpretatibista nabarmendu du: jarrera interpretatibista —eta ez positibista— batetik, elebitasuna gizarte eraketa da, hiztun taldeen jarduera sozial eta kulturalizat deskribatu eta interpretatu beharrekoa. Hautemate positibista baterako, aldiz, elebitasuna naturan dagoen objektu zehatza da, behatzaile objektibo batek aurkitu behar duena. Oharkera interpretatibista horren ikuspegitik, aldiz, soziolinguistak elebitasunaren gaineko ezagutzaren sortze prozesuan parte hartze aktiboa du. Hellerren iritziz, ikertzaileek beren ikerketen dimentsio sozialaz jabetu behar dute: «... bilingualism is not a neutral concept, and researching bilingualism is not a neutral act» (ibid., 250).

Soziolinguista kanadiarrak (ibid.) elebitasun egoerak ikertzeko etnografiaren baliagarritasuna goretzi du, haren medioz bertze ikerbidez ezin atzeman litezkeenak ikus baitaitezke:

They [ethnographies] allow us to get at things we would otherwise never be able to discover. They allow us to see how language practices are connected to the very real conditions of people's lives, to discover how and why language matters to people in their own terms, and to watch processes unfold over time. They allow us to see complexity and connections, to understand the history and geography of language.

Bide metodologiko etnografikoak arazo ugari uki ditzake, Hellerrek proposatutakoen artean: hizkuntza ideologiak, hizkuntzaren gaineko sinesmenen eta jardueren

arteko erlazioak, mintzairen zeregina berdintasunik nahiz parekotasunik gabeko harremanak eraikitzean, edota aurrez aurreko elkarrekintzetatik estatu edo enpresetako maila instituzionaletara doazen antolaketa sozialak (2008: 254).

Etnografia ikerbidearen egokitasuna frogatua dagoen esparruetako bat hizkuntza sozializazioa da, ikerketa arlo hura oinarri metodologiko horren gainean garatu baita (Schieffelin & Ochs, 1986; Garrett & Baquedano-López, 2002).

Halaz guztiz, Europako esparru akademikoan etnografia ez da izan hizkuntza ukipen egoerei, ez eta hizkuntza transmisioari ere, heltzeko ikertzaileek hautatu duten bide metodologiko ohikoa nahiz eta horren beharra behin edo behin agertu³⁷. Euskal Herrian ere hurbilpen etnografikoak ez du jorratzaile anitz izan³⁸, baina izan badira ikerlan bakan —eta aipagarri— batzuk euskararen egoera etnografikoki aztertu dutenak (ikus 2.2.2.3 ataltxo).

Halakotz, ikerketa honetarako hautu metodologiko egokia dut etnografia, bertze ezerein bidez ez bainintzateke behatu nahi ditudan gertakarietara eta interpretazio-saio kontasun mailara iritsiko. Hitzunek euskararekin eratu duten harremana eta umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean hartu dituzten hautu, erabaki eta jarrerak ulertzea da xedea, alegia, haiei zentzua ematea, ez azaltze hutsa. Helburu horretarako etnografiak aski erakutsi du, hala nazioarteko tradizio zientifikoan nola gure esparru akademikoan, hurbilpen egokia dela. Ondoko atalñoan ikerbide etnografikoari loturiko xehetasun metodologikoak azalduko ditut.

3.3. METODOLOGIA

Ikerketa hau *kualitatiboa* da, batik bat subjektuen jokaerak eta motibazioak baititu aztergai. Straussek eta Corbinek (1990: 17-18) ikerketa kualitatiboek honako ezaugarri hauek lotu dizkiete:

By the term qualitative research we mean any kind of research that produces findings not arrived at by means of statistical procedures or other means of quantification. It can refer to research about persons' lives, stories, behaviour but also about organizational functioning, social movements, or interactional relationships. Some of the data may be quantified as with census data but the analysis itself is a qualitative one (...) a nonmathematical analytic procedure that results in findings derived from data gathered by a variety of means. These include observations and interviews, but might also include documents, books, videotapes, and even data that have been quantified for other purposes such as census data.

³⁷ Delyth Morrisek (2005: 1) honela dio hizkuntza sozializazioaren baldintzen gaineko ikerketa etnografikoaren faltaz: «Despite the extensive research carried out on language shift and 'language transmission/transfer', relatively little is known about the complex factors that shape parents' language practices with their children and very few detailed ethnographic studies have been conducted into early minority language socialization».

³⁸ Jose M^a Sánchez Carrionek (1981b: 20) gabezia bera salatu zuen elebitasun egoerei dagokielarik: «Poco a poco he ido llegando al convencimiento de que el bilingüismo, huésped de muchas casas, permanece aún ajeno a una que le pertenece por derecho propio: la antropología de la vida cotidiana, o, en nuestro caso, la descripción antropológica del uso lingüístico diario, una de cuyas variantes lo constituye el uso lingüístico de las comunidades multilingües».

Hala bada, ikerketa kualitatiboa da eskuratu ditudan lehen mailako datuei dago-kienez. Bigarren mailako datuetatik —hau da, bertze ikertzaile batzuek jaso dituzten eta azterketa honetan baliatu eta aipamen bibliografikoetan bildu ditudan horietatik— batzuk kuantitatibo hutsak dira eta nire datu kualitatiboen osagarri erabili ditut. Ikerketa honetan izaera desberdineko datuak uztartu ditut eta horrek azterketa sendotu du. Zenbait egilek agerian utzi dute egun molde kuantitatibo edo kualitatiboko ikerketak elkarrengandik bereizi ez, baizik bi azterbideez baliatzen diren azterketen beharra dagoela. Adibidez, Mas eta Montoya (2011) soziolinguistek katalanaren belaunez belauneko transmisioaren gaineko ikerketetan, ikermolde kuantitatiboa eta kualitatiboa bereizirik, zein bere bidetik eta gutxitan uztarturik joan direla salatu dute, eta bietariko azterbideak proposatu dituzte.

Atal honetako hurbilen puntuotan ikerketa kualitatiboaren diseinua azalduko dut: zein estrategia metodologiko erabili dudan, aztertutako kasuak nola hautatu ditudan eta datuak zer teknikaren bidez eskuratu eta aztertu ditudan.

3.3.I. Ikerketa diseinua: kasu azterketak

Hizkuntzalariek elebitasun eta eleaniztasun arloak arakatzeko erabili ohi dituzten ikerketa diseinuetako bat *kasu azterketa* da: ikerketa enpirikoa, egungo gertakari bat bizitza errealeko bere testuinguruan aztertzen duena. Ikerketan, gertakariaren eta testuinguruaren arteko mugak ez dira agerikoak eta informazio iturri askotarikoak erabil daitezke. Honako xede hau «... to describe cognitive, social, language, or conversational behavior of a particular member of or group within a bilingual population» (Hua & David, 2008: 99) duten ikerlanetan, kasu azterketen baliagarritasuna frogatuta dago. Beraz, ikerketa honen helburuari ongi erantzuten dio azterketa diseinu horrek, izan ere, kasu azterketek «... generally answer questions which begin with “how” and “why”» (ibid., 100).

Gizarte ikertzaile anitzek alderdi makrosoziologikoen eta mikrosoziologikoen osagarritasunaren alde egin dute (Rocher, 1995: II-14), eta kasu azterketek bi ikuspegi horiek uztartzeko aukera ematen dute. Blanchetek (2000: 33) elebitasun egoeretara egiten duen hurbilpen etnosoziolinguistikoa, kasu azterketen egokitasun metodologikoa nabarmendu du, datu mikro eta makrosoziolinguistikoa ikusmolde sistemiko global batean bateratzea ahalbidetzen baitute: «... il s’agit de concilier les données macro-sociolinguistiques et les données micro-sociolinguistiques dans une vision systémique globale des cas à tous les niveaux, de la stratégie individuelle aux règles générales».

Euskararen gizarte egoeraren gaineko ikerketa alorrean aurrekari batzuk ditugu kasu azterketen ikerbidearen baliagarritasuna sendesten dutenak (Sánchez Carrión, 1981a; Urla, 1987; Erize, 1997; Iraola, 2002; Hernández, 2007).

Kasu azterketak: Irurita (Baztan) eta Iruñea (Iruñerria)

Ikerketa honetarako bi kasu azterketa hautatu ditut, horien bidez euskaldunen hizkuntza sozializazioa Nafarroako bi ingurutan aztertzeko: Iruritan eta Iruñean. Inguruneak hautatzeko *heterogeneotasun* eta *adierazgarritasun* irizpideei lotu naitzaie. Heterogeneotasun irizpidearen arabera bi ingurune hautatu ditut:

— Lehen ingurunea, Baztan, Nafarroako Mendialdeko udalerria, hamabortz herri eta 8.000 biztanle hurbil dituena. Baztan historian zehar euskararen erabilera soziala eta belaunetz belauneko jarraipena erabat eten ez den Nafarroako eremuan dago. Baztanen, oro har, eguneroko bizimodu arruntean (etxean eta familian, karrikan eta lagunartean) euskaraz egiten ohi da, nahiz eta gaztelania ere gutxi-asko erabili. Fishmanek (1997: 92) «... demographically concentrated and intergenerationally continuous» definitutako inguruak eta Zalbidetik (2009) «euskararen arnasguneak» deitu dituenak daude hara-nea. Halere, landa ikerlana egiteko hautatutako herrian, Iruritan, orain lau hamarkada euskara galbidera zeraman ordezkatzeko prozesua hagitik aitzinaturik zegoen eta hurrei ez ohi zitzaient etxean euskara irakasten (Sánchez Carrión, 1972). Hondar berrogei urteotako euskararen gizarte galera-berreskurapen bilakaera eta bereziki haurrak euskaldun haztearen alde izandako aldaketa arakatzeko eremu egokia da Irurita.

— Bigarren alderdia Iruñerria da, Nafarroako hiriburuak eta inguruko udalerriek osatua eta Nafarroako populazio erdia baino gehiago, 300.000 biztanle inguru, biltzen dituena. Iruñerrian euskararen gizaldirik gizaldiko jarraipena eta gizarte erabilera XIX. mendean eten zen (Jimeno Jurío, 1995) eta egun eguneroko bizitza erdaraz (erdara hutsez edo erdararen erabateko nagusitasunaz) egiten da. Halaz guztiz, azken hamarkadetan umeak euskaldun hazten dituzten sendiak ugaltu dira (Euskarabidea & Nafarroako Gobernuak, 2006) eta horregatik, euskararen gizarte berreskuratzean familien estrategien araketa egiteko ingurune aproposa da Iruñea.

Bi inguruneetan kasuen lagina osatzeko eta behaketetarako landa laneko guneak zehaztu ditut: Baztanen Iruritik ikastetxe publikoan ikasten duten haurren familiak eta Iruñerrian hiriburuko Iturrama auzoko Amaiur Udal Ikastolan eskolatutako ikasleak.

Adierazgarritasunetik ikusita, aztertutako kasuak Nafarroako errealitate soziolinguistikoko nagusiak ordezkatzeko egokiak dira. Beraz, Baztan eta Iruñerria inguruak hautatuta, Nafarroa euskalduna eta erdaldundua bildu ditut, *aniztasun* eta *tipikotasun* irizpideen arteko aukera.

3.3.2. Laginketa

Oraintsu aipatutako bi ingurune horietan, haurren hizkuntza sozializazioa nola gertatzen den ikertzeko familia³⁹ hartu dut kasu unitatetzat. Sendien lagina osatzeko irizpideak *homogeneotasuna* eta *egokiera estrategikoa* izan dira.

Homogeneotasun irizpidearen arabera, bi kasu azterketetan nire berriemaile nagusiek baldintza hau bete dute: euskaraz eskolaturik dagoen 12 urte bitarteko haurren baten gurasoa izatea.

Egokiera estrategikoari dagokionez, 3.I.2 atalñoan azaldutako familia euskaldunen tipologiaren arabera osatu ditut sendien laginak. Iruritan eta Iruñean hamarna fa-

³⁹ Lan honetan *familia* hitza ez diot sendi eredu tradizionalari, hau da, gizon eta emakume ezkonduz eta haien seme-alabek osatutako elkarbizitza unitateari soilik lotu. *Familia* adiera zabalean hartu dut: oro har ahaidetasun hurbilak lotzen dituen lagunaren multzoa, etxe berean bizi ohi direnena. Ikerketaren beharretarako familia guztiek umeren bat dute baina ez baitezpada bi guraso. Guraso bakarreko familiak ere aintzat hartu ditut, bai eta sexu bereko gurasoak dituztenak edo adoptatutako umeek osatuak. Egungo familia askotariko motak hartu ditut aintzat. Dena dela, eskuarki *gurasoak* edo *aita-amak* erabiliko ditut —bertze familia motak baztertu nahi gabe— hala erratea ahalbidetzen duten kasuetan.

milia hartu ditut aztergai. Laginak osatzeko Irurritako ikastetxe publikoko eta Iruñeko Amaiur Udal Ikastolako ikasleen sendien ezaugarri soziolinguistikoak hartu ditut kontuan eta horren arabera *familia euskaldunbete*, *familia euskaldun ez-oso* eta *familia euskaldunberrituen* kopuru haztatua ezarri dut (5. eta 6. ataletan, kasu azterketa bakoitzaren xehetasun metodologikoak azaltzean zehazkiago adieraziko dut)⁴⁰. Ondoko taulan familien lagina osatzeko kontuan hartu dudun sailkapena laburki adierazita dago.

Taula
Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztertzeo familia euskaldunen tipologia soziolinguistikoa

	Familia euskaldunbeteak	Familia euskaldun ez-osoak		Familia euskaldunberrituak
Aitatxi-amatxik	Euskaldunak	Euskaldunak	Erdaldunak	Erdaldunak
Aita-amak	Euskaldunak	Euskaldunak	Erdaldunak	Erdaldunak
Seme-alabak	Euskaldunak	Euskaldunak		Euskaldunak
Zein ingurune soziolinguistikotan diren nagusi	Batik bat, euskararen belaunez belauneko jarraipena eten ez den herri edo ingurune oso euskaldunetan.	Batik bat, azken hamarkadetan euskararen galera-berreskurapen prozesua gertatu den hiri-herrietan		Oro har, euskara XX. mendea baino lehenago galdu zen eta berreskuratze prozesua hasia den hiri-herrietan

Iturria: Paula Kasares

3.3.3. Datuak biltzeko eta aztertzeo teknikak

Ikerketa honen datu bilketak metodologia etnografikoa du oinarri; halere, informazioa eskuratzeko *estrategia de la triangulación* delakoaz baliatu naiz (Vallés, 1997: 99-101), hau da, azterbide desberdinak barnebiltzen dituen ikerketa estrategia erabili dut:

– Dokumentazio iturriak: zentsu-errolak, inkesta soziolinguistikoak eta literatura zientifikoa, sozio-antropolinguistikoa batik bat. Dokumentatze bide horiek ikerketaren teoria harroinak eratzeko, Nafarroako historia eta egoera soziolinguistikoak osatzeko eta, ahal izan delarik, bertze hizkuntzekin ariketa konparatiboa egiteko erabili ditut.

– Lehen mailako informazioa berriemaileekin izan ditudan elkarrekintzen eta behaketen bidez eskuratu dudun informazio kualitatiboa da.

Lehen mailako informazioa eskuratzeko erabili ditudan teknikak etnografikoak dira:

– *Hizkuntza portaeren behaketa zuzena eta parte-bartzailea* gizakien bat-bateko mintza-jardunari inolako manipulaziorik gabe, era sistematiko eta kontrolatuan begiratzeko.

⁴⁰ *Familia erdaldunak*, hiru belaunaldietan kide guztiak erdaldunak dituztenak, ikerketa honen laginetatik kanpo utzi ditut, bistan da, nahiz eta inguru erdaldun(du)etan ugari izan.

Behatutakoak gurasoen eta haurren arteko hizkuntza jarduerak, helduen artekoak eta haurren artekoak izan dira. Informazio hori jendearen hizkuntza portaera ezagutzeko biderik zuzenena da: «... the best way to find out about people's linguistic behavior towards each other is to observe real-life situations» (Nortier, 2008: 51). Bertzalde, behaketen garrantzia berriemaileek adierazitakoak eta haien hizkuntza jarduerak elkarren ondoan paratzeko aukera ematean datza: «It must be pointed out that, although useful in its own terms, declarative data can never be employed as a substitute for data on speakers' actual linguistic behavior» (Codó, 2008: 161). Behaketa horiek leku publikoetan eta, aukera izan dudalarik, leku pribatuetan ere egin ditut. Batzuetan, haurrek beren artean egiten dituzten hizkuntza elkarreraginei ez eragitearren, grabaketak haiek ohartu gabe egin ditut, grabagailua haien ondoan utzita eta nik urrutiagotik behatuz. Hiztunen mintza-jarduna aztertzeke ikertzailearen eragina ahal den gehiena saihesteko bideak badaude (Nortier, 2008: 44-46) eta ahal izan delarik halako estrategiak erabili ditut.

– *Elkarrizketak* berriemaile adituei eginak. Saio gidatu samarrak izan dira, ikusmolde orokorraz gain berriemaile kualifikatu horiengandik ikerketaren zenbait arloren gaineko informazio zehatza ere erdiestera zuzenduak. Ikerketa egin dudan ikastetxeetako maisu-maistrei haurren hizkuntza portaeren gainean dituzten hautemate eta iritziak ezagutzea, bereziki interesgarria izan zait.

– *Glotobiografiak* edo hizkuntza ardatza duten narrazio biografikoak familia tipologiaren arabera hautatutako berriemaileei egin dizkiet⁴¹. Glotobiografiak grafikoki agertu ditut *glotobiogramak* izeneko irudien bidez. Familietako berriemaile baten edo gehiagoren glotobiografiak uztartuz aztertutako familien hizkuntza-historiak edo *familien glotobistoriak* osatu ditut, bai eta horien adierazpen grafikoa ere, *familien glotobistoriogramak* deitu ditudanak, alegia.

Gure artean glotobiografia teknika etnografiko nahiko ezezaguna baita, horren azalpen xumea egingen dut bizitza-historia teknika kualitatibotik abiatuta. Ikerketa sozioantropologikoetan bizitza-historia⁴² teknika etnografikoa usu erabili ohi da; hainbat ikertzaile bat heldu dira bizitza-historia teknika kualitatiboaren baliaagarritasunaz elebitasunaren bizipenak ezagutzeko (Codó, 2008: 165):

Life narratives are used to investigate who informants are, how they have come to be the people they are, and what events and experiences have shaped their lives. As language plays a fundamental role in self and other-construction,

⁴¹ 5. eta 6. ataletan deskribaturik dauden landa ikerlan etnografikoetan berriemaileen glotobiografietatik eta haiekin izandako elkarrekintzen idazkietatik zuzenean hartutako adierazpen ugari txertatu ditut. Denis Tedlockek (1983) deskribapen etnografikoen sorburuan dauden jarduera dialogikoak maiz isilpean geratzen direla kritikatu du. Berak deitutako *antropologia analogikoko* idazketa etnografikoan ikertzailearen bakarriketa narratiboak berriemaileen diskurtsoa ordezkatu ohi du. Horren aitzinean *antropologia dialogikoa* proposatu du, berriemaileen hizketa lehen mailan paratzen duena eta irakurleei subjektuek beren ekintzei ematen dieten zentzua ezagutzeko aukera zuzena ematen diena.

⁴² «Bizitza-historia: metodo kualitatiboaren barruan toki garrantzitsua duen teknika da. Bizitza-historiarekin banakako esperientzia berezia ezagutzea bilatzen da, hau da, pertsona baten definizioa bizi izan duen egoera bati buruz, edota bere bizitza osoari buruz. Kontuan hartu behar da kasu honetan ez dela “egia” bilatzen, baizik eta subjektuak bere egia nola eraikitzen duen eta bere bizipenei eta bizitzako fase ezberdinei zentzua nola ematen dien aztertzea» (Hernández, in Zarraga et al., 2010: 305). Gizarte zientzietan bizitza-historiei eman zaien erabileraren gainean sakontzeko: Pujadas (1992).

biographical narratives are good technique for exploring the experiences of bilinguals in contexts of migration and displacement...

Bizitza-historien bidez ikertzaileak aztertzen dituen gizon-emakumeek beren bizitza ematen dioten zentzua eta beren bizitzan garrantzitsua edo adierazgarria izan dena ezagutu nahi du. Metodo narratibo-biografikoan oinarrituta Jiří Nekvapil (2003: 63) ikertzaileak XX. mendean Txekiar Errepublikan aleman hitzunik bizi izandako hizkuntza aldaketa ikertzeko *language biography* teknika landu du: «... a biographical account in which the narrator makes the language, or rather languages, the topic of his or her narrative—in particular the issue of how language was acquired and how it was used».

Hizkuntza biografia elkarrizketa egituratugabea izaten da eta kontaketa biografikotzat metodo egokia da ikerketa diakronikoa egiteko, azken hiru belaunaldien bizi esperientziak har baititzake (berriemailea bera, haren seme-alabak eta gurasoak eta, batzuetan, haren bilobak). Nekvapilek hizkuntza biografiek komunitatearen historia irudikatzen duten balioa defendatzen du, hizkuntza norbanakoarena ez ezik komunitatearena ere bai baita. Hau da, norbanakoek mintzaira norbaitengandik ikasten eta norbaitekin erabiltzen dute (familiaren barnean eta kanpoan). Alde horretatik, norbanakoen hizkuntza biografiek bertze pertsonen eta familien hizkuntza biografien informazioa ematen dute, bai eta ere hizkuntza komunitate jakin baten hizkuntza egoeren gaineko berri. Hala bada, norbanakoen hizkuntza biografietatik komunitate baten hizkuntza biografia tipoa osa daiteke. Nekvapilek hizkuntza biografia benetako metodo soziolinguistikotzat hartzen ditu, teknika bereziki baliagarritzat hizkuntzen azterketa historiko-diakronikoa egiteko: «My position is that language biographies are particularly useful for language-historical and diachronic research» (Nekvapil, 2003: 64). Horregatik, haren ustez, hizkuntzen egoera deskribatzeko kontuan hartu beharreko teknika da.

Linguistic autobiographies soziolinguistikoki aztertzeo jarraibideei dagokienez, Aneta Pavlenkok (2008: 322) narrazio horiek oharrak, aipamenak edo transkribatutako testu hutsak balira bezala lantzeko desegokitasuna aipatu eta haien alderdi diskurtsiboak, subjektiboak, erretorikoak eta elkarrekintzari lotutakoak nahiz soziohistorikoak kontuan edukitzea proposatu du: «... they [linguistic autobiographies] should be treated as discursive constructions, similar to other experience narratives, and as such be subject to analysis that considers their linguistic, rhetorical, and interactional properties, as well as the sociolinguistic and sociohistoric contexts in which they were produced».

Montoyak (1996) Alacant hiriko hizkuntza ordezkapena ikertzeko hizkuntza historiak («histories linguísticas») eta familien hizkuntza-transmisio zuhaitzak («arbres de transmissió lingüística») erabili ditu⁴³. Gurean, euskararen transmisioaren az-

⁴³ Antoni Mas eta Brauli Montoya Alacanteko Unibertsitateko irakasleak katalanaren transmisioaren gainean 2011n argitaratutako artikulu batean errealitate soziolinguistikoari behar bezala heltzeko datu makrokuantitatiboak eta mikrokuantitatiboak uztartzearen alde agertu dira. Izan ere, ikerketa kualitatiboak —eta hagitz bereziki, familien hizkuntza-historiek— aztermolde kuantitatiboetatik objektibaturik agertzen diren gertakariak osatu eta horien etiologian sakonago jotzea ahalbidetzen dute: «Aquestes investigacions [makrokuantitatiboek] aporten una gran quantitat de dades estadístiques que, ben interpretades, poden contribuir a realitzar una radiografia de la realitat sociolingüística. El complement d'aquesta informació quantificada el trobem en les històries lingüístiques familiars i en el descabdellament de l'argumentari a càrrec dels protagonistes de la interrupció. Aquestes dades qualitatives ens permeten esbrinar el perquè i el com d'aquest fenomen social i ens ajuden a entendre el procés invers, el de la re-

terketan Hernández (2007) baliatu da bizitza-historiez. Hala eta guztiz, orain artio egoera elebidunen eta hizkuntza galtze-berreskuratze prozesuen ikertzaileek hagitz gutxitan jo dute hizkuntza biografietara.

Ikerketa honetan, hizkuntzan ardaztutako bizitza-historia edo, deitu dudana bezala, *glotobiografia* da aztergai dudana egoerari lotzeko teknika nagusia. Glotobiografiak osatzeko gidoia (ikus. 8. eranskina) apailatzeko Bottek (1990: 277-284) eta Codók (2008: 158-176) proposatutakoak hartu ditut erreferentziatzat⁴⁴.

Glotobiografiak izaera dinamiko-diakronikoa duten narrazio biografikoak direnez gero, hizkuntza ordezkapen eta berreskurapen egoerak aztertze bidez baliagarri suerta daitezke⁴⁵. Ikerketa honek hartzen duen garaian hizkuntza ordezkapen prozesu historikoa irauli da eta horrek maila kolektiboan, familien historietan eta norbanakoen biografietan isla izan du. Glotobiografiak subjektuen bizitzen inguruabarrak eta bilakakerak bildu dituzte hizkuntzeekin eratu dituzten harreman-loturretan ardazturik. Mintzairerikiko atxikidura horiek ezagutzeak hiztunek beren umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean izan dituzten jokaera, jarrera eta estrategietan arakatzeko bide eman dit.

Hala Iruritan nola Iruñean belaunkideak diren subjektuen glotobiografiak bildu ditut. Narrazio biografiko paralelo horiei esker ingurune bakoitzeko iraganaldi hurbil eta orainaldi soziolinguistikoak “ahots desberdinez” osatu ditut nolabaiteko *sistema polifoniko* baten bidez

Arestian azaldu bezala, sendietako berriemaile baten edo gehiagoren glotobiografiak uztartuz aztertutako sendien hizkuntza-historiak edo *familien glotobistoriak* osatu ditut. Familien glotohistorietan gutxienez hiru belaunaldiren gaineko hizkuntza-informazioa bildu dut: aitona-amonena, aita-amena eta seme-alabena (zenbait kasutan birraitona-amonei buruzkoak ere bai).

Ikerketa honek euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipena eta egungo haur euskaldunen hizkuntza sozializazio baldintzak aztertzea xede duela, ikuspegi diakroniko-historikoa behar du ezinbestez. Hizkuntza ordezkatzeko kasu gehienak belauneko belauneko joan gertatzen direla jakinik (Lieberson, 1980; Fasold, 1995), hizkuntza berreskuratzea ere gizaldiz gizaldiko segidan ikertu behar delakoan nago. Ikertzaileek belaunaldien arteko aldeei so egitearen garrantzia nabarmendu dute: «These generational differences become critical in the survival of a ML [Minority Language]» (Williamson, 1991: 93).

Halakotz, azken hamarkadetan euskararen gizarte egoera aldatu ahala, nafarren azken gizaldien euskararekiko bizipenak eta harremanak hagitz desberdinak izan dirateke (hizkuntzaz jabetzeko bideak, mintzairaren oharkera, gizarte erabilerarako aukerak...). Nire ustez, oraingo umeak hazten dituzten gurasoak nola hazi ziren eta aita-

vernacularització. Per això resulta imprescindible conjuminar els dos tipus d'informació: la quantitativa i la qualitativa» (Mas & Montoya, 2011: 101). Izan ere, egile horiek *La transmissió familiar del valencià* (Montoya & Mas, 2011) ikerlana burutu zuten metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa baturik.

⁴⁴ Ikerketen emaitzak argitaratzen direlarik, ikertzaileen hautu metodologikoen gibelean egon diren zailtasunak, hausnarketak, bai eta zalantzak garbitzeko prozesuen xehetasunak ere gutxitan egiten dira ageriko. Horren kariatara, Elizabeth Botten *Family and social network* liburuan familiak aztertze zailtasunez eta metodologia eratze prozesuaz jarduteko gordintasun eta gardentasuna ez dira usuak.

⁴⁵ Joan J. Pujadasek (1992: 45) bizi-narrazioen erabileraren hobariak zerrendatzean honela dio: «En los estudios de cambio social, el relato biográfico constituye el tipo de material más valioso para conocer y evaluar el impacto de las transformaciones, su orden y su importancia en la vida cotidiana, no sólo del individuo, sino de su grupo primario y del entorno social inmediato».

matu artio euskararekin zer harreman izan dituzten ezagutzea funtsezkoa da euskararen belaunez belauneko jarraipenaz eta, horren barnean, egungo haurren euskarazko sozializazio baldintzez taxuzko zerbait jakiteko. Beraz, nire ikerketa hau belaunez belauneko segidaren testuinguruan eta oraingo egoeraren azterketa xehean ere kokatu dut, biak baitzaizkit beharrezko, hurrengo ataltxoan azalduko dudanez.

3.4. EUSKARAREN BELAUNEZ BELAUNeko SEGIDA ETA HIZKUNTZA SOZIALIZAZIOA AZTERTZEKO JARRAIBIDEA

Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta egungo haur euskaldunen hizkuntza sozializazio baldintzak zertan diren aztertu nahi izateak ikuspegi diakronikoa eta sinkronikoa eskatzen dizkit, edo bertze hitzetan adierazteko, *azterbide zinetiko-dinamikoa*, giza jokaeren bilakaera egoera makrosoziologikoarekin elkarreaginean lantzen duena eta *azterbide deskriptibo-estatikoa*, orain eta hemen haurrak euskaldun bilakatzen diren egoeren aitzin-gibelak azaleratzen dituena.

Ikerketak *zoom* malgua behar du, hiltunen bizipenen xehetasunei bezala hizkuntzaren egoera makrosoziologikoaren inguruabarrei behatzeko modukoa. Subjektuen bilakaerak testuinguruan, egoera makrosoziolingüistikokoaren harremanetan azaldu ahal izateko bi mailak uztartu behar dira: mikrosoziolingüistikoa (bizipen subjektiboak: egungo haur euskaldunen hizkuntza sozializazio moldeak, baldintzak, bitartekoak...) tokian-tokiko etnografia lanaren bidez biltzekoa, eta makrosoziolingüistikoa (gizarte bizitza baldintzatzen duten eragingarri eta prozesuak: historia, botere harremanak, hizkuntzaren gizarte egoera...) batik bat ikermolde soziologikotik egindako lanen bidez eskuratua.

Millsek (1993) biografia, historia eta horiek biek bat egiten duten gizarte egitura etengabe elkarreaginean aintzat hartu beharra aldarrikatu zuen. Berebat, antropologiak gizartearen ikusmolde dinamikoa, salbuespenak, kontraesanak eta aldakuntza barnebiltzen dituen ereduaren beharra agertu du. Ikerketa honetan subjektuen glotobiografiak ez dira narrazio linealtzat azaltzen. Bilakabideak eta maiz hausturak nabarmenak dira eta horiek adierazi beharreko koherentzia huts edo salbuespentzat baino gehiago teleologikoki zuzenduta ez dauden bizi-ibilbideen ondoriotako jo ditut.

Azterketa konparatiboa egiteko hizkuntza sozializazioa bi momentu historikotan eta bi ingurune soziolingüistikotan arakatu dut. Geografikoki, 3.3.1 atalñoan azaldu bezala, landa ikerketa Iruritan eta Iruñean egin dut. Historikoki bi gizaldi hartu ditut: 1970 aldera sortuak eta haien seme-alabak, 2000tik aitzina jaioak. Ikerketa 1970 aldera sortutakoengan ardatzu dut, *ego belaunaldia*⁴⁶ deitu dudana osatzen dutenengan, oraingo umeen gurasoak direnengan. Ego belaunaldiaren biografia da batez ere aztertu dudana, puntu hauek hain zuzen: haiek hizkuntza aldetik nola sozializatu ziren, zer bizi-ibilbide egin duten eta, aitamatu direlarik, nola jokatu duten beren umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean, eta haurren hazibidean euskarari zer leku ematen dioten.

Euskararen belaunez belauneko segida eta hizkuntza sozializazioa bi gizalditan eta bi inguruetan ikertzeko jarraibidea apailatzeko honako hauek hartu ditut aintzat:

⁴⁶ Antropologian ahaidetasun diagramak beti *ego* (*ni* latinez) baten inguruan antolatzen dira. Marvin Harrisek (2004: 395) honela dio: «Los antropólogos emplean la palabra *ego* para designar el 'yo' desde cuyo punto de vista se consideran las relaciones de parentesco». Ikerlan honetan glotobiografia gehieneko *ego*ak 1970 aldera sortutakoak baitira, egungo haurren gurasoak, gizaldi horri *ego belaunaldia* deitu diot.

hizkuntzaren iraupen eta ordezkapen prozesuak aztertzeko Fishmanek (1972) proposatu hiru azpisailak, hizkuntza komunitatea aztertzeko Erizek (1997) emandako ereduak, hizkuntza hautuei eragiten dieten faktoreak aztertzeko Chrispek (2005) osatutako eskema, euskararen erabilerari eragiten dioten alderdiak bildu eta eragingarri norbanakoenak, mikrosozialak eta makrosozialak uztartzea gomendatzen dituzten zenbait eredu (Martínez de Luna, 2004, 2012; Soziolinguistika Klusterra et al., 2009; Soziolinguistika Klusterra, 2011). Hondar proposamenotan euskararen erabilera azaltzeko maila desberdinetako faktore multzoen joko dinamikoa gertatu zait bereziki ernagarri. Horiek guztiak kontuan hartuta, honako hau da eratu dudana jarraibidea:

Euskararen belaunez belauneko segida eta hizkuntza sozializazioa aztertzeko jarraibidea

Hizkuntza gizartean (maila makrosoziolinguistikoa)

Gizartean euskarak duen egoera demolinguistikoa eta soziofuntzionala.

- Hizkuntzaren babes politiko-administratiboa, lege estatusa eta hizkuntza politika.
- Hizkuntzari laguntzeko azpiegiturak (hezkuntza sistema, hedabideak,...).
- Hizkuntzaren gaineko gizarte irudiak eta diskurtsoak (hizkuntzaren gizarte zilegitasuna, hizkuntza nagusiaren presioa...).

Hizkuntza barreman-sareetan (maila mikrosoziolinguistikoa)

Ingurune hurbileko gizarte ehunean (familian eta auzo-herri-komunitatean) gertatzen diren harremanetan euskarak duen egoera soziolinguistiko dinamikoa.

- Hizkuntza hautu eta portaerak gizarte elkarrekintzetan (hizkuntza familia-elkarbizitzan eta gizarte bizitzan, belaunaldien arteko nahiz harreman eszentrikoetako erabilera arauak eta ohiturak).
- Inguruneko hizkuntza-oharmena (jarrerak, balioak...).
- Inguruneko talde-estrategiak hizkuntzaren aldera (sortutako hizkuntza aukurak: eskolaz kanpoko jarduerak, tokiko hedabideak, heldutan ikasteko bideak...).

Hizkuntza biztunaren baitan (maila idiolinguistikoa)

Hiztunaren baitan hizkuntzak betetzen duen lekua, bilakaerari oharthurik.

- Hizkuntza gaitasuna (hizkuntza ikasteko bidea eta adina, gaitasun erlatiboa, continuum gisa).
- Hizkuntzarekiko motibazioa (hizkuntzari lotutako bizipenak, balioak, atxikimendua, berezko edo bat-bateko erabilera).
- Umeen hizkuntza sozializazioarekiko kontzientzia kritikoa (jarrerak, hautu-erabakiak...).

Jarraibideak hiru mailatako gertakariak uztartzea du jomuga: makrosoziologikoak (gizarte egiturakoak), mikrosoziologikoak (harreman sareak) eta norbanakoak

(bizipenak). Gertakari horiek hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenean eta hizkuntza sozializazioan jokatzen duten eragingarritzat jo ditut. Kasu azterketetan faktore horiek landuko ditut, baina jarraibidea ez da hurrenkera zurruna eredu malgua baizik, moldakorra eta tokian tokiko inguruabar bereziei lekua egiteko modukoa. Honela jorratuko ditut:

– *Hizkuntza gizartean* aztertzean hizkuntzaren egoera *makrosoziologikoari* lotutakoak dira arakatzekoak Nafarroan eta Euskal Herrian oro har. 4. atalean landuko dut eta batik bat bigarren mailako datuetan oinarrituko naiz.

– *Hizkuntza barreman-sareetan* aztertzean maila *mikrosoziolinguistikoa*n barrenduko naiz, kasu azterketak egin ditudan inguruetan: Iruritan eta Iruñean. 5. eta 6. ataletan landuko dut eta, batez ere, familien glotohistoriak eta behaketak izanen ditut datu iturri.

– *Hizkuntza biztunaren baitan* aztertzean maila *idiolinguistikora* —nolabait errateko— jaitsiko naiz. Hiztunak bizi-ibilbidean hizkuntzarekin eratu dituen harremanak azaltzeari dagokio. 5. eta 6. ataletan landuko dut eta glotobiografiak izanen dira maila horretako lehengaia.



4. EUSKALDUNAK ETA EUSKARA NAFARROAKO HISTORIA HURBILEAN

Atal honetan aztergai dudan gertakaria, Nafarroako iraganaldi hurreneko euskararen belaunez belauneko jarraipena eta egungo haurren euskarazko sozializazioa, testuinguru soziohistorikoan kokatuko dut. Helburua ez da xehetasun historikoetan sakontzea, hurbilen bi ataletan, Iruritako eta Iruñeko landa ikerlanetan aipatuko ditudan glotohistorien alderdi makrosoziolinguistiko eta soziopolitiko nagusiak laburki ematea baizik.

Nafarroako euskararen historia hurbila aztertzerakoan ikerketa ez-osoak aurkitu ditut, batzuk aski sakonki eginak, baina beti alderdiren batean ardazturik. Hondar hamarkadetako nafar euskaldunen eta euskararen jarraipenaren historia osorik, ordea, egiteke dago.

Atala hiru azpiataletan antolatu dut. Lehendabizikoan, aztergai dudan epe historikoaren (1970etik 2012 artio doanaren) aurrekariak eta abiapuntua itxuratu ditut.

Bigarrenean, euskararen berreskurapenaren hastapenak eta hizkuntzaren araubidetzearen oinarriak landu ditut.

Azkenik, hondar bi hamarraldietako Nafarroako euskararen gizarte bilakaera agertu, hizkuntza politikaren eragina aztertu eta XXI. mendearen hasmentako nafar euskaldunen egoera orokorra adierazi dut.

4.1. AURREKARIAK ETA 1970EKO EGOERA

Xabier Erizek (1997: 267) ikertu zuen garaian (1863tik 1936 bitarte) «... nabarmen murriztu zen Nafarroako euskal hizkuntz komunitatea»: eremu geografiko euskalduna txikitu zen, udalerri euskaldunen heren luzea (50 udalerri) erdaldunduta; kopurutan nafar euskaldunek bertze heren bat galdu zuten, 90.000 inguru izatetik 60.000 bat izatera etorri baitziren. Gainera, garai horretan Nafarroako populazioak goiti egin zuen eta euskaldunen gutxitze erlatibo are handiagoa gertatu zen, euskaldunak nafarren % 30 izatetik % 17 izatera igaro ziren, «... gutxiagotasun egoera areagotuz». Hala eta guztiz ere, «... euren esparruan gehiengoa izaten segitu zuten euskaldunek, % 69 ziren, eta hori euskararen bizitasunaren adierazlea eta, aldi berean, bermatzailea zen, hizkuntza gibelka bazihoan ere».

1936an lehertu zen gatazkak eta ondoko hamarkadek lehenagotik heldu zen euskararen gibelamendua larritu baizik ez zuten egin. José M^a Jimeno Juriok (1997: 226-227) erran bezala, Gerra Zibilak eragindako biktima errugabeetako bat euskara bera izan zen. Espainiaren batasuna —hizkuntza batasuna barne— hasitako garaia

dogma politikoa bihurtu zen eta gaztelania ez bertze hizkuntza Estatukoak bizitza publikotik ezabatu eta haien kontrako politika baztertzaileria hasi zen. Benjamín Tejerinak (1992: 135) gerraosteko lehen urteen gainean honela dio:

En los primeros años de la postguerra, la característica general es la negación de los símbolos del universo nacionalista y, particularmente, de la lengua. Esta negación del discurso oficial va acompañada de una represión física y simbólica ejercida por el Estado cuya consecuencia es la desaparición de la lengua del espacio público.

Francoren gobernuak euskara gizarte bizitzatik desagerraraztera jo zuen, hizkuntzaren erabilera ahulduz (anitzetan debeku bidez. Cf. Euskaltzaindia, 1978: 397-399) eta gaztelania ezartzeko bideak sendotuz. Hizkuntza zapalkuntzarako nahiz kontrol ideologikorako tresna nagusiak administrazioa, kultura hedabideak (prentsa, irrata, argitalpenak eta halakoak) eta eskola izan ziren (Torrealdai, 1982).

Gaztelania hutsaren agindua ez zen eremu ofizialera mugatzen, bizitza zibilaren alderdi guztiak hartzen zituen. Erraterako, plazan euskaraz aritzea, elizetan predikatuak euskaraz egitea edo umeei izen euskaldunak paratzea eragotzi zen, eta aldiz, prentsan gaztelaniaz mintzatzeko deiak behin eta berriz agertu ziren.

Francorendako nazio espainiarraren batasunak erabatekoa behar zuen izan «... con una sola lengua, el castellano, y una sola personalidad, la española». Beraz, espainiar guztiak gaztelania mintzatu behar zuten eta Estatuko bertze hizkuntzez ihardukitzea jende ezikasi eta eskolagabearen arlotekeriaren seinale bilakatu zen.

Gerra Zibilak aitzineko urteetan Nafarroan hasitako euskararen aldeko ekimenak erabat eten zituen. Euskal abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna ahuldurik gelditu ziren, hainbat jende hilik, espetxeraturik edo erbesteraturik. Horrek euskara kultura erreferente berekien umezurtz utzi zuen, hirietako bizimodutik kasaturik eta zeregin berrietan garatzeko aukerarik gabe. Julio Caro Barojak (1941: 35 eta 1990: 8) 1940ko hamarkadan euskara, funtsean, landa hizkuntzatarako zekusan; artzain, nekazari eta arrantzaleen herri baten mintzotzat: «... un idioma en esencia campestre, hablado por un pueblo de pastores, agricultores y marinos».

Gerra ondoko Nafarroaz ari delarik Jimeno Juriok (1997: 229) euskararen egoerari dagokionez, bi gertakari aipatzen ditu: mintzairaren gutxiespena eta immigrazioa, lurraldea demografikoki aldatu zuena.

Lehendabizikoaren gainean, euskara deus gutxitzat harturik eta eremu publikotik bazter utzirik zegoela dio. Horren ondorioz, hiriburuko nahiz Mendialdeko hainbat herritako plazetan euskaraz aritzea gaizki ikusten hasi zen: «... dejó de oirse en las calles pamplonesas, siendo mal vistos sus hablantes incluso en los pueblecitos y caseríos de los valles septentrionales» (ibid., 230).

Nafarroako demografia eraldatu zuten migrazioei doakienez, ikertzaile artaxoarrak euskararen ahultzea ekarri zutela azaltzen du. Lurraldeko biztanleen gutxitzeak 1960 bitartean iraun zuen. Hamarraldi horietan hainbat herrixka hustu ziren nafar anitzek lan eske Gipuzkoara, Bilbora edo bertze eremu industrializatuera jo baitzuten. Bertzalde, Nafarroako industrializate berantak lantegi guneetara langileak erakarri zituen Nafarroatik bertatik nahiz kanpotik. Horren ondorioz, Iruñearen inguruko auzoak (Arrosadia, Txantrea, Arrotxapea, Sanduzelai eta Donibane) erruz hazi ziren. Etorrin jendea industria zuten herrietara ere bildu zen eta bertako euskaldunak zituzten herri horietako zenbaiten erdalduntzea (Olatzagutia, Altsasu, Bera eta Lesaka herriena, adibidez) areagotu zen.

4.1.1. Gerra Zibilak eteniko aukerak eta ekimenak

Espainiako Gerra Zibilak Eusko Pizkundek hasitako euskal kultura mugimendua eta euskararen nahiz euskarazko irakaskuntzaren ekimenak erabat gelditu zituen. *Euskaroen* aldarrikapenetan euskarazko irakaskuntza sustatzeko eskaria etengabea izan zen (Erize, 1997: 480). II. Errepublikaren garaian irakaskuntzan euskara-gaztelania elebitasuna eskatzen zuen mugimenduak 1936 bitartean iraun zuen. Primo de Riveraren diktadura baino lehenago bi esperientzia dira aipatzekoak: Lekarozko Nuestra Señora del Buen Consejo aita kaputxinoen ikastetxearena eta Iruñeko Huarte Anaiena. Bietan euskara ikasgaitzat eskaintzen zen (I. Estornés, 1983: 175; Urmeneta, 1996: 227).

Errepublika garaian, Euskeraren Adiskideak elkarteak (1925-1936) eta Eusko Ikaskuntzak (1918-) Nafarroan euskararen eta euskal kulturaren aldeko jarduera ugari antolatu zituzten. Artean, Nafarroako Foru Aldundiak euskararen irakaskuntzaren arloan modu ofizialean bideratzen zituenak maisu-maistragaien eta apaizgaien prestakuntzara mugatzen ziren (Jimeno Jurío, 1997: 222). Pizkundearen hondar garaian, ordea, familian erdaraz hazitako haurrendako euskarazko eskolatzea planteatzen hasi zen (Erize, 1997: 481; López-Goñi, 2002: 89). Urrats kualitatibo hori, euskara ikasbide-tzat hartzen zuen eskola, Gerra piztu aitzinxeko urteetan gauzatu zen Nafarroan. Euskeraren Adiskideak elkarteak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak bultzatu eta hainbat euskaltzalek gauzaturik euskal eskolak sortu ziren Iruñean (1931n), Lizarran (1933an) eta Elizondon (1935ean). Tafallakoa egitasmo hutsean gelditu zen. Euskarazko irakaskuntza esperientzia laburrak izan ziren, Gerra hasita horietako bat ere ez baitzen 1936-1937 ikasturtea hastera iritsi (cf. I. Estornés, 1983; Altaffaylla Kultur Taldea, 1992; Baztango Ikastola, 1995; Jimeno Jurío, 1997; Chueca, 1999; López-Goñi, 2002).

Gerra hasi eta berehala Errepublikaren garaian hezkuntza arloan egindako guztia suntsitzen hasi ziren. Irakaskuntzaren garbiketa ideologikoa egitearren hainbat maisu-maistra irakasletzatik kendu eta fitxatu zituzten, handik aitzina eskolarik eman ezin izateko (Fernández, 1994: 51; López-Goñi, 2002: 138-144).

1936tik erdara hutsezko eskola ezarri zen. Erizek (1997: 534) ikertu garaian Nafarroan irakaskuntzak «... berebiziko eragin erdalduntzaile» izan zuela nabarmendu du, «... erdal gizartearen jokabide guztiak han islatzen ziren». Bertzalde, soziolinguista iruindarrak, anitzetan erran izan denaren kontra, gaztelania hutsezko irakaskuntzaren erroak «... Nafarroan bertan» daudela nabarmendu du.

Francoren agintaldiko eskolak lau hamarkadatarako haur nafarrak euskaraz alfabetatzeko eta mintzairaren oharpen kulturalerako aukerez guztiz gabeturik utzi zituen. Orobat, euskara eskolatik egotzirik, neska-mutikoez etxea eta komunitate hurbila baizik ez zituzten hizkuntzaz jabetzeko. Umeen euskarazko sozializazioa familiaren barnean eta gizarte bizitzan euskaraz zuen bizitasunak ziurtatu behar zuen eta, ikusiko dugunez, hainbat herritan gizaldi berriak euskaldun hazteko baldintzak larriki makaltzen hasi ziren.

4.1.2. Euskararen jarraipena hizkuntzaren geografia historikoaren argitan

Ángel Irigarayk Nafarroako euskararen galeraz idatzitako lehen lanei ([Irular] 1925 eta 1930, 1935, 1956) aldiari aldiari hizkuntzaren gibelamendua berretsi eta eguneratu zuten egileen ikerlanak jarraiki zitzaizkien (Echegaray, 1933; B. Estornés, 1960; Fagoaga, 1962; Morales de Rada, 1963; M. Estornés, 1963 eta Echaide, 1966).

Ataltxo honetan 2.2.I.2an azalduakoa osatuko dut, 1970 artio Nafarroako euskararen geografia historikoari ekarpenak egin zizkiotenen lanetan orduko nafar belaunaldi gazteek euskaldun hazi edota euskaraz sozializatzeko zuten aukerak irudikatzeke aurrki daitekeen informazioari bereziki so eginik.

Ángel Irigarayk (1935) Espainiako Gerra Zibila hastear zegoelarik Nafarroako euskararen hegoaldeko muga zedarritu zuen, eta herri horietan hizkuntzaren gizarte erabilera arras desberdina zela oharturik, euskararen ezagutzaren eta erabileraren araberako zazpi maila bereizi zituen (1956) (ikus herri zerrenda eta taula 2.2.I.2 atalñoan). Ezarritako marratik goiti, euskalduntzat hartutako eremuan ere euskara ahuldurik zuten herriak bazeudela ikusi zuen mediku beratarrak (1956: 41):

... hay poblaciones en esa fecha [1935], como *Santesteban, Elizondo, Vera*, donde ya, se usa poco el vasc. en el caso del pueblo, a pesar de conocerlo la mayoría; muchos jóvenes de menos de 30 años no eran capaces de hablarlo, pero en los caseríos se usaba exclusivamente el vasc. En *Alsasua* se usaba menos aún, no poseyendo caseríos. En *Olazagutia, Ciordia, Lecumberri, Larrainzar, Lizaso*, se habla más que en aquél, pero los jóvenes no lo usaban ya, no habiendo tampoco caseríos. Los pueblos de *Olagüe, Erro, Burguete, Roncesvalles, Zubiri, Larrasoaña, Orbaiceta, Ochagavía*, se encuentran en la fecha, en un estado similar.

Bildutako informazio guztian Ángel Irigarayk (1956: 42) behin eta berriz errepi-katuta atzeman zuen gertakaria euskararen gizarte erabilera kaskailari zegokiona izan zen: «La nota más constante y destacada de esta información es la respuesta de: saben hablarlo pero no lo usan». Euskararen erabilera higatu izanaz gain, mintzairaren galtze prozesuaren ondorio psikolinguistiko batzuk ere izan zituen aipagai (ibid., 41): «Esta encuesta resulta difícil, por el estado de inestable transición de la lengua vasca en muchos lugares y por la diferente apreciación de los informadores: hasta darse el caso reiterado de vascófonos que se habían olvidado de esa su condición: el pudor de muchos conocedores del vasc. respecto a este, es inimaginable en la región».

Erizeren (1997: 534) arabera, garai horretan Nafarroako euskaldunek presio larria nozitzen zuten eta hori belaunaldi berriak euskaldun hazi eta euskaraz gizarteratzeko eragozgarri nabarmena zen:

Oro har, eta salbuespenak salbuespen, *izugarriko presioa egiten zuen erdal komunitateak* euskal hizkuntza komunitatean, bere maila guztietan: baloreen mailan, euskalduna izatea gutxietsiz; komunitatearen egituran, bere hauskortasuna areagotuz eta euskal komunitatea desegituratzera joaz; hizkuntza portaera sisteman, gaztelaniaren ikasketa, hautaketa eta erabilera bultzatuz; eta, azkenik, hizkuntza komunitatearen ugalketa edo jarraipena eragotziz.

1935etik 1956 bitartean euskarak izandako garapenaz A. Irigarayk (1956: 41) aipamentxo hau baizik ez zuen egin: «Es seguro que de aquella fecha [1935] a la actual [1956] se ha debido modificar bastante la situación de la lengua en sentido de su decadencia; pues el proceso que empezó intensamente a comienzos del siglo XIX no se ha detenido un momento». Ondoko ikertzaileek A. Irigarayren sailkapenari usu egin zioten aipu eta horri esker, euskararen belaunez belauneko jarraipena 1970 artio zertan zegoen irudikatu ahal izan dut.

A. Irigarayk Mendialdeko hainbat herritan euskararen gizarte erabilera hagitx makaldurik aurkitu zuen eta horrek herri horietako haurren euskarazko sozializazioari

zuzenean eragin zion. Gerra Zibila amaitu eta 1960ko hamarkadan lehen ikastolak sortu artio irakaskuntza erdara hutsean zela aintzat hartuta, belaunaldi berriak euskaldun hazi ahal izateko, euskarak etxe-familian eta auzo-komunitate hurbilean erroturik egon behar zuten, bertzenaz erdara hutsezko eskolak eta hizkuntza nagusiaren presioak haurrak euskaldun haztea ezinezko bihurtzen zuten.

Ondoko hamarraldietan Joaquín Morales de Radak herri euskaldun batzuetan mintzairaren egoerak kaskailtzen segitu zuela dokumentatu zuen. Adibidez, A. Irigarayren I. multzoan, hau da, 1935ean hurrek eta 30 urtekoek euskaraz zekiten eta ihardukitzen zuten herrietako zenbaitetan (Aritzun, Irañetan, Mezkitzen, Iraizotzen eta Aezkoako Hiriberrin) 1961ean haur eta 30 urteko gutxi batzuek baizik ez zuten euskaraz egiten. Irañeta eta Iraizotz herrien bilakaera honela adierazi zuen:

Taula
Irañetako euskararen ezagutza eta erabilera adin taldeka 1935ean eta 1961ean

IRAÑETA (Arakil)	Euskaraz badakite?		Euskaraz egiten dute?	
	1935	1961	1935	1961
Adinekoek	Bai	Bai	Bai	Bai
50 urtekoek	Bai	Bai	Bai	Bai
30 urtekoek	Bai	Bai	Bai	Bai
Hurrek	Bai	Ez	Bai	—

Iturria: Morales de Rada (1963: 20) (nik euskaraturik)

Taula
Iraizotzko euskararen ezagutza eta erabilera adin taldeka 1935ean eta 1961ean

IRAIZOTZ (Ultzama)	Euskaraz badakite?		Euskaraz egiten dute?	
	1935	1961	1935	1961
Adinekoek	Bai	Bai	Bai	Bai
50 urtekoek	Bai	Bai	Bai	Bai
30 urtekoek	Bai	Bai	Bai	Bai gutxi
Hurrek	Bai	Bai gutxi	Bai	Bai oso gutxi

Iturria: Morales de Rada (1963: 20) (nik euskaraturik)

Ordura artio euskaralariak batik bat euskararen hegoaldeko mugan zeuden herriari erreparatu bazieten ere, Morales de Radak eremu euskalduneko zenbait herritako egoera soziolinguistikoari begiratu zion. Halere, nahiz eta herri batzuetan euskarak zuten bizitazuna aipatu, ikertzailearen interesa mintzairaren galera dokumentatzera zuzendu zen.

Irigarayk 1935ean ezarritako marraren iparraldean geratzen ziren herri euskaldun batzuetan (Luzaiden, NARBARTEN, Jauntsaratsen, Elizondon, Almandozen

eta Arbizun) Morales de Radak euskararen ezagutzaren eta erabileraren egoera dokumentatu eta ondoko hutsune hauek aipatu zituen adin taldeka: Luzaiden haurretatik gutxi batzuek baizik ez zekiten euskara eta bertze horrenbertzek erabiltzen; Jauntsaratsen haurren hiru laurdenek bazekiten baina gehienek ez zuten erabiltzen; Elizondon haurretatik gutxi zekiten eta hurrek ez ezik, 30 urtekoek ere bakanetan erabiltzen zuten; Almandozen haur gutxi erabiltzen zuten eta haie-tan neskatikoak mutikoak baino gehiago ziren euskara ez zekitenak. Arbizun, al-diz, kanpotik etorritako lagun heldu batzuk kenduta denek zekiten eta iharduki-tzen zuten euskaraz.

Morales de Rada (1963: 22) hizkuntzaren galera haurrengandik hasten zela ohartu zen eta, horregatik, euskararen galtze prozesuan familia bidezko hizkuntza transmisioa gakotzat jo zuen:

El examen de los informes transcritos demuestra que no se produce un salto idiomático violento. No hay una mutación rápida que abarque por igual a grandes y pequeños a un mismo tiempo. El centro del problema parece estar en la pérdida del idioma por la infancia y su solución radica lógicamente, al menos en su base fundamental, en la familia. El retroceso vertical precede siempre al horizontal. Son causa y efecto.

Si el menor no aprende el euskera cuando todo su mundo es el hogar, o si lo aprende mal, al llegar a tomar contacto con el medio exterior donde el bilingüismo le da más horizontes, ya no lo aprenderá; transcurridos treinta años, este menor de hoy será incapaz de trasladar la enseñanza a otros menores que vengan detrás, y así, en tres generaciones se llega al final.

Aipatu inkestan, 1935etik 1961era herri euskaldunetan gertatutako hizkuntza higadura eta galera batik bat belaunaldi gazteen artean agitu zela garbi ikusten da. Dirudenez, adin taldeetatik haurrak izaten ziren lehendabizikoak euskara galtzen edo hobeki erranda, ez ikasten, mintzairaz ez jabetzen. Neska-mutikoek ikasten ez bazuten (helduek egiten ez zutelakoz eta, betiere, eskola erdara hutsean zela aintzat harturik), hiztun berririk lortu ezinean, euskaldunak gero eta zaharragoak ziren eta gero eta bakanagoak. Hala gertatu zen bertze hainbat herritan, 1935ean hurrek euskara ikas-tera iritsi ez ziren horietan, Ángel Irigarayk III. multzoan sailkatu zuen Uztarrozen, erraterako.

Taula

Uztarrozeko euskararen ezagutza eta erabilera adin taldeka 1935ean eta 1961ean

UZTARROZE (Erronkaribar)	Euskaraz badakite?		Euskaraz egiten dute?	
	1935	1961	1935	1961
Adinekoek	Bai	Bai	Bai	Ez
50 urtekoek	Bai	Bai	Bai	Ez
30 urtekoek	Bai	Ez	Ez	—
Hurrek	Ez	Ez	—	—

Iurria: Morales de Rada (1963: 21) (nik euskaraturik)

Errenkaribarko herri horretan 1935ean 30 urtekoek (orduko gurasoek) euskara jakin arren ez zuten euskaraz egiten eta haurrak ez ziren mintzairaz jabetu. 1961ean euskara zekitenak belaunaldi bat goitiago zeuden (50 urtekoak ziren) eta ordurako euskaraz ez egiteko gizarte araua adineko jendearen artean ere hedatua zen. 2.2.1.2 ataltxoan azaldu dudán bezala, euskararen galtze-bilakaera horrek Nafarroako hainbat herritan hondar hiztunen gertakaria ekarri zuen, konparazione, Mariano Estornesek (1963) Izaban edo Irizarrek (1973a) Uztarrozen berean dokumentatua⁴⁷.

Orduan, herri euskaldun anitzetan hamarkadaz hamarkada euskara bizitasuna galduz zihoan eta hizkuntzaren erabilera ahuldurik eta eskolatik bazterturik, haurrak euskaldun hazteko baldintzak eskas eta urri bilakatzen ziren. Blas Fagoagak (1962: 212) bertzelako xehetasunik eman gabe, euskararen gibelamenduak aitzina egiten zuela sendetsi zuen: «... se puede comprobar, con dolor, cuánto ha progresado en estos 58 años [1904tik 1962 artio] la deseuskeringización de Navarra, pues si hoy en día se hiciese esa pregunta [euskaraz mintzatzen ote den], la línea de demarcación habría que tirarla mucho más al Norte».

Ana M^a Echaidek (1966: 257) Esteribarren gertatutako galera ikertu zuen. 1935ean haurrek euskara bazekiten eta euskaraz egiten zuten haraneko herrietan —Irigaray I. multzoan sailkatutakoetan— hiru hamarraldi geroago (1965ean) euskaldunak gutxi batzuk baizik ez ziren: Eugin 40, Iragin 15, Usetxin 10 eta Leranotzen 12⁴⁸.

4.1.3. Nafarroako Foru Aldundiaren ekimena euskararen aldera

Francoren agintaldiaren lehen hamarkadak euskararendako latzak izan ziren. Halaz guztiz, Nafarroan —*altxamendu nazionalean* jokaturako moduagatik— euskararen jazarpena eta zitalkeria ez ziren Gipuzkoan eta Bizkaian bezain bortitzak izan eta nafar agintariaren artean euskararekiko axolagabekeria nagusi bazen ere, Foru Aldundiaren⁴⁹ babespean —eta bereziki ahaldun jakin batzuen ekimenez— euskararen

⁴⁷ Irizarrek (1973a: 57) Uztarrozeko azken euskaldunaren lekukotasuna utzi zuen: «Consultamos al Párroco de Uztároz sobre la existencia de vascófonos en este lugar, por considerar que, de acuerdo con todos los informes y con la clasificación de Irigaray, era el pueblo de todo el Roncal en el que había más probabilidades de encontrar vascófonos. La respuesta que tuvimos fue negativa: La última persona que hablaba vascuence, D.^a Balbina Ederria y Bortiri, falleció el 16 de octubre de 1971, a los 83 años de edad».

⁴⁸ Echaideren (1966) ikerlan horren ondoko irakurketa kritikoez ez zituzten hizkuntzalari donostiarrek Esteribarrerako emandako datuak berretsi. Ángel Irigarayren ustez (*in* Irizar, 1981, I. lib.: 271) «... no fueron exactos» eta Irizarrek aitortu zuenez, berriemaile batek «... me confirmó la opinión de Irigaray sobre la inexactitud de aquellos datos» (ibid.: 202) eta Esteribarko aldaerari 150 hiztun gehiago gehitu beharra ikusi zuen. Izan ere, Irizarrek argitu bezala, Echaidek apez erdalduna izan zuen berriemaile eta horren aitzinean anitz euskaldun ahalketu omen ziren: «... parece que esa típica mezcla de timidez y respeto ante el sacerdote que no les entiende en su lengua materna, les impedía manifestarse como vascófonos» (ibid.). Apez erdalduna 1970ean zenduta, Irizarrek bere datuak bertze apez euskaldun baten bidez eskuratu zituen eta apez horrek «... zoko guziek astiro miretu zituen, eta apez erdaldunentzat izkutuen zauden 'vascofono'ak agertu zituen» (ibid.).

⁴⁹ Nafarroak Erresuma izateari utzi zionetik, lurraldearen gobernu organo nagusia Probintziako Aldundia izan zen. Nafarroari eskubide historikoak aitortu zitzaizkionez, Nafarroakoa Foru Aldundia zen, Estatuko bertze probintzien aldundiak ez bezala (Gortari: 1995: 51-56). Nafarroako Foru Aldundia zazpi ahaldunek osatzen zuten. Ahaldunak hautaketa ez-zuzenaren bidez aukeratzen ziren, merindade historikoen arabera (bina Iruñea eta Lizarra eta bana Zangoza [edo Agoitz], Erriberri [edo Tafalla] eta Tuteria). Hautaketa sistema horrek ahaldunen jokaeretan jauntxokeria ekarri zuen. Foru Aldundiaren boterea zazpi ahaldunen eskuetan biltzen zen eta erabakiak hartzeko prozedura ez zen ino-

iraupenerako zenbait jarduera sustatu ahal izan ziren. Jimeno Juriok (1997: 230) honela dio:

... el trato recibido en los cuatro herrialdes fue distinto. La persecución de la lengua en Gipuzkoa y Bizkaia, mediante decretos y acciones, no respetó ni ciertas lápidas de los cementerios. Debido al papel desempeñado en el conflicto, la tolerancia parece haber sido algo mayor en Navarra. Su Diputación no perdió la conciencia de que una de sus misiones era tutelar la lengua vasca, ni renunció a promocionarla.

Hori horrela, 1949an Nafarroako Foru Aldundiak, Jose Angel Zubiaur ahaldun hautatu berriak hala proposaturik, Iruñean euskara eskolak ofizialki berriz ematea deliberratu zuen. Gobernadore zibilak erabakia bertan behera uztea eskatu bazuen ere, ahaldunek deliberratutakoari gogor eutsi zioten eta euskara eskolek arrakasta handia izan zuten irauin zuten hogeitau urteetan, 1950etik 1970 bitarte (Jimeno Jurio, 1997: 230).

1950ean Foru Aldundia Euskaltzaindiari berriz diru laguntza ematen hasi zen. Urteko laguntza hori bideratzea Vianako Printzea Kultura Erakundearen⁵⁰ esku utzi zuen. Hamarraldi horietan kultura erakunde hori euskararen aldeko sustapen lana egiteko funtsezkoa izan zen. Gerra Zibilaren ondotik 1972 artio Nafarroako Foru Aldundiaren euskararen aldeko ekimena batik bat Vianako Printzea Kultura Erakundearen barnean euskaraz arduratzeko sortutako sailetik etorri zen.

Vianako Printzea Kultura Erakundeko Euskara Saila

1956an, nafar euskaltzale batzuen ekimenez (haien artean Miguel Javier Urmeneta, Jose Aguerre, Jose M^a Satrustegi eta Pedro Diez de Ultzurrun), Vianako Printzea Kultura Erakundearen barnean *Euskera Bizkortzeko Saila* sortu zen. Francoren agintaldiko hamarkada ilun horietan Euskara Sailak egiteko biziki garrantzitsua izan zuen; Jimeno Jurioren (1997: 231) hitzetan: «Su misión inicial fue importantísima: romper el hielo de infamias y prejuicios vertidos contra la lengua de los navarros».

Sailaren lehenbiziko ekimenak Nafarroako euskararen galera gelditzea izan zuen helburu, hizkuntzaren familia bidezko transmisioa sendotzearen bidez. Nire aztergaiari estuki lotutako ekimena baita, Euskara Sailaren sorrera eta lehen ekimen hori xehekiago azalduko ditut.

Irene López-Goñiren (2002: 152-166, 2003) ikerketari narraiola, arestian aipatu euskaltzaleen taldeak Nafarroako Foru Aldundiari euskararen alde egiteko plangintza

la ere gardena (bilkuren aztergaiak eta eztabaidak ez ziren publikoak eta gainera, aktak ez zituzten argitaratzen). Foru Aldundiaren jarduera ez zuen bertze ezein erakundek gainbegiratzen eta haren eskumener artean Nafarroako aurrekontu orokorrak onartzea zegoen.

1935etik eta Francoren agintaldi osoan Nafarroako foru ahaldun guztiak erregimenari atxikiak izan ziren. Dena dela, ahaldunen artean alde politikoak bazeuden, falangisten eta karlisten artean adibidez, eta Aldundiaren eginbeharraren gaineko ikusmolde desberdinak ere bazituzten; erraterako, hortik zetozen Felix Huarte eta Miguel Javier Urmeneta ahaldunen eta Julio Asiain eta Amadeo Marco ahaldunen arteko istiluak (García-Sanz, 1998: 17, 22, 24-25, 41; Andrés-Gallego, 2003: 41-42).

⁵⁰ Vianako Printzea Kultura Erakunde 1940ko urriaren 20an sortu zen Nafarroako Foru Aldundiaren organo ofizialtzat. Harrezkero bera arduratu zen Nafarroan kulturari lotutako zereginenez eta arlo horren kudeaketaz. 2003an Nafarroako Gobernuak kultura erakunde hori Kultura eta Turismo Departamentuari atxiki zion eta egun biek sail bakarra osatzen dute (503/2003 Foru Dekretua, abuztuaren 25ekoa).

ofizial baten beharra galdegin zion. Horretarako, euskarak iraun zezan egitasmo bat aurkeztu eta Aldundiko buruari Vianako Printzea Kultura Erakundearen barnean Euskara Bulegoa sortzeko proposamena egin zion. Euskararen gibelatzea gelditzea zuen xede, higadura eskualdeei («zonas de desgaste» direlakoei) bereziki eraginez. Euskara ahuldurik zegoen eremua Sakana, Imotz, Atetz, Odieta, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar, Aezkoa eta Zaraitzu haranek osatzen zuten. Izan ere, eskualde horietan helduek euskara bazekiten ere gazteek, ordea, ez; eta horrek euskararen galera ekar zezakeen. Hori horrela, Nafarroako ipar-mendebaldean euskara galduko ez bazen, euskara etxe bakoitzean lantzen hasi beharra zegoen (López-Goñi, 2002: 154): «... cada hogar ES UNA POTENCIAL ESCUELA VIVA DEL VASCUENCE. El abandono durante años de la zona de desgaste, significaría la retirada del vascuence a la zona Cantábrica de Navarra (Valle de Bidasoa y del Baztán)».

Proposamenak euskarak zituen bi gabezia handi aipatu zituen: alde batetik, prestigio falta, agintari, autoritate eta zenbait apezten axolagabekeriak ekarria; eta, bertzetik, pizgarri materialik eza. Hutsarte horiek betetzearren honako egitasmo hau aurkeztu zuten (ibid.): «Realizar una acción combinada de estímulo moral y material sobre la población escolar de la llamada zona de desgaste, progresivamente y valle por valle en cinco fases sucesivas. Matener a lo largo del plazo total una sección autoridad que sostenga los aspectos espirituales y de prestigio».

Proposatutakoaren barnean Vianako Printzea Kultura Erakundearen menpe euskaraz arduratuko zen atala sortzea zegoen. Euskara Bulego horretan boluntario talde batek eginen zuen lana. Bortz urteko plangintza apailatu zuten, urtez urte, higadura eremu horretako zenbait herri hartu eta horietako haur euskaldunei sariak emateko. Herri horietako eskola guztietan ikasturte bukaeran azterketak eginen zituzten haurrek euskaraz ba ote zekiten ikusteko eta euskaraz zekitenei bina sari emanen zizkieten: bat dirutan, aurrezki kutxako kartilla bat 250 pezeta zituena; eta bertze bat sinbolikoa, domina edo diploma. Nafarroako Foru Aldundia bera izanen zen sari emailea.

Euskaltzale talde horrek Nafarroako Foru Aldundiko buruari egitasmoaren xehetasunak aurkeztu zizkion: herrietako apezten eta eskoletako maisu-maistren laguntza eskatuko zuten, katekesi eta sermoietan euskara erabiltzeko eta haurren zerrendak igortzeko, hurrenez hurren. Euskararen prestigioa goratu beharra ikusten zuten eta, horretarako, zenbait bide proposatu zituzten. Gutxieneko aurrekontua ere eman zuten, 2.000.000 pezeta. Azken finean, zerbait egin beharrean zeudela adierazi zuten, deus ere egin ezean hogeitau urteren buruan euskara desagertuko baitzen (López-Goñi, 2002: 155-156).

1956ko azaroaren 28an, Nafarroako Foru Aldundiak Vianako Printzea Kultura Erakundearen barnean *Euskera Bizkortzeko Saila* sortzea erabaki zuen⁵¹. 2.2.I.I atalñoan azaldu bezala, Euskara Sailaren sortzeak Nafarroako Gerra aurreko euskaltzaleen eta

⁵¹ Handik urtebetera, Carlos Gortari Foru Aldundiko buru zelarik, Euskara Saila sortzeko erabakia Nafarroako Probintziako Aldizkari Ofizialean argitara eman zen ele bietan. Euskarazko testuak honela zioen:

«Naparroko Diputazioa naigabe saminaekin ikusten ari da izkuntze guztietan ederren eta arrigarrien dan Euzkera, jakintsu aundiak diotenez, naparroko euskal erriak beren euskal itzkuntza beren etxetatik kampa botatzen ari dirala. Galtze negargarri au gertatu ez dedin, dei egiten die euskeraz itz egiten dakitenei, jarraitzeko euskeraz itzegiten, beren umetxoei erakusten eta egiñalak egin ditzaten euskera zabaltzen.

Euskeraren ikasbide, bizkortze eta iraupenerako lan egingo duen sail berribat (una Sección nueva) Institución Príncipe de Viana badu Diputazioak.

Gerra ondoko mugimenduaren arteko zubia ahalbidetu zuen eta jarraipen hori, bai proposatutako jardueretan, bai bietan aritu ziren hainbat pertsonarengan nabaria da.

Euskara Sailak jarduera askotarikoak sustatu eta babestu zituen: euskara eskolak (Aldundiak Iruñean 1949an antolatzen hasitakoak eta gero, 1962an, hiriburuko apaiztegikoak. Bertze elkarte batzuek antolatzen zituzten euskara eskolak ere diruz lagundu zituen), Nafarroako Unibertsitateko euskara katedra, euskararen gaineko ikerketak, bertsolaritza, euskal jaialdiak eta euskarazko literatura. Vianako Printzea Kultura Erakundearen aldizkariaren *Euskera Gehigarria* (1966tik 1985 artio, tartean bizpahiru urteko hutsartez) argitaratu zuen eta euskarazko bertze argitalpen batzuei ere laguntza eman zien, erraterako, *Pan-Pin* eta *Umeen Deia* haur aldizkariak (López-Goñi, 2002: 166-178).

Euskara Sailak burutu zituen jardueren artean ardura gehien jaso zuena haur euskaldunei sariak ematearena⁵² izan zen. Ekimen horren gibelean Pedro Diez de Ultzurrun aritu zen bulkatzaile nekaezin (ibid., 165).

Haurrei emandako sariak euskaraz jakiteagatik

Euskara Sailak 1957. urte bukaeran egin zituen haurren lehen euskara probak, Sakanan. Lehenago, Pedro Diez de Ultzurrunen gidaritzapean, laguntzaile taldea Sakanako apezekin lanean hasi zen bertako euskararen egoera ezagutu, eskola adinean (4 eta 14 urte bitartean) zeuden haurren kopurua jakin eta azterketak egiteko xehetasunak lotzeko. Sakanako I.150 haur gerturatu ziren euskara proba egitera. Horietatik 845ek (% 73,5ek) euskaraz bikain, oso ongi edo gaintzeko moduan zekiten. Bertze 305 haurretatik batzuek ulertzen zuten, bertze batzuk nekez mintzatzen ziren eta bertzeek deus ere ez zekiten (López-Goñi, 2002: 160-161).

Haurrei partitutako sarien bidez neska-mutikoei ez ezik gurasoei ere euskara atxikitzeke bihotz eman nahi zieten. Diplomak honako testu hau zuen (1960an Irurritako neskatiko euskaldun bati emandako diploma. Ikus I. eranskina):

Naparroko Diputazioak, eta bere izenean Institución “Príncipe de Viana”-ko “Euskera-Bizkormen-Saillak”-k, ludiko itzkun zarrenetakoa Naparrako eta Españaren ederkun dan euskera dakilako, saritua izan da (neskatikoaren izen-abizenak) bere gurasoei euskeraren iraupenerako lanetaz esker ona erakutsiz, agerkai onekin Iruñan, (data) Euskera Bizkormen Sailla-ko Burua.

Sail ontan lan egiten dutenak pozik lagun egingo die euskaldun guziei euskeraren sendotzen eta iraupenerako lanetan.

Denbora gutxian, Naparroko euskal erri guziak ikustatuko ditugu, baita ere euskeraz itz egiten dakiten ume guziei sari edo premio ederra eman ere, beti euskera maite izan dezaten eta sekulan itzkuntza eder ori galdu ezdezaten.

Euskeraren alde Diputazioak jarri duen sail berri ontan lan egiten dutenak abenduaren lendabiziko amabost egunetako jai egunetan. Irañetikasi eta Urdian bitarteko erri guzitako umetxoak esamiñatuko dituzte, eta euskeraz itz egiten duten umetxo guziei sari ederra eman ere» (1956ko azaroaren 28ko Erabakia. Creación de la “Sección para el fomento del vascence”, *Boletín Oficial de la Provincia de Navarra*, 1957ko azaroaren 20ko alea, 139. zk.).

⁵² 2.2.I.I atalñoan azaldu bezala, haur euskaldunei sariak ematea ez zen lehen aldiz Euskara Sailari otu zitzaion jardueran. A. Irigarayk ([Iruñar], 1925) proposatu zuen eta Euskeraren Adiskideak elkarteak 1928tik 1933 bitarte burutu zuen.

Diplomez gain, diru saria zuen Aurrezki Kutxako aurrezki-libreta bana ere eman zieten haurrei euskara proban erdietsitako emaitzaren arabera (150 pezeta bikain lortu zutenendako⁵³, 100 oso ongi erdietsi zutenendako eta 75 gainditu zutenendako). Libretak bigarren orrialdean honako testu hau zekarren (ikus 2. eranskinean 1961ean Lekarozko neskatiko bati emandako aurrezki-libreta):

Ume maite ori: Naparroako Diputazioak dirutza au saritzat ematen dizu Naparroako izkuntz zarra dakizulako, Españiaren bitxi dan Euskera ederrean itz egiten jarraitu dezazun; baita ere nai du kristau zintzo, ikasle on, eta langille egoki izan zaitezela, Jaungoikoa, biarko egunean, asko goratzeko, eta Naparra eta zure aberri Españiari on asko egiteko.

Saileko kideek haur euskaldunei sari emate hori ez zuten ekintza isolatua izatea nahi. Neska-mutikoekin hasitako lanari jarraipena eman nahi zioten eta apezei haurren hizkuntza garapena begiratzea eskatu zieten, eskolan gaztelania ikasi baina euskara gal ez zezaten eta eskola aldia akiturik bi mintzairen jabe izan zitezten. Horretarako, urtero, herri guztietan azterketak egiten ez baziren ere, aitzineko urteetako ikasleei berriz proba eginen zieten eta euskara ezagutzaren emaitza hobetzen zutenei 50 pezetako saria emateko asmoa zuten (López-Goñi, 2002: 162).

1959rako, Sakanan ez ezik bertze herri hauetan ere eginak ziren azterketak: Larraunen, Basaburua Nagusian, Almandozen eta Aezkoan. Haurren euskara gaitasunaren gainean balioespena, oro har, ona izan zen: «Satisfacción por la conservación del Vascence» Aezkoako bi herritan izan ezik (ibid., 163). Berebat, Euskara Sailekoek egindako txostenetan aztertutako haur guztiek gaztelaniaz ere bazekitela espresuki aipatzen zuten, izan ere eskolak erdara ongi jakitea bermatzen baitzien (ibid.).

Ondoko urteetan ekimena Baztango, Malerrekako, Bortzirietako eta Leitzaldeko hainbat herritara zabaldu zuten. 1957tik 1966 bitarte iraun zuen jarduera horretan 6.192 haurrek eskuratu zuten saria euskara jakiteagatik (ibid., 164-165). Haurgurasoak ez ezik apezak eta maisu-maistrak ere saritu zituzten, horiek baitziren herrietako eskola haurren zerrendak igortzen zituztenak. Orobat, Euskara Sailekoek ibilitako herrietan euskarazko katiximak eta haurrendako aldizkaritxoak partitzen zituzten.

Euskara Sailaren jarduera hori euskararen iraupenerako eta batik bat, haur nafar euskaldunek mintzaira atxiki zezaten laguntzeko eraginkorrak izan ote ziren jakitea ez da erraza. 6.192 haurrek euskaraz jakiteagatik diploma eta diru saria jaso zuten eta horrek, segur aski, hizkuntzari loturiko pizgarri eta atsegina ekarriko zien⁵⁴. Berebat, anitz aldiz erdeinu eta ezespena baizik lotzen ez zitzaion mintzaira Foru Aldundiaren itzal eta babes agerikoez laguntzeak berebiziko garrantzia izan zezakeen hain keinu ttipia izan ez balitz⁵⁵. Oroz gain,

⁵³ 250 pezeta ematea aurreikusitako bazuten ere, arestian azaldu bezala.

⁵⁴ Imozko Etxalekun hazitako Sagrario Aleman (2008: 16 eta 17) euskaltzaina haur euskaldun saritu horietako bat izan zen eta honela dio: «Prestigioa ematearren, eta herri askotan gertatzen ari zena geldiarazi nahian, *Principe de Vianako Sección de Fomento del Euskera* zelakoak hainbat herritan bestak egin zituen eta euskaraz zekiten haurrei sariak ematen zizkien. Etxalekun, 1959ko maiatzaren 17an izan zen, Mendekoste egunean, goizean elizan elkartu zen jendea (...). Hitzaldia bukatuta, aurki ere, haurrek benetan itxaroten zuten ueña ailatxi zen, sarien ueña. Gozokiak, eta 50 pezeta zituen kartila bana haur bakoitzari *Caja de Ahorros de Navarra*. Hura zen hura kontentua!».

⁵⁵ Baztango Arizkun hazitako Pello Salaburu (2002: 25) euskaltzaina eta Euskal Herriko Unibertsitateko erretore ohia honela oroit da urte horietaz: «Uste dut nik debeku garai hartan baziren

artean euskara hain arbuiaurik egonda, hainbat hiztunendako ez bide zen ulergarria halako batean euskaraz egiteagatik sariak ematea. Iñigok eta Salaberrik (2005: 21) honela bildu dute Jose M^a Satrustegiren omenez egindako lanean:

Dena dela, jendeak ez zuen ongi ulertzen nola sariztatzen zituzten haurrak euskaraz ongi mintzatzeagatik, ordu arte zeharo galarazirik eta zigorturik egon baitzen, eskolan bereziki, baina ez bakarrik hemen. Honela kontatzen du Satrustegik: «Guraso batzuen harridura izugarria zen: “artean zigorra euskaraz hitz egiteagatik, eta orain saria?” —zioen isilka Berueteko zinegotzi batek herriko etxean sartu ginelarik guardia biren ondoan».

López-Goñik (2002: 165) Euskara Sailak hasieran ezarri zituen xedeariko bat, euskarari prestigioa ematearena, «...lortzeko bidean jarri zuela» iritzi du. Nire irudituan, Euskara Sailaren ekimen horrek hainbat familian eta herritan Aldundiaren euskararen balioespena aditzera eman bazuen ere, ez zen inola ere Nafarroako Mendialdeko haur euskaldunek euskara atxikitze aski izan eta ez dirudi belaunaldi berrien euskarazko sozializazioari laguntzeko eraginkor gertatu zenik.

1957tik 1972ra Foru Aldundiak euskara sustatzeko eman zituen baliabideak (gutxi, dena dela, Vianako Printzea Erakundeak kultura aferetarako zuen aurrekontuaren % I izatera ere ez baitzen iristen. López-Goñi, 2003) Euskara Sailaren bidez zuzendu ziren. Francoren agintaldian Nafarroako Foru Aldundiak euskara sustatzeko egindako jarduerak Euskara Sailean ziharduten euskaltzaleei esker burutu ziren, alegia, hein handi batean euskaltzale horien ekimenari zor zaizkio.

Nafarroako Foru Aldundiaren jarduerak euskara irakaskuntzan sartzea abalbidetzeko

Francoren agintaldiak ekarri zuen gaztelania hutsaren ezarpenak irakaskuntza hartu zuen bete-betean. 1945eko uztailaren 17ko Legeak, Lehen Hezkuntzari buruzkoak nazional-katolizismoaren harroinak bere egin zituen. Hitzaurrean Katolizismoa eta aberria, Espainia, ardatz harturik honela arautu zituen hizkuntzaren ingurukoak: «La lengua española, vínculo fundamental de la comunidad hispánica, será obligatoria y objeto de cultivo especial, como imprescindible instrumento de expresión y de formación humana, en toda la educación primaria nacional». Dena dela, Nafarroak Lehen Hezkuntzan zuen erregimen bereziak indarrean jarraitu zuen, aipatu Legeak 115. artikulua 4. puntuan aitortu bezala: «Se mantiene la vigencia del régimen establecido, respecto a la educación primaria, en la provincia de Navarra». Izan ere, Nafarroak 1936an Hezkuntza Batzorde Nagusia berriz paratua zuen indarrean, baina bere burua Francok ezarritako eraentzarekin guztiz bat egin zuen⁵⁶.

uharte ttipi batzuk (...) Baztanen, 1960. urtearen inguruan, haurrean, Durangoko idazle ezagun eta on batek euskaraz mintzatzeagatik herriko guardia zibil guztiak ipurditik zituen hartan, Nafarroako Diputazio frankistak dirua ematen zigun euskaraz genekienoi, azterketa baten bidez bagenekiela erakutsi ondoren. Dirua, eta oraindik etxean dudan agiri bat ere. Hauek, jakina, anekdota gisa hartu behar dira, hala baitira gainera, aldi berean sasien arteko lore usaindunak diren arren».

⁵⁶ Maeztuk (2002: 60-61) Hezkuntza Batzorde Nagusiaz honela dio: «La Diputación Foral buscó y logró la restauración foral en materia de enseñanza a través del restablecimiento de la Junta Superior de Educación el 11 de agosto de 1936, en plena Guerra Civil. La Junta Superior de Educación, como institución que había dirigido funcional y jerárquicamente la educación en Navarra en el Antiguo

Garai horretan euskararen irakaskuntzaren gainean Nafarroako Foru Aldundiak hartutako erabakirik aipagarriena 1967koa da. López-Goñiri (2002: 178-181) narraiola, Miguel Javier Urmeneta ahalduak, Jose Esteban Uranga Vianako Printzea Kultura Erakundeko zuzendariak eta Pedro Diez de Ultzurrun Euskara Sailburuak Nafarroako Foru Aldundiari 500 unibertsitario nafarren eskaera helarazi zioten. Unibertsitarioek ikasketxeetan euskara irakats zedin eta hizkuntzak aitorpen ofiziala jaso zezan galdegiten zuten. 1967ko ilbeltzaren 25ean Nafarroako Foru Aldundiak euskararen irakaskuntzarako eragin handikoa izan zen erabakia hartu zuen⁵⁷. Alde batetik, eskualde euskaldunetan edo ia euskaldunetan («en las zonas vascongadas o semi-vascongadas») euskara ikasi nahi zuten ikasleei egunero ordu erdiko euskara eskola ematea ahalbidetu zuen, betiere eskola ordutegitik at. Antolaketa Vianako Printzea Kultura Erakundearen esku utzi zuen eta programa hori has zitekeen herriak proposatu zituen: Ultzama, Elizondo, Doneztebe, Leitza, Lekunberri, Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu, Auritz, Aezkoa eta Otsagabia.

Bertzaldetik, Vianako Printzea Erakundeari haurrendako eskola txikiei, eskolaurrekoiei, eta helduendako eskolei —zeudenei edo sortuko ziren mota horietako ekimeinei— diruz laguntzeko baimena eman zion. Erabaki hori gerora euskarazko irakaskuntzaren hastapenatarako funtsezkoa suertatu zen.

Horretaz gain, Aldundiak egiten zituen izendapenetan, betiere eremu euskaldunetan aritzeko baziren, euskara jakitea meritutzat baloratuko zela ezarri⁵⁸ eta euskara sustatzeko elizjendearen elkarlana eskatu zuen.

Erabaki horiek aitzina eramateko Euskara Sailak kide bakarra eskas zuela eta, bertze bi izendapen egin zituen Pedro Diez de Ultzurrun sailburuari eginbehar berrietan lagun ziezaioten: Jose M^a Satrustegi arruazuarra, apeza eta euskaltzaina eta Jose Manuel Lasarte, Larraun-Etxarrikoa, apeza hori ere.

Lopez-Goñik (2002: 180) dioenez, erabaki horrek izan zuen garrantzia ez zen berehalaxe ikusi, urteak pasatu beharke zuten horren emaitzari antzeman ahal izateko. Halere, erabaki horri esker, ikasturte horretan berean hainbat herritako eskoletan euskara eskolak ematen hasi ziren⁵⁹ eta horrek haur anitzi euskara zerbait ikasteko eta hizkuntza etxekoa zutenei alfabetatzeko aukerak zabaldu zizkien.

Régimen, pretendía volver a ser la ejecutora de la política educativa de Navarra (...). Los grandes deseos de reintegración de 1936, llevaron a la Junta Superior de Educación a redactar el 29 de agosto de 1939 un Reglamento de Enseñanza Primaria (...). [L]a Diputación que sustituyó en 1940 a la anterior, se debía sentir muy vinculada al nuevo Estado que había sido capaz de desplazar a los republicanos anti-cristianos y establecer un nuevo gobierno de corte dictatorial, así que deshizo el camino andado y tan solo mantuvo la Junta Superior de Educación sin demasiadas pretensiones».

⁵⁷ “Organización enseñanza vascuence”, *Boletín Oficial de la Provincia de Navarra*, 1967ko martxoaren Ieko alea, 26. zk.

⁵⁸ Miguel J. Izuk (2013: 321, 456. oin-oharra) ez du erabaki hori eraginkortzat jo: «Hay que tener en cuenta que el alcance de esta disposición fue muy limitado debido a que la mayor parte de los empleados provinciales estaban destinados en Pamplona y, también, a las amplias y discrecionales facultades de la Diputación al respecto (...). Cuando no utilizaba la libre designación la Diputación solía acudir a la oposición, procedimientos ambos que excluían valorar el mérito del conocimiento del vascuence».

⁵⁹ Iñigok eta Salaberrik (2005: 22) Jose M^a Satrustegiren lekukotasun hau jaso dute: «Diputazioan beldur ziren, nonbait, euskarazko klaseak emateko erabakia hartu ondoren zenbait herritan ez zituztela igorriko haurrak euskara ikastera, gurasoengan ikusten zen euskararekiko jarrera epelagatik batik bat. Izan ere, Altsasuko emakume zahar batek honela omen zioen: “Euskara pobreen hizkuntza da, gaztelania aberatsena”. Baina 1968an ustekabe handia izan zen altsasuarrek agertutako jarrera. Haurrek euskara ikasteko matrikula ireki eta berrehunetik gora apuntatu. Gehienez ehun eta hogeiren bat ume hiru gelatan

Ikertzaile horren arabera, 1959tik 1966ra bitarte haur nafar euskaldunek honako jarduerak hauetan bakarrik izan zezaketen harremana euskara idatziarekin, hau da, neska-mutikoek euskaraz alfabetatzeko aukera bakarrik hauek zituzten: a) kristau ikasbidea euskaraz jasotzea, katixima ere euskaraz irakurtzea; b) eskolatik at euskara eskolak jasotzea; eta c) maisu-maistra euskaldunek erdarazko eskolatzearruntan euskaraz idaztera bultzatzea. Horretarako, bertzerik ezean, *Umeen Deia* aldizkaritxo eskura zuten (ibid., 167).

1970ean Francoren Gobernuak Hezkuntza Lege Orokorra onartu zuen. Lege hori dugu ikasleen jatorrizko hizkuntza eskolaurreko eta OHOkoko edukien artean sartzeari ahalbidetu zuen lehena⁶⁰. Urte horren bukaeran, Foru Aldundiak eskolaurreko eta OHOkoko ikastetxe elebidunak (euskara eta gaztelania) sortzea eta diruz laguntzea ahalbidetzen zuen erabakia hartu zuen⁶¹.

Handik bi urtera 3365/1972 Dekretuak, azaroaren 30ekoak⁶², Hezkuntza Lege Orokorra ezarritakoa garatuz, Nafarroako hezkuntza eraientza berezia zehaztu zuen. Handik gutxira, 1972ko abenduaren 15ean, Foru Aldundiak Hezkuntza Lege Orokorra aintzat harturik, euskararen irakaskuntzarako eta sustapenerako Oinarriak⁶³ onetsi zituen. Oinarri horietan Aldundiak eskualde euskaldunetan (zedarritu ez bazituen ere) euskararen irakaskuntza sustatu nahia agertu zuen hizkuntzaren ezagutza zabaldu eta hobetzeko asmoz, euskara jatorrizko hizkuntza zuten haurrei lehentasuna emanez. Oinarriek eskualde euskaldunetako eskolaurreko eta OHOkoko ikastetxeetan irakaskuntza elebiduna ezartzea aurreikusten zuten, bai eta borondatezko euskara eskolak ere Nafarroako bertze eskualdeetan eta gainerako ikaste mailetan.

Oinarri horien babespean euskararen irakaskuntza bultzatu zen baina ez, ordea, euskara irakasbide hartzen zuena. López-Goñik (2002: 221) azaldu bezala, Oinarri berriek ikastolen egoerari hobekuntzarik ez bazekarkioten ere, 1967koen aldean ikastetxe publikoendako urrats handia ahalbidetu zuten. Alde batetik, ikasketa programean, ikasorduetan, euskara irakatsi ahal zen; bertzaldetik, nahiz eta euskal eskualdeetako ikastetxei lehentasuna eman, gainerako eskualdeetan euskara irakastea ez zen erabat eragozten.

1972an, Nafarroako Foru Aldundiak Euskara Sailari irakaskuntzari loturiko eginkizunak kendu zituzkion eta Aldundiaren Irakaskuntza Zerbitzuari eman (ibid., 213-214). Horren ondotik Euskara Saileko kideek dimititu zuten eta euskararen inguruko ekimenetarako bertze aro bat hasi zen. Gutxika, Nafarroan euskarazko irakas-

sartzeko kalkuluak egin eta beste horrenbestek izena eman. Haurrak matrikulatuko ez zirelakoan, irakasle falta izaki arazoa. Helduekin ere antzeko zerbait gertatu zitzaizen, gaueskola ireki orduko laurogeita bat gaztek eman izena. Nork erran —dio Satrustegik 1968ko artikulua batean—, urte pare bat bakarrik lehenago Burundako hiriburuan horrelakorik ikusiko genuela».

⁶⁰ Izuk (2013: 517-518) aipatu legez honela dio: «... la LGE [Ley General de Educación] de 1970 supuso la ruptura, tímida, del rígido monolingüismo que había imperado en el sistema educativo español durante dos siglos. Su art. 14 preveía en la Educación Preescolar juegos y actividades de lenguaje “incluida, en su caso, la lengua nativa”, mientras que el art. 17 preveía introducir en la EGB, además del castellano y de una lengua extranjera, “el cultivo, en su caso, de la lengua nativa”».

⁶¹ “Acuerdo de 16 octubre 1970. Creación de Centros bilingües y ayudas” (Diputación Foral de Navarra, 1981: 1028).

⁶² BOE, 1972ko abenduaren 14ko alea, 299. zk. Dekretu horren aplikazioa xeheki ikusteko: Maeztu (2002: 125, 146-147).

⁶³ “Bases para la enseñanza y fomento del vascuence”, *Boletín Oficial de la Provincia de Navarra*, 1973ko urtarrilaren 10eko alea, 5. zk.

kuntzaren egoera aldatuz joan zen. Ordu erdiko eskola ematetik euskaraz irakasbide zuten eskolaurreak sortzera igaro zen. Aldundiak emandako aukera horretaz baliaturik hainbat ikastola txiki sortu ziren Nafarroan (ibid., 181).

Francoren agintaldiaren hondarrean Espainiako Gobernuak I433/1975 Dekretua, maiatzaren 30ekoa⁶⁴, eskolaurreko eta OHOk programetan ikasleen jatorrizko hizkuntzak sartzeari arautzeko onartu zuen. Dekretu horrek Espainiako jatorrizko hizkuntzak ikasleen ikasgai borondatezkatzat eta «... con carácter experimental» sartzeari baimentzen zuen eta, alde horretatik, Aldundiak 1972an onetsitako Oinarrien aldean gibelurratsa zekarren⁶⁵. Espainiako Gobernuak 1970eko Legean ikastolak ofizialki onartzeko aukerarik eman ez zuenez, pentsatzekoa zen 1975eko Dekretuak gai horri helduko ziola, baina arau berriak garai horretan Nafarroan abian zeuden 25 ikastolen arazoari bizkarra eman zion (ibid., 222).

4.1.4. Nafar euskaldunak 1970ean

Sánchez Carrión (1972) eta Irizar (1973a) ikertzaileei esker 1970. urtean Nafarroako euskara zertan zegoen ezagutu dezakegu, lehen aldiz hizkuntzaren egoera, euskaldun kopuruak, hiztunen elebiduntasun motak eta hizkuntza jokoerak aztertu baitziren.

Sánchez Carrionek (1972: 186-187) Nafarroako euskararen gibelkako joera utzi zuen agerian:

– Pirinio Hegoaldeko eremuan uhin moduko atzerakadak aspaldian gibelarazi zuen euskara. Iparralderago berriz, Erronkaribar eta Aurizperri aldera ziri moduko galera gertatua zen. Luzaide eragin horretatik kanpo zegoen.

– Belatetik ezker aldean gelditzen den Mendialdean, erdara euskarari lurra jaten ari zitzaion hiru bidez:

- Iruñeritik hurbil dauden herrietan hiriburu aldetik heldu zen uhin moduko eraginak gibelatu zuen euskara eta galera ekarri. A. Irigarayren I. eta II. multzoetan zeuden herri batzuetan (Beratsainen, Amalainen, Ihabenen, Latasan) 1970erako euskara gizarte erabilerarik gabeko mintzaira zen edo hizkuntza galtzeko bilakaera arunt aitzinaturik zegoen.
- Iruñeritik urrutiago dauden herrietan, eremu euskaldunari joak diren horiei ziri moduko atzerakadak eragin zien galera. Ziri gisako eragin hori Arabatik, Sakanaren mendebaldetik eta ekialdetik, Irurtzundik sartzen zen. Ultzaman eta Basaburua Nagusian euskararen gibelatzea berriki hasi zen: Ultzaman atzerakada Odietatik hasia eta Basaburua Nagusian Iruñea-Donostia errepidetik, Udaben barrena.
- Mendialdean, baserria nagusi den Nafarroa hezean, euskara galtzeko modua bertzelakoa zen. Horietan euskarak gibelerara egiten zuen mantso-mantso eremu euskaldunaren barneko gunen erdalduntzaileen eraginez: Altsasu (industrializatzeko garaian kanpoko jendearen erakartzailea zen), Lekunberri

⁶⁴ BOE, 1975eko ekainaren Ieko alea, 156. zk.

⁶⁵ Izuk (2013: 520) honela balioesten du: «Una regulación restrictiva respecto del propio texto de la LGE [Ley General de Educación], que llegaba tarde y estaba sobrepasada por la realidad ya que las lenguas distintas del castellano se estaban introduciendo, y no solo con carácter experimental y voluntario; quedó inaplicada dado los cambios políticos y administrativos que se sucedieron inmediatamente».

eta Bera (kanpoko jendearen uda lekuak ziren), Doneztebe eta Elizondo (gune administratiboak ziren), Irurita eta Oronoz-Mugairi (bidegurutzean zeuden); karabinero eta guardia zibilen etxeak egoteak ere eragina zuen.

Atzerakada gorabehera, oraindik Nafarroaren ipar-mendebaldean euskarak bizitasun handi-handia zuen herriak baziren. Baina horietan ere, gutxika bazen ere, euskara gainbehera heldu zen (Sánchez Carrión, 1972: 78):

... contra lo que se piensa, habida cuenta de los handicaps que se le ofrecen hoy al vascuence, de la difusión de los medios de comunicación, todos ellos en castellano, del fomento de los intercambios y comunicaciones, desconocidos en épocas anteriores y que enseñan al euskaldun lo escaso y excepcional de su área lingüística a diferencia de la expansión y vitalidad de las lenguas romances vecinas, el vascuence está oponiendo en esta área una resistencia comparativamente mayor que la que opuso en épocas pasadas, en las zonas de las aldeas, cuando razones de practicismo o utilitarismo no se habían interpuesto aún como obstáculos decisivos que cortaran el desarrollo del vascuence.

Ikertzaile murtziarrak euskararen belaunez belauneko hizkuntza transmisioaren deskribapen nahikoa sistematikoa eman zuen herriz herri. Datu horiek 35 urte lehenago Ángel Irigarayk eskuratutakoen aldean paratu eta hizkuntza sozializazioaren joera azter daiteke. Hau da, Irigarayk (1956) bereizitako I. multzoan —haurrek euskaraz zekiten eta euskaraz egiten zuten horretan— sartutako herriak⁶⁶ hartu eta 1970ean Sánchez Carrionek (1972) jasotako datuen aldean paratuta, oro har, urte gutxitan —belaunaldi bakar batean— hizkuntza sozializazioaren moldea aldatu zela ikus daiteke. Hala gertatu zen Irigarayren multzo horretako herririk gehienetan: Aezkoako Orbaran, Txepetxek ez zuen euskaldunik aurkitu; gainerako herri ia guztietan (Aezkoako Hiriberrin, Abaurregainan, Abaurrepean eta Arian; Esteribarko Eugin, Iragin, Usetxin eta Leranotzen; Anueko Etulainen eta Aritzun; Odietako Latasan; Ultzamako Eltson eta Iraizotzen, Atezko Beratsainen eta Arakilgo Irañetan) euskaldunak baziren baina heldu-adinekoak denak, 40-50 urtetik goitikoak kasurik onenetan, anitzez zaharragoak bertze batzuetan. Gazteak eta haurrak, aldiz, erdaldunak ziren denak, haietarik inork ere euskaraz ez zekielako. Honela zioen Sánchez Carrionek (1972: 140) Eltson kausitu egoeraz:

Habitan hoy en Elso 18 familias. En todas hay miembros que sepan el euskera, mayores de 40 años, que sin embargo hablan habitualmente el castellano en casa pues los hijos son castellanófonos. Pero entre ellos, en la taberna, en las faenas agrícolas, suelen utilizar el vasco todavía. De 40 años para abajo bastantes son los que lo entienden sin saber hablarlo; pero los jóvenes ya no lo entienden en absoluto

Herri bakar batean, Imozko Muskitzen euskarak herrian bizi ziren 12 familietan hizkuntza nagusia izaten zirauen. Denek egiten zuten euskaraz, aitatxi-amatxik, aita-amek eta haurrek. Erdaldun bakarra herriko maistra zen (ibid., 159-160).

⁶⁶ Hauek dira Irigarayk (1956) haurrek euskaraz zekiten eta euskaraz egiten zuten herrien multzoan sartutakoak: Jaurrieta, Espartza (Zaraitzu); Hiriberrin, Abaurregaina, Abaurrepea, Orbara, Aria (Aezkoa); Mezkiritz, Lintzoain (Erroibar); Eugi, Iragi, Usetxi, Leranotz (Esteribar); Etulain, Leazkue, Egozkue, Aritzu (Anue); Latasa (Odiet); Eltso, Iraizotz (Ultzama); Beratsain, Ziganda (Atetz); Muskitz (Imotz); Irañeta (Arakil).

Beraz, 1935etik 1970 bitarte, Irigarayk egin ikerlanean, hurrek euskaraz egiten zuten herrietan —Muskitzen ez bertzeetan⁶⁷— euskararen familia bidezko transmisioa etena zen. Sánchez Carrionek Irañetaren kasurako idatzi bezala: «... los niños de 1935 son los últimos vascófonos» (ibid., 63). Hau da, 1935eko neska-mutiko horiek euskaraz sozializatu ahal izan zen hondar belaunaldia ziren. Txepetxek Irañetan aurkitu egoera honela azaldu zuen (ibid., 42-43):

En Irañeta hablan y conocen el vasco las personas de treinta y cinco años en adelante, siendo aún en alguna de avanzada edad habla exclusiva por conocer deficientemente el castellano. Se habla en las familias entre los miembros mayores, por encima de la edad indicada: esposos entre sí, abuelos con los padres. A los niños se dirigen siempre en castellano.

Ángel Irigarayk aztertu ez eta euskalduntzat eman zituen herri batzuetan ere hiru hamarkadetan euskararen belaunez belauneko jarraipena hautsia zen. Euskara baizik ez zekien adineko jendea eta euskaraz egiten ez zuten umeak herrikideak ziren (ibid., 104):

[Elgorriaga]... el vascuence es la lengua usual de los adultos; todos de ellos, oriundos, conocen el vasco. No así los niños, castellanófonos en su totalidad, que aunque entienden el vasco no lo hablan entre ellos ni en casa (contestan en castellano cuando se les dirigen en vasco).

Quedan personas de avanzada edad que tienen el vascuence como lengua única.

Ángel Irigarayk ezarritako euskararen muga horren barneko eremu euskaldunean egoerak hagitz desberdinak ziren 1970ean. Sánchez Carrión ibilitako Nafarroako Mendialdean euskara galbidean edo galduta zuten haran-eskualdeak zeuden (Erronkaribar, Erroibar, Gulibar), aurreko hamarkadetan erdaldunduak (Zaraitzu, Aezkoa, Auritz-Orreaga, Atetz, Ultzama, Odieta, Belate Hegoaldea eta Arakil), bai eta gutxi-asko euskara gizarte bizitzan bizirik zuten eremuak ere (Baztan aldea, Bertizarana, Malerreka, Imotz, Basaburua Nagusia, Basaburua Txikia, Leitzaldea, Bortziriak, Araitz-Betelu, Larraun eta Burunda-Aranatz). Euskaldun hazten ziren haurrak azken multzo honetan baizik ez zituen kausitu, baina ez herri guztietan. Horren erakusgarri, Baztango hamabortz herrietan dokumentatutako euskararen gizarte egoera desberdinak eta familietan haurrak euskaraz haztearen inguruan herri batetik bertzera zeuden aldeak. Haraneko herrixka gehienetan (Azpilkuetan, Berroetan, Zigan, Gartzainen, Anizen, Amaiurren, Erratzun...) neska-mutikoak euskaldun hazten baziren ere, Elizondon, Iruritan eta Oronoz-Mugairin umei ez ohi zitzairen etxean euskara erakusten eta ikastolara joan ezean hurretan ez zuten euskara ikasterik izaten (ibid., 115-126).

Txepetxek ohartarazi bezala, hainbat herritan familian haurrak euskaldun hazten baziren ere, erdara hutsezko eskolak ahuldu egiten zuen neska-mutulen euskarazko sozializazio prozesua. Halaz guztiz, zenbait herritan (Basaburuko Igoa eta Arraratsen, edo Baztango Amaiurren, adibidez) euskarak zuen bizitasunak kanpotik etorritako

⁶⁷ Sánchez Carrionek ez du Leazkue eta Egozkue herrien gaineko daturik ematen. Aipamen txiki bat egiten du Egozkuen heldu euskaldunak bazirela susmatzeko bide ematen duena (1972: 129). Bi herri horietako egoera Etulaingoaren antzekoa dela pentsatzen ahal dugu, hau da, 1970ean heldu euskaldunak baziren baina gazteak eta haurrak orduko erdaldunak izanen ziren.

familia erdaldunen haurrak ere euskara ikastera eramaten zituen, «... pues la relación con los chicos de su edad les forzaba a desenvolverse en vasco» (ibid., 144).

Euskararen gizarte ezagutza eta erabilera higitzen hasia zen herrietako hiztunen elebiduntasun mailek eta adin taldeen hizkuntza jokabide desberdinek hagitx konplexu eta ez-egonkor bihurtzen zuten herri euskaldunen egoera soziolinguistikoa. 1970ean Nafarroako euskararen egoera konplexua azaltzeko geografia linguistikoko historikoari lotutako ikermolde eta ereduak jadanik ez zutela balio ohartzen lehena izan zen Txepetx. Eskualde euskaldunetatik kanpo euskararen indartze edo berreskuratze zantzuak arakaten aldiz, ez zen saiatu. Sánchez Carrionek ez zuen Mendialdetik landa, hiri-herri erdaldun(du)etan bizi ziren euskaldunen egoera azaleratu. 1970ean zazpi ikastola zeuden Nafarroan, horietatik lau berak aztertu zuen eremutik kanpo. Euskara orduko gertakari hiritarra ere bihurtzen hasia zen.

1973an Pedro Irizarrek “Los dialectos y las variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico” argitaratu zuen. Ikerlan horretan 1970. urtean ziren euskaldunak kalkulatu zituen. Anarterainoko joerari segituz, azterketa zehatza bertako euskara solasten zen eremura mugatu zuen. Nafarroako Mendialdean 36.143 euskaldun⁶⁸ zeuden. Eremita horretatik kanpo Nafarroako bertze herri-hiritan bizi ziren euskaldunendako kopuru zehatzik ez zuen eman. Lana hagitx interesgarria zait 1970 urtean Nafarroan zegoen euskaldun kopurua ezagutzeko. Alderdi kuantitatibo hutsez gain euskara mintzatzzen zen herrietako berriemaileengandik informazio kualitatiboa ere jaso zuen (euskararen galera, hiztun berrien irabaztea, adin taldeen ezagutza eta erabilera, euskararekiko jarrerak, herri euskaldunetan nor zer erdaldun...). Horren erakusbide, Odieta haranaren egoeraz, honela dio: «Cuando yo vine, el año 1933 —nos dice el Párroco de Anocíbar— en todos estos pueblos, Anocíbar, Cíaurriz, Ripa, Guenduláin, Latasa, Ostiz... se hablaba bastante el vasco, pero ya han fallecido los que entonces lo hablaban y han quedado los hijos y éstos unos lo saben, pero hablan poco» (Irizar, 1973a: 45).

Berak eskuratu datuak aurreko ikerketek eman zituztenen aldean paraturik, Irizarrek zenbait herritan galtze joera iraultzen hasia zela ohartarazi zuen. 1970eko euskaldun kopuruetan ikastolen eta helduendako euskara eskolen bidezko *irabaziaz* zalantzarik gabeko zat jo zituen: «El aumento de personas conocedoras del vascuence es evidente...» (ibid., 50). Erraterako, Erroibarren gainean honela idatzi zuen (ibid., 48-49):

ERRO.- Como se aprecia en las observaciones de nuestros colaboradores, se realizan, en algunos lugares, laudables esfuerzos para enseñar el vascuence a niños y adultos. Creo que ello puede explicar las cifras de 45 y 32 vascófonos en Espinal (donde hay Ikastola), frente a los 7 que, para 1967 señalaba Llorente Maldonado (...); así como la cifra de 25 vascófonos de Cilveti, frente a los 10 que en 1968 señalaba A.M. Echaide...

⁶⁸ Irizarrek (1973a: 9-10) *vascófono* dio: «Empleamos la denominación de vascófono en su más amplio sentido, es decir, incluimos en esta categoría, no solamente los que hablan habitualmente la lengua vasca, sino también los que emplean con mayor frecuencia otra lengua (castellano, francés, etc.). Entran en esa categoría, para nuestra encuesta, los bilingües y los que hablaron en su juventud, aunque ahora por su aislamiento y edad, hayan perdido parte de su facilidad de empleo. Estos son los únicos y preciosos informantes en las zonas donde agoniza la lengua».

Sánchez Carrionen (1972: 23-24) irizpidea garbiagoa da: «... debemos entender que el cese del vascuence se produce donde deja de hablarse, no donde deja de conocerse».

Por otra parte, en los lugares de Erro y Viscarret-Guerendiáin, en los que, de acuerdo con la clasificación de Irigaray, en 1935, «los de 50 años y más lo saben, pero no lo usan», no es presumible que queden en la actualidad vascófonos oriundos, parece indudable que los ahora existentes procedan de esa encomiable labor de los Párrocos (o, en su caso, de las ikastolas) y quizá también de la inmigración. (...)

Obsérvese la concordancia de los datos de nuestros distintos colaboradores en algunos lugares (Loizu, Olóndriz e incluso Esnoz) y las divergencias en otros (Erro, Espinal), debidas indudablemente a que, por lo menos, una gran parte de los vascófonos de estos lugares han adquirido (o están adquiriendo) el conocimiento en los momentos actuales. En estas condiciones es lógica la imprecisión de los datos, pues no sólo es difícil fijar cuántos poseen la lengua en un momento dado, sino que, además, su número puede experimentar variaciones relativamente rápidas en el tiempo.

Irizarrek (1981, I. lib.: 239-267)⁶⁹ bertako euskara makaldurik zuten Nafarroako eskualdeetan 1935etik 1970 bitarte gertatu zen euskal hiztunen galera kalkulatu zuen. Errokariera (Bidankoze, Garde, Burgi, Urzainki, Errokkari, Uztarroze eta Izaba herrietako euskara) erabat desagertutzat eman zuen. Zaraitzuera 1.500 hiztun izatetik 330 izatera jaitsi zen (% 78ko galera), eta Aezkera 1.800 izatetik 530 izatera (% 71eko galera). Hego-nafarreran (honako aldaera hauek bildurik: Eguesibar, Olaiibar, Artzibar, Erroibar, Auritz, Oltza eta Gulibar. Gareskoa eta Zizurkoa, kenduta, horiek 1935erako desagertuta baitzeuden) 3.900etik 600era murriztu ziren bertako euskaldunak (% 85eko galera).

Laburbilduz, lehendik zetorren eta Erizek (1997) 1863tik 1936 bitarte aztertu zuen Nafarroako euskararen galtze joera ez zen 1970eko hamarraldi artio gelditu. 1935etik aitzin Nafarroako euskararen egoera gutxi-asko azaltzen duten lanetan —eta betiere kontuan hartuta erdara hutsezko eskolatzea ezarrita zegoela— hainbat herritan familia bidezko euskararen transmisioaren etena eta euskarazko sozializazioarako zailtasunak aipatzen ziren. Mendialdeko eskualde euskaldunetan ere egoera ez zen homogeneoa eta zenbait herritan haurrak ez ziren euskaldun hazten. Horrekin batera, hiztun berrien gertakaria agertzen hasten da.

4.2. EUSKARAREN BERRESKURAPENAREN HASTAPENAK ETA ARAUBIDETZEA

1960ko hamarkadan Francoren agintaldiaren gordinkeria beraturik, ekimen xume batzuen izpiak hasi ziren euskal kulturaren eremuan argi egiten⁷⁰. Hego Euskal Herrian diktadorearen eraentzaren kontrako gizarte mugimenduaren parean, euskararen eta euskal kulturaren aldeko aldarrikapena hasi zen. Intxaustik (1990: 158) honek dio: «... [E]uskaldungoak gogoberrituta sentitu zuen bere burua. Gerratearen oroitzen larrienak samurtu ziren ordurako; belaun gaztea indarrean zetorren (...).

⁶⁹ Irizarrek 1973an “Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo” (1973b) ikerlanean emandako kopuruak lan horren ondoko argitalpen batean (1981) moldatu zituen. Nik azkeneko datuak bildu ditut, egileak berrikusita baitaude.

⁷⁰ Urte batzuk lehenago, 1956an, Parisen antolatu zen Euskal I. Mundu-Biltzarrak euskal kultura hauspotzen lagundu eta haize berria ekarri zuen.

Hizkuntzaren lotsa galdu, eta harrotasunez heldu zitzaion euskalgintzari. Nabaria da hitzunen kontzientzia berritze hau».

Nafarroan Erregimenaren aurkako gizarte ekimenak ez zuen euskararen aldarrikapena bere eginda; halere —SA berriemaile adituaren hitzetan— bi mugimenduek nolabait «... elkar elikatzen zuten neurri batean (...) mugimendu berriak ziren biak eta sistemari aurre egiten ziotenak. Alde horretatik, hurbilpen bat bazen». Jimeno Juriok (*in* zenbaiten artean, 1997: 12) Francoren agintaldiko azken hamarkada horretako giroaz honela dio: «Como sucedía con reuniones clandestinas de movimientos políticos y culturales del momento, surgieron “aulas” para el aprendizaje de la lengua por adultos en pisos, sacristías y talleres. En Iruñea y en los pueblos brotaron en cualquier parte gaueskolak, euskaltegiak y “academias”».

Euskararen aldeko gogo berria euskal kulturaren hainbat egitasmotan gauzatu joan zen. Jimeno Juriok (1997: 229-265) 1960ko hamarraldian hasitako garaiari «Eusko Berpizkundea» deitu dio, Satrustegik (2003: 77-80) «Gerra osteko pizkundea». Izan ere, gau-eskolekin eta ikastolekin batera bertze ekimen batzuk sortu ziren helduen euskalduntze-alfabetatzea eta euskarazko irakaskuntza indartu zituztenak: aldizkariak, irriatiak, kultur asteak, bertso txapelketak, jaialdiak, taldeak eta elkarteak. Gerora euskararen eta euskal kulturaren garapena zurkaiztuko zuten gizarte erakunde eta ekimen funtsezko batzuk hamarkada horretan eta ondokoan ernamuindu ziren: Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka (1965), euskarazko literaturaren loratzea (Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957), euskal kantagintza berria (*Ez dok amairu*, 1966–1972), euskara batua (1968), Udako Euskal Unibertsitatea (1973; Iruñeko uda ikastaroak 1977an), Euskal Herrian Euskaraz (1979) eta azken horrekin batera euskararen gizarte egoera hobetzeko diskurtso berria. Euskararen berreskurapenaren hastapenak testuinguru horretan kokatu behar dira ezinbestean. Alde horretatik, Nafarroan hasten dena «... ez daiteke isolatu (...) Euskal Herrian zen mugimendu orokorretik» (SA).

Vilchesek (2002b: 121) 1970etik 2000 bitarte Nafarroan euskarak izan dituen testuinguru soziopolitikoaren azterketan, XX. gizaldiko zazpigarren hamarkada *ideologia-
ren eszenatokitza*t definitu zuen. Izan ere, garai horretan euskararen jarraipenerako eta gizarte zabalpenerako ezinbesteko bilakatu diren helduen euskalduntzea eta euskarazko irakaskuntza bultzatu zituzten taldeen eta subjektuen kontzientzia agertzen baita nabarmenen: «Kontzientzia handia izan zen hedatze prozesu geldo horren aldeko jarriaren oinarri» (*ibid.*, 122).

Euskarak Mendialdeko herrietan iraun zuen nekazarien hizkuntzatzat, baina 1970eko hamarkadan batik bat Iruñean hasi zen euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendua, ezkutuan —garaiko bertze mugimenduak bezala— baina indar handiz.

4.2.I. Berreskurapenaren lehen zantzuak

Euskararen geografia historikoari ekarpenak egiten segitzen zioten lanak (A. Irigaray, 1974, kasu) baziren ere, 1970eko hamarkadan euskararen gibelkako joeran nolabaiteko uzkaillte seinale garbiak hasi ziren agertzen, bai eta hizkuntzaren biziberritze zantzuak ere Iruñean eta bertze hiri-herri erdaldunduetan (J.A. Irigarai, 1973, 1977; Euskaltzaindia, 1978, 1979; Jimeno Jurío, 1995, 1997). Gizartearen aldeko jarrerak euskararekiko zabaldu eta indartu ziren eta 1960ko hamarkadako euskararen

irakaskuntzaren hastapenei 1970eko hamarraldiko ikastolen gizarte mugimenduaren sendotzeak jarraitu zien (López-Goñi, 2002).

1973an Jose Anjel Irigaraik (Ángel Irigarayren semeak) *Euskera eta Nafarroa* argitaratu zuen. Oraindik euskararen geografia historikoaren galeraren logikaren arabera azaltzen du euskararen bilakabide historikoa. Dena dela, «... euskeraren beherakada» noiz hasten den eta nola izan den (Irigarai, 1973: 22) galderen ondoan, bertzelako interesa ere azaltzen da: «Zertan datza, bada, euskararen iraupena?» (ibid., 28). Baserrietako bizimoduari esker gorde da euskara, baina aterabidea «... nehun izatekotan industrial gizartean dagoela» (ibid., 42) garbi ikusten du Irigaraik. Hau da, eskolatik eta hedabideetatik kanpo egonda zail da geroa euskararako: «Biziko bagara, gaurkotzen joan behar dugu eta euskerari laguntzeko hor badago alor haundi bat moldatzen eta ahalik geureganatzen joan behar duguna (...) izpiritu ideki eta zabal batekin aurrerapenen aintzinean, bainan beti gu geu izaten» (ibid., 43). Hor ikusten da 1970eko hamarkada hasieran, zer arazo handiak atzematen ziren euskara modernitateari lotzeko, garai berriei dagozkien bizimodu eta lan moldeei egokitzeko. J.A. Irigaraik euskarak egokiera hori eginda baizik ezin izanen zuela irauin sumatzen zuen.

Irigarai Nafarroa osoan «... euskalduntze bat pizten ari dela» jakitun da, «... industriakatzearekin batera azten doan berjabetze bipila» (ibid., 43). Eskualde erdaldunduetan «... euskalduntze bat gertatzen ari da, nagusia Iruñean, bainan bai eta Agoitzen, Lizarran, Tafallan eta Tudelan ere (...) oztopo eta esi guztien gainetik, borondate gero eta sakonago bat agertzen ari delaitsuak ere badakusa» (ibid.).

Bertzalde, euskara arlotekeriarekin lotzen zuen konplexua «... emeki bada emeki» galtzen ari zela eta «... gehiago ikasten eta idazten dela euskaraz» uste zuen Irigaraik. Nafarroan piztu den euskararen zaletasuna ez da auzo euskal herrialdeek kutsaturik, baizik eta Nafarroan bertan piztua (ibid., 98).

Laburbilduz, Nafarroako euskararen galtze prozesu historikotik abiatuta eta horren segidaren ondoan, J.A. Irigaraik 1973ko euskararen egoera indartzeari eta berreskuratzeari lotzen dieten elementuak aipatzen ditu lehen aldiz modu garbian.

1977an argitaratu zuen “Aspectos de antropología socio-cultural en la evolución diacrónica del euskara” lanean, Irigaraik 1960ko eta 1970eko hamarkadetan gorpuztu zen euskararen inguruko dinamika berriaren gaineko azalpena eman zuen. Hona ikastolen mugimenduen gainean idatzitakoa (1977: 298):

Correspondiendo a la situación de la conciencia y de los medios con que se cuenta, primero surgirán, tímidamente, en los medios urbanos. Poco a poco se irán extendiendo a medios más rurales, llegando a puntos y zonas donde el euskera se había perdido hacía años e incluso siglos (casos de localidades meridionales navarras, como son Pamplona mismo, Aoiz, Estella, Tafalla, etc.

Así, en un ambiente desfavorable, en una decena de años se logra sobrepasar la cifra de 30.000 niños escolarizados en ikastolas repartidas por todo el país. Y el deseo de aprendizaje se extiende. Radio, prensa, publicaciones, etc., cada vez tienen más necesidad de utilizar el euskera.

Hamarkada horretan, Siadeco ikerketa elkartearen bidez, Euskal Herriko lehen azterketa soziolinguistikoak hasi ziren (Siadeco, 1975, 1977, 1978). Garai horretan Siadecok koordinatu edo apailatutako euskararen egoeraren diagnosi moduko talde ikerlanak Euskaltzaindiak argitaratu zituen: *El libro blanco del euskera* (Euskaltzaindia,

1977. Euskaraz *Euskararen liburu zuria*, Euskaltzaindia, 1978) eta *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (Euskaltzaindia, 1979). Azterlan horietan, euskararen atzerakadaren joera historikoarekin batera, euskararen indartzeko gizarte joera berriaren zantzuak are argiago agertu ziren (cf. Mitxelena, 1978).

Ikerketa horiek garaiko egoera soziolinguistikoaren datuetan oinarriturik, 1970eko hamarkada artiko lanetan bereizten ziren *eskualde ez euskalduna* (euskara galdua zuena), *eskualde euskalduna* (euskara gorde duena) eta *ukipen-eskualdea* (aurreko bien artekoa) auzitan paratu zituzten⁷¹. Bide beretik, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren konplexutasuna aintzat harturik, anarteraino erabilitako *euskaldun* eta *erdaldun* hitzak hitzunen egoeren adierazteko ez-baliagarritzat jotzen hasi ziren⁷².

Euskararen egoeraren gainean egiten duten diagnosian «... aldi berean eragiten ari den atzerapen, kontserbazio eta berreskuratze prozesu hirukoitza» ageri da (Euskaltzaindia, 1979: 191). Egileen iritziz, familia bidezko transmisioa euskara atxikitze prozesuaren «... oinarritzko sostengua» izan da: «... euskararen kontserbazioa gurasoetarik seme-alabetarako transmisioari zor zaio, hori izan da belaunaldi gazteek euskara ikasteko eduki duten bide bakarra, berrikitan ikastolak eta gainerako euskaratzee-bideak hedatu diren arte» (ibid., 192).

Euskarari eustearekin batera berreskuratzea dager argiro: «... hainbaterainokoa izan da» non, «... Historian lehenengoz, berreskuratzea nolakoaz eta zenbatekoaz atzerapena eta galera baino garrantzitsuagoa» baita (ibid., 193). Txosten egileei berreskuratze horren marka garbiak irakaskuntzan eta hedabideen alorrean ageri zaizkie (ibid.).

Hala bada, 1970eko hamarraldian euskara aupatu nahi zuten gizarte eragileen emaitzak hasi ziren agerikoak izaten eta hamarkadaren bukaera aldean Nafarroako euskararen egoera hizkuntzaren hedapenaren muga markatzen zuten mapetako marren bidez adierazi nahi izatea, erabat zentzugabe bihurtu zen.

⁷¹ Euskaltzaindiak (1979: 15) argitaratutako talde ikerlan batean honela ohartarazten zuen: «Orain arte honelako izenak (eman izan) dira: 1) area edo zona ez-euskalduna, *euskara galdu deneko zona*; 2) area edo zona euskalduna, *gorde deneko zona*; 3) ukipen-zona edo area, *bien artean aurkitzen dena*.

Aski sinpleak diren hitz hauek denek, bilakatuz eta zenbait garratzen atzeratuz joan diren bloke trinko batzu adierazten dituzte nolabait.

Erizpide honekin hasi zen ikerketa hau ere. Baina laster konturatu ginen adierazpide hauek ez zutela balio gaur egun gure herriko area geografiko desberdinetan berreskuratze-prozesuak eragindako egoerari. Euskaldunen eta ez-euskaldunen banaketa ez datoz bat orain arte onartutako zona linguistikoekin, bai baitira euskaldun berriak, bai Bizkaiko Enkartzioetan, bai Arabako Lautadako lurraldeetan, bai Lizarra eta Nafarroako Erribera inguruan.

Apurto dira, bada, eta gehiago apurtuko aurrerantzean, molde zaharrak (...).

Guzti horrek, azken batez, orain artean egokitutako zonifikatze linguistikozko kontzeptua berraztertzeri garrantzitsu. Bestela estatikoa eta ankilosatu gertatzen bait zaigu dugun errealitate dinamiko aztertzeke.

Horregatik, area edo zona linguistikoak baino prozesu linguistikoak gehiago erabiliko ditugu».

⁷² «Gure egunotan oso erabiliak diren hitzok [*euskaldun* eta *erdaldun*], faltsuak ez badira ere, desegokiak eta sinplistikak dira (...). Hemen ere badago euskararen ezagueraren arabera mailaketa hedatu eta konplexu bat (...). Beraz, euskaldun eta ez-euskaldun arteko bereizketa sinplea, azalekoa gertatzen zaigu, ez baitigu laguntzen hizkuntzak duen berreskuratze ahalmena ulertzen, nabardura horiengan izkututzen den ahalmen hori aditzen (...). Izan ere, Euskal herria geografikoki zona euskaldun eta erdaldunetan banatzea zuzen ez den era berean ez baita ere zuzen gure herriko biztanleak euskaldun eta erdaldunetan banatzea» (Euskaltzaindia, 1979: 16).

Gerra ondotik sortutako lehen ikastolak

Gerra Zibilaren ondotik, Iruñeko lehen ikastola martxan jartzeko saiakera 1963an gertatu zen. Jimeno Juriok (1997: 233) dioen bezala, Francoren Gobernuaren aginduz ez zen ateak zabaltzera iritsi. Halaz guztiz, Erregimenaren mesfidantzak, behaztopak eta debekuak ez ziren gaindiezinak eta 1965ean Iruñeko Euskeraren Adiskideak elkartekoek Uxueko Andre Maria Ikastola abiatu zuten hiriburuko Butzuzuria karrikan⁷³. 1965-66 ikasturteko 13 neska-mutiko baizik bildu ez zituen ikastola, 1969-70ean 348 ikasle izatera iritsi zen (López-Goñi, 2002: 250).

Hasmentako urte horiek gabezia handikoak ziren: leku egokirik eza, eskola materialen falta eta baliabide urritasun larria. Berebat, ziurgabetasuna are handiagoa zen eta batzuetan ezkutuan ibili beharra izaten zuten. Lehen ikastola horren sortzaileen arteko arazoez ikastetxearen banaketa ekarri zuten. 1970ean San Fermin Ikastola sortu zen, Zizur Txikian. Gero, Uxueko Andre Maria Ikastolak Paz Ziganda izena hartu zuen.

Ikerketan arlo honetarako berriemaile aditu izan ditudanek —AAk, LEk, ALAk eta SAK⁷⁴— 1970eko hamarkadako lehen ikastolen sorreraren atzean lanean ibili ziren gurasoen gogo-nahia nabarmendu dute⁷⁵. Ikastolaren egitasmoa aita-amek eraman zuten aitzina. Guraso horien gehien-gehienek ez zekiten euskara baina hizkuntzarekiko motibazio handia zuten⁷⁶.

1971-72 ikasturtean, hamalau ziren Nafarroan sortutako ikastolak: Iruñean bi eta bana Agoitzen, Olaguen, Lizarran, Etxarri Aranatzen, Burlatan, Lakuntzan, Lekunberrin, Leitzan, Elizondon, Altsasun, Tafallan eta Olatzagutian. Vianako Printzea Kultura Erakundeko Euskara Sailak diru-laguntzak ematen zituen (López-Goñi, 2002: 270).

⁷³ Jorge Cortés Izal (*in* Zenbaiten artean, 1997: 38) ikastolen bulkatzaileak honela zioen garai horretaz: «Cuando llegué a Pamplona [1960ko hamarkadan] el ambiente pro-euskara era muy reducido tuve que [sic] apartarme de otros movimientos y entré en el mundo de las ikastolas, recuerdo aquella ikastola de la calle Pozoblanco que al año siguiente, el 66, pasó a la Plazuela de San José. Muchos son los factores que influyeron en el éxito del movimiento de ikastolas, la confianza de los padres, la labor de los andereños, y en general, el trabajo de mucha gente».

⁷⁴ Ikus berriemaile adituen azalpen biografikoak 7. eranskinean.

⁷⁵ Ane Apezetxea berriemaile adituak honela dio: «Euskaltzaletasun hori nolabait bazen hizkuntzari eusteko baliabide inportantea, eta hizkuntzari bultzatzeko baliabidea» (AA).

Ana Los Arcos berriemaile adituak honela irizten dio: «... hasiera haietan gurasoak ziren ikastolaren sortzaileak, gurasoak ziren ikastola egiten zutenak, gurasoak ikusten zenituen pasabidean irakasleak baino gehiago. Haiek ziren mugitzen zirenak, haien proiektua zen, nolabait esateagatik, eta orduan, lehenengo urteetan egon ziren oso-oso inplikaturak. Eta gurasoek haien seme-alabak udal ikastolan sartzen zituztenean bazekiten zailtasunak aurkituko zituztela, bazekiten haien seme-alabak ez zituztela baldintza onak izango, bazekiten lana egin beharko zutela, ez zela izango orain bezala (...). Garai haietan inplikazio handi-handia zegoen (...) haientzat ikastola proiektua zen eta horren alde jokatzeko zuten eta inplikatzen ziren erabat» (ALA).

⁷⁶ Sagrario Aleman berriemaile adituaren iritziz, ikastolak bultzatu zituztenak «... erdaldunak baina euskararen hurbilak ziren, euskararen hurbil bizitu zirenak». Hurbiltasun hori oroimenak ematen zien: «... batzuetan euskaraz ez zekiten jendeak mugitu ziren (...) baina nolabait intelektuak eta neurri batean, nik esango nuke, gure historia eta gure izaera ezagutzen zuten edo zerbait zekiten jende horiengandik (...) nik uste dut euskaldun izatearen hori loturik zegoela hizkuntzari eta orduan, oraindik memorian bazegoela arbasoak euskaldunak zirela, nolabait esateko. Eta horrek ere, nik uste dut, hori ere faktore inportantea izan zela iruditzen zait (...) buruan bazegoen kontzientzia bat arbasoak euskaldunak zirela edo horrelako... eta hori garatuena zutenak bildu ziren lehenago, hurbilen ikusten zutenak» (SA).

Nafarroako ikastola gehienak 1970eko hamarraldian sortu ziren. Urterik eman-korrena 1977 izan zen, bederatzik ikastola zabaldu baitziren. 1980. urterako, 42 ikastola zeuden Foru Komunitatean (ibid., 284), guztira 5.385 ikasle bilduta (ibid., 287).

4.2.2. Euskararen araubidetzearen oinarriak

1975ean, Franco hildakoan, hasi zen Espainia aro demokratikora eramanen zuen trantsizio garaia, eta Konstituzioa, 1978ko abenduaren 6ko erreferendumean onartua, eratzeko prozesua. Horrekin bat, Nafarroak bere bideari ekin zion foru eraentza berri-tu eta bere erakunde berekiak demokratikoak bilakatzeko. Tenore horretan Nafarroa Euskadiren autonomiaurreko eraentzan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa lurraldeekin batera, sartu behar ote zen eztabaida bizi-bizirik zegoen⁷⁷.

Nafarroako euskara araubidetzearen hastapenak ezin dira tentsio eta gatazka politikoko testuinguru horretatik bereizita azaldu. Alderdi politiko eskuindarrek, oroz gairik, Nafarroa euskaltasun kutsu zuen orotik hastandu nahi zuten⁷⁸.

1979ko ilbeltzaren 25ean Foru Aldundiak eta Estatuko Gobernuak Nafarroako probintzia hauteskundearen eta foru erakundeak arautzearen gaineko hitzarmen bat sinatu zuten (121/1979 Errege Dekretua, ilbeltzaren 26koa). Dekretu horren edukirik aipagarriena Foru Parlamentuaren sortzea eta legebiltzar hori (70 kidekoa) nahiz Foru Aldundia (zazpi kidekoa) hautatzeko prozedura ezartzea izan zen. Bi erakunde horiek hauteskunde berean sufragio unibertsalaren bidez aukeratu beharrekoak ziren.

Nafarroako Foru Parlamentua eta Aldundia hautatzeko hauteskundeak 1979ko apirilaren 3an izan ziren eta hortik sortu zen legebiltzarrean UCD, PSOE eta UPN alderdiek osatzen zuten gehiengoa. Foru Diputazioan gauza bertsua agitu zen UCDren eskuetan gelditu baitzen⁷⁹.

Foru Parlamentu osatu berri horrek, eskumenei dagokienez, oraingo Nafarroako Parlamentuarekin antzekotasunik ez du, benetako legebiltzar legegilea ez baitzen⁸⁰.

⁷⁷ Garai horren historia politikoa jorratu duten egileek —ideologikoki elkarrengandik aski urrun egonda ere— orduko tentsio eta gatazka beren lanen atalen izenburuetan beretan islatzen dituzte. Horren erakusgarri epigrafeen hiru adibide hauek: «La controversia Navarra-Euskadi» (Baraibar & Sánchez Prieto, 1999: 167-77), «Preautonomia vasca. Contencioso Navarra-Euzkadi» (Gortari, 1995: 160-186), «Navarra y Euskadi: la gestión de la Comunidad Autónoma Vasca y la Constitución de 1978» (Andrés-Gallego, 2003: 390-406).

⁷⁸ Grina hori hagitx argi ikusten da, erraterako, 1980ko otsailaren 12an HB talde parlamentarioak Nafarroako Foru Parlamentuko Foru-Eraentza Batzordean aurkeztu zuen mozioaren eztabaidan eta bozketan. Mozioak euskararen aldeko aitormen instituzionala egiteko eskatzen zion Parlamentuari. Eztabaidan mozioaren kontra azaldu ziren taldeek (UCDK, UPNk eta PSOEK) euskara nafarrak bereiz zitzakeen elementutzat jo zuten (*Diario de Sesiones del Parlamento Foral de Navarra*, 1980ko otsailaren 12koa, 8. zk.).

⁷⁹ Nafarroako Foru Parlamentuko 70 eserlekuen banaketa honela gelditu zen: 20 UCDko (Unión de Centro Democrático), 15 PSOEko (Partido Socialista Obrero Español), 13 UPNko (Unión del Pueblo Navarro), 9 HBko (Herri Batasuna), 7 AEMko (Agrupaciones Electorales de Merindad), 3 EAJko (Eusko Alderdi Jeltzalea) eta bana Partido Carlistatik, UNAITik (Unión Navarra de Izquierdas) eta IFNtik (Agrupación Electoral Independientes Forales Navarros).

Foru Aldundiko zazpi ahaldun hautetsiak honela banatzen ziren: 4 UCDko eta bana PSOEtik, Orhi Menditik eta HBtik (iturria: [www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/...](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/)).

⁸⁰ Izuk (2009: 49-52) *Foru Parlamentu* horren izaera argiro azaltzen du: «Pese a su nombre, el Parlamento Foral no constituía una verdadera cámara legislativa propia de un sistema parlamentario. Le faltaban algunas características esenciales para ello:

Dena dela, onartutako mozioen bidez Foru Aldundiari gai zehatzetan arautzeko eska ziezaiokeen.

Nafarroako Foru Parlamentuak hartutako erabaki horietako batek, 1979ko azaroaren 26ko Osoko Bilkuran onartuak⁸¹, Foru Aldundiari Nafarroako hezkuntza sisteman euskara arautzeko proiektua egiteko galdegin zion. Aldundiak betebeharreko araua apailatu beharrean, euskara Nafarroako hezkuntza sisteman sartzeko Oinarrien Proiektua⁸² aurkeztu zuen eta Foru Parlamentuak, behin eztabaidatuz gero, 1980ko uztailaren 2an onartu zuen⁸³. Oinarri horiek *eremu euskalduna* («zona vascófona»), *ukipen eremua* («zona de contacto») eta *eremu gaztelaniaduna* («zona castellano-parlante») bereizi zituzten, zedarritu gabe, eta modu mailakatu batean euskararen eta euskarazko irakaskuntza sartuko zela aurreikusituz. Euskara irakaskuntza sisteman sartzeko oinarri horiek bildutakoa izanen zen, funtsean, 1986an Euskarari buruzko Foru Legean arlo horretan azkenean ezarriko zena⁸⁴.

1980ko azaroaren 3an Foru Parlamentuaren Osoko Bilkurak euskararen ofizialtasunaren gaineko ebazpena eztabaidatu eta onartu zuen: «1º El castellano y el euskara serán las lenguas oficiales de Navarra. 2º Dicho principio se incorporará a las Bases de Reintegración Foral y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra, así como la competencia plena del Parlamento Foral para su regulación por medio de una ley»⁸⁵.

Nafarroako Foru Parlamentuaren ebazpen hori, jakina da, ez zen gero Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan (Foru Hobekuntzan, hemendik aitzina) jaso zena. Hori ulertzeko nahitaez aintzat hartu behar da garai horretan Foru Parlamentua eta Diputazioa elkarren aiekan zeudela, baina ez arazorik gabe. Lehenago erran bezala, Diputazioan UCDek zuen gehiengo osoa, Parlamentuan ez, ordea. Behin Parlamentuak eta Diputazioak Foru Hobekuntzarako Oinarriak onetsituz gero, Estatuko Gobernuarekin arauaren azken edukia negoziatuko zuen batzordea osatu zen. Batzorde horretan hauek zeuden: Lasunción, Sánchez de Muniain eta Arza UCDeko foru diputatuak; Malón PSOEko foru diputatua eta Parlamentuko eztabaidan Oinarriak adostu zituzten talde politikoen ordezkariak, UCDeko Moscoso, PSOEko Urralburu eta UPNko Aizpun. Parlamentuan zeuden gainerako taldeak,

a) Carecía de potestad legislativa, pese a que tenía atribuída una potestad normativa de naturaleza peculiar (...)

b) Carecía también de iniciativa legislativa, ya que estaba reservada a la Diputación por el art. 3 del Real Decreto 121/1979 (...). Aunque hay que señalar que en la práctica el Parlamento Foral trató de paliar esta carencia a través de la aprobación de mociones en las cuales rogaba a la Diputación el envío de determinados proyectos normativos, y su actividad normativa llegó a ser muy importante: 87 “normas” hasta la aprobación del Amejoramiento del Fuero (...).

c) Carecía de facultades en cuanto a la formación y cese de la Diputación. Ésta no necesitaba de la confianza del parlamento, pues tenía su propio sistema de elección mediante sufragio universal, y no podía ser derribada por moción de censura».

⁸¹ *Boletín Oficial del Parlamento Foral de Navarra*, I. urtea, 1980ko irailaren 11koa, 26. zk.

⁸² “Proyectos de Bases para la incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza”. Ondoren argitaraturik honetan: *Diario de Sesiones del Parlamento Foral de Navarra*, 1981eko abuztuaren 20koa, 3. zk.

⁸³ Ondoren argitaraturik honetan: *Boletín Oficial del Parlamento Foral de Navarra*, I. urtea, 1980ko uztailaren 29koa, 24. zk.

⁸⁴ Gregorio Monreal katedradunaren hitzetan, «... talde parlamentarioek orduantxe finkatu zuten hizkuntzaren inguruan zuten jarrera, gerora mantenduko zutena. Une hartan ezer erabaki ez bazuten ere, debatan, *de facto*, nafar lurraldea hainbat eremutan banatzeko ideia gailendu zen» (Monreal, 2003: 10).

⁸⁵ “Resolución sobre oficialidad del euskara”. Ondoren argitaraturik honetan: *Diario de Sesiones del Parlamento Foral de Navarra*, II. urtea, 1981eko irailaren 15koa, 8. zk.

horien artean abertzaleak eta ezkerrekoak, batzorde negoziatzaile horretatik kanpo gelditu ziren. Batzordekideek Diputazioko hiru letratu izan zituzten aholkulari: Aldea, Asiain eta Zubiaur (Pascual, 1999: 394).

Negoziazioaren eztabaidan, Foru Hobekuntzaren I. Titulua —horren barnean hizkuntzei zegokien artikulua— prestatzea Nafarroako batzordearen ardura izan zen eta berea ere, dirudenez, eremukatzearen proposamena. Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua ez du zonifikaziorik aurreikusten eta halako hizkuntza eremukatzerik ez zen Estatuko bertze ezain erkidegotan ezarri, ez eta soziolinguistikoki Nafarroa bezain anitzak diren Euskal Autonomia Erkidegoan edo Valentziako Erkidegoan ere. Berebat, zonifikazio horren aldeko erabakia ez zuten inolako ikerketa soziolinguistikotan edota argudio zientifikotan oinarritu.

Nafarroako batzordearen eta Estatuko Gobernuaren arteko negoziazio prozesuan, Foru Hobekuntzan Nafarroako hizkuntzen estatusa arautzen zuen artikulua idazketa aldatu zen eta, pentsatzekoa da, nafar ordezkarien erabakiari 1979an Foru Parlamentuak euskara Nafarroako hezkuntza sisteman sartzeko oinarrietan ezarritako eremukatzeak eragin ziola. Izan ere, 1981eko ekainaren 29an, Asiain letratuak hizkuntzen estatusa arautzen zuen artikulua gaineko irizpen bat egin zuen eta honela ohartarazi:

... debemos hacer constar (...): la necesidad de armonizar el texto acordado en las 'Bases para la incorporación de la lengua vasca al sistema de enseñanza de Navarra', aprobadas por el Parlamento Foral (...). En dichas Bases se establece, entre otros extremos, que la referida incorporación se llevará a cabo "teniendo en cuenta la realidad socio-lingüística de Navarra" y se distinguen tres zonas lingüística: castellano-parlante, vasco-parlante y de contacto (Alli & Gortari, 2011: 4. dokumentu-gehirria, 13. dokumentua: 611-612)⁸⁶.

Nire irudituan, Nafarroako Foru Parlamentuak onetsi zuen ebazpena —euskara Nafarroa osoan ofiziala izanen zela zioena— azkenean Foru Hobekuntzan, Nafarroako hizkuntzen estatusa arautzen duen artikuluan, jaso ez izanaren gibelean hori guztia dago.

Gauzak horrela, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko I3/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10eko onetsi zen eta horren barnean, 9. artikulua, euskararen estatusa ezartzen duena. Gaztelaniaren ofizialtasuna Nafarroa osoan ezarri zen, euskararena aldiz, Nafarroaren zati bakar batean baizik ez: «9.2. *Euskarak ere bizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan*». Halere, lege horrek ez zuen eskualde euskaldun horiek zein ziren zehaztu, eta eginkizun hori, bai eta euskararen erabilera ofiziala eta horren irakaskuntza arautzea ere ondoko Foru Lege batek egiteko utzi zuen.

4.2.3. Euskararen gizarte egoera 1980ko hamarkadan

Nafarroako euskararen berreskurapenaren seinale garbiak gorabehera, Mendialde euskalduneko hainbat herritan, ordea, euskararen gizarte egoerak makaltzen jarraitzen

⁸⁶ Bide beretik, euskara Nafarroako hezkuntza sisteman sartzeko Oinarrien eta ofizialtasunaren gaineko ebazpenaren arteko kontraesana Parlamentuko eztabaidan berean gelditu zen agerian. UCDko Sagredo parlamentariak euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan ezartzen zuen ebazpenari kontrako botoa ematean kontraesan hori azaldu zuen (*Diario de sesiones del Parlamento Foral de Navarra*, II. urtea, 1981eko irailaren 15ekoa, 8. zk., 20-21).

zuen eta erabilera huts egiten hasitako tokietan hizkuntzaren galerak aitzina segitu zuen, etxe-familia eta auzoko harremanak ere —belaunez belauneko jarraipena barne— ahultzen (Sánchez Carrión, 1981a). Rosa Ramosen (1995) ikerketa makrokuantitatiboak Nafarroako euskararen egoera demolinguistikoa aztertu eta Mendialdeko zenbait eskualdetan euskarak hiztunak galtzen segitzen zuela berretsi zuen.

1985ean Jesús Azcona antropologoak zuzentzen zuen taldeak egindako ikerketa, *Límites geográfico-sociales del euskera en Navarra*, hamarkada horretako egoera ezagutzeko lanik baliagarriena da. Ikerlan horrek anarterainokoen aldean bi berezitasun ditu. Alde batetik, Nafarroako Gobernuak berak eskatu zuen⁸⁷ eta, bertzaldetik, Nafarroa osoan egindako lan sistematikoa da.

Ikerlanaren ondorioek darakutsatenez, 1985ean Nafarroako Mendialdean euskararen galera ez zen gelditua. Dena den, hirigune industrializatueta euskararen balioespen nahiz indartze berriak kausitu zituen, bai eta ere Nafarroa osoan oro-har, nabaria zen «... un importante esfuerzo social por detener el proceso de pérdida de función comunicativa del euskera; esfuerzo asentado sobre cambios fundamentales en la imagen social de la lengua» (Azcona, 1985: 493).

Azconak xeheki aztertutako eremuetatik bi hartuta, ipar-mendebaldeko haranak eta Iruñerria, euskarak zituen egoera eta dinamika desberdinak laburbilduko ditut:

Oraindik euskara galtzen ari zen landa eremu euskalduna. Nafarroako Mendebaleko haranetan herri oso euskaldunak bazeuden ere, hainbatetan euskararen egoera arrunt higaturik zegoen. Horietan hizkuntzaren familia bidezko transmisioa etenik zegoen, heldu eta zaharrek baizik ez zekiten baina ez ohi zuten ihardukitzen, mintzairak komunikatzeko balioa galduzea baitzuen. Ikerketak erdara hutsezko eskola euskara ahuldu eta galarazteko faktore nagusitzat jo zuen. Horretaz gain, euskaldunengan gutxiespen zantzuak zeuden: gurasoen gutxiagotasun konplexua eta hizkuntzak deusetarako balio ez zuela uste izatea. Euskarak irakaskuntzan zuen tokia txikia zen, eta, ez geografikoki ez eta irakaskuntza mailen arabera ere, ez zen homogenea. Oro har, eskolaurrea euskaraz egiteko aukera zegoen, ikastoletan nola irakaskuntza publikoan; OHOn herri batetik bertzera oso egoera desberdinak zeuden eta maila honetan ere, euskara eta euskaraz ikaste-ko aukera ikastoletan eta eskola publikoetan zegoen. Hortik goiti, Mendialdean euskaraz ikasten jarraitzeko aukerarik ez zegoen, ez BBB, ez UBI, ez LBH.

Hori horrela, Mendialdean euskarak kultura garapena arras mugatua zuen. Euskaldun jende gehien-gehiena euskaraz alfabetatu gabea zen; beraz, mintzaira arlo formal edo teknikoetan erabiltzeko zailtasuna eta modernitateari lotutako gaiak erdaraz garatzeko joera

⁸⁷ Foru Hobekuntza onetsi eta bi egunetara, 1982ko abuztuaren 12an, Nafarroako Foru Aldundiaren Osoko Bilkurak Nafarroako euskararen ikerketa linguistikoa eta soziologikoa egitea erabaki zuen eskualde euskaldunetako eskolaurreko eta OHoko ikastetxeetan izanen ziren euskararen irakaskuntza eta eskola plangintzarako oinarria izan zedin. Aipatu ikerketa Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea zen Hortensia Viñes Rueda nafarrak koordinatzen zuen proiektuari esleitu zion. Ikerlan horren aurrerapen moduko txostena, “Estudio lingüístico y sociológico del euskera en Navarra. Informe del proyecto en curso” *FLV* aldizkarian argitaratu zen (Viñes, 1982). Ikerketa taldeak ordea, ez bide zituen ikerlanaren gainerako zatiak inoiz burutu.

1985eko otsailaren 5ean, Nafarroako Gobernuak Jesús Azcona Mauleon irakasle nafarrak, EHUKo Antropologia Saileko zuzendariak zuzentzen zuen taldeari egin zion esleipen bera. Urte horretako irailan, Nafarroako Gobernuak *Límites geográfico-sociales del Euskera en Navarra* ikerlana jaso zuen. Ikerketak Foru Komunitatean euskarak zuen egoera, irakaskuntzari dagokionez batik bat, ezagutzeko zuen balioa gorabehera, Nafarroako Gobernuak ez zuen argitaratu.

nabaria ageri zen. Bertzalde, euskara arlo formaletan garatua ikusi ez izanaren ondorioz, hizkuntza estandarra, hau da, euskara batua auzitan paratzea ere gertatzen zen.

Euskararen berreskurapena hasia zen hirigune erdaldundua. Iruñerrian berriz, gizartean gutxi-asko zabaldua zegoen balorazio eta irudi berri batek bulkaturik, euskara hiztunak irabazten hasia zen, gau-eskola eta ikastolei esker batik bat, eskola publikoan zegoen eskaintza urria baitzen oso. Euskaraz ikasteko aukera BBB bitarte zegoen, eta azken maila hau Zizur Txikiko San Fermin Ikastolan baizik ezin zen egin.

Azconak 1985ean burutu zuen ikerketak Nafarroako euskararen egoera larriaren argi-ilunak —ilun gehiago argi baino— agertu zituen eta egoera horretan Administrazioaren erantzukizunari dei egin zion, esku-hartze instituzionalaren beharra aipatuz: «Es obvio que la Administración no puede permanecer al margen del esfuerzo social por la recuperación cultural de un valor navarro» (Azcona, 1985: 493). Ikerketan egindako lurralde banaketaren inguruan, iduri duenez, ez zuen Azconak geroko Legeak ezarriko zuen zonifikazioaren oinarririk eman nahi izan (ibid., 497):

No podemos aceptar ni nuestra propia comarcalización pues dentro de cada comarca encontramos situaciones muy dispares desde el punto de vista lingüístico. Es evidente, por otra parte, que la lengua no es un dato fijo, sino un proceso social. Y ciertamente, aunque con distintas intensidades se da un esfuerzo social en toda Navarra por el mantenimiento o recuperación del euskera (...) es obvio que, si quiere protegese el euskera, debe hacerse en toda la geografía de la Comunidad Navarra.

Urte horretan berean euskararen estatusa Foru Lege batez arautzeko prozesua hasi zen eta, jakina den bezala, Nafarroako Gobernuak euskararen estatusa eta elebitasuna irakaskuntzan arautzeko orduan ez zituen berak eskatutako ikerketak proposatutakoak aintzakotzat hartu.

4.2.4. Euskarari buruzko Foru Legea

Nafarroa hizkuntza koofizialak dituzten Estatuko erkidegoen artean, beren mintzairaren estatusa arautzeko legea onartu zuen hondarrekoa izan zen eta, gainera, bertze erkidegoen aldean hagitz modu bertzelakoan egin zuen.

1985eko urrian legearen lehen aurreproiektua ezagutu zen⁸⁸ eta 1986ko irailean Nafarroako Gobernuak Euskarari buruzko Foru Legea (EFL hemendik aitzina) eratzeko Proiektua⁸⁹ onartzea eta Parlamentura igortzea erabaki zuen. Lege testuak xedapen orokorretan hiru hizkuntza eremu bereizi zituen: *eremu euskalduna* (6I udalerrik

⁸⁸ *Diario de Navarra*, 1985eko urriaren 26ko alea, 19. or. Aurreproiektu horrek Mendialdeko 43 udalerririk hartzen zituen «zona de predominio lingüístico vasco» delakoaren barnean: Altsasu, Arantz, Arakil, Arano, Arantza, Arbizu, Areso, Arruazu, Bakaiku, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Betelu, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ergoiena, Etxalar, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Goizueta, Igantzi, Irañeta, Ituren, Iturmendi, Lakuntza, Larraun, Leitza, Lesaka, Luzaide, Oitz, Olatzagutia, Saldias, Sunbilla, Uhartea Arakil, Urdazubi, Urdiain, Urrotz, Ziordia, Zubieta eta Zugarramurdi.

Eremu horretan euskara hizkuntza ofiziala izanen zen. Nafarroako gainerako udalerrietan Gobernuak euskara irakaskuntzan sartzeko lehentasun guneak zehaztu ahal izanen lituzke, betiere borondatezkotasun, mailakatze eta errealtate soziolinguistikoaren araberrako irizpideei jarraikiz. Aurreproiektu horrek euskaltzaleen kexuak jaso zituen estuegia eta murriztailea zelakoan.

⁸⁹ *Boletín Oficial del Parlamento de Navarra*, 1986ko urriaren 9ko alea, 53. zk.

osatua⁹⁰), *eremu mistoa* (Iruñerria barne zegoela, hau da, Nafarroako biztanleen erdia) eta *eremu ez-euskalduna*. Lehen tituluak euskararen erabilera ofiziala arautzen zuen modu orokorrean eta eremu bakoitzean. Bigarren tituluak irakaskuntza arautzen zuen eta, azkenik, hirugarren titulua komunikabide sozialei zegokien.

EFL gehiengo osoz onetsi beharrekoa baitzen, Nafarroako Parlamentuko taldeek eztabaida biziko prozesu luzea egin behar izan zuten⁹¹. Zuzenketen eztabaidan legearen proiektuaren zirriborroan zenbait aldaketa onartu ziren, bertzak bertz, *impulsar* edo *fomentar* agertzen zen tokian *proteger* idatzi zuten, eta *euskeraren* ordez *vascuence* (Cobrerros, 1989; P. Zabaleta, 1990; Izu, 2013). Zuzenketek Parlamentuak onetsiko zuen testua hasierako zirriborroa baino laxoagoa bihurtu zuten⁹², botere publikoei eskatzen zitzaien euskararekiko betetze mailari dagokionez, eta, bertzalde, hondar idaztetan eremu mistoari doazkion artikuluetan euskararen erabilera ofizialera hurbiltzen zen aipamen oro ezabatu zuten⁹³.

Azkenean, Nafarroako Parlamentuak 18/1986 Foru Legea, abenduaren 15koa, Euskarari buruzkoa onetsi zuen PSN-PSOE, Grupo Popular, Grupo Moderado eta Grupo Mixto alderdiek aldeko botoa emanda (guztira 29 boto alde. Grupo Nacionalista Vascok

⁹⁰ Aurreproiektuko ez gain hauek ere sarturik: Abaurregaina, Abaurrepea, Anue, Aria, Aribe, Auritz, Basaburua, Erro, Esteribar, Garaioa, Garralda, Imotz, Lantz, Orbaizeta, Orbara, Orreaga, Ultzama eta Hiriberri.

⁹¹ Miguel J. Izu (2013: 331-333) EFLren eztabaida prozesuan, Nafarroako Parlamentuko taldeek aurkeztu zituzten zuzenketen edukia honela laburbiltzen du: «Los grupos parlamentarios presentaron un total de 142 enmiendas, tres de ellas a la totalidad con textos alternativos suscritos respectivamente por UPN, Grupo Popular y Grupo Nacionalista Vasco. Los dos primeros, muy similares, se limitaban a fijar la zona vascófona, la misma que en el proyecto, y a definir las condiciones del uso oficial y la enseñanza del vascuence exclusivamente para dicha zona; el de UPN preveía la subvención de actividades de fomento de la enseñanza fuera de la zona vascoparlante. Por el contrario, el tercero eliminaba la zonificación e inspirándose directamente en la ley del euskera de la Comunidad Autónoma del País Vasco proclamaba el derecho al bilingüismo de todos los ciudadanos de Navarra y fijaba las obligaciones de la Administración en materia de fomento del euskera. En el debate sobre las enmiendas de totalidad, que fueron rechazadas por el Pleno el 4 de noviembre, quedó fijada la postura de los diversos grupos. El Gobierno (y el PSOE que lo sustenta) defiende el proyecto, afirma que es coherente con el Amejoramiento del Fuero al establecer la zona vascófona y, fuera de ella, medidas de protección y fomento del vascuence conforme al art. 3 de la Constitución. El Grupo Popular alerta en contra de la cooficialidad del castellano y del vascuence en toda Navarra —que a su juicio propicia el proyecto— y defiende que se limite a la zona vascoparlante; UPN defiende también limitar la regulación a la zona vascófona y acusa al Gobierno de enmascarar los verdaderos fines del proyecto, de apartarse del Amejoramiento del Fuero y de extender la oficialidad a todo el territorio navarro tras haber pactado con los nacionalistas vascos; el Grupo Moderado aboga por una interpretación amplia y no restrictiva del art. 9 del Amejoramiento (un precepto confuso que no debió haber sido aprobado “de no haber sido con mayor seriedad, rigor y claridad”) y por buscar fórmulas de consenso; el Grupo Nacionalista Vasco denuncia la redacción del art. 9 del Amejoramiento del Fuero y propone la cooficialidad del euskera en toda Navarra».


⁹² Francisco Javier Enerizek (1987: 311), egun Nafarroako Arartekoa denak honela idatzi zuen: «... muchos de los preceptos que la Ley Foral del Vascuence contiene carecen de todo contenido imperativo, sin virtualidad alguna, y se limitan únicamente a recoger o establecer meras recomendaciones o directivas dirigidas a las Administraciones Públicas, que asimilan partes de la Ley Foral a un programa político o a un compendio de intenciones que han de animar a los poderes públicos, pero que, en ningún caso, suponen atribución o reconocimiento de un derecho subjetivo de los ciudadanos para exigir su materialización con un deber correlativo para la Administración».

⁹³ Patxi Zabaleta (1990: 123) euskaltzain, abokatu eta foru parlamentariak honela iritzi zion: «Gogorra da, besteak beste, euskararen zabalkundeari buruz ziren aipamenak, fomentoari buruz alegia, kenduak izatea Parlamentuan, horrek adierazten duen borondate politikoa euskarak ez dezala aurrera egin bait da, eta gehiago oraindik, euskarak ez ditzala, askotan injustiziaz eta zapalkuntzaz, galdu dituenak eskura berriro».

kontra bozkatu zuen, UPN abstenitu zen eta HBk ez zuen bozketan parte hartu). Legea, bistan da, ez zen orduko Parlamentuko taldeen adostasunaren emaitza izan eta, noski, horrek ondoko gobernuek egin duten legearen garapenean ondorioak ekarri ditu.

Nafarroa hizkuntza eremutan zatikatzea Foru Komunitateko Parlamentuaren indar politikoak bereizi dituen eta egun ere oraindik hala egiten segitzen duen kontua izan da. Talde politiko batzuek (PSOEk —gero PSNk— eta CDNk) Nafarroako errealitate soziolinguistikoa kudeatzeko tresna egokitzat jo dute, inoiz eremuen zedarritzean moldaketaxoren bat sartu beharra onarturik ere; bertze batzuek (UPNk eta PPk) *eremu mistoa* auzitan paratu dute eta bi eremu, *euskalduna* eta *ez-euskalduna*, baizik ez bereiztearen alde agertu dira; eta azkenik, bertze batzuek (IUK, Batzarrek eta euskal abertzaleek EA, EE, EAJ, HB, Aralar eta talde berriagoetan bildurik), haien artean ñabardurak —eta aldeak— falta ez direla, euskararen ofizialtasuna ezartze aldera ez dute zonifikazioa egoki ikusi.

Mapa
EFLk ezarritako hizkuntza eremuak



Iurria: F. Zabaleta (1997)

Nafarroak onartutako hizkuntza legeak Estatuko gainerako legeen aldera berezitasun batzuk ditu eta haien artean nabarmenena lurraldearen eremukatzea da. 1982an, Foru Hobekuntzan zonifikazioa ezarri zenerako irtenbide horren kontra hainbat euskalarik argudiatuak zuen horren desegokitasuna (konparazioa, Euskaltzaindia, 1979: 15). Euskaltzaindia (1983) bera orduan eta EFL onartzerakoan ere Nafarroaren hizkuntza eremukatzearen kontra agertu zen.

Foru Hobekuntzari so eginda, ondoko EFLk Nafarroan bi eremu baizik ez lituzkeela bereziko pentsatzekoa zen, *eskualde euskaldunak* eta bertzeak. Halere, Nafarroa hiru hizkuntza eremutan zatikatu zuen: *eremu euskalduna* (1986ko Nafarroako Erroldaren arabera herritarren % 67,3 euskalduna zuena), *eremu mistoa* (% 13) eta *eremu ez euskalduna* (% 2). Lehenbizikoan euskarari ofizialtasuna aitortzen zaio; bigarrenean, euskarari ofizialtasuna aitortu gabe, herritarrei Administrazioarekiko harremanetan eta irakaskuntzan zenbait hizkuntza eskubide onartzen zaizkie; eta hirugarrenean, herritarrei ez zaie euskarazko zerbitzu publikoak —irakaskuntza barne— hartzeko eskubiderik aintzakotzat hartzen.

Euskararen ofizialtasuna, lurralde edo eremu zehatzetara bakarrik mugatzearen ondorioz, Nafarroako herritarrek ez dituzte lurralde osoan hizkuntza eskubide berberak. Hezkuntzan esate baterako, euskaraz eskolatua izateko aukerak oso desberdinak dira eremuen arabera eta EFLk ezarritako *eremu ez euskaldunean* irakaskuntza publikoan ez dago ikasketak euskaraz egiteko aukerarik. Beraz, euskararen gizarte berreskurapenaren ikuspegitik, hizkuntzak sustapen gehien behar duen lekuetan jartzen zaizkie herritarrei behaztoparik larrienak.

Nafarroako euskararen gizarte bilakaerarako duen garrantziagatik, eremukatzearen gaineko hausnarketa zenbait eginen ditut (Kasares, 2004: 80-95). Lehenik eta behin, begia jotzen du milioi bat hektarea eta milioi erdi lagun dituen lurralde batean hiru hizkuntza eremu bereiztea erabaki izanak. Ikuspegi praktikoa hutsetik, zentzuzkoa ote den galdegin liteke, kontuan harturik, gainera, egun Administrazioaren *leihatila birtuala* sustatzen ari dela. Bertzalde, Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluari jarraikiz, Nafarroako hizkuntza eremukatzeak zalantzazkoa dirudi, Konstituzioaren arabera Espainiako bertze hizkuntzak «... serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos». Konstituzioak hizkuntza horiek beren *Autonomia Erkidegoetan* ofizialak izango direla dio, ez dio eta, beraz, ez du aurreikusten, *Autonomia Erkidegoen* zenbait *eskualdetan* soilik ofizialak izan daitezkeenik. Dena den, Agirreazkuenagak (2003: 173) Nafarroaren eremukatzea Konstituzioaren aginduaren barnean sar daitekeela irizten dio, Nafarroako Parlamentuak hala erabakiko balu, Foru Komunitate osoa *eremu euskalduna* bihur lezakeela uste bezala.

Bigarrenik, Nafarroa nolako errealitate soziolinguistikoa den ikusita, hizkuntza eremukatzea irtenbide logiko eta bakarra dela pentsa liteke, baina soziolinguistikoki Nafarroa bezain heterogeneoak diren Estatuko bertze erkidego batzuek beren hizkuntza aniztasuna arautzeko momentuan egindakoari ohartzen bagatzaizkio, Nafarroan hiru hizkuntza eremu bereiztea aukera bakarra ez zela begi bistakoa da. Izan ere, Valentziako Erkidegoan bertako mintzairari, valentziera edo katalanari, ofizialtasuna lurralde osoan aitortu zioten, nahiz eta Valentziako hego eta barne aldeko hainbat eskualdetan hizkuntza historikoki inoiz mintzatu ez bada ere. Ofizialtasun hori lurralde osoan valentziar guztiendako, nahiz eta eskualde soziolin-

guistikoan arabera estatus horren garapen mailakatu eta egokitua eginen zela aurreikusitako. Euskal Autonomia Erkidegoan ere, Nafarroan bezalaxe, historikoki aspaldian euskara galdua zuten eta 1980ko hamarkadan erdaldundurik zeuden eskualdeak baziren, baina orduko legegileek euskarari ofizialtasuna lurralde osoan aitortzeko ez zuten zalantzarik izan. Nafarroan aldiz, erakutsi dudana bezala, lehenagotik heldu zen tradizio bati jarraikiz, 1980an Foru Parlamentuak onartu zituen euskara hezkuntza sisteman sartzeko oinarrietan, *zona vascofona*, *zona de contacto* eta *zona castellano-parlante* ezarri zituen, nahiz eta ez zedarritu. Harrezkero, euskara arautzeari begira legegile nafarrek lurraldea eremukatzera jo zuten, bai Foru Hobekuntzan bai EFLn.

Hirugarrenik, EFLk hizkuntza eremuak zedarritzen ditu baina ez du argitzen eremukatzea zehazteko zein irizpideri jarraitu zion. Hiru eremuetan jende euskalduna badago eta hala *eremu mistoan* nola *euskaldunean* ehuneko arras desberdinak dituzten herriak daude batera multzokaturik. *Eremu euskaldunean*, adibidez, herritarren % 7tik eta % 99ra doazen euskaldunen ehunekoak dituzten udalerriak daude, *eremu mistoan* populazioaren hutsaren eta % 12 bitartekoak eta *eremu ez-euskaldunean* hutsaren eta % 6ren artekoak⁹⁴. Bertze kasu batzuetan hizkuntza gutxiengoei eskubideak aitortzeko orduan kontuan hartu izan diren ehunekoak ikusita, Nafarroako Parlamentuak ez du nafar euskaldunen hizkuntza gutxiengoarekin begirune bereziz jokatu⁹⁵.

Laugarrenik, EFLk zedarritutako *eremu euskaldunean* 1986ko Nafarroako populazioaren % 11 baizik ez zen bizi. *Eremu euskaldun* hori mendialdeko 61 udalerririk txikiz osatuta dago, horietarik bat bera ere ez da 10.000 biztanle izatera iristen, areago, lautik hiruk 1.000 biztanle baino gutxiago ditu. Herri nekazari eta abeltzainak dira, batez ere, oro har industriak indar handirik ez duela. Mendialdeko eremu horrek Nafarroako hiriburuarekiko (edo Gipuzkoako mugako hiriekiko) zerbitzu morrontza handia du. Izan ere, administrazio zerbitzu nagusiak, ospitaleak, unibertsitateak, epaitegiak, hedabide nagusiak, zerbitzu pribatu asko eta halakoak ez daude *eremu euskaldun* horretan Iruñean baizik, gehien-gehienak. Beraz, bazterreko *eremu euskaldun* horretara mugatutako ofizialtasuna nekez bete daiteke, ofizialtasuna gauzatzeko nahitaezko zerbitzu publiko anitz eremu horretatik kanpo baitaude, hiriburuan, eta orduko legegileek, jakinki nafar guztiendako zerbitzuak eman behar dituela, ez zioten hiriburuari estatus elebidun berezirik eman⁹⁶.

EFLren izaera murriztailea egile anitzek nabarmendu dute (adibidez, Cobrerosek, 1989; Monrealek, 2001, 2003; Rodríguez Ochoak, 2001, 2002). Lege horrek, ezbaierik gabe, ondorioak izan ditu Nafarroako euskararen gizarte bilakaeran, hurrengo ataltxoan azalduko dudanez.

⁹⁴ 1986ko erroldako datuei so eginda (Nafarroako Gobernua, 1988), *eremu euskaldunean* Arano (% 99,4 euskaldun) eta Garaioa (% 7,1) ditugu; *eremu mistoan* Txulapain (% 12,4) eta Bidankoze (% 0); eta *eremu ez-euskaldunean* Nabaskoze (% 6,1) eta Tuteran, Elo edo Zuñiga (% 0,7).

⁹⁵ Horren erakusgarri Finlandiaren kasua dago. Finlandian suomiera eta suediera dira hizkuntza ofizialak, nahiz eta suedieradunak finlandiarren % 5,6 baino ez izan. Finlandian udalerririk batean administrazio eta hezkuntza esparruetan elebitasuna ezarri eta herritarren hizkuntza eskubideak babesteko honako irizpide hau hartu zuten: hizkuntza gutxiengoa herritarren % 8 izatea, edo zenbaki absolutuetan 3.000 lagun baino gehiago izatea (Laponce, 1990).

⁹⁶ Belgika hartzen badugu, adibidez, ikus dezakegu hiriburuari bertzelako tratamendua eman ziotela. Belgikar guztiendako zerbitzuak biltzen zituela kontuan hartuta, Bruselari estatus elebiduna aitortu zioten (Alvarez Enparantza, 1990; Buyle, 2000).

4.3. NAFAR EUSKALDUNAK XXI. MENDEAREN HASIERAN

4.3.I. Euskararen Foru Legearen garapena eta hizkuntza politika

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren arloan bi garai bereizi ditut euskararen gizarte dinamika, gutxi-asko, ukitu dutenak: 1) Lehen garai bat, 1986tik 1999 bitartean, Euskarari buruzko Foru Legea zenbait arlotan garatzea ekarri zuena; 2) Hizkuntza politika instituzionalaren bigarren garaia, murriztailea, 2000n hasi zena.

Lehen garaian EFL garatzeko onartutako lehen arauak, batik bat, Nafarroako Gobernuan berean euskararen estatusari eta hizkuntza politikari lotutako antolakuntza beharrei erantzutera zuzentzen ziren (Hezkuntza Departamentuan Euskara Zerbitzua sortzera eta haren funtzioak zehaztera, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren barnean Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia sortzera edo irakaskuntzako hizkuntza ikasereduak [A, B, D, G] zehaztera, bertzeak bertze). Garai horretan Nafarroako Gobernuak, euskara gizartearen sendotzeko politika garbirik inoiz egin ez bazuen ere —EFLren muga hor zegoen—, nolabaiteko elebitasun instituzionala eta, bere epelean ere, euskara sustatzeko politika eraman zuen aitzina.

UPNk 1991n hartu zuen Nafarroako Agintaritza eta, 1995-1996 tartea (PSN-PSOEek, CDNk eta EAK osatutako hiruko koalizioaren agintaldia) kenduta, Nafarroako Gobernuan egon da orain artio. Oroitu behar da, 1986an UPNk ez ziola EFLri aldeko botorik eman eta lege hori ez dela *bere* legea. Halaz guztiz, Nafarroan agindu duen alderdiak EFLren gainean izan duen jarrera eta jokaera politiko-instituzionala hondar hamarkadetan aldatuz joan da.

Bigarren garaian sustapen epelik ere ez, euskararen erabileraren kontrako erabakiak —agerikoak batzuetan, ezkutuagoak bertzeetan— izan ziren nagusi. 1999-2003 legegintzaldia hasi berritan, UPNren euskararekiko jarrera moldatzen hasi zen eta, politika jarraitzailea egin beharrean, elebitasuna sustatzearen aldeko jokaera instituzionala aldatu⁹⁷, eta euskararen eta haren normalizazioaren kontrako diskurtso politikoa ozpindu zuen hizkuntza politika urrutiegi joana zelakoan⁹⁸. Izan ere, euskararen indartzea xede ez duen Administrazioak aitzinamenduak ez ditu begi onez ikusi eta, alde edo moldez, galgatu edota gelditzera jo du.

2000ko ilbeltzean, euskararen aldeko talde eta elkarte nafarrak biltzen dituen *Oinarriak* elkarguneak euskararen ofizialtasuna Nafarroa osoan eskatzeko kanpaina bat

⁹⁷ Lehendabiziko aldaketa Gobernuaren organigraman gertatu zen, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren menpean zegoen Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia (HPZN hemendik aitzina) hortik atera eta Hezkuntza eta Kultura Departamentura mugitu zuten. «Aldaketa esanguratsua zen: Lehendakaritza Departamentuak gobernu baten politika nagusiak eta zeharkakoak zuzentzen ditu, ezinbestekoa dena edozein hizkuntza normalizazio prozesuren plangintzarako. Aldiz, Hezkuntza Departamentuan kokatzeak agerian utzi zuen gaia hezkuntzara mugatzeko borondate politikoa» (Mendoza, 2003: 50). HPZNen talde berak segitu zuen eta urtebete baino lehen, Gobernutik bertatik jasaten zituzten euskararen aurkako erasoak zirela eta, dimisioa aurkeztu zuen.

⁹⁸ Iñigo (2001) euskaltzaina honela mintzo da: «Mugak muga eta oztupoak oztupo, 1986az geroztik —Nafarroan euskara hizkuntza ofiziala zela lehenbiziko aldiz onartu zenetik—, euskararen erre-kuperazioak abiada nabariagoa hartu zuen eta lortutako emaitzak, ez bairik gabe, legegileek eta ondotik izandako Gobernuen arduradunek nahi eta uste baino emankorra izan dira, gizartea bera izan delako eragile eta bultzatzaile».

paratu zuen abian eta 47.000 nafarrek sinadura eman eta bat egin zuten eskaerarekin. Gobernuaren hizkuntza politikak, ordea, kontrako noranzkoa hartu zuen eta euskararen erabileraren kontrako erabakiak izan ziren nagusi.

Biratzte horretan PSNren babesa izan zuen eta horrela, Nafarroako bi indar politiko nagusiak euskararen erabilera eragoztera zuzendutako arauak hasi ziren indarrean paratzen⁹⁹. 1986an onartutako EFLn euskararen erabilera ofizialaren aukera murriztailea bazen, are murriztago utzi zuten legearen garapenerako indarrean sartutako ondoko arauak, administrazio publikoetan euskara arautu zutenek batik bat (Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 372/2000 Foru Dekretua, abenduaren IIkoa, arautze murriztaile horren abiapuntua izan zen).

Nik orain herritar euskaldunen eskubide gabetze prozesu hori ez dut xeheki azalduko¹⁰⁰. Anitz dira Nafarroako Gobernuak hasi zuen euskararen gutxieste instituzionala edo hizkuntza politika murriztailea aztertu duten lanak (batzuk aipatzearren: Agirreazkuenaga, 2001, 2003; Alli, 2001; Anaut, 2000; Barandiaran, 2003; Eize, 2001, 2003; Iñigo, 2001; Kasares, 2004; Mendoza, 2003ab; Rodríguez Ochoa, 2001, 2002, 2003; Torrealdai, 2001).

Nafarroako Gobernuak murriztapenak egoera soziolinguistikoari hobeki erantzuteko eginak zirela erranda, zuritu zituen. Gobernuaren arau gehienak *eremu mistoan* euskararen erabilera ahultzera edo eragoztera zuzentzen ziren eta batzuek¹⁰¹ horri UPNren nahi ezkutua antzeman zioten, 1986an EFLren eztabaidan ezarri ezin izan zuen *eremu mistoaren* ezabaketa, arauen bidez *de facto* erdietsi nahi zuen.

Arau murriztaileek gizartearen eta toki entitateen aldetik helegite eta gaitzespen ugari izan zuten erantzun. Euskara erabiltzeko eskubideak auzitegiratu ziren eta Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiek Gobernuak indarrean paratutako zenbait arau murriztaile bertan behera utzi zituzten.

Euskara gutxiagotzeko eta hizkuntza arauak murrizteko politikaren aitzinean, Euskaltzaindiak (2001) gaitzesteko adierazpen ofiziala egin zuen eta Bojan Brezigar (2001-I2-I5) Hizkuntza Gutxituetarako Bulego Europarreko buruak Nafarroako hizkuntza politika Europaren kontrako eredutzat definitzera iritsi zen: «... the first substantial regression of policies for regional minority languages in EU Member State».

⁹⁹ Alberto Barandiaran (2003: 21) kazetariak honela laburbildu zuen: «1999ko abendutik aurrera, Nafarroan atzerakada sekulakoa jasan du euskararen presentzia publikoak. 1999ko bukaeratik aurrera, historia hurbilean lehen aldiz, Nafarroako gobernu batek ondare biziaren kontra egin du, zuzen-zuzenean, tapakirik gabe. Hiru urtetan, hogeita bost egin da atzera».

¹⁰⁰ Adibide bat ematearren, 2000. urtean Nafarroako Gobernuak bi ekintza plan onartu zituen, horietako bat *eremu mistorako* (2001eko urtarrilaren 8ko Erabakia. 2001eko urtarrilaren 19ko NAOon argitara emana). Arau horrek honela ezarri zuen seinalizazio, errotilu eta zigilu ofizialei buruz: «Lehenbailehen behar diren pausak emanen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eraikuntza, egoitza, bulego, langela eta beste edozein lokaletako fatxadetako errotiluak gaztelania hutsekoak izan daitezten. Prozedura bera erabiliko da seinalizazio eta identifikazio elementu guztiekin. Esandakoa betetzen ez dutenak berehala kenduko dira».

Eta honako hau ezarri zuen herritarrek eska zezaketen euskarazko ahozko harreraren gainean (4.3): «Giza baliabide egokiak dauden unitate organikoetan, kontseilari arduradunak baimena eman lezake euskarazko atentzioa eskatzen duen herritarri halakoa emateko».

¹⁰¹ Erraterako, Allik (2001, I036) honela irizten dio: «Era evidente que se estaba intentando recuperar los principios recogidos en las enmiendas a la totalidad y parciales de los Grupos de UPN y Popular a tal Ley Foral con objeto de reducir la presencia del euskera en la vida social, cultural y administrativa».

Nire idurikotz, 2000. urtetik nola edo hala euskararen gizarte hedapena gelditu nahi zuen diskurtso instituzional horrek bi jomuga nagusi izan ditu: 1) *euskararako motibazio pragmatikoa abultzea* euskaldunen hazkunde demografikoa gelditzeko; eta 2) *euskararako motibazio identitarioetarako lekurik ez uztea* euskararen eskaera eta aldarrikapen soziala politikoki zuzena ez den jarrera politiko-zibikotzat agertzeko: bazterrekoa, nafartasunaren mehatxagarria, susmopekoa eta gizarte bakea gaiztotzen duena (Kasares, 2010).

Foru Gobernuaren hizkuntza politikan gibelurrats garbiak ikusten badira ere, toki entitate anitzetan, ordea, azken bi hamarkadetan euskararen erabileraren aldeko lan handia egin da hizkuntza normalizaziorako zerbitzu teknikoak sortuz, euskara udal administrazioan ohikoa eginez, euskara ordenantzak onartuz edota gizarte erabilera sendotzeko plangintzak aitzin eramanez.

Behin Parlatuak onetsiz gero, EFL Nafarroako legeriaren araurik aldagaitzenetako bat bilakatu da. Legebiltzarrak onartzeko gehiengo osoa beharrezkoa izan zen bezala, legean edozein moldaketa egiteko ere parlamentarien erdia gehi bat alde egotea nahitaezkoa da, eta Nafarroako Parlatuaren osaera ikusita, hori azken mende laurdenean aski arazotsu gertatu da.

Hondar bi hamarkada hauetan, Nafarroako Parlatuan euskararen estatusaren inguruko eztabaida etengabea izan da. Legeak ezarritako zonifikazioa aldatzeko edota bertan behera uzteko ekimenak behin eta berriz errepikatu dira. Halere, 2010 artio ez da aski indar politikorik bildu hizkuntza eremukatzea ukitzeko, aldaketa txiki-txikia izanda ere. UPNk kontrako botoa emanda eta CDNren abstentzioarekin, Iruñerrikoak diren baina *eremu ez-euskaldunean* sartuta dauden Aranguren, Beraskoain, Galar eta Noain Elortzibar udalerriei *eremu mistora* igarateko aukera eman zitzaien¹⁰², beren osoko bilkurek hala erabakiz gero.

Orain artio lehen hirurek soilik deliberatu dute aukera horretaz baliatzea, Noain Elortzibarren UPNk du udalaren gehiengo osoa eta ez du erabakia hartu.

4.3.2. Euskararen gizarte bilakaera

Nafarroa demografikoki antzaldaturik

Foru Komunitateko demografia xehetasunak aipatuz ekinen diot Nafarroako euskarak izan duen gizarte bilakaera azaltzeari. 1990ez geroztik Nafarroako demografian aldaketa nabarmenak gertatu dira. Hasteko, 20 urteotan nafarrak 527.318 izatetik 636.038 izatera pasatu dira (% 21eko hazkundea). Populazioa handitzeaz gain, gizartearen zahartze-prozesua, jaiotza-tasak behera egin izana eta immigrazioa dira nafar gizartearen mudantzarik eragingarrienak. Izan ere, 1990etik 2010 bitartean adinekoen multzoa % 65 inguru handitu da eta 15-25 urte bitarteko gazteena aldiz, ia laurden bat gutxitu. Bertzalde, bitarte horretan Foru Komunitatean bizi diren etorkinak nafarren % 2 eskas izatetik % 11 inguru izatera pasatu dira. Halere, atzerriko populazioak ez du banaketa homogeneorik, ipar-mendebaleko haranetan etorkinak % 6,4 dira, Iruñerrian % 11 eta Tutererrian % 16,2. Oro har, populazio gaztea da eta horrek azken urteotan apal-apal zegoen jaiotza tasari positiboki eragin dio. Etorkinen jatorriari dagokionez,

¹⁰² 2/2010 Foru Legea, otsailaren 23koa.

gehienek estatu hauetatik etorriak dira: Marokotik, Ekuadorretik, Errumaniatik, Bulgariatik eta Portugaldik (Nafarroako Gobernuo Immigrazio Bulegoa, 2011).

Nafarroako biztanleen banaketari dagokionez, nafarren erdia baino gehixeago Iruñerrian bizi da (*eremu mistoan*, batez bertze % 8,3 euskaldun), heren luzea hortik beheiti (*eremu ez euskaldunean*, % 1,9 euskaldun) eta hamarren bat urri Mendialdean. Nafar euskaldun gehienek, hala kopuruan nola ehunekoan, Mendialdean, legez ezarritako *eremu euskaldunean* dute bizitokia (% 60 euskaldun), baina azken bi hamarkadetan Mendialde euskaldunak Nafarroa osoarekiko zuen pisu erlatiboa txikituz joan da. Egun, 10 nafarretatik 9 eskualde erdaldun(du)etan (euskaldunak % 20 baino gutxiago dutenetan) bizi dira eta 0,5 baizik ez euskaldunak % 50 baino gehiago direneta (Eusko Jaurlaritza, 2008).

Aldaketa demografiko horiek euskarari nola eragin diezaioketen galdeginda, erantzuna ez zait positiboa iruditzen. Alde batetik, etorkinen etorrerak populazioa handitu du eta, euskaldunek ere kopuruan goiti egin badute ere, Nafarroako populazio osoarekiko duten pisu erlatiboa ez da horren neurrian hazi. Gainera, immigrazioaren aitzineko hizkuntza politikari dagokionez, Nafarroako Gobernuak ezin erabaki ez du hartu atzerriko jatorria duen populazioa euskarara erakartzeko, familia etorkinen umeak euskaraz bertakotzeko eta, azken finean, euskara *nafar berriei* integratibide gerta dakien. Izan ere, 2000-2001 ikasturtean etorkinak nafar ikasleen % 2,3 ziren eta 2006-2007an aldiz, % 11,3. Atzerriko jatorria duten ikasle horien % 85 G ereduan eskolatzten da, % 13-14 A ereduan eta % 1-2 baizik ez D ereduan (zenbaiten artean, 2008).

Horregatik, Nafarroako errealitatean leku nabarmena izan arren, ikerketa honetan kanpoko jatorria duten nafarrak ez dira ia agertzen, landa ikerlanetan umeak D ereduan eskolaturik duten familiak aztertu baitituz. Gabezia hori nolabait agerian utzi nahi dut.

Bertze alde batetik, ikusiko dugun bezala, azken hamarkadetan hizkuntzaren berreskurapen demografikoa belaunaldi gaztetan gertatu da nabarmenen, baina jaiotza tasa apalagatik euskaldunen hazkunde demografikoa ez da espero zitekeen bezain handia izan. Euskaldunen banaketa geografikoak ere ez du alde jokatu Mendialdeak, bertako euskarari eutsi dion eta euskaldun gehien biltzen duen eremuak, pisu demografiko erlatiboa galdu baitu eta gainera, eremu erdaldunarekin –hiriburuarekin bereziki– duen zerbitzu eta jarduera ekonomikoen morrontza ez baita txikitu.

Euskararen bilakaera demolinguistikoa

Zentsu-erroldetako euskararen ezagutza datuei erreparatuta, azken mende laurdean gertatu da –datuak ditugunez geroztik lehen aldiz– nafar euskaldunen ehunekoak goiti egitea.

1991 bitarteko ehunekoek beheitiko jaidura historikoa erakusten zuten. Orduz geroztik ordea, hiztunak galtzeko joera hori gelditu zen eta, doi-doi izanagatik, irauli ere bai. Egun nafarren % 10-12 dirateke euskaraz ongi egiten dutenak. Euskaldunen ehunekoak Nafarroako eremu guztietan egin du goiti, nahiz eta indar beraz ez egin. Aspaldian euskara galdu zuten eremu erdaldunduetan 1986an euskaldunen portzentajeak txikiak ziren eta hamabortz urte geroago nabarmenki berretuta agertzen dira. Gainera, 2001eko zentsuak 15 urtetik beheitikoendako (orain 27 urte baino gazteagoak direnendako) ematen dituen datuak kontuan hartuta, euskararen ezagutzaren emendatzea belaunaldi berrietan bereziki gertatu dela da nabari.

Taula
Nafarroako euskaldunen ehunekoaren bilakaera 1986etik 2001 bitarteko zentsu-erroldean
eta 2001eko zentsuko 15 urtetik beheitikoen artean, eremuka

	1986	1991	1996	2001	2001eko <15
Nafarroa	10,15	10,22	10,9	12,1	21,3
Ipar-mendebaldea	61,7	63,5	63,0	64,5	80,9
Pirinioaldea	10,5	10,7	12,0	14,9	43,3
Iruñerria	5,9	6,1	7,1	9,1	19,9
Estellerria	4,9	4,0	5,0	7,6	24,1
Eki-erdialdea	1,8	2,0	3,3	4,4	12,5
Erriberagoiena	0,3	0,3	0,7	0,9	2,0
Tutererria	0,4	0,4	0,7	0,8	1,7

Iturria: Gros (2007)

V. Inkesta Soziolinguistikoaren (Eusko Jaurlaritza, 2013) arabera, 16 urtetik goitiko nafarrak hartuta, hondar bi hamarkadetan, 1991tik 2011ra, euskaldunak % 9,5 izatetik % 11,7 izatera igo dira. Talderik gazteenean, 16-24 adin tartean, dago euskaldunen ehunekorik handiena, % 20,8.

Euskararen erabilera neurtua

Euskararen erabilera neurtuari dagokionez, 1989tik lau urtetan behin egin diren kale neurketak ditugu¹⁰³. Ondoko taulak agertzen duenez, Nafarroako euskararen erabilera orokorrala (% 6 inguru) azken bi hamarraldietan ia ez da mugitu.

¹⁰³ *Euskararen Kale-erabileraren Neurketak* herri bateko hizkuntza erabilera behaketa zuzenaren bidez zehazten du karrikan aditzen diren hizkuntzak jasoz. 1989an, Euskal Kultur Batzordearen ekimenez, egin ziren estreinakoz kale neurketak Euskal Herriko udalerririk handienetan eta Siadeco izan zen ikerketa zuzendu zuen enpresa. Harrezkeroztik lau edo bost urtetan behin egin dira (1989, 1993, 1997, 2001, 2006 eta 2011n). Egun Soziolinguistika Klusterrak du kale neurketen ardura. Hondar kale-erabileraren neurketaren emaitza nagusiak honetan argitaratu dira: Altuna et al. (2012).

Taula
1989tik 2011 artio Nafarroan egindako kale neurketek emandako euskararen erabileraren ehunekoak, adin taldeka

Kale neurketa	Nafarroako erabilera osotara	Haurrek	Gazteek	Helduek	Adinekoek
1989	6,5	9,8	5,3	5,3	5,8
1993	7,5	10,6	7,1	5,8	6,5
1997	6,8	8,8	6,4	6,0	6,1
2001	6,0	7,6	6,4	5,1	5,2
2006	6,0	7,8	6,2	5,2	5,3
2011	5,7	7,5	5,6	5,4	3,3

Iturria: Altuna et al. (2012)

Haur eta gazteen erabileraren datuek arreta pizten dute, hain justu, horietan baitaude euskaldunen ehunekorik handienak. Horrek *belaunaldi berrien euskararen erabileraren paradoxa* lirudikeenaren aitzinean jartzen gaitu, alegia, euskaraz dakiten haur-gazteen ehunekoa etengabe hazi da, eta haien euskararen erabilera aldiz, gainbehera etorri (Kasares, 2010).

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza

Hezkuntza arloari dagokionez, euskarazko eskolatzea eremu erdaldunduetako euskaldunen lehen haztegia izan da, bai eta Mendialdeko euskararen berebiziko euskarria ere. 4. eranskineko grafikoak darakutsanez, egun Nafarroako Haur eta Lehen Hezkuntzan, irakaskuntza publikoa zein pribatu eta hitzartua hartuta, ikasleen % 27,6 D ereduan eskolaturik dago, % 22,1 A ereduan eta % 43,1 G ereduan (Aldasoro, 2001, 2012).

Datuak ditugunez geroztik (1988tik) hona, D ereduaren bilakaera positiboa izan da (+14,3), lurraldearen gehieneko ikastetxe publikoetan eskaintzen ez dela kontuan hartuta. Nafarroa osoan hauta daitekeen A ereduak izan du igogerarik aipagarriena (+16,6), *eremu ez euskaldun*ean bereziki. D eta A ereduaren hazkundeak Gren jaitsiera ekarri du (-38,1), oraindik eredu nagusia izaten segitzen badu ere.

2007-2008 ikasturteaz geroztik Nafarroako Hezkuntza Departamentuak ingelesaren irakaskuntza indartzeko politika sendoa abiatu du, hasieran *British* ereduaren bidez eta gero Hizkuntzen Tratamendu Integratuko (HTIko) programak direla medio. Horrek ez luke berez euskarazko irakaskuntza ahuldu behar (ikastola batzuek aspaldian hasia dute ingelesa indartzeko bidea), baina Nafarroako Gobernuak ingelesa nazioarteko hizkuntza baten eta euskararen arteko dilema faltsua sortzeko erabili du, atzerriko hizkuntzaren indartzea euskararekin bateragarri ez eginez eta, anitzetan, gurasoak euskara ala ingelesa hautatzeko kinkan paratuz. Sei ikasturtetan HTI ereduak % 7,2 izatera iritsi da, horren barnean hamarren batek euskara irakasgaia edo euskara irakasbidea dutela, gaztelania eta ingelesarekin batera noski.

Dena dela, hezkuntzan gabeziak badira. Ikerketa honen aztergaitik ikusita larrietakoa Haur Eskoletan dago.

Euskarazko hedabideak

Hedabideei dagokienez, azken bi hamarkadetan herri ekimenak sortutako irrati¹⁰⁴ eta aldizkariak¹⁰⁵ ugaldtu dira Nafarroa osoan, Mendialdean batik bat. Euskarazko telebistak¹⁰⁶ ere sortu dira baina Foru Komunitate osorako euskarazko hedabide azpiegitura publikorik ez dago eta EAEko EITB kate publikoek betetzen dute, hein handi batean, hutsune hori.

2010ean gertatu zen itzaltze analogikoaz geroztik, Nafarroan ezin da ETB Lurreko Telebista Digitalaren (LTDren) bidez hartu eta lehenagoko molde analogikoan segitzen da ETBI euskarazko katea ikusten. Gainera, ETBk LTD bidez baizik jasotzen ez den haur-gazte kate berria, ETB3, sortu eta euskarazko haur programazioa ETBIetik kate berri horretara pasatu zuen. Nafarroarako bereziki umeendako telesaioren bat ikuskizun uzten badute ere ETBIean, ez da duela urte batzuk zegoen haurrentako eskaintza, urrundik ere. Bitartean, haur eta gaztetxoendako erdal telebista kateak ugaritu dira eta ikusgai dauden telesaioren aukera aise berretu da: *Clan*, *Disney Channel*, *Boing*... Alde horretatik, orain duela bi hamarkada baino makurrago daude nafar euskaldunak, telebista kateak gero eta gehiago izanda, Nafarroan telebista euskaraz ikusi ahal izatea kolokan baitago.

Euskararen belaunez belauneko jarraipena XXI. mendearen hasialdian

Euskararen historia hurbila jorratu duten lanek ez ohi diete familiek umeen hizkuntza hazieraren gainean izan dituzten jarrera eta jokaerei erreparatu. Nafarroan euskararen berreskuratze zantzuak agertzen direnetik —aztertu ditudan iturrietan, 1973tik—, familia bidezko euskarazko sozializazioak nola jokatu zuen zehazki ez dakigu. Izan ere, hizkuntza transmisioari laguntzen dioten bide kulturelek (euskarazko eskolatzeak batik bat) hartu zuten nagusitasuna ikerketetan eta haurren hizkuntza sozializazioa osorik ez ohi da aintzat hartu. Horren ikusbide, Jimeno Juriok (1997: 231-265) *Navarra. Historia del euskera* liburuaren VIII. atala, “Eusko Berpizkundea. Resurrección del euskera” izenekoa hartuko dut. Horretan historialariak Nafarroako euskararen indarberritzea ahalbidetu duten elementuak eta berreskurapen horren seinaleak aletzen ditu: ikastolak eta gau-eskola edo euskaltegiak, Hezkuntza sistema publikoko ikastetxeak, hizkuntza eskola ofizialak, unibertsitateetako euskararen eta euskarazko irakaskuntza, euskarari aitortutako estatusa, Euskaltzaindia, idazle eta irakasleak, euskarazko kultur adierazpide herrikoiak (bertsolaritza, kantu txapelketak...), hedabideak (egunkariak, aldizkariak, telebistak, irratiak, komikiak eta halakoak), toki entitateetako euskara zerbitzuetako teknikariak, kultura jarduerak, euskararen aldeko elkarteak eta kultura arloa, oro har.

¹⁰⁴ *Xorroxin*, *Euskalerrria*, *Beleixe*, *Aralar*, *Esan-Erran* eta *Karrape* irratiak.

¹⁰⁵ *Itipi-ttapa*, *Guaixe*, *Mailope*, *Pulunpe*, *Karrika*, *Xuka*, *Nabarra*, *Xapo*, *Marmari*, *Laisterkan*, *Gu Geu*, *Ekialde*, *Zorrokaria*, *Kotarro* eta *Axular* aldizkariak, bertzeak bertze.

¹⁰⁶ *Itipi-ttapa TB* (Bortzirietan eta Malerrekan ikusten zena, 2009an itxi behar izan zuen arazo ekonomikoengatik) eta *Xalao TB* (Baztan eta Malerrekan ikusgai).

Nafarroako familietan haurrak euskaldun hazteaz ordea, ez du deus ere aipatzen eta horrek begia jo dit, areago ere Nafarroako euskararen gibelatzea eta galtzea lantzen duelarik —“La agonía del euskera” ataltxoan (ibid., 206-210)— familia bidezko euskararen transmisioaren etenari usu erreferentzia egiten diola aintzat harturik. Beraz, Nafarroako euskararen historia hurbila landu duten ikerketek mintzairaren gizarte berreskuratzean familia bidezko hizkuntza sozializazioak nola jokatu duen ez ohi dute aztertu.

Bertzalde, inkesta soziolinguistikoek euskararen belaunez belauneko jarraipenaren zenbait datu kuantitatibo ematen dituzte. Datu horien arabera, 1980ko hamarkada artio euskara lehen hizkuntza zuten nafarren ehunekoa murriztuz joan zen, baina hamarraldi horretatik aitzina, euskararen familia bidezko transmisioa hazi da (Eusko Jaurlaritzak, 2008b: 154-155). Horri esker egun, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen taldean eta 55 urtetik goitikoenean dago euskara lehen hizkuntza izan dutenen kopururik handiena (Nafarroako Gobernua, 2009b: 46). Azken inkesta soziolinguistikoak (Aizpurua & Ortiz de Landaluze, 2012: 73) guraso nafar euskaldunen hizkuntza-transmisioa jokoerak honela agertu ditu: guraso biak euskaldunak direlarik umeen % 78k jaso du euskara hutsik etxean eta % 17k gaztelaniarekin batera. Euskararen familia bidezko transmisioaren emaitza gurasoen lehen hizkuntzaren arabera aldatzen da, gurasoak «euskaldun zaharrak edo jatorrizko elebidunak» direlarik % 100era iristen da eta «euskaldun berriak direnean, euskararen transmisioa txikiagoa da, baina gehienek euskara transmititzen dute» (ibid., 74). Euskararen familia bidezko transmisioaren aldaketarik handiena guraso bakarra euskalduna duten bikoteetan —bitariko bikoteetan— gertatu da. Lehen gehienek ez zuten euskara ondorengoenganatzen eta orain berriaz, transmititzen ez dutenak heren bat baizik ez dira.

Inkesta makrosoziolinguistikoek euskararen belaunez belauneko jarraipenaren gertakaria ehunekotara biltzen dute baina zenbakien gibelean dagoen dimentsio kualitatiboan barrentzea ez dute xede. Egundak, deus gutxi dakigu Nafarroan umeak euskaldun hazten ari diren familien inguruabarrez.

Berebat, 1980ko hamarkadatik euskarazko irakaskuntza sendotu da, ikastolei eta hezkuntza sistema publikoko D ikasereduari esker, eta horrek euskara etxeko hizkuntza ez duten hainbat haur, gutxi-asko, euskaraz gizarteratzea ahalbidetu du. Halere, euskarazko eskolatzeko familiarren barneko hizkuntza sozializazioari nola eragin dion aztertu duen ikerlanik ez dugu.

Nafarroako euskararen historia hurbilean euskararen belaunez belauneko jarraipena nola gertatu den aztertzea izanen da hurbilen bi ataletan eginen dudana, lehenbizi Baztango Iruritan eta gero Iruñean.

5. IRURITAKO LANDA IKERKETA

Atal honetan lehen kasu azterketa, Nafarroako Mendialdean egindakoa, azalduko dut. Lehenik, landa ikerketaren metodologia xehetasunak argituko ditut. Bigarrenik, herria aurkeztu eta haren historia soziolinguistiko hurbileko zenbait zertzelada emanen ditut. Buruenik, hirugarren ataltxo berriemaileengandik nahiz behaketetatik esku-ratutako lekukotasunik esanguratsuenak agertu eta aztertzeari eskainiko diot.

5.1. METODOLOGIA XEHETASUNAK

Iruritako ikerraldia 2010-2011 ikasturte osoan luzatu zen, 2010eko irailetik 2011ko ekainera.

Aztertu nituen familiak hautatzeko herriko eskolak ikasturtez ikasturte matrikulatutako hiru urteko ikasleen lehen hizkuntzaren gaineko datuak (ikus II. eranskina) hartu nituen kontuan eta horren arabera hamar familiako lagina osatu nuen: bi familia euskaldunbete eta zortzi familia euskaldun ez oso.

Lehen mailako informazioa eskuratzeko teknika etnografikoak honela aplikatu nituen:

– *Behaketa zuzena eta parte hartzailea*, gurasoen eta haurren arteko hizkuntza portararak, helduen artekoak eta haurren artekoak aztertzeko erabilia. Gehienetan leku publiko hauetan baliatu nuen: Iruritako Errebote plazan, Goienetxe plazan, Gizarte Bilgunean eta herriko karrketan, oro har.

Herriko eskola erreferentzia ezinbestekoa gertatu zait behaketak egiteko ez ezik familiekin harremanak izateko ere. Hiru eta hamabi urte bitarteko iruritar gehien-gehienak herriko ikastetxe publikoan daude eskolatuta. Datu zehatzetara ekarrita: 2011-2012 ikasturtean Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean Iruritako hamar haurrek baizik ez zuten ikasten (hiru herrigunekoek eta zazpi Errekakoek), eta guztiak D ereduan. Kasu horietan goizero taxi bat joaten da Errekako eta herriko haurrak biltzera eta ikastetxera eramaten ditu. Ikastetxean bertan bazkaldu eta arratsaldeko eskola-saioa amaituta haurrak taxiz itzultzen dira etxera. Familia batzuek San Frantzisko Xabier Ikastetxeak dituen garraio eta jantoki zerbitzuengatik nahiago dute seme-alabak eskualdeko ikastegian eskolatzea. Elizondon dagoen Baztan Ikastolan ere

badira iruritar bakan batzuk. Beraz, Iruritako eskola hartuta laginaren adierazgarritasuna bermatzen da herriko haur gehien-gehienak ikastetxe horretara biltzen baitira.

Eskolaren ingurua bereziki interesgarria gertatu zitzaidan elkarrekintza usuen eremua delako, haurrendako nahiz helduendako, baina eskolaren barruan, hau da, ikasgeletan ez nuen behaketarik egin horietan hizkuntza erabilera instituzionalizatua edo eraginda dago eta. Izan ere, ikerketaren helburuagatik eskola barnean eragindako erabilerari baino gehiago, berezko edo bat-bateko hizkuntza portaera libreari behatu nahi nion. Eskola ordutegiaren barnean zenbait jolas-ordu izan nituen behaketa une baina haurren eta helduen hizkuntza portaeren behaketak batik bat eskolatik lekora egin nituen: jangelan, eskolaz kanpoko jostaldietan, larunbatetako eskulan tailerretan, txangoetan eta aisialdiko bertzelako jardueretan, horietan guztietan maisu-maistrarik ez zela. Adibidez, jangela herriko Gizarte Bilgunean zegoen (eskolatik ehun bat metrora) eta bi ama arduratzen ziren hurrei bazkaria emateaz eta zaintzeaz. Jantokiko behaketa interesgarria iruditu zitzaidan neska-mutikoak eskolatik kanpo zeudelako. Jantokia ez zegoen eskolako eraikinean eta irakasleen ordeaz amak ziren haurren ardura zutenak. Bertzalde, haurren arteko hizkuntza portaerak aztertzeke egoera bereziki egokia izan zitzaidan, haiek ohartu gabe grabatu ahal izan bainien.

— *Elkarrizketa sakonak*, gidatu samarrak eta berriemaile adituei eginak, ikerketaren zenbait arlo zehatz hobeki ezagutzeko baliatu nituen. Berriemaile adituak M^a Eugenia Urrutia, Joseba Igarabide, Martin Garde eta Baztango herrietako eskoletako —bereziki Iruritako eskolako— maisu-maistrak izan ziren (ikus haien zertzelada biografikoak 7. eranskinean).

— *Glotobiografiak* edo hizkuntzan ardaztutako narrazio biografikoak berriemaileekin izandako elkarrekintzetan bildutako informazioaz eratuta daude. Narrazio biografiko horietatik abiatuak hiztunen bizi-ibilbidean sakontzeko glotobiografien adierazpen grafikoa, *glotobiogramak*, apailatu nituen (ikus 9. eranskinean). Bertzalde, familietako kide baten edo gehiagoren glotobiografiak uztartuz aztertutako familia bakoitzaren hizkuntza-historia edo *familiaren glotobistoria* (FG) osatu nuen (ikus guztien laburpenak 14. eranskinean). Iruritako kasu azterketari dagozkionak lehendabiziko hamarrak dira: I. FGtik 10. FG bitarte). FG horiek ere grafikoki irudikatuta daude: *glotobistoriogramak* (ikus 10. eranskinean). Iruritakoak lehendabiziko hamarrak dira). FGak osatzeko nire berriemaile gehienak gurasoak (1970 aldera sortuak) izan baitira, horien gizaldiari *ego belaunaldia* deitu diot.

5.2. IRURITAREN HISTORIA SOZIOLINGUISTIKO HURBILA

5.2.1. Kokapena eta herriaren morfologia

Irurita Baztango udalerrian dago eta haran horretako hamabortz herrietako bat da. Baztanek Nafarroako iparraldeko eremu zabala hartzen du, 377 kilometro koadro, eta bera da Euskal Herriko —Nafarroakoa ere bai, jakina— udalerririk handiena. Iparraldean, Otsondo mendiaz haratago, Urdazubi eta Zugarramurdi udalerririk daude Baztango lurrek inguratuz. Horiekin ez ezik Lapurdiko Sara, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta eta Itsasu herrieekin ere egiten du muga Baztanek. Ekialdean Nafarroa Behereko Bidarra, Baigorri, Banka eta Aldude ditu mugakide. Mendebaldean Etxalar, Bertizarana eta Donamaria; hegoaldean Ultzama, Lantz, Anue, Esteribar eta Erroibar, hauek guztiak Nafarroa Garaian.

Udalerrri bakarra bada ere, Baztanek hamabortz herri biltzen ditu bere baitan — gehienek auzoak dituzte—, banaz bertze 200-500 metroko garaieran, lau alderdi edo *cuarteletan* bilduak, hurrengo orrialdeko mapan ikus daitekeen bezala:

- Basaburua: Almandoz, Aniz, Berroeta eta Ziga (auzoa: Zigaurre).
- Baztangoiza: Amaiur, Arizkun (Aintzialde, Bozate, Ordoki eta Pertalats), Azpilkueta (Apaioa, Arribiltoa, Urrasun eta Zuaztoi) eta Erratzu (Gorostapalo eta Iñarbil).
- Erberera: Arraioz (Mardea), Gartzain (Aitzano, Ariztegi eta Etxerri), Irurita eta Oronoz (Mugairi eta Zozaia).
- Elizondo aldea: Elbete, Elizondo (Antzanborda, Beartzun, Berro eta Etxaide) eta Lekaroz (Aroztegia, Oharriz eta Uharte).

Baztan Iruñetik Dantzarineko mugaraino doan N-I2I-A-B errepideak zeharkatzen du hegotik iparrera. Errepide nagusi horretako 47. kilometroan dago Irurita, Elizondotik hiru kilometrora. 2012ko ekainean Arraioztik Elbeteraino doan saihesbidea zabaldu zuten eta orduz geroztik N-I2I-B errepideak ez du Iruritako herrigunea zeharkatzen.

Herriak bi populazio eremu aski bereizi ditu: herrigunea eta baserriak. Lehena muino batetik hedatzen da eta Goienetxe eta Errebote plazak ditu elkargune nagusi. Horien ingurura biltzen dira etxeak, anitz XVIII. eta XIX. mendeetako arkitektura zibilaren adibide ederrak. Herrigune horretatik hiru auzo hedatzen dira: Iparburu, elizaren inguruan; Apote, Goienetxe plazatik beheiti Zigako bidearen bazter batean; eta Ordoki, dozena bat nekazari etxek osatua, Errebote plazatik goiti Irular mendi aldera. Azken urteetako etxe berriak errepide nagusiaren bi aldeetan, Lekarozko bide inguruan eta Apote auzoan eraiki dira.

Iruritako baserriak herrigunetik hego-ekialdera, Artesiaga mendi aldera doan NA-I74 errepideak zeharkatzen duen haran meharrean daude. Alderdi horri *Iruritako Erreka* erraten zaio. Bordak hiru errekatara biltzen dira: ezkerrekora, erdikora eta eskuinnekora. Baserri edo bordetan abeltzaintzan aritu izan da jendea. Azken bizpahiru hamarkadetan anitz etxe hustu dira eta orain geratzen diren familiak sarri abeltzaintzarekin batera bertze jarduera ekonomiko bat ere izaten dute.

Egun Elizondoren ondotik, Irurita da Baztango herririk jendetsuena. Baztan osoak 8.075 biztanle ditu, Elizondok 3.532 eta Iruritak 847 (INE, 2011). Iruritak biztanle bilakaera gorabeheratsua izan du: 1800. urtean 582 lagun zituen (94 etxetan), 1960an 998 (horietatik 363 herrigunetik kanpoko 57 baserritan bizi ziren. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, 1986: XX. lib. 445). Orain lauzpabortz hamarkada Amerikara jo zuten baztandar anitzek, iruritarrak barne. Hortik aitzina berrogei urtez populazioak beheiti egin zuen: 1970ean 961 biztanle zituen eta 2000n 837. Hondar aldian ordea, doi-doi bada ere Iruritak berriz biztanleak irabazi ditu.

Mapa Baztan udalerria



Iturria: Doke Eskuara Taldea (2005: 5)

Azken urteotan Iruritan zeuden denda eta ostatu anitz hetsi dituzte. Landa ikerketa hasi orduko herriko harategia hetsirik zegoen eta horren ondotik herrian geratzen zen elikagai denda bakarra ere itxi zuten, jabeak berriki erretiroa hartuta. Duela hogei-ta hamar bat urte herrian dozena erdi inguru ostatu zeuden, bai eta okindegia eta bertzelako dendak ere. Gaur egun kafetegi-gozotegi bat dago Goienetxe plazan eta egunero zabaltzen duen ostatu bakarra, plazatik hurbil errepideaz bertze aldean. Asteburuetan Gizarte Bilguneko ostatua ere zabaltzen dute eta herriko gazte jendea biltzen da hara. Banketxe baten bulegoa dago Goienetxe plazan baina 2011. urtea hastearekin zerbitzu ordutegia murriztu zuten eta orain astean bitan baizik ez dago zabalik. Bertze egunetan kutxazain automatikoarekin konpondu behar izaten dute herritarrek.

Hala bada, iruritarrek Elizondorekiko zerbitzu morrontza anitzez handiagoa dute orain duela bizpahiru hamarkada baino. Herrigunean zenbait enpresa txiki daude (pintura, sukaldeko altzariak, gozogintza...) eta hortik kanpo, auzoetan: hiltegia Lekarozko bidean eta industria barrutia errepide nagusiaren bazterrean, Arraioz aldera.

Kultura bizitza handiko herria izan da Irurita: antzerki, dantza eta txirrindulari taldeak... eta orain ere guraso elkarte oso dinamikoak daude (herrikoa eta eskolakoa) haurrendako jarduera eskaintza ugari antolatzen dituztenak.

Landa ikerketa egin nuen ikasturtea, 2010-2011, Errebote plazako eskolarendako hondarrekoa izan zen. Orduz geroztik hori ez da haur iruritarren ikastetxea txiki geratu baitzen bertan eskolatzen ziren hirurogeita hamar inguru ikasleendako. Herriko eskola berria herrigunetik berrehun bat metrora, Elizondo aldera, eraiki zuten, osasun kontsultategiaren eta kiroldegiaren ondoan. Iruritako haurrek 2011-2012 ikasturtea ikastetxe berri horretan hasi zuten.

5.2.2. Bilakaera soziolinguistikoa

Baztango historia soziolinguistikoa egiteke dago. Pedro Esartek (2006) XVI. gizaldiko baztandarrak nola bizi ziren azaltzean deus ere ez du erraten bertako jendeak —arteak euskaldun hutsa gehiena— zer harreman zuten erdarekin eta nolako banaketa soziofuntzionala zegoen indarrean hizkuntzen artean.

Nafarroako Mendialde euskaldunear egonda Baztango herriek bertako euskal mintzoei eutsi badiete ere, Iruritako historia soziolinguistikoa euskara ez da beti iruritarren hizkuntza ohikoa izan.

1726-1727ko apeatik ondoriozta daitekeenez, XVIII. mendean iruritar gehienak euskaldun hutsak ziren. Izan ere, dokumentu horretan idatzitakoak euskaraz aditzera eman behar izan zizkieten herriko sinatzaileei, ulertuko bazuten: «Se les dio a entender el contenido de la instrucción en idioma bascongado para que les *conste de su thenor*» (Otondo, 2003: I27-I30). XIX. mendearen lehen herenean Pedro Antonio Añibarrok, predikazioa egiteari begira, Irurita euskaldun *itxiak* ziren herri zerrendan sartu zuen (zenbaiten artean, 1960, I. lib.: 44-60). Mende horren erdialdean Iruritan neska-mutikoen irakaskuntzarako bi fundazio zeuden. Horietako bat, 1775ean Tiburcio Hualde Martiarena iruritarrek sortua, lehen letretako behin betiko maisu baten kontratazioarako zegoen hornituta eta irakasleak euskara jakin beharra ezarria zuen, haren eginkizunen artean baitzegoen «... enseñar a leer, escribir, contar y la Doctrina cristiana así en la lengua Castellana como en la Vascongada» (Urmeneta, 1996: 307-308). Kasu hori aski bitxia da garai horretan Nafarroan eskola publikoetako maisu-maistrak izendatzen zirelarik ez baitzen euskararen eskakizunik izaten. Iruritan jardun zuen fundazio horrek honako deialdi hau zabaldu zuen 1887an: «Por defunción del que la ha desempeñado durante 33 años, se anuncia la vacante de la Maestría de niños en Irurita (valle de Baztán), que es de Patronato particular (...). Los aspirantes dirigirán sus solicitudes (...) debiendo advertirse que para cumplir la Fundación, el Maestro debe saber el vascuence» (Urmeneta, 1996: 308).

Blanca Urmenetak aztertutako dokumentazioaren arabera, ez dirudi aipatu maisu lanpostua betetzeko inoiz arazorik izan zenik (ibid., 274). 1830ean Zugarramurdin euskara ezagutu beharra ezartzen zuen antzeko fundazio bat eratu zen. Horiek dira ekimen pribatuko kasu bakarrak Nafarroan irakasle izateko euskara jakin beharra zerkartenak¹⁰⁷. Dirudenez, maisu lanpostua hornitzeko fundazioak ez zuen 1887tik aitzina anitzez gehiago iraun (ibid., 308).

¹⁰⁷ Garai bertsuan Iturenen ere bazen horrelako fundazio bat euskara jakitea meritu gisa balioesten zuena eta XX. mendearen hasieran maisu lanposturako izangaien arteko auzi luzea piztu zuena.

1879an Euskarazko Elkargoak, xede nagusitako bat euskara zaintzea zuela, Antoine D'Abbadie euskaltzalearen laguntzaz Hego Euskal Herriko lehendabiziko Lore Jokoak antolatu zituen Elizondon, uztailean, Santiago zaindariaren bestetan: pilota partidak, atabalarien txapelketa, bertsolariak eta hitz neurtuko nahiz lauko euskarazko literatura lanen lehiaketa bai eta sari emate berezia ere —aski eztabaidatua izan zena¹⁰⁸— eskoletan euskararen alde gehien egiten zuen irakasleari (Jimeno Jurío, 1997: 212).

XIX. mendearen bukaeratik Iruritik Lekarozko Nuestra Señora del Buen Consejo Ikastetxea izan zuen ondoan. Kaputxinoen ikastegiak 1891. urtean hartu zituen lehen ikastaldeak. II. Errepublika garaian Lekarozko ikastetxeak irakaskuntza gaztelaniaz egiten bazuen ere euskara ikasleen eskola saioretan nahiz aisialdian sustatzen hasi zen (I. Estornés, 1983: 175). Euskara ikasketa planetan sartzeaz gainera, hizkuntzaren erabilera bertze jarduera mota batzuetan ere sustatzen zuten, literatura saioretan kasu. Lekarozko ikastegiaren esperientzia bertze ikastetxeek jarraitu beharreko eredu-tzat aurkeztu zuten 1922an Eusko Ikaskuntzak Gernikan egin zuen III. Biltzarrean (Jimeno Jurío, 1997: 219; López-Goñi, 2002: 89-90).

Kaputxinoen ikastegian euskal kulturako izen handiak ibili ziren irakasle (Jose Gonzalo Zulaika *aita Donostia*, Miguel Olasagarre *aita Damaso Intza*, Agustin Zarranz *aita Polikarpo Iraizozkoa*, bertzeak bertze)¹⁰⁹. Espainiako Gerra Zibila artio Lekarozko ikastetxea euskal kulturaren gaineko ikastegi eta ikertegi nagusienetako bat izan zen eta horrek, abertzaletasun eta separatismo kutsuko susmoak tartean, 1934an buruzagi politiko eta militarren mesfidantza ez ezik kaputxinoen agintariena ere ekarri zuen. 1936an ikastetxeko hogeitatu irakasle erbesteratu ziren eta Gerra Zibilaren ondotik Lekarozko ikastegian euskal kulturak izan zuen garrantzia franko gutxitu zen¹¹⁰.

Zaila da zehaztea kaputxinoen ikastetxeak Iruritan izan zuen eragina. Ez dirudi Gerra Zibilaren ondotik eta 1988an hetsi zen artio ikastetxeak Iruritarren erdalduntzean eragin zuzenik izan zuenik. Lekarozek eta Gartzainek, horiek ere ikastetxearen hurbilean, euskaldun iraun baitute gaur artio. Erdara orga bidez sartuko zen, segur aski, herrira. Bide nagusiak bi herrixka horiek bazter uzten zituen baina Irurita aldez, bete-betean zeharkatzen zuen.

Urmenetak (1996: 275-307) eta Erizek (1997: 422-436) xeheki aztertu dute.

¹⁰⁸ Sari horrek zenbaiten haserrea ekarri zuen. Honela adierazi zuen maisu batek horren kontrako iritzia Huescako egunkari batean: «... ningún maestro de escuela puede ni debe hacer poco ni mucho sino en favor de la lengua española, que tiene obligación de enseñar, so pena de colocarse en una actitud facciosa para con las leyes del país» (Jimeno Jurío, 1997: 309).

¹⁰⁹ Ikasle ohien artean ere itzal handikoak badira: Jesus Maria Leizaola lehendakari izandakoa, Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida eskultoreak edo Pedro Miguel Etxenike zientzialaria, bertzeak bertze.

¹¹⁰ Horren ikusbide 1980an aita Polikarpo Iraizozkoaren aldeko hileta elizkizunak erdara hutsean egin zirelakoztaz Baztandarren Biltzarra elkarteak zabalduetako kexu-oharra ekarri dut hona: «Baztandarren Biltzarra Elkarte (Elizondo-Baztán); con ocasión de la celebración de los solemnes funerales por el académico de Euskaltzaindia padre Policarpo de Iraizoz, capuchino, en el colegio de Lekaroz (Baztán), el día 7 de abril, con asistencia de sus familiares, amigos, académicos de Euskaltzaindia y Ayuntamiento de Baztán y numeroso público baztanés, quiere expresar públicamente su profunda indignación por haberse llevado a cabo los actos religiosos exclusivamente en castellano, considerando este hecho irrespetuoso hacia el académico fallecido, padre Policarpo de Iraizoz, a sus familiares, académicos de Euskaltzaindia presentes y público en general, todos ellos euskaldunes y amigos respetuosos del padre Policarpo. Al mismo tiempo, expresamos toda nuestra admiración al venerable capuchino navarro, profundo estudioso de nuestra lengua euskara, hombre sabio y humilde que supo vivir y morir con el pueblo, Gohian Bego [sic]» (DEIA, 1980ko apirilaren 18ko alea).

XX. mendearen hasmentan Irurita Iruñetik Elizondorako errepidearen eraginak nabaritzen hasi zen. Garai horretan posta zerbitzua zegoen astean hirutan, askotariko industriak (irin fabrika, zerrategia, meatzeak eta marmol-harri harrobiak), lantegiak bai eta guardia zibilen eta karabineroen etxeak ere (*Gran Enciclopedia Navarra*, 1990: VI. lib., 201-204). Horrekin guztiarekin batera erdara indarra hartzen hasi zen herrigunean.

Halere, nahikoa euskalduna zen Irurita mende hasieran. 1902tik 1915 bitarte herriko mediku jardun zuen Pablo Fermín Irigarayk¹¹¹ —Ángel Irigarayren aita zenak— euskaraz mintzatzen hasi *behar* izan zuen: «Yo de pequeño debí hablar el bascuence pero no lo recuerdo; más tarde lo empecé a hablar por necesidad» (Feriri [P. F. Irigaray], 1910-2-26). Iruritan sendagile aritzeak *behartu* zuen euskaraz egitera: «Nada me costó hablarlo mal, pues vivía en un pueblo euskeldun» (Larreko [P. F. Irigaray], 1924-6-27). Hala bada, pentsa daiteke mende hasmenta horretan euskara hizkuntza arrunta eta ohikoa zela Iruritan, mediku ziharduenak ezinbestez jakin behar baitzituen mintzairaren hasi-masiak. 1916an auriztarrak arranguraz idatzi zuen «... Baztan alderdi pulit orretan, nolaz ari diren gisa guziz erdaratzen» (ibid., 1916-8-12). Bordarien umeez «... erdaritzik etzakiten»¹¹², halaz guztiz gurasoek erdaraz nahi zuten eskola haurrek hizkuntza hori ikas zezaten, «... orixe baitzen eien asmo bizia» (ibid.). Herriko medikua izana kexu zen euskaldun jendeak bere mintzaira nola apalesten zuen ikusita: «Euskeldunen artean geienek uste dute euskaraz ez ditekela yakintsun izan, eztaitekela yakindurik irakasi» (ibid.).

Iruritako historia soziolinguistikoan herriguneak eta baserriak bereizi behar dira XX. mendearen lehen hamarkadetatik bi bilakabide erabat desberdin izan baitituzte Karrikak eta Errekak. Bordetako iruritarrek egun artio euskara atxiki dute baina herrigunean ordea, euskara ia lekutu zen gaztelaniak, karriketako gizarte bizitzako harreman formal nahiz informaletan ez ezik, etxeen barnean ere tokia hartu baitzuen.

Dirudienez, herriguneak XX. mendearen hirugarren hamarkada bitartean euskaldun izateari eutsi zion. Ordura artio iruritarrek —nahiz eta gutxi-asko erdara jakin— euskaldunak izanen ziren eta herriko bizitza euskaraz eginen zuten.

Gerra Zibilaren ondotik erdara nagusitzen da eta sortutako karrikatarren artean txikitzen euskaraz aski sozializatu ez ziren eta, ondorioz, hizkuntza ikastera iritsi ez ziren lehen iruritarrek ditugu. Horiek dira gaur egungo haur euskaldunen aitatxi-amatxik. Bi gizaldi horien artean oraingo neska-mutikoen aita-amak daude, herrigunean erdaraz sozializatu zen iruritarren sorraldia.

XX. gizaldi osoan Baztan herri euskaldunetz inguraturik egon da lau aldeetatik, mendearen erditik aitzina gero eta nabarmenago bazen ere hegoaldera jo eta Iruñera hurbildu ahala euskararen gizarte trinkotasuna gesaltzen zela. Halere, haran euskaldunen barnean aspaldian nabariak ziren herri erdaldunduak. A. Irigarayk ([Irular] 1925 eta berriz 1930, 1956) Baztango herrien artean Elizondo aipatu zuen. 1961ean,

¹¹¹ Pablo Fermín Irigaray Goizueta (Auritz, 1869 – 1949, Iruñea) idazkietan *Larreko* goitzenaz gain *Feriri* ezizenaz ere baliatu zen, Urmenetak (1996: 122) eusten dion oso egiantzekoa den hipotesiaren arabera. 1908an *La Voz de Navarra* egunkari integristan Baztango berriak ematen zituzten artikulua, Feririk sinatuak, hasi zen argitaratzen “Baztandik” izeneko sailean. Hasieran, artikulua zati batzuk baizik ez zeuden euskaraz, baino gero eta gehiago eman zituen mintzaira horretan. 1911n, egunkariak halako artikulua argitaratzeari utzi ziolarik, osorik euskaraz idatziak zeuden Feririren idazlanak. Joxemiel Bidadorrek (2001: 205-220) bildu ditu 1910ean eta 1911n argitara emandako artikuluxkak.

¹¹² «... erdaritzik etzakiten»: erdarazko hitzik ez zekiten.

Morales de Radak (1963) egindako inkestan Almandozki ere atzeman zizkion euskararen gibelatze zantzuak haur gutxi aritzen baitziren euskaraz. Hamarkada bat geroago, 1970ean, Sánchez Carrionek (1972) Irurita eta Oronoz-Mugairi ere sartu zituen eremu euskaldunaren barnean eragin erdalduntzailea zuten herrien artean, bien kasuan bidegurutzea izateagatik. Garai berean, Irizarrek (1973a) iruritarren % 90 jo zuen euskalduntzat. Hala eta guztiz ere, Karrika gainetik beheraino erdarak joa omen zegoen. Sánchez Carrionek honela azaldu zuen 1970ean Iruritan kausitutako hizkuntza egoera:

Los individuos de 30 años en adelante todavía suelen conocer el vasco (pues la castellanización proviene de 30 años acá), pero aún entre ellos se abre paso una mayor utilización del castellano. Más jóvenes, aunque alguno no lo entienda [sic], no lo suelen saber hablar. No se les enseña a los niños en el hogar. Quedan vascófonos exclusivos en sujetos de una edad muy avanzada (...) en una regresión que ya no se detendrá, entre los restantes iruritaras (1972: II7-II8).

Berrogei urteren buruan aldiz, euskararen bilakaera ez da joan Txepetxek iragarri zuen galbidetik. Hizkuntza atxiki eta ordezkatzeko arloan burutu ikerketa ugari gorabehera, oraindik ez dago hiztun taldeek beren mintzairari eustearen gaineko benetako teoria osorik. Hala bada, horrelako iragarpenak egitea zaila izaten da. Sánchez Carrionek Iruritan euskararen galera itzuli ezintzat eman zuen —«... una regresión que ya no se detendrá»— eta, ziurrenik, 1935ean A. Irigarayk (1956) haurrak euskaraz aritzen ez ziren herrietan dokumentatutako egoera hogeita hamar urte geroago nolakoa zen oharturik, Iruritako familiek haurrei euskaraz egiten ez zietela ikusi eta euskararen desagertzea zalantzarik gabe iragarri zuen.

Txepetxek topatutako hizkuntza egoerak Galek (1979) Austriako ekialdeko Oberwart/Felsőör herri elebidunean deskribatutakoarekin harreman handia zuen eta mintzaira ordezkapena gertatzen ari zela pentsatzeko bide ematen zuten alderdi anitz zeuden: hizkuntza erabilera sozialean gaztelaniak ordura artio euskaraz zuen lekua hartu izana (karrikan ez ezik baita etxeetan ere), gazteek elkarren artean euskaraz ez ihardukitzea, gaztelaniak egoera formaletako eta prestigiodunetako komunikazio funtzioak hartuak izatea eta euskaraz egiten zuten hiztunak gutxiestea ohikoa izatea. Egoera soziolinguistikoaren alderdi adierazgarri horiek guztiak aski argiak izanik ere, Sánchez Carrionendako guraso elebidunek seme-alabei euskaraz ez egitea izanen zen, segur aski, elementurik salagarriena Iruritako euskara ordezkapen prozesuaren azken urratsetan zegoela ondorioztatzeko: «No se les enseña a los niños en el hogar». Izan ere, hiztun talde bateko zenbat haurrek ikasten duten hizkuntza hartu izan dute ikertzaileek mintzairaren galtzeak arriskua zehazteko irizpide nagusitako (UNESCO, 2003). Fasoldek (1995: 241) argi adierazten du: «Of course, an unmistakable sign of the final stages of shift is when bilingual parents pass on only the new language to their children».

Halere, lau hamarkada igarota, euskara bizirik da Iruritan. 1996ko zentsua erreferentzia harturik¹¹³, egun iruritarren % 85 iguru da euskaldun. Gaur egun euskaraz,

¹¹³ Zentsu-erroldek Baztan osoari dagozkion datuak baizik ez dituzte ematen. 1996ko zentsuaren datuak herrika zehaztuta, Irurita (817 biztanle) Baztango bigarren herririk handiena da Elizondoren (3.224) ondotik eta euskaldunen portzentajerik txikiena duen hirugarrena: Elizondok % 64 euskaldun, Elbetek % 77 eta Iruritik % 81. Baztango herririk gehienek biztalen % 90 baino gehiago dute euskaldun (Baztango Udaleko Euskara Zerbitzua, 1999).

gutxi-asko, aditzen da herrian, euskaraz egiten ohi diete gurasoek haurrei eta euskaraz aritzen dira neska-mutikoak beren artean jostetan. Guztiak D ereduan eskolatzen dira. Azken hamasei urteotan (1996tik 2012ra. Ikus II. eranskina) Irurritako eskolan ikas-tertez ikasturte hasi diren hiru urteko haurrak hartuta, gehien-gehienek euskara —hutsik edo gaztelaniarekin batera— izan dute lehen mintzaira. Lau hamarkada hauetan euskararen egoera (hizkuntzaren estatusa, euskarazko irakaskuntza...) moldatu duten aldaketa handiak gertatu dira baina horiekin batera —eta ikerketa honetarako interesgarriena dena— iruritarren belaunaldi bat izan da bere seme-alabak euskaraz haztea deliberatu duena, nahiz eta mintzaira hori guraso gehienek lehen hizkuntza ez izan.

5.2.3. Baztango euskararen gainekoak

Baztango euskal hizkera euskalkietan sailkatzeko proposamen desberdinak izan dira XIX. mendearen bigarren erdian Louis-Lucien Bonaparte printzeak euskal dialektologiaren lehendabiziko ikerlan zientifikoak argitaratzen hasi zenetik.

Bonapartek bereizi zituen zortzi euskalkietatik zazpi —bizkaitarra ez bertze guztiak (osorik ez baina zati bat bederen bai)— Nafarroako lurretan kokatu zituen: zubereratzat eman zuen Erronkariko hizkera, ekialdeko behe-nafarreratzat Zaraitzukoa, mendebaldeko behe-nafarreratzat Aezkoakoa eta Luzaidekoa, lapurteratzat Baztangoa, Zugarramurdikoa eta Urdazubikoa, eta gipuzkeratzat Etxarri Aranazkoa, Ergoienakoa eta Burundakoa. Gainerako hizkerak nafarreratako jo zituen, bi euskalkitan banatuta: iparraldeko eta hegoaldeko nafarrerak (Zuazo, 2008: 93).

Mitxelenak euskalkien ikerketa berezirik egin ez bazuen ere, euskal mintzoen ezaugarriez utzitako oharretan Baztango hizkerak batzuetan nafarrerari eta bertzeetan lapurterari esleitzen zizkion. *Fonética Histórica Vasca* lan ezagunean nafartzat hartu zituen, baina Irizarrek (1997) berriz, lapurtartzat.

Zuazok sailkapen xeheagoa egin zuen eta Nafarroako euskal hizkerekin Bonapartek baino zorrotzago jokatu. Eskualde honetan hiru azpieuskalki bereizten ditu: sartaldea, sartaldea eta erdigunea (Zuazo, 2003: 104). Mendebaldeko azpieuskalkia da, bere us-tez, bereziena. Horren barnean ipar-sartaldeko hizkerak Bidasoa errearen inguruko eskualdeak biltzen dituzte: Bortziriak, Malerreka, Bertizarana eta Baztan. Baina Baztanek, bazterrean dagoenez, lapurteraren ezaugarriak ere baditu eta tarteko hizkeratzat (2008: 94) jo zuen, bien arteko zubia balitz bezala «mugan dantzan» (Zuazo, 2003: 106-110; 2008: 100-106). Alabaina, Edu Zelaïetak (2008: 225, 227) Hego Euskal Herriko hizkeratako, nafarraren azpieuskalkitzat, hartzen du Baztangoa.

Baztanera aipatzen bada ere, ez daiteke erran «Baztango hizkera bat, bakarra eta bera denik» (Zelaïeta, 2008: 210). Baztanen —bere zabalean— euskarazko solasmolde desberdinak egiten dira eta eskualde edo *cuartel* bakoitzean aldaerak nabariak dira. Irurritako hizkera Baztango erdiguneko multzoan kokatzen du Zelaïetak Arraioz, Gartzain, Lekaroz, Elizondo eta Elbete herrieekin batera (ibid., 176). Erdiguneko hizkeren inguruan Baztango bertze hiru mintzamolde nagusi daude: Oronozkoa (Bidasoaldearen eta Baztanen tarteko hizkera), Basaburukoa (hegoaldera eta mendebaldera egiten duena) eta Baztangoizakoa (iparraldera eta ekialdera jotzen duena). Zigako —Basaburuko— hiztun batek honela azaldu zuen belarriz sumatzen zituen aldaerak: «*Iruiten hasta da kanbietzen batera, eta Mugairen ta Oronozen bertze azentu bat dute. Basaburuan barna igualtsu, hitz bat edo bertze aldatiko da doike. Baztangoizen frantsago dute*» (Zelaïeta, 2008: 176).

Mintzamoldeen ñabardura ageri-agerikoak gorabehera, hiztun baztandarrek «er-kidego sena arrunt errotua» (ibid., 174) eta «kontzientzia maila hagitz azkarra» dute (ibid., 209).

Berebat, Baztango mintzoen hizkuntza azterketa egin dutenek (Zuazo, 2003, 2008; Salaburu, 2005; Zelaieta, 2008) hondar urteotan baztanerak izan duen aldatzeko joera handia nabarmendu dute. Alde batetik, gizartea bera aldatu da, egoera ekonomikoa hagitz bertzelakotu da eta baztandarren egungo bizimoldeak ikustekorik gutxi du orain dela berrogeita hamar urtekoarekin. Adibidez, egun Iparraldeko jendearekin harreman gutxiago izaten dute baztandarrek, nekazalgoan oinarritutako bizimodua ez da nagusi eta gizon-emakume ez gutxi beren herritik kanpora (anitz aldiz ia ordu beteko bidaia eginda Iruñe edo Gipuzkoa aldera) urruntzen dira egunero lan egitera. Horren ondorioz, erdialdeko euskalkien eragina sumatzen da eta baztanera, lehenago Lapurdiko eta Nafarroa Behereko Baigorri eskualdearekin lotuagoa, azken hamarkadetan *nafarreratuz* joan da (Zuazo, 2003: 107). Honela mintzo zaigu Zelaieta (2008: 210-211):

Garai batean, Baztanek Ipar Euskal Herriarekin zituen harremanak azkarra-
goak baziren ere, eta ondorioz, bertako euskarak —bereziki, Baztangoizakoak—
nafar-lapurterarekin lotura gehiago ageri bazituen ere, gaur den egunean, Baztan
Hego Euskal Herriko hizkeren dinamika berean edo bertsuan dakusagu.
Mugaren eragina gero eta nabariagoa da, nahiz eta aduana gehienak kenduak
diren. Beharbada, aitzineko mendeetan kanpotik ezarritako muga egiazko muga
bilakatu da denboraren poderioz. Eta orain, ongi barneratutako muga dugu,
denen edo gehienen gogoan dagoena: ezberdin jaten da, ordutegi ezberdinak
daude alde bakoitzean... eta ezberdin solastatzen da.

Gauza ageria da Baztango bizimoldean gertatutako aldakuntza mintzairan isla-
tzen dela. Ipar Euskal Herriko mintzamoldeetan «ohikoak eta sistematikoak diren
bereizgarri gehienak Baztanen gibelka eta indarge ageri dira» (Zelaieta, 2008: 210)
eta joera horrek luzera «... hiztun komunitate berria sortzen du pittaka» (Salaburu,
2005: 8).

Bertze aldetik, euskarazko Hezkuntza orokortu da eta horrekin batera hizkuntza
estandarra. Eskola publikoetako maisu-maistrak ez dira bertakoak izaten eta Baztango
solasmoldea ikasi eta horretara hurbiltzeko jarrera izaten badute ere (LK) euskara batua
da ikasle iruritarren eskolako hizkuntza. Horrek ere bete-betean eragin die Baztango
hizkeri: «Hori normala da, eta hizkuntza guztietan gertatzen da hola, gurean bertze-
tan baino indar handiagoarekin gertatzen bada ere, prozesua bera bertze tokietan baina
lasterrago egin baitugu, euskara bizirik ikustekotan» (Salaburu, 2005: 8).

Kultura kontsumoa zabaldu eta informazio ohitura berriak ezarri dira. Duela be-
rrogei urte baino anitzez aukera zabalagoa dago orain euskaraz, baina hori dena, bistan
da, hizkuntza estandarrean hedatzen da. Hiztunek baztanera eta batua bereizten dituz-
te eta maizkara, aski ongi bereizi ere. Eskolan estandarrekin harreman gutxi izan
duten eta etxeko hizkeran baizik aritzen ez diren guraso baztandarrendako seme-ala-
ben liburu-etako edo EITBko euskara «diferentea» da. Honela dio Axunek, Errekan
hazitako ama iruritarrek: «... oraingo euskara da diferentea. Incluso aunitz gauz (...)
ez ditut entenditzen beraien... gure euskara eta beraien... ari direna ikasten diferentea
da» (Axun, I. FG). Iruritan hazitako ego belaunaldiko gurasoak erdaraz eskolatu dira

eta batua ez jakiteagatik beren hizkuntza gaitasuna gutxiesten dutenak ere badira. Honela dio herriko eskolako maistra batek: «... batzuen komentarioa ‘guk ez dakigu euskaraz, elkarrizketa faborez, erdaraz’. Eta hori dena erraten dute euskaraz» (KK).

Euskara gurasoengandik ikasi ez duten baztandar batzuei aldiz, baztanera ulergaitzagoa zaie. Hala gertatzen zaio herrigunean sortutako Carlosi: «... no sé si porque debí oír en la radio o en la televisión o así, el euskera batua entiendo bastante bien. Pero sin embargo, el euskera de aquí me cuesta mucho más» (Carlos, 8. FG).

Euskara baztaneraren eta batuaren arteko kinka horretan dago Baztanen. Ondorioz, anitz aldiz, hiztunen mintzamoldea aldakorra izaten da eta usu gertatzen da hiztun berak hizkuntza forma desberdinak aldizkatzea (*errango* eta *erranen*, adibidez). Bereizketa horiek, halere, hizkeraren joritasuna baino gehiago euskal mintzoaren makaltasuna salatzen bide dute Salabururen iritziz (2005: 9): «... hizkuntzaren aberastasunaren seinale izan beharrean, haren ahuleziaren ezaugarri izan daitezke».

Hala bada, Baztango euskara «... hizkuntzen aldakuntza etengabearen adibide ona daukagu», aldaketaren norabidea Ipar Euskal Herritik urruntzea eta Nafarroara eta Hego Euskal Herrira hurreratzea dela (Zuazo, 2008: 105-6). Hizkeraren mudantza herrien kokalekuaren arabera ez ezik, belaunaldien arabera ere gertatzen da.

Alde batetik, Baztango haran zabalak Iparraldeko muga aldean, Malerreka eta Bortziriak aldean nahiz Iruñera bidean ditu herriak eta mintzaeraren bilakaeran kokalekua eragingarri garrantzitsua izan da: Basaburuko herrietan (Almandozen, Anizen, Berroetan eta Zigan) Nafarroako eta Hego Euskal Herriko eragina ezagun da; Baztangoizan aldiz, herriek antzinako ezaugarriei hobeki eutsi diete. Erbereko Arraioz eta Oronozko mintzoei Irungoaren itzala antzeman die Zuazok (2008: 106).

Bertze aldetik, baztandar gazteen artean gero eta zabalduago daude Hego Euskal Herriko euskararen moldeak eta, noski, gaztelaniatik zuzenean hartutako hitzak, makuluak, joskerak... Halatan, belaunaldi berrien hizkera aldaketa gauza ageria da, nahiz eta gazte baztandarren hizkuntza ezaugarriak sakon arakatzen dituen ikerlanik ez izan, gehienetan adineko hiztunen mintzaera baizik ez baita aztertzen baztaneraren eredutzat.

5.3. LEKUKOTASUNIK ESANGURATSUENEN AURKEZPENA ETA AZTERKETA

5.3.1. Iruritako hiztunak eta familiak

Atal honetan Iruritako hiztun komunitatean barnatu naiz. 3.1.2. ataltxoan azaldu bezala, *hiztun komunitate* kontzeptuak bi eragozpen teoriko dakartza, bata komunitatearen beraren ertz-mugak zedarritzea eta bertzea, haren heterogeneotasun maila. Biekin egin dut topo Iruritako hiztunak eta familiak aztertzean.

Hiztunak hizkuntzaren ezagutzaren *continuum* batean daude eta gaitasun eta jardun hagitz desberdinak izaten dituzte. Ez hizkuntza gaitasuna ez eta erabilera ere ez da balio absolutuko irizpidea, maiz mailakatzen zaila gertatzen den gertaera baizik. Horregatik, zenbait kasutan hiztun motak bereiztea ez da erraza izan eta arazo berari aurre egin behar izan diot familiak sailkatzean ere.

5.3.1.1. *Hiztunak*

Historia hurbilean euskarak galera eta berreskurapen prozesua izan duen Irurita bezalako herrietan hizkuntza ibilbide oso desberdineko hiztunak kausi ditzakegu eta aniztasun hori familien hizkuntza osaerari ere antzematen zaio.

Glotohistoriogrametan (I0. eranskiean) begi kolpe batez ikus daitekeenez, izan badira Iruritan hazitako aitatxi-amatxik euskaraz ongi ez dakitenak —beren belaunaldian ugariak dira gainera (3. FGko Mirenen ama, 5. FGko Itsasoren ama, 7. FGko Lauraren aita, 8. FGko Carlosen ama eta I0. Albertoren ama)— bai eta euskaraz jakin arren seme-alabak erdaraz hazi zituztenak ere (3. FGko Mirenen aita, 4. FGko Lolaren aita-amak, 5. FGko Itsasoren aita, 7. FGko Lauraren ama, 8. FGko Carlosen aita, 9. FGko Gabrielen aita-amak eta I0. FGko Albertoren aita).

Iruritan hazitako aita-amen artean (ikus haien glotobiogramak 9. eranskiean) euskara etxekoa dutenak (1. FGko Axun eta Mateo, 2. FGko Arroxa), gaztetan (berr)ikasi zutenak (3. FGko Miren, 4. FGko Lola, 5. FGko Itsaso eta 7. FGko Laura), bai eta euskara ongi ikastera iritsi ez direnak ere (8. FGko Carlos, 9. FGko Gabriel eta I0. FGko Alberto) badira. Guraso horien artean bikotekidearekin euskaraz aritzen direnak (1., 2., 3., eta 5. FGetan), seme-alaben aitzinean euskaraz eta bakarrik daudelarik erdaraz egiten dutenak (7. FGn) eta gehienetan edo beti erdaraz solasten direnak (4., 6., 8., 9. eta I0. FGetan) badaude.

Iruritan hazitakoaren artean euskaraz ez dakitela diotenak ere maiz aski euskaraz zerbaixa egiteko gai izaten dira eta oinarri horrek mezu labur-errazak ulertu eta adierazteko balio die. Hala gertatzen da, erraterako, Carlosekin (8. FG): aita euskalduna zuen baina txikitan erdaraz sozializatu zen etxean, eskolan eta plazan. Euskaraz pittin bat badaki, nahiz euskaltegiara ez den inoiz ere joan, eta alabekin ahal duena egiten du.

Carlosen amaren, M^a Luisaren (8. FG), kasua ere Iruritako historia hurbilean euskarak izan dituen gorabeheren barnean ulertu behar da: Gerra Zibilaren ondotik Iruritako herriguneko familia euskaldun batean sortua, umetan euskara ikasi zuen aita-amekin baina erdarazko eskolak eta Francoren agintaldiaren lehen hamarkada latz horietako giro erdaltzaleak eraginda gaztetxotan gaztelaniara mintzaldatu zen eta euskaraz ihardukitzeko erraztasuna galdu zuen, hots, umetan ikasitako mintzaira kamustu edo trakestu zitzaion¹¹⁴. M^a Luisak erdaraz hazi zituen seme-alabak baina egun euskaraz —txikitan ikasitako etxeko hizkeran— egiten die bilobei.

Hala bada, Iruritan hazitakoaren artean ez da izaten euskaraz deus ere ez dakienik. Areago ere, batzuetan hiztunei zail gertatzen zaie lehen hizkuntza zein izan zuten argitzea eta euskara noiz eta nola ikasi zuten zehaztea. Lola (4. FG), konparazione, horrelako hiztuna dugu: herriguneko familia euskaldun batean sortu zen baina umezaroan etxean gurasoek erdaraz egiten zioten. Eskolan erdaraz ibili zen eta gero, gaztetan, euskalduntzeko erabakia hartu zuelarik txikitako euskararen arrastoa bazuela jabetu zen:

...[txikitan] ez dakit euskaraz banekien ere. Es que ez dakit, buuu! ¡Qué va, qué va! Nik euskaraz arras gutti (...). Nik banuen zerbait... nik nonbatetik ikasi nuen zerbait. Ni zerotik ez nintzen hasi, zerbait banekien. Erdaraz ikasi nuen, erdaraz, baina pentsatzen dut aitatxi eta amatxirekin edo norbaitetik eus-

¹¹⁴ Literatura sozioantropologikoak gertakari hori aski dokumentatu du, erraterako, Dorianek (1980, 1981) eta Schmidek (2004).

kara nik banekien zerbait. Bertzenaz ni zerotik ez nintzen hasi (...). Lo que pasa es que ez nuen praktikatzen, orduan beti como... beldur hori, ez? (Lola, 4. FG).

Laurak (7. FG) ere antzeko historia bizitu du. Beraz, Iruritako zenbait hiztunen bizi-ibilbidea azaltzeko euskaldun/erdaldun nahiz euskaldun zahar/berri bereizketa dikotomikoez ez dute balio. Hiztunek berek hausten dute sailkapen hori euskararekin eratu dituzten harreman konplexu eta ez linealak azaleratzen dituztelarik.

5.3.1.2. *Familiak*

Iruritako familien glotohistoriak osaturik haien hizkuntza tipologia arakatu ahal izan dut. Hiru belaunaldi izan ditut aztergai: aitatxi-amatxik, aita-amak eta seme-alabak (birraitatxi-amatxiri buruzko hizkuntza ezaugarriak ere bildu ditut).

Iruritan hizkuntza tipologia desberdineko familiak daude: batzuk hiru belaunaldietan kide euskaldunez osatuak, bertze batzuk ahaide euskaldunak eta euskaraz mintzatzen ez direnak dituztenak. Hamar familiako lagina izan dut aztergai, 3.I.2. atal-txoan azaldutako tipologiaren arabera sailkatuz: bi familia euskaldunbete eta zortzi familia euskaldun ez-oso.

Familia euskaldunbeteak Iruritako Errekan dira nagusi. Baserrietan euskarak ez du belaunez belauneko jarraipenean etenik izan. Bordetako familietan belaunaldi guztietako kide guztiek dakite euskaraz. Halakoa da nik aztertu dudana Errekako familia (I. FG), euskara duena hiru belaunaldietako ahaideen arteko harreman mintzaira. Hizkuntza ez ezik, Errekako familiek bertze ezaugarri sozioekonomiko batzuk ere izaten dituzte bereizgarri: senar-emazteak baserrietakoak izaten dira (herriko jendea bazterretxeetara ezkontzea ez da ohikoa izan); familia zabalak izaten dira (hiru belaunaldiak batera bizi dira baserrian, cf. Caro, 1995: 209) eta nekazaritzari loturik segitzen dute.

Iruritako herrigunean aldiz, familia euskaldunbeteak bakan batzuk baizik ez dira (nik aztertutakoetatik bakarra: 2. FG). Izan ere, familia mota hori herri edo ingurune oso euskaldunetatik at hagitx urria izaten da. Azken belaunaldietan euskarak hiztunen galera prozesu historikoa izan duen herrietako familietan hizkuntza transmisioaren etenak atzematen dira, hau da, umetan euskaraz aski sozializatu ez eta ondorioz, mintzaira ongi ikastera iritsi ez ziren hiztunak badaude. Halaz, horrelako herrietan familia euskaldun ez-osoak, belaunaldi ezberdinetan kide euskaldunez nahiz euskaraz ongi ez dakitenez osatuak eta elkarren arteko mintzabide euskara nahiz erdara dutenak izaten dira arrunteak halabeharrez. Iruritako herrigunean hala gertatzen da: familia euskaldun ez-osoak usuenak dira, aztertu ditudan bederatzi familia herrigunekoetatik zortzi. Sendi horietako hiru belaunaldietan euskararen jarraipenaren hausturak eta estekadurak agertu zaizkit.

Aztertutakoaren artean familia euskaldunberriturik ez dago eta ez dut uste herrian horrelakorik dagoenik, berriki kanpotik etorritako sendiren bat ez bada. Izan ere, familia euskaldunberrituak, hau da, euskaldunak hondarreko belaunaldian baizik ez dituztenak, herri oso erdaldunduetan agertzen ohi dira.

Hizkuntza aldetik familiak gizarte gune ez-homogeneoak izaten dira, bertikalki —belaunik belaun— euskararen jarraipenaren etenak izan baitituzte, edota horizontalki —belaunaldi berekoen artean— euskara dakitenak eta ez dakitenak egoten baitira (bikotekideen artean, adibidez). Familien hizkuntza heterogeneotasunaz jabetzeko aztertutako familien glotohistorien laburpenak (I4. eranskina) eta glotohistoriogra-

mak (I0. eranskina) euskararen erabileraren intentsitaterik handienekotik apalenekora antolatu ditut.

Familia euskaldun ez-osoak hizkuntza aldetik bereziki heterogeneoak dira. Halako familietan hizkuntza ezagutzak eta erabilerak egoera erabateko, biribil edo be-teetatik urrun dirudite. Aldiz, etxe-familia barneko hizkuntza portaera egonkorra eta homogeneoa balitz bezala hartu izan da eta haren izaera askotariko eta, batzuetan, ez-osoari gutxitan erreparatu izan zaio: «Ez zaio belaunez belauneko hizkuntza-trans-misio familiarraren izaera partzial-fragmentario horri, lautatik hirutan, duen garrantzia ematen» (Zalbide, 2009: 30).

Halako hizkuntza elkarbizitza heterogeneoa da Iruritako herriguneko familien artean maizenik kausitu dudana. Adibidez, egun bi haurren ama den Lola familia za-baleko kideen artean dagoen hizkuntza erabileraz (hurrek beren artean euskaraz, hel-duek hurrei euskaraz baina helduek elkarren artean erdaraz egiteaz) honela mintzo da: «Ikusten baduzu kanpotik erraten duzu, ‘jo[xo]! Batzuk erdaraz, bertzeak euskaraz’ baina (...) arras normala da (...). Guri ez zaigu deus raro iruditzen. Ja ohituren gauza da» (Lola, 4. FG). I. eta 2. FGetan ez bertze guztietan euskara eta gaztelania, biak erabiltzen dira aldizka hiru belaunaldietako ahaideen artean.

Hurrekiko harremanari dagokionez aldiz, bi familietan baizik ez dut kausitu seme-alabei erdaraz egiten dien gurasorik (9. FGko Gabriel eta I0. FGko Itziar eta Alberto). Gainerako guztietan aita-amen eta haurren arteko harremana gehienbat euskaraz da. Guraso euskaldunek euskaraz hazten dituzte seme-alabak eta euskaraz kis-kun-kaskun mintzo direnak ere (7. FGko Daniel eta 8. FGko Carlos) umeekin hizkun-tza horretan egiten saiatzen dira.

Haurren eta aitatxi-amatxiren arteko harremanari gogo emanda, aztertutako fam-ilietako umeek harreman estua dute aitona-amonekin. Aitaxi-amatxik eta bilobak etxe berean bizi dira I. FGn, ez etxebizitza berean baina ondo-ondoan 2., 4., 5. eta 8. FGetan, guztiak Iruritan bertan 9. eta I0. FGetan eta bi kasuetan baizik ez, 6. eta 7. FGetan, bilobek ez dute aitaxi-amatxirik herrian, nahiz eta hurbil bai, Zigan eta Elizondon hurrenez hurren. Biloben eta aitaxi-amatxiren arteko harremana garran-tzizkoa iruditzen zait familian euskarak duen lekuari begira. Oro har, aitaxi-amatxi euskaldunek euskaraz egiten diete bilobei, baina horretan ere bada aldea familia ba-tzuen eta bertzeen artean.

Iruritan hazitako aitaxi-amatxi euskaldun gehienek ez zieten seme-alabei euskara irakatsi, baina horiek berek egun euskaraz egiten diete bilobei (4. FGko Lolaren amak eta 8. FGko Carlosenak). Dena dela, dirudienez, aitaxi-amatxiren hizkuntza-portaera aldaketa hori aita-amen jarrerek eta erabakiek ekarri dute. Hau da, Lola (4. FG) eta Carlos (8. FG) beren familiak osatu eta hurrei beti euskaraz egiten hasten direlarik amatxi biak ere portaera horretara egokitzen dira (8. FGko Carlosen amak, M^a Luisak, bere hizkera kamutsarekin, ahal duen moduan). Aldiz, 9. eta I0. FGetan Gabrieleke eta Albertok erdaraz egiten diete seme-alabei, eta aitaxi-amatxik bilobekin euskaraz ba-tzuetan baizik ez dira aritzen, hau da, ez dute hurrekiko harremana euskaraz ezarri. Halakotz, dirudienez aita-amen hizkuntza jarrera eta jokamoldea familia zabaleko erabileraren baldintzatzailea da.

Mintzaira aldetik familia den gizarte gune askotariko horretan zenbait aldiz hiz-kuntza-elkarbizitza formulak adostu behar izan dira, hizkuntza heterogeneotasuna nolabait kudeatu beharrez. Inoiz hiztunek familia barneko hizkuntza heterogeneotasu-

na tentsioz bizi izan dute; hala gertatu da kide erdalduna familia euskaldunbetean sartu den bi kasuetan, Antonioren (6. FG) eta Gabrielenean (9. FG), biak erdaldun bakarrak emazteen familia euskaldunbeteetan. Lehen kasuan Antonio, Iruñerriko ingurune eta familia erdaldunetatik Baztango familia euskaldun batera ezkondua, harre-ra familiara egokitu da kide erdaldun bakarra izateagatik bizipen deserrosoa izan eta ondoan. Euskaraz ikasi du eta egun euskaraz aritzen da seme-alabekin: «... nire suegra bere semeekin dena euskaraz eta klaro, etortzen zen jendea, pues izeba eta hau eta dena euskaraz eta ni sentitzen nintzen arras gaizki, arras. Eta digo 'ospa, nik ikasi behar dut'. Eta gero hasi nintzen euskaltegian» (Antonio, 6. FG).

Bigarren kasuan Gabriel, Iruritan sortua baina guraso euskaldunak baditu ere euskaraz ez dakiena, erdaldun bakarra da emaztearen familia euskaldunbetean. Andrearen familiarekin elkartzen direlarik emazteak tarteka erdaraz egiteko eskatzen die ahaideei senarra gaizki ez sentitzeko: «... ulertu ulertzen du, ez dena, baina... joaten garelarik nire etxera pues igual nire anaia pues beti euskaraz eta nik erraten diot (...) 'ez bazaizue inporta igual erdaraz solastea pues ulertzeko' (...) pues sentitzen da pixka gaizki (...) eta batzuetan gauza batzuk euskaraz eta bertze gauza batzuk erdaraz» (Ixa, 9. FG). Gabrielelek erdaraz egiten die alabei eta etxean erdararako espazioa eskatzen du (erraterako, ipuinen bat erdaraz erostea eskatzen dio emazteari berak alabei irakurtzeko).

Aipatu bi kasuetan modu hagitz desberdinetan kudeatu da familiaren hizkuntza heterogeneotasuna. Bi hiztun horiek, biak erdaldunak familia euskaldunbeteetan, ez dute berdin jokatu eta horrek ondorioak ekarri dizkio familiaren hizkuntza elkarbizitziari. Gabrielelek emaztearen familia euskaldunbetean erdara sartu du; Antoniok aldiz, bere familia euskaldun ez-osoia euskaraz *bete* eta familiaren barneko harremana euskaraz izaten jarraitzea bultzatu du. Emazteen jokaerak ere desberdinak izan dira: Ixak (9. FG) bere familiari tarteka erdaraz egiteko eskatu die baina Milagrosek (6. FG) ez, antza.

Bi kasu horietan zer ikusteko izan dezake familiaren biziguneak. Antonio (6. FG), Iruñerrikoa, Baztanera esposatu zen, hasieran Zigara, emaztearen herrira, eta handik Iruritarra aldatu ziren. Gabrielen (9. FG) kasuan, aldiz, andre euskalduna ondoko herri batetik joan zen Iruritarra, senarraren herrira ezkondua. Lehenak herri euskaldun batera ezkontzeak berari eskatzen diola andrearen hizkuntzara egokitzea onartu duke; bigarrena aldiz, bere sorterritik ez da mugitu eta hizkuntza portaera aldatzeko beharrik ez omen du sentitu.

Laburbilduz, Iruritako historia hurbilean euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipena eten zen eta egun belaunaldien arteko segida hori berriz estekatzeko prozesua gertatzen ari da. Kinka horretan hiztunen tipologia mailakatzen eta sailkatzen oso zaila gertatzen den *continuum* batean dago eta subjektuek berek beren burua euskal edo erdal hiztuntzat aitortzeko ez ezik euskaldun berri edo zahartzat sailkatzeko ere zailtasuna erakusten dute.

Hiztunek euskararekin izandako historia ez da beti lineala. Hutsuneak daude eta hutsarte horiek norbanakoen ibilbideetan agertzen dira, baita belaunaldien segidan, familien eta erkidegoaren historian ere.

Nire ustez, familien hizkuntza tipologiak Iruritako euskararen belaunez belauneko jarraipenari lagundu dio. Familia euskaldun ez-osoetan euskarak belaunaldien arteko hutsarteak bete ahal izan ditu eta ahaideen arteko harremanak berrestekatu. Hau da, euskarak familia euskaldun ez-osoen belaunaldien arteko elkarreagineta hartu du leku. Izan ere, familia euskaldun ez-osoek duten ezaugarriarik aldekoena gizaldien arteko hizkuntza lotura ahalbidetzea da. Horrelako sendiak eten den hizkuntza segida

berreskuratzeko egoera hobean daude familia euskaldunberrituak baino. Herrian familia euskaldunberrituak ohikoak izan balira ez dut uste euskararen jarraipenaren sendotzea hain nabarmena izanen zatekeenik. Familia euskaldunberrituek duten gabeziarik larriena euskarak gizaldien arteko loturarik ezin egitea da, hain zuzen.

Historikoki, belaunaldien segidan bezala etenak izan ditu euskararen jarraipenak espazioan ere. Euskara galdua zuten guneak, hutsuneak agertzen dira herriaren lehenaldí hurbilean. Hurrengo ataltxoan barnatuko naiz horretan.

5.3.2. Herrigunea eta baserriak

Iruritik bi populazio gune «... bi gizarte arrunt bereizi[ak]» (MG) ditu: herrigunea eta baserriak. Bizigune bakoitzak bere eredu sozioekonomikoa izan du bai eta bere bilakabide soziolinguistikoa ere.

Abeltzaintzatik bizi izan diren herrietan ohikoa zen familiek herriko etxea ez ezik mendian aziendendako borda ere izatea. Berebat gertatuko zen Iruritan ere, biztanleen hazkundeak premiaturik eta Baztanen etxebizitza berririk eraikitzeko debekua itxuraz gordez, herriko zenbait familiak antzinako ardi bordak zirenak etxebizitza bihurtuko zituzten (cf. Floristán, 1995: 199-200). Zernahi ere den, gertakari hori ez da Baztanen behinolakoa: «... la densidad actual de la población diseminada vasca es de fecha no muy remota» (Caro, 1995: 131). Hala bada, Iruritako Errekako baserrien antzinatasuna ez bide da hagitz handia.

Iruritako gizarte bizitza oro har herriguneak biltzen du: «La base social, económica, administrativa y religiosa de la vida vasca (...) se halla en el núcleo de construcciones en número mayor o menor» (Caro, 1995: 30). Pentsa dezakegu XX. mendearen erdialdean hagitz nabarmenak izanen zirela Iruritako Errekaren eta Karrikaren arteko aldeak. Errepide nagusiak zeharkatutako herrigune gero eta urbanizatuagoaren aldean bazterretxeetako iruritarrek atzeratuago zeudelako itxura izanen zuten. Adineko baserri baten lekukotasunaren arabera, 1950 aldean igandero jaisten ziren Iruritako elizara oinez eta oinutsik: «Tortzen ginen ortosik... ta bazen aska Iruitek... oñik an dua ask'ure... Iruiteko errie sartzien... an g... zangoak garbitu, te patu gero... eztaite batre zerekin sekatzin gintuen... zangoa(k), eniz oroitzen ortaz, ta... gero patzen gintuen espartinek eta... galtzerdiek...» (Lakar & Telletxea, 2006: 37).

Baserrietako iruritarrek nekazariak izan dira eta egun ere abeltzaintzari loturik segitzen dute. Baztango herri txikietan eta auzoetan ohikoa izaten da bertzelako jarduera ekonomikoa izanda ere, abeltzaintza guztiz ez uztea. Errekako bizilagunek, bideak hobetu eta ibilgailuak orokortu artio bederen, herriarekin ez dute harreman esturik izan.

Herrigunean aldiz, hondar hiruzpalau hamarkadetan gutxiengoa izan dira nekazaritza bizitzin segitu duten familiak: «... herrian berean mantentzen ziren, pues ez dakit, zortzi familia ni gazte nintzelarik» (Itsaso, 5. FG). Errepide nagusiari esker Iruritako karrikan bizimodu hiritarragoa ezarri zen. Honela adierazten du Baztango maistra batek laborari herrien eta Irurita hiritarragoaren arteko alde hori: «Herrien artean kristoren aldea. Gartzainen adibidez, aunitz ziren baserrietakoak (...) lehen pila bat, baserriko girota. Iruritan ordea, galduago zegoela hori, kaletarragoak ziren gehienak» (LK, 2010-10-3).

Hizkuntza aldetik hagitz desberdinak izan dira, eta dira egun, Karrika eta Erreka. Herrigunean erdara gizarte erabilerako hizkuntza nagusia bilakatu bada ere, Errekako

familiak euskara atxiki dute. Euskararen historia hurbilean maiz nabarmendu da baserrien garrantzia euskarari eusteko. Bernardo Estornesek (1960: I2-I3) aipatu bezala, bazterretxeak dituzten herrien bilakaera soziolinguistikoa bertzelakoa izan da: «Es fácil distinguir entre pueblos que están circundados de caseríos y los que no lo están. En los primeros, como Bera, Elizondo, Eibar, resiste más el euskera debido a ese contacto. En cambio en otros como Alsasua, Olazagutia, Lekunberri, Ziordia, etc., que no los tienen, la desaparición es más rápida». Ideia bera A. Irigarayk (1956: 41), Carok (1995: I07) eta Sánchez Carrionek (1972: I09) ere agertu zuten. Baserria egoitza hutsa izateaz gain, bizimolde oso baten eredu berekia ere izan da (cf. Caro, 1986). Berriemaile batzuek nekazaritzaren eta euskara gorde izanaren artean dagoen lotura espresuki aipatu dute:

... zer influentzia daukan familiak zer bizimodu egiten duen. Por ejemplo, adibidez, herrietan eta Elizondon bertan nekazaritzatik bizi ziren, etxean eta herri barnean izan dutenak azienda (...) hauek mantendu dute euskara ezen ez lan egin dutenak dendetan, ostatueta... Euskara mantendu zuten hobeki... (MG).

Herrian ez genuen solasten euskaraz baina baserrietan bai, (...) baserrietan beti solastu da euskaraz. Ez da galdu herrian bezala eta Elizondon bezala (...). Nik beti pentsatu izan dut nekazaritzarengatik izan dela (...) eta konturatu naiz nekazari familiak Iruritan mantendu dutela euskara (Itsaso, 5. FG).

Baina bizimodu eta jarduera ekonomikoarekin loturik dagoena eta euskara atxikitzeke funtsezko dirudiena Iruritako Erreka eta Karrika bi jendarte «arrunt bereziak» (MG) izana da, alegia, auzotasun harremanak bereiz, nor bere taldean eduki izana, duela bizpahiru hamarkada artio bederen. Baserrietako familiak euskara atxiki izanak eta herrigunekoek ez, batean eta bertzean hizkuntzak izan duen tokiaren eta hiztunek mintzairari eman dioten balioaren arabera dela dirudi:

... no debe olvidarse el papel que, en este sentido [seme-alabak euskaraz sozializatzeko aldera] ha tenido la pequeña comunidad vecinal. A ello ha contribuido la diseminación espacial existente en buena parte de los enclaves rurales del País Vasco. La configuración en barrios (pequeño número de casas o caseríos más o menos próximos entre sí, pero alejados de otros segregados dentro de los límites administrativos de un mismo municipio) de muchos pueblos rurales vascos refuerza el papel de la comunidad vecinal. El importante rol que ha jugado la pequeña comunidad explicaría aquellas situaciones en las que, dentro de un mismo municipio, los niños de un determinado barrio han conservado el euskera porque la transmisión de la lengua de padres a hijos no se ha roto, mientras los niños de otros barrios la han perdido (Tejerina, 1992: II4-II5).

Hala gertatu zen Iruritan, bereizketa geografikoak bi gizarte modu ahalbidetu zituela eta hizkuntza aldetik ere bi mundu bilakatu zirela. Ezin Iruritako historia soziolinguistikoa hurbila irudikatu eta oraingo iruritarren ibilbideak behar bezala ulertu hamarkadetan eraginkorra izan den bereizketa horri erreparatu gabe. Iruritako euskararen historian gertatu den espazioaren haustura bera deskribatu dira Euskal Herriko bertze herri batzuetan. Hernandezek ere 1960-1970 hamarkada artio Lasarte-Orian herrigune erdalduna eta baserrien alderdi euskalduna bereizten ditu garbi:

... los testimonios y recuerdos relativos al euskara dibujan una divisoria clara y rotunda entre lo que se consideraba el mundo euskaldun (o vascopar-

lante) y el mundo erdaldun (o castellanoparlante). Esta representación de la divisoria queda reflejada de un modo particularmente gráfico en la distinción entre la calle y el caserío; entre la zona centro y la periferia agrícola incluida en el municipio (...), la vivencia de la lengua en Lasarte-Oria ha quedado para muchas personas condicionada a esta segmentación de espacios y al modo en que cada uno de ellos ha tendido a ser descrito e imaginado (Hernández, 2007: 285-286).

Hurrengo ataltxoetan Karrikako eta Errekako bilakaera soziolinguistikoa eta horrek iruritarren arteko harremanei nola eragin dien aztertuko dut.

5.3.2.1. Herrigunearen erdalduntzea

«Irurita beti-beti arras-arras erdalduna»

Berriemaileek garbi hautematen dute Irurita —betiere herriguneari gagozkiola— herri erdalduna izan dela: «Irurita beti-beti arras-arras erdalduna» (Miren, 3. FG), Elizondoren ondotik Baztango herririk erdaldunena. Dirudienez, baztandarren artean iruritarrek erdaldun ospea izan dute euskara ez zekitelako edo jakinda ere, erdaraz aritzen ohi zirelako: «... eta beti fama izan du Iruritik. Denek, denek iruritarrei bellarri motz. Aunitz nik aditu dut» (Arroxa, 2. FG). Berriemaile guztiak aldeak ikusten dituzte Iruritarren eta Baztango bertze herrien eta zenbait auzo-udalerriren artean:

Ni oroitzen naiz Anizkoak... klaro arras ttikia da, eta haiei beren tartean ez zitzaien erdara hitz bat ere eskapatzen (...). Herri ttiki horiek igual mantentzen zuten (...) Amaiur, Erratzu, Azpillkueta... mintzatzen ziren euskara. Igual Baztangoiza alde horretakoak... Arizkun ez (...) baina Erratzu eta bai (...) Arraioz ere bastante euskara mintzatzen zen igual (...) Iruritan eta Mugairin sorik batere, batere. Eta Elizondo ere ez (...). Baziren Berako batzuk erdaraz mintzatzen zirenak baina, adibidez, Lesaka eta Igantzi ez, ziren euskara (...). Eta Malerreka (...) nabari zen beren tartean dena, dena euskara. Ziren Ituren, Zubieta, Oiz, Saldias (...) horiek bai euskara, euskara egiten zuten beren tartean dena euskara mintzatzen ziren, bai, bai (Arroxa, 2. FG).

Iruritako herriguneko erdalduntze orokorra Gerra Zibilaren ondotik gertatu zen. Aztertutako familien glotohistorietan bildutako datuen arabera, 1940ko hamarkadan Iruritako Karrikan hazitako belaunaldian, oraingo haurren aitona-amonen artean, erdaldunak ez dira arraro. Oraingo aitaxi-amatxi gehienek (3. FGko Mirenen amak, 5. FGko Itsasoren amak, 7. FGko Lauraren aitak, 8. FGko Carlosen amak eta 10. FGko Albertoren amak) ez dakite/zekiten ongi euskaraz. Batzuetan erdaldun hutsak dira/ziren. Adibidez, Mirenen ama, guraso euskaldunak izan bazituen ere: «... amak bizi guztia pasatu du (...) etxeko aferetan, ez da harremanatu jendearekin horrela. Orduan etxean giroa erdalduna zuten eta hortaz ez zuen deus, baina es que deus, deus ere ikasi. Eta osabek ezta ere» (Miren, 3. FG).

Bertze batzuetan, aitaxi-amatxi horiek haurretan etxean euskara ikasi zuten baina orduko giro erdaltzaleak eraginda gaztetxotan gaztelaniara mintzaldatu ziren. Baten bat, ez erabiltzearen poderioz, lehen hizkuntza izan arren euskaraz mintzatzeko erraz-

tasuna galdu eta hizkera herdoildu edo kamutseko hiztun bilakatu da¹¹⁵. Honela mintzo da 1945 aldean herrigunean sortutako M^a Luisa bere haur-gaztaroko Iruritzaz: «¿En euskera? Nada, nada, nada. Todo en castellano. Fíjate, los padres si nos hablaban en vasco nosotras contestábamos en castellano. (...) la cultura vasca no había nada, nada, nada... nadie hacía nada (...). Entonces nada (...) en la escuela... y claro, las que sabíamos pues de no hablar...» (M^a Luisa, 8. FG).

MG berriemaileak honela azaltzen du bere emaztearen familian gertatutakoa. Haren andrea Iruritan sortu zen 1950ean familia euskaldun batean (ama gartzaindarra eta aita iruritarra):

... entzunez buruan zeukatzen [euskara] eta ulertu egiten zutela baina ez zuten mintzatzen gazteok sorik. Gazteenek ia-ia... arrunt gutti eskolara sartuz geroztik, zerengatik Karrika zen arrunt erdalduna. Orduan erdararen egiten dira bai Karrikan, bai eskolan eta hori eramaten dute etxe barrura. Eramaten dute etxe barrura eta aunitz haurrekin, haurren aldera egiten dituztelarik edo, erdara erabiltzen dute eta aitatxi eta amatxi bizi zirenean... aita eta ama beti haien artean euskara baina haur hauek eskolatik erdaraz hasten direnean sartzen da erdara (...). Karrika erdaldunak ere badu bere eragin handia familia barruan eta gehienbat, nik pentsatzen dut (...) gehiago emakumeen artean (MG).

Gerraondoko haur iruritarrek plaza eta eskola erdaldunak zituzten. Gure historia soziolinguistikoan erdarazko eskolaren eragin erdalduntzailea erruz azpimarratu da (cf. Euskaltzaindia, 1978; Jimeno Jurío, 1997) baina jakina da hainbat herri euskaldunetan erdarazko eskolak ez zituela haurrak erdarara mintzaldarazi. Iruritzaren ondoan dagoen Lekaroz herrian erraterako, haurren hizkuntza sozializazio baldintzak hagitzen bertzelakoak ziren garai horretan. MG, 1946an Lekarozen sortua eta herrian hazia, honela mintzo da bere haurtzaroko hizkuntza egoeraz:

Lekarozen ez genuen erdaraz inon mintzatzen eskolatik kanpo (...). Eta ni oroitzen naiz eskolan baginen kuadrilla bat, buaaa! Ez dakit, atsedean denboran edo rekreatzen esperoan euskaraz mintzatzeko. O sea, eskolatik atera bezala euskara (...) zerengatik hasi ginen erdaraz deus jakin gabe eta klaro, gure maisuak (...) euskara ez zekien, zen Iruñekoa (MG).

Hala bada, bistan da herria erdalduntzeko erdarazko eskola ez dela eragingarri bakarra. Ideia horri garbi heldu dio Erizek Uitzin (Larraun) egindako landa ikerketan. XX. mendearen erdialdeko herriko neska-mutikoen gainean honela dio:

Mutilek ikasten zuten gaztelania apurra eskolakoa zen, baina, hala eta guztiz ere, eskolaren eragin erdalduntzailea ez zen oso sakona gertatzen, handik atera eta gero denak berriro euskarara itzultzen ziren-eta (...) neskatok, mutikok

¹¹⁵ 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren datu soziolinguistikoaren arabera (Nafarroako Gobernuak, 1995) baztandarren % 3k nekez egiten zuen euskaraz mintzaira hori lehen hizkuntza izan arren. Udalerriko ezaugarri soziolinguistikoak ezagututa, pentsa daiteke txikitako euskara kamustu edo herdoildu zitzaizkien hiztun horiek gehienak Baztango herririk erdaldunduenetan zeudela, hots: Elizondon, Elbeten, Iruritan eta Oronozen.

Soziolinguistika hiztegiak (Eusko Jaurlaritza, 2010: 60 eta 61) hiztun *guztiz erdaldundua* eta *partzialki erdaldundua* erabiltzen ditu lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania izanik, euskaraz ez hitz egin, ez ondo ulertu ez irakurri ere egiten ez duen pertsona edo nekez egiten duena adierazteko, hurrenez hurren.

bezalaxe, eskolatik atera eta etxean eta herrian dena euskaraz egiten zutelako (...). Eskolen eragin erdalduntzailea ukalezina da, nahiz eta, ikusi bezala, erdalduntzea burutzeko indar nahikorik ez izan (Erize, 1997: 328 eta 329).

Beraz, badirudi oraingo aitatxi-amatxiren haurtzaroan Iruritako herrigunean neska-mutikoek eskolan ikasten (edo indartzen) zuten erdara eraman zutela plazara —orduko gizarte giroak nolabait hori ahalbidetu edo sarituko zuen— bai eta etxeetara ere, nolabait atzeraelikatzen zen prozesu-segida batean.

Gerra Zibilaren ondotik Iruritako herriko bizitza eta harremanak erdaldundu ziren. Gerraondoko urte horiek gogorrak izan ziren euskararendako (cf. Jimeno Jurío, 1997: 229-231; Tejerina, 1992: 112-120). Erraterako, A. Irigarayk (1956: 41) dioenez, Nafarroako eskualde euskaldunetako zenbait herri handixkotan (Elizondon, Donezteben, Beran, Lekunberrin, Olatzagutian, Larraintzarren... Irurita ez du aipatzen) gazte jendeak ez zekien euskara edo, jakinda ere, ez ohi zuen egiten. Francoren agintaldiko lehen hamarkadetan ezarritako hizkuntza politika bortitzek euskara eremu publikoetatik desagerrarazi zuten eta esparru formaletatik (eskolatik, administrazioetik nahiz hedabideetatik) erabat baztertu. Euskararen erabilera soziala makalduta zegoen. Plazan ez zen euskaraz aditzen, ez zen inon ikusten. Mintzaira etxe barneko harremanetara zokoratu zen baina Erregimenaren eragina familiaren arteko gune barrenkoi horretaraino ere iritsi zen eta anitz gurasok, beldurragatik, zuhurtziagatik edo euskara apalesten zuen ideologia barneratua izateagatik, ez zieten beren umeei euskaraz egiten. Gauzak horrela, anitz haurrendako euskarazko sozializazioa erabat ezinezkoa zen.

Garai horretan Iruritako herrian euskara baserriarrei lotzen zitzaizen mintzaira zen, ez zen Karrikan solasteko on. Honela mintzo da bere gartzaroz 1945 aldera sortutako M^a Luisa: «... siempre en castellano, aquí siempre en castellano (...) si hablas euskera pues eras un poco (...) *bordari*, un poco no sé qué. Me doy cuenta ahora que sí. Y entonces íbamos todas al castellano. Es que ni nos parábamos a pensar» (M^a Luisa, 8. FG). Herriguneko iruritarrak euskara baliorik gabeko hizkuntzatzat, bordariek baizik egiten ez zuten mintzairatako ikusten hasi ziren. Gainera, hamarkada horietan, jatorria herrian zuten baina aspaldian Madrilen bizi ziren familia dirudun batzuek Irurita zuten udaleku:

... Iruritik badu (...) etxe aunitz *veraneanteak*, deitzen zirenak, hurbiltzen ziren (...) jendea gainera, pues, badakizu, horrelako kapazitate ekonomiko... eta beren inguruan sortzen zen halako... ez dakit, gizon handiak bezala etortzen zirenak. Eta horiek denak erdaldunak ziren (...) izan ziren familiak denak arras erlazionatuak [Francoren] Mugimenduarekin eta horiek Elizaren inguruan eta plaza inguruan, nire ustez, ematen zieten horrelako babesa (MG).

Udaro herrira etortzen ziren familia dirudun eta prestigiodun horiek aipatzen dituzte berriemaileek: «Ellos eran las familias distinguidas. Se juntaban entre ellos porque había dos o tres casas y se juntaban entre ellos» (Elixabete, 8. FG). Kuantitatiboki familia gutxi batzuk bertzerik ez ziren, baina pentsa dezakegu kualitatiboki itzala utziko zutela herrian, iruritarrek kultura eta hizkuntza hegemonikoaren ordezkarietatik ikusiko zituztelako. M^a Luisak gogoan du mezatarra joaten zirela eta mezak bi hizkuntzetan egiten baitziren, euskaraz hasterekin zutitu eta alde egiten zutela: «... al principio, la mitad en castellano, la mitad en euskera. Oye ¡se levantaban y salían! Eso sí nos daba rabia» (M^a Luisa, 8. FG). Sánchez Carrionek (1972: 201) udatiarren eragin

erdalduntzailea aipatzen du Bera eta Lekunberri herrietan. Irurita ere antzeko kasua izan zitekeelakoan nago.

Gauzak horrela, 1950-1960 hamarkada horietan, eskolak eta giro administratibo-politikoak lagunduta, Iruritako Karrikan erdaraz egitea gizarte arau bihurtu zen. Hainbat familiak orduan utzi zioten euskaraz egiteari eta mintzaira poliki etxeetatik lekutuz joan zen: «Eskolan erdaraz egiten zen eta horko jendeak (...) galdu-galdu ezin da ere... , bai utzi egin zuten. Ni ari naiz orain berrogeita hamar, hirurogei urte tarteko iruritarrak euskara pues utzi zuten erabiltzetik...» (MG).

Urte horietan, Jaime Andonegi herriko apezak elizako sakristian irratia paratu zuen martxan. Ekimen xumea izan zen eta luze iraun ez zuena, baina herriko kultura bizitzari piper-gatz pixka bat eman ziona. Irratsaioen artean gaueko adorazioa eta halako saio erlijiozkoak zeuden, baita kultura arlokoak ere, antzerkia kasu. Bildu dudanaren arabera, irratia batik bat erdaraz zen. Honela oroit da Joseba Igarabide, urte batzuk geroago Xorroxin Irratia sortu zuena Iruritako irratia horren aurrekari hori gogora ekarrita: «Elizaren irratia zen, onda median egiten zuten eta egiten zuten (...) discos dedicados... meza ondotik. Baina kristoren arrakasta izaten zuen, kristorena e! La ostra zen!» (JI).

Familia bidezko transmisioaren etena eta euskarazko sozializaziorik eza ondoko hamarraldietan nabariagoa izan zen. Aztertutako familien glotohistorien arabera, herri-gunean hazi eta 1965-1970 aldera ezkondu eta umeak izaten hasi ziren oraingo aitatxi-amatxi horiek kasu bakar batean ere ez zieten seme-alabei euskara irakatsi, nahiz eta bi ezkontideak euskaldunak izan.

5.3.2.2. *Baserritarrak euskaldunak*

«Errekakoak beti euskaldunak»

Iruritako Errekako familiak laborantzatik bizi izan dira eta egun ere hala bizi dira gehienak nahiz eta zenbait kasutan nekazalgoarekin batera bertze jarduera ekonomiko bat izan. Errekakoek batez ere beren artean izan dituzte auzo-harremanak eta orain hogeitatu bat urte artio herrira ez ziren maiz biltzen, haurrak ere ez 1996an auzoko eskola itxi bitartean.

Herriko familia gehienetan euskararen belaunetz belauneko jarraipena eten bazen ere, Errekakoak oraindik euskaraz mintzatu dira: «... Errekakoak beti euskaldunak» (Ixa, 9. FG). Azconak 1985eko azterketa soziolinguistikoan bordetako eta Karrikan iruritarrak bereizi zituen eta lehenengoan gainean honela mintzo zen: «... todos conocen y utilizan el euskera» (1985: 230). Herrian ez bezala, baserrietako aitona-amonen artean euskaldun hutsak badaude/zeuden: «Amatxik ez zekien erdaraz, beti euskaraz» (Ixa, 9. FG).

Bazterretxeetan familia euskaldunbeteak izaten dira, belaunaldi guztietan kide euskaldunek osatuak. Halakoa da aztertutako Errekako familia (I. FG), senar-emazteen bi aldeetatik aitatxi-amatxi guztiak euskaldunak dira/ziren, baserritarrak gainera: «... guk beti etxean euskaraz egin dugu eta orain ere bai, euskaraz, guk etxean euskaraz egiten dugu, beti euskaraz (...) senararekin, aitatxi-amatxi... suegra eta suegroekin... eta nire amak ere bai» (Axun, I. FG).

Errekako ego belaunaldikoek (oraingo haurren aita-amek) herrikoen aldean hagituz bertzelakoa izan dute hizkuntza sozializazioa: «Oi, oi, oi!!! Falta gehiago egin digu erdaraz euskaraz baino» (ibid.). Etxean ez ezik adinkideen artean ere euskaraz ihardu-

ki dute. Haur guztiak euskaldunak ziren eta euskaraz egiten zuten elkarrekin. 1970-1980 hamarkadetan Errekako borda gehiagotan bizi zen jendea eta «... aunitz haur» zeuden Iruritako Errekan (Axun, I. FG). Baserrietako haurrek beren eskola zuten —1920tik bederen (Urmeneta, 1996: 308)— Oiateneko bordan, Haur eta Lehen Hezkuntzako Oiatenea Ikastetxe Publikoa, Baigorriko eskola erraten zitzaiona.

Eskola horretan eskolatzen ziren Errekako haurrak hamalau urte bete artio. Neska-mutikoak oinez joaten ziren beren bordetatik zenbait kilometrotara zegoen eskolara. Hemen arratsaldeko lau eta erdiak artio izaten ziren eta gero berriz oinez itzultzen ziren baserrietara. Errekako ikasleen familiek auzolanean hartzen zuten eskolaren ardura. Honela dio Axunek, 1970ean Errekan sortuak:

Han bazkaltzen genuen. Andre batek prestatzen zigun bazkaria. Gero eramaten genuen batzutan janaria etxetik: banabarrak, ilar gorriak...¹¹⁶ Aste batean tokatzen zitzaion bati eramatea, bertze batean bertze bati... Eramaten genituen arrautzak, etxeko gauzak (...). Gero ja ez, gero ja izan zen bertze jangela bat. Prestatzen zuen andre batek baino desberdina: pagatzen... ordaintzen genuen sos bat eta handik (...). Neguan aitak eta ekartzen zuten egurra eta beraiek puskatzen zuten. Egiten zuten auzolan bezala. Egiten zuten, egurra puskatzen zuten egun batez eta guk egiten genuen gero pilatu. O sea, joaten ginen eskolara eta aritzen ginen eskolan lanean ere bai, egurra pilatzen eta horrela (Axun, I. FG).

Axun haurra zelarik berrogei bat ikasle biltzen ziren Baigorriko eskolan: «Eta nire ahizpa [bederatzi urte zaharragoa] eta gehiago, berrogeita hamar, berrogeita hamabost...» (I. FG), oroitzen da. Maistra iruritarra zuten, Juanita Etxenike, euskalduna, baina eskolak erdaraz ziren. Gero, hark erretiroa hartzearekin, Iruñeko irakasle bat etorri zitzairen, Rosa Mari Azkona, euskaldun berria, gurasoak iruritarrek zituenak, eta maistra hori hasi zen gero euskara irakasten (ibid.).

Axunek eta bere senarrak, Mateok, eskola horretan ikasi zuten eta ez bata ez bertzeak ez zuen ikasten segitu (Axunek OHO amaitu ere ez zuen egin): «Iruritako Errekan gu, Baigorriko eskolan ibilitakoak arras gutti dira estudiatu dutenak» (I. FG).

5.3.2.3. *Baserritarrak Karrikan*

«Bereiztuak sentitzen ginen»

Iruritako Errekako haurrek auzoko eskolan, Baigorriko eskolan, ikasten zuten harik eta 1996 urtean Nafarroako Gobernuak hetsi zuen artio. Ikastetxe horretako ikasleek ez zuten ikasten segitzen eta beraiendako eskola baitzuten, baserrietako haurrak ez ohi ziren herrikoekin elkartzen urtean egun jakinetan baizik, Orakunde egunean, adibidez. Glotobiografietan anitz dira Errekakoak herrikoengandik bereiz bizi zirela dioten aipamenak.

Karrikako iruritarren eta Errekakoen arteko harremanak ez omen ziren maizkoak izan errepidea egin eta ibilgailuak orokortu artio. 1970 aldera baserrietako iruritarrek noizean behin baizik ez ziren hurbiltzen herrira erosketak egitera, eta orduan euskaraz

¹¹⁶ *Banabar* edo *babarrunari* baztaneraz *ilar* erraten zaio.

eginarazten zieten jada erdaraz bizitzera jarrita zeuden iruritar karrikatarrei. Honela dakar gogora Mirenek: «Nik aitatxi eta amatxiri bakarrik aditzen nien euskaraz baserriarrekin (...) dendan. Dendan bai aritzen ziren euskaraz baina etxean, sukaldean eta beti erdaraz» (Miren, 3. FG).

Baserrietako iruritarrek, horietako anitz euskaldun hutsak zirenek, euskara eramanen zuten Karrikara eta horrela herriaren erabateko erdalduntzea galarazi zuten tarteka euskaraz eginarazten baitzieten herrikoei. Ostatueta, adibidez, nahiz eta horko jabeak euskaldunak izan, iruritarrek erdaraz aritzen ziren. Hori zen gizarte araua, baserrieta-koekin baizik ez zuten euskaraz egiten: «... euskaldunak ziren ostatueta nagusiak (...) ostatu horietan Iruritako Errekakoak sartzen zirelarik arituko ziren euskaraz baina bestela ez pentsa, ez pentsa, erdara zen» (MG).

Bilakabide soziolinguistiko oso desberdinak izan zituzten Karrikaren eta Errekaren artean euskara bereizketa seinale eta gutxiespen bide bihurtu zen. Herrian erdaraz egiten zen, hori zen araua eta, neketan ere horretara moldatu ezin zuten iruritar bordariendako irria eta trufak zilegi izaten ziren: «Hemen Iruritan jende aunitzek gaizki pasatu du erdara ez zekitelakoz. Eta jasotzen zuten horrelako bazterkeria edo (...). Ateratzen delarik gaia ikusten dut arras minduak eta daudela» (Miren, 3. FG).

Glotobiografietan bazterretxeetako eta herriguneko iruritarren artean zegoen bereizketaren lekukotasunak usu agertzen dira. Antzeko harreman gatazkatsua, hizkuntza bereizbideetako bat zela, atzeman daiteke herri txikietako baztandarren eta elizondarren artean. *Baztan solasean* (Lakar & Telletxea, 2006: 48) ahozko tradizioaren bilduman bereizketa horren aipamenak jaso dira. Honela mintzo zen gizaseme gartzaindar bat:

- Bueno, guk Elizondoko yendiakin ezkinuen apenas tratatzen, e! Ez, beti... am... erdaldun kasta izeten tzen...
- **Ink.:** Bai? *Elizondoko yendia erdaldunago...*
- Bai, ta, guk oi ez ginuen batre maite izeten.

Elizondo Baztango herri txikien aldean zena bihurtu zen Iruritako Karrika Errekarendako. Hau da, gaztelania ongi ez jakiteagatik euskal hiztunak lotsarazi eta baztertu zituzten Baztanen bertan, herri txikietakoak Elizondon bezala Errekakoak Iruritako herrigunear: «Elizondo[ra] gatekin gu gelditzen giñen... deskriminatuek, guk *aldeanos*, guk... guri tratatzen tzakuten *como aldeanos* (Berroeta)» (Lakar & Telletxea, 2006: 59).

Euskaragatik izandako bizipen mingarri horiek ondorioak izan zituzten hiztun horien ondoko hautuetan. Erdara ongi ez jakiteagatik mespretxua jasan zutenek alde edo moldez seme-alabek erdara ikastea ziurtatu nahi izan zuten eta horretarako erdara hutsezko eskola hautatu zuten, beren umeak gutxietsiak izatetik babestearren:

Nire ama (...) bertzeak bezala (...) estudiatzen zuen (...) baserrietako eskolan (...) Baigorriin, bai. Eta gero etortzen ziren herrira (...) eta egiten zieten burlatu ez zekitelakoz deus erdaraz. Eta orduan, pues oraino badute kristoren trauma eta ja gero pues hasi ziren erdaraz, erdaraz (...). Eta gero badu bertze ahizpa bat halere, da gazteago, aise gazteago nire ama baino [hogeit bat urte gazteagoa] eta halere, badu, o sea, makurrago. O sea, kristoren trauma badu eta alabari, o sea, ja hasi zen ja pues hemen horrela D ereduan nola denak matrikulatzen diren, pues berak alabari, bakar-bakarria bertze batekin erdarara bidali zion. O sea, ez zuela aditu nahi ere euskarako kontu. Eta bueno, orain ja aldatu da. Alaba handitu da eta atera du EGA eta dena, pues bueno, ja ikasi du euska-

ra baina bere amarengatik ez zuen ikasi izanen bazuelakoz buuu! Klaro, behin etorrita herrira eta burlak baina... pues egiten zuten lehenago bezala, euskara zen pues baserrietan ibiltzen zena eta erdara bazekiena pues, herrikoa (...) badute trauma bat horrekin! (Lola, 4. FG).

1990 aldera Irurritako eskolan D ereduia hasi zelarik guraso euskaldun batzuek A ereduaren aldeko hautu egin zuten:

... hubo gente de la edad de mi hermana que estudió en Elizondo porque sus padres querían que sólo aprendiesen en castellano. Pero bueno, es gente que sus padres... que ellos son euskaldunes. Las amigas de mi hermana que han ido ahí son euskaldunes porque en casa eran euskaldunes, pero sin embargo querían que estudiasen en castellano (Carlos, 8. FG).

Herriko iruritarren eta baserrietakoen arteko bereizketa ego belaunaldira iritsi da. Errekako haurrek auzoko eskolan, Baigorrikoan, ikasten zuten eta herriguneko haurrekin ez ohi ziren elkartzten. Berriemaileen umezaroan Errekako eta Karrikako haurren arteko harremanak oso bakanak izan ziren. Bakanak ez ezik gatazkatsua ere izan ziren batzuetan:

Yo, por ejemplo, a mis quintos¹¹⁷ de la Regata no conozco. Bueno, no conozco, sé quiénes son pero jamás hemos estado ni... ahora es cuando se empieza a bajar, a raíz de quitar la escuela y pienso que ha sido más (...) es cuando se empezó todos a relacionarse más, se empezó a bajar más. Los coches... o sea, todo. Es que ha sido un cúmulo de cosas y ahora tienen que bajar y todo el mundo tiene coche y bajas más fácil. Todo está como más abierto. Sí que te rozas más (...) antes no, y de hecho me acuerdo el día de Orakunde, siendo yo crío, que ellos sí que bajaban aquí a comer al pueblo. Acabábamos siempre en gaita (...). Estábamos todos juntos pero tú te ponías con los tuyos y ellos se ponían con los suyos (...). Ellos todo en euskera y nosotros en castellano (...) no tratabas con ellos (Alberto, 10. FG).

Gizarte eta hizkuntza bereizketa horrek Errekako haurrei gutxiespen sentimendua sortzen zien, Axun oroitenez:

Orakunde egunean bakarrik [jaisten ziren herrira]. Eta orduan sentitzen ginen, bueno, baserritarrak baino baserritarrak, e. Egoten ginen baserrikoak multzo batean eta herrikoak bertzean. Ez ginen elkartzten ere. Bagenuen... ez genuen harreman ona. ¡Qué va! (...). Nik ez dut bat ere oroitzapen ona herrikoak eta baserrikoekin, o sea, txikitan... bereiztuak sentitzen ginen (Axun, 1. FG).

5.3.2.4. Baserritarren eskolaren itxiera

«Ez ziren lotzen herriko jendearekin»

Baztango auzo eskolen artean Baigorrikoa izan zen azken itxi zena. Beartzunen, Orabidean eta haraneko bertze bazter auzo batzuetan ere eskolak izan ziren garai ba-

¹¹⁷ *Quintos*: urte berean sortutakoak, neskak nahiz mutilak, eskolako ikasmila berean izan direnak. Horri loturik *kinto besta*, herri bateko gazte-heldu adinkideek egiten duten otordu-besta.

tean. 1982rako Beartzungoa eta Baigorrikoa ez bertze guztiak itxita zeuden. Horrek eragina izan zuen Iruritako Errekako gazteen sozializazioan. Errekako haurrek oinarritzko eskolaldia (OHO osoa eta LOGSEren ondorik HH eta LH) auzoko eskolan egiten zuten eta, ez baitzioten jarraitzen ikasteari, ez ziren gero elkartzen Baztango bertze gaztetxoekin BBB —LOGSEren ondorik DBH— edo LBH egiteko Lekarozko Institutuan edo Elizondoko Lanbide Eskolan. 1982an, adibidez, Baigorriko eskolak bi irakasle eta hogeita sei ikasle zituen, bat Eskolaurrean, hamabi OHOkoko erdiko zikloan eta hamahiru goi zikloan (Diputación Foral de Navarra, 1982).

Hori horrela, iruritar gizaldi batzuk —ego belaunaldia azkenekoa— elkarrengandik bereizirik hazi dira: «... herrikoekin hasten ziren ezagutzen baina multzoan: bordakoak eta herrikoak. Bi multzo, bi herri desberdin izanen baziren bezala» (MG: I4). Honela dio Laurak, 1972an herrigunean sortuak:

Nik batzuk ez nituen kasik ezagutzen. Horiek ez zuten gurekin ikasi. Bazutela bertze eskola hor. Bai, eta horrek banatzen zuen... izugarri, hori zen (...). Niretako horrek... kalte izugarria egin zuen eskola horrek! (...). Horiekin bagenuen hor muga bat, guk eta beraiek ere horrela. Bai, rollo txar bat, ez dakit. Beraiek... nik uste dut gauza horiek badirenak pues gutxiesten ditugula, eta beraiek uste dute guk egiten diegula... bueno, horrelako uste pila horietatik, ez direnak egia. Beraiek, nik uste, sufritu zutela aunitz euskara, euskara bazekitelakoz eta hemengo jendeak egiten zuelakoz irri eta horrela gauzak ere nik uste bazirela. Baina ez denak, klaro (...). Nahasketa horiek izan ziren aunitz, nik uste. Eta eskola horrek nik uste beti egin zuela izugarritzko kaltea. Bai. Eta itxi zutenetik orain gazteak eta ibiltzen dira denak elkarrekin, bordetakoak eta herrikoak. Honat etortzen dira eta bueno... Eta orain inongo bereiztasunik, bizi dira urrunago eta ya está. Baina lehenago zen... pfff! (Laura, 7. FG).

Baigorriko eskolan ikasten zuten haurren promozio akademikoaren faltak Baztango Udala ez ezik Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua ere kezkatu omen zuen. Honela azaltzen du MGk, 1987tik 1995 bitartean Baztango Udaleko zinegotzia izanak:

... ikusi genuen beharrezkoa... Iruritako eskola itxi behar zela, hango eskola, Baigorrikoa. Ez zuten segitzen, ez zuten jarraitzen, hamabi urtetan joaten ziren ardiekin eta zen desmadre bat (...). Ez ziren lotzen herriko jendearekin, ez zegoen integrazioerik. Inauteriak egiten zituzten aparte, herriko bestetan ere ibiltzen ziren aparte eta bueno, bazegoen nik uste ja euskaratik aparte, bai ere sozialki, bazegoen problema bat Iruritan (...). Gizarte problematika ere bai. Gizarte barruan bazegoen bi puska hor: herria eta bordak. Eta hori gairitu behar zen, gairitu behar zen ja gizarte hori eta herri hori loturatzeko eta hori bai alde batetik, bai euskaldun hutsak ziren Iruritako Errekako jendea (...). Hezkuntza Departamentutik hasi ziren hori ikasten eta izan genuen informazioa eta ni Udaltxean nintzen hor sartu berri-berria (MG).

Hala bada, Baigorriko eskolak arazo pedagogiko eta sozialak sortzen zituen:

Herrian hasi ziren problemak (...) horrelako bereizitasunak... hori hautsi egin behar da. Hori ez daiteke eduki horrela baina eskola ezin delakoz mantendu eskola sei-zazpi haurrekin, ez duzu aitzinatzen ahal, talde tikiak dira, desberdinak urtez, gehi gizartea (...) problemak zerengatik hauek ez zuten jarrai-

tzen eskola, ez dira... integrazio falta dago eta bueno, azkenean kendu zen, problemekin ere, problemekin (MG).

Baserritarren auzo eskola ixtearen kontrako jarrerak ere izan ziren, MGren ustez, «eskuineko» jendearen aldetik: «Hor eskuinak sartu ziren eta nahiko larri ibili zen asunto hori eta ixtea ere aunitz kontra (...). Eskuinari boto eman (...) eta euskararen aurka Iruritako Errekakoak» (MG)¹¹⁸.

1995-1996 ikasturtean bortz ikasle baizik ez ziren aritu Baigorriko eskolan, eta horietako bi LHko 6. mailakoak ziren. Hurrengo ikasturtea hasteko matrikula berririk ez baitzen izan, 1996ko irailean Nafarroako Gobernuak eskola itxi zuen. 1996-1997 ikasturtea hasteko zeuden hiru ikasleei Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean eskolatzeko garraioa ziurtatu zien (Hezkuntza Departamentuaren Agiritegia. 326/1996 Foru Dekretua, irailaren 16koa. Espedientea). Baigorriko eskolaren itxieraren gainean Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuan dagoen espedientearen promozio akademikoaren arazoa ez da aipatzen, ikasle urritasuna baizik ez.

Gaur egun Iruritako Errekako haurrak herrian (Errebote plazako eskolan, eta 2011-2012 ikasturtetik herriko eskola berrian) edo Elizondon (Baztan Ikastolan edo San Frantzisko Xabier Ikastetxean) eskolatzen dira. Axunek (I. FG.) hiru alabak herriko eskolara eramanez dituzte. Herrian ikasten duten haurrek harreman handiak dituzte beren artean eta amak hori balioesten du: «... beraiek ere lagunak egin dituzte» herrian (Axun, I. FG). Elizondora ikastera doazen baserritarren seme-alabek aldiz, ez dute herriko haurrekin harreman handirik. Halatan, «... puxka hobekiago» (ibid.) haurrak herriko eskolara joatea eta ez, lehen bezala, Baigorriko eskolara.

Egun, ego belaunaldiak bizitutako bereizketa hori gairatzen ematen du: «... orain aldatu da (...) orain ja [haurrak] etortzen dira herrira eskolara eta ja diferentea da (...). Arras diferentea» (Axun, I. FG). Iruritarrek euskarari gizarte jarraipena ematea hautatzean herria bereizten zuen bazterkeria irizpide bat deuseztatu dute. Oraingo gazteendako Erreka/Karrika eta euskara/erdara ez dira herritarren elkarbizitza bereizten duten dikotomiak: «... bordako jendea loturatu da gehiago bertzeekin, loturatu da, erran dezagun, atera da bere multzo horretatik, bordariak deitzen zituzten multzotik» (MG).

5.3.3. Herrigunean 1970eko hamarkadan hazitako iruritarak

1970ean Sánchez Carrionek (1972: II7-II8) Iruritako haurrak —oraingo gurasoak, gure ego belaunaldia— erdalduntzat jo zituen. Bertze xehetasunik ez zuen eman. Halere, bertze datu iturri bat badugu hamarkada horretako neska-mutiko iruritarren hizkuntza harremanen berri izan eta haien euskarazko sozializazio baldintzak hobeki irudikatzeke, 1978-1979 ikasturtean Elizondoko San Frantzisko Xabier Eskualde Ikastetxeko hamaika eta hamalau urte bitarteko ikasleei, hau da, OHOk 5.etik 8.era bitarteko ikasmailetan ikasten zuten neska-mutikoei eta haien gurasoei egindako inkestak. Neska-mutiko horien artean iruritarak bazeuden herriko eskolan 5. maila artio

¹¹⁸ Baztango baserritarak euskaldun garbiak baina politikoki nafar eskuinera lerratu ohi dira. Honela zioen Azconak (1985: 234-235) orain bi hamarkada luze: «En Baztán la defensa militante del euskera está articulada por algunos nacionalistas, no demasiado engarzados en la sociedad civil ni en la vida del caserío. El caserío, que es el receptáculo simbólico del euskera, sus intereses se identifican con el poder local que representa el caciquismo tradicional del Valle y cuya adscripción política es la derecha navarrista».

eginda, OHOkoi goi zikloa eskualde ikastetxean burutzen baitzuten. Bertzalde, ikasle iruritar horiek guztiak herrigunekoak izanen ziren, jakin baitakigu Errekako ikasleek Baigorriko eskolan egiten zutela OHO osoa. Hala bada, 1965 eta 1968 urte bitartean sortutako 23 neska-mutiko iruritar karrikatarrek eta haien gurasoek aitortutakoa bildu zuten inkesta horiek. Haurrek errandakoaren arabera, % 78k aita-amak euskaldunak zizuten; % 6Iek txikitan euskaraz bazekien ere, inkesta egin zelarik % 43 baizik ez zen gai euskaraz mintzatzeko eta % 9k bakarrik egiten zuen euskaraz anai-arrebekin. Herriko lagunekin inoiz ez zuela euskaraz egiten % 78k erantzun zuen (Colegio Nacional Mixto Comarcal de Elizondo, 1979a). Ikasle horien gurasoek ihardetsitakoaren arabera aita-amen % 24k baizik ez zien seme-alabei euskaraz egiten (ibid., 1979b)¹¹⁹.

Datu horiek darakutsatenez, Txepetx ez zen guztiz zuzen erran zuelarik haurrei etxean ez zitzaiela euskara irakasten (Sánchez Carrión, 1972: 118). Egia da familia bidezko hizkuntza transmisioan galera gertatzen zela, handia gainera (haurren % 78k guraso euskaldunak izanda ere, % 6Iek baizik ez baitzuen txikitan mintzaira ikasi). Hala eta guztiz ere, anitzez galera larriagoa erdarazko eskolatzeko prozesuan agitzen zen (ikasleen % 6Iek txikitan euskara bazekien baina gaztetxotan % 43k bakarrik). Hala bada, garai horretako haurren hizkuntza gaitasunaren eta erabileraren datuek belaualdi horren hizkuntza sozializazio baldintzen gaineko xehetasun gehiagotan arakatu beharra uzten dute agerian.

Bertzalde, haurren artean (izan haurrideak izan adiskideak) hizkuntza erabilera araua gaztelaniaz zegoen ezarrira. Hau da, datu kuantitatibo horiek salatzen dutena da Irurritako euskararen belaunez belauneko jarraipenaren etenaren funtsa etiologikoa etxeetan eta familietan ez ezik herriko gizarte bizitzan, eskolan eta plazan ere bazegoela. Herrigunean haurrek familian ikasitako hizkuntzari eusteko eta beren adinkideekin mintzaira horretan sozializatzeko ez zen baldintza egokirik. Orduan, gurasoengandik euskara ikasten zutenen heren batek euskara galtzen zuen harreman eszentrikoetan erdaraz egitera jartzen baitziren.

Halakotz, Irurritako herriguneko euskararen galerari dagokionez «... no se les enseña a los niños en el hogar» (Sánchez Carrión, 1972: 118) bertzerik gabe erratea eta gure historia soziolinguistikoko hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenaren etena azaltzean anitzetan erabili ohi diren adierazteko moduak¹²⁰ uste baino konplexuagoa den prozesuaren azalpen sinpleegiak dira eta gainera, bilakaeraren alde garrantzitsu bat ilunpean uzten dute: haurren hizkuntza sozializazioaren inguruabarrak.

Halaz, ñabardura batzuk sartu behar direlakoan, aztergai dudak kasu honetan honela adieraztea hobetsi dut: Iruritan euskararen galera gurasoek seme-alabei irakatsi ez zitelako baina gehiago haurrei euskara ikasi eta erabiltzeko aukerak etxera mugatu zitzaizkielako gertatu zen. Azalbide horretan barrenduko naiz atal honetan ego belaualdiaren hizkuntza sozializazioaren baldintzak eta euskararekin izandako bizi-penak arakatu.

¹¹⁹ Mariano Izetak inkesta horien berri eman zuen 1979ko artikulua honetan: "Euskararen giroa Baztanen" (*Euskera* 24, 1979, 568-572). Nik hau izan dut eskuartearen: Izeta (1999: 29-31).

¹²⁰ Horren ikusbide José Andrés-Gallego (2003: 175) historialariaren hitzok: «Pero el vascuence retrocedió en efecto con la guerra [Espainiako gerra zibila]: en Navarra, no pocas familias euskaldunes optaron por desterrarlo de sus labios, *motu proprio*, arguyendo que no querían mantener lo que había servido para dividir y matar, y no lo transmitieron a sus hijos». Oin-ohar batean egileak aipamen horren iturria argitzen du: «He recogido este hecho en la tradición oral de la Montaña» (ibid., 554. oin-oharra).

5.3.3.1. *Familia bidezko euskarazko sozializazioaren etena*

«... niri beti erdaraz egin didate»

Iruritako Elizako Agiritegian Gerra Zibilaren ondotik herrian ospatutako ezkontzen¹²¹ datuak aztertu eta esposatu ziren ezkontideen jatorria ezagutzeko, bidea izan dut senar-emazteen jatorrizko hizkuntza ezagutzeko. Garai horretan Nafarroako euskararen hegoaldeko muga eta egoera zein zen (A. Irigaray, 1935 eta 1956; Erize, 1997) kontuan hartuta, familien glotohistorietako bi belaunalditako bikoteen hizkuntza osaera irudikatu ahal izan dut. Ezkontza erregistro liburuaren arabera, oso antzekoak dirudite 1945 aldera esposatu ziren ezkontideen hizkuntza jatorriak eta 1970 inguru ezkondu zirenenak: bikoteen % 67k senar-emazte euskaldunak zituen, % 30ek senarra erdalduna eta % 2-3k biak erdaldunak (IEA). Bi belaunaldietan emazte gehien-gehienak bertakoak ziren (euskaldunak zirenetz ondorioztatzea zailago da, 1970 aldera ezkondu zirenak batik bat).

Halere, seme-alabei euskaraz egiteko momentuan bi gizaldiek ez zuten berdin jokatu: familien glotohistoriek erakutsi dutenez, 1945 aldera herrigunean hazitako haurren (oraingo aitona-amonen) hamarretik lauk ikasi zuen euskara etxean; aldiz, 1970 inguruan sortutakoen hamarretik bat-bik baizik ez.

Hau da, oraingo aitatxi-amatxik beren seme-alabekin (oraingo haurren aita-amekin, hots, ego belaunaldiarekin) hizkuntza aldetik nola jokatu zuten aztertuz gero, ikusiko dugu herrigunean bizi zirenek ez ohi zitelako beren umeei euskaraz egin, nahiz eta bi gurasoak euskaldunak izan. Guraso bakarra euskalduna zen kasuetan, batean ere ez zuten seme-alabek euskara etxean ikasi. Iruritarrek honela diote beren glotobiografietan:

Nire aitak arras ongi bazekien euskaraz, baina beti zuen joera erdarara (...). Ama erdaldun hutsa zen eta orduan niri beti erdaraz egin didate (Miren, 3. FG).

Haien [aita-amen] artean (...) edozein momentutan egiten zuten euskaraz ala erdaraz. Haiek hitz egiten zuten bietan baina gurekin beti ohituratuak erdaraz (...). Guk beti erdaraz, beti erdaraz gure artean, bai (Lola, 4. FG).

Amatxi bai [bazekien euskaraz] eta aitatxi ez, nire aita bai eta nire ama ez. Eta orduan, erdaraz (Itsaso, 5. FG).

Ama euskalduna zen eta euskaraz egiten zigun baina eskolan hastean, erdaraz hastean, amak erdaraz egiten zigun (...). Aitak gutti bazekien, guttitan aritzen zen. Eta gero, gero ere berarekin erdaraz mintzatzen ginen (Laura, 7. FG).

En casa hablábamos siempre en castellano (...) el aita con mi hermana hablaba siempre en euskera y con mis aitaxis y así también (Carlos, 8. FG).

Castellano, nosotros en casa castellano (...). Porque aquí antes no se hablaba entonces y en casa siempre hemos hablado en castellano (...). Me imagino que mi padre y sus hermanos todos saben (...). Yo las veces que los oigo tiran al castellano. Sí, tiran al castellano. ¡Hombre! Mi padre sí que sabe hablar pero pocas veces le oiré. Igual con gente puntual más bien, con la gente de los caseríos. Por lo que sea, con ellos que se junta o que tiene... con aquellos igual sí (...) no hemos hablado nunca en euskera en casa (Alberto, 10. FG).

¹²¹ Gure gizarte tradizionalen ezkontza izan da populazioaren sorkuntza neurri handi batean arautu duen erakundea. Iruritako Elizan ospatu ziren ezkontzen erregistro liburuko datuei erreparatu diet ezkontideen jatorria ezagutzeko.

Beraz, 1970eko hamarraldian etxean haurren hizkuntza sozializazioa erdaraz egiteko gizarte araua zegoen indarrean. Glotobiografia bakar batean kausitu dut etxean euskaraz egin zuen orduko herriguneko haurra, 1977an sortutakoa: «Gu beti bizitu gara euskara, hori bai. Beti, beti, beti» (Arroxa, 2. FG). Aipatu behar da Arroxaren aita Iruritako Errekakoa dela eta ama Erratzukoa; beraz, ingurune anitzez euskaldunagoe-tatik Iruritako herrigunera bildutakoak.

Hamarkada horretan Iruritako herrian hazitako belaunaldia erdaraz aritu ohi zen etxean, eskolan eta plazan: «Guk beti erdaraz, beti erdaraz gure artean, bai. Eta eskola ere erdaraz» (Lola, 4. FG).

1970ean Pedro Irizarrek (1973a) % 100 euskaldun jo zituen Baztango herriak, Elizondo eta Irurita izan ezik. Haraneko bi herririk handienetan erdalduntzea nabariagoa zen eta euskara ez zekitenak % 10 zirela kalkulatu zuen. Azkoitiko euskalariak zioen bezala Iruritan euskaldunak hamarretik bederatzi zirela onartuko bagenu ere, euskararen gizarte erabilera arrunt higiturik zegoela adierazten duten lekukotasun ugari daude.

5.3.3.2. Erdara hutsezko eskolaren eragina

«Kuaadrillan beti erdara (...) eskolan erdara ematen genuelako»

1971 artio Iruritako herrigunean bi eskola zeuden, neskendakoa, Goienetxea, eta mutikoendakoa, Errebote plazakoa. 1972an ikasle guztiak Errebote plazako ikastetxean batu ziren eta horretan eskolatu ziren ego belaunaldiko iruritar karrikatarrak. Herriko eskolan egin zuten ikastaldia OHOk 5. maila bitarte, erdara hutsean. Handik gehienak Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxera pasatu ziren derrigorrezko hizkuntza amaitzeko eta hor batzuek, adinaren arabera, euskara ikasgai izan zuten. Iruritako bi aitek bakarrik Elizondoko eskualdeko ikastetxean ikasi beharrean Lekarozko Nuestra Señora del Buen Consejo kaputxinoenean amaitu zuten OHO, eta hor batek euskara ikasgai izan zuen. Aztertutako familietako guraso iruritar bakar bat ere ez da euskaraz eskolatu.

Errebote plazako eskolatik pasatu diren ego belaunaldiko iruritarrek ez dute oroitzen txarrik herriko ikastetxearen gainean ez eta izan zituzten maisu-maistrei buruz ere. Irakasle erdaldunak izan zituzten, bai eta euskaldunak ere, baina eskola saioak beti gaztelaniaz izaten ziren. Bertzalde, berriemaile batek ere ez dit maisu-maistren aldetik ezein tratatu txar, zigor edo gogorkeria aipatu ikasleek euskaraz egiteagatik. Arroxa maisu-maistra erdaldun eta euskaldunak izan zituela oroitu da. Euskaraz ez zekien Lizarrako maisu batek eskolatik kanpo euskaraz egiteko erraten zien: «... erraten zizun mintzatzeko euskara. Begira, zen erdarakoa baina erraten zigun» (Arroxa, 2. FG). Handik urte batzuetara maisu hori euskaldundu eta euskaraz irakasten hasi zen Elizondoko eskualde ikastetxean. Maistra euskaldun bat ere, M^a Dolores Goikoetxea, gogoan du: «... horrek ere bai erraten zigun mintzatzeko gure tartean gero euskara. Hori klaro, amak erraten zigun ere: 'Begira, Maria Doloresek erraten dizue ateratzearekin eskolatik mintzatzeko euskara'» (Arroxa, 2. FG).

Halaz, maisu-maistren jarrerak ere nolabait eragin ziezaiekeen gurasoei. Pentsa dezakegu eskolatik at euskaraz egitearen aldeko jarrera horrek bihotz emanen ziela etxean euskaraz egiten zuten gurasoei. Kontrako jarrerak ere izanen zuten eragina, adi-

bidez, Sánchez Carrionek Lekarozko gaztetxo baten gainean aipatu zuenak: «... un adoslescente del Colegio de Capuchinos al que los frailes le han recomendado no hable en vasco en su casa 'porque le dificulta el dominio del castellano y es un obstáculo para sus estudios'» (1972: 122-123).

Euskararen liburu zuriak, segur aski Jose M^a Satrustegik idatzitako atal batean (Euskaltzaindia, 1978: 319), maisu-maistrek guraso nafar euskaldunei egindako gomendioak (seme-alabei erdaraz egiteko) azaltzen ditu. Nafarroako haurrei eskolan euskaraz egiteagatik ematen zizkieten zigorrak ere aipagai ditu¹²². Nik aldiz, neure ikerlanean ego belaunaldikoen lekukotasunetatik ez dut halakorik bildu, adineko iruritarrek aipatzen badituzte ere.

Aurreko ataltxoan azaldu bezala, herriguneko haur gehienek ez zuten euskara guraso euskaldunengandik jaso. Zeuden haur euskaldunek, etxean familiarengandik ikasia zutenek gaztelania eskolan eta plazan bereganatu zuten. Erdara hutsezko eskolak ikasgelatik landan ere izan zuen eragina eta haurren arteko harremanak erdaldundu zituen. Haur euskaldunak erdaraz egitera ohitu eta ikaskideen artean bezala haurrideekin ere mintzaira horretan hasi ziren. Ikasgelatik eta jostaldietatik eraman zuten azkenean haurrek hizkuntza etxera eta guraso batzuk, ordura artio euskaraz egin bazuten ere, erdaraz egiten hasi zitzaizkien seme-alabei. Familia batzuetan eskolan erdaraz hasi eta ondoan aldatu ziren haurrekiko hizkuntza portaerak, euskaraz egitetik erdaraz egitera. Hala bada, haurrek etxe barneko hizkuntza aldaketari eragin zioten, Euskal Herriko bertze herri batzuetan ere dokumentatuta dagoen bezala (cf. Sánchez Carrión, 1981a; Iraola, 2002)¹²³.

1970-80 hamarkadetan herrian gizarte bizitza, plaza eta haurren jostaldiak erdaraz izaten ziren. Azconak (1985: 230) Iruritako herriguneko euskararen egoera honela deskribatu zuen: «... aunque la mayoría lo conoce, la utilización está por encima de los 35 años. Los niños, los más jóvenes y las mujeres se expresan normalmente en castellano». Euskara etxean ikasia zuten haurrak erdararen gizarte araura doitu eta erdaraz hasi ziren beren adinkideekin eta, zenbait kasutan, etxeko helduekin ere. Beraz, eskolak Iruritako haurren hizkuntza portaerei eragin zien, haurren sozializazio harreman eszentrikoak (hau da, adinkideen artekoak: anaia-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lagunena eta halakoen artekoak) ez ezik, zenbaitetan belaunaldien arteko harremanak ere erdarara mintzaldaraziz: «Gu beti bizitu gara euskara, hori bai. Beti, beti, beti. Baina gero eskolatik ateratzen ginen... Nik ez dakit, erdara emate hori... lagunena tartean beti erdara. Kuadrillan beti erdara (...). Zortzi urterekin, orduan bai aritzen ginen erdara. Eta ez dakit, eskolan erdara eman genuelako (...). Dena, dena, dena» (Arroxa, 2. FG).

Arroxa baino gazteagoak diren ahizpak aldiz, euskaraz eskolatu ziren eta lagunekin euskaraz aritu dira beti: «Badakit lau urtetan hasi nintzela eskolan hemen Iruritan eta erdara. Orduan ez zegoen euskararik. En cambio nire ahizpa dena ni baino bi urte gazteagoa eta hasi zen euskara. Lehenbizikoak, nire ahizpa eta izan ziren lehenbizikoak [euskaraz eskolatuak] (...) eman zuten euskara eta beren kuadrilla beti euskara» (Arroxa, 2. FG).

¹²² Erizek (1997: 444-448) euskararen aurkako zigorraren esanahia aztertu du.

¹²³ Sánchez Carrionek (1981a) Nafarroako Mendialdeko neska-mutikoek eskolan erdara ikasi eta ondoren etxetara eramaten zutela deskribatu zuen. Iraolak (2002) Pasaian egindako ikerlanean hau jaso zuen: Francoren agintaldiko urteetan, zenbait kasutan haurrek berek eskatzen zieten gurasoei etxean euskaraz ez egiteko, erdaraz ongi ez jakiteagatik eskolan gaizki pasatzen segitzeko beldurrez. Bertze hiztun talde batzuetan ere halako lekukotasunak jaso dira, erraterako Montoyak (1996) Alacanteko katalanaren familia bidezko transmisioaren etena aztertzen duen ikerlanean.

Irurita bezalako herri erdaldunduan erdarazko eskolak etxe euskaldunetako haurrak erdalduntzeko aski indarra izan zuen. Herri euskaldunagoetan aldiz, eskolak ez zituen haurrak erdalduntzen, eskolaz kanpoko bizitza euskaraz egiten baitzuten. Hala gertatu zen, errate baterako, Iruritaren ondoan dauden Lekaroz eta Gartzain herrietan («... Karrika euskalduna zen arrunt», MG) eta, noski, Iruritako Errekan ere. Axunek dioenez, haur baserriarrek eskolan ikasitako gaztelania ez zuten beraien arteko harremanetan sartu ez eta etxera eraman ere: «Erdaraz egiten bagenuen eskolan zerbait... bueno, baina aunitz ez, qué va!» (Axun, I. FG). Bordetan erdarazko eskolak ez zuen ez haurren arteko ez familien barneko hizkuntza harremana erdarara erakartzeko aski indarririk izan euskara gizarte harremanetan sakonki errotuta baitzegoen.

Erratzu, adibidez, Irurita baino euskaldunagoa zen eta erdarazko eskola gorabehera, haurren sozializazio harreman eszentrikoek euskaraz segitu zuten. Dena dela, herri euskaldunetan ere erdara hutsezko eskolaren eta erdararen bide kulturalen presioaren eragina handia zen. Honela oroitu da Nikolas, Erratzukoa, bere haur-gaztaroaz: «... egunkariak ziren denak erdaraz. Ez genuen ja [xa] irakurtzeko euskaraz. Niri gustatzen zait pila bat irakurtzea. Eta orduan ja hasi nintzen erdaraz irakurtzen eta klaro, niretako ja ailegatu zen momentu bat errazagoa zela solas egitea erdaraz. Ohitura hori, irakurtzekoa, eta eskolakoa...» (Nikolas, 3. FG).

Herri bateko familietan eta gizarte bizitzako harremanetan euskaraz egiten zen kasuetan erdarazko eskolak ez zituen haurrak erdalduntzen. Ezkurran, erraterako, aita-ama euskaldun hutsak zituen Andresek erdaraz egin zituen oinarrizko ikasketak herriko eskolan «... hala ere, mantendu zuen euskara gehiago» (Lola, 4. FG). Etxalarren ere, erdarazko eskolak eragin zien haurren harreman eszentrikoei baina familiak euskarari eutsi zion. Honela azaltzen du Baztango eskola txiki bateko maisu batek, 1970 aldera Etxalarren sortuak, bere haurtzaroaz: «Etxean euskaldunak ginen. Eskola erdaraz genuen. Eta eskolak erdaldundu gintuen. Aldatu zituen gure harremanak, karrikakoak. Etxean euskaraz baina karrikan sortu zen erdarazko giro bat jostetan ere. Hori Etxalarren, eskolaren eraginez» (LK, 2010-10-3).

Erdarazko eskolaren eragin erdalduntzailea ukaezina da. Azconak (1985: 232) hone-la utzi zuen agerian: «El problema mayor del euskera en Baztán se encuentra entre los niños: ‘Los niños no hablan euskera. Se ha perdido en los pueblos (...) Los críos van a la escuela y allí les obligan a hablar en castellano. Ese es el mayor problema en el Baztán, la escuela’».

Eskolaren eragin erdalduntzailea aipaturik, bertze alde batetik herrian bertan eskola egonak —eta haurrak Elizondoko eskualde eskolara txikitatik mugitu behar ez izanak— begi bistako onurak zekarzkie Iruritari herriko bizitzari eusteko, Nafarroako Mendialdeari buruzko hainbat lanetan agertu bezala (cf. Sánchez Carrión, 1981a: 62; Erize, 1997: 329; Aleman, 2008: 18).

Beraz, argi agertzen dena da erdara hutsezko eskolak zenbait herri-azotetan haurren hizkuntza portaerei nabarmen eragin ziela ikasgelaz landa ere. Mailakatze moduko bat proposatzearen: inguru arras euskaldunetan, Iruritako Errekan edo Lekarozen, erraterako, badirudi eskolaren eragina oso azalekoa izan zela eta ez zuela haurren arteko harremana erdaratu¹²⁴. Bertze zenbait kasutan, Erratzun edo Etxalarren adibidez, haur euskal-

¹²⁴ Mendialdeko anitz herrixkatan, gainera, herriko erdaldun bakarrak maisu-maistrak ziren, hainbat lekukotasunek diotenez: «[Azpirotz]... no hay más forastero que el maestro. Todo el pueblo es vascófono desde el más anciano hasta una cría de 3 años...» (Sánchez Carrión, 1972: 69); «En Igoa

dunak eskolaren bidez bereganatutako erdara beren arteko harreman eszentrikoetan gutxi-asko erabiltzen hasi ziren, seguruenik —nire idurikotz— haurren artean etxean erdaraz egiten zuen baten bat egonen zelako. Eta azkenik, zenbait herritan, Iruritan kasu, haurrek eskolaren bidez beren adinkideekin gaztelaniaz egitera jarri ziren, haurrideekin ere bai eta azkenik, erdara etxera eraman zuten. Hau da, gurasoei erdaraz egiten hasi zitzaizkien, eta zenbait aldiz, gurasoak horretaratuak, euskara galtzera ere iritsi ziren.

Hala bada, eskolako hizkuntza, harreman eszentrikoak (adinkideen artekoak) eta familiakoak (belaunaldien artekoak) ez dira hizkuntza jarduera erabat bereziak. Haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira eta elkarreraginean daude.

Dena dela, familia haurren euskarazko sozializazioan sendoen jokatu duena dela dirudi. Alegia, Iruritan haurren euskaltasunaren bermagarria familia da, hein handi batean. Familiak —gurasoek— euskarari eusten bazion haurrek ez zuten hizkuntza galtzen, nahiz eta eskola eta plaza erdara hutsean izan. Hori erranda, jo dezagun ikustera Iruritako gurasoek nola jokatu zuten.

5.3.3.3. *Gurasoen jarrerak ego belaunaldiak euskara atxiki zezan*

«... erraten zigun gure amak mintzatzeko euskara ere bai»

Azaldu dudanez, 1970eko hamarkadan Iruritako herrigunean sozializatu ziren haurrek presio handia jasaten zuten eskolan ez ezik karrikan ere erdaraz aritzeko. Herriko plaza eta gizarte bizitza erdaraz zen eta gainera, eskolaren eraginez erdaraz aritzera ohitutako haur euskaldunak etxean gaztelaniaz egiten hasi ziren anai-arrebekin ez ezik aita-amekin ere. Hala bada, interesgarria da erreparatzea gurasoek zer jarrera agertu zuten haurren eskolaz kanpoko hizkuntza portaeren aitzinean eta, bereziki, etxe barneko erabileraren aurrean.

Horren aitzinean gurasoek molde desberdinetan jokatu zuten. Zenbait gurasok haurrek eskolaz kanpo erdaraz egitea ez zuten ontzat hartzen eta etxean erdararen aldeko hizkuntza aldaketa gerta ez zedin seme-alabei eragin zieten. Txikitako euskara atxiki zuten ego belaunaldiko batzuk familian mintzairari eusteko nolabaiteko giroa izan zutela oroit dira, beren gurasoek etxean eta eskolaz landako harremanetan euskaraz egiten segi zezatela bultzatu zituztela.

Haurren hizkuntza sozializazioaren aitzinean zenbait gurasok —oraingo zenbait aitatxi-amatxik— jarrera hau izan zuten: ez zuten erdara hutsezko eskolatzea auzitan paratu, ez eta seme-alabek erdara ongi ikasi beharra ere, baina haurren eskolaz kanpoko harremanetan eta bereziki, etxe barnekoetan, euskarari eusteko eta erdararako mintzaldaketa ez gertatzeko aktiboki jokatu zuten.

Aztertutako glotobiografietan Iruritako herrian halako kasu bakarra dugu. Arroxa, txikitari etxean ikasitako euskarari heldutan ere eutsi diona, oroit da amak erraten ziola eskolatik ateratzearekin euskaraz mintzatzeko: «Hori bai erraten zigun gure amak, mintzatzeko euskara ere bai» (Arroxa, 2. FG). Auzo herrietan hazitako en-

habitan 19 familias y sólo hay una persona —la maestra— que no sepa el vasco» (ibid., 144); «[Muskitz]... el idioma usual de todos, excepto la maestra es el vasco» (ibid., 159-160); «LABAYEN.- Todos hablan el euskera menos el Médico, Maestro y Maestra» (Irizar, 1973a: 39).

tobiografietan ere gurasoen halako jarrerak agertu dira. Guraso baztandarrak dituen baina Oiiregin hazitako Ixak, adibidez, honela du gogoan: «... erraten zuen amatxok ‘zuek zarete belarrimotzak!’. Klaro! Igual haiek euskaraz solasten eta guk erantzuten erdaraz. Beti» (Ixa, 9. FG). Erratzun hazitako Nikolasek honela dio:

... aita haserretzen zen pila bat solas egiten bagenuen erdaraz (...) ‘zer, ez dakigu solasean edo zer?’. Klaro, gu eskolara joaten ginen erdaraz. Baina nire aita haserretzen zen pila bat, a ver zer demontre ari ginen erdaraz solasean. ‘Ez dakigu euskaraz edo?’. Bai, bai, beti oroitzen naiz (...). Azkenean gelditzen zaizula (...) matxakatu zaituzte eta igual lehenbizian ez zara ohartzen, ez zara ohartzen baina azkenean, jode, nire aita egon da matxakatzen niri pun, pun, pun, segi, segi, segi... pues segi. Zer... raro zen. Ezagutu dut aldrebes, erratea semeei ‘utzazue euskaraz eta ikasi erdaraz!’. Eta hori kostatu da aldatzea (Nikolas, 3. FG).

Ikusi bezala, batzuetan, etxean euskaratik gaztelaniara ez igarotzeko jarreretan erdararen erabileraren gaitzespena agertzen zen: «zuek zarete belarrimotzak!» edo «zer, ez dakigu solasean edo zer?».

Gurasoen jarreraz gain, aitatxi-amatxik ere haur euskaldunek etxeko mintzairari eusteko eragingarri agertzen dira. Euskara etxekoa zuten haurrek eskolatzearen prozesuan euskaraz aritzeko erraztasuna gal zezaketen eta aitatxi-amatxi euskaldunak (batzuetan elebakarrak) izateak haur horiek euskaraz egitera behartzen zituen (cf. Sánchez Carrión, 1981a: 79). Honela azaltzen du amatxi Iruritako Errekako euskaldun hutsa zuen Ixak:

Doneztebera [OHO amaitzera] joan ginelarik ja zen dena erdaraz eta klaro, gero joaten ginen amatxiren etxera eta... azkenean ez duzu solasten euskaraz eta galtzen da pixka bat ere bai, ez atzendu baina solasteko orduan pixka bat bai... Gero joaten ginen amatxiren etxera eta kostatzen zitzaidan. Klaro, amatxirekin beti euskaraz. Amatxik ez zekien erdaraz, beti euskaraz. Orduan beti kostatzen zen gehiago solastea berarekin (Ixa, 9. FG).

Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan etxean euskaraz egiten segitzeko gurasoen jarrera ez zen hain irmoa izan edo, bertzerik gabe, ez zen izan erdararen presioari aurre egiteko gauza. Horrelakoetan, haurrak eskolan ikasitako eta beren adinkideekiko sozializazioan barneratutako erdara etxera eramanean eta mintzaira horretan hasi ziren haurrideekin ez ezik aita-amekin ere. Zenbait kasutan ego belaunaldiko gaztetxoak lehen hizkuntza, txikitan gurasoengandik ikasitakoa, erabat edo neurri batean galtzera iritsi ziren. Honela gertatu zitzaion gaztetan euskara (berr)ikasi zuen Laurari: «Ama euskalduna zen eta euskaraz egiten zigun baina eskolan hastean, erdaraz hastean, amak erdaraz egiten zigun (...) eskola garai horretan galdu genuen, eta etxeko guztiak gainera» (Laura, 7. FG).

Hala bada, etxe barneko harremanetan euskara atxikitzeko gurasoen jarrera funtsezkoa izan da. 1970 eta 1980ko hamarraldietan —ego belaunaldiaren haurtzaroen— Irurita herri erdaldunduan etxeko hizkuntzari eutsi zioten haurrek gurasoen eragina izan zuten. Aita-ama horiek seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean ez zuten eztabaidatu erdara hutsezko eskolatzeara, ez eta seme-alabek erdara ongi ikasi beharra ere, baina haurren eskolaz landako harremanetan, eta bereziki etxe barnekoetan, euskarari eustearen alde (erdararako mintzaldaketa ez gertatzeko) aktiboki jokatu zuten.

5.3.3.4. *Ego belaunaldia haurretan erdaldun*

«... erdaldunak ginen»

Herriguneko ego belaunaldia, oraingo haurren aita-amak, 1970-1980 hamarkadetan hazi ziren erabat erdalduna zen Iruritan: «... ez zela euskaraz solasten, ez eta etxean, ez eta kanpoan, ez eta eskoletan, ez eta inon» (Itsaso, 5. FG).

Gu [Iruritako lagun taldean] mintzatzen ginen erdara (...). Oroitzen naiz aritzen zirela mutikoak pilotan edo palan eta erdara, erdara, erdara, bai (Arroxa, 2. FG).

... erdaldunak ginen (...) den-dena, kanpoko bizitza dena, Irurita zen arras-arras erdalduna (...). Joko guztiak, sokasaltoan edo kantu guztiak ziren erdaraz (Miren, 3. FG).

Dena, dena, dena. Eskolan, lagunekin... Nire lagunek ez dakite euskaraz ez da bat ere, ez dakite, dena erdaraz... (...) ni eta bertze bat bere ama dela Zigakoa, eta bueno, hark ere badaki euskaraz baina bertzeak ez dakite deus, deus euskara. Dena erdaraz (Lola, 4. FG).

[Lagunekin] Erdaraz dena bai, bai (...). Es que orain hasten banaiz bat, bat, bat, bat... momentu horretan inork ez zekien. Inork ez zekien. Es que etxeetan ez zen egiten (...) bost urte, sei urte, zazpi urterekin, bederatzia urterekin... dena erdaraz aritzen ginen (Itsaso, 5. FG).

... como en la escuela estudiamos todo en castellano y el recuerdo que tengo yo de la infancia es todo en castellano. O sea, en sus casas sí que hablarían pero en la calle no (Carlos, 8. FG).

... nire senarrak [Gabrielek, 1972an herrian sortuak] beti berak erraten du beraiek ttikitatik eskola eta dena erdaraz. Bere generazio hori, bere kinta hori, hor izan zirela urte batzuk... beti erdaraz (Ixa, 9. FG).

... [en la escuela] era siempre todo castellano. Y luego siempre en la calle y en todas partes siempre todo todo en castellano (Alberto, 10. FG).

Herriguneko hainbat familian euskararen transmisioa etena zen, erdara hutsezko eskola zegoen eta plazako sozializazioan gaztelania zen araua. XX. mendearen hasierako hamarraldietan indarra hartzen hasia zen erdarak 1970-1980an bere-berea zituen karrika eta plaza, etxeetako solasaldiak eta haurren jostaldiak.

Berriemaileek haurzutuko bizitza erdaraz oroitzen dute. Batzuek euskara inoiz aditzen ez zutela diote. Hori oroimenaren desitxuraketa izan ote daitekeen ez jakin. Herrian euskaldunak baziren, aitz gainera, baina berriemaileen lekukotasunei erreparatuta, Irizarrek (1973a) emandako ehunekoak (iruritarren % 90 euskaldun) gehiegixko dirudi.

5.3.3.5. *Euskarazko eskolatzearen hastera eta haren eragina*

«... eskolak lagundu du aunitz»

Baztanen euskara irakasbidea zuen irakaskuntza 1970ean hasi zen Elizondoko Baztan Ikastolarekin. Horrek aurrekari txiki baina garrantzitsua izan zuen Errepublika garaian: Elizondoko Ikastola, 1935ean hasi eta 1936an Gerra Zibila hasi artio ibilbide

laburra izan zuena (Baztan Ikastola, 1995: 22-23). Eskola publikoetan euskara irakasgaitzat 1970eko hamarkadaren bigarren erdian sartua bazen ere¹²⁵, euskara irakasbide izaten aise geroago hasi zen. Baigorriko eskolan euskarazko irakaskuntza —saio batzuk bederen— 1980ko hamarraldiaren hasierako ikasturteetan hasi zen eta herriguneko ikastetxean 1985ean. Beraz, erran bezala, ego belaunaldiak ez zuen herrian euskaraz eskolatzeo aukerarik izan.

1980ko hamarkadaren erdialdean eskola publikoetan jarduten zuten maisu-maistra eskaldunak izan ziren, hein handi batean, irakaskuntza publikoan euskara sartze prozesuaren sustatzaile eta aitzindariak. Baztani dagokionez bildu dudanak erakutsi dit irakasleek bultzatu zutela herrietako eskoletan euskara irakasbide gisa sartzea eta anitzetan, prozesu horretan guraso eskaldunen errezelo eta mesfidantzei aurre egin behar izan zirela. Honela azaltzen du 1984an Zigako eskolan ziharduen maistra baztandarrak:

...nik egin nuen euskarazko reziklajea¹²⁶ eta gurasoek hori bazekiten (...) eta gurasoek uste zuten ni ikastolara pasatu behar nintzela, zertaz beraiek erlazionatzen zuten euskara ikastolarekin eta ez zuten ulertzen eskola publikoan ere euskara izaten ahal zela. Orduan, ni reziklajea akituta, titulua lortu eta hasi nintzen euskaraz erakusten Zigako eskolan. Lehenago ere, hitz egin beti euskaraz, beti edo gehienetan, baina liburuak (...) erdaraz. Orduan guraso batzuk, eta gehienbat ama batzuk, hori ikusten zutenean, etorri ziren niregana protestatzera (...) nire ideien kontra, ez nire metodologiaren kontra baina euskararen kontra a tope (MEU).

Berriemaileak euskarazko irakaskuntzaren hastapen horietan maisu-maistrek gurasoen kontrako jarrerak gainditu behar izatea «Baztango ia herri guztietan» (MEU) gertatu zela dio, eta antzekoa kontatu zidan Oronozen gainean. Bertze herri batzuen (Erratzuren, Arizkunen, Azpilkuetaren...) gainean aipamen bertsua egin didate eta iturri desberdinetan ere erruz dokumentaturik kausitu dut¹²⁷.

¹²⁵ 1970eko hamarkadan Nafarroako zenbait herritako ikastetxe publikoetako ikasleendako euskara eskolak hasi ziren Nafarroako Foru Aldundiak diruz lagundurik. 1977-1978 ikasturtean, adibidez, Iruritako Eskola Nazionaleko eskolaurreko 24 umeri irakasten zitzaien euskara (Diputación Foral de Navarra [Marzo de 1978]. Detalle de la situación escolar. Dirección de Educación. Vasconce. Txosten argitaragabea).

¹²⁶ Nafarroako Gobernuak maisu-maistrak euskara edo euskaraz irakas zezaten trebatzeko ikastaroak —birziklatze programak— 1983an hasi ziren antolatzen, irakasleek berek hala eskaturik. Hiru hileko ikastaldia zen eta parte hartzen zuten maisu-maistrak epe horretan eskola ematetik liberatzen ziren (Gobierno de Navarra [Abril de 1991]. Evolución y situación de la enseñanza en y del euskera en Navarra. Departamento de Educación, Cultura y Deporte. Servicio de Euskera. Txosten argitaragabea).

¹²⁷ 1983an Erratzun maisu ibilitako Patxi Salaberri Zaratiegik ere ber gauza adierazi dit. Pello Salaburuk (2002: 78), 1951n Arizkunen sortuak, honela idatzi du: «Familia eskaldun batean sortu nintzen, eta euskara bakarrik entzuten nuen ingurumenean hazi. Herriko eskola erdaldunean, ezinbestean, egin nituen ikasketak (...), ez baitzuten inolako aukerarik izan gure gurasoek euskara aukeratzeko hezkuntza sisteman. Hantxe, gure anaia gehienaren bigarren eskuko Alvarez entziklopedia nuela lekuko, entzun nituen erdal hitzak lehenbiziko aldiz, nahiz euskarak, gizarte hartan, ez zuen balio gehiegi, garbi erran dezadan. Urteak eta urteak geroago, Baztango herri batean, legeak aldatu ondoren gurasoek aukera izan zutenean maisu eskaldun bat ekartzeko, umeek euskaraz lan zitzaten hezkuntza gaiak, nahiago izan zuten Melillatik etorritako maistra bat hautatu, hurbiletik etor zitekeen maisu eskaldun bat baino. Badirudi barrea sortzeko ateraldia dela, Buñuelen film batetik hartua, baina egiatan negar egiteko moduko zinezko gertaera baizik ez da».

Jesús Azconak (1985: 229-235) ere guraso baztandarren jarrerak aipatzen ditu: «Hay muchos padres euskaldunes que, al igual que en otros pueblos de la comarca, “no quieren que los hijos aprendan en

Hala gertatu bazen zenbait eskola publikotan, ikastolen mugimenduan berriz, gurasoak izan ziren sustatzaile eta ekintzaileak eta irakasleen laguntzaz, haurrak euskaraz hezteko proiektua gogo irmoz gauzatu zutenak (Iruñeko kasu azterketan xehekiago azalduko dudan bezala). Administrazioetik, hedabideetatik, eskolatik... eta, oro har, eremu formaletik baztertuta zegoen eta ia etxe barneko erabilerara mugatuta zegoen hizkuntza gutxiaren transmisio, eskolan sartze edo estatus aldatzearen inguruan hitunen komunitateko kideen jarrera ezberdinak izan ziren: bazterketa berenganatu eta hizkuntza nagusiaren aldera jo zuten batzuek eta zokoratzearen aitzinean erresistentzia eta iraultza jokaerak agertu zituzten bertze batzuek. Weinreichek (1979: 101) ohartarazi zuenez, hizkuntza menpeko taldekideen artean mintzairarekiko leialtasun jokaera desberdinak kausi daitezke. Okzitanieraren gainean Behlingek (1996: 59) ere akulturazio prozesuetan hitzunen portaerez aipamen bertsua egin zuen: «... le refus de transmission à la génération suivante ou la résistance au changement sont deux phénomènes que nous rencontrons, semble-t-il, dans tous les cas de ce type d'acculturation».

Iruritarren kasuan, gertakari horri hurbilagotik so egitea merezi du. Iruritan, Baztango bertze herri batzuetako eskoletan bezala, maisu-maistren ekimenez hasia zen euskara eskoletan sartzeko. Orduko Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa indarrean zen eta euskarazko irakaskuntza arautu gabe bazegoen ere, Mendialdeko eskola anitzetan izatezko egoera bat bazegoen. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko datuen arabera 1988-1989 ikasturtean 60 ikasle ziren Iruritako eskolan, 50ek euskaraz eta 10ek gaztelaniaz ikasten zutenak (orduko dokumentazioan ez da ikaseredurik aipatzen oraindik halakorik araututa ez zegoelako). Ondoko ikasturtean aldiz, 1989-1990ekoan, 55 ikasle daude, guztiak D ereduan. Hurrengo ikasturtean, 1990-1991koan, datu ofizialetan 53 ikasle agertzen dira, 22 D ereduan eta 31 An. Hurbilen urteetan bi ereduak mantentzen dira, nahiz eta urtez urte D ereduak ikasle gehiago bildu harik eta 2003-2004 ikasturtean Iruritako eskola D eredu hutseko ikastetxe bihurtu artio¹²⁸.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuko dokumentazioak darakuskien datu horiek ulertze aldera, Nafarroako eskola publikoetan euskararen eta euskarazko irakaskuntza 1988an, 159/1988 Foru Dekretuaren bidez¹²⁹, arautu zela aintzat hartu behar da. Orduko, 1985etik, Iruritako eskolan maisu-maistrak hasiak ziren euskaraz irakasten nahiz eta zenbaitetan erdara etxeko hizkuntza zuten ikasleekin gaztelania erabili. Baina behin euskarazko irakaskuntza arautu eta ikastereduak sortuz gero, eskola D ereduko bihurtu eta

euskera por que [sic] ellos han tenido problemas de jóvenes, en la escuela, en la mili (...) Se cree que el euskera no sirve para nada (...) Hay poca conciencia» (parentesiak jatorrizko testukoak dira).

Euskararen galera Nafarroan (1587-1984) liburuan honela jasota dago: «1984. urtean Donezteben Baztango maisu-maistrentzat hitzaldi batzuek emaiten ari izan ginelarik beraien komunikazio pertsonalez jakin izandu genuen Errazu eta Azpilikueta arras euskaldunak diren arren bertako maisuak hasi zirelarik euskaraz zerbait irakasten gurasoak altxatu zirela horren kontra erdararen ikasteko kaltegarria zelakoaren estakuruz» (Elgoibar et al., 1987: 147).

Jose M^t Sánchez Carrionek (1981a: 42) euskarazko eskolatzearen aitzinean Malerreko guraso euskaldunek izan zituzten kontrako jarrerak aipatzen ditu.

¹²⁸ 2001-2002 eta 2002-2003 ikasturteetan A ereduko lau ikasle baizik ez zeuden. Bi urtetan Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak baimendu zuen eskolan lau ikasleko ikastalde txikia izatea Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxera aldarazi gabe.

¹²⁹ 159/1988 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzeko eta erabiltzeko arautzen dituena.

ikasle guztiei eskola euskaraz ematen hasi zitzaizkien. 1990 urtean zenbait guraso horren kontra agertu ziren hautu hori haiei galdegin gabe egina zelakoan. Bilkurak (gatazkatsu samarrak) egin zituzten eta azkenean, hurrengo ikasturtean, 1990-1991ekoan, gurasoek bi lerro egitea erabaki zuten, euskaraz ikasiko zuena D ereduan eta gaztelaniaz ikasiko zuena An. Guraso gehienek seme-alabak A ereduan matrikulatu zituzten (MEU).

Euskara eskolan sartzearen inguruan «borroka» izan zen herrian: «Izan zen erresistentzia Iruritan euskara sartzeko» (MG); «Istiluak izan ziren...» (MEU). Herrian hazitako ego belaualdiko batzuek eskolan euskarazko irakaskuntza hastearen inguruan izandako gatazka dute buruan: «... hemen izan ziren istiluak eskolaren inguruan. Euskararekin izan ziren istiluak (...). Eta guraso aunitz euskararen kontra zirenak» (Miren, 3. FG).

Bertze ama batek Iruritako eskolan euskarazko eta erdarazko taldeak egin zirelarik euskaraz ikasteko bakar batzuk baizik ez zirela matrikulatu du gogoan: «Lau edo bost. Gutti apuntatu ziren euskara[ra]» (Arroxa, 2. FG). Euskara eskolan sartzearen kontra agertu zirenen arrazoi eta motibazioak ulertzearen kontuan hartu behar da guraso euskaldun anitzek, erdara ongi ez jakiteagatik bizitu eta sufritutakoak zirela eta, beren seme-alabek erdara ongi ikasiko zutela ziurtatzeko erdara hutsezko eskolaren aldeko hautua egin zutela, horren bermagarri bakarra izanen zelakoan: «Sí, había jaleos, había jaleos. No querían. Algunos (...) los padres han tenido de caseríos (...) en parte comprendo, porque sus padres a la edad de ésta [Elixabete, bere alaba, 30 urtekoa] pasaron muy mal porque cuando iban a Pamplona y así, o tenían que salir, se les reían» (M^a Luisa, 8. FG).

Euskara erakunde publiko-instituzional orotatik baztertuta egoteak erdara hutsezko eskola ezinbestekotzat jotzera eramán zituen guraso batzuk. Ikasgeletan maisu-maistrak irakurtzen eta idazten euskaraz irakasten hasi zirelarik anitzek haurrek erdara ez ikasteko arriskua ikusi zuten eta kontra agertu ziren.

... saltzen zuten behar zela erdara ikasi zerengatik gero gazteak, mutilak gehienbat, joaten zirelarik soldaduskara pues kontatzen zituzten ez dakit zer miseria euskaraz bakarrik jakinda, ez zietela ulertzen eta horrelako kontu beltz batzuk. Pues euskararen aurka egoten ziren aunitz euskaldun, euskaldun... pbbb! peto-petoak, familiak... euskaraz zekiten familiak ziren eta bultzatzen zutela aunitzetan euskararen aurkako mugimendu hori. Es que zen... confusión mental bat! Iruritan gertatu zen horrelako egoera (MG).

Nire ustez bazena zen euskararen kontra egon euskaldun peto-petoa izanez, o sea... ia-ia eromen batean sartzea (...). Nik aditu diot jende arruntari, ez eskuinekoa zen jendeari, ez gorrotatzen duela eta ez dakit zer euskara, baina bai erraten 'baina honek zertarako balio du? Nik izan ditut kristoren arazoak euskararengatik bizitzan eta nik ez dut nahi nire semeak edo nire alabak hau izatea' (JI).

Halakotz, euskara Baztango herrietako eskoletan sartzeko prozesuak denbora luzez erdararen nagusitasuna eta beharra nozitu zuten bertako euskaldun batzuen kontrako jarrera izan zuen behaztoparik handiena. Zenbait baztandarrek euskara deus gutxizat izan dute («Eskuarak ez du deusetarako balio. Hobe erdara ikastea, eskuarekin ez da Belatetik pasaten ahal»¹³⁰) eta mintzairaren alde egindako orok maizkara

¹³⁰ Azconak (1985: 233) honela dio Baztango egoeraz: «La realidad del euskera es conflictiva en Baztan. La manifestación más significativa es el problema de la ikastola. Este conflicto ha nuclearizado las posiciones pro y antivascas. Nuestro informador nos dice: "(...). Hablaban en contra del euskera hablando en euskera. [O]ir a un baserritarra decir que el euskera no vale para nada, pero decirlo en euskera».

jenderik euskaldunenaren mesfidantza zuen aitzinean, Salaburuk (Izeta 1996:16) garbiro azaldu bezala: «Baztan bezalako gizarte itxi batean euskararen alde egiten zuenari zeharka begiratzen zioten, nahiz eta hango biztanle gehienak euskaldun garbiak izan eta aunitzetan bertze hizkuntzarik jakin ez».

Gertakari hori ez da Baztanera mugatzen, Azconak (1985: 239-240) oro har Nafarroako Mendialde euskaldunari antzeman zion. Ikusten denez, mintzairari lotzen zitzaizkion balioak hizkuntzaren jarraipenaren oinarrian daude eta aztergai dudan kasuan haurren hizkuntza sozializazioa baldintzatu zuten. Iruritako Errekako jendeari dagokionez, honela mintzo da MG:

... hor problema zen euskara onartzea pixka bat, erran dezagun, kulturalki haustea molde zaharrak: 'euskararekin ez zarete inora joanen!', 'ikusiko duzue soldaduskara joaten zaretelarik!' eta oposizioa gurasoengandik euskara sartzeko eskoletan. Izan ziren erdaltzaleak baina gauza bat! Nik ulertzen dut, e, beren ikuspuntutik... ulertzen ahal dut. Beraiek pentsatzen ahal zutela ekonomikoki eta kulturalki ongi etorriko zitzaizela erdara, baina ez dudana ulertzen da nola ez ziren konturatzen euskara jakinda euskararekin batera erdara ikasten zutela denek eta ez dela oztopoa hizkuntza bat ikasteko (...). Uste duzu erdara ikasteko euskara behar dela ahaztu? edo erdara ibiltzeko euskara utzi behar dela ibiltzetik? Hori, kontzientzia hori haustea ere! Erraten den... korapiloa!

Halere, pentsamolde nagusi horretan izan baziren norbanakoak horrekin bat ez zetozenak eta giro hori irauli nahi izan zutenak. Euskarazko eskola sustatu zutenak familia euskaldunbeteetan baino gehiago hizkuntzaren galera hurbil ikusi zutenen artean izan zirelakoan nago:

Ni oroitzen naiz bilera batean gurasoekin kristoren bronka baita ere, haserre jendea, bi taldeak bertan ziren (...) bi talde egin ziren (...) euskaraz eta erdaraz eta, hala ere, (...) bronka kozkorra. Urte horietan hasten da pixka bat euskararen inguruan kontzientzia hartzen. Euskara galtzea ez zela inolaz ere zuzengoa zerengandik hemen herrietan euskaldunak eta ikusten zuten haien aita, aitaxi-amatxi euskaldunak eta beraiek euskara galdua (MG).

Orduan, badirudi hizkuntzaren galera gertuenetik ikusi zutenak edo euskara galdu zuten haiek berak izan zirela euskara eskoletan sartzearen aldeko jarrera hartu zutenak (cf. Azcona, 1985: 240).

Hizkuntza dela eta herrian gertatutako banaketak ondorioak izan zituen ondoko urteetan iruritarren sozializazioan. Elixabetek, 1981ean sortuak, Iruritako eskolan ikasi zuen euskaraz eta honela mintzo da ikasketa-hizkuntzaren araberako bereizketaz:

Éramos once quintos me parece que somos y en euskera se quedaron cuatro. El resto se fueron todos a castellano y ahí sí que se notaba. Era como... eras de los de euskera. Te apartaban (...) siempre ha habido eso, castellano y euskera. No nos mezclábamos y hoy en día tampoco nos mezclamos. En las *kinto bestas* hablas un poco pero... euskera por un lado y castellano por otro (Elixabete, 8. FG).

Nafarroan euskara irakaskuntza publikoan sartzeari arautzeko moduak, hau da, Iruritan erdarazko eskolatzea —A ereduia— ahalbidetzeak ekarri zuena izan zen herriaren integrazioari laguntzen ez zion eta hamarkadetako hizkuntza bazterkeriari segitzeko bide ematen zion irakaskuntza molde bat legitimatzea. Hamarkada luze igaro-

ta soilik hasi zen herrian euskarazko eskola modu orokorrean onartzen. Egun ikasereduen inguruko dikotomia hori, hizkuntza hautatu beharraren gainean gurasoen zalantzak gaindituztat ematen dira. Honela aipatu du hogei urte Iruritako eskolan maistra aritutakoak:

Gu oso seguru ginen zer egiten genuen (...). Gaur egun oso polita da zertaz ama horiek dituzten semeak, orain ja handituak dira, baten bat euskarazko klaseak ematen ari da, gauzak aldatu dira (...) gurasoak pila bat aldatu dira (...) denak ez, baino gehienak, alde ditugu, alde eta gainera arras kontzientziatuak ba horrela ikasi behar dutela (...). Hasieran kontra zeuden horiek gaur alde daude (...). Orduan, gurasoek ikusi dute zein ongi ikasten duten bai euskara, bai erdara; zer gustura egoten diren haurrak eskolan horrela. Hori ere kontuan hartu behar da eta orduan, baloratzen dute pila bat (MEU).

Baztango herrietako eskoletako maisu-maistrek erdara hutsezko eskolak euskara abiada bizian galbidera zeramala uste dute: «Hori izan zen joera bat... galtzen ari zen» (LK, 2010-I0-3). Euskara eskolan sartzeak berebiziko ondorioak izan ditu hizkuntzaren erabilera ohituretan, eskolatik at, familietan eta herrian: «Nik uste garrantzitsua izan dela eskolan D eredia sartzea», «eskolaren eraginez... izan da gauza bat... ez dakit *bultzatu* den hitza, baina naturalagoa da», «giroa euskaldundu da», «... egin dena da gelditu joera bat (...) arlo batzuetan sartu euskara», «joera zen erdaraz aritzea adin batekoak baina orain adin batekoak euskaraz aritzen dira. Joera hori aldatu da (...) gero, gurasoek estimatzen dute, ematen diote halako garrantzia euskarari» (ibid.). Eskolak herrian euskararen erabilera normaltzen lagundu du. Normaltze horrek gurasoak ere ukitu ditu, giroa, plaza... euskara galbidera zeraman joera irauli da.

Eskola euskaraz izatea onartu eta normalizatua da egun: «... gaur egun inork ez du planteatzen A eredia. Badirela gauza batzuk hankamotz direnak? (...). Baina nik uste aitzinamendu handia izan dela» (Iruritan maisu izandako bat. LK, 2010-I0-3).

Euskarazko eskolatzeak etxe barneko erabilerari eta gurasoen hizkuntza portae-rari aski garbi eragin zien zenbait kasutan. Eskolako hizkuntzaren eta etxeko mintzairaren arteko elkarreragina hainbat lekukotasunetan agertu zait. Errate baterako, Carlos eta haren anaia erdaraz eskolatu ziren orduan herriko eskolan euskaraz ikasterik ez zegoelako. Carlos baino bederatzi urte gazteagoa den arreba, ordea, euskaraz eskolatu ahal izan zen Erreboteko plazako eskolan. Aitak erdaraz egiten zien semeei baina alabari aldiz, euskaraz: «... el aita con mi hermana hablaba todo en euskera» (Carlos, 8. FG).

Aztertu diren hizkuntza indarberritze prozesu arrakastatsu bakanetako batean, hebreeraren kasuan, soziolinguistek etxeko eta eskolako erabileren arteko harremana nabarmendu dute: behin eskoletan sartu eta sustatuz gero hasi zen hebreera etxeetan ere erabiltzen (Nahir, 1988; Cooper, 1989; Spolsky, 1996).

Dirudienez, euskarak eskolan hartzen duelarik leku, irakaskuntzaren itzala bereganatzen duelarik eta baliagarritasuna ikusten zaiolarik, hiztunek zentzuz beterik ikusten dute hurrei euskaraz gitea. Horri loturik, euskarazko eskolaterik gabe Itsasok ez du uste etxeetan haurrak erdaraz hazteko ohitura aldatuko zatekeenik: «Eskola erdaraz baldin bazen ohitura ez zen aldatu izanen. Izanen zen segur aski berdina (...) eskolak lagundu du aunitz. Zure umea etortzen bada etxera euskaraz solasten, azkenean denak akitzen duzu euskaraz solasten. Hori argi dago (...) nahi dut erran, euskaraz hurrek

bultzatzen dute» (Itsaso, 5. FG). Berriemaileen ustez, eskolan euskara sartzeak herrian hizkuntzaren egoera uzkaile du:

Gero ja euskarara kristoren kanbioa, bai. Eskolan bai (...) eta ja orain hau-
rretan euskara dena, dena, dena. Kristoren kanbioa! (Arroxa, 2. FG).

... eman da kristoren aldaketa (...). Eskolan D ereduia izatean ere nik uste
dut bultzada handia eman diola euskarari, zeren eskolatik pasatzen diren haur
guztiek eskolatik ateratzearekin euskara badakite (...). Euskara aunitz aditzen
da gazteen artean (Miren, 3. FG).

Es que klaro, haurrak joaten badira euskaraz ikastera ja aldatzen du aunitz
harremana. Ja zuk bultzatzen duzu euskara etxean eta aitatxi eta amatxi ere bai
bultzatzen dute (Itsaso, 5. FG).

Euskarazko eskolaren eragina nabarmentzen dute egungo haur eta gazteen hizkun-
tza erabileran: «... ikusten duzu gazteria... euskaraz aditzen diezu» (Miren, 3. FG).
Beraz, alde ederra dago duela hiruzpalau hamarkadako haurren eta oraingoan artean:

Oroitzen naiz Irurita dela herri bat erdalduna. Ni gazte denborakoa... haur
denborakoa eta aunitz erdara (...). Baina hemen zen arras erdara (...).
Orain gauzak kanbiatu dira ja euskaraz ikasten dute eta mantentzen dute (...)
ja haurrek euskara ikasten dute eta ja ikusten dut (...) [bere semeak] denekin
-denekin ja euskaraz aritzen dira. Denekin (Arroxa, 2. FG).

Itsasoren ustez, hizkuntza aldetik bere haurtzarora eta bere haurrena «arras» des-
berdinak dira (Itsaso, 5. FG).

Euskarazko eskolatzeak euskararen erabilera herrian nabarmenago egin zuen, ka-
rrikaratu zuen, mintzairari prestigioa eman zion eta etxeetan erabilera berpiztu zuen.
Iruritan euskarazko eskola funtsezkoa izan da belaunaldi berriak euskaraz gizarteratze-
ko. Gaur egun ere haurren euskarazko sozializazioa nekez berma liteke eskolak euska-
ra irakasbidetako hartuko ez balu. Eskolako mintzairak familia barneko erabilerari eta
gurasoek haurren hizkuntza sozializazioaren aitzinean dituzten jarrereri eragiten die.
Horregatik, ez zait egokia iruditzen biak bereiz aztertzen dituen ikusmoldea.

5.3.3.6. Euskararen aldeko giro berria

«... 80tik (...) 95era, hausten da lehenagoko giroa»

1970eko hamarkada aldaketa handiko garaia izan zen, arlo guztietan. *Laminaciones*
enpresa handia eraiki zuten Lesakan eta horrek uzkaile zuen Baztango, Malerrekako eta
Bortzirietako ekonomia, anarteraino nekazaritzan eta abeltzaintzan zurkaiztua:

70. hamarkadan ja jendea hasi zen Lesakara joaten lanera eta hor (...) 73an,
74an hor kristoren jende pila sartu zen ja Lesakan. Hor erran daiteke igual
Baztandik ia 400 edo 500 pertsona ja hasi zirela han lanean. Klaro, horrek bai
ekonomikoki, e... kristoren aldaketa ekarri zuen. Kristoren aldaketa ekarri du
(...) nolabaiteko ideien gurutzaketa edo beste tokietatik heldu zen jendearekin,
batez ere Gipuzkoa aldetik heldu zen jendearekin... eta kontzientzia batez ere
obreroa edo aldarrikapen gehiago egiten zen... kontzientziako jendea, zerenga-

tik hemengo jendea alde horretatik beti nahiko kontserbadorea, nik uste, edo bai kontserbadorea edo uzkurra izan da (JI).

Hamarraldi horren hasieran Elizondoko Lanbide Eskola eraiki zuten eta bertako gazte gehiagok ikasten segitu zuten. Ordura artio ohikoa zen behin eskola akituz gero familia arruntetako neskak Iruñera edo Frantzia aldera neskame joatea eta mutilak peoi edo basomutil aritzea. Garai horretan Ameriketara jotzea ere anitz gazte baztandarrendako aterabidea izan zen.

Francoren agintaldian ezarritako ideologiak euskara eta euskal kultura bizitza publikotik ezabatzean ez ezik hizkuntzaren gizarite hautematean ere zauri sakona utzia zuten.

Normaltasunez jendea euskalduna zen, oso euskalduna zen baina euskarari ez zion atxikimendurik eta, nire ustez, hor bizi genuen egoera horretan, erranez 'honek zertarako balio du?'. Baina hori zen arras nabarmena: 'honek zertarako?'. Hau da, nolabait gaitz bat gainean izango bagenu bezala: 'Joder! Nik zergatik sortu behar izan dut hemen? Baina zergatik? Hau da gertatu zaidan gauzarik txarrena' izango balitz bezala. Horrelako mentalitatea arras, arras, arras txertatuta zegoen jende aunitzetan, jende arrunt aunitzetan (JI).

Baziren batzuk euskararen eta euskal kulturaren alde ekimen ttipiak aitzina eramaten, ikusgarriago egiten: dantzak, musika... Lan horretan Jesus Jaimerena herriko apeza da bereziki aipatua: «... horrek utzitako hazia nik uste dut hor dagoela» (Miren, 3. FG); «... empezó con los bailes vascos, nos hacía aprender cantos en euskera (...), el laxoa (...) todo fue influencia de él» (M^a Luisa, 8. FG). 1970 hamarkadan hasi zen giroa aldatzen:

Herri hizkuntza hutsa zen. Elizan euskara ez zen. Eskola dena erdara zen. Udala ere erdara zen. Komertzioa dena erdara zen (...) zuk euskaraz egiten bazenuen komertzio batean edo, igual zen erdaraz ez zekitelako, baina joatea como reivindicación politikako kutsu batekin, buaaa! Ez zen posible. Eta orduan, sortzen delarik pixka bat ja jendea hasten da, erraten den bezala, muturra erakusten (MG).

1969-1970 ikasturtean Mariano Izeta euskaltzale eta idazle elizondarra Baztango eskola nazionaletako neska-mutikoei euskara irakasten hasi zitzaizen Vianako Printzea erakundearen babesaz. 1970eko irailean Baztan Ikastola (orduan Centro Cultural Santiago izena zuena) abian jarri zen Elizondon 23 ikaslerekin. Lehen ikasturteetik haur kopurua handituz joan zen eta 1977-1978 ikasturtean OHOk maila guztiak osatu zituen I2I ikasle eskolatuta (Baztan Ikastola, 1995).

1979an euskalduntze-alfabetatzeko gau-eskolak sortu ziren Baztanen: «... gau-eskolak sortzea izan zen pausu bat niretako garrantzi handikoa. Ez zen denbora aunitz mantendu. Hautsi zuen bai sozialki bai kulturalki euskararen inguruko hutsunea» (MG). Elizondon, Oronozen eta Iruritan osatu ziren taldeak: «... 1978-1979, hor hasten dira pixka bat ere herrian ere gau-eskola hauek. Ziren boluntarioak, ez ginen irakasleak...» (MG). Iruritan Arraiozko apeza, On Miguel Plaza, Urdazubiko Mihura etxekoa, eta Martin Garde, lekaroztarra, zebiltzan maisu. Elizondon Mariano Izeta, Jose Urroz eta Mattari Plaza. Gau-eskolek bi ikasturtez baizik ez zuten iraun AEK sortu baitzen Elizondon. Honela azaltzen dute ikasle eta irakasle aritu zirenek:

Hemen Iruritan sortu ziren bi talde (...) Arraiozko apeza (...) aritzen zen euskaldunzaharrekin (...) eta belarrimotzak Martin Garderekin. Egiten genuen Iruritaiko eskolan. Hori da AEK sortu zelarik, gau-eskola (Miren, 3. FG).

Iruritan, bai nik daukat oroimena, bai bazela talde polita euskara... Hor hel-duak edo euskara hobeki erabiltzen zutenak (...) hamar bat inguruan. Ez da gaizki, ez da gaizki zerengatik gainera jende bat bazuela bere proiektzioa herrian, edo banketxean lan egiten zuten... Ja gazteak heldutasun batean, bere taldeak... (MG).

Urte horietan Iruritan bi gastronomia elkarte sortu ziren, horietako bat, Inezture Elkarte, oso euskaltzalea. Euskara ikasten ibilitako gazteak hor zebiltzan eta Korrikan eta euskararen eta euskal kulturaren aldeko ekintzetan (Baztandarren Biltzarrean, bertso-larritza eta kirol jaialdietan...) parte hartzen hasi ziren. «Hor hasten da pixka bat mugitzen... Frankismoak... 40tik ia-ia nik pentsatzen dut kasik 60taraino eduki zuen arrunt... arrunt zapaldua kulturalki ere. Ez zinen, ez zinen agertzen» (MG). 1980an euskarak kultura adierazpen jasoetatik bazterturik segitzen zuen. Garai horretan euskara formala entzuteko aukera urriak ziren:

... ni oroitzen naiz euskara ikasten ari nintzelarik (...). Hemen izaten ziren bi meza, bederatzietakoa euskaraz eta hamaiketakoa erdaraz. Eta ni joaten nintzen bederatzietako mezara apezaren euskara aditzeko. Hori, aditzak... apezak erabiltzen zituen aditzak ziren ponposagokoak... Bai, joaten nintzen mezara eta egoten nintzen aditzen bere euskara: aditzak nola egiten zituen eta joaten nintzen bederatzietan euskaraz eta hamaiketan erdaraz. Eta aste tartean meza guztiak erdaraz izaten ziren (Miren, 3. FG).

1970.eko hamarkadaren bukaeran Baztandarraren Biltzarra hasi zen *Herriz herri* izeneko aldizkaria argitaratzen, informazioa euskaraz ere bazekarrela. Garai horretan, 1981ean, Xorroxin Irratia sortu zen Joseba Igarabidek bultzaturik eta beranduxeago EITB sortuta, ondoko urteetan euskarazko telebista ikusi ahal izateko eskaerak ugartitu ziren. Berriemaileek 1990 urte inguruan herrian euskararen inguruan «aldaketa» bat gertatu zela nabarmentzen dute.

Iruritik aldakuntza eman du. Nik ezagutu dut, hasi nintzelarik nire andrearekin orain dela 35 urte pasa, Irurita nahiko erdalduna, Elizondo bezala (...). Nik pentsatzen dut denbora haietan pues euskaraz egitea ere ez zuten hain... onartzen sozialki eta irudi zuen behehitixegoko nibel batean uzten zintuela... (...). Orduan, kontuan hartu behar da aldakuntza handia egin zela hor 80. hamarkada horretan. 80tik, nik errango nuen 95era, horretan hausten da lehenagoko giroa. Eta gero errazago aditzen da eta politikoki gehiago erabili ere, eta badirudi egin dela aunitz azken urteetan baina haustean bazen beste urte horietan gogor hori, hautsi korapilo hori, bazegoen korapilo hori, politikoa nola kulturala, hausten da hamarkada horietan. Hamarkada horietan hasieran pixka bat lehenxeago baina ez hain muturra erakutsiz. Baina ja muturra hasten da erakusten gogorxeago, ausartagoki horietan eta ja hasten zara ostatueta mintzatzen, ostatueta eskatzen (MG).

Bilakaera hori Nafarroako euskararen testuinguru makrosoziologikoan gertatu ziren inguruabarren aldakuntzaren barnean kokatu behar da. 1980ko hamarkadan hizkuntzaren estatusen, egoera soziofuntzionalean eta gizarte irudian aldaketekin batera «... gizarte eragileen euskararen inguruko diskurtso gehienetan (...) beldurra eta trauma elementuak galtzen» hasten dira (Vilches, 2002b: 123).

Iruritako herriko eskolan euskara sartu zen —nahiz eta D ereduaren inguruan herrian gatazka izan—, euskarak nolabaiteko gizarte ikusgarritasuna irabazi zuen eta

orduko gazte (ego belaunaldiko) batzuek hizkuntza ikasteko hautua egina zuten. Ego belaunaldiko kide batzuei gaztetan motibazioak eta aukerak bildu zitzaizkien euskarekin harreman berria eratzeko:

Mila bederatziehun eta lautan hogeita hamarrean mas o menos izan zen aldaketa, baina ez ni bakarrik (...) herrian (...) pues hamabi urte genituelarik edo horrela euskara hasi zen pixka indarra diferentea hartzen. Ez dakit ikastolaren-gatik edo jende... herri guzietako jendea ja hasi zen ikastolara joaten. Gurasoak bazekiten euskara baino ez zuten egiten etxean (...). Hamabost urte genuelarik edo hasi zen berriz solasten... (Itsaso, 5. FG).

Ego belaunaldian zortzi guraso daude Irurita herrian haziak. Zortzietatik bakarrik (Arroxak, 2. FG.) jaso zuen euskara txikitik gurasoengandik eta gero mintzaira atxiki. Gainerako zazprietatik lauk gaztetan euskara (berr)ikasi zuten, beren kabuz edo euskaltegian. Bertze hiruk ez dute ikasi. Gaztetan euskara ikastea deliberatu zuten herriko laurak emakumezkoak dira, oraingo amak (3. FGko Miren, 4. FGko Lola, 5. FGko Itsaso eta 7. FGko Laura):

... txikitatik oroitzen naiz gau-eskolan, hor hasi nintzen ja euskara ikasten lehendabiziko pausuak ematen (...) hamar-hamahiru [urteterekin] (...). Gero, aitzinago ja, AEK sortu zelarik, ja Elizondon ibili nintzen. Orduan hamasei urteterekin edo inguru horretan (Miren, 3. FG).

Hasi nintzen ja estudiantzen euskara nire kabuz (...). Liburuekin eta gero nire ahizpak atera zuen EGA eta berak pixka bat orientatzen zidan (Lola, 4. FG).

... orduan jendea ari zena unibertsitatean hasi zen ikastaroak egiten eta orduan igual horregatik besteak ere hasi genuen ere bai ikasten edo, ez dakit exaktamente zergatik izan zen, o sea, inor ez zigun erran 'zoazte euskara ikastera!' (...). Hasi ginen erabiltzen bai, bai (Itsaso, 5. FG).

Ni hamasei edo hamalau urteterekin edo horrela hasi nintzen AEKn edo ahizparekin (...) hasi nintzen ateratzen eta bueno pues berarekin hasi behar genuela euskaraz eta ez dakit zer, lagunekin ere, eta hori da, horrela ikasi nuen (...) hamasei edo horrela, hamazazpi horretan hasi ginen pues hori 'hasi behar dugu euskaraz!' eta ja. Izan zen pixka bat txip aldatzea edo gogo hori izatea eta aldatu (Laura, 7. FG: 4).

Herrian sortu, guraso euskaldunengandik euskara ikasi ez eta gaztetan ere hizkuntzaz jabetzeko motibazio aski izan ez duten hirurak gizonezkoak dira, oraingo aitak (8. FGko Carlos, 9. FGko Gabriel eta 10. FGko Alberto). Aita bat dago (6. FGko Antonio), Iruñerrikoa baina Baztanera ezkondua, lehen umea izan ondoren euskara ikasten hasi eta orain bere hiru seme-alabekin euskaraz aritzen dena. Euskara ikastera animatu ez zirenek ere herrian gertatu zen hizkuntzarekiko jarrera aldatetaren aipu egin dute. Jendea euskara gehiago erabiltzen hasi zen:

Así como ahora sí les oyes hablar en general en euskera, antes el recuerdo en general era en castellano. Es que además es como una franja de edad. Unos años mayores que yo hasta unos años me... pues hasta la edad de mi hermana o así. Fueron las generaciones en que en la calle se hablaba más en castellano. Y sobre todo en Irurita y en Elizondo (Carlos, 8. FG).

... a raíz de tener como asignatura (...). Pues ya con dieciséis, diecisiete años ya tuve la primera vez como asignatura euskera. Tenías opciones de oír, ya con catorce años ya se hablaba más, ya se conocía más... Bueno, pues oías y ya

empezabas... ya, bueno, cogías. (...) es un lenguaje muy básico el que tengo (Alberto, IO. FG).

Gaztetan euskara ikasten hastea ego belaunaldiko zenbat iruritarren hautua izan zen ez dakit. Batzuek (4. FGko Lolak eta 8. FGko Carlosek) beren lagun taldeetan gehienek ez dakitela diote. Bertze batzuk euskara ikasten hastea orokorragoa izan zelakoan daude: «... más o menos denak hasi ginen euskaraz mintzatzen» (Itsaso, 5. FG). Garbi dirudiena da euskarari dagokionez inflexio bat gertatu zela: «... gizartea, herria hasten da aldatzen pixka bat» (MG). Euskara sentitzeko eta balioesteko moldea aldatu zen:

... izan da egin beharreko lan bat edo sortu zen korapiloa hausten ja hasten delarik euskaldun bezala ja kontzientzia hartzen, ja hizkuntza hor dagoela, gure kultura hor dagoela eta herria behar dela agertu pues garen bezala (...). Jendeak euskara ikasteko modu bat izan zen, azken batean euskara laxatu, beraiek zeukatena buruan, ulertzen zuten, ez ziren ausartzen igual mintzatzeraz eta ez zuten ere aukera handirik (MG).

Gaztelaniaren nagusitasunaren aldean euskarari hainbat gauzatarako (eskolarako, jakintzarako...) ezgai irizten zion mentalitatea mintzairaz ohartzeko modu berriak ordezkatu zuen, euskarara hurbildu eta horretaz jabetzeko bertzelako bideak sortuz. Azconaren (1985: 239) hitzetan:

Esta “nueva” imagen está fomentada por (...) individuos que han roto el círculo mágico de la tradición y han llegado, por un proceso complejo, a una autoconsciencia traumática de la pérdida de función comunicativa del euskera, así como de su capacidad para competir con el castellano, presentado por sus mayores como lengua de cultura, de las relaciones no cotidianas, etc.

Helduen euskalduntzeari esker ez familian, ez eskolan, ez plazan euskaraz sozializaterik izan ez zuten lagunak euskaraz jabetu ahal izan ziren. Horrek gerora berebiziko garrantzia izan zuen, euskara ikasi ez ezik iruritar gazte horiek hizkuntza portaerak ere aldatu baitzituzten eta umeak izan orduko egunerokoan euskaraz egitera jarrita baitzeuden.

5.3.3.7. Ego belaunaldiaren hizkuntza portaeren aldaketa

«Joan nintzen ikastera eta orduan (...) barremana dena hasi zen euskaraz»

Iruritan hazitako ego belaunaldiko lau berriemailek (3. FGko Mirenek, 4. FGko Lolak, 5. FGko Itsasok eta 7. FGko Laurak) gaztetxotan euskara ikasi eta mintzaira horretan gizarteratzen hasi ziren. Glotobiogrametan (ikus. 9. eranskinean) begi kolpe soil batez ikus daitekeenez, hiztun horiek beren bizitzan —hein batean bederen— hizkuntza ohiko edo nagusia aldatu dute. Hiru kasutan (3. FGko Mirenek, 5. FGko Itsasok eta 7. FGko Laurak) hiztunek, ahal zen neurrian, hurbilenekoekin eta maitatuenekin (haurrideekin, lagunekin, bikotekidearekin, ilobekin, seme-alabekin...) euskaraz egiten hastea erabaki zuten. Hizkuntza ikasteko «kontzientzia», euskal kulturarekiko «maitasuna» (Miren, 3. FG), «nahia» eta «gogo» (Laura, 7. FG) aipatzen dute arrazoitako.

Ego belaunaldiko lagun horiek euskara ikastetik euskaraz mintzatzen hastera doan prozesuan adinkideen pizgarria eta laguntza nabarmentzen dute. Hau da, euska-

rarekin eratzten duten harreman berrian, euskaraz aritzen hasteko batez ere haurrideak, adiskideak, kirol taldekideak, bikotekidea... izan zituzten kilikatzaile eta bultzatzaile.

Bizikide euskalduna izan dutenei (3. FGko Mireni, 4. FGko Lolari eta 5. FGko Itsasori) mutil-lagunak euskaraz egiten hasteko jauzia erraztu die. Adibidez, Lolak (4. FG) hasieran, hamasei-hamazazpi urterekin, ahizparen ereduz eta laguntzaz hasi zen euskara lantzen etxean. Gero mutil-lagunarekin hasteak eta, azkenik, iloba eta bere umea zaintzeak euskaraz «laxatzen» lagundu zioten: «... ja gero gizona... bueno gizona dut Ezkurrakoa (...). Eta bere ama eta aitak ez zekiten erdaraz (...). Eta orduan hasi nintzen gehiago... bueno, hombre, beti banekien, zerbait banekien, horrela base bat banekien baina ja gero haiekin ja solasean-solasean, pues ja hortaz laxatu nintzen pixka bat eta gero ja haurrekin pues bueno, ja azkena ja» (Lola, 4. FG).

Itsasok eskubaloi taldekideak eta mutil-laguna izan zituen eragile: «... arras euskalduna zen [Xalba] (...). Eta niri ongi etorri zait. Bai, bai, beti euskaraz, beti» (Itsaso, 5. FG).

Mirenek eta Nikolasek erdaraz ezagutu zuten elkar baina biek «... euskal arras kontzientzia» (Miren, 3. FG) izan baitute harremana euskarara aldatu zuten: «... hasten zara, hasten zara... segitzen duzu...» (Nikolas, ibid.) eta «... nik uste dut lortu genuela erabat hori» (Miren, 3. FG).

Laura haurrideen bultzadagatik hasi zen euskara ikasten: «Nik uste anai-arrebak (...) nik uste dut beraiek animatu nindutela 'hala, ikasi behar duzu!'» (Laura, 7. FG). Mutil-laguna ez zuen euskalduna eta Laura bera izan zen gero Daniel euskaraz egiten hastera bultzatu zuena. Handik urte batzuetara, lehen alaba sortuta batik bat, bikotea harreman hizkuntzaren aldaketa egiten saiatu zen.

Zerbait kasutan euskaraz ongi ez zekitenak edo zertxobait jakinda ere euskaraz egiten ohi ez zutenak mutil/neska-lagunaren familia euskaldunbetean sartu ziren. Hala gertatu zitzaion Mireni (3. FG), Lolari (4. FG), Itsasori (5. FG), Antoniori (6. FG) eta Gabrieli (9. FG). Halakoetan, subjektuek euskarara egin ohi dute jauzi. Hala bada, ezkontidea eta haren familia euskalduna izatea euskaraz hitz egiten hasteko akuilagarri gertatu ohi zaio familiakide berriari.

Antoniok (6. FG) emazte euskaldunaren familian hartu zuen euskalduntzeko eztenkada. Iruñerrikoa da eta Baztanera ezkondua. Behin esposatuz gero hasi zen euskara ikasten emaztearen familia euskaldunbetean hizkuntza ez jakiteagatik «gaizki pasatu» eta ondoan:

Solasten dute igual niregatik erdaraz eta ni sentitzen nintzen arras gaizki. Eta igual solasten baldin bazen bera euskaraz ni sutan: 'Hau egiten du nahita'. Eta orain (...) ulertzen dut ezetz, ez zen nahita, da bere hizkuntza eta orain ikasi dut nik eta ikusten dut ez zela horrela lehenago. Klaro, egiten zuen bera porque bere hizkuntza zen eta, baina ikasi nuen y digo orain arras harro nago (...). Pasatu gaizki baina igual zen nire burua. Baina orain aldatu da nire burua, digo 'ospas, lehenago ez zen edukazio txarra bera. Baina zen bere hizkuntza'. Eta orain ikusten dut bertze puntutik. Eta hiru urte egon nintzen euskaltegian eta arras gustora. Eta gero entorno, lantegia ere... (...) nire nagusiak egiten du aunitz guri erakusteko, porque beti euskaraz 'venga, ikasi!' (Antonio, 6. FG).

Euskara ongi ez zekiten bertze batzuk ere bikotekide euskaldunek euskarara hurbildu dituzte. Danieli (7. FG) ere emazte euskalduna izateak eragin dio euskaraz gehia-

go egiten hasteko. Gabrielelek (9. FG), ongi ez jakin arren, zekien gutxi hura egin nahi izan zion lehen alabari, baina ongi egiten ez zuenez gero, azkenean berak erdaraz egitea adostu zuten senar-emazteek.

Adinkideak eta, bereziki, bizikidea ez ezik, umeekin ibiltzea ere izan da euskaraz erraztasuna hartzeko bidea. Ilobekin aritzeak lagundu zion Lolari euskaraz aiseago egiten eta gero bere umeekin mintzaira horretan ihardukitzen: «... umeekin ere laxatzen zara gehiago» (Lola, 4. FG).

Hizkuntza ikasi eta erabiltzen hasteko prozesuan berriemaileek lanak eta lantokiko giroak ematen duten laguntza ere aipatu dute: Miren (3. FG) eta Laura (7. FG) D ereduako maistrak dira; Lola (4. FG) mekanografia eskolak euskaraz ematen aritu zen; Antonio (6. FG) lantokiko giroaz ez ezik euskaltegiko akuiluaz ere partikularki mintzatu da. Dirudenez, euskaraz egiteko jauzia egin dutenek lantokian euskaraz jarduteko aukera edo euskaraz jardun beharra izan dute.

Hala bada, ego belaunaldiak euskara ikasi zuen eta berehala hasi zen euskaraz mintzatzen, batez ere, adinkideen laguntzaz. Baina haurride, adiskide, ikaskide, kirol taldekide, lankide eta horrelako harreman eszentrikoez gainera, zenbait kasutan euskarazko sozializazioa etxean ere jarraitu ahal izan zuten. Baztanen eta auzo herri euskaldunetan hazitako subjektuek oro har euskara familian izan dute. Horregatik, kasu guztietan Iruritan hazitako gazteek etxean berean euskaldunen bat bazeukaten eta harreman eszentrikoetan ez ezik guraso, aitatxi-amatxi edota osaba-izebaren batekin ere euskaraz mintzatzen hasteko aukera izan zuten.

Laurak (7. FG) gaztetan euskara ikasita etxeko harremanak —amarekikoak eta haurrideekikoak— euskarara aldatu nahi izan zituen: «... ni amarekin oroitzen naiz. Hasi ginelarik ikasten edo horrela, eta 'bueno ama, egin behar dugu euskaraz, e?'. Bai, ama nahiko erdalduna zen, kostatzen zaitzaion aunitz. Gero hasten zen eta 'bueno, zu, zertan gelditu gara?'. 'Bueno, bai, bai, bai, hasiko naiz'. Bueno, horrelakoetan behar da kontzientea izan eta 'aritu beharra naiz euskaraz, e'» (Laura, 7. FG).

Euskara ikasi eta etxeratu zuten, berriz etxean sartu. Euskara etxekotu edo berriz etxera eramate hori nabarmendu du Itsasok (5. FG):

Nire anaiek ez dute solasten euskaraz. Eta nik gero, hamabost urterekin joan nintzen ikastera. AEKn ikasi nuen. Joan nintzen ikastera eta orduan nire aita hasi zen nirekin euskaraz eta nire amatxi ere bai (...) harremana dena hasi zen euskaraz (...) zuk baldin baduzu familian aita, edo ama, edo osaba, edo amatxi bat... aise errazago da euskalduntzea. Ni bezala, por ejemplo (...) hasi nintzen [Xalbarekin], bere familiarekin, nire amatxi eta aita hasi ziren euskaraz, nire ilobak... eta orduan, aise errazagoa da (Itsaso, 5. FG).

Hiztun horrek familian euskaldunen bat izatea funtsezkoa dela dio. Euskara etxeko belaunaldien arteko lotura izatearen garrantzia azpimarratu eta haren ustez, horretan datza hain justu Iruritako hainbat familiatako euskararen berreskurapena: «... berreskuratu dela galdu baino lehen» (Itsaso, 5. FG). Ildo horretatik honako gogoeta hau egiten du Itsasok: Erronkarin ere, adibidez —bere amatxi hor sortu baitzen—, euskara galdu zen Iruritan bezala baina...

... ez da Iruritan izan den aldaketa izan. Hor igual ez dute aukera izan familian itzultzea eta familian berriz hartzea euskara. Ez, guk egin dugun bezala (...). Ni hasi nintzen kanpoan baina etxera [joan] nintzen eta etxean bultzatu

nuen. Etxean oraindikan solasten zuten, banuen aukera norbaitekin solasteko. Por ejemplo, nire aita etxean ez zuen egiten baina laneko lagunekin bai. Laneko lagunekin nire aitak harremana euskaraz zuen (Itsaso, 5. FG).

Familia euskaldun ez-osoetan euskarak belaunaldien arteko hutsarteak bete ahal izan ditu eta berriz *etxekotu*, Iruritan bezala. Euskarak berriz sartu den familietan ahai-deen arteko harremanak berrestekatu ditu. Hau da, hizkuntzak belaunaldien arteko elkarrekintzetan berriz hartu du leku. Izan ere, familia euskaldun ez-osoek duten ezau-garririk aldekoena gizaldien arteko hizkuntza lotura ahalbidetzea da. Horrelako familiak, bistan da, eten den hizkuntza segida berruztartzeko egoera hobean daude familia euskaldunberrituak baino.

Hiru kasutan, aldiz, subjektuak familia eta ingurune erdaldunetan hazi dira (6. FGko Antonio Ezkabarten, 8. FGko Silvia Iruñean eta 10. FGko Itziar Barakaldon eta Barañainen) eta hitzunik ez dute euskara sorterrian ez eta sendi-jatorrian ere izan. Hirurak Baztanera ezkondu ziren baina ez dute ibilbide bera egin. Silvia ikastola batean eskolatu bazen eta euskararekin harreman akademiko hutsa izan bazuen ere egun euskaraz egiten die alabei. Itziar ez da euskarara hurbildu. Antonio, aldiz, lehen semea izan eta gero hasi zen euskara ikasten. Berak dioenez, hizkuntza sozializazio berantiar hori ez «behar» izan zuelakoz, nahi izan zuelakoz baizik egin zuen. Euskalduntzen hasi eta euskara «barnera» sartu zuen. Hortik etorri zitzaion seme-alabekin euskaraz egiteko erabakia:

Igual norbait erraten ahal du 'joe, ikasi du porque beharra'. Ez, beharra, hemen batzuk etortzen dira eta ez da beharra. Egiten dute, igual uste dute beharra (...). Ni sartu nintzen hemen eta gero ja lantegian eta lanean euskara ikusi dut hizkuntza nola zen. Klaro, nik banuen buruan igual bertze gauza. Ikusi nuen hizkuntza eta sartu nuen barnera hizkuntza: 'ospas, hau da hizkuntza, horrela, polita eta horrela... nik nahi dut ikasi eta nire semeei... (...) nire semeak egin behar didate niri euskaraz' (Antonio, 6. FG).

Ego belauneko lagunak euskararekiko ohitze eta hizkuntza berenganatze prozesuan adinkide hurbilak izan dituzte lagun eta horiekiko harremanek mintzaira berriaren aldeko aldaketa ahalbidetu diete. Hala ere, hizkuntza aldatzeko prozesu horretan ohitura iraultzea zaila gertatzen zaie hiztunei. Horren erakusgarri, Lolak (4. FG) ahizparekin eta senararekin erdaraz egiten segitzen du.

Mintzaira berria barneratzeko hitzunik harreman eta jarduera esparru desberdinetan gizarteratu behar izan du. Berriemaileen glotobiografietan ikusten da nola hitzuna joan den euskaraz gaituz hizkuntzarako gune berriak irabaziz eta gune horiek estekatuz. Hizkuntza gutxituen arazoetako bat, hain zuzen ere, mintzairaren jardueren etena, jarraitutasunik eza izaten da. Hau da, mintzaira ez da gizarte arlo guztietan ohikoa, alderantziz, oso gutxi edo bat ere ez du izaten bere. Hizkuntza sozializazioaren ikertzaileek (Schieffelin & Ochs, 1986; Garrett & Baquedano-López, 2002) mintzairaren jarraipen-eten horiek nabarmendu dituzte. Prozesu horretan ego belaunaldiko hitzunik berenganatu duten euskara bizitza jardueretara eta harremanetara eraman dute eta, horren bidez, hizkuntzaren gizarte arloetako atomizatze edo langartzea gainditzea lortu. Fishmanen (1997) kontzeptuetara ekarrita, hitzunik beren bizitza soziokulturalki autoerregulatzen eta muga etnolinguistikoak (berr)eratzten saiatzen direla erran liteke.

5.3.3.8 *Ego belaunaldiaren bizkuntza identitatearen eraketa*

«... ja nire bizkuntza bezala gelditu zen»

Glotobiografietan ikusi dugunez, hizkuntzaren gizaldiz gizaldiko jarraipena ez du ezein determinismok agintzen. Oro har, ego belaunaldiko kideek umeak hazteko ez dute beren ama edo lehen hizkuntza (edo familian egiten zuten mintzaira) hautatu. Lagun horiek aita-ama bihurtzean seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean jarrerak eta erabakiak hartu dituzte eta hautu horietan jatorrizko familia eta ingurunea ez dira guztiz erabakigarriak izan.

Batzuetan, euskara ez da subjektuaren sendian izan eta hiztuna bera (6. FGko Antonio, adibidez) mintzairari gogoz lotu zaio. Bertze batzuetan euskarak familian tokia izan badu ere hiztunek ez dute hizkuntzaren alderako atxikimendurik garatu. Hala gertatzen da, kasu, Albertorekin (10. FG), ez du euskarara hurbildu nahi izan, hizkuntzari «difícilísima» deritzo eta bere umei erdaraz egiten die.

Aitzineko ataltxoetan azaldu bezala, Iruritako herrigunean hazitako ego belaunaldiko lagun gehien-gehienak gaztelaniaz sozializatu ziren etxean, eskolan eta plazan. Kide batzuek haurretan euskararekin izan ez zuten harremana gaztaroan eratu zuten hala nahi izan zutelako eta euskarari lotutako hizkuntza identitatea berenganatu. Euskarazko sozializazio horretan euskara gutxi-asko beren bizian sartu zuten eta mintzaira beretu. Erraterako, Itsasok adierazi duenez, senargaiak euskaraz egiten baitzuen berak hala jarraitu zuen: «... ni segitu nuen euskara, euskara, euskara. Eta orduan ja nire hizkuntza bezala gelditu zen» (Itsaso, 5. FG). Lolak hitz hauen bidez adierazten du: «... gizonarekin hasi nintzenezan pues hasi nintzen mintzatzen eta ya está. Eta gaur artio» (Lola, 4. FG).

Iruritarren glotobiografietan azaltzen den hizkuntza ohikoaren aldaketa horrek seme-alabak hizkuntza aldetik hazteko moduari zuzen-zuzenean eragin dio. Harremanak euskaraz eratu nahi izate horretan seme-alabak mugarri dira. Gurasoek umeekin harremana berritik eratzen dute eta hautua ez baitago ezein jatorrizko hizkuntza azturari estuki loturik, hiztunak identitate berriari atxikitzea aiseago du.

Ego belaunaldiko kideek euskarazko sozializazio berant eta jakinaren gainekoa izan dute eta horrek ekarri die gero, umeak izan dituztelarik, seme-alabak euskaraz hazteko erabakia. Badirudi haiei zein hizkuntzatan egin erabakitzean subjektuaren lehen hizkuntza baino eraginkorragoa hiztunak eratu duen hizkuntza identitatea izan dela, hau da, zein hizkuntzarekin identifikatu nahi izan duen, zein hizkuntzari atxiki nahi izan zaion.

Subjektuek beren lehen hizkuntza izan ez den batekin (batzuetan familian txer-tatuta dagoenarekin eta bertze batzuetan familian inoiz izan ez den mintzaira batekin) eratzen dituzten harremanek hartzen dute indarra. Hiztuna hizkuntza horri atxiki zaio hala nahi duelako, harremanen bidez bere bizitzan sartu baitu. Hala bada, hiztunek hizkuntzarekin ohitze eta bereganatze prozesu bat egin dute.

Rocher (1995: 155) soziologoak sozializazioaren bi bitarteko bereizten ditu: *milieux d'appartenance* eta *milieux de référence*, hots, bakoitza kide den taldea eta erreferentziatzat duena. Hau da, sozializazio eragile batek bere taldea (familia, erkidegoa, jatorrizko hizkuntza...) izan dezake eredu edo, bertze kasuetan, bera kide ez den taldearen eredu eta balioak (hizkuntza ere barne dela) har ditzake, horiekin identifikatu eta bere ekintza sozializatzailea horietan oinarritu.

Berriemaileek glotobiografietan aitortzen dutenari erreparatuta ordea, ez dakusat ego belaunaldiko kideek partaide sentitzen ez diren talde baten balio, eredu nahiz hizkuntza hobetsi dutenik. Guraso horiek zein taldetan sartu eta zein balio, eredu eta hizkuntza bere egin aukeratu dute eta horrek ekarri die seme-alabekiko harreman hizkuntzaren hautua.

Lekukotasunetatik irudika dezakedan identitatea subjektuen hautuei loturik dago, ez jatorriari edo jaraunspenari. Glotobiografietan dagerkidana ez da esentziazko osagaietan oinarritutako zerbait, hiztunen bizi bilakabidean, aukera eta nahikarietan, hizkuntzaren aribide eta jardutean funtsatutako identitatea baizik.

5.3.4. Euskaldun hazi 2010eko Iruritan

5.3.4.1. Ego belaunaldia umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean

«... con los críos sí que todos procuramos hablar en euskera...»

Ego belaunaldiak umeak izan dituelarik oro har euskara hautatu du haiekin egiteko. Gizaldi horretako kide batzuk beren familietan euskaraz hazi ziren; bertze batzuk aitzitik, haurtzaroan gaztelaniaz baizik ez ziren mintzatu.

Iruritako herrigunean hazitako ego belaunaldiko lagunei bakarrik so eginda, gehien-gehienak txikitari gaztelaniaz sozializatu ziren familian, nahiz eta gurasoak euskaldunak izan. Horietatik neska batzuk gaztetan euskaldundu ziren, hau da, ama izan aurretik gutxi-asko euskara aritzeko gaitasuna eta ohitura berenganatu zuten.

Beraz, ego belaunaldiak, guraso bihurtu delarik, zenbait kasutan umeekin aritzeko ez du bere lehen hizkuntza hautatu. 3. FGko Mirenek, 4. FGko Lolak, 5. FGko Itsasok, 6. FGko Antoniok, 7. FGko Laurak eta 8. FGko Silviak seme-alabekiko harremanetarako euskara aukeratu dute. Haurrak euskaraz hazi nahi izan dituzte, horietako batzuek hizkuntza hori adinkideekin usu erabili ez arren.

Ego belaunaldiko aita-ama horiei seme-alabak izan dituztelarik zein hizkuntzatan egingen zieten hautatzeak, oro har, ez die kezkarik sortu. Kasu batzuetan haurrei euskaraz egitea bikotekideen arteko eztabaida edota negoziatorik behar izan ez duen adostasun isilekoa izan da. Bertze kasu batzuetan etxeko hizkuntza erabilera gurasoen bat etortzearen eta hautu bat egitearen ondorio izan da. Ikus ditzagun kasuak:

Bi gurasoak familia euskaldunbetekoak diren kasuetan euskaraz egitea ohikoa da, jatorrizko familian ezagutu den hizkuntza erabilera baita. Hala gertatzen da I. eta 2. FGetan: «... nire etxean beti euskaraz» (Axun, I. FG), «... beti euskara, eta hurrekin ere bai, klaro. Gu gehienekin eta euskara mintzaten gara» (Arroxa, 2. FG).

Euskara gaztetan ikasitako emakumeen kasuan, bikotea hasieratik euskaraz aritu bazen umei euskaraz egitea berez etorri zen, «... ez zen planteamendu handirik egin behar» dio Itsasok (5. FG).

Bertze kasuren batean bikoteak haurrak izan orduko harreman hizkuntza aldatua zuen, hizkuntza aztura aldatzea zaila izaten bada ere. Nikolasek eta Mirenek gazte ezagutu zuten elkar, eta erdaraz: «Oraindik horrek badu pisu bat (...) gure harremana euskaraz da baina tarteka erdarara joaten gara, bai. Baina, horixe bai, etxean bizitza egiten dugu euskaraz dena» (Miren, 3. FG). Beren arteko harreman hizkuntza nahita

aldatu dute, familia euskalduna osatu nahi izateagatik: «Txikitatik ja badut euskal kultura, euskara (...) ja txikitatik tiratzen zidan pila bat eta txikitatik arras garbi dut hori defendatu behar dugula, hori dena gaurkotu eta presente izan behar dugula. Orduan ez dut inongo dudarik izan seme-alabekin» (Miren, 3. FG).

Andres eta Lola (4. FG) elkarrekin beti erdaraz aritu dira eta lehen semea izan zutelarik ez zuten espresuki adostu umeari nola egingen zioten. Orduko Lola jarrita zegoen bere ahizparen lehen haurrekin euskaraz egitera eta horrela segitu zuen bere semearekin ere: «Guk haurrekin beti egiten dugu euskaraz, ez dakit zertaz. Ez dakit, ja orduko sortu zen iloba eta nik ja zaintzen nuen iloba eta beti euskaraz ere bai harekin. Eta ez dakit, ez, ez, ez ginen solastu. Bagenuen ja, ez dakit...» (Lola, 4. FG).

Bertze batzuetan haurren familia barneko hizkuntza sozializazioari doazkionak (haurrei zein hizkuntzatan egin, etxean nola egin, gurasoen artean nola egin...) bikotekideen adoste edo negoziazio baten ondorioa izan da. Lehen umea sortzeak seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean jartzen ditu gurasoak eta horrek dakartzkie hautuak egin eta erabakiak hartu beharra. Adibidez, lehen alaba izateak bikotekideen hizkuntza jardueran eragina izan ote zuen galdeginda honela ihardetsi du Laurak: «Bai, nik uste baietz (...). Aritzen ginen noizbehinka, 'Hale, egin behar dugu!'. Baina igual atzentzen zaizu berriz. Edo bueno, igual boladak badituzu edo horrela, baina haurrak izatean bai, hemendik aitzin beraien aitzinean behintzat bai. Eta ja gero normalean ere aritzen gara (...) orokorrean bai» (Laura, 7. FG).

Laura eta Danielek (7. FG) hautu kontzientea egin dute lau alabak euskaldun hazteko. Senar-emazteek neskatikoei euskaraz egitea ez ezik haien aitzinean euskaraz solastea ere adostu zuten. Daniel, euskaraz ongi ez badaki ere, Laurarekin eta haurrekin euskaraz aritzen da «beti»: «Bai, aritzen gara. Aunitz ez daki [Danielek], baina saiatzen gara betiko gauzak denak eta euskaraz egiten ditugu (...) haurren aitzinean behintzat saiatzen gara euskaraz» (Laura, 7. FG).

Silviak eta Carlosek (8. FG) alabei euskaraz egiten diete, nahiz eta beren artean erdaraz egin: «... con las crías hablamos en euskera pero luego entre nosotros en castellano» (Carlos, 8. FG). Silvia Iruñekoa da, euskaraz eskolatu zen San Fermin Ikastolan eta euskararekin harreman akademiko hutsa izan du: «... lo poco que he hablado euskera ha sido de allí, de la ikastola» (Silvia, 8. FG). Halere, ama izatearekin, alabei euskaraz egiten die. Carlosen familian ere haurrei euskaraz egiteko ohitura dago: «... mi cuñada es euskaldun y (...) con los críos sí que todos procuramos hablar en euskera...» (Carlos, 8. FG). Carlos euskaraz ongi moldatzen ez bada ere alaba zaharrenaren hizkuntza portaeraz arduratzen da eta etxean euskararen erabilera sustatzen du:

Con tres o cuatro años tuvo una temporada que con todas las muñecas hablaba en castellano y por más que le decíamos, es más, yo me solía picar y bueno (...) le hablaba en francés y se me quedaba así y entonces me hablaba en euskera. Pero ahora sin embargo ha vuelto, ahora sí que juega... bueno, le regalamos este año por el Olentzero una escuela de Playmobil y le dijimos que era la escuela de aquí, que eran [Laura] y las andereños y no sé qué, y a mí por lo menos me pareció que ahí retomaba más el euskera (...). No se le oía hablar tanto en castellano, aunque sí que tiene momentos en que se le oye (Carlos, 8. FG).

Ixak eta Gabrieleke (9. FG) guraso bakoitzak bere hizkuntzan egitea adostu zuten. Alaba zaharrena, Ainara, sortu zelarik Gabriel haurrekin hitz batzuk euskaraz

egiten hasi zen baina Ixa, senarrak ongi ez zuela egiten ikusita, nork berean egitea proposatu zion:

... nik ikusten nion berari igual hasten zela... eta igual ateratzen zaizu errazago ttikiei euskaraz, ez dakit zertaz. Eta, jo [xo], bera hasi zen, eta nik erraten nion 'ez badakizu ez da ja [xa] pasatzen, horrela ikasiko dute bietatik ere bai'. Nik erran nion, 'nik nahiago dut zu ongi solastea, solastea erdaraz baina ongi solastea eta nik solastuko diet euskaraz (...). Eta solastu ginen eta horretan gelditu ginen. Pues berak erdaraz eta nik euskaraz, gero gure artean etxean beti erdaraz (Ixa, 9. FG).

Hala eginda, alaba amarekin euskaraz eta aitarekin erdaraz egitera jarri da txiki-txikitik. Haurrak aski ongi bereizten du nori zein hizkuntzatan egin: «... [Ainara] aitarekin beti erdaraz. Ja berak badaki. Eta nirekin beti euskaraz. Bere aitak erraten du 'jo [xo]! zer gauza, badaki nik ez dakidala eta nirekin beti erdaraz eta zurekin beti euskaraz!» (Ixa, 9. FG). Haurrak guraso bakoitzari zein hizkuntzatan egin barneratu duelarik hizkuntza aztura hori finkatuta gelditu zaio: «... nik uste dut hori ohitura dela, ja ttikitatik ikasi duela».

Antonio lehen semea izan eta gero hasi zen euskara ikasten, hizkuntza bere «barnera» sartu eta hortik etorri zitzaion seme-alabekin mintzaira horretan egiteko erabakia: «... nire buruak erran du: 'Ez, nire semeak egin behar didate niri euskaraz'. Eta euskaraz, beti» (Antonio, 6. FG). Berak aitortzen du seme-alabei inoiz erdaraz aditzen baldin badie ohartarazten dituela: «'[Andoni]! Guk badakigu euskaraz! guk badakigu euskaraz! (...) Eta beti ni nabil horrela».

7. FGko Daniel ere, euskara ongi ez badaki ere, haserretzen da alabek erdaraz egiten dutelarik: «... haserre jartzen da: 'Bai, zer nahi duzue, ni bezala gero?' Haserretzen da, bai» (Laura, 7. FG).

Gurasoei oro har seme-alaben hizkuntza portaerek (zer hizkuntzatan irakurtzen duten, jostatzen diren, telebista ikusten duten...) ardura diete:

Nik erraten diet dena irakurtzen dutela erdaraz eta a ver noiz hasi behar al duten euskaraz (...). Orain dena erdaraz, 'ez dakit zer duzuen orain zuek batbatean erdaraz hasteko irakurtzen?' (Nikolas, 3. FG).

Baina ez zaie gustatzen sobera euskaraz irakurtzea. Nahi dute igual eskolatik bidaltzen dute astero liburu bat baina ekartzen dute beti erdaraz eta 'jo [xo], [Andoni], baina gero...'. Baina ez, ez, beti erdaraz. 'Es que euskaraz da zaila'. 'Nola zaila? Zure hizkuntza da eta ni irakurtzen du euskaraz!' (Antonio, 6. FG)

Hala bada, ego belaunaldiko kideek seme-alabekin zein hizkuntzatan eginen duten hautatzen dutelarik erabaki hori ez daiteke transmisioaren ideia mekaniko batetik azal. Egun Erizek (1997) emandako azalpena, *habitus* kontzeptu soziologikoari lotua, ez eta Sánchez Carrionek (1981a) —Galek (1978) jorrotutako moldera— proposatu zuen eredu dikotomiko eta sexuglosikoa ere ez zaizkigu baliagarriak. Nire idurikotz, erabaki horretan subjektuek hizkuntzarekin eratu dituzten harremanek eta berengantutako identitateak jokatzen dute.

Orduan, guraso izateak hizkuntza jokoaren jakinaren gaineko aldaketa ekarri die ego belaunaldiko zenbait gurasori. Sendian hitzunek hautu batzuk egiten dituzte hizkuntza ondorengoenganatzearen inguruan. Hautu horiek gurasoek hizkuntzarekin eratu dituzten harremanei loturik eta kanpoko faktoreen eraginpean daude.

Gurasoen estrategiak askotarikoak izan daitezke. Batzuetan aita-amak ez dira seme-alabei egiten dieten hizkuntzaz espresuki mintzatu. Bertzeetan bai, bikoteak osatu nahi duen hizkuntza-elkarbizitzaz solas egin eta adostu du seme-alabei euskaraz egitea (bietarik ongi dakienak bederen), haurren aitzinean behintzat euskaraz aritzea, haurtzain euskaldunak hartzea edota euskara etxeko hizkuntza nagusia izatea.

Horretaz gain, familien bertze estrategia bat bada haurren hizkuntza sozializazioari eragiten diona nahiz eta gurasoek beti ohartuki hizkuntzari ez lotu, haurren zaintza hain zuzen ere. Aztertutako familien glotohistoria gehienetan amek aitek baino denbora gehiago eman dute haurrekin eskolatu aitzinetik. Hamar familietatik hirutan amek ez dute soldatapeko lanik egiten (zenbait kasutan bikoteak espresuki hala adostuta andreak haurren ardura har zezan), batek baserriko abeltzaintza ustiapena darama eta etxean aritzen da, bik senarrarekin batera jarduten dute familia enpresa batean, bertze bik ordu batzuetako lanaldia dute eta bertze bi, buruenik, maistra dira Baztango eskoletan.

Familien glotohistoriak banan-banan aipatuta hau dugu: 1. FGko Axunek base-
rrian egiten du lan (bordan senarraren gurasoekin bizi da), 2. FGko Arroxa etxekoan-
drea da, 3. FGko Miren maistra, 4. FGko Lola saltoki handi batean berriki hasi da
ordu batzuetan lanean (haurrekin izateko denbora uzten dion lana hartu duela dio), 5.
FGko Itsaso senarrarekin batera abeltzaintzan eta landa turismoan aritzen da, 6. FGko
Milagrosek arratsaldez zenbait ordutan jarduten du, 7. FGko Laura maistra da, 8.
FGko Silviak senarrarekin batera nekazaritza enpresa bat du, 9. FGko Ixa etxekoandrea
da eta 10. FGko Itziar ere bai. Iruritan ez da arraroa ama gazteek etxetik kanpo lanik
ez egitea, hala erran dute berriemailek: «Sí, la mayoría no trabaja» (Carlos, 8. FG);
«... hay muchas amas de casa (...) es muy típico (...). Y luego hay algunas que (...)
trabajan el fin de semana (...) igual no es una jornada (...) igual por temporadas»
(Silvia, 8. FG); «Así como en nuestro caso es la gran mayoría, que no trabajan porque
no encuentran sino porque no (...) todos los casos que me vienen no me parece que
estén buscando (...) creo que es un poco por el mismo tema que nosotros: que te ape-
tece estar en casa, pudiendo económicamente, claro (...) mientras puedas. Luego aquí
también se tira mucho de abuelas...» (Alberto, 10. FG).

Oro har, haurrak eskolatu bitartean etxean izan dira amen edota amonen kargu
gehienetan (1., 2., 4., 5., 6., 9. eta 10. FGetan). Bi kasutan (3. eta 7. FGetan) amek
lanaldi osoa baitute (maistrak dira) haurtzain euskaldunak kontratatu dituzte eta kasu
bakar batean (8. FGn) haurrak Haur Eskolara¹³¹ eraman dituzte eta amatxiz eta fami-
liaz baliatu dira haurrak zaintzeko.

Gauzak horrela, umeen zaintzaren gainean familiek abian jarri dituzten estrate-
giek ondorioak dakartzate haurren hizkuntza sozializazioan. Aztertu ditudan familie-
tan ama bakarra dago (10. FG) euskaraz ez dakiena. Bertze guztiak euskaldunak dira
eta seme-alabekin euskaraz egiten dute. Hau da, aztergai ditugun familietako 25 hau-
rretatik (1 eta 12 urte bitartekoetatik) 23k eskolan hasi baino lehenago, etxe eta fami-
lia giroan, gutxi-asko euskaraz aditu dute, hizketan euskaraz ikasi eta euskaraz eratu

¹³¹ Baztango Haur Eskola Elizondon dago. Udal zerbitzua da eta hiru urte bitarteko lauretan hogeii
umerendako tokia du. Haur eskola horretaz gain Lekarozen bi emakumek umeak —hamar gehienez—
zaintzeko zerbitzua eskaintzen dute etxe batean, *Casa amiga* deritzon sarearen barnean. Bi tokietan haurrei
euskaraz egiten zaie.

dituzte pertsona hurbil batzuekin edo guztiekin harremanak, nahiz eta zenbait kasutan etxe giroan gaztelania ere entzun eta hizkuntza hori ere ikasi.

Iruritarren belaunaldi berriek euskara oro har etxe eta familia giroan ikasten dute eta eskolan hasi orduko mintzaira horretan aritzeko gauza izaten dira. Hala berresten dute Iruritako Ikastetxe Publikoak emandako datuek (ikus II. eranskina). Horiek darakutsatenez, azken hamasei urteotan ikasturtez ikasturte herriko eskolan hasitako hiru urteko haurren % 75ek gutxienez eta zenbait urtetan % 100ek euskara etxe eta familia giroan ikasi dute.

Beraz, dirudienez Iruritan umeen zaintzarako familien estrategiek —eta bereziki amen parte hartzeak— haurren euskarazko gizarteratzeari positiboki eragin diote. Literatura soziolinguistikokoak umeak hizkuntza gutxituan sozializatze aldera gurasoek zaintza neurri handi batean beren gain hartzea —mintzaira horretan aritzen badira— funtsezkotzat jo du (Fishman, 1997), eta amen egitekoa aitarena baino eraginkorragoa izaten dela nabarmendu (Morris, 2005).

Ikerketek haurren familia barneko hizkuntza sozializazioaren baldintzen atzean gurasoen mintzaira balioak daudela ondorioztatu dute (Fellin, 2002; Lamarre & Rossell, 2003; Morris, 2005). Hizkuntzaren transmisioa gurasoen balioek eta nahikariak ahalbidetzen dute baina gizarte jarduerak bermatzen du: «... il ne s'agit pas de la transmission d'un désir mais d'une pratique sociale» (Behling, 1996: 83).

Batzuetan, gurasoek haurren hizkuntza sozializazioan izanen dituzten ondorioak ohartuki hartzen dituzte erabakiak, hau da, kultura balioei datzekien estrategia konzistenteak dira. Honela mintzo dira bi ama:

Eta da gure hizkuntza ere bai, ez dakit. Ez badugu mantentitu behar guk... guk mantentitu behar dugu azkenean. Bertzenaz galduko da. Eta zerbait gurea da (...). Nahiko nukeena da mantentzea euskara beraiek ere bai, gero handitzearekin segitzea mantentzen porque azkenean hori da erakutsi duguna guk: mantentzea (Arroxa, 2. FG).

Ez dakizu zer txapa sartzen diedan gu euskaldunak garela, gure euskara zaindu behar dugula (...) hauek [alabek] etxean bizitzen duten giroa da arras errespetatu, mantendu, txukundu eta zaindu behar dugula (...) azkenean gu gara gure seme-alaben erreferentziak (Miren, 3. FG).

Aitzitik, euskararekiko ez ezagutzarik ez eta atxikimendu berezirik ere garatu ez duten gurasoek haurren hizkuntza sozializazioaren aitzinean bertzelako jarrera hartzen dute. Erraterako, Albertok euskararen gainean dioena hau da: «... me parece a mí una lengua difícilísima (...) es una lengua que siempre... se me ha atravesado» (Alberto, 10. FG). Alabari eskaintzen dizkion aisialdiko materialen gainean galdeginda honela ihardetsi du: «Dibujos animados (...). Tiramos mucho de grabado, de USB. Intentas ponerle cosas... de estas que son bilingües, *Dora la Exploradora* que te habla en inglés y ahora en castellano, *Little Einstein*...».

Iruritako maisu-maistrek garbi dakusate gurasoen artean haurren hizkuntza portaeretik jarrerak hagitz desberdinak direla. Batzuk kezkatzen dira ez dakitelako haurrek erdara ongi ikasiko dutenetz. Ez dute nahi beren seme-alabei «... pasatzea berdina»: inork haien bizkar irri egitea gaztelaniaz ongi ez jakiteagatik edo euskal doinuarekin hitz egiteagatik. Eta bertzalde, guraso talde bat bada «... erraten duena ez dela, beren ustetan, ez dela egongo inolako arazorik gaurko gizartean espainola ikaste-

ko (...) eta euskara aldiz, bai» (KK). Lehenak maisu-maistrek haurrei eskolan erdaraz ez egiteko erran dietelako kexu agertu izan dira eta bigarrenak, aitzitik, eskolan haur batzuek erdaraz egiten dutelako kexatu dira (ibid.).

Halatan, haurren etxe eta familia inguruko hizkuntza sozializazioaren atzean gurasoen jarrera, hautu eta estrategiak daude. Iruritarren kasuan gurasoek beren nahikaria jarduera eta hizkuntzarekiko motibazioa mintzabide bilakatu dute. Gurasoen hizkuntza balioak, horri datzekion jakinaren gaineko hautuak, erabakiak eta estrategiak garrantzizkoak direlarik ere, haurren hizkuntza sozializaziorako funtsezkoena hizkuntzan jardutea da.

5.3.4.2. *Haurrekiko hizkuntza portaeraren gizarte arauaren aldaketa*

«... a un niño no les sale hablarle en castellano»

Iruritan, hala familian nola familiatik at, belaunaldien arteko euskara-erabilera eredu berria ezarri da: haurrei euskaraz egitea. Helduak helduari erdaraz aise egiten badio ere, helduak haurrari nekez eginen dio gaztelaniaz. Haurrekin erdaraz solasteari «arraroa» irizten diote berriemaileek: «Aquí es muy raro a un niño hablarle en castellano, es muy raro. Salvo que no tengas ni idea» (Alberto, 10. FG, eta gauza bera 4. FGko Lolak eta 7. FGko Laurak aitatu dute). Nahiz eta euskara hagitz ongi jakin ez, haurrei euskaraz egitea da iruritarrek normaltzat jotzen dutena. Horren atzean dagokeena haurrak euskaldunak direla jakitea eta gizartean euskaraz egitea komenigarritzat (zentzuduntzat) ikustea da. Hizkuntza erabilera eredu hori ez zegoen ego belaunaldia hazi zelarik: «... siendo yo crío no era así. O yo no tengo recuerdo. Es un poquito más posterior (...). Yo no tengo recuerdo que a los niños en mi época se les hablara en euskera (...) y ahora yo veo que sí (...) y a muchos así como a mí les oigo que a un niño no les sale hablarle en castellano» (Alberto, 10. FG).

Orain, gurasoek seme-alabei eta, oro har, helduek haurrei euskaraz egiten ohi diete: «Bai, bai, hombre baietz! denak euskaraz haurrei, nik ez dakit... Bai, eta nahiz eta ez jakin ongi» (Lola, 4. FG); «... aditzen diozu gurasoak eta gehienak haurrekin beti euskaraz. Bai, bai... ez errateagatik igual denak, badira bi edo hiru ez dakitela baina gehienak euskaraz» (Ixa, 9. FG). Haurrei erdaraz egite hori finkatutako ohitura da. Honela dio Arroxak, familia euskaldunbete bateko amak:

Niri es que ez zait ateratzen ere ez. Ni lehenbizitik jarri nintzen euskaran haurrekin. Gu etxean mintzatzen gara euskara, senar-emaztea dena euskara, aita eta ama euskara. Eta haurrekin es que ez zait ateratzen erdara! Es que han ospitalean ere egon zelarik [Hodei] es que ez zitzaidan ateratzen! Es que... es que... ez zitzaidan ateratzen! Es que... tratatzen nintzen! Ez ezi... Ez! Ez naiz saiatzen ere! Kostunbrea, nire irudian da ohitura bat (Arroxa, 2. FG).

Euskaraz ongi ez dakitenek ere haurrei euskaraz egitea ohikoa dela aitortzen dute:

Gainera, nik uste erraz... bueno, ez dakit [haurrekin euskaraz egitea] errazagoa den baina ahizpak adibidez, badaki arras gutti eta nirekin eta beti erdaraz aritzen da baina haurrekin sekulan (Laura, 7. FG).

... es una cosa también que yo no me explico pero a mí a un niño me sale hablarle en euskera. No me sale hablarle en castellano. Excepto a la mía. A la mía no me sale hablarle en euskera (Alberto, 10. FG).

Hala ez delarik, hau da, gurasoek edota helduek haurrei erdaraz egiten dietelarik, horrek ego belaunaldiari arreta pizten dio. Adibidez, Laurak bitxi —«arraroa» bere hitzetan— kausitzen du bere senarraren bi anaiek, Elizondon bizi direnek, seme-alabei erdaraz egitea: «Ni hasieran harrিতua gelditzen nintzen. Nik erraten nuen 'baina ezer, ezer' (...). Ezer, ezer ez haurrekin ere ez aritzeko moduan (...). Eta haurrei erdaraz. Zer pena!» (Laura, 7. FG). Lola honela mintzo da bere koinataz, euskalduna izanda baina Lezaunera ezkon-duta semeei euskara irakatsi ez dienaz: «Pena da bai, amak jakinda, buaaa!» (Lola, 4. FG).

Bertzalde, oro har, gurasoen hautuek ondorioak izan dituzte familiaren bertze kideengan. Haurrei euskaraz egitea egokientzat eta naturalentzat ikusten delarik, haurra euskaraz eskolatu(ko) bada, aitatxi-amatxi euskaldunek ere euskaraz egiten dute nahiz eta duela hiru hamarkada beren seme-alabei egin ez. Hau da, seme-alabak erdaraz hazi zituzten oraingo aitatxi-amatxi batzuek egun bilobei euskaraz egiten diete. 4. FGko Lolaren amak, Errekakoa denak, adibidez, euskaraz egiten die bilobei: «Bai, hombre baietz! Hala egiten diete, bai, bai. Euskaraz egiten dio orain nire amak (...). Es que gu aritzen gara euskaraz haiekin eta por lo visto ama ere ohituratu da beraiekin euskaraz aritzeko eta euskaraz, bai, bai» (Lola, 4. FG).

8. FGko Carlosen amak, herrikoak, haur-gaztetan euskara ia galdu zuenak, ongi moldatzen ez bada ere, euskaraz egiten die bilobei eta euskaraz egiteko erraten die, berak ikasteko:

Yo a las nietas también todo les hablo en euskera, zirriki-zarraka. Igual alguna vez me suelen decir unas palabras y le digo¹³² 'biarrik [Maialen]', erten diot, 'biarrik zuri nola ari neizen ikesten'. Erten diot humi [Elixabeteri], zuk ere mintzetu nerekin euskeraz. Ez zaiola atratzen. Bere aitekin beti euskeraz, bere aitekin beti ta nerekin ez. Y le digo 'pues ikesiko nuen ongi!'. Igual erten diot, solasten dut hola euskeraz ta 'juuuu, uuuu! ¡qué horror!' (...). Pero como no me importa, no me importa y entonces cuando no puedo voy al castellano. Pero me salen muchas en euskera y hablo y hago egiñalas¹³³ y alguna si hablo por teléfono y me parece que más o menos he salido bastante bien o, pues mira, ya me... (...). Pues erten diot 'orain zuek mintzetu nerekin beti euskeraz ta hola ikesiko dut' (...). Es que hay una edad en la que puedes hablar porque sí, o sea ya ella, de pequeños ya tienes las palabras esas, ya cubres para esa edad, pero claro, luego empiezan un poquito más y... me suele dar gracia cómo hablan, ¡qué bien hablan, qué bien! ¡qué envidia me da! (M^a Luisa, 8. FG).

Familia okzitaniarretan ere gertakari bera dokumentatu da: «... eux n'avait jamais parlé avec leurs enfants l'occitan, alors qu'aujourd'hui, dans leur rôle de grands-parents, ils changent cette attitude» (Behling, 1996: 85). Ikertzailearen ustez, aitatxi-amatxi okzitanieradunek bilobekin mintzaira hori berriz erabiltzean nolabait beren umezarora hurrerutzen dira, okzitaniera landa eremuetan batez ere hedatuago zegoen garaira. Behlingen ustez, hizkuntza portaera hori bi belaunaldi ez jarraituen arteko konplizitate seinale izan daiteke: «Peut-être est-ce là que s'exprime la complicité entre les générations alternées» (ibid.).

Iruriretan kasuan, euskarak herrigunean izan zuen bilakaera ezagututa, ez dut uste aitatxi-amatxik orain bilobekin euskaraz egitea adineko hiztun horiek beren haurtza-

¹³² M^a Luisaren euskarazko mintzoa baztaneraz utzi dut idatzizko forma batura ekarri gabe agitz nabarmena baita dagien euskara euskalkiaren bertako aldaera dela.

¹³³ *Egiñalas*: erdaraz ari delarik erabili duen euskal hitza, *eginalak*.

roko bizipenetera hurbiltzen dituen jarduera denik. Ezin ahaztu Gerra Zibila eta ondoko urte zailetan sortutako belaunaldia dela eta artean euskara bizitza publikotik baztertuta zegoela. Nire ustez, gurasoen jarrerak, hizkuntzak familian duen lekua eta gizartean mintzairari onartzen zaion legitimitatea, eskolan sartu izana bereziki, izan dira bilobekiko hizkuntza portaeraren eragingarri nagusiak.

Halakotz, hiztunek haurren hizkuntza sozializazioaren gaineko jarrera eta hau-tuak ez dira mugiezinak edo beti-batekoak, egoera eta une soziostorikoei lotuak baizik. Hori horrela, hizkuntzaren egoera eta hiztunak harekin eratzen dituen harre-manak aldatzen badira, haurren euskarazko sozializazioaren aitzineko jarrerak alda daitezke, hainbat ikerlanetan agerian utzi izan den bezala: «... language use in the home is not stable, and many interviews report changes over time» (Lamarre & Rossell, 2003: 68). Hizkuntzaren inguruko egungo giroak eta oraingo aita-amen erabakiek aitatxi-amatxiren hizkuntza portaera aldaketari eragin diote segur aski. Izan ere, beren seme-alabek umeeekin euskaraz egiten ez duten kasuetan aitatxi-amatxi euskaldunek ere ez dute bilobekiko hizkuntza portaera aldatu. Hala ikusten da 9. eta 10. FGetan, non Gabrielen amak eta Albertoren aitak, hurrenez hurren, batzuetan baizik ez baitiete bi-lobei euskaraz egiten.

Nire irudituan, haurren hizkuntza sozializazioarekiko aitatxi-amatxi iruritarrek izan duten portaera aldaketa hori, batez ere, haurren eta helduen arteko elkarreaginaren ondorioa da. Izan ere, ez helduek bakarrik, hurrek ere aktiboki jokatzeko dute beren hizkuntza elkarrekintzetan. Hala bada, belaunaldien arteko hizkuntza eraginaren norabidea nolabait adierazteko, goitik beheiti ez ezik behetik goiti ere badoala ikusi behar dugu. Belaunaldi desberdinetako subjektuek elkarri eragiten diote, haurrak ez dira helduengandik datozkien hizkuntza eraginaren jasotzaile hutsak. Ez da egokia *trans-ferentzia* eta *transmisioaren* kontzeptuek beren baitan dakarten adiera bertikala eta nora-bide bakarrekia, goitik beheitikoa. Horren ikusbide, Itsasok euskalduntzen hasi zen garaian bere ilobak Baztan Ikastolan hasi ziren eta orduan familiaren barneko hizkun-tza erabilera aldatu zen bilobek euskara aitona-amonon etxera ekarri baitzuten: «... euskaraz hurrek bultzatzen dute» (*Itsaso*, 5. FG).

Fishmanek (1997: 92) hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena familiaren baitan zurkaizten du, mintzaira hiru belaunaldien arteko ahozko elkarrekintza informaletan adie-razpide ohikoa delarik: «... Xish [hizkuntza gutxitua] is the normal language of informal, spoken interaction between and within all three generations of the family...». Soziolinguista ipar-amerikarrak gizaldiz gizaldiko hizkuntza jarraipena mintzaira familiaren hiru belau-naldien arteko uztardura edo jostaria izatean funtsatzen du. Bertze zenbait ikerketak ere (Behling, 1996; Martí et al., 2005; Morris, 2005) belaunaldi berriek hizkuntza gutxitua atxiki dezaten aitatxi-amatxiren garrantzia bereziki nabarmendu dute.

Helduak belduari erdaraz usu

Helduek haurrekiko hizkuntza erabileraren eredia aldatu dute baina ez heldueki-koa, euskaraz ongi jakinda ere elkarren artean erdarara jotzen baitute usu: «Hemen Errebotean, pues emakumeak egoten garelarik bastante erdara! (...). Andreen artean erdara eta gero joaten zara haur batengana eta euskara» (Arroxa, 2. FG); «... uste dut amen aldetik (...) joera nahiko horrela dela: igual hurrei (...) zuzentzen dira euska-raz, eta buelta eman eta beraien artean erdaraz» (Laura, 7. FG); «... gure artean beti

erdaraz. Eta gero etortzen dira haurrak eta beti euskaraz, eta nik erraten dut ‘zer gauza!’» (Ixa, 9. FG).

Ego belaunaldiaren barneko erabilera horrek kide horiek izan zuten hizkuntza sozializazio baldintzen froga dateke. Haurretan erdaraz hazi eta gizarteratu ziren eta egun elkarren artean erdararako joera izaten dute. Batzuetan, heldu elebidunen arteko elkarrizketetan bi mintzairak tartekatzen dira (LK, 2010-8-29). Aldizkatze hori hizkuntzaren erabilera instituzionalizatuan ere agertzen da, erraterako, Iruritako elizan igandeetako meza nagusia bera bi hizkuntzetan ematen da: hasiera, kantuak eta otoi-tzak euskaraz eta sermoiak eta irakurgaiak erdaraz (ibid).

Erdaraz gizarteratu eta beren artean mintzaira horretan egitera jarritako zenbait lagunek ez dute hizkuntza aldaketa aise egin eta hurrekiko eta helduekiko hizkuntza portaera desberdinak dituzte. Jokaera hori familien barnean ere gertatzen da eta ondorioz, familia ez da hizkuntza gune homogenea. Lolak «ohitura» aldatzearen zailtasuna aitatu du erdaraz egitearen arrazoitzat: «... senarrarekin nik erdaraz eta etxean segitzen dugu erdaraz. Es que ja ohituratzen bazara pertsona batekin erdaraz aritzera, ja niri gero kostatzen zait euskarara aldatzea pilo bat. Eta arrebarekin eta denekin beti erdaraz (...) orain aldatzea da arras zaila, superzaila» (Lola, 4. FG).

Batzuetan euskarazko sozializazioa heldutan egin nahi izan duen hiztunak ez du berte helduen laguntza erraz izaten. Antoniok (6. FG) lantokiko giroa eta euskaltea lagungarri izan ditu hizkuntza usadioak aldatzen hasteko, aldiz, amaginarrebak eta koinatak erdaraz egiten segitzen dute, ohituraz.

Halaz, helduek haurrei euskaraz egitea ohikotzat —gizarte arautzat— ezarri da baina ego belaunaldiko adinkideen artean ez. Euskararen erabileraren eta transmisioaren gainean berriki egindako bi ikerketaren (Eusko Jaurlaritza, 2005ab) arabera gure ego gizaldiko lagunen adinkideak beren belaunkideekin seme-alabekin baino askoz gutxiago aritzen dira euskaraz. Horretantxe hain zuzen ere atzeman dute euskararen geroko «ahulgunea»: «... belaunaldi berekoekiko erabileran, hau da, bikotekidearekin, neba-arrebekin eta lagunekin» (Eusko Jaurlaritza, 2005b: 55). Hots, nik *barreman eszentrikoak* deitu ditudan horietan.

5.3.4.3. *Haurren hizkuntza portaera*

«... beren artean, euskaraz»

Iruritako hurrek, oro har, euskaraz egiten ohi dute. Horretan bat datoz nire behaketak eta gurasoen hautemateak: «... ja hurrek euskara ikasten dute eta ja ikusten dut [Oihan eta Hodei] denekin-denekin ja euskaraz aritzen dira. Denekin» (Arroxa, 2. FG); «Euskaraz, bai, bai. Haien artean beti euskaraz» (Lola, 4. FG); «... entre los enanos [lehengusu-lehengusinen artean] sí que hablan en euskera. Y con nosotros también» (Carlos, 8. FG); «... euskaraz, haiek esplikitzen dutenean edozein gauza euskaraz» (Lola, 4. FG). Eskolako maisu-maistrei ere hala iruditzen zaie: «Argi dago haurren hizkuntza naturala euskara dela, beraien artekoa» (KK).

Familian erdaraz (bakarrik edo nagusiki) egiten duten haur iruritarrek —ikus bezala, bakan batzuk baizik ez dira— gaztelaniaz erraztasun handiagoa izan badezaketere ere adinkideekin eskolan eta plazan euskaraz sozializatzen ohi dira. Adibidez, aita

erdalduna duen Ainara (9. FG) eta guraso biak erdaldunak dituen Garazi (10. FG), lau urteko neskatikoak, elkarrekin noizbehinka erdaraz aritzen badira ere (LK, 2011-I2-II) bertze haurrekin euskaraz egiten ohi dute (LK, 2010-II-06).

Dena dela, haur iruritarrek gaztelaniaz ere ihardukitzen dute «... batzuetan erdaraz airtzeko joera dute, batzuk beste batzuk baino gehiago» (KK). Azken urteotan, hain justu, haurrei sarriago gaztelaniaz aditzea irakasleen kezka bihurtu da. Honela dio Iruritako eskolan hamar urte eman dituen maistrak, orain eskolako zuzendaria denak:

Ohitura hemen orokorrean euskara izaten da. Azken urte hauetan, batez ere aurten eta iaz komentatu izan dugu, nabaritzen hasi gara erdararekiko joera handia, batez ere txikiengan (...) erdara hartzen ari da nahiko leku pasilloan eta entzuten duzu lehen entzuten ez genituen gauzak gero eta... iaz baino gehiago eta orain dela bi urte baino gehiago. Ez dakit... (...). Aztertu genuen, hitz egin genuen klaustroan eta hartu genuen Iruritako kasua (...) baina gero zuzendari bilera bat egiten dugu astero eta ikusi genuen [Baztango] beste eskoletan gauza bera gertatzen ari dela. Eta horretarako arrazoi bat ikusi genuen marrazki bizidunetan. Hemen ez dituztela dagoeneko euskarazko marrazki bizidunak ikusten. Ez badira DVDak eta horrela. Iritsi ginen konklusio horretara (KZ).

Telebista erdaraz ikusteari egotzi diote maisu-maistrek azken urtean haurrei nabaritu dieten erdararako joera hori: «Gehienek telebista ikusten dute gaztelaniaz» (AS); «... haurren jokoetan eta ikusten dugu askotan erabiltzen dituztela marrazki bizidunetako pertsonaiak eta dena erdaraz» (KZ); «... *Bob Esponjak* bezala hitz egiten zuten eta doinu horrekin. Etortzen ziren eta '¡Hola caballero!' eta horrelako gauzak» (XN); «Jolasten dute horretara gainera, orduan azkenean elkarriketa bihurtzen da erdara» (KZ). Iruritako eskolako maisu-maistren iritziz, telebistak ematen dituen hizkuntza erreferentzia eta ereduak eragin handia dute haurren solasteko jokoeretan:

Orokorrean euskaraz hitz egiten dute baina badute ere joera bat, segun egoe-raren arabera edo zer gai den edo, adibidez, hitz egiten ari badira bideojokoei buruz edo telebistari buruz, ba erdaraz izaten direnez, ba beraiek ere aldatzen dute (XN).

... lehenengo mailakoak ikusten zituzten guztiak *Gormitiak*: tierra, fuego... ez dakit zer... Eta etortzen ziren gero gelako gauzekin eta aiba! Nik uste bai, udan izan dela pues, TDTa jarri (...), pasatzen dituztela ordu pila bat telebistaren aurrean... (AS).

Telebistaren eraginaz gain, irakasleek haurrek gurasoengandik hartzen duten eredu-a ere aipatu dute. Aurreko ataltxoan azaldu bezala, Iruritako helduen hizkuntza erabilera eredu-a haurrei euskaraz egitea da baina bertze helduekin erdararako ohitura edo joerak indarrean dirau: «... beti izan da erdararako joera gurasoen artean» (KZ); «Ikusten dutena da gurasoek euren artean eta dendetan erdaraz eta beraiei euskaraz» (KK). Horrek haurren hizkuntza portaerei eragiten diela garbi ikusten du eskolako zuzendariak:

Askotan aipatzen da gurasoen garrantzia edo eskolaren garrantzia. Nik adibidez, Iruritara etorri nintzenez atentzio pila bat eman zidan haurrak jolasten zutenean dendetara jolasten zuten erdaraz eta beste gauza guztietara jolasten zuten euskaraz. Harrigarria! (...). Orduan deigarri-deigarria, zeren ez zuten apenas erdaraz hitz egiten eta '¿cuánto vale?' (...). Nik ikusten nituen jolasten. Nik

ez nien ezer esaten eta behin galdegin nien: 'Baina, zergatik egiten duzue erdaraz?'. 'Es que dendetan erdaraz solasten da!'. Eta orduan Iruritan baziren bi den-da eta bietan erdaraz egiten zen. Orduan nola ikasten duten jokuetan erabiltzen dute: ezin da saldu euskaraz. Gaur egun ez dute egiten ikusten dutelako dendetan euskaraz egiten dela, baina duela hamar urte bai, ez zutelako adibiderik (KZ).

Oro har, eskolako ikasleei gaztelania ez zaie ohikoa baina erakarmen handia du berendako: «... kenduta kostatzen zaiona gehiago (...) bertze guztiek [gaztelaniarekin] problemarik gabe. Hasten dira eta edozein elkarrizketa izateko gai dira (AS); «... guk bigarren zikloan erdara dugu ikasgai bezala eta batzuei gustatzen zaie pila bat ikasgai hori, pila bat. Gustatzen zaie, nahi dute parte hartu, nahi dute hitz egin...» (KK).

Erdararen eragina handia da maisu-maistren iritziz eta hurrek egiten duten euskarari antzematen diote: «Kurtso hasieran gainera horretaz mintzatu ginen klaustroan zeren ikusi genuen errekreoan erdarara joateko joera bazutela jokoetan baita gelan ere...» (KK); «Umeen hizkuntza egituretan, esaldietan eta nabaritzen da pila bat. *Ni naiz* esan beharrean *naiz ni* eta hori. Eta hori ikusten duzu Gartzainen, ikusten duzu Iruritan eta ikusten duzu Amaiurren» (LK, 2010-10-3).

Nire behaketetan neska-mutikoei beren arteko elkarrizketa arruntetan erdara gutxi aditu diet. Errebote plazan jostetan ari direlarik euskaraz egiten dute. Haurren arteko hizkuntza erabilera emozionala ere (haserrealdiak, irainak...) euskaraz izaten da: «Zu bai txarra!» (Neskatico batek bertze bati. LK, 2011-2-10).

Erdararen interferentziak esapideetan agertzen dira maizen, horren ikusbide jangelan eta bazkalduta eta ondoko jostaldian bildutako adibideok: «Baina nik por sí acaso altxatu bertze bat»; «Hauek biak eta el resto ez. Hau eta hau eta vale!»; «Eman zion mutiko batek a toda mecha ura gainean»; «Zer dago de postre?» (LK, 2011-2-3). Erdararen sartzea jolasetan, joko formuletan eta jolasari lotutako esapideetan bereziki da nabariagoa: «¡A prisión!»; «Hala, venga, zu ere bai, ahí!» (haurrak harrapaketa jostetzen ari zirelarik. LK, 2011-4-14); «De oca a oca...»; «Dos, tres, cuatro, cinco, seis...»; «Venga Leire, te toca!» (antzara-jokoan ari zirelarik. LK, 2011-2-3). Batzuetan, jokoari lotutako esapideak ez dituzte zuzen erraten, agian buruz ikasi dituztelako, ongi ulertu gabe: «De oca a oca y tiro porque *te* toca» (ibid.). Maistrek ere antzeman diete hurrei batez ere jolasteko egoeretan jotzen dutela erdarara (AS). Hala bada, badirudi oso handia dela jardueraren eragina, hau da hurrei erdarazko formulak eskatzen dituen joko batean aritzeak dakarkien erabilera.

Haurren hizkuntza jokoaren faktoreen artean adinkideen eragina ere badago. Hau da, hurrek beren mintzajardunean elkarri eragiten diote. Hizkuntza transmisioaren gaineko ikerketek ez ohi dituzte adinkideen arteko eragin horiek behar bezala baliotsi soziolinguistikan kontu jakina bada ere ingurune eleaniztunetako hurrek gurasoen mintzamoldera baino gehiago beren adinkideen mintzaerara egokitze joera izaten dutela (Chambers, 2003: 175-185; Barron-Hauwaert, 2004: 57-59); alegia, hurrek hizkuntza bertze haurrengandik ere ikasten dutela (Harding & Riley, 1998: 165). Hizkuntza sozializazioa teorikoki tankeratu duten egileek ordea, prozesuaren izaera elkarrengandik (Schieffelin & Ochs, 1986; Ochs & Schieffelin, 2008; Friedman, 2012; bertzeak bertze), bai eta *multiagency* eta *multidirectionality* ere (He, 2012) nabarmendu dute.

Iruritan haurren arteko hizkuntza erabilerarako araua euskara da eta taldekideek elkar erregulatzen ohi dute arau horretara moldatzeko. Jangelako haurren arteko elka-

rrekintzetan adibide batzuk kausitu ditut. Batean, mutiko bat (H haurra, sei urtekoa), etxean gaztelaniaz egiten duena eta erdararako joera duena, euskaraz egiten saiatu da eta zalantza baten aitzinean taldekideen laguntza bilatu du. Natilla jan eta ondoko aho arrastoez ari zirela, honela aditu nien (LK, 2011-2-3):

H haurrak: —Badu perilla de cabra! Badu perilla de hori. . . nola zen?

J haurrak: —Cabra!

H haurrak: —Ez, cabra ez. Akerra! Akerraren perilla badu Xabik. Xabik badu akerraren perilla!

Ondoko adibidean ikusten denez, antzara jokoan ari direlarik erdararako joera duen H mutikoak gaztelaniaz adierazi duena haur taldeak euskaraz birformulatzen du eta haren mintzajarduna euskarara erakartzen (LK, 2011-2-3):

H haurrak: —¡Que me toque dos! Ahora repito, ¡que me toque dos!

Taldeak: —Tokatzea bi!

Taldeak eta H haurrak: —Tokatzea bi! Tokatzea bi!

Adinkideen eragina arrunt onuragarria izan daiteke erdararako joera duen haurra euskarara erakartzeko. Hau da, taldekideen artean dagoen hizkuntza eredura edo araura egokitzeko laguntzak, presioak eta egokierak izaten dira.

Erdaraz ere ikaskideen artean laguntzak gertatzen dira haur batzuek erdara ez baitute batere ohikoa. Honela azaltzen du LHko 2. zikloko maistra batek gaztelania ikasgaiaz: «Gustura, hanka sartzen gustura ere zeren bertzeek ez dute irri egiten baizik eta ‘ez, hau horrela’. Orduan, bai zuzentzen dira, erdaran bai zuzentzen dira. . .» (KK).

Etxean ere hizkuntza erabileraren erregulazioa gertatzen da, eta ez beti goitik beheiti, hau da gurasoengandik seme-alabengana, aurreko atalxoetan ikusi bezala. Haurrek ere gurasoen hizkuntza erabileran zuzenean eragiten dute. Adibidez, Laurak eta Danielek osatu duten familian, haiek hala adostuta, haurrak etxean euskaraz egitera jarrita daude eta gurasoei elkarren artean erdaraz aditzen badiete haserretzen dira: «. . . gainera beraiek ere aunitzetan aritzen bagara [erdaraz] haserre ematen digute: ‘egizazue euskaraz!’ ‘Bai, bai, arrazoia duzu’. Eta aldatzen dugu» (Laura, 7. FG).

Halakotz, Irurritako haurrek euskaraz egiten ohi dute hala beren artean nola helduekin ere. Erdararekin zer harreman duten arakatuta, etxean mintzaira horretan aritzen diren haur bakan batzuek ez bertze guztiek gaztelania ez dutela ohikoa ikusten da, nahiz eta mintzaira horrekiko jakin-min handia izan eta gutxi-asko erabili. Haurrek erdara batik bat esapide, jolaserako formula eta gai zehatzei loturik erabiltzen dute. Dirudienez, telebistak eta helduen hizkuntza erabilerak ematen diete haurrei erdararen *input* gehiena. Bertzalde, haurren arteko hizkuntza elkarreraginak euskararen alde jokatzen du Iruritan. Haurren arteko erabilera araua euskaraz ezarrita baita, mintzaira horren mesedetan gertatzen dira haurren arteko hizkuntza egokierak eta horrek etxean euskara egiten ez duten haurrek ere adinkideekin euskaraz egitea dakar. Beraz, agerian gelditu da haurren hizkuntza portaerak mintzairaren gizarte egoerari lotuta daudela eta etxean eta eskolan euskaraz eginda ere haurrak bide desberdinez gaztelaniaren baliagarritasunaz jabetzen direla. Neska-mutikoen hizkuntza sozializazio prozesuaren izaera elkarreragilea aipatzean haurren harreman eszentrikoetako elkarreraginak, hau da adinkideen artean gertatzen direnak agertzen dira eragingarri funtsezkotzat.

5.3.5. Ingurunearen eta baldintza makrosoziolinguistikoen eragina

Aurreko ataletan azaldu dugunari erreparatuta, argi dago belaunaldi txikien hizkuntza sozializazioak familiaren gunea gainditzen duela. Guraso batzuek seme-alabei mintzaira batean edo bertzean egiteko arrazoï eta aukera guztiak ez daude inola ere sendiaren baitan. Subjektuek hautu batzuk egiten dituzte hizkuntza transmisioaren inguruan baina hautu horiek hiztunen bizipenei loturik ez ezik kanpoko faktoreen eraginpean ere badaude.

Azken urteotako zenbait lanek (Martínez de Luna, 2004; Soziolinguistika Klusterra et al., 2009; Soziolinguistika Klusterra, 2011) euskararen erabilerari eragiten dioten faktoreak zehaztu eta eraginkortasun eredu proposatu dute. Horren arabera, euskararen erabilerari hiztunaren beraren inguruabarrek, maila mikrosoziolinguistikoko alderdiek eta baldintza makrosoziolinguistikoei eragiten diote.

Atal honetan haur iruritarren inguruneari erreparatuko diot. Hau da, inguruneak euskarazko gizarteratzerako eskaintzen dizkien aukerak, harreman sareak, egoerak, jarduerak... Bertzalde, euskarari lotutako baldintza makrosoziolinguistikoak (gizartearen egiturari dagozkien eremu eta erakundeek sortuak) ere haurren hizkuntza sozializazioari nola eragiten dioten hausnartuko dut.

5.3.5.1 Haurren eskolaz kanpoko jarduerak

«Irurita siempre ha sido un pueblo de moverse mucho»

Irurita herri euskaldunetz inguraturik dago. Azken berrogei urteotan, Sánchez Carrionek bere lekukotasuna utzi zuenetik euskararen gizarte egoerak hobera egin du Baztanen, herri euskaldunetan baino nabarmenago Irurita bezalako herri erdaldunduetan, hots, Elizondon, Elbeten eta Oronozen. Azken hauetan bertzeetan bezala egun haurrak euskaldun hazten dira baina oraindik agerikoak dira Baztango herri txiki-euskaldunen eta handiago, hiritartuago eta erdaldunduagoen arteko aldea eta bereizketa horrek haurren sozializazioa ere ukitzen du.

Baztango herrietako eskoletako maisu-maistrek nekazalgoak haurren hizkuntza sozializazioan duen eragina nabarmendu dute. Alde horretatik aldeak ikusten dituzte Baztango herri euskaldunagoetako ikasleen euskararen eta Iruritakoek dutenaren artean: «Kristoren aldaketa nabaritzen da. Euskarak galdu du, galdu du...» (LK, 2010-10-3). Irakasleen iritziz, Baztango herri euskaldunagoetako neska-mutikoei nekazari-zari lotutako hiztegi jori-joria dute:

... Azpilketan familietan badute hiztegi bat bueno, aberasgarria baino aberasgarriagoa (Miren, Baztango eskola bateko maistra, 3. FG).

... nekazariak dira aunitz Amaiurren eta sumatzen da beraien elkarrizketak dira denak azienden inguruan, ardiak, behiak... eta hemen [Iruritan] sumatzen da desberdintasuna (Laura, Baztango eskola bateko maistra, 7. FG).

Haurren joko sinbolikoetan ere laborantzari lotutako bizimoldeak hizkuntzan duen ondorioa nabari da: «Jokoak, zerri hiltzea zen jokoa beti. Orain zerri hiltzea ez da (...). Badakizu zer hiztegi aberatsa? (...). Ni oroitzen naiz Eratsunen, haur ttikiak,

gainera hikaz e! 'Ekarran barreñoa! Odoletan zagon! Odoletan zagon! Ekarran barreñoa!' Hala zen, etxean ikusitakoa. Baina hori aldatu da. Normala da» (Baztango eskola bateko maisu bat. LK, 2010-10-3).

Berriemaileek aitortzen dutenez, Irurita beti izan da herri bizia: «... un pueblo de moverse mucho. Así, en plan cultural, teatro, bailes... Mi madre de cría ha salido a bailar a Francia» (Alberto, 10. FG). Kultura, kirola eta, oro har, gizarte arloko bizitza hori dena, erdaraz ezagutu dute ego belaunaldiko kideek: «... bizia beti izan da bizia. Dena erdara hutsean» (Miren, 3. FG).

Egun Iruritako bi guraso elkarteak, herrikoa eta eskolakoa, arras dinamikoak dira. Herrian haurrendako antolatzen den gehiena guraso elkarten ekimena da (Olentzero, Orakunde, inauteriak, kultura astea, gaztaina biltzeko ateraldia, gaztaina erreak jateko besta, txangoak, eskulantegiak, eskolako haurrendako jangela, eskolaz kanpoko jarduerak...). Horiek guztiak euskaraz antolatzen dituzte.

Iruritako neska-mutikoez egiten dituzten bertzelako jarduerak ere euskaraz izaten dira, hala herrian bertan antolatzen direnak nola Elizondon egiten direnak (salbuespena Udal Musika Eskola da). Haurrek Iruritan honako jarduera hauek egiteko aukera dute: dantza, pilota, judoa, mekanografia, trikitia, zaldabaia, ingelesa eta katekesia. Elizondon Udal Musika Eskola (zenbait saio erdaraz eskaintzen dituen) dute eta horretaz gain kirol taldeak: igeriketa, futbola (mutikoendako) eta eskubaloia (neskatikoendako).

Iruritan dantzak garrantzi berezia du: «... hemen hiru urte eta erditik dantzatzen dute hurrek» (Laura, 7. FG). Urtean herriko dantzariak bi erakustaldi berezi egiten dituzte Goienetxe plazan. Hiru urteko haurretatik hasita adineko dantzariak bitarteko talde guztietako iruritarrak (gurasoak eta seme-alabak barne) elkartzen dira herriko plazan txistulari eta atabalarien doinuaz dantzatzeko (LK, 2010-10-9).

Baztango eskola ttikietako maisu-maistrek azken urteotan gurasoen jarrera aldatuta ikusi dute eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izateari ematen zaion garrantziaren inguruan: «Gurasoek ere ez zuten planteatzen garai batean. Ekintzak erdaraz baziren erdaraz ziren. Kontzientzia hori badute eta eskatzen dute. Hori aldatu da, aldatu da. Batzuk bederen», «... lehenago berdin zitzairen. Erdaraz da, ba!» (LK, 2010-10-3).

5.3.5.2. *Eskola, euskararen eta euskal kulturaren eragile*

«... gurasoei pasa genien Internetetik jaisteko (...) pelikula zerrenda luze bat»

Egun Iruritako eskolan ikasleek HH eta LH osoa egiten dute D ereduari. Zazpi maisu-maistra aritzen dira tutore eta hiru gehiago espezialista. Eskolako maisu-maistrak haurren eskolaz barneko nahiz kanpoko hizkuntza portaeraz eta kalitateaz arduratzen dira eta herriko ohitura eta errituei eusten aktiboki laguntzen dute.

Eskola, haurren euskararen bultzatzaile

Eskolako maisu-maistrei ikasleen hizkuntza portaerak axola diete eta horregatik familien hizkuntza ohiturak eta haurren kultura kontsumoa izaten dituzte kezka batekin. Baztango eskola ttikietako maisu-maistrek, Iruritakoak barne, larritzeko modukoa

irizten diote haurren mintzamoldeari. Azken urteotan neska-mutikoen euskara gero eta eskasagoa dela diote irakasleek (joskera, erdarakadak...¹³⁴). 2010-2011 ikasturte honetan bereziki kezkatuta daude eta horren inguruan zer egin daitekeen hausnartzen aritu dira: proiektu bat, euskarazko filmak biltzen dituen DVDa gurasoei partitze-ko... Hizkuntza kaskailtze horren arrazoiez gogoeta egin dute: haurrek lehen telebista euskaraz ikusten zuten eta orain aldiz, erdaraz; gurasoek eta bertze helduek sarrisko erdaraz ihardukitzen dute... Iruritako eskolako maisu-maistrek oharra igorri zuten ikasleen etxeetara gurasoak horretaz ohartarazteko, Internetetik marrazki bizidunak euskaraz jaisteko helbide elektronikoak emanez (LK, 2011-4-I4). Honela azaltzen du eskolako zuzendariak: «... iaz ikasturte bukaeran horrela nabaritzen hasi ginen izugarritzko joera eta orduan gurasoei pasa genien Internetetik jaisteko (...) pelikula zerrenda luze bat. Beste herri batzuetan badakigu guraso elkartekoak ari direla bakoitza bat jaisten eta gero elkarren artean trukatzeko» (KZ).

Gurasoen lekukotasunek erruz egin diote aipu ohar horri:

... orain dela bi aste [2010eko azaroaren hasieran] eskolatik eman ziguten papertxo bat, konturatu zirela haurrak gero eta gehiago erabiltzen dutela erdara haien artean eta igual gero nahasten dutela euskara eta erdara... pues dena. Pues orduan, faborez, ez paratzeko telebista erdaraz, paratzeko euskaraz Internetetik, pues marrazki bizidunak... (Ixa, 9. FG).

Pero fue un poco generalizado porque incluso de la escuela pasaron una nota a ver si podríamos (...) ponerles cosas en euskera, o lo que es sacado de Internet (...). A mí me pareció bien porque nos habíamos dado cuenta que en casa estaba cambiando un poco la cosa (Carlos, 8. FG).

Erdararen erabilerak kezkatzen ditu maisu-maistrak eta horren gaineko kontzientzia har dezaten solastu dira haur koskorrekin:

Eta euskararena esan genien hala ere modu pixka bat kontzientzia hartzeko batzuetan grazia egiten ahal diela edo probatu nahi dutela edo ikasi nahi dutela... Oso ongi dago hizkuntzak ikastea baino kontziente izan behar dutela euskaraz zer eremu ttikia hartzen duen munduan eta beraiek dute pues pribilegio handi bat bizitzan bizi diren eremua euskalduna delako eta aukera hori badelako euskaraz bizitzekoa eta pixka bat ere kontzientzia har dezaten beraiek ez badute hori mantentzen ez duelako jarraituko. Eta nire ustez, [haurrek] hori ongi hartu zuten (KK).

Euskara kaskarra, erdararen erabilera eta bi mintzairak nahastea dute kezka Iruritako maisu-maistrek:

Klasean ere komentatu... txikiekin ez dute oraindik kontzientzia hori euskararen egoera edo, baina bai sartu genuena izan zen euskara edo erdara erabiltzen ari garela ez nahastearena. Gaztelaniaz ari bagara, eta izango dira momentu batzuk gaztelaniaz edo erdaraz hitz egiteko, baina bertze batzuetan, gehienetan, euskaraz. Orduan, saiatu behar garela bi hizkuntzak ez nahasten, zer bestela hizkuntzak ateratzen dira kaltetuak... (AS).

¹³⁴ Haurren euskara kaskarraren adibideak: «Erran nau Carmen bi», «Da guardasola bezala» (Bi haurri aditutakoak jolasean ari zirelarik. LK, 2011-4-26).

Orobat, baztaneraren erabilerak ere ematen die arduraren irakasleei. Aipatzen duteenez, haur guztiek ez dituzte gurasoak baztandarrak, erraterako HHko 2. zikloan zazpi ikasleko taldean «... guraso baztandarrak dutenak daude bi, hiru» (AS) eta haur batzuek bertako euskaraz egiten ez dutela ohartuta, kezkatu dira: «... zaharren edo pertsona helduen baztanera eta haurren baztanera ez da berdina» (KK); «... haurrek ez dute erabiltzen hemengo zenbaketa»¹³⁵ (KZ). Maisu-maistra gehienak ez dira baztandarrak ez eta ingurukoak ere, baina bertako mintzamoldea balioesten dute: Baztango hizkerara hurbiltzeko jarrera izaten dute eta batzuetan haurrei aditzen dizkieten baztanerako hitzak idatzi eta ikasten saiatzen dira.

Hala bada, eskola ez da axolagabea, ikasleen hizkuntza portaeraz, hala eskola barnekoaz nola kanpokoaz, arduratzen da, bere arazotako hartzen du eta horri eragiteko asmoa izaten du. Haurren hizkuntza portaeraren eragile aktiboa da eskola eta alde horretatik garbi agertzen da haren jarduera sozializatzailea. Euskaraz irakasteaz gain irakasleek heziketa berariazkoa egiten dute ikasleek euskaraz egin dezaten (hizkuntza erabiltzeko sozializazioa, Schieffelin & Ochs, 1986) eta neska-mutikoak euskaldun haztearen alde aktiboki jokatzeko dute. Bertzalde, maisu-maistrek gurasoei eragin nahi diete eta haurren etxeko hizkuntza sozializazioan ere nabaria da haien itzala.

Eskola herriko kulturari eustearren eragilea

Maisu-maistrak herriko ohiturei onik eusteko ere aktiboki inplikatzeko dira. Orakunde besta zaharra bizirik atxikitzeko, adibidez. Irakasleak eta gurasoak (amak batik bat) haurrekin ateratzen dira eta etxez etxe joaten dira herrian barrena akordeo-lariaren soinua lagundurik. Eskolaren eraginez besta bera aldatu da: «Nere denboran ez zen baserrietara gaten. Hori hasi zen gero, M^a Eugenia [Urrutia] zegoelarik hemen maistra. Hasi zen orduan baserrietara gaten, baino lehenago ez» (Arroxa, 2. FG. LK, 2011-3-3). 5.3.6.2 atalñoan Orakunde besta hartuko dut hizpide.

Herriko jaietan ere eskolak berak bideratzen ditu haurrak parte hartzera. 2011ko ekainaren lehenean, asteazkenean, hasi ziren Irurritako zaindariaren bestak: maisu-maistrek goiz erdian eskola saioak bertan behera utzi eta ikasleak eskolatik atera zituzten; eguerdirako ikasle-irakasle guztiak plazan ziren hara bildutako guraso (amak gehienak), aitona-amona eta bertze herrikideekin batera txupinazioa ikusi eta ondoren kalejiran ibiltzeko (LK, 2011-6-1).

Euskararen aldeko ospakizun berriago batekin gauza bera gertatzen da: Korrika¹³⁶ herritik pasatzen delarik eskolak aktiboki hartzen du parte; haren 17. edizioa 2011ko

¹³⁵ Baztaneraz zenbaki batzuk euskara batuan ez bezala erraten dira: *bide* (bi, bakarrik doalarik), *bortz* (bost), *hameka* (hamaika), *egun* (ehun)... Aipamen horretan zuzendaria «hemengo zenbaketa» diolarik zenbakera honetaz ari da: *hiru(re)tan bogei* (hirurogei) eta *lau(re)tan bogei* (laurogei) formak erabiltzeaz.

¹³⁶ Korrika 1981etik bi urtetan behin Euskal Herri osoan zehar antolatzen den errelebotako herri lasterketa da, AEK elkarteak antolatua euskararen alde oro har eta, bereziki, helduen euskalduntze-alfabetatzearen beharra aldarrikatzeko eta horretarako dirua biltzeko. Bederatzi egun inguru iraun ohi du eta ez du etenik; gau eta egun egiten da laster. Ibiltariak euskararen gaineko mezua barnean duen lekukoa eramaten dute herriz herri mila metrotik mila metrora eskuz aldatuz. Txanda bakoitzean lekukoa eramateko elkarteak, erakundeak nahiz norbanakoek kilometroa erosten dute eta era horretan Korrikaren helburuari laguntzen diote. Teresa Del Valle (1988) antropologoak Korrikaren gaineko ikerketa etnografikoa egin zuen.

apirilaren IIko goizean pasatu zen Iruritatik. Eskolaren kanpoko aldean ekitaldiaren gaineko afixak paratu ziren eta barnean eltzetxoak, nahi zuenak kilometroa erosteko lagun zezan. Eskolako maisu-maistrak ospakizun horretan inplikatu ziren, ikasleekin Korrikaren abestia landuz, lasterketa herrigunetik igarotzean haurrak ikasgeletatik ateraz eta ongi etorria eginez. Baztango eskola ttikiek eta Iruritako guraso elkarteak kilometro bana erosi zuten.

Hori horrela, herria trinkotzen laguntzen duten erritu, besta eta ohiturei bizirik eusteko (bai eta usadioak aldatzeko ere) eskolak funtsezkoa dirudi. Maisu-maistrak herriko jarduera horietan inplikatzeko dira eta eskolaren eragina komunitate osora zabaltzen da. Bertzalde, eskola jarduera horietan euskara legitimatu, prestigiatu eta ohiko bilakatzeko baitezpadako eragiletako agertzen da. Iruritan euskararen jarraipenaren alde gertatutako aldaketari herriko eskolak modu aktiboan eragin dio.

Literatura soziolinguistikoko Fishman (1990, 1997: 368-380, 2001: 14) izan da hizkuntza gutxitua biziberritze prozesuan eskolaren aski ezaz eta ikastetxeak egiten duen lana osatu beharraz ozenen ohartarazi duena. Halaz guztiz, Irurita bezalako herri txikietan eskola hizkuntzaren eta kulturaren transmisiorako, ohiturei bizirik eusteko eta herria trinkotu eta integratzeko eragiletzat nabarmendu da (cf. Urla & Errekondo, 2010). Gure kasuan, Iruritako haurren euskarazko sozializazioaren atzean eskola dagoela ezin uka, gauza ageria baita haurrak euskaldun hazteko eragile sozializatzaile saiatua dela, baina hau da garrantzitsua: ez du bakarrik jarduten, komunitatearen bertzera erakundeekin batera baizik. Horrek bihurtzen du eskolaren jarduera eraginkorragoa haurren euskarazko sozializazioan. Iruritan haurrak euskaldun hazte aldera hiztun taldearen lan sozializatzaile osoa dago, familia, elkarreana, erakundeena eta noski, eskolarena.

5.3.5.3. Hedabideak eta kultura erreferentziak

«... lehen arras ongi ETB ikusten genuen baina orain...»

Haurrei euskarazko sozializazioan ingurune hurbiletik ez ezik hizkuntzaren estatusak eta egoera makrosoziologikoak baldintzatzen dituzten zenbait esparrutatik ere iristen zaizkie eraginak.

Hedabideei dagokienez, azken bi hamarkadetan herri ekimenak sortutako irrati eta aldizkariak ugaltu dira Nafarroa osoan, Mendialdean batik bat. Baztanen *Xorroxin* irrati, *Ttapi-ttapa* aldizkaria eta *Xalao* telebista euskarazko hedabideak daude eskura eta berriemaileen adierazpenen arabera, Iruritako familietan gutxi-asko entzun, irakurri eta ikusten dira baina ez dirudi haurren artean oihartzun handirik dutenik. Neska-mutiko iruritarrek batik bat erdal telebistak ikusten dituzte.

2010ean ETB Ieko haur saioak gutxitu zirenetik haurrek marrazki bizidunak euskaraz ikusteko aukerarik ez dute eta aldiz, erdal telebista kateetan eskaintza ugartu da (*Clan*, *Disney Channel*...). Gurasoek telebista euskaraz ikusteko zailtasunak erruz aipatu dituzte: «... lehen ETBI arratsalde osoa Teleberri artio marrazki bizidunak ziren eta gaur ez dago marrazki bizidun bat ere (...). Orduan, gaur zer dago indarrean? Pues *Clan* eta *Disney Channel*, biak erdaraz (...). TDT dagoenetik ETB guttiago ikusten dugu» (Miren, 3. FG); «... lehen arras ongi ETB ikusten genuen baina orain pues *Disney Channel* eta *Clan* ikusi behar. Da pasada bat es que ez da beste aukera» (Itsaso, 5. FG); «Lehenago arras ongi.

TDT gabe gure etxean beti ETB (...) euskaraz, arras ongi. Baina orain la TDT» (Antonio, 6. FG); «... el rollo es también que la tele ve todo en castellano (...) desde la TDT es un horror (...). Entonces claro, básicamente... bueno, ve eso, las de castellano» (Carlos, 8. FG) eta «... antes le poníamos más dibujos de la ETB» (Silvia, 8. FG).

Irakasleek eta gurasoek behin eta berriz aipatu dute ETBn marrazki bizidunak euskaraz ikusteko aukerarik ez izateak haurren arteko erabileran eta haien joko sinbolikoetan duen eragina. Baztango eskola ttikietako maisu-maistrek marrazki bizidunak (*Bob Esponja...*) eta saioak beti erdaraz ikusteak dakarren ondorioa nabarmendu dute: «Izugarri nabaritzen da, izugarri» (LK, 2010-I0-3). Telebista erreferente eta eredu iturri eraginkorra da txikiendako eta telesaioak erdaraz ikusteak haurren hizkuntza erabilerari eragiten dio: «Hori izaugarri nabaritu da. Patioan nabaritu da» (ibid.). Haurrek pantailako pertsonaiak gogoko izaten dituzte, haien abenturaxoen zale amorratuak izaten dira eta, sarritan, horien gainean aritzen dira solas-jolasean, bai eta haien mintzamoldeak beren joko sinbolikoetara ekartzen ere. *Patito Feo* telesaio argentinarraren eraginez edo maisu batek haur bati aditu zion «¿Vos querés?» (ibid.). Ama batek espresuki aipatu du kultura produktuen hizkuntzak nola eragiten dion haurren arteko hizkuntza erabilerari:

... konturatu naiz badugularik bideoa paratua euskaraz, bueno, laxatzen direla pila bat. Dena euskaraz, euskaraz, euskaraz... ttalla¹³⁷ ere bai, [Bidane] ere bai, pues egiten direla aunitz gehiago (...). Eta igual etxean, baldin badute telebista paratua, igual tarteka igual eskapatzen zaie erdara gehiago. Igual ari badira solasean telebistaz eta horrela pues pasatzen dira erdarara (Itsaso, 5. FG).

Euskarazko kultura erreferentziek zer leku hartzen duten haurren arteko nahiz haurren eta helduen arteko elkarreraginetan Iruritako maistra batek jostalekuan zangoan min hartu zuen neskatiko bati errandako honetan ikusten da: «Eginen dugu Pirritx eta Porrotxek bezala? Senda-senda miriku...» (LK, 2010-5-26).

Fishmanek (2001: 473) mintzaira gutxituen hedabideak maiz hizkuntza nagusienak baino urriagoak eta bitarteko eskasagokoak izaten direla ohartarazi du. Horregatik, «the media can interfere with intergenerational Xish [hizkuntza gutxitu] mother-tongue transmission more easily and more frequently than they can reinforce it, if only because there are ever so much more Yish [hizkuntza nagusi] media than Xish media».

Gaztelaniak erakarmen handia du, edozein kultura adierazpidetan eskaintza zabalagoa eta askotarikoagoa da erdara horretan heldu dena. Hurrei hazi ahala nabarmenago egiten zaie erdararen erakartzeko gaitasuna eta lilura. Telebistan eta Interneten ez ezik, irakurgaietan ere badirudi haurrak aise zaletzen direla erdarazko liburuen sailarekin, 3. FGko Nikolasen eta 6. FGko Antonioren arranguretan ikusten den bezala.

5.3.5.4. Erdararen presioa eta euskararen zilegitasuna

«*Esto no es el País Vasco*»

Erizek (1997: 534) Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoan nafar euskaldunek jasan behar izan duten erdaldunen presioa aipatzen du. Iruritaren historia

¹³⁷ Baztaneraz *ttalla* edo *ttarra* erabiltzen da *ttipia* edo *txikia* errateko.

gertatu berrian ere ikusi dugu iruritar euskaldunek herrian bertan nozitu zutela gaztelaniaren nagusikeria: erdara hutsezko eskola, gizarte bizitza erdaraz ezartzen zuen herri-gunea eta erdaraz baizik egiten ez zuten erakundeak. Horrek guztiak herritar bazuendako gaztelania ongi ez jakiteagatik bazterkeria, gutxiespena eta trufak ekarri zituen. Herrian bertan, Baztanen berean edo haranetik at ere iruritar euskaldunek pairatu dute erdararen presio hori.

Jorratu dudan ikerketa etnografikoan azken hamarkadetan iruritarrek hizkuntzaren kariatara bereizten zituzten haustura nagusiak gainditu direla erakutsi dut. Herritarrek oro har euskarari atxiki zaizkio, euskararen ikusezintasun eta zokoratzea uzkaile dute eta egun hizkuntzari balioa aitortzen diote.

Azaldu dudan bezala, Iruritan euskara da ingurune hurbilean eta eguneroko harremanetan hurrek egiten ohi duten hizkuntza. Herriguneko kasu frankotan neska-mutikoek gutxi-asko erdara etxean berean aditzen eta telebistan entzuten badute ere herrian gutxi dira haurrak —txikiak batik bat— erdaraz aritzera behartzen dituzten egoerak. Ume iruritarrei herriko eguneroko harremanetarako —batez ere guraso eta adinkideekikoetarako— euskara aski izaten zaie eta gaztelania oro har, ez dute usu erabiltzen. Erdararen ohitura falta hori ingurune erdaldu(du)etan nabarmentzen zaie gehienik.

Guraso iruritarrek inolaz ere ez dute eztabaidatzen beren seme-alabek gaztelania jakin behar dutela baina ume txikiak erdaraz ongi ez moldatzea ez ohi dute arazotzat jotzen. Lolari (4. FG) adibidez, ez dio ardura bere hurrek erdaraz trakets ibiltzeak. Honela dio semeek Iruñean (erietxean nahiz dendetan) eta oporlekuetan bizitutakoan gainean:

[Semeak] ez dira laxatzen. Nireak behinik behin erdararekin dabilta nahi-ko... hor, kortatuak, bai, bai. Igual medikuak erraten dio edozein galdera eta gelditzen dira hor como... ez dute kontestatzen. Edo edozein tiendan edo edozein lekuan Iruñean beti erdaraz eta jo [xo], igual aditzen dutenean norbait euskaraz pues alegatzen dira (...) ez dira laxatzen! (...). Eta bakaziotara joaten garenean pues igual izaten dira jokoak piztzen edo (...) pues Salou aldera egotera etzanda egun batzuk. Baina piztzen edo kanpoan egoten dira pues edozein gauza haurrendako eta bueno hauek ez dira... eta ikusten badute euskaldun bat hartara arrimatzen dira eta harekin egiten dira kristoren lagunak, euskaldunekin. Baina erdara iruditzen zaie bertze mundukoa (Lola, 4. FG).

Bitariko bikotea duen 9. FGn haurren elebitasun goiztiarraren alde onak nabarmentzen du Ixak:

... nik igual nahiago dut porque gero igual ateratzen zara hemendik, ateratzen zara kanpora eta klaro, igual hasten zara norbaitekin erdaraz solasten eta haurrak badaki (...) joaten zara al Txikipark [Iruñerrian dagoen haur jolasotokia] o lo que sea eta haur bat hasten zaio solasean eta honek [Ainarak] badaki segitzen, noski, badaki erdara eta orduan hasten da berarekin solasean. Hori ere ongi iruditzen zait (Ixa, 9. FG).

Ezein familiatan ez dut seme-alabek gaztelania jakitearen kontrako jarrerarik kausitu ez eta hurrek erdaraz ongi ikasiko ez ote duten beldurrik ere. Iruritako guraso gehienek euskara ziurtatu nahi izan diete beren seme-alabei eta hori hizkuntzaren egoera ahulaz oharturik egin dute: «Nahiko nukeena bai da mantenitzea euskara beraiek ere bai gero handitzearekin segitzea mantentzen, porque azkenean hori da erakutsi duguna guk: mantenitzea» (Arroxa, 2. FG).

Seme-alabak euskaldun haztea erabaki duten guraso iruritarrek eta haien hurrek batez ere Iruñera jo behar dutelarik jasotzen dute erdararen —Erizek (1997: 365) Nafarroako erdal hiztunek, eliteek nahiz erakunde nagusiek osatzen duten «mundu oso» hori adierazteko erabiltzen duen «erdal komunitate» delakoaren— presio handia.

Nafar guztiendako zerbitzu publiko nagusiak hiriburuan baitaude hara baitezpada joan behar duten batzuetan, bai hurrek bai gurasoek erdaraz jarduten duen gizartearen epaikundea hartu dute. Iruñean erdararen nagusitasuna gauza ageria da baina euskararen baliagarritasunik ezaz gain, inoiz edo behin, Irurritako familiek beren hizkuntza nagusia euskara izatea auzitan paratzen duten jarrerak kausitu dituzte. Horren ikusbide lekukotasun hau: Arroxaren (2. FG) seme zaharrenari ebakuntza egin zioten lau urte zituelarik eta Iruñeko ospitalean izan zen denboraldi batez. Arroxak hango mediku-erizainek erraten ziotena du gogoan: «Han ospitalean enfermerak eta medikuak eta beti tema bera, 'tienen que aprender a hablar en castellano. Si quieren el euskera mantener, pero el castellano tienen que aprender'. Batek baino gehiagok e! Pasada bat!» (Arroxa, 2. FG).

Hau da, erakunde publiko batean, Nafarroako Ospitalean, guraso euskaldunei haien umeez gaztelaniaz ongi ez zekitelako erantzuki egin zitzairen. Nafarroako *erdal komunitateak* familia euskaldun bati beren hurrak euskaraz haztea auzitan paratu dio, areago, euskararen erabateko desegokitasunaren irizpena ere helarazi dio: «... Iruñean erraten ziguten '¡Esto no es el País Vasco! ¡No, esto no es Euskadi!' erran zigun batek (...) ez dakit zen erizaina edo... '¡Esto no es Euskadi!'" (Arroxa, 2. FG).

Historia hurbilean Foru Komunitateko agintaritzak euskararekin izan duen jarrerak mintzaira zilegitasunez gabetu duen testuinguru politikoa sortu du, non euskaraz egitea nafarra izatearekin guztiz bat ez datorren ezaugarria balitz edo Nafarroan euskara tokiz kanpo balego bezala. Iruñean euskaldun haztea zalantzan jartzen duen erdal logikak agertzen duen harridurari eta oharpenari aurre egin behar diete guraso iruritar batzuek.

Bourdieu (1989) gizarte, politika eta ekonomia inguruabarrek hizkuntza elkarrekintzei ezartzen dizkieten hertsiduren eredu teorikoan «langue légitime» kontzeptua darabil gizarte zilegitasuna eta baliagarritasuna duen mintzaira adierazteko. Mintzaira legezko —ofizial— hori hizkuntza erabilera oro balioesteko arau teorikoa bihurtzen da (1989: 27) eta haren zilegitasuna aginduz ezarria baino gehiago «marché linguistique» edo hizkuntza azoka delakoan esleitu zaizkion balioek eta aukerek ekarria da. Arestiko lekukotasunean ospitaleko —hau da, zerbitzu publiko bateko— langileek iradokitzen eta ohartarazten dutena, agertzen duten harridura... hori dena hizkuntza zilegiaren ikusmoldeetik egiten da eta horren bidez ere gauzatzen da, Bourdieuren iritziz, hizkuntza zilegia ezartzen duen menperatze sinbolikoa, «domination symbolique» (ibid., 34-38). Halaz, erdararen erabateko nagusitasuna ontzat ematen duen ikuspegitik hurrak euskaldun haztea jarduera ez-egokia da, eta hori egiten duten gurasoak arduragabetzat ager daitezke hurrek ezinbesteko duten hizkuntza (zilegia, hots, gaztelania) goiz eta ongi ikasiko dutenez axola ez dielakoan: «... toutes les pratiques linguistiques se trouvent mesurées aux pratiques légitimes, celles des dominants...» (ibid., 40).

5.3.6. Belaunaldien eta guneen hausturak eta josturak

Irurritako historia hurbilak eta herritarren lekukotasunak erakutsi dutenez, egungo iruritarrek oro har duela lau hamarkadakoek baino askoz balio handiagoa aitortzen diote euskarari.

Euskararen belaunez belauneko jarraipena bermatzean inplikatuena dauden lagunek herriari eta bertako kulturari atxikimendu handia diote. Erraterako, Mireni eta Nikolasi (3. FG) Iruritako kontuak, toponimoak eta oikonimoak galtzeak ardura die eta alabek ikas ditzaten nahi dute. Laurarendako (7. FG) bere alabak herriko bizitzan erroturik haztea eta bertze haurrekin biltzea, «... beraien arteko harremana (...), herriko giro hori (...) arras garrantzitsua da». Axun (I. FG) ere pozten da alabak herrian eskolatu zituelako eta, horri esker, herriko bertze haurrekin adiskidetu direlako. Guztiek euskara iruritarra izateari lotua ikusten dute.

Hurbilen ataltxoetan Iruritan gertatu den euskararen gizarte berreskuratzeak erkidegoari ekarri diona eta haren esanahia aztertuko ditut.

5.3.6.1. Euskara berreskuratu, herria osatu

«... herriko giro hori arras garrantzitsua da»

Ego belaunaldiak gizaldien arteko hizkuntza etena, herriaren zatiketa eta iruritarren arteko bereizkeria bizi izan ditu. Orain berrogei urte Iruritako gizartea denboran —gizaldietan— nahiz espazioan —biziguneetan— arrunt hautsirik zegoen. Sánchez Carrionek (1972: 118) dokumentatu bezala, herrian euskara baizik ez zekiten aitona-amonak eta euskara ulertzen ez zuten neska-mutikoak bizi ziren elkarren aldamenean, herrigune arras erdaldundua eta basabazter euskaldun hutsa bata bertzearen aiekan. Errekako haurrak ez ohi ziren herrikoekin batzen eta biltzen zirelarik ez ziruditen herrikideak, bi gizarte desberdin baizik, talde bakoitzak bere hizkuntza zuela eta bere aldera zebilela. Aurreko ataletan Iruritarren haustura horrek ego belaunaldian eta aurrekoan izan duen ondorioa xeheki azaldu dut: batzuei bazterkeria nahiz sufrimendua erdaraz ongi ez jakiteagatik eta bertzeei gabezia mina familiaren hizkuntza galdua izateagatik.

Iruritan euskararen jarraipenaren etenak hutsarteak sortu zituen belaunaldietan bezala guneen artean ere, gizartearen bereizketa eta herriaren zatiketa. Iruritarren historia hurrekoan barna egin dudan ibilbideak erakutsi duenez, herrian aspalditik indarrean zeuden zenbait dikotomia banatzaile (Karrika/Erreka, erdara/euskara, bai eta generoen arteko bereizketa ere) egun nolabait gesaldu dira eta herriaren osaera ekarri duen berdinkatze horretarako euskara funtsezkoa izan da.

Galtzear zegoen mintzairari iraunarazteak belaunaldien hizkuntza atxikidura eta herriko biziguneen uztardura ekarri dio herriari. Bilakaera horretan ego belaunaldia izan da euskarari eustea erabaki, hizkuntzari elkartasun balioa esleitu eta horren bidez herria osatzen lagundu duena. Hau da, euskararen berreskurapenak herriaren osaketa, belaunaldiak eta biziguneak bereizten zituzten hausturak gainditu eta gizartea berriz bateratzea izan du ondorio.

Spolsky (1996: 8) hebreeraren indarberritze prozesuan mintzairak bereganatu zituen solidaritate balioetan ikusi du gakoa, elkartasun balio horiek hizkuntza nagusiarren balio instrumental-pragmatikoei gailendu zitzaizkiela: «Successful language revitalization depends (...) on establishing high enough solidarity value for the language being revised to overcome any power or economic effects of the competing language».

Iruritan ere nik horrela dakusat, euskara iruritarren arteko elkartasunaren balioaz jabetu da eta egun iruritarra izateari lotua, areago ere, iruritarra izateko bidea da.

Hizkuntza historikoak erkidegoaren osatzaitako izan duen balioa aipatuta ere, ez nuke herriaren gainean gatazkarik gabeko irudi geza eman nahi.

1970eko hamarkadan Iruritako egoera soziolinguistikoa eta Susan Galek (1979) Austriako Oberwart/Felsöör herrian etnografiatu zuena alderagarriak dira baina hagitx bilakaera desberdina izan dute. Galek hizkuntza historikoaren erabilera ohikoa hizkuntza nagusiak ordezkatzean bizimodu modernoarekin batera eta belaunaldien segidaren logikoak ezinbestez zekarren aldaketa zekusan. Iruritan aldiz, belaunaldi bat izan da bertako hizkuntzari bertze esanahi eta balioespena eman diona eta, mintzaira hori lehen hizkuntza izan gabe ere, bere umeak hazteko nahiago izan duena.

Euskararen belaunez belauneko jarraipenak izan duen emaitza eta esanahi nagusia honela emanen nuke aditzera: azken hiruzpalau hamarkadetan Iruritako euskararen jarraipenak mintzairaren belaunez belauneko urradura estekatzea eta herria osatzen duten guneen arteko haustura berriz jostea ekarri du. Hipotesi horren alde 2011 urteko Orakunde eguneko lekukotasun etnografikoa ekarriko dut hona.

5.3.6.2. *Haur iruritarren besta. 2011ko Orakunde*

«Iruritarrak gara, herritik beldu gara...»

Kulturaren ikerketan bestak gizataldeen adierazpen esanguratsuak izaten dira eta horiei erreparatzeak egunerokotasunean erraz azaleratzen ez diren zenbait alderdiri behatzea ahalbidetzen du. Nafarroako bestez ari delarik, Jesús M^a Usunariz (Zenbaiten artean, 1996: 466) historialariak honela dio:

Más allá del análisis meramente folklórico, la fiesta puede sacar a la superficie elementos inesperados que no aparecen con asiduidad, o si lo hacen, es de forma esporádica e imperceptible. De lo que estamos hablando unos y otros, antropólogos e historiadores, es, al fin y al cabo, del estudio de la cultura de las sociedades. Un estudio que no sólo contempla la reconstrucción y descripción de determinados ritos, sino que debe estudiar su evolución, el cambio. La fiesta, como la sociedad, como las instituciones, como la economía..., se transforma y sufre constantes trastoques a corto, medio y largo plazo.

Etnografiaren bidez euskararen iraupena, jarraipena edo transmisioa jorratu duten lan batzuek (Sánchez Carrión, 1981a; Del Valle, 1988; Erize, 1997; Hernández, 2007) besta, erritu eta ospakizunei bereziki so egin diete ohitura eta ekintza erritualetan komunitateak bere burua nolabait agertu, irudikatu eta eraldatu egiten duelako:

... es precisamente en ese proceso de génesis, elaboración y materialización de pautas y normas para la comunidad emergente en el que se hace consciente el papel que toda acción o actividad social juega en la labor de construcción, así como el peso que en este proyecto adquiere la historia cultural de cada uno de los conceptos y variables implicados en esa misma tarea (Hernández, 2007: 449).

Nik haurrak protagonista nagusiak dituen Orakunde ospakizuna hautatu dut. Caro Barojak (1965: 80-82) jaso duenez, literatura antropologikoak erruz ematen ditu inauteri garaiko oilarrari lotutako besta eta ohituren aipamenak. Nafarroako hainbat tokitan

(Bidankozen, Garinoainen, Erromantzatuan, Allon... eta Baztanen) dokumentatu dira halako ohitura eta ospakizunak. Mariano Izetak (1999: 69) argitu bezala, «... Iñaute aintzineko hiru ortzegunek bazeuzkaten beren izenak eta bai berezitasun bat ere». Lehendabiziko ortzeguna *Gizakunde* deitzen zen eta horretan «... gizonak egiten zuten besta». Bigarrenari *Emakunde* erraten zitzaion eta «... emaztekiek ospatzen zuten billera». Hirugarren ortzeguna *Orakunde* zen, «... denen besta» (cf. Caro, 1965: 383).

Izetak aipatzen zituen hiru ortzegun horietatik lehenbiziko bien, Gizakunderen eta Emakunderen ospakizuna «... aspaldion galdu da, beharbada mende hontan [XX. ean] sortu garen guztiok ez dugu bi ortzegun hoiien ohiturak ezagutu izanen» (Izeta, 1999: 71). Orakunde eguna da irau duen bakarra «... ez beharbada lehenago bezala, baina oraindik [1974an idatzi zuen] besta honek badu indarra eta Baztango herri guzietako hurrek egun hontan besta ederra egiten dute» (ibid.).

Orakunde, *Egun ttun-ttun* deitua Arizkunen eta *Oilardantza* Erratzun, hagitz besta errotua da Baztanen. Izetak (1999: 69-70) honela deskribatu zuen XX. mendearen lehen hamarkadetan Elizondon ospatzen zen Orakunde besta:

“Orakunde” egunean mutiko guziak eskolan biltzen ginen eta goizeko be-deratzietan abiatuko ginen eta denak “prozesionean”, bandera aintzinean, txistulariek, maixu, herriko alkate, apezka eta mutiko guziak lerroan, joaten ginen elizara.

Meza ondoan herriari itzulia, “puskek” eta sos biltzen, txistulariek soñu alaiekin eta holaxe eguerdi arte. Biltzen zenarekin, txistor, zinger, arroltze eta ematen zutenakin, ostatuan bazkaria. Mutiko guziak han bildurik beren maixu, herriko alkate eta apezka ere denak mahai inguruan yarririk (...). Erran dezadan ere neskatikoak ez zirela bazkarian sartzen, hauek arratsaldeko dantzian bakarrik aritzen baitziren.

Bazkalondoan biltzen ginen herriko plazan eta han “ollar-yokoa” ospatzen zen (...). Plaza buruan lauze bat kendu, zilo bat egin eta barna hartan ollarra sartu, lurrez estali eta burua bakarrik agertzen zitzaiola. Plazako bertze muturrean mutiko taldea, begiak oihal batekin estaliak eta zurezko ezpata eskuan. Maixuaren esku-zartaren soñua entzunik, denak abiatzen ziren ollarraren billa eta itsu-itsuan deus ikusi gabe. Ollarraren burua ezpatarekin ukitzen zuena izanen zen irabazle eta ollarra beretako (...).

Ollarra harrapatzen zuena izaten zen “danbolin-nausi” eta bere gogoko neskatikoa hartzen zuen laguntako “danbolin-etxeokandre” bezala. Neskatikoak ezarriko zuen xingola bere soin-buruan eta holaxe “soka-dantzan” biek aintzindari eta bertze gaiñerako mutiko eta neskatiko denak parekatuak heken gible-
tik soka-lerroan yarraikiz.

Egun, moldaketa batzuk gorabehera, Baztango herri guztietan ospatzen da Orakunde. Iruritarrek, zaharrenek ere, besta egun hori ezagutu dute. Garai batean, Izetak dioen bezala, besta batik bat mutikoendako bazen ere, denborarekin neskatikoak ere hasi ziren parte hartzen puska-biltzean, bazkarian eta oilar-jokoan. Jakinarazi zidatenez, Elizondon 1967an hasi zitzairen neskatikoei bestan parte hartzeko aukera ematen (LK, 2011-3-3. Cf. Santamaría & Ondikol, 2006: 46-47). Erratzun, JI berrie-
maileak hala erranda, askoz geroago, 1990eko hamarkadan. Iruritan ego belaunaldiak ez du nesken baztertzea ezagutu: «... guk beti neska eta mutikoak elkarrekin, eta jo-
koak... pues orain bezalatsu izango ziren» (Arroxa, 2. FG. LK, 2011-3-3).

Bertzalde, gaur egunean Iruritako haurrek Orakunde bezperan Errekako baserrietara joaten dira puska eske. Ohitura hori ere ez da aspaldikoa. Ego belaunaldikoak eskolako ikasleak zirelarik herriko haurrak ez ziren bordetara joaten (ibid.). Aurreko ataletan azaldu bezala, Iruritako Errekako haurrek Baigorriko eskolan ikasten zuten 1996 artio. Segur aski, auzoko eskola itxi eta ondoren bordetako ikasleak herriko eskolara biltzen baitziren M^a Eugenia Urrutia zuzendariari egokia irudituko zitzaion haur guztiek batera ospatzea eta Orakunde egunaren bezperan ikasleak Errekako baserrietara joatea eskean. Urteen buruan ohitura bihurtu zen.

2011ko otsailean eskolako guraso elkarteak Orakunde bezperan bordetara bisita egiteko plana prestatu zuen, urtero bezala; egitaraua orrialde batean idatzi zuten. Errekako 23 baserrietara joateko asmoa zuten. Ezkerreko Errekan hauek bisitatu nahi zituzten: Arretxea, Goienetxea, Juanikotenea, Legarrea, Iturriondoa, Aztaberria, Baigorri eta Larrakartea. Meakan edo Erdiko Errekan bertze hauek: Maiora, Gartzienea, Arkialdea, Laurienea, Arribillaga, Oiatenea eta Barrensoroa; eta Eskuineko Errekan, azkenik, hurrengo hauek: Arrimitxeo, Mariurdinenea, Gernuzarrea, Peruenea, Gartzipotenea, Zapatagillenea, Aroztegia eta Goiensoroa.

Horretarako 62 ikasleak, 7 maisu-maistrak, 19 guraso (auto gidariak) eta ni hiru multzotan banatu gintuzten. Ni Eskuineko Errekako bordetara joateko taldean sartu ninduten. Talde bakoitza sei-zazpi autotan bereizi zituzten bai eta zehaztu ere gidari nor izanen zen eta trikitia nork eramanen zuen. Azkenik, mozorroturik joateko oharra egin zuten.

2011ko martxoaren 2an, asteazkenarekin, 15:00etan geratuak ginen Iruritako Errebote plazan baina goizean ama batek abisua eman zidan elurra zetorrela eta bertan behera utzi behar izan zutela bordetara joatearena, eguraldi txarrarekin baserrietako pistak ez baitira haurrekin ibiltzeko on.

Hori jakinda zapuzturik gelditu nintzen, Orakunde urtean behin egiten baita eta herriguneko iruritarrak bordetara joaten diren eguna galtzea nire ikerketarako galera ordezkazina iruditu baitzitzaidan. Amek erran zidatenez, haurrak ere etsirik gelditu ziren baserrietara bisita ezin egiteagatik pena handia hartuta.

Errekako familiek ere atsekabeturik haurren etorrerarik gabe gelditzeagatik. Borda gehienetan adineko jendea bizi da eta zinez eskertzen dute urtean behingo bisita hori. Baina neguko elur giroak herriko haurrak bazterretxetara joatea galarazi bazuen ere, ez zituen bordetako iruritarrak izutu eta batzuek puska eske hurbiltzekoak zitzaizkien haurrendako prest zituzten jan-edanak nahiz diru emaria herrira, Gizarte Bilgunera, jaitsi zizkieten eta han egin zuten atsalaskaria denak bildurik.

Halaz, haurrak baserrietara eskean hurbiltzearen ohitura bete ezin izateak aukera eman zidan aztura horren azpian dauden elkartasun lotura sakonei antzemateko.

Haurrak joan beharreko baserrietako bat Axun eta Mateorena (I. FG) zen. Gainera, Irunereren, haien bigarren alabaren gelakideak ziren sar-atera egin beharrak. Irunek hamaika urte ditu eta eskolako azken ikasmailan dago; heldu den ikasturtean Lekarozko institutura joan baita aurtengo Orakunde da ikaskideak puska eske hurbilduko diren hondar aldia. Irunereren gelakideak tristura handiz gelditu baitira Axunek egun batean bazkaria antolatuko die bordan:

Aurten ez ziren joan denboragatik eta horrela baina bai, bai, joaten dira eta orain egin beharra dut, ez dakit noiz... [Irunek] du azken urtea Iruritan eta klaro, justo tokatzen zaie gure etxera etortzea bere gelakoak. Eta joe, kristoren pena zuten ezin zirela joan (...) eta erran nuen nik 'bueno, bueno, egingo dugu ekainean'.

Bazkaltzera gonbidatuko nituela egun batez gelakoak (...) orduan haserre gelditu ziren ezin zirela joan baserrietara ez dakit zer eta... Es que arras gustoko izaten dute Orakunde (...) eta baserriko jendeak aunitz-aunitz (Axun, I. FG).

Gauzak aldatu dira Iruritan. Gogoan dut Axunek bere haurtzaroko Orakundez errandakoa: Baigorriko eskolako haurrak egun horretan baizik ez zirela herrira jaisten eta orduan sentitzen zirela «... baserritarrak baino baserritarrak»: «Egoten ginen baserrikoak multzo batean eta herrikoak bertzean. Ez ginen elkartzen ere (...) ez genuen harreman ona. ¡Qué va! (...). Nik ez dut bat ere oroitzapen ona herrikoak eta baserrikoekin, o sea, txikitán... bereiztuak sentitzen ginen» (Axun, I. FG).

20I In martxoaren 3an, ortzegunarekin, Orakunde eguna ospatu zen. Neska-mutikoek eguerdian kalejira egin zuten herriguneko auzoetan barna gurasoekin (amekin batez ere), maisu-maistrekin eta trikitilariekin. Amek oraindik eskolan hasiak ez ziren ume txikiak eraman zituzten bertze haurrekin eta bestarekin ohitzeko. Ikasleak herriko karriketako etxez etxe diru eskean ibili ziren kalejiran kantu hau abesten zutela:

Egun ttun-ttun,
bihar ttun-ttun,
etzi ere ttun-ttuna.
Etxe hontan
ardoa bada
nik ez dakit zenbana.
Zenbana den jakiteko
eman ttantatto bana.

Bizar egiteko
xingar puska bat.
Harekin jateko
ogitarteko bat.

Iruritarrak gara,
herritik heldu gara.
Poltsa badugu,
dirurikan ez.
Urtets, urtets,
urtetsa nahi dugu!
Dirurik ez dugu!

Aquí somos cuatro,
cantaremos dos.
Una limosnita
por el amor de Dios,
por amor de Dios.

Egun haurrak eskean dabiltzalarik dirua baizik ez dute jasotzen, ez bertze *puskarik*. Herriko jendeak ongi erantzun dio haurren eskeari eta bezperan Errekako baserri-rrengandik eta egunean berean herriguneko etxeetan 800 euro baino gehiago bildu zituzten. Diru horrekin haurrak eta maisu-maistrak bazkaltzera joan ziren Orakunde egunean Iruritako jatetxera. Urtetan eskolako maistra izandakoa, M^a Eugenia Urrutia ere, orain erretiroa hartua, gonbidatu zuten. Arratsaldean Errebote plazan oilarra ezpataz ukitzeko jokoa eta bertze batzuk egin zituzten ikasleek guraso eta maisu-maistrak inguruan zituztela. Ospakizunetan euskaraz aritu ziren. Testuinguru horretan hartzen du zentzua Baztango eskola ttiketako maisu-maistrek euskara eskoletan sartu izanaren gainean erran zutena: herriko «... giroa euskaldundu da» (LK, 20I0-10-3).

Orakunde egunean familiak (amak bereziki), maisu-maistrak eta herri osoa aktiboki inplikatzeko dira haurrak protagonista diren besta-ohitura horretan. Duela hamar-kada bat pasatxo egindako aldaketak, Orakunde egunaren bezperan herriko eskolako haurrak puska eskean bordetara joateak alegia, herriaren osaeraren alde jokatu du eta hori ezin zitekeen agi hala herriguneko eta Errekako iruritarrak, nola adinekoak eta haurrak bereizten zituen hizkuntza haustura josi ezean. Haurrek adineko jendearengana jotzen dute, herrikoek bordetara. Ohitura bihurtu den jarduera horretan belaunaldi

eta bizitoki desberdinetako iruritarrak elkartzen dira, haur eta zahar, Karrika eta Erreka erritu berean partaide hartu-emanen.

Errituek komunitatearen loturak indartzen dituzte eta herria trinkotzen. Orakunde Iruritako euskararen jarraipenaren epitome moduan agertzen da, dikotomia horiek gainditzen dituen herri *performance* edo antzezpen gisa non euskara jostari bihurtzen baita, *jostari* horrek dituen bi adierak baliagarriak direla: alde batetik, euskara iruritarren belaunaldien eta guneen arteko lokarria da, harremanetarako lokailu baitezpadakoa; eta bertze aldetik, herriaren birsortze eta gozaraztea hezurramitzen duten joko, ohitura, dantza eta halakoetarako baliabidea.

6. IRUÑEKO LANDA IKERKETA

Atal honetan bigarren kasu azterketa, Iruñean egindakoa, azalduko dut. Lehenik, landa ikerketan erabilitako metodologia xeheki adieraziko dut; bigarrenik, Nafarroako hiriburuaren historia soziolinguistiko hurbilaren zertzelada batzuk emanen ditut. Hondarrean, hirugarren ataltxo jasotako datu eta lekukotasunik esanguratsuenak aurkeztu eta aztertzeari eskainiko diot.

6.1. METODOLOGIA XEHETASUNAK

Iruñeko ikerraldia 2011ko irailetik 2012ko ekainera luzatu zen, hau da, 2011-2012 ikasturte osoa iraun zuen.

Nafarroako hiriburuko familia euskaldunetako haurren hizkuntza sozializazioa aztertzeko Amaiur Udal Ikastola aukeratu nuen. Familia lagina osatze aldera azken lau ikasturteotan (2008tik 2012ra, alegia) ikastolan eskolatzeko tenorean hiru urteko ikasleen gurasoek betetako fitxak aztertu eta familien hizkuntza tipologiak ehunekotara ekarri nituen (ikus I2. eranskina). Aita-amek emandako datuen arabera:

– Bi gurasoak euskaldunak dituzten haurrak % 11,4-14 izan dira azken lau urteotan. Familia horietan —gurasoek aitortutakoaren arabera— ia guztietan hurrek euskara izan dute lehen hizkuntza.

– Guraso bat euskaraz ongi dakiena duten haurrak % 28-56,7 bitartean ibili dira azken lau ikasturteotan. Kasu horietan —betiere gurasoek diotenez— aita eta ama bereizi behar dira: euskara dakiena ama bada, gehienetan euskara eta gaztelania, biak ikasi ditu haurrak etxean. Aita delarik euskalduna aldiz, gehienetan gaztelania hutsa izan da haurren lehen hizkuntza.

– Guraso biak erdaldunak edo euskaraz ongi ez dakitenak dituztenak haurren % 30-58 izan dira.

Hala bada, ikasturtez ikasturte guraso bat edota biak euskaraz dakitenak dituzten hiru urteko haurrak % 42 gutxienez eta % 70 gehienez izan dira 2008tik 2012ra. Ehunekoak beti erditik hurbil edo goiti ibili badira ere, horiei dagozkien etxeko erabileraren datuak izugarri apaldu dira azken ikasturtean. Erran nahi baita, egun ikastolako ikaslerik txikienen familietan inoiz baino alde handiagoa dago guraso bat

edo biak euskaldunak dituztenen eta etxean euskaraz (ere) aritzen direnen artean. 2011-2012 ikasturtean hiru urteko haurren familien datuei gogo emanda, ikasleen % 58,8k ditu guraso bat edo biak euskaldunak baina ume horien etxean % 19,6tan baizik ez ohi da euskaraz egiten. Hau da, 39,2 punturen aldea dago.

Beraz, badirudi gero eta ohikoagoak direla guraso bat bederen euskaraz dakiena izan arren etxean erdara hutsean aritzen diren familiak. Hori horrela, Iruñeko kasu azterketan guraso bakarra edo biak euskaldunak dituzten familien hizkuntza elkarbitzitan eta portaeretan arakatzea bereziki ernagarria izan zait.

Ikastolako familia tipologiak kontuan hartuta, hamar familiako honako lagin hau osatu nuen: zortzi familia euskaldun ez-oso (hiru familiatan bi gurasoak euskaraz ongi moldatzen dira, bertze hiru familiatan guraso bakarra da euskaraz egiten duena eta bertze bitan —biak guraso bakarreko familiak— amek zerbait badakite baina ez ohi dute egiten) eta bi familia euskaldunberritu.

Lehen mailako datuak teknika etnografiko hauen bidez eskuratu nituen:

— *Behaketa zuzena* eta *parte hartzailea* gurasoen eta haurren arteko hizkuntza jokae-rak, helduen artekoak eta haurren artekoak aztertzeko. Gehienetan leku publiko haue-tan egin nituen: Iruñeko Iturrama auzoko Amaiur Ikastolako jostalekuan eta bertze instalazio batzuetan (atondoan, pilotalekuan, eskolaz kanpoko jardueren geletan...) eta ikastetxearen inguruko karrketan. Ikastolaren eremua bereziki interesgarria gertatu zitzaidan haurren arteko nahiz helduen arteko elkarrekintza usuen eremua delako, bai-na kasu azterketa honetan ere —Iruitakoan bezala— ikasgeletan ez nuen behaketarik egin. Ikerketaren helburuagatik ikasgelen barnean eragindako erabilerari ez, baizik be-rezko eta bat-bateko hizkuntza portaera libreari behatu nahi nion, hurrek ondoan maisu-maistrarik ez zutela.

Eskola ordutegiaren barnean zenbait jolas-ordutan izan nintzen hurrei beha. Eskola ordutegiaz landa baina ikastolan berean eguerdi eta arratsaldeetan antolatzen diren zenbait eskolaz kanpoko jarduera hautatu nituen behaketa une, hauek hain zu-zen: Ongi etorri musikaral, Pianoa, Mugitu-astindu!, Xakea, Irristaketa eta Areto fut-bola. Horietaz gain, honako hauetan ere egin nuen landa lana: ikastetxeak nahiz gura-soek antolatzen dituzten besta eta ospakizunetan (Olentzero egunean, inauteri bestan, urtebetetze atsalsakarrian...), neguko eta udaberriko oporraldietan ikastolan eskaini ziren aisialdi-programetan, eskola osteko haurren jolasaldietan eta familiek antolatzen zituzten asteburuetakoa ateraldietan (ikastolako mendi taldearen ibilaldi batean eta gu-rasoen antolatutako txango batean, hain justu ere).

Amaiur Ikastolan egindako landa lanaz gain, Iruñerrian euskaraz eskolatzen diren haur-gaztetxoek hitzun ezaugarriak zuzenean ezagutzearren 2011-2012 ikasturtean San Fermin Ikastolan aritu nintzen irakasle sei astetan (ez aldi bakar batean: 2011ko urrian eta azaroan, 2012ko ilbeltzean, otsailean eta apirilean). DBHko lehen ikasmai-lako eta Batxilergoko gaztetxoek irakaslea izan nintzen.

— *Elkarrizketa sakonak*, gidatu samarrak eta berriemaile adituei eginak baliatu ni-tuen ikerketaren zenbait arlo zehatz hobeki ezagutzeko. Berriemaile adituak Sagrario Aleman, Ane Apezetxea eta Amaiur Ikastolako bi maistra, Loredi Eginio eta Ana Los Arcos izan ziren (ikus haien zertzelada biografikoak 7. eranskinean).

— *Glotobiografiak*, familietako kideekin izandako elkarrekintzetan bilduak. Hizkuntzan ardaztutako narrazio biografiko horien ibilbidea grafikoki adierazi ditut *glotobiogramak* (ikus 9. eranskina) izeneko irudietan. Oro har, guraso baten edo bien glo-

tobiografiak uztartuta familien hizkuntza-historiak edo *familien glotobistoriak* (FGak) osatu ditut (ikus haien laburpenak I4. eranskinean. Iruñeko kasu azterketari dagozkionak II. FGtik 20. FG bitartekoak dira), bai eta haien adierazpen grafikoa ere, *glotobistoriogramak* (ikus IO. eranskina). FGak osatzeko berriemaile gehienak gurasoak (1970 aldera sortuak) izan baintuen, horien gizaldiari *ego belaunaldia* deitu diot.

6.2. EUSKARA ETA EUSKALDUNAK IRUÑEAREN HISTORIA HURBILEAN

Atalxo honetan Iruñeko kasu azterketaren aurrekari soziolinguistiko nagusiak azalduko ditut. Aitzinetik, labur-labur, zenbait ohar aztergai dudan eremuaren gainean.

Iruñea Nafarroako hiririk garrantzitsuena eta populatuena da, hiriburua. Haren merindadeak ipar-mendebaleko Mendialde osoa hartzen badu ere, hiria horren hegoaldean dago, irasail eta pagadien Nafarroa hezea akitzen denean, erran liteke.

Iruñerria eremuz aski ongi mugatua da, nahiz zedarritzea ez guztiz zehatza izan (zenbaiten artean, 1977: 10 eta 79; Jimeno Jurío & Salaberri, 1994: 40; Pérez Ollo, 2002: I5-I7; Euskarabidea & Nafarroako Gobernua, 2006: 7). Labur-zurrean, inguruko mendiek hesten duten lurraldea dela erran dezakegu. Historiatik eta soziologiatik so eginez, hiriburuaren inguruko nekazaritza lurra izan da Iruñerria (*Kokoerria* ere deitu izan dio euskaldun jendeak. Salaberri, 2000); hiriarendako jatekoak ekoizten zituzten inguruko lurrek osatutako nolabaiteko “batasuna”, *El Cocinado de Pamplona* ere erran izan zaiona (Jimeno Jurío & Salaberri, 2006: 31-32, 476 eta 477).

Iruñearen bilakabide soziolinguistikoa ez daiteke taxutu hiriak inguruko herrixkekin izan dituen hartu-emanak gogoan hartu gabe. Hiriburuko euskararen eta euskaldunen historia hurbila azaltzean Iruñerriko jendeen eraginaz hausnartu behar da baitezpada. Hala berean, hiriak ingurura bere itzala hedatu ahala, Iruñerria Iruñearen eraginak moldaturik eta hiriarekiko harremanek halakaturik garatu da. Beraz, bereiz baina elkarri eraginez bilakatu dira hizkuntza aldetik Iruñea eta Iruñerria.

Denborak aitzina eginda arras aldatu da aztergai dudan eremua. XX. gizaldiaren erdia baino lehen hiriak hiruretan hoge mila lagun baizik ez zituen eta inguruko herrixkak aldiz, nekazaritza bizi zen jendez gainezka zeuden. 1970 aldera hasi zen Iruñerriko eraldaketa sozioekonomikoagatik hiriburuak eta ondoko udalerrri batzuek (Barañainek, Zizur Nagusiak, Burlatak, Atarrabiak...) biztanleak biziki berretu zituzten eta laborantzak nagusitasuna galdu zuen ernamuintzen hasi zen industriaren aldean.

Duela hamarkada gutxi artio hiriburu xumea eta inguru arrunt laboraria zena Nafarroako biztanleen erdia baino gehiago eta Foru Komunitateko hiri-herririk handienetako batzuk biltzen dituen Iruñerri hiritartua bilakatu da egun.

Mapa Iruñerria



Iturria: García-Sanz (2002: 162)

6.2.I. Iruñeko euskaldunak, lehengoak eta oraingoak

Euskararen atzerakadak XIX. mendean egin zien koskarik handiena Iruñerria inguratzen duten ibarrei. Garai horretan zeharo eraldatu zen Nafarroako Erdialdeko hizkuntza egoera, ordura artio nagusi zen euskara gainbehera abiatu eta hainbat herri-tan galtzen hasi zen.

Jimeno Juriok (1995: 172) Iruñeko hizkuntza egoeraren eraldaketa azaltzean dioenez, XVII. mendetik hasi zen handitzen euskaraz egiten ez zuten iruindarren multzoa. Elizak Iruñean predikuak beti euskaraz egiteari utzi zion. Dena den, euskara hizkuntza bizia zen hiriburuan eta garai horretan Nafarroako herri erdaldunduetatik edo Nafarroaz kanpotik hirira bildutako erdaldun horietarik anitzek euskaraz zerbaix-

ka ikasi behar zuten halaberrez iruindar xeheekin harremanetan aritzeko. Izan ere, euskara batez ere hiritar xume edo lagunabarren mintzaira zen eta gizartearen goiko mailako kideek, eskuarki elebidunak izanik ere, erromantzea zuten maiteago (ibid., 175-6). Hala bada, euskara eta erromantzea mintzatzen ziren nafarren bereizgarria soziala zen gehiago geografikoa baino (cf. González Ollé, 1972: 41) eta gizartearen goiti egin nahi zuen nafar orok gaztelaniaren beharra zuen. Nafarroako eliteak erdararen aldera lerratzen hasiak ziren.

XVIII. mendearen bigarren erdialdean Nafarroan erdara ezartzeko politika gordindu zen. Borboitarren eskutik euskararen aurkako ebazpenak sartu ziren indarrean. Gaztelania hutsezko eskolatzea halaberrezko egin zen (Jimeno Jurío, 1997: 183-189) eta euskarazko argitalpenak debekatu. 1766 artio argitaratu ziren Iruñean liburuak euskaraz, gehienbat jesuitek idatziak, baina argitaraldiak bat-batean guztiz galarazita gelditu ziren (ibid., 156). Horrekin batera erdaldunek gero eta maizago eta ausarkiago aldarrikatzen zituzten berendako ordura artio euskara zekitenek baizik bete ezin zituzten lanpostuak, Erresumako auzitegian nahiz Elizbarrutikoan, kasu (ibid., 157-160).

Iruñeko euskaldunen artean gero eta gehiago ziren gaztelaniaz moldatzen zirenak baina oraindik euskara hiriko hizkuntza arrunta zen. Iruñeko biztanle gehienek mintzaira ohikoa zen garaian —Jimeno Jurioen (1995: 178) arabera XIX. mendea bitartean— iruindarrek non ikasten zuten euskara? Galdera horri egiten dio aurre Artaxoako ikertzaileak. Kontuan hartuta eskolan debekatuta zegoela, apezten dotrina eta alfabetatze saioak latinez eta erromantzez zirela eta Jesusen Lagundiaren ikastegian irakaskuntza gaztelaniaz zela (bertze hizkuntzetarik klasikoak, latina batik bat, baizik ez ziren lantzen), ihardesteko bide bakarra zekusan Jimeno Juriok (ibid.): «A mi entender, hay una sola respuesta válida: o la aprendían en el seno de la familia, o en la calle, normalmente en la edad infantil, como ha sucedido en el país desde antiguo».

Hau da, euskara iruindarren mintzaira ohikoa zelarik Iruñean irakaskuntza bezalaxe jarduera formal eta administratibo gehientsuenak erdaraz ziren. Hirian sortuek familian eta karrikan ikasten zuten hizkuntza eta gazte-heldutan bertara bilduek ere euskara zerbait ikasten ohi zuten hiritarrekiko harremanetan.

Baina egoera hori XIX. gizaldian batez ere hasi zen aldatzen. Euskaldun gehienak elebidundu egin ziren egunerokoak erdararen premia gero eta handiagoa baitzekarkien. Halaz guztiz, mendearen lehen hamarkadetan iruindar euskaldunak ez omen ziren gutxiengoak. Erraterako, 1811n Reille kondeak hirian zabaldu beharreko bandoak euskaraz ere argitaratzeko agindu zuen (Apat-Echebarne [A. Irigaray], 1974: 48).

Mendeak aitzina egin ahala ordea, hiriko karrketan euskara bakanago aditzen bide zen eta XIX.aren hondar hamarraldietarako iruindar gehienek erdaraz baizik ez bide zuten ihardukitzen. Euskara franko ahul egonagatik ere hiriburuko Nabarrerria, Karmen eta Santo Domingo karrketan, kasu, usu entzuten bide zen eta saltoki eta botigetan dendariak langile euskaldun bat gutxienez izaten zuten bezero euskaldunei kasu egiteko (Jimeno Jurío, 1995: 203-204). Izan ere, inguruko herrietatik hirira joaten zen jendeak ez ohi zuen bertze mintzairarik egiten.

Euskararen gibelatzearen arrazoen artean garai horretan Nafarroaren izaera eta egoera eraldatu zituzten inguruabar politiko, sozial eta kulturalen aldaketa bortitzak aipatu izan dira (Tejerina, 1992: 82-104; Jimeno Jurío, 1995: 204): garraioen hedatzea, komunikabideen ugaltzea, ekonomiaren mudantza, migrazio aukeren handitzea eta Espainian sortu zen nolabaiteko batasun eta elkartasun izpiritua, garai horretako

gerrek areagotua (Frantziako Iraultzaren ondorengo Konbentzioaren aurkako gerrak, frantsesen inbasioaren kontrakoak, Amerikako kolonien independentzia borrokek eta karlistaldiek, batik bat). Nafarroako Eliza ere euskara baztertuz joan zen eta hainbat herritan predikuak erdaraz egiten hasi ziren. Eguesibarren, adibidez, hamazazpi herritatik hamabortzeko ordezkariak kexu agertu ziren Badoztaingo parrokiarako apez erdalduna izendatua izan zelako eta, horren aitzinean, ibarreko elizez arduratuko ziren elizgizonek euskara jakin beharko zutela hitzartu zuten (Jimeno Jurío, 1997: 190).

Hala bada, eskola, eliza eta administrazioa erdaraz ari baziren, behin karrika erdaldunduz gero, non ikas eta erabil zezaketen euskara iruindarre? Oraingoan niri erantzun bakarra datorkit burura: familian. Hagitz bakanetan ordea, gehienak erdaraz aritzen baitziren. Orduan, euskaraz jabetu eta solasteko aukerak etxera mugatu zirelarik guraso euskaldunekin hizkuntza ikasiagatik ere haur iruindarrei euskaraz sozializatzeko baldintzak eskatu zitzaizkien. Mendialdean jatorria zuten baina Iruñean bizi ziren familia euskaldunei zailsko gertatuko zitzaizen seme-alabak euskaraz haztea arras erdaldundua zegoen hirian. Eman dezadan ikusbide 1899an sortu zen Alexander Tapia Perurena olerkari iruindarraren kasua. Gurasoak euskaldunak izanik, aita lesakarra eta ama goizuetarra, erdaldun hazi zen XX. mendearen hasmentako Iruñean eta euskara gaztetan ikasi zuen: «Nere gurasoak euzkotarrak eta euzkeldunak izan arren etzidaten euzkera erakutsi (...). Euzkadiko uri nagusi zar ta eder batian sortua, nere inguruan erdera baizik ez nuen aditzen... Orduan sortu zitzaidan euzkera ikasteko gogo-biziyá» (Alexander Tapia. Satrustegi, 2000: I eta 3).

Hori horrela, Iruñeko jatorrizko euskaldunak bakanduz joan ziren, txoil kasatu artio. Erraterako, Louis-Lucien Bonapartek ez zuen Iruñea (ez Bilbo ez Gasteiz) hiri euskalduntzat hartu, bertan euskaldun jendea izanagatik, haren ustez hiztun horiek ez baitziren bertakoak: «... Pampelune présenterait aussi des Basques; mais nous ne les comptons pas puisque ils ne sont pas de Pampelune» (Urquijo, 1910b: 272).

Bonapartek euskal dialektologiaren gaineko idazki eta mapetan darakutsanez, XIX. mendearen hondar aldian Iruñearen inguruan, ipar nahiz hegoaldean, euskaraz egiten zen. Hiriburutik beheiti halere, euskara gutxiengo egoeran zegoen eta 1863ko hedadura itxuratzen duen mapan printzeak margo ahulagoz tindatu zuen Iruñerriko hego alde hori, Tafallatik iparraldera hamar kilometrorra dagoen Garinoaineraino. Baina erran bezala, hiriburua erdalduntzat jo zuen, euskararen eremuan uharte erdalduntzat, euskara jadanik ez baitzen iruindarren artean hizkuntza ohikoa.

Iruñean euskara mintzo zirenak herri euskaldunetakoak ziren edo baten bat, Arturo Campion bezala, heldutan liburuen bidez ikasia. Idazle eta politikari iruindarrak, 1854an sortuak, honela zioen: «Yo nací en Pamplona, cuando ya esta insigne ciudad había completamente renegado de su lengua nativa» (Campion, 1907: 674).

Beraz, badirudi XIX. gizaldia akitu hurren zegoelarik belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa guztiz ezinezkoa zela Iruñean eta euskararen jarraipena eten zela, familia euskaldunek hizkuntza ez transmititzeagatik baino gehiago, hizkuntza familiarren bidez baizik ez zitekeelakoz transmiti. Hau da, haur iruindarrei euskara ikasi eta erabiltzeko aukerak etxera murriztu zitzaizkielakoz.

Egunetik egunera Iruñerriko euskaldun jendeak ezinago zuen bere mintzaira zernahitarako baliatu erdaraz antolatuta zegoen hiriburuan; Iruñeak erdararen beharra zekarkien Iruñerriko herritarrei. Bonaparte honela mintzo da hiri honen eragin erdalduntzaileaz: «Je considère (...) les localités de Burlada, Ansoain, Villaba, Arre etc.

comme conservant encore un souffle de vie basque, quoique jusqu'à présent elles aient été regardées tout-à-fait castillanes à l'instar de Pampelune» (Urquijo, 1910b: 283).

Nafartasunaren ezaugarri berebizikoa zen euskararen gizarte eta lurralde gibelatzeak eta haren galtzeko arriskuak Iruñeko intelektual euskaltzaleen kontzientzia inarrosi zuen. XIX. mendearen azken aldian Nafarroako Euskarazko Elkargoa —*euskarroak*— eta haren *Revista Euskara* aldizkaria sortu ziren. Halere, Jimeno Juriok (1997: 206) dioenez: «El movimiento a favor de la lengua vasca apenas interesó al pueblo, convencido por los políticos de que su salvación y su futuro era el castellano». Intelektual euskaltzale horiek, heldutan ikasi zuen Arturo Campionek izan ezik, ez zekiten euskaraz. Erizek (1997: 513-521) Eusko Pizkundeko (1878-1936) Nafarroako mugimendu euskaltzalearen ahultasuna eta mugak aztertzean honela dio: «... Errepublikara garaiko Lizarra eta Iruñeko euskal eskolak bezalako ekimenak» kendentuta, oro har «eragin txikia erdietsi zuten nafar euskaltzaleek erdal komunitatean» eta bertzalde, «... euskaldunengan nahikoa eraginkortasun izango lukeen mugimendu egonkorra sendotzea» ere ez zuten lortu (ibid., 520).

XX. mendea hasi berrian Julio Urquijok (1910a) euskararen gibelatzeaz ohartarazi zuen. Bonapartek hizkuntzaren mugak marraztu zituenetik mintzaira larriki joana zen atzera eta urte gutxitan herriotan eman zuen euskara galdutzat: Jaitzen, Argiñaon, Munarritzen, Genben, Goñin eta Bidaurren. Hizkuntzaz gabetutako herriak metatuz joan ziren (A. Irigaray, [Iruñe] 1925 eta berriz 1930, 1935 eta 1956) eta euskara iparralderago bilduz. Bonifacio Echegarayk (1933) honela izkiriatu zuen arranguratsu euskara Iruñetik Mendialdera arrapaladan uzurtzearen karietara:

Han pasado treinta y seis años desde que estuve por primera vez en Pamplona. El tiempo transcurrido de entonces acá supone algo en la vida de un hombre, pero nada o muy poco en la vida de un pueblo. Y, sin embargo, ha sido suficiente para que el euskera, que por aquellas calendas vivía en lugares visibles desde las murallas de la antigua Iruña, haya perdido terreno casi en toda la zona intermedia entre los confines de Francia y la capital de Navarra.

Halaz guztiz, euskara behin ere ez da Nafarroako hiriburutik guztiz desagertu. Iruñeak eta inguruko herrixkek bilakaera soziolinguistiko desberdina izan zuten eta hiriburua erdaldunduta zegoelarik Iruñerriko hainbat jende euskalduna izaten segitzen zuen. Inguruko herrietako nekazarien bilgune zen Iruñea eta bereziki Gaztelu Plazan eta San Nikolas karrikan elkartzen ziren larunbatero. Euskara ez zen erabat arrotza hiriburuko plazan baina arunt apaletsia zegoen. Esanguratsuak dira Jimeno Jurioren (1995: 204) hitzok: «El vascuence sobrevive en el suburbio y en el servicio doméstico».

XX. mendean sartuta, inguruko herri txikietatik hirira biltzen ziren laborariek ez zekien bertzelako hainbat lagunek ere (Iruñeko familia ahaltzuen neskame-morrori edo saltokietako zerbitzari aritzen zirenek kasu) euskaraz ihardukitzen ohi zuten. Hiriburuko zenbait jende apalen mintzaira arrunta izate horrek orain hiruretan hogeitau urte artio iraun zuen Caminok (2003: 22) bildu lekukotasunaren arabera:

Nafarroako herri euskaldunetan eta bereziki Aezkoan, gaurgero hilik den adineko jendeari entzun diodanez, arrunta zen 1936ko gerra baino lehen Iruñean karrikan edo dendetan euskara entzutea (...). Iruñeko parte zaharreko denda ugaritan, mandatuketari eta zerbitzari euskaldunak behar izaten ziren, bereziki aste hondarretan. Herri txikietarik joaten ziren jende euskaldunei zerbitzua behar

bezala emateko, euskaldunak nahi izaten zituzten dendetan; ez du horren aspaldi, gainera: 1950 urte ingurura arte iraun omen zuen ohitura horrek.

Joxemiel Bidadorrek (2001, 2003) Gerra Zibila hasi artio hiriburuko egunkarrietan euskaraz argitaratzen zuten artikulugileen berri eman zuen. XX. mendearen lehen hamarkadetako Iruñean bazen, bere ttipitasunean, euskaraz bideratzen zen kultura eta artean euskaraz idazten zuten iruindarrak ere baziren: Pablo Fermín Irigaray *Larreko*, Alexander Tapia Perurena, José Aguerre Santesteban *Gurbindo* eta Saturnino Ibarrola, bertzeak bertze. Honela idatzi zuen Arturo Campionek 1910ean *El Econ* (Bidador, 2001: 27): «El elemento vascón en Pamplona es mucho más numeroso de lo que a primera vista parece. En él se encuentran personas de distinción y viso, además de otras muchas de la honrada clase popular».

Baina hizkuntzarendako babes instituzionalik ez egoteak eta euskararekiko gizarte gutxiespenak euskaldun jendea erdaldunen aitzinean lotsarazi eta, azkenean, mintzaira uztera bulkatu zituen, arbuioa barneratuta. Honela zekusan A. Irigarayk (1935: 604) Iruñerriko herrixketako euskararen jarraipenaren etena: «Viendo que en el cuartel y en la escuela eran los vascos objeto de befa y pitorreo, y que en la capital se le tenía al de los alrededores de Iruña por ser un bárbaro e incapaz de educación, es entonces cuando aquel apego a su idioma se ha tornado en menosprecio, y ha procurado no transmitirlo a su hijo».

Euskara isilarazi zuen Gerra Zibilaren ondoko berrogeizaroak indarra hartu zuen Iruñeko karriketan. Horrek errotik eten zituen gerra aurretik, Errepublikaren garaian, Eusko Pizkunde delakoak hasitako euskal kulturaren mugimendua bai eta euskararen eta euskarazko irakaskuntza ekimenak ere, Iruñeko Euskal Eskola barne. Abertzaletasuna eta euskaltzaletasuna odolusturik geratu ziren eta garbiketa ideologikoaren ondotik errepresioa eta izua izan ziren hurbilen hamarkadetako ezaugarria.

1956an Iruñeko zenbait euskaltzalek (horien artean Miguel Javier Urmenetak eta José Aguerrek) Vianako Printzea Erakundearen barnean *Euskera Bizkortzeko Saila* sortu zuten: «Su misión inicial fue importantísima: romper el hielo de infamias y prejuicios vertidos contra la lengua de los navarros» (Jimeno Jurío, 1997: 231).

1960ko hamarraldian gau-eskolen eta Gerra Zibilaren osteko lehen ikastolen sorrerak Iruñeko euskararen bilakaeraren mugarria ezarri zuen. Lehen urte horietan helduen euskalduntze-alfabetatzeko saioak eta haurrendako euskarazko eskolak antolatzen hasi ziren, baliabide urritasun handiz eta batzuetan ezkutuan. Iruñeko lehen ikastola sortzeko saiakera 1963an izan zen baina ateak zabaldu baino lehen Francoren Gobernuak itxi zuen. 1965ean Uxueko Andre Maria Ikastola hasi zen eskolak ematen Iruñeko Butzuzuria karrikan. Horretatik 1970ean San Fermin Ikastola izanen zena sortu zen, Zizur Txikian. Gero, Uxueko Andre Maria Ikastolak izena aldatu zuen eta harrezkero Paz Ziganda Ikastola erraten zaio. Hiriburuko horiekin batera Lizarran, Tafallan, Etxarri Aranatzan, Elizondon eta Leitzaan ere sortu ziren ikastolak (Jimeno Jurío, 1995: 232-233) eta 1972an Arturo Kanpion euskaltegia.

1970eko hamarkadan Iruñerria izan zen Nafarroako industrializatzeko berant horren eragile nagusia. Eraldaketa ekonomikoak Nafarroatik bertatik nahiz kanpotik jende langile ugari erakarri zuen lantegi gunetara. Iruñeko auzo berriak (Arrosadia, Txantrea, Arrotxapea, Sanduzelai eta Donibane) erruz hazi eta hamarkada gutxitan hiriburuko biztanleak anitz emendatu ziren: 1940 urtean Iruñeak 61.188 bizilagun zituen, 1950ean 72.394, 1960an 97.880, 1970ean 147.168 eta 1980an 183.126 (ibid., 236).

Hiriburua eta inguruko hiribilduak handitzearekin Iruñerriak Nafarroan zuen garrantzia demografiko erlatiboa nagusituz joan zen: 1975ean nafarren % 45,42 bizi ziren Iruñerrian eta 1991ean aldiz, % 51,11 (ibid., 238).

Iruñeko egoera soziolinguistiko hurbilari dagokionez, 1970ean Sánchez Carrionek (1972) landa azterketatik kanpo utzi zuen Iruñea, hiriburuan Francoren agintaldiko lehen ikastola 1965ean zabaldu bazen ere eta 1969-1970 ikasturterako 348 ikasle, 12 andereño eta 3 egoitza bazituen ere (López-Goñi, 2002: 250). Euskarak herria/hiria eta baserria/karrika bereizketak gainditzen hasiak zituen eta orduko gertakari hiritarra ere bazen.

Kuantitatiboki ere ez dakigu Iruñean zenbat euskaldun ziren. Irizarrek (1973a) 1970. urtean ziren euskaldunak kalkulatu zituen baina anarterainoko joerara lerratuz ikerketa bertako euskara gutxi-asko mintzatzen zen eremura mugatu zuen eta Iruñerako ez zuen kopuru zehatzik eman. Hala ere, euskara hiztun berriak irabazten ari zela nabarmendu zuen.

Jose Anjel Irigaraik *Euskera eta Nafarroa* lanean 1970eko hamarkadaren hasieran euskara modernitateari lotzeko eta honi dagokion bizimodu eta lan moldeei egokitzeko zeuden behaztopa larriak aipatu zituen eta, horrekin batera, Nafarroako euskararen galtze prozesu historikotik abiatuta euskararen egoera indartzeari eta mintzairaren berreskuratzeari lotzen zitzaizkion elementuak azaldu zituen lehen aldiz modu garbian: «... erdal eskualdeko iri gotorrenetan euskalduntze bat gertatzen ari da, nagusiena Iruñean, baina bai eta Agoitzen, Lizarran, Tafallan eta Tudelan ere (...) oztopo eta esi guztien gainetik, borondate gero eta sakonago bat agertzen ari dela itsuak ere badakusa» (Irigarai, 1973: 43).

Euskaltzaindiak argitaratutako *El libro blanco del euskera* (1977, euskaraz 1978: *Euskararen liburu zuria*) eta *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (1979), lanetan euskararen atzerakadaren joera historikoarekin batera euskararen indartzeko gizarte joera berriaren seinaleak are argiroago agertu ziren. Baina Nafarroako hiriburuan euskara zer nolako gizarte gertakaria den ezagutzeko 1980. hamarkadaren erdira artio itxoin behar da.

Jesús Azconak *Límites geográfico-sociales del euskera en Navarra* ikerlanean euskararen egoera, batik bat irakaskuntzan, xeheki arakatu zuen. Antropologo nafarrak zuzendutako ikerketak XX. mendearen erdialdetik aitzina Iruñean euskararen egoera ukitu zuten aldaketa sozial, ekonomiko eta politiko batzuk aipatzen ditu: 1) hizkuntzaren balorazioan eta irudi sozialean gertatu zen aldaketa; 2) ikastolak eta gau-eskolak sortzea; eta 3) horien ondorioz, euskararen funtzio komunikatiboaren aldaketa zantzuak (Azcona, 1985: 386): «... puede suponerse hipotéticamente que los dos tipos de fenómenos anteriormente citados producen, aunque muy lentamente y sólo pueda observarse en situaciones sociales muy concretas y muy poco generalizadas, un cierto cambio en la función comunicativa de la lengua: alguna cuadrilla de amigos jóvenes en sus ratos de ocio».

Ia guztiz erdalduna zen Iruñerrian Azconak euskararen aldeko balorazio, atxikimendu eta ekimen berriak kausitu zituen. Eskola publikoari dagokionez, Iruñerrian euskarari emandako baliabideak eskastzat jo zituen ikerketak (ibid., 380). 1985ean irakaskuntzaren egoera honako hau zen:

Iruñerriko bi eskolak baizik ez zuten lerro elebiduna eskaintzen: Barañain-2k eta Berriozarkoak, OHO osoa euskaraz eskaintzeko lerroa 1984-85 ikasturtean oraindik osatua ez zutela. Bien artean 200 ikasle ere ez zituen hartzen euskarazko irakaskuntzak.

Lau eskolak baino ez zuten euskara ikasgaitzat eskaintzen: Burlatako Hilarion Eslavak eta Atarrabiakoak OHO osoa, Iruñe-Uhartekoak eskolaurrea ez gainerako OHO osoa eta Antsoaingoak OHOk lehen lau mailak (eskolaurrea eta OHOk gainerako mailak ez). Lauren artean 100 ikasle ere ez zituen biltzen euskararen irakaskuntzak.

Ikastolei doakienez, Iruñerrian bederatzi ikastola zeuden: 1) Eskolaurrea baizik hartzen ez zutenak: Barañain, Zizur eta Berriozarkoak. 2) Hirugarren maila bitarte hartzen zuena: Iruherri. 3) Seigarren maila bitartekoak: Francisco de Jaso eta Herri Ikastola; eta 4) OHO osoa ematen zutenak: Paz Ziganda, Udal Ikastola eta San Fermin Ikastola (azken hau BBB euskaraz eskaintzen zuen Nafarroako ikastetxe bakarra zen. BBBko 166 ikasle hartzen zituen 1984-85 ikasturtean). Horren kariaz honela zioen ikerketak (Azcona, 1985: 391-392):

La ikastola San Fermin es el único centro de BUP en el que se puede estudiar en euskera (...) el sistema educativo navarro es discriminador con quienes quieren estudiar en euskera el BUP, en mayor cuantía aún que lo es en los niveles de EGB y preescolar. Y es discriminatorio a través de dos ejes que se refuerzan en su discriminación: están más desfavorecidos en su posibilidad de acceder a estudiar BUP en euskera los menos potentes económicamente hablando [San Fermin Ikastolako hileko kuota handi samarrak omen ziren] y están más desfavorecidos los que viven en la periferia navarra que los que viven en Pamplona. Con lo cual los más desfavorecidos absolutamente son los que habitando en la periferia Navarra tienen escasos recursos económicos. Obviamente, la discriminación no es la que opera la Ikastola San Fermin, sino el sistema educativo navarro en general.

Hala bada, BBB euskaraz ikasteko aukera urri-urria eta erabat baztertzaila zen. Bertzalde, unibertsitate aurreko ikasturtea, UBI, ez zen euskaraz egiterik Nafarroan.

1978tik 1984-85 ikasturtea bitarte Iruñerriko ikastoletan OHOn eskolatutako haurren kopuruak goiti egin zuen etengabe. Halere, ikerketak ikastolen egoera zaila eta, oro har, Iruñerriko herritarrek euskarazko irakaskuntza hautatzeko nozitzen zuten bereizkeria utzi zituen agerian (ibid., 390):

Las ikastolas se encuentran ante difíciles problemas económicos y financieros, agravados si cuentan con locales propios. Lo cual repercute en una discriminación económica de los que quieren estudiar en euskera, dada la escasez de puestos en línea bilingüe pública. Además, algunas ikastolas se encuentran con dificultades para la regularización de la situación académica (legalización).

Laburbiltzeko, Azconak Nafarroa osoan euskaraz zuen gizarte egoera aztertu eta ondoan, bi dinamika desberdin bereizi zituen: oraindik euskara galtzen ari zen landa eremu euskalduna, Mendialdean; eta euskararen berreskurapena hasia zen hirigune erdaldundua, Iruñerrian.

1986an, Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko Foru Legea onartu zuenerako egina zen biztanleen errolda, lehen aldiz euskara jakitearen gaineko galderak zituen. Horiek dira Nafarroako euskararen lehendabiziko datu demolingüistiko zehatzak. Erroldaren arabera, Iruñeak zituen bi urtetik goitiko 180.078 biztalen % 6,1ek ongi zekien euskaraz eta kopurua % 13,4ra iristen zen hala moduz zekitenak ere hartuz gero (Nafarroako Gobernuak, 1988). Ordutik egindako hiru zentsu-erroldean euskaldunen eta ia-euskaldunen ehunekoek goitixe egin dute arian-arian eta azkenekoan, 2001ekoan, iruindarren % 8,8 ziren euskaraz ongi egiten zutenak eta % 19,4ra igotzen ziren zerbai-

txo zekitenak ere hartuz gero. Euskaldunen portzentajerik garaienak hiztunik gazteen taldeetan zeuden, hain zuzen ere: hamabortz urtetik beheitikoen % 18,3 ziren euskaldunak eta % 30,9 ia-euskaldunak ere aintzat hartuta (Gros, 2007: III).

Iruñerrira mugatutako *Estudio Sociolingüístico en Pamplona y su Comarca. 2006* ikerketak emaitzak eman zituen hamabortz urtetik goitiko Iruñerriko biztanleendako: % 16,7 dira euskaraz ongi moldatzen direnak eta % 10,1 pixka bat dakitenak (Euskarabidea & Nafarroako Gobernu, 2006: 8). Iruñerriko euskaldunen % 19k euskara izan du lehen hizkuntza eta % 5,9k biak, euskara eta gaztelania (ibid., 20). Euskara dakitenek hizkuntza batik bat euskaltegietan eta ikastetxeetan ikasi dute (ibid., 23).

Egun Iruñeko karraketan aditzen diren elkarrizketen % 3 apalera ere ez da iristen euskaraz direnak, 1997az geroztik portzentajea bere horretan dagoela (Altuna et al., 2012: 43). XXI. mendearen bigarren hamarkadaren hasieran Iruñea hizkuntza aldetik inoiz baino heterogeneoagoa da. Etorकिनak Nafarren % 11,1 izanik horien % 53,4 Iruñerrian biltzen dira: 345.049 biztanleetatik 38.079 dira bertze estatu batetik etorriak (Nafarroako Gobernuko Immigrazioarako Bulegoa, 2011). Horrek ondorioak ditu Iruñeko mintzoetan eta egun atzerriko hizkuntzak —denak batean harturik— euskara baino gehiago aditzen dira hiriko plazan. Alde horretatik, Iruñea ez da euskal hiriburuen artean salbuespena, Bilbon, Gasteizen eta Baionan ere gauza bera gertatzen baita (Altuna et al., 2012: 43).

Gaur Iruñerriko familia gehienek¹³⁸ euskarazko irakaskuntza aukera dezakete beren seme-alabendako. Ikastetxe guztiak, Hezkuntza sare publikokoak nahiz ikastola hitzartuak, hartuta HH eta LHko ikasleen % 22,8k D erduan ikasten dute eta ia portzentaje berak, % 22,2k, A erduan. Gainerako haurrak euskara ez irakasgai ere aintzat hartzen ez duten ikasereduetan eskolatuta daude, % 46,8 Gn, gaztelaniaz, eta % 8,2 gaztelaniarekin batera ingelesa ere irakasbide duten British eta HTI ikasereduetan, 2007-2008 ikasturtetik aitzina sare publikoan batik bat eskaintzen hasitakoetan.

1990eko hamarraldiaren hasieratik euskararen eta euskarazko irakaskuntzak gorakada handia izan du Iruñerrian. Hondar ikasturteetan aldiz, beheitixe egin du (ikus 6. eranskinean Iruñerriko ikasereduen bilakaerari dagozkion taula eta grafikoa).

Hiru urte bitarteko umeendako haur eskoletan, eskaintza publikoa arrunt murrizta da. Iruñeko Udaleko hamahiru haur eskoletatik bi baizik ez dira euskaraz eta biak, orain dela hiru hamarkada sortuak, Txantrea auzoan daude. Eskara handia izanda ere Iruñeko Udalak, UPNkoak, ez du haur eskola gehiagotan euskarazko zerbitzua eskaini nahi izan.

6.2.2. Iruñeko euskararen gainekoak

Arestian azaldu bezala, Bonapartek euskararen ahulezia eta bertako euskal hiztun jatorrik eza zirela-eta Iruñea erdalduntzat jo zuen, herri euskaldunez inguratutako uharte erdalduntzat. Printzeak Iruñearen inguruko herrietako euskal hizkera hegoal-

¹³⁸ Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Iruñerriko udalerrri gehienak, ez guztiak, *eremu mistoan* sartu zituen. Lau udalerrri (Aranguren, Beraskoain, Galar eta Noain Elortzibar) *eremu ez euskaldunari* esleitu zizkion. 2010ean Nafarroako Parlamentuak 2/2010 Foru Legea, otsailaren 23koa, onartu zuen lau udalerrri horiek eremu mistora igaro ahal izateko betiere haien udalbatzek hala erabakiko balute. Oraingoan, lehen hirurak bakarrik aldatu dira eremuz. Noain Elortzibarreko udalak, UPNren gehiengo osoa duenak oraindik ez du eremu aldaketa eskatu.

deko goi nafarreran sartu zuen eta horren barnean Eguesibarko Elkanoko mintzamoldea hartu zuen euskalki horren ordezkari nagusitzat.

Iñaki Caminoren *Hego-nafarrera* liburuari narraiola, Bonaparteren lanen ondotik Azkuek ez zion euskal dialekto horri estatus beregainik aitortu eta hego nahiz ipar nafarrera hizkera bakarra balira bezala agertu zituen bere hiztegian. Halere, euskalkien ikerketan jardun duten hainbat ikertzailek hego-nafarrera «... zinez eta izatez baden» hizkeratzat hartu dute eta Caminok berak ere (2003: XV) tinko eusten dio irizpen horri. Nortasun berezkoa duen hizkera izanagatik ere, hego-nafarrerak ez du euskalkia izateko aski berezitasun hizkuntza ezaugarrietan. Hori horrela, Nafarroa Garaiko azpieuskalkitzat jotzen du, nafarrera dialektoaren barreneko ataltako.

Dialektologia arloko ikerketek agertu dutenez, historian Iruñeak Errege-egoitza eta komunikabide gune nagusia izanda batasuna eman dio euskara nafarrari. Koldo Zuazok (2008: 93) hiriaren eragina hartu du euskara nafarrean jardun duen indar bateratzaile bakartzat: «Literatura idatziak ez du eduki indarririk, eta ahozkoak ere ez du egin oihartzun handirik. Azken batean, Nafarroan ez da egon hirigune eta kulturagune sendorik. Bestalde, Iruñea erdalduntzeak inguruko eskualdeak ere erdalduntzea ekarri zuen eta, euskarari eutsi zaion lekuetan, hizkuntza zatituaz eta apurtuaz, eta iraganeko batasuna galduaz irau du bizirik».

Egun Iruñerriko jatorrizko euskal hizkera zena, hego-nafarrera, «... itzaltzeaz dago, erdaraturik du bere eremurik gehiena» (Camino, 2003: XV). Baina aurreko atal-txoan ikusi bezala, euskara ez zen Iruñean bat-batean galdu, ez familia iruindar guztietan batera ez eta hiriko bazter orotan ere guztiz isildu. Kontu jakina da hizkuntzak ez ohi direla horrela desagertzen, hondamendi, sarraski edo genozidio kasuetan izan ezik (nahiz eta halakoak izan badiren historian. Junyent, 1997). Iruñerriari dagokionez, euskarak mendeetan irau zuen gaztelaniaz ezarritako gizarte molde batek menderatuta, erdaraz antolatutako administrazio egituraren zangopean, eta horregatik egiantz handiagoa du euskara erdaraz bizitzen hasi ziren euskaldunen ahotan gesalduz joan zela irudikatzen duen ideiak. Hizkuntza bat utzi eta brastako batean bertzera mudatu beharrean, batetik bertzera txitean-pitean ibiliko zen iruñerriar gizaldi oso bat bederen, erdaraz ari zela euskarazko hitz, esamolde eta halakoak sartuz hiru hitzetatik bitan. Iruñerriko gaztelaniak euskal hitz eta egituraz ziprztinduta egotea izan du bereizgarriarik nabarmena, horren erakusbide dira Cándido Testaut *Arakoren* idazkiak (1947).

Berebat, jakina da hizkuntza baten galerak, mintzairaren desagertzea ez ezik haren bidez gizarteratzen zen kultura osagai sorta baten galtzea ere ekarri ohi duela (Fishman, 1994; Wurm, 1996; Crystal, 2001). Halaxe gertatu zen Iruñerriko jendeak euskaraz mintzatzeari utzi ziolarik, hizkuntzaz haratago ere euskara adierazpide zuten tradizio eta bereizgarriak ezabatu zirela: «... la Cuenca que había perdido hacía poco el euskera y, con la lengua, buena parte de la cultura de transmisión oral. La Cuenca, como otras zonas de Navarra que perdieron la lengua vasca en el agitado siglo XIX, carece de bailes, músicas, cuentos e imaginario característicos. No sabemos si lo tenía, pero salta a la vista que no existe» (Pérez Ollo, 2002: 23).

Galerak galera, egun Iruñean —gutixko baina— euskaraz egiten da. Iruindar batzuek euskaraz ihardukitzen dute. Zer nolako euskara, ordea? Handizka, euskara batua edo mintzamolde estandarretik hurbil dagoen hizkera, zenbait ahotan *anitz*, *bertze*, *erran* eta halako hizkuntza osagaiez —maizkara axalekoak baizik ez direnez— nafarreratuxea (Salaberri, 2002: 225).

Halaz guztiz, errana da hondar hamarraldietan hizkuntza arras bertzelakotu dela, «1960az gero erabat aldatu dela euskara» (Zuazo, 2008: 28-9) eta egun euskal hiztun adindunek eta gazteek arrunt mintzaera desberdinak dituztela. Horri horrela, nolakoa da egungo iruindar gazteen euskara? Galdemodu horri emanen zaion erantzuna hobeki ulertzearren argi dezadan lehenik kontu hau: nola bilakatu dira euskaldun gaurko iruindarrak? Gazteak hartzen baditugu, gehienak eskolaren bidez, zenbait kasutan eskolatzeko hori oso goiz (bi urterekin) hasi zutela. Gazte anitz familiako euskaldun bakarrak dira, hau da, *familia euskaldunberrietan* hazi eta etxean ez ohi dute inoiz egin euskaraz, ez eta haurride euskaldunekin ere. Halako egoerak, inguruneak laguntzen ez badu, hagitz adierazpide murrizteko hiztunak izaten ditu emaitza (Kasares, 2010: II4).

Hori azalduta, lot nakion berriz galderari: nolako euskara egiten dute egungo gazte iruindarrek? Gazte jendearen mintzamoldeari doakionez, Orreaga Ibarak (2011: 166) argiro uzten du agerian garaien, gizartearen eta bizimoldeen aldakuntzak hizkuntza arras aldarazi duela: «... edozein behatzailerentzat nabaria dela Iruñerriko gaur egungo gazte baten hizkera orain dela mende bat hitz egiten zen euskaratik oso urrun dagoela».

XX. gizaldiaren bukaeran eta XXI.aren hasieran Iruñean hazi diren gazte euskaldun gehien-gehienek, euskara eskolan ikasia eta bigarren hizkuntzatzat dutenek, mintzatzean «... naturaltasuna falta zaiela (...) eta batzuetan diskurtsoa gaztelaniaz erakitzen dutela» (ibid., I63) aitortzen dute maiz. Adinkideekin solastean «... txantxak egin edo haserretzeko orduan (...) ziurtasunik eza nabarmentzen dute, baita sentimenduak adierazteko ere» (ibid.). Ondorioz, dio Mezkirizko hizkuntzalariak (ibid., I64):

... belaunaldi berrien euskara gero eta eklektikoagoa da, eta ahozko harremanetan sistematikoki nahasten dira euskara batua, erdarakadak, euskalkia edo modalitate propioa (irauten baldin badu) edota inoren modalitate dialektalak (...) euskara mintzatuak ia ez dauka zerikusirik idatzizko hizkuntzarekin eta zuzenke gramatikal horretatik urrun dauden bertze parametro batzuetan moldatzen da.

Iruñerriko gazte euskaldunen hizkeraren ezaugarriak ez dira Euskal Herriko bertze inguru hirirtatu eta erdaldunduetako neska-mutilen aldean bereziak (cf. Esnaola, 1999).

Ikerketa honetako berriemaileak ez dira hain gazteak —1970 inguruan sortuak ia guztiak— eta euskaraz egiten dutenen artean ikastoletan ikasiak gutxiago dira erdaraz eskolatuak eta gaztetan euskaldunduak baino. Halere, nire idurikotz, arestian ekarritako ezaugarriak haiendako ere, gutxi-asko, baliagarriak dira.

6.2.3. Amaiur Ikastola Iturrama auzoan

Amaiur Udal Ikastola, Iruñeko Iturrama auzoan dago. 2011n 25. urteurrena ospatu zuen 1986an zabaldu baitzituen atea.

Iturrama 1960ko hamarkadan Iruñea handitu zuen hirugarren zabalgunean erakitzen hasi zen auzoa da: Gaztelugibetik hedatzen da, alde batetik, Foru Plaza eta Erletokieta karrikaraino eta, bertze aldetik, Pio XII. hiribidera bitarte. Basetxe, baratze, ukuilu eta lantegi txikiz jositako hiri aldea zena etxebizitza bloke handi-garaiz betez joan zen 1970etik aitzina. Egun auzoan 25.000 iruindar inguru bizi dira (hiriburuko populazioaren % 12). Iruñerriko bertze biziguneeen aldean Iturramak biztanleria zahartua eta gizarte nahiz kultura maila altukoa du (*Diario de Navarra*, 2013ko ilbeltzaren 30eko alea, 22. or.); langabezia-tasa apalenetako eta bizilagun etorkinen ehuneko txikien duen auzotako bat da (Iruñeko Udala, 2012).

Amaiur Ikastolan Iturramako haurrak ez ezik inguruko auzoetakoak (Donibanekoak, Mendebaldekoak eta Etxabakoizkoak batez ere) eta Iruñerriko zenbait herritakoak ere (Galar eta Aranguren udalerrietakoak batik bat) eskolatzen dira. Anitz guraso Iturraman haziak dira eta nahiz orain auzoan ez diren bizi, seme-alabak horko ikastolan eskolatzen dituzte aitatxi-amatxik auzoan bizi direlako edo lantokia hurbil dutelako.

Ikastetxe publikoetan eskaintzen ez bada ere Amaiur Ikastolak bi urteko haurrendako gela du. Sortzen-Ikasbatuaz elkartek¹³⁹ *Kimu berri* programa, haurren hizkuntza sarrera goiztiarra eskaintzen duena jarri zuen abian. Ikastolako zuzendaritzak ongi baloratzen du eskaintza hori haurrak bi urte dituztelarik euskaraz hasi eta gero gehien-gehienak ikastolan eskolatzen baitira.

Amaiur Ikastolan HHko lehen ikasmilako haurrak ez dituzte lehen hizkuntzaren arabera bereizten. Bi talde heterogeneo eta orekatu egiten saiatzen dira. Gero, LHko bigarren mailatik hirugarrenera pasatzean, hau da, lehen zikloa amaituta, berriz antolatzen dituzte ikastaldeak irizpide pedagogikoen arabera.

Zuzendariak jakinarazi didanez, azken urteotan gurasoen hizkuntza tipologian aldaketak nabaritu dituzte. Orain, lehen baino guraso euskaldun gehiago daude. Lehen ia guraso guztiak erdaldunak ziren, baina orain guraso euskaldun bat bederen duten ikasleak gero eta gehiago dira. Aita-ama euskaldun batzuk —gero eta gehiago— Iruñerriko ikastoletan eskolatu ziren, bertez batzuk gaztetan euskaldundu eta bakarren batek euskara familian berean ikasi zuen.

6.3. LEKUKOTASUNIK ESANGURATSUENEN AURKEZPENA ETA AZTERKETA

6.3.I. Iruñeko hiztunak eta familiak

Iruñeko landa ikerketan aztertu ditudan familiek ezaugarri bat dute komuna: gurasoek seme-alabak euskaraz eskolatu dituzte, hau da, hurrek txikitatik eskolaren bigarren bederen euskararekin harremana izan dezatela eta etorkizunean euskaraz mintzatzeko jakin dezatela nahi dute.

Alderdi horretan bereizten dira Mendialdean eta Iruñerrian bizi diren familiak. Borzgarren atalean xeheki azaldu bezala, Iruritan bizi diren gurasoek seme-alabak eskolatzeko orduan euskarazko irakaskuntza, D eredu, dute hautu arrunta eta berriki kanpotik etorritako familia gutxi batzuek ez bertez guztiak aukeratzen dute. Iruritan herriko eskola D ereduan da, eta umeak gaztelaniaz, A ereduan, eskolatzea nahiago duenak Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxera jo behar du.

Iruñerrian, aldiz, ez da horrela eta hurrek D ereduan ikas dezaten gurasoek hala hautatu behar dute. Aztertutako familiak bat datoz erabaki horretan. Iruñerrian haurrak beren ezinbesteko ikastaldi osoan euskararekin inolako harremanik eskaintzen ez dien ikaseredu batean eskola daitezke. Euskara aintzat hartzen ez duten irakaskuntza ereduek ikasleen erdia baino gehiago biltzen dute, % 55 (ikus 6. eranskina).

¹³⁹ Sortzen-Ikasbatuaz D ereduko ikastetxeetako gurasoen elkartea da. Hego Euskal Herriko lau lurraldetan du egoitza. Webgunea: www.sortzen-ikasbatuaz.org

Beraz, seme-alabak Amaiur Ikastolan eskolatzea hautatu duten gurasoek gutxieneko helburu edo *desideratum* hau partekatzen dute: seme-alabek euskaraz ikastea. Halaz guztiz, ego belaunaldiko lagunen artean euskararekiko ibilbide eta bizipen hagitz desberdinak kausitu ditut eta familietan ere hiztunengan bezainbateko heterogeneotasuna agertu zait nabari. Ondoko ataltxoetan xeheki azalduko dut.

6.3.1.1. *Hiztunak*

Familien glotohistoriogramei (ikus IO. eranskina) so eginda begi kolpe batez ikus daitekeenez, ego belaunaldiko kide gehienak Iruñean hazi dira (II. FGko Marta Lotzan, Antsoain Zendea, sortua da baina hiriburuan eskolatu baitzen, Iruñean hazitakotzat jo dut). Iruñekoak ez diren artean Nafarroako Mendialdeko hiru daude (II. FGko Patxi, Mezkirizkoa, I4. FGko Marcos eta I7. FGko Lourdes, biak Lakuntzakoak), Nafarroako hiribildu erdaldun(du) bateko bat (20. FGko Iñaki, Zangozakoak) eta Euskal Herriatik kanpoko bat (I4. FGko M^a Fernanda, Guatemalakoak)¹⁴⁰.

Iruñean eta Mendialdean hazitako subjektuen hizkuntza ibilbideak aztertuko ditut bereziki.

Iruñean hazitakoak

Egun euskara dakitenen artean bakarra dago txikitan euskara etxeko hizkuntza izan zuena (Lidia, I2. FG). Gainerakoak ikastoletan eskolatu ziren (I3. FGko Arantza eta Mikel eta I8. FGko Amelia) edo gartzetan euskalduntzeko erabakia hartu zuten (II. FGko Martak, I2. FGko Sebasek, I5. Adurrek eta I6. FGko Txumak).

Euskaraz pittin bat baizik ez dakitenak (I5. FGko Carlota, I6. FGko Blanca, eta I9. FGko Susana eta Fernando) inoiz ikasten saiatu dira baina ez dute ikaste prozesua burutu. Euskaraz hitzik ere ez dakien guraso bat ere badago (20. FGko Raquel). Beraz, Iruñerrian bertan hazitako ego belaunaldiko subjektuek ez dute euskararekin molde bertsuko ibilbidea egin.

Honetan Lidiaren (I2. FG) glotobiografia azalduko dut xehekiago. Lidiak euskara gurasoengandik ikasi zuen, aita-amak Mendialdekoak baitzituen, ama baztandarra eta aita ultzamarra. Ondoko ataltxoan ikusiko dugunez, Iruñerrian hiru gizalditan euskaldunez osaturiko familiak, hau da, familia euskaldunbeteak, urri-urriak dira. Lidiaren kasuan, doi-doiatarik egin zuen familia euskaldunbeteak behin Almandoztik Iruñera aldatuz gero ez baitzuen euskara galdu.

Lidiak txikitan euskaraz egiten zuen etxean aita-amekin hasieran eta gero, aita hil eta ondoan, amarekin eskolan hasi artio: «... eskolara joaten hasi artio nik euskaraz egiten nuen beti amarekin etxean (...) orduan ni euskalduna nintzen eskolara joaten

¹⁴⁰ I7. eta I8. FGek guraso bakarra dute. I7. FGko Lourdesek guraso bakarreko familia gisa egin zuen bi seme-alaben adopzioa. 2009an, bigarren haurra iritsi hurren zelarik hasi zuen Aitziberrrekin, oraingo bikoteki-dearekin, harremana. Hori dela eta, ego belaunaldia aztertzean ez dut Aitziber gurasotzat jo baina Lourdesek berak familia azaltzean Aitziber eta haren alaba ere aintzat hartu baititu, familiaren glotohistorian agertzen dira.

I8. FGko Amelia eta Nestor haien alaba sortu baino lehen bereizi ziren. Ikerketa honetarako Ameliarena guraso bakarreko familia unitatetzat eman dut. Horregatik, familiaren glotohistorian agertzen bada ere, ego belaunaldia aztertzean ez dut Nestor aipatuko.

hasi nintzenean» (Lidia, I2. FG). Baina erdaraz eskolatu zuten eta eskolan erdaraz egitera jarrita, euskarak karrikan lekurik ez baitzuen, erdaraz ohitu zen, etxera eraman zuten eta lehen hizkuntza atzendu. Honela mintzo da bera:

... erdaraz egin ditut nik ikasketa guztiak (...) Jose M^a Huarten, etxe ondoan (...) ez ziren kezkatzen [gurasoak], ez zuten izan kezka euskara eta... ondoko eskola publikora (...) eta orduan amak erraten du orduan ja hasi nintzen ja bakarrik erdaraz eta nik euskara galdu nuen aunitz, kasik erabat nik uste. Zer bueno, ikasketa guztiak gaztelaniaz, lagun guztiak erdaldunak, karrika erdalduna... bakarrik erdaldunak, baziren euskaldun gutti (...) inguruko jendea erdalduna ama izan ezik (Lidia, I2. FG).

Lidiaren anaiak ere euskara anitz galdu zuen. Haurtzaroan erdaraz egiten zuten haurrideek beren artean: «... gure artean beti hizkuntza arrunta izan da hemen, Iruña honetan, beti erdara». Amari ere erdaraz egitera jarri ziren eta ama «... ja erdarara pasatu zen» (ibid.).

Iruñean hazitako hiztunen bizi ibilbideak aztertuta zenbait alderdi kausitu ditut Irurritako landa ikerketako hiztunen glotobiografietan agertu ez zaizkidanak. Alderdi horiek hiruburuko ingurune erdaldunduak hiztunen nolakotasun eta bilakabideari eragindako ezaugarriak dira:

Euskararen *urritasuna* iruindarren artean, euskaldunak ehuneko apala izateaz gain euskara batere ez dakiten hiztunak izatea ahalbidetzen duena: «... el euskera yo lo desconozco totalmente» (Raquel, 20. FG). Iruñean hazitako artean haur-gaztetan euskara hurbilean izan ez dutenak badira, guztiz euskararik gabe bizi izan direnak. Horiek ez dute euskara hurren izan —ez familian, ez ingurunean, ez erreferentzietan...— harik eta seme-alabak euskaraz eskolatu dituzten artio. Iruritan aldiz, herrian hazitako guztiek izan dute hizkuntza ondoan, etxean bertan ez bazen, familia zabalean edota bertze herrikide batzuen mintzoetan. Euskaraz ez dakitela dioten iruritarrek ere maiz aski euskaraz zerbaixka egiteko gai izaten dira eta oinarri hori mezu labur-errazak ulertu eta adierazteko aski zaie. Alde horretatik, *euskaraz ez dakien* hiztun tipologiak ordain hagitz desberdina izaten du testuinguru batean eta bertzean.

Euskararen gizarte *abultasuna*, hiztunendako mintzairari eustea zaila izatea dakarrena. I2. FGko Lidiari umetan gurasoekin ikasitako euskara kamustu egin zitzaion Iruñeko inguru erdaldunean. Euskarazko eskolatzearen bidez edo helduen euskalduntzea dela medio euskara ikasi zuten hiztun batzuei ere erdietsitako hizkuntza gaitasuna atxikitzea zail gertatu zaie euskarak Iruñeko gizartean duen egoera funtzional ahulagatik (euskara erabili beharrik ez, harremanak erdaraz baitira aditzeko eta erabiltzeko aukerarik ez...¹⁴¹). Iruritan, aldiz, gaztetan euskara ikasi zutenek mintzaira erabiltzeko aukera ugari eta inguruan hiztun anitz izan dituzte. Euskara harreman sarean sartu dute eta hori egin ahala hizkuntza erabiltzeko ohitura hartu eta eroso mintzatzerira iritsi dira. Iruñean euskaraz eskolatu zirenen edo hizkuntza gaztetan ikasi zutenen artean euskaraz aritzeko jautzia behin ere egin ez dutenak badira ingurunea oso erdalduna izan

¹⁴¹ Irlandako egoeran ere gaiera hiztunen artean gaitasun ez-egonkorra dokumentatuta dago: «... in a situation where Irish-speakers are distributed widely in the English-speaking areas a high degree of loss across the life-cycle is to be expected» (Ó Riagáin, 2001: 203. 1995eko lanean ere aipamen bertsua egin zuen).

dutelakoz. Horiek ikasitako euskara hagitz bakanetan erabiltzen dute eta solasteko erraztasunik ez dute erdietsi, ez dute hizkuntza beretu.

I8. FGko Amelia, adibidez, ikastolan eskolatu zen baina ikasgelaz landa ez zuen behin ere euskaraz egiten. Lagun taldean eta bikotekidearekin beti erdaraz aritu zen eta gaztetan euskara eskolak hartu behar izan zituen mailari eusteko. Alaba sortu zelarik ez zion euskaraz egin anitz kostatzen baitzitzaion: «... en una lengua si no la hablas vas perdiendo (...). Pues yo no tenía facilidad y me costaba un esfuerzo...» (Amelia, I8. FG). I3. FGko Mikeli ere antzeko zerbait gertatu zitzaion baina bizilaguna euskalduna izateak mintzairari eusten lagundu zion. Zenbait hiztunen adierazpenetan (I6. FGo Txuma, I7. FGko Lourdes eta I8. FGko Amelia) ohikoa da euskara «zaila» dela aipatzea, euskara ongi ikasi eta gaztetan EGA eskuratu zuen Txumak ere hala zioen eta nirekin elkarrizketa erdaraz egin nahiago izan zuen.

Mintzairak aski gizarte indarririk ez duelarik gertatzen da hiztunak hizkuntza gaitasunari eusteko neketan ibiltzea eta subjektuen glotobiografietan ibilbide ez linealak agertzea: txikitan euskara ikastolan ikasi, ikastolatik atera eta gaztetan solasteko gaitasuna galdu, handik urte batzuetara euskaltegian berrikasi... Hizkuntzaren gizarte erabilera bermatzen ez duen egoerak eragindako gaitasun egongaitza da. Hiztunak holakoetan euskara ez ote duten galduko ere beldur dira zenbait aldiz. Horrela dokumentatu dut gazte nafar euskaldunen gaineko ikerketa batean: Iruñerriko gazte euskaldunak euskara galtzearen beldur dira. Euskara galtzeko, ahazteko arriskua sentitzen dute. Izan ere, euskarak dituen hiztun galerak beren lagunen artean ikusi dituzte: txikitan euskaraz eskolatutako gazte anitzek, harreman informaletan erdaraz mintzatu, ikasketak erdaraz burutu eta lanean hizkuntza horretan has ten badira, euskara behin ere ez erabiltzeagatik atzen dezakete. Horretaraino iristen da inguruaren eragin erdalduntzailea, euskararen gaitasun mailari eustea zaila gertatzeraino (Kasares, 2010: II8).

Euskararen urritasun eta ahultasunaren ondorioz, Iruñea bezalako inguru erdaldunduan hizkuntza atxikitzeko euskaldunen *nabitasuna* ezinbestekoa da: eskolan edo euskaltegian ikasitako euskarari eusteko hiztunek nahikaria edo gogo-nahia behar izan dute baitezpada. Iruritan ingurune euskaldunak euskara nolabait *eskatzen* du, mintzaira erabiltzeko gizarte arau batzuk daude —haurrekikoa, erraterako— hiztuna euskarara eramaten dutenak. Iruñean ordea, inguruneak ez dakar euskararen beharrik eta hiztunek berek sortu eta sustatu behar izaten dituzte erabiltzeko aukerak.

Azaldutako alderdi horiek Irurritako eta Iruñeko azterketetan kausitu ditudan hiztunen tipologia eta ibilbideak bereizten dituzte. Izan ere, hizkuntzaren gizarte egoerak hiztunen mintzaira ikasteko eta erabiltzeko moduari eragiten dio. Hizkuntza sozializazioaren arloko ikertzaileak (Ochs & Schieffelin, 1992) hizkuntzaz jabetzea eta hizkuntzaren bidezko sozializazioa bi prozesu bereizi balira bezala hartu dituzten ikuspegietatik urrundu dira eta harremanetan dauden bi bilakabidetzat jo dituzte. Hori horrela, alde batetik, gizarte antolaketak, hizkuntza erabileraren arau sozialek, hizkuntzen oharmenak eta bertzelako alderdi soziokulturalek hizkuntza ikasteko prozesuari eragiten diote. Bertze aldetik, hizkuntza sozializazioa gertatzen den egoerak nahiz elkarrekintzak eta horretan parte hartzen duten helduek eta haurrek kultura sinesmenen, balioen eta gizarte antolaketaren eragina jasotzen dute.

Mendialdean hazitakoak

Iruñeko familietan hiru dira ego belaunaldiko subjektuak Mendialdean hazitakoak: II. FGko Patxi, Mezkirizkoa, I4. FGko Marcos eta I7. FGko Lourdes, biak Lakuntzakoak.

II. FGko Patxi, Mezkiritzen (Erroibarren) sortua eta hazia. Ama Errokoa, euskaraz ez zekiena eta aita mezkiriztarra, euskara kamutsa zuena. Patxik beti izan du euskara hurbil baina erdaraz gizarteratu eta eskolatu zen. Gaztetan, Iruñera ikastera etorri zelarik deliberatu zuen euskalduntzea.

I4. FGko Marcos eta I7. FGko Lourdes, biak Lakuntzan hazi ziren eta biek bertako guraso euskaldunak zituzten. Marcosek txikitan gurasoekin euskaraz egiten zuen etxean baina erdaraz eskolatu ondolan, orduko Lakuntzako karrika erdaldunduta baitzegoen, erdarara mintzaldatu zen: «... nik galdu nuen euskara, arrebak ez hainbeste baina nik galdu egin nuen. Txikitan bai, etxean euskaraz hitz egiten zen baina (...) zortzi, bederatzi urterekin nik gurasoei neronek eskatzen nien erdaraz egiteko niri, nahiz eta haiek beti jarraitu zuten beraien artean euskaraz hitz egiten» (Marcos, I4. FG).

Gurasoak erdaraz egiten hasi zitzaizkion eta horrek euskara galtzea ekarri zion: «azkenean... bai, klaro, horregatik galdu nuen, bestela ez nuen galduko ere». Hizkuntza halere, dio berak, ez da guztiz galtzen: «Galdu nuela, bai, baina klaro, dena ez da galtzen erabat (...) baina bai, ez nintzen gauza asko hitz egiteko euskaraz» (ibid.). Gero gaztetan, ikasle garaian Iruñean euskara (berr)ikasi zuen eta aita-amekin eta arrebarekin harremana euskaraz berreskuratu.

Gurasoekin (...) berriro etxean, berriro ni hasita berriro ere zer beraiek ez zuten galdua. Beraien artean beti jarraitu zuten euskaraz hitz egiten, o sea que... Ongi hartu zuten, beraiek ere poztu ere bai (...) nik nire arrebarekin azken hogeita hamar urteotan euskaraz egin dut, bai, bai. Bera ez zen joan inolako gau-eskoletara eta ezertara errekuiperatzeko. Ez zuen hain galdua eta gero nik uste dut berari ere lagundu egin ziola alabak izatean eta ikastolara bidaltzean eta, ez dakit zer esfortzu kostatuko zitzaion berari, egia esan ez dakit, baina natural-natural berriro... Edo ez zuen galdu hainbeste behintzat. Beti euskaraz egin dugu ordutik eta berak ere alabekin euskaraz egiten du. Eta nire gurasoekin ere, hil arte euskaraz (Marcos, I4. FG).

Marcosek euskararekin egin duen ibilbidean ez daki bere burua euskaldun zahar ala berrizat hartu: «Horregatik niri galdetu didatenean ‘zu zara euskaldun zaharra edo berria?’. Ba, esaten diet ‘euskaldun berria naizela ezin dut esan’. Zer belarria hor neukan... horregatik berriro errekuiperatzea oso gutxi kostatu zitzaidan. Hori ez neukan galdua» (ibid.).

Lourdes (I7. FG) ere Lakuntzan hazi zen familia euskaldunbete batean: «Todos, todos euskaldunes. Mis abuelos hablaban en euskera, aquellos no sabían hablar castellano» (Lourdes, I7. FG). Halere, ez berak ez eta bere anaiak ere —bera baino bi urte zaharragoak— ez zuten euskara etxean ikasi: «... no aprendí euskera (...) entiendo pero no lo hablo» eta anaiak ere «... no aprendió euskera. Chapurrea más que yo pero no» (ibid.). Aitaxi-amatxik eta aita-amek euskaraz egiten zuten beren artean baina haurrei aldiz, erdaraz:

Mis padres en la misma mesa aún hoy en día entre ellos hablan euskera y a nosotros en castellano. Es muy curioso pero pasa (...). [Aitaxi-amatxiren ar-

tean] [e]uskera total, ni una palabra en castellano. El abuelo con los hijos suyos, con los seis hijos, todo en euskera. Con los nietos todo en castellano (...) dieciocho primos somos. Allí estaremos un abanico de unos seis, siete años mayor que yo a unos cinco años menor que yo (...) muy pocos han aprendido después (...) éramos unas diez quintas o así que por lo que sea, por el tema político, porque entró mucho inmigrante en Lakuntza, por lo que sea, pero no se hablaba euskera, no se hablaba (Lourdes, I7. FG).

Familia euskaldun batean hazita etxeko euskara ez zaio arrotza Lourdesi, ez ohi da mintzatzen baina ulertzen du, inoiz euskara ikastera joan ez bada ere:

Lo que pasa que (...) yo no sé euskera pero lo entiendo porque claro, la gente mayor pues hablaba, o sea, nosotras al oído ya nos hemos hecho a oír euskera, el euskera *zaharra* e! El euskera *batua* no. Ese a mí me cuesta a veces entender muchísimo. Entonces ya tenemos hecho el oído, pero yo por ejemplo, a hablar pues no he roto nunca, nunca (...) yo soy euskaldun sin saber euskera (Lourdes, I7. FG).

Mendialdean hazitako hiztun horien glotobiografietan, bai eta Lidiarenean (I2. FG) ere, agertu diren belaunez belauneko euskararen eten-jarraipen prozesuak eta Iruritako kasu azterketan deskribatutakoak antzera gertatu dira: familiaz gaindiko egoera soziolinguistikoak eraginda eta gizaldien arteko prozesu elkarreragile baten bidez, non gurasoek ez ezik haurrek ere aktiboki jokatzeko baitute.

Subjektuen ibilbideek hizkuntza sozializazioaren izaera soziohistorikoa iradokitzen dute; hau da, hizkuntzaz jabetzeko eta hiztun bilakatzeko prozesua ezin da ingurune soziolinguistikotik bereizi. Haurrak euskaraz haztea inguruabar soziohistorikoei baldintzatu duten prozesua izan da, gurasoek hartu dituzten erabakiak tarteko. Hiztunek mintzaira ikasi eta haren bidez inguruarekin harremanetan sartzeko aukerak garaian garaikoak eta tokian tokikoak dira. Lidiaren kasuan Almandoztik Iruñera aldatuta gertatu zen familiaren euskararen jarraipenaren etena eta handik urte batzuetara, Iruñean bizi zelarik, familiaren hizkuntzari jarraipena eman zion euskara (berr)ikastea erabakita.

Bertzalde, Lidiaren (I2. FG) eta Marcosen (I4. FG) glotobiografietan argiro agertzen da hizkuntza sozializazioaren izaera elkarreragilea, transmisioa gurasoengandik haurrenganako, goitik beherako, eragin hutsa izan beharrean gurasoen eta haurren arteko elkarreraginetan gauzatzen dela. Lidia behin erdaraz eskolatuz gero hasi zitzaion erdaraz amari eta amak utzi zion euskaraz egiteari. Lakuntzan hazitako Marcosek ere eskolan eta karrikan ikasitako gaztelania etxera eraman eta berak eskatu zien aita-amei erdaraz egiteko. Horrela galdu zuen umetako euskara Iruritan hazitako Laurak ere (4. FG), 5.3.3.2 ataltxoan azaldu bezala.

Kasu horietan Iruritako azterketan ateratako ondorioa berretsi ahal izan dut, zenbait familia euskaldunetan hizkuntza aldaketa haurrek eragin zuten behetik goiti. Hau da, etxeko hizkuntza aldarazi dutenak ez dira beti gurasoak izan. Aitzitik, haurrak ere familiaren hizkuntza aldaketari eragin diote. Izan ere, haurrek hizkuntza berriaren beharra etxera sartzeko dute gizartean mintzaira nagusiak duen balioespenaren logika osoz. Dena dela, etxeko hizkuntza izan denari eusteko gurasoen jarrera eta tinkotasuna funtsezkoak direla aipatu kasu guztiek sendesten dute.

Bertzalde, hiztunen ibilbideen linealtasun eza begi bistakoa da. Zenbait kasutan hizkuntzarekin eratutako harremanetan hutsarteak daude hizkuntza gaitasuna egon-gaitza eta are aldakorra delako. Hiztunak hizkuntzarekin duen harremana —lehen

mintzairarekin duena ere bai— denboraz alda daiteke, ez da mugiezina, beti-batekoa edo monolitikoa.

Hiztunek hizkuntzekin eratzen dituzten harremanen dinamikotasuna nabariagoa da hiztunak hizkuntza ikasteko eta bere egiteko aldia haurzutura mugatzen ez badugu. Bizialdi osoa hartuz gero —hizkuntza sozializazioaren paradigman ikertzaileek egiten ohi duten bezala— aitortu beharko da subjektuek gazte-heldutan hizkuntza sozializazio berriak egin ditzaketela eta beren hizkuntza ohikoa eta hurbileko harremanetakoa aldatu, hurrengo ataltxoetan azalduko dudana bezala.

6.3.1.2. *Familiak*

Hamar familiaren laginean hirutan guraso biak euskaldunak dira baina horietako bat ere ez da familia euskaldunbetea. Iruñerrian, eta oro har eremu oso euskaldunaz landa, hagitz bakanak dira hiru belaunaldietan kide guztiak euskaldunak dituzten sendiak eta daudenak azken hamarkadetan herri euskaldunetatik etorritako kideek osatuak izaten dira.

Gauza jakina da Iruñea bezalako hiri erdaldunduetako familietan euskararen galera eta berreskurapen historiak ohikoak izaten direla eta horregatik, familia euskaldun ez-osoak eta familia euskaldunberrituak aruntak dira.

Hiru belaunaldietan euskaldunik ez duten familiak ere badira Iruñean, erruz gainera, nahiz eta landa ikerketa honetan, bistan da, tipologia hori —familia erdaldunak— ez agertu, haurrak euskaraz eskolatuta dituzten familietara mugatu baitut azterketa.

Erran bezala, Iruñeko lagineko hiru familietan (II., I2. eta I3. FGetan) bi gurasoak euskaldunak dira eta haien artean bakarra da euskara lehen hizkuntza izan zuena, Lidia (I2. FG), txikitan euskara galdu eta gaztetan (berr)ikasi behar izan zuena. Bertze gurasoek ez dute euskara lehen hizkuntza. Batzuek gaztetan euskara ikastea erabaki eta erdietsi zuten (II. FGko Marta eta Patxi eta I2. FGko Sebas) eta bertze batzuk txikitatik Iruñerriko ikastoletan eskolatu ziren (I3. FGko Arantza eta Mikel). Egun hiru familia horietako guraso guztiek euskaraz egiten dute seme-alabekin eta batik bat euskaraz aritzen den familia osatu dute. Hiru sendietan euskara da aita-amen eta seme-alaben arteko ohiko hizkuntza eta bi kasutan bederen (II. eta I2. FGetan) gurasoen artekoa ere bai. Familia horietan seme-alabek euskaraz egiten dute beren artean, haurrideen artean. Hala gertatzen da II. eta I3. FGetan. I2. FGn seme bakarra da baina, adibidez, lehengusuekin beti euskaraz aritzen da.

Arestian aipatu bezala, hiru familia horietako bat ere ez da euskaldunbetea, hau da, gurasoak eta seme-alabak euskaldunak dira baina aitatxi-amatxi gehienak ez dira euskaraz aritzeko gauza. Lidiaren (I2. FG) ama, Almandozkoa, da salbuespen bakarra. Patxiren (II. FG) aita, Mezkirizkoa, euskara kamutsa duen hiztuna da.

Laginean lau dira guraso bakarra euskalduna duten familiak (I4., I5., I6. eta I7. FGak). Horietan euskarak ez ohi du toki handirik izaten familiare bizitzan, ez guraso euskaldunaren eta seme-alaben artean ez eta haurrideen artean ere. Kasu horietan guraso euskaldunaren aldetik ez da izan seme-alabekiko euskararen erabilera tinkorik eta guraso euskaldunaren eta haurren arteko harremana ez da euskaraz ezarri. Salbuespena, I4. FG da: Marcosek umeari beti euskaraz egiten dio eta gainera, aitatxi euskalduna familiarekin bizi izan da eta semearekin eta bilobarekin beti euskaraz aritu.

Azken hiru FGetan ikusten da duela urte gutxi artio familia euskaldunberritua zena (I8. FG) euskaldun ez-oso bilakatu dela eta familia erdaldunak zirenak (I9. eta 20. FGak) euskaldunberrituak bihurtu direla.

Familia euskaldunberrituetan haurrak dira euskaldun bakarrak. Halaz guztiz, euskaraz ez aitona-amonek ez gurasoek ez badakite ere, haurrek sendi zabalean euskaldunen bat izan dezakete (osaba, izeba, lehengusu edo lehengusinare bat...) euskara familiarekin nolabait lotzen duena. Hala gertatzen zaie I9. eta 20. FGetako haurrei.

Iruñeko familiak hizkuntza aldetik ez-homogeneoak dira. Guztietan euskara eta gaztelania daude batera, oso neurri desberdinetan bada ere. Oro har, familien glotohistoriogramei begiratuta, aldea ikusten da Iruritatik Iruñera haurren hizkuntza sozializazioari dagokionez. Iruritan aztertutako familietatik bakarrean (I0. FGn) sozializatzen dira haurrak etxean erdaraz eta Iruñean ordea, hamarretik seitan (I5., I6., I7., I8., I9. eta 20. FGetan).

6.3.2. Iruñean 1970eko hamarkadan hazitakoak

Francoren agintaldiaren azken hamarkadan Iruñerrian euskararen jarraipenerako funtsezkoak izan ziren gizarte ekimenak eratu ziren: ikastolak eta gau-eskolak. Halere, garai hartan euskara deus gutxitzat hartua, arunt zokoratua eta txarretsia zegoen. Nafarroako hiriburuan zeuden guraso euskaldun bakanek umeak euskaraz hazteko baldintza biziki zailak zituzten¹⁴².

6.3.2.1. Euskara familiaren jatorrian: galeraren oroipena

«... pero mi abuelo nunca hablaba [euskaraz]»

Ego belaunaldikoen artean euskara ikasi duten gehienek familiaren historia azaltzen dutelarik euskara aipatzen dute. Aipamen horiek hizkuntzaren galerari lotuak izaten dira eta zenbaitetan euskararen transmisioaren etena ego belaunaldian bertan edo aurrekoan gertatu zela erraten dute.

¹⁴² 2005ean Euskalerrira Irratiak Larreko Saria Francoren agintaldian, 1960-70eko hamarkadetan, Iruñean seme-alabak euskaraz hazi eta hezi zituzten emakumei eman zien. Omenaldi eta sari emate ekitaldirako emakume horietako hamahiru biltzea lortu zuten: Pilar Berezibar, Juli Igartza, M^a Josefa Otegi, Kandidate Berazadi, Miren Dorleta Sasiain, Rosario Erro, Maritxu Leonet, Donata Urriza, Zeferina Fontellas, Felisa Erroz, M^a Jesus Etxeberria, Damiantxu Mitxelena eta Kontxita Urionabarrenetxea. Andre horien lekukotasunek 1970.eko hamarkadan Iruñean euskaldunek bizi izan zuten gutxiagotze egoera eta orduko gizarte erdaldunak euskaldun izatearen eta karrikan euskaraz mintzatzearen aitzinean zuen jarrera adierazten dute: «Erdaraz ez nuen ongi egiten, eta lotsa pasatzen genuen. Herritik etorriak ginen gu, euskaldunak, eta mespretxuz seinalatzen gintuzten» (Donata Urriza, Basaburuko Igoakoa), «etxean, senarrarekin eta alabarekin, beti euskaraz egiten nuen. Baina kanpoan ezin zen, euskaraz ez baitzuen inork egiten. Hasieran, lagunartean geundenean ere, senarrari euskaraz egiten nion, ohartu gabe. Baina, azkenean, kanpoan erdaraz egiten hasi nintzen» (M^a Jesus Etxeberria, Imozko Etxalekukoa), «denek esaten ziguten ez genuela lortuko umeek euskaraz egitea. 'Ez dakit zertarako egiten diezun euskaraz!', esaten ziguten. Bada, lortu genuen. Hirurek egiten dute euskaraz, eta euskaraz ezkondu ziren. Bederatzi biloba dauzkate; denak dira euskaldunak, eta denak bizi dira Iruñean» (Rosario Erro, Lakuntzako) (Asier Azpilikueta. *Berria*, 2005eko maiatzaren 26ko alea. Tarte, "Emakume euskaltzaleak", 4.-5. or.).

Mezkiritzen hazitako Patxik (II. FG) aitak euskaraz zertxobait egiten duela dio: «Orain egiten du euskara baina euskara mugatu bat. Beti artzainen euskara». Seme-alabei ez zien euskaraz egin. Lotzan sortutako Marta (II. FG) oroit denez, aitona-amonek «... ez zuten hitz egiten euskaraz baina nahiko hurbil zuten (...). Aitatzik eta amatxik ez zekiten baina bueno, hitz batzuk (...) Larunbekoak biak».

Iruñean hazitako Sebas (I2. FG) honela mintzo da: «... aitaren aldetik amatxi Arbizukoa zen baina Añorbera ezkondu zen eta Añorben ja euskara galdu zuen». Sebasek txikitan jakin ere ez zekien amatxi euskalduna zuenik.

Iruñean hazitako Arantzak (I3. FG) amatxi Olaguekoa, Anuekoa zuen, euskalduna, «... baina gero Iruñera etorri zen... ez dakit, hamabi urte zituela edo horrela, etxe batean zerbitzari eta hortik aurrera galdu zuen dena». Arantzak ezagutu zuen: «... ez zuen deus jakin nahi [euskararekin], ez (...) nonbait gaizki pasa zuen» eta semeari —Arantzaren aitari— ez zion irakatsi (ibid.). Mikelek ere (I3. FG) amaren sendiaren jatorri euskalduna aipatzen du.

Iruñean hazitako Txumaren (I6. FG) aitaren ama Legasakoa, Bertizaranakoa, zen eta amaren aita Oñatikoa, biak euskaldunak baina gurasoek ez zekiten euskara. Txuma mutikoa zelarik aitatzik euskalduna etxean bizi zen «... pero mi abuelo nunca hablaba [euskaraz]» —gogoan du— «Si hablaba por teléfono con sus hermanos, que eran un montón de hermanos de Oñate, siempre hablaba en euskera».

Bertzalde, familian euskararen oroitzapenik ez duten ego belaunaldiko lagunak badira. Horien artean, bat euskaraz eskolatu zuten (I8. FGko Amelia), bertze batek gaztetan euskara ikasi nahi izan zuen (I5. FGko Adurrek), hiru inoiz ahalegindu dira (I6. FGko Blanca eta I9. FGko Susana eta Fernando) eta bertze bat oraingoz ez da euskara ikasten saiatu (20. FGko Raquel). Kasu horietan, hizkuntza familiaren historian ez badago ere hiztunek euskara bertako mintzairatako aitortzen dute: «... la lengua de aquí...» (Susana, I9. FG); «... el euskera (...) como cultura (...) de nuestro entorno...» (Raquel, 20. FG).

Hala bada, Iruñean hazitako ego belaunaldikoen artean egun euskaraz egiten duten hiztun gehienek familiaren historian euskararen oroipena dute gertuago edo urrunago. Azken finean hori da euskararen galerak Nafarroako historia hurbilean, zehazki familien historietan eta hiztunen oroipenetan, utzi duen arrastoa.

Nafarroako datu demolingüistikoaren gainean egindako lan kuantitatibo batek euskararen halako oroimen kolektiboa nabarmendu eta hizkuntzaren berreskurapenerako duen eragingarritasuna aipatu du. Miquel Gros soziolinguista katalana euskal substratu soziolinguistikoaz mintzo da: «La conclusión de que el sustrato vasco existente en una comarca, entendido como el poso histórico que la presencia social del euskera ha dejado en un grupo humano, determina en gran medida la actitud y potencialidad de dicho grupo para recuperar en mayor o menor medida la lengua, es obvia» (Gros, 2007: 191-192). Autore honek berak, ondoko lan batean (2009: 83-87) euskararen berreskurapenerako substratu soziolinguistikoaren garrantzia berretsi eta horren osagai etnikoa iradoki du.

Hiztunek glotobiografietan arbasoren bat inoiz euskaraz mintzatu izana, hau da euskara sendiaren historian egona aipatzen dutelarik beren buruaren eta arbaso horien artean nolabaiteko lotura egiten dute. Hiztunen irudikapenetan euskara ez da edozein hizkuntza. Carlos Vilchese (2000ab) Nafarroan euskararen gizarte berreskurapena hasten den 1970eko hamarkadan euskararen aldeko diskurtsoaren euskarri nagusia

kultura tradizioari atxikia ikusi du. Iruñeko soziologoak agertu duenez, hamarkada horretan egindako ikerketetan berriemaileek adierazitakoak teknika kualitatiboan bidez aztertuta «... zaila da ‘sentimendu’ kontzeptua azaltzea, baina betiere arbasoen hizkuntzarekiko interesetik haratago doa eta talde partaidetza idealizatuarekin loturik agertzen da» (Vilches, 2002b: 123).

Hizkuntzaren oroipenak hiztunek mintzairarekin eratzen duten harremana ukitzen duela onartuta, zer berezitasun du familiaren historian inoiz egon den edo bertakotzat jotzen den hizkuntzak? Eta nola eragiten dio horrek mintzaira horrekin hiztunak eratzen duen harremanari?

Literatura sozio-antropolinguistikoko *heritage language* (Fishman, 1997; He, 2012), hau da, ondare hizkuntza familia jatorrikoa edota bertakoa den mintzairari erran zaio. Hitztunek ondare hizkuntzarekin harreman bereziak eratu eta hari (berriz) lotu nahi izaten dute: «... an immigrant, indigenous, or ancestral language with which a speaker feels personal relevance and desire to (re)connect» (He, 2012: 587).

Ondare hizkuntzen gaineko ikerketak mintzaira horiek gizartean ahaltsuagoa den bertz mintzaira nagusi batekin ukipeneko egoeretan egin ohi dira. Testuinguru horietan ondare hizkuntzen ikasleek edo hiztun berriek mintzairarekin dituzten motibazioak pragmatiko edo instrumental hutsak baino gehiago subjektibo eta afektiboak ere izaten direla nabarmenago gelditzen da: «... HL [Heritage Language] learner motivations are derived not merely from pragmatic, instrumental, utilitarian concerns but also from the intrinsic cultural, familial, affective, and aesthetic values of the language» (He, 2012: 589).

Gurera etorrita, Iruñeko ego belaunaldiko hiztunek euskararekin eratu duten harremana ikasi duten atzerriko hizkuntzekin eratu duten bezalakoa ez dela garbi agertzen da. Euskararen balio pragmatiko-instrumentala zein ere baita, hiztunek euskara hartu-emanetan sartu dute, batzuek etxekotu, beretakotu ere bai, eta seme-alabak hizkuntza horretan hazi nahi izan dituzte. Alde horretatik ondare hizkuntza berezia da. Batzuek beren familiari atxikia ikusten dute; bertz batzuek, nahiz eta familiaren historian euskaldunik ez ezagutu, euskara bertakotzat dute, bertakoa izateari lotua datusate, eta beraz, bertakotzeko bidetzat. Hizkuntza hiztunendako erkidegoan txertatzeko baliabidea da, ez pragmatikoki soilik. Ondare hizkuntzari bertz hizkuntzei baino elkartasun balio handiagoa dario eta hiztunek hurbileko harremanetan nahiz eguneroan aiseago sartzen baitute, ohiko egin eta beretzera irits daitezke. Ildo horretatik, ondare hizkuntza identitate sortzailea da, 6.3.2.5 ataltxoan adieraziko dudan bezala.

Hurrengo puntuan familiaren historian euskara izate horri hiztunek ematen dioten zentzuan eta elementu horrek subjektuek mintzairarekin eratu dituzten harremanetan duen eraginean sakonduko dut.

6.3.2.2. *Ego belaunaldia haurtzaroan erdaraz*

«... ez nekien Nafarroan bertz hizkuntza bat zenik ere»

Iruñean hazi diren ego belaunaldiko pertsonen lekukotasunek hiri erdalduna irudikatzen dute haien haurzutuan. Horretan bat egiten dute guztiek, erdaraz eskolatu zirenek, ikastoletan ikasi zutenek bai eta euskara etxean ikasi zuenak ere.

Lidiak (I2. FG) umetan gurasoekin ikasitako euskara ia atzendu zuen, neskatikoa zelarik: «... ikasketa guztiak gaztelaniaz, lagun guztiak erdaldunak, karrika erdalduna... bakarrik erdaldunak, baziren euskaldun gutti (...) inguruko jendea erdalduna ama izan ezik». Euskara etxekoa bazuen ere erdarazko eskolaren eta ingurune erdaldunaren eraginez lehen hizkuntza kamustu egin zitzaion Lidiari. Beraz, badirudi I970eko hamarkadaren hasieran Iruñean sendi euskaldunetan hazi ziren haurrek euskarari eustea biziki zaila zutela, garai horretan zeuden ikastola gutxietako batean eskolatu ezean. Familiak, bakar-bakarrik, nekez berma zezakeen haurrek luzera etxeko hizkuntza atxikitzea.

Ego belaunaldiko hiru lagunek (I3. FGko Arantzak eta Mikelek eta I8. FGko Ameliak) ikastoletan ikasi zuten. Iruñean hazitako gainerako guztiak etxean erdaraz aritu eta hizkuntza horretan eskolatu ziren: Marta (II. FG), Sebas (I2. FG), Carlota eta Adur (I5. FG), Blanca eta Txuma (I6. FG), Susana eta Fernando (I9. FG) eta Raquel (20. FG). Zenbait kasutan gainera, euskararekiko urruntasunean, haren berririk jakin gabe ere hazi ziren:

... nik berez, ez nekien Arbizuko amatxi euskalduna zenik. Nik ez nuen kontzientzia linguistikorik, ez nekien Nafarroan bertze hizkuntza bat zenik ere. Gero ingelesa hasi nintzen ikasten institutuan, eskolan, eta orduan niretako munduan bi hizkuntza zeuden: gaztelania eta ingelesa (...). Nik ikusten nuen Euskadiko Kutxa eta Lankide ikusten nuen eta nik neure buruan ahoskatzen nuen *lankaid*, horrelaxe. 'Ingelese ez dugu hori ikasi. Oraindik ez dakigu zer den'. Nik ez nekien eta beraz, giro erdaldunean hazi nintzen (Sebas, I2. FG).

Yo, el único contacto que teníamos con el euskera era a partir de 6º que íbamos de campamento con el colegio y que íbamos a Santesteban y toda esa zona, pero nunca hablamos, ni nos enseñaron, ni nada. No había ni extraescolares de euskera como luego hubo. En la época mía no había (Susana, I9. FG).

Euskaraz eskolatu ziren ego belaunaldikoek ere haurtzarora erdaraz izan zuten ikastolaz kanpo. Amelia (I8. FG) familia erdaldunekoa da: «En mi casa no se ha oído nunca euskera». Halere, San Fermin Ikastolan eskolatu ziren bi ahizpak, ez gurasoek euskararekiko atxikimendu berezia zutelako, ikastolan heziketa mistoa zelako baizik:

... porque era de los pocos colegios mixtos (...). O sea, yo creo que en principio mis padres no eran nada del euskera porque tampoco... ni en aquellos años, todavía estaba Franco cuando nos escolarizaron. Y ellos venían de padres riojanos, o sea que el tema del euskera no lo tenían muy así. Yo creo que la razón principal fue porque era mixto. Como que no querían un colegio de niñas, ni de monjas, ni de... (...). Luego, conforme ha ido pasando el tiempo sí que se han sensibilizado con todo el tema del euskera y así pero yo creo que la razón inicial de mis padres no fue esa (Amelia, I8. FG).

Ikastolatik kanpo ordea, beti erdaraz: «... en mi época desde luego, nadie hablaba euskera en el patio» (Amelia, I8. FG).

Bortz urte gazteagoak diren Arantzak eta Mikelek (I3. FG) ere gauza bertsua kontatzen dute. Gurasoak erdaldunak dituzte baina euskaltzaleak (Arantzarenak euskara ikasten saiatuak). Hala eta guztiz ere, Arantzak eta Mikelek ere haurtzarora «gaztelaniaz» izan zuten ikasgelan ez bertze arlo guztietan. San Fermin Ikastolan, Udala Ikastolan nahiz Hegoalde Ikastolan ikaskideekin beti erdaraz egiten zuten.

Mikelen (I3. FG) familian hiru anaiek San Fermin ikastolan eskolatu ziren baina «... nahiz eta euskaldunak izan denak gure harremana bakarrik erdaraz izandu da (...) giro erdaldun batean erdaraz egiten genuen etxean». Ikaskide eta adiskideekin ere erdaraz: «... erdalduna izan zen nire harremana lagunekin nahiz eta beraiek ere euskaldunak izan...»; «... pues klaseetan eta horrela euskaraz egiten zenuen baina klasetik kanpo batere ez» (ibid.).

Arantzak (I3. FG) dioenez, ikastolan «... ziurrenik institutuan baino gehiago egiten genuen, pentsatzen dut, euskaraz. Institutuan batere ez». Haur-gaztetxotan erdaraz, nahiz eta euskaraz ikasten zuten hurrekin ibili auzoan eta lagun taldean, beti erdaraz.

Mendialdean hazitakoek (II. FGko Patxik, I4. FGko Marcosek eta I7. FGko Lourdesek) ere haur-gazteztua erdaraz izan zuten: «En la cuadrilla nos relacionábamoss todo en castellano. Todo, todo, todo castellano» (Lourdes, I7. FG).

Hala bada, I970eko hamarkadan hazitakoek, ego belaunaldiak, oro har haurtzaroen euskararekin izandako harremana hagitz mugatua izan zen. Iruñerrikoen artean etxean gurasoekin euskara ikasitakoak (I2. FGko Lidiak) txikitan egiteari utzi zion eta ia galdu zuen. Iruñean erdaraz eskolatu zirenak (II. FGko Marta, I2. FGko Sebas, I5. FGko Carlota eta Adur, I6. FGko Blanca eta Txuma, I9. FGko Susana eta Fernando eta 20. FGko Raquel) euskaratik urrun hazi ziren (nahiz eta bakarren batek aitatxi-amatxi euskaldunak izan). Iruñerriko ikastoletan ikasi zutenek (I3. FGko Arantzak eta Mikelek eta I8. FGko Ameliak) euskara ez zuten ikasgelaz landa —ez etxean, ez plazan— deusetarako erabiltzen. Ikaskide eta lagun euskaldunak zituzten baina erdara zen haurtzaroko beren arteko harreman hizkuntza.

Mendialdean sortutako ego belaunaldiko gurasoen artean inor ez da euskaldun hazi. Erdarazko eskolak eta herriko plaza erdaldunduak familia euskaldunetako haurrak erdaraz haztea ekarri zuten: batek (I4. FGko Marcosek) etxean ikasitako hizkuntza mutikotan hitz egiteari utzi eta ia galdu zuen, eta bertzea (I7. FGko Lourdes) inoiz ez zen euskaraz mintzatu, gurasoek ez baitzioten egin. Erdaraz egiten zen herrietan familian ikasten ez bazuten haurrak ez ziren euskaraz jabetzera iristen (II. FGko Patxi).

6.3.2.3. Iruñerriko ikastoletan eskolatuak

«... klaseetan eta horrela euskaraz egiten zenuen baina klasetik kanpo batere ez»

Ego belaunaldian hiru lagun daude umetatik Iruñerriko ikastoletan eskolatuak. Horiek euskara eskolaldian ikasi zuten baina aurreko ataltxoan aipatu bezala, haien lekukotasunetatik ondorioztatzen denez, ikasgelaz landa erdaraz egiten zuten bizitza, hala familian nola auzoan. Hau da, I970eko hamarkadan guraso erdaldunek euskaraz eskolatu zituzten horiek ikasgelaz landa erdaraz sozializatu ziren. Haztean ego belaunaldiko hiztun horiek ere (erdaraz eskolatu zirenek bezalaxe) euskararekin zer harreman eratu erabaki behar izan dute eta horretan ibilbide desberdinei jarraitu diete.

Arantzak (I3. FG) dioenez, gaztetan jakinaren gaineko hizkuntza aldaketa egin zuen adiskideekiko harremanetan euskara erabiltze aldera. Ikastolan gutxitan egiten zuten euskaraz baina gero institutuan are gutxiago: «... ziurrenik [ikastolan] institutuan baino gehiago egiten genuen, pentsatzen dut, euskaraz. Institutuan batere ez. Esanen nuke UBira iritsi arte». Baten batekin egiten zuela dio «... baina ez, ez ginen

gehiegi saiatzen, ez», aitortzen du. Gaztetan euskaraz ihardukitzeko gogoa biztu zaitzaion: «... garai batean izan genuen horrelako... esateko moduan '¡venga va! Denok euskaraz!'. Eta a ver, denok ez baina bueno, pixka bat kuadrillan ibiltzen ginenok bai. Ez dakit zer dela eta baina bai». Orduan zergatik bai galdeginda: «... ja hasten zarela-ko (...) kontzientzia pixka bat gehiago hartzen edo... esaten 'bueno, hemen zer ari naiz?'» (ibid.). Iruñean euskaraz ikasitakoen artean joera handia dago erdararako, haren ustez; senarraren kasuan hori garbi dakusa:

... euskaraz kostatzen zaio, kostatzen zaio eta (...) ahalegin handia egin duela iruditzen zait. Bera euskalduna sentitzen da baina betikoa, beti egin dituzu harremanak gazteleraz, beti, askoz ere errazagoa da. Baina erabaki genuen talde berean eta hasieran kostata, klaro (...). Laguntaldean ere oso kuriooso da. Esan nahi dut gertatzen dela, denak euskaldunak, denak euskaltzaleak tatata... baina badira betikoak, ikastolan ikasiak baina igual oso eroso sentitzen ez direnak euskaraz egiten. Bestetik, euskara ikasten beranduago saiatu direnak eta ahalegin handia egin dutenak eta ikasi dute baina betiere, azkenean, harremana gazteleraz, o sea, joera hori da, gaztelera (Arantza, I3. FG).

Mikelek (I3. FG) ikastola garaian behin ere ez zuen euskaraz egin ikasgelatik at. Arantza Iturrama Institutuan ezagutu zuen eta harremanaren hasieran erdaraz egiten zuten:

Ni batez ere [Arantza] ezagutu nuenean (...). Hasieran [harremana] gazteleraz izandu zen eta gero, es que niri lotsa pixka bat ere ematen zidan zer Irantzu da filologoa eta ni berez, nire euskara maila ez da oso... (...). Hasierako urteak gazteleraz egiten genuen batez ere gure artean. Eta bueno, ja gero hasi nintzen saiatzen euskara gehiago egiten eta batez ere bultzada eman nion [Arantzarekin] hitz egiterakoan. Ordura arte, pues klaseetan eta horrela euskaraz egiten zenuen baina klastetik kanpo batere ez (...). Baina gero [Arantzarekin] bai (Mikel, I3. FG).

Mikel NUPera joan zelarik ikastera eta, batik bat, Arantzarekin harremana hasi zuelarik ekin zion euskaraz egiteari. Adinari ere lotzen dio euskaraz egiten hasteko erabakia:

Nik uste dut adina ere badela, azkenean ez bakarrik [Arantza], bikotea, euskalduna duzulako baizik eta adin horretan, gero unibertsitatean ere pentsatzen duzu... eta bazen unibertsitatean ere nirekin Iturraman [institutuan] izandakoa eta Iturraman gazteleraz eta gero hara joan eta euskaraz egiten genuela. Nik uste dut adina ere badela (Mikel, I3. FG).

Ameliak (I8. FG) San Fermin Ikastolan ikasi zuen BBBko 2. maila bitarte eta gero erdaraz ikasten segitu zuen apaizgaitegian eta bi institututan:

... yo no he tenido tampoco mucha facilidad (...) a mí el euskera se me ha hecho difícil. Yo por ejemplo, Filosofía, que estudiamos en euskera [ikastolan]. Cuando yo salí al Seminario y estudiaba Filosofía en castellano, digo '¡ostia! ¡Es que me parece la mitad de fácil!¹⁴³! (...). Entonces, claro, pero es igual porque hay gente que ha salido de la ikastola hablando muy bien euskera y yo he salido más justilla (Amelia, I8. FG).

¹⁴³ «... la mitad de difícil» erran nahi izan duke.

UBI ikasten zuelarik euskara lantzea erabaki zuen eta Iruñeko HEOran joan zen borzgarren maila ateratzeko asmoz, baina ahozko azterketa ez zuen gainditu. Harrezkero ez zuen euskara lantzen segitu eta harreman guztiak, ahizparekin, lagunekin bai eta mutil-lagunarekin ere erdaraz izan ditu.

Ataltxo honetara ekarri ditudan lekukotasunek darakutsatenez, Iruñean euskaraz eskolatu zirenak ikasgelaz landa erdaraz sozializatu ziren familian bezala lagunartean eta plazan ere. Hitzun horiek ikastolan jasotako euskara bigarren hizkuntzatzat zuten, egunerokoan ez zerabiltena eta eskolara mugatua. Halatan, euskarari eutsi eta bizitzan sartu dutenek jakinaren gaineko erabakia hartu behar izan dute. Euskara beretakotzeko nahikaria —«kontzientzia», dio Arantzak (I3. FG)— behar izan dute mintzaira harremanetan sartu ahal izateko —zenbaitetan nekez— Iruñean euskararen gizarte egoerak ez baitu erabilera berezkoa eta jarraitua bermatzen.

6.3.2.4. *Ego belaunaldiaren euskalduntzea*

«... kontzientziatu nintzen ikasi behar nuela euskara. Ikasi nuen»

Ego belaunaldiko gehienek aita-ama bihurtu baino lehen euskararekin harremanen bat izan dute. Ataltxo honetan subjektuek hizkuntzarekin garatu dituzten atxikidurei erreparatuko diet, hots, euskara ikasten hasteko erabakiari eta, ikastoletan eskolatu zirenen kasuan, euskara harremanetan sartzeko prozesuari.

Euskara ongi ikastera iritsi direnek ikasten hasteko erabakia gaztetan, ikasle garaian, hemezortzi-hogei urte inguruan hartu zuten. Hala berresten dute Patxik eta Martak (II. FG), Lidiak eta Sebask (I2. FG), Marcosek (I4. FG), Adurrek (I5. FG) eta Txumak (I6. FG). Ikus dezagun erabaki hori nola sortu zen.

Mezkiritzen hazitako Patxi (II. FG) amak bultzatu zuen euskara ikastera: «Nire ama nahiz eta erdalduna izan, kultura gehiagokoa zen, eta kontzientzia kutsu eta pixka bat ematen zigun, beti balore hori izateko: 'Ikasi behar duzu euskaraz!'». Halere, Iruñean ikasle zelarik lagunaren eraginez euskaldundu zen:

... gogoratzen naiz ja hamasei urtetik gora hona etorri, Iruñera, eta hemen egin nituen lagunak, kuadrilla bat eta hori, denak zirela San Fermin Ikastolako ikasleak eta han konturatu nintzen haiek esaten zidatenaren arabera, euskalduna ni nintze-la. Haiek deskribatzen zuten nola zen euskalduna eta 'joe, ostia, hori naiz ni! Hori naiz ni!'. Eta ja horrekin ja kontzientziatu nintzen ikasi behar nuela euskara. Ikasi nuen. Hasi nintzen benetan euskalduntzen hemeretzi urterekin (Patxi, II. FG)

Patxi ez zen euskaltegira joan baina «... erraz samar ikasi» zuela dio. Lehenago euskaldundu zen arreba baten laguntza izan zuen: «Nire kabuz. Hasi nintzen urte batean irailan eta orduan bizi nintzen nire arrebarekin (...) eta hurrengo urteko maiatzean Hizkuntza Eskolako laugarrena atera nuen». Patxiren familian zazpi anai-arrebetatik guztiak euskaldundu dira herrian bizitzen gelditu den «... txikiena kenduta». Haurrideekin euskaraz egiten hasi zen Patxi: «Nik anai-arrebekin denekin egiten dut euskaraz...».

Marta (II. FG) Zaragozan Patxirekin Ingeniaritza ikasten zuelarik hasi zen euskara ikasten:

Euskaldun asko ziren, asko [Zaragozan], eta hasi zen talde bat funtzionatzen, EKT deitzen zen, Euskal Kultur Taldea, eta hasi ziren euskara klaseak ematen hor. Orduan apuntatu nintzen. [Patxik] bazekien euskara (...). Orduan, berak [Patxik] bultzatuta pixka bat... giro jatorra zegoela... Hasi nintzen klaseetara joaten. Klaseetan oso ongi pasatzen genuen eta gero aprobetxatzen genuen ateratzeko eta hori izan zen lehenengo harremana (Marta, II. FG).

Lagun taldean zuen giroa, ikasteko eta aritzeko aproposa, nabarmentzen du Martak ikaste prozesuaren hasiera horretan:

... harreman estua izan nuen haiekin [kuadrillako lagun euskaldunekin] eta batzuk nahiko militanteak ziren euskararekin eta bazekiten ni ikasten ari nintzela. Orduan ordu asko pasatzen genuen elkarrekin (...). Batzuk ziren ikastolakakoak eta mantendu dute (...) ez dute utzi atera zirenetik (...). Haien artean beti mantentzen dute, inoiz ez dute erdaraz egiten eta nirekin gutxitan ere bai, oso gutxitan. Bazekiten ikasten ari nintzela eta hasieran, pixka bat, bortxatu gabe, ez egoera asko baina bai, hasieratik banuen aukera praktikatzeko hasieratik (...) giroa zen aproposa horretarako (Marta, II. FG).

Iruñera itzulita, Ingeniaritza proiektua egiten hasi zen NUPen eta bitartean Miluze euskaltegian aritzen zen euskara lantzen: «Urte nahiko, ordu pila bat (...). Hasieran zen pixka bat... kuadrillarekin eta [Patxirekin] hitz egiteko pixka bat jakin min horrekin baina ikusi nuen ere bai hemen [NUPen] aukerak... inork ez zuen klaseak ematen euskaraz eta bueno, aukera hori bultzatzeko hasi nintzen titulua atera nahian eta horretan, pixka bat horretan jarraitu nuen atera arte» (Marta, II. FG).

Martaren familian lau ahizpetatik hiru euskaldundu dira; halere erdaraz aritzen dira beren artean: «Ahizpak, nahiz eta euskaldunak izan, gure artean erdaraz mantentzen dugu» (ibid.).

Lidia (12. FG), familiaz Mendialdekoa baina Iruñean hazia, neskatikotan zekien euskara galduxea zuenean hasi zen mintzaira (berr)ikasten gaztezutuan:

Unibertsitate garaian nintzela hasi nintzen pixka bat (...) AEKn, Donibanen. Uste nuen ez nekiela ezer (...). Baina klaro, sartu nintzen AEKko hasten ari ziren talde batean eta, hombre, haiek baino gehiago banekien. Ez nekien igual idazten, ortografia eta abar, baina bai. Orduan utzi nion momentu horretan (...) eta ja karrera bukatu nuenean (...) apuntatu nintzen Miluzen (...) egin nituen bi urtez alfabetatze eta ja aurkeztu nintzen EGAr (Lidia, 12. FG).

Lidiak euskara ikasten hasteko bi arrazoi aipatzen ditu: «Bata, familiako hizkuntza dela, gure etxeko hizkuntza. Eta bigarrena, lana aurkitzeko aukera gehiago ematen zizkidala». Kasu honetan euskara berreskuratzeak mintzaira etxean sartzeko aukera eman dio Lidiari. Honela mintzo da behin euskara ikasiz gero izandako amarekiko hizkuntza harremanaren aldaketaz: «... gero ni berreskuratzen hasi nintzenean pues, hemezortzi, hemeretzi urterekin... pues orduan berak ere egiten zidan. Orduan ja nik, nolabait ni bueltatu nintzen eta berak ere bai. Berak herrian beti euskaraz bere anai-arrebekin. Bere hizkuntza hori da, baina nirekin... (...) gaztelaniaz. Ni ikasten hasi nintzen artio» (ibid.).

Lidiaren anaiak ez du berak bezala euskara (berr)ikasi baina moldatzen da. Halere, anai-arreben artean «erdaraz» egiten dute, nahiz eta orain haurrak tartean di-relarik maizago euskaraz aritu.

Etxeko euskara erdarara aldatzeko prozesuan bezala, euskara etxera berriz sartzeko bilakaeran belaunaldien arteko eragina agertzen da Lidiaren glotohistorian. Euskara berriz etxekotze horrek bat egiten du Iruritako landa ikerketako zenbait familian gertatutakoarekin (ikus 5.3.3.7 ataltoa).

Iruñean sortutako Sebas (I2. FG) ere ikasle garaian hasi zen euskara ikasten. Unibertsitatean zelarik «... hainbat gauza elkartu ziren» txikitatik etxean jasotako euskararen gaineko ikusmolde topikoa aldatzera eta euskarara hurbiltzera eraman zutenak. Alde batetik, «... interesa berez piztu zitzaidan» —dio Sebasek— «... lagun batzuekin mintzatuz». Bertze alde batetik, tesia egiteko hartu zuen «... gaia izan zen Nafarroaren nortasuna edo historia». Eta azkenik, aitortzen du, «... bikotekidea ezagutu nuen, Almandozkoa da, euskalduna eta (...) neska-lagunarekin hasi nintzen ikasten» 1995eko udan. Honela azaltzen dute batak eta bertzeak:

Ni euskalduna nintzen azken finean. Igual horregatik hasi zen bera ere (...). Pues irakatsi nion... ni berez ez naiz kontzientziatua izan, pues zabaldu behar dut edo... egin zitzaidan natural, modu normal batean... bera irekia bada, interesa izango zuen eta ni prest nintzen laguntzeko edo hurbiltzeko, zeren orduan ez zuen ezagutuko ez nire familia ere (Lidia, I2. FG).

Hasieran etxean, udan (...) berarekin [Lidiarekin]. Lehen urratsa edo horrela. Liburu batzuk bazituen [Lidiak], Arturo Campionekoak ziren edo IKAKoak edo AEKko liburuxkak ariketekin. Eta lehenbizikoa *ni naiz, hemen nago, hor zaudete*... Horrelako gauzak [Lidiarekin] eta gero ja bigarren urratsetik aitzinat Miluze euskaltegian (...) gero, azken bi mailak, azken bi urteak Hizkuntza Eskolan (Sebas, I2. FG).

Sebasen familian hiru anaietarik bera da euskara ongi ikastera iritsi den bakarra (egun euskara irakasle jarduten du), bertze anaiek «... ikastaroren bat egin zuten baina. . .» (ibid.).

Lakuntzan jaiotako Marcosek (I4. FG) mutikotan euskara galduxea zuen. Gaztetxotan apaizgaitegian ikasten zuelarik euskaraz deus idazteko gauza ez zela oroit da: «... ni ez nintzen kapaz esaldi bat ere idazteko [euskaraz]. Ez zitzaidan ateratzen» (ibid.). Bartzelonara ikastera joan zen eta han zebilelarik hartu zuen euskalduntzeko erabakia:

... Bartzelonara unibertsitatera joan nintzenean... [1976an] Joan baino lehenago ere politikoki oso garai bizia zen behintzat. Eta nik uste dut ja baneukan asmoa euskara berriro errekuperatzeko nolabait baina Bartzelonatik itzuli nintzenean erabaki nuen berehala errekuperatzea eta Iruñean hasi nintzen gau-eskola batean eta urtebetean EGA atera nuen. O sea, hartu nuen buru-belarri, gogoz eta gero hamalau urtez euskara irakasle izan nintzen Gipuzkoan (Marcos, I4. FG).

Motibazio ideologikoez bultzatu zuten Marcos euskara (berr)ikastera baina behin gaztetan berreskuratuz gero hizkuntza horretan berreratu zuen aita-amekin eta arrebarekin zuen harremana eta ohiko hizkuntza bihurtu zuen lagunartean eta lanean.

Iruñean sortutako Adur (I5. FG) anaiarekin hasi zen euskara ikasten gaztetan Iturramako AEKn «... betidanik ikasi nahi genuelako». Iturrama Institutuan egin zituen BBB eta UBI, erdaraz. Euskarazko lerrokoekin harremana zuen eta euskararen

aldeko jardueretan, Korrikan, adibidez, haiekin parte hartzen zuen. Honela kontatzen du Adurrek euskara ikastera bulkatu zuen bizipena:

Oroitzen naiz institutu garaian joan ginela Carcar aldera Korrikara eta joan ginen autobus batean euskarazko adarreko guztiok eta erdarazko lau edo bost joan ginen. Zozketa egin genuen bidean a ver nork eraman behar zuen lekukoa eta niri tokatu zitzaidan. Eta korrika egitean furgonetakoak esaten zidan alde egiteko pixka bat kea ez hartzeko eta nik ez nuen ulertzen. Orduan, lagun bat etorri zen eta esan zidan ‘[Adur], tira atzera!’. Eta egun hartan pentsatu nuen ‘jo [xo]! Es que ez dut ulertu’, eta gainera... eta pixka bat hitz egiten [anaiarekin]... enteratu ginen AEKK sortu behar zuela. Gainera, auzoko jendea, ezaguna... Hogei bat hasi ginen (...). Gero pasatu nintzen Miluze euskaltegia bukatzera eta bukatu arte (...). Atera nuen EGA (Adur, 15. FG).

Bi anaiak euskaldundu ziren baina beren artean «... normalean erdaraz» egiteko ohitura dute, nahiz eta orain haurrak tartean direlarik euskaraz gehiagotan aritu: «Orain txikitoekin gero eta gehiago euskaraz» (ibid.).

Iruñean sortutako Txumak (16. FG) San Fermin Ikastolan ikasten zuten auzo lagun batzuei esker izan zuen ikastolen berri eta euskarara hurbildu zen «... más por amistades o por el entorno...». Gero gaztetan, euskaraz ikasten zuten neska-mutilekin harremanetan hasi eta euskara etxean, aitatziren ahotik, aditu izana balioetsi zuen: «... a excepción de mi hermano y yo, eran todos venidos de la Ikastola San Fermín. Y yo no sé si fue aquello o simplemente que yo también digo ‘¡Ahí va!, si yo también lo tengo en casa ¿no? ¿Por qué no?’ Y así empiezas...» (ibid.). Gaztetan, UBI errepikatzen ari zelarik, hasi zen euskara ikasten Iruñeko HEOn, gero Miluze euskaltegian eta 1993an EGA gainditu zuen. Bere arreba batek ere ikasi zuen.

Horiek dira ego belaunaldikoen artean euskara ongi ikastera iritsitakoak. Bertze batzuk badira ikaste prozesua oraindik burutu ez dutenak: M^a Fernanda (14. FG), Carlota (15. FG), Blanca (16. FG), Susana eta Fernando (19. FG). Ikus dezagun azken bi hauen azalpena:

La infancia la hemos vivido aquí [Etxabakoitzen] (...). Mi relación con el euskera empezaría con diecisiete, dieciocho años aquí, en las gau-eskolas que había en Etxabakoitz (...). Pues el ambiente que se vivía en aquellos tiempos, pues no sé, nos motivaba a los amigos (...). Nos apuntamos varios amigos y dábamos clase en el colegio de aquí del Sagrado Corazón (...) eran grupos de AEK (...) empezamos a estudiar y fuimos avanzando poco a poco. Y al final (...) no es que aprendí para hablar hablar (...) a la hora de hablar nos costaba pero sí que aprendimos pues lo que era un poco la base y canciones, mogollón de canciones yo me acuerdo que aprendimos, que te motivaba la música en euskera, pues ya entonces en aquellos tiempos cuando se oían Itoiz... había un montón de grupos de euskera: Ertzainak... Entonces pues nos motivaba un poco la música y el hablar euskera (Fernando, 19. FG).

Dioenez, berak euskara ikasteak arreba txikiari bihotz eman zion hizkuntza ikasten hasteko: «Y después con el tiempo empezó a estudiar también mi hermana que ahora está de irakasle [D erduan] en Buztintxuri. Yo creo que yo la motivé a ella y ella aprendió muy bien» (ibid.).

Susanak (I9. FG) seme-alabak Amaiur Ikastolan hasi zirenean ekin zion euskara ikasteari. Haurrak izan ziren pizgarria: «... cuando éstos empezaron con tres años, entonces me apunté yo a aprender un poco, ‘por lo menos’, digo, ‘entender. Lo mínimo pero entender algo’».

Raquel eta Iñaki (20. FG) inoiz ez dira euskara ikasten saiatu.

Ataltxo honetara ekarri ditudan lekukotasunak aztertuta garbi dakusat Iruñean hazitako nahiz hiriburura ikasle garaian bildutako ego belaunaldiko zenbait lagunek gaztetan euskara ikastea deliberatu zutela eta euskarari atxikitzea erabaki jakinaren gainekoa edo kontzientea izan zela. Lekukotasunetan diotenez, gaztezutuan euskara ikas-teko gogoia adinkideengandik etorri zitzaien gehienei eta bikotekidea eragile garrantzitsua izan zen. Familian euskaldunen bat izan dutenek laguntza hori aipatzen dute ikasten hasteko edota behin ikasiz gero etxean euskaraz egiteari ekiteko.

Gaztetan euskaldundutakoek bezala, euskaraz eskolatu zirenek ere euskara atxikitzeke gogo-nahia behar izan dute hiriburuko egoera soziolinguistikoak ez baitzien euskararen erabilera bermatzen.

Hala bada, ego belaunaldiko subjektu batzuek bigarren hizkuntzatat ikasitako euskara bizitzako mintzaira nagusi egin nahi izan dute. Horrek euskara hautatzea erran nahi du, euskara beretzea erabakitzea eta prozesu horretan hizkuntza egunerokoa eta hurbileneko harremanetakoa bilakatzea. Orduan, euskara beretakotuta, horrekin batera identitate berria eratu dute hiztunek, hurbilen ataltxoan azalduko dudana bezala.

6.3.2.5. *Hizkuntza aldaketa eta identitatearen eraketa*

«Orain ja, bizitza osoa, ja egun osoa egiten dut euskaraz»

Ego belaunaldiko batzuk txikitan ikastoletan edo gaztetan euskaltegietan euskara ikasita mintzaira hori harremanetan sartzen hasten dira eta kasu batzuetan beren bizitzako hizkuntza nagusia bihurtzen dute. Prozesu hori jakinaren gainekoa da, hiztunek hala erabakita, ohartuki eta nahita eginda. Marta (II. FG) Patxirekin euskaraz egiten hasteko prozesuaz honela mintzo da:

Hasieran ezer ez genuen egiten baina zazpigarren urratsa edo hasi nintzeanean, egun batean esan zidan [Patxik] ‘inoiz gehiago ez dugu hitz egingo erdaraz’ (...) eta ja hasi ginen. Horrela hasi ginen. Hasieran pixka bat zaila, bueno, banuen... ez nuen arazorik hitz egiteko, ongi edo gaizki hitz egiten nuen arazorik gabe (...). Orain ja, bizitza osoa, ja egun osoa egiten dut euskaraz.

Pertsona batzuek euskaraz jabetzea erabakitzean mintzaira batik bat familiaren eta jatorriaren osagaitako ikusi dute. Euskarari atxiki zaizkio eta hori egitean familiaren hizkuntzari segida eman nahi izan diote. Zenbaitek sendiaren mintzaira galdu zela edo galtzeko hari batean egon zela eta horren «kontzientzia» hartu zutela aipatzen dute. Alde horretatik, euskaraz egitea familiaren hizkuntzaren jarraipenaren etena berrestekatu eta segitzea da. Horrela azaltzen dute euskarari atxikitzeke erabakia II. FGko Patxik, I2. FGko Lidiak eta I4. FGko Marcosek:

Denborak ematen dizun perspektiba eta horretan nik aipatuko nuke bereziki euskal kulturarena, euskal kultura eta kontzientziarena. Hasiera batean guk

ez genuen inolako kontzientziarik. Bueno, amaxirengandik. Amaxik egiten zuela euskara eta hori, egiten zuela bere euskara eta zenbaitekin hitz egiten zuela baina zen beti gauza bat nolabait ezkutuan eta ez zegoela inolako asmorik eta interesik transmititzeko. Eta amaxik eman zion pixka bat nire aitari. Nire aitak nahiko ongi mantendu duela (...). Baina denborarekin hortik atera da benetan zegoen balorea: gure gauza bat zela, gure hizkuntza, bere balioa zuela eta sortu da kontzientziario bat oraingo gizartearekin dagoen batera, nolabait indartsuago dagoela euskalduna izatearena, gure nortasuna. Eta alde horretatik pozik nago (...) nire aitarentzat urtetan ez digula deus ere, ja [xa] ere esan, ez eta hitz bat ere euskaraz eta kontzientzia, deus ez horren inguruan. Gero atera egin da hori nik uste dut bera ere sentitzen dela oso ongi (Patxi, I1. FG).

Lidiaren motibazio edo arrazoietakoa bat euskara (berr)ikasteko «... familiako hizkuntza dela, gure etxeko hizkuntza» (Lidia, I2. FG).

Marcosek (I4. FG) familiaren euskara galdu izanaren kontzientzia Kataluniako egoerak eman ziola dio:

... Kataluniak ere lagundu zuen zer beraiek, klaro, guk ikusten genuenean han Katalunian jendeak katalanez hitz egiten zuela, eta zuri ere katalanez hitz egiten zizun, lehenengo hitza katalaneraz egin zizun. Orduan, klaro, hasten zara kontzientzia hartzen eta esaten 'jode! Zer alde! Ez? Hemendik hara'. Eta nolabait kontzientzia hartu. Zer nik baneukan arantza hori sartuta, euskara galtzearen historia eta errekerperatu nahi nuen (...) nik uste dut han ja erabakia tinkoa izan zela Euskal Herrira itzulita euskara errekerperatu, bai (Marcos, I4. FG).

Euskaraz jabetzea berreskurapenari eta familiaren jatorriari lotze gisa hautematen dutenekin batera, euskarari atxikitzea familiatik heldu zaienaren urraketatzat jo dute bertze hiztun batzuek. Horietako kasurik garbiena Sebas (I2. FG) da. Gaztetan euskara ikasi eta mintzaira hori bere bizitzako nagusia egitea deliberatu du, baina txikitan familian «... euskararen inguruko nahiko ikuspegi topikoa» jaso zuen: «... euskara ETAre kontua» zela «... eta horrelako istorioak». Honela dio horretaz ohartu izanaz: «Momentu batean konturatu nintzen, 'Jode, ba nik topiko horiek etxean jaso ditut'. Eta horren kontra egin behar izan dut nire barnean, eta ez didate doktrinarik eman, 'hori txarra da!', baina horrelako komentarioak, batez ere amaren ahotik, entzun izan ditut etxean». Euskarari atxikitzean Sebasek etxean jasotakotik urrunduz eratu du hizkuntza identitatea: «... handia nintzelarik hasi nintzen gauzak bertze modu batean ikusten. Eta batez ere unibertsitatean hasi nintzen ikuspuntuak aldatzen» (ibid.). Hitzuna haustura-hautu horren jakitun da eta hizkuntzari jakinaren gainean eutsi dio.

Euskaraz eskolatu zirenek ere (I3. FGko Arantzak eta Mikelek eta I8. FGko Ameliak) ikastolaz landa haurtzarora erdaraz bizitu zuten eta haiek ere eskolaren bidez ikasitako euskara mantentzeko gogo-nahia behar izan dute. Hau da, hizkuntzari eustea, euskara beretakotzea deliberatu behar izan dute, Iruñean euskararen gizarte egoerak ez baitu erabilera berezkoa eta jarraitua ziurtatzen. Ego belaunaldikoen artean euskara atxikitzeko erabakia gaztezutuan gertatzen dela dirudi.

Aipatutako horietaz gain, bertze hiztun batzuk ere badira euskara ikasi bai baina egunerokoan sartu ez dutenak. Adurrek (I5. FG) eta Txumak (I6. FG), erraterako, euskara ongi ikasi zuten baina ez dirudi hurbileko harremanetan toki nagusia eman eta

mintzaira beretakotu dutenik. Adurrek anaiarekin normalean erdaraz egiten segitu zuen eta neska-lagunarekin ere bai. Txumak ere, antza, ez zituen eguneroko harremanak euskaraz bideratu. Haren hitzei ez zaie euskara bere egin duenik edo bizitzan sartu duenik antzematen: «Al final, soy euskaldunberri y para este tipo de cosas [bere bizitzaz mintzatzeko] me desenvuelvo mejor en castellano» (Txuma, I6. FG). Haren ahoan usuak dira euskara zaila dela eta zenbat kostatzen zaion aditzera ematen duten aipamenak.

Hizkuntza berria bizitzako nagusia egiteko bilakabidean lan jarduerak garrantzia duela ematen du: «Orain ja bizitza osoa, ia egun osoa egiten dut euskaraz. Ez bada hemen [NUPen], institutuan» (Marta, II. FG). Batez ere euskaraz bizi direla diotenak lanean hizkuntza horretan aritzen dira. Euskara edota euskaraz irakasten dutenak edo horretan hainbat urtez jardun dutenak franko dira: II. FGko Marta eta Patxi, I2. FGko Lidia eta Sebas, I3. FGko Arantza eta I4. FGko Marcos. Irakaskuntzatik at, Txumak (I6. FG) hiriburuko beilatoki batean egiten du lan eta euskaraz maiz egiten duela dio. Lanean euskararekin harreman oso gutxi edo batere ez dutenak euskara pittin bat edo batere ez dakitenak izaten dira.

Orduan, euskaraz jabetu ez ezik mintzaira beretu ere egin duten hiztunek hizkuntza harreman sareetan eta bizitzaren arlo desberdinetan sartu dute. Euskararako guneak sortu nahi izan dituzte mintzaira horretan ihardukitzeko aukera urriak eskaintzen dituen Iruñe erdaldunduan.

Hala bada, berriemaileen lekukotasunetik darakutsatenez, ego belaunaldiko zenbait kidek haurretan nahiz gaztetan ikasitako euskara beren bizitzako hizkuntza nagusia izatea erabaki dute eta horrek beren hurbileko harremanak, familia eta bikotekidea bereziki, ukitu ditu. Soziolinguistikak hiztunek hizkuntzaren alde garatzen duten nahikari edo gogo-nahi hori —*deseo*, Hernandezen (2007) hitzetan— hizkuntza indarberritzeko funtsezkoa dela onartzen badu ere, teorikoki ez da sakonki landu eta egin delarik identitate mailan ulertu izan da. Horrek Euskal Herrian bizi (izan) dugun egoera gatazkatsuan anitz aldiz hizkuntzarekiko nahikaria lerratze politikoarekin berdinkatzea ekarri du (ibid., 435-436) eta ez digu hiztunek mintzairerekiko garatzen dituzten atxikimenduak ongi aditu eta azaltzea ahalbidetu.

Kasu batzuetan, hiztunendako euskara familiaren historian eta oroipenetan egoeta garrantzitsua izan da; bertze batzuetan, mintzaira sendiaren historian izatea ez da subjektuendako bereziki esanahitsua izan eta zenbait aldiz, euskara ez dago familiaren jatorrian. Horren bidetik, hiztun batzuek euskara beren egite hori familiaren jatorrizko hizkuntzarekiko loturatzat hartu dute eta bertze batzuek aldiz, familiarengandik jasotakoarekiko nolabaiteko hausturatzat (*transgresión*, dio Hernandezek, 2007). Dena dela, euskarari atxiki zaizkion guztiek hautuz egin dute, kasu guztietan subjektuak nahikariz lotu zaizkio hizkuntzari eta mintzairarekin bat egin nahi izanez euskararen eratu dute beren identitatea, izan nahi duten hori.

Hiztunaren eta hizkuntzaren arteko barremana: hizkuntza identitatea

Hizkuntza hiztunen identitateari estuki lotua bilakatzen den prozesua barrentzeko tradizio soziologiko, linguistiko, filologiko eta antropologiko nagusiek ez dute laguntza handirik ematen. Azken hamarkadetan hizkuntza eta identitate kontzeptuen gainean jakite arlo desberdinetatik egin diren ekarpen teoriko berriak aldiz bereziki baliagarri izan zaizkit hiztunek hizkuntzarekin eratzen dituzten harremanak aztertzeko.

Hondar urteotan identitate eta hizkuntza kontzeptuen gainean jorratu diren ikusmolde teorikoek ohiko paradigma estrukturalista zalantzan jarri dute. Eredu teoriko horrek, alde batetik, hizkuntza kode eta sistema kontzeptuen barnean estutzen du, eta bertzetik, identitatea denboran luzatzen den prozesutako ikusi beharrean, pertsonen ezaugarri estatiko samartzat jotzen.

Proposamen berriek —ikusmolde postestrukturalistak deitu direnek— hizkuntza ez dute sistematizat jotzen ez eta identitatea alde aurretik emana dagoen gertakirizat ere. Aitzitik, mintzaira testuinguru jakin batean subjektuek beren helburuak erdiesteko tresnatako hartzen dute; eta identitatea gizarte harremanak eta ideologia anitzak eratzeko prozesuen eragile aktibotzat. Alegia, identitatea zerbaiten (prozesu, erabaki, jarduera baten) ondorioetako dakusate.

Hizkuntza subjektuaren identitatearen eratzailatzat hartzen duen ikusmolde honetan mintzaira kode baino gehiago hiztunak bere burua agertu eta inguruan kokatzeko baliabidea da. Hizkuntza sistematizat hartu beharrean testuinguru jakin batean subjektuek beren xedeak lortzeko baliabidetzat jotzen bada, identitatea mintzairaren eguneroko arian —fluxuan— eratzen da eta egunez eguneko narratiba pragmatikoe-tan, gure gizarte bizitzaren joanean ezartzen:

When language is seen not as a self-contained system but as a context-specific tool for achieving our purposes, identity is structured in the everyday flow of language and stabilized in the pragmatic narratives of our day-to-day, fluid social life. For HL [Heritage Language] learners, HL acquisition is thus constitutive of identity, which is accomplished in everyday social interactions (He, 2012: 592).

Ikuspegi horretan jakintza arlo desberdinetako ekarpenak bildu dira (Pujolar, 2008): etnometodologian oinarritutako soziologia interakzionista (Garfinkel, 1967; Goffman, 1959), ikastearen teorietan garatu den konstruktibismo kontzeptutik eratorritako proposamenak, eta teoria feminista, batik bat Judith Butlerren (1990) lanetik hedatutako jarduera edo *performance* eta *identitate performatibo*en ideia, hau da, aritzean edo jardutean sortzen diren identitateak.

Halakotz, gizarte zientzietan identitatearen gaineko azterketetan halako paradigma aldaketa bat gertatu da hizkuntza identitate arlora ekartzeko balio heuristikoko handiko ekarpena izan dena. Identitatearen ikusmolde berrian «... identity is treated not as a collection of static attributes or as a mental construct existing prior to and independent of human actions, but rather as a process of continually emerging and becoming, a process that identifies what a person becomes and achieves through ongoing interactions with other persons» (He, 2012: 595). Hori horrela, identitatea ez da hitzun hasiberrien hizkuntza sozializazioaren garapenaren harroina, gizarteratze horren eragingarri erakarlea baizik (Ochs, 1993; He, 1995; Bucholtz & Hall, 2004).

Gure esparru akademikoan hizkuntza identitatearen adiera postestrukturalista hori Jone Miren Hernandezek jorratu du. Euskararen transmisioaren gainean Lasarte-Orian egindako ikerketa etnografikoan aritzean edo jardutean —ez esentzian edo hitzunen alde aurreko balizko ezein ezaugarritan— oinarritzen den identitatearen proposamenari lotu zaio. *Identidad adquirida* proposatu du, hots, hitzunek beretutako identitatea:

La propuesta de una identidad adquirida —frente a la visión tradicional que se presenta como un fenómeno adscrito o asociado de forma natural— tiene consecuencias también en la forma en la que se expresa y manifiesta, proceso en

el que la noción de *performance* adquiere una relevancia notable. Desde este tipo de postulados la identidad deja de ser una categoría o una suma de roles preexistentes (Hernández, 2007: 448).

Gurera etorrita, hizkuntza aldatzeko bilakabide horretan ego belaunaldiko hiztunek beretutako hizkuntzarekin eratzen dituzten harremanek zer ikusteko dute gero, seme-alabak izatean, familian mintzaira berriari eman dioten lekuarekin eta umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean izan dituzten jarrera eta jokaerekin? Hori ondoko atalean aztertuko dut.

6.3.3. Euskaldun hazi 2012ko Iruñean

Aztergai dudana familia laginean ego belaunaldiko lagun batzuk euskarari —kasua ia guztietan bigarren hizkuntzatako ikasitakoari— atxiki zaizkio, mintzaira beretu, etxekotu dute eta aitamatu direlarik seme-alabak euskaldun hazi nahi izan dituzte. Horri esker egun Iruñean familia euskaldunetan hazitako haurrak daude, euskara lehen hizkuntza dutenak (laginean azertu ditudan familien 19 haurretatik 7) eta mintzaira horretan eskolatuta etxeaz landa ere, gutxi-asko, euskaraz sozializatzen direnak. Nafarroako historia soziolinguistikoa —salbuespen bakan batzuk gorabehera— urrunsko jo beharko genuke hiriburuan horrelako familiak eta hiztunak kausitzeko.

Hondar hamarkadetan zentsu-erroldak, inkesta eta azterketa soziolinguistikoek (azkenetako bat baizik ez aipatzearen: Euskarabidea & Nafarroako Gobernu, 2006) euskararen familia bidezko transmisioaren dimentsio kuantitatiboa azaleratu dute. Hargatik, izan badira hizkuntza hegemonikoaren ikuspegitik familian euskaldun hazi diren iruindarrak badaudela ukatzen dutenak edo gizarte gertakari hori ikusezin zaie-nak. Halako ikusmoldea ezarrita dago eta, gainera, ez dira hutsalak, sozialki oihartzun eskasekoak, ez eta politikoki eraginik gabekoak ere ideia horri eutsi diotenak eta hazitaten dutenak. Horren ikusbide, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko epaile baten epaia. Euskalerrira iratiaren lizentziaren auzian, Iruñerrian jatorrizko euskaldunak ez dagoela idatzi eta horrela argudiatu zuen kontrako epaia¹⁴⁴.

Mendialde euskaldunetik at euskara lehen hizkuntza duten nafarrak badirela badakigu baina, errealitate horren taxu kuantitatiboaz gain, deus gutxi dakigu egun Nafarroako eremu erdaldun(du)etan, eta bereziki Iruñerrian, familia euskaldunetako gurasoen eta seme-alaben arteko hizkuntza elkarrekintzez eta haurrak euskaldun bilakatzeko moduz.

¹⁴⁴ Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 1994ko azaroan emandako epaia da. Horretan Ignacio Merino Zalba epaile-txostengileak honela arrazoitu zuen Iruñeko Komunikabideak SA-k Euskalerrira Irratiaren lizentziaren auzian jarritako berraztertzeko helegitea ez onartzeko emandako zazpigarren argudioan: «SEPTIMO.- Vulneración del constitucional principio de igualdad. Resultaría raro que no se hubiera sacado a relucir. Pues bien de esto nada de nada. No se discrimina al euskera en beneficio de otras lenguas y en perjuicio de aquella, porque nadie pide ni impide que se hable y radiodifunda unas u otra; claro es que ello vendrá con la demanda que no puede ser muy alta habida cuenta de los escasos vasco-parlantes de la zona, zona media o mixta, con ningún vasco-parlante de origen en la ciudad y sí de los provenientes de la zona vasco-parlante, en relación con los habitantes de ella —cerca de 300.000— con lo que el pretendido de la entidad actora es justamente lo contrario, es decir, es discriminatorio para la mayoría de los ciudadanos en relación con una minoría y para con otras lenguas» (Torrealda, 1998: 211. Azpimarra nik egina da).

Iruindar euskaldun belaunaldi berriaren euskarazko gizarteratzearen inguruabarrak eta baldintzak aztertzeko aita-amen —ego belaunaldiaren— euskara gaitasunari baino gehiago, guraso horien hizkuntza portaerei eta seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean egindako hautuei eta erabakiei so egingen diet.

Gurasoen hizkuntza gaitasuna haurrak lehen hizkuntzaz jabetzeko eragingarri nagusizat —eta usu bakartzat— hartu ohi da: «Bikotekideen hizkuntza-gaitasunak erabat baldintzatzen du seme-alabei transmititzen zaien lehen hizkuntza» (Eusko Jaurlaritza, 2008b: 159). Halere, anitzetan gurasoen jokabideak, familia barneko hizkuntza elkarbizitzaren gainean adosten edota isilean deliberatzen dituztenak eta umeei mintzaira ikasi, erabili eta lantzea ahalbidetzeko sortzen dituzten aukerak ez ohi dira behar bezala balioetsi.

Hizkuntza sozializazioaren paradigmatik egindako ikerketek oro har (erraterako, Pease-Álvarez, 2003; Luykx, 2003; Lamarre & Rossell, 2003; bai eta Europako hizkuntza gutxituen gaineko gutxi batzuek ere: Fellin, 2002 eta Morris, 2005, kasu) eta ikermolde kualitatiboko zenbait azterlan soziolinguistikok (erraterako, Chrisp, 2005) alderdi horiek ohargarritzat jo dituzte eta haietan sakonago arakatzeko garrantzia iradoki dute.

Halaz, ondoko ataltxoetan hizkuntza gaitasunaz haratago gurasoek haurren hizkuntza sozializazioa ulertzeko moduan, haurrak euskaraz hazteari ematen dioten baliario nahiz gurasoen eta seme-alaben arteko elkarreraginetan barnatuko naiz.

6.3.3.1. Euskaraz bizi diren familiak

«... erabaki genuen euskaraz bizi nahi genuela»

Euskaraz bizi diren familietan (II., I2. eta I3. FGetan) bi gurasoak euskaldunak dira eta guztietan euskara da etxeko hizkuntza, bakarra ez bada, bai nagusia: «Etxean beti egiten dugu euskaraz» (Marta, II. FG), «Etxean beti euskaraz» (Sebas, I2. FG: IO), «Etxean euskaraz egiten dugu» (Mikel, I3. FG). Familia horietan gurasoek gehienetan euskaraz egiten dute beren artean eta seme-alabekin beti. Haurrideek ere hala egiten dute. Ikus dezagun banan-banan:

II. FGko Patxi eta Marta senar-emazteak umeak sortu orduko jarriak ziren beren artean euskaraz ihardukitzera eta seme-alabak izanda haurrei ere mintzaira horretan egitea gurasoek adostu beharrik gabeko erabakia izan zen: «... guk ja euskaraz egiten genuen, orduan ez genuen horretaz hitz egin. Normala ikusten zen, euskaraz egiten genuen dena» (Marta, II. FG); «Ez dugu ikusten beste modu batez, ez dugu ikusten. Gure harremana beti da euskaraz (...). Orduan, familiak etorri behar zuen, inolako aldaketarik gabe. Ez genuen ez eta planteatu ere» (Patxi, II. FG).

Martak amatasun-baimena akituta, bi umeen kasuan haurtzain euskalduna (espre-suki hala nahi zutelako) kontratatu zuten eta gero zerbitzua euskaraz ematen duen haur eskola bilatu zuten. Seme-alabek euskaraz egiten dute: «Haien artean beti euskaraz, beti, eta horretan bai ez dugula guk inoiz ezer esan behar, eta ez dugu inoiz esan (...) nahiko joera dute euskaraz egiteko. Hobeto egiten dute gainera, erdaraz baino (...) nik uste etxeko giroak egiten duela pila bat, pila bat. Etxean ez badute batere euskaraz egiten, oso zaila da, nahiz eta ongi hitz egin» (Marta, II. FG). Patxiren ustez, gurasoak euskaraz aritzen zirela ikusita hurrek ere horrela egin zuten hasieratik: «...»

umeek gu ikustea beti euskaraz egiten dugula gure artean, haiekin, haiek naturalki hitz egiten dutela euskaraz, oso... niretzat gauza polita da» (Patxi, II. FG).

Senar-emazteek hizkuntza zaintzen dute. Asteburuetan Mezkiritzera, Patxiren sorterrira, joaten direlarik beren etxera biltzen diren herriko haurrei ere etxeke giro euskaldunera molda daitezen eragiten diete:

Gure etxean daudenean badakite... euskaltegi bat, o sea, ezin da... hori oso garbi dute eta etortzen diren lagun guztiak hori badakite, gure etxean euskaraz egiten da, batez ere denek dakitelako, txiki guztiak, txikiak. Mezkiritzen ibiltzen diren guztiak D ereduak ikasten dute. Orduan, saiatzen dira, etxean gutxitan egiten dute erdaraz eta beti ni horretan ez naiz oso zorrotza baina [Patxi] horretan da taliban, o sea, etxean baldin badaude euskaraz egin behar dute (Marta, II. FG).

Berriki Patxi hiketan hasi zaie seme-alabei eta itxaropena du egunen batean haurrak erabiltzeko gai izanen direla.

Bertze familietan (I2. eta I3. FGetan) etxean, eta bereziki umei, zer hizkuntzatan egin bikoteak alde edo moldez solastu eta adostua izan da.

I2. FGn, Sebasek euskara ikasi ahala eta berak hala eskatuta bikoteak «... poliki-poliki» (Sebas, I2. FG) harreman hizkuntza aldatu zuen, baina «... batez ere umea sortu zenetik, nik uste», dio Lidiak, «nik uste gehienbat hor izan zela» (Lidia, I2. FG). Umea sortzeko zegoelarik etxean zein hizkuntzatan egin deliberatzean amak zalantzak izan zituela aitortzen du, guraso batek hizkuntza batean eta bertzeak bertzean egitea izan zuten aukeren artean, nahiz eta azkenean hori baztertu:

Erabaki genuen zer irakatsi behar genion eta nik zalantzak nituen horren gainean. Pues erraten nuen 'igual batak hizkuntza batean eta bertzeak bertzean, biak ikas ditzan'. Gero erabaki genuen ezetz, guk euskaraz egiten geniola (...) zertaz [Sebasek] erraten zidan 'Iruña honetan, Iruñean erdaraz ikasiko du zuk ikasi duzun bezala. Pues egin diezaiogun guk euskaraz eta kanpotik ikasiko du erdaraz'. Eta hori erabaki genuen eta... [Sebasen] familia erdalduna da. Bere familiarekin ere ikasiko du. Eta horrela hasi ginen (Lidia, I2. FG).

Sebasek aldiz, «haurrarekin euskaraz egiten dugu» (Sebas, I2. FG) dioelarik eztabaidarik gabeko erabakia izan zelakoan dago: «... nik uste ados geundela. Ez ginen horretaz mintzatu baina nolabait begi bistakoa zen. Aurretik [ilobekin] euskaraz egiten genuen eta hori nahi genuen (...) nik uste berez sortu zela (...). Haurra euskalduna izatea nahi genuela nik uste» (ibid.).

Semea sortu zenerako bikotekideak elkarren artean euskaraz egiten hasiak ziren, beti egiten ez bazuen ere, baina 2006an Peru sortzearekin tinkoago egiteari ekin zioten:

... lehenago egiten genuen igual euskaraz nola erdaraz... pasatzen ginen batetik bertzerera gehiagotan (...) batez ere umea sortu zenetik, nik uste. Nik uste gehienbat hor izan zela. Lehenago ere bai baina ja umea sortu zenean erabaki behar duzu 'zer egin behar dugu, zer hizkuntzatan egin behar dugu'. Eta hasi nintzen haurrarekin euskaraz eta gure artean euskaraz (Lidia, I2. FG).

Hala bada, umea izan eta euskaraz egiten hasi zitzaizkion hari baita elkarri ere ia beti, Lidiak kontatzen duenez: «Orain gehienaz euskaraz egiten dugu. Gehienetan euskaraz eta haurraren aitzinean normalean beti, gu erreferente hori izateko» (ibid.).

Semea sortu eta aita-amek zaindu dute eskolatu artio, eszedentzia eta lan baime-nak biek eskatuta. Gainera, hiru hilabete eta erdi zituelarik Peruri minbizia lotu zitzaion. Mutikoak ospitaletan denboraldi luzeak eman behar izan zituen, batzuetan gurasoekin bakartua. Horrek haurraren hizkuntza sozializazioari eragin dio:

Klaro, ospitalean egotearen ondorioetako bat izan da beti solasean aritzen ginela. Ez dago deus egiterik, bada beti solasean [Perurekin] edo kantari edo gauzak kontatzen (...). Eta beti karrikan ere beti solasean. Silletan eramaten genuelarik ni ondoan joaten nintzen horrela, saihetsetik bulkatuta baina ondoan eta solasean, eta egunen batean lagun bati erran nion 'Iruñera etorri gara solasean'. Orduan [Peruk] ez dakit bi urte izanen zituen eta 'Ja, ja! Nola solasean bi urteko mutiko batekin?'. Bueno, nik erraten nion 'ongi pasatu duzu herrian?' eta 'bai' erraten zidan. Bueno, bere neurriko solasak egiten genituen, hori solasean aritzea da. Eta orduan beti tar-tar-tar. Nik ikusten dut batzuetan... guraso batzuk ikusten ditut igual villabesan¹⁴⁵ edo karrikan haurrekin joaten direla baina solasik egin gabe. Guretako hori ezinezkoa izan da, beti tar-tar-tar. Eta nahiko solastuna da, solastuna eta batzuetan tar-tar samarra ere bai (Sebas, I2. FG).

Sebasek tinkotasun handiz egiten dio euskaraz semeari: «... etxean beti euskaraz, nirekin batez ere» (ibid.). Alde horretatik Lidia «bigunagoa» edo «malguagoa» dela dio:

Emaztea horretarako... batzuetan... esaldi batzuk botatzen dizkio erdaraz. Nik uste dut momentu batean (...), behin ospitalean ingresatu behar zuenean ziztatu behar izan zuten eta erizainekin gelditu zen bakarrik [Peru] eta hasi zen '¡no quieres! ¡no quieres!'. Eta... '¡no quieres!', '¡no quiero!' erran nahi zuen baina erdaraz gaizki moldatzen zen eta erraten zuen '¡no quieres!', ikasten ari zelakoz erdaraz. Eta orduan emazteak ikusi zuen, bueno nik ere bai, horrelakoetan klaro, gu gabe gelditzen dela ospitalean erizain jende arrotzarekin, erizainekin, eta gainera horri gehitu behar zaiola igual (...) ez diela oso ondo ulertzen, edo garai batean ez ziela oso ongi ulertzen. Eta nik uste dut (...) harrezkeroztik emaztea saiatu dela pixka bat, bueno, erdara ere irakasten neurri batean. Orduan, beti-beti-beti-beti euskaraz egiten dion bakarra ni naiz. Emazteak gehienetan egiten dio euskaraz baina badakizu, horretarako bigunagoa da edo malguagoa da (Sebas, I2. FG).

Sebasek Peruri euskaraz egiten dio familiakide erdaldunen aitzinean ere: «... haiekin gaudelarik ere nik haurrarekin euskaraz egiten dut, gure artean euskaraz egiten dugu». Haurrak «gurekin, desde luego, beti euskaraz egiten du» (Lidia, I2. FG). Peruk izandako gaitzagatik —orain erabat sendatuta dago— gurasoekin bakarrik eman zuen denbora gehiena, horregatik «... lau urte bete artio kasik elebakarra izan da, euskaraz bakarrik moldatzen zen (...). Orain ez» (ibid.) «... baina hobeki moldatzen da euskaraz erdaraz baino eta nahi izaten du euskaraz egin eta egin diezaioten» (ibid.).

Gurasoek baztaneraz egiten diote umeari, ikas dezan. Sebas saiatzen da horretan eta andrearen familiaren baserrian, Almandozen, haurrak aditzen dituen «trakeske-riak» direla eta, «koleratzen» da: «Peruri erakutsi diote jostetan aritzeko erdara erabi-

¹⁴⁵ *Villavesa* Iruñerriko hiri autobus orori erraten diote bertakoek, ez hiriburua eta Atarrabia (gaztelaniaz *Villava*) lotzen duenari bakarrik. Ricardo Ollaquindiak José M^a Iribarrenen *Vocabulario navarro* (1984: 542) lanaren argitaraldi zabaldua apailatu zuelarik *villavesa* hitza bildu zuen.

li behar dela nahita ez» (ibid.). Kexu da «... nolabait diglosia ikastaro bat» eman diotelako «zuzen-zuzenean»: «'Bai, hemen baserrian ongi da gure artean euskaraz egiten ahal dugu baina baserriatik kanpo, munduan, erdaraz egin behar da'. Horrela, ezin dute mundua euskaraz imajinatu» (ibid.). Baserrian ikusi zuelarik euskaldun batzuek nola jokatzeko zuten hizkuntzarekin «... euskaldun desideologizatu bat» zer den ikasi zuela dio Sebasek (ibid.). Euskaldun desideologizatu edo kontzientziarik gabekoa hizkuntzaren erabileraz eta kalitateaz zabarra dena da, horrek axolarik ez diona. Sebasek euskalduna izatearekin izan duen bizipena hautu oso kontzientea da, jakinaren gainean eta gogoz eraman beharrekoa. Horregatik baserrian ikusten duenak semearen euskaraz jabetzeko prozesuari eragiteak kezkatzen eta arduratzen du.

Sebasen anaiek ez dute haurrik, Peruren lehengusu bakarrak amaren aldekoak dira, Almandozen bizi direnak, hamahiru eta hamar urteko bi mutiko. Lidia eta Sebas euskaraz aritzen dira ilobekin eta Peruk ere lehengusuekin beti euskaraz egiten du.

13. FGan Arantzak eta Mikelek gaztetan harremana hasi zutelarik beren artean euskaraz egiten hastea deliberatu zuten, Mikelek euskaraz egiteko ohiturarik eta erraztasunik ez bazuen ere: «Asko ikasi du [Mikelek] eta asko ikasten ari gara eta erabaki genuen euskaraz bizi nahi genuela eta umeekin hori bai, euskaraz egiten dugu» (Arantza, I3. FG). Bikoteak harreman hizkuntza aldatzearena «... bion artean» erabakita oroitzen da Mikel eta «... gero ja besteekin» (Mikel, I3. FG). Prozesua ez zela erraza izan aitortzen du Arantzak: «... kostata, kostata» (Arantza, I3. FG). Baina euskara benetan familia hizkuntzatzat ezartzea lehen umea izan eta ondoan gertatu zen: «... eta gero ja semeak izaterakoan ja guztiz egiten dugu giro euskaldun bat etxean» (ibid.). Halere, bikotea bere artean noizbehinka erdaraz aritzen da.

Umeak izan aitzinetik etxean eta, bereziki, hurrekin beti euskaraz egiten zutela erabaki zuten. Honela egiten du gogoeta Arantzak: «... euskaraz bizitzeko nahia edo... askotan ezina alde guztietatik eta esaten duzu 'Jo [xo]! Gutxienez gure esku dagoen horretan behinik behin egin dezagun!'» (Arantza, I3. FG). Mikel oroitu da lehen semea sortu baino lehen horretaz mintzatu zirela:

Bai, bai, batez ere nik akatsak sartzen nituenean euskaraz hitz egiterakoan. Orduan [Arantzak] esaten zuen 'Jode! Baina haurra bat izan behar badugu eta euskaraz mintzatu behar badiogu, euskaraz hobetu egin beharko duzu, ez dakit zer'. Nik denborarik ez nuen, baina bueno, hasi nintzen pues liburuak irakurtzen, arreta gehiago jartzen euskaraz egiterakoan. Bai, hitz egina genuen euskara... euskal giroa nahi genuela etxean. Hori lortu behar nuen. [Arantzarekin] ez zegoen arazorik hori lortzeko. Lortu banuen garantia pixka batzuekin, ez nion gaizki hitz egin behar, zer hori ere [Arantzak] argi zuen. Gaizki hitz egiteko hobe nuela nik berarekin erdaraz egitea eta berak euskaraz. Baina niri pena ematen zidan hori egitea. Orduan, pues hori hitz egina genuen euskara giro batean murgiltzea eta hasi ginen, jaio zen eta euskaraz egiten genuen. Aitatxi eta amatxi eta amona erdaraz egiten zuen eta orduan bi hizkuntzak izan ditu hasiera-hasieratik. Eta hasi zen euskaraz. Bere lehenbiziko hitzak euskaraz izandu ziren (Mikel, I3. FG).

Arantzak amatasun-baimena eskatuta, lehen umea euskarazko haur eskola batera eraman zuten. Bigarrena berak zaindu zuen eta hirugarrena ere haur eskola berean eskolatu zuten. Hiru semeekin Arantzak eman du denbora gehiago aitak baino; berak hartu ditu lan baimenak eta lanaldi murriztuak. Orain ere gehiago aritzen da ama, astegunetan batez ere.

Haurrek euskaraz egiten dute beren artean: «Euskaraz, haien artean euskaraz» (Mikel, I3. FG), «... euskaraz egiten dute oraingoz haien artean. Baina besteekin...» (Arantza, I3. FG). Arantzak ez du nahi izaten semeak bertze umeeekin erdaraz ari daitezzen eta sarri —sarriegi akaso, uste du berak— ohartarazten ditu:

Nik oso maiz egiten dut, ez dakit... Amorrua ematen didalako (...) nik behar baino gehiago esaten diet, azkenean ez dakit horrelako efektua lortuko ote dudan edo (...). Nik aldiro (...). Amorrua ematen didana da azkenean (...) betiko kontua, zergatik? Zuk euskaraz baldin badakizu eta honek ere bai eta gainera hobeki egiten baduzu euskaraz gazteleraz baino, zergatik egin behar du berak? Ez? (ibid.).

Seme-alabak euskaraz hazteaz duen igurikimenaz, honela dio Mikelek:

Gustatuko litzaidake jarraitzea euskaraz izaten gure etxean haiek seme-alabak izaten badituzte (...). Eta zer gertatuko den haiekin, pues ez dakit, ez dakit (...). Gutxienez bai, ni eta haien arteko hizkuntza euskara izatea gustatuko litzaidake eta pentsatzen dut izanen dela, pentsatzen dut, baina gero haien arteko hizkuntza izatea pues... saiatuko naiz horrela izan dadin... (Mikel, I3. FG).

Euskaraz bizi nabia: euskara erabiltzeko sozializazioa

Hiru bikote horiek euskaraz beti edo gehienbat aritzen diren familiak osatu dituzte Iruñean. Gurasoak euskaldunak dira baina ez dirudi hizkuntza gaitasuna —gutxienez maila batean beharrezkoa bada ere— guztiz erabakigarria izan denik: hizkuntzan ongi moldatzea euskaraz bizi izateko alde zureko baldintzatzat baino gehiago euskaraz bizi izatearen ondorioetako agertzen da.

Euskararekin motibazio handiko hiztunak dira, mintzairari atxikimendu sendoa diotenak (guztiak ez badira ere, bikote bakoitzean bat bederen halakoa da). Familian euskaraz egitea deliberatu dute kasu gehienetan guraso horiek hobekien eta erosoan egiten duten hizkuntza ez bada ere. Batzuei bikotearen harreman hizkuntza aldatzea prozesu gaitz eta nekoso gertatu zaie. Familia euskalduna osatzea erabaki jakinaren gainekoa izan da, gibelean motibazio azkarra izan duena, ahalegin larria eskatzen baitu, arrazoi subjektiboek ekarria, guztiz ideologikoa eta finean, hiztunen gogo-nahi edo «kontzientzia» kontua.

Guraso batzuek familiaren hizkuntza euskara izatea eztabaidatu beharrik gabeko kontu jakintzat eman dute eta bertze batzuek familian, eta bereziki haurrekin, nola mintzatzeko ziren hizpide eta adosteko gaia izan zuten. Oro har, aita-ama horiek familiaren barneko hizkuntza elkarbizitza planifikatu dute. Batzuetan, aitamatu baino lehenago ere seme-alabak izateko aukera eta osatuko zuten familiaren hizkuntza izan zuten solasgai gurasoek beren arteko harremana euskarara aldatu zutelarik. Bertze batzuetan, lehen umea izatea erabakigarria izan da aita-amendako, familia osatzeak gurasoak seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean paratu baititu eta etxeko hizkuntza portaera ezartzeko unea izan baita. Hala bada, umeak izateak edo izateko aukerak bizikideen arteko hizkuntza ohituretan duen eragina agerikoa da: II. FGko senar-emazteek lehen umea izan orduko beren artean euskaraz egiten zuten baina bertze bi kasuetan seme-alabak sortzea hizkuntza aldaketarako erabakigarria izan zen (I3. FG) edo biziki lagungarria (I2. FG).

Lekukotasunek harreman hizkuntza erdaratik euskarara aldatu duten bikoteen gaineko ikerketa batek (Soziolinguistika Klusterra, 2009) ondorioztatu duena sendesten dute: seme-alabek gurasoen arteko euskarazko ohitura finkatzen laguntzen dute. Bikote anitzek «... ahalegin berezia egin dute ikasteko *seme-alabak jaiotzerako* gaitasun maila on bat izateko», eta bertze anitzen kasuan, berriz, seme-alabak izateak bikotearen euskarazko ohitura indartu egin du haurrei «*erabat*» euskaraz egiten baitiete (ibid., 17).

Guraso horiek familia euskalduna osatu nahi izan dute eta etxean nola eginen zuten solasgai izan eta adostuta edo berez hala eginda, hizkuntza portaera finkoak ezarri dituzte. Familia guztietan guraso batek bederen euskarari tinko eusten dio etxean, seme-alabekin aritzean batik bat. Bertzalde, euskararekin kontzientziatuen edo motibatuen dagoen gurasoak haurren hizkuntza sozializazioaren gainekoak deliberatu eta hautatzean erabakimen edo eragin handia izan du.

Familia hauetako gurasoek seme-alabak euskaraz haztea dute helburu eta haurren hizkuntza sozializazioari dagozkionak zaintzen ohi dituzte. Hizkuntza erabiltzeko sozializazioan haurrak erabilerarako arauetz mintzaira gizarte jardueretan nola erabiltzen den ikusita jabetzen dira, eta egoera horietan parte hartuta (Schieffelin & Ochs, 1986: 171). Hala bada, haurrek hizkuntza ez ezik hura erabiltzeko gizarte arauak, kodeen arteko hierarkia, baten eta bertzearen gizarte baliagarritasuna eta halakoak ere barneratzen dituzte. Alderdi hori da euskaraz bizi diren familietako gurasoei bereziki ardura diena: haurrengan euskararen erabilera portaera egokiak ezartzea.

Aita-ama horiek umeak sortzetik beretik etxean euskarara jarrarazi nahi izan dituzte eta euskaraz egin dezaten hazten dituzte haurrak. Euskararen erabilerarako gurasoen jarduera sozializatzaileak honako agerbide hauek ditu:

– Gurasoek seme-alaben *hizkuntza portaeren eredia* izan nahi dute. Horrek honakoak dakartza: bikotekideek euskara beren arteko mintzaira ohikoa bihurtzea, edo haurren aitzinean bederen zaintzea, eta haurrekin beti euskaraz aritzea. Batzuetan gurasoek hizkuntza moldean ere seme-alabendako eredugarri izan nahi dute eta euskara gaztetan ikasi bazuten ere haurrei mintzaira jatorra (adibidez, herriko hizkera edo hitanoa) irakasten saiatzen dira. Oro har, aita-amek haurren hizkuntza portaera eta kalitateaz izaten dituzte kezka. Gurasoen jokaera hau euskararekiko atxikimendu edo leialtasuntzat (*language loyalty*, Weinreich, 1979: 101) joko nuke ohartuta ere kasu gehienetan euskara ez dela hiztun horien lehen hizkuntza, gazte-heldutan beretua baizik¹⁴⁶.

– Haurrak euskaraz hazteko gurasoek *umeen zaintzari dagozkion hautuak* egiten dituzte: haurtzain euskalduna kontratatu, euskarazko haur eskola bilatu, ikastolako bi urteko gelara jo... Aita-amen hautu-erabaki horiek, zuzenean edo zeharka, haurren hizkuntza portaerari eragiten diote. Zenbait egilek (erraterako, Fishmanek, 1997) gurasoek horretan duten egitekoa funtsezkotzat jo dute. Chrispek (2005) hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioari eragiten dioten faktoreen artean aita-amen *critical*

¹⁴⁶ Mollà eta Viana (1991: 37-38) soziolinguista katalanek aldiz, hiztunek lehen hizkuntza ez den mintzairarekin garatzen duten atxikimenduari errateko Weinreichen kontzeptua arazotsu eta aplikaezintzat jo dute anbigua izateagatik: «L'ús intencional pot estar orientat també per una determinada concepció del passat. El exemples d'adopció del català de gent de contexts socials castellanitzats representen d'alguna manera el reconeixement d'un canvi de llengua previ, del català cap al castellà. De manera que en realitat la inversió de normes permet enllaçar amb un context cultural anterior i considerat també com a propi. La noció de *lleialtat lingüística* resulta ací inaplicable, per anbigua».

awareness aipatu du, hots, gurasoak beren hizkuntza jokaerek mintzairaren ondoren-goenganatzean dituzten ondorioen jakitun izatea.

– Gurasoei seme-alaben hizkuntza portaerak axola die eta umeen euskararekiko atxikimendua lantzen dute. Eredua emateaz gain, zenbait kasutan (II. eta I3. FGetan) diskurtsoaren bidez *euskara erabiltzeko beziketa* egiten dute etxean nahiz etxeaz landa: haurren euskararen erabilera sustatzen dute (bertze haurrekiko harremanetan, kultura kontsumoan eta jardueretan...), erdarazkoa gaitzesten eta haurrak erdaraz ari badira ohartarazten... Indartze ideologiko hori, haurrei hizkuntza jarrera eta portaera ego-kiak espresuki irakastea, oinarritzotzat jo dute adibidez hebreeraren indarberritzea aztertu duten zenbait egilek (bertzeak bertze, Nahirrek, 1988 eta Spolskyk, 1996).

Etxeko hizkuntza giroak haurren jokaerei eragiten die. Euskaraz bizitzea erabaki duten familietan hazi diren haurrideek elkarren artean euskaraz egiten dute. Kasu batean (I2. FGn) ezin dut hori zuzenean frogatu, seme bakarra delako, baina horretan mutikoak bere belaunaldi bereko familiakideekin, hau da, lehengusuekin euskaraz egiten du beti. Dirudenez, hurrek guraso euskaldunei euskaraz egitea aita edota ama horien hizkuntza erabilera irmoak eragina da.

Aztertutako familietan aitona-amonek, antza, ez diote haurren euskarazko sozializazioari bereziki eragin. Kasu pare batean (II. FGko Patxiren aitarenean eta I2. FGko Lidiaren amarenean) ez bertzeetan aitaxi eta amatxi erdaldunak dira.

Hurrek etxeko hizkuntzarekin eratzen dituzten lotura afektiboak hizpide izan ditu soziolinguistikak. Fishmanek (1990, 1997) familiari esleitu zion hizkuntza gutxituak eskolan duen garapena osatzeko indargarri afektiboa, sentipenetan eta emozioetan oinarritutakoa izatea. Behlingek (1996: 83) okzitanieraren eta haren kulturaren transmisioaren gainean egindako inkestak agerian utzi du hurrek hizkuntza gutxituaren aldera duten motibazioak mintzaira horrek familian duen tokiarekin erlazioa duela: «... le sondage confirme le rapport entre la motivation et la présence de la langue dans la famille».

Iruña bezalako ingurune erdaldunduan euskaraz bizi eta umeak euskaldun hazi nahi dituzten familia horiek jakinaren gaineko hautu-erabaki anitz hartu behar izaten dituzte hurrek etxean, eskolatu baino lehen, eskolan bertan eta eskolaz kanpo izanen duten hizkuntza sozializazioari doazkionak. Guraso horiek euskaraz bizitzea ahalbidetzen duten gizarte aukerak baliatzen dituzte (haur eskolak, irakaskuntza, kultura eskaintza...) baina eskolaz gain Iruñean euskarazko eskaintza eta aukerak urri-urriak direla erratean denak agertu dira irizkide.

Guraso euskaldunei haurrak euskaldun hazteaz duten itxaropenaz galdeginda, beraien eta seme-alaben arteko harremanak euskaraz izaten segitzea, euskarak familia hizkuntza izaten jarraitzea eta, oro har, hurrek harremanetarako euskara erabiltzea aipatzen dute. Euskararekiko igurikimena familia eta talde partaidetzari loturik ikusten dute.

Kuantitatiboki gutxi izanda ere, euskaraz bizi diren familiek hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenerako berebiziko garrantzia dute. Guraso horiek euskara (gehienendako bigarren hizkuntza dena¹⁴⁷) etxekotu eta umeak euskaldun hazteko estrategia berariazkoak jarri dituzte abian.

¹⁴⁷ Hondar urteotan zenbait egile katalan (Subirats et al., 1991; Vila, 1993, De Rosselló, Galindo & Vila, 2002) *families mutants* deitzen hasi zaie aita-amek eta seme-alabek lehen hizkuntza bera ez duten

6.3.3.2. *Guraso bakarra euskalduna duten familiak*

«... bemen Iruñean badela zaila...
gainera gure familian gebienek ez dakite euskaraz»

Aztertutako familietatik hiruk (I4., I5. eta I6. FGek) dute guraso bat —hirurretan aita— euskalduna, euskaraz ongi moldatzen dena, nahiz eta zenbait kasutan euskara hizkuntza ohikoa ez izan eta erdaraz anitzez hobeki egin. Bitariko bikote horietako kideek erdaraz egiten dute beren artean baina aitek seme-alabekin egiteko moldean badaude aldeak familia batetik bertzera. Banan-banan azalduko ditut:

I4. FGko Marcosek semeari euskaraz egiten dio beti: «... nik [Aitzolekin] euskaraz egiten dut...» (I4. FG). M^a Fernanda 2005ean Guatemalatik Iruñera iritsi eta euskaraz ikasten hasi zen. Ez zuen ikaste prozesua bukatu baina franko ulertzen du. Berriki artio aitatxi euskalduna (Marcosen aita) etxean bizi izan da eta euskaraz egiten zuen semearekin eta bilobarekin. Honela dio Marcosek:

... berak (M^a Fernandak) asko ulertzen du, zer klaro, urte hauetan lau bizi izandu gara, orain dela... abendu arte (aitatxi hil baitzen), etxean: bera, [Aitzol], nire aita eta ni. Eta aitarekin eta [Aitzolekin] beti euskaraz aritzen ginen (...) gure artean beti euskaraz aritu gara. Berarekin erdaraz eta besteon artean euskaraz. Berak inolako arazorik gabe, belarria ere... asko ulertzen zuen, batzuetan ez zen ohartzen zer hizkuntzatan ari ginen hizketan, hala esaten du berak. Ulertu asko ulertzen du, hitz egitea gehiago kostatzen da eta askotan komentatzen dugu gure artean, bada, igual hasi beharko genuke pixka bat edo... (Marcos, I4. FG).

Umea sortu zelarik nolabait adostu zuten nola eginen zuten etxean: aitak euskaraz eta amak erdaraz. Marcosek semearekin ari delarik tinko eusten dio euskarari, M^a Fernandaren aitzinean ere bai:

Bai, bion arteko gauza izan zen, ez zen unilaterala. Nik euskaraz egingo nion, berak erdaraz. Eta [Aitzolek] ez dauka inolako arazorik. Segundo frakzio batean aldatzen du euskara, erdara, bueno... batetik bestera pasatzen da inolako arazorik gabe (...) eta ongi bizi du berak egoera hori (...). Nik [Aitzolekin] euskaraz egiten dut. Bai, baina naturalki gainera, inolako... ez dut planteatu behar izan (...). Berak niri beti euskaraz egiten dit (Marcos, I4. FG).

Orain Marcosek M^a Fernanda bultzatzen du euskaraz hasteko: «Nik esaten diot 'nahiko gramatika jakin badakizu, ulermen maila polita daukazu. Igual izango litzateke momentua dakizun hori erabiltzen hasteko, ez da?'. Baina igual inertzia beti erdaraz gure artean, bada berari kostatu egiten zaio» (ibid.).

Gurasoek Amaiur Ikastolako bi urteko gelara eraman zuten haurra. Ordura artio Aitzolek batez ere amarekin eta aitatxi euskaldunarekin eman zuen denbora. Marcosek

sendiei. Kasu horietan gurasoek beren ama hizkuntza transmititu beharrean umeei lehen hizkuntzatak bertze mintzaira bat eman diete. Montoya eta Mas (2011) irakasleek *familias revernacularizadores* erraten diete. Gure kasuan euskara etxekotu, belauenez belaunek jarraipena (berr)estekatu eta, azken finean, hizkuntzaren galera prozesuaren itzulgarritasuna gauzatu duten sendiei *familia biburrazleak* erran geniezaieke, edo hobe, *familia etxekotzaileak*.

dio emazteak inoiz semeari ezer egiten badio euskaraz haurrak ez duela onartzen: «... ez zaio gustatzen: ‘Ez ama, zuk erdaraz. Eta zuk, aita, euskaraz’ (...). Eta ama igual zuzentzen zaio euskaraz batzuetan [Aitzoli], dakien gutxi hori esaten edo, eta berari ez zaio gustatzen» (ibid.).

Aitak eta, batez ere, aitaxi zenak Lakuntzako hizkeraz egin diote haurrari: «... nabaritzen zaio (...) gehiago aitonaren eraginagatik» (ibid.) dio Marcosek. Aitzolek lehengusinak ditu, Marcosen arrebaren alabak, eta euskaraz egiten du beti haiekin. Haurra euskaldun hazteaz duen itxaropenaz galdeginda, honela dio aitak:

... poztuko nintzateke berak euskara maitatuko balu. Baina maitatuko du ikusten badu gauza maitagarria dela, eta naturala, eta berea dela (...). Nik uste bere bizitza bizi behar duela. Nik lagunduko diot ahal den guztietan. Berak ikusten du etxean ejenplua ere eta berak ikusiko du. Nik uste dut euskara maitatuko duela baina... hombre, ez dut uste honek [Aitzolek] niri esango didanik egunen batean ‘aita, mesedez, niri erdaraz egin’ nik nire gurasoekin egin nuen bezala (Marcos, I4. FG).

I5. FGko Adurrek eta Carlotak ez dirudi hizkuntza kontuetan deus adostu zutenik. Adurrek semeei euskaraz eta gaztelaniaz egiten die eta haurrek hari ere bai: «... niri batzuetan euskaraz eta beste batzuetan... zeren eta nik batzuetan erdaraz egiten dudalako haiekin. Segun eta norekin edo non...» (Adur, I5. FG). Adurrek euskarari tinko eusteko zailtasunak aipatzen ditu, erraterako, familiakide erdaldunen aitzineko egoerak kudeatzeko bereziki zailak zaizkio eta horregatik deseroso egoten da: «... hemen Iruñean badela zaila... gainera, gure familian gehienek ez dakite euskaraz eta batzuetan nik egiten dut erdaraz beraiekin [umeekin]. Ba, ez dakit, igual ez nuke egin behar, baina aitona edo amonarekin baldin bazaude eta beraiek ez dute ulertzen, orduan batzuetan ematen du gaizki euskaraz hitz egitea baina...» (ibid.).

Carlotak, euskaraz ongi ez dakien gurasoak, aitak baino denbora askoz gehiago eman du umeekin. Berak hartu zituen amatasun baimenak eta eszedentziak: lehen haurrarekin lan baimen laburra eta bigarrenarekin luzea, urtebetekoa. Adurrek lehen umea, Usun, ia ez zuen ikusi, sortu eta zortzi hilabete izan artio oposizioa buru-belarri prestatzen baitzebil. Bi haurrak gaztelania-ingeleseko haur eskola elebidun batera eraman zituzten etxetik gertu baitzuten: «Argi genuen gero ikastolara joan behar zela [lehen semea] eta pentsatu genuen eta berdin zitzaigun haur eskola zein hizkuntzatan. Behar genuen hurbil...» (ibid.).

Usun eta Gari, semeak, adintsukoak dira eta ongi moldatzen dira elkarrekin jostetan, «... beti elkarrekin. Urte eta erdi dute alde eta ja garai honetan ia-ia bizkiak bezala» (ibid.). Haurrek beren artean «... gehienetan erdaraz» aritzen dira. Bigarren semea ikastolan hasi berritan etxean zer edo zer euskaraz egiten bazioten haurra kexu agertzen zen: «[Usunek] ez, baina hasieran [Garik] esaten zuen ‘no me hables en euskera, eso en la ikastola!’. Hori egokitzapenean, nolabait sentitzen zen igual (...) ‘no me digas eso!’ edo bere amari batez ere ‘¡tú háblame en castellano!’ le decía. Baina orain ja ez. Ba nolabait ikusten zuen pixka bat agobiatuta, ez dakit nola egongo zen» (ibid.).

Batzuetan Adur semeen ikaste prozesuaz harritzen da: «... batzuetan esaten duzu ‘ez dakit hitz egingo duen ala ez’ [Usunek] eta bat-batean hasten da hitz egiten eta jobar! Eta azaltzen dizu zerbait euskaraz baina perfektu». Adurren anaiak, bera bezala gaztetan euskaldundu, eta egun San Fermin Ikastolako maisua denak, ilobei beti eus-

karaz egiten die eta Adurren seme zaharrenak osabari «... euskaraz egiten dio». Semeek euskararekin izanen duten harremanaz honako igurikimena du aitak: «Espero dut printzipioz gehiago egitea euskaraz eta saiatzen ari gara (...). Eta nirekin handitzen direnean espero dut jarraitzea... (...) beraien artean ba hori, bizitzea euskaraz, erabiltzea. Ja egingo dute erdaraz baina normalena izatea lagunekin behintzat euskaraz egitea» (Adur, I5. FG).

I6. FGko Txumak euskaraz badaki baina erdaraz moldatzen da hobeki: «... yo me desenvuelvo mejor, no lo puedo negar, en castellano». Berak dioenez, haurrei nola eginen zieten ez zen gauza bat emaztearekin adostu behar izan zuena: «Yo creo que fue algo que no se habló, que se sabía que iba a ser así, no sé cómo decirte. Yo creo que [Blanca] no tenía ninguna duda y yo, desde luego, menos. O sea (...) hay cosas que no se hablan. Que entre nosotros no hablamos porque ya sabes que es así» (Txuma, I6. FG).

Haurrei txiki-txikitatik euskaraz egin diela dio baina hasten delarik zehazten hainbat alditan erdaraz egitera jotzen duela aitortzen du, adibidez, emaztea tartean dagoelarik erdaraz egiten die:

... yo no tengo esa perseverancia en decir, si está la otra parte, está [Blanca], que no sabe euskera... no es que no sepa... yo estoy convencido que entiende, pues que si ella está hablando o yo estoy hablando o está ella delante, que hablemos en castellano, también (...) a mí me sale más fácil, pero ya sé que yo con cualquiera de los tres tengo que hablar en euskera, también lo sé. O sea, yo si voy a llevarle a [Kattalin] a atletismo no se me ocurre decirle ni media en castellano. Otra cosa es que ella me conteste en castellano. Que eso sí que está muy extendido (Txuma, I6. FG).

Seme-alabek erdaraz egiten ohi diote eta berak hurrekin erdarara jotzen du maiz: «... me tiro al castellano sin problema». Haurrak beren artean ere erdaraz aritzen dira: «Entre ellos yo te diría que no sé si nunca... pero muy difícil, muy difícil. Castellano (...). En casa 'que habléis en euskera'. Les cuesta, pues claro, a ver, yo tampoco... si me cuesta a mí también (...). Me cuesta a mí. Es así» (ibid.).

Txumak eta Blancak lehen bi umeen zaintza hasieran amonekin utzita eta gero haur eskola batera eramanda konpondu zuten. Amonak erdaldunak dira eta haur eskola gaztelaniaz zen: «... porque en euskera no había y valorando un poco (...) 'ya, en euskera, pero si me tengo que ir hasta... no sé hasta dónde para que hable euskera, lo que voy a ganar por un lado lo voy a perder en paciencia'. No nos compensaba. También sabíamos que iba a terminar aquí [Amair Ikastolan], con lo cual, sin problema» (ibid.).

Hirugarren haurra Ikastolako bi urteko gelan sartu ahal izan zuten. Txumak aitortzen du etxean ez dutela euskara erabiltzen ez elkarri oharrak uzteko, ez mezuak idazteko...: «... el castellano pesa mucho. A mí me fastidia pero es que es así. Yo no lo puedo negar en mi caso. En castellano» (ibid.).

Etxean euskarak bere tokia izatea guraso euskaldunaren jokamoldearen araberakoa

Aztergai izan dudan laginaren arabera, guraso bakarra euskalduna duten Iruñeko sendietan euskarak ez ohi du toki handirik izaten familiaren eguneroko bizitzan. Dena dela, aldea badago guraso euskaldunak seme-alabekiko harremanetan euskarari beti

eusten dion kasuaren (I4. FGko Marcosen) eta erdaraz ere aritzen direnen (I5. FGko Adurren eta I6. FGko Txumaren) artean.

Guraso euskaldunen hizkuntza gaitasun erlatiboari faktore ohargarri deritzot baina, aurreko ataltxoan iradoki bezala, euskaraz eroso aritzeak alde aurreko baldintza baino gehiago mintzaira eguneroko bizitzan erabiltzearen ondorioa dirudi. Guraso euskaldunak mintzairari dion atxikimendua eta umeen hizkuntza sozializazioaren gainean duen erabakimena eta inplikazioa eragingarri garrantzitsuagoak direlakoan nago.

Bikote bakarrak (I4. FGk) aitortu du espresuki adostu zuela etxean haurrari nola egin eta, horren ondorioz, guraso bakoitza berean mintzatzen zaio haurrari, bikotekidearen aitzinean ere. Bertzeetan, antza, bizikideek ez dute aurrekusi familiaren barneko hizkuntza elkarbizitza, ez dute garbi adostu guraso euskaldunak nola egingen zien haurrei eta, ondorioz, euskarak ez du toki garbirik guraso euskaldunaren eta seme-alaben arteko elkarrekintzetan. Horrek familiaren harremanetan hizkuntza portaera finikorik ez egotea dakar. I5. eta I6. FGetan aita-amek ez zuten garbi erabaki seme-alabei bata euskaraz eta bertzeak erdaraz egin behar zietela. Ondorioz, aita euskaldunak ez die umei beti euskaraz egiten eta hurrek ez dute aitarekiko harremana hizkuntza horretan finkatuta.

Guraso euskaldunak seme-alabekin euskaraz tinko ihardukitzen ez badu gurasoaren eta umeen arteko harremana ez da mintzaira horretan ezartzen, hau da, seme-alabek guraso euskaldunarekiko harremana ez diote euskarari esleitua. Halaz, batzuetan euskaraz eta bertze batzuetan erdaraz egiten duen gurasoarekin seme-alabak ez dira beti euskaraz mintzatzen.

Bertzalde, behin gurasoaren eta umearen arteko harremana hizkuntza batean ezarritz gero, harremanak haurrendako hizkuntza horretan du benetakotasuna eta mintzaira aldatzearen aurka ager daiteke. Horren arabera, erdaraz egiten duen gurasoak umeari zerbait euskaraz erraten badio, honek ez du euskaraz solastea aise onartzen. Orobat, aita edo amak beti euskaraz egiten duen kasuetan umeak mintzaira hori lotzen dio gurasoarekiko harremanari.

Guraso horiei zaila zaie familiaren elkarbizitzan euskarari tokia ematea, batik bat ahaide erdaldunen (bertze gurasoaren, aitatxi-amatxiren...) aitzinean. Halere, zenbait une eta gune euskararako gordetzen dituzte.

Aztertutako kasuek bikotekideen artean familiaren hizkuntza elkarbizitza adostu eta planifikatzeko garrantzia agertzen dute; ingurune erdaldun(du)etan horrek ezinbestekoa dirudi euskarak etxean tokia bermaturik izan dezan.

Gainera, aita-ama horiek seme-alabei euskara umezarotik ziurtatzearen eskura zeuzkaten bideak (hautzain euskalduna kontratatzea, haurren zaintzan guraso euskaldunak duen egitekoa handitzea lan baimenak berak hartuta, edo euskarazko haur eskola hautatzea, adibidez) ez omen dituzte baliatu. Izan ere, Iruñean euskarazko gizar-te aukeren urritasunak —euskarazko haur eskolak oso gutxi izateak, kasu— umeen euskarazko gizarteratze goiztiarraren aldeko hautuak beti zailagoak izatea dakar.

Lagineko familietako batean, I4. FGn, aitatxi euskalduna haurraren hizkuntza sozializazioarako eragingarri garrantzitsua izan dela agertzen da. Kasu horretan amak hizketan ongi ez badaki ere aitaxik, aitak eta umeak euskaraz eratu dute beren arteko harremana eta hizkuntzak etxean tokia bermatuta izan du. Ama horrek euskaraz elkarriketa arruntak bederen ulertzen ditu eta horrek funtsezkoa dirudi. Kontua da zaila dela erratea guraso horren hizkuntza gaitasuna etxe horretan adostu den hizkuntza

elkarbizitzarako aldez aurreko baldintza den edo erabaki horren ondorioa. Hau da, agian etxeko bertze kideek euskaraz egiten dutelako hobetu du amak ulermena.

I4. FGn seme bakarra da baina bere belaunaldi bereko familiakideekin (lehengusinekin) euskaraz aritzen da. I5. eta I6. FGetan aldiz, haurrideek beren artean erdaraz egiten dute beti.

Ondorioz, guraso bakarra euskalduna duten Iruñeko familietako umeak etxean euskaraz jabetuko direla aurreiritzeko oinarririk ez dago. Ikusi bezala, haur horiek etxean euskara ikas dezaten guraso euskaldunaren portaerak berebiziko garrantzia du.

Amaiur Ikastolako sendien datu kuantitatiboek ere guraso bakarra euskalduna duten haur gehienetara etxeetan gaztelaniaz baizik ez dela egiten agertu dute. Daturik makurrenak 2011-2012 ikasturtean matrikulatutako hiru urteko haurrei dagozkie: guraso bat euskalduna duten haurrak 24 dira (ikasmaila horretako ikasle guztien % 47), horietatik 10ek dute ama euskalduna eta 14k aita. Halere, lau haurren etxeetan baizik ez da euskaraz egiten (ikus. I3. eranskina).

Hala bada, dirudienez, guraso bat euskalduna duten Iruñeko familia gehienetara etxeetan erdaraz da nagusi edo egiten den hizkuntza bakarra, areago guraso euskalduna umeen zaintzan gutxiago inplikatzeko bada, aiten kasuan gertatzen ohi dena. Aztertutako familietan aita euskaldunek amek baino gutxiago hartu dute parte seme-alaben hazieran eta horrek, noski, haurren hizkuntza sozializazioan ondorioak izan ditu aita baldin bada etxeko euskaldun bakarra.

Gure historia soziolinguistikoko hurbilean herri arras euskaldunetatik kanpo, bitariko bikoteek euskararen ahultze demografikoa ekarri ohi dute umeak erdaldun elebarkar hazi baitituzte (Sánchez Carrión, 1972). Azken urteotako inkesta soziolinguistikoen (Eusko Jaurlaritza, 2008b, 2013) arabera ordea, joera hori itzulikatu da eta egun Nafarroan seme-alaba txiki eta gaztetxoak dituzten bitariko bikoteetako guraso euskaldun gehienek umei euskara transmititu diete.

Inkestek bitariko bikote horien garrantzi erlatiboa, alegia, familia guztien ehunetik zenbat diren argitzen ez badigute ere, badirudi gure gaurko errealitate soziolinguistikoa guraso bat euskalduna duten sendiak ohikoak direla. Amaiur Ikastolako datuek (ikus. I3. eranskina) Iruñean euskaraz eskolatuta dauden haurren familien artean bitariko bikoteek zati esanguratsua —heren batetik goiti— egiten dutela uste izateko bide ematen dute.

Bertzalde, inkestek euskararen familia bidezko transmisioaren gainean ematen duten emaitza kuantitatiboa zuhurtziaz hartu beharra aditzera ematen diguten bertze datu batzuk baditugu. Erraterako, azken inkestak (Eusko Jaurlaritza, 2013) dioenez, hondar hogeitau urteotan euskaldunak gero eta gehiago badira ere —eta batik bat gazteak— etxeko euskararen erabilerak igo beharrean beheiti egin du. Orobat, Iruñerriko azterketa batek (Euskarabidea & Nafarroako Gobernua, 2006: 22), euskaldunei euskaraz norekin hitz egiten ohi duten galdeginda, hiztunen ingurune hurbila eta familia bera hizkuntza aldetik ez homogeneoak direla geratu da agerian. Iruñerriko euskaldunek euskaraz gutxienik auzo lagunekin, gurasoekin eta bikotekidearekin egiten ohi dute eta gehienik seme-alabekin eta lagunekin. Gertakari hori ez daiteke uler Iruñerriko ingurune soziolinguistikoa eta horrek bertako euskal hiztunei eragiten dizkien inguruabarrak aintzat hartu gabe. Euskararen gizarte urritasunak eta ahultasunak bigarren hizkuntzatzat ikasi duten hainbat hiztuni ez die egunerokoan erabiltzea ahalbidetzen. Eskolaren bidez edo euskaltegietan euskaldundu direnek maiz familia euskaldunberri-

tuak dituzte, hau da, beraiek (eta zenbaitetan, haurrideak ere) dira etxeko euskaldun bakarrak eta gaitasun nahikoa eskuratuta ere ezin bertze ahaideekin euskaraz jardun. Bitariko bikoteen hizkuntza-sozializazio portaera ere baldintza horietan aztertu beharra dago.

Hala bada, ikerlan kuantitatiboek adierazten dutenaren azpian hagitz egoera konplexuak daude eta bikote mistoek familiaren barneko hizkuntza erabilera ezin da horien ingurune soziolinguistikotik bereizirik aztertu.

Katalanaren eremu soziogeografikoan bitariko bikoteei arreta berezia eman zaie, heterogeneotasun eta mugikortasun handiko gizartea izanda bilakaera soziolinguistikoaren gakoak direlakoan. Egindako ikerketek, batik bat ikermolde soziologiko-kuantitatibokoek, inguruaren eragina nabarmendu dute. Izan ere, katalanaren gizarte erabilera ahulduxe dagoen eremuetan bitariko bikoteek portaera makrosozial hori islatzen ohi dute (Vila, 1993), hau da, baldintza soziopolitikoek bereziki ukitzen dituzte familia horietako gurasoek egiten dituzten hizkuntza hautuak (Melià & Villaverde, 2008).

Iruñeko gizartean euskarak duen ahuleziak bitariko bikoteetako guraso euskaldunei eragiten die haurrei zein hizkuntzatan egin hautatzean. Iruñeko egoerari —aski inguru erdaldunduari— antzeman diodanaren arabera guraso bat euskalduna izanda ere, familiarik gehienetan etxeko erabilerak ez die haurrei euskaraz jabetzea bermatu. Bitariko bikoteek guraso euskaldunak haurrekin harremana euskaraz izanen duela adosten ez badute, guraso horrek umeekiko harremanetan euskarari tinko eusten ez badio, hurrek eta guraso euskaldunak elkarrekin bakarrik aski denbora ematen ez badute —euskaraz egiten ez duen gurasoak eta bertze zaindarien ematen duten adina bederen—, bikoteak hartzen dituen erabakietan hizkuntza irizpidea aintzat hartzen ez bada —haurrak D ereduan eskolatzea, kasu— eta hurrek etxetik at —haur eskolan eta ohiko eskolaldian edo eskolaz kanpokoan— euskaraz egiten ez badute nekez gertatuko da guraso bakarra euskalduna izanda ume iruindarrek ttikitatik bi hizkuntzak egitea.

Aztertu ditudan bi familian, I5. eta I6. FGetan, etxeko hizkuntza sozializazioak bakarrik ez bide die neska-mutikoei euskara ikastea bermatu. Halakotz, Mackeyk (1976: 378-380) iradoki bezala, hizkuntza egoera oso asimetrikoetan familiaren barnean txikitatik bi hizkuntzak aditzeak ez die haurrei ziurtatzen bi mintzairen jabetze orekatua, ikasteko bertzelako ahaleginik gabekoa. Haur eskolarik eta ikastolarik gabe, hain segur ere haur horiek familian euskararekin izandako harremana ez zen nahikoa izanen euskara ongi ikasteko. Eskolari esker —baina ez guraso euskaldunarekiko harremana aski delakoz— euskaldundu dira haur horiek. Halere, haurraren hizkuntza sozializazio prozesuan familia eta eskola ez dabilta zein bere aldetik, batera eta elkarreaginean baizik.

6.3.3.3. *Euskara haurren bidez etxean sartu zaien familiak*

«... yo también estoy recuperando el euskera con ella»

Aita-amek euskara pittin bat bakarrik edo batere ez dakitelarik, behin seme-alabak euskaraz eskolatuz gero, haiek izaten dira euskara etxera daramatenak. Egoera hori sumatu diet I7., I8., I9. eta I20. FGei. Familia horiek etxean erdaraz aritzen dira eta gurasoek euskaraz zertxobait jakinez gero, inoiz edo behin haurrei mintzaira horretan

egiten diete. Sendi horietako gurasoetatik (I7. eta I8. FGetako familiak guraso bakarrekoak dira) bat ere ez da euskaraz ongi moldatzen. Gaitasun eskas horregatik euskarazko erabilera txoil urria izaten da eta haurrekiko errutina, jarduera edota gune jakinetara mugatua (erraterako, irakasleek agindutako etxerako lanetara edo ikastolaren ingurura). Ikus ditzagun banan-banan:

I7. FGn haurrak etxeko eta familiako kide gehienak euskaldunak badituzte ere, erdaraz aritzen den sendian hazten ari dira. Lourdesek bi neska-mutiko errusiar adoptatu zituen, guraso bakartako: Joana, hamaika urteko neskatikoa, 2006an, sei urte zituelarik ekarria; eta Gaizka, sei urteko mutikoa, 2010ean lau urterekin ekarria. Joanak ongi egiten du euskaraz baina Gaizkak oraindik ez.

Lourdesek euskaraz mintzatzeari inoiz ekin ez badio ere, lakuntzara izanik nahikoa ulertzen du eta haurrei zerbaixka egiten die: «A los críos les hablo yo el euskera mío que a veces ésta [Joana] me dice ‘ama ¿qué me estás diciendo? ¡Si no se dice así!’ Nada, con ésta meto la zarría pero hasta hartar, hasta el crío me corrige: ‘Ama, horrela ez da esaten!’» (Lourdes, I7. FG).

Lourdes eta bi haurrak Aitziberrekin, Lourdesen bizikidearekin, eta Malenekin, haren alabarekin, bizi dira. Aitziber eta bere alaba euskaldunak dira baina etxean behin ere ez dute euskaraz egiten. Joana eta Gaizka ere erdaraz aritzen dira elkarren artean:

... y en mi casa no se oye hablar una palabra en vasco. La única que no sabe soy yo y soy la que más hablo. Y fíjate que nos lo han pedido, ‘¡va, que nos lo han pedido!’ O sea, los profesores de [Gaizka], todos los que han pasado nos lo han pedido (...), la profesora de apoyo: ‘Jode, hablarle en euskera, es que le viene muy bien. Es que interesa que el crío...’. Bueno, pues no hay manera de que suelten una palabra en euskera, y el idioma de ellas [Aitziberrena eta Malenena] es el euskera. Porque [Joana] sabe euskera pero su idioma es el castellano, es el que ha aprendido a hablar conmigo. [Gaizka] puede aprender euskera pero su idioma va a ser el castellano porque es el que hablan conmigo, el de la casa, el de la familia. Pero el de [Aitziber] y el de [Malen] que es su hija, es el euskera y en casa no dicen una palabra en euskera (Lourdes, I7. FG).

Astean behin bederen Lakuntzara joaten dira aitatxi eta amatxi ikustera. Erdaraz egiten diete bilobei: «Castellano, castellano. Mis padres lo que han aprendido con nosotros, castellano. Mi madre ‘hay que hablarles en euskera!’. Castellano, nada» (ibid.). Lakuntzan Joanak bere adineko lagunak ditu, horietako bat Lourdesen lehengusina baten alaba, eta batzuetan euskaraz egiten dute: «Además mi prima (...) que como les oiga hablar en castellano tienen buena. Sí, pero ya se sueltan más en euskera. Yo diría que un cincuenta por ciento. Porque claro, es que aquí no le vemos hablar en euskera. Aquí en la ikastola y punto, nada más. Allí por lo menos yo les oigo hablando, pues ya está, se preguntan... Dominan más, hablan más» (ibid.,). Hala bada, usu ingurune euskaldunago batean aritzeak haurren euskarazko sozializazioari laguntzen dio baina aitatxi-amatxi euskaldunekiko harremanak, ordea, ez du horren alde egiten.

Lourdesen ustez, berak bezala euskara ongi ez dakiten gurasoek haurrei esker hizkuntza gehixeago ikasteko aukera izan dute. Hala gertatzen zaio berari:

Entonces hay gente que se ha esforzado y hay otra gente que ha tenido críos y que con los críos pues bueno, al final aprendes. Acabas, no dominando el idioma, pero sí chapurreándolo un poco o bastante. Igual no tienen una conver-

sación... Yo siempre digo 'yo sé hablar el euskera con gente que no sabe'. Entonces sí, sé hablar muy bien. Pero con gente que sabe no puedo llevar una conversación. Entonces empiezas con los críos a decir cuatro palabras que sabes pero claro, conforme van los críos viniendo, si te esfuerzas pues aprendes algo más ¿no? Yo creo que eso le ha pasado a mucha gente de mi generación, a mucha (Lourdes, 17. FG).

Amak euskara jakitea haurrendako baliagarria izatea espero du, hala ongi gizartearatzeko nola gizartearen aukerez baliatzeko:

Yo no sé si el día de mañana van a ir o no van a ir a Lakuntza, pero cabe esa posibilidad. Para que ellos no se sientan marginados en Lakuntza tienen que saber euskera (...). No sé, me parece que va a ser una salida, cara a una oposición, a un puesto de trabajo en... a ser funcionaria... a... bueno, pues me parece que en pocos años se va a introducir mucho más y se va a hablar mucho más y... me parece que tiene que ser así (Lourdes, 17. FG).

18. FGko Amelia San Fermin Ikastolan eskolatu zen eta damu zaio alabari txikitatik euskaraz mintzatu ez izana:

... yo no le he hablado [euskara]. No le he hablado porque me tocó... Yo me quedé embarazada y [Nestor] se fue con otra. Entonces yo... Era una cría planeada porque llevábamos muchos años. Entonces a mí se me cayó el mundo encima. Entonces yo estaba de pena. Fue un embarazo sola. No elegido, claro. Un embarazo sola, parto sola. Cuando le tuve que empezar a hablar a la niña me estaba recuperando yo. Entonces no tuve fuerza, porque encima yo... en una lengua si no la hablas vas perdiendo (...) yo no tenía facilidad y me costaba un esfuerzo que yo en ese momento no tenía fuerza para... Entonces no le hablé en euskera. Esa es la razón (Amelia, 18. FG).

Euskarazko gaitasun mugatua du eta horrek gibelatu zuen umeari euskaraz mintzatzetik, horrek ahalegin handia eskatzen baitzion: «Pero claro, en esa época, recién nacida o un poco más mayor, un año o así, yo tenía el euskera ahí, en el dedo gordo. Me costaba un esfuerzo... ¡pfff! Y en ese momento yo no, no tenía fuerzas. Luego también tengo que decir, yo no he tenido tampoco mucha facilidad (...) a mí el euskera se me ha hecho difícil» (ibid.). Bizipen horrek mintzaira hiztunaren egoerari eta aldarteari estuki loturik agertzen du. Seme-alabekiko harremanetan —harremanik afektiboenetan— egiten den hizkuntzak hiztuna emozionalki inplikatzen du.

Alaba sortuta haur eskola aurkitzeko zailtasunak izan zituen Ameliak. Hasierako hilabeteetan aitatxi-amatxirekin utzi zuen umea eta Urtsuak urtea bete zuelarik haur erdal eskola batera eraman zuen, euskarazkorik ez zegoelako eta «... por comodidad, no sé. No me iba a ir a la Rotxa ni nada de eso» (ibid.). Neskatikoak adina izan zuelarik Amaiur Ikastolako bi urteko gelan eskolatu zuen.

Ameliak ikastolan delarik euskaraz egiten dio Urtsuari: «Cuando está dentro de la ikastola le hablo en euskera» (ibid.). Hala aholkatzen dute ikastolako irakasleek:

Nos dicen siempre 'cuando están en el entorno de la ikastola los que sepáis hablad en euskera' (...). Pues yo lo hago. Además es que me sale, ya desde el principio y a los profesores siempre me dirijo en euskera y tal y entonces con

ella también. Y ella como está en la ikastola pues eso bien. Luego ya si le hablo fuera '¡qué me hablas ama! ¡qué me hablas en euskera!' (Amelia, I8. FG).

Eskolako lanak egiten laguntzen diolarik euskaraz egiten dio Ameliak alabari: «... cuando estamos haciendo la tarea, desde luego, hablamos en euskera» (ibid.). Egoera horretan Urtsuak onartzen du amak euskaraz egitea: «Y entonces ahí no me dice nada. O sea, eso ella lo acepta bien, con la tarea». Ikastolako jostalekuan edo atondoan direlarik ere «... como estamos en la ikastola, pues también. O sea, es como lo normal». Baina ikastolatik lekora eta eskolako lanak egiteko egoeraz landa Urtsuak ez du onartzen amak euskaraz egin diezaion: «... me dice '¿qué me haces hablando en euskera?'. No sabe que podemos, o sea, no le cuadra que podemos hablar en euskera porque nos apetece y porque sí. Sabemos las dos y digo 'pues vamos a hablar en euskera'. No le... Como no le he hablado...» (ibid.).

Ameliak urtetan asko erabili ez duen euskara hasi da gehiago mintzatzen alaba eskolatu eta gero. Orain, eskolako lanak egiteko ama-alabak euskaraz aritzen baitira Ameliak dio ahantzitako hizkuntza «berreskuratzen» ari dela:

Ahora, yo también estoy recuperando el euskera con ella: pues las tareas, yo cuando hablo con las andereños me dirijo en euskera... Y digo 'me voy a esforzar' pues para coger yo otra vez. Y bueno, ahí estoy, pues recuperando yo también (...). Sí estoy recuperando la lengua a la vez con ella (...). Pues si le ayudas a estudiar un poco, pues bueno, igual palabras que no te acuerdas pues enseguida las saco por el contexto. O voy al diccionario y las miro. Entonces, pues voy recuperando poco a poco también (...). Claro, yo ahora estoy mucho más suelta por ella, porque si las tareas, no sé qué, hablar con las andereños... entonces yo me he soltado un poco (Amelia, I8. FG).

Ameliaren aldetik Urtsuak ez du lehengusu-lehengusinarik eta duen izeba bakarrarekin erdaraz aritzen da, lagunekin bezala: «Hablan en castellano. En el patio en castellano». Amelia asko poztzen da alabari inoiz euskaraz aditzen badio, Urtsua euskaraz ongi moldatzen dela ikusita: «... rara vez... una vez le he oído... [euskaraz], que me hace como ilusión (...) yo tenía esa cosa de que no le había hablado. Siempre como un cargo de conciencia un poco» (ibid.).

I9. FGko Susana eta Fernando etxean erdaraz aritzen dira: «[Ilargi eta Oier] con nosotros de normal no suelen hablar [euskaraz]. Les cuesta también» (Fernando, I9. FG). Fernando gaztetan ibili zen euskara ikasten, baina ez zen ongi mintzatzera iritsi. Bizkiak izan zituztelarik Susana geratu zen etxean umeak zaintzen eta gero Amaiur Ikastolako bi urteko gelara eraman zituzten:

Lo que nos pasó a nosotros fue que al tener dos, pues la verdad es que era pesado tener dos. Entonces [Susana] aguantó hasta los dos años con ellos, pero claro, ya a partir de los dos años pensamos que era mejor llevarlos al aula de dos años que había en la ikastola para que así empezaran ellos a relacionarse con el euskera y a la vez con los críos (...). Ellos estuvieron muy bien ese año antes de empezar con la ikastola. Y fue como un previo aprendizaje también para ellos (...). Que les ha venido muy bien (Fernando, I9. FG).

Haurrak ikastolan hasita Susana euskara eskoletara joan zen ikastetxera bertara urte batez: «Yo contacto con el euskera no he tenido hasta que nacieron éstos [seme-a-

laba bizkiak] y los llevamos a la ikastola (...) cuando éstos empezaron con tres años, entonces me apunté yo a aprender un poco, 'por lo menos', digo, 'entender, lo mínimo pero entender algo'» (Susana, I9. FG).

Fernandok, bikotean euskara gehien dakienak, denbora ematen du hurrekin eta ahal duena egiten die euskaraz, baina lau urteko haurrak ez dira euskaraz aritzen ez aita-amekin, ez beren artean ere: «... entre ellos no suelen hablar de normal [euskaraz] (...). En castellano siempre» (Fernando, I9. FG). Gurasoak hurrek euskara hurbil izan dezaten saiatu dira:

... ellos aunque no tuvieron una relación con el euskera de hablarlo, de oírlo, pero sí que les hemos metido los dibujos siempre en euskera, *Pirritx eta Porrotx*... siempre lo han oído y, de hecho, siempre ellos *aita* eta *ama*, o sea, siempre, desde chiquiticos. Yo, por ejemplo me acuerdo cuando [Oier] tenía cinco meses, que se cogió una bronquiolitis y estuvo en el hospital ingresado y me acuerdo que le cantaba en euskera, y siempre..., [Oier, Oier!] ¿te acuerdas qué canción te cantaba en euskera cuando estabas en el hospital? ¿[Ilargi], te acuerdas qué canción le cantaba a [Oier]? [umeei galdegin die]. Pues le cantaba la de *Ixilik-ixilik dago* y se acuerda, se acuerda y ¡fíjate que era cuando tenía cinco meses! (Fernando, I9. FG).

20. FGko Raquelek eta Iñakik ez dakite euskaraz batere. Ez dute euskararekin loturarik izan. Alabak eskolatu artio ez Raquelen familian ez Iñakirenean (ilobak kenda) ez da euskaldunik izan. Alaba zaharrena, Helena, euskaraz ongi moldatzen da baina txikia, Leonor, oraindik ez. Lehen alaba erdarazko haur eskola batera eraman zuten Amaiur Ikastolan bi urteko gela oraindik ez zegoelako. Bigarren alaba ordea, bai, ikastolako haur eskolan sartu zuten.

Aita-amek hizkuntzak ikasteari garrantzia ematen diote: «Yo lo que que quería es que aprendiesen idiomas» (Iñaki, 20. FG). Alabak euskaraz eskolatu ziztuzten haurrendako baliagarria izateko eta gertu nahi dituzten hizkuntza eta kultura hurbiltzeko:

... el euskera, porque realmente era algo que nos atraía, o sea, como cultura que tampoco conocíamos pero como algo que reconocíamos un poco como de nuestro entorno y como que podíamos abrazar y que nos gusta, que entendemos que es parte de una cultura que puedes acercarte o puedes obviarla, y en nuestro caso queríamos acercarnos (Raquel, 20. FG).

Raquel ez da inoiz euskara ikasten saiatu baina alabak euskaraz eskolatzearekin bere ekarpena egin duela uste du, kontuan izanda gainera, gurasoak kanpokoak izanik familiak euskal jatorririk ez duela:

Yo creo que he aportado en la medida que he podido, siendo honesta. ¿Que podía haber hecho más? Yo creo que siempre podemos hacer más en casi todos los ámbitos, pero es que la vida da para lo que da (...). Yo veo a padres que van a clase [euskara ikasteko], que saben más, pero también porque han tenido más tradición en casa y eso, quieras que no, pues es un poco partir con un poco de ventaja, entre comillas, pero bueno, por las circunstancias (Raquel, 20. FG).

Neskatikoak beren artean erdaraz aritzen dira: «... el euskera no les sale, les cuesta un poco más (...). Ellas hablan en castellano» (Raquel, 20. FG), «... no dan ese

paso de hablar en euskera» (Iñaki, 20. FG). Dena dela, inoiz edo behin gurasoek euskaraz aditzen diete, gehienetan ahizpak jolasean ari direlarik: «... como parte del juego» (Raquel, 20. FG). Biek, Helenak bereziki, euskara maite dutela dio Raquelek:

... les gusta el euskera, o que lo tienen tan interiorizado como una lengua... (...) que para ellas es normal (...). Así como ves a críos que no les gusta o que no la hablan o... no sé por qué porque ya te digo que en casa no..., entonces ellas, aunque no la hablamos nosotros, para ellas es algo normal y les gusta (...) y en casa juegan y a veces eso 'sí, en euskera. No [Leonor], habla en euskera tata que no estás hablando en euskera, que estás hablando en castellano' o lo que sea. Y tienen facilidad y, aparte de facilidad, lo tienen como interiorizado o como bien, para ellas es algo normal (ibid.).

Amak haurrek hizkuntzak jakitea balioesten du eta honela adierazten dio Helena alaba zaharrenari: «[Helena], ¡no sabes la suerte que tienes...!». Euskaraz egiteko aukera dagoelarik alabak erabiltzera bultzatzen ditu: «Son pequeñas cosas que igual también lo hago por las crías para que vean que realmente es importante y para mí es importante (...) es una forma también de hacerles ver (...) que yo no lo hablo, que yo no lo tengo, pero que me parece muy importante y me parece muy enriquecedor» (ibid.).

Raquelek alaben bidez gauza anitz (musika edo dantzatzeko modu berriak, kasu) ikasten dituela aitortzen du: «Muchas veces 'jenseñame Helena, enseñame!'. Es un poco al revés, yo no sé y entonces muchas veces les digo que me enseñen ellas». Alaben bidez ikasten dituen gauzen artean euskara aipatzen du bereziki: «Sí, sí, sobre todo con el tema del euskera y eso sí me parece un hallazgo» (ibid.).

Alabek euskara jakitea batik bat bizitzarako baliabidetzat ikusten dute aita-amek: «Sí me gustaría que hablasen euskera, lo que sí lo veo muy difícil porque no... entre ellas mismas no... (...). Y lo que sí espero es que les valga, o como algo que tengan ellas que yo no tengo, por ejemplo, que sí me hubiese gustado y no he tenido esa posibilidad» (Iñaki, 20. FG); «... presentarles un instrumento que creo que les va a favorecer a lo largo de los años de formación que tienen, les va a ayudar. Y luego como lengua, como lengua y como instrumento de cultura del entorno en el que viven (...). Yo creo que es un instrumento y una fuente de cultura» (Raquel, 20. FG).

Euskara familiaren barneko elkarrekintzetan

Ego belaunaldiaren haurtzaroa azaltzean (6.3.2 atalean) agertu dudanez, bi umek (I2. FGko Lidiak eta I4. FGko Marcosek) beren familia euskaldunetan erdaraz egiten hasteari eragin zioten. Hau da, haurren bidez sartu zen gaztelania ordura artio euskaraz mintzatzen zen etxeetan eta neska-mutikoez aktiboki jokatu zuten mintzaldaketan, gurasoak horretaratuak, noski.

Oraingo Iruñean aldiz, zer gertatzen da erdaraz aritzen diren sendietan gurasoek seme-alabak euskaraz eskolatzen dituztelarik? Familia horiek euskararen transmisioaren azterketa ohikoetatik kanpo geratu dira, ikuspegi horretan aztergaiaren gunea batik bat gurasoen gaitasuna baita, eta gutxiagotan jarrerak eta jokaerak.

Gainera, ikerketetan seme-alabak goitik heldu zaien eraginen jasotzaile hustako hartu ohi dira, familietan haurrek har dezaketen jokaera aktibo eta berritzailea aintzat eduki gabe. Izan ere, sozializazio prozesuaren izaera elkarreragilea Soziologiak (Rocher, 1995: 155; Giddens, 1990: 128-130)) aitortu eta, bereziki, hizkuntza sozializazioaren ikerketa arloak (Ochs & Schieffelin, 1992: 285; Garrett eta Baquedano-López, 2002: 346; Luykx, 2003: 41) jorratu badu ere, euskararen gizarte-berreskuratzeko prozesuan haurren eragina ikusezina izan ohi da.

Aztertutako familietan gurasoek seme-alabak euskaraz eskolatzea erabaki dute eta horrek euskara etxekoen arteko elkarrekintzetan sartzea ekarri du. Iruñean haurrak euskaraz eskolatzeko hautu hutsa aita-amen euskararekiko nolabaiteko motibazioaren salagarria da. Bertzalde, seme-alabak euskaraz eskolatzeari gain etxean ere hizkuntzari lekuren bat behinik behin egin nahi izan diote, txikiskoa bada ere (zenbait errutinataro edo jarduera nahiz eremu jakinetara mugatua). Euskaraz deus ere ez dakiten gurasoen kasuan haurrak motibatuzko jarrerak agertzen dira. Halere, ikastolako bi urtekoen gelaz gain, aita eta amek ez dute umeak euskaldun hazteko bertzelako biderik hartu. Familia horietako haurride guztiek elkarren artean erdaraz egiten dute.

Gurasoek haurrek euskara jakin dezaten nahi dute eta horren gainean dituzten igurikimenak hizkuntzaren alderdi integratzaileei eta, batik bat, pragmatiko-instrumentalei dagozkie.

Familia horietan haurrak eskolaren bidez euskalduntzeak piztu dizkie gurasoei euskararen alderako motibazio berriak. Iruñeko inguru erdaldunduan euskara atzenduxea edo kamutsa zutenek umeen eraginez mintzaira «berreskuratzen» dute (17. eta 18. FGak eta 19. FGko aita) edo ez zekienak ikasteari ekiten dio (19. FGko ama). Erdaraz baizik egiten ez zen etxeetan haurrek sartu dute, haurrek hurbilarazi dituzte gurasoak hizkuntza berrira (20. FG), hau da, haiek dira gurasoen hizkuntza sozializatzaileak edo behetik goitiko sozializazioa zuzendu dutenak.

Soziolinguistikan ezagutzen dugun hizkuntza indarberritzeko kasurik arrakastatsuenak, hebreerarena aztertu duten ikertzaileek ere haurren eta helduen arteko elkarre-ragin hori nabarmendu dute. XIX. mendearen hondar hamarkadetan eta XX.eko hasierakoetan Palestinara bildutako juduen umeak eskolan ikasitako hebreera eskolatik at hasi ziren erabiltzen, etxera eramán zuten eta haurrek eragin zieten gurasoei mintzairaz jabetzeko, edo bigarren hizkuntzarako baldin bazekiten ihardukitzeari ekiteko: «The acquisition of Hebrew was at times proceeding in what may be seen a reverse direction of order, that is, from children to adults» (Nahir, 1988: 287). Oro har, haur hebreeradunengandik helduenganako ekintza sozializatzaileak ondorio garbiak ekarri zituen luzera jende helduaren hizkuntza jabetzeko prozesua eta mintzairaren gizarte hedatzea azkartu eta sendotzean: «... when a growing number of children speak Hebrew as a native language, while many older children and young adults and some older adults speak Hebrew but still as a second language, a clear children-to-adult direction is seen to have developed in the acquisition and spread of the language» (ibid., 288-289).

Gurera etorrita, familietako hizkuntza erabileran umeek jokatu duten moduaz erranen nuke zenbait kasutan bederen, erdara etxeetara sartu eta euskara galtzeko prozesuari haurrek eragin zioten bezala, euskara etxekotu eta berreskuratzeko prozesuan ere neska-mutikoei aktiboki jokatzen dutela. Hala bada, haurren familiako hizkuntza sozializazioa aita-amen esku dagoela pentsatu beharrean, gurasoen eta

haurren arteko elkarreaginaren barnean kontu egiteari egokiagoa deritzot. Hala berean, familian eratzen diren hizkuntza elkarrekintzek eta etxeaz landa umeek dituzten bizipenek batera jokatzeko dute neska-mutikoak hiztun bilakatzeko bidean. Halaz, etxearen eta eskolaren eraginak ezin dira zein bere aldetik hartu, nolabait elkar elikatzen baitute.

6.3.3.4. *Haurren hizkuntza portaerak*

«... ume asko dira euskaldunak gela borretan (...) baina ez dago modurik, ez dago»

Arestian azaldu dudanez, haurrideen artean —edo horien faltan, familiako adin-kide euskaldunekin, lehengusu-lehengusinekin, kasu— euskaraz II., I2., I3. eta I4. FGetako haurrek egiten dute, etxean euskara erabiltzeko sozializazio berariazkoa jaso dutenek. Halere haur horiek behin ikastolan hasiz gero ez diote adinkideekiko harremanetan euskarari eutsi.

Behaketetan ikastolako haurrek, oro har, beren artean erdaraz aritzen direla ikusi dut. Adibidez, eskola akitutakoan seme-alaben eske joaten diren gurasoak ikastetxeko jolastokian elkarretaratzeko dira haurrak jolasean dabiltzan bitartean. Halakoetan aita-ama frankok euskaraz egiten duela iruditu zait. Euskaraz dakiten gurasoek seme-alabei ez ezik beren artean ere euskaraz ihardukitzea ohikoa da, baina haurrek elkarren artean erdaraz egiteko ohitura dute.

Hautemate horrekin bat datoz gurasoak. Etxean euskaraz egiten duten aita-amek, hau da, seme-alabak euskara erabil dezaten sozializatzen dituztenek haurrek beren artean erdaraz egitea arazotzat jotzen dute. Arantza (I3. FG) harritzen da bigarren semearen ikastaldean guraso bat edo biak euskaldunak dituzten haurrak nagusi izanagatik ere ikaskideen artean erdaraz aritzen direlako: «... ume asko dira euskaldunak¹⁴⁸ (...) baina ez dago modurik, ez dago». Martaren (II. FG) hitzei ere etsipena darie: «Zaila da (...) euskaraz harremanatzea haurren artean (...) ikastolan nahiko gutxi egiten da (...) nire ikuspuntutik oso gutxi» eta haur batzuek euskaraz mintzatzeko dituzten zailtasunei egozten die hori. Orduan, «... batek egiten baldin badu erdaraz, pssuiiii! Berehala pasatzen dira denak erdaraz egitera» (ibid.).

Seme-alabekin erdaraz egiten ohi duten guraso euskaldunak ulerberago agertzen dira euskararen erabilera ezarekin. Erraterako, Txumarendako (I6. FG) euskara hizkuntza «zaila» da eta horixe azpimarratzen du berak eta haurrek erdaraz erabili nahia-go izatearen arrazoitako:

Entre ellos desde luego. Tú sales al patio (...) verás que el noventa por ciento o más hablan castellano. De hecho aquí en la ikastola ha habido campañas, ya no saben qué hacer... Entonces los críos, en la ikastola castellano entre

¹⁴⁸ 2010-2011 ikasturtean ikastolako HHko lehen mailan hasi ziren haurren % 70ek du gutxienez guraso bat euskaldun (ikus I2. eranskina). Ikasmaila horretan daude Lidiaren eta Sebasen Peru (I2. FG), Arantzaren eta Mikelen Suhar (I3. FG), M^a Fernandaren eta Marcosen Aitzol (I4. FG), Carlotaren eta Adurren Usun (I5. FG), Susanaren eta Fernandoren Ilargi eta Oier (I9. FG) eta Raquel en eta Iñakiren Leonor (20. FG).

ellos (...) únicamente casos en que padre y madre hablan en euskera yo veo que los críos lo hacen sin ningún problema, pero si no... es triste pero es así (Txuma, I6. FG).

Irakasle batzuek gurasoen jarrera hori, haurrek beren artean euskaraz ez egitea normaltzat jotzen duena, aipatzen dute: «... uste dut ez direla kezkatzen umeeek haien artean ez badute euskaraz egiten. Normal ikusten dute. Iruditzen zaie gauza normala» (ALA).

Orobat, hizkuntza gutxituei (bi adibide hurbil —eta arrunt desberdin— ematearren: katalana [Galindo & Vila, 2009] eta irlandera [Ó Laoire, 1996]) gaitz gertatzen zaie haur-gazte jendeak familian usu egiten ez duen mintzaira, eskolan landua bada ere, ikastetxetik at erabil dezan erdiestea.

Euskara etxekoa duten haurrak ikastolan

Etxean euskaraz baizik egiten ez duten familien haurrak batzuetan ikastolan, bi urtekoen gelan edo HHko lehen ikasturtean, hasi artio ez dira gaztelaniaz mintzatzen —ez ulertzen ere zenbait kasutan:

Beste egunean galdetu zidan [Jagobak] ‘eta noiz ikasi nuen erdaraz hitz egiten?’. Ez dakit zehazki noiz. Oso gutxi hitz egiten zuen [erdaraz] ikastolara joan baino lehen, oso gutxi. Gurekin [aita-amekin] beti euskaraz, haurtzaindegian ere beti euskaraz. Lotzan [Martaren sorterrian] ikasi zuten (...). Nik uste dut ikastolara joan zirenean gehien ikasi zutena zen erdaraz hitz egitea. Oso gutxi eta oso gaizki... ez zuten oso ongi ulertzen... (Marta, II. FG).

... hasieran beti euskaraz, gainera beti gurekin eta ez dakit, hiru urte bete artio edo horrela, edo lau urte bete artio kasik elebakarra izan da, euskaraz bakarrik moldatzen zen. Hasieran ni oroitzen naiz zerbait, esaldi bat errateko [erdaraz] pentsatu behar izaten zuela (...). Orain ez, orain hobeki moldatzen da (...). Bazen euskaldunen bat baina haur gehienak erdaldun hutsak ziren eta orduan, klaro, hasieran bueno, ez zizkien ulertzen eta haiek ez zioten ulertzen. Behin hasieran, lehen urtean, etxera etorri eta erran zigun ‘gaur ez dakit nork erran dit babababa. Etorri zait eta babababa’. Klaro, segur aski erdaraz egin zion bertzeak baina [Peruk] ez zion ulertu. Orain bai, orain ja moldatzen da, dena edo gehiena ulertzen du (...) erdara ikasten ari da eta ziztu bizian gainera (Sebas, I2. FG).

Gure umee, hori oso garbia da, ikastolan hasi, gaztelera ederki ikasi dute eta gainera, egiten duten lotura da ume bat ikusi eta zuzenean gaztelera. Horrela da (...) gureek euskaraz egiten dute oraingoz haien artean. Baina bes-teekin... (Arantza, I3. FG).

Ume euskaldun horiei ikastolan hasteak erdaraz aritzen diren familietako haurrekin egunero biltzea ekarri die eta horrekin batera adinkideekiko hartu-emanetan erdaraz egin beharra. Hala gertatu zaie II., I2. eta I3. FGko neska-mutikoei.

Euskara etxekoa duten haurrak errazago aritzen dira euskaraz HHko lehen urte horietan eta gaztelaniaz gabeziak izaten dituzte.

... eta oraindik ere askotan kostatzen zaie. Ulertzen dute baina zenbait gauza ez dakite (...) erdararekin gabezia batzuk dituzte, esan nahi dut, ulertzeko baldin bada, arauak, oso zehatzak eta korapilatsuak. [Naiarak] ez

baina [Jagobari] oraindik kostatzen zaio (...). Baina joera, nahiko joera dute euskaraz egiteko. Hobeto egiten dute gainera, erdaraz baino (Marta, I1. FG).

Hala ere, oraindik gauza xebreak erraten ditu: 'en el lunes iremos a...'. 'Bai, astelehenean' (...) Edo horrelako gauzak erraten ditu. 'Iremos los dos en uno', Bai, 'biak batean' edo 'biak batera' (...). Eta andereñoekin euskaraz egiten du, hori bai, beti, baina hurrekin erdaraz (Sebas, I2. FG).

Lidiak guraso euskaldun batzuen harridura aipatzen du etxean aitarekin edota amarekin beti euskaraz egiten duten neska-mutikoak ikastolan sartu eta bertze haurrekin erdaraz hasten baitira: «... aita batek komentatu zidan 'jode! Zer ostra egiten du hemen [ikastolan], euskara desikasi edo zer? Etxean euskaraz egiten dugu!'» (Lidia, I2. FG).

Azken urteotan euskararen gizarte bilakaeraz jardun duten lan batzuek (Salaburu, 2002: 67-68, konparazione) hiri-herri erdaldun(du)etan D ereduko ikastetxera etxetik euskaldun iristen diren haurrak zer aise lerratzen diren erdarara izan dute hizpide. Maisu-maistrak haur euskaldunak ikastolan erdalduntzen direla jakitun dira: «Nik badakit ume euskaldunak D ereduan, ikastoletan euskara galtzen dute» (LE). Halaz guztiz, irakasle hori ez da HHko haurrak lehen hizkuntzaren arabera bereiztearen aldekoa eta «... askoz ere aberatsagoa maila ezberdinetako umeak...» elkarrekin izatea (ibid.).

Bildutako lekukotasunen arabera, maisu-maistrak izaten dira hurrek ikastolan hasita erdaraz mintzatzeari ekin diotelakoz kezkatuta dauden gurasoei *arazoa* erlatibizatzen laguntzen dietenak. Arantzak honela gogoratzen du: «... [Amets] ikastolan hasi zenean lehenengo urtean, Haur Hezkuntzako lehenengo mailan, gazteleraz egiten hasi zela eta irakasleak esan zidan oso garbi gainera: 'Hori horrela da. Ez baduzu izkina batean ikusi nahi, txoko batean bera bakarrik'. Klaro, harremandu behar badu gaztelez egin beharko du» (Arantza, I3. FG).

Dirudienez, ikastolako lehen urtean etxean euskaraz egiten duten hurrek berehala berenganatzen dute bertze hurrekin aritzeko erdara dela beharrezkoa. Adinkideen eragina handia da eta etxean euskaraz egiten duten ikasleak ere hasten dira beren artean erdaraz. Familia euskalduneko haur kopuru handia dagoen ikastaldeetan ere gertatzen da hori. Izan ere, ikastolako fitxetatik ateratako datuen arabera, 2010-2011 In hiru urtez eskolatu ziren haurren (2011-2012 ikasturtean 4-5 urte dituztenen) % 70 dira guraso bat bederen euskalduna dutenak, 21 haur 30 ikasleko talde batean. Azken urteotako portzentajerik altuena (ikus I2. eranskina). Talde horietako baten maistrak, LEk, dio bere ikastaldean bortz ikasle baizik ez daudela HHn hasi aurretik euskararekin harremanik izan ez dutenak. Gainerakoek familian edo bi urteko gelan izan zuten hizkuntzarekin erlazioa (LK, 2011-I2-20). Hala eta guztiz ere, haurren arteko harremana erdaraz izaten da, adinkideen eraginaz gain hurrek ikasten dituzten kodeei dagokien gizarte balioa bereganatuko balute bezala. Adibidez, lau urteko mutiko baten aita euskaldunak kontatu zidan egun batean ikastolako jolastokian bertze aita batekin ari zela euskaraz eta ondoan haien bi semeak ere solasean ari zirela, baina erdaraz. Halako batean, seme bakoitzak bere aitari zerbait erran zion euskaraz, aita-semeak hizkuntza horretan aritu ziren eta elkarriketa bukatuta bi mutikoez segitu zuten berriz tar-tarreen beren artean erdaraz (LK, 2012-I-I6).

Hizkuntza harremanetarako erdarak du abantaila. Haur euskaldun hutsek erdara behar dute bertze hurrekin harremanak izanen badituzte. Zenbait gurasok hori garbi ikusten dute: «... nire hausnarketa da: hizkuntza hasieran arazo bat izan zela beretako ez zuelakoz ulertu bertzeek zer zioten. Nik uste dut baietz, hasieran bai (...) hizkuntza, nik uste dut, hasieran arazo, zailtasun bat zela ulertzeko baina orain ja ez du arazorik» (Lidia, I2. FG).

Sebasek (I2. FG), kontuan hartuta lehen ikasturtean semeak, eri izan baitzen, denboraldi luzeak eman zituela ikastolara joan gabe, honela azaltzen du:

Hori gehi lotsatia dela, gehi hasieran euskaldun elebakarra zela, bueno... sozializazio problemak izan ditu eta andereñoak erraten zidanean hurrekin erdaraz hitz egiten duela ni ez naiz ausartzen [Peruri] erratera 'aizu, euskaraz egin behar duzu!'. Zer lan du lagunak egiten eta hurrekin ongi moldatzen. Eta orduan nik ezin diot eskatu 'aizu, egin beti euskaraz!', hori oztupo baldin bada gero lagunak egiteko eta hurrekin moldatzeko (Sebas, I2. FG).

Amak erdara Peruk bere burua inguruan kokatu, hari egokitu eta adinkideekin harremanak izateko bidetzat ikusten du: «... nik uste dut erdara izaten ari dela ere bertze bide bat hurbiltzeko edo saihesteko zailtasunak edo ez dakit» (Lidia, I2. FG).

Inguru erdaldun(du)etan hizkuntzaren baliabide izaera hori erdararen kasuan da bereziki nabarmena. Euskara etxekoa duten haurrak aise jabetzen dira gaztelaniaz ikastolan. Harremanetarako beharrezkoa duten hizkuntza berenganatzen dute arazorik gabe: «... inolakorik ez. Klaro, telebista dela, ez dakit nork esan dit, bestea... Klaro, pues harremantzen dira normal. Eta gainera, beharrik horrela den!» (Arantza, I3. FG).

6.3.3.5. Haurrak eta belduak elkarreaginean

«Ilobei ere beti euskaraz egin izan diet, pues berari [anaiari] ere bai.
Orduan, pixka bat berreskuratu dugu horrengatik»

Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetatik at, familia zabaleko elkarrekin-tzetan eta, oro har, nagusien eta ttikien artekoetan berriemaileek umeen eragina aipatzen dute eta erraten haurrak tartean direlarik helduek euskaraz sarriago egiten dutela. Lidia (I2. FG) txikitatik anaiarekin erdaraz egitera jarri zen eta oraindik ere horretarako joera dute biek, baina azken urteotan haurrak beraiekin izaten baitira anai-arrebek gutxiago egiten dute erdaraz:

Orain gaur egun ez, hor daudelakoz... hor daudenez gero aurrean pues nire haurra eta bere haurrak eta, orain nik egiten diot gehienetan euskaraz eta berak erraten dit euskaraz. Berreskuratu... nolabait, haurrari beti euskaraz egiten diot eta orduan, anaiari ere egiten diot (...). Ilobei ere beti euskaraz egin izan diet, pues berari [anaiari] ere bai. Orduan, pixka bat berreskuratu dugu horrengatik (Lidia, I2. FG).

Arantzak (I3. FG) ahizpekin erdarara jotzeko joera du baina umeen eragina aipatzen du: «... umeek markatzen dute asko, ez da? Orduan klaro, umeekin euskaraz da eta hori, baina gure artean asko kostatzen zaigu, asko, asko». Adurrek ere (I5. FG) gauza bertsua aitortzen du, anaiarekin euskaraz maizago egiten du orain tartean hau-

rrak ibiltzen baitira: «... txikiakin beti euskaraz egiten dugu eta gure artean normalean hasten garenean jarraitzen dugu euskaraz egiten. Baina igual berarekin baldin banago egun osoa (...) pues igual erdaraz egiten dugu, baina normalean, beti badaude txikiak inguruan, ba beti egiten dugu euskaraz».

Dirudienez, helduek haurrekin dituzten hizkuntza jokamoldeak helduen arteko harremana ere ukitzen du. Elkarrekintzen parte hartzaileei zail gertatzen zaie hizkuntza harreman bereziak izatea, hau da, elkarrekin daudelarik haurrei euskaraz eta helduei erdaraz mintzatzea. Komunikazioa hausten ez bada (solaskide guztiek euskaraz daki-telako) haurrak tartean izanda euskaraz aritzeko joera izaten da.

Zenbait ikerketak (Eusko Jaurlaritza, 2005ab; Soziolinguistika Klusterra, 2009) familitan euskaraz egitearen alde haurren eragin soziolinguistikoa nabarmendu dute. Euskal Herrian lauzpabortz urtetik behin egiten diren euskararen erabileraren kale neurketek ere haurren eragingarritasuna zehaztu nahi izan dute eta azkenekoetan helduen eta haurren arteko hizkuntza erabileraz gain komunikazio egoeretan haurren bat tartean izateak euskararen erabilerari eragiten ote dion izartu dute. Herri-hiri gehienetako erabilerari haurren eragin hori ikusten zaio. Hondar kale-erabileraren neurketak, 2011koak, honako ondorio hau eman du: haurrak eta helduak elkarrekin solasean ari direlarik jasotzen dira euskararen erabilera daturik altuenak. Umeak nagusien presentziarik gabe daudelarik edo helduak ondoan haurrik ez dutela erabilera apalagoa da garbiki (Altuna et al., 2012: 55). Nafarroa osoari dagozkion emaitzek horrekin bat egiten dute: helduek beren artean umerik gabe ari direlarik % 3,7tan ihardukitzen dute euskaraz; haurrek ondoan nagusirik ez dutelarik % 4,5etan; eta helduen eta haurren arteko elkarrizketetan aldiz, % 9,2tan (ibid., 56). Alde horretatik, Nafarroako datuak Euskal Herriko bertze lurraldeen joera nagusiarekin bat datoz.

Hala bada, dirudienez ez dira haurrak bakarrik euskararen erabilera handitzen dutenak. Hala balitz euskararen erabilerarik garaiena haurren artean izanen genuke. Aitzitik, helduen eta haurren arteko elkarrekintzetan egiten da maizen euskara. Antza, adin taldeen edo belaunaldien arteko hizkuntza elkarreraginak dira —eta ez haurrak soilik— hiztunek euskarari lotzen dizkiotenak.

Kale neurketek Iruñean jaso duten emaitzak ordea, ez du haurren eragingarritasun hori beti bermatzen. 2011koaren azterketa xeherik ezean, aurrekoa (2006koa) hartuz gero ohartuko gara Iruñea Hego Euskal Herriko bertze hiriburuen joera nagusitik bereizten dela, oro har, haurrak egoteak ez zekarrelako euskara gehiago erabiltzea. Iruñeko euskararen erabilerari antzemandako haurren eragingarritasun positiborik eza Iruñerriko bertze herri batzuetan ere (Barañainen eta Berriozarren) ikusi zen. Nafarroako bertze zenbait udalerritan aldiz, Iruñerrian (Zizur Nagusian) eta hiriburuen ondoko eremutik kanpo (Agoitzen, Lizarran eta Tuteran) garbi agertzen zen haurren eragina euskararen erabileran (Kasares, 2007: 101).

Hala bada, datu kuantitatiborik ez dugu landa ikerketan Iruñeko berriemaile euskaldunek umeen eraginaz adierazi dutena berresteko. Erranak erran, Nafarroako hiriburuan, inguru erdaldunduan dauden inguruabar soziolinguistikoengatik, haurrekiko harremanetan euskararen erabilera ez da gizarte araua.

6.3.4. Ingurunea eta baldintza makrosoziolinguistikoen eragina

Ego belaunaldiko iruindarrek euskara hiriburuan, egun, beren haurtzaroan baino hobeki dagoela eta orain euskaldun jendeak euskaraz aritzeko lehen baino aukera gehiago dituela onartzen dute. Donibane auzoan hazitako Lidiak (I2. FG) honela irizten dio:

Egia da egoera aldatu dela, hobetu dela aunitz auzoan. Lehenago ez zen auke-
rarik inon egiteko euskaraz eta orain badira hainbat toki pues pegatina hori 'he-
men euskaraz'. Eta bueno, azkenean egia da ja ezagutzen duzula non egin dezake-
zun euskaraz. Hobetu da egoera nik uste dut (...). Bai erdara da hor indarrik
handiena daukana baina bada aukera gehiago gaur egun, bai (...). Eta auzoan
ezagutzen duzu nor den euskalduna eta [Peruk, semeak] ja egiten die euskaraz.
Nire garaian inorekin ez zenuen euskaraz egiten (...). Eta seguru nire garaian ere
batzuk euskaldunak zirela baina ez zen, ez zenekien edo... (Lidia, I2. FG).

Halaz guztiz, berriemaile guztiek bat egiten dute erratean Iruñeko giroak ez di-
tuela bultzatzen euskaraz bizitzera: «... en Pamplona al final no hay mucho ambiente
euskaldun que te envuelva y que te obligue» (Txuma, I6. FG). Seme-alabak euskaraz
haztea «... oso zaila da, azkenean, Iruñea batean» (Mikel, I3. FG). Gainera, hiriburu-
ko euskaldun anitzen artean erdaraz aritzeko joera izaten da eta euskaltzaleek beti
ohitura horren kontra egin behar izaten dute: «... jendeak ez badu ohiturarik, o sea,
egunerokoan egiteko ibili behar duzu beti bezala '¡Hala, venga! Orduan euskaraz hasi
eta baten batek jarraitzen badu ederki, bestela ba...» (Arantza, I3. FG). Azken finean
Iruñean gaitz dela euskaraz aditzea eta aritzea, hori onera aldatzen ari bada ere:

Hemen Iruñean gehienetan entzuten dute erdaraz eta egiten dute erdaraz, bai
familiar bai... Eta saiatzen gara guztiok [ikastolako guraso guztiok], nik uste,
eramaten antzerkera, ja begiratzen duzun a ver euskaraz dagoen (...). Eta musika
eta ipuinak eta ez dakit zer... (...). Ja gutxienez haiek ikusten normalago edo
arruntago euskaraz, ez bakarrik ikastolan edo bakarrik nirekin, ba pixka bat ikus-
teko badaudela aukera gehiago euskaraz egiteko (...). Zaila da hemen Iruñean
egoera edo lekuak aurkitzea baina gero eta gehiago... (Adur, I5. FG).

Atal honetan Iruñeko haurren ingurune hurbilean euskarak duen lekua miatu eta
baldintza makrosoziolinguistikoek hiztunen aukera eta hautuei nola eragiten dieten
arakatuko dut. Lehenik, duela lau hamarkada luze Iruñerriko lehen ikastolak —
Espainiako Errepublika garaian, 1931tik 1936 bitarte jardun zuen Euskal Eskolaren
ondotik, noski— sortu zirenetik gaur artio ibilitako bidez irakaskuntzan aritu dire-
nek duten ikusmoldea ekarriko dut hona.

6.3.4.1. Euskarazko irakaskuntza lau hamarkadaren ondotik

«Nik uste gurasoen aldetik bazela lehen beste kontzientzia bat»

1960ko hamarkadaren bukaeran Gerra Zibilaren ondoko Nafarroako estreinako
ikastola abian jarri zutenetik berrogei urte pasatxo iragan direla, Iruñeko landa ikerke-
tan berriemaile aditu izan ditudanak —AA, LE eta ALA, hirurak hasierako garai ho-

rretatik Iruñerriko euskarazko irakaskuntzan eskarmentua dutenak— bat heldu dira ibilbidearen gaineko irizpenotan:

- Egungo egoera orain hiruzpalau hamarkadakoaren aldean, ikasleen familien ezaugarriei dagokienez hobea da: ikastolen hastapenetako guraso eta haur gehien-gehienak erdaldunak ziren eta oraingoan artean aldiz, askoz gehiago dira euskara ongi edo zerbait dakitenak.

[Guraso euskaldunak]... oso gutxi. Orain askoz ere gehiago (AA).

Lehen ehuneko ia ehuna erdaldunak ziren ni hasi nintzelarik lanean [1984 aldera], bai gurasoak, bai ikasleak (...). Eta gero gaur aldatuz doa (...). Eta bai, hasi naiz ikusten [ikastoletako ikasle ohiak]. Nire gelan adibidez, bueno, gela hau bereziki... (...) hamazazpi ditut, bi euskaldun peto-petoak, bi gurasoak euskaldunak dituztenak eta gero ditut zortzi aita edo ama euskalduna dutenak (LE).

... ja hasi zaigu guraso gazteak eskolara etortzen, ja euskaraz ikasi dutenak eta orduan, ja euskaldun zahar gehiago izaten da orain baina garai haietan gehienak ziren erdaldunak. Baina hala ere egiten zituzten ahalegin guztiak umeak toki euskaldunetara eramateko. Haiek ere ikasten saiatzen ziren (ALA).

- Orain hiruzpalau hamarralditako aita-amak erdaldunak ziren baina euskaltzaleak, haurrek euskara ikasi eta egitearekin jarrera eta gogo-nahi handia zutenak. Oraingo gurasoak ordea, oro har ez daude haurrak euskaraz haztearekin hain motibatu edo inplikaturatu.

Nik uste gurasoen aldetik bazela lehen beste kontzientzia bat. Nik uste militantek zirela lehen gurasoak. Beste garai batzuk ziren, noski, ez da? Politikoki beste garai batzuk ziren eta dena irabazi behar zen. Nire sentsazioa hori da. Orain berriz, D erdua dugu, ikastolak ditugu, kanpaldiak ditugu, udalekuak, extraeskolarrak euskaraz... orduan, laxatu gara edo sentsazio hori dut. Gurasoek 'bueno, ikasiko du'. Hor pixka bat, bai dagoela kontzientzia falta hori edo... ezjakintasuna (LE).

[Oraingo guraso euskaltzale ez direnendako] ... espektatiba linguistikoak beraientzako ja betetzen dira, asetzen dira (...). Baina ez halako 'aizue! Gu euskaldunak gara eta!'. Lehen esaten zuten 'euskaldunak gara eta hemen ezin daiteke onartu euskaraz ez egitea!'. Edo guraso bat baldin bazuen ume talde bat etxe batean jolasean, ikastolakoak baldin baziren, guraso bati ez zitzaion bururatzen ere erdaraz hitz egiten uztea. Esaten zieten 'aizue! Ikastolan zaudete, lagunak zarete, egin ezazue euskaraz!'. Erdalduna izanagatik gurasoa. Hori da kontzientzia. Orain berriz, ez da batere (AA).

- Aita-amen jarrerak eta portaerak seme-alaben hizkuntza sozializazioaren aitzinean berebiziko eragina dute. Hala bada, gurasoen inplikazio aldaketa horrek ondorioak ekarri dizkio haurrak euskaldun hazteari.

[Oraingo guraso batzuk] ... jende gaztea baino erdalduna. Erdalduna, eta ez dut esaten euskaltzalea, zeren hor aldatu da, hor aldatu da. Nik uste dut salto kualitatibo handia egon dela zeren euskaltzaletasun hori nolabait bazen hizkuntzari eusteko baliabide inportantea, eta hizkuntza bultzatzeko baliabidea (...). Orduan, aldatu da nik uste eta horrek ere izan duela nolabaiteko eragina ikasleak (...) hizkuntzaren kontrako jarrera juxtu-juxtu etxetik daukaten gabezia horregatik izan daiteke. Etxean ez zaio halako garrantzirik ematen euskarari,

bai ikasteari, ikasteari, baina ez euskarari. Eta hori nabaritzen da batez ere (...) hamabi urtetik aurrera (AA).

[Haurrek] ... bereizten dute oso ongi pues ikastolan eta ikastolatik kanpo. Horregatik, klaro, gurasoen portaera hizkuntzarekiko oso garrantzitsua da. Haiek txikitandik nola ikusten duten. Erdaraz egiten dute etxe gehienetan, hori badakizu, baina ikusten baldin badute haien aldeko jarrera eta gurasoei inporta zaiela... (ALA).

- Azken hamarkadetan euskarazko irakaskuntzan aitzinamendu handia egin dela onartuta ere, Iruñerria bezalako ingurune erdaldunduan eskolak ikasleak euskalduntzeko mugak ditu. Halere, guraso anitzek ez dute hori ikusten.

Ni Haur Hezkuntzakoekin nabil, ja lau-bost urteak betetzera dihoaztenean edo adin horretan dagoenean nik erakusten diet 'artaburu, ergela, txotxolo, tuntu-na...'. Behar dute! 'Eta irakasle batek nola irakatsiko die hori?'. Bueno, zabaldu begiak eta dugun egoeran, Iruñea batean bizita... bestela ez dute ikasiko (...). Tresna horiek eman behar dizkiegu, bestela gero ez dute euskaraz egingo beraien artean. Ez dute, beraien lagun arteko hizkuntza hori falta dute, erregistro hori (...). Ez dute ikusten askok, klaro, eremu ezberdinetan, hizkuntza bat ez diozu berdin hitz egiten dendariari, amari edo... ez dakit, zure senarrari. Hori, erregistro desberdin horiek ikastetxe batek ezin dizkiola eskaini. Hori ez da ikusten (LE).

- Familia erdaldunetako ikasleek eskolaldi osoa D ereduaren eginda ere euskaraz ahozko adierazpen urria izaten dute eta, batik bat, etxe erdaldunetako ikasleen euskara mintzatuaren maila eskasa izaten da.

Hasi ginen kezkatzen (...) zailtasun handiak zituztelako hitz egiterakoan. Zailtasunak. Hizkuntza erabiltzen ez baduzu, ezin hitz egin, nahiz eta ongi eza-gutu. Idatzizko frogetan primerakoak, ahozkoak berriz, zailtasun handiekin (AA).

Orain konturatu gara ez dutela, ahoz ez dutela maila, beharko luketen mailarik (LE).

[Haurrek] egiten dute gaztelaniaz, errazena egiten zaiena (...). [Gurasoek] ez erabilerarekin, ezagutzarekin bakarrik [kezkatzen dira] (ALA).

- Oraindik D ereduaren erronka euskalduntzea da, hau da, euskal hiztunak sortzea, ez euskara irakastea soilik. Ikasleen euskararen erabilera apala kezkabide da.

Hori da ikastoletako edo D ereduko erronka, nire ustez: euskaldundu. Ez euskara irakatsi bakarrik, baizik eta euskaldundu. Kanean ez duzunean euskara, klaro, zer gertatzen da? Gure gain hartu behar dugu edo gure gain geratzen da zama hori edo lan guzti hori, gurasoena, kalekoa eta irakaskuntzarena (...) hori sumatzen ari gara, gero eta gazteagoak hasten direla horrela, erdaraz (...) nik uste lan handia egin zuela D ereduak eta egiten ari gara baina falta da, beste koxka bat falta da euskalduntzeko (LE).

... euskararen erabilpena bultzatzeko, oso zaila baita (...) gaur egungo umeek haien artean euskaraz egin dezaten. Gela barruan egiten dute ikasketak... ikasketetarako hizkuntza bilakatu zaie baina gero, harremanetarako hizkuntza pues ez da eta orduan egiten ditugu ekintza desberdinak pixka bat bultzatzeko (ALA).

- Azken hiruzpalau hamarraldietan, Nafarroan oro har eta Iruñerrian bereziki, euskarazko irakaskuntzan anitz aitzinatu bada ere, egungo egoera balioestean etsikor-itxaropentsu¹⁴⁹ agertzen dira irakasleak.

Batzuetan pentsatzen dut gutxira goazela, gero eta erabilera urriagoa, medioen eraginak, gizartearen eraginak eta guzti hori... azkenean nolabait jango ote gaituen. Zeren instituzioetan ere ez baita horrelako kontzientziarik ez eta gutxiagorik, aldrebes, kontrako jarrera dago eta hori, horrela... hizkuntza bat ez baldin badago esparru guztietatik babestua, esparru guztietatik bultzatua, zaila izango da mantentzea. Hori da nire buruak esaten didana. Nire bihotzak berriz, esaten didana da ikasle ohiak euskaraz egiten jarraitzen baldin badute eta ez baldin badoaz behintzat oso urrutira —esan nahi dut lanak eramaten dituelako Londresera, bestea ez dakit nora... orduan erabilera hori galdu egiten da—, ba horiek, gutxienez horiek eta beste batzuk mantenduko ote duten lehen piztutako su hori. Bihotzak, baina buruak ez hainbeste (AA).

Hala bada, maistrek Iruñerrian euskarazko irakaskuntza hasi zeneko gurasoen erdalduntasuna eta euskaltzaletasuna aipatzen dute eta horretan dakusate, hain zuzen ere, lau hamarkadetan familiei antzematen dieten aldaketarik nabariena. Carlos Vilchesek (2002ab) 1970etik 2000 bitartean Nafarroan euskarak izan dituen testuinguru soziopolitikoan azterketan *ideologiaren eszenatokitako* (2002b: I21) definitu zuen XX. gizaldiko zazpigarren hamarkada. Izan ere, garai horretan euskararen jarraipenerako eta gizarte zabalpenerako ezinbestekoak bilakatu diren helduen euskalduntzea eta euskarazko irakaskuntza bultzatu zituzten taldeen eta lagunen kontzientzia agertzen baita nabarmenen: «Kontzientzia handia izan zen hedatze prozesu geldo horren aldeko jarreraren oinarri» (ibid., I22).

Dena dela, Iruñerriko ikastolak hasi zirenez geroztik maistra jardun duen batek alde ederra ikusten du garai hartako gurasoen inplikazioaren eta oraingoaren artean: «... nik ikusten dudana alde handiena da hori, gurasoen inplikazioa. Garai haietan ikastola haiena zen, haien proiektua, haien sortzen ari ziren zerbait bizia eta euskararen erronkak ere hor zeuden, eta urteekin gauza aldatzen joan da eta gero eta gehiago pues, nolabait esateagatik, desbinkulatu egin dira ikastolatik...» (ALA).

Gurasoen *kontzientzian* gertatu den aldaketa horri egozten diote maistrek orain familiak haurren euskarazko sozializazioan eragingarritasun eskasagoa izatea eta haurrek ingurune erdaldunean euskal hiztun bilakatzeko bidean dituzten beharren jakitun ez izatea.

Euskarazko eskolaren eta familiaren arteko harremanak moldatu dira, laxoagoak dira orain, maistren ustez, duela hiruzpalau hamarkada baino. Gainera, haurrak euskaldun hazteak familiaren eta eskolaren babes eta laguntza ez ezik komunitateko erakun-

¹⁴⁹ Jimeno Juriok ere (1995: 262) ondorio mingots-goza eman dio akabaila *Historia de Pamplona y de sus lenguas* liburuari: «Si prescindimos del contexto histórico recién pasado, y nos fijamos en las trabas que un euskaldun encuentra cuando pretende ser atendido en su lengua desde ciertas instancias oficiales, la escasez de hablantes, la infrautilización del idioma, lo enorme de las carencias y lo largo del camino por andar, el alma se pierde en un horizonte de pesimismo.

Pero si observamos el pasado reciente, los esfuerzos y el camino recorrido durante el cuarto de siglo final, deberemos reconocer el ingente cambio cuantitativo y cualitativo, en cuanto al incremento de vascohablantes y la percepción y valoración social de los ciudadanos hacia nuestra lengua natural».

de eta alderdi gehiagorena ere eskatzen duela jakinda, testuinguru horretan aztertu behar dugu haurren hizkuntza sozializazioa.

6.3.4.2. *Haurrak ikastolan eta ikastolatik at*

«Zaila da aurkitzea klub bat non dena euskaraz eman daitekeen»

Iruñeko haurrak euskal hiztun bilakatzeko prozesuari behatu nahi izan diot eta bereziki, gurasoen jarrerak eta gizarteak ematen dizkieten aukerak bilakaera horri nola eragiten dioten.

Oro har, euskaraz eskolatuta dauden Iruñerriko haurren ingurua «... oso erdal-duna da» (AA). Gaztelania familiaren eta lagun arteko hizkuntza da eta euskara eskolako aferetara mugatzen ohi dute: «Beren gainerako bizian ez dute beharrezko ikusten» (ibid.). Hainbat neska-mutikok euskara ikasgelara murriztua dute eta hortik at euskaraz non egin dezaketen eta non egiten duten arakatuta, eskuarki eremu etzea baizik ez dut kausitu.

Ikastolan bertan ere, ikasgelaz landa, erdaraz aritzen ohi dira haurrak. Ikastolako jangelan “Jantokian ere euskaraz” dioten afixak daude hormetan. Maistra batek dioenez, euskaraz egin dezaten «... beti gainean egon behar» (ALA).

Haurrak ikastolan bertan

Ikasgelatik kanpo, goizeko atsedean aldiko jostaketan ikasleak maisu-maistrek zaintzen dituzte. Eguerdiko otorduan eta jostaldian, hala jantokian nola jostalekuan, haurrak zaindarien ardurapean izaten dira. Zaindari horiek —gehienak emakumeak— euskaldunak dira, bazkariak arduratzen den enpresak kontratatuak.

Ikastolaren eskolaz kanpoko jardueren eskaintza guraso elkarteak antolatzen du. Ikasleei aukeran ematen zaizkien ekintza batzuk haur-gaztetxoan aisian jarduten duten zenbait gizarte erakunderen bidez prestatzen dira. Bertze jarduera batzuk (xakea, areto futbola) kirol federazioen itzalpean bideratzen dira, nahiz eta monitore-entrenatzaileak guraso elkarteak berak kontratatu.

2011-2012 ikasturtean Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak bi urteko haurrendako ‘Kimu berri’ programa garatzen zuen goizez¹⁵⁰ eta Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrendako ‘Euskaraz mintza’ saioak eguerdian.

Eguerdiko eta arratsaldeko zenbait jarduera (Pianoa, Ongi etorri musikara!, Musika hizkuntza, Dantza, Mugitu astindu!, Gorputz adierazpena, Poliekintzak, Margoketa, Gitarra, Txistua, Zaldabaia, Antzerkia, Pilota, Mekanografia, Plastika eta Informatika) Dindaia Fundazioaren¹⁵¹ ardura dira. Fundazio honek beronek antolatzen ditu neguko eta udaberriko oporralditxoetan eskaintzen diren aisialdi programak, hots, Gabonetako eta Aste zuriko hiri tailerrak. Azken jarduera hauek goiz parteko ludoteka moduan eratzen dira eta ikasmila guztietako haurrei eskaintzen zaizkie.

¹⁵⁰ 2011-2012 ikasturtetik aitzina guraso elkarteak arduratuko da bi urteko haurren gelaz.

¹⁵¹ Dindaia Fundazioa Rikardo Ederrak sortu zuen 2004an haur eta gaztetxoendako aisialdi jarduerak, kalitatezkoak eta hezitzaileak, euskaraz eskaintzeko. Egoitza Iruñean du. Webgunea: www.dindaia.com

Jarduera horien helburuetako bat haurren aisialdian euskara sustatzea da; euskaraz antolatzen dira eta monitore-irakasle euskaldunek zuzentzen dituzte. Hala eta guztiz ere, behaketetan haurrak oro har erdaraz aritzen zirela ohartu nintzen. Alde horretatik haurren arteko elkarrekintzei soilik behatzea antzu gertatuko zitzaidan beldurrez, Iruritako landa ikerketan baino artoskiago aztertzea deliberatu nuen arazoaren gain-azpiak hobeki miatzearren. Hain zuzen ere, ikasgeletatik at —baina ikastolan bertan eta ikastetxeak antolaturik— haurrek zer hizkuntza *input* jasotzen duten; zaindari, monitore, begirale edota entrenatzaileek zer bidez bultzatzen dituzten haurrak euskaraz aritzera eta zer jarrera izaten duten haurren hizkuntza portaeren aitzinean.

Behaketak eskolaz kanpoko zenbait jardueratan egin nituen. Saio horietan aztertutako familien haur batzuek hartzen zuten parte. Erran bezala, neska-mutikoek beren artean erdaraz egitea zen ohikoa, baina haratago joz, ondoko hauek izan ziren behaketen ondorioak:

- Monitoreek oro har euskaraz egiten zieten hurrei, ez beti ordea. Zenbait jardueratan, areto futboleko adibidez, ohikoa zen entrenatzaile aritzen ziren bi mutilak erdaraz aritzea elkarrekin eta hurrekin (ia guztiak mutikoak ziren): «Eu! Ateratzen du Iraitz. ¡Es igual, pa que sigan!» (LK, 2012-I-10). Horretan bertzeetan baino maizkoagoa zen haurrek monitoreei erdaraz egitea.

- Anitzetan haurrek zaindari, monitore eta halakoen ahotik entzuten zituztenak ez ziren zuzenak:

A zaindaria: —Zenbat baloia atera duzue?

A haurrak: —Bi

A zaindaria: —Eta bestea nor eramango du? (...) Ni, ez? (LK, 2012-I-18)

- Hurrei euskaraz egiteko eskatzen zitzaien baina monitore-zaindarien ez ohi zieten hizkuntza eredurik ematen ez eta erabilera bereziki bultzatzen ere. Neska-mutikoek euskaraz trakeski edo erdaraz erraten zituztenen aitzinean monitoreek ez ohi zituzten birformulatzen, ez haurrak ohartarazten, ez eta zuzentzen ere. Adibidez, euskararen erabilera sustatzea xede berariazkoa zuen ‘Euskaraz mintza’ izeneko jardueran ere euskararen erabilerak ez zirudien planifikatua eta zaindua. Ikasleei proposatzen zitzaizkien jolas batzuek ez zuten hizkuntza erabilera berezkorik eskatzen —kanta, joko formula edota esapiderik, erraterako— eta hurrei ez zitzaien hizkuntza elkarrekintza berezirik sustatzen. Programatutako ekintzetan monitoreak ez ohi zuen hizkuntza forma egoki eta aproposik erabiltzen eta hurrei ematen zien hizkuntza eredia ez ohi zen bizia, ez adierazkorra, ez emozionala, ez eta batzuetan gramatikala ere. Haurrak jolasean hasten ziren:

E haurrak: —Nor paratzen da?

F haurrak: —Paratzen dela Pedro! (LK, 2011-I2-20)

E haurrak jokoan nor bete den galdegin nahi zuen eta gaztelaniazko *¿Quién la para?* esaldiaren kalkoa egin zuen. Horren aitzinean monitoreak ez zuen inolako erreakziorik izan.

Behaketa guztietan ordea, ez nuen halakoxerik kausitu. Erdaraz errandakoak monitoreak euskaraz birformulatzea ere noiz edo noiz sumatu nuen. Haurrak euskaraz aritzea sustatzen zituzten monitoreak ere bazeuden, Gabonetako hiri tailerretako jardueretan adibidez: begiraleek erabilera etengabe bultzatzen zuten hurrei aldi oro gal-

deginez, zertan ari ziren kontatuz, zer egingen zuten erranez, esapideak eta onomatopeiak erabiliz... (LK, 2012-I-3).

Hori horrela, ikasgelatik kanpo baina ikastolan berean jolas-orduetan eta antolatutako jardueretan neska-mutikoak erdaraz aritzen ohi ziren eta aisiako uneetan euskaraz mintzatzeko jasotzen zuten *input* eta eraginak ez ziren lagungarriak. Haurren euskararen erabilera sustatzeko bederen, ikastolan haurrek egiten zituzten jarduera batzuek ez ziruditen eragingarriak.

Amaiur Ikastolan egin behaketetatik ateratako ondorioa ez omen da Iruñerrian bitxia. Bertze ikastoletan ere gauza bertsua ikusi dute: «... ikasleek beren erabilera mugatzen dutela eskola barrura, gela barrura, eskolako kontuetan aritzen dira euskaraz eta betiere irakaslearen presentzia dagoenean» (AA). Adibidez, San Fermin Ikastolan ikasleen ingurune soziolinguistikoa ikertu zutelarik eta ikastolan antolatzen ziren eskolaz kanpoko ekintzetan, saskibaloia, areto futbol eta halakoetan, haurren hizkuntza portae-rari gogo eman ziotelarik agerian geratu zen euskararen erabilera «... zero zela. Monitoreak euskaldunak izanagatik ikasleek [erdarara] jotzen zuten... ikasleen artean eta baita monitoreekin ere, baina monitorearen baimenarekin» (AA).

Amaiur Ikastolan ikusitako egoera Iruñerriko D ereduko gainerako ikastetxeetara ere orokortzekoa delakoan nago.

Haurren jarduerak ikastolaz landa

Aztertutako familia gehien haurrek ikastolaz kanpo egiten dituzten jarduerak (atletismoa, igeriketa, eskubaloia, pilota, eskia, musika, ingelesa...) erdaraz izaten dira. Kasuren batean gainera, ikastetxetik aterata neska-mutikoak ikastolako ikaskideekin joaten dira jarduera horietara eta, era horretara, gelakideek beren artean gaztelaniaz egiteko aztura indartzen dute.

Iruñerrian haurrendako eskolaz kanpoko jardueren eta kultura ikuskizunen eskaintza euskaraz hagitx urria da. «Giro etsigarria dago Iruñerrian» —dio Amaiur Ikastolako lau urteko haur baten aita euskaldunak— «Euskalgintzan ez dago estrategiarik (...). Ez dira konturatzen zero-hiru eta haur aisialdia estrategikoak direla? Zertan ari da Karrikiri?¹⁵²» (LK, 2012-5-II). Aztertutako familien artean aukera eskas horrengatik kexu agertzen diren gurasoak euskaldunak eta haurren euskarazko sozializazioan bereziki inplikaturik daudenak dira: «Tamalez horrela da, bai. Zaila da aurkitzea klub bat non dena euskaraz eman daitekeen» (Patxi, II. FG); «... giroak bultzatzen zaitu gaztelaniaz egitera (...) pues zaila egiten zaizu egitea hainbat gauza, nik uste. Bai zaila da» (Lidia, I2. FG).

Haurren kultura kontsumoa eta aisialdia

Gurasoek —hala adierazi dute glotobiografietan— ez ohi dituzte seme-alabak antolatzen diren haurrendako kultura jardueretara eramaten, ez euskaraz ez erdaraz. Susmo hori bera dago maisu-maistren artean:

¹⁵² Iruñeko Euskaldunon Elkarte. Webgunea: www.karrikiri.org

... bilera horietan zenbait irakasle gaude urteak daramatzagunak eta guztion hausnarketa da hori: gurasoak gaur egun ez direla horretan sartzen, o sea, antzerkia antolatzen dela larunbatetan ez dakit nongo Civivoxen¹⁵³ euskaraz, bada ume gehienek esaten dute ez direla joaten (...). Edo pelikula botatzen dituzte Eguberrietan euskaraz baten bat baina... batzuk baietz, noski, beti izaten dira, baina lehengo inplikazioa ez dago hizkuntzarekin ezta ere (ALA).

Dena dela, haurrak euskaldun hazteaz bereziki arduratzen diren gurasoek horretan ahaleginak egiten dituztela aitortzen dute: «... aukera handirik ere ez duzu, orduan dagoen guztia probestu behar da (...) adibidez, zineman ez dakit zer pelikula botatzen dutela euskaraz... hara joan behar da (...). Gauza horiek guztiak bai, kontzientea edo... dagoena gutxienez probestu behar da, bestela... ez zait iruditzen gauza handirik dagoenik ere» (Arantza, I3. FG).

Haurrek kontsumitzen duten kultura eta aisialdi produktuei dagokienez, gurasoen jarrerak desberdinak dira. Maistra batek honela dio: «Batuetan galdetzen diezu ea euskarazko liburuak dituzten eta bueno, baten bat, baina gehiena gaztelaniaz (...) orokorrean, beti salbuespenak badira, beti batzuk horren atzetik ibiltzen direnak eta oso kontzienteak direnak eta oso inplikaturak. Baina orokorrean ez» (ALA).

6.3.4.3. Ikastola eragile eta bilgune

«... lo que es la ikastola.

Porque no es el hecho de llevarlos solamente, sino que hay más»

Amaiur Ikastolak ikasleendako eta familiendako euskararen erreferentia izan nahi du. Konparaziorako, ikastolako zuzendari-irakasleek ikasleen aita-ama euskaldunei ikastetxearen eremuan direlarik edo maisu-maistrekin solasten direlarik euskaraz egin dezaten eskatzen diete.

Ikastolak ikasgelatik at ikasleek duten hizkuntza portaerari eragin nahi dio helburua haurrek beren artean euskaraz ihardukitzea baita. Amaiur Ikastolan zenbait urtetatik honat irakasleek euskararen erabilera bultzatzeko kanpainak antolatzen dituzte. Horietako bat ikasleek ahalik eta *amaiurtxo* (ikastolak asmatu duen maskota) gehien eskuratzean datza eta horretarako euskaraz aritu behar dute. Irakasleek korridoreetan, atezainek atondoan, zaindarien jantokian edo jolastokian... haurrei euskaraz entzunez gero amaiurtxo bana ematen diete eta «... horrek funtzionatzen du», dio maistra batek (ALA).

Bertze kanpaina batean, "Irratia" izenekoa, ikastolako bulegoko megafoniaren bidez irratsaio moduko jarduera bat prestatzen dute ikasleen artean euskararen erabilera sustatzeko asmoz. Ekimen xume horien gainean balorazio ona egiten dute irakasleek: «Zerbait martxan jartzen duzunean nabaritzen da, nabaritzen da erabileraren igoera» (ALA).

¹⁵³ Iruñeko Udalaren kultur etxeak, hiriko zenbait auzotan daudenak.

Ikasle gehienek, ikastetxetik kanpo, Iruñean, euskaraz entzun eta jarduteko dituzten zailtasunen jabe dira maisu-maistrak eta egoera soziolinguistikoaren hutsune hori nola bete hausnartu izan dute. Hala, familiei euskarazko baliabide (webgune, filmak eta halakoak Internetetik jaisteko helbide elektroniko...) zerrenda bat ematea otu zitzaien:

... egoera txarra ikusten dugunean erabilpenaren aldetik, pues hasten gara aztertzen eta ikusten dugu, pues, badirela alde desberdinak. Alde batetik, gurasoen inplikazioa; gauza gutxi antolatzen dira... ekintza, antzerki gutxi, festa gutxi antolatzen dira gaur egun Administrazioaren partetik haurrentzako euskaraz. Baina antolatzen direnean gehienak ez dira joaten. Gero telebistarena... orduan, ideia hori bagenuen, bai, bidaltzea baliabide edo zer toki edo zer... non aurki ditzaketen pelikulak, marrazkiak edo... euskaraz (...). Gero, gelako bile-retan aipatzen da beti, pues inportantea dela inplikazioa (...), umeez ikusi behar dutela ez dela ikastolako hizkuntza bakarrik, gurasoei ere inporta zaiela eta joaten direla euskal festetara... (ALA).

Ikastolaren barnean ez ezik ikastetxeaz landa ere familiek eta ikasleek dituzten hizkuntza portaerek arduratzen diete maisu-maistrak: euskaraz ez dakiten gurasoak ikastera animatzen dituzte eta zerbaixka dakitenak egitera. Guraso bat euskalduna delarik bereziki galdegiten diela gurasoei etxeko erabileraren gainean, dio maistra honek:

Nik zirikatzen ditut. Nik galdetzen diet (...) nola egiten dioten haurrari eta haurrak nola egiten die. Batak bakarrik dakienean euskaraz beti galdetzen diet. Haiek ez dute hori ateratzen. Gero, gainera, badago ere oso zabaldua dagoen ideia bat da 'ikastolan ikasiko du' (...) nire jarrera hor da lehenengoa animatu [gurasoak]: 'ondo egiten ari zara!' (...). Beti esaten diet 'pentsa ezazu ume bati suposatzen dion ahalegina. Begira, erdaraz bizi da, etxean erdaraz eta klaro, ahalegin bat da. Errazago egiten dute, ados, baina ahalegin bat da. Bada, 'inplikatu zaitetz pixka bat! Ez? Saiatu zu ere! zu ere ahalgindu!'. 'Es que nik gutxi dakit!'. 'Bueno, zure semeak edo alabak gutxiago zekien etorri zenean'. 'Bueno, pues venga, elkarrekin' esaten diet beti, adin polita dela umeekin euskaraz hitz egiten hasteko. Ez dizula lotsarik ematen hanka sartzeak, ipuinen bidez gauza asko egin ditzakezu (...). Eta gero harremana ere lantzen duzu, lotura hori eta berak zuzenduko dizu (...). Eta horrekin animatzen dira batzuk (...). Sartu duzue euskara etxean. Eta hori lortzea da pbbb! (...) betiere animatzen ditugu arratsaldero hemen euskara klaseak daude gurasoentzako eskaintzen direnak (LE).

Antolatzen dituen jarduerak jakitera emateko ikastolak *Kaixo!* berripapera, banatzen die familiei, euskaraz nahiz erdaraz, paperean edo euskarri elektronikoan.

Gurasoak ikastolako dinamikan inplikatzeko dira: gaztaina biltze eta jatea, Olentzero, inauteriak, Santa Ageda, ikasturte amaierako besta... antolatzen lagundu eta ospakizunetan aktiboki parte hartzen dute. Ikasleek ikastolan proiektuak landu eta ateraldiak (Artetako iturburura, Planetariora, Panasa lantegira...) egiten dituztelarik ere gurasoren batek laguntzen ohi die.

Ikastolatik lekora ere gurasoek aisialdi jarduerak prestatzen dituzte. Adibidez, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian *Pirritx eta Porrotx* pailazoak ikustera joateko (LK, 2011-II-22); edo asteburuetan haurrak norabait eramateko.

Erraterako, Amaiur Ikastolako familiek mendi talde bat dute ikasturtean zehar hilero larunbat edo igande batean mendi ibilaldiak antolatzen dituen¹⁵⁴. Dantza taldea ere badago; ikastolako ikasle ohi eta haien guraso batzuek segitzen dute bietara biltzen. Alabak ikasle izandakoak dituen aita erdaldun batek honela aitortu zidan mendi ibilaldi batean: «En la ikastola te sientes arropado. Y los críos también». Behaketetan ikusitakoaren arabera, mendi ibilaldi horietan erdaraz solasten ohi dira, bai gurasoak bai haurrak (LK, 2011-II-27).

Zenbait ikasmailatan familiek harremana estutu dute eta asteburuetan planak egiten dituzte elkarrekin. Adibidez, HHko bigarren mailako ikasleen gurasoek biltzeko ohitura hartu dute: haurren urtebetetzeak batera ospatzen dituzte ikastolan egiten duten atsalkari batean (LK, 2011-12-16) eta aste hondar batzuetan txangoak antolatzen dituzte haurrak norabait eramateko: «... procuramos juntarnos y hacer alguna actividad de vez en cuando para juntarlos [haurrak]» (Susana, 19. FG). Horren erakusgarri, 2012ko neguan lauzpabortz urteko haurren guraso horiek Lanzko inauterietara ateraldia antolatu zuten. Halakoetan euskal kulturari lotutako ospakizunak (inauteriak, Euskal Eskola Publikoaren aldeko besta...) hautatzen dituzte bereziki. Guraso horien erdia inguru euskaldunak dira (13. FGko Mikel, 14. FGko Marcos, 15. FGko Adur, 16. FGko Txuma...) eta hori nabaritu nuen behaketetan: Lanzko ateraldi horretan guraso euskaldunek beren artean euskaraz egiten ohi zuten eta haurrak ere jostetan ari zirelarik euskaraz aritu ziren tarteka (LK, 2012-2-19).

Ikastolaren eragina auzoan

Ikastolako zuzendariaren ustez, ikastolako jostalekua nolabait «... auzoko plaza» da (LK, 2011-12-22). Izan ere, ikastolak jolas eremu zabala du, plaza modukoa, areto-futbol zelaia, pilotaleku estalia, haur txikiendako zabu-jolastokia eta guzti. Itzalerako zuhaitzak eta jarlekuak ere baditu, hori dena inguruz inguru hesi batez itxirik. Guraso-haurrak eta gazte jendea biltzeko leku egokia dela erran beharrik ez dago.

Bertzalde, egun Amaiur Ikastola, ikasleendako eta familiendako bezala, Iturrama auzoarendako euskararen eta euskal kulturaren erreferentzia da. Hori gurasoei esker lortzen du ikastetxeak. Izan ere, ikastolak euskal kulturari lotutako jarduerak sustatu eta ikastetxearen inguruko karriketara zabaltzen ditu. Olentzero, inauteriak edo Santa Ageda ospatzen direlarik ikastolako haurrak, maisu-maistrak eta gurasoak kalejiran ibiltzen dira auzoan barna txistulari-atabalarietara eta bertzelakoek lagundurik eta besta giro alaian.

2011ko Olentzero, kasu, abenduaren 22an antolatu zuen ikastolak, neguko oporraldiaren azken eskola egunean eta goizean goizetik ibili ziren guraso batzuk ikastolan txistor-jatea prestatzen eta geroko kalejiran haurrei laguntzen (LK, 2011-12-22). Inauteriak ospatzean ere antzera, zenbait guraso mozorroturik ibili ziren ikastolako sukaldean haurrendako hamaiketako prestatzen eta eguerdi aldera kalejiran atera ziren denak (ikasleak eta maisu-maistrak, gurasoak eta aitatxi-amatxi anitz) txistulari-atabalarietara alaiturik eta Miel Otxin panpina handia zeramatela (LK, 2012-2-17).

Euskal kulturari loturako ospakizun horiek ikastetxetik ateratzean ikastolak euskara bera *auzokratu* egiten du: hizkuntza auzoaren bizitzan sartu. Halere, karrikara ateratze hutsa baino gehiago da, Santa Ageda bezperako ibilaldirako, erraterako, gurasoak

¹⁵⁴ Amaiur mendi taldearen bloga euskaraz dago: <<http://amaiurmenditaldea.blogspot.com/2011/10/amaiur-mendi-taldeko-irteeren-egutegia.html>>

auzoko zenbait dendarirekin solastu ziren haurrendako gozokiak presta zituzten. Hau da, ikastolak eta gurasoek auzoarekiko loturak sustatzen dituzte.

Areago ere, ikastola auzoko kultura bizitzan eragile aktiboa da. Iturramako Olentzero antolatzeke, konparazioe, ikastetxea bera eta gurasoak inplikatzen dira. Ikastolak prestaketetarako instalazioak uzten ditu, guraso elkarteak diruz laguntzen du eta zenbait gurasok (I6. FGko Blancak eta Txumak, kasu) antolaketan jarduten dute.

2011ko abenduaren 23ko arratsean —ikastetxean ospakizuna egin zuten bihar-munean— atera zen Iturrama auzoko Olentzero. Amaiur Ikastolatik abiatu zen eta Serafin Olabe karrikan barrera Ezkiritz eta San Juan Bosco karriken arteko zabalguneraino joan ziren kalejiran familiak, joaldunak (Iruñerriko talde bat), zaldi-orga, gurdi bat bete haur, txistulari-atabalariak, txaranga eta Olentzero panpina handia. Ospakizunari bukaera emateko ikastolako zenbait gurasok prestatu txokolate-jatea dastatu zuten familiek (LK, 2011-12-23).

Iturraman bizi den Txuma (I6. FG) ikastetxean bizi sartutako gurasoa da. Ikastola eta horren inguruko giroa anitz balioesten ditu: «Al final, el barrio (...) es la ikastola y poco más (...) la vida del barrio, a mí en concreto me la da la ikastola y me relaciono con gente de la ikastola». Dena dela, badira, noski, ikastolaren dinamikan inplikatzen ez diren gurasoak.

Ikastola gurasoen sozializazio berrietarako esparrua

Guraso batzuei ikastolak sozializazio berriak egiteko aukera eman die; zenbaitek harremana estutu dute arratsaldeetan ikastolako jostalekuan elkartu eta haurrak jolasean aritu bitartean ihardukitzen baitute.

HHko bigarren mailako haurren zenbait guraso, kasu, adiskidetu egin dira eta ikastolako jostalekuan eta haurrak norabait eramateko ere biltzen dira, arestian aipatu dudan bezala. Halakoetan guraso euskaldunek txikiei ez ezik bertze heldu euskaldunei ere euskaraz egiten ohi diete eta horrek, aita euskaldun honen iritziz, haurrak beren artean euskaraz hastera bultzatzen ditu batzuetan:

Bai, askok dakigu euskaraz (...). Egunero hemen [ikastolako jostalekuan] ja badakizu nor dakien (...) elkartzen zara eta hasten zara euskaraz hitz egiten (...) nik uste gainera guztiok ulertzen dugula euskaraz, hitz egiten ari baldin bagara euskaraz jarraitzen dugula. Igual beste leku batzuetan (...) igual moztzen zara pixka bat, 'jode, igual, ez moskeatu baina joe, ez du ulertzen eta ematen du...'. Nik uste dut [haurrek] nahiko normala ikusten dutela [gurasoek] euskaraz egitea. Gero haiek egiten dutena... (...). Eta gurasoekin oso ongi, zeren eta gure artean, ez nik bakarrik, ba... beste aitek edo amek hitz egiten dutela euskaraz beraiekin. Igual beraien [haurren] artean egiten dute erdaraz eta batzuetan ja hasten gara esaten 'e! zuek!' eta txipa aldatu eta hasten dira [haurrak] euskaraz (Adur, I5. FG).

Nire behaketaren arabera, ikastolako jostalekuan biltzen direlarik guraso euskaldunek beren artean euskaraz aritzea usua da, haurren artean aldiz, batere ez (LK, 2012-2-19).

Ó Riagáin (2001: 203) ikertzaile irlandarrak gaierazko eskolen garrantzia nabarmendu du. Izan ere, eskolak gaieraz egiten ez duten familietan hizkuntza gutxitua erabilera, hein batean bederen, sustatzeko eta gurasoak hiztun gaieradunen saree-

tan sartzeko laguntzen du: «...there is evidence to suggest that these schools [Irish medium education] help to stablish some degree of home bilingualism and to introduce parents to Irish-speaking networks».

Iruñean D ereduak hainbat familiarendako eragin bertsua du. Ikastetxea euskararen erreferentzia da eta zenbait gurasori hizkuntza sozializazio berriak ahalbidetzen dizkie. Familiendako ez ezik, auzo eta hiriarendako ere D ereduko ikastetxeak euskararen *gizarteratzailak* dira haien bidez euskararen ardaztutako gizarte dinamikak eratzen baitira. Hernandezek (2007: 386-7) ere ideia horri heldu dio, udalerrri erdaldunduetako kultura eta hizkuntza birsortzean ikastolaren (eta oro har, irakaskuntzan euskaraz jarduten duten ikastetxeen) funtsezko egitekoa azpimarratu baitu: «... los centros escolares juegan un papel relevante en la progresiva regeneración sociocultural y lingüística del municipio».

6.3.4.4. Hedabideak eta kultura erreferentziak

«... orain ez dute erreferentziarik (...). Nik uste dut horrek mina egin duela»

Iruñeko neska-mutikoez ez dute telebista euskaraz ikusten. Aita euskaldun batek honela laburbildu du: «Haurrek erreferente guztiak erdaraz dituzte» (LK, 2012-5-II). Euskaraz eskolatutako ikasleak ere *Clan*, *Disney Channel* eta bertzelako erdal haur-kateen ikusleak dira, batzuk bertze batzuk baino zaleago.

Aztertutako familietako guraso batzuek haurrendako euskarazko telebista saiorik ezin ikustea kezka bidezkoa jo dute. Lidiak, adibidez, hori salatzen du: «Saio... marrazki guztiak erdaraz ikusten ditu, ez dago, ETB3 ez da ikusten ahal (...). Pena, ez? Bertzenaz paratuko genuke. Ez dago aukerarik eta...» (Lidia, I2. FG). Sebasek horren gainean egon ez izana egozten dio bere buruari eta konponbidea emateko asmoa adierazi du: «... ez dut telesailik Internetetik jaitsi eta horri erremedioa jarri behar diot. Hori da nire proiektuetako bat orain» (Sebas, I2. FG).

Arantzari haurrek ikusten dituzten telebista saioek kezka ematen diote: «Euskal Telebista zenean, umeen programazioa zela, euskaraz ikusten zuten franko (...). Baina orain (...) dena gaztelera, dena gaztelera» (Arantza, I3. FG). Mikelek honela dio:

... atzeman da, adibidez, telebista, ez dago euskaraz telebistarik. Marrazki bizidun batzuk botatzen dituzte larunbatetan, goizean goizetik baina gero nik uste horrek ere min handia egiten ari dela (...) nik uste dut horretan atzera egin dugula. Zeren orain ez dute erreferentziarik. Erreferentzia dute lagunak erdaraz eta gainera telebista, marrazki bizidunak, erdaraz. Pues ja, pues ja ospass! Nik uste dut horrek mina egin duela (Mikel, I3. FG).

Amaiur Ikastolako maistra bat telebista euskaraz ikusteko aukera kentzeak haurrek hizkuntza berenganatzeko bide bat gutxiago izatea dakarrelakoan dago: «Gaur egun ez dute ia-ia marrazki bizidunak euskaraz ikusten. Lehen Euskal Telebistan ikusten zituzten (...). Hori da beste bitarteko bat lehen genuena eta orain ez duguna» (ALA).

Telebista mintzairaz jabetzeko baliabide eraginkorra dela agerian dago gurasoendako. Izan ere, etxean euskaraz egiten dutenek seme-alabek gaztelania telebistaren bi-

dez ere ikasten dutela ikusi dute. Marta honela mintzo da: «Asko ikasi dute ja telebis-tan. Azkeneko boladan gero eta erdara gehiago ikasi dute» (Marta, II. FG).

6.3.4.5. Erdararen presioa eta euskararen zilegitasuna

«¿Y no le habláis en castellano?»

Euskarak oro har leku arrunt ttikia du Iruñeko karriketetan. Guraso euskaldun ba-ten ustez, hiriko zenbait lekutan euskaraz egitea bitxikeriatzat hartzen da oraino: «Iruñean euskaraz ibiltzea nahiko exotikoa da oraindik» (Sebas, I2. FG). 2011ko inkesta soziolinguistikoa araberara (Aizpurua & Ortiz de Landaluze, 2012: 63) iruin-darren % 9,1 da euskaldun eta urte bereko kale neurketari (Altuna et al., 2012: 43) kasu emanda % 2,7 da hiriburuko euskararen erabilera. Euskal hiztunendako agerian den gauza da Iruñeko gizarte bizitzan erdarak duela nagusitasun osoa zerbitzu publi-koetan nahiz pribatuetan: «Zuk euskaraz egin nahi duzu eta alde guztietatik ozto-poak» (Arantza, I3. FG). Glotobiografietan berriemaile euskaldunek maiz izaten dute hizpide egoera soziolinguistikoa: euskaraz egiteko aukerak urriak, Administrazioaren babesik eza, euskarazko eskaintza bakanak, hiriko zenbait aldetan euskararen kontrako giroa... Horren ikusbide, Lourdes (I7. FG) Iruñeko Zabalguneko kafetegi baten jabea da eta euskararen inguruan sumatzen duen giro hori hagitz kontuan izaten du bere negozioan:

... en la cafetería la camarera es de Bera y sabe hablar euskera. Yo chapurreo el euskera y entiendo perfectamente. Pero no tenemos nada en euskera, no hay nada puesto en euskera, nada de nada. Estamos en una zona donde no podemos poner. Si estaríamos en la Txantrea o en la Rotxapea cambiaría todo (...). Eso se palpa en el ambiente, se palpa (...). Es contraproducente, sí (...). En nuestra cafetería no invita, no, por el tipo de gente que nos va (Lourdes, I7. FG).

Euskal hiztunek euskara gizartean arrunt ahula izateak sorrarazten dituen egoera jakin batzuei aurre egin behar izaten diete eta, halaz guztiz, euskaraz jardun nahiago duenak mintzaira gizartean gutxiago izate horren —hizkuntzaren gutxiagotze egoera-ren— eraginak jasotzen ditu ezinbestez. Nolabait, hizkuntza gutxiagotuta egoteak hiztun gutxiagotuak izan ditu emaitza. Euskal hiztunek erdararen presioa pairatzen dute eta presio horrek erdaldun batzuen jarrerak izan ditzake agerbide.

Seme-alabak euskaraz haztea deliberatu duten guraso euskaldunen bizipenei so eginda garbi ikusten da hiriko giroa ez dutela horretarako lagun. Sebas (I2. FG) haurra euskaldun haztearen aitzinean erdaldun batzuek izaten duten jarreraz kexu da:

Niri villabesan denetarik erran izan didate modu onean baina (...) andre zahar batek erran zidan, hor ginen [Peru] eta biok solasean, eta 'haurrak oraindik ez daki erdaraz?'. 'Oraindik ez'. 'Ba, bietan erakutsi behar zaio'. Eta nik pentsatu nuen 'eta zuk bietan erakusten diozu zureari edo?' (...). Solas egiten dizute edo aholkuak ematen dizkizute euskaraz ari zarelako zeure semearekin. Gauza harrigarria (Sebas, I2. FG).

Lidia ere horrelaxe mintzo da: «... mundu guztiak du iritzia horren gainean (...) gu euskaraz... beti bazen norbait ‘¿y no le habláis en castellano? Pues tiene que saber castellano este niño’» (Lidia, I2. FG).

Umeak euskaldun haztea gurasoen jarduera sozializatzaile *ez zilegia* (cf. Bourdieu, 1989) izatearen arazoa ez du Hernandezek (2007) Lasarte-Orian (Gipuzkoan) ikertutako kasuan aipatu. Nire idurikotz, alderdi hori Nafarroan oro har eta bereziki Iruñean herrialdeko gune sozial eta ekonomikotako euskarak duen zilegitasun ahularen seinalea da.

Iruñean euskaraz aritzeko eta kultura euskaraz hartzeko dauden aukera urrien aitzinean kontzientziatuta dauden guraso euskaldunek seme-alaben hizkuntza sozializazioarekiko jarrera aktiboa hartzen dute. Umeak euskaraz hazi nahi horretan hiztunak inguru erdaldunaren presioaren eragina nozitzen du, eta horren emaitza, artean bederen, frustrazioa eta nahigabea izaten dira. Zenbait kasutan guraso euskaldunek etengabeko borroka batean ikusten dute beren burua, ingurukoak ez baitira ulerberak eta lagunkoiak izaten, erdara jaun eta jabe den ingurune batean, haurrak euskaldun hazteak eskatzen dizkien ahaleginekin. Ingurukoen konplizitate falta horrek etsipena dakarkio aita honi:

... bitxia da ingurukoen jarrera alde horretatik. Nik uste dut liburu bat euskaraz oparitu dion [Peruri, semeari] pertsona bakarra nire ikasle bat dela (...). Baina gero nire gurasoen partetik edo ingurukoen partetik beti... ez dakit, dena erdaraz. Jakinen ez balute bezala euskaraz egiten dugula. Dena, liburuak edo jostailu bat... Inork ez du, ez dakit... lan hori hartu. Denda batera joan eta eskatu a ber zer duten euskaraz edo, zer jostailu klase dituzten hemen euskaraz edo ordenagailu bat euskaraz egiten duena, edo panpina bat euskaraz egiten duena. Ez, inork ez. Guk, bai, [Lidiak] eta biok bai eta nire ikasle hark ere bai baina jode... (Sebas, I2. FG).

Euskarari tinko eustea deliberatu duen gurasoarendako hautu hori ez da ezbairik gabekoa. Anitzetan, euskara bermatzearen muzin egiten diote seme-alabek berek erdaraz nahiago dutenari. Haurrek eskatzen dietenari ezetz erratea deseroso zaie aita-amei, beren jokaera auzitan paratzen dute eta erdararekin malguagoa ez izateagatik erantzuki egiten diote beren buruari. Honela mintzo da ama bat:

Baina batzuetan, ni ohartzen naiz, liburutegira joaten gara eta ‘Hau eta hau hartu nahi dugu’. ‘Jode! Bueno, har ezazu...’ (...). Batzuetan liburutegira joan eta kasik behartu egiten ditut, ‘¡Venga! Har dezagun euskaraz!’. ‘Baina nik hau ez dut nahi!’ (...) nik ez dakit horretan taliban samarra naizen (...). Nik uste dut aukera zabal samarra galtzen dute niregatik zeren nik esaten diet ‘Begira, euskaraz egiten dugun, txispun!’. Eta orduan, hori, etxean gazteleraz liburuak oso gutxi nik erosita edo bestela ere. Gazteleraz oso gutxi dute eta hori ere, batzuetan esaten duzu... mmmm. Klaro, ez dakit, baina esaten duzu ‘Aukera ere izanen dute’. Ahalegin guztia hor... (Arantza, I3. FG).

Hala bada, euskarari atxikimendu handia dioten guraso euskaldun batzuk ere zalantzati ibiltzen dira umeak Iruñean euskaldun hazteko hizkuntzari beti eutsi behar ote dioten. Iruñean erdarak duen nagusitasuna kontuan hartuta haurrek etxeaz eta eskolaz landa ere euskaraz aritzeko aukera izatea bilatzen duen guraso honi zalantza nabari zaio: «... batzuetan ez dakit ez ote den horretan pixka bat gelditzen *ghetto* moduan» (Arantza, I3. FG).

Bertzalde, umeak euskaraz hazteko erabakia hain irmoki hartu ez duten guraso batzuek haurren aisialdian euskara ez lehenestea nolabait zuritzen dute. Txumari (I6.

FG) seme-alabek ikastolatik kanpo egiten dituzten jardueretako hizkuntzaren gainean galdegin diodalarik urduritasuna eta defentsiban jarri dela antzeman diot:

... el hecho de decir 'oye, no vamos a esa actividad porque no es en euskera', tampoco, tampoco. La verdad es que no. Si te dijera lo contrario te mentiría. Ahora, si me dices '[Iker] hace esquí y lo hace en euskera'. Mejor, ¿entiendes? Mejor, ¿por qué no? Pero si no, tampoco me quita el sueño. Es así y ya está. Porque no sé... valoro igual más los sentimientos, los... más que andar, no sé cómo decirte, pregonándolo o... no lo necesito. Ya sé lo que siento, lo que pienso, lo que tiene que ser, cómo me gusta que estén mis hijos y cómo me gusta vivir, y nada más. Un poco lo que se dice, pero es verdad, un poco desde el respeto y ya está. No hay más. No me quita el sueño, la verdad (Txuma, I6. FG).

Honaino, inguru erdaldun(du) bateko euskal hiztunek euskaraz jarduteko eta eskolaren bidez edo gaztetan ikasitako hizkuntza beretzeko dituzten behaztopak aipatu ditut. Horiek gogoan izanda, guraso euskaldunak beren hizkuntza gaitasunaz ziur ez izatea ulergarria da. Arantza (I3. FG), erraterako, haurrei euskaraz baizik ez egitearen inguruan zalantzakor agertzen da eta euskaldun berria izateagatik sentitu dituen mugak aitatzen ditu:

... batzuetan esaten duzu 'Ez dakit igual mesede egiten diedan edo hobe genukeen...' (...) azkenean gure ama hizkuntza gaztelera da (...). Erdaraz ongi ikasiko dute baina erdaraz eginen bagenie igual (...) hizkuntza hori hobeki... es que ez dakit, ez dakit esaten zer klaro, hautua ja egin genuen horrela eta horrela da eta ez dago besterik baina euskaldun berriak garen aldetik... (...). Nik adibidez, horretan ez dut arazo handiegirik izan, pentsatzen nuen igual gehiago izanen nuela. Baina umeak zirenean, jaio berriak edo, nik abestiak zirela, jokoak, gauza gehienak gaztelez dakizkizu (...) zure haurtzaroan horrela jaso dituzu. Eta nik haurren inguruan (...) afektibitate kontua, batzuetan esaten duzu 'Ez dakit nik...' (...). Baina egia da [Mikelek] askotan esaten duela, bai berak horrela egin zuen, erabaki genuen eta euskaraz egiten die bai ala bai. Hori hala da. Etxean ezin da gaztelez egin. Baina batzuetan esaten duzu 'Ez dakit, euskara maila ere ez dakit nik...' (Arantza, I3. FG).

Izan ere, Iruñeko guraso euskaldun gehien-gehienek gaztelania izan zuten lehen hizkuntza eta aitamatuta umeekin euskaraz egitearen gainean segurtasunik eza orokorra izaten da. Amaiur Ikastolako maistra batek honela dio:

Benetan... beldur asko dute. Beldurrak daude, segurtasun falta (...). Badut kasu bat, aita bat. Badu hemen zaharrena eta gero ditu bikiak. Aita irakaslea D ereduan eta 'es que... ez dute oraindik hitz egiten bi urteko bikiak eta badaezpada ere, esan nuen, ez liatzeko hasiko naiz erdaraz, gutxienez erdaraz ikasi dezatela'. Horrelako gauzak ikusten ditut oraindik. Harritzekoa (LE).

Euskaraz jakin arren umeak erdaraz hazi dituzten gurasoek euskarari eutsi ez izana egozten diote beren buruari. Ameliak (I8. FG), adibidez, ez zion alabari txikitatik euskaraz egin eta horregatik kontzientziaren harrak ausiki dio beti. Orain neskatikoak zazpi urte ditu eta ama pozten da euskaraz aditzen badio: «Como no le he hablado... Me siento un poco así, pero no tenía fuerzas en su día (...) yo tenía esa cosa de que no le había hablado. Siempre como un cargo de conciencia un poco (...). Me da mucha pena» (Amelia, I8. FG).

Beraz, badirudi Iruñeko euskal hiztunak euskararen gizarte egoera gutxiagotuaren ajeek joak daudela. Alde batetik, seme-alabak euskaldun hazi nahi dituztenek talka egiten dute, frustrazioz edo nahigabez, hiriburuan euskarak duen egoera eskasarekin. Bertze alde-tik, erdararen nagusitasunaren aitzinean etsi dutenak ez daude errudun sentitzetik salbu ¹⁵⁵.

Iruritako gurasoek aldiz, nahiz eta euskara ongi ez jakin, eskuarki ez dute zalan-tzarik dakiten heinean haurrei euskaraz egiteko. Nolabait, euskaraz ihardukitzeko gi-roa dute lagun eta euskaraz arrunt ongi ez moldatuta ere badakite gizarte harreman hurbilek eta herriko giroak beren gabeziak berdinduko dituztela. Berebat, iruritarrek oro har ez dute erdararen presioa beren herrikideengandik zuzenean jasotzen; hizkun-tza nagusiko hiztunen presioa herritik at, Iruñean, nozitzen dute bizien.

6.3.5. Euskararen hutsarteak

2012ko maiatzean, Amaiur Ikastolako ikerraldia akitu hurren nintzelarik, Karrikiri Iruñeko euskaldunon elkartearen *Karrika* aldizkariak ama euskaldun baten idazkia argitaratu zuen. Ama horrek etxean, haurtzaindegian eta eskolan euskaraz min-tzatuagatik ere haurrak Iruñean euskaldun haztea biziro zaila zela zioen arrangurati:

... ingurua erdalduna dela ohartzen dira, kalera ateratzen direnean inguruko gehienak euskaraz ez direla mintzo ikusten dute, eta gaztelania dela nagusi. Eskolan hasi baziren hasi, euren euskara gaztelanian urtzen ari dela sentitzen dut. Gure haurrak hautsi zait esan beharrean “ronpitu zait” esaten entzun ditut. Adibide bat besterik ez da. Batzuetan atzeraka goazenaren sentipenak hartzen nau. Euskaratik gaztelaniarako bidaian azken honek arlo guztietan duen indarra ikustean, zer egiten ari garen gaizki galdetzen diot nire buruari (...) eskola ez da nahikoa hizkuntzaren transmisioa bermatzeko, inguruan ditudan guraso er-daldun euskaltzale askok uste duten moduan. Ikasi eta gero erabiltzearena erraz etorriko dela uste duena oker dabil. Esperientziak erakutsi dit errazena ikastea dela, eta zailena erabiltzea, euskaraz bizitzeko aukera izatea. Hortaz, euskaraz ikasi arren, gure haurrak euskaraz nola biziko diren imajinatzea kosta egiten zait maiz (Arrizurieta, 2012).

Iruñeko inguru erdaldunak haur euskaldunei dagien presioak kezkatu eta larritzen du ama hori. «Euskaraz ikasi arren, gure haurrak euskaraz nola biziko diren...» dauka kezkabide, hau da, nola haziko diren euskaldun. Guraso horrek garbi bereizten ditu euskaraz jakite edo ikaste hutsa eta euskaraz haztea edo bizitzea. Bigarrenerako lehena ezinbestekoa da baina ez aski. Euskarazko eskolak mintzaira ikastea ziurtatzen du, hizkun-tzaren jarraipena ez ordea: «... ez da nahikoa hizkuntzaren transmisioa bermatzeko».

Balio izan dezala lekukotasun horrek egun Iruñean eskolan, eta zenbait kasutan etxean ere, euskaraz eginagatik haurrak euskaldun hazteko dauden zailtasunetan gogoia paratzeko. Ama horren kexua sentipen isolatua baino gehiago Iruñeko guraso euskaldun eta euskararekin kontzientziatuen artean ohikoa delakoan nago.

¹⁵⁵ Gizarte psikologiatik katalan hiztunek —eta, oro har, hizkuntza gutxituetakoek— izaten dituzten bizipen deserosoak aztertu eta hizkuntza plangintzan horretan esku-hartzea proposatzen duen gida moduko liburu hau argitaratu da berriki: *Sortir de l'armari lingüístic* (Suay & Sanginés, 2012).

6.3.5.1. *Euskara, ubartea*

«... no consiguen que los críos hablen entre ellos en euskera»

Aitzineko ataltxoetan azaldu bezala, Iruñeko landa ikerketako berriemaileak bat etorri dira hiriburuan euskarak duen lekua hagitz ttipia dela erratean. Orobat, kale neurketek Iruñerriko haur-gaztetxo euskaldunen euskararen erabilpen urria agerian paratu dute. Datu horiek Iruñearen inguru hiritartuan *euskararen erabileraren paradoxa* lirudikeena erakusten dute bete-betea, hots, euskaraz dakiten haur-gazteen ehunekoa arian-arian hazten da eta euskararen erabilera aldiz, gainbehera etortzen (Kasares, 2007, 2010).

Iruñerrian bezala Euskal Herriko hainbat hiri-herri erdaldundutan ere haur euskaldunak ikasgelatik kanpo erdaraz aritzea egoera ohikoa da. Halaber, euskara bezalako hizkuntza gutxituei zail zaie haur-gazte jendeak familian usu egiten ez duen mintzaira, eskolan landua bada ere, ikastetxetik at erabil dezan erdiestea. Ikerketek haur eta gaztetxoaren erabilera berezkoa lortu ezina eta horretarako dauden zailtasun handiak erruz aztertu dituzte. Neska-mutikoez elkarren artean bat-batean eta berez mintzaira ahulean egitea da hizkuntza indarberritzeko ahaleginetan lortzea zailenetakoa den emaitza, baina erdiesten delarik zinez esanahitsua, Ken Georgek ohartarazi bezala: «When children start to play in the threatened language a significant goal has been reached in the revitalization» (Wright, 1996: 73). Halaxe gertatu zen hebreeraren *great leap* delakoan, haurrek ikasgeletan ikasitako mintzaira eskolaz lekora, karrikara eta etxeetara eraman zuten (Nahir, 1988).

Alde horretatik, Iruritako neska-mutikoez *jauzi handi* hori egin zutela baina Iruñekoek eginkizun dutela erran daiteke. Azken berrogei urte honetan eskolaldi osoa euskaraz izan duten ikasleak edukita ere, euskaraz egiteko ohitura oraindik ez da haurren artean ezarri. Honela dio euskaraz eskolatu ziren lehen haur haietako batek, egun neskatiko euskaldun baten ama denak: «Yo tengo cuarenta y cuatro. Fíjate los que han salido de la ikastola ya y (...) no consiguen que los críos hablen entre ellos en euskera» (Amelia, 18. FG).

Zerk bereizten ditu bi kasuak? Zertan datza Iruritako haurrak eskolaz landa euskaraz egiten hasi izana eta Iruñekoak aldiz, ez? Ikerketak agertu duen bezala, neska-mutiko batzuek eta bertzeek euskararekin harreman desberdina izan dute familian eta ingurune hurbilean.

Iruritako haurrek eskolaz kanpo euskararen bizipen jarraitua dute, gutxi-asko, familian, lagunartean eta aisialdian. Hizkuntzaren erabilera esparru horiek elkar indartzen dute, nahiz eta zenbait arlo edo jarduera —telebista edo Musika Eskolako saioren bat, adibidez— erdaraz baizik ez izan. Neska-mutiko iruritarrak gaztelaniaren indarraz jabetzen dira baina euskara herriko harremanetarako baliagarri zaie eta eguneroko bizitza mintzaira horretan egiten dute.

Iruñeko haurrendako, aldiz, euskara bizipen etena izaten da, ez jarraitua: etxean euskaraz apurtxo bat, eskolan gehiena, karrikan deus ere ez, lagunekin oso gutxi... Haietariko anitzendako euskara ikasgelara mugatzen da eta gune hori *ubarte* modukoa da erdarazko ohiko jardunean; haur horien hizkuntza sozializazioan euskara baino gehiago euskararik gabeko egunerokoa da nabarmena, euskararen hutsarteak alegia.

Zenbait ikaslek *uharte* horretaz gain ez dute euskararekin bertze harreman gunerik izaten eta hizkuntzaren bizipen eten horrek hainbat komunikazio elkarrekintzatan eta egoeratan euskaraz aditu eta aritu ezinean uzten ditu.

Iruñean euskara etxekoa duten neska-mutikoek ere ikaskideekin aritzeko hizkuntza nagusira jotzen dute. Familian euskararekin harremana dutenak gehiengoa diren ikastaldean ere ikasleek ez ohi dute beren arteko harremanetan euskaraz egiten. Gauzak horrela, haur-gaztetxo iruindarrak, bi-hiru urtez geroztik euskaraz eskolatuak, adinkideekin *euskaldunez osaturiko harreman sare erdaldunetan* sozializatzen ohi dira, hau da, haurride, ikaskide eta lagun euskaldunak dituzte, baina erdaraz aritzeko aztura hartua dute (Kasares, 2010).

Ikasleek beren artean ihardukitzen duten mintzairan gaitasunaz gainera bertze eragile batzuek jokutzen dute. Hizkuntza erabilera ez da eragilebakarra, eragileaniztuna baizik. Euskarak duen gizarte bizitasun ahulak haurren artean ezartzen den hizkuntza arauari eragiten dio; gizartean indarra duten hizkuntza balioek eskolan ere jokutzen dute. Ikastola dagoen inguruan dago eta tokiko inguruabar horiek irakaste-ikaste prozesua ukitzen dute. Iruñeko gizarte bizitzan agerikoak dira indarrean dauden hizkuntza gehiengoen eta gutxiengoen arteko erlazio eta dinamikak, *gehiengoak* eta *gutxiengoak* gizarte taldeen deskribapen kuantitatibo hutsak baino gehiago kontzeptu politikoak direla, hau da, gizartean mintzairak duten nagusitasunari edo ahultasunari dagozkionak.

Eskolaz kanpoko botere harremanek, gizarte balioek eta hizkuntzen egoerek ikastetxeko barne bizitza ukitzen dute nahitaez. Iruñean haurren arteko hizkuntza egokiera gaztelaniaren alde gertatzen ohi da. Lan honetan maiz aipatu dudanez, haurrak subjektu aktiboak dira eta hiztun bilakatzeko bidea inguruneak ezarritako baldintzetan eta ingurukoekiko elkarreaginean burutzen dute. Haurrak alde aurreko ezagutzak eta bizipenak dituztela iristen dira eskolara. Hizkuntzen gaineko ezagutzak (edo ezagutzarik eza), bizi-kizunak (edo bizikizunik eza), ideiak eta, oro har, beren historiak dakartzatela eskolatzen dira eta hor ikastetxeko hizkuntzei loturiko eskakizun batzuk ezartzen zaizkie: *barremanak*, hizkuntza gizartekoitasun edo soziabilitaterako (adinkideekin eta eskolako bertze kideekin hartu-emanak izateko) baliabidetzat dituztenak; *irudipenak*, hizkuntza eta sozializazioa estekatzen dituzten alderdiak (eskolan garatzen diren lotura afektiboak, talde partaidea...); eta *balio akademikoa*, hizkuntza eta ikaskuntza lotzen dituen (mintzaira, curriculumaz jabetzeko bitartekoa, ongi ezagutzeari dagokiona) (Carrasco, 2001).

Eskolan haurren hizkuntza ikaste eta erabiltze maila aztertu nahi izan delarik batetik bat azken alderdia, jabekuntza akademikoa, izan ohi da irizpide nagusia, ziur aski bertze bi alderdiak baino objektibagarriagoa eta teknikoki aztergarriagoa dirudielakoz. Hargatik, agerian da jabekuntza akademikoa hutsak ez duela komunikazio gaitasuna bermatzen eta, orobat, kultura aniztasuneko testuinguruetan harremanak eta irudipenak ikasleen eskola egokitzapenerako ez ezik haien identitaterako ere funtsezkoak direla (cf. Ogbu & Matute-Bianchi, 1993).

Ikasleen harremanetan eta irudipenetan euskarak lekurik ez badu, hurrek hizkuntza *ikasiko* dute, bai, baina bizipenez eta gizarte zentzuz gabetuta. Gabezia horrek hizkuntza sozializazioari eraginen dio ezinbestez, izan ere hizkuntzaz jabetzea elkarrekintza kontua izaten da jakintza baino gehiago: «Acquiring a language is often more a matter of interaction than information» (Williamson, 1991: 135).

Hizkuntzaz jabetzea eta hizkuntza bidezko sozializazioa prozesu beraren aurki-binperrak dira, alegia, neska-mutikoak gizarte testuinguru zehatz, esanahitsu eta afektiboetan —Weinreich (1979: 77-89) «total situations» deiturikoetan— bilakatzen

dira hiztun eta Ochsek eta Schieffelinek (1992: 307) nabarmendu dutenez, haurren mintzaira «... is constructed in socially appropriate and culturally meaningful ways». Egoera adierazgarri, esanguratsu eta askotariko horietan hiztunek jokatzeko dituzten rol osoetan hizkuntzaren dimentsioa alderdi bat gehiago baizik ez da, behin ere isolaturik agertzen ez dena, Bourdieuk (1989: 83, oin-oharra) ohartarazi bezala: «C'est sans doute ce qui fait le pouvoir d'évocation pratique de certains mots qui, étant liés à toute une posture corporelle, à une atmosphère affective, ressuscitent toute une vision du monde, tout un monde...».

Hizkuntzaz jabetzea kodea ezagutza soziokulturalean txertatzeko prozesutzat jo dute Ochsek eta Schieffelinek (1992: 307): «Our point will be that the process of acquiring language must be understood as the process of integrating code knowledge with sociocultural knowledge». Hiztun hasiberria bertze pertsonetikiko elkarrekintzetan jabetzen da hizkuntzak egoera emozionalak sorrarazteko, iradokitze eta hunkitze ko duen ahalmenaz, hots, haren gizarte esanahiez. Hainbat egileren iritziz egunerokotasuna, harreman hurbilak eta subjektibotasuna dira, hain zuzen ere, hiztunaren eta mintzairaren arteko atxikidurek sortzen dituzten bizipenik behinenak eta, azken finean, hizkuntzaren jarraipenaren harroina osatzen dutenak.

Fishmanek (1997: II) honela dio: «Language issues in society are usually fraught with emotions, values, ideals and loyalties and, as with most 'matters of the heart'...». Haren ustez, euskararen belaunez belauneko jarraipenaren erdigunea, sendotu beharrekoa honako hau izanen litzateke: «...the normal, daily, repetitive and intensively socializing and identity-forming functioning of home, family and neighborhood» (ibid., I62). Hizkuntzaren iraupena etxean, familian eta komunitate hurbilean funtsatzen du, bizi arlo horiek biltzen baitute «... the informal daily life of a speech community» (ibid., 93), eta ikasketa akademikoaz honela ohartarazten du: «A language which is not normatively operative throughout this intimate, affect-related and societally binding arena is not subsequently handed on as, or transmuted into, a mother tongue merely by virtue of the school's attention» (ibid., 373).

Behlingek (1996: 84) ikasleek okzitanieraren aldera duten motibazioan osagai afektiboek eta harremanek (famiarekikoek bereziki, baina baita eskolako maisu-maistra eta ikaskideekikoek ere) duten garrantzia nabarmendu du:

Pourtant le constat le plus significatif concernant les motivations est la prédominance de la dimension affective. Dans leurs commentaires spontanés les élèves ne parlent pas de la tradition, ni de racines, ces mots clés venant de l'imaginaire qui domine le discours du monde adulte. Les collégiens sont aussi beaucoup moins influencés par les motifs stratégiques (avantage scolaire) nettement prioritaires chez les lycéens. Pour les collégiens ce sont surtout les relations sentimentales qui sont importantes —l'attachement familial, le prof sympa— et la valeur des situations de convivialité —chanter avec les parents, les vacances chez les grand-parents, le voyage avec l'école.

Hernandezek (2007: 394) eguneroko xehetasun afektiboen *arkitekturari* oinarritu du Lasarte-Oriako euskararen transmisioa: «... la arquitectura de lo mínimo, de lo frágil, de lo soportado por un andamiaje de sentimientos y vivencias íntimas (...) la arquitectura más próxima a lo cotidiano, al día a día, la arquitectura que sustenta la amistad, el amor, la lealtad, el respeto».

Erizek (1997: 529) ere «eguneroko bizimodua hezurmamitzen» zuten hainbat harreman, ohitura eta gizarte-erakunde jo ditu Uitziko euskararen bizitzaren oinarritzat.

Halakotz, bistan da euskaraz eskolatutako haur iruindar gehienegunekoan euskararen bizipena etena izateak eta batzuetan ikasgelako zeregin akademikoetara mugaturik egoteak haurren hizkuntza sozializazioari bete-betean eragiten diola. Euskara neska-mutikoei eratzten dituzten harreman hurbiletatik eta parte hartzen duten jarduera gogokoetatik lekora egoteak ere ondorio bera du.

Izan ere, gizarte harreman guztiak dira ikasteko testuinguruak, eta hizkuntza ere hor ikasten da. Gizarte elkarrekintzarako ingurune askotarikorik ezean nola jabetuko da ikaslea mintzairaren hainbat baliabide adierazkorrez? Familian eta lagunartean aritzeko aukerarik gabe nola beretuko du haurrak hizkuntza?

Orain, euskararen bizipenen jarraitutasunik ezak Iruñerriko haurren hizkuntza sozializazioan duen ondorioa frogatzeko lekukotasun etnografikoetara joko dut.

6.3.5.2. Gaztaroko basamortua

«... zortzi urtetatik hemezortzira zulo handia dago»

Jon hogeita bost urte inguruko gaztea da, barañaindarra. Dindaia Fundazioan egiten du lan. Iruñean (Amaiur Ikastolan) ez ezik Zizur Nagusian, Barañainen, Sarrigurenen eta Burlatan ere aritzen da eskolaz kanpoko jardueretako monitore, D ereduko haur-gaztetxoei. Jon honela mintzo zait: hiru-lau urterekin haur iruñerriarrek euskara ikasten dute; sei-zortzi urterekin jabetzen dira «gaztelania *guay* dela» eta euskara baztertzen dute: «paso del euskera» diote, eskolarekin identifikatzen baitute, helduek eginarazten baitiete... Handitzean, hemezortzi urtez edo, batzuk euskarara bueltatzen dira, «nik horrela egin nuen», dio berak. Haren ustez zortzi urtetatik hemezortzira «... zulo handia dago»: estimulu ugari daude (telebista, Internet, harremanak...) eta euskarak horietan ez ohi du lekurik izaten (LK, 2012-I-3).

Bertze monitore batek ere aipatu zidan umeek koskortu ahala erdaraz gehiagotan egiteko joera izaten dutela: haur ttikiak, HHkoek, ikasgelatik at, jostalekuko jardueretan, zenbait aldiz euskaraz egiten dute baina handiangoek, LHko bigarren eta hirugarren ikasmailetakoei, behin ere ez (LK, 2012-2-28). Hala bada, adinkideekiko harremanen bidez euskara etxean ikasitako haur iruindarrek erdara indartzen dute, antza, eta gaztelaniaren gizarte balioaz jabetuta hizkuntza horretara egokitzen dira. Bertzalde, eskolan euskalduntzen diren umeek euskara ikasgelarako baizik ez dela barneratzen dute.

Nik neuk San Fermin Ikastolan egindako lanaldian haur-gaztetxo iruñerriarrei eskola kontuetara murriztutako euskararen bizipen hori antzeman ahal izan nien. Euskaraz bakanka baizik ez mintzatzeak (haurrak elkarrekin gaztelaniaz elekatzen dira, baita ikasgelan berean ere, gutiz gehienetan) duten gaitasunari eragiten dio zuzen-zuzenean eta, oro har, ahozko adierazkortasun eskasa du ondorio. Euskararekin duten harremana azaltzearen bi pasarte ekarriko ditut hona:

Batxilergoko lehen mailako ikasleei (16 urtekoei) —*rekin* kasu sozietiboaren erabileraz azaldu nien eta jakinarazi gaztelaniazko *con* guztiak ez direla kasu sozietiboaren bidez adierazten (adibidez, *con la mano* euskaraz ez dugula *eskuarekin* erraten). Hori adituta neskatikoei batzuk kezu agertu ziren nik erran bezala (hau da, erabiltzen ohi den

moduan eta gramatikalki zuzen) erranen balute lagunak harriturik begira geratuko litzazkiekeelako, beren artean inor ez baita horrela mintzatzen (LK, 2012-I0-6).

Gauza bertsua agitu zen DBHko lehen mailakoan (I2 urtekoen) ikasgelan. Mutiko batek *ez nabi dut* bota zuen, nik zuzendu eta *ez dut nabi* erraten dela azaldu nion. Berak ezetz erantzun zidan, beraiek *ez nabi dut* erraten dutela (LK, 2012-I0-6).

Aipatu lekukotasunak ez dakit noraino ulertu behar diren nerabegaroko erreakzioen barnean, edo hortik haratago Iruñerriko haur-gaztetxo horiek euskararekin duten harremanaren gainean adierazgarritzat har daitezkeen. Nire idurikotz, aipatutakoak gaztetxo horiek eskolak irakasten dien (eta gehienetan franko akademikoa den) euskararekiko beren burua nola kokatzen duten agertzen du nolabait. Eskaintzen zaien hizkuntza moldea ez dute beretzat ez eta beren arteko harremanetarako baliagarritzat ere jotzen. Izatekotz, berek moldatutako euskara hori litzateke berena, ez eskolan ematen zaiena.

Hiztun horiek hizkuntzaren *butsunean* —hainbat arlotan hizkuntza falta dutela— hazten dira: ez dute beren burua eskolan erabiltzen den euskara akademikoarekin identifikatzen, eta euskara herrikoa ere urruneko eta arrotz zaie¹⁵⁶. Adinkideen arteko elkarrekintzetan hizkuntza erabilerarako araua gaztelaniaz da; gaztetxoek elkarrekiko harremanetarako erdara jotzen dute baliagarritzat baina euskaraz aritu nahi badute *beren euskaraz* eginen dute, eta haien taldean *ez nabi dut* onartzen omen da. Euskara etxekoa duten haurrak ere maiz harreman eszentrikoetan ezartzen den arau horretara egokitzen dira, taldeko bat gehiago izan nahi dute, ez dute bereizi nahi. Horren aitzinean, guraso batzuek haur euskaldunek ikastolan «euskara desikasi» egiten dutela uste dute. Nik aldiz, jarrera horiek gaztetxo euskaldunek hazi diren inguru erdaldunean garatu dituzten *erresistentzia adierazpentzat* joko nituzke. Izan ere, zenbait testuingurutan hizkuntza araua haustea onartua, areago prestigio seinalea ere, izan daiteke (cf. Carrasco, 2001; Pujolar, 2008).

Euskararen bizipena ikasgelara mugatzen zaien haur horiek euskaraz bizi diren hiztun eta gizarte sareekin ez dute eskolaz kanpoko harreman estu eta usurik izaten. Halaz, eskolako hizkuntza araua hautsita eta mintzaira herrikoa arrotzat jota, zer bide geratzen zaie gaztetxo horiei bertze euskaldunekiko elkarrekintzetan parte hartzeko? Eta euskararen *butsune* horrek noraino bereizten ditu euskal hiztun komunitatetik?

Moreno Fernandezek (2009: 23-24) hizkuntzalaritzan *komunitate* kontzeptuak dituen eragozpenak gainditzearen *hizkuntza komunitatea* eta *hiztun komunitatea* bereiztea proposatu du. Lehena une historiko batean hizkuntza bat egiten duten hiztun guztiek osatuko lukete, bata bestearengandik hagitz urrun izanda ere. Bigarrena, hiztun komunitatea, honela definitu du aipatu autoreak: «Una comunidad de habla está formada por un conjunto de hablantes que comparten al menos una variedad lingüística, unas reglas de uso, una interpretación de ese uso, unas actitudes y una misma valoración de las formas lingüísticas» (ibid., 23). Hau da, hiztun komunitatea hiztunen arteko elkarrekintzetan oinarritzen da, hizkuntza erabiltzeko arauak eta horien gaineko ulerkerak, jarrera eta irizpen berberak dituztela. Kontzeptu horrek —dio egileak— ez du barne aniztasuna ukatzen, ez eta arrazoi desberdinengatik sor daitezkeen gatazkak ere, baina funts-funtsean hiztunen eta taldeen arteko adostasunean eta bateratzean zurkaizten da.

¹⁵⁶ DBHko I. mailako ikasleei bitxi zitzairen nire euskara nafarra eta egun batean mutiko batek honela erran zidan: «Es que tú hablas en vascorro» (LK, 2011-I0-6).

Martínez de Lunak (2004: I6-I7) Moreno Fernandezen bereizketa horri heldu dio egungo gazte euskaldunen hizkuntza gaitasunaz eta erabileraz jardutean: «... [gazteek] denek euskaraz badakite ere, ez dute *hiztun komunitatea* eratzeke beharrezkoak diren arau eta balio soziolinguistiko berdinek erabiliko, eta, horrela, eguneroko euskarazko komunikazioa ezinezkoa bihurtzen zaie: egoerak eskatzen dien hizkuntza aldaera eta horri dagozkion erabilera-arauak txukun erabiltzea ezinezkoa zaie».

Bereizketa hori, Iruñeko neska-mutikoen euskarazko bizipen etenak, ez jarraituak, kuantitatiboki ez nahikoak eta kualitatiboki ez askotarikoak (gehienetan eskolara mugatuak baizik) haurren hizkuntza sozializazioan duen ondorioa azaltzeko baliagarria zait. D ereduan eskolatutako haur iruindar gehienak euskarazko komunikazio elkarrekintza ohikoetan parte hartu ezinak eragiten dizkien adierazkortasun gabezia handia dutela jabetzen dira mintzairaz. Ondorioz, ez ohi dute euskara beretakotzen horretarako hizkuntzarekin harreman eta bizipen urriegiak dituztelako eta mintzairaren gainean nahiz beren buruaren gainean ere, hiztun gisa, irudipen egokiak ezin osa ditzaketelako.

Inguru soziolinguistiko erdaldunaren eragina nabaria da eta haurrak horrekiko bereziki eraginberak dira. Dena dela, euskarazko sozializazio eskasak ez ditu neska-mutiko euskaldun horiek betiko euskal hiztunen komunitatetik kanpo utziko. Ikerlan honetan subjektuen hautuen garrantzia eta hiztunen ibilbideen dinamikotasuna aipatu ditut behin eta berriz. Oraingoan ere horri helduko diot, familian eta ingurunean euskaraz sozializazio aski ez duten haur iruindarrek beren bidea egiten dute eta, nahi izanez gero, euskara atxiki eta mintzairarekin harreman berriak eratuko dituzte. Izan ere, hiztunek berek hizkuntzarekin zer lotura nahi duten hauta dezakete, «heldutasunak ematen die horren kontzientzia. Hau da, norberaren hautua» dio maistra batek (AA). Halaz, txikitari euskarazko sozializazio urria izandako gazteak «euskarara bueltatzea» erabaki ahal izanen dute, atalño honetan aipatu dudana Jon monitore gazteak aitortu bezala: «Nik horrela egin nuen» (LK, 2012-I-3).

Horrek haur iruindarren euskarazko sozializazioaren gaineko kezka bertze arlo batera darama: zertan dago inguru erdaldun(du)etan hazi diren eta batik bat eskolaren bidez euskaldundu diren gazte nafarrek euskara beretu nahi izatea? Galderak Soziologiaren (batik bat tradizio frantseseko soziologoaren [Rocher, 1995: II-14]) aspaldiko kezka izan den arazoa ukitzen du, hain justu ere gizartearen egituraketa edo, bertze modu batez erranda, maila mikrosoziologikoa (bizipen subjektiboarena) eta maila makrosoziologikoa (gizarte bizitza baldintzatzen duten eragingarri eta prozesu handiena) harremanetan jarri beharra.

Galdera hizkuntza portaeren eta identitateen dimentsio politikoari eta ekonomikoari doakie. Gizarte, politika eta ekonomia inguruabarrek norbanakoen hizkuntza elkarrekintzei dakarzkieten eraginen gainean eredurik osoenetako bat Soziologiak eman du, Bourdieuk (1989) hain zuzen ere. Soziologo frantsesaren kontzeptuekin formulatuta, Iruñeko haurren euskarazko sozializatorako gako nagusia honako hau izanen litzateke: gaur eta hemen euskarak Nafarroako *bizkuntza erabileren azokan* zer nolako *bizkuntza kapitala* da? Nola estekatzen dira identitateak eta arlo ekonomikoko nahiz sinbolikoko baliabideen eta boterearen ekoizpena, zirkulazioa eta banaketa? Hori argitzeak gure kasuan honako hau azaleratzea ekarriko luke, hiztunek beren bizitza eta harremanetarako zer dela-eta hautatzen duten euskaraz, erdaraz edo biez baliatzea, eta nola iristen diren hizkuntza bat edo bertzea beretakotzera eta beren umeak mintzaira

horretaz hazi nahi izatera. Hori da, nire ustez, euskararen jarraipenerako funtsezko galdera, euskarak duen gizarte balioari eta euskararen bidez era daitezkeen identitateei zuzen-zuzenean dagokiena.

7. EUSKARAREN JARRAIPENA ETA EGUNGO NAFARREN EUSKARAZKO SOZIALIZAZIOA DATUEN ARGITAN

Iruritako eta Iruñeko landa ikerketek Nafarroako euskararen historia hurbileko gizaldiz gizaldiko segida ulertzeko eta egungo nafarren euskarazko sozializazioa zertan den ezagutzeko funtsezko zenbait alderdi azaleratu dituzte. Aztergai dudan gertakaria aditzeko gakoak direlakoan, atal honetan ekarpen horietan sakonduko dut.

7.1. NAFARROAKO EUSKARAREN JARRAIPENA, URRADURAK ETA ESTEKADURAK HIZKUNTZAREN IRAUTEAN

Euskararen iraupena ez da prozesu lineala izan, hizkuntzaren gizaldiz gizaldiko jarraipena ez da etenik gabekoa izan. Nafarroako euskararen historia hurbilean mintzairaren segidan etenak eta berrestekamenduak, hausturak eta loturak ageri dira. Urradura eta jostura horiek hizkuntzaren historian bezala, biziguneeen artean, familietako belaunaldien artean bai eta hiztunen bizi ibilbideetan ere kausitzen dira.

Iruritako ikerketak darakutsanez, XX. mendearen lehen erdian hasitako euskararen ordezkapenaren bilakaerak 1970eko hamarraldirako herriko gizartea hautsia zuen. Alde batetik, herrigune erdaldundua eta basabazter arrunt euskalduna zeuden bata bertzearen aiekan; bertzetik, euskara baizik ez zekien adineko jendea eta euskara ulertu ere egiten ez zuten haurrak. Erdara hutsezko eskolak eta plazako giro erdaldunduak euskara etxekoa ez zuten haur karrikatarrak hizkuntza gutxituaz jabetzea guztiz ezinezko izatea eragiten zuten. Euskararen gizarte balio eskasak guraso euskaldun anitzi seme-alabak beren mintzairan hazteko adorea kendu zien eta, frankotan, umeei euskaraz egiten zieten aita-amek behin haurrak eskolatuz gero etxean ere erdaraz mintzatzen hasi zirelarik, hizkuntza nagusira etsi zuten eta seme-alabekin gaztelaniaz ihardukitzeari ekin zioten.

Iruritako historia hurrekoan euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipena eten zen eta 1970. urte aldera herriguneean sortutako gehienak erdaldun hazi ziren. 1980ko hamarkadan hizkuntzaren inguruko giro eta aukera berriek erdaraz sozializatu ziren gazteetako batzuk euskara (berr)ikasi ahal izatea ekarri zuten eta orain belaunaldi horrek bere umeak euskaldun hazten ditu. Egungo haur iruritarrek, hala Errekakoek nola Karrikakoek, euskara dute mintzaira arrunta. Iruritan hizkuntza gutxituaren gizarte berreskurapena gertatzen ari da mintzairaren segidan agitutako hausturak berriz uztar-

tu ahal izan direlako, alegia, euskara herriko bizigune desberdinetako herritarrak lotu eta belaunaldien jarraipena estekatzeko baliabide bilakatu delako.

Iruritan baino zenbait hamarkada lehenago —XIX. mendean— Iruñean ere euskararen gizarte jarraipena eten zen hiriko bizitzan gaztelaniaren beharra ezarrita. Halaz guztiz, euskara ondoko herrixka euskaldunetatik hiriburura biltzen zen hainbat jende xeheren ahotik entzuten jarraitzen zen hiriko karrketan harik eta XX. gizaldiaren erdialdean Gerra Zibilaren ondoko giro zapaltzaileak mintzaira gutxitua Iruñeko plazatik kasatu artio.

1960ko hamarraldian ikastolen eta gau-eskolen ekimenen bidez euskararen gizarte berreskurapena abiatu zen. Ondoko hamarkadetan helduen euskalduntzea eta euskarazko eskolatzea sendotu eta horri esker iruindar euskaldunak berretu ziren. Egun, euskara hiritarren gutxiengo baten hizkuntza da, baina gero eta gehiago dira umeak euskaldun hazten dituzten gurasoak eta, gutxi-asko, euskaraz ere sozializatzen diren haur-gaztetxoak. Halere, hiriburuko gizarte euskarak duen leku urriak eta mintzairarako dauden aukera-erakintza bakanek belaunaldi berriak hizkuntza gutxituan errotzea zailtzen dute.

Belaunaldien artean —gune geografikoen artean bezala— gertatu diren hausturak historian zehar euskararen jarraipenaren etenak Nafarroako gizartearen utzitako ondorioak dira. Euskararen gizarte berreskuratzek eta mintzairaren segida bermatzek arrakaladura horiek uzkalteak dakarte berekin.

Euskararen etena eta berrestekamendua familietan

Nafarroan gertatu den euskararen galera prozesuak eta abian den gizarte berreskurapenak familietan ondorioa izan du, eta hala Iruritan nola Iruñean azken berrogei urteotan sendi anitzen ahaideen arteko hizkuntza harremanak eraldatu dira.

Iruritan euskararen belaunez belauneko jarraipenaren etena berrestekatu ahal izan da eta egun haur gehienak familian euskaraz hazten dira. Iruñean aldiz, euskara sendi gutxi batzuetan baizik ez da gizaldi desberdinen arteko mintzaira arrunt bilakatu. Izan ere, euskararen gizarte berreskurapena abiatu zelarik aztertutako bi inguruneetan familia tipologia soziolinguistikoko desberdinak ziren nagusi.

Iruritaro Errekan familia euskaldunbeteak dira eta euskarak ez du belaunez belauneko etenik izan. Herrigunean aldiz, doi-doiatarik egin zuen sendietan euskara ez baitzen txoil lekutu. Oraingo aita-amen eta aitona-amonen artean etxean euskara ikasi ez zuten eta ez eskolan ez plazan euskaraz aski sozializatzeko aukera izan ez zuten hitzun franko daude (ikus Iruritaro familien glotohistoriogramak IO. eranskinean). 1980ko hamarraldian, euskararen gizarte aldaketa lagun, gazte batzuk euskara ikasten hasi ziren eta horrekin batera, mintzaira etxean sartzeko, gehienek guraso eta aitatxi-amaxiren bat euskaldun baitzuten. 2000. urtetik aitzina gazte horiek aitamatatu direlarik umeak euskaraz hazi dituzte.

Hala bada, Iruritaro Karrikako hainbat familietan euskararen gizaldiz gizaldiko segida berriz lotu da eta hori herrian nagusi den familia tipologiari esker gertatu da. Sendi horietan euskarak belaunaldien arteko hutsarteak bete eta ahaideen harremanak berruztatu ahal izan ditu, etxean gizaldi desberdinetako euskal hitzunak bazeudelako. 1970ean herriguneko familia gehienak euskaldun ez-osoak ziren, gurasoren bat eta aitatxi edo amaxiren bat (edo guztiak) euskaldunak zituzten, baina oro har, haurrak ez. Familia euskaldun ez-osoek belaunaldien arteko hizkuntza segidaren etena berriz lotzeko aukera eman dute, euskarak gizaldien arteko hutsarteak bete ahal izan

ditu. 1970eko hamarraldiaren bukaeratik euskara ikasi zuten gazteek edo ondoko hamarkadan eskolaren bidez euskaldundu zirenek hizkuntza etxean sartu ahal izan dute, euskara *etxekotu* eta horrek mintzairaren gizarte berreskurapena eta belaunez belauneko lotura uzkalteza ahalbidetu du. Euskara berriz etxean sartu den kasuetan, mintzairak familia euskaldun ez-osoan belaunaldien arteko elkarreraginetan hartu du leku. Hiruzpalau hamarkadetan, sendien kide helduak euskaldunduta eta kide berriak euskaraz hazita, familia euskaldun ez-osoak ziren batzuk euskaldunbete bilakatu dira.

Iruritako historia hurbilean euskararen galera prozesua iraultzeko gizarte aukerak sortu zirelarik, herrigunean familia euskaldun ez-osoak nagusi izateak euskararen belaunez belauneko jarraipen etena berrestekatzeari lagundu dio. Euskarazko eskolatzeari hasi zelarik euskarak —isilik baina— oraindik bizirik zirauen Karrikako sendi anitzetan eta horrek hizkuntzaren gizarte berreskurapena eta belaunez belauneko lotura uztartzea erraztu zuen. Euskararen aldeko giro aldaketa hori hiruzpalau hamarkada geroago gertatu izan balitz eskolaren bidez euskaldundutako haurrek ez zuketan etxean euskal hiztunik aurkituko eta familiako euskaldun bakarrak beraiek izanen ziratekeen. Hala izan balitz, gertatu den euskararen gizarte berreskurapena ez zatekeela agituko bistan da. Izan ere, familia euskaldunberrituak gehiengo direlarik, hau da, euskara batik bat hondar belaunaldiaren kontua delarik —inguru erdaldun(du)etan gertatzen ohi dena— euskararen berreskurapena zinez gaitzagoa da. Horren erakusgarri Iruñeko kasua dugu.

Iruñean 1970eko hamarraldian hiriko sendi gehienak erdaldunak ziren eta zeuden familia euskaldun ez-osoetako euskal hiztunak hirian erdaraz bizitzera jarrita zeuden. Euskararen aldeko giroa hasi zelarik, gaztetan euskaldundu ziren edo ikastoletan ikasi zuten gehienek etxean ez zuten euskaldunik eta ezin izan zuten euskara *etxekotu*. Egun ere euskaraz eskolatuta dauden neska-mutil anitzendako egoera halakoa da. Nahiz eta guraso bat bederen euskalduna duten haurrak gero eta gehiago izan, D ereduko ikasle gehienak familia euskaldunberrituetan hazi dira, alegia, aita-ama eta aita-txi-amatxi erdaldunak dituzte. Familiako euskaldun bakarrak izanda haur horiek ez dute aise eskolan ikasitako hizkuntza etxean erabiltzea, ez eta haurrideekin ihardukitzeko ere. Belaunaldien arteko elkarreraginetan lekurik ezin hartuta, euskarak ez du familia horietan (berr)errotzeko aukera handirik.

Euskararen gizarte egoera dinamikoan, erran nahi baita hizkuntzaren jarraipen, eten nahiz berreskurapen prozesu historikoan, familiak soziolinguistikoki eraldatu dira. Iruritako eta Iruñeko landa ikerketetan ikusi bezala, ego belaunaldiko kide gehien jatorrizko familiaren eta gero osatu dutenaren arteko bilakaera nabaria da, familia erdaldunak euskaldunberritu dira, euskaldunberrituak euskaldun ez-oso bilakatu eta horietako batzuk euskaldunbete bihurtu.

Euskararen segida familietako belaunaldien arteko harremanetan funtsatzen da. Gizaldien arteko hizkuntza lotura hausten delarik mintzairaren iraupena bera dago kolokan eta hala berean, euskararen jarraipena bermatzeak belaunaldien arteko hizkuntza atxikidura (berr)estekatzea dakar baitezpada.

Euskararen jarraipena, prozesu holistikoa eta soziohistorikoa

Euskararen bilakaera historikoan belaunaldi berrien hizkuntza sozializazioa prozesu holistikoa edo orohartzaila izan da. Izan ere, hizkuntzaren jarraipena gizatalde bateko kideek, hiztun berriak sozializatuz, mintzairari gizaldiz gizaldi iraunarazteko

baldintzarik aski dauzkatarik edo sortu dituztelarik gauzatzen da. Hori horrela, belaunaldi berriak euskaldun hazteko aukerak garaian garaiko eta tokian tokiko gizarte bizitzan euskarak izan duen egoerari loturik egon dira, hau da, eragingarri soziohistorikoen eraginpekoak izan dira, nahiz eta hiztunen hautu-erabakietan funtsatuta egon.

Hala bada, euskararen gizaldirik gizaldiko jarraipenean belaunaldi berriak euskaraz sozializatzeko aukera eta baldintzek etxea edo familia gainditzen dute, ez dira esparru horretara mugatzen. Aitzitik, euskarari irauarazteko saioak familiak soilik egiten dituztelarik mintzairaren segida arriskuan da. Ikerketa honetan landu ditudan kasuetan, familiaz landa auzoak edo hurbileko komunitateak haurrek mintzaira ikastea ziurtatu edo indartzen ez zutelarik hizkuntza gutxituaren sozializazio baldintzak larriki kaskailduta zeudela berretsi dut. Jakina denez, gizartearen bertze mintzaira bat nagusi bada familia huts-hutsa hizkuntza gutxituaren iraupena bermatzeko ez da aski izaten.

Halaz guztiz, hizkuntza transmisioaren gaineko ikusmolde ohikoak etxe-familia-
ra mugatzeko jaidura izan du. Gure artean ere aztergai honen gaineko ikerketa gehienek aita-amek umeei euskara irakatsi dietenez modu objektiboan neurtu eta datu horiek gurasoen hizkuntza gaitasunarekin edota bizitokiko ezaugarri soziolinguistikoekin gurutzatu bertzerik ez ohi dute egin. Orobat, hizkuntza transmisioan bereizi diren bi bideak, familia bidezkoa eta eskola bidezkoa, zein bere aldetik arakatu izan dira.

Nire idurikotz, haurrak hiztun bilakatzeko prozesuari eragiten dioten maila banatako alderdiak (makro eta mikrosoziolinguistikoak nahiz idiolinguistikoak) aintzat hartzen ez dituen, familiara mugatzen den edo hizkuntzaren transmisio informala eta formala bereizten dituen ikerbideak gertakari horri nekez erantzun diezaioke. Irurritako familien glotohistorietan azaldu bezala, ego belaunaldiaren haurzutuan euskara herrigunear hondar hatsetan zegoen baina hiztunen bizipenek iradoki dutenez, euskara ez zen galtzar egon soilik familia bidezko transmisioa eten zelakoz, euskara familiararen bidez bakarrik transmititzen ahal zelakoz baizik. Alegia, 1970-80ko hamarkadetan herriguneko familietan euskara galtzen ari zen, etxean gurasoek umeei egiten ez zitelakoz baino gehiago neska-mutikoei euskara ikasi eta erabiltzeko aukerak etxera mugatzen zitzaizkielakoz.

Karrikan euskara behetik beheitiago joanda, haurrek familian baizik ezin zuten mintzaira gutxituaz sozializatu gizartearen bertze ezein erakundek edo harremanek (eskolak, plazako giroak, haurren harreman eszentrikoek) ez baitzuen euskara bermatzen edo indartzen. Ego belaunaldiko ume iruritarren artean euskara etxekoa zutenek ez zuten mintzaira etxetik kanpo erabiltzeko aukerarik, eskolan eta plazako elkarrekintza orotan erdara baizik ez baitzen. Eskolak haur karrikakumeen hizkuntza portaerei eragin zien, eta neska-mutikoen sozializazio harreman eszentrikoak ez ezik, zenbaitetan belaunaldien arteko harremanak ere (gurasoekikoak bereziki) erdarara mintzaldarazi zituen.

Beraz, hiztun bilakatzeko prozesuak eragile asko ditu eta eraginek anitz norabide. Landa ikerketek iradoki dutenez, etxeko, eskolako nahiz plazako elkarrekintzak, hau da, familiako belaunaldien arteko harremanak nahiz haurren adinkideen arteko harreman eszentrikoak ez dira hizkuntza jarduera bereziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza sozializazioaren prozesu zabalagoan txertatzen dira, batera jokatzeko dute eta elkarreraginean daude.

Gurasoek hizkuntza transmititzeko edo ez transmititzeko gako, arrazoi nahiz aukera guztiak ez daude familiararen barnean. Familiatik atera eta hurbileko erkidegoari, gizarte sareei eta hizkuntzaren egoerari ohartzea baitezpadakoa da. Horren erakusgarri Irurritako kasua dugu; han euskararen galera prozesua eragile anitzetarikoa izan zen eta 1970eko hamarkadan familia euskaldunen ohiko hizkuntza portaerak —umeei euskaraz

ez egiteak— mintzairak etxetik kanpo zuen egoerarekin zerikusi estua zeukan. Ondoko hamarraldian euskararen gaineko diskurtso berriarekin eta, batez ere, 1980ko hamarkadaren bukaera aldera euskara eskolan sartzearekin batera, belaunaldi berrien euskarazko sozializazio aukerak moldatzen hasi ziren eta familian berean zeudenak azkartzen. Hau da, galera prozesuan euskararen gizarte erabilerarako aukera murriztak azkenean haurrak euskaraz sozializatu ezin izatea eta hizkuntza ongi ikastera ez iristea ekarri zuen bezala, euskararen gizarte egoera eta balioestea hobetu zirelarik eta batik bat hizkuntzak eskolan sarrera izan zuelarik, familiaren barneko euskararen erabilera (ber)piztu, transmisioa sendotu eta haurren euskarazko sozializazioa hainbat bidetatik bermatzen hasi zen.

Euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipenean belaunaldi berrien hizkuntza sozializazioa prozesu orohartzailerik da, eragingarri askotakoa, gizarte esparru eta maila desberdinetakoa, eta soziohistorikoa, garaian garaiko eta tokian tokiko gizalde baten baldintzei loturikoa. Hori horrela izanik, landa ikerketek erakutsi bezala, baldintza soziohistorikoak hobetzearekin bat euskararen belaunaldi berriaren jarraipenaren aukerak aldatzen dira eta, Iruritan gertatu moduan, haurren euskarazko sozializazioa sendotuta, mintzairaren galtze-joera iraul daiteke.

Halakotz, haurren euskarazko hazieraren gibelean familiaz gain komunitatearen eragile sozializatzaileak daude eta horien artean eskola agertzen da nabarmenen. Landa ikerlanetan azaldu bezala, eskolako mintzairak familia barneko erabilerari eta gurasoek haurren hizkuntza sozializazioaren aitzinean dituzten jarrerari eragiten die. Euskarazko irakaskuntzak belaunaldi berriak hizkuntza gutxituaz jabetu eta gutxi-asko mintzaira horretan gizarteratzeko aukera ekarri du, euskara karrikaratu eta zabaldu du, mintzairari prestigioa eman dio eta etxetan ere erabilera (ber)piztu du. Eskola ez da axolagabea ikasleen hizkuntza portaeren aldera. Eskolak kezka du ikasleen hizkuntza jokaerez, eta hala ikastetxearen barneko erabileraz nola kanpokoaz arduratzen da, bere arazotako hartzen du eta horri eragiteko asmoa izaten du. Eskola haurren hizkuntza jokaeren eragile aktiboa da eta, alde horretatik, haren jarduera sozializatzailea garbi dago. Euskaraz irakasteaz gain maisu-maistrek ikasleak euskaraz mintza daitezten heziketa berariazkoa egiten dute eta neska-mutikoak euskaldun haztearen alde aktiboki jokatzen. Berebat, irakasleek gurasoei eragin nahi izaten diete eta haurren etxeko hizkuntza sozializazioan ere nabaria ohi da haien itzala.

Iruritako kasuan eskolak euskararen jarraipenaren alde gertatutako aldaketari modu aktiboan eragin dio. Haurren euskarazko sozializazioaren gibelean ikastetxea dagoela ezin uka, neska-mutikoak euskaldun hazteko eragile sozializatzaile saiaturik da eta, garrantzitsuenak, ez du bakarrik jarduten, komunitatearen bertze erakundeekin batera baizik. Horrek bihurtzen du eskolaren jarduera eraginkorrago haurren euskarazko sozializazioan. Iruritan haurrak euskaldun hazte aldera hiztun taldearen eragin osoa dago, familia, elkarteena, erakundeena eta noski, eskolarena. Euskarazko eskolatzea orokortu zelarik helduen haurrekiko hizkuntza oharmena aldatu zen, belaunaldi berriei euskara esleitu zieten eta euskaraz egiten hasi zitzaizkien. Iruritan gertatu den txikiakiko hizkuntza portaeraren aldaketaren gibelean prozesu orohartzailerik hori dakusat.

Iruñean ere hainbat familian eta gizartean oro har, euskarak duen lekua neurri handi batean euskarazko irakaskuntzari zor zaio. Guraso euskaldun anitzek seme-alaben euskarazko hazibidea eskola lagun izatean zurkaizten dute, eta hori hain da horrela non Nafarroako hiriburua bezalako ingurune erdaldun(du)etan eskolarik gabeko euskararen gizarte berreskuratzea ezin pentsa bailiteke.

Iruritan eta Iruñean egun, nire ustez, ez legoke haurren euskarazko sozializazioa bermatzerik, eskolak hizkuntza hori irakasbide eta harremanbidetako ez baleuka. Ikusi bezala, euskarazko eskolarik gabe hizkuntza galbidean zen eta haren berreskurapenerako atea itxia. Euskarazko irakaskuntzak, ordea, belaunaldi berrien euskalduntzea ahalbidetu, mintzairaren berreskurapena abian paratu eta bere eragina familietara eta gizarte osora helarazi du.

Halaz guztiz, eskolak bakarrik ezin du hizkuntzaren gizarte egoera irauli. Iruritarren eta Iruñearen arteko aldea honetan datza, hain justu: lehenbizikoan, euskara berreskuratzek izan duen arrakasta haurren bizitzako arlo nagusiak (etxea, eskola eta plaza-aisialdia) euskaraz garatu ahal izateari zor zaio, hots, euskarazko sozializazioaren izaera orohartzailerari. Iruñean aldiz, haurren euskarazko gizarteratzeak hutsarte handiak ditu eta maiz neska-mutikoez mintzaira gutxituarekin duten bizipena ikasgelara mugatua da.

Mintzaira biziak dituen arlo gehienetara zabaltzearen garrantzia belaunaldi berriak euskaldun bilakatzeko prozesuan bezala helduen hizkuntza sozializatzeko berantiarretan ere ikusten da. Heldutan euskara ikasi eta beretu dutenek hizkuntza gutxituaren erabilera jardungune batzuetara zabaldu behar izan dute, harreman eta jarduera esparru desberdinetan gizarteratu. Berriemaileen glotobiografietan argiro ikusten da nola hituna joan den euskaraz gai bihurtuz, hizkuntzarako gune berriak irabaziz eta gune horiek estekatuz. Hizkuntza gutxituen arazoetako bat, hain zuzen, mintzairaren jardueren jarraitutasunik eza izaten da. Hau da, mintzaira ez da gizarte arlo guztietan ohikoa; aitzitik, oso gutxi edo bat ere ez du izaten bere. Prozesu horretan ego belaunaldiko hitunek berenganatu duten euskara bizitza jardueretara eta harremanetara eramanez dute eta, horren bidez, hizkuntzaren gizarte arloen zatikatzea edo langatzea gainditu eta mintzairaren bizipenak zabaldu dituzte.

Euskararen segidan helduak eta haurrak elkarreraginean

Umeen hizkuntza sozializazioa inguruabar soziohistorikoei loturik badago ere ez dakar subjektuen jokabide eredu finkorik, ez da prozesu mekanikoa ez eta oharkabea ere, hiztunen hautuek eratuak baizik. Gurasoen hizkuntza balioak eta portaerak haurren hizkuntza hazierarako funtsezkoak dira, baina ez eragile bakarrak.

Mintzairaren belaunez belauneko jarraipenak elkarrekintza du oinarri. Haurren hizkuntza sozializazioa prozesu elkarreragilea eta norabide anitzetakoa da, belaunaldien arteko harremanetan (goitik beheiti nahiz behetik goiti) eta belaunaldi berekoen arteko harreman eszentrikoetan (ezker-eskuinekoetan) ere mamitzen dena.

Haurrak anitzetan euskara biziberritzeko egitasmo eta esku hartzeko proiektuen objektuak izan dira, baina ez ikerketaren objektu(-subjektu) aztergai. Horrek euskararen jarraipenean umeak helduek transmititutako hizkuntzaren eta ideologiaren hartzaile pasibotzat hartu direla salatzen du, haurrak euskararen belaunez belauneko segidan hizkuntzaren jasotzaile hutsak baino gehiago eragile eta eraldatzaileak direla ohartu gabe.

Euskararen belaunez belauneko jarraipen-etenean gurasoak ez ezik haurrak ere eragileak izan dira eta, nire iruditan, euskararen gizarte bilakaeren eragiletzat hartu beharrekoak dira. Izan ere, haurrak ez dira balizko hizkuntza transmisio batean helduengandik letozkiekeen hizkuntza eragine jasotzaile pasiboak, helduen erabaki-hautuen eta irakaspenen hartzaile hutsak. Haurrek mintzaira *jaso* ez ezik *beretu* ere egiten dute, hartaz jabetzean.

Euskararen gizaldiz gizaldiko segida ez da beti aita-amek seme-alabei hizkuntza transmititzean gauzatu. Landa ikerlanetan aski argi azaldu bezala, hala hizkuntza galtzeko nola berreskuratzeko prozesuan haurrak eragile aktiboak izan dira. Euskara ordezkatzeko bilakaeran, konparazione, zenbait familia euskaldunetan erdararako hizkuntza aldaketa hurrek eragin zuten behetik goiti. Hau da, etxeko hizkuntza aldarazi dutenak ez dira beti gurasoak izan. Aitzitik, haurrak ere familiaren hizkuntza aldaketari eragin diote, mintzaira nagusiaren beharra gizartean duen balioespenaren logika osoz etxera sartuz eta zenbait aldiz sendiaren hizkuntza erabilera aldatuz. Haurrek hizkuntzaren gizarte egoerarekin bereziki eraginberak dirudite. Mintzaira batek familiaratik at, inguruneko gizarte harremanetan, zenbat eta indar handiagoa izan, orduan eta eragingarritasun handiagoz jokatzeko dute hurrek hizkuntza nagusia etxera eraman eta familiaren barneko elkarrekintzetan sartzeko.

Gaztelania familiara eraman eta etxeko elkarrekintzak erdarara aldatzeko prozesuan eragile izan ziren bezala, euskara etxekotzeko bidean ere hurrek aktiboki jokatu dute. Hizkuntzaren gizarte berreskuratzeari abian delarik eta horretarako gizataldean aukerak badirelarik (euskarazko eskola, adibidez), helduek batzuetan hurrekiko elkarrekintzak euskarari esleitzen dizkiote, eta haurrak tartean izate hutsak mintzaira gutxiaren erabilera handitzen du. Inoiz neska-mutikoek berek familian euskaraz egitea bultzatzen dute. Hola bada, euskararen belaunez belauneko jarraipenean gurasoak ez ezik haurrak ere eragileak dira.

Euskararen iraupenaren elkarreragiletasunak haurren harreman eszentrikoetara, familia gunetik kanpo belaunkideekin dituzten horietara begiratzea eskatzen du. Hiztun bilakatzeko bidean adinkideen arteko elkarrekintzek erabakigarriak dirudite. Horretan datza arakatutako inguruneen arteko desberdintasunik deigarrienetako bat, Iruritako hurrek elkarrekin euskaraz ihardukitzen dute; Iruñekoek aldiz, ez. Baztango herrian haurren artean dagoen hizkuntza erabileraren aztura hori etxeko hizkuntza erdara duten neska-mutikoak euskarara erakartzeko funtsezkoa da. Iruritan etxean erdaraz hazi diren haurrak taldearen erabilera ohituretara egokitzen dira eta adinkideekin euskaraz egiten ohi dute.

Hori horrela, familia hutsak haurren hizkuntza sozializazioan luzera duen eragina mugatua delakoan nago; haurtzarotik goiti batik bat neska-mutilen hizkuntza portaretan harreman eszentrikoak uste baino erabakigarriagoak dira.

Euskararen jarraipenaren gizarte ondorioa

Egun deus gutxi dakigu euskararen belaunez belauneko jarraipenaren etena berrestekatzeko gizatalde bati dakarkionaz. Izan ere, erkidego batean euskarak gizarte harremanak berrerratzearen ondorioak ez daude sakonki aztertutik.

Iruritako kasuan nik honela dakusat: euskara iruritarren arteko elkartasunaren balioarekin bete da eta egun iruritarra izateari lotua da, areago ere, iruritarra izateko bidea. Baztango herri honetan euskararen belaunez belauneko jarraipenak izan duen emaitza eta esanahi nagusia honela emanen nuke aditzera: azken hiruzpalau hamarkadetan euskararen jarraipenak euskararen belaunez belauneko etendura estekatzea eta herria osatzen duten guneen arteko haustura berriz jostea ekarri du. Irurita euskararen jarraipenaren bidez gizarte haustura batzuk gainditu dituen komunitatea da, euskararen ardaztuta zeuden dikotomiak hautsi dituen erkidegoa.

Iruritarrek garatu duten bizikidetzeta moldeak hizkuntza bereizkeria gaindituta erdietsi dutela dirudi. Herriak bere izaera euskarari atxikirik garatu nahi izan du. Halaz guztiz, bide hori ez da tentsio edo liskarrik gabeko prozesua izan, eta ez nuke gatazkarik gabeko gizalde baten irudi geza eman nahi.

Gure historia soziolinguistiko gertatu berria azaltzean herri batean euskararen gizarte berreskuratzeak komunitatearen bizikidetzarako ekarri dituen onurei hagitz bakanetan erreparatu zaie. Euskal Herrian —eta Nafarroan bereziki— diskurtso politiko-instituzional batzuk euskara gizarteratzeko saio oro gehiengo erdaldunarendako kaltegarri edo diskriminatzailetzat agertzen tematuta egon dira eta hainbat herritan hizkuntza historikoaren indarberritzeari esker gertatu den komunitate integrazioa ez da ikusi nahi izan; are gutxiago onartu eta aitortu.

7.2. NAFAR EUSKALDUNAK, ASKOTARIKO IBILBIDEAK EUSKARAREN ALDERA

Iruritako eta Iruñeko kasuen azterketetan agerian utzi dudanez, hiztunek euskararekin izandako historia ez ohi da lineala, ez eta zurruna ere. Pertsonak hizkuntzekin duten harremana —lehen mintzairarekin dutena ere bai— denborarekin alda daiteke, ez da mugiezina, beti-batekoa edo monolitikoa. Hitztunek hizkuntzak —lehenik ikasitakoa barne— ahaztu, galdu, berrikasi edo berreskuratu egin ditzakete.

Glotobiografietan bildutako kasuek pertsonak *ama hizkuntzarekin* ere izan dezaketen harreman gorabeheratsu eta mudakorra berretsi dute. Erraterako, egungo aitaxi-amatxi batzuek euskara gurasoengandik ikasi zuten, gazte-heldutan hizkuntza bazter utzi, seme-alabei erakutsi ez eta orain, aldiz, bilobekin erabiltzen dute.

Euskararekin eratutako harremanetan, are gaitasunean berean ere, etenak eta hutsarreak ager daitezke. Kinka horretan euskal hiztunen tipologia mailakatzea oso zail gertatzen den *continuum* batean agertzen da eta, subjektu batzuk, beren burua euskal edo erdal hiztunzat aitortzeko ez ezik euskaldun berri edo zahartzat sailkatzeko ere ezbaian egoten dira.

Euskararen jarraipen historikoaz jardutean aipatu ditudan belaualdien eta gueneen jarraipen-etenak hiztunen bizi-ibilbideetan ere kausitzen dira. Orobat, ingurune berean hizkuntza gaitasun eta bizipen hagitz desberdineko hiztunak daude, eta horrek hiztun taldeak, familiak barne, ez-homogeneoak izatea dakar.

Nire ustez, egun nafarrak lehen hizkuntzaren arabera (euskaldunak eta erdaldunak. Cf. Erize, 1997) aztertzea ez da bideragarria hiztunek euskararekin garatu duten harremana gehienetan gazte-heldutan eratu, berrerratu eta berretsi egin behar izan baitute. Euskal hiztunen ibilbidea ezin da ondoan izan duten erdaratik bereizirik ulertu eta euskarazko hizkuntza gaitasuna egoera baino gehiago prozesua da, pertsonen bizialdian aldatuz joan daitekeena eta zenbait kasutan egongaitz eta are aldakor ere agertzen dena. Izan ere, hiztunak ingurune zehatzetan bilakatzen dira hiztun. Iruritako eta Iruñeko euskaldunen arteko aldearen gibelean inguruabar desberdin horiek daude.

Ingurune erdaldun(du)etako egoera soziolinguistikoak bertako euskaldun jendea halakatu du. Erraterako, iruindarren artean euskaldunen *urritasunak* herritar franko euskaratik urrun, mintzairarekin batere harremanik izan gabe hazi direnak egotea dakar. Orobat, euskararen gizarte *abultasunak* euskal hiztunen gaitasunari eragiten dio eta anitzi euskarari eustea zail gertatzen zaie. Iruñeko euskararen urritasunaren eta gizarte ahultasunaren ondorioz, euskara atxikitzeko hiztunen *nabitasuna* ezinbestekoa da. Eskolan edo

euskaltegian ikasitako euskara atxikitzeo hiztunek nahikaria edo gogo-nahia behar izan dute baitezpada, Iruñean inguruneak euskararen beharrik ez baitakar, eta gehienetan hiztunek berek erabiltzeko aukerak sortu eta sustatu behar izaten baitituzte.

Iruritako eta Iruñeko glotobiografietan agertu bezala, zenbait hiztunek mintzaira ohikoaren aldaketa egin dute eta horrek seme-alabak hizkuntza aldetik hazteko moduari zuzen-zuzenean eragin dio (ikus glotobiogramak 9. eranskinean).

Ego belaunaldiko kideek euskarazko sozializazio berant eta jakinaren gainekoa egin dute eta horrek gero, umeak izan dituztelarik, haurrak euskaraz haztera eraman ditu. Badirudi seme-alabei zein hizkuntzatan egin erabakitzean subjektuaren lehen hizkuntza baino eraginkorragoa izan dela hiztunak eratu duen hizkuntza identitatea, hau da, zein hizkuntzarekin identifikatu nahi izan duen, zein hizkuntzari atxiki nahi izan dion bere burua.

Euskara beretakotu duten nafarrak

Iruñeko glotobiografiei narraia, hiriburuan hazitako nahiz ikasle garaian hiriburura bildutako ego belaunaldiko zenbait lagunek gaztetan euskara ikastea deliberatu zuten eta euskarari atxikitzea erabaki jakinaren gainekoa edo ohartuki hartua izan zen. Gehieni euskara ikasteo gogoaz gaztezutuan piztu eta adinkideengandik etorri zitzairen. Familian euskaldunen bat izan dutenek laguntza hori ikasten hasteko edota, behin ikasiz gero, ahai-deekin euskaraz egiteari ekiteko aipatzen dute. Gaztaroan euskaldundutakoek bezala, euskaraz eskolatu zirenek ere euskara atxikitzeo gogo-nahia behar izan dute hiriburuko egoera soziolinguistikoak ez baitzien euskararen erabilera nahikorik bermatzen.

Lekukotasunek darakutsaten moduan, ego belaunaldiko zenbait kidek euskara —lehen hizkuntza edo gero haurretan nahiz gaztetan ikasitakoa— beren bizitzako mintzaira nagusia izatea deliberatu dute eta erabaki horrek hurbileko harremanak, familia eta batez ere, bizilaguna ukitu ditu. Hitzun horietarik batzuek euskara familiaren historian eta oroipenetan zuten eta mintzaira beren egite hori sendiaren jatorrizko hizkuntzarekiko loturatzat hartu dute. Halakoetan hiztunak, euskarari atxikitzearekin, familiaren mintzaira izan zenari segida ematen dio eta jatorriarekin lotura egiten du. Bertze batzuetan, aldiz, euskara ez dago familia oroipenean eta mintzaira beretakotzean hitzuna gurasoen bidez jasotakotik urruntzen da edo horrekiko haustura egiten du. Nolanahi ere, hitzun guztiendako euskarari lotzeko bidea nahikaria izan da.

Euskarari, gogozko hizkuntzari atxikitzeak hitzun berriei mintzaira horretan aritzen hastea ekarri die. Ego belaunaldiko kide batzuek bigarren hizkuntzatzat ikasitakoa bizitzako mintzaira nagusi egin nahi izan dute, euskara harreman sareetan eta bizitzako hainbat arlotan sartuta. Euskaraz ihardukitzeko aukera urriak eskaintzen dizkien Iruñea erdaldunduan hiztunek mintzairarako guneak sortu nahi izan dituzte. Horrek euskara hautatzea erran nahi du eta prozesu horretan hizkuntza egunerokoa eta hurbileneko harremanetakoa bilakatzea. Euskaldun horiek euskara beretu dute eta horrekin batera, mintzairari loturiko identitate berria eratu. Prozesu hori gero, familia berrian, umeen hazieran euskarari eman dioten lekua ulertzeko esanguratsua da.

Bilakabide hori hala Iruritako (ikus 5.3.3.8 ataltxoa) nola Iruñeko (ikus 6.3.2.5) glotobiografietan kausitu dut. Hiztunek euskararekin eratu dituzten harreman horiek ulertze aldera hizkuntza subjektuaren identitatearen eratzailetzat hartzen duten teoria postestrukturalistez baliatu naiz. Izan ere, azken bi hamarkadetan hizkuntza eta identitatea aditzeko proposamen berriak ohiko paradigma estrukturalistatik hastandu dira.

Mintzaira kode edo sistematzat hartu beharrean hiztunak bere burua agertu eta inguruan kokatzeko baliabidetako jo dute. Orobat, identitatea alde zuzeneko ezarritako dagoen ezaugarria baino gehiago, denboran luzatzen den prozesua da, alegia, zerbaiten (bizipen, erabaki, jarduera baten) ondorioa.

Berriemaileen lekukotasunetan euskara testuinguru jakin batean subjektuek beren burua kokatu, agertu eta helburuak erdiesteko izan duten baliabidetzat agertu zait. Mintzaira horrela hartuta, horri loturiko identitatea ez da hiztunen ezaugarri estatikoa, denboran zehar luzatzen den prozesua baizik, gizarte bizitzaren joanean eta eguneroko elkarrekintzetan mamitzen dena.

Glotobiografien lekukotasunek irudikatzen duten hizkuntza identitatea hiztunak eratzeko deliberratu duena da, beretzeko gogo duena, bertzeen aitzinean agertzeko hautatua, inguruarekiko hartu-emanak izateko aukeratua eta harreman horiek eraldatzetik nahiz euskaraz egin nahi den bizitza jardueretatik sortua.

Hemen ageri zaiguna ez da esentzian edo aitzinetik emanak dauden ezaugarrietan oinarritutako identitatea, berezkoa edo hiztunari sortzez legokiokeena edo haren jatorriari eta familia jaraunspenari letzekiekeena. Aitzitik, euskara beretakotu duten nafar horiek eratu duten identitatea beraiek hautatua da, beraien bizi bilakabideen, aukeren eta nahikarien ondorioa eta beraien jardueretan funtsatua.

Hizkuntzak identitatearekiko duen loturaren izaeraz berriz hausnartu beharra dago. Atxikidura hori ez da berezkoa edo jatorrizkoa, ez da beti-batekoa. Hiztunak hizkuntzeekin eratzen dituen harremanak bizitza aurrera joan ahala gaitasun, motibazio, harreman sare, aukera eta halako aldagaien aldaketarekin batera eralda daitezke. Hiztuna hizkuntza berri batez jabe daiteke eta beretutako mintzaira berriari atxiki nahiago izan dezake. Orduan balizko esentzia bati ez dagokion identitatearen esparruan gaude, *beretutako identitate* edota *identitate performatiboen* arloan (Butler, 1990; Hernández, 2007).

Nire idurikotz, gurea bezalako inguru elebidun edo eleaniztunetan gertatzen da bereziki argigarri hiztunen identitate eratzearen prozesuei so egitea, norbanakoek ingurune heterogeneo horietan beren identitateak, aldakorrak izan daitezkeenak, nola berresten edo negoziatzen dituzten, nola (ber)eratzen eta (ber)definitzen.

Nafarroako euskararen historia hurbilean hiztunak mintzairarekin eratu duten harremanak eta horretan oinarritutako identitateak hizkuntzaren errealitatearen eragingarri eraldatzaile garrantzitsutzat jokatu dute eta umeen hizkuntza sozializazioari bete-betean eragin diote.

Hala, hizkuntza sozializazioa bizitzaren garai jakin bati ez badatxekio, hiztunaren eta hizkuntzaren arteko harremana sortzez ezarriarik ez badago, hiztunak mintzairarekin duen lotura egunerokoan eratzen eta berreratzen ahal badu eta bere mintzaira gaitasuna, atxikimendua, ideiak eta hautuak bizitza aurrera joan ahala motibazio, harreman sare, gizarte aukera nahiz bertze aldagairen baten aldaketarekin batera alda badaitezke, orduan *ama hizkuntza* kontzeptuak, euskal soziolinguistikaren harroinetako bat izan denak, zertarako balio digu?

Ama hizkuntza kontzeptua eta euskararen esentzialismoa

Iruitako eta Iruñeko landa ikerketek erakutsi dutenez, hiztunaren eta hizkuntzaren arteko harremana ez da inondik ere naturala, ez berezkoa, ez jatorriari zuzenean dariona ere. Hizkuntza kultura baliabidea da, hiztunak eskuratu eta beretzen ahal duena.

Hizkuntzaren transmisioaren azterketa molde ohikoan ikerketak haurtzarora mugatzen dira. Horregatik, ekarri dituzten ondorioetan lehen edo ama hizkuntza ardatz hartzen duten azalpenak daude. Hizkuntza sozializazioak, aldiz, hiztunaren bizialdi osoa hartzen du. Hori egitean hiztunek bizi-ibilbidean hizkuntzekin garatu dituzten harremanak azaleratzen dira eta atxikidura horiek —lehen edo ama hizkuntzarekin eratzen direnak barne— ez dira linealak, ez beti-batekoak¹⁵⁷.

Hori horrela, *ama hizkuntza* kontzeptua zentzuz gabetzen da edo, bederen, indarra galtzen du. Adigai horrek, hizkuntza ordezkatze eta berreskuratze prozesuetan partikularki, hiztunak mintzairarekin dituen harreman eta bilakaerez deus gutxi erraten du. Izan ere, ama edo lehen hizkuntza izateak ez dakar *per se* mintzaira hori hiztunaren bizitzan nagusia izatea, ez ohikoena edo usuena, ez eta maiteena edo nahiena ere edo hiztunak seme-alabekin solasteko hautatuko lukeena izatea. Ama hizkuntza ez da kontzeptu zehatza, ez eta eragingarria ere hiztunen bilakabidea aztertzeke.

Ama hizkuntza kontzeptua mintzairaren gainean garatu diren ideia esentzialisten artean sartuko nuke. Adigai hori hiztunaren eta hizkuntzaren arteko oso harreman berezian oinarritzen da, oso harreman *naturalean*. Kontzeptu horrek jatorria eta hizkuntza berdinkatzen ditu eta hiztunak horiekin dituen harremanak molde jakin batekoak behar dutela izan aurreikusten. Ama hizkuntza hiztunaren mintzaira berekia da, jaraunspenekoa eta logika horren arabera, hiztuna eta hizkuntza jatorriz lotuta daude, ama dela medio, zilbor-hestearen edo odolaren bidez uzkaldua baleude bezala. Ama hizkuntza metafora biologiko —ia hematologiko— horrek hiztuna eta hizkuntza uztartzen dituen atxikidura berezkozat ikustera garamatza. Horrela ikusita ama hizkuntza kontzeptua konstruktua ideologikotzat agertzen zaigu, hiztunaren eta mintzairaren arteko harreman zehatza aurreikusi eta lehenesten duelakoz.

Literatura sozioantropologikoan hiztuna eta ama hizkuntza lotzen dituen atxikidura berezi hori usu aipatu da. Weinreichen (1979: 76. Ikus 2.I.I ataltxo) iritziz, lehen hizkuntza definizioz, pertsonaren mintzaira *dominant* edo nagusia da, hobekien mintzatzen dena eta hiztunaren bizipen emozionalei lotuena (ibid., 77-78). Sánchez Carrionek (1981b: 131) ama hizkuntzari «lengua de la identidad» izatea esleitzen dio, «... la lengua en la que [hiztunak] analiza sus procesos mentales y afectivos». Fasoldek (1995: 293) Unescok ama mintzairaren gainean ezarritakoa biltzen du: «The Unesco Committee defined mother tongue as ‘the language which a person acquires in early years and which normally becomes his natural instrument of thought and communication’». Berebat, Fishmanek (1997: 7, 372) kultura identitate eta *gutasuna* eratzeke ama hizkuntza funtsezkozat jotzen du.

Aipamenek salbuespenetarako zirrikitu batzuk ere uzten dituzte. Erraterako, Weinreichek ohartarazi bezala «... many bilinguals exceed their mother-tongue proficiency in a second language under certain circumstances» (1979: 76) edo «... emotional involvements of later life (e.g. love affairs, friendships, patriotic attachment to a new country, etc.) are apt to produce conflicting or superiors bonds» (ibid., 78). Unescok honako hau argitu zuen: «... a mother tongue ‘need not be the language which his parents use; nor need it be the language he first learns to speak, since special

¹⁵⁷ Ikerlan honek horren zenbait adibide bildu ditu: 4. FGko Lola, 7. FGko Laura, 8. FGko M^a Luisa, 12. FGko Lidia eta 14. FGko Marcos txikitako euskara ia galtzera iritsi ziren eta horietako batzuek gaztetan berrikasi zuten; 17. FGko Joanak eta Gaizkak ama hizkuntza zuten errusiera ahantzi dute eta gaztelania beretu.

circumstances may cause him to abandon this language more or less completely at an early age'» (Fasold: 1995: 293). Sánchez Carrionek (1981b: I31) ere hiztun bakan batzuek hizkuntza identitatea alda dezaketela aipatzen du: «Puede haber, es cierto, en la vida de un individuo 'cambios de identidad lingüística': pero son excepcionalmente raros fuera de la edad en los que esta identidad no ha quedado fijada».

Hau da, soziolinguistek hiztunaren eta ama hizkuntzaren arteko harreman berezi eta *naturalari* eman diote lehentasuna eta aldiz, egon badaudela aitortuta ere, bigarren mintzaira batekin era daitezkeen harreman sakonetan ez dira barnatu izan. Dena dela, ama hizkuntza metaforari kritikoki begiratu diotenak eta haren ustezko berezitasuna lausotu dutenak ere badira (cf. Bernárdez, 2008: 259-267). Izan ere, pertsonaren hizkuntza jatorriak eta garatzen duen identitateak beti bat ez dutela egiten begi bistakoa da¹⁵⁸.

Baina natorren berriz harira: ikertzaileek Nafarroako euskararen irautea azaltzeko hiztunek ama hizkuntzarekin zuten atxikidura berezian funtsatu ohi dute argibidea. Horren erakusgarri, Sánchez Carrionen (1981a: 81-82) hitzok:

En la fijación del hombre¹⁵⁹ hacia su lengua hay más conciencia lingüística de lo que a primera vista parece. En los momentos decisivos de su vida escoge siempre el euskera, a pesar del profundo desamparo con el que el idioma materno se enfrenta a la incisiva lengua de poder. En esta situación el hombre vasco opta, una y otra vez, en circunstancias que han ido siendo cada vez más desfavorables, por una afirmación de su ser, de su izakera, por una profundización en sus propias raíces. En el hombre euskaldun se perpetúan tres vinculaciones que son atávicas; la madre (ama), la tierra (lurra) y la lengua (izkuntza) [sic]. La fijación a ellas es de contenido fundamentalmente emocional...

Erizeren (1997: 348-349) lerroalde hauek ere bide beretik doaz:

Uitziarrek euskaldun izaten segitzearen gakoa euskararekiko atxikimenduan dago (...) nondik zetorkien uitziarrei euskararenganako zaletasuna? Alegia, euskarak iraun du euskaldunek eutsi egin diotelako eta euskaldunek eutsi diote aldeko jarrera zutelako, aski motibazio izan dutelako, baina zergatik izan dute aldeko jarrera hori? (...)

Uitziarren jarreraren oinarriak ez ziren ideologikoak, bizipen sakonetan eta, aldi berean, behar praktikoetan sustraiturikoak baizik. Lehen hizkuntza euskara zuten eta hizkuntza horren gainean eraikitzen zuten euren izaera eta nortasuna. Orobat, euskaraz garatzen zuten pozgarria suertatzen zitzairen eta beren beharrak ongi asetzen zituen eguneroko bizimodua.

Hala bada, Nafarroako euskararen jarraipena sakonen aztertu duten bi egileek euskaldun jendeak (Sánchez Carrionendako gizonaek soilik) ama hizkuntzari izan dion atxikimendu *naturala* nabarmendu dute. Egiari zor, bai Txepetxek bai Erizek ikerketa Mendialdeko herririka euskaldunetara mugatu zuten eta han hiztun ia guztiek ama hizkuntza euskara zuten. Halaz guztiz, azalbide hori bere hutsean egungo errealitateari heltzeko guztiz ez-aski zaigulakoan nago.

¹⁵⁸ Ama hizkuntzaren logikatik hori *anomalía* ezohikoa da. Horren ikusbide, Gregorio Salvador (1983) Weinreichen (1979) *language loyalty* kontzeptuaren kontraketat definitu duen *deslealtad lingüística*z mintzatu da hiztun batek ama hizkuntza —gaztelania— beretokotu beharrean bertze bat beretu duen kasuetan.

¹⁵⁹ Paragrafo honetan Sánchez Carrionek *hombre* dioelarik *gizonezko* adiera hertsian hartu behar da.

Azken hiruzpalau hamarkadetan abiatu den euskararen indarberritzean *euskaldun berrien* gertakariaren garrantzia inork auzitan jartzen ez badu ere, hiztunek beretakotu duten mintzaira berriarekin eratu dituzten atxikidurak arakatu eta horiek euskararen ondorengoenganatzeari nola eragin dioten ez da ikerlanen aztergaia izan arrunki, eta horretaz oraindik deus gutxi dakigu.

Ikerketa honek horri so egin dio eta, nire idurikotz, horretan datza gurasoek umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean duten jokaeraren funtsa. Hala Irurritako nola Iruñeko ego belaunaldiko kide batzuek haurretan euskararekin izan ez zuten harremana gaztezutuan eratu zuten, euskarari atxiki zitzaizkion hala nahi izan zutelakoz eta hizkuntza beren bizitza eta harremanetan gutxi-asko sartu eta beretu zuten. Lagun horiek beren lehen mintzaira ez zen batekin eratutako harremanek hartu zuten indarra, eta hiztunek euskarari lotutako hizkuntza identitatea berenganatu zuten. Euskarazko sozializazio berant eta jakinaren gaineko horrek ekarri die gero, umeak izan dituztelarik, seme-alabak euskaraz hazteko erabakia. Dirudienez, seme-alabei zein hizkuntzatan egin erabakitzean subjektu horien lehen mintzaira baino eraginkorragoa hizkuntza berriaren gainean eratu duten identitatea da, beren burua zein mintzairarekin identifikatu nahi izan duten edo zein hizkuntzari atxiki nahi izan dioten, alegia.

Nire ustez, euskararen belaunez belauneko jarraipenaren gakoak ama hizkuntzari lotutako atxikiduretan oinarritzen diren orain artioko azalpenetan ez ezik, hiztunek haur-gaztetxotan nahiz heldutan beretutako euskararekin eratu dituzten harremanetan ere bilatu behar ditugu baitezpada.

Horrek hiztunen eta euskararen arteko harremanak nahiz Nafarroako gizartean mintzairari aitortu zaion lekua birpentsatzera narama. Hizkuntza esentziazat, hau da, ezaugarri berezkotzat eta ondorioz, jatorri zehatz bati lotuzat hartzea neurri batean hizkuntza ororekin gertatzen bada ere, euskara bezalako hizkuntza ez hegemonikoekin edo estatu hizkuntza ez direnekin modu berezian agitzen da. Mintzaira gutxituen zilegitasuna *benetakotasun* ezaugarriari eta tokikoa izateari atxikirik joan da; hizkuntza nagusia aldiz, *anonimatuari* loturik, tokiz eta are nazioz gaindiko mintzairak izaten baitira, publikoak, komunak, kosmopolitak edota globalak eta, horregatik neutroak eta anonimoak (Woolard, 2007).

Benetakotasunaren diskurtsoak euskara bezalako hizkuntza gutxituak etnohizkuntzatako agertzen ditu, etnomarka bat balira bezala, jatorri jakin bati atxikiak, gehienetan etorki horretakoendako soilik interesgarri gerta daitezkeenak eta batzuetan, horiek soilik ongi hitz egin dezaketenak. Euskararen benetakotasunaren ikusmoldea eraginkorra izan da eta horren ikusbide *euskaldun berria* eta *euskaldun zaharra* kontzeptuek ematen dute. Gure artean adigai horiek bi hiztun mota bereizteko erabili izan dira, eta, bietan, euskaldun zaharraren jatorriasuna goraiatzeko jaidura izan da.

Nafarroako euskararen gizarte bilakaera azaltzearen hizkuntzaren geografia historikoa osatzeko joera izan da (ikus 2.2.I.2 ataltxoa). Arturo Campionek sortutako tradizio horrek euskaraz mintzatu izan den eremuaren hedapena aldi-aldi nola murriztu den azaltzea zuen helburu. Horrek euskararen gizarte historia geolinguistikaren moldeetan irudikatzea ekarri du: marrak, mugak, eremuak... Nire irudituan, euskararen geografia historikoaren tradizioak Nafarroako euskararen oharrenari zuzenean eragin dio eta mintzairaren *berezko* eremua jatorrizko hiztunena dela pentsatzeko bide eman du. Ikerketa honetan garatuko ez dudan hipotesiak tradizio horren egungo ondorio nabarmenetako bat Euskarari buruzko Foru Legeak ezarritako eremukatzea

bera dela iradokitzen du. Nafarroan euskara eremu bati lotu zaio eta horrekin batera, eremu horretan jatorria duten hiztunei.

Woolardek (2007: 3) *benetakotasun* eta *anonimatu* diskurtsoen oinarri ideologiko bera, hizkuntza naturalismoa, utzi du agerian: «Ambas naturalizan una relación entre la forma lingüística y un estado de la sociedad. Las dos ideologías niegan la agencia de los hablantes (...). Niegan que la lengua se construya históricamente, que se cree mediante la acción humana». Euskararen gaineko ikuskera naturalizatuak ez dio Nafarroako herritarrek euskararekin eratzen dituzten harreman askotarikoei erreparatzen, areago, batzuetan ikusi ere ez ditu egiten¹⁶⁰. Orobat, ideia esentziazale horiek euskarari gizartean toki zehatza egokitzen diote, jatorri eta eremu bati loturik, eta horrekin bat egiten duen hizkuntza politika bultzatzen dute, mintzaira pertsonen berezko ezaugarritzat edo toki batzuen ondare berekitzat hartzean oinarritzen dena eta nafarrak ama hizkuntzaren araberako taldeetan bereiziz, batzuei eta bertzei *berezko* hizkuntza eskubide desberdinak aitortu behar zaizkiela planteatzera iritsi dena¹⁶¹.

Ama-hizkuntza metafora biologikoak hizkuntzaren eta hiztunaren arteko harremana molde batera pentsatzera garamatza eta, nire ustez, egun hiztunek hizkuntzekin dituzten harremanak ulertzen ez digu laguntzen. Nafarrek txikitako euskarari eutsi diezaiokete eta euskaldun bizi, edo ingurune erdaldundu batean denbora luze emateagatik euskaraz egiteko gaitasuna kamuts dakieke; bertze batzuek euskara eskolan ikasi dute eta beren harremanetan sartu eta erabileraren erabiliaz hizkuntza beretu. Hiztunek euskararekin nahi duten atxikidura eratzen dute eta egun harreman horiek ezin dira jatorriari loturik edo eremuen arabera azaldu.

Hizkuntza gizon-emakumeen baliabidea da, *eskuratzen* den zerbait, ez soilik *berez jaso*a. Euskararen gaineko esentzialismoak hiztunak ez ditu hizkuntzaren subjektutzat hartzen, ez ditu haien hautuak eta gogo-nahiak aitortzen eta azken finean, Nafarroako euskara nafarrek beren jardueren bidez historian zehar eratutako gizarte gertakaria dela ukatzen du.

¹⁶⁰ Adibidez, oroitu 6.3.3 ataltxoan aipaturiko epaia, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 1994ko azaroan emandakoa. Horretan Ignacio Merino Zalba epaile-txostengileak Iruñean jatorrizko euskaldunik ez zegoela, «... con ningún vasco parlante de origen en la ciudad», erranda arrazoitu zuen Iruñeko Komunikabideak SA-k Euskalerrria Irratiaren lizentziaren auzian jarritako berraztertzeke helegitea ez onartzeko arrazoibidea.

¹⁶¹ Horren ikusgarri, Aurelio Arteta Euskal Herriko Unibertsitateko Etika eta Politika Filosofia katedradun nafarrak prentsa artikulua honetan dioena: «... los derechos lingüísticos del ciudadano son muy distintos. Ya sabemos que esos derechos no pertenecen a los territorios, sino a los individuos, pero a los individuos en tanto que miembros de una comunidad de hablantes asentada en un territorio definido. En ese territorio, ¿acaso la lengua materna u ordinaria y una lengua elegida (por motivos mercantiles, literarios, políticos, afectivos) engendran los mismos derechos civiles? En modo alguno. Así que de un lado está el hablante del vascoence como su lengua propia y de uso en donde habita, y del otro quien la conoce y el aspirante a aprenderla como su segunda o tercera lengua en un lugar donde no es común. El primero ostenta un derecho fundamental a mantener relaciones con los poderes públicos y a ser educado en su lengua materna y cotidiana; el suyo es un derecho de prestación, porque obliga a la Administración a satisfacerlo. El segundo, en cambio, no goza de este derecho; disfruta, desde luego, de la libertad de estudiar o hablar esa lengua u otra cualquiera, pero no del derecho a que los servicios públicos le atiendan en ella y sufragan su aprendizaje con fondos públicos. A este último nadie le priva de aquel primer derecho, simplemente carece de él; no es la ley o el Gobierno, sino su propia realidad lingüística, la que le discrimina» (Aurelio Arteta. *Diario de Navarra*, 2000ko maiatzaren 17ko alea, 28. or.).

Gurasoak umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean

Aztertutako familien glotohistoriek darakutsatenez, seme-alabekin solasteko euskara hautatu duten guraso guztiak erdaraz ere badakite eta gainera gehienendako mintzaira hori da lehen hizkuntza, errazen eta batzuek maizen ere egiten dutena.

Glotobiografie jarraikiz, umeei euskaraz egiteko erabakian batik bat hiztunen mintzaira balioek eta atxikidurek jokatu dute. Izan ere, aita-ama batzuek beren jardue-
ra sozializatzailea gazte-heldutan beretu zuten euskaran zurkaiztu dute.

Hainbat kasutan (ikus Iruritan kasuak 5.3.4 atalxoan eta Iruñekoak 6.3.3an) lehen umea izateak edo izateko aukera hutsak bizikideen arteko hizkuntza ohituretan eragina izan du. Guraso bihurtzeak ego belaunaldiko zenbait gurasori hizkuntza jokae-
retan jakinaren gaineko aldaketa ekarri die. Alde horretatik, familia berria osatzeak nolabaiteko *katalizatzailetako* jokatzeko du, aita-amak umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean jarrerak hartzeko eta hautuak egiteko kinkan paratzen baititu.

Euskararekin eratu duten harremanetan zenbait hiztunendako lehen haurra izatea mugarrria izan da eta seme-alaben hizkuntza sozializazioari doazkion hautuak hagitz ohartuki egin dituzte. Erraterako, bai Iruritan bai Iruñean zenbait bikotek harreman hizkuntza erdaratik euskarara aldatu dute nahita, seme-alabak familian euskaldun haztearren. Erabaki hori hiztun gehienendako ez da egiteko samurra izan erdarazko ohi-
tura eta erraztasun handiagoak direla eta.

Umeekin hasieratik euskaraz ihardukitzea aldiz, badirudi aita-ama horiei ez zaiela ha-
gitz zail gertatu. Izan ere, aita-amek seme-alabekin harremana berritik eratzen dute eta ho-
riekin euskaraz egiteko hautua ez dago lehenagoko ezein hizkuntza azturari estuki loturik.

Umeak euskaldun haztea ez da aita-amen hizkuntza-gaitasun kontua soilik. Euskararen historia hurbilean arakatzekoak hiztunen gogo-nahiak ezagutza hutsak baino
gehiago egin duela iradokitzen du. Halaz, guraso euskaldunen hizkuntza gaitasun er-
latiboari faktore aipagarria deritzot baina, euskaraz eroso aritzeak alde aurreko bal-
dintza baino gehiago mintzaira eguneroko bizitzan erabiltzearen ondorioa dirudi. Izan
ere, hiztunek hizkuntzarekin duten harremana —gaitasuna bera barne— prozesua da,
ez alde aurreko baldintza, eta seme-alaben hizkuntza sozializazioan jokatzeko duen
aldagai dinamikotzat hartu beharrekoa.

Haurren euskarazko sozializazioa ohartuki egindako eta, anitz aldiz, planifikatutako
ekintza sozializatzailearen jomuga da, inola ere ez prozesu oharkabea. Familian euskaldun
hazten diren haur nafarren gibelean gurasoen hizkuntza atxikimendu eta balioak daude,
jarrerak eta jokamoldeak, isilean adostutakoak nahiz ohartuki deliberatutakoak, umeen
hazieraren gainean egindako hautuak eta hartutako erabakiak. Umeak euskaldun hazi nahi
dituzten aita-amek haurrak euskaraz ari daitezen ekintza sozializatzaile berariazkoa egiten
dute eta horretarako, etxean hizkuntza portaera finkoak ezarri ohi dituzte.

Gurasoen hizkuntza balioak eta portaerak funtsezkoak dira. Iruritan ingurune-
ko harremanek eta herriko bizitzak berak gurasoen euskarazko sozializazio ekintza osa-
tzen eta sendotzen dute. Familia horiek jarduera sozializatzailean erkidegoaren bertze
bide gizarteratzaileak alde dituzte. Iruñean aldiz, familian euskaldun hazten diren hau-
rrek hurbileko harremanetan (gehienetan familia zabalean berean, aitona-amonekin
adibidez) jabetzen dira erdaraz eta mintzaira horren nagusitasunaz. Ingurune erdal-
dundu horretan euskaraz bizi eta umeak euskaldun hazi nahi dituzten familiek hau-
tu-erabaki anitz hartu behar izaten dituzte haurrek etxean, eskolatu baino lehen, esko-

lan bertan eta eskolaz kanpo izanen duten hizkuntza sozializazioari lotuak, eta hurbileko erkidegoak ez die eskolaz gain euskarazko eskaintza eta aukera anitz ematen.

Euskararen egoera makrosoziolinguistikoa eta inguruneko baldintzek aita-amen hizkuntza portaeretan duten eragina bitariko bikoteen familietan agertzen da nabarmenen. Guraso bakarra euskalduna duten sendiek etxez kanpo euskarak duen egoerarekin bereziki eraginberak dirudite. Iruritan halako familietan umeek euskara eta erdara, biak dituzte gutxi-asko etxeko hizkuntza. Iruñean, aldiz, euskarak halako familien eguneroko bizitzan ez ohi du toki handirik izaten. Nafarroako hiriburua bezalako inguru erdaldunduetako bitariko bikoteen sendietan umeak etxean euskaldun hazteko aukerak guraso euskaldunaren hizkuntza portaera, atxikimendu eta erabakimenari guztiz loturik daude.

Euskaraz egiten ez duten gurasoen kasuetan eskolak berebiziko garrantzia du. Iruritan gutxi dira halako familiak eta haien umeak herrian euskaraz eskolatuta adinkideekin mintzaira horretan aritzen ohi dira. Iruñean ordea, halako sendiak gehien-gehienak dira eta D erdua hautatzen dutenen artean erdia inguru. Euskaraz ez dakiten gurasoek haurrak euskaldun hazi nahia eskolan zurkaizten dute eta etxe horietako umeak izaten dira eskolan ikasitako hizkuntza etxeratu eta gurasoei euskararekiko motibazio berriak pizten dizkietenak, mintzaira (berr)ikasten hasteko edo erabiltzeari ekiteko.

Dirudenez, euskararen gizarte erabilera zenbat eta txikiago edo ahulagoa izan orduan eta erabakigarriagoak dira gurasoek haurren hizkuntza sozializazioaren aitzinean dituzten balio eta jokaerak. Iruñea bezalako ingurune erdaldundu batean neska-mutikoen eskolaz kanpo euskaraz aditu eta aritzeko dituzten aukerak, hein handi batean, aita-amen jarrerari loturik daude.

Hori horrela, hizkuntzen jarraipen(-eten)aren ikerketan erabili izan diren jardunguneen araberrako azterketa ereduak, batik bat *diglossia* eta *domain* kontzeptuen gainean eraturakoak duten muga agerian gelditzen da. Izan ere, adigai horiek mintzairaren erabilerrako gizarte arauak egiten diete, hiztunek errealitatearen aitzinean beren burua nola kokatzen duten eta errealitate hori aldatzeko egiten dituzten saio eta ahaleginei erreparatu gabe. Ikerketa honetan gurasoek umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean dituzten jarrera eta jokaerak agertu zaizkit, hain justu, euskararen gizarte egoeraren eraldatzaile nagusietakoen artean.

Iruñerrian Baztanen bezala euskararen jarraipenari bide eman dion gakoak egoelaunaldiaren jokaeran dakusat. Euskara txikitatik dakiten gurasoek umeak euskaraz hazten dituzte eta ikastoletan nahiz gaztetan euskaldundutako anitz ere euskararekiko atxikimendu handiz jokatzen ari dira neska-mutikoen hazibidean. Jokamolde horrek Nafarroako familia anitzetan haurren hizkuntza sozializazioaren moldea aldatzea ekarri du.

7.3. EUSKALDUN HAZI NAFARROAN, EUSKARAZ SOZIALIZATZEKO AUKERAK ETA BALDINTZAK

Oro har, hizkuntzaren belaunetz belauneko segida ahulduta edo ia etenda egonda mintzairaren segida berrestekatzea erdietsi duten kasu gutxi aztertu dira. Ikerketa honen prozesu hori aztertu du hain zuzen, eta garbi ondorioztatu azken lau hamarkadetakako Nafarroako euskararen gizarte bilakaera ezin dugula azaldu haurrak euskaldun hazteko familien jokamolde ereduak eta aukerak aldatu direla aintzat hartu gabe.

Hizkuntza baten belaunetz belauneko etenaren gain-azpiak sakon miatzeak jarraipena berruztartzeko eta mintzaira indarberritzeko prozesuari ekiteko giltzak azalera

ditzakeela erran izan da maiz¹⁶². Halaz guztiz, nire irudituan, hizkuntza familietatik kasatzea eta mintzaira (berriz) etxekotzea ez dira gertakari beraren bi noranzkoak, bi bilakaera aski bertzelakoak baizik, batean zein bertzean motibazio nahiz eragingarri desberdinek jokatzen dutela. Euskararen indarberritzea ez da gibelatze prozesuaren uzkaillte hutsa eta hori argitzeko gure historia hurbilera jo bertzerik ez dugu. XX. mendearen lehen hiru laurdenetan euskararen belaunez belauneko jarraipenaren etenak hainbat hiztunen bizitzetan, batzuetan belaunaldi oso batean, familietan eta are herrietan ere hizkuntzaren galera ekarri zuen, euskararen ordezkapena. Aldiz, hondar hamarraldietan euskara sendietan eta gizaldien arteko jokoan (berriz) sartzeak ez du hiztunek erdara galtzea ekarri, mintzaira batek ez du bertzea ordezkatu eta hala izanen dela pentsatzeko inolako elementurik ez dago. Egungo kinkak euskaldun jendeak erdara(k) jakinda baizik ezin izanen diola euskarari eutsi pentsarazten dit.

Hala bada, euskara atxiki eta berreskuratzeak bertze hizkuntza bat(tzuk) jakitea edo ikastea bermatu behar du. Gurean ukipenean dauden mintzairen arteko gizarte eta estatus asimetria larriaren seinalea da hori eta Nafarroako euskararen jarraipena tesuinguru horretan kokatu behar dugu baitezpada.

Egun euskararen indarberritzeak dituen inguruabar berekiak aipaturik, galdegin dezagun burututako landa ikerlanetatik zer ondoriozta daitekeen orain eta hemen, Nafarroan, belaunaldi berriak euskaldun hazteko aukerez eta baldintzez, eta bereziki, ikertutako kasu arrakastatsuak argi egin diezaiekeenetz euskararen belaunez belauneko jarraipenaren etena berrestekatu ezinean dauden hainbat erkidegori.

Iruritako kasuak euskararen etenaren *itzulgarritasuna* egingarria dela erakutsi du. Iruritako belaunaldi berriak, oro har, euskaldun hazten ari dira eta horrek ez dirudi Nafarroako Mendialde euskalduneko herrien artean salbuespena denik. Baztango herri gehienetatik jasotako lekukotasunek haurren euskarazko haziera berresten dute. Bertze zenbait udalerritan —Leitzaldean konparazione (Anaut, 2010)— bildutako informazioak ere hori sendetsi du.

7.1 ataltxoan xeheki azaldu bezala, belaunaldi berriak euskaldun hazteko prozesua *orobartzaila* da. Gure historia hurbilean haurren euskarazko sozializazioa ukitzen duten eragingarriak askotarikoak dira, batera eta elkarreraginean jokatzen dute eta baldintza soziohistorikoei loturik baitaude, haien artean hierarkia ezartzea zaila da. Hiru eragingarri maila bereizi ditut: a) gurasoen alderdi idiolinguistikoak (gurasoen hizkuntza gaitasuna, balioak eta portaerak, zaintza estrategiak eta kontzientzia kritikoa); b) ingurune mikrosoziolinguistikoa edo haurren hurbileko gizarte harreman-sareak, ingurune eragin sozializatzaileak (famiaren hizkuntza elkarbizitza, eskola, eskolaz kanpoko jarduerak, auzoa, herria eta haurren harreman eszentrikoak oro har); c) hizkuntzaren egoera makrosoziolinguistikoa (hizkuntzaren gaineko gizarte irudiak eta diskurtsoak, lege estatusa, hizkuntza politika, hedabide nagusiak...).

Hiru mailetako eragingarrien arteko harremanek, egun, duela lau hamarkada baino anitzez konplexuagoak dirudite. Haurren hizkuntza sozializazioari eragiten dioten alderdiek Iruritan eta Iruñean nola jokatzen duten ikusiko dugu. 7.2 atalñoan gurasoek umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean dituzten jarrera eta portaerak landu baiti-

¹⁶² «... si coneixem els mecanismes socials que han provocat la interrupció, podem actuar amb els mateixos ressorts amb l'objectiu de transformar la situació i possibilitar així la revernacularització» (Mas & Montoya, 2011: 102).

tut, honetan inguruabar mikrosoziolinguistikoei eta makrosoziolinguistikoei, hurrenez hurren, helduko diet.

Haur nafarren aukerak euskaraz hazteko

Aztertutako bi inguruneetan haurren hurbileko harreman-sareak eta komunikazio egoerak hagitz desberdinak dira eta horrek Iruritan eta Iruñean haurrek euskaldun hazteko dituzten aukerei zuzenean eragiten die.

Iruritan azken bizpahiru hamarkadetan familia euskaldun ez-osoak zirenen belau-naldien arteko euskararen erabilera sendotu da eta haur gehienak (lagineko hamar sendiek osotara dituzten 25 haurretatik 23) etxean euskaraz hazten dira. Neska-mutiko horiek herriko eskolan D ereduan ikasten dute, eta eskolatik kanpo ere egunerokoan euskara bizipen ohiko eta jarraitua dute.

Iruritako euskararen gizarte erabilerak helduek haurrei euskaraz egitea *eskatzen* du, hori da *normala, espero dena*. Orobat, neska-mutikoen arteko harreman eszentrikoetan euskara mintzaira arruntzat ezarri da eta horri esker familian gehienbat erdaraz egiten duten haur gutxi horiek ere lagunekin euskaraz aritzen ohi dira, eskolako eta plazako harremanetan mintzaira beretuta. Iruritan helduek haurrei euskaraz egitea ohikotzat (gizarte arautzat) ezarri da baina agian, hizkuntzaren indarberritzearen aldeko aldaketarik esanguratsuen haurren harreman eszentrikoetan gertatutakoa da, hots, haurrek adinkideekin euskaraz ihardukitzen dute eta, hori horrela, iruritarren belaunaldi berriak beren artean euskaraz egiten hazten ari dira.

Iruñean arras bertzelakoa da haurrek euskaraz gizarteratzeko dituzten aukerak. Euskara gutxiengoaren hizkuntza da eta erabilera arrunterako baldintzak oso eskasak ditu. Hiriburuan euskaraz eskolatzen den heren horren artean gehienak familia euskaldunberrietan edo etxean batik bat erdaraz aritzen diren bitariko bikoteak dituzten sendi euskaldun ez-osoetan hazten dira. Aztertutako familietan haurren heren bat (19 neska-mutikoetatik 7) baizik ez da etxean euskaraz mintzo dena¹⁶³.

Etxean euskaraz aritzen diren neska-mutiko horiek D ereduan eskolatu eta maizxko ikastetxeko harreman eszentrikoak erdaraz eratu behar dituzte, gehienetan hori baita adinkideen arteko elkarrekintzetan nagusitzen den hizkuntza. Zenbait haurri euskararen bizipena eskolara mugatzen zaie, are ikasgela hutsera ere batzuetan, eta eskolatik kanpo batik bat erdaraz hartzen ditu haur iruindarren aisialdi denbora eta harremanak.

Inguruabar mikrosoziolinguistikoen artean bi alderdi zaizkie nabarmenki desberdinak Iruritako neska-mutikoei eta Iruñekoei: familiaren hizkuntza elkarbizitza eta eskolaz kanpoko euskararen bizipena. Lehenengo alderdia familiaren tipologia soziolinguistikoiari loturik dago eta haurraren mintzatzeko ahalmena lauizatzen du. Bigarrenak, eskolatik kanpoko euskararen bizipenak neska-mutikoen harreman eszentrikoetan hizkuntza portaera finkatzen laguntzen du.

¹⁶³ Oroz gain, kontuan hartzekoa da ingurune batean eta bertzean landu ditudan familia laginek ez dutela adierazgarritasun bera. Iruritan esku artean erabilitako familia lagina herriko sendien unibertso ia osoaren baldintzetara hurbiltzen da, haur iruritar gehien-gehienak euskaraz eskolatzen baitira, herriko ikastetxean gainera. Iruñean aldiz, aztertutako familien lagina ikastola batetik hartua da eta hiriburuko unibertsoan sendi gehienak ez daude euskararekiko egoera bertsuan, umeak D ereduan eskolatzen dituzten familiak heren batera ere ez baitira iristen.

7.I ataltxoan egun euskarazko eskola baitezpadakoa dela adierazi dut. Izan ere, egun irakaskuntzarik gabe euskararen gizarte berreskurapena abian jarri den kasu bat bera ere ez dugu. Halere, horrekin batera umeen hizkuntza sozializaziorako eskolaren askieza ere aipatu dut. Horren ikusbide Iruritako eta Iruñeko haurren harreman eszentrikoak ditugu. Neska-mutiko baztandarrak eta iruindarrak euskaraz eskolatzen dira, baina Iruritan etxean erdaraz aritzen diren haurrak adinkideen arteko euskarara doitzen dira eta Iruñean, aldiz, gurasoekin euskaraz egiten dutenak ere lagunen artean erdarara lerratzen dira. Horrek eskolatik kanpoko bizipenei ohartzera garamatza. Eskolaz kanpo haurrek dituzten euskaraz aritzeko aukerak, haien arteko harreman eszentrikoak euskaraz izaten sendotzen dutenak.

Iruritan (ikus 5.3.5.I ataltxoa) haurren eskolaz kanpoko jarduera gehienak euskaraz izaten dira, eta hala guraso elkarteek herrian antolatutako ekintzetan nola herritik kanpo —Elizondon batik bat— egiten direnetan umeak euskaraz aritzen dira. Neska-mutiko iruritarrek eskolaz kanpo euskararen bizipen jarraitu samarra dute familian, lagunartean eta aisialdian, eta hizkuntzaren erabilera esparru horiek elkar indartzen dute. Antolatu gabeko aisialdian, plazako jostaldietan, haur iruritarrek euskaraz egiten ohi dute. Haurren komunikazio egoera ez-instituzionalizatu (hizkuntza erabilera libre den) horretan ikusten da euskara neska-mutikoen harreman eszentrikoetan errotuta dagoela.

Iruñean aldiz (ikus 6.3.4.2 ataltxoa), ikastolan bertan haurrek egiten dituzten jarduerak ez dirudite, oro har, euskararen erabilera sustatzeko eragingarri, eta ikasleek erdaraz ihardukitzen ohi dute. Ikastetxetik kanpo familiek Iruñea erdaldunduan dagoen euskarazko aisialdi eskaintza urria salatzen dute. Zenbaitetan, gainera, ikastolatik aterata neska-mutikoak ikaskideekin joaten dira eskolaz kanpoko jardueretara, eta gelakideek beren artean gaztelaniaz egiteko aztura indartzen dute. Haur iruindarrendako euskara bizipen etena, ez-jarraitua izaten da, *uharte* moduko bat erdarazko ohiko jardunean eta adinkideekin *euskaldunez osaturiko harreman sare erdaldunetan* sozializatzen dira.

Nafarroako euskararen jarraipenerako hizkuntza politika egokiaren beharra

Ikerketak alderdi makrosoziolinguistikoek haurren euskarazko sozializazio auke-
retarako duten garrantzia berretsi du. Izan ere, landa ikerlanetan alderdi makrosozio-
linguistikoek azpiko mailetan —egoera eta harreman sareetako inguruabar mikroetan
nahiz hiztunen mailako dimentsio idiolinguistikoan— duten eragina azaleratu da.
Ikusi dugunez, dimentsio makroari dagokion estatusa eta, erraterako, horri loturiko
irakaskuntza Iruritako herriko bizitzan eta Iruñeko auzoko eta familien dinamikan
euskararen aldeko eragingarri biziki garrantzitsua da eta haren itzala familien barneko
elkarrekintzetaraino zein hiztunen maila subjektiboraino iristen da.

Maila makrosoziolinguistikoko bertze arlo bat, hedabide handiena kasu, ikerla-
nean erruz agertu da. Nafarroako Gobernuak ez du ETB3 jasotzea ahalbidetzen.
Haurrendako euskarazko teleaierik eza, eta txikien aisialdian erdal telebista kateek
duten erabateko nagusitasuna hainbat gurasorendako kezka bide izateaz gain, maisu-
-maistra batzuen iritziz, haurren hizkuntza portaeren eragingarria ere bada, eta neska-
-mutikoek euskararen gainean duten oharkera ukitzera irits daiteke. Martínez de
Lunak (2012: 131) agerian utzi duenez, dimentsio makroan kokatzen diren hizkuntza
diskurtsoak, politikak eta halakoek dimentsio mikroko egoeretan eragiten dute eta,
norbanakoaren motibazioa ahulduz, euskararen erabilera eragotz dezakete. Alderantziz

ere «... gizarteko kideek hizkuntzarekiko izan dezaketen motibazioa (dimentsio indibiduala) eta erabilera (dimentsio mikroko jarduna), dimentsio makrosozialeko *irudi* eta *prestigio sozial* horri lotua egongo direla» aipatu du.

Maila makroko eragingarriek (euskararen gizarte irudi eta diskurtsoek, lege estatusak, hizkuntza politikak, euskararen babes politiko-administratiboak, mintzairari laguntzeko azpiegiturak...), umeen eguneroko bizitzatik urrunko diruditenek euskarazko sozializaziorako aukerak eta motibazioak sor ditzakete, edo horien ezean euskararen erabilera ahuldu eta etsiarazi. Hainbat ikertzailek (He, 2012: 594, erraterako) nabarmendu dutenez, belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa familiaren eta eskolaren arloetara mugatzen ez den eta bizitza osoa hartzen duen gertakari holistikoa baita, gizartean babestu, ahalbidetu eta sustatu behar da eta horretan erakunde publikoek berebiziko erantzukizuna dute. Bide beretik, *Euromosaic* txostenak (Nelde et al., 1996: v) argiro gaztigatu zuen: «... los grupos lingüísticos que están en condiciones de mantenerse son los que reciben un apoyo público considerable, que activa y promueve los procesos de producción y reproducción que operan en la sociedad civil».

Nafarroan euskararen jarraipenerako hizkuntza politika egokiak haurren euskarazko sozializaziorako gizarte aukerak bermatzera jo beharko luke. Haurrek ez dute hizkuntza *jasotzen*, mintzaira *beretzen* baizik. Neska-mutiko nafarrak ez dira euskara den ondare horren *jaraunsleak*, mintzairaren *birsortzaileak* eta hizkuntzaren historiaren *eratzzaileak* baizik. Euskararen belaunez belauneko jarraipena oraingo gurasoen jokaeren araberakoa ez ezik gaurko neska-mutikoen *hautuzkoa* ere bada. Haurrei euskaraz hazi eta gizarteratzeko ahal den aukera gehien eman behar zaizkie, baina azken finean, belaunaldi bakoitzak euskara atxikitzekeo hautua hartu beharko du eta euskararen geroa, hein handi batean, egungo hiztun gazteek —gehienak eskolan euskaldundu direnek— hurrengo hamarkadetan umeak dituztelarik izanen duten hizkuntza jokaerak erabakiko du.

Kezka horrek egungo haur-gaztetxoak euskaldun bilakatzeko baldintzei begiratzera garamatza nahitaez. Egungo neska-mutikoen euskarazko sozializazio baldintzak ahalik eta onenak, askotarikoak, trinkoenak izaten saiatu behar dugu, euskararekin harreman sakona eta atsegina, gozamenezkoa eta asebetegarria eduki dezaten ahaleginak egin behar ditugu, geroan ere, beren bizitzan zehar hizkuntzari atxikirik joan daitezen, euskara atxiki dezaten.

Hiztunek beren bideak egiten dituzte, baina euskararen jarraipenarekin inplikaturako orok hiztunen hautu horiek nolabait elikatu eta ahalbidetzen dituzten baldintza mikro eta makrosoziolinguistiko egokiak beharrezkoak direla ohartu behar du.

8. ONDORIOAK

Ikerketa honen ondorioak bi sailetan atalduta aurkeztuko ditut, a) alderdi teori-ko-metodologikoei eta horien gaineko hausnarketei dagozkienak eta, b) Nafarroako euskararen belaunez belauneko jarraipenaren gaineko landa ikerketetatik eta horien gaineko gogoetatik ondorioztatuak.

ALDERDI TEORIKO-METODOLOGIKOEI DAGOZKIEN ONDORIOAK

Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan izeneko ikerketa honek Nafarroako (Nafarroa Garaiko) euskararen iraupenaren oinarrian dagoen gertakari bat du aztergai, historia hurbilean (azken lau hamarkadetan, 1970etik 2010era goiti-beheiti) euskararen gizaldirik gizaldiko segida zertan egon den, eta egun haur nafarrak nola eta zein egoeratan hazten diren euskaldun.

Orain artio ezein ikerketak ez du Nafarroako euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai berekiztat hartu.

Hizkuntza gutxituen jarraipena literatura sozioantropologikoan

Ikertzaileek hizkuntzek iraun dezaten belaunez belauneko jarraipenari lekurik behinena aitortu badiote ere, soziolinguistikak ez du horren gaineko azterketa eredu sistematikorik garatu. Mintzaira gutxituen gizaldiz gizaldiko segida hizkuntza atxiki eta ordezkatzeko (*language maintenance and shift*) ikerketa arloan jorratu da eta tesi honen aztergaiaren ikuspegitik ekarpenik osoenak bi prozesuak, mintzairaren iraupena eta iraugipena, gizartearen jarraipen eta aldaketaren testuinguruan kokatu eta batera biltzen dituzten ikuspegietan daude. Ikusmolde horretan hizkuntzari eustea eta mintzaira uztea hiztunen hautu-erabakiei loturik ikusi duten egileak eta, partikularki, alderdi soziokulturalek haien portaeretan duten eragina nabarmendu dutenak (Weinreich, 1979; Fishman, 1972, 1997, 2000; Fasold, 1995) izan ditut abiapuntu.

Ikertzaileek mintzairak atxiki eta ordezkatzeko prozesuei batik bat azterbide soziologikotik eta antropologikotik heldu diete. Soziologo eta soziolinguisten mai-

la makroko ikerlan kuantitatiboek gertakariak handi-handika hartu eta haien ikuspegi zabala nahiz joera nagusiak azaleratu dituzte. Ikermolde antropologikotik egindako azterketa mikro eta kualitatiboek aldiz (erraterako, Gal, 1979; Dorian, 1981; Montoya, 1996) gertakari horien funts etiologikoan sakontasun handiagoa erdietsi dute.

Nafarroako euskararen belaunez belauneko jarraipena eta egungo haurrak euskaldun hazteko egoerak aztertzeke erreferentzia teoriko-metodologiko nagusia geraturapen antropologikoan kausitu dut, hizkuntza sozializazio kontzeptuaren inguruan garatua.

Hizkuntza sozializazioaren paradigma

1980ko hamarkadaren erdialdetik aitzina Estatu Batuetako zenbait hizkuntzalari eta antropologo (Ochs & Schieffelin, 1992, 2008; Schieffelin & Ochs, 1986; Garrett & Baquedano-López, 2002; Pease-Álvarez, 2003; Luykx, 2003, bertzeak bertze) hizkuntza sozializazioaren prozesua ikertzen hasi ziren. Egile horiek gizatalde bateko kide bilakatzea eta hizkuntzaz jabetzea batera eta elkarreraginean jorratzeari ekin zioten. Eratutako teorian hizkuntza sozializazioa prozesu jarraitua da, haurtzarora mugatzen ez dena; elkarreragilea, haurrak edo hasiberriak ere eragile aktibotzat hartzen dituen; inguruneari lotua eta dinamikoa, subjektuak gizarte eta hizkuntza aldaketetara egokitzeko gaitako jotzen baititu.

Zenbait ikertzailek (Garrett, 2012; Friedman, 2012; Nonaka, 2012; He, 2012) hizkuntza sozializazioaren paradigma, darabiltzan metodologia, hurbilpen analitiko eta ikuspegi teorikoengatik mintzaira gutxituen ordezkatzeko prozesuak eta hizkuntza atxikitzeke nahiz indarberritzeke bilakaerak azaltzeko eredu baliagarria dela berretsi dute. Halaz guztiz, oro har hizkuntza gutxituen arloan aplikazio urria izan du eta are txikiagoa Europan (Fellin, 2002; Morris & Jones, 2008; Jones & Morris, 2009).

Gurera etorritz, erran dezakegu euskararen belaunez belauneko jarraipenaren azterketan oraindano ez dela hizkuntza sozializazioaren paradigma erabili.

Euskararen jarraipenaren gaineko ikerketak

Euskararen gizaldiz gizaldiko segidari buruzko azterlan soziolinguistiko gehienak makrokuantitatiboak dira (Larrañaga, 1986; Siadeco, 1994ab; Zinkunegi, 1995; Arruti, 1997; Eusko Jaurlaritza, 2005ab, 2008a; Sagardoy, 2008, bertzeak bertze). Ikusmolde soziologiko horretatik egin diren azterketei gertakariaren barrengo alderdiak azaleratzeko muga teoriko-metodologikoak antzeman baitizkiet, sakontasun handiagoa ahalbidetzen duten ikerketa kualitatiboetara jo dut. Azterlan mikrokuantitatiboen urritasuna gorabehera, nire ikerketaren aurrekaririk zuzenenak horien artean aurkitu ditut, metodologia etnografikoaz baliatu direnen artean batez ere, Sánchez Carrionen (1981a), Erizeren (1997) eta, bereziki, Hernandezen (2007) lanetan. Azken ikerlan hau, hizkuntza antropologiaren ikuspegitik euskal soziolinguistika funtsatu ohi den zenbait kontzeptu eta kategoria zurrun (hizkuntza komunitate adigaia, konparazione) kritikoki berrikusi eta hurbilkeria berria proposatu duena, biziki irado-

kitzaille sumatu dut. Dena dela, egun euskararen belaunez belauneko jarraipenari hel-
tzeko eredu teorikorik ez dago.

Ikerketa honetan euskararen segidaren gaineko ohiko azterketa soziolinguistikoa-
ren, batik bat soziologiko-kuantitatiboaren, zenbait ezaugarri arazotsu gertatu zaizkit:

a) *Transmisio* (edo *ondorengoetaratze*) adigaiaren oinarriturik subjektuen *ama hizkuntza*-
ri eta lehen mintzaira ikasteko garaia, umezaroari baizik ez ohi diote begiratu, hiztu-
nen bizi bilakaerei hainbertze erreparatu gabe.

b) Hizkuntzaren bi transmisio mota, familia bidezkoa edo *naturala* eta eskola
bidezkoa edo *kulturala*, bereizi dituzte eta lehenari soilik so egin diote, bi transmisio-bi-
deen arteko elkarrenginaren barrendu gabe.

c) Ikerketa extera edo familiara mugatu dute eta erabilera eremu hori bertze-
etatik (ingurune edo eskolako harremanetatik, kasu) isolaturik arakatu.

d) Datu makrokuantitatiboak ez dituzte hurbilpen mikrokuantitatiboak eskuratu-
tako informazioarekin osatu.

e) Gurasoen euskara ezagutza irizpide nagusitzat (eta maiz bakartzat) jo dute,
hizkuntza gaitasuna ezaugarri estatistikotzat harturik eta umeekiko harremanek gurasoei
sortzen dizkieten hizkuntza bizipen berriez ohartu gabe.

f) Aita-amen (eta orokorki helduen) mintzaira portaerak baizik ez dituzte ain-
tzat hartu, haurrek gurasoekiko elkarrekintzetan eragiten dituztenak eta haurren arteko
eraginak azterketatik kanpo utzirik.

Aletutako ezaugarri horien ezegokitasuna aztergai dudan gertakaria ikertzeak da-
kartzan erronka epistemologiko nagusien aldean nabarmen gelditzen da.

Ikerketaren erronka epistemologiko nagusiak

Ikerketak aztergaia zedarritzeko hiru alderdi hauei aurre egin behar izan die bai-
tezpada:

Lehenik, *euskararen jarraipena eta etena nola bildu*. Euskararen historia hurbilari gaingiri-
ki so eginda hizkuntzaren gizaldirik gizaldiko iraupena etenik gabeko prozesutzat
ezin dela azaldu gauza ageria da. Euskara atxiki, galdu eta berreskuratze prozesuak
agitu dira, hausturak nahiz estekadurak, eta mintzairaren jarraipenaren dinamikotasun
eta areago aldakortasun horri antzemateko moduko ikusmolde teorikoa behar da.
Erreproduktzio (edo *ugalketa*, Erize, 1997) eta oro har, *habitus* (Bourdieu, 1989) kontzep-
tuetan oinarritutako azalpen sasimekanikoek, edo bederen gizarte egituren eta jokaeren
ereduen jarraipena lehenesten dutenek gure iragan hurbileko euskararen bilakaera alda-
berari nekez erantzun diezaiokete. Nafarroan euskarak ez dirau guraso euskaldunek
beti ume euskaldunak hazi dituztelakoz eta ezezko horrek egungo egoeratik zenbat eta
hurrago, hainbat eta biribilago dirudi. Beraz, prozesu beraren aurki-binperrak baitira,
euskararen belaunez belauneko jarraipenean etena eta berreskurapena batera aztertzea
ahalbidetzen duen kontzeptu eta teoria eredu behar da.

Bigarrenik, *euskararen gizarte berreskuratzearen prozesuari nola heldu*. Ikerketa honek bil-
tzen duen epean, hondar lau hamarkadetan, Nafarroako Mendialde euskalduneari
nahiz inguru erdaldu(du)etan euskara indarberritu dela, azken belaunaldien euskal-
duntzearen eta eskolatzearen bidez batez ere, begien bistakoa da eta horrek hizkuntza-
ren gizarte egoera erabat birmoldatu du. Horren kariatara, Nafarroako euskararen
egoera azaltzeko orain artio erabili izan diren antinomia moduko kategorizazio diko-

tomikoak (hemengoa/hangoa, herria/hiria, *baxerriarra*/moderno, barnekoa/kanpo-koa, gizonezkoa/emakumezkoa, etxea/eskola) desegoki dakuskit. Nire idurikotz, planteamendu dikotomiko horiek nekez izan daitezke euskararen egungo gizarte dinamiken azalbide baliagarria. Era berean, *transmisio* kontzeptuak bere baitan duen ideia goitik beheitikoa eta noranzko bakarrekoa, gurasoengandik seme-alabengana edo helduengandik haurrengana doana, ez da egun euskal hiztun berriak hazten diren testuiguru guztiak biltzeko egokia. Izan ere, Nafarroako inguru erdaldun(du)etako haur euskaldun anitzek euskara ongi edo batere ez dakiten gurasoak dituzte. Orobat, transmisio adigaiak (berezi diren bi transmissiobideek, *naturalak* zein *kulturalak*) euskararen belaunez belauneko jarraipen prozesuan haurrak helduengandik heldu zaizkien hizkuntza eraginen jasotzaile hustzat ikustera garamatza, prozesu horretan jokutzen duten rolaz ohartu gabe.

Hirugarrenik, *biztunen heterogeneotasuna nola jaso*. Hiztunak eta, ondorioz, familiak heterogeneoak dira. Euskalduna/erdalduna dikotomia zurrunik ere pertsonen bizi ibilbidean mintzairerkin eratzen dituzten harreman askotarikoak eta izan ditzaketen hizkuntza sozializazio berriak azaltzeko eraginkortasuna galdu bide du. Euskal hiztunen hizkuntza gaitasuna *continuum* da eta euskararekin izandako bizipenek umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean hartzen dituzten jarrera eta jokaerak uki ditzakete. Hizkuntza transmisioaren ikusmolde ohikoak batik bat gurasoen hizkuntza gaitasunari erreparatu dio eta egun haurrak euskaldun hazten ari diren familia anitz bere aztergusetik kanpo utzi ditu. Izan ere, euskararen transmisioa sarri euskara ama edo lehen hizkuntzatzat ondorengoenganatzearekin berdinkatu da. Duela hiruzpalau hamarkada ez bezala, haur nafarrak euskaldun bilakatzen diren inguruneen aniztasunak *bizkuntzan guttiz ardazturik ez dagoen hizkuntza komunitate* kontzeptura eraman behar gaitu eta, ondorioz, egun euskararen belaunez belauneko jarraipena arakatzeko gizarte unitate malguagoa proposatzera, hots, *familia euskaldun* kontzeptua zabaltzera.

Euskararen belaunez belauneko segida aztertzeke jarraibidea

Orain artioko ohiko aztermoldeek izan dituzten muga teoriko-metodologikoez oharturik eta ikergaiak dakartzan erronka epistemologikoaz jabeturik, diziplinaz gaindiko begikera hartu dut eta, Nafarroako euskararen jarraipena nahiz egungo haurrak euskaldun hazteko egoerak arakatze aldera, hizkuntza sozializazioaren kontzeptuaren gainean eratu den ikerketa arloan lerrokatu naiz.

Ikerketa honek hizkuntza sozializazioaren paradigmatari mintzaireren ordezkate eta berreskuratze prozesuak aztertzeke aitortu zaion baliagarritasuna sendetsi du. Hizkuntza sozializazioaren eredu teoriko-metodologikoa, orain artio gurean behin ere jorratu ez dena, euskararen belaunez belauneko jarraipenari heltzeko biziki egoki gertatu da. Izan ere, *sozializazio* kontzeptuak gizarte *erreprodukzioaren* eta *transmisioaren* ikusmolde ohikoek ikusezin utzitako zenbait alderdi konplexu bezain sakon azalarazi eta horien arteko elkarreaginari erreparatzea ahalbidetu dit.

Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta egungo haur euskaldunen hizkuntza sozializazioaren egoerak zertan diren aztertu nahi izateak ikuspegi diakronikoa eta sinkronikoa eskatu dizkit, hots, *azterbide zinetiko-dinamikoa*, giza jokaeren bilakaera egoera makrosoziologikoarekin elkarreaginean lantzen duena eta *azterbide deskriptibo-estatikoa*, orain eta hemen haurrak euskaldun bilakatzen diren egoeren aitzin-gibelak azalaratzen

dituena. Zenbait egileren proposamenak aintzat harturik (Fishman, 1972; Erize, 1997; Crisp, 2005; Martínez de Luna, 2001, 2004, 2012; Soziolinguistika Klusterra et al., 2009; Soziolinguistika Klusterra, 2011) aztergaiari heltzeko jarraibidea apailatu dut. Euskararen gizaldiz gizaldiko segida eta haurren euskarazko sozializazioa ihardukitzean funtsatzen baita, euskararen erabilera azaltzeko eragingarri multzo desberdinen arteko joko dinamikoa agertu duten ereduak gertatu zaizkit bereziki ernagarri. Horietan oinarriturik eratu dudan jarraibideak hiru dimentsio hauek ditu, elkarrilotuak eta elkarreraginean: a) hizkuntza gizartean kokatzen duena (maila makrosoziolinguistikoa), b) hizkuntza harreman-sareetan dakusana (maila mikrosoziolinguistikoa), eta, c) hizkuntza hiztunaren barnean aztertzen duena (maila idiolinguistikoa).

Metodologia

Ikerketaren lehen mailako datuak eskuratzeko etnografiaz baliatu naiz. Euskararen belaunez belauneko segida eta hizkuntza sozializazioa bi gizalditan eta bi inguruetan ikertu dut. Historikoki bi belaunaldi hartu ditut, 1970eko hamarraldian haziak eta haien seme-alabak, 2000tik aitzina sortuak. Diseinuari dagokionez, bi kasu azterketa burutu ditut, bata Baztango Iruritan eta bertzea Iruñean. Halaz, Nafarroako eremu euskalduna eta erdaldunak bilduta daude eta, horren bidez, euskararen jarraipenaren gaineko azterketa konparatiboa egin ahal izan dut, bai eta lurralde osoari legozkiokeen ondorioak papereratu ere.

Orain artio hizkuntza transmisioaren azterketa kualitatiboak Nafarroako Mendialdeko herririka euskaldunetan baizik ez dira egin, Malerrekan (Sánchez Carrión, 1981a) eta Uitzin (Erize, 1997). Beraz, Nafarroako hirigune erdaldun(du)etan euskararen belaunez belauneko jarraipena eta haur euskaldunen hizkuntza sozializazioa ikergai guztiz jorragabea zen.

Landa ikerketetan familia hartu dut kasu unitatetzat. Unibertsoa familia euskaldunetara mugatu dut. Halere, adiera zabal-malguari atxiki naitzaio eta ikerketa honetan *familia euskalduna* umeen euskarazko sozializazioan nolabait inplikatzen dena da, hau da, umeak euskaldun hazten dituen edota bere jarduera sozializatzailan euskara kontuan hartzen duen familia oro. Hori horrela, familia euskalduntzat honako hauek hartu ditut: a) *familia euskaldunbeteak*, azken hiru belaunaldietan kide euskaldunek osatuak; b) *familia euskaldun ez-osoak*, haurrak euskaldunak dituztenak baina gurasoak eta aita-ama euskaldunak nahiz erdaldunak, eta c) *familia euskaldunberrituak*, kide euskaldunak azkeneko belaunaldian baizik ez dituztenak.

Erabili dudan familien lagina hizkuntza transmisioaren aztermolde ohikotik hasiantzen da. Ez da guraso euskaldun bat bederen duten sendietara mugatzen eta aita-ama erdaldunak dituzten familiak ere hartzen ditu aztergai.

Ikermolde etnografikoari dagozkion ohiko teknikak (behaketak eta elkarriketak) ez ezik azterbide biografiko eta genealogikoak ere erabili ditut, *glotobiografiak*, hizkuntza ardatza duten narrazio biografikoak, eta *familien glotobistoriak*, berriemaile baten edo gehiagoren narrazioak uztarturik apailatu ditudan sendien hizkuntza-historiak. Horiek hobeki aditzera ematearren grafikoki adierazi ditut, *glotobiogramak* eta *familien glotobistoriogramak* irudien bidez. Teknika horiek ez dira orain artio Nafarroako euskararen jarraipena ikertzeko erabili eta hiztunen bizi ibilbideetan nahiz familien hizkuntza historietan arakatzeko emankorrak izan zaizkit.

NAFARROAKO EUSKARAREN BELAUNEZ BELAUNEKO JARRAIPENAREN GAINENKO LANDA IKERKETATIK ATERA DAITEZKEEN ONDORIOAK

Ikerketa hau gidatu duten galderak aztertutako egoeren berezitasunetik ihardesteko formulatuta badaude ere, galdekizun horien interesa zabalagoa da euskara bezalako hizkuntza gutxituen belaunez belauneko jarraipen gertakariak arakatu nahi baitituzte. Egun munduko hainbat mintzairaren iraupena kolokan dago eta aztergaia arazo unibertsal horretan txertaturik, ikerlan honek hizkuntzen gizaldiz gizaldiko gizarte prozesuak hobeki ezagutzeko ekarpena egin nahi izan du.

Gure iragan hurrekoan zenbait ikertzailek (Echaide, 1966; Sánchez Carrión, 1972; Caro, 1986) iragarri zutenaren kontra, euskarak Nafarroako Mendialdean iraun egin du, eta, are deigarriagoa dena, inork gutxi aurreikusi zuena ere gertatu da: herrialdeko hainbat inguru erdaldundutan euskara biziberritu egin da.

Ikerlan honek Nafarroako bi gizataldetan euskararen belaunez belauneko jarraipena kaskailduta edo ia etenda egonda mintzairaren segida berrestekatzeko eta umeak euskaldun hazteko familien bizipenak izan ditu oinarri. Iruritako eta Iruñeko landa ikerlanen emaitzetatik hasiko naiz.

Euskararen jarraipena Iruritan (Baztanen)

Euskara galbidean zegoen Irurita herrian azken berrogei urtean haurren euskarazko sozializazioa bermatzearen aldeko gizarte aldaketa gertatu da. XX. mendearen lehen herenetik aitzina, Gerra Zibilaren ondotik abiatutako euskararen ordezkapenaren bilakaerak 1970eko hamarraldirako herriko gizartea hautsia zuen. Herrigune erdaldundutik hur-hurrean baserrialde arrunt euskalduna zegoen eta euskara ulertu ere egiten ez zuten haurrek adineko jende euskaldun hutsa zuten barride. Sánchez Carrionek (1972) umeek gurasoen mintzaira ikasten ez zutela ikusirik, Iruritan euskara ezinbestez galduko zela iragarri zuen.

Garai horretan bazterretxeetako haurrak familia euskaldunbeteetan sortu eta, nahiz eta auzoko eskola erdaraz izan, euskaraz gizarteratzen ziren etxean nahiz kanpoan, eta handituta ere mintzairari eusten zioten. Herriguneko neska-mutil gehienak aldiz, baita aita-ama biak euskaldunak zituztenak ere, erdaraz hazten ziren. Izan ere, 1970eko hamarkadan Iruritako Karrika goitik beheraino erdarak jota zegoen, plaza eta haurren jostaldiak, eskola eta gizarte bitziza osoa. Euskararen gizarte balio eskasak guraso euskaldun anitzi seme-alabak beren mintzairaz hazteko adorea kendu zien. Herriko giro erdaldunduak eta erdara hutsezko eskolak euskara etxekoa ez zuten haur karrikatarrak hizkuntza gutxituaz jabetzea guztiz ezinezko egiten zuten. Euskara etxean egiten zuten neska-mutikoak behin eskolan hasi eta bertze haurrekin erdaraz ihardukitzera jarriz gero, haurrideekin ere gaztelaniaz aritzera ohitzen ziren eta, azkenean, etxera eramaten zuten. Gurasoen erdaraz egiten hasten zitzaizkien eta zenbait aldiz, gurasoak horretaratuak, ume horiek euskara galtzera ere iristen ziren. Hau da, zenbait haurrek etxe barneko mintzaldaketari eragin zioten eta, frankotan, aita-amak etsi eta seme-alabekin gaztelaniaz ihardukitzen hasi ziren. Txikitako euskarari eutsi dioten iruritar karrikatarren kasuan, aldiz, etxeko hizkuntza atxikitze gurasoen jarrrera funtsezkotzat agertzen da.

Hala bada, eskolak herriguneko haurren hizkuntza portaerei eragin zien, eta zenbaitetan neska-mutikoen *barreman eszentrikoak* (anai-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lagunen eta halako adinkideen artekoak) ez ezik, belaunaldien arteko harremanak ere (gurasoekikoak bereziki) erdarara mintzaldarazi zituen. Hori horrela, erran daiteke 1970eko hamarraldian Iruritako Karrikan euskara galtzeko arrazoi nagusia ez zela familiek hizkuntza ez transmititzea, baizik eta euskara soilik familiaren bidez ondorengoenganatu ahal izatea.

Iruritan euskararen gizaldiz gizaldiko jarraipena eten zen eta 1970. urte aldera herrigunean sortutako gehienak erdaldun hazi ziren. 1980ko hamarkadaren bukaera aldera euskararen eta eskal kulturaren giroa aldatzen hasi zen eta hizkuntzaren inguruko giro eta aukera berriak (helduak euskalduntzeko, adibidez) sortu. Haurzutuan erdaraz sozializatu ziren gazteetako batzuk euskara ikasten hasi ziren (baten bat berrikasten, umetan eskolatu artio euskaraz egiten baitzuen). Adinkideen laguntzaz edo bultzadaz gazte horiek beren harremanetan euskara sartu zuten eta zenbait kasutan etxera eraman ere bai. Batzuek ahaide euskaldunekin euskaraz ihardukitzeari ekin zioten, hau da, euskara berriz *etxe* zuten.

1990eko hamarraldian euskara eskolan sartzek ondorio garbia ekarri zion hizkuntzari, itzala eta ikusgarritasuna irabazi zuen eta hainbat iruritarrek mintzairari buruzko oharrena aldatu zuten. Berebat, neska-mutikoak eskolako euskara karrikara eta etxera eramaten hasi ziren. Halaz, euskararen inguruko diskurtso berriarekin eta, batez ere, D eredua hastearekin batera, belaunaldi berrien euskarazko sozializazio aukerak aldatzen hasi ziren eta familian berean zeudenak azkartzen. Iraganaldian euskararen gizarte erabilerarako aukera murriztak azkenean haurrak euskaraz gizarteratu ezin izatea eta hizkuntza ongi ikastera ez iristea ekarri zuen bezala, euskararen gizarte balioestea eta aukerak ugaritzeak familiaren barneko euskararen erabilera (ber)piztu, transmisioa sendotu eta haurren euskarazko sozializazioa hainbat bidetatik bermatzen hastea izan zuen ondorio.

Neska-mutil iruritar batzuek haurretan euskararekin izan ez zuten harremana gazteztutan eratu zuten, euskarari atxiki zitzaizkion hala nahi izan zutelakoz, eta hizkuntza beren bizitzetan eta harremanetan gutxi-asko sartuta, beretu egin zuten. Lagun horiek beren lehen hizkuntza ez zen batekin eraturako harremanek hartu zuten indarra eta euskarari lotutako hizkuntza identitatea berenganatu zuten. Euskarazko sozializazio berant eta jakinaren gaineko horrek ekarri die gero, umeak izan dituztelarik, seme-alabak euskaraz hazteko erabakia. Dirudienez, umei zein hizkuntzatan egin erabakitzean subjektuaren lehen mintzaira baino eraginkorragoa da hiztunak mintzaira berriaren gainean eratu duen identitatea, zein hizkuntzarekin identifikatu nahi izan duen, zein hizkuntzari atxiki nahi izan zaion, alegia.

1970. urte aldera sortu ziren iruritar horiek haur euskaldunen aita-amak dira orain. Gehienek seme-alabei egiteko euskara hautatu dute. Zenbait guraso gazteri umea izateak hizkuntza jokaeren jakinaren gaineko aldaketa ekarri die seme-alabak euskaraz hazteko. Batzuetan aita-amak ez dira umei egiten dieten hizkuntzaz espresuki mintzatu; bertzeetan, ordea, bai, bikoteak osatu nahi duen hizkuntza-elkarbizitzaz solas egin eta adostu du haurrei euskaraz egitea (bietarik ongi dakienak, bederen), umeen aitzinean behintzat euskaraz aritzea, haurtzain euskaldunak hartzea edota euskara etxe-ko hizkuntza nagusia izatea.

Iruritan, hala familian nola familiaratik at, belaunaldien arteko euskara erabileraren eredu berria ezarri da: haurrei euskaraz egitea. Helduak helduari erdaraz aise egiten

badio ere, helduak haurrari nekez eginen dio gaztelaniaz eta honek sendietan umeen hizkuntza sozializazioaren moldea aldatzea ekarri du. Bertzalde eta bide beretik, duela hiruzpalau hamarkada seme-alabak erdaraz hazi zituzten oraingo aitatxi-amatxi batzuek bilobekin euskaraz ihardukitzen dute.

Egun haur iruritarrak euskaldun hazten dira, hala Errekakoek nola Karrikakoek euskara dute mintzaira arrunta. Iruritan hizkuntza gutxituaren gizarte berreskurapena mintzairaren segidan agitutako hausturak berriz uztartu ahal izan direlaokoz gertatzen ari da, alegia, euskara herriko bizigune desberdinetako herritarrak lotu eta belaunaldien jarraipena estekatzeko baliabide bilakatu delako. Ildo horretatik, Iruritako kasuak Nafarroaren historia hurbilean euskararen gizarte berreskurapenak gizartean izan duen egiteko osatzaile edo integratzailea —inoiz aipatua izan ez dena— iradokitzen du.

Irurita euskararen galtze prozesuaren itzulgarritasunaren adibide dugu. Bi dira, nire ustez, horren arrazoiak, Baztan herri euskaldunetz inguratutik egoteaz gain: 1) herri nagusi izan diren familia tipologiak, *familia euskaldunbeteak* Errekan eta *familia euskaldun ez-osoak* Karrikan, belaunaldien arteko hizkuntza segida lotzea ahalbidetu dutenak; eta 2) egungo haurren euskarazko sozializazioaren izaera *orobartzailer* edo *holistikoa*, neska-mutikoei euskararen bizipen usua eta jarraitua bermatzen diena. Izan ere, haurrak euskaldun hazte aldera erkidegoaren lan sozializatzaile osoa dago, familiena, elkarreana, erakundeena eta noski, eskolarena.

Nire irudituan, haurren harreman eszentrikoak euskaraz izateak Iruritako egoera soziolinguistikoari baikor begiratzeko bide ematen du. Belaunaldi berrien euskarazko sozializaziorako baldintzak badaudela dirudi. Halaz guztiz, neska-mutiko iruritarrendako gaztelaniak erakarmen biziki handia du eta, adibidez, telebista beti erdaraz ikusten dute. Erdararen presioa larria da eta herriaren eguneroko harremanetarako euskara baliagarria eta aski bazaie ere, geroan haur iruritarrek euskararekin harremanak eratzen segituko dutela eta belaunkideekin erabiltzeari eutsiko diotela ez dago bermaturik.

Euskararen jarraipena Iruñean

Iruñean euskararen gizarte jarraipena XIX. mendearen hasieran eten zen. Halaz guztiz, ondotik ere hiriko karrketan euskara aditza aski usua izan zen, hori baitzuten mintzaira arrunta hainbat iruindar xumek, batik bat morroi-neskame zebiltzanek eta Iruñerriko herrixka euskaldunetatik salerosterako hiriburura biltzen ziren nekazariak. Hala izan zen harik eta Gerra Zibilak hiriko plazetatik euskara txoil kasatu zuen artio. Gatazkak eta ondoko berrogeizeroak errotik eten zituzten gerra aurretik, Errepublikaren garaian, Eusko Pizkundek Iruñean hasitako euskal kulturaren mugimendua eta euskararen eta euskarazko irakaskuntza ekimenak ere, Euskal Eskola barne. Giro politiko eta ideologiko hertsatzaileak mintzaira gutxitua hiriko karrketan isilarazi zuen eta Iruñean jende euskaldunak (Mendialdekoak, batik bat) biltzen segitu bazuen ere, euskara ezetsirik eta bizitza publikotik guztiz ezabaturik gelditu zen.

1960ko hamarraldian ikastolen eta gau-eskolen ekimenen bidez euskararen gizarte berreskurapena abiatu zen. Ondoko hamarkadan helduen euskalduntzea eta euskarazko eskolatzeta sendotu ziren eta horiei esker iruindar euskaldunak, gazte-heldutan ikasi zutenak nahiz umetatik ikastoletan eskolatu zirenak, berretu egin ziren.

1970. urte aldera sortutako belaunaldia hartuta, lagineko lagun iruindar guztiak haurtzaroen etxean erdaraz aritzen ziren. Guraso euskaldunak zituzten batzuk ere,

behin eskolan erdaraz hasiz gero, familian gaztelaniaz egiten hasi ziren, eskolatu ere gehienak erdaraz eskolatu baitziren. Francoren agintaldiaren hondarrean sortu ziren ikastoletan ibilitakoak gutxi dira, eta guztiek guraso erdaldunak zituzten. Euskaraz eskolatutako neska-mutiko horiei Iruñeko giroak ez zien ikastetxeaz landa euskaraz aritzea ahalbidetu, eta haiek ere adinkideekin erdaraz gizarteratu ziren.

Iruñean hazitako lagunen artean egun euskaraz egiten duten hiztun gehienek familiaren historian euskararen galeraren oroitzapena dute gertuago edo urrunago. Horiendako euskara ikasi eta beretzera familiaren jatorriko hizkuntzarekin lotzea izan da. Bertze batzuek aldiz, familiaren historian ez dute euskaldunik ezagutu eta zenbaitendako euskalduntzea familiarengandik jasotakoarekin nolabait haustea izan da. Dena dela, euskararen oroitzapenik ez dutenek ere hizkuntza bertakotzat dute, bertakoa izateari atxikitzat eta beraz, bertakotzeko bidetzat.

Hiriburuan hazitako nahiz ikasle garaian hiriburura bildutako lagunek euskararekiko hagitz ibilbide desberdinak egin dituzte. Horietako batzuek gaztetan euskara ikastea deliberatu zuten. Ikastoletan eskolatu zirenek ere euskara atxikitzeko gogo bizia behar izan dute hiriburuko egoera soziolinguistikoak ez baitzien euskararen erabilera nahikorik bermatzen. Iruñeko euskaldunei bertan euskarak duen gizarte egoera urria bezain ahulak eragin die, eta erabilera berezkoa eta jarraitua ziurtatzen ez duen ingurune horretan euskalduna izatearen gibelean hiztunen nahikaria eta ahalegina daude.

Oro har, hiztunek euskaraz jabetzeko edo hizkuntzari eusteko hautu-erabakiak batik bat gaztaroan eta adinkideen eraginez edota laguntzaz egin zituzten. Lekukotasunek darakutsatenez, zenbait lagunek euskara —lehen hizkuntza edo gero, haurretan nahiz gaztetan, ikasitakoa— beren bizitzako mintzaira nagusia izatea deliberatu dute, eta euskaraz jabetu ondoren hizkuntza harreman sareetan (lagunartean, familian eta batez ere, bikotean) eta bizitzaren arlo desberdinetan sartu dute. Lagun horiek euskara beretu dute eta horrekin batera mintzairan funtsatutako identitatea eratu. Prozesu hori gero, hiztun horiek aitamatu direlarik umeen hazieran euskarari eman dioten lekua ulertzeko esanguratsua da.

Egun Iruñean haur euskaldunak hazten dituzten familien hizkuntza sozializazioaren aukera eta jarduerak ez dira beti-batekoak. Euskaraz bizi diren sendietan gurasoek mintzairari atxikimendu sendoa diote eta, horregatik, familiaren barneko euskarazko elkarbizitza planifikatu eta hizkuntza portaera finkoak ezarri dituzte. Haurrak euskaraz mintza daitezen ekintza sozializatzaile agerikoa egiten dute, hau da, hizkuntza portaera eredugarriak, haurren hizkuntza sozializazioaren aldeko hautuak eta euskarari lotutako balioen heziketa baliatu dituzte. Familia horietan haurrideek beren artean euskaraz ihardukitzen ohi dute.

Iruñerria bezalako ingurune erdaldunduan bizi diren bitariko bikoteen familiak inguruko baldintza soziolinguistikoekin bereziki eraginberak dira eta, horregatik, guraso euskaldunaren jokamoldea erabakigarria izaten da. Ikerlan kuantitatiboek azalera-tzen duten hizkuntza transmisio tasaren azpian bitariko bikote horietan arras egoera konplexuak daudeke eta, egun, Iruñean halako familia mistoetan hazten diren haurrek etxean euskara ere ikasiko dutela ez dago bermaturik.

Euskara gutxi dakiten edo batere ez dakiten gurasoek osatutako familia iruindarretan euskara seme-alaben bidez sartu da etxera. Euskara atzenduxea zuten gurasoak haurren eraginez hizkuntza «berreskuratzen» hasi dira eta euskararekin inolako harremanik izan ez zutenak seme-alaben bidez mintzaira berrira hurbildu dira.

Gurasoetako bat euskalduna duten haur iruindarrak gero eta gehiago badira ere, egun gehienak *familia euskaldun ez-osoetan* eta *euskaldunberrituetan* hazten dira. Horrek, hain ingurune erdaldunduan, umeen euskarazko sozializazioari ondorioak dakarzkio. Euskaraz eskolatzen diren haur iruindarrak (lautik bat ere ez dira) ikastetxetik kanpo erdaraz aritzen ohi dira. Hiriburuan euskarak duen egoera ahulak, erakunde publikoen babes eskasak (erraterako, ETB3 jasotzea ez ahalbidetzeak) eta haurrendako dagoen gizarte eskaintza urriak anitz aldiz etxe erdaldunetako neska-mutikoen euskararekin duten harremana eskolara mugatzea dute ondorio. Iruñeko haur euskaldunek, etxean euskaraz mintzatzen direnek ere, eskolaz kanpo erdaraz egiten ohi dute beren artean.

Hiriburuko azterketak, oro har, belaunaldi berrien euskarazko sozializazio baldintza eskasak azaleratu ditu. Nire idurikotz, bi dira horren arrazoiak, Iruñea inguru erdaldunduan dagoela jakintzat emanda: 1) haurren familia tipologiak, *familia euskaldunberrituak* batik bat eta *familia euskaldun ez-osoak*, bereziki bitariko bikoteenak, inguru erdaldunduetan euskararen erabilera ahalbidetzen ez dutenak eta umeez eskolan ikasitako mintzaira ezin etxekotzea dakartenak; 2) Iruñean, euskaraz eskolatuta egonda ere, haur anitzendako euskara *bizipen etena* izaten da, ez jarraitua, kuantitatiboki ez nahikoa eta kualitatiboki ez askotarikoa (gehienetan eskolara mugatua). Neska-mutikoen euskarazko sozializazioak hutsarte nabarmenak ditu hizkuntza gutxituan eraturako harremanetan nahiz hizkuntzari loturiko irudipenetan.

Iruñerrian gizarte bizitza ezartzen duten faktore makrosoziopolitikoek haurrak euskaldun haztea guztiz familiaren esku uzten dute. Euskarazko gizarte eskaintza eta aukerak urri-urriak direnez gero, neska-mutikoen euskarazko sozializazioa gurasoen hizkuntza jarrera, portaera eta hautuei estuki loturik dago.

Orain berrogei urte euskaraz etxean baizik egiten ez zuten haur iruindarrek hizkuntzari eutsi ez bazioten, orain ikasgelan bakarrik aditzen eta ihardukitzen dutenek ez dutela euskara aise beretuko pentsatzekoa da. Egun Iruñean D ereduan eskolatzen diren neska-mutikoen etorkizunean euskarari eutsi eta mintzaira beretzeko bilakaera izanen dutela ez dago ziurtaturik. Nafarroako hiriburuan hori bermatzeko dauden gizarte aukeren urritasuna kezka bide larria da.

Euskararen jarraipena Nafarroan

Landa ikerlanen emaitzak azalduta, Nafarroako euskararen jarraipenari doazkion ondorio nagusiak aletuko ditut:

Nafarroako euskararen historia hurbila *ez da lineala* edo *etengabea*; aitzitik mintzairaren belaunez belauneko segidak hausturak nahiz estekadurak izan ditu eta jarraipenarekin batera etena ere ageri zaigu. Arrakala horiek hizkuntzaren espazioan eta denboran kausi daitezke, biziguneen artean, familietako belaunaldien artean eta hiztunen bizi-ibilbideetan.

Belaunaldi berriak euskaraz jabetu eta euskaldun bilakatzea prozesu *orobartzailea* da, familia mugatzen ez dena. Etxean eraten diren hizkuntza elkarrekintzek eta hortik kanpo umeez dituzten bizipenek neska-mutikoen hizkuntza sozializazioan batera jokatzeko dute. Hau da, etxeko elkarrekintzak, eskolakoak eta plazakoak ez dira hizkuntza jarduera guztiz bereziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza gizarteratzearen prozesu zabalagoan xertatuta dauden, elkarreraginean dabilzan eta elkar elikatzen duten jarduera sozializatzaileak dira eta, horregatik, ezin dira zein bere aldetik hartu. Izan ere,

gure iraganaldi hurbilean belaunaldi berriak euskaraz sozializatzen ez iristea ez da gertatu soilik gurasoek haurrei mintzaira irakatsi ez dietelako; anitz aldiz neska-mutikoek euskara gurasoekin eta etxean baizik ezin ikas eta erabil zezaketen, eta honek galarazi du hizkuntzaren ikaskuntza osoa.

Haurrak euskaldun bilakatzeko prozesua *elkarreragilea* da, belaunaldien arteko (goitik behe-tik nahiz behetik goitiko) elkarrekintzetan ez ezik adinkideen arteko (ezker-eskuineko) harreman eszentrikoetan ere gauzatzen dena. Euskararen jarraipenean *haurrak eragile* aktiboak izan dira jasotzaile hutsak baino gehiago. Glotobiografiak euskararen historia hurrekoan neska-mutikoek jokatu duten rol eraginkorra erakusten dute. Euskara galbidean zelarik, orain hiruzpalau hamarkada, zenbait familia euskaldunetan umeek eskolako erdara etxera sartzeko eta ahaideen arteko harremanak erdarara mintzaldarazteko prozesuan eragileak izan ziren bezala, bi hamarraldi geroago, hizkuntzaren berreskurapena abiatu, haurrek eskolan ikasitako euskara etxekotzeko eta familian mintzairaren erabilera pizteko ere aktiboki jokatu dute.

Hala bada, hiztunen euskarazko sozializazioa norabide askotariko prozesua da, *eragingarri askotakoa*, hiztunen arteko elkarrekintzetan mamitua eta ondorioz, gizartearen dinamika historikoaren arabera. Euskararen belaunez belauneko jarraipenaren oinarrian dagoen haurren euskarazko sozializazioa *baldintza soziohistorikoei lotua* dago, une historiko bateko gizarte inguruaren eraginpekoa da, garaian garaiko mintzairaren baldintza makrosoziolinguistikoei ukitua eta tokian tokiko egoera mikrosoziolinguistikoei atxikia. Euskararen galera prozesuan, hizkuntzaren gizarte erabilerarako aukera murrizteak azkenean haurrak mintzaira gutxituaz ezin sozializatzea eta hizkuntza ongi ikastera ez iristea ekarri zuten bezala, euskararen gizarte egoera eta balioestea hobera aldatu direlarik eta, batik bat, behin hizkuntza eskolan sartuz gero, mintzairaren erabilera hainbat familian (ber)piztu eta haurren euskarazko sozializazioa zenbait bide-tatik bermatzen hasi da. Hiztunen bizi-ibilbideek hizkuntza sozializazioaren izaera soziohistorikoa iradokitzen dute, hau da, hizkuntzaz jabetzeko eta hiztun bilakatzeko prozesua ezin da ingurune soziolinguistikotik bereizi.

Belaunaldi berrien euskarazko sozializazioa baldintza soziohistorikoen menpekoa bada ere, ez dakar hiztunen jokabide eredu finkorik. Ez da prozesu mekanikoa ez eta oharkabea ere, subjektuen erabakimenean eta hautuetan funtsatua baizik. Izan ere, gizakiak malguak dira, ez zurrinak, eta aldaketetara egokitzeko gai dira, horiei aurre egiten ahal diete eta errealitatea eraldatzen saia daitezke. Hiztunen bilakaeren linealtasun eza begi bistakoa da. Horregatik, nafarren euskarazko sozializazioa prozesu *dinamikotzat* agertzen zaigu, hots, euskaldunek euskararekin eratu duten harremana —lehen mintzaira den kasuetan ere bai— denboraz alda daiteke, ez da beti-batekoa, hizkuntza gaitasuna egongaitza eta are mudakorra baita.

Hiztunek hizkuntzekin ehuntzen dituzten atxikiduren dinamikotasuna mintzaira ikasteko eta berenganatzeko aldia umezarora mugatzen ez badugu gelditzen da nabari. *Bizialdi osoa* hartzen bada argi ikusten da subjektuek gazte-heldutan hizkuntza gizarteratze berriak egin ditzaketela eta, hauen ondorioz, beren mintzaira ohikoa eta hurbileko harremanetakoa alda dezaketela.

Euskarazko sozializazio berant horiek hiztunek *seme-alaben hizkuntza bazieran* jokatze-ko moduan ondorioak dakartzate. Lagun batzuei gazte-heldutan euskararekin eratu dituzten atxikiduretatik etorri zaie, umeak izan dituztelarik, seme-alabak euskaraz hazteko erabakia. Ikerketak haurren euskarazko sozializazioa bermatzeko gurasoen

gaitasuna eragingarri bakarra ez dela izan iradoki du. Hitzunen nahiak eta portaerak gaitasun hutsak baino gehiago jokatzen dute umeen euskaraz haztearen alde. Izan ere, hitzunek hizkuntzarekin duten harremana —gaitasuna bera barne— prozesua da aldez aurreko baldintza baino gehiago, eta seme-alaben hizkuntza sozializazioan jokatzen duen aldagai dinamikotzat hartu beharrekoa.

Nafarroako historia hurbilean anitz hitzunek euskararen aldeko hautua egin eta hizkuntza identitatea mintzaira horri loturik eratu dute. Lagun horiei hizkuntza baliabide gertatu zaie ingurunean kokatu eta txertatzeko nahiz erkidegoaren aitzinean agertu eta harekin hartu-emanetan sartzeko. Halakoetan, euskaraz ihardukitzean zurkaiztutako identitate modu horrek gero, hitzunik aitamatu direlarik, umeen hizkuntza sozializazioaren aitzinean hartutako jarrera eta jokamoldeak bete-betean ukitu ditu.

Hori horrela, egun Nafarroan *euskaldun izatea hautua* dela erran liteke. Euskara beretakotzea ez dator soilik sorlekutik, jatorritik edo gurasoengandik. Aukera hori hitzunek berek egiten dute mintzairarekin eratzen dituzten atxikiduren bidez. Hitzun batzuk umetatik heldu zaien euskarari lotu zaizkio, baina bertze anitz euskarara gogoz hurbildu dira, hizkuntza ikasi, harremanetan sartu eta beretu dute. Hitzun horiek gero, umeak izanda, seme-alaben hizkuntza sozializazioa beretakotutako mintzairaz egin nahi izan dute, eta horrela hasi da hainbat familian euskara (berr)etxekotzen.

Halakotz, Nafarroako euskararen historia hurbila nekez azal liteke hondar hamarkadetan hainbat senditan umeen hizkuntza sozializazioaren eredu aldatu dela ohartu ezean. Haurrak euskaldun hazteko portaera horiek dira, hain justu, euskararen belaunez belauneko jarraipenari bide ematen ari zaizkionak. Hitzunak hizkuntzaren jarraipenaren *eraldatzailak* dira, ez mintzairaren jasotzaile hutsak. Baieztapen horrek euskararen segidaren bilakaeran umeak ikusteko modua ere ukitzen du: haurrak ez dira lehengoengandik heldu zaien balizko ondare baten *jaraunsle* edo *oinordekoak*, hizkuntzaren historiaren *eratzailak* baizik.

Belaunaldi berriak mintzaira ahulean sozializatzek familiarren eta *ingurunearen eragin kontzientea* eskatzen du. Gurasoen hizkuntza balio eta portaerak funtsezkoak dira, baina euskarazko gizarteratzearen gibelean hitzun taldearen eta gizarte erakundeen (eskolaren, elkarteen...) harreman sareak eta jarduera sozializatzaileak daude.

Euskarak iraun dezan belaunaldi bakoitzak mintzaira beretakotu behar du eta horretarako *gizarte aukera egokiak* beharrezkoak ditu ezinbestez. Horixe da, nire irudituan, egun Nafarroako euskararen jarraipenak duen premia nagusia, neska-mutikoei euskaldun hazteko, alegia, euskara beretzeko bideak ematea. Horrela, eta ez bertzela, izanen ditu euskarak nafarren belaunaldi berriengan jarraipena eta geroa.


9. ERANSKINAK

Eranskinen aurkibidea

1. Nafarroako Foru Aldundiak 1960an emandako diploma.
2. Nafarroako Foru Aldundiak 1961ean emandako aurrezki-libreta.
3. Etsaingo hilarria, herriko azken euskaldunaren lekukotasuna.
4. Hizkuntza ikasereduen bilakaera Nafarroan.
5. Hizkuntza ikasereduen bilakaera Baztanen.
6. Hizkuntza ikasereduen bilakaera Iruñerrian.
7. Berriemaile adituen azalpen biografikoak.
8. Glotobiografiak osatzeko gidoia.
9. Glotobiogramak.
10. Glotohistoriogramak.
11. Iruritako eskolak emandako datuak hiru urteko ikasleen lehen hizkuntzaz.
12. Amaiur Ikastolako hiru urteko ikasleen gurasoek emandako datuak: gurasoen hizkuntza gaitasuna eta etxeko euskararen erabilera.
13. Amaiur Ikastolako hiru urteko ikasleen gurasoek emandako datuak: bitariko bikoiten familiak eta etxeko hizkuntza erabilera.
14. Familien glotohistoria laburtuak.



I. NAFARROAKO FORU ALDUNDIAK 1960AN EMANDAKO DIPLOMA

1960an Euskara Sailak Iruritako Visitacion Arraztoa Mendikoa (bigarren abizena gaizki idatzita dago) neskatiko euskaldunari emandako diploma.



2. NAFARROAKO FORU ALDUNDIAK 1961EAN EMANDAKO AURREZKI-LIBRETA

1961ean Nafarroako Foru Aldundiak Lekarozko Resurreccion Garde Saharrea neskati-ko euskaldunari emandako aurrezki-libreta, 150 pezeta zituen. Azalpenean dio: «INSTITUCIÓN PRÍNCIPE DE VIANA, PREMIO DE ESCOLARES, POR HABLAR VASCUENCE»



3. ETSAINGO HILARRIA, HERRIKO AZKEN EUSKALDUNAREN LEKUKOTASUNA

Etsaingo (Anue) hilerriko hilarria, honako testua duena: EMEN DATZA ERRO YABENDAR URBANO LANDA ETXEKO SEMEA GOYAN BEGO ERRIONTAKO AZKENEN EUSKALDUNA 1953 URTE.



4. HIZKUNTZA IKASEREDUEN BILAKAERA NAFARROAN


1988-1989 ikasturteaz geroztik ditugu Nafarroako HHko eta LHko ikastetxe publikoetako nahiz itunpekoetako ikasereduen datuak. Hasiera batean, G, A eta D ereduak hasi ziren eskaintzen, lehendabiziko biak Nafarroa osoan baina hirugarrena, euskarazkoa, EFLek ezarritako *eremu euskaldun* eta *eremu mistoan* bakarrik.

2007-2008 ikasturtean Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua ingelesa irakasbide duten ikasereduak abian jarritz joan da, *British* (Br) programa hasieran, eta Hizkuntzen Tratamendu Integratuaren (HTIren) programa gero, biak Nafarroa osoan.

Taula eta grafikoa
Nafarroako ikasereduen bilakaera ehunekotan, HH eta LHko ikastetxe publikoak nahiz itunpekoak kontuan hartuta, 1988tik 2013ra

<i>Ikasereduak</i>	88/89	91/92	94/95	97/98	00/01	04/05	07/08	09/10	10/11	11/12	12/13
D	13,3	16	18,8	22,4	25,8	26,6	26,8	26,9	27,2	27,3	27,6
A	5,5	8,5	11,5	20,1	26,3	27,8	25,4	24	23	22,6	22,1
G	81,2	75,5	69,8	57,5	47,9	45,6	45,7	45,3	45,1	44,2	43,1
Br-HTI							2,2	3,7	4,7	5,9	7,2
Br, HTI, HTI-A, HTI-D G ereduarekiko							2,2	4,8	6,5	9,1	11,8

Ikasereduen bilakaera Nafarroan



Iturria: Aldasoro (2001, 2012)

British Espainiako Hezkuntza Ministerioaren eta *British Council* erakundearen artean adostutako programa bat da, eta zenbait ikastetxe claude horri atxikirik. Funtsean, Br eta HTI, ikaseredu bertsua da, asteko 28 saioetatik 10 ingelesez ematen dituena. Horretan ez da euskara irakasten.

Ingelesarekin batera euskara irakasgai eta irakasbide duten ereduak ere badira, HTI-A (gaztelania-ingelesa programa, astean gutxienez ingelesezko 10 saio dituena, eta euskara irakasgai, astean 3-4 saio, A eredu bezala) eta HTI-D (euskara-ingelesa programa, HHko 4 eta 5 urtekoei 5 saio ingelesez ematen dizkiena, LHko 1. eta 2. mailetakoei 6 saio, eta LHko 3., 4., 5. eta 6. mailetakoei 8).

Hezkuntza Departamentuan ingelesezko saioak dituzten ikaseredu horiei guztiei Ingelesa Ikasteko Programak deitzen zaie. G, A eta D ereduak ikasleek astean 5 saio dute ingelesez.

5. HIZKUNTZA IKASEREDUEN BILAKAERA BAZTANEN

Baztango HHko eta LHko ikastetxeetan (herrietako eskoletan, Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean eta Baztan Ikastolan) ikasereduen gaineko datu ofizialak 1987-1988 ikasturteetik ditugu. Orduan D eta A ereduak hasi ziren eskaintzen.


2010-2011 ikasturtean Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua HTI-D programa hasi da Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxeko HHko lehen mailetik.

HTI-D ikaseredua euskara-ingelesa programa da. HHko 4 eta 5 urtekoei astean ingelesez 5 saio ematen zaizkie, LHko I. eta 2. mailetakoei 6 saio eta LHko 3., 4., 5. eta 6. mailetakoei 8 saio.

Taula eta grafikoa

<i>Ikasereduak</i>	87/88	91/92	94/95	97/98	00/01	04/05	07/08	10/11	12/13
D	42,8	53,2	69,6	80,2	89,9	87	92,4	94,5	93,4
A	57,2	46,8	30,4	19,8	10,1	13	7,6	5,5	6,6
HTI-D D ereduarekiko								7,4	16

Ikasereduen bilakaera Baztanen



Iturria: Aldasoro (2001,2012)

6. HIZKUNTZA IKASEREDUEN BILAKAERA IRUÑERRIAN

1991-1992 ikasturtetik aitzina ditugu Iruñerriko HHko eta LHko ikastetxe publiko nahiz itunpeko guztietako datuak. Datuen taularako eta grafikorako Iruñerriko ondoko udal-erri hauek hartu dira: Iruña, Barañain, Burlata, Atarrabia, Uharte, Sarriguren, Antsoain, Berriozar, Orkoién, Zizur Txikia (Zizur), Zizur Nagusia eta Mutiloa (Aranguren).


2007-2008 ikasturtetik Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua ingelesa irakasbide duten ikaserekuak abian jarriz joan da, *British* programa hasieran, eta ingelesa irakasbide duen HTI gero. Ingelesarekin batera euskara irakasgai eta irakasbide duten ereduak ere hasi dira, HTI-A eta HTI-D.

Taula eta grafikoa

Iruñerriko ikaserekuen bilakaera ehunekotan, HH eta LHko ikastetxe publiko nahiz itunpeko guztiak kontuan hartuta, 1991tik 2013ra

<i>Ikaserekuak</i>	91/92	94/95	97/98	00/01	04/05	07/08	10/11	12/13
D	15,1	18,1	22,7	26,4	26,9	27,6	27,2	22,8
A	5,2	7,7	16,9	22,1	25,7	24,2	21,8	22,2
G	79,8	74,3	60,4	51,5	47,4	45,7	45,6	46,8
Br, HTI						2,5	5,4	8,2
Br, HTI, HTI-A, HTI-D						2,5	7,5	13,5
G ereduarekiko								

Ikaserekuen bilakaera Iruñerrian



Iturria: Aldasoro (2001,2012)

7. BERRIEMAILE ADITUEN AZALPEN BIOGRAFIKOAK

– **Sagrario Aleman** (testuan SA) 1952an Etxalekun (Imotz) sortua. Nafarroako Ikas eta Ari (IKA) euskalduntze-alfabetatze erakundearen sortzaileetako bat izan zen eta egun Iruñeko Arturo Campion euskaltegiko arduraduna da. 1970etik orain artio euskararen egoera, bereziki Mendialdekoa eta Iruñerrikoa, eta Nafarroako aldaketa soziolinguistikoa ongi ezagutzen ditu. Iruñeko zinegotzia (1983-1987) eta foru parlamentaria (1987-1991) izan da. Euskaltzain osoa da 2007tik hasita.

– **Joseba Igarabide** (testuan JI) 1955ean Erratzun (Baztan) sortua. Xorroxin iratiaren sortzailetako bat eta Xaloa telebistaren sortzailea. 1970etik orain artio Baztango egoera (soziolinguistikoa ez ezik, soziala eta ekonomikoa ere) eta lau hamarkadetan izan diren aldaketak, hiri/herri harremanak adibidez, bertatik bertara ikusi dituena.

– **M^a Eugenia Urrutia** (testuan MEU) 1948an Amaiurren (Baztan) sortua. Maistra izateko oposizioak gainditu eta 1968an hasi zen lanean. Donamaria, Arantza, Zarautz, Ziga eta Irurita herrietako eskola publikoetan aritu eta ondoan, 2009an erretiroa hartu zen. 1989tik, hau da, hogeituz Iruritako eskolako maistra izan da eta hondar hamar urteetan Baztango herrietako eskolen koordinatzailea.

– **Martin Garde** (testuan MG) 1946an Lekarozen (Baztan) sortua. 1970eko hamarkadaren bukaera aldean helduei euskara irakasteko Iruritan antolatu ziren taldeetan irakasle aritu zen. Euskal kulturaz eta hizkuntzaz arduratua, ongi ezagutzen du Baztango egoera, hala soziala nola soziolinguistikoa. Baztango Udaleko zinegotzia izana (1987-1991, 1991-1995, 2007-2011).

– **Iruritako ikastetxe publikoko maisu-maistrak: Kontxi Zeberio** (testuan KZ), **Miren Couso** (MC), **Katrin Kanpo** (KK), **Amaia Saldias** (AS) eta **Xabi Nuñez** (XN). Kontxi Zeberio eskolako zuzendaria da, hamar urte ditu Iruritako eskolan. Bertze guztiendako lehen ikasturtea da ikastetxean: Miren Couso, HHko I. zikloko tutorea da, Amaia Saldias HHko 2. ziklokoa, Xabi Nuñez LHko I. mailakoa eta Katrin Kanpo LHko 2. ziklokoa.

– **Ane Apeztexea** (testuan AA) 1954an Goizuetan sortua. 1975az geroztik Zizur Txikiko San Fermin Ikastolan irakasle, hasierako urteetan ikastola klandestino zela. Ongi ezagutzen ditu euskarazko irakaskuntzaren hastapenak eta azken lau hamarkadak Iruñerrian. HHn, LHn bai eta DBH eta Batxilergoan ere aritu da.

– **Amaiur Udal Ikastolako maistrak: Loredi Egino** (testuan LE) eta **Ana Los Arcos** (testuan ALA). Loredi Egino 1962an Elgoibarren sortua baina bortz urte zituelarik Iruñera etorria, 1980ko hamarkadaren hasieran hasi zen euskarazko irakaskuntza publikoan Iruñean, gehiena Amaiur Ikastolan. HHn aritzen da eta 2011-2012 ikasturtean HHko 2. zikloko, 4-5 urteko ikastalde bateko tutorea izan da. Ana Los Arcos 1958an sortu zen Lizarran eta 1978tik dabil euskarazko irakaskuntzan. Iruñeko lehen udal ikastolen sorreran parte hartu zuen. Amaiur Udal Ikastolaren hasieratik bertatik ibili da eta bederatzi urtez ikastetxeko zuzendaria izan da. HHn eta LHn lan egin du (bai eta DBHn ere Alaitz Ikastetxean hiru urtez). Azken urteotan LHko 2. zikloan aritu da.

8. GLOTOBIOGRAFIAK OSATZEKO GIDOIA

Berriemailearen datuak

Izen-abizenak:
 Sorteguna:
 Adina:
 Sorlekua:
 Bizitokia. Herria:
 Helbidea: Tel.:
 Osatu duen familia:
 Lanbidea:
 Hizkuntza gaitasuna (zein hizkuntza dakien, zeinetan mintzatzten den hobeki, sentitzen den erosoan)

Glottobiografia

Haurtzaroa

Genealogia. Sortu zen familia. Zein ziren etxekoak, bertze ahaideak, non bizi ziren. Gurasoen jatorria, lanbidea, zek(izk)iten hizkuntza(k).
 Etxeko (eta familiakoen arteko) hizkuntza erabilera:

- Gurasoek elkarrekin
- Amak semeekin eta alabekin
- Aitak semeekin eta alabekin
- Haurrideek elkarrekin
- Egok eta haurrideek aita-amekin
- Egok eta haurrideek aitatxi-amatxirekin
- Egok eta haurrideek izeba-osabekin
- Egok eta haurrideek lehengusu-lehengusinekin
- ...

Euskaraz bai? Ez?
 Ezetz bada, arrazoiak

Haurtzaroko hizkuntza(k): etxean, auzoan/herrian, jostetan neskek, jostetan mutilek, jostetan neska-mutikoek elkarrekin.

Eskolaldia: zein hizkuntzatan, eskolatzearrekin lotutako oroitzapenak...

Haurtzaroko bizimodua: egunerokoa, aisialdia, harremanak ahaideekin eta lagunekin...

Gaztaroa

Eskola ondoko ikasketak.

Lanean hastea, lan mota, zein hizkuntzatan.

Lagunak, kuadrillak, bikote egin/ezkondu aurreko urteak zein hizkuntzetan. Neska-laguna / Mutil-laguna. Bikotearen hasierako hizkuntza harremana.

Orduko harremanak, orduko bizitza herrian zein hizkuntzatan.

Familia berria

Sorterrian berean bizi? Nora esposatu?

Osatu duen familia. Seme-alaba(k)

Familiaren hizkuntza bizikidetzatza. Lehenago solastua? Adostua? Aldatua?

Eskolatu aitzineko seme-alaben zaintza (haurtzainak, aitatxi-amatxi, haur eskola...).

Etxeko (eta familiakoen arteko) hizkuntza erabilera:

- Gurasoek elkarrekin
- Amak semeekin eta alabekin
- Aitak semeekin eta alabekin
- Seme-alabek aita-amekin
- Seme-alabek elkarrekin
- Seme-alabek aitatxi-amatxirekin
- Seme-alabek izeba-osabekin
- Seme-alabek lehengusu-lehengusinekin
- ...

Euskaraz bai? Ez?
Ezetz bada, arrazoiak

Etxeko hizkuntza erabilera arrunta: zein hizkuntzatan mezua telefonoan, erosketa zerrenda, oharrak etxekoei, elkarri igorritako sms-ak,...

Seme-alabak

Eskola hasi eta ondoan seme-alaben haurtzaroa nolakoa?
Nork zaintzen ditu?
Zer jarduera egiten dute eskolaz kanpo?
Nola ematen dute aisialdia? Zein hizkuntzatan?

Familiaren barreman sarea

Familiaren harremanak herrian (ahaideak, auzolagunak, lagunak...)
Aisialdia, nola? Senarrak, nola? Emazteak, nola? Familia osoak, nola?

Hizkuntza teknologiak eta kultura kontsumoa familian

Hedabideak: prentsa idatzia (egunkariak, aldizkariak...), irratiak, telebista.
Internet: mezuak, Twitter, Facebook, solasguneak, mezu elektronikoak, sms-ak...
Liburuak, musika, antzerkia, zinema, DVDak...


Motibazioa, jarrera kritikoa

Solaskide batekin hizkuntza hautatzeko arrazoiak.
Euskararen inguruko zer interes, zer hautu, zer jokaera...
Seme-alabek euskararekin egingen duten harremanaz zer aurreikuspen, zer itxaropen...


9. GLOTOBIOGRAMAK

Glotobiogramak glotobiografien adierazpen grafikoak dira, ego belaunaldiko hiztunen bilakaerak adierazten dituztenak. Iruritako eta Iruñeko glotobiogramak eman baino lehen irudiak ulertzeko ikurrak azalduko ditut.


Irudi-testua:



Iruritako glotobiogramak



Iruñeko glotobiogramak






10. GLOTOHISTORIOGRAMAK


Glotohistoriogramak familien glotohistorien adierazpen grafikoak dira, familien belaunaldien hizkuntza bilakaerak adierazten dituztenak. Iruritako eta Iruñeko glotohistoriogramak eman baino lehen irudiak ulertzeko ikurrak azalduko ditut

Irudi-testua:



- emakumezkoa euskaraz ongi dakiena
- ▲ gizonetzkoa euskaraz ongi dakiena
- emakumezkoa euskaraz zertxobait dakiena edo euskara ikasten ari dena
- ▲ gizonetzkoa euskaraz zertxobait dakiena edo euskara ikasten ari dena
- emakumezkoa euskaraz ez dakiena
- ▲ gizonetzkoa euskaraz ez dakiena
- emakumezkoa gaztetako euskara galduxea duena
- ▲ gizonetzkoa gaztetako euskara galduxea duena
- emakumezkoa inoiz euskara ikasten hasia baina egiten ez duena
- ▲ gizonetzkoa inoiz euskara ikasten hasia baina egiten ez duena
- \ hilik
- 1 Espainiako estatuko erdal herri batetik etorriak
- 2 2011ko abenduan hilik
- = bikote harremana ≠ bikote harremana hautsia
- [] ez du harreman hurbilik egorekin
- ↔ belaunaldi berekoen arteko harremana euskaraz
- ↔ belaunaldi berekoen arteko harremana gaztelaniaz
- ↔ belaunaldi berekoen arteko harremana euskaraz eta gaztelaniaz
- ↑↓ elkarren segidako belaunaldien arteko harremana euskaraz
- ↑↓ elkarren segidako belaunaldien arteko harremana gaztelaniaz
- ↑↓ belaunaldien arteko harreman hizkuntza aldatua
- ↑↓ belaunaldi ez jarraituen arteko harremana euskaraz
- ↑↓ belaunaldi ez jarraituen arteko harremana euskaraz batzuetan
- ↑↓ belaunaldi ez jarraituen arteko gaztelaniazko harremana euskarara aldatua
- ↑ seme-alabek gurasoei gaztelaniaz
- ↑↓ elkarren segidako belaunaldien arteko harremana euskaraz eta gaztelaniaz
- ↓ gurasoek seme-alabei euskaraz eta gaztelaniaz
- euskara nagusi
- gaztelania nagusi

Iruritako glotohistoriogramak



II. IRURITAKO ESKOLAK EMANDAKO DATUAK HIRU URTEKO IKASLEEN LEHEN HIZKUNTZAZ

Iruritako eskolak azken hamabortz urteotan datu kuantitatiboak bildu ditu eskolatu diren hiru urteko haurren lehen hizkuntzaren (edo hizkuntzen) gainean. Ondoko taulak adierazten du ikasturtez ikasturte hiru urteko zenbat haur eskolatu diren eta horietatik zenbatek izan duen euskara —hutsik edo gaztelaniarekin batera—lehen hizkuntza, hau da, zer hizkuntza zeki(zki)en haurrak eskolatu baino lehen.

Taula¹⁶⁴

Iruritako Ikastetxe Publikoko hiru urteko haurren lehen hizkuntzaz (1996-2012)

<i>Ikasturtea</i>	<i>Matrikulatutako hiru urteko haurrak</i>	<i>Lehen hizkuntza euskara (ere)</i>	<i>Lehen hizkuntza gaztelania⁸</i>	<i>Euskara lehen hizkuntza haurren %</i>
1996-1997	5	4	1	80
1997-1998	2	2	0	100
1998-1999	1	1	0	100
1999-2000	4	3	1	75
2000-2001	2	2	0	100
2001-2002	4	3	1	75
2002-2003	6	5	1	83,3
2003-2004	7	5	2	71,4
2004-2005	7	7	0	100
2005-2006	5	4	1	80
2006-2007	4	4	0	100
2007-2008	15	13	2	86,7
2008-2009	6	5	1	83,3
2009-2010	8	6	2	75
2010-2011	6	6	0	100
2011-2012	12	11	1	91,7

Iurria: Iruritako Ikastetxe Publikoak emandako datuak.

¹⁶⁴ Lehen hizkuntza gaztelania izan duten 12 haurrak sei familiatakoak dira.

12. AMAIUR IKASTOLAKO HIRU URTEKO IKASLEEN GURASOEEK EMANDAKO DATUAK: GURASOEN HIZKUNTZA GAITASUNA ETA ETXEKO EUSKARAREN ERABILERA

Taula

Amaiur Ikastolako hiru urteko ikasleen gurasoek aitortutako informazioa beren hizkuntza gaitasunaz eta etxeke euskararen erabileraz (2008-2012)

Ikasturtea	Hiru urteko ikasleak	Gurasoen euskara gaitasuna						Etxean
		Guraso biek badakite	Guraso batek baizik ez daki			Guraso biek ez dakite ongi	Guraso batek edo biek badakite	Euskaraz (ere bai) ⁹
			Batek badaki	Amak /A gurasoak badaki	Aitak /A' gurasoak badaki			
2008-2009	35	4	11	6	5	20	15	7
	% 100	% 11,4	% 31,4	% 17,1	% 14,3	% 57,1	% 42,9	% 20
2009-2010	50	7	14	8	6	29	21	14
	% 100	% 14	% 28	% 16	% 12	% 58	% 42	% 28
2010-2011	30	4	17	7	10	9	21	12
	% 100	% 13,3	% 56,7	% 23,3	% 33,3	% 30	% 70	% 40
2011-2012	51	6	24	10	14	21	30	10
	% 100	% 11,8	% 47	% 19,6	% 27,5	% 41,2	% 58,8	% 19,6

Iturria: Amaiur Ikastolako matrikulazio berrien fitxetan oinarriturik nik apailatutako taula.

¹⁶⁵ Euskara ez delarik etxean egiten den hizkuntza bakarra, gehien-gehienetan gaztelaniarekin batera egiten da. Bi kasutan, bi gurasoak euskaldunak izanda, etxean euskaraz ez ezik ingelesez (eta familia batek gaztelaniaz ere) egiten dutela aitortu dute.

13. AMAIUR IKASTOLAKO HIRU URTEKO IKASLEEN GURASOEK EMANDAKO DATUAK: BITARIKO BIKOTEEN FAMILIAK ETA ETXEKO HIZKUNTZA ERABILERA

Taula

Amaiur Ikastolako hiru urteko ikasleen gurasoek aitortutako informazioa guraso bat euskalduna duten familiez eta haien etxeke erabileraz (2008-2012)

Ikasturtea	Bikote mistoko familiak			Etxeko hizkuntza(k)	
	Oсотara	Amak /A gurasoak badaki	Aitak /A' gurasoak badaki	Erdara	Euskara eta erdara ¹⁰
2008-2009	11	6	5	8	3
	% 100	% 54,5	% 45,5	% 72,7	% 27,3
2009-2010	14	8	6	7	7
	% 100	% 57,1	% 42,9	% 50	% 50
2010-2011	17	7	10	10	7
	% 100	% 41,2	% 58,8	% 58,8	% 41,2
2011-2012	24	10	14	20	4
	% 100	% 41,7	% 58,3	% 83,3	% 16,7

Iturria: Amaiur Ikastolako matrikulazio berrien fitxetan oinarriturik nik apailatutako taula.

¹⁶⁶ Etxean euskararekin batera egiten den erdara hori ez da beti gaztelania. Bi familietan amek umeei euskaraz egiten diete eta aitek katalanez. Kasu horietan gurasoek familiaren hizkuntzak euskara eta katalana direla aitortu dute.

14. FAMILIEN GLOTOHISTORIA LABURTUAK

I. familia

Axun, Mateo eta beren hiru alabak, Irati (12 urte), Iruñe (11 urte) eta Ezti (8 urte)

Axun eta Mateo Irurritako Errekakoak dira. Axun (bera bakarrik izan dut berriemaile) senarraren sortetxera ezkondu zen eta abeltzaintzan aritzen da. Mateo hargina¹⁶⁷ da. Senar-emazteak baserrian bizi dira hiru alabekin eta aitatxi-amatxirekin. Familia euskaldunbetea da eta euskaraz aritzen da.

Axun 1970ean sortu zen Irurritako Errekako borda batean. Aita eta ama baserritarrak ditu. Axun bortz anai-arrebetatik txikiena da. Anaia, zaharrena zena, hamazazpi urte zituelarik hil zen. Orain lau ahizpa dira. Etxean «... beti euskaraz» egin dute aita-amekin eta ahizpekin. Axun honela mintzo da: «Oi, oi, oi! Falta gehiago egin digu erdarak euskarak baino». Ikasketak Irurritako Errekako eskolan, Baigorriko eskolan, egin zituen. Auzoko haurrak oinez joaten ziren eskolara. Honela oroitu da Axun: «Han bazkaltzen genuen. Andre batek prestatzen zigun bazkaria. Gero eramaten genuen batzuetan janaria etxetik: banabarrak, ilar gorriak... Aste batean tokatzen zitzaion bati eramatea, bertze batean bertze bati... Eramaten genituen arrautzak, etxeko gauzak». Eskolan arratsaldeko lau eta erdiak artio izaten ziren eta gero berriz oinez baserrira. Neguan «... aitak eta ekartzen zuten egurra eta beraiek puskatzen zuten. Egiten zuten auzolan bezala. Egiten zuten, egurra puskatzen zuten egun batez eta guk egiten genuen gero pilatu. O sea, joaten ginen eskolara eta aritzen ginen eskolan lanean ere bai, egurra pilatzen eta horrela». Axun haurra zelarik berrogei bat ikasle bildu ziren Baigorriko eskolan: «Eta nire ahizpa eta gehiago, berrogeita hamar, berrogeita hamabost...», oroitzen da. Maistra irurritarra zuten, Juanita Etxenike, euskalduna, baina eskolak erdaraz ziren. Gero, hura jubilatzearekin Iruñeko maistra bat etorri zitzaion, Rosa Mari Azkona, euskaldun berria, gurasoak irurritarrak zituen, eta horrekin hasi ziren zenbait eskola euskaraz izaten. Lehenago haur anitz zeuden Irurritako Errekan. Haur guztiak euskaldunak ziren eta euskaraz aritzen ziren elkarrekin. Eskolan baizik ez zuten erdaraz egiten: «... erdaraz egiten bagenuen eskolan zerbait... bueno baina aunitz ez ¡qué va!». Herrira ez ziren sarri jaisten: «Orakunde egunean bakarrik. Eta orduan sentitzen ginen, bueno, baserritarrak baino baserritarrak, e. Egoten ginen baserrikoak multzo batean eta herrikoak bertzean. Ez ginen elkartzen ere. Bagenuen... ez genuen harreman ona. ¡Qué va! (...). Nik ez dut batere oroitzapen ona herrikoak eta baserrikoekin, o sea, txikitan... bereiztuak sentitzen ginen. Baina orain aldatu da, baina, baina gure denboran bai (...). Ni nire haurtzaroan bai. Orain ez, orain ia [haurrak] etortzen dira herrira eskolara eta ia diferentea da. Baina lehen ez, e. ¡Qué va! Arras diferentea».

Axunek Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko (OHO) 7. maila artio ikasi zuen. Baigorriko eskolako ikasleek ez ohi zuten segitzen ikasten: «Irurritako Errekan gu, Baigorriko eskolan ibilitakoak arras gutti dira estudiatu dutenak». Eskola utzi eta lanean hasi zen eskolako haurrendako bazkaria prestatzen eta etxeak garbitzen, beti inguruan. Senarra, Mateo, haurretatik eza gutzen du eskolara elkarrekin joaten baitziren.

Mateo 1968an sortu zen Errekako baserri batean. Aita-amak Errekakoak ditu. Lau haurride dira, bi anaia eta bi arreba. Familia euskalduna: «Eta beraiek ere euskaraz, bai, bai. Beti euskaraz. Eta berak ere gauza bera erraten du: 'Buuu! Niri euskara... erdarak egiten dit falta gehiago euskarak baino!'. Mateok Baigorriko eskolan OHO egin eta berak ere ikasteari utzi zion. Gaztetxoa zelarik hasi zen lanean hargintzan. Orain koinatuarekin sozietate eginda jarduten du, beti Baztanen eta inguruan.

¹⁶⁷ Baztanen *hargin* erraten zaio *igeltseroari*.

Axunek hogeita sei urte zituelarik ezkondu ziren senarraren baserrira eta Mateoren aita-amekin hasi ziren bizitzen. Euskaraz aritzen dira: «... guk beti etxean euskaraz egin dugu eta orain ere bai, euskaraz, guk etxean euskaraz egiten dugu, beti euskaraz (...) senarrarekin, aita-txi-amatx... suegra eta suegroekin... eta nire amak ere bai».

Axunek etxean hazi ditu haurrak, amaginarrebaren eta amaren laguntzaz, eskolan hasi ziren artio. Iratirekin, alaba zaharrenarekin, zalantza izan zuen haurra Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxera —«kozentrazionera»— igorri ala herriko eskolan sartu. Axunen lagunek Elizondora eramaten zituzten haurrak: «Baserrietan badira nire lagunak ezkonduak eta eramaten dituzte denek kozentrazionera». San Frantzisko Xabier Ikastetxean eskolako garraio eta jantoki zerbitzuak dituzte eta Errekako gurasoendako erosoagoa da Irurritako eskola baino, baina Axunek senarraren arrebak erran ziona du gogoan: «Eta oroitzen naiz koinatak erraten zidan ‘ui, ui, uiiii! ez ez ezazu hasi Elizondora eskolara!’». Azkenean, hiru alabak Iruritan eskolatu zituen eta «... beraiek ere lagunak egin dituzte» herrian. Elizondora ikastera doazen baserriarren seme-alabek ez dute herriko haurrekin harreman handirik: «Orain ere nabaritzen da, ez hain lehen bezala, baina orain ere nabaritzen da asteazkenetan katekesian juntatzen dira eta joaten direnak kozentrazionera egoten dira pixka bat bereziak bezala. Hor ikusten da. Klaro, ezagutzen dira baina... (...) ez dute harreman hori elkarrekin». Irurritako haurrek, eskolan ikasten dutenek, harreman handiak dituzte elkarren artean.

Axunendako «... puxka hobekiago» haurrak herriko eskolara joatea eta ez, lehen bezala, Baigorriko eskolara. Irati ikasturte honetan Lekarozko Institutuan hasi da eta Irunek eta Eztik herriko ikastetxean segitzen dute. Neskatikoez eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzte Iruritan eta Elizondon: trikitia, eskubaloia, dantzak, abesbatza txikia bai eta katekesia ere. Dena euskaraz.

Axunek eskolan zenbait urtetan euskara ikasi zuen, halere batuarekin ez du ohitura handirik: «Oraingo euskara da diferentea. Inklusio aunitz gauza [Iratirekin] (...) ez ditut ententitzen beraien... gure euskara eta beraien... ari direna ikasten diferentea da». Lurreko Telebista Digitala (LTD) hasi artio baserrian bi kate baizik ez zituzten hartzen: «Ikusten genuen bakarririk ETBI eta ETB2. Ez genuen ikusten bertzerik».

Familiakoekin harreman handia dute. Haien baserriaren ondoan Mateoren arreba bizi da eta igandero bazkaltzen dute elkarrekin. Axun noiznahi joaten da bere sortetxera ama eta ahizpak ikustera (aita orain hamazazpi urte hil zen). Bai Materoren bai Axunen aldetik, familia osoa Iruritan eta Gartzainen dute.

Aurten (2011n) Orakunde egunean eguraldi txarra egin baitzuen eskolako haurrek ezin izan zuten baserrietara joan pusken eske. Iruneren gelakoei Axun eta Mateoren baserrira joatea egokitu zitzaion eta pena handia hartu zuten ezin zutelako joan. Iruneren azken urtea baita Irurritako eskolan (heldu den ikasturtean Lekarozko Institutuan hasiko da), Axunek bazkaria eginen die baserrian Iruneren gelakideei: «Aurten ez ziren joan denboragatik eta horrela baina bai, bai, joaten dira eta orain egin beharra dut, ez dakit noiz... [Irunek] du azken urtea Iruritan eta klaro, justo tokatzen zaie gure etxera etortzea bere gelakoak. Eta joe, kristoren pena zuten ezin zirela joan (...) eta erran nuen nik ‘bueno, bueno, egingo dugu ekainean’. Bazkaltzera gonbidatuko nituela egun batez gelakoak (...) orduan haserre gelditu ziren ezin zirela joan baserrietara ez dakit zer eta... Es que arras gustuko izaten dute Orakunde (...) eta baserriko jendeak aunitz-aunitz».

2. familia

Arroxa, Joxemari eta beren bi semeak, Oiban (7 urte) eta Hodei (5 urte)

Arroxa Irurritakoa da eta etxeoandre aritzen da (bera bakarrik izan dut berriemaile). Joxemari Elizondoko Beartzun auzokoa da eta Irurritako zurgindegi batean egiten du lan. Horretaz gain, Beartzungo sortetxean azienda du anaia batekin eta aitarekin. Bi seme izan dituzte eta euskaraz aritzen dira. Familia euskaldunbetea da.

Arroxa 1977an sortu zen Iruritan. Familia osoa Baztangoa eta nekazaria izan du. Aita Iruritako Errekakoa du eta ama Erratzukoa. Amaren aita, amaiurtarra, Argentinara joan zen gazte-txo zelarik eta han hogeita hiru urte eman eta ondoan Baztanera itzuli zen. Halere ez zuen euskara galdu: «Zeuden lehengusuak, nire aitaxiren anaia bat, baziren Amaiurtik jende gehiago eta mintzatzzen ziren euskara. Euskara ez zuen batere galdu. Baina erdara bai egiten zuen hango azentua».

Arroxaren familia osoa euskalduna da. Iruritako herriko pisu batean hazi zen gurasoekin eta bi ahizpekin, Jone eta Karmenekin. Arroxa zaharrena da. Txikitan gurasoak Elizondoko Baztan Ikastolara eramatekotan egon ziren euskaraz eskolatzeko: «... baina ibili behar zuten beraiek joan-etorrika eta ematen zien pena herriko lagunak, herriko kuadrilla... eta azkenean apuntatu zidaten hemen, Iruritan». Herriko eskolan, Errebote plazakoan, hasi zen lau urte zituelarik, erdaraz: «Orduan, ni hasi nintzelarik ez zegoen euskararik. En cambio, nire ahizpa dena ni baino bi urte gazteago [Jone] eta hasi zen euskara. Lehenbizikoak, nire ahizpa eta izan ziren lehenbizikoak [euskaraz ikasten]». Ondoko ikasmailetan (Elizondoko San Frantsisko Xabier Ikastetxean hamalau urte artio, Lekarozko Institutuan bi urte eta gero Elizondoko Lanbide Eskolan lau urte Administrazioko Lanbide Heziketa [LBH] egiten) euskara irakasgaia izan zuen. Arroxak eskolaren eragin erdalduntzailea nabarmentzen du: «Gu beti bizitu gara euskara, hori bai. Beti, beti, beti. Baina gero eskolatik ateratzen ginen... Nik ez dakit, erdara emate hori... lagunen tartean beti erdara. Kuadrillan beti erdara (...). Zortzi urterekin, orduan bai aritzen ginen erdara. Eta ez dakit, eskolan erdara eman genuelakoz (...). Dena, dena, dena». Ahizpak aldiz, euskaraz eskolatu ziren herriko eskolan hasi eta Elizondoko Lanbide Eskolan amaitu artio eta lagunekin euskaraz aritu izan dira beti: «[Jonek] eta eman zuten euskara eta beren kuadrilla beti euskara. Eta (...) [Karmenek] oraindik gehiago euskara».

Iruritako eskolan Arroxak maisu-maistra erdaldun eta euskaldunak izan zituen. Gogoan du Lizarrako maisu erdalduna izan zuela, gero handik urte batzuetara euskaldundu zena, eta horrek «... erraten zigun mintzatzeko euskara (...) zen erdarakoa baina erraten zigun». Izan zuten maistra euskaldun batek, M^a Dolores Goikoetxeak, «... horrek ere bai erraten zigun mintzatzeko gure tartean gero euskara. Hori klaro, amak erraten zigun ere: 'Begira, Maria Doloresek erraten dizue ateratzearekin eskolatik mintzatzeko euskara'. Hori bai erraten zigun gure amak, mintzatzeko euskara ere bai».

Oroit denez, katekesia On Jaimek —Jaime Andonegi Iruritako apezak— ematen zien erdaraz, baina bere gurasoek otoitzak euskaraz ikastea nahi zuten: «Guri orazionak erakutsi zizkiguten euskara baina hori nahi zutelakoz amak eta hori euskara ikastea (...) Don Jaimerekin beti erdara. Eta amarekin eta euskara beraiek nahi zutelakoz euskara».

Haurretan anitz joaten zen Erratzura, amaren sortetxera, eta harreman handiak egin zituen han: «Barrideekin, egin genituen lagunak ere bai... es que joaten ginen aunitz-aunitz». Berehala ohartu zen Irurita eta Erratzu euskara aldetik hagitx desberdinak zirela: «Gu [Iruritako lagun taldean] mintzatzzen ginen erdara. En cambio Erratzun dena da euskara. Taldean aritzen ginen, ez dakit, jostetan, ezkutatzera edo edozein gauzatarra baina euskara. Erratzun bai nik ezagutu dut hori. Gehiago euskara mintzatzzen zen han jendea. Edo joaten zinen tiendara erostera edozer gauza eta dendaria euskaraz mintzatzzen zen. En cambio hemen... baaa! Gero ere bai euskara baino igual lehenbiziko sarrera erdara ere bai. Hau zen erdaldunago».

Arroxa haur-gaztetxo zelarik Iruritan erdaraz aritzen ziren neska-mutikoak: «Oroitzen naiz aritzen zirela mutikoak pilotan edo palan eta erdara, erdara, erdara, bai». Iruritako lagun taldekoekin erdaraz aritzen zen «... en cambio Erratzukoekin euskara, arras euskara, baina dena euskara e!». Ahizpekin «... ttiki ginelarik euskara. Orain ia bietara. Baina mantenitzen dugu bastante euskara». Arroxak gogoan du Iruritako eskolan euskarazko irakaskuntza hasi zelarik bakar batzuk baizik ez zirela matrikulatu: «Lau edo bost. Gutti apuntatu ziren euskara. Gero bai sartu zen jende gehiago. Eta ia orain ez da erdararik». Eskolan euskara sartzek aldaketa handia ekarri du: «Gero ia euskarara kristoren kanbioa, bai. Eskolan bai (...) eta ia orain haurretan euskara dena, dena, dena. Kristoren kanbioa!».

Irurita Baztango bertze herri txikien aldean erdaldunagoa izan da beti: «Ni oroitzen naiz Anizkoak... klaro arras ttikia da, eta haiei beren tartean ez zitzairen erdara hitz bat ere eskapatzen (...). Herri ttiki horiek igual mantentzen zuten (...) Amaiur, Erratzu, Azpilkueta... mintzatzen ziren euskara. Igual Baztangoiza alde horretakoak... Arizkun ez (...) baina Erratzu eta bai (...) Arraioz ere bastante euskara mintzatzen zen igual (...) Iruritan eta Mugairin sorik batere, batere. Eta Elizondo ere ez¹⁶⁸». Baztanen eta ondoko eskualdeen arteko aldeaz ere ohar-tu zen Arroxa gaztetan Lekarozko Institutuan Malerreka eta Bortzirietako neska-mutilak biltzen baitziren; «Baziren Berako batzuk erdaraz mintzatzen zirenak baina, adibidez, Lesaka eta Igantzi ez, ziren euskara (...). Eta Malerreka (...) nabari zen beren tartean dena, dena euskara. Ziren Ituren, Zubieta, Oiz, Saldias (...) horiek bai euskara, euskara egiten zuten beren tartean, dena euskara mintzatzen ziren, bai, bai»¹⁶⁹.

Ikasketak akituta Arroxa lanean aritu zen Baztan inguruan: dendari Dantxarineko bentetan, administrari Bertizaranako enpresa batean eta neskame inguruko zenbait etxetan.

Joxemari 1969an sortu zen Elizondotik sei kilometrora dagoen Beartzun auzoan, familia nekazari eta euskaldun batean¹⁷⁰. Lau anaia ziren eta egun sortetxean aita eta anaia bat ezkon-

¹⁶⁸ Berriemailearen lekukotasunak 1970ean Sánchez Carrionek irudikatutako egoera soziolinguistikoa berresten du. Baztango herrietan euskarak bizitasun desberdina zuen: «La oposición no es sólo geográfica sino también lingüística» (1972: 115). Alde batetik, euskara gutxi-asko hizkuntza nagusia, eta zenbaitetan bakarra, zuten herriak zeuden, Baztango gehienak, Elizondo, Irurita eta Oronoz ez bertze herri guztiak. Erraterako, berriemaileak aipatzen dituenak bereziki kontuan hartuta: Anizen —Gartzainen eta Zigan bezala— euskara bizi-bizirik zegoen: «La vitalidad del vascuence es total, en todos los sectores» (ibid., 120). Amaiur erabat euskalduna zen «... a excepción de alguna familia de inmigrantes (carabineros, guardias civiles...)» (ibid., 126). Erratzun «... son vascófonos en su mayoría» (ibid., 119). Azpilkueta, «... pueblo de habla usual vasca, en donde hasta los propios niños en edad escolar se expresan en vascuence» (ibid., 121) nahiz eta nesken artean erdararako joera nabarmendu. Arraiozen «... se mantiene el vascuence como lengua usual de todos los sectores, habiendo muy pocas personas (y ellas forasteras) que no conozcan el idioma. Quedan en cambio personas unilingües vascófonas» (ibid., 118-119).

Bertze aldetik, Baztanen «... centros de más vigencia del castellano» (ibid., 119) atzeman zituen Txepetxek: «La castellanización tiene su foco en Elizondo, irradiando desde allí a Elveta. Irurita, en el cruce de los caminos del Baztán, tiene también la regresión muy avanzada; al igual que Oronoz, donde se bifurcan las carreteras para Irún y Dancharinea...» (ibid., 116). Elizondo «... es desde luego de absoluto predominio del castellano (...). El porcentaje de vascófonos es hoy en Elizondo un 20 por ciento de la población total (...). Los jóvenes hablan casi todos en castellano» (ibid., 116). Oronozen «... los individuos de 30 años en adelante suelen saber y hablar el vasco (...). No se les enseña actualmente a los niños, salvo casos aislados» (ibid., 118). Oronoztarren % 30ek euskaraz egiten zuten egunerokoan; % 40k bi hizkuntzak erabiltzen zituzten, gaztelania gehixeago; eta bertze % 30ek, bertakoak nahiz etorkinak izanda, ez zekiten euskaraz.

¹⁶⁹ Baztanen auzo eskualdetako herrietako egoera soziolinguistikoaren gainean berriemaileak ematen duen lekukotasunak ere bat egiten du Txepetxek azalduetakoarekin. Bortzirietan, Sánchez Carrionek A. Irigaray (1956) emandako Bera erdaldunduaren irudia berresten du, betiere herriguneari dagokionez, Berako baserriek euskara atxiki baitzuten (Sánchez Carrión, 1972: 109). Lesakan «... el vascuence es todavía usual» (ibid., 109) erdarazko eskolatzearen ondorioz haurrak gaztelania erabiltzen hasiak diren arren. Igantzin «... el vascuence es lengua usual en todos los sectores» (ibid., 110). Malerrekan, Oitz herri euskalduna da (ibid., 101). Ituren, euskararen jarraipenak dituen arrisku larriak dituela, «... la población es de predominio euskérico» (ibid., 104). Zubietan «... se mantiene el vasco en todos los sectores» (ibid., 98). Saldias «... pueblo vascófono cien por cien» (ibid., 92).

¹⁷⁰ Iruritako Erreka bezala, Elizondoko auzoek (Antzanborda, Berro, Beartzun eta Etxaidek) euskaldun iraun dute. Baserriek euskarari eusteko izan duten garrantzia hainbat egilek nabarmendu dute (i.e. Caro, 1986, 1995; A. Irigaray, 1956; B. Estornés, 1960). Zuzen da Sánchez Carrión Baztango baserri alderdiez honako hau zehaztean: «Toda la población de caseríos es absolutamente vascófona, incluso los caseríos que forman el cinturón de Elizondo o las 300 almas que habitan en los caseríos de Irurita» (1972: 123). Elizondoko herri-gunearen eta auzoen artean dagoen hizkuntza jauzia XX. mendearen hasmentatik zen nabarmena. Honela idatzi zuen Mariano Izetak 1979an: «Ni hemen sortua naiz eta nere ama ere bai, eta, baita ere nere aitexi eta

gabea bizi dira. Joxemari Iruritan aritzen da zurgin, bai eta nekazari ere Beartzunen, bere base-
rrian, anaia ezkongabearekin eta aitarekin. Beartzungo eskolan ikasi zuen OHOk 5. maila
artio eta handik Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxera joan zen derrigorrezko hezkun-
tza amaitzera. Dena erdaraz. Hemeretzi urterekin Iruritako zurgindegi batean hasi zen lanean.

Arroxak eta Joxemari gaztetan ezagutu zuten elkar. Arroxak hamalau urte zituelarik
Beartzunera joaten hasi zen eskolako lagun baten etxera eta orduan ezagutu zuen Joxemari.
Arroxak hamazazpi urte eta Joxemari hogeita sei zituztelarik adiskidetu ziren eta handik urte
batzuetara ezkondu. Oihan 2003an sortu zen eta Hodei 2005ean. Bi haurdunaldiak txarrak
izan zituen Arroxak. Etxean hazi ditu haurrak herriko eskolan hasi artio. Euskaraz aritzen den
familia osatu dute. Joxemari senarrarekin «... beti euskara, eta hurrekin ere bai, klaro. Gu
gehienekin eta euskara mintzatzen gara».

Euskararen erabileraren aldetik aldeak ikusten ditu Arroxak bere haurtzaroko Iruritatik
egungora: «Oroitzen naiz Irurita dela herri bat erdalduna. Ni gazte denborakoa... haur den-
borakoa eta aunitz erdara. Irurita zen... gero joaten zinen Erratzura eta han hainbertze euska-
ra. Baina hemen zen arras erdara, erdara (...). Orain gauzak kanbiatu dira ja euskaraz ikasten
dute eta mantentzen dute baina... eta beti izan du fama Iruritik. Denek-denek iruritarrei
belarrimotz. Aunitz nik aditu dut. Baina gaur egun ez, ja hurrek euskara ikasten dute eta ja
ikusten dut (...). [Oihan eta Hodei] denekin-denekin ia euskaraz aritzen dira. Denekin». Elkarren
arteaz ere euskaraz aritzen dira beti bi anaiak. Lehengusu-lehengusina guztiak euskal-
dunak dituzte (Beartzunen eta Elbeten) eta harreman handia dute. Hurrek Beartzunera joatea
eta aziendarekin ibiltzea maite dute. Maiz joaten dira aitaren sortetxera.

Oihan seme zaharrenari ebakuntza egin zioten lau urte zituelarik eta Iruñeko ospitalean
izan zen denboraldi batez. Hango mediku-erizainek erraten ziotena du gogoan Arroxak: «Han
ospitalean enfermerak eta medikuak eta beti tema bera, 'tienen que aprender a hablar en caste-
llano. Si quieren el euskera mantener, pero el castellano tienen que aprender'. Batek baino
gehiagok e! Pasada bat!». Berriki Hodei seme txikia ere «... egon da ingesatua eta han ere bai.
'¿Qué mal habla este crío en castellano!'. Eta entenditzen du dena e! 'Sí, es que está ap... es que
hablamos en euskera'. 'Pues tiene que aprender a hablar en castellano'. Eta orduan nik erraten
nion: 'Ya aprenderá'».

Hurrek euskara gorde dezaten arduratzen da: «Eta da gure hizkuntza ere bai, ez dakit.
Ez badugu mantentitu behar guk... guk mantentitu behar dugu azkenean. Bertzenaz galduko da.
Eta zerbait gurea da. Ez dakit. Eta gure hurrei bai, Iruñean erraten ziguten: '¡Esto no es el País
Vasco! No, esto no es Euskadi!' erran zigun batek (...) ez dakit zen erizaina edo... '¡Esto no
es Euskadi!' Así como diciendo... 'Bueno, nosotros hablamos en euskera. Eta ya está!' guk
mozten genuen horretan. Baina ez. Eta badakite [semeek erdara] (...) [Oihan] bastante ari da.
Klaro, erdara ematen dute eskolan astean bi edo hiru ordu ematen du erdara ere bai, Lengua
castellana, eta Inglés ere bai. Ari da ikasten, baina bueno... Niri ez dit preokupatzen horrek
(...). Nahiko nukeena bai da mantentzea euskara beraiek ere bai gero handitzearekin segitzea
mantentzen, porque azkenean hori da erakutsi duguna guk: mantentzea».

Arroxak bere lagun taldean erdaraz egiteko ohitura izan du beti eta orain ere hala du,
adiskide euskaldun batekin izan ezik: «Nik kuadrillan beti eta oraindik gaur ere bai e! batekin
ezik, batekin mintzatzen naiz euskaraz baina gainerakoekin dena erdara. Bueno, gero ja joan
ziren Iruñera kuadrillakoak eta ja erdara total hasi ziren». Erreboteko plazan elkartzen diren
amen artean erdara izaten da nagusi, baina hurrekin mintzatzeko aldiz euskaraz aritzen dira
gehienak: «Hemen Errebotean, pues emakumeak egoten garelarik bastante erdara e! (...).

amatxi eta aintzinekoak ere dudarik gabe. Hortaz, badakit hemengo berri. Lehenago ere gure haur denboran,
duela berrogeita hamabortz urte, Elizondoko kaletarrak erraz erdaldunduak zauden, orduan ere, Elizondoko
karraketan erdara nagusi. Kaletarrak bai erdaldunak, baina, ez ordea auzokoak eta baserrietan bizi zirenak, hok
guziak euskaldun garbiak baitziren. Denbora hartan baserrietan eta herri ttipietan ez zen erdararik» (1999: 29).

Andreen artean erdara eta gero joaten zara haur batengana eta euskara. Bai, hori bai bada». Haurrei erdaraz egitea arraroa egiten ote zaion galdeginda honela dio: «Niri es que ez zait ateratzen ere ez. Ni lehenbizitik jarri nintzen euskarari hurrekin. Gu etxean mintzatzen gara euskara, senar-emaztea dena euskara, aita eta ama euskara. Eta hurrekin es que ez zait ateratzen erdara! Es que han ospitalean ere egon zelarik [Hodei] es que ez zitzaidan ateratzen! Es que... es que... ez zitzaidan ateratzen! Es que... trabatzen nintzen! Ez ezi... Ez! Ez naiz saiatzen ere e! Kostunbrea, nire irudian da ohitura bat».

Arroxak ez du etxetik kanpo lanik egiten. Hala bada, berak ematen die haurrei bazkaria etxean eta arratsaldean haiekin izaten da. Oihan eskolaz kanpo pilotan aritzen da herrian berean, euskaraz. Noizbehinka Arroxak Elizondoko Baztango Liburutegira eramaten ditu haurrak gogoko liburuak har ditzaten. Etxean liburu gehienak euskarazkoak dituzte. Umeek ez ohi dute telebista anitz ikusten. Bob Esponja, Gormitis... eta halako teleaioak dituzte gogoko. *Ttapi-ttapa* hamaboskaria hartzen dute etxean eta Xorroxin irratia eta Euskadi Gaztea entzuten dute.

Asteburuero Beartzungo lagunekin joaten dira afaltzera Elizondora, haurrak eta guzti. Beartzundarrekin beti euskaraz aritzen dira.

3. familia

Miren, Nikolas eta beren bi alabak, Maider eta Irantzu (10 urtekoak)

Miren iruritarra da (nahiz eta Mexikon sortua) eta Nikolas erratzuarra (biak izan ditut berriemaile). Bi alaba dituzte eta euskaraz aritzen den familia osatu dute. Miren maistra da Irurita ondoko herri txiki batean eta Nikolas postaria eta abeltzaina Erratzun.

Miren 1966an sortu zen Mexiko DFn, gurasoak Baztandik hara joanak baitziren lan egitera. Miren alaba bakarra da. Ez zuen euskara gurasoekin ikasi. Aita elizondarra zen eta euskalduna, ama iruritarra baina erdalduna. Mexikon bizi izan ziren «... dena erdaraz». 1971n, Mirenek bortz urte zituelarik, Mexikotik itzuli ziren Iruritarra, amaren sortetxera. Iruritan hasi ziren bizitzen elkarrekin aitatxi-amatxik (euskaldunak), gurasoak (aita euskalduna eta ama erdalduna), hiru osaba (erdaldun) eta Miren. «Ni handik etorri nintzen arras erdalduna», dio. Aitatxi-amatxik denda bat zuten Iruritan. Aitak Lesakako Laminaciones enpresan harrapatu zuen lana eta ama etxeko lanetan aritu zen. Miren oroit denez, aitak «... arras ongi bazekien euskaraz, baina beti zuen joera erdarara». Bere ustez, aitak gaztetan gaizki pasatuko zukeen erdara ez ongi jakiteagatik, baina hori nola bizitu zuen behin ere ez zuen aipatu. Erdaragatik sufritu duen jende dezente ezagutzen du Mirenek: «Hemen Iruritan jende aunitzek gaizki pasatu du erdara ez zekitelakoz. Eta jasotzen zuten horrelako bazterkeria edo (...). Ateratzen delarik gaia ikusten dut arras minduak eta daudela».

Mirenen amak ez daki euskaraz, guraso euskaldunak izanda ere: «Amak bizi guztia pasatu du (...) etxeko aferetan, ez da harremanatu jendearekin horrela. Orduan etxean giroa erdalduna zuten eta hortaz ez zuen deus, baina es que deus, deus ere ikasi. Eta osabek ezta ere». Mirenek dio beti kontraesana iruditu zaiola amaren ama, amatxi «... horrelako nazionalista» izatea baina zazpi seme-alabei euskara irakatsi ez izana. Bere etxean beti erdaraz egin dute: «... etxean den-dena erdaraz. Nik aitatxi eta amatxiri bakarrik aditzen nien euskaraz baserritarrekin (...) dendan. Dendan bai aritzen ziren euskaraz baina etxean, sukaldean eta beti erdaraz».

Hala bada, haurtzaroan Mirenek ez zekien euskara: «Ama erdaldun hutsa zen eta orduan niri beti erdaraz egin didate». Honela dio bere buruaz: «Nire haurtzaroan erdalduna nintzen, belarrimotz. Ez nekien euskara». Mirenek gogoan du orduan, 1970eko hamarkadan, Iruritan haurrek ez ohi zekitela euskaraz: «... erdaldunak ginen (...) den-dena, kanpoko bizitza dena, Irurita zen arras-arras erdalduna (...) Joko guztiak, sokasaltoan edo kantu guztiak ziren erdaraz». Eskolaldi osoa (Iruritako eskolan, Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean, Oronozko Institutuan eta azkenik, Iruñeko Irakasletza Eskolan) erdaraz egin zuen.

Halere, txikitatik sentitu du «... euskararekiko lotura bat, euskara edo euskal kultura, mundua, sentimenduekin (...) txikitatik euskarara joera edo maitasuna» eta 1970eko hamar-kadaren bukaera aldean, berak hamaika edo hamabi urte zituelarik, Iruritan erdaldunei euskara irakasteko gau-eskola sortu zen eta Miren hasi zen euskalduntzen. Hurrengo urteetan Elizondoko AEKn ikasi zuen. 1982an, hamasei urte zituelarik Elizondoko Lanbide Eskolan helduendako euskara eskolak hartu zituen eta gero EGA prestatzeko Baztan Ikastolan ematen zituzten ikastaroetara joan zen.

Iruritan izandako apez euskaldunek, Jesus Jaimerenak bereziki, utzitako euskaltzaletasun hazia nabarmentzen du. Miren beti hagitx emakume gogotsua izan da, «borrokalaria» dio berak, eta herriko bizitza kulturalen oso sartuta ibili da. 1990 aldera, Mirenek hogeita lau urte zituelarik, Iruritan gatazka sortu zen euskararen inguruan. «Nahasi zen dena» oroit da, eskolan D ereduja jarri zuten eta «... guraso aunitz euskararen kontra» jarri ziren. Irurita, bai eta Elizondo eta Oronoz ere, «... arras-arras erdaldunak» ziren eta «... eman da kristoren aldateta». Orain gazteei «... euskaraz aditzen diezu», dio pozik Mirenek. Horretan eskolaren eragina nabarmentzen du: «Eskolan D ereduja izatean ere nik uste dut bultzada handia eman diola euskarari, zeren eskolatik pasatzen diren haur guztiek eskolatik ateratzearekin euskara badakite (...). Euskara aunitz aditzen da gazteen artean». Mirenen belaunaldia ere aldatu da: «... seme-alabekin harremana euskaraz» izaten dute. Miren euskarazko tokiko bi hedabidetan (Xoxorin irratian eta *Tipi-ttapa* aldizkarian) Iruritako berriemaile aritzen da eta horregatik jendeak lehen baino gehiagotan egiten ohi dio euskaraz: «Horrek aldatu du nire ingurua (...) aldatu dute rol hori eta pasatu dira erdaratik euskarara».

Mirenen senarra, Nikolas, 1961ean sortu zen Erratzun. Aita eta ama erratzuarrak ditu. Hiru anai-arrebetatik zaharrena da. Euskara etxean ikasi zuen, familia euskaldunbetea da¹⁷¹. Etxean osatua zuten, aita herriko postaria zen eta gainera, behi batzuk zituzten. Nikolas erdaraz eskolatu zen (Erratzuko eskolan, Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean, Lekarozko Nuestra Señora del Buen Consejo kaputxinoen ikastetxean, Elizondoko Lanbide Eskolan, Iruñeko Virgen del Camino Institutuan eta Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolan).

Bera oroitenez, gaztetxo zelarik «... egunkariak ziren denak erdaraz. Ez genuen ja [xa] irakurtzeko euskaraz. Niri gustatzen zait pila bat irakurtzea. Eta orduan ja hasi nintzen erdaraz irakurtzen eta klaro, niretako ja ailegatu zen momentu bat errazagoa zela solas egitea erdaraz. Ohitura hori, irakurtzekoa, eta eskolakoa...». Baina aski garbi du gogoan nola «... aita haserretzen zen pila bat solas egiten bagenuen erdaraz»: «... 'zer, ez dakigu solasean edo zer?'. Klaro, gu eskolara joaten ginen erdaraz. Baina nire aita haserretzen zen pila bat, a ver zer demontre ari ginen erdaraz solasean. 'Ez dakigu euskaraz edo?'. Bai, bai, beti oroitzen naiz». Nikolasek orain uste du «... azkenean gelditzen zaizula (...) matxakatu zaituzte eta igual lehenbizian ez zara ohartzen, ez zara ohartzen baina azkenean, jode, nire aita egon da matxakatu niri pun, pun, pun, segi, segi, segi... pues segi. Zer... raro zen. Ezagutu dut aldrebes, erratea semei 'ut ezazue euskara eta ikasi erdaraz!'. Eta hori kostatu da aldatzea».

Nikolasek eta Mirenek gazte ezagutu zuten elkar, eta erdaraz: «Oraindik horrek badu pisu bat (...) gure harremana euskaraz da baina tarteka erdarara joaten gara, bai. Baina, horixe bai, etxean bizitza egiten dugu euskaraz dena», dio Mirenek. Gaztelaniatik euskararako aldaketa hori ez da bikotekideen artean bakarrik gertatu, «... nire adinekoekin bezala, dena erdaraz aritzen

¹⁷¹ Erratzun hazitako berriemaileak azalduko 1970ean Sánchez Carrionek atzemandako egoerarekin bat dator: «... son vascófonos en su mayoría. Salvo familias de carabineros todos conocen el vasco, pero las chicas y los niños, bilingües, prefieren expresarse en castellano. El euskera se sigue transmitiendo a los niños como lengua preescolar, y en las relaciones bisexuales rige el vasco: gracias a ambos procesos la vitalidad del vascuence no parece amenazada (...). Las funciones religiosas son la mayoría en vasco. La introducción del castellano tras la postguerra ha sido debida, entre otros factores, a las guarniciones de frontera, a la persecución política y más modernamente a los medios de comunicación» (1972: 119).

ginen lehen eta orain dena euskaraz aritzen gara. Nik uste dut dela euskaldun kontzientzia (...) biek dugu kontzientzia hau aitzinat atera behar dela eta euskararekiko harreman den guzia... Eta haurrei erraten diet 'Sanzek eta Barcinak ez digute lagunduko. Hau guk egin behar dugu'».

Maidar eta Irantzu sortu zirelarik Mirenek ez zuen inolako zalantzarik izan alabei euskaraz egiteko: «Txikitatik ja badut euskal kultura, euskara (...) ja txikitatik tiratzen zidan pila bat eta txikitatik arras garbi dut hori defendatu behar dugula, hori dena gaurkotu eta presente izan behar dugula. Orduan ez dut inongo dudarik izan seme-alabekin...». Alabei euskararekiko arduratza transmititzen saiatu da: «Ez dakizu zer txapa sartzen diegan gu euskaldunak garela, gure euskara zaindu behar dugula (...) hauek [alabek] etxean bizitzen duten giroa da arras errespetatu, mantendu, txukundu eta zaindu behar dugula (...) azkenean gu gara gure seme-alaben erreferentziak».

2000. urtean haurrak izan eta amatasun baja akituta, haurtzain euskalduna, herrikoa, hartu zuten. Haurrek orain hamar urte dituzte eta Iruritan daude eskolatuta. Alabek etxean euskaraz egiten dute baina harreman handia dute Iruritako amatxirekin, euskaraz ez dakienarekin. Bi neskatikoez eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzte euskaraz batik bat. Irakurtzeko orduan, azkenaldian erdara hautatzen dute eta horrek kezkatzen du Nikolas: «Nik erraten diet dena irakurtzen dutela erdaraz eta a ver noiz hasi behar al duten euskaraz (...). Orain dena erdaraz, 'ez dakit zer duzuen orain zuek bat-batean erdaraz hasteko irakurtzen?'». Telesaiak ordenagailuan ikusten dituzte «... telebistan bezala (...) beraiek nahi duten programa», dena erdaraz. Haur programazioa ETBietik kendu dutenez geroztik haurrek ez dute telebista euskaraz ikusteko aukera, kexu da Miren: «TDT dagoenetik ETB guttiago ikusten dugu».

Bi gurasoak beren alabengan euskal kultura sustazen saiatzen dira: irakur dezatela euskaraz, ikas ditzatela euskal kantuak, dantzak... Miren, ama eta maistra gisa, hagitik kezkatuta dago euskararen kalitatearekin, haurrenarekin bereziki: «Uste dut euskaraz gero eta makurrago solas egiten dugula. Kristoren erdararen eragina duela euskarak eta hori ohartzen naiz (...). Etxean ikusten ditut haur hauek [bere alabak] eta lagun batek ere gauza bera aipatzen zidan. Bat-batean seme-alabak *subitu*. Nola *subitu*? Eta ohartzen naiz nire alabek ere hitz pila bat erraten dute erdarakatu edo erdarako hitza hartu eta paratzen diote hor berean *oa, tu*». Alde horretatik aldeak ikusten ditu Baztango herri euskaldunagoko haurren euskararen eta Iruritako haurrenaren artean: «Adibidez, Azpilkuetan familietan badute hiztegi bat, bueno aberasgarria baino aberasgarriago».

Mirenek eta Nikolasen garbi dute herrikoak direla. Nikolasendako haur-gaztetxotan «... Elizondo zegoen estratosferan». Orain ere, ezinbestekoetara baizik ez dira Elizondora joaten: «Herrietan bizi garenondako Elizondo da bertze... beti solas egiten dugu herrietakoak eta Elizondokoak. Eta beti izan da kristoren bereizketa eta nik uste dut bereizketa horrek oraindik segitzen duela», deritza Mirenek.

4. familia

Lola, Andres eta beren bi semeak, Eneko (10 urte) eta Izei (6 urte)

Lola Irurita da eta haurrak hazi eta ondoan berriki hasi da berriz lanean ondoko herriko merkataritza-gune batean (bera izan da nire berriemailea). Andres Ezkurran sortua da eta Ultzamako lantegi batean aritzen da. Bi seme izan dituzte eta euskaraz eta erdaraz aritzen den familia osatu dute.

Lola 1970ean sortu zen Iruritan. Bere sortetxea herriaren erdi-erdian dago. Gurasoak iruritarak, euskaldunak ditu. Ama Iruritako Errekakoa eta aita herrikoa. Lola txikia zelarik familia abeltzaintzan aritzen zen, behi azienda zuten. Haurretan «... beti kanpoan, etxean gutti egoten» ziren: «Que si mendian, que si fff... jostetan alde batera, bertzerat, lagunekin egun guzian. Arras... kanpoko umeak». Etxean aita-amak eta lau haurride ziren. Bi neska eta bi mutil. Lola hirugarrena da. Ahizpa zaharrenarekin, Lourdesekin harreman oso estua du. Haurretan aitaren aldetikako aitaxi eta amatxi ere haiekin bizi ziren etxean: «Ni gehien oroitzen naizena da gaueko errezoak, o sea, juntatzen ginen eta aitaxi eta amatxi puz errosarioa,

gauza horiek, pues gauetan pues egiten genuela (...). Eta gero etorri ziren Elizondora bizitzera aitaxi eta amatxi». Etxean azienda izanda aita-amei lagundu behar izaten zieten: «Artoa xuritu, gero artoa eramaten zen sabaira (...) larreetara ere joaten ginen. Klaro, udan. Bueno, niri tokatu zait guttiago, zeren bi anai-arreba dira zaharrago, ailegatzen ziren gehiago».

Etxean egiten zuten hizkuntzaz galdeginda: «Guk beti erdaraz, beti erdaraz gure artean, bai». Aitaxi-amatxi Errekakoek, amaren gurasoek (oso gazte hil zirenek) eta aitaren gurasoek euskaraz egiten zutenetz ez da ongi oroitzen: «Pentsatzen dut euskaraz egiten zutela. Pentsatzen dut baina ez dakit». Lolak dioenez, etxean aita-amek euskaraz eta erdaraz tarteka egiten zuten: «Haien artean (...) edozein momentutan egiten zuten euskaraz ala erdaraz. Haiet hitz egiten zuten bietan. Baina gurekin beti ohituratuak erdaraz».

Ama Iruritako Errekakoa baitzen etxean aditu du Lolak euskaraz aritzen zirenei herrikoek egin ohi zizkieten trufak: «Nire ama (...) bertzeak bezala (...) estudiantzen zuen (...) baserrietako eskolan (...) Baigorriin, bai. Eta gero etortzen ziren herrira, aitatu izanen duzu milaka aldiz, eta egiten zieten burlatu ez zekitelakoz deus erdaraz. Eta orduan, pues oraino badute kristoren trauma eta ja gero pues hasi ziren erdaraz, erdaraz eta...». Amak sufritutakoak kontatu ote zizkien galdeginda, baietz dio Lolak: «Bai, bai, kontatu zigun. Eta gero badu bertze ahizpa bat halere, da gazteago, aise gazteago nire ama baino [hogeit bat urte gazteagoa] eta halere, badu, o sea, makurrago. O sea, kristoren trauma badu eta alabari, o sea, ja hasi zen pues hemen horrela D erduan nola denak matrikulatzen diren, pues berak alabari, bakar-bakarra bertze batekin erdarara bidali zion. O sea, ez zuela aditu nahi ere euskararako kontu. Eta bueno, orain ja aldatu da. Alaba handitu da eta atera du EGA eta dena, pues bueno, ja ikasi du euskara baina bere amarengatik ez zuen ikasi izanen bazuelakoz buuu! Klaro, behin etorrita herrira eta burlak baina..., pues egiten zuten lehenago bezala, euskara zen pues baserrietan ibiltzen zena eta erdara bazekiena pues, herrikoa (...) badute trauma bat horrekin!».

Lolak bere haurtzaroa erdaraz oroitzen du. Dena zen erdaraz: «Dena, dena, dena. Eskolan, lagunekin... Nire lagunek ez dakite euskaraz ez da batere, ez dakite, dena erdaraz... (...) ni eta bertze bat bere ama dela Zigakoa, eta bueno, harek ere badaki euskaraz baina bertzeak ez dakite deus, deus, deus euskara. Dena erdaraz».

Iruritako eskolan egin zituen lehen ikasketak, erdaraz. Handik OHOKo 5. mailan hasteko Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxera pasatu zen eta han «... gelditzen ginen egun guziko, bazkaltzera eta dena». OHO akituta, Administrazioiko LBH, bertz urtekoa, egin zuen Elizondon.

Haur-gaztetxotan euskaraz egiten zuen galdeginda ez daki ziur: «Nik pentsatzen dut erdaraz, es que ez dakit euskaraz banekien ere. Es que ez dakit, buuu! ¡Qué va, qué va! Nik euskaraz arras gutti». Txikitari zer gaitasun zuen euskaraz ez du garbi Lolak: «Nik banuen zerbait... nik nonbatetik ikasi nuen zerbait. Ni zerotik ez nintzen hasi, zerbait banekien. Erdaraz ikasi nuen, erdaraz, baina pentsatzen dut aitaxi ta amatxirekin edo norbaitetik euskara nik banekien zerbait. Bertzenaz ni zerotik ez nintzen hasi (...). Lo que pasa es que ez nuen praktikatzeko, orduan beti como... beldur hori, ez?».

Lanbide Eskolan ikasten zuen hasi zen euskara irakasgai izaten eta garai horretan, hamasei-hamazazpi urterekin, ekin zion hizkuntza lantzeari: «Hasi nintzen ia estudiantzen euskara nire kabuz, nire kabuz». Gero «... solasean laxatzen» hasi zen: «Egin nuen ikasi solasean eta dena ja pixka bat ongi». Garai horretan lagun taldean beti erdaraz aritzen ziren: «Erdara, erdara. Beti erdaraz, bai, bai... es que lagunen artean ez dakite euskaraz ta baa!». Bere lagunetatik inor ez zen hasi bera bezala euskara ikasten: «Ez, ez, ez da bat ere. Inork ere, ez, ez, ez».

Lolaren ahizpak, Lourdesek, irakasle ikasketak egin zituen Iruñean eta EGA atera zuen. Ahizpak bultzatu zuen euskara ikasten hastera bai eta horretan lagundu ere. Lola ez zen euskaltegira joan: «Liburuekin eta gero nire ahizpak atera zuen EGA eta berak pixka bat orientatzen zidan. Eta gero *Jo ta ke* liburua (...) joan nintzen etxean prestatzen eta [HEOKo] laugarren maila artio atera nuen, bai. Eta bosgarrena ez nekien zer egin eta azkenean, ordutegia ez nuen... bueno, joan behar nuen IKARA Doneztebera baina azkenean ordutegiaren arabera... hasi nin-

tzen lanean eta ¡se acabó!». Ikasketak akituta, administrari izateko lan deialdietara aurkezteko aukerak izan zituen: «Eta bueno, hor hasi nintzen ere bai pues prueba batzuetan pues igual pentsatzen ere bai eta eskatzen zuten el EGA, bertzenaz proba batzuk. Administratibo ateraz gero... eta horretan ja igual sartu nintzen gehiago eta gero... gizonarekin hasi nintzenean pues hasi nintzen mintzatzen eta ¡ya está! Eta gaur artio».

Lolak eta Andresek Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan ezagutu zuten elkar hamazazpi urte zituztelarik. Orduan gazte guztiak erdaraz aritzen ziren. Andres ere bai bere adiskideekin: «Haiek ere lagun taldean erdaraz aritzen ziren. Orain ez, orain euskaraz aritzen dira». Hogeita bi-hiru urte zituztela hasi zuten harremana eta hogeita bederatzirterekin ezkondu ziren, Iruritara.

Andres 1970ean sortu zen Ezkurran (Malerreka). Aita-amak bertakoak ditu, euskaldun hutsak¹⁷². Andresek hiru arreba ditu. Bera lau haurrideetatik txikiena da. Oinarrizko ikasketak erdaraz egin zituen herriko eskolan, «... hala ere, mantendu zuen euskara gehiago», dio Lolak. Andresek eskolatik atera eta ez zuen ikasten segitu: «Seme bakarra eta etxeko lanetara baino kasi-kasi bortxatua». Andresen arrebek ere ez zieten ikasketei jarraitu: «Segidan hasi ziren ja Iruñera lanera, etxetara (...). Ez zieten eman aukerarik ere estudiatzeko arrebei. Joaten ziren lanera segidan».

Ezkurra herri euskaldunagoa da Irurita baino: «Ezkurran euskaraz aritzen da jende guzia» —dio Lolak— baina «... euskara arras diferentea da, arras, arras. Ni ja ohituratu naiz». Ezkurra gainbeheiti heldu den herria iruditzen zaio Lolari: «Ari da bajatzen (...) zahartzen ari da ¡una pasada!». Andresen hiru arrebak herritik kanpo bizi dira, bi Donezteben (Malerreka) eta bertze bat Lezaunen (Deierri). Andresen adinekoetarik ere inor ez da herrian gelditu. Doneztebera, Leitzara eta, batik bat, Gipuzkoa aldera jo dute denek. Andresen gurasoek semeak etxeari segituko ziola espero zuten, baina Andres Iruritara ezkondu zen.

Behin esposatuz gero Lola mekanografia eskolak ematen aritu zen Baztanen, Donezteben, Bertizaranan... Euskaraz irakasten zuen. Lehen haurra, Eneko, izan eta ondoan ere segitu zuen lan horretan, baina bigarrena, Izei, sortu zelarik utzi zuen. Berak hazi ditu haurrak. Ahizpak ere hiru ditu, adintsukoak. Lourdesek izan zuen lehendabizi eta Lolak zaindu zion umea. Gero berak izan zuen eta ondotik Lourdesek bigarrena: «Hola ibili naiz txandaka nire ahizparekin eta zaindu dut denei (...). Ahizpak segitzen zuen lanean eta nik zaindu diot denei». Lola beti izan da etxean haurrekin. Inoiz ez du haurtzainik hartu, haurrak «... beti nirekin» dio.

Andresek eta Lolak Eneko izan zutelarik ez zuten espresuki adostu haurrari nola eginen zioten. Orduko Lola jarrita zegoen Lourdesen lehen haurrekin euskaraz egitera eta horrela segitu zuen bere umeekin ere: «Guk haurrekin beti egiten dugu euskaraz, ez dakit zertaz. Ez dakit, ja orduko sortu zen iloba eta nik zaintzen nuen iloba eta beti euskaraz ere bai harekin. Eta ez dakit, ez, ez, ez ginen solastu». Umeekin aritzeak lagundio dio Lolari euskaraz aiseago egiten: «Eta gero umeekin ere laxatzen zara gehiago».

Euskaraz mintzatzen hasteko prozesuan senarra euskalduna izatea ere lagungarria izan zaio Lolari: «Pues gero, pues ja gero, gizona... bueno gizona dut Ezkurrakoa (...). Eta bere ama eta aitak ez zekiten erdaraz. O sea, mira zer kanbio! Eta orduan hasi nintzen gehiago. Bueno, hombre, beti banekien, zerbait banekien... hola base bat banekien, baina ja gero haiek in solasean-solasean, ez zekitela erdaraz pues beti euskaraz, euskaraz eta azkenean, bortxatzen mas o menos eta azkenean, pues ja hortaz laxatu nintzen pixka bat eta ja gero haurrekin pues bueno, ja azkena. Baina bueno, ni senarrarekin nik erdaraz eta etxean segitzen dugu erdaraz. Es que ja ohituratzen bazara pertsona batekin erdaraz aritzera, ja niri gero kostatzen zait euskarara aldatzea pila bat. Eta arrebarekin eta denekin beti erdaraz».

¹⁷² Berriemailearen lekukotasuna bat heldu da 1970ean Sánchez Carrionek Ezkurraren gainean azaldutakoarekin: «Toda la población es vascoparlante, con niños pseudobilingües vascófonos (...). La fuerza del vasco en los niños ezcurrenarras está ahora en que se encuentran al salir de la escuela en un medio prácticamente unilingüe vasco, y la presión del medio hace que sea ésta la lengua dominante más allá del ámbito familiar» (1972: 90).

Lolaren anai-arreben artean neskek baizik ez dute euskara landu, baina «... solasean bada-kigu lauak». Lola ahizparen eta bigarren anaiaren ondo-ondoan bizi da, «... denak elkarrekin», bere sortetxean, Iruritarien erdi-erdian. Anaia txikiena Elizondon bizi da eta ume bat du. Lourdesek senarra Erratzukoa du, euskalduna eta hiru haur dituzte, hamahiru, bederatzia eta borts urtekoak. Bigarren anaiak emaztea Elizondokoa du, baina euskaldun traketsa da, aita-ama euskaldunak baditu ere. Bi haur dituzte, sei eta bi urtekoak. Lolaren eta Andresen seme zaharrena, Enekok, hamar urte ditu eta Izeik sei, beraz beren adineko lehengusu-lehengusinekin ibiltzen dira: «... beti elkarrekin (...) anaiak bezala» hazi dira. Elkarren ondoan bizi baitira, denak batera joaten dira eskolara: «Esperatzen diote bat bertzeari. Denak elkarrekin». Haurrak beren artean euskaraz aritzen dira: «Euskaraz, bai, bai, bai. Haien artean beti euskaraz». Lourdesek eta Lolak haurrei «... beti euskaraz» egiten badiete ere, elkarren artean erdaraz aritzeko «ohitura» dute. Lolak euskaraz gutxitan egiten duela aitortzen du, «... praktikatzen dut gutti», baina haurrekin bai: «Haurrekin, haurrekin ja ohitura hartu dut eta beti euskaraz haurrekin, bai».

Lolaren amak ere euskaraz egiten die bilobei: «Bai, hombre baietz! Hala egiten diete, bai, bai. Euskaraz egiten dio orain nire amak (...). Es que gu aritzen gara euskaraz haiekin eta por lo visto ama ere ohituratu da beraiekin euskaraz aritzeko eta euskaraz, bai, bai».

Lolaren eta Andresen semeak euskaraz aritzen dira erosoan: «Joaten garelarik Iruñera medikueta eta hola bueno... [irri egiten du] horiek ez dire laxatzen. Nireak behinik behin erdararekin dabilta nahiko... hor, kortatuak, bai, bai. Igual medikuak erraten dio edozein galdera eta gelditzen dira hor como... ez dute kontestatzen. Edo edozein tiendan edo edozein lekuan Iruñean beti erdaraz eta jo [xo], igual aditzen dutenean norbait euskaraz pues alegratzen dira (...) ez dira laxatzen! Buenooo! Nireak behinik behin ez. Kristoren traba erdararekin, juna pasada! (...) moztzen direla, moztzen, bai, bai, aunitz gainera, bai. '¿Qué tal estás?' el médico igual, eta ez du erranen ezta 'bien' [irri egiten du]. Ta badakitela aunque sea 'bien' eta. Igual bertze gauzarik ez dakite baina 'bien'. Baina ¡que va!» [irri egiten du]. Moztzen dira aunitz-aunitz. Eta bakaziotara joaten garenean pues igual izaten dira jokoak piztuz edo (...) pues Salou aldera egotera etzanda egun batzuk. Baina piztuz edo kanpoan egoten dira pues edozein gauza haurrendako eta bueno hauek ez dira... eta ikusten badute euskaldun bat hartara arrimatzen dira eta harekin egiten dira kristoren lagunak, euskaldunekin. Baina erdara iruditzen zaie bertze mundukoa [irri egiten du]».

Dena dela, haurrek erdararekin harremana badute, Lola eta Andres elkarrekin erdaraz aritzen baitira eta telebista orain batik bat erdaraz ikusten baitute. Telebistaren kontua aipatu du Lolak: «Orain artio arras ongi Euskal Telebistan, baina orain sartu denetik el TDT famoso hau, pues... *Disney Channel*, eta *Clan*... eta denetarik, horietarik. Pasada bat!». Halere ez dute telebista anitz ikusten: «Telebisionea ikusi gutti. Egoten dira kanpoan ere bai». Lolak eguerdian Xorroxin irratia izaten du beti piztuta. Haurrek etxean bazkaltzen dute, bera berriki hasitako lanean seietatik hamar eta erdiak artio baizik ez baita aritzen eta eguerdia eta arratsaldea haurrekin emateko aukera izaten du. Eneko eta Izei pilotan aritzen dira herrian, euskaraz. Enekok dislexia du eta «duen zailtasunarekin (...) nik mekanografia erakusten diot», dio Lolak, «baina ja etxean, ja nire kabuz, ez da joaten inorat ere (...) baduen dislexia horrekin behar du lana doblea bertzeak baino... o sea que ez diot apuntatzen ahal ezta... bueno eta berak ere ez du nahi (...). Bere burua nekatzen da. Interesgarria izango zen ingles egitea eta gauza gehiago baina bueno, momentuz, tira eta tira badoa». Seme txikiak futbolearen ere jokatzeko du Elizondon, «... eta hori ez dakit euskaraz ala erdaraz egiten duten, ez dakit» dio Lolak.

Asteburuetan familiarekin biltzen dira usu: «Gu familiarekin bai. Beti familiarekin gu egoten gara (...). Denak elkartzen gara igandetan. Denak, bai, kristoren tropa eta hor egoten gara». Familia elkartzen delarik helduen artean batzuek erdaraz, haurrekin denek euskaraz, haurrek «... euskaraz, haiek esplikatzeko dutenean edozein gauza euskaraz». Hori normala da Lolarendako: «Ikusten baduzu kanpotik erraten duzu, 'jo [xo]! Batzuk erdaraz, bertzeak euskaraz' baino (...) arras normala da (...). Guri ez zaigu deus raro iruditzen. Ja ohituren gauza da. Eta orain aldatzea da arras zaila, superzaila da». Arraroa iruditzen zaiona haurrei erdaraz

egitea da: «Raroa (...). Bai, bai, hombre baietz, denak euskaraz haurrei. Nik ez dakit. Bai, eta nahiz eta ez jakin ongi, baino bai, bai, bai, beti».

Andresen arreba bat Lezaunera ezkondu zen —kontatzen du Lolak— eta bi seme izan zituzten. Orain hemezortzi eta hamasei urte dituzte eta ez dakite ongi euskaraz: «Amak bada-ki euskaraz arras ongi baino umei ez die erakutsi (...). Gizona da hangoa, Lezaungoa, eta ez dakite euskaraz eta saiatu zen lehenbizian erakusten baino gero ia... Orain eskolan ikasten dute euskaraz [A ereduan] eta beti erraten du hobekiago joaten direla beti, badutela zerbeit, nola txikitatik erakutsi zien... Bueno, nabaritzen dela zerbeit, baino bueno, ez da gai izan erakuste-ko solasean eta ez dakite (...) pena da bai, amak jakinda, buaaa!».

Ezkurrara ere joaten dira astebururo Andresen ama ikustera. Orain amatxi bakarrik dago, aitaxi duela zenbait urte hil baitzen.

5. familia

Itsaso, Xalba eta beren hiru seme-alabak, Izarne (8 urte), Urko (6 urte) eta Bidane (2 urte)

Itsaso Iruritakoa da (bera izan dut berriemaile) eta Xalba Erratzukoa. Senar-emazteak elkarrekin aritzen dira nekazaritzan (behi azienda dute) eta ostalaritzan (landa etxeak eta jate-txea dituzte) Erratzun, nahiz eta Iruritan bizi. Hiru seme-alabaren gurasoak dira eta euskaraz aritzen ohi den familia osatu dute.

Itsaso 1973an sortu zen Iruritan. Gurasoak bertakoak ditu, herrikoak. Ama etxean aritzen zen lanean. Ez zekien euskaraz, amatxi euskalduna bazen ere. Aita euskalduna zen eta Iberdrolan jarduten zuen. Lau seme-alaba izan zituzten. Lehenbiziko hirurak ezkondu eta berehala, elkarren segidan. Laugarrena, Itsaso, hamazazpi urteko aldea du aitzinekoarekin. Alaba bakarra balitz bezala hazi dela dio, bertze anai-arrebek bera txikia zelarik alde egin baitzuten etxetik.

Itsaso amaren aldetikako aitaxi-amatxirekin eta gurasoekin bizi zen haurretan. Aitaxik ez zekien euskara, amatxik bai, aita ere bai baina amak ez, «... eta orduan, erdaraz» egiten zuten etxean. Amatxi Lesakakoa zen eta kontatzen zuena du gogoan Itsasok: «Hamabi urte zituelarik bere aita gelditu zen itsu eta bera zen alaba zaharrena. Eta orduan atera behar izan zuen. Bizi ziren baserri batean. Atera behar izan zuen lanera. Bera sufritu zuen aunitz ez jakiteagatik erdara, porque berak bakarrik bazekien euskara (...). Pasatu zuen hain gaizki bere seme eta alabari, o sea, nere ama eta bere anaiari ez ziela erakutsi euskara. Ez zuen hitz bat ere erraten. Hitz bat ere (...). Beti kontatzen zuen zenbat irri egiten zuten bere, bere... ez jakiteagatik erdara». Amatxik «... ez zuen nahi ikastea» euskara bere seme-alabek. Hala bada, Itsasoren amak «... nola etxean ez zioten egiten euskara eta kanpoan ere ez zenez egiten, pues orduan galdu zuen».

Itsaso oroit da amatxi senideekin euskaraz aritzen zela: «... bere ahizparekin eta bere anaiarekin dena euskaraz egiten zuen, baina hemen etxean ez, hitz bat ere». Itsasoren aitarekin ere euskaraz egiten zuen amatxik baino bilobekin behin ere ez: «Nire aita euskalduna zen eta ez zuen batere problemarik nire aitarekin solas egiteko euskaraz. Beren artean harremana euskaraz zen. Baina bertze guziekin ezta hitz bat ere. Eta nire anaiak, ama joaten zelarik kanpora, nire anaiak hazi zituen amatxik. Pues ez zien erakutsi ere ez. Nire anaiek ez dute solasten euskaraz. Eta nik gero, hamabost urterekin joan nintzen ikastera. AEKn ikasi nuen. Joan nintzen ikastera eta orduan nire aita hasi zen nirekin euskaraz eta nire amatxi ere bai [irri egiten du]».

Itsasok OHOk 5. maila bitarte Iruritako eskolan egin zuen, erdaraz: «Bai, hemengo eskolan erdaraz. Dena. Nik ikasketa guzia egin dut erdaraz». Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean burutu zuen OHO eta han izan zuen lehen aldiz euskara irakasgai. Gero, Lekarozko Institutura pasatu zen Batxilergo Bateratu Balioanitz (BBB) eta Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea (UBI) egitera.

Haur-gaztetxotan Itsasok ez zekien euskaraz. Oroit denez, eskolan lagunekin «... erdaraz dena (...) bost urte, sei urte, zazpi urterekin, bederatzi urterekin... dena erdaraz aritzen

ginen». Bere adineko lagunek ere ez zekiten euskaraz: «Es que orain hasten banaiz bat, bat, bat, bat... momentu horretan inork ez zekien. Inork ez zekien. Es que etxeetan ez zen egiten». Bere belaunaldiko batzuk ditu buruan (adibidez, Laura, 7. FGkoa), aita-amak euskaldunak izanda ere euskara ez zekitenak eta gero gaztetan euskaldundu zirenak. Itsasok dio herrian euskararekiko harremanetan aldaketa bat gertatu zela: «Mila bederatziehun eta lautan hogeita hamarreen mas o menos izan zen aldaketa, baina ez ni bakarrik (...) herrian (...) pues hamabi urte genituelarik edo horrela euskara hasi zen pixka indarra diferentea hartzen. Ez dakit ikastolarenatik edo jende... herri guzietako jendea ja hasi zen ikastolara joaten. Gurasoak bazekiten euskara baino ez zuten egiten etxean (...). Hamabost urte genuelarik edo hasi zen berriz solasten... bere familiako edo bere amatxi, edo anaia edo denak solasten zuten euskaraz baino gero umeei ez zuten solasa ematen euskaraz. Dena erdaraz zen (...) nire anaiaren adinekoak ere, arras gutti euskaldunak badira. Arras gutti».

Itsasoren anai-arrebak ez ziren bera bezala gaztetan euskaldundu. Halere, seme-alabak ikastolara eraman zituzten. Ilobak euskaraz eskolatzarekin eta bera euskara ikasten hastearekin batera hizkuntza harremanaren aldaketa gertatu zen bere etxean. Honela mintzo da Itsaso: «... [amatxi] hil zen ni esposatu nintzelarik, orain dela hamasei urte. Hil zen Alzheimer batekin. Egon zen zazpi urtez Alzheimerrekin etxean eta ja hasi baino lehen eritzen eta horrela harremana dena hasi zen euskaraz. Nire ilobak hasita ziren ikastolan. Nire ilobak euskaldunak dira denak. Nire anaiek ez dakite baino preokupatu dira eta ja beraiek hasi ziren ikastolan eta orduan etxeko giroa aldatu zen. Nola umeak euskaraz ari ziren ikasten, amatxi —nire amaren ama— eta nire aita etxean euskaraz hasi ziren ere bai solasten. Eta ni nola ari nintzen ikasten, pues ere bai. Eta orduan harremana aldatu zen. Dena euskaraz hasi ginen. Hamabost urte banituenean. Eta nire amak ez du solasten baina ulertzen du dena. Eta orduan, nola berak ulertzen zuen inongo problemarik gabe, denak euskaraz aritzen ginen. Bai, orduan ja bertze maneran ikusten zuen amatxi euskara. Bertze maneran edo bazekien erdara bazekitela. Porque nire ilobak sortzetik erdaraz solasten zuten hasi artio ikastolan. Bera bazekien kontrolatzen zutela erdara. Ez dakit zertaz izan zen baina amatxi orduan hasi zen dena euskaraz egiten (...) denborarekin aldatu zen [irri egiten du]. Hori, hori... konplejo hori edo trauma hori pues galdu zuen. Eta horixe, ni hasi nintzen AEKn hamabost urterekin eta gero hasi nintzelarik [Xalbarekin] ateratzen... pues bera, bere familia euskalduna da».

Familian norbait euskalduna izatearen garrantzia aipatzen du Itsasok: «... nola etxean baduzun norbait euskalduna, pues ja hartzen duzu beste maneran euskaraz eta norbait ez duena familian inor euskalduna... zuk baldin baduzu familian aita, edo ama, edo osaba, edo amatxi bat... aise errazago da euskalduntzea. Ni bezala por ejemplo, gero ja hasi nintzen [Xalbarekin], bere familiarekin, nire amatxi eta aita ere bai hasi ziren euskaraz, nire ilobak, eta orduan aise errazagoa da. Etxeko giroa baldin baduzu euskara, aise errazagoa da, nahiz eta barnetegi edo ikastola batera joan (...) kasu aunitz nire adinekoak, pasatu zaiola gauza bera. Gero beraiek adinean ikastea eta gero familiarekin ja bultzatu dute euskara eta orain den bezala, orain dena euskaraz».

Ildo horretatik gogoeta hau egiten du Itsasok: Erronkarin ere, adibidez —bere amatxi hor sortu zen—, euskara galdu zela baina «... ez da Iruritan izan den aldaketa izan. Hor igual ez dute aukera izan familian itzultzea eta familian berriz hartzea euskara. Ez, guk egin dugun bezala (...). Ni hasi nintzen kanpoan baina etxean hasi nintzen eta etxean bultzatu nuen. Etxean oraindik solasten zuten, banuen aukera norbaitekin solasteko. Por ejemplo, nire aita etxean ez zuen egiten baina laneko lagunekin bai. Laneko lagunekin nire aita harremana euskaraz zuen».

Eskolaren garrantzia ere nabarmentzen du: «Es que klaro, haurrak joaten badira euskaraz ikastera ja aldatzen du aunitz harremana. Ja zuk bultzatzen duzu euskara etxean eta aitatxi eta amatxi ere bai bultzatzen dute eta suertez [irri egiten du]. Nahi dut erran, berreskuratu dela galdu baino lehen». Euskarazko eskolaterik gabe Itsasok ez du uste haurrak erdaraz hazteko ohitura aldatuko zatekeenik: «Eskola erdaraz baldin bazen bazen ohitura ez zen aldatu izanen. Izanen zen segur aski berdina (...) eskolak lagundu du aunitz. Zure umea etortzen bada etxera euska-

raz solasten, azkenean denak akitzen duzu euskaraz solasten. Hori argi dago (...) nahi dut erran, euskaraz haurrek bultzatzen dute».

Itsasok hamalau urte zituenetik hogeita bortz izan artio eskubaloian jokatu zuen bere lagunekin: «... beti kirola lotura handia egin dugu kuadrillan eta horrela. Denak aritzen ginen». Hasierako urteetan erdaraz aritzen ziren baina gero «... azkeneko hiru, lau urteak bai aldatu zen eta klaro, nola denak joan ginen ikasten» hizkuntza aldatu zuten: «... aldatu zuen bai harremana» eta «mas o menos denak hasi ginen euskara... euskaraz mintzatzen». Oroit denez, garai horretan hasi ziren gazteak euskalduntzen: «... orduan jendea hasi zena... ari zena unibertsitatean hasi zen ikastaroak egiten eta orduan igual horregatik besteak ere hasi genuen ere bai ikasten edo, ez dakit exactamente zergatik izan zen, o sea, inor ez zigun erran 'zoazte euskara ikastera!'». Eta gaztetan euskara ikastetik euskaraz egitera pasatu ziren: «Hasi ginen erabiltzen bai, bai».

Itsasok hamazazpi urte zituelarik ezagutu zuen orain senarra duena. Xalba, eskubaloi taldearen entrenatzailea zen eta «... arras euskalduna». Xalbak euskaraz egiten zuenez bera ere hasi zen egiten: «... ni segitu nuen euskara, euskara, euskara. Eta orduan ja nire hizkuntza bezala gelditu zen», dio Itsasok. Mutil-laguna euskalduna izateak lagundu zion euskaraz solasten hasteko: «Eta niri ongi ikasteko ongi etorri zait, e [irri egiten du]. Bai, bai, beti euskaraz, beti».

Lekarozen UBI eginda Iruñera jo zuen Itsasok Informatika eta Elektronikako LBH ikastera, euskara irakasgai zuela. Aldi berean, «... dena batera», UNEDen Informatika lizentzia egin zuen, erdaraz, noski.

Xalba Erratzun sortu zen 1966an familia nekazari eta euskaldun batean. Amaren familia «... kanpotik etorria» bazen ere «... euskaldundu ziren», dio Itsasok. Xalba hiru haurridetan txikiena da. Herriko eskolan egin zituen lehen ikasketa mailak, erdaraz. Hamazazpi urterekin utzi zion ikasteari nekazaritzan aritzeko. Bere bi anaiek bai segitu zieten ikasketei eta egun ez dira nekazaritzan aritzen. «Hemen Baztanen bada ohitura bat (...) nekazari zarelarik norbait gelditu behar da etxean», dio Itsasok. Bi gazteak elkarrekin hasi zirelarik, Xalbaren gurasoek bikotea etxean gertatzea nahi zuten «... baino [Xalbak] beti nahi zuen bere etxea izan. Hori zuen gauza bat betitik garbi zuela, bere etxea, beretako eta neretako etxe bat. Eta bere familia, nola nekazaria da, beraiek nahi zuten esposatzea eta aitatxi eta amatxirekin bizitzea, o sea, tradizionalismo total, completo, osoa [irri egiten du]».

1996an ezkondu ziren Iruritarra. Itsasoren gurasoen etxean egin zuten bizitegia, goiko pisuan. Behokoan Itsasoren ama bizi da. Itsasok urte horretan akitu zituen Iruñeko ikasketak. Xalba nekazaritzan aritzen zen eta uda aldean biak ostalaritzan. Gero, Itsaso informatika denda-akademia batean aritu zen Iruñean, Iruritatik joan-etorrika zebilela, harik eta 2002. urtean lehen alaba, Izarne, sortu artio. Orduko Itsasok Iruñeko informatika lana utzia zuen eta Xalbarekin hasia zen lanean, ostalaritzan eta abeltzaintzan.

Elkar ezagutu zutenetik Xalba eta Itsaso euskaraz aritu baitziren, behin lehen umea izan zutenek gero ere «euskaraz. Ez zen planteamendu handirik egin behar». Haurrak beraiekin hazi dituzte: «Gurekin egon dira beti etxean». Iruritan nahiz Erratzun ibili haurrak beraiekin izaten dira: «Es que utziko bagenuen ez genuen ikusiko egun guzian guk haurrak. O sea, haurtzaindegitik pasatuko zuten amatxiren etxera eta amatxiren etxetik lo egitera eta ez genuen ikusiko. Eta orduan hori ez da familia bat [irri egiten du]. Horregatik bueno pues pixka bat aldakor da beren bizia baina gurekin egoten dira beti eta (...) gustura egoten dira bi lekuetan [Iruritan eta Erratzun]».

Haurrak euskaraz aritzen dira beren artean. Bi seme-alaba nagusiek, Izarnek eta Urkok, eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzte: Izarnek solfeoa eta pianoa Musika Eskolan, Elizondon (erdaraz); Koru txikia Laurarekin eta bere ahizparekin (7. FGkoekin), bai eta dantza ere (azken biak euskaraz). Udan margolaritza egiten du euskara ikasten ari den irakasle batekin: «Baina nola ikasi, ari den ikasten, e. ¡Una pasada! Urte batez ikasi du pila bat...». Urkok futbola egiten du Elizondon. Amak txandakatzen dira haurrak eskolaz kanpoko jarduetara eramateko. Txikia, Bidane, oraindik ez da eskolan hasi ere.

Haurren aisialdiaz honela mintzo da Itsaso: «Erratzun gaudelarik egoten dira gehiago kanpoan eta hemen gaudelarik igual daude gehiago etxean, Iruritan gaudelarik». Erratzu «... beste mundu bat» da, dio irriz. Neska-mutikoez telebista gutxi ikusten dute, halere kexu da ama: «... lehen arras ongi ETB ikusten genuen baina orain pues *Disney Channel* eta *Clan* ikusi behar. Da pasada bat es que ez da beste aukera (...) Es que ez dago beste aukera». Haurrek ikusten duten telebistak beren hizkuntza erabilerari eragiten diola ohartu da Itsaso: «... konturatu naiz badugularik bideoa paratua euskaraz, bueno, laxatzen direla pila bat. Dena euskaraz, euskaraz, euskaraz... ttalla ere bai, [Bidane] ere bai, pues egiten direla aunitz gehiago (...). Eta igual etxean, baldin badute telebista paratua, igual tarteka igual eskapatzen zaie erdara gehiago. Igual ari badira solasean telebistaz eta horrela pues pasatzen dira erdarara». Itsasoren ustez, hizkuntza aldetik bere haurtzaroa eta bere haurrena «arras» desberdinak dira.

Irurita eta Elizondo Baztango herri erdaldunduenak izan dira. Aldeak ikusten ditu bi horien eta haraneko bertze herrien artean, bai eta Iruritan bertan ere herriaren eta baserrien artean: «Iruritan eta Elizondon eman zen urte horiek ez zela euskaraz solasten ezta etxean, ezta eskoletan, ezta inon. En cambio, Erratzun eskolara joaten ziren erdaraz baino etxean, etxeko giroa euskalduna zen. Nik ez dakit nekazaritzarengatik den edo ez dakit zer den. Porque Irurita eta Elizondo dira herriak nek... por ejemplo, baserrietan Iruritan ez da gertatu hori. Herrian ez genuen solasten euskaraz baina baserrietan bai. Eta baserrikoak etortzen ziren eskolara, ez herrira, bazuten beste eskola berezia (...) Baigorrikoa. Baina baserrietan beti solastu da euskaraz. Ez da galdu herrian bezala eta Elizondon bezala. Eta Erratzu, Arizkun eta herri horietan eta Ziga, eta Berroeta eta Almandozen, herri horietan euskara ez da galdu sekula, nahiz eta eskola erdalduna izan (...). Ez dakit zertaz den (...). Nik beti pentsatu izan dut nekazaritzarengatik izan dela».

Itsasok gogoratzen du bera gazte zelarik herrian zortzi bat familia nekazaritzatik bizi zirela eta «... familia horiek euskara mantendu dute. Nire koinata, por ejemplo, [Xalbaren] anaia dago esposatuta Iruritan ere bai eta nire koinataren familiakoak nekazariak ziren, bere aita eta ama eta berek bere harremana euskaraz zen (...). Eta konturatu naiz nekazari familiak Iruritan mantendu dutela euskara». Itsasok honela aitortzen du abeltzainendako gauzak zer gaizki jarri diren eta, aldiz, landa etxeen kontua zer ongi doan ikusita: «Bihotzez mantentzen duguazienda hori (...). Eta orduan hori mantentzen dugu gure, ez dakit nola erran, bihotz bar-barnean dagoelako nekazaritza».

6. familia

Milagros, Antonio eta beren hiru seme-alabak, Andoni (11 urte), Aitor (9 urte) eta Alazne (7 urte)

Milagros Zigakoa da eta etxe garbiketan eta ostalaritzan aritu izan da lanean. Antonio Arrekoa (Ezkabarte) da eta pastelgile jarduten du (bera bakarrik izan dut berriemaile). Arrunki euskaraz aritzen den familia osatu dute.

Antonioren gurasoak Andaluziatik etorri ziren Nafarroara 1960. urtearen inguruan. Ama etxeoandre aritzen zen eta aita autoak pintatzen Beriaingo enpresa batean. Herri batzuetan bizi izan ziren errentan harik eta Arren pisua hartu zuten artio. Bortz seme-alaba izan zituzten (hiru mutiko eta bi neska). Antonio bigarrena da, 1970ean sortua. Arreko eskolara hasi ziren joaten, baina berehala Atarrabiako Lorenzo Goikoa ikastetxera pasatu ziren. OHO akitu eta iturgintza ikasi zuen Burlatan. Dena erdaraz. Hamalau urte zituelarik hasi zen lanean pastelgile eta beti aritu da lanbide horretan, Atarrabian, Berriozarren, Erriberrin, Tuteran, Burlatan, Almandozen eta azkenik, Iruritan. Hogeita bost urterekin hasi zen lanean Almandozko jatetxe batean. Han ezagutu zuen Milagros eta handik hiru urtetara, Antoniok hogeita zortzi eta Milagros hogeita hamalau urte zituztelarik, ezkondu ziren.

Milagros 1964an sortu zen Zigan. Ama bertakoa du eta aita Murillo el Frutokoa zen, erdalduna. Berrogei urte luze Zigan eman bazituen ere aita ez zen euskaraz mintzatzen «...

baina ulertu dena», dio Antoniok. Amak euskaraz egiten zien lau semeei eta alabari. Milagrosek aitarekin erdaraz egiten zuen, baina amarekin beti euskaraz egin du¹⁷³. Antonio eta Milagros Zigara ezkondu ziren, emaztearen sortetxera: «... lehenago bezala *pa casa*, la hija *pa casa*». Zigan «... dena euskaraz» egiten zuten —oroit da Antonio— «... eta klaro, etortzen zen jendea, pues izeba eta hau eta dena euskara eta ni sentitzen nintzen arras gaizki, arras (...). Digo ‘ospas, hau, osab... izeba bat’, digo ‘zer educ... egiten du nahita!’ Ni, igual etortzen zenean bera, ni kuartora. ‘Non da [Antonio]? Zer du [Antonio]?’ ‘Ez, kuartoan dago, ez du nahi atera’. Baina ez naiz ateratzen porque zen... nuen arrabia, igual ez solasteko... Solasten dute igual nirengatik erdaraz eta ni sentitzen nintzen arras gaizki. Eta igual solasten baldin bazen bera euskaraz ni sutan: ‘Hau egiten du nahita’. Eta orain ulertu nuen, orain ulertzen dut ezetz, ez zen nahita, da bere hizkuntza eta orain ikasi dut nik eta ikusten dut ez zela horrela lehenago. Klaro, egiten zuen bera porque bere hizkuntza zen eta, baina ikasi nuen y digo orain arras harro nago».

Antioniok gogoan du Zigara esposatu aitzinean Burlatako gozo-dendako nagusiak erran zionaz: «Oroitzen naiz nire nagusia, ezkondu nintzenean (...): ‘Joe, nora joan behar zara orain? Han, Zigara suegrakin? Fuuu! Hizkuntza desberdina... Buuu! Ikusiko duzu, pasatuko duzu gaizki’. Eta egia zen. Pasatu gaizki baina igual zen nire burua. Baina orain aldatu da nire burua, digo ‘ospas, lehenago ez zen edukazio txarra bera. Baina zen bere hizkuntza’. Eta orain ikusten dut bertzte puntutik. Eta hiru urte egon nintzen euskaltegian eta arras gustora. Eta gero entorno, lantegia ere... (...) nire nagusiak egiten du aunitz guri erakusteko, porque beti euskaraz ‘venga, ikasi!’. Eta orain bueltatu nintzen berriz euskaltegira bueno, banuen... handitu dira ja semeak eta digo ‘ba, eginen dut pixka bat gehiago’. Eta gustora nago».

Zigara joan artio urrun geratzen zitzaizkion Mendialdea eta euskara bera Antoniok: «Belatera etorri edo Elizondora zen mundu bat guretako. Buuuf! Zer da pasatu el puerto de Belate! Zer izango da». Ez zuen euskara hurbila. Ez zekien batere euskara «... baina batere, batere, batere. Bai edo ez ere ez. Ez. Ez zen nere buruan sartu euskaraz. Baina zen... kontra ere ez, nire ama eta nire aita euskara pues euskera, katalan bezala (...) gure familia, pues euskera pues bale». Antonio gazte zelarrik Arreko lagun batzuk hasi ziren euskaltegian eta «... orain segitzen dute eta arras ongi. Gero igual, klaro, gero ez dute han ohit... praktikatzeko ez dute, hemen badugu, horrela... Baina han ez dute horrela praktikatzeko eta galtzen dute. Eta baaa! elkartzen garenean denok egiten dugu saiatu eta hau. Baina bai, denak harrituak orain: ‘Joe, [Antonio], nola zauden! Aita andaluz eta hau eta begira orain nola zauden!’ Eta beti horrela».

Euskara ikasteko motibazioari dagokionez: «Igual norbait erraten ahal du ‘joe, ikasi du porque beharra!’. Ez, beharra, hemen batzuk etortzen dira eta ez da beharra. Egiten dute, igual uste dute beharra. Niri erdaraz nire semea. Baina ez, nire buruak erran du ‘ez, nere semeak egin behar didate niri euskaraz’. Eta euskaraz, beti». Seme-alabekin euskaraz egitea beretako zergatik zen garrantzitsua galdeginda: «Pues ez dakit. Ni sartu nintzen hemen eta gero ja lantegian eta lanean euskara ikusi dut hizkuntza nola zen. Klaro, nik banuen buruan igual bertze gauza. Ikusi nuen hizkuntza eta sartu nuen barnera hizkuntza: ‘ospas, hau da hizkuntza, horrela, polita eta horrela... nik nahi dut ikasi eta nire semei...’. Gainera, euskaltegiko mundua. Gainera sartu nintzen euskaltegira eta euskaltegitik ja egiten dute bultza. Ospas! Erritmo hau euskaraz, bizitzeko euskaraz eta hau ja sartzen duzu buruan (...). Euskaltegiko erritmoa ere egiten du aunitz. Klaro! haiek bultzatzen dute pues bizitzeko euskaraz, pues klaro, irakasleek ‘orain zure aukera handiena da semea, semearekin. Sortu eta segidan dena, dena, dena euskaraz eta ikasiko du’. Eta egia da, egia, egia».

¹⁷³ Sánchez Carrionen arabera 1970ean Baztango Basaburuko herriek erabat euskaldun zirauten: «Conservan el vascuence con una vitalidad absoluta (...). La vitalidad del vascuence es total, en todos los sectores» (1972: 120). Halere, berriemaile honen lekukotasunak aditzera ematen duen bezala, norbanako erdaldunak —bakan batzuk baizik ez, halere— izan zitezkeen euskara mintzatu gabe ere ulertzerara bederen behartuak. Kasu horrek indartu egiten du Txepetxen hautematea, aita erdalduna eta erdarazko eskola gorabehera, familia horretako haurrak euskaldun hazi baitziren orduko Zigan.

Lehenbiziko semea, Andoni, Zigan sortu zen. Gero Iruritarra jaitsi ziren, «... azkenean, el *casao* casa quiere», dio Antoniok. Pisu bat harrapatu zuten herritik hurbil eta Antonio Iruritan bertan hasi zen lanean. Hamaika urte eman ditu bertako gozogintzako lantegian, «... eta arras gustura hemen», aitortzen du.

Antoniok euskaraz egiten du beti bere seme-alabekin nahiz eta Milagrosekin erdaraz egin. Euskaltegiko irakasleak erraten dionez, emaztearekin euskaraz egitea bere «... hurrengo asignatura» da. Haurrek aita eta amarekin euskaraz egiten dute. Antoniok dio eskolako maisu-maistrak, «... ez bakarrik hemengoak, orokorrean Baztanen», kezkaturik daudela konturatu baitira haurrek «... sobera erdaraz» egiten dutela. Andoni, Aitor eta Alazne euskaraz aritzen dira beren artean, baina Antoniok aitortzen du seme-alabei noizbait erdaraz aditzen baldin badie ohartarazi egiten diela: '[Andoni]! Guk badakigu euskaraz! guk badakigu euskaraz! (...). Eta beti ni nabil horrela».

Haurrek azken aldian erdaraz gehiago egitearen kariaz: «... izango da telebistarengatik. Egia da, telebista orain... nireak ere la TDT paratuta hau, ETB eta hau arras gutti». Haurrek zer ikusten duten galdeginda: «*Disney Channel* (...). El *Clan*, horrela (...) eta dena horrela marrazki eta hau (...). Lehenago arras ongi. TDT gabe gure etxean beti ETB (...) euskaraz, arras ongi. Baina orain la TDT (...) akatsa ere! Igual zorroztu pixka bat eta, 'venga! Kendu tele hau eta pixka bat ETB!»). Maisu-maistrek «... egin dute hiru pagina pues deskargatzeko Internetetik marrazki bizidunak» eta gurasoek egin dezaketenaz honela mintzo da: «Ea gu egiten ahal dugun zerbaite irakasleak erraten duten bezala. Egiten ahal dugu gu bultzatu pixka bat».

Pastelgileen ordutegia goizez izaten da, goizeko seietatik eguerdiko ordu bata eta erdiak artio. Hala bada, arratsalde hurrekin izaten da Antonio eta Milagros lanean aritzen da. Haurrak eskolaz kanpoko jardueretan ibili dira: hirurak igeriketan, futboleko mutikoak eta zaldabaia neskakoa. Egun Andonik eta Aitorrek mekanografia eta pilota baizik ez dute egiten, Iruritan euskaraz, eta Alaznek deus ez. Eskolatik kanpo haurrek irakurtzeko zaletasuna ote duten galdeginda: «Baina ez zaie gustatzen sobera euskaraz irakurtzea. Nahi dute igual eskolatik bidaltzen dute astero liburu bat baina ekartzen dute beti erdaraz eta 'jo [xo]!', [Andoni], baina gero...'. Baina ez, ez, beti erdaraz. 'Es que euskaraz da zaila'. 'Nola zaila? Zure hizkuntza da eta ni irakurtzen du euskaraz!'. Nik *Tiipi-ttapa* eta hau, lehenago *Noticias* hartzen nuen baina orain Internetetik. Baina, gu ere irakurtzen dugu paper guziak eskolakoak ni. Andreari ere ez zaio horrela gustatzen, bueno ulertzen». Milagros euskara etxean ikasi zuen baina eskolan erdaraz aritu baitzen «... kostatzen zaio aunitz irakurtzea».

Euskaltegiko euskara eskolez gain Antoniok Baztango Solaslagun programan hartzen du parte: «Elkartzen gara egun bat asteen eta egiten dugu mintzapraktika euskaldun zahar bat eta euskaldun berri bi edo apuntatzen direnak».

Zigara maiz joaten dira (Iruritatik 5,5 kilometrora dago), ia astebururo. Antoniok han hazten ditu oiloak, untxiak «... eta gero guretako. Badut afiziona animaliak». Seme-alabek ere maite dute Zigako amatxirengana joatea eta hango lehengusu-lehengusinekin biltzea. Han ematen dituzte oporrik gehienak. Zigan Milagrosen ama, anaia bat eta bere emaztea eta beren seme-alabak bizi dira (Milagrosen bertze bi anaiek Iruritan eta Anizen sortu dute familia). Haurrek Iruritako eta Zigako lehengusu-lehengusinekin harreman handia dute, «... aunitz dira ikusten».

Zigan euskaraz aritzen dira denak baina «... ni hartu dute ohitura lehenagokoa koinata eta amaginarreba, suegra ere erdaraz eta hau da nire asignatura, baina bueno batzuetan egiten dugu (...). Suegrak 'zuk badakizu nik baino gehiago'. Lotsatzen da pixka bat nirekin porque igual hitz batzuk erraten ditut eta 'ufff, zer euskara ikasten duzu orain! Eta ez da gurea' eta izutzen da suegra, baina bueno, egiten dugu. Ohitura hartu genuen lehenago horrela, erdaraz eta orain aldatzea hau da, koinata ere. Bueno, hiru koinata ditut, bi koinatarekin euskara baina bertzearekin... erdaraz eta horrela. Baina bueno, ia-ia euskaraz e!».

Antonioren familiarekin ere elkartzen dira noizean behin. Batzuetan Arrera biltzen dira. Orain gutxiagotan, lehenago maizago Antonioren aita hil eta ondoan ama Andaluziara itzuli baitzen. Antonioren bi arreba Arren bizi dira eta anaiak, bat Antsoainen eta bertzea Almerian.

Bertze batzuetan Iruritara etortzen dira haiek. Antonioren ilobetatik batek ere ez du euskaraz egiten. Batek A erduan ikasten du, baina gainerakoek erdaraz.

7. familia

Laura, Daniel eta beren lau alabak, Ainboa (8 urte), June (6 urte), Edurne (4 urte) eta Mirari (2 urte)

Laura Iruritakoa da eta Daniel elizondarra (Laura bakarrik izan dut berriemaile). Batik bat euskaraz aritzen den familia osatu dute. Laurak maistra jarduten du Baztanen eta bere senarrak pastelgile Iruritan.

Laura 1972an sortu zen familia handi batean, zazpi anai-arrebetatik gazteena da. Sortetxea Iruritako plazan berean dago. Aita okina zen eta ama etxeoandrea, biak iruritarrak, herrikoak. Aitak «... gutxi zekien euskara, guttitan aritzen zen (...) berarekin erdaraz aritzen ginen». Ama euskalduna zen. Laurak Iruritako eskolan ikasi zuen, erdaraz, «... orduan ez zen [euskara]». Euskaldun berritako du bere burua baina honela kontatzen du: «Ama euskalduna zen eta euskaraz egiten zigun baina gero eskolan hastean, erdaraz hastean, amak ere erdaraz egiten zigun, bai (...) eskola garai horretan galdu genuen, eta etxeko guztiak gainera (...). Erdaraz egiten genuen eta ama ere erdaraz hasi zen». Txikitari anai-arrebeekin eta lagunekin erdaraz aritzen zen, «... gainera, nik txikitari ez nekien. Nuen guztiz atzenda».

Txikitari «... arras oroimen politak» ditu eskolan eta herriko lagunekin jostetan aritzen zenekoak. Lauraren amaren anaia bat Lekunberriko apezka izan da eta amak osaba horrengana igortzen zuen Laura musika ikastera. Honela oroitzen da garai horretaz: «... joaten ginen pues asteburuetan eta udan eta horrela harat pasatzera eta adibidez horretan dut arras oroimen txarra (...) niretako zen arras gogorra banatzea hemendik eta amarengandik».

Iruritako eskolan OHOk 5. maila artio ikasi zuen eta gero Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean akitu zuen. Bere ikaskide batzuk Lekarozera, Nuestra Señora del Buen Consejo kaputxinoen ikastetxera, pasatu ziren baina neskak ez, oroit da Laura: «... neskak ez ziren harat joan. Denak joan ginen konzentrazionera». Eskola garai horretan neskak eta mutikoak bereiz xamar ibiltzen ziren, «... baserrikoekin bezala». Iruritako Errekako haurrekin harremanik ez zutela dio: «Nik batzuk ez nituen kasik ezagutzen. Horiek ez zuten gurekin ikasi. Bazutela bertze eskola hor. Bai, eta horrek banatzen zuen... izugarri, hori zen (...). Niretako horrek... kalte izugarria egin zuen eskola horrek!». Errekako bordetako haurrek beren eskola zuten, Baigorriko eskola, eta ez ziren herriko eskolara biltzen: «... horiekin bagenuen hor muga bat, guk eta beraiek ere horrela. Bai, rollo txar bat, ez dakit. Beraiek... nik uste dut gauza horiek badirenak pues gutxiesten ditugula, eta beraiek uste dute guk egiten diegula... bueno, horrelako uste pila horietatik, ez direnak egia. Beraiek, nik uste, sufritu zutela aunitz euskara, euskara bazekitelakoz eta hemengo jendeak egiten zuelakoz irri eta horrela gauzak ere nik uste bazirela. Baina ez denak, klaro (...). Nahasketa horiek izan ziren aunitz, nik uste. Eta eskola horrek nik uste beti egin zuela izugarrizko kaltea. Bai. Eta itxi zutenetik orain gazteak eta ibiltzen dira denak elkarrekin, bordetakoak eta herrikoak. Honat etortzen dira eta bueno... Eta orain inongo bereiztasunik, bizi dira urrunago eta ya está. Baina lehenago zen... pffff!».

Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxetik Lanbide Eskolara pasatu zen Administrazioiko LBH egitera, bortz urtez. Hamabortz bat urte zituelarik, Laura euskara ikasten hasi zen AEKn: «Lanbide Eskolan nintzelarik, orduan hasi nintzen, ez dakit zenbagarren mailan, bigarren mailan hasi nintzen... (...) kuadrillako bertze bat eta biak hasi ginen». Ahizpa batekin hasi zen ateratzen bertze gaztetxoekin eta «... 'hasi behar dugu euskaraz!' eta ja. Izan zen pixka bat txip aldatzea edo gogo hori izatea eta aldatu». Ahizpa batek ez bertze anai-arreba guztiek ikasi dute euskara. Zerk bultzaturik euskaldundu zen galdeginda honela mintzo da Laura: «Nik uste ahizpa, aunitz, bai (...). Uste dut zaharrena hasi zen ikasten eta

gero pixkanaka bertzeei horrela (...). Nik uste anai-arrebak (...) nik uste dut beraiek animatu nindutela hala, 'ikasi behar duzu!'».

Elizondoko Lanbide Eskolan aritu eta ondoan Donostiara jo zuen UBI egitera ahizpa zaharrenak hor baitzuen pisua. Laurak Soin Heziketa [SHEE] ikasi nahi zuen baina ezin izan zuen eta «... pixka bat reboten» sartu zen Irakasle Eskolan, euskaraz: «Magistaritza hasi nintzen euskaraz (...) aldaketa nahikoa izan zen niretzat (...) orduan hasi nintzen AEKn (...) eskolak hartzen eta gero atera nuen EGA».

Irakasle ikasketak amaitu eta berehala hasi zen lanean: «... urte hartan (...) hasi nintzen [Baztan] ikastolan (...) eta gero ja publikoan sartu nintzen. Irurtzunen egon nintzen zerbait eta gero ja Elizondoko eskolan, konzentrazionean, eta gero ja hamaika urte dut herrietan [maistra ibiltari gisa]».

Gaztetan eskubaloian aritu zen, hamabi bat urte zituenetik hogeita sei urte bitarte. Kirol taldean «... arras gustora» ibili zen eta Baztango bertze herrietako neska anitz ezagutu zituen: «... lagun handiak egin genituen Oronozen, Elizondon berean... Oraindikan mantentzen dugu horrela, noizbehinka egiten ditugu partiduak eta merenduak...». Laurak dio gazte garai horretan euskaraz egiten zutela, hala eskubaloi taldean nola herriko lagun taldean. Gazte garai horretan ezagutu zuen Daniel, senarra.

Daniel 1969an sortu zen Elizondon. Ama, Elizondoko baserri batekoa du, euskalduna. Aita ez da euskaraz ongi moldatzen: «... aita igual guttiago». Lau anaia dira eta horietatik bakarra euskalduna da¹⁷⁴. Elizondon bizi dira. Daniel ez da inoiz euskaltegiara joan, baina Laurarekin hasi zenetik euskara landu du eta orain «... nahiko badaki, baina bertze biek ez dakite ezer (...) ezer, baino ezer e. Ni harrিতua gelditzen naiz. Ezer. Haurrei eta horrela zuzentzen dira erdaraz, beraien haurrei (...) nik ez dakit. Nik uste jakinen zutela [Danielek] bezainbat, zer berak ez du ikasi horrela kanpoan, baina [Daniel] sekula ez da aritzen haurrekin erdaraz. Gainera, haurrek egiten dutelarik haserretu... haserre jartzen da: 'Bai, zer nahi duzue, ni bezala gero?' Haserretzen da, bai».

Haurrekin erdaraz egiteak atentzio ematen dio Laurari: «... nik uste dut erraz... bueno, ez dakit errazago den, baina ahizpak adibidez, badaki arras gutxi eta nirekin eta beti erdaraz aritzen da baina haurrekin sekula». Haurrekin erdaraz egitea «arraroa» da. Danielen bi anaiek beren haurrei erdaraz egiteari honela deritza Laurak: «Zer pena!».

Laurak eta Danielek gazte parranda batean ezagutu zuten elkar, erdaraz, «... gero, mantsoago hasi ginen pixka bat euskaraz horrela hitz egin nahiz». 1999an ezkondu ziren, Laurak hogeita sei urte zituelarik. Handik hiru urtera lehen alaba, Ainhoa, sortu zen. Lehen haurra izateak bikotekideen hizkuntza harremanean eragina izan ote zuen galdeginda honela ihardetsi du Laurak: «Bai, nik uste baietz (...). Aritzen ginen noizbehinka, 'Hale, egin behar dugu!'. Baina igual atzertzen zaizu berriz. Edo bueno, igual boladak badituzu edo horrela, baina haurrak izatean bai, hemendik aitzin beraien aitzinean behintzat bai. Eta ja gero normalean ere aritzen gara (...) orokorrean bai». Haurrak euskarara jarrita «... gainera beraiek ere aunitzetan aritzen bagara [erdaraz] haserre ematen digute: 'egizazue euskaraz!'. 'Bai, bai, arrazoa duzu'. Eta aldatzen dugu».

¹⁷⁴ 1970ean Elizondon euskararen gizarte erabilera urri-urria zen. Guraso euskaldunek ez ohi zieten seme-alabei euskaraz egiten (Sánchez Carrión, 1972: II6). Familia bidezko hizkuntzaren transmisioaren eten nabarmena dago belaunaldi horretan. 1979an Mariano Izetak (1999: 29-30) honela salatzen zuen: «Gazte eta haur elizondar gehien-gehienek ez dakite euskaraz (...) Aunitz badira beren etxeetan erdaraz mintzatzen direnak, guraso euskaldunak eta kasik erdaraz ez dakitenak maiz, aditzen badugu [sic] beren haurrekin erdaraz ari direla». 1978-1979 ikasturtean Elizondoko eskualde ikastetxeko OHOk 5. mailatik 8. maila bitarteko ikasleei egindako inkeska batek emandako datuen arabera, haur elizondarren (herrikoen eta auzoetakoen) % 55en guraso biak euskaldunak ziren, ikasleen % 50ek txikitan euskara bazekiten baina inkesta egin zitzaielarik % 39 baizik ez zen gai euskaraz mintzatzeko eta % 10ek bakarrik egiten zuen beren anai-arrebeekin (Colegio Nacional Mixto Comarcal de Elizondo, 1999a).

Daniel Laurarekin eta hurrekin euskaraz aritzen da «beti»: «Bai, aritzen gara. Aunitz ez daki, baina saiatzen gara betiko gauzak denak eta euskaraz egiten ditugu (...) haurren aitzinean behintzat saiatzen gara euskaraz».

Daniel Lauraren anaia batekin, Mattinekin, aritzen da lanean. Mattin «... arras euskaltzalea» da. Antoniok (6. FGkoak) ere haiekin egiten du lan eta lantokian «... denak aritzen dira euskaraz. Bi hauek [Daniel eta Antonio] ibiltzen dira horrela-horrela baina, hala ere euskaraz».

Lehen alaba izan eta Laurak amatasun baja amaituta, herriko neska bat hartu zuten umezain. Gero, txikitako lagun batek zaindu dizkie haurrak. Bi haurtzainak euskaldunak izan dituzte. Dena dela, Danielek gozotegian goizez baizik ez baitu lanik arratsalde «... egoten da hurrekin». Bertzalde, Laurak ere, maistra izanda, astia izaten du alabekin izateko udako oporraldian, asteburuetan bai eta asteen bi arratsaldetan ere, «... niretako garrantzitsua da», dio. Lauraren familiak ohitura handia du guztiak elkartzeko: «... egoten gara aunitz-aunitz». Aita eta ama berriki hilak dira eta hilabetean behin anai-arreba guztiek eta beren familiek elkarrekin bazkaria egiteko ohitura ezarri dute. Danielen familiarengana ere joaten dira maiz. Halakoetan helduak euskaraz eta erdaraz aritzen dira, baina beren lau alabak lehengusu-lehengusinekin, eta adinkideekin oro har, beti euskaraz.

Alaben ohituraz eta astiaz galdeginda, telebista «gutti» ikusten dutela dio. LTDk ekarritako aldaketa aipatu du: «Nik ez diet debekatzen baina hasieran goizetan proposatzen nien 'venga, para ezazue Euskal Telebista!' eta 'jo [xo]...!'. Betiko Hanna Montana eta ez dakit zer... [Ainhoa] ja dago adin horretan...». Alabek eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzte: Ainhoak solfeoa eta zeharkako txirula (Elizondoko Musika Eskolan), gainerakoek Iruritan: Junek zaldabaia eta judoa eta Edurnek zaldabaia. Mirari, txikiena, oraindik ez da eskolan hasi. Solfeoa izan ezik, jarduera guztiak euskaraz izaten dira. Iaz Laurak eta bere ahizpa batek txikien abesbatza antolatu zuten: «... koro ttikian euskaraz egiten dugu, bai. Ez dugu erdaldunik. Dena euskaraz».

Laurarendako alabak herriko giroan haztea eta herriko haurren «... beraien arteko harremana (...) arras garrantzitsua da». Ez du aise ulertzen Iruritako herriko zenbait familiak seme-alabak Elizondon eskolatzearena. Baserrietakoek hori egitea uler dezake Elizondoko ikastetxean garraioa eta jantokia baitute, hala eta guztiz ere berak ez luke eginen: «... nik ez nuke egingo, e. Ahalko banu bederen herrira eskolaraz». Herriko guraso elkarteak beti ezagutu du: «Ni ttikia nintzenezan bazen. Ni oroitzen naiz (...) nire ama ere egona zen. Orduan nik ez dakit zer gauza egiten zituzten, seguru aldatu direla baina Orakunde eta horrelako gauzak pues beraiek antolatzen zuten». Herrian dantzek duten tokia aipatzen du: «... hemen hiru urte eta erditik dantzatzen dute hurrek».

Amen arteko harremanetan hizkuntza azturaz honela dio: «Joera nahiko... erdarara dela nik uste dut. Horrela... ni sartzen naizelarik ez! Nik uste gero badirela ohiturak ere. Batzuekin... bueno nirekin dakitenek denek zuzentzen dira euskaraz eta igual beraien artean buelta eman eta erdaraz. Nik uste dela joera hori, pixka bat... nik uste dut beharko zutela nahia hori, txipa aldatu eta 'venga! Aritu behar naiz euskaraz!'. Ama gazteagoen artean aldiz, bertzelako hizkuntza ohitura sumatzen du: «Horiekin euskaraz, gainera horiek... horiek ikasi dute euskaraz (...). Horiek bai, nik uste dut euskaldunagoak direla. Adibidez, nirekin denak... ia denak euskaraz aritzen dira eta da, nik uste dut hori... irakaslea edo hori, edo ni zuzentzen naizelako euskaraz (...). Bai, eta behar duzu, bueno nik nire kasuan ez dakit... txipa aldatu».

Laura oroit da euskara ikasita berak egindako hizkuntza aldaketaz: «... ni amarekin oroitzen naiz. Hasi ginelarik ikasten edo horrela, eta 'bueno ama, egin behar dugu euskaraz, e?'. Bai, ama nahiko erdalduna zen, kostatzen zaitzaion aunitz. Gero hasten zen eta 'bueno, zu, zertan gelditu gara?'. 'Bueno, bai, bai, bai, hasiko naiz'. Bueno, horrelakoetan behar da kontzientea izan eta 'aritu beharra naiz euskaraz, e'. Baina ez zara sartzen ahal bertzeen... ez». Iruritako plazako amek elkarrekin erdaraz aritzen direla ohartua da Laura, baina berari euskaraz egiten diote: «Nirekin aritzen dira eta ya está. Bai, aunitzetan hori ikusten dut. Igual ari dira erdaraz, sartzen naiz ni eta aldatzen dugu. Bueno, eta ni saiatzen naiz gainera, e, hainbertze (...). Baina nik uste dut amen aldetik nahiko joera nahiko horrela dela. Igual hurrei gehiena horrela, zuzentzen dira euskaraz eta buelta eman eta beraien artean erdaraz».

Irurita Baztango bertze herrien aldean Amaiur aipatzen du ongi ezagutzen baitu, horko eskolan saio batzuk ematen ditu eta. Amaiurren bertako amek euskaraz egiten dute eta haurrak «... arras euskaldunak» dira, «arras-arras». Amaiurren nekazariak dira gehientsuenak eta horrek, Lauraren ustez, hizkuntzaren erabilerari eragiten dio: «... hor nekazariak dira aunitz Amaiurren eta sumatzen da beraien elkarrizketak dira denak azienden inguruan, ardiak, behiak... eta hemen... sumatzen da desberdintasuna, ez dakit, desberdina (...). Hor nire haurrak [ikasleez ari da] dira denak horrela... siloak, traktorea, enpakadora... buaaa! Ari naiz ikasten...!».

8. familia

Silvia, Carlos eta beren bi alabak, Maialen (5 urte) eta Izarne (urte 1)

Silvia Iruñekoa da, baina Iruritarra etorri zen Carlosekin bizitzera. Elkarrekin egiten dute lan biek sortutako enpresa txiki batean. Euskaraz eta erdaraz aritzen den familia osatu dute. Biak ez ezik, Carlosen ama, M^a Luisa, eta arreba, Elixabete, ere izan ditut berriemaile.

Silvia 1971n sortu zen Iruñean. Gurasoak bertakoak ditu. Lau anai-arrebetatik hirugarrena da. Laurak San Fermin Ikastolan eskolatu ziren. Ordura artio familian inork ez zekien euskaraz, lau anai-arrebek ikasi zuten baina «... lo poco que he hablado euskera ha sido de allí, de la ikastola» —dio Silviak— haurrideen artean erdaraz egiten baitzuten: «... el euskera sólo lo utilizabas en la ikastola y poco más». Iruñeko Bigarren Zabalgunean hazi ziren, baina ez zuten auzoko jendearekin harreman handirik egin. Lagun taldea ikastolakoa zen baina «... yo en la ikastola mismo con las de mi cuadrilla no hablaba en euskera», aitortzen du Silviak. Udak Igantziko (Bortziriak) Berrizaun auzoan ematen zituzten hor familia etxea baitute (amaren aitatxi bat horkoa zen). Berrizaungo neska-mutilekin ere erdaraz aritzen ziren beti.

Ikastolan BBB eginda, UBI egitera Iturrama Institutura pasatu zen «... y luego me fui a La Almunia a estudiar (...). No era una gran estudiante y no tenía grandes opciones». Nekazaritza Ingeniaritza Teknikoa han hasi eta gero NUPen segitu zuen. Orduan ezagutu zuen Carlos. Elkarrekin hasi ziren eta Baztanen nekazaritzari loturiko enpresa bat sortu zuten. Handik bi urtera Iruritarra etorri zen bizitzera.

Carlos 1972an sortu zen Iruritan. Familia osoa bertakoa du, amaren ama izan ezik, Erratzukoa baitzen. Hiru anai-arreba dira, bera zaharrena, anaia hiru urte gazteagoa eta arreba, Elixabete, bederatzi urte txikiagoa. Carlosen aita, euskalduna, duela gutxi hil zen. Euskaltzalea zen eta herriko kultura bizitzan implikazio handikoa. Ama, M^a Luisa, ez da euskaraz ongi moldatzen, baina «... no le da apuro hablar» eta zerbaixka egiten du. Haurretan herriko bizimodua karrikan egiten zela du gogoan Carlosek: «... estábamos todo el día en la calle». Iruritako eskolan ikasi zuen OHOk 5. maila artio eta handik Lekarozko Nuestra Señora del Buen Consejo kaputxinoen ikastetxera pasatu zen. Hor ikasi zuen UBI akitu artio. Dena erdaraz ikasi du beti garai horretan euskararik ez baitzegoen. Bere anaiak aldiz, euskara irakasgaitako izan zuen Lekarozen. Carlosek ez daki ongi euskaraz; behin ere ez du ikasi eta euskara batua bertako solasmodua baino ulergarriagoa zaio: «... yo sé de oídas (...). No sé si porque debí oír en la radio o en la televisión o así, el euskera batua entiendo bastante bien pero sin embargo el euskera de aquí me cuesta mucho más».

Carlosen arrebak, Elixabetek orde, euskaraz ikasi zuen: «... estudió todo en euskera porque a ella le pilló la escuela aquí ya en euskera». Etxean erdaraz egiten zuten baina aita Elixabeterekin euskaraz mintzatzen zen: «En casa hablábamos siempre en castellano (...) el aita con mi hermana hablaba siempre en euskera y con mis aiatxis y así también». Aiatxiamatxirekin hizkuntza harremana honela oroitzen du Carlosek: «... en casa de los aiatxis cuando íbamos a... claro, al vivir todos aquí íbamos a casa de los aiatxis. O sea, por parte de la ama, no. No hablaban euskera. Igual entre los aiatxis y así, sí. Pero por parte del aita sí que hablaban euskera cuando íbamos a su casa. Lo que pasa es que claro, ya con nosotros como ya

no les seguíamos... pues no (...) con mi hermana sí. Sí, sí, con mi hermana sí que hablaban más en euskera. Lo que pasa es que mi hermano y yo... o sea mi hermano habla peor que yo».

Carlosek honela azaltzen du zertaz txikitari gurasoek ez zuten Elizondoko ikastolara eramanean: «... a mí no me han llevado a la ikastola. Mi aita (...) por horarios y así no podía, no me podían andar... antes no había servicio de autobús. Entonces tenían que llevar los padres. Entonces por eso no me apuntaron (...). Y entonces eso, nosotros [bi anaiek] estudiamos todo en castellano». Bere adineko lagun mutilen artean «... la mayoría no saben [euskara] (...) sin embargo las chicas (...) en su casa como que eran más... o sea... eran euskaldunes. Pero sin embargo, como en la escuela estudiamos todo en castellano y el recuerdo que tengo yo de la infancia es todo en castellano. O sea, en sus casas sí que hablarían pero en la calle no».

Haurtzaroa erdaraz oroitzen du eta desberdin dakusa ondoko garaian aldean: «Así como ahora sí les oyes hablar en general en euskera, antes el recuerdo en general era en castellano. Es que además es como una franja de edad. Unos años mayores que yo hasta unos años me... pues hasta la edad de mi hermana o así. Fueron las generaciones en que en la calle se hablaba más en castellano. Y sobre todo en Irurita y en Elizondo».

Herriko eskolan euskarazko irakaskuntza hasi zelarik hizkuntzaren inguruan izan zen gatazka oroitzen du: «... hubo gente de la edad de mi hermana que estudió en Elizondo porque sus padres querían que sólo aprendiesen en castellano. Pero bueno, es gente que sus padres... que ellos son euskaldunes. Las amigas de mi hermana que han ido ahí son euskaldunes porque en casa eran euskaldunes, pero sin embargo querían que estudiasen en castellano».

Carlos Lekarozko ikastetxean aritu zen unibertsitatean joan arte. Lekarozko ikastegian gutxi ziren ikasle baztandarrak, gehienak Nafarroatik kanpokoak baitziren. Gipuzkoatik eta Bizkaitik anitz, baina erdaldunak. Lekaroztik Nafarroako Unibertsitate Publikora pasatu zen Nekazaritza Ingeniaritza ikastera. Han ezagutu zuen Silvia, 1995ean. 1999an Baztanen nekazaritza enpresa sortu eta 2002an Silvia Baztanera aldatu zen. Elizondon bizi izan ziren hasieran eta gero Iruritan egin zuten etxea.

2006an sortu zen Maialen. Txikitatik Haur Eskolara eramanean zuten (euskaraz), baina horrek ez die haurra zaindu beharra guztiz konpondu eta Carlosen izebengana jo behar izan dute: «... aparte de su ama también tiene tres hermanas solteras que viven ahí con la amatxi (...) por parte de la ama tenemos mucho trato con la familia». Igandetan Carlosen amatxiren etxean biltzen da familia. Erdaraz aritzen dira amaren ahizpek ez baitakite euskara. Carlosen anaia ezkondu dago Iruritako neska euskaldun batekin eta bi haur txiki dituzte: «... mi cuñada es euskaldun y les... con los críos sí que todos procuramos hablar en euskera, menos mis tías que esas son más cagadas y esas no...».

Lehengusu-lehengusinak beren artean euskaraz aritzen dira: «... entre los enanos sí que hablan en euskera». Silviak eta Carlosek erdaraz egiten dute elkarren artean, baina alabei euskaraz egiten diete. Maialenek etxean erdara entzuten du usu: «... el rollo es también que la tele ve todo en castellano (...) desde la TDT es un horror (...) Entonces claro, básicamente... bueno, ve eso, las de castellano» —dio Carlosek—, «... antes le poníamos más dibujos de la ETB» —gehitu du Silviak.

Maialenen hizkuntza erabilerari erreparatzen diote: «Con tres o cuatro años tuvo una temporada que con todas las muñecas hablaba en castellano y por más que le decíamos, es más, yo me solía picar y bueno (...) le hablaba en francés y se me quedaba así y entonces me hablaba en euskera. Pero ahora sin embargo ha vuelto, ahora sí que juega... bueno, le regalamos este año por el Olentzero una escuela de Playmobil y le dijimos que era la escuela de aquí, que eran [Laura, 7. FGkoa] y las andereños y no sé qué, y a mí por lo menos me pareció que ahí retomaba más el euskera (...). No se le oía hablar tanto en castellano, aunque sí que tiene momentos en que se le oye», dio Carlosek. «Pero fue un poco generalizado porque incluso de la escuela pasaron una nota a ver si podríamos (...) ponerles cosas en euskera, o lo que es sacado de Internet (...). A mí me pareció bien porque nos habíamos dado cuenta que en casa estaba cambiando un poco la cosa», gaineratu du. Beren egoeran haurrak noizbehinka erdaraz egitea ulergarria ikusten du Carlosek: «... así como nosotros [Silviak eta Carlosek] entre nosotros en castellano, entonces se puede en-

tender que la cría...». Hala ere, harrigarriagoa iruditzen zaio euskaraz egiten duten familietan haurrak erdaraz aritzea: «... aquí hay familias que todo hablan en euskera, todo. Toda la familia (...) y en cambio los críos hablaban en castellano». Silviak ere arrarotzat jotzen du hori: «... eso a mí sí que me chocaba más. Yo decía 'ui, pues eso sí que es más fuerte porque la mía que hable castellano... tiene parte de la familia que le habla todo en castellano, pero...».

Silvia eta Carlos aurten herriko guraso elkartean daude. Beharrezko ikusten dute elkarteak haurrendako antolatzen duena: «... está bien porque si no para los críos y así me parece que en un pueblo al final no tienes tampoco muchas opciones». Maialenek igeriketa egin du aurten eskolaz kanpo, euskaraz.

Carlosek oraingo gaztetxoek zer egiten duten ez dakiela aitortzen du: «Hay una edad en la que no ves a críos en la plaza (...) de doce a dieciséis años, dieciocho también... no los ves (...). A esas edades estábamos todo el día en la plaza, o sea, era o estábamos en los bancos en corros hablando o lo que sea, o si no jugando, o sea... chicos y chicas». Silviak dio herrian ez direla gaztetxoak ikusten: «... parece que no hay juventud».

Carlosen ama, M^a Luisa, Iruritan sortu zen 1945 aldean. Ama Erratzukoa zuen eta aita Iruritakoa, biak euskaldunak: «... mi padre y mi madre siempre en euskera en casa». Bortz ume izan zituzten, seme bat eta lau alaba, eta anaia baizik ez da euskaldundu: «Y fíjate si hemos oído, pues en nuestra casa de los cinco hermanos el tío, o sea, mi hermano, dos años más joven. Pero él y yo, porque las otras entender entienden pero... absolutamente nada. Aparte les da un poco de apuro». Haur-gaztetako Iruritako hizkuntza egoeraz honela mintzo da: «¿En euskera? Nada, nada, nada. Todo en castellano». Eskolan erdara zen, karrikan ere ez zen euskara, hala bada, erdaraz egiteko ohitura hartu zuten: «Fíjate, los padres si nos hablaban en vasco nosotras contestábamos en castellano. Es que no había, no había... ¿cómo te diría? Pues la cultura vasca no había nada, nada, nada... nadie hacía nada, no. No había, no había. Y claro, nosotras éramos crías y no nos dábamos cuenta. Te das cuenta después (...). Entonces nada, ya te digo, en la escuela... y claro, las que sabíamos pues de no hablar...». Gaztetan «... siempre en castellano, aquí siempre en castellano (...) si hablabas euskera pues eras un poco (...) *bordari*, un poco no sé qué. Me doy cuenta ahora que sí. Y entonces íbamos todas al castellano. Es que ni nos parábamos a pensar».

Iruritan euskal kulturaren apezek izan duten garrantzia aipatzen du. Apezak euskaldunak izan dira herrian. «Había un cura aquí, don Jesús Jaimerena (...) Ése empezó con los bailes vascos, nos hacía aprender cantos en euskera. Ahora te das cuenta pero montón, montón (...). Él siempre nos enseñaba, claro, hablar no porque no esto... pero los cantos, eso, muchos cantos en euskera, los bailes, el laxoa, él metió, o sea, empezó él (...) todo fue influencia de él».

Euskaraz ongi moldatzen ez bada ere, euskaraz egiten die bilobei eta euskaraz egiteko erraten die, berak ikasteko: «Yo a las nietas también todo les hablo en euskera, zirriki-zarraka. Igual alguna vez me suelen decir unas palabras y le digo¹⁷⁵ 'biarrik [Maialen]', erten diot, 'biarrik zuri nola ari neizen ikesten'. Erten diot huni [Elixabetari], zuk ere mintzatu nerekin euskeraz. Ez zaiola atratzen. Bere aitekin beti euskeraz, bere aitekin beti ta nerekin ez. Y le digo 'pues ikesiko nuen ongi!'. Igual erten diot, solasten dut hola euskeraz ta 'juuui, uuui! ¡qué horror!' (...). Pero como no me importa, no me importa y entonces cuando no puedo voy al castellano. Pero me salen muchas en euskera y hablo y hago egiñalas¹⁷⁶ y alguna si hablo por teléfono y me parece que más o menos he salido bastante bien o, pues mira, ya me... (...) Pues erten diot 'orain zuek mintzatu nerekin beti euskeraz ta hola ikesiko dut' (...). Es que hay una edad en la que puedes hablar porque sí, o sea ya ella, de pequeñicos ya tienes las palabras esas, ya cubres para esa edad, pero claro, luego empiezan un poquito más y... me suele dar gracia cómo hablan, ¡qué bien hablan, qué bien! ¡qué envidia me da!»

M^a Luisak bere anaia aipatzen du. Emaztea euskalduna du eta euskara seme-alabekin hizketan ikasi zuen: «Mi hermano, el matrimonio (...) con los hijos siempre en euskera. Con los

¹⁷⁵ M^a Luisaren euskarazko mintzoa baztaneraz utzi dut, berak erran bezala, molde batura ekarri gabe.

¹⁷⁶ *Egiñalas*: eginahalak.

hijos y los hijos con los padres siempre en euskera (...) han estudiado todo por euskera». Seme-alabek amari erdaraz egiten bazioten, amak ez zien erantzuten: «... cuando le hablaban algo en castellano no les contestaba. Estonces ya sabían, no les contesta la ama, en vasco».

M^a Luisa 1990 inguruan eskolako hizkuntza dela eta herrian izan zen gatazkaz oroitzen da: «Sí, había jaleos, había jaleos. No querían. Algunos (...) los padres han tenido de caseríos (...) en parte comprendo, porque sus padres a la edad de ésta [Elixabete] pasaron muy mal porque cuando iban a Pamplona y así, o tenían que salir, se les reían. Entonces (...) yo pienso que no han querido que les pasase a sus hijos y entonces les han metido en castellano».

Carlosen arreba, Elixabete, 1981ean sortu zen. Iruritako eskolan ikasi zuen euskaraz. Elixabete honela mintzo da ikasketa hizkuntzaren araberako bereizketaz: «Éramos once quintos me parece que somos y en euskera se quedaron cuatro. El resto se fueron todos a castellano y ahí sí que se notaba. Era como... eras de los de euskera. Te apartaban. Y al único chico que se pasó a euskera, ése no tiene amigos de su edad del pueblo porque le apartaron por irse a euskera. Y nosotras era eso siempre». Euskaraz eta erdaraz ikasten zutenak bereizten ziren, Elixabeten ustez: «Y en la concentración [Elizondoko San Frantzisko Xabier Ikastetxean] también eran los pijos de clase de castellano y nosotros éramos los bordaris de euskera. Era como que te apartaban. Y con los de la ikastola había todavía como más, porque esos ya parecían que eran... uff, sí que... y aún hoy día. Hoy día que te juntas aquí... se suele hacer lo de las kinto bestas de los quintos y así y siempre es castellano por un lado y euskera por otro. Siempre se relacionan más entre ellos. Algo te hablan pero era como que eras la chusmilla, que eras... o sea, nunca nos hemos mezclado mucho. Y eso sí, lo que parecía que tenían más... eran los de castellano, como que tenían más clase. Eso sí que siempre se ha notado. O sea, eso sí hemos notado siempre porque fue justo por nuestras edades cuando se hizo el cambio».

Hizkuntzaren araberako bereizketak egun ere dirauela dio Elixabetek: «... siempre ha habido eso, castellano y euskera. No nos mezclábamos y hoy en día tampoco nos mezclamos. En las kinto bestas hablas un poco pero... euskera por un lado y castellano por otro».

Lagunekin euskaraz egiten ote duen galdeginda, honela mintzo da Elixabete: «... yo con las que he estudiado sí, pero por ejemplo, con esos que iban a castellano no. Y bueno, en la propia cuadrilla, porque en la cuadrilla hay algunas, tres o cuatro, que han estudiado por castellano y el resto por euskera, entonces con las que han estudiado por castellano hablamos en castellano, pero yo creo que ya es por costumbre, porque ellas tampoco te hablan en euskera. Pero las que hemos estudiado por euskera entre nosotras en euskera, y en el trabajo, que la mayoría sabemos euskera, también».

M^a Luisak eta Elixabetek uda partean Madrildik Iruritara etortzen diren familia dirudunak aipatzen dituzte: «Ellos eran las familias distinguidas. Se juntaban entre ellos porque había dos o tres casas y se juntaban entre ellos», dio Elixabetek. M^a Luisak oroitzen du mezetara joaten zirela eta mezak bi hizkuntzatan egiten baitziren, euskaraz hastearekin zutitu eta alde egiten zutela: «... al principio, la mitad en castellano, la mitad en euskera. Oye ¡se levantaban y salían! O sea, como... ya nadie les hacía caso. Luego optaron por ir a misa a (...) Lekaroz. Cuando se cerró, cuando ya cerraron los frailes, entonces iban (...) a Elizondo. Ahora algún hijo ya suele ir. ¡Pero antes se salían! Eso sí nos daba rabia».

9. familia

Ixa, Gabriel eta beren bi alabak, Ainara (4 urte) eta Igone (2 urte)

Ixa Oieregikoa (Bertizarana) da eta Gabriel iruritarra (lehendabizikoa bakarrik izan dut berriemaile). Ixa etxeko lanetan aritzen da eta bere senarra Iruñerriko lantegi batean, Iruritatik eguzten joan-etorrika. Euskaraz eta gaztelaniaz aritzen den familia osatu dute.

Ixa 1979an sortu zen. Gurasoak baztandarrak ditu, aita Zozaikoa (Ornoz) eta ama Iruritako Errekako borda batekoa, biak euskaldunak. Hiru anai-arreba dira, Ixa erdikoa.

Familia euskaldunbete batean hazi zen Ixa: «... nire familia beti euskaraz». Amari «... oraindik erdaraz hitz egitea kostatzen zaio hainbertze, beti nahiago du euskaraz solastea. Moldatzen da errazago». Ixa haurra zelarik ama etxeoandrea zen eta aita Doneztebeko zerrategi batean aritzen zen, basoan egun osoa. Beti izan du harreman handia amaren aldetikako familiarekin. Txikitan «... amatxiren etxera, Iruritarra, bordara, igandero» joaten ziren «... hori zen kostunbrea». Haurretan herrian lagunekin eta anai-arreben artean, euskaraz aritzen zen «... baina gero nik uste dut gehiago erdaraz»¹⁷⁷. Oieregiko haurrak Narbarteko eskolara joaten ziren: «... hirurok joan ginen harat eta erdaraz, nik ez dakit zertaz». Eskolan dena erdaraz izanda ikaskideen artean erdaraz egiten zuten. Oieregina ere baziren haur batzuk euskaraz ez zekitenak, gurasoak bertakoak, euskaldunak, izanda ere. Hala bada, Ixa oroitu da anai-arreben artean ere hasi zirela erdaraz, bai eta etxean ere «... eta erraten zuen amatxok 'zuek zarete belarrimotzak!'. Klaro! Igual haiek euskaraz solasten eta guk erantzuten erdaraz. Beti». Eskolaz oroitzapen onak ditu. Oieregiko haur guztiak elkarrekin joaten ziren oinez Narbarteko eskolara, «gustura». Gero, hamabi bat urterekin, Doneztebeko ikastetxera pasatu zen: «... eta noski, orduan eta gehiago erdaraz. Donezteben gehiago oraindik. Klase guztiak ziren erdaraz baina bagenuen euskara asignatura bezala, baina lagunekin eta beti-beti erdaraz».

Hori horrela, gaztetxo zelarik euskaraz aritzeko erraztasuna galduka izan zuen: «... Doneztebera joan ginelarik ja zen dena erdaraz eta klaro, gero amatxiren etxera [Iruritako Errekara] eta... azkenean ez duzu solasten euskaraz eta galtzen da pixka bat ere bai. Ez atzendu baina solasteko orduan pixka bat bai... Gero joaten ginen amatxiren etxera eta kostatzen zitzaidan. Klaro, amatxirekin beti euskaraz. Amatik ez zekien erdaraz, beti euskaraz. Orduan, beti kostatzen zen gehiago solastea berarekin»¹⁷⁸.

Ikasle garaian eskolaz kanpo dantzak ikasten zituen, euskaraz, eta solfeoa herriko andre batekin, erdaraz. Gero, hamalau urte zituelarik, Lekarozera joan zen. Han ere euskara irakasgai izan zuen. Baina institutuan zebilelarik ez zuen ikasteari segitu nahi izan eta hamazazpi urterekin hasi zen lanean, neskame. Hasieran Iruñean aritu zen hiru urtez etxe barneko langile gisa, aste osoa han emanda asteburuetan baizik ez zela etxera, Oieregira, etortzen. Horren ondotik urte erdia Doneztebeko etxe batean aritu zen eta handik Lekarozera aldatu zen. Lekarozko familia baten etxean aritu zen lanean 2006 artio. Mutil-lagunarekin oso gaztetxo hasi zen. Ixak hamabortz urte zituen eta Gabrielelek hogeita bi Baztandarren Biltzarraren bezperan elkar ezagutu zutelarik. 2001ean hasi ziren elkarrekin bizitzten eta 2006an, Ixak hogeita zazpi urte zituelarik, sortu zen Ainara, lehen alaba. Orduan utzi zion Lekarozko etxean lan egiteari.

Gabriel 1972an sortu zen Iruritan. Guraso iruritarak ditu, biak euskaldunak, baina seme-alabei ez zieten euskara irakatsi. Hala bada, ez Gabrielelek ez eta bere anai-arrebek ere, ez dute euskaraz egiten. Gabrielen adinkideen artean hori ez da gauza arraroa izan. Ixak honela azaltzen du: «... nire senarrak beti berak erraten du beraiek ttikitatik eskola eta dena erdaraz. Bere generazio hori, bere kinta hori, hor izan zirela urte batzuk... beti erdaraz».

Gabrielen gurasoek bietan egiten diete bilobei, Ainara eta Igoneri, batzuetan euskaraz eta bertzeetan erdaraz, baina familian erdaraz aritzen dira. Igandetan Gabrielen gurasoak eta bere

¹⁷⁷ Honela zioen Sánchez Carrionek 1970ean Oieregiko egoeraz: «... se bate también el vasco en retirada. De 25 años en adelante son bilingües. De 25 para abajo hispanófonos, si bien hay algunos vascoparlantes y otros que lo entienden aunque no lo hablan. Se le ha solido enseñar a los niños en la edad preescolar, pero lo han perdido al ir a la escuela y la recuperación sólo se ha dado en algún caso aislado (...). Las chicas son castellanófonas aunque algunas entienden el vasco» (1972: 107).

¹⁷⁸ Berriemailearen lekukotasun horretan atzeman daiteke Iruritako Errekako amatxi euskaldun hutsak izan zuen eragina euskara galduka izan zuen bilobak mintzairari eusteko. Sánchez Carrionek eragin horri erreparatu zion Nafarroako Mendialdearen gainean egindako ikerketetan (1972: 86, 1981a: 79). Nazioarteko literatura zientifikoan ere belaunaldi gazteek gutxitutako hizkuntza atxiki dezaten aitona-amonon garrantzia hainbat lanetan aipatu da (i.e. Behling, 1996; Morris, 2005).

anai-arreben familiak elkartzen direlarik dena erdaraz egiten dute bai eta haurrek, lehengusu-lehengusinek beren artean ere. Gabrielen anai-arrebak Iruñerrian bizi dira eta haurrak D erduan eskolatuta badituzte ere, Iruritari etortzen direlarik erdaraz aritzen dira. Horrek atentzioa ematen dio Ixari: «Gabrielen aldetik nik ez dakit zertaz haurren artean erdaraz, erdaraz bai, beti». Haurren arteko euskararen erabilera aldeak nabarmentzen ditu Gabrielen familiaren eta berearen artean: «Iruñean beraiek joaten dira euskaraz. Dute klase guztiak euskaraz, denak... gehienak. Eta nik ez dakit, baina gero etortzen dira Iruritari eta beti erdaraz. Nik ikusten dut eta beraiek beti erraten dute 'eskolan beti den-dena euskaraz baina ateratzen dira eskolatik eta ja erdaraz'. En cambio nire aldetik, nire familiaren aldetik, lehengusuen artean eta euskaraz. Bai porque nire ahizparen haurrek orain arte erdaraz solasteko arras gaizki. Pues zaharrenak ditu bederatzi eta bertzeak ditu zazpi (...). [Gabrielek] erraten zien zerbait erdaraz eta gelditzen ziren horrela... 'zer erran nauzu?' (...). Orain ikusten dituzu eta bai baina beraien artean beti euskaraz. Ni bai, nire familiaren aldetik bai. Igual kostunbre gehiago, etxean ikusten dutena».

Ixaren familian beti dena euskaraz egiten dute. Larunbatetan joaten dira Ixaren gurasoenera eta han biltzen dira anai-arrebak eta haurrak, lehengusu-lehengusinak. Orduan, egoera horietan Gabriele «... ulertu ulertzen du, ez dena, baina... joaten garelarik nire etxera pues igual nire ania pues beti euskaraz eta nik erraten diot (...) 'ez bazaizue inporta igual erdaraz solastea pues ulertzeko' (...) pues sentitzen da pixka gaizki (...) eta batzuetan gauza batzuk euskaraz eta bertze gauza batzuk erdaraz». Ainara sortu zelarik Gabriel hasi zen hitz batzuk euskaraz egiten haurrekin: «... nik ikusten nion berari igual hasten zela... eta igual ateratzen zaizu errazago ttikiei euskaraz, ez dakit zertaz. Eta, jo [xo]! bera hasi zen, eta nik erraten nion 'ez badakizu ez da ja [xa] pasatzen, horrela ikasiko dute bietatik ere bai'. Nik erran nion, 'nik nahiago dut zu ongi solastea, solastea erdaraz baina ongi solastea eta nik solastuko diet euskaraz (...). Eta solastu ginen eta horretan gelditu ginen. Pues berak erdaraz eta nik euskaraz, gero gure artean etxean beti erdaraz». Ainara «... aitarekin beti erdaraz. Ja berak badaki. Eta nirekin beti euskaraz. Bere aitak erraten du 'jo [xo]! zer gauza, badaki nik ez dakidala eta nirekin beti erdaraz eta zurekin beti euskaraz!'. Ainarak ongi bereizten du nori zer hizkuntzatan egin eta amarekin euskaraz egitera jarri da hasieratik: «... nik uste dut hori ohitura dela, ja ttikitatik ikasi duela». Haurrek euskara eta gaztelania jakitea gauza ona da Ixaren ustez «... nik igual nahiago dut porque gero igual ateratzen zara hemendik, ateratzen zara kanpora eta klaro, igual hasten zara norbaitekin erdaraz solasten eta haurrak badaki (...) joaten zara al Txikipark o lo que sea eta haur bat hasten zaio solasean eta honek [Ainarak] badaki segitzen, noski, badaki erdara eta orduan hasten da berarekin solasean. Hori ere ongi iruditzen zait».

Iruritako Errebote plazan biltzen diren guraso gazteen artean erdara izaten da usua: «Guk gure artean (...) Reboten hemen Iruritan, beti erdaraz, gehiena, bueno, batzuekin igual euskaraz baino gehiena erdaraz, bai». Batzuk «... euskaldun-euskaldunak» dira, baina bertze batzuk ez eta erdaraz egiteko ohitura nabarmendu du Ixak: «... bi edo hiru beti euskaraz aritzen direla, baina bertzeetan beti erdaraz. Rebotean behinik behin». Dena dela, helduen artean erdara aise aditzen bada ere, hurrei euskaraz egiten ohi zaie: «Iruritakoak gehienak dira euskaldunak, baina ohitura hori, nik ez dakit zertaz, beti erdaraz, gure artean beti erdaraz. Eta gero etortzen dira haurrak eta beti euskaraz. Eta nik erraten dut 'zer gauza!' (...) gure artean erdaraz (...). Eta gero aditzen diozu gurasoak eta gehienak haurrekin beti euskaraz. Bai, bai... ez errateagatik igual denak, badira bi edo hiru ez dakitela baina gehienak euskaraz».

Ixak berarekin izan ditu Ainara eta Igone sortzetik, ez baitu kanpoan lan egiten. Ainarak dantzak ikasten ditu herrian eskolaz kanpo, euskaraz, Iruritako haur guztiek bezala. Iruritako eskolan kezkatuta daude haurren euskararen erabilera: «... orain dela bi aste [2010eko azaroaren hasieran] eskolatik eman ziguten papertxo bat, konturatu zirela haurrak gero eta gehiago erabiltzen dutela erdara haien artean eta igual gero nahasten dutela euskara eta erdara... pues dena. Pues orduan, faborez, ez paratzeko telebista erdaraz, paratzeko euskaraz Internetetik, pues marrazki bizidunak... Klaro nik hori ezin dut egin. Telebista paratu euska-

raz bai, baina gero gure artean beti solastu behar gara erdaraz eta aitarekin beti solastu behar dute erdaraz. Gure kasuan behinik behin, eta ez dakit». Ainarak telebista gutxi ikusten du eta paratzen diolarik ikusteko zein kate hautatzen duen galdeginda: «Pues el *Clan*».

Ixak euskaraz irakurtzeko ongi moldatzen dela dio: «... ongi, bai. Idazteko igual kostatzen zait gehiago porque da zailago idazteko euskaraz... eta igual kostunbre ere ez». Ainara hasi da irakurtzen eta idazten eta Ixak ipuinak erosten ditu alabarekin irakurtzeko: «Senarrak erraten nau erosi baldin badituzte edo irakurtzen baldin badituzte ipuin guztiak euskaraz berak ezin diola kontatu porque klaro, hasten da irakurtzen eta ez du ja [xa] ulertzen. Eta orduan erraten du 'erosi batzuk erdaraz eta nik kontatuko diot erdaraz'. Eta orain, lehengo egunean erosi nituen bat direla bilingueak. Ez nituen inoiz ikusiak. Pues dira *Txanogorritxo*, *Hiru txerrikumeak*. . . Niri gustatzen zait lehengo ipuinak (...) eta horiek dira goitian euskaraz eta behetian erdaraz. Eta ikusi nituen eta erran nuen 'begira zein ongi!'».

Ixak aldeak ikusten ditu Iruritaren eta Narbarteren artean. Narbarten «... gehiago euskaraz». Irurita erdaldunagoa da, bai eta Baztango bertze herrien aldean ere: «Amaiur, Ziga eta horiek denak dira gehiago euskaldunak, eta Irurita beti izan da... dago Baztanen baino...». Iruritako Errekakoen eta herrikoen artean ere dauden aldeak aipatu ditu: «... Errekakoak beti euskaldunak».

10. familia

Itziar, Alberto eta beren bi seme-alabak, Garazi (4 urte) eta Asier (2 urte)

Itziar Barakaldon sortu, Barañainen hazi eta Iruritara ezkondu zen. Etxekoandre aritzen da. Alberto Iruritakoa da eta ostalaritzan jarduten du herrian berean (bera baizik ez dut izan berriemaile). Erdaraz aritzen den familia osatu dute.

Alberto 1975ean sortu zen. Bi anaia dira, hiru urte zaharrago den bat eta bera. Aita-amak iruritarrak ditu. Amatxi gazte zelarik alargundu zen eta ama etxera ezkondu zen. Alberto honela mintzo da: «Mi madre se casó a casa». Aita abeltzaina izan da eta ama etxean aritu da 1990ean familiakoek herrian ostatu bat zabaldu zuten artio. Etxean erdaraz aritu da beti: «Castellano, nosotros en casa castellano (...). Porque aquí antes no se hablaba entonces y en casa siempre hemos hablado en castellano». Amatxi euskalduna zen baina aitaxi zena ez. Amak ez zuen ikasi. Aita euskalduna da —«... mi padre sabía euskera», dio Albertok— baina erdaraz egiten ohi du: «Me imagino que mi padre y sus hermanos todos saben (...). Yo las veces que los oigo tiran al castellano. Sí, tiran al castellano. ¡Hombre! Mi padre sí que sabe hablar pero pocas veces le oí. Igual con gente puntual más bien, con la gente de los caseríos. Por lo que sea, con ellos que se junta o que tiene... con aquellos igual sí». Amak ez baitzekien «... no hemos hablado nunca en euskera en casa».

Iruritako eskolan ikasi zuen eta «... era siempre todo castellano». Plazan eta lagunekin ere erdara baizik ez du oroitzen Albertok: «Y luego siempre en la calle y en todas partes siempre todo todo en castellano». Iruritako Errekako baserrietakoak herrira gutxi jaisten baitziren —«Tampoco rozabas nada con ellos»— euskara ez zuen ia inoiz entzuten. Haurretan herrian lagunekin edozein gauzarekin jostetan ibiltzen zirela oroit da: «¡Hemos jugado muchísimo!». Baina dena erdaraz: «Todo en castellano». Hizkuntzarekin harremana eskolan hasi zuen «... a raíz de tener como asignatura (...). Pues ya con dieciséis, diecisiete años ya tuve la primera vez como asignatura euskera. Tenías opciones de oír, ya con catorce años ya se hablaba más, ya se conocía más... Bueno, pues oías y ya empezabas... ya, bueno, cogías. Y yo ahora para hablar contigo sería imposible. Con mi niña sí. Entonces, es un lenguaje muy básico el que tengo».

Iruritako eskolatik Lekarozko kaputxinoen ikastetxera joan zen OHO akitu eta BBB egitera. Handik Iruñera, han Ostalaritzako LBH egin zuen eta ondoren Turismoa Iruñeko Iturrama auzoan. Ikasketak akituta Frantzian ibili zen denboraldi batez eta gero Iruritara itzuli zen. Harrezkero familiaren ostatuan aritzen da lanean amarekin, osabekin eta anaiarekin.

Txikitan Elizondora gutxi-gutxitan joaten ziren: «Elizondo lo único en fiestas pero ya a partir de catorce o quince años ya». Lagun taldean neska-mutilak ziren. Gero, gehienak Iruritan geratu dira eta bertan osatu dute familia.

Itziar, emaztea, Iruñeko Turismo Eskolan ikasten zuelarik ezagutu zuen. Itziar Barakaldon sortua da, gurasoak Galiziatik hara joanda lanera. Gero, Itziarrek zazpi bat urte zituelarik, Barañainera aldatu behar izan zuten eta hor hazi zen. Barakaldon ikastolan ikasi zuen baina behin Barañainera mugituz gero erdaraz segitu zien ikasketei: «Claro, todo en castellano y ya ella perdió todo». Gurasoek ez dakite euskaraz: «... sus padres no saben tampoco (...) aquellos sí que no saben nada». Albertorekin harremana hasi eta bi urtera Iruritarra etorri zen bizitzera. 2002an ezkondu ziren. Lanean aritu zen harik eta 2006an Garazi sortu zen artio. Handik hiru urtera Asier jaio zen. Senar-emazteek solastua zuten bezala, lehen umea izatera-koan Itziarrek lana utzi zuen haurra etxean hazteko. Garazi eskolan dabil, baina Asier oraindik ez. Albertok hartzen du Garaziren kargu: gosaltzen eman, eskolara eramane, eguerdian haren eske joan, berriz eramane... Itziar etxean izaten da seme txikiarekin.

Familiakoek Garaziri zein hizkuntzatan egiten dioten galdeginda: «... la tía en euskera, los demás todos en castellano». Familiaren ostatuan amaren anaia baten andrea, Zigaurrekoa (Ziga) eta euskalduna, ibiltzen da. Garaziri euskaraz egiten dio eta neskatikoak hari ere bai: «Yo me doy cuenta que la cría a ella misma ya le empieza a hablar en euskera. Ya sabe perfectamente a quién sí y a quién no». Aitatzik euskaraz egiten ote dion galdeginda: «Mi padre sí. Ahora pienso por qué ella a él no le habla... o sea, si él empieza sí pero si... así como a la tía [Garazi] directamente a ella le empieza en euskera, a mi padre no. No sé si porque ella conoce en casa que no sabemos (...). Ahora, así como la tía siempre le habla, mi padre igual siempre tampoco. Por el tema que hemos tenido siempre en casa, al no entendernos...». Albertoren ama batzuetan euskaraz hasten zaio Garaziri: «... le habla igual en euskera, pero mi madre sabe todavía menos que yo. Y claro, yo me doy cuenta que le habla fatal. Y yo le digo: '¡Antes de hablarle mal háblale en castellano que así la vas a transtornar más! ¡Ay, es que...!'. Digo 'aprender va a aprender, pero encima le hablamos mal, pues va a revolver todo'». Itziarrek inoiz ez die haurrei euskaraz egiten: «... así como yo con [Garazi] sí que hablo algo, ella [Itziar] nada. Nos puede entender por dónde vamos pero no entrará jamás en una conversación en euskera. No sabe, no».

Haurrei euskaraz egitearen gainean honela mintzo da: «... es una cosa también que yo no me explico pero a mí a un niño me sale hablarle en euskera. No me sale hablarle en castellano. Excepto a la mía. A la mía no me sale hablarle en euskera. O sea que tengo que hacer un verdadero esfuerzo para hablarle. Y con ella puedo hablar porque es una cosa muy básica, o sea, o ven aquí o vete allá o tráeme o vete o va o quita o pon. Una cosa muy básica, no es una conversación. A todos los demás críos generalmente me sale hablarles en euskera, menos a ella (...). Aquí es muy raro a un niño hablarle en castellano, es muy raro. Salvo que no tengas ni idea. A nada que sepas... yo no sé, yo no podría seguir una conversación con cualquiera». Haurrekiko euskaraz egiteko ohitura hori beti izan denetz galdeginda: «Siempre tampoco (...) siendo yo crío no era así. O yo no tengo recuerdo. Es un poquito más posterior (...) Yo no tengo recuerdo que a los niños en mi época se les hablara en euskera (...) y ahora yo veo que sí (...) y a muchos así como a mí les oigo que a un niño no les sale hablarle en castellano. Y a mí tampoco, no me sale. Y en cambio a la mía tengo que hacer un esfuerzo y pensar 'tengo que hablar en euskera' y hablar». Alberto euskaraz saiatzen bada Garazik segitzen dio: «... entonces ella sí que contesta en euskera, si yo le empiezo y le... De primeras no. Ahora, si yo le sigo insistiendo ya entonces ella sí». Garazi bere adinkideekin euskaraz aritzen da: «... ya me doy cuenta que con sus amigas habla mucho y eso, todo en euskera». Horrek harritzen du aita: «Ella con sus amigas la noto muy fluida además. Eso sí me hace gracia porque me choca, no es una cosa que le haya enseñado yo y me choca oírle así». Anaia txikiari aldiz, erdaraz egiten dio Garazik: «Claro, a nosotros nos ve hablarle en castellano, entonces ella le habla... Yo a veces intento, pues eso, cuando me doy cuenta y hago, pues sí que les hablo. El chico sí que no me

entiende nada (...) pero intentas hablarle, más que todo para que la otra también me oiga y pues bueno... Entonces si a mí me oye hablarle en euskera ella sí que entra... y le habla en euskera. Pero por lo general, casi todo en castellano».

Garazik igeriketa egiten du eskolaz kanpo. Jarduera hori zein hizkuntzatan egiten duen galdeginde: «Es que no sabría decirte porque, claro, nosotros nos quedamos fuera (...). Creo, creo que en euskera». Alabari telebistan ikusten uzten diotenaren gainean honela mintzo da: «Dibujos animados (...) Tiramos mucho de grabado, de USB. Intentas ponerle cosas... de estas que son bilingües, *Dora la Exploradora* que te habla en inglés y ahora en castellano, *Little Einstein*... (...) los *Gormiti* (...) son muñecos de tirar balas y así en plan salvaje (...). Pues esas cosas para [Garazi] intentas evitar un poquito. No por nada, no tiene nada... pero no sé, siempre ve más agresividad...».

Euskara ikastearen inguruan: «... mi mujer no sabe y el otro día me comentaba que estaba planteándose el año que viene apuntarse al euskaltegi (...) si no se va a encontrar el día de mañana, nos vamos a encontrar vendidos». Albertok euskara hizkuntza hagitz zailtzat jotzen du eta berari irakasteko erabili zuten metodologia erabat desegokia iruditzen zaio: «A mí sí que me gustaría aprender pero me parece a mí una lengua difícilísima. Me parece una lengua muy difícil, de dominarla me parece muy difícil. Yo he estudiado varios años y con menos tiempo inglés y francés hablo bastante mejor que euskera. Es una lengua que siempre... se me ha atravesado. No sé, igual es porque así como inglés y francés siempre he querido estudiar yo, a mí el euskera cuando empezamos se nos metió así, a bocajarro. Entonces, igual por eso también... En Lekaroz era sí o sí. 'Tienes que aprender eso'. Para mí que no supieron enseñarnos. O sea, en vez de enseñarnos la lengua, meternos. Y claro, ahí ya pones como un bloqueo que... es la sensación que tengo yo. Ya te digo, yo inglés y francés hablo mejor que el euskera y he estudiado igual hasta menos tiempo (...). El euskera se me ha atravesado siempre mucho, pues por eso mismo (...) la sensación que tengo yo es que más que eso, más que enseñarnos, o sea era... '¡Tenéis que salir aprendidos de aquí!'. Entonces era darte información, información, información... Luego los verbos... no sé si hay alguna metodología para explicar. A mí me parecen complicadísimos. Las conjugaciones, empiezas a añadirle al verbo... empiezas a añadirle palabras y te queda un verbo así de largo: *ninnzaizazekeee* [irri egiten du]. Claro, yo no sé si eso tiene algún sentido o no, pero a nosotros nos lo ponían así. Entonces, claro, empieza tú a aprenderte todos de memoria (...) así a mí no me parece que es la forma. Ese es el recuerdo que yo tengo. Ante eso ya pones una especie de barrera ya que tú mismo rechazas si luego viene de mejor manera. Será cuestión de ponerme otra vez a ver».

Aurten Albertori eta Itziarri herriko eta eskolako guraso elkarteetan egotea egokitu zaie. Guraso elkarteak oso dinamikoak dira: «... siempre se hacen cosas (...). Acaba Navidades y empiezas ya con Orakunde. Cuando acabas Orakunde ya tienes que empezar con la Semana Cultural. Acabas la Cultural y ya las fiestas... (...). Que si organizar una cosa, organizar otra... siempre tienes alguna historia de por medio». Herrian beti antolatatu dira kultura jarduera anitz: «Irurita siempre ha sido un pueblo que se ha movido mucho en general. Aquí había grupo de teatro. Nosotros durante años hemos hecho teatro, de bailes (...). Aquí desde los tres años empiezan a bailar ya (...). Y ahora no es nada para lo que ha sido». Hori bai, antzerkia «... siempre en castellano».

Harreman handia dute Ixa eta Gabrielekin (9. FGkoekin). Alberto eta Gabriel lehengusu propioak dira, aita anaiak. Bi bikoteen alaba zaharrenak, Ainara eta Garazi adintsukoak dira: «Claro, nosotros, el marido de [Ixa] y yo somos primos carnales y desde siempre las dos crías han sido de la edad, entonces siempre han tenido mucho... Hemos tenido igual más relación que con el resto. Como que tratas más».

Lehenago Iruritako Errekako baserrietakoak gutxi etortzen ziren herrira: «Yo, por ejemplo, a mis quintos de la Regata no conozco. Bueno, no conozco, sé quiénes son pero jamás hemos estado ni... ahora es cuando se empieza a bajar, a raíz de quitar la escuela [Baigorrikoa] y pienso que ha sido más (...) es cuando se empezó todos a relacionarse más, se empezó a ba-

jar más. Los coches... o sea, todo. Es que ha sido un cúmulo de cosas y ahora tienen que bajar y todo el mundo tiene coche y bajas más fácil. Todo está como más abierto. Sí que te rozas más (...) antes no, y de hecho me acuerdo el día de Orakunde, siendo yo crío, que ellos sí que bajaban aquí a comer al pueblo. Acabábamos siempre en gaita (...). Estábamos todos juntos pero tú te ponías con los tuyos y ellos se ponían con los suyos (...). Ellos todo en euskera y nosotros en castellano (...) no tratabas con ellos».

Noizbehinka Barañainera jotzen dute hanga aitaxi-amatxik ikustera. Orain Iruñera joatea erraza da. Han ikasten zuelarik, ordea, artean Belateko tunelak ez zeuden eginak¹⁷⁹ eta bazirudien Iruñea Baztandik urrunago zegoela: «Vivir aquí era como vivir en el fin del mundo. Cruzar Belate era una odisea (...). Terrible. Yo me daba cuenta. Bueno, me di cuenta entonces. Y para ir a Pamplona parece que ibas a qué sé dónde (...). Eso ha sido mucho adelanto para aquí. En cuanto a comunicación ha sido muchísimo».

II. familia

Marta, Patxi eta beren bi seme-alabak, Naiara (10 urte) eta Jagoba (8 urte)

Marta Lotzakoa (Antsoain Zendea, Berriobeiti) da eta Patxi Mezkirizkoa (Erroibar), biak irakaskuntzan aritzen dira (eta biak izan ditut berriemaile). Iruñeko Donibane auzoan bizi dira eta Naiara eta Jagoba seme-alabekin euskaraz aritzen den familia osatu dute.

Marta 1969an sortu zen. Aita-amekin eta hiru ahizpa gazteagoekin hazi zen Iruñerriko Lotza herrixkan. Aita bertakoa da eta nekazaritzan jardun du bizitza osoan. Ama —Martak hemeretzi urte zituelarik hil zen— Lotzatik gertu dagoen Larunbekoa (Gulibar, Itza) zen eta etxeoandre aritu zen. «Aitaren aldetik inork ez zekien euskaraz (...) gure amaren familian, aitaxi eta amatxik ez zekiten euskaraz baina zer edo zer ulertzen zuten, pixka bat (...). Ez zuten hitz egiten euskaraz baina nahiko hurbil zuten», dio. Martak Lotzako eskolan hasi zituen ikasketak eta zazpi urterekin Iruñeko Vedruna ikastegira eraman zuten ahizpekin. Erdaraz ikasi zuten. Astelehenetik ortzirralera mojen ikastetxe horretan ematen zuten eguna, eguerdiko otordua bertan egiten zutela. Eskolak bukatuta arratsaldero itzultzen ziren herrira eta han ematen zituzten asteburu eta oporraldiak. Haurretan «... egun osoa kalean. Kristoren lasaitasuna!», oroitu da Marta. Lotza «... herri txiki-txikia da, apenas kotxerik ez dago, orduan... gosalduta eta kalera eta horrela ibiltzen ginen. Haur gutxi baina bueno, oso ongi».

Unibertsitate bitarteko ikasketak mojen ikastegian eginda, Ingeniaritza Tekniko Industrialak ikasi zuen Iruñean, NUPen, eta gero Zaragozara jo zuen Goi Mailako Ingeniaritza egitera. Zaragozan hiru urte eman zituen eta han ikasten ari zelarik ezagutu zuen mutil-laguna, Patxi, eta adiskidetu ziren. Orduan hasi zen euskara ikasten: Patxi eta bere lagunak «... asko ibiltzen ziren albaitekin, Albaitaritzan ikasten ari zirenekin. Euskaldun asko ziren, asko, eta hasi zen talde bat funtzionatzen, EKT deitzen dena: Euskal Kultur Taldea. Eta hasi ziren euskara klaseak ematen hor. Orduan apuntatu nintzen. [Patxik] bazekien ja euskara (...). Orduan, berak bultzatuta pixka bat... giro jatorra zegoela, hasi nintzen klaseetara joaten. Klaseetan oso ongi pasatzen genuen eta gero aprobetxatzen genuen ateratzeko eta hori izan zen lehenengo harremana (...). Ni hor hasi nintzen pixka bat (...) ez asko, baina bueno (...), batez ere bazen aukera asko, nahiz eta gutxi jakin, nahiko euskalduna zen giroa, elkartzan ginenen artean (...). Kuadrilla ikaragarri handia zen biltzen zena eta hor hasi nintzen euskararekin (...). Eta gero, bukatu eta gero bueltatu nintzen berriz hona eta [Patxirekin] hasi nintzenean ateratzen bere kuadrillan baziren batzuk San Fermin Ikastolakoak, batzuk, nahiko kuadrillan eta euskaraz hitz egiten zuten eta horretan hasi nintzen pixka bat jakin min hori (...) eta hona etorri nintzenean gelditu nintzen ja unibertsitatean».

¹⁷⁹ Belateko eta Almandozko tunelak 1997an ireki ziren.

NUPen ikasketa amaierako proiektua eta doktore tesia egin zituen eta bertan irakasle lan egiteko aukera izan zuen. «Eta proiektua egiten egon bitartean hasi nintzen euskaltegian (...) Sanduzelain [Miluze euskaltegi publikoa zenekoan]. Urte nahiko, ordu pila bat (...), urte batzuk zazpietatik bederatziak arte arratsaldero. Hasieran zen pixka bat... kuadrillarekin eta [Patxirekin] hitz egiteko pixka bat jakin min horrekin baina ikusi nuen ere bai hemen [NUPen] aukerak klaseak... Inork ez zuen klaseak ematen euskaraz eta bueno, aukera hori bultzatzeko hasi nintzen titulua atera nahian eta horretan, pixka bat horretan jarraitu nuen atera arte».

Patxi 1967an sortu eta Mezkitzen hazi zen, berak dioenez «... hamabost urte bitartean bi aldiz etorria Iruñera». Hamaika lagun bizi ziren etxean: aitatxi-amatxik, aita-amak eta zazpi seme-alabak. Patxi zazpi haurrietatik seigarrena da. Aita Mezkitzkoa du eta ama Errokoa. Aita nekazalgoan aritu zen «... beti aziendarekin» eta ama etxeoandre. Amatxi, aitaren ama, bertakoa eta euskalduna zen, aitatxi aldiz, Lakabekoa (Artzibar) eta erdalduna. Patxiren aitak euskaraz ikasi zuen amarengandik: «Orain egiten du euskara, baina euskara mugatu bat. Beti artzainen euskara, beti frantziarrekin elkar ulertzekoa. Zer haientzako erabilera nagusia, probetxu handiena ateratzen zioten hitz egiteko frantziarrekin (...) orain aita da gehien mantendu duena euskara, baina euskara mugatu bat, ez da oso aberatsa eta, bueno... oinarritzko elkarrizketak eramateko»¹⁸⁰.

Patxi erdaraz eskolatu zen, hasieran Mezkitzko ikastetxe publikoan, hamar-hamaika urte artio eta gero Garraldan. Handik Irunberrira joan zen LBHko I. urtea egitera eta gero Iruñera, Virgen del Camino Institutura. Hiriburuan LBH ikasten zuelarik gurasoen pisu batean bizi zen arreba batekin. Unibertsitatean Ingeniaritza ikasi zuen, hasieran NUPen eta gero Goi Maila Zaragozan burutu zuen.

¹⁸⁰ Sánchez Carrionek (1972) 1970ean Mezkitzen euskara zertan zetzan ez zuen berririk eman. Eskura ditudan datuez baliaturik gibelera eginda badirudi berriemailea sortu zenerako Mezkitzen euskararen gizarte erabilera hagitz higiturik zegoela. 1935ean A. Irigarayk agerian utzi zuen eremu euskaldunaren barnean haran batzuk bazirela euskara larriki ahulduta zutenak, «... donde las personas jóvenes no lo hablan» (1935: 623), adibidez, Erroibar. Halere, horien barnean baziren herri batzuk hizkuntza sendoxeago zutenak, «... aunque en ellos haya aún pueblos de máxima intensidad» (ibid.), eta emandako kasuen artean Mezkitz aipatu zuen. Egile beratarak ondoko lan batean 1935eko euskararen hego aldeko mugako herrietan euskaraz zuen gizarte erabilera desberdinez oharturik, herri horiek euskararen ezagutzaren eta erabileraren araberako zazpi mailatan sailkatu zituen eta Mezkitz I. multzoan sartu zuen, hau da, haurrek euskaraz bazekiten eta euskaraz egiten zuten herrien multzoan (1956: 44).

1961ean Joaquín Morales de Radak egindako inkestaren datuen arabera (1963: 20) A. Irigarayren I. multzoko zenbait herritan (Aritzun, Irañetan, Iraizotzen, Hiriberri Aezkoan eta Mezkitzen) 1961ean haur eta 30 urteko gutxi batzuek baizik ez zuten euskaraz egiten. Hau da, Mezkitzen tarte horretan galdu zuen euskaraz indarra belaualdi gazteen sozializazio hizkuntzako:

MEZKITZ (Erroibar)	Euskaraz badakite?		Euskaraz egiten dute?	
	1935	1961	1935	1961
Adinekoek	Bai	Bai	Bai	Bai askok
50 urtekoek	Bai	Bai	Bai	Bai askok
30 urtekoek	Bai	Bai	Bai	Bai gutxiak
Haurrek	Bai	Bai	Bai	Bai gutxiak

Izan ere, berriemaileak aipatzen duen amatxi mezkiritzarra XX. mendearen lehen hamarkadetan sortuko zen oraindik haurren euskarazko sozializazioa ahalbidetzen zuen ingurune batean. Amatxi hori Perpetua Saragueta euskal idazle mezkiritzarraren adinkidea izan zen (ikus Iñigo [2011] eta prentsan *Diario de Navarra* [2011ko ekainaren 20ko alea, 27. or.]). Perpetua Saragueta 1905ean sortu zen. Belaunaldi hori —aurreko mendearen hasieran sortua— izan zen seguruena Mezkitzen familian eta herrian euskaldun hazi eta hizkuntza ongi ikastera iritsi zen, orain artio, azkenekoa. Ondoko belaualdia —1940 inguruan sortua— gure berriemailearen aitarena, ez zen guztiz euskaldundu, edo euskaldun hazi bazen ere Francoren agintaldian euskaraz gizarte erabilerako mintzaira nagusia izateari utzi eta hizkera kamustu edo herdoilduko zitzaien.

Patxik gurasoek emandako hezkuntza baloratzen du: «... zazpi izatea eta diru iturri baskarra, eta dena aziendarengatik eta gure gurasoak, bueno, asmo onekoak eta hori baina formazioa ez zen soberakoa. Nire amak ikasi zuen batxilerra arte baina aitak juxtu irakurri eta hori. Eta orduan, noski, prestakuntza horrekin eta ziren garai zail horiekin nahikoa lortu dugu zazpitik seik ateratzea karrerarekin eta lana nolabait ongi egitea. Eta hori da gordetzen dudana, eta haurtzaro horretan gogor samar, gogor samar baina nolabait giroa herrian antzekoa zenez denontzako, ba ez zen guretako bereziki zailago, baizik eta normala, besteentzako bezala».

Denborarekin kulturaren eta hizkuntzaren balioaz jabetu direla uste du: «... denborak ematen dizu perspektiba eta horretan nik aipatuko nuke bereziki euskal kulturarena nola aldatu den, euskal kulturarena eta kontzientziarena. Hasiera batean guk ez genuen inolako kontzientziarik. Bueno, amatxirengandik, amatxik egiten zuela euskara eta hori, egiten zuela bere euskara eta zenbaitekin hitz egiten zuela baina zen beti gauza bat nolabait ezkutuan eta ez zegoela inolako asmorik eta interesik transmititzeko. Eta amatxik eman zion pixka bat nire aitari, nire aitak nahiko ongi mantendu duela, orain larogeita piko urterekin badu bere mailatxoa. Beti, nik uste, erabili izan duela bere beharretarako, nahiko komunikatzeko, defendatzeko gutxienez bai. Baina denborarekin hortik atera da benetan zegoen balorea: gure gauza bat zela, gure hizkuntza, bere balioa zuela eta sortu da kontzientziario bat oraingo gizartearekin dagoen batera, nolabait indartsuago dagoela euskalduna izatearena, gure nortasuna eta hori. Eta alde horretatik pozik nago, esan nahi dut, azkenean nire aitarentzat urtetan ez digula deus ere, ja [xa] ere esan, ez eta hitz bat ere euskaraz eta ezta kontzientzia, deus ez horren inguruan; gero atera egin da hori eta nik uste dut bera ere sentitzen dela oso ongi».

Patxik amak euskararekin izan zuen ardura ere nabarmendu du: «Nire ama nahiz eta erdalduna izan, kultura gehiagokoa zen eta kontzientzia kutsu eta pixka bat ematen zigun, beti balore hori izateko: 'Ikasi behar duzu euskaraz'. Eta gogoratzen naiz txikitan, hamabi urtetan, izan zela aukera ikasteko euskara han [Mezkiritzen], hango apez batekin eta berak [amak] bultzatuta ni joan nintzen bizpahiru aste ikastera eta nolabait berak mantentzen zuen zera hori, interes hori eta garrantzi hori, nahiz eta euskalduna ez izan, ikas nezan».

Patxiren haurrideetan guztiek ikasi dute euskara, batek izan ezik, herrian geratu denak hain zuzen ere: «... benetan, guk euskara ikasi dugu gehienbat Iruñera etorrita (...) etorri gara ikastera gure karrerak eta gure ikasketa arruntak eta horrekin batera euskara ja behin hartu dugu ongi, euskaldundu gara erabat». Patxiren kasuan, gaztetxotan, Iruñean LBH ikasten ari zelarik piztu zitzaion euskara ikasteko gogo: «... hamasei urtetik gora hona etorri, Iruñera, eta hemen egin nituen lagunak, kuadrilla bat eta hori, denak zirela San Fermin Ikastolako ikasleak eta han konturatu nintzen haiek esaten zidatenaren arabera euskalduna ni nintzela. Haiek deskribatzen zuten nola zen euskalduna eta 'Joe, ostia! Hori naiz ni! Hori naiz ni!'. Eta ja horrekin ja kontzientziatu nintzen ikasi behar nuela euskara. Ikasi nuen. Hasi nintzen benetan euskalduntzen hemeretzi urterekin, zer han [Mezkiritzen] egiten nituen hitzak euskaraz bakarrik ziren aziendarekin, mendi izenak eta animaliekin lau hitz euskaraz eta hori, erabiltzen zirelako. Hor erdara ez zen iritsi azienda mundura eta orduan egiten ziren hitz horiek animaliekin, aziendarekin eta zenbait gauza oso bereziak... Eta gero ja etorri zen kontzientzia gehiago eta euskalduntze prozesua eta hori». Lagunen laguntzarekin ikasi zuen bere kabuz, euskaltegira joan gabe. Orduko euskaldunduta zegoen arreba batekin bizi zen Iruñean eta «... erraz samar ikasi» zuela dio. Euskaraz egiten hasi eta harreman hizkuntza aldatu zuen lagunekin ez ezik, anai-arrebeekin eta gero neska-lagunarekin ere: [anai-arrebeekin] «Bai, ordutik bakarrik euskara erabiltzen dugu (...) txikiena kenduta». Hori duela hogeita lau urteko «aldaketa» izan zen.

Neska-lagunaz honela dio: Marta ezagutu zuela pixka bat geroago, NUPen unibertsitate ikasketak egiten ari zelarik, orduan adiskidetu baina Zaragozara Goi Mailako Ingeniaritza ikastera joan artio ez zuten bikote harremana hasi. Han EKT taldeak dantza eta euskara eskolak ematen zituen. «Hirurogei, hirurogeita hamar lagun ginin» oroit da Patxi eta «... nik ematen nituen euskarazko klaseak de balde (...) ni ere han nintzen bere euskarazko irakaslea

[Martarena] (...) egia esan erabakia nik hartu nuen. Jarri nion baldintza nirekin nahi bazuen ibili euskaraz izan behar zela. Hasieran gogor samar izan zen baina gero, ja urte batean oso normalizatua eta erabat euskaraz».

Mutil-lagunarekin hizkuntza aldaketa nola egin zuen Martari galdeginda: «Hasieran ezer ez genuen egiten baina zazpigarren urratsa edo hasi nintzenean egun batean esan zidan 'inoiz gehiago ez dugu hitz egingo erdaraz' (...) eta ja hasi ginen. Horrela hasi ginen. Hasieran pixka bat zaila, bueno, banuen... ez nuen arazorik hitz egiteko, ongi edo gaizki hitz egiten nuen arazorik gabe. Okerrena zen pues, hori... ez dakit, haserretzen ginenean edo nahi zenuen hori pixka bat gehiago argudiatu, pues nabaritzen nuen falta, euskara mailaren falta baina ez zen gaizki, ongi. Eta hortik berehala txip aldatu nuen ja hori, pentsatzen. Ez dakit pentsatzen baina ez zitzaidan kostatzen hastea. Bazen jendea nirekin maila berbera egiten baina kristoren zailtasunak hitz egiteko eta hasi ginenetik horrela, erraz. Jarraitzen nuen akats pila bat egiten baina hitz egiteko ongi, lasai, eroso».

Mutil-lagunaz gain, Martak lagun taldea ere izan zuen lagunargi hizkuntza aldaketan: «Bolada bat gu egoten ginen Zaragozan hasieran eta bueltatzen ginen asteburu, autobusa hartu eta etortzen ginen. Eta elkartzten ginen beti ostiralero afaltzeko elkarrekin eta afaldu eta askotan larunbatetan edo igandetan mendira joateko, landetxeetara joateko... Eta horretan harreman estua izan nuen haiekin eta batzuk nahiko militanteak ziren euskararekin eta bazekiten ni ikasten ari nintzela eta haiekin... batzuk ari ziren momentu horretan ikasten baita (...). Orduan ordu asko pasatzen genuen elkarrekin». Iruñeko lagun taldean euskaraz egiten zuten arrunki: «Batzuk ziren ikastolakoak eta mantendu dute, ez dute utzi atera zirenetik eta bai, nahiko... haien artean beti mantentzen dute, inoiz ez dute erdaraz egiten eta nirekin gutxitan ere bai, oso gutxitan. Bazekiten ikasten ari nintzela eta hasieran, pixka bat, bortxatu gabe, ez egoera asko baina bai hasieratik banuen aukera praktikatzeko hasieratik. Eta batzuk, ni ez nintzen bakarra, baziren ere bai ikasten... pues horretan, lasaitasun pixka batekin, afaltzen... ez dakit, giroa zen aproposa horretarako».

Euskara lagun artean ikasteko bide erraz horri modu kontziente eta trinkoagoak jarraitu zion. EGA ateratzeko bai «... ordu pila bat sartu» behar izan zituela dio Martak: «EGA ateratzeko, hori bai izan zuen momentu bat esan nuen 'buaaaa! Bidaliko dut dena pikutara!'. Baina bueno, gero pasatu zitzaidan. Atera nuen titulua ere bai eta hori ahaztu zitzaidan. Baina izan zen bolada bat, batez ere hemen [NUPen], hemen nahi nuen atera [lanpostua]. Baina bestela, erlazio nahiko naturala zen lagunekin, mutilarekin, jendea ezagutzen nuen».

Hasierako urteetan NUPeko bere sailean ez zegoen euskaldunik. Marta unibertsitateko zenbait irakasle euskaldunekin hasi zen harremanetan eta Unibertsitateko Euskal Irakasleen Elkartearen (EIREn) sartu ziren: «... horiekin hasi nintzen eta sartu zitzaidan grina pixka bat 'nik klaseak eman nahi ditut euskaraz' (...). Eta hasi nintzen eskolak euskaraz ematen, batzuetan bazen taldea, berzteetan ez zen ateratzen. Hasi nintzenetik beti, ia-ia urtero izan dut zer edo zer (...). [Orain] dena, orain bai». Orain hiru urte DBHko irakaslea izateko oposizioak gainditu zituen eta irakasle lanpostua du Iruñeko institutu batean (D ereduan). Orduz geroztik, NUPen irakasle elkartu gisa aritzen da. Irakaskuntza guztia, hala institutuan nola unibertsitatean, euskaraz du. «Orain ja, bizitza osoa, ia egun osoa egiten dut euskaraz. Ez bada hemen [NUPen], institutuan» dio.

Patxi energia berriztagarrien ikastegi batean aritzen da bai eta NUPen ere irakasle elkartu gisa. Lehenbizikoan eskolak erdaraz ematen ditu, unibertsitatean aldiz, bi hizkuntzatan, talde batzuei euskaraz irakasten baitie.

Zaragozatik itzuli eta ondoan, Martak hogeita zazpi urte eta Patxi hogeita bederatziz zituztelarik hasi ziren elkarrekin bizitzen. Ordurako haien arteko harremana euskaraz zen. Elkarrekin urte batzuk bizi eta gero ezkondu ziren. Lehen umea Martak hogeita hamaika urte zituelarik sortu zen. Etxean egiten zuten hizkuntzaz galdeginda, honela dio Martak: «Guk ja euskaraz egiten genuen, orduan... ez genuen horretaz hitz egin. Normala zen, euskaraz egiten genuen dena». Halere, oroit da «Ezkondu ginenean, ezkontzaren egunean aitarekin izan genuen mobida pixka bat. Ezkondu ginen zibirez, Burlatan, eta euskaraz egin genuen zeremonia osoa. Eta bueno, pixka bat eztabaida, esan nahi dut, aitaren familiak ez zuten ulertzen batzuk eta hori

baina haurrekin ez. Haurrekin beti, o sea, normala zen, guk euskaraz hitz egiten genuen eta haiekin ere bai». Patxik honela dio lehen momentutik haurrekin izan duten hizkuntza harremanaz: «Ez dugu ikusten beste modu batez, ez dugu ikusten. Gure harremana beti da euskaraz (...). Eta orduan familiak etorri behar zuen, inolako aldaketarik gabe. Ez genuen ez eta planteatu ere».

Lehen umea, Naiara, sortu eta lau hileko amatasun baja eta gero haurraren zaintza hone-lan konpondu zuten: «Klaseak eman behar nituen eta hartu genuen neska bat etxean (...) etortzen zen goizez eta euskalduna zen». Euskalduna izateari bereziki begiratu ote zioten galdegin-da, baietz dio Martak: «Seguru izan behar zuela». Umezain euskaldunak urte luze eman zuen Naiararen kargu eta gero alaba Mutiloagoitiko haurtzaindegi batera eraman zuten euskaraz nahi baitzuten: «Ez bagenuen aurkitu [haurtzaindegirik euskaraz] eginen genuen erdaraz baina saiatu ginene eta bai». Haurtzaindegian izan zen Naiara harik eta hiru urtez Amaiur Ikastolan hasi zen artio. Bigarren haurra ere, Jagoba, hasieran neska euskaldunaren kargu eta gero haurtzaindegi horretara eraman zuten ikastolan hasi baino lehen.

Haurrekin beti euskaraz egin dute Martak eta Patxik. «Eta horrekin sortu da gauza oso polita: umeek gu ikustea beti euskaraz egiten dugula gure artean, haiekin, haiek naturalki hitz egiten dutela euskaraz, oso... niretzat gauza polita da» kontatzen du Patxik. «Beste egunean —gogoan du Martak— galdetu zidan [Jagobak] ‘eta nik noiz ikasi nuen erdaraz hitz egiten?’. Ez dakit zehazki noiz. Oso gutxi hitz egiten zuten [erdaraz] ikastolara joan baino lehen, oso gutxi. Gurekin beti euskaraz, haurtzaindegian ere beti euskaraz. Lotzan ikasi zuten». Izan ere, asteazkenero —haurrek arratsaldezkako eskolarik ez baitute— joaten dira Martaren sorterrira aitatxirekin bazkaltzera.

Martaren ahizpa bat ere herrian bizi da eta haurra Orkoiengo eskolan du matrikulatua D ereduan. Martaren ahizpak, bat izan ezik, euskaldundu dira: «Txikiena kenduta bai. Arrazoi desberdinengatik. Harreman desberdinak izan ditugu euskararekin baina azkenean lautik hiruk bukatu dugu ikasten». Halere, ahizpek ez dute beren artean euskaraz egiten: «Ahizpak, nahiz eta euskaldunak izan, gure artean erdaraz mantentzen dugu (...). [Patxik] ez, [Patxik] bere arrebekin eta anaiekin egiten du, euskaraz egiten dute. Baina guk [ahizpok] erdaraz, ez dakit zergatik baina hitz egiten dugu horrela eta horrela ikasi zuten [seme-alabek] pixka bat. Nik uste dut ikastolara joan zirenean gehien ikasi zutena zen erdaraz hitz egitea. Oso gutxi eta oso gaizki... [hitz egiten zuten erdaraz], ez zuten oso ongi ulertzen eta oraindik ere askotan kostatzen zaie (...). Alde horretatik ikusten dut erdararekin gabezia batzuk badituzte, esan nahi dut, ulertzeko baldin bada arauak, oso zehatzak eta korapilatsuak, [Naiarak] ez baina [Jagobari] oraindik kostatzen zaio».

Naiarak eta Jagobak «... haien artean ez dute inoiz, inoiz erdaraz egiten. Haien artean beti euskaraz, beti, eta horretan bai ez dugula guk [aita-amak] inoiz ezer esan behar eta ez dugu inoiz esan. Beti izan dute harremana euskaraz eta euskaraz egiten dute, beti». Bertze haurrekin dabiltzalarik «... nahiko joera dute euskaraz egiteko. Hobeto egiten dute gainera, erdaraz baino». Halere, bertze haur batzuei «... kostatzen zaie gehiago eta berehala pasatzen dira erdarara eta pues, tartekatzen dira horretan. Orduan segun norekin dauden egiten dute gehiago edo gutxiago. Zaila da, dena den euskaraz harremanatzea haurren artean. Batzuek badute... ez dakit, nik uste dut etxeko giroak egiten duela pila bat, pila bat. Etxean ez badute batere euskaraz egiten oso zaila da, nahiz eta ongi hitz egin».

Martaren ustez familiaren jarrera funtsezkoa da haurren hizkuntza erabilerarako: «Familiaren egiten badute [guraso] bata edo besteak edo biak euskaraz, nabaritzen da pila bat. Hauek [Naiarak eta Jagobak] badute joera euskaraz hitz egiteko, orduan besteak jarraitzen baldin badio, jarraitzen dute. Baina batzuek erabiltzen dute bakarrik ikastolan, ikastolako hizkuntza bezala eta ez lagunen artean ez ezer. Orduan, haurrek ikusten dute euskara dela ikastolako kontu bat eta oso zaila zaie egitea haiekin, zer berehala aldatzen da eta hori heldu batek badu... mantentzeko tinko eta berriz egin, berriz egin euskaraz, baina hauek bi egiten dute euskaraz eta hirugarrenean ‘pues bueno’, erdaraz egingo du».

Astebururo Mezkitzera joaten dira, Patxiren sorterrira, duela zortzi urte etxe bat egin baitzuten han: «... haiantzako [Naiara eta Jagobarendako] beste erreferentzia bat da, oso ga-

rrantzitsua». Mezkitzen bizi den haurrik ia ez dago baina asteburuetan elkartzen dira haurrak. «Denak ikasten dute D erduan. Orduan ez dute arazorik, lehengusu-lehengusina guztiak, lagunak, denak... Orduan, arazorik gabe egiten dute». Martak eta Patxik etxeko erabilera zaintzen dute: «Gure etxean daudenean badakite... euskaltegi bat, o sea, ezin da... hori oso garbi dute eta etortzen diren lagun guztiak hori badakite, gure etxean euskaraz egiten da, batez ere denek dakitelako, txiki guztiak, txikiak. Mezkitzen ibiltzen diren guztiak D erduan ikasten dute. Orduan, saiatzen dira, etxean gutxitan egiten dute erdaraz eta horretan beti ni horretan ez naiz oso zorrotza —dio Martak—, baina [Patxi] horretan da taliban, o sea, etxean baldin badaude euskaraz egin behar dute».

Patxik honela dio: «... erdararen inbasioa oso handia dela eta orduan edozer... Askotan jotzen dutela erdarara. Ez da nire seme-alaben ekimena, baizik eta besteena eta orduan, tarteka egiten dute euskaraz, tarteka erdaraz. Gu aurrean baldin bagaude beti egiten dute euskaraz [neska-mutikoek], hori gutxienez errespetatzen dute eta nik uste, errespetatu eta etorkizunean baloratuko dutela. Orain ez diote balorerik ematen, ez dakit, oso gazte direlako jakina, baina nik uste etorkizunean esango dute 'ostia! Banoa etxe horretara eta etxe horretan beti euskaraz egiten dugula! Nolabait da irla bat eta nik uste haietzako erreferentzia bat da». Izan ere, Patxik dio guraso gisa oso garbi dutela aukera hori eman dietela beren seme-alabei, baina gero haiek hautatu egin beharko dutela: «... hemen aukera askotako gizarte batean gaudela eta haiek [seme-alabek] nolabait badute aukera bat eginga gure [gurasoen] bitartez eta justifikatu diegu eta hori, ados daudela egindako hautaketarekin eta hemezortzi urte dituztenean haiek hautatuko dute nahi dutena».

Naiara eta Jacobak erdara «... asko ikasi dute ja telebistan», dio Martak, gainera «... nahiko telebistazaleak dira biak, nahiko. Duela bizpahiru urte arte ETB ikusten zuten euskaraz, baina azkeneko boladan gehiena egiten dute erdaraz eta ikusten dute erdaraz». Gainera, ikastolan ikasleak beren artean erdaraz aritzea usua da: «Ikastolan nahiko gutxi egiten da, nahiko gutxi (...) nire ikuspuntutik oso gutxi, oso gutxi (...). Batek egiten badu erdaraz, psssuui! Berehala pasatzen dira denak erdaraz egitera. Kanpainak egiten dutenean pues bultzatzen da pixka bat, hasten dira... mantentzen da bolada bat, baina batzuekin oso zaila, besteekin oso erraza, berehala egiten dute eta ongi, baina beste batzuekin zaila».

Naiarak eta Jacobak eskolaz kanpo egiten dituzten jardueraz galdeginda: biek atletismoa Iruñeko Larrabiden, neskatiokoak igeriketa eta txistua eta mutikoak eskubaloia eta pilota. Txistua kenduta, dena erdaraz, eskolaz kanpoko jarduera horietan D erduan ikasten duten bertze haurrekin badabiltza ere. «Tamalez —dio Patxik— (...) zaila da aurkitzen klub bat non dena euskaraz eman daitekeen».

Martak eta Patxik harreman usua dute ikastolako bertze gurasoekin. Gainera, Jacobaren gelan guraso euskaldun dezente bildu dira: «Amaiurren [Amaiur Ikastolan] nahiko patio egiten da. Gu ez gara asko-asko gelditzen baina bueno, bai... harremana jarraitu dugu ere bai. [Jacobaren] gelakook landetxetara joan gara elkarrekin asteburuetan. Gabon zaharrean ere egon ginen beste bi familiarekin», dio Martak.

Patxi berriki hiketan egiten hasi zaie hurrei, baina «... hikako giro batean ez daudenez, batzuetan ez dakite nola egin haien artean (...). Badut itxaropena egunen batean erabiltzeko gai izango direla».

12. familia

Lidia, Sebas eta beren semea, Peru (5 urte)

Lidiak gurasoak Mendialdekoak zituen baina Iruñean hazi zen. Frantses irakaslea da. Sebas iruinxemea da eta euskara irakaslea lanbidez (biak izan ditut berriemaile). Seme bakarra dute, Peru, eta euskaraz aritzen den familia dira. Iruñeko Donibane auzoan dute bizitokia.

Sebas 1972an sortu zen Iruñean. Txantrea auzoan hazi zen. Aita, Añorbekoa; ama, Iruñekoa; bertze bi anaiak eta bera bizi ziren. Haien ondoan amaren aldeko aitona-amonak, Caparrosokoak, bizi ziren eta «... normalean aitatxi-amatxiren etxean bazkaltzen» zuten hiru anaiek aita-amek lan egiten baitzuten, aitak ibilgailugintzako lantegi batean eta amak Telefonican. Aitaren aldetiko aitatxi-amatxirekin aldiz, harreman urria izan zuten: «Aitaren aldetik amatxi Arbizukoa zen baina Añorbera ezkondu zen eta Añorben ia euskara galdu zuen. Aitatzik ez zekien euskaraz eta familian erdaraz egiten zuten». Izan ere, Sebasek dio haur-gaztetxotan amatxi «... euskalduna zenik» ere ez zekiela: «Nik ez nuen kontzientzia linguistikorik, ez nekien Nafarroan bertze hizkuntza bat zenik ere. Gero ingelesa hasi nintzen ikasten institutuan, eskolan, eta orduan niretako munduan bi hizkuntza zeuden: gaztelania eta ingelesa (...). Nik ikusten nuen Euskadiko Kutxa eta Lankide. Ikusten nuen eta nik neure buruan ahoskatzen nuen *lankaid*, horrelaxe. 'Ingelesez ez dugu hori ikasi. Oraindik ez dakigu zer den'. Nik ez nekien eta beraz, giro erdaldunean hazi nintzen».

Txikitan familian euskararen kontrako giroa ez bazen ere, bai «... euskararen inguruko nahiko ikuspegi topikoa» jaso zuen: «... euskara ETAre kontua» zela «... eta horrelako istorioak». Eta honela dio horretaz jabetu izanaz: «Momentu batean konturatu nintzen, 'Jode, ba nik topiko horiek etxean jaso ditut'. Eta horren kontra egin behar izan dut nire barnean, eta ez didate doktrinarik eman 'hori txarra da!', baina horrelako komentarioak, batez ere amaren ahotik, entzun izan ditut etxean». Gero, «... handia nintzelarik hasi nintzen gauzak bertze modu batean ikusten. Eta batez ere unibertsitatean hasi nintzen ikuspuntua aldatzen».

Sebasek OHO Berriozarko Agustindarren ikastetxean egin zuen, BBB eta UBI Txantrean, "Jesuitinas" Ikastetxean, eta gero Nafarroako Unibertsitatean Historia lizentzia ikasi zuen, bai eta doktore tesia egin ere. Dena erdaraz. Unibertsitatean zelarik «... hainbat gauza elkartu ziren» Sebasek txikitatik jasotako euskararen gaineko ikusmolde topiko hori aldatzera eta euskarara hurbiltzera eraman zutenak. Alde batetik, «... interesa berez piztu zitzaidan —dio Sebasek— lagun batzuekin mintzatuz». Bertze alde batetik, tesia egiteko hartu zuen «... gaia izan zen Nafarroaren nortasuna edo historia (...) eta —berak dioenez— nire gogoeta izan zen (...). 'Bueno, euskara ikasi beharko dut, euskaraz ere zer erraten duten eta zer ikuspuntu duten jakiteko'. Uste nuen beharrezkoa zela».

Eta azkenik, aitortzen du, «... neska-laguna edo bikotekidea ezagutu nuen, Almandozkoa da, euskalduna eta (...) neska-lagunarekin hasi nintzen ikasten» 1995eko udan. Hasieran Lidiarekin etxean, berak zituen liburu eta ariketa batzuek baliatuta, bigarren urratsetik aitzina Iruñeko Sanduzelai auzoko Miluze euskaltegira joan zen eta azkeneko bi ikasturteak Iruñeko HEOn egin zituen. Euskara ikasi eta euskaraz egiten hasi zen lagunekin eta unibertsitateko ikas-kide batzuekin: «... hasi nintzen poliki-poliki pixka bat euskaraz egiten eta, bueno, sartu ahal, ez dakit, haurtzaroko topiko horiek gibelean utzi nituen eta pixka bat konbertitu nintzen edo bihurtu nintzen euskararen federa, nolabait errateko», dio irribarrez.

Sebasek honela uste du: «Hizkuntzak beti erakarri izan nauten kontuak izan dira (...), orduan euskararen munduan sartzeko ez dut horrela problema handirik izan». Bere bi anaiak, ikastaroren bat egin badute ere, ez dira euskara ongi ikastera iritsi.

Lidia 1969an sortu zen Iruñean. Ama Almandozko baserri batekoa, euskalduna, eta aita, Lidiak bortz urte zituelarik hilda, Arraizkoa (Ultzama) eta euskalduna. Bi anai-arreba dira, Lidia zazpi urte gazteagoa anaia baino.

Aitaren aldetik amatxi Zigakoa zen eta aitatzik ultzamarra. Aitaren anai-arreben artean batzuek euskara ikasi zuten, baina bertze batzuk ez ziren ongi ikastera iritsi. Lidiak honela kontatzen du: «Bere familian [aitarenean] (...) bera eta bere anaia zaharrena ziren euskaldunak ziren bakarrik (...) ziren hameka haurride edo horrela eta bakarrik lehendabiziko biak ziren euskaldun peto-petoak eta bertzeek ia galdu zuten (...) Bazekiten, ulertzen zuten baina ez zuten erabiltzen, finagoa zelakoz...».

Amaren familia Almandozkoa da, baserrikoa, familia euskaldunbetea. Hala ere, amak eta izeba-osaba guztiek txikitan ikasi zuten erdaraz, dio Lidiak. Izan ere, amaren aldeko amatxi gaztetan Iruñera joan zen zerbitzatzera eta erdara ongi ez baitzekien «... segur aski gaizki pasatuko zuen». Horregatik uste du Lidiak bere amatxi saiatu zela bere seme-alaba guztiei erdara irakasten: «... etxean amak beti erraten du 'baina nire amak erakutsi zigun guztioi erdaraz. Guk bagenekien' (...). Ez zuten hain gaizki pasatu eskolan nolabait bazekitelako. Ama arduratu zelako transmititzea...».

Lidiaren aita garraiolaria zen eta ama etxeko lanetan aritu da beti. Ezkondu eta ondoan Almandozen bizi ziren eta hor sortu zen semea. Mutikoak laupabortz urte zituelarik familia Iruñera, Donibane auzora, aldatu zen. Hor bizi zirelarik sortu zen Lidia. Behin alargunduz gero, amak eta seme-alabek Iruñean segitu zuten bizitzen.

Lidiak txikitan euskaraz egiten zuen etxean aita-amekin hasieran eta gero amarekin: «... eskolara joaten hasi artio nik euskaraz egiten nuen beti amarekin etxean (...) orduan ni euskalduna nintzen eskolara joaten hasi nintzenean». Baina erdaraz eskolatu zuten: «... erdaraz egin ditut nik ikasketa guztiak (...) Jose M^a Huarten, etxe ondoan (...) ez ziren kezkatzen, ez zuten izan kezka euskara eta... ondoko eskola publikora (...) eta orduan amak erraten du orduan ja hasi nintzen ja bakarrik erdaraz eta nik euskara galdu nuen aunitz, kasik erabat nik uste. Zer bueno, ikasketa guztiak gaztelaniaz, lagun guztiak erdaldunak, karrika erdalduna... bakarrik erdaldunak, baziren euskaldun gutti (...) inguruko jendea erdalduna ama izan ezik». Lidia ez da oroit eskolan hasi zelarik erdara ulertzen ez zuenik: «Segur aski banekien erdaraz. Orduan, nik ez dut arazorik izan eskola garaian (...). Ez dut gogoratzen ez ulertzearena edo... (...) zertaz etxean euskaraz egiten bagenuen. Auzokideekin izango zen segur aski edo telebistarekin ikasiko nuen». Lidiak dio bere anaiak aldiz, «... bai izan zituela arazoak» bortz urte artio Almandozen bizi izan baitzen eta Iruñera bizitzera etorrita eskolan hastearekin «... ez zekien erdaraz». Lidiaren anaiak ere euskara anitz galdu zuen. Haurtzaroan erdaraz egiten zuten anai-arrebek beren artean: «... gure artean beti hizkuntza arrunta izan da hemen, Iruña honetan, beti erdara». Amarekin ere erdaraz egitera jarri ziren. Lidia eskolan erdaraz hasita eta etxean amari ere erdaraz egiten hasi zitzaiolarik ama «... ja erdarara pasatu zen».

Haur-gaztetxotan astegunak Iruñean eta oporraldi guztiak Almandozen, amaren base-rrian, ematen zituzten. Baserrian, herrigunetik bi kilometrora, Lidiaren amatxi eta izeba-osabak bizi ziren. Baserrian «...normalean erdaraz» egiten zuen Lidiak, nahiz eta amak eta izeba-osabek euskaraz egin beren artean eta hari: «Berak [amak] herrian beti euskaraz bere anai-arrebekin. Bere hizkuntza hori da, baina nirekin... (...) Haien artean euskaraz (...) baina nik hitz egin normalean gaztelaniaz eta nirekin ere gaztelaniaz. Ni ikasten hasi nintzen artio»¹⁸¹.

Lidiak Filologia Hispanikoa ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean: «Unibertsitate garaian nintzela hasi nintzen ja saltseatzen horretan (...). Lehendabizi hasi nintzen AEKn, Donibanen. Uste nuen ez nekiela ezer. Orduan erraten nuen 'ba! Nik ez dakit irakurtzen, ez dakit idazten... Hasiko naiz zerotik, nahiago dut oinarri on bat hartu'. Baina klaro, sartu nintzen AEKko hasten ari ziren talde batean eta hombre, haiek baino gehiago banekien. Ez nekien igual idazten, ortografia eta abar baina bai, orduan utzi nion momentu horretan (...) eta karrera bukatu nuenean (...) apuntatu nintzen Miluzen (...), egin nituen bi urtez alfabetatze eta ja aurkeztu nintzen EGArak».

Euskara ikastearekin hasi zen amarekin harremana euskarara berriz aldatzen. Lidia eskolan hazi zenetik erdaraz egitera jarri ziren ama-alabak baina «... gero ni berreskuratzen hasi nintzenean —oroitzen da— pues, hemezortzi, hemeretzi urterekin... pues orduan berak ere egiten zidan. Orduan ja nik, nolabait ni bueltatu nintzen [euskarara] eta berak ere bai».

¹⁸¹ Baserrian euskara nagusi bazen ere, eskura ditudan datuen arabera herrian euskararen gizarte erabilera ahulduta zegoen. 1961ean, Morales de Radaren inkestak salatzen duenez (1963: 21), Almandozen haur gutxi erabiltzen zuten euskara eta haietan neskaticoak mutikoak baino gehiago ziren euskara ez zekitenak. 1970ean Sánchez Carrionek (1972: 120-121) ere euskararen ahultze zantzuak atzeman zituen: haurrak eta neska gazteak, oraindik euskaldunak baziren ere, erdararako joerarik handiena zuten adin taldeak ziren. Agian herriaren erdararako joera hori hasia zen eragina izaten baserrietako haurren hizkuntza sozializazioaren moldean.

Euskara ikasten hasi izanaren motibazioez galdeginda, Lidia honela mintzo da: «Pues bi arrazoi dira, nik uste. Bata, familiako hizkuntza dela, gure etxeko hizkuntza. Eta bigarrena, lana aurkitzeko aukera gehiago ematen zizkidala (...) Filologia batekin pues... (...) EGA atera eta frantseseko titulua atera eta segidan atera zitzaidan lana». Lidia irakaskuntzan aritzen da, institutu baten, D ereduan. Unibertsitateko lagun batzuk ere euskaldundu ziren eta «... horiekin beti euskaraz egiten» duela dio.

Iruñeko HEOn Frantsesa ikasten zuelarik ezagutu zuen Sebas eta honela azaltzen du mutil-lagunaren euskalduntzea: «Ni euskalduna nintzen azken finean. Igual horrengatik hasi zen bera ere (...). Pues irakatsi nion... ni berez ez naiz kontzientziatua izan, pues zabaldu behar dut edo... egin zitzaidan natural, modu normal batean... bera irekia bada, interesa izango zuen eta ni prest nintzen laguntzeko edo hurbiltzeko, zeren orduan ez zuen ezagutuko ez nire familia ere».

Sebasek euskara ikasi ahala eta berak hala eskatuta bikoteak «... poliki-poliki» harreman hizkuntza aldatu zuen. Mutilak Iruñeko HEOn euskara gaitasun agiria eskuratu eta 2006an hasi zen euskara eskolak ematen. 2008an euskara irakasle oposizio publikoa gainditu zuen.

Lidiak eta Sebasek beren artean euskaraz egiteari ekin zioten, beti egiten ez bazuten ere, baina 2006an Peru sortzarekin, orduan euskaraz tinkoago egiten hasi ziren: «... lehenago egiten genuen igual euskaraz nola erdaraz... pasatzen ginen batetik bertzera gehiagotan (...) batez ere umea sortu zenetik, nik uste. Nik uste gehienbat hor izan zela. Lehenago ere bai baina ia umea sortu zenean erabaki behar duzu 'zer egin behar dugu, zer hizkuntzatan egin behar dugu'. Eta hasi nintzen haurrarekin euskaraz eta gure artean euskaraz», dio Lidiak. Dena dela, umeari nola egin adostu behar zutelarik zalantzak izan zituela aitortzen du: «Erabaki genuen zer irakatsi behar genuen eta nik zalantzak nituen horren gainean. Pues erraten nuen 'igual batak hizkuntza batean eta bertzeak bertzean, biak ikas ditzan'. Gero erabaki genuen ezetz, guk euskaraz eginen geniola (...) zertaz [Sebasek] erraten zidan 'Iruña honetan, Iruñean erdaraz ikasiko du zuk ikasi duzun bezala. Pues egin diezaiozun guk euskaraz eta kanpotik ikasiko du erdaraz'. Eta hori erabaki genuen eta... [Sebasen] familia erdalduna da. Bere familiarekin ere ikasiko du. Eta horrela hasi ginen».

Hala bada, haurra izan eta euskaraz egiten hasi zitzaizkion haurrari bai eta elkarri ere, Lidiak kontatzen duenez: «Orain gehienez euskaraz egiten dugu. Gehienetan euskaraz eta haurraren aitzinean normalean beti, gu erreferente hori izateko».

«Haurrarekin euskaraz egiten dugu», dio Sebasek, baina berak ez du buruan hori esplizituki adostutako gauza izan denik: «... nik uste ados geundela. Ez ginen horretaz mintzatu baina nolabait begi bistakoa zen. Aurretik [ilobekin, Lidiaren anaiaren semeekin] euskaraz egiten genuen eta hori nahi genuen (...) nik uste berez sortu zela (...) Haurra euskalduna izatea nahi genuela nik uste». Gainera erabaki zuten «ahal» zuten heinean «... Almandozko euskara erabiltzea». Lidiak badaki eta Sebas saiatuko zen «moldatzen»: «Pixka bat (...) pentsatuta egunen batean baserrira joan gara eta nahi dugu [Peruk] dakien euskara eta etxean aditu duen euskara ahalik eta antzekoena izatea hango euskararekin».

Peruk hiru hilabete eta erdi zituelarik minbizia diagnostikatu zioten eta lehen urtea gurasoek eta haurrak «... ospitaletik etxera eta etxetik ospitalera pasatu» zuten. Sebasek azaltzen zuenez, halako kasuetan gorputzaren defentsak gutxitzen baitira ez da komeni izaten jendearekin izatea, orduan lehen urtea Peruk aita-amekin bakarrik eman zuen, ez ziren Almandozko bordara joan: «Ez ginen inora joaten, bakarrik ospitalera edo jaietan ibiltzera karrikara baina beti gu bakarrik». Urte gogorra izan zen: «Kimioterapia eman behar izan zioten —oroit da Sebas—, gero ebakuntza etorri zen, gero berriz ere kimioterapia, gero radioterapia (...) Madrilera ere joan behar izan genuen autotrasplantea deitzen dena egitera eta Madrilén hogeita bat egun pasatu genituen gela batean bakartuak (...) Eta 2008an bukatu genuen tratamendua...». Orain haurra sendatuta dago.

Eritasuna gaindituta Almandozko bordara, amatxi eta osabarekin izatera, hasi ziren haurrarekin joaten: «Nik gainera ilusio handia nuen —dio Sebasek— eta uste nuen 'Ni saiatuko naiz, euskaldun berri naiz, saiatuko naiz ahalik eta hobekien irakasten baina beharbada niri falta zaidan naturaltasuna edo erraztasuna han lortuko du, baserrian. Nik nolabait konplize

nahi nituen baserriko osaba, ama eta (...). Orduan hasi ginen joaten eta ongi eta momentu batean... Bueno, anekdota baten bidez azalduko dizut: ari ginen futboleko (...) eta 'Balona igorri duzu *al baratze*, bota duzu *al baratze*' edo 'bota duzu *al xoko*' edo 'bota duzu *al sonbor*' [erraten zion osabak aldioro Peruri]. Eta 'Ez, *baratzera*. Irakatsi ongi'. Eta beti horrelako trakeskeriak. Ni hasi nintzen urduritzen eta 'Begira, gero hasiko da ikastolan. Ikastolan auskalo zer ikasiko duen!'. Hemen Iruñean giroa erdalduna da (...). Gainera, behin traizionatua sentitu nintzen. Erran nion [Peruri], ari ginen jolasean, jostetan eta 'Baietz pilota... ez dakit... sabairaino bota!'. Eta osabak '¡A que no!'. Edo pilota bota eta 'Ya viene. Ya va. Ya vuelve', 'Erraiozu aitari 'Ahora vas y la coges tú'. 'Ostia! Irakatsi! Euskaraz egitea nahi dugu!' Gainera betiko baserri-tarra da, gaizki moldatzen da [erdaraz]. Eta erran nion 'Begira, eredu txarrak ausarki izanen ditu Iruñean eta behar duguna da eredu ona. Gu saiatzen ari gara eredu ona ematen eta jode! Eta komenigarria izanen litzateke...'. Ez zen modurik izan (...). Nik oso gaizki hartu nuen, gainera nik nire gabeziak nituen, nire ziurtasun falta eta han laguntza aurkitu beharrean oztupoak aurkitu nituen. Nik espero nuen horretan laguntzea eta ez, ez».

Sebasek ez daki baserriko familiak ongi ulertu ote zuen zer zen berak nahi zuena: «Nik batzuetan pentsatzen nuen 'Bueno, beharbada ez dute ulertzen zer nahi dudana'. Zer batzuetan iduri zuen... nik eskatzen nien, bueno 'Egin ongi!'. 'Ongi', erran nahi nuen 'Egin egiten duzuen bezala'. Baina batzuetan iduri zuen haiek ulertzen zutela, bueno, nik nahi nuela *Vitoria* ordez *Gasteiz* erratea edo (...) batuan egitea eta 'Ez, ez, ez. Egin egiten duzuen bezala baina *al baratze* ez da *al baratze*'. Orduan, klaro, [Peruk] eredu horren gainean bere esaldiak eraikitzen zituen (...). Eta horregatik kezkatzen ninduen egoerak. Ez dakit, beharbada ni exageratu hutsa nintzen».

Baserriko familiaren, bereziki Lidiaren osabaren hizkuntza portaera ez ezik euskararen kalitatea bera kezka izan zuen Sebasek: «... ez dakit hori Almandozko egoera orokorra den baina familia horretan euskara galdu... Nik izugarritzko saltoa ikusten dut zaharregandik gazteenganaino (...) Koinatak, nire ustez, arrunt gaizki egiten du. Sekulako astakeriak erraten ditu (...): '[Peruri] de fresa gustatzen zaio porque da goxoa, a que bai'. Literal, horrela. Ostia! *Porque da goxoa a que bai* ez dakit, igual horrela egiten da Almandozen baina... Ez dakit, bertze toki batzuetan ez dakit hain... edo 'Kendu hortik que nintzen ni' eta horrela, 'Kasu eman que dago bero'. O sea, euskara menderagailurik gabe: 'Porque horiek dira los que...' (...). Nik ulertzen dut, bai, herriko euskararen batzuetan horrelako gauzak baina makuluak eten gabe. Lau hitzetatik hiru erdaraz. Koinataren ahotik hori da entzuten dudana. Eta gero, klaro, zaharrak denek erraten dute *irauli*: 'Karga irauli da'. Gazteek *bolkatu*: 'Karroa bolkatu da'. Nire ustez hori galdera da, ez dakit horrela den normalean, ez dakit toki guztietan hala gertatzen den baina... Bueno, eta orduan ez naiz hain gustura joaten. Alde batetik osaba hori oztupo dudalako eta gero, ez dakit, gazteen ahotik entzuten dudana euskara, nire ustez, arrunt txarra da».

Bordan Peruri irakatsitako hizkuntzaren portaeraren inguruan ere oso kritikoa da Sebas: «[Peruri] erakutsi diote jostetan aritzeko erdara erabili behar dela nahitaz. Jostetarako beti erdara erabiltzen zuten. Osabak beti erdara egiten zion edo erdarazko esamoldeak edo esaldiak erakusten zizkion jostetan ari zelarik. Hau da, nolabait diglosia ikastaro bat eman ziola zuzen-zuzenean: 'Bai, hemen baserrian ongi da gure artean euskaraz egiten ahal dugu baina baserri-tik kanpo, munduan, erdaraz egiten behar da'. Horrela, ezin dute mundua euskaraz imajinatu».

Hala bada, Almandozko bordan, Lidiaren familiarekin euskararen inguruan ez du esperientzia ona izan Sebasek: «... nik espero nuen han euskaraz bizitzea, euskaraz gustura egotea eta juxtu kontrakoa gertatu zaigu edo gertatu zait niri bederen». Almandozko baserrian ezagutu du «... zer den euskaldun desideologizatu bat». Bertzalde, Iruñeko euskaldun berriekin eta batuarekin duten jarrera aipatu du: «... han [baserrian] Iruñekoa izatea, Iruñeko euskalduna izatea, batuaz edo hori ia bekatu mortala da. Ez baitzara benetako euskalduna. Ez duzu baztaneraz egiten, nahiz eta saiatu. Batzuetan (...) [Peruri] erraten dio osabak 'Oso ondo!'. Eta oso ondo [Peruk] ez du bizitza osoan erran, *arras ongi* erraten dugu etxean, *arras ongi*, *arrant ongi*...».

nik zer dakit. Kontxo! Baina klaro, ni Iruñekoa naiz eta beraz... Zer da batua haiendako? Batua da baztanera ez dena. Kontrakoa, juxtu kontrakoa, hori da batua».

Lidiak ere aipatzen du baserriko osabaren portaera. Almandozko familiarekin Peruk «... gehienetan euskaraz» egiten badu ere, honela azaltzen du: «... baina nik uste dut nire osaba gehienbat aunitzetan erdaraz egiten diola (...). Nik uste dut transmititu nahi duela erdara. Ikusten du guk egiten diogula euskaraz eta nik uste bere kezka hori dela (...). Eta eskatu izan diot bi mila aldiz ‘faborez, zuk egin euskaraz! Erdaraz, gainera, gaizki egiten duzu! Erdaraz ikasiko du eta irakatsi behar baldin badiogu irakatsiko diogu baina zuk euskaraz. Euskaraz aukera guttiago ditu!’. Ez da posible. Beti hasten zaio... igual jostetan hasi eta horrelako erdara arraro horrekin. Bai, aunitzetan, eta [Sebas] koleratzen da gainera, baina ez dago bueltarik, berak nola guk ez diogun egiten, pentsatzen du ez duela ikasiko. Ez du ikusten hemengo [Iruñeko] giroa eta ez dakit, ez da konturatzen edo, baina bermatu nahi du (...), berak ez du erraten zergatik eta eskatuta ere ez du deus erraten baina gero berera (...). Segur aski berari egin zioten bezala».

Eritasuna dela eta hiru urterekin Amaiur Ikastolan hasi artio, Peruk jende helduarekin, gurasoekin bereziki, izan zuen harremana ia beti, eta euskaraz: «... beti gurekin (...) hiru urte bete artio edo horrela, edo lau urte bete artio kasik elebakarra izan da, euskaraz bakarrik moldatzen zen (...). Orain bai, [erdaraz] moldatzen da, dena edo gehiena ulertzen du».

Halere, dio Sebasek «... hobeki moldatzen da euskaraz erdaraz baino eta nahi izaten du euskaraz egin eta egin diezaioten (...). Erdara ikasten ari da, eta ziztu bizian gainera. Eta andereñoekin euskaraz egiten du, hori bai, baina haurrekin erdaraz». Peruk sozializazio arazoak izan ditu ikastolan eritasuna dela eta bolada batzuk ospitalean eman behar izan baitzituen: «... guztira hilabete bat edo bi hilabete galdu zituen eskolara joan gabe (...). Hori gehi lotsatia dela, gehi hasieran euskaldun elebakarra zela, bueno... sozializazio problemak izan ditu eta andereñoak erraten zidanean haurrekin erdaraz hitz egiten duela ni ez naiz ausartzen [Peruri] erratera ‘Aizu, euskaraz egin behar duzu!’ (...) hori oztupo baldin bada gero lagunak egiteko eta haurrekin moldatzeko. Nik espero dut hori denborarekin zuzenduko duela, baina orain joera da erdaraz egiteko haurrekin. Ikusten baldin badu euskalduna dela ez, orduan bale, euskaraz egiten du eta herrian [lehengusuekin] euskaraz egiten du, hori bai, baina eskolako haurrekin, klaro euskara ikasten ari dira, pixka bat badakite baina ez [Peruk] bezain ongi edo [Peruk] duen erraztasunarekin eta solturrekin eta orduan, klaro, haurren ama hizkuntza erdara da, [Peruren] ama hizkuntza euskara da baina ez dakit zergatik euskaldunek erdara ikasten duten eta erdaldunek ez».

Lidiak ere uste du eskolaldiaren hasieran Peruk izan zituen sozializazio arazoetako bat euskaldun hutsa izatea izan zela: «... sozializatzea kostatzen zaio, inguruan ez dagoelako bere adineko haurrik, orduan ez dago jarrita bere gauzak defendatzera eta... Hasieran izutzen zen eta... Eta bigarrena, nik uste dut, nire hausnarketa da, hizkuntza hasieran arazo bat zela bere-tako ez zuelakoz ulertu bertzeek zer zioten. Nik uste dut baietz, hasieran bai (...). Eta nik ikusten dut orain bertze haurrekin erdaraz egiten duela aunitzetan, ongi edo arraro horretan edo pixka bat... Eta nik erraten diot [Peruri] ‘[Peru], badaki, badaki euskaraz, ikusten?’ (...) nik uste erdara izaten ari dela ere bertze bide bat hurbiltzeko edo saihesteko zailtasunak edo ez dakit. Bueno, igual ja hiru urte pasa eta gero ez luke izan beharko, baina igual ohitura hartzen dute, ez dakit. Gurekin, desde luego, beti euskaraz egiten du».

Lidiak Amaiur ikastolan Haur Hezkuntzako ikasleek euskaraz egin dezaten egiten duten kanpaina eta pizgarriak aipatzen ditu: «Hasi dira estimul... bueno, motibatzen edo euskaraz egiten dutenak: Amaiurtxo bat, fotokopia bat moztua eta puskatxo bat, o sea, zer sari! Eta bai, horrekin... hasieran lortu zituen bi, ‘euskaraz egiteagatik’, ‘arras ongi, arras ongi!’. Baina ez du ekarri berriz. Eta ‘Amaiurtxoak noiz lortu behar dituzu?’ erraten diot (...). Orduan, ez dakit zertan ari den. Nik erraten diot bertzei egiteko euskaraz baina nik uste dut gehienetan haien artean hasten direla erdaraz (...) eta batzuk euskaldunak dira edo gutxienez aita euskalduna dute...». Lidiak guraso euskaldun batzuen harridura aipatzen du etxean aitarekin edota ama-rekin beti euskaraz egiten duten neska-mutikoak ikastolan sartu eta bertze haurrekin erdaraz

hasten baitira: «... aita batek komentatu zidan ‘jode! Zer ostra egiten du hemen [ikastolan], euskara desikasi edo zer? Etxean euskaraz egiten dugu!’».

Aita-semeak beren artean euskaraz aritzen dira beti. Hori zaindu du Sebasek: «... etxean beti euskaraz, nirekin batez ere. Emaztea horretarako... batzuetan esaldi batzuk botatzen dizkio erdaraz. Nik uste dut momentu batean, (...) behin ospitalean ingresatu behar zuenean [Peru] ziztatu behar izan zuten eta erizainekin gelditu zen bakarrik eta hasi zen ‘¡No quieres! ¡No quieres!’ . Eta *no quieres, no quiero* erran nahi zuen baina erdaraz gaizki moldatzen zen eta erraten zuen *no quieres*, ikasten ari zelako erdaraz. Eta orduan emazteak ikusi zuen, bueno nik ere bai, horrelakoe-tan klaro, gu gabe gelditzen dela ospitalean (...) erizainekin eta gainera, horri gehitu behar zaiola igual ez diela oso ondo ulertzen (...). Eta nik uste dut (...) harrezkeroztik emaztea saiatu dela pixka bat, bueno, erdara ere irakasten neurri batean. Orduan, beti beti beti euskaraz egiten dion bakarra ni naiz. Emazteak gehienetan egiten dio euskaraz baina (...) horretarako bigunagoa da edo malguagoa da». Lidiak aitortzen du: «... batzuetan ni pasatzen naiz erdarara, zeren klaro, hasi zenean [eskolan Peruk] ez zekien erdaraz. Klaro, [Peruren] egoera nahiko berezia izan zen, isolatua bizi zen eta orduan, es que azkenean giro euskaldunean zegoen gurekin eta euskaldun petoa zen. Pixka bat laguntzeko edo, baina bueno arazorik ez, orain badaki».

Haurrari euskaraz egitea bere familiak nola ikusi duen aipatu du Sebasek: «Nik uste amari ez zaiola sobera gustatzen baina ez dute deus ere aipatzen (...). Eta gainera haiekin gaude-larik ere nik haurrarekin euskaraz egiten dut, gure artean euskaraz egiten dugu. Eta nik uste hasieran igual gaizki edo zerbait erranen zutela baina ez, ongi hartu dute eta onartu dute, zer edo zer amak zerbait botatzen du baina... nahiko ongi, ez dago giro txarrik».

Sebasek dio Peru «solastuna» dela: «Klaro, ospitalean egotearen ondorioetako bat izan da beti solasean aritzen ginela. Ez dago deus egiterik, bada beti solasean [Perurekin] edo kantari edo gauzak kontatzen (...). Eta beti karrikan ere beti solasean. Silletan eramaten genuelarik ni ondoan joaten nintzen, horrela saihetsetik bulkatuta baina ondoan eta solasean eta egunen batean lagun bati erran nion ‘Iruñera etorri gara solasean’. Orduan [Peruk] ez dakit bi urte izanen zituen eta ‘Ja, ja! Nola solasean bi urteko mutiko batekin?’. Bueno, nik erraten nion ‘ongi pasatu duzu herrian?’ eta ‘bai’ erraten zidan. Bueno, bere neurriko solasak egiten genituen, hori solasean aritzea da. Eta orduan beti tar-tar-tar. Nik ikusten dut batzuetan... guraso batzuk ikusten ditut igual villabesan edo karrikan haurrekin joaten direla baina solasik egin gabe. Guretako hori ezinezkoa izan da, beti tar-tar-tar. Eta nahiko solastuna da, solastuna eta batzuetan tar-tar samarra ere bai».

Sebasen anaiek ez dute haurrik, Peruren lehengusu bakarrak amaren aldekoak dira, Almandozen bizi direnak, hamahiru eta hamar urteko bi mutikoak. Lidia eta Sebas euskaraz aritzen dira ilobekin eta Peru ere beti aritu da euskaraz lehengusuekin eta, oro har, Almandozko familiarekin. Lidiak txikitatik anaiarekin erdaraz egitera jarri zen eta oraindik ere horretarako joera dute biek, baina azken urteotan haurrak tartean izaten baitira anai-arrebek gutxiago egiten dute erdaraz: «Orain, gaur egun ez, hor daudelakoz... hor daudenez gero aurrean pues nire haurra eta bere haurrak eta, orain nik egiten diot gehienetan euskaraz eta berak erraten dit euskaraz. Berreskuratu... nolabait, haurrari beti euskaraz egiten diot eta orduan, anaiari ere egiten diot (...). Ilobei ere beti euskaraz egin izan diet, pues berari [anaiari] ere bai. Orduan, pixka bat berreskuratu dugu horregatik».

Peruk oraingoz ez du eskolaz kanpoko jarduerarik egiten. Orain artio arratsalde ez da normaltasunez eskolara joan eta gurasoekin geratu da. Bi gurasoek haurrarekin denbora ematea lehenetsi dute eta horregatik Lidiak lanaldi murriztua du oraindik eta heldu den urtean edo hurrengoan Sebasek eskatzeko asmoa du eta emaztea berriz ere lanaldi osoan hasiko da. Peru etxean delarik gurasoekin aritzen ohi da jostetan. «Orain telebista erdaraz ikusten du, marrazki bizidunak eta», dio Sebasek. «Saio... marrazki guztiak erdaraz ikusten ditu, ez dago, ETB3 ez da ikusten ahal (...). Pena, ez? Bertzenaz paratuko genuke. Ez dago aukerarik eta...», xexu da Lidia. «Lehenago Pirritx eta Porrotx ikusten zituen, bideoren bat ere badu etxean baina orain *Bob Esponja* eta... Ni deskuidatu naiz edo... ez dut telesailik Internetetik jaitsi eta horri erremedioa jarri behar diot. Hori da nire proiektuetako bat orain», dio Sebasek. Dena dela, Lidiak uste

du eskolan hasi zenez geroztik Peruk gaztelania anitz ikasi duela eta horretan telebista izan duela erreferentzia: «... oraindik egiten du erdaraz pixka bat arraro, zeren nik uste... erreferentzia (...) telebistakoa eta, klaro, telebistako marrazkiek erabiltzen duten gaztelania batzuetan pixka bat...». Orain Peru batzuetan erdaraz aritzen da etxean bakarrik jostetan ari delarik.

Haurra euskaraz jolas dadin materialei dagokienez «... bitxia da ingurukoen jarrera» — Sebasen iritiziz— Nik uste dut liburu bat euskaraz oparitu dion pertsona bakarra nire ikasle bat dela (...) nire gurasoen partetik edo ingurukoen partetik beti... ez dakit, dena erdaraz. Jakinen ez balute bezala euskaraz egiten dugula. Dena, liburuak, jostailua bat... inork ez du, ez dakit... lan hori hartu, denda batera joan eta eskatu a ver zer duten euskaraz edo, zer jostailu klase dituzten hemen euskaraz edo ordenagailu bat euskaraz egiten duena, edo panpina bat euskaraz egiten duena. Ez, inork ez. Guk bai, [Lidiak] eta biok bai eta nire ikasle hark ere bai baina jode...». Bere familiari horren gainean ezer erran ote dion galdeginda: «Ez, egia erran ez, ez. Igual mintzatu behar genuen».

Arratsaldez ikastolako jolastokian geratzen dira Peru bertze haurrekin jostetan ari dadin. Kultura jardueretara noizean behin joaten dira, euskaraz nahiz erdaraz. Sebasen iritiziz, «Iruñean euskaraz ibiltzea nahiko exotikoa da oraindik». «Niri villabesan denetarik erran izan didate — aipatu du— modu onean baina (...) andre zahar batek erran zidan, hor ginen [Peru] eta biok solasean, eta 'Haurrak oraindik ez daki erdaraz?'. 'Oraindik ez'. 'Ba, bietan erakutsi behar zaio'. Eta nik pentsatu nuen 'Eta zuk bietan erakusten diozu zeureari edo?' (...). Solas egiten dizute edo aholkuak ematen dizkizute euskaraz ari zarelako zeure semearekin. Gauza harrigarria».

Lidiak dioenez, «... giroak bultzatzen zaitu gaztelaniaz egitera (...) pues zaila egiten zaizu egitea hainbat gauza, nik uste. Bai zaila da. Bai, ttiki-ttikia zenean ere, villabesan... mundu guztiak du iritzia horren gainean eta erratan zuten (...) gu euskaraz... beti bazen norbait '¿y no le habláis en castellano? Pues tiene que saber castellano este niño' (...). Gogoratzen naiz behin ere agure zahar-zahar bat bazegoen gazte batekin eta gu biok [ama-semeak] jostetan Carlos terceron eta 'bota, bota balona!'. Eta hurbildu zitzaidan eta 'perdone, señora, ¿en qué le habla al niño?'. 'En euskera'. '¡Ah! ¡En vascuence navarro!'».

Erdara nagusi-nagusi bada ere, Lidiaren iritiziz, bere haurtzaroan baina aukera gehiago daude: «Egia da egoera aldatu dela, hobetu dela aunitz auzoan. Lehenago ez zen aukerarik inon egiteko euskaraz eta orain badira hainbat toki pues pegatina hori 'hemen euskaraz'. Eta bueno, azkenean egia da ja ezagutzen duzula non egin dezakezun euskaraz. Hobetu da egoera nik uste dut nire... ni ttikia nintzenetik hobetu da baina bueno, gaztelaniaz jakin gabe ezin zara moldatu nik uste (...). Bai erdara da hor indarririk handiena daukana baina bada aukera gehiago gaur egun, bai. Egia errateko bai. Eta auzoan ezagutzen duzu nor den euskalduna eta [Peruk] ja egiten die euskaraz. Nire garaian inorekin ez zenuen euskaraz egiten (...) Eta seguru nire garaian ere batzuk euskaldunak zirela baina ez zen, ez zenekien edo...».

13. familia

Arantza, Mikel eta beren hiru semeak, Amets (7 urte), Subar (5 urte) eta Liber (urte 1)

Arantza Iruñean sortua da eta Euskal Filologia eginik, euskara irakasle aritzen da hiriburuko institutu batean. Mikel ere Iruñekoa da, ingeniari mekanikoa eta Altsasuko lantegi batean egiten du lan (biak izan ditut berriemaile). Hiru seme dituzte eta Iruñeko Arrotxaepa auzoan bizi dira (aurki Iturramara aldatuko dira). Euskaraz aritzen den familia osatu dute.

Arantza 1972an jaio zen eta bere gurasoekin eta bi ahizpekin hazi zen Iturrama auzoan. Bera hiruretan zaharrena da. Aitaren aldetik aitatxi Cordovillakoa (Galar) zuen (ez zuen ezagutu) eta amatxi Olaguekoa (Anue), euskalduna «... baina gero Iruñera etorri zen... ez dakit, hamabi urte zituela edo horrela, etxe batean zerbitzari eta hortik aurrera galdu zuen dena». Arantzak ezagutu zuen: «... ez zuen deus jakin nahi [euskararekin], ez (...) nonbait gaizki pasa zuen» eta Arantzaren aitari ez zion irakatsi. Amaren aldetik familia osoa Estellerriko Mues

herrikoa da. Gurasoak «... saiatu dira biak» euskara ikasten alabak sortu baino lehenago «... baina ¡qué va! Ez, amak pixka bat gehiago ikasi zuen baina baaa! Betikoa (...), guk beti ‘Ama ¡zaude ixilik!’». Ama etxeoandre aritu da eta aita lantegi batean.

Hiru ahizpa euskaraz eskolatu dira, hasieran San Fermin Ikastolan eta gero Udal Ikastolara pasatu ziren. Bosgarren mailatik aitzina ikasketak Hegoalde Ikastolan egin zituen Arantzak. Haurretan Iturraman ibiltzen ziren jostetan, Gaztelugibelean batik bat. Ikastolako lagunak «... bakoitza mutur batekoa» ziren eta auzoan bertan ez zuten lagun talderik eratu. Orduan «gaztelera» aritzen ziren «... ziurrenik institutuan baino gehiago eginen genuen, pentsatzen dut, euskaraz. Institutuan batere ez. Esanen nuke UBIn iritsi arte (...)». Orduan zergatik bai galdeginda: «... ja hasten zarelako (...) kontzientzia pixka bat gehiago hartzen edo... esaten ‘Bueno, hemen zer ari naiz?’». Iturrama Institutuan ikastetxe desberdinetatik, baina Iruñetik gehienak (Hegoalde eta San Fermin ikastoletatik batez ere) etorritako ikasleak bildu ziren eta euskaraz egitearen inguruan honela mintzo da Arantza: «... hor jendearekin, ez dakit, igual baten batekin, betiko... (...) ez ginen gehiegi saiatzen, baina gerora pues hasten zara horrela ‘venga, egin dezagun!’ eta egiten genuen baina egia da gero ere handik atera (...). Baina bai, garai batean izan genuen horrelako... esateko moduan ‘¡Venga va! Denok euskaraz!’ eta... a ver, denok, denok ez, baina bueno, pixka bat kuadrillan ibiltzen ginenok bai. Ez dakit zer dela eta baina bai». Garai horretan ezagutu zuen Mikel institutuan.

Mikel 1972an sortu zen Iruñean. Gurasoak, biak Iruñekoak, bera txikia zelarik bereizi ziren eta egun aitarekin ez du inolako harremanik. Amarekin aldiz, estua. Ama eta hiru semeak bizi ziren Donibanen hasieran eta Mikelek hamabi urte zituelarik Iturramara aldatu ziren. Amaren aldetik amaxi Azozkoa (Ezkaabarte) da eta aitaxi Estellerrikoa: «Amaren familia izan- du dira euskaldunak baina ja aitaxi eta amaxi ez ziren eta nire ama ere ez baina apuntatu egin zen Arturo Campionen euskara ematera urte askoz izandu zen euskara jakiteko nahian eta gu ja ez. Gu ja joan ginen ikastolara baina klaro, giro erdaldun batean erdaraz egiten genuen etxean».

Mikelek bi anaia ditu, bata lau urte zaharragoa eta bertzea bere bizkia. Hirurak euskaraz eskolatu ziren. Lehen urteetan anaia bizkiak Donibane auzoko Irrintzi Dorrean zegoen haur- tzaingira joan ziren, euskaraz¹⁸², eta gero San Fermin Ikastolara BBBko 2. maila artio. Handik Iturrama Institutura pasatu ziren. Mikel oroit da lagunekiko harremana erdaraz zela «... nahiz eta beraiek ere euskaldunak izan edo euskaraz jakin».

Iturrama Institutuan UBI akitu eta Gasteizera jo zuen Arantzak EHUen Euskal Filologia egitera: «... nik gogoan dut oso garbi nuela betidanik (...) Filologia egin nahi nuela». Bortz urtetan Gasteizen bizi baina asteburuetan «... berehala Iruñera etortzen» zen. Urte horietan Ortzadar dantza taldean sartu ziren Arantza eta lagun batzuk, Mikel barne, eta kuadrilla eratu zuten. Dantza taldean zebiltzalarik bikotekatu ziren bi gazteak: «Ortzadarren sartu ginenean orduan bai, ezagutu eta ateratzen hasi. Karrera 2. mailan izanen nintzen. Eta orduan, kuadri- lla batez ere (...) dantza taldearen inguruan» osatu zutela dio Arantzak.

UBI amaituta, Mikelek NUPen hasi zituen Ingeniaritza Mekaniko ikasketak, erdaraz, eta or- duan hasi zen euskaraz gehiago mintzatzen: «Batuetan gertatzen da: bizitza osoa euskaraz ikasi eta ja salto egiten duzunean erdarara ikastera pues euskara igual faltan botatzen duzulako, edo ez dakit, eta hasi ginen pixka bat euskalduntzeago egiten gure giroa, baina ez sobera. Ni batez ere [Arantza] ezagutu nuenean eta gero ja semeak izaterakoan ja guztiz egiten dugu giro euskaldun bat etxean».

Arantza eta Mikel «... euskaraz saiatu» ziren hasieratik «... kostata, kostata». Mikeli «... kostatzen zitzaien (...). Eta alde horretatik ahalegin handia egin duela iruditzen zait —aitortzen du Arantzak—. Bera euskalduna sentitzen da baina betikoa, beti egin dituzu harremanak gaztele- raz, beti, askoz ere errazagoa da. Baina erabaki genuen talde berean eta hasieran kostata (...). Lagun

¹⁸² Iruñeko Donibane auzoan, Irrintzi Dorrean, antolatu zuen 1970. urte aldera Juli Igartza Zubiarrek haurtzaingira «... eta hara bildu ziren garaiko euskaltzaleen haurrak». Juli Igartza, Elorrion sortua, Jesus Atxa Nafarroako ikastolen bultzatzaile nagusietakoa izan zenaren emaztea zen (Asier Azpilikueta. *Berria*, 2005eko maiatzaren 26ko alea. Tarte, “Emakume euskaltzaleak”, 4. or.).

taldean ere oso kuriozoso da. Esan nahi dut asko gertatzen dela denak euskaldunak, denak euskaltzaleak... baina badira betikoak, ikastolan ikasiak, igual oso eroso sentitzen ez direnak euskaraz egiten; bestetik euskara ikasten geroago saiatu direnak eta ahalegin handia egin dutenak eta ikasi dutenak, baina betiere, azkenean harremana gazteleraz, o sea, joera hori da, gaztelerara».

Arantzak aitortzen du Mikelen ahalegina etxean euskaraz egiteko: «... asko ikasi du eta asko ikasten ari gara eta erabaki genuen euskaraz bizi nahi genuela eta umeekin hori bai, euskaraz egiten dugu». Halere, «... oraindik ere tarteka esaten duzu 'Ohartzen zara? Gazteleraz ari zara?' Segun, ez dakit zer esaten, igual ez dakit zer gai... baina tarteka bai». «Gure erronketako bat hori da», dio Arantzak.

Mikel honela gogoratzen da bien arteko harremanaren hasieraz: «Hasieran gazteleraz izandu zen eta gero, es que niri lotsa pixka bat ere ematen zidan zer [Arantza] da filologoa eta ni berez, nire euskara maila ez da oso... (...). Hasierako urteak gazteleraz egiten genuen, batez ere gure artean. Eta bueno, ja gero hasi nintzen euskara gehiago egiten eta batez ere bultzada eman nion [Arantzarekin] hitz egiterakoan. Ordura arte, pues klasetan eta horrela euskaraz egiten zenuen baina klasetik kanpo batera ez». Harreman hizkuntzaren aldaketa zerk edo nork bultzatu zuen galdeginda: «... bion artean. Eta gero ja besteekin. Nik uste dut adina ere badela, azkenean ez bakarrik [Arantza], bikotea, euskalduna duzulako baizik eta adin horretan, gero unibertsitatean ere pentsatzen duzu... eta bazen unibertsitatean ere nirekin Iturraman [institutuan] izandakoa eta Iturraman gazteleraz eta gero hara joan eta euskaraz egiten genuela. Nik uste dut adina ere badela». Gaztetako hizkuntza portaeraz gogoeta egiten du Mikelek: «Gogoan dut bagenuela (...) irakasle bat, Epaltza (...) eta esaten zigula... Guk hamalau urte izanen genituen edo gutxiago: 'Euskaraz! Gero joaten zarete manifestara eta 'Euskaraz! Euskaraz!'. Eta egia zen, arrazoia zuen. Eta orduan esaten zenuen 'Jo [xo]! Zer pelma den hau!'. Eta gero ikusten duzu hala dela. Bai, hainbeste borroka, hainbeste gauza eta egiten ahal duzun gauzarik inportanteena ez duzu egiten: hitz egitea dela eta bultzatzea eta entzutea».

Arantza beti aritu da euskara irakasten, helduei hasieran Arturo Campion Euskaltegian eta gaztetxoei gero, institutuetan. 2008an oposizioak gainditu zituen. Mikelek ikasketak bukatu eta berehala hasi zen ingeniari gisa lanean. Hamar urte luze daramatza Altsasuko automobilgintza arloko enpresa batean kalitate arduradun.

Umerik izan aitzinetik erabaki zuten etxean eta haurrei beti euskaraz egiten zirela. Honela egiten du gogoeta Arantzak: «... euskaraz bizitzeko nahia edo... askotan ezina alde guztietatik eta esaten duzu 'Jo [xo]! Gutxienez gure esku dagoen horretan behinik behin egin dezagun!'».

Mikel oroit da Amets sortu baino lehen horretaz mintzatu zirela: «Bai, bai, batez ere nik akatsak sartzen nituenen euskaraz hitz egiterakoan. Orduan [Arantzak] esaten zuen 'Jode! Baina haurra bat izan behar badugu eta euskaraz mintzatu behar badiogu, euskaraz hobetu egin beharko duzu, ez dakit zer'. Nik denborarik ez nuen, baina bueno, hasi nintzen pues liburuak irakurtzen, arreta gehiago jartzen euskaraz egiterakoan. Bai, hitz egina genuen euskara... euskal giroa nahi genuela etxean. Hori lortu behar nuen. [Arantzarekin] ez zegoen arazorik hori lortzeko. Lortu banuen garantia pixka batzuekin, ez nion gaizki hitz egin behar, zer hori ere [Arantzak] argi zuen. Gaizki hitz egiteko hobe nuela nik berarekin erdaraz egitea eta berak euskaraz. Baina niri pena ematen zidan hori egitea. Orduan, pues hori hitz egina genuen euskara giro batean murgiltzea eta hasi ginen, jaio zen eta euskaraz egiten genuen. Aitaxi eta amatxi eta amona erdaraz egiten zuen eta orduan bi hizkuntzak izan ditu hasiera-hasieratik. Eta hasi zen euskaraz. Bere lehenbiziko hitzak euskaraz izandu ziren».

Haurrei euskaraz baizik ez egitearen inguruan zalantzati adierazten du Arantzak: «... batzuetan esaten duzu 'Ez dakit igual mesede egiten die dan edo hobe genukeen...'. Nik esanen nuke ezetz baina azkenean hizkuntza bat ongi finkatu eta oinarrian behar duzu, azkenean gure ama hizkuntza gaztelera da». Arantzak euskaldun berria izatearen mugak nabarmentzen ditu: «... hautua ja egin genuen horrela eta horrela da eta ez dago besterik baina euskaldun berriak garen aldetik (...). Nik adibidez, horretan ez dut arazo handiegirik izan, pentsatzen nuen igual gehiago

izanen nuela. Baina umeak zirenean, jaiο berriak edo, nik abestiak zirela, jokoak, gauza gehienak gazteleraζ dakizkizu (...) zure haurtzaroan horrela jaso dituzu. Eta nik haurren inguruan (...) afektibitate kontua, batzuetan esaten duzu 'Ez dakit nik...'. Eta esanen nuke ezetz (...). Horretan ez dut uste galdu dugunik. Baina egia da [Mikelek] askotan esaten duela, bai berak horrela egin zuen, erabaki genuen eta euskaraz egiten die bai ala bai. Hori hala da. Etxean ezin da gazteleraζ egin. Baina batzuetan esaten duzu 'Ez dakit, euskara maila ere ez dakit nik...».

Haurrek etxean euskaraz egiten dute baina Iruñean erdarak duen nagusitasuna kontuan hartuta, «... batzuetan ez dakit ez ote den horretan pixka bat gelditzen ghetto moduan (...). Adibidez, eskolaz kanpoko bilatzen ibili behar duzu, orduan, esan nahi dut igual gelditzen zaie horrela, pues motz samar, o sea, guk eskaintzen ahal diegun aukera hori, gainera Iruñea batean, denok badakigu zer dagoen (...). Orduan, esaten duzu, eredia ni baldin banaiz haientzat euskara mailan eta igual motz samar gelditzen ahal gabela, hori da. Gazteleraekin ez dute inolako arazorik, inolakorik ez. Eta ari dira ikasten alde guztietatik, gainera flipatzen... 'Baina, nondik atera duzu hau?' Klaro, telebista dela, ez dakit nork esan dit, bestea... Klaro, pues harremantzen dira normal. Eta gainera beharrik horrela den! (...). Baina euskaraz batzuetan nik inpresio hori dut (...) ikastolan ederki, ez da behar, baina horretaz kanpo batzuetan gurea ez da esateko moduan aaaa!».

Lehen semea, Amets, sortu eta amatasun baja amaituta Meldebaldea auzoko Iruñatxiki Haur Eskolara eraman zuten, euskaraz. Dena dela, Arantzaren gurasoak eta Mikelen ama ere maiz ibili ziren haurraren kargu. Bigarren semea, Suhar, Mikelen amak zaindu zuen ikastolan hasi artio. Txikia, Liher, Haur Eskolara doa. Aitaxi-amatxirekin erdaraz egiten dute haurrek. Haurren zaintzagatik Arantza da amatasun bajak hartu eta lanaldia murriztu duena: «Murriztu nik egin dut eta ez edentzia hartu ere nik». Orain ere lanaldi erdiz aritzen da institutuan.

Arantzaren eta Mikelen hiru semeek «... haien artean euskaraz» egiten dute, baina ikastolan hasita bertze haurrekin erdaraz egiteko ohitura barneratu dute. «Gure umeek, hori oso garbia da, ikastolan hasi, gaztelera ederki ikasi dute eta gainera, egiten duten lotura da ume bat ikusi eta zuzenean gazteleraζ. Horrela da», dio Arantzak.

Ametsek, Suharrek eta Liherrek aitaren aldetik bortz lehengusu-lehengusina dituzte. Mikelen anaia zaharrenak hiru ditu, San Fermin Ikastolan eskolatuak, eta anaia bizkiak bi, Amaiur Ikastolan. Lehengusu-lehengusinekin, batez ere anaia bizkiaren seme-alabekin, adintsukoak baitira, «... erdaraz egiten dute», aitortzen du Mikelek. «[Ametsek eta Suharrek] erraztasun osoa dute euskaraz egiteko, besteak ez hainbeste besteen etxean erdaraz egiten da nahiz eta beren gurasoak euskaldunak izan. Eta ez dute... eta sumatzen zaie ez dutela hainbeste erraztasunik pues jolaste-ko edo hitz egiteko euskaraz. Saiatzen dira baina berehala pasatzen dira gazteleraζ». Arantzak ere horrela ikusten du: lehengusu-lehengusinek «... ez dute horrenbeste erraztasun (...) [Mikelen anaia bizkiak] euskaraz daki baina seme-alabei ez die egin» eta anaia zaharrenak ere ez.

Arantzak ez du nahi izaten semeak bertze haurrekin erdaraz aritzea eta maiz asko ohar-tarazten ditu: «... nik behar baino gehiago esaten diet, azkenean ez dakit horrelako efektua lortuko ote dudan edo (...). Nik aldiro (...). Amorrua ematen didalako. Esaten duzu 'Jode!' (...) Amorrua ematen didana da azkenean, zergatik? Betiko kontua, zergatik? Zuk euskaraz baldin badakizu eta honek ere bai eta gainera hobeki egiten badizu euskaraz gazteleraζ baino, zergatik egin behar du berak? Ez?». Ikastolako bertze haurrekin harremana erdaraz zela ohar-tuta maistraren erantzuna aipatzen du: «[Amets] ikastolan hasi zenean (...) Haur Hezkuntzako lehenengo mailan gazteleraζ egiten hasi zela eta irakasleak esan zidan, oso garbi gainera, 'Hori horrela da'. Ez baduzu izkina batean ikusi nahi, txoko batean bera bakarrik, klaro, harremandu behar badu gazteleraζ egin beharko du». Bigarren semearen, Suharren, gelan «... ume asko dira euskaldunak», dio Arantzak, «... baina ez dago modurik, ez dago».

Familia orain Arrotxapean bizi da baina aurki Iturramara aldatuko dira: «Auzoan [Arrotxapean] ez dugu bizitzarik egiten (...) Iturraman gehienbat». Haurrek eskolaz kanpoko jarduerak egiten dituzte, gehienak ikastolan eta euskaraz (Ametsek xake, plastika eta jokoak). Ikastolatik kanpo igeriketa Amaia elkartearen eta musika, aurten tronboia instrumentua hasita,

Barañaingo Musika Eskolan. «Eskolaz kanpokoak, ez badira ikastolan egiten dituztenak...» zaila da euskaraz harrapatzea Iruñean, kexu da Arantza, «... eta orduan, klaro, extraeskolarrak ere (...) Jo [xo]! Ba, ahal delarik... Baina zaila da, batetik haiek nahi dutena eta gainera euskaraz!».

Iruñean «... gehiena da erdaraz», dio Mikelek, eta batzuetan euskaldun jendeak euskaraz aritzeko duen zailtasuna ikusita Arantzak dio «... betiko borroka» dela: «... jendeak ez badu ohiturarik, o sea, egunerokoan egiteko ibili behar duzu beti bezala '¡Hala, venga! Orduan euskaraz hasi eta baten batek jarraitzen badu ederki, bestela ba...». Mikelek lagun taldean bertan izaten den hizkuntza erabilera aipatzen du: «... batzuekin kuadrillan euskaraz egiten duzu eta bestearekin erdaraz, nahiz eta besteak ere euskaraz jakin. Gauza arraroa». Iruñeko euskaldun anitzen artean dagoen erdararako joeraz honela mintzo da Arantza: «Garai batean nuen 'Ez dut horrelako jendearekin...'. Horrek ere pixka bat traba jartzen dizulako zuri, niri behinik behin. Eta gainera, nik adibidez, azken boladan A ereduan eman dut klasea eta azkenean galtzen duzu alde guztietatik. Zuk euskaraz egin nahi duzu eta alde guztietatik oztupoak».

Arantzak bere ahizpekin erdaraz egiteko ohitura du betitik. Orain haurrak tartean biltzen direlarik «... umeek markatzen dute asko, ez da? Orduan, klaro, umeekin euskaraz da eta ongi, baina gure artean asko kostatzen zaigu, asko, asko (...). Saiatzen gara baina (...) joera da beti gaztelerara, o sea, normalean (...) egin behar duzu, hor ere egin behar duzu esana '¡Venga jode!'. Ez dugu lortu modu natural batean, ez».

Astegunetan bereziki Arantza izaten da semeekin. Asteburuetan Mikelek ere hartzen du haien ardura. Bikoteak familiaren aisialdia euskal besta eta halako ospakizunetan ematea maite dute: «Gu gara egutegi folklorikoa jarraitzen duten horietakoak», dio irribarrez Arantzak. Dantza taldeko lagunekin ohitura dute Santa Ageda, Nafarroaren Eguna eta tankera horretako besta egunetara joateko. Euskarazko kultura jardueretara ere maiz eramaten ditu haurrak Arantzak eta euskarazko kultura har dezaten saiatzen da: «Gainera, nik ez dakit horretan taliban samarra naizen (...) aukera handirik ere ez duzu, orduan dagoen guztia probestu behar da (...) adibidez, zinema ez dakit zer pelikula botatzen dutela euskaraz... hara joan behar da. Baina batzuetan, ni ohartzen naiz, liburutegira joaten gara eta 'Hau eta hau hartu nahi dugu'. 'Jode! Bueno, har ezazu...' (...). Batzuetan liburutegira joan eta kasik behartu egiten ditut, '¡Venga! Har dezagun euskaraz!'. 'Baina nik hau ez dut nahi!'. Gauza horiek guztiak bai, kontzientea edo... dagoena gutxienez probestu behar da, bestela... ez zait iruditzen gauza handirik dagoenik ere, orduan». Umei kultura bide horiek euskaraz baizik eman nahi izatearen inguruan zalantzakor agertu da Arantza: «Nik uste dut aukera zabal samarra galtzen dute niregatik zeren nik esaten dit 'Begira, euskaraz egiten dugun, txispun!'. Eta orduan, hori, etxean gazteleraz liburuak oso gutxi nik erositako edo bestela ere. Gazteleraz oso gutxi dute eta hori ere, batzuetan esaten duzu... mmmm. Klaro, ez dakit, baina esaten duzu 'Aukera ere izanen dute'. Ahalegin guztia hor...».

Haurrek ikusten duten telebista saioez ere kezka agertu du Arantzak: «Euskal Telebista zenean, umeen programazioa zela, euskaraz ikusten zuten franko (...). Baina orain (...) dena gaztelera, dena gaztelera». Mikelek uste du «... horretan atzera egin dugula. Zeren orain ez dute erreferentziarik. Erreferentzia dute lagunak erdaraz eta gainera telebista, marazki bizidunak, erdaraz. Pues ja, pues ja ospass! Nik uste dut horrek mina egin duela». Dena dela, semeek etxean asteburuetan baizik ez diete uzten telebista ikusten.

Ikastolako familietan oro har «laxotasuna» ikusten du Arantzak: «... nik alde handia ikusten dut, gure garaian (...) guraso euskaldunak gutxi ziren gurean baina hor bazen bestelako... ez dakit, ez dakit zer den, kontzientzia bat (...). Esate baterako, patioan ez zenuen ume bakar bat ere bere aita *papá* deitzen entzuten. Eta oraingoan, baina egunerokoan gainera».

Bi gurasoek aipatzen dute Iruñean haurrak euskaldun hazteko zailtasunak: «... hori oso zaila da, azkenean, Iruñea batean», dio Mikelek. Etorrizunean beren semeek euskararekin zer harreman izatea nahiko lukeen galdeginda: «Gustatuko litzaidake, eta hori saiatuko naiz, ni haiekin euskaraz izatea gure harremana, nahiz eta gero ezkondu edo seme-alabarik izan edo ez dakit zer gertatuko den haiekin. Baina, nik uste dut hori ez dela aldatuko eta gero, beraien artean gustatuko

litzaidake pues jarraitzea euskaraz egiten baina ez dakit, ez dakit, ez dakit zer gertatuko den, ez dakit. Gustatuko litzaidake jarraitzea euskaraz izaten gure etxean haiek seme-alabak izaten badi-tuzte, pues euskaraz egitea gustatuko litzaidake haiekin egitea, baina, ez dakit, azkenean... gauzak ikusita nolakoak diren, pues, adibidez, horrekin bai ikastolan sorpresa hartu nuela. Gu ikastolara sartu ginenean erdaraz egiten genuen ikastolan baina baziren gauza batzuk euskaraz izaten zirela: *aita, ama*. Inork ez zuen *papá* eta *mamá* eta gure gurasoek ez zekiten euskaraz, baina hemen ez da hori ematen. Hemen joaten zara eta badira *papá* eta *mamá* eta halako gauzak niri sorpresa ematen didate. Eta zer gertatuko den haiekin, pues ez dakit, ez dakit (...). Gutxienez bai, ni eta haien arteko hiz-kuntza euskara izatea gustatuko litzaidake eta pentsatzen dut izanen dut, pentsatzen dut, baina gero haien arteko hizkuntza izatea pues... saiatuko naiz horrela izan dadin, baina ja haiek eta haien munduarekin arteko harremana zein hizkuntzatan izanen den... pues beraiek erabaki beharko dute. Gure iritzia, nire iritzia emanen diet baina haiek erabakiko dute».

14. familia

M^a Fernanda, Marcos eta beren semea, Aitzol (4 urte)

M^a Fernanda Guatemalan sortua da eta duela zazpi urte Iruñera etorria Marcosekin bizitze-ra. Ez du etxetik kanpo lan egiten. Marcos Lakuntzako da eta delinearzaile eta euskara irakasle aritu bada ere, zazpi hilabete ditu langabezian (bera bakarrik izan dut berriemaile). Seme bat dute eta euskaraz eta erdaraz aritzen den familia dira. Iruñeko Iturruma auzoan dute etxebizitza.

Marcos 1959an sortu zen Lakuntzan. Aita-amekin eta bera baino lau urte zaharragoa den arrebarekin bizi zen: «... denak euskaldunak» dio, aitatxi-amatxik eta denak. Aita garraiolaria zen, maiz egunak ematen zituen etxetik kanpo kamioarekin. Ama etxeko lanetan aritzen zen. Marcosek herriko eskolan ikasi zuen hamabi urte artio. Erdaraz eskolatu zen, garai horretan ez zen bertzerik. Mutikotan herriko lagunekin «erdaraz» aritzen zen beti. 1960ko hamarkada hasieran «... emigrazio uholde bat» izan zen «... eta Lakuntza ia ordurako industriatik bizi zen. Lehendabizi Extremaduratik hasi zen joaten lehenengo jendea, gero Andaluziatik asko, Cazorla eta inguru horretatik asko (...) eta gero, klaro, diktadura zela eta, es que karrikan zaila zen euskara aditzea», oroit da Marcos eta honela dio berak hizkuntzarekin izandako harremanak: «Nik orduan oraindik banekien euskara jakina (...). Gero nik galdu nuen euskara, arrebak ez hainbeste baina nik galdu egin nuen. Txikitan bai, etxean euskaraz hitz egiten zen baina momentu... , pentsa garai hura frankismoa zen eta etxetik kanpo euskararen... Nik uste prestigioa ez zeukala batere eta nik uste dut ja momentu batean, ez dakit zenbat urte edukiko nituen nik baina zortzi, bederatzi urterekin nik gurasoei neronek eskatzen nien erdaraz egiteko niri, nahiz eta haiek beti jarraitu zuten beraien artean euskaraz hitz egiten».

Haurretan euskara galtze horren gainean dio «... fenomeno hagitz tristea» izan zela eta orokor samarra bere adinekoen artean. Euskara Lakuntzan galtzearen gainean herriko apezka zena, Nemesio Azurmendi, Iturmendiko (Burunda) euskalduna, aipatzen du: «... nik ez nuen jakin hura euskalduna zela hil arte. Sekulan ez nion aditu hitz bat euskaraz. Eta adibidez, Arbizun ehuneko ehuna euskalduna zen eta gure garaian ere bai. Nik uste dut eragina bazuela herriko apezak, eragin handia». Hizkuntzaren galera, Marcosen iritziz, neskatikoen artean lehenago gertatu zen mutikoen artean baino: «... beranduago galdu zen euskara mutilen artean (...). [Neskek] errazago galdu zuten, urte batzuk lehenago, esan dezagun, kinta bateko neskek galduta eta igual bost urte edo sei gazteagoko mutilak euskaldunak»¹⁸³. Euskara berreskuratzearren gainean aldiz, bertzela gertatu da bere ustez:

¹⁸³ Sánchez Carrionek 1970eko udan bildu zuen lekukotasunak bat egiten du berriemaileak azal-dutakoarekin: «Habitando hoy en Lacunza unas doscientas veinte familias, de las que ciento cincuenta son oriundas y el resto inmigrantes, casi exclusivamente de zonas eraldunes de Andalucía y Extremadura

«Baina gaur egun nik ikusten dut neskek errekuiperatzen dutela errazago, hori ere bai. Eta kasu asko dauzkagu, asko irakasleak, edo edozein lanbidetan neskek askoz gehiago errekuiperatu dute».

Hamabi urte zituelarik Iruñeko apaizgaitegira igorri zuten gurasoek ikastera eta honela du gogoan: «Egun batean bildu gintuzten gela batean gure gisako mutikoak apez euskaldun batek eta herri euskaldunetakoak ginen igual dozena bat ego izango ginen, eta esan zigun ‘paper bat hartu eta idatzi zerbait euskaraz’ —klaro, batua beranduagokoa da— ‘Ahal duzuen bezala, zuei iruditzen zaizuen bezala idatzi’. Eta nik ikusten nituen nire lagun batzuk, Arantzakoak zirenak edo Lesakakoak edo, eta kapaz ziren idazteko (...). Ni ez nintzen kapaz esaldi bat ere idazteko. Ez zitzaidan ateratzen».

Garai horretan, Marcosek hamabortz urte zituelarik eta bere arrebak hemeretzi eta biak Iruñean ikasten aritzen zirelarik, gurasoek pisu bat erosi zuten hiriburuan aita kamioiarekin hor barna lanean ibiltzen zen bitartean «... behintzat ama eta bi umeak elkarrekin» izateko. Dena dela, Lakuntzako etxea, baratzea eta mantendu zuten eta erretiroa hartu eta ondoan gurasoek herrian ematen zuten denbora gehiena.

Hamazazpi urterekin Marcosek Bartzelonara jo zuen ikastera eta han izan zen hogeita bat urte bitartean: «Ni hirurogeita hamaseian joan nintzen (...). Francok urtebete baino gutxiago zeraman hilik eta alde batetik euskaldun pilo zegoen Bartzelonan, asko ginen eta gainera organizatuak. Bazegoen deitzen zena Asamblea de Estudiantes y Trabajadores Vascos en Barcelona eta astero biltzen ginen. Politikoki oso bizia zen garai hura (...) ezkerrekoa zen eta abertzalea giroa eta nolabait Kataluniak ere lagundu zuen zer beraiek, klaro, guk ikusten genuenean han Katalunian jendeak katalanez hitz egiten zuela, eta zuri ere katalanez hitz egiten zizun, lehenengo hitza katalaneraz egin zizun. Orduan, klaro, hasten zara kontzientzia hartzen eta esaten ‘jode! Zer aldea! Ez? Hemendik hara’. Eta nolabait kontzientzia hartu... Zer, nik baneukan arantza hori sartua euskara galtzearen historia eta errekuiperatu nahi nuen (...) nik uste dut han ja erabakia tinkoa izan zela Euskal Herrira itzulita euskara errekuiperatu, bai».

Hogeita bat urterekin Bartzelonatik itzuli eta «... Iruñean hasi nintzen gau-eskola batean...», dio Marcosek. Euskara erraz samar berreskuratu izanaren gainean honela mintzo da: «... niri galdetu didatenean ‘zu zara euskaldun zaharra?’. Ba, esaten diet ‘euskaldun berria naitzela ezin dut esan’. Zer, belarria hor neukan, horregatik ere berriro errekuiperatzea oso gutxi kostatu zitzaidan. Hori ez neukan galdua (...) klaro, dena ez da galtzen erabat».

Marcos gau-eskolan hasi eta bere hizkuntza harremanak aldatzen hasi zen. Etxean: «Berriro hasi nintzen gurasoekin berehala hitz egiten (...) beraiek ez zuten galdua, beraien artean beti jarraitu zuten euskaraz hitz egiten, o sea que... Ongi hartu zuten, beraiek ere poztu eta bai...». Arrebarekin ere hasi zen euskaraz: «... nik nire arrebarekin azken hogeita hamar urteotan euskaraz egin dut (...). Bera ez zen joan inolako gau-eskolara eta ezertara errekuiperatzeko. Ez zuen hain galdua eta gero, nik uste dut berari ere lagundu egin ziola alabak izatean eta ikastolara bidaltzean eta ez dakit zer esfortzu kostatuko zion berari (...) baina natural-natural berriro... Edo ez zuen galdu hainbeste behintzat. Beti euskaraz egin dugu ordutik eta berak ere alabekin euskaraz egiten du, eta nire gurasoekin ere, hil arte euskaraz». Lagunekin ere hasi zen euskaraz. Gau-eskolaren inguruko jendea zen, gehienak Iruñekoak: «Kuadrillan zeuden batzuk ikasleak eta beste batzuk irakasleak zirenak (...) gau-eskolatik aterata elkarrekin (...) ateratzen ginen kalera eta tabernetara joaten baginen euskaraz aritzen ginen gure artean (...) euskal taldea zen ja».

(...). La castellanización es perceptible sobre todo de 10 años a esta parte, habiendo afectado por completo a dos sectores: niños y chicas. Ambos son castellanófonos, si bien todavía pseudolingües pues normalmente la familia nativa la única lengua que le han enseñado a sus hijos ha sido hasta hoy la vasca. Pero cuando estos niños aprenden a andar y se mezclan con los inmigrantes (y en Lacunza tiene este origen una tercera parte de la población), olvidan el euskera. Olvido que se acrecienta al ir a la escuela. Las chicas, igualmente, hablan casi exclusivamente castellano...» (1972: 43-44).

Gau-eskolan hasi eta urtebetean EGA atera zuen: «O sea, hartu nuen burubelarri, gogoz, eta gero hamalau urtez euskara irakasle izan nintzen Gipuzkoan». Donostiara 1983an joan zen Arkitektura ikasteko matrikulatu eta euskara irakasle hasi zen lanean. Honela oroit da: «... nik asko gozatu dut euskara irakasten, egia esan, nik gozatzen nuen».

Duela bederatziti bat urte, 2003an, Marcosek M^a Fernanda ezagutu zuen Guatemalan. M^a Fernanda hango familia baten alaba da, 1976an sortua. Guatemalako gatazka armatuak bere familiari bete-bete eragin zion eta M^a Fernanda eta bere anai-arrebak aitaren aldeko aitaxi-amatxirekin hazi ziren. Egun aita Kuban du eta ama Los Angelesen, Estatu Batuetan. Marcosek eta M^a Fernandak elkar ezagutu, hiru urtera maitemindu eta 2005ean neskak Iruñera etortzea erabaki zuen. Bien semea, Aitzol, 2007an sortu zen. Iturrama auzoan bizi dira. M^a Fernanda psikologo forentsea zen Guatemalan eta Iruñera etorrira ikasketak baliokidetzen saiatu da, bai eta UNEDen matrikulatu ere hemen balioa duen titulua eskuratzeko.

Umeari zein hizkuntzatan eginen zioten bikotekideen artean solastu ote ziren galdeginda: «Bai, bion arteko gauza izan zen, ez zen unilaterala. Nik euskaraz egingo nion, berak erdaraz. Eta [Aitzolek] ez dauka inolako arazorik. Segundo frakzio batean aldatzen du euskara, erdara, bueno... batetik bestera pasatzen da inolako arazorik gabe (...) eta ongi bizi du berak egoera hori (...). Nik [Aitzolekin] euskaraz egiten dut. Bai, baina naturalki gainera, inolako... ez dut planteatu behar izan (...). Berak niri beti euskaraz egiten dit (...) euskaraz egiten dugu eta batzuetan hasten garenean bere aurrean [M^a Fernandarekin] euskaraz edo... Eta orduan ez zaio gustatzen: 'Ez ama, zuk erdaraz. Eta zuk, aita, euskaraz' (...). Eta amak igual zuzentzen zaio euskaraz batzuetan [Aitzoli], dakien gutxi hori esaten edo, eta berari ez zaio gustatzen».

M^a Fernanda Iruñera etorri eta Uharteko Zubiarte euskaltegian hasi zen. Orduan Marcosen ama hil zen eta euskara eskolak utzi zituen. Ondoko urteetan ere aritu zen euskara ikasten, azkenekoan Amaiur ikastolan bertan, baina ez zuen aurrerapenik ikusi eta ez zuen segitu. Marcosek dioenez, honela erran zion bere emazteari: «... nahi baduzu, irakaslea etxean daukazu, nahi baduzu, baina ez naiz ni izango gurditik tiratuko duena. Zure erritmoan (...) nire aldetik ez duzu inolako presiorik jasango'». M^a Fernandak asko ulertzen du, Marcosen ustez, izan ere, beren etxean euskaraz aditzen da. Azken urteotan Marcosen aita ere haiekin bizi izan da eta Marcos, aitaxi eta haurra beti euskaraz aritu dira: «... aitarekin eta [Aitzolekin] beti euskaraz aritzen ginen». Solasten hastea da, Marcosen iritziz, M^a Fernandari falta zaiona: «Ulertu asko ulertzen du, hitz egitea gehiago kostatzen da eta askotan komentatzen dugu gure artean, bada, igual hasi beharko genuke pixka bat (...). Nik esaten diot 'nahiko gramatika jakin bada-kizu, ulermen maila politta daukazu. Igual izango litzateke momentua dakizun hori erabiltzen hasteko, ez da?'. Baina igual inertzia beti erdaraz gure artean, bada berari kostatu egiten zaio».

Aitzolek euskaraz egiten ohi duen mutikoa da, aitarekin, berriki hil artio aitaxirekin, izebarekin, lehengusinekin... Marcosek aitarekin Lakuntzako euskaraz egiten zuen eta orain ere «... lakuntzarekin automatikoki» herriko hizkera ateratzen zaiola dio. Aitzoli, kontatzen du Marcosek, «... nabaritzen zaio (...) gehiago aitona eraginagatik (...), askotan nik esaten dut 'mutiko honek Lakuntzako hizkera dauka' (...). Eta nik uste hori aitarengatik [aitatxirengatik] izan behar duela. Nirengatik ere izanen da maila batean baina nik uste dut nire aitarengatik dela, gehienbat». Aitaxi duela lau hilabete (2011ko abenduan) hil zen. Mutikoak asko nabaritu du haren falta.

Marcos honela mintzo da Aitzolek euskararekin izatea nahiko lukeen harremanaz: «... poz-tuko nintzateke berak euskara maitatuko balu. Baina maitatuko du ikusten badu gauza maitagarria dela, eta naturala, eta berea dela. Baina nik uste dut... nik ere urteekin, ez dakit, lasaitu naizen alde horretatik edo, ez dakit, nik uste bere bizitza bizi behar duela. Nik lagunduko diot ahal den guztietan. Berak ikusten du etxean ejenplua ere eta berak ikusiko du. Nik uste dut euskara maitatuko duela baina... hombre, ez dut uste honek [Aitzolek] niri esango didanik egunen batean 'aita, mesedez, niri erdaraz egin' nik nire gurasoekin egin nuen bezala. Ez dut uste hori gertatuko denik euskararen egoera ja asko aldatu delako (...). Eta nik uste dut normalizatuago dagoela alde horretatik hizkuntza eta alde jokatzan du horrek ere (...) nire ilobek beste era batera bizi izan dutela

euskararen egoera. Haiek ez dute aditu '¡Habla en cristiano!' edo nik lau urte... [Aitzolen] adina neukanean, gogoratzen dudan bezala erdaraz aditu eta ez dakit zer galdetu zidaten eta 'no sabo' eta '¡ah! ¡no sabo!' eta barrezka eta horrela jendea (...) *la lengua del imperio* eta *ese idioma que no sirve para nada*... eta horrelako gauzak Lakuntzan adituak ere. Nik uste dut honek [Aitzolek] ez duela horrela biziko. Beste era batera biziko du, seguru. Eta musika dauka, normalizatuagoa hizkuntza, telebista, literatura pilo... guk ez geneukana berak edukiko du, badauka. Eta ikusteko euskara hizkuntza moderno bat bezala eta normalago bezala, balio duen gauza bat bezala, hori bai. Alde horretatik nik uste dut oso desberdina dela egoera, berak bizi duena eta nik bizi nuen».

Aitzolek batez ere amarekin eta aitaxirekin eman zituen lehenengo bi urteak. Adin horretan Amaiur Ikastolako bi urteko gelan hasi zen eta zenbait ikaskiderekin harrezkero dago gelan. Mutikoak ez du eskolaz kanpoko jarduera programaturik egiten. Aisialdia lagunekin eta gurasoekin ematen du. Marcosek aitortzen du Aitzol sortu zenetik libre duen denbora guztia haurrarekin eta M^a Fernandarekin ematen duela. Orain, gainera, bikotea langabezian dago. «Beti jolastu dugu. Lokartu aurretik beti ere jolasten du nirekin. Hori fijo da beti». Aita-amekin hizkuntza banatan aritzen da haurra: «... bietan. Euskarazko ipuinak nik kontatzen dizkiot eta erdarazkoak amak kontatzen dizkio. Nik ere bai inoiz, eskatzen badit 'aita, hau'. Nahiz eta erdaraz egon (...) erdaraz ere egin diot inoiz, gutxitan...». Telebista ikustea gustatzen zaio «eta hori gehiena erdaraz ikusten du. *Clara* gustatzen zaio».

Marcos eta M^a Fernanda bi aldiz izan dira Guatemalan Aitzolekin. Aitatxi-amatxik hilez geroztik, gutxiago joaten dira Lakuntzara. Oraindik lur puska bat dute herrian eta aita bizi zelarik baratzea eta arrebarekin batera eramaten zuen Marcosek, baina orain distantziaz baratzea eramatea oso zaila da, «... baina Lakuntzan ahaide asko oraindik ere eta harreman asko txikitatik», dio Marcosek.

15. familia

Carlota, Adur eta beren bi semeak, Usun (5 urte) eta Gari (3 urte)

Carlota Iruñekoa da eta erizaintzan aritzen da. Adur ere iruinxemea eta suhiltzailea da Tuteran (bera izan dut berriemaile). Iruñeko Azpilagaña auzoan bizi dira beren bi semeekin. Gehienbat erdaraz aritzen den familia da.

Adur 1975ean sortu zen. Aita-amak Iruñekoak ditu. Amaren aldetik aitaxi Puiukoa eta amatxi Irunberrikoa; aitaren aldetik, aitaxi Kantabriakoa eta amatxi Iruñekoa. Familia Iruñeko Bigarren Zabalgunean bizi zen eta hor hazi ziren hiru seme-alabak. Adur txikiena da. Bittor, bigarrena, lau urte zaharragoa da. Aitak euskaraz «... zertxobait daki, ez inoiz ikastera joan zelakoz, Iruñean, kalean zertxobait ikasita». Halere seme-alabekin ez du inoiz euskaraz egin.

Adur erdaraz eskolatu zen, hasieran Iruñeko Bigarren Zabalguneako Cristo Rey ikastetxean eta gero Aralarko San Migel ikastetxean, apaizgaitegian. Txikitako oroitzapenak «... beti onak» dio, «... beti jolasean han enparantzan». Zortzi urterekin familia Iturrama auzora aldatu zen eta «... pixka bat aldaketa, hori, lagunak, auzoko lagunak eta hori, pixka bat nabaritu genuen guztiok». OHO akituta Iturramako Institutura joan ziren bi anaiak eta bertan egin zuen Adurrek «... gaur egungo kuadrilla», bai eta Carlota ezagutu ere.

Carlota Iruñean sortu zen 1974 urtean eta Iturrama auzoan bizi ziren aita-amak eta hiru anai-arrebak. Bera zaharrena da. Guraso biak bai eta aitaxi-amatxik ere Aguilar Kodeskoak ditu. Iturramako "Catalinas" Ikastetxean eskolatu zen, erdaraz, eta Iturrama Institutura jo zuen BBB eta UBI egitera. Institutu garaian elkar ezagutu eta UBI bukatuta hasi zuten bi gazteek harremana. Unibertsitatara joan ziren biak: Carlota NUra Erizaintza ikastera eta Adur NUPera Soziologia lantzerara.

Garai horretan, hemezortzi urte zitularik, hasi zen Adur euskara ikasten: «... betidanik ikasi nahi genuen [Bittor anaiak eta biek] baina igual aukerarik ez eta ez dakit, aitak edo amak

igual nahi zuten baina ez zuten egin eta igual ikusten duzu nolabait 'nik egiten ez badut inor ez'. Bizipen zehatz bat du gogoan euskara ikasten hastera bulkatu zuena: «Oroitzen naiz institutu garaian joan ginela Carcar aldera Korrikara eta joan ginen autobus batean euskarazko adarreko guztiok eta erdarazko lau edo bost joan ginen. Zozketa egin genuen bidean a ver nork eraman behar zuen lekukoa eta niri tokatu zitzaidan. Eta korrika egitean furgonetakoak esaten zidan alde egiteko pixka bat kea ez hartzeko eta nik ez nuen ulertzen. Orduan, lagun bat etorri zen eta esan zidan '[Adur], tira atzera!'. Eta egun hartan pentsatu nuen 'jo [xo]! Es que ez dut ulertu', eta gainera... eta pixka bat hitz egiten [Bitorrekin]... enteratu ginen AEK-k sortu behar zuela. Gainera, auzoko jendea, ezaguna... Hogeit bat hasi ginen...».

Bi anaiek izan zuten motibazioaz galdeginik, honela mintzo da Adur: «... betidanik ikasi nahi genuelako. Ikusi genuen aukera eta izan zen mundiala». Iturramako AEK-k Amaiur Ikastolan ematen zituen euskara eskolak eta Adur eta Bitorre ikastolara biltzen ziren arratsaldero euskara ikastera. Astegunetan ez ezik, euskara eskoletako ikaskideekin asteburuetakoko planak ere egiten zituzten: «... astean zehar egun guztietan eta asteburuetan askotan elkartzen ginen parrandaz edo festa batzuetara eta, beti euskaraz, nahiz eta lehenbiziko urratsa edo bigarren urratsa... Eta irakaslea oso jatorra zen eta gurekin etortzen zen». Auzoko kultura bizitzan ere sartuta zebilen Adur: inauteriak, Olentzero... Euskara ikasteko lehen urteak Iturramako AEK-n egiten zituen eta gero Sanduzelai auzoko Miluze eskaltegi publikoan segitu zuen «... pixka bat gramatikalki igual hobetzeko». Bi urtetan Carlota ere animatu zen eskaltegira joatera eta maila desberdinetan baina ordutegi berean, arratsean ikasten zuten euskara. Adurrek, EGA ateratzeko prestatzen hasiteko asmoz, azkeneko urtean ikastaro trinkoa egin zuen bai eta uda Lazkaoko barnetegian eman ere. EGA gainditu zuen. Bitorrek ere euskara ikasi eta Irakasletza diplomatura egin zuen euskaraz, eta praktikaldia Amaiur Ikastolan berean. Orain San Fermin Ikastolako maisua da.

Adurrek Soziologia ikasketak akituta doktoretza programan izena eman eta bi ikasturte egin ondoren tesia egiteko asmoa bertan behera utzi zuen. Ikasketak bukatuta hainbat lanetan aritu zen: tabernetan —ikasle garaian bezala—, autonomo gisa lagun batzuekin garraio lanak egiten, Iruñerriko Mankomunitateko bezeroendako arreta zerbitzuan urtebetez —lan horretarako euskara jakitea eskatu zioten— eta tartean suhiltzaile izateko oposizioa hasi zen prestatzen. Bi aldiz saiatu zen; lehenbizikoan ez zuen erdietsi. Bigarrenean, duela bost urte, bai gainditu eta behin betiko lanpostua eskuratu zuen Tuterako suhiltzaile-etxean. Ordurako lehen haurra, Usun, sortua zen.

Suhiltzaile oposizioa prestatzeko urteak oso gogorrak izan ziren Adurrendako: «... orduan bazen garai bat pixka bat... Bakarrik bazegoen gauza bat nire bizitzan: ikasi, entrenatu eta orduan, badago hor tartetxo bat, hiru, lau, bost urteko tartetxo pixka bat murgilduta hor ekiten, ekiten, ekiten... (...). [Usun] jaio zen lehenbiziko eta bigarren oposizioaren artean. Juxtu [Iruñerriko] Mankomunitatean ari nintzenean, 2007an (...). Gainera bigarrena [oposizioa] prestatu nuen bera ja jaio berria zela eta bueno, ia-ia [Usun] zazpi, zortzi hilabete eduki arte ia-ia ez nuen ikusi. Zazpitan hasten nintzen lanean Mankomunitatean (...) hiruretan atera, entrenatzera, ikastera... Eta gauean iritsi etxera (...) eta pixka bat ikusten nuen».

Umeak sortuta etxean zein hizkuntzatan arituko ziren solastu ote ziren galdeginde: «Bai, pixka bat bai, ez gehiegizko» —dio Adurrek— «Nik esaten nion [Carlotari], normalena badela, gutxienez ikastea hemen egonda eta gertatzen dena, hitz egin dugu horri buruz, hemen Iruñean badela zaila... gainera, gure familian gehienek ez dakite euskaraz eta batzuetan nik egiten dut erdaraz beraiekin [umeekin]. Ba, ez dakit, igual ez nuke egin behar, baina aitona edo amonarekin baldin bazaude eta beraiek ez dute ulertzen, orduan batzuetan ematen du gaizki euskaraz hitz egitea baina... Bai, hitz egiten genuen. Ados geunden, garbi geneukan seme-alabak izan behar genituela eta argi eta garbi geneukan euskaraz ikasi behar zutelako».

Bi umeekin Carlotak hartu izan ditu amatasun bajak eta eszedentziak, txikia Usun sortu ondoan eta urtebetekoa Gari jaio ondoren. Bi semeak Azpilagaina auzoko haur eskola batera eraman zituzten Amaiur Ikastolan hasi artio. Haur eskolak gaztelaniaz eta ingelesez jarduten zuela iragarri zuen, baina Adurrek dio batik bat «... erdaraz zela...», hau da, gaztelaniaz «... ».

eta zerbait, batzuetan eta segun nork egiten zuen ingelesez pixkatxo bat. Baina eraman genuen [Usun] horretara juxtu etxe ondoan dagoelako. Pentsatu genuen euskararako haur eskolara eramateko. Nik uste dut bi daudela eta biak Txantrean daudela. Orduan ezinezkoa zen. Argi geneukan gero ikastolara joan behar zela eta pentsatu genuen eta berdin zitzaigun haur eskola zein hizkuntzatan». Usunek hiru ikasturte eman zituen haur eskolan, azkenekoan anai txikiarekin batera. Gero, zegokien denboran pasatu ziren Amaiur Ikastolara. Ikastolan hasi orduko Usunek euskaraz egiten ote zuen galdeginda, Adurrek dio «... hitz egin igual gutxi baina ulertu bai (...). Eta [Gari] [Usun] bezala, ulertzen zuen baina hitz egin gutxi hitz egiten zuen eta biok hona [ikastolara] etorri eta nabaritu zaie asko-asko hitz egiten euskaraz».

Usun eta Gari adintsuak dira eta ongi moldatzen dira jostetan, «... badaude beti elkarrekin. Urte eta erdi dute alde eta ja garai honetan ia-ia bizkiak bezala». Bi anaiak beren artean «... gehienetan erdaraz» aritzen dira. Batzuetan Adur harritzen da semeen ikaste prozesuaz: «... batzuetan esaten duzu 'ez dakit hitz egingo duen ala ez' [Usunek] eta bat-batean hasten da hitz egiten eta 'jobar! Eta azaltzen dizu zerbait euskaraz baina perfektu». Bigarren semea ikastolan hasi berritan etxean zer edo zer euskaraz egiten bazioten haurraren gaitzespenaz oroit da Adur: «[Usunek] ez, baina hasieran [Garik] esaten zuen 'no me hables en euskera, eso en la ikastola!'. Hori egokitzen nola, nolabait sentitzen zen igual (...) 'no me digas eso!' edo bere amari batez ere '¡tú háblame en castellano!' le decía. Baina orain ja ez. Ba nolabait ikusten zuen pixka bat agobiatuta, ez dakit nola egongo zen».

Adurren arrebak ez daki euskaraz, baina anaiak, Bitorrek bai. Halere bi anaiak «... normalean erdaraz» aritzen dira. Dena dela, Adurren ustez, txikiak haiekin direlarik euskaraz gehiago egiten dute: «Orain txikitxoekin gero eta gehiago euskaraz (...) txikiak beti euskaraz egiten dugu eta gure artean normalean hasten garenean jarraitzen dugu euskaraz egiten. Baina igual berarekin banago egun osoa (...) erdaraz egiten dugu». Bitor eta Adurren aitak, umeen aitatxik, erdaraz egiten die bilobei.

Carlota aldetik Usunek eta Garik ez dute lehengusu-lehengusinarik. Adurren aldetik bai, bi seme-alaba ditu izebak eta hiru osaba Bitorrek. Denek San Fermin Ikastolan ikasten dute. Lehengusu-lehengusinen artean «denetik» egiten dutela dio Adurrek: «... gu tartean baldin bagaude, euskaraz, beste batzuetan entzuten duzu eta erdaraz. Erdi-erdi». Bitorrek euskaraz egiten die hala bere seme-alabei nola ilobei. Usunek osabari «... euskaraz egiten dio»; aitari aldiz, «... batzuetan euskaraz eta bertze batzuetan erdaraz». Adurren ustez hori gertatzen da berak ez baitio semeari beti euskaraz egiten: «... zeren eta nik batzuetan erdaraz egiten dudalako beraiekin. Segun eta norekin edo non...».

Usunek bertze neska-mutikoekin «... gehienetan erdaraz» egiten du. Adurrek Iruñean euskaraz aditza eta aritza zaila dela nabarmentzen du: «Gu saiatzen gara baina hemen Iruñean gehienetan entzuten dute erdaraz eta egiten dute erdaraz, bai familian bai... Eta saiatzen gara guztiok [ikastolako guraso guztiok], nik uste, eramaten antzerkira, ja begiratzen duzun a ver euskaraz dagoen (...). Eta musika eta ipuinak eta ez dakit zer... Baina bueno, bai euskaraz bai erdaraz, saiatzen gara eramaten (...). Ja gutxienez haiek ikusten normalago edo arruntago euskaraz, ez bakarrik ikastolan edo bakarrik nirekin, ba pixka bat ikusteko badaudela aukera gehiago euskaraz egiteko».

Ikastolako bertze guraso euskaldunek ere euskaraz egiten diete umei eta horrek bultzatzen du, bere ustez, haurren arteko euskararen erabilera: «Eta gurasoekin oso ongi, zeren eta gure artean, ez nik bakarrik, ba... beste aitek edo amek hitz egiten dutela euskaraz beraiekin. Igual beraien artean egiten dute erdaraz eta batzuetan ja hasten gara esaten '¡Zuek!' eta txipa aldatu eta hasten dira euskaraz». Ikastolako guraso ezagunen artean asko dira euskaldunak, dio Adurrek: «[Marcos] [4. FGkoa] ... Bai, askok dakigu euskaraz (...). Egutero hemen [ikastolako jostaleku] ja badakizu nork dakien (...) elkartzen zara eta hasten zara euskaraz hitz egiten (...) nik uste gainera guztiok ulertzen dugula euskaraz, hitz egiten ari baldin bagara euskaraz jarraitzen dugula. Igual beste leku batzuetan (...) igual moztzen zara pixka bat, 'jode, igual, ez moskeatu baina joe, ez du ulertzen eta ematen du...'. Nik uste dut nahiko normala ikusten dutela [haurrek] euskaraz egitea. Gero haiek egiten dutena...».

Umeek eskolaz kanpo igeriketa eta musika egiten dute, bi jarduerak erdaraz. Haurren aisialdirako izaten dituzten materialak eta izaten dituzten ohiturez galdeginda, honela adierazi du Adurrek: «... badute denetik, ipuinak badute erdaraz, baina badute euskaraz asko eta saiatzen gara ipuinak gauean kontatzen ba, txandaka egiten, [Carlotak] erdaraz eta nik euskaraz (...) berak [Usunek] badaki zein aukeratu amarentzako eta zein ez. Eta urtebetetzean eta hori opariak beti saiatzen gara pixka bat euskaraz erosten (...). Saiatzen gara euskaraz bai liburuak, ipuinak, pelikulak, musika. Batez ere musika, beti kotxean (...) ia-ia beti euskaraz». Noizbehinka DVD filmak ingelesez jartzen saiatzen dira baina Usunek ez du gustuko izaten eta «kexaka» hasten da, harritzen da Adur: «... geratu ginen pixka bat flipatuta. Haur eskolan pixka bat nolabait ingelesa ezagutu zuen, abestiak... Bueno, gauza asko ez baina egiten zuten, erabiltzen zuten ingelesa. Eta ez dakizu, juxtu aldrebes».

Bere semeek euskararekin zer harreman izatea nahiko lukeen galdeginda, honela mintzo da Adur: «... ez da ama hizkuntza izango, zeren eta beti hemen Iruñean bada zaila, baina gutxienez euskara erdaraz balitz bezala ia-ia izatea, berez. Ez esatea 'ikasi behar dut euskara!' baizik eta 'badakit euskaraz eta erdaraz eta ingelesez hitz egiten', baina bueno, behintzat euskaraz erdaraz bezain ongi (...). Espero dut printzipioz gehiago egitea euskaraz eta saiatzen ari gara (...) nik uste dut jakingo dutela euskaraz eta erdaraz. Egingo dute erdaraz igual familiarekin edo arlo batzuetan baina nik uste dut bizi izango direla gehiago euskaraz, espero dut behintzat. Eta nirekin handitzen direnean espero dut jarraitzea... (...) beraien artean ba hori, bizitzea euskaraz, erabiltzea. Ja egingo dute erdaraz baina normalena izatea lagunekin behintzat euskaraz egitea. Etxean ez dakit, nirekin bai baina [Carlotarekin] azkenean, hizkuntza ezagutzen baldin baduzu hala-hala, ba segun zein gauzari buruz hitz egiteko ez da batere erraza. Baina bueno, a ver hitz egiten duten».

Iruñean haurrak euskaldun haztea zaila bada ere, euskarak gero eta leku handiago duela iruditzen zaio Adurri: «Zaila da hemen Iruñean egoera edo lekuak aurkitzea baina gero eta gehiago...».

16. familia

Blanca, Txuma eta beren hiru seme-alabak, Iker (12 urte), Kattalin (10 urte) eta Aimar (4 urte)

Blanca Iruñekoa da eta erizaintza du ogibidea. Txuma ere iruinxemea da eta hiriburuko tanatorio batean jarduten du (bera izan dut berriemaile). Iruñeko Iturrama auzoan bizi dira beren hiru seme-alabekin. Osatu duten familia batik bat erdaraz aritzen da.

Txuma 1966an sortu zen Iruñean. Elkarriketa erdaraz egin nahiago izan du: «Al final, soy euskaldunberri y para este tipo de cosas me desenvuelvo mejor en castellano (...) así cuentas más cosas ¿no?». Bere familiaz dio aitaren aldetik aitatxi Gareskoa zela eta amatxi Legasakoa (Bertizarana), euskalduna. Aita —1995ean hilda— Garesen sortu zen. Amaren aldetik aitatxi Oñatikoa, euskalduna, eta amatxi Los Arcoskoa. Ama Iruñean jaio zen eta euskara pixka bat ikasi zuen aitatxirengandik. Aitak ez zekien euskaraz baina «... era un amante» dio Txumak. Sei anai-arreba dira, lau neska eta bi mutil, bizkiak, txikienak. Iruñeko Zabalgunean hazi ziren eta hor bizi izan zen Txuma Blancarekin ezkondu artio, hogeita hamaika urte zituelarik.

Bi anaiak Iruñeko Zabalguneko Vázquez de Mella ikastetxe publikoan eskolatu ziren hasieran. Gero, OHoko 3. ikasmaila egiteko El Alcázar eskolara pasatu ziren, garai horretan neskaticoak eta mutikoak bereizten baitziren. OHO amaitu eta Ximénez de Rada Institutura jo zuten. Txumak eskolaldi osoa erdaraz egin zuen eta haurtzaroz honela mintzo da: «En la calle con los vecinos y con pocas pretensiones, o más bien ninguna, al fin y al cabo éramos seis. Trabajaba mi padre solo y no nos ha faltado de nada (...) a nivel de felicidad, yo creo que plena (...) sin nada del otro mundo, desde luego».

Txumaren ama etxeko lanetan aritzen zen eta aitak «... tenía tienda de electrodomésticos pero era muy emprendedor». Txumak anitz balioesten du aitak egin zuena, sei seme-alabei unibertsitate ikasketak eman izana. Zabalguneko pisuan aita-amak, sei seme-alabak eta amaren aldeko aitatxi-amatxik bizi ziren. Aitatxi Oñatikoa zen, euskalduna «... pero mi abuelo nunca

hablaba [euskaraz]» —gogoan du Txumak— «Si hablaba por teléfono con sus hermanos, que eran un montón de hermanos de Oñate, siempre hablaba en euskera. Él no tenía ningún problema». Aitaren familian ere amatxi euskalduna zen, Legasakoa, eta osaba-izebak «... sí que estaban muchísimo más concienciados (...) tengo dos primos que tampoco estudiaban en euskera pero sin embargo sí que eran de un ambiente más euskaldun, pero a nivel de conciencia (...) que ahí sí que podías ver como más valoración...».

Txuma ez da oroit aitatxi eta amatxi euskaldunekin inoiz euskaraz aritu zenik: «Yo no recuerdo haber hablado con mi abuelo nunca en euskera». Aitatxi hil zelarik Txuma oso gaztea zen «... y con mi abuela pues igual sí porque mi abuela ya murió en el noventa y tres creo e igual algo sí, pero tampoco... Pero seguro que más que con mi abuelo sí».

Familiaren oroitzapen horretaz gain «... no tengo yo un recuerdo del euskera» dio, «... era mucho menos demandado que ahora, muchísimo, muchísimo menos». San Fermín Ikastolan ikasten zuten auzolagun batzuei esker izan zuen Txumak lehen aldiz ikastolen berri eta euskarara hurbildu zen «... más por amistades o por el entorno...». Gaztetxotan Txuma eta bere anaia Oberena kirol elkarteko dantza taldean aritu ziren eta hor, institutuan eta parrokiaren inguruan, bai izan zuten harreman estuagoa euskaraz ikasten zuten neska-mutilekin: «En el instituto hay otra vez una mezcla (...) viene gente también de (...) la ikastola San Fermín, como otra hornada de gente de la ikastola, que te vas mezclando (...). Y luego estuvimos unos años (...) en la Parroquia de San Alberto Magno (...). Había como un grupo de catequesis (...) donde estaba Kili-kili y una serie de gente euskaldun y ahí sí que, a excepción de mi hermano y yo, eran todos venidos de la Ikastola San Fermín. Y yo no sé si fue aquello o simplemente que yo también digo, ¡Ahí va!, si yo también lo tengo en casa ¿no? ¿Por qué no? Y así empiezas...».

UBIko hiru irakasgai gairitu ez zituen, horiek berriz egin behar izan zituen eta ikasturte horretan arratsez joan zen institutura. Orduan deliberatu zuen Iruñeko HEOn euskara ikasten hasia ikastaro trinko batean, goizero hiru ordu: «Luego por orgullo también. No tengo clase hasta la tarde-noche ¿qué hago durante el día? Y luego seguí. Habría seguido me imagino que compaginando hasta el año noventa y dos creo (...). Y luego ya pues fui haciendo cursos. Nunca he hecho un barnetegi (...). Siempre en Pamplona». Ondoko urtean Sanduzelai auzoko Miluze euskaltegian ikastaro trinkoa egin zuen: «... ese ya fue más duro, de nueve a una y media. Eran cuatro horas y media prácticamente de clase. Y el siguiente año, en el noventa y tres, hice otra vez lo mismo y fui a Vitoria y ya saqué el EGA hace bastante tiempo. Ahora me doy cuenta que mis fracasos han sido aprovechados para ciertas cosas. Por orgullo...». Txumak Historia ikasi zuen NUn eta 1994an, hogeita zortzi urte zituelarik, Blanca ezagutu zuen.

Blanca 1970ean sortu zen Iruñean, Santa M^a la Real auzoan. Aitaren aldetik amatxi Elokua zen eta aitatxi Leongo herri batekoa. Leongo aitatxi hori guardia zibila baitzen, Blancaren aita txikitán Nafarroako Mendialdeko hainbat herritan (Baztanen bereziki) bizi izan zen eta «... así que el hombre aunque no habla euskera, sabe un montón de palabras, les dice a los críos...», dio Txumak. Amaren aldetik familia Ororbiakoa zen. Blancak Santo Ángel eta Maristas ikastetxeetan ikasi zuen. Berak hemezortzi urte zituelarik bere familia Iturrama auzora aldatu zen eta UBI Iturrama Institutuan egin zuen, dena erdaraz. Gero NUn Erizaintza ikasi zuen. Euskara zertxobait ikasi zuen ezkondu baino lehen baina harrezkero ez du ikastarorik egin. Txumak uste du bera eta haurrak euskaraz solasean ari direlarik Blancak ulertzen diela, baina behin ere ez du deus erraten. Beti erdaraz aritu izan dira biak. «Yo con [Blanca] siempre en castellano», dio Txumak, izan ere, berritsua baita erdaraz erratasun handiagoa duela aitortzen du: «Yo soy dado (...) a hablar bastante, entonces quieras que no, yo siempre digo, el euskera, así objetivamente es un idioma que tiene su dificultad. Para los que no lo hemos hablado de nacimiento yo creo que más».

Txuma ehorztetxe batean aritu da lanean beti eta Blanca erizaintzan, Osasunbidean. Emaztea lanaldi erdiaz aritzen da orain eta Txuma heldu den urtean lanaldi murriztua hartzeko aukera aztertzen ari da «... con el objetivo de tener más tiempo. No es solo por los críos, también por nuestras historias, por nuestros hobbies. Yo ando mucho en bici, siempre me

gusta... Y ahora tengo un calendario que es bastante inviable, la verdad. Entonces estamos valorando eso. Los dos somos amantes cien por cien del tiempo libre. Ya sabemos que hay que trabajar. Pero también por nuestro trabajo sabemos que esto se acaba, que no somos aquí infinitos (...) [Blanca] tiene una planta con niños con cáncer. Está viendo continuamente desastres y yo lo único que veo son desastres. Igual eso te hace estar más despierto (...) que vemos que hay otras cosas en la vida. Entonces siempre buscamos cuanto más tiempo libre mejor, por los críos y por nosotros mismos también. Eso es un punto esencial».

Ezkondu zirelarik Ipar Etxabakoitzen hasi ziren bizitzen baina lehen semeak, Ikerrek, urtebete zuelarik Iturrama auzora aldatu ziren. Txumak dio auzoz aldatzearen arrazoia ikastola izan zela: «Un poco con idea venimos, un poco condicionados por la ikastola». Horretaz gain aitaxi-amatxik ondoan bizi direlako. Hala bada, lehen umea sortu zelarik haurraren zaintza hasieran amatxirekin konpondu behar izan zuten. Gero haur eskola batera eramane zuten, erdaraz, «... porque en euskera no había y valorando un poco (...) ‘ya, en euskera, pero si me tengo que ir hasta... no sé hasta dónde para que hable euskera, lo que voy a ganar por un lado lo voy a perder en paciencia’. No nos compensaba. También sabíamos que iba a terminar aquí [Amaieur Ikastolan], con lo cual, sin problema. Con [Kattalin] fue igual. Y con [Aimar], sí que entró en el aula de dos años. Entre [Kattalin] y [Aimar] es cuando empezó a funcionar el aula de dos años».

Txumak garbi zuen seme-alabak Amaieur Ikastolan eskolatuko zituela: «En euskera desde luego, y aquí». Horretan bat egin zuten senar-emazteek. Txumak lehenagotik ezagutzen zuen ikastola, bere ilobengatik, eta ikastetxean zegoen giro ona hasieratik gustatu zitzaion. Txuma anitzetan joaten zen ikastolara bere iloben bila eta oroit da bere iloba batek osasun arazo larriak izan zituela eta ikastolak anitz lagundu ziela: «Pues tuvo que ver algo la ikastola, fueron cosas que te van marcando y dices ¡jjo! ¡Qué bien la ikastola, qué bien! Luego, los profesores que llaman. A mi hermana y a mi cuñado les llamaban mucho, ‘¡Oye! ¿Qué tal va [Jasone]? ¿cómo está?’. Al final es una familia la ikastola, sin duda».

Lehen umea sortu zenerako Txumak euskaraz bazekien, EGA eskuratua eta guzti. Haurrari zer hizkuntzatan eginen zioten bikotean solastu ote ziren galdeginda honela dio: «Yo creo que fue algo que no se habló, que se sabía que iba a ser así (...). Yo creo que [Blanca] no tenía ninguna duda y yo desde luego menos (...) fue algo que... hay cosas que no se hablan. Que entre nosotros no hablamos porque ya sabemos que es así». Txumak hurrei txiki-txikitatik euskaraz egin diela dio baina Blanca tartean dagoelarik ez, orduan erdaraz egiten die: «... yo no tengo esa perseverancia en decir, si está la otra parte, está [Blanca], que no sabe euskera... no es que no sepa... yo estoy convencido que entiende, pues que si ella está hablando o yo estoy hablando o está ella delante, que hablemos en castellano, también (...) a mí me sale más fácil, pero ya sé que yo con cualquiera de los tres tengo que hablar en euskera, también lo sé. O sea, yo si voy a llevarle a [Kattalin] a atletismo no se me ocurre decirle ni media en castellano. Otra cosa es que ella me conteste en castellano. Que eso sí que está muy extendido».

Seme-alabek erdaraz egiten ohi diote hari eta berak hurrekin erdarara jotzen du maiz: «... me tiro al castellano sin problema». Haurrak beren artean ere erdaraz aritzen dira: «Entre ellos yo te diría que no sé si nunca... pero muy difícil, muy difícil. Castellano (...). En casa ‘que habléis en euskera’. Les cuesta, pues claro, a ver, yo tampoco... si me cuesta a mí también (...). Me cuesta a mí. Es así». Etxean ez dute euskara erabiltzen ez elkarri oharrak uzteko, ez mezuak idazteko...: «... el castellano pesa mucho. A mí me fastidia pero es que es así. Yo no lo puedo negar en mi caso. En castellano». Hurrek telebista gutxi ikusten dute baina ikusten dutena erdaraz izaten da. Ikerrek euskal musika talde anitz ezagutu ditu aurten institutuko lagun bidez, «... está descubriendo un nuevo mundo en música exclusivamente en euskera con *Esne beltza*, yo qué sé, yo ya me pierdo», aipatzen du Txumak. Dena dela, Iturrama Institutuko ikaskideekin erdaraz aritzen dela sumatzen du Txumak: «... a mí me da que entre ellos usan como lengua a nivel de comunicación el castellano, me da». Kattalinekin *Disney Channeleko* telebista amerikarrak ikusten ditu eta Aimar oraindik marrazki biziaren eta Pirritxen zalea da.

Kattalin eta Aimar ikastolako bertze haurrekin ere erdaraz aritzen dira: «Entre ellos desde luego. Tú sales al patio (...) verás que el noventa por ciento o más hablan castellano. De hecho aquí en la ikastola ha habido campañas, ya no saben qué hacer... pues no sé, igual es porque, ¡coño!, no es por menospreciar las lenguas porque ninguna lengua es más que otra, vaya eso por delante, pero sí igual es porque es un idioma, una lengua difícil y quien más quien menos en Pamplona al final no hay mucho ambiente euskaldun que te envuelva y que te obligue (...) o si está es un poco forzado, cosa que fastidia bastante, pero es así, es una realidad. Yo lo veo así. Entonces los críos, en la ikastola castellano entre ellos (...) únicamente casos en que padre y madre hablan en euskera yo veo que los críos lo hacen sin ningún problema, pero si no... es triste pero es así».

Alde horretatik ikastolako haurren guraso gazteagoen artean euskaldun gehiago daudela ikusten du Txumak: «... padres que van entrando ahora en la ikastola, cada vez yo noto, padres que compartimos con [Iker] y padres que compartimos con [Aimar], veo que cada vez la gente, los padres saben más, tanto el padre como la madre, euskera (...) yo veo que hablan los de la gela de [Aimar] [4-5 urtekoen ikastaldean], no te voy a decir la mayoría, pero sí, yo creo que bastante más de la mitad hablan, la mayoría hablan en euskera¹⁸⁴, incluso padre y madre. Y entonces como han entrado así y yo sé, pues te sale automáticamente el euskera. Es como cuando los profesores de la ikastola, siempre, si estoy yo, siempre hablamos en euskera. Si está [Blanca], las reuniones y todo esto siempre en castellano. Es mejor también».

Guraso euskaldunekin euskaraz egitea ohitura kontua da bere ustez: «Y sobre todo es un tema de costumbres. Yo aquí [ikastolan] hay gente en el patio que no me sale dirigirme en castellano porque desde el primer día hemos hablado en euskera y sin embargo hay gente que aún sabiendo que sabe euskera, siempre hemos hablado en castellano porque en un principio nos dirigimos en castellano». Baina oro har, harremanetarako Txumak gaztelania nahiago izaten du: «... yo me desenvuelvo mejor, no lo puedo negar, en castellano. Y al final es cuestión de agilidad, o de comunicar más o comunicar mejor». Bere ustez, berari gertatzen zaion gauza bera gertatzen zaiela haurrei, hau da, euskara zailagoa egiten zaiela: «Les cuesta, pero claro, a ver, yo tampoco... si me cuesta a mí también (...). Me cuesta a mí. Es así. No sé qué pasará en otros sitios. En Cataluña yo creo, primero, que está en el ambiente. Tú vas a Barcelona y yo creo que está en el ambiente. Y luego, la propia dificultad del idioma, que también yo creo que es un elemento que influye mucho, me parece a mí. La estructura gramatical que cambia, que si el verbo al final... no sé (...) algo hay, algo hay que pesa mucho y que hace que la gente, y yo me incluyo, te cueste».

Ikastolaz aski pozik dago: «... muy bien, aquí muy bien, muy bien. Nos costará dejar la ikastola, seguro (...) al final te vas metiendo, te vas metiendo. Te crea... o sea, es otro modo de vida, ¿qué vas a hacer a la tarde? Pues a la ikastola». Gurasoen artean eta irakasleekin dagoen konfiantza harremanak estimatzen ditu: «Yo una de las cosas que más valoro, eso y la cercanía con el profesorado también. Me parece muy importante y aquí es que se da, se da... Siempre te piden ayuda si la necesitan. 'Oye [Txuma], que vamos a ir al Museo de Navarra y si puedes venir y nos ayudas'. Y me ha tocado ir o a una granja, en el autobús, o mil cosas. Aquí se han hecho un montón de cosas. Se ha hecho una cosa muy bonita, el año pasado por primera vez un intercambio (...) con Alemania».

Txuma beti egoten da prest ikastolan bai eta auzoan ere antolatzen diren jardueretan laguntzeko. Iturrama auzoko Olentzeroren antolakuntzan dago sartuta duela sei urtetik: «... yo nunca he entendido a esa gente que dice 'yo vivo en Mutilva pero les llevo mis hijos a...' o 'vivo en Iturrama y los llevo a la otra punta'. Porque al final no haces barrio. Ahora mismo está habiendo una iniciativa de abrir alguna sociedad en el barrio, que no es la primera intencionada que hay, sobre todo promovida por padres de la ikastola para crear un poco más de... De hecho cuando son las fiestas del barrio, que llevan tres años en plan un poco serio, está toda la ikastola ahí. Al final, el barrio quien es, es la ikastola y poco más (...) la verdad es que la vida del barrio, a mí en concreto me la da la

¹⁸⁴ 2010-2011 ikasturtean HHko lehen mailan eskolatu ziren haurren % 70ek du gutxienez guraso bat euskalduna. Ikus I2. eranskina.

ikastola y me relaciono con gente de la ikastola (...). Hacemos una cena, organizamos todo, organizamos excursiones, comidas en los pueblos con la gente. Hacemos otra cosa que ya se ha oficializado también, un viaje por Europa cuatro o cinco parejas, sin críos (...) hemos estado en Marrakech, hemos estado en Berlín... Hemos hecho cosas. Y es con gente de aquí, aparte que luego tengas tu cuadrilla y... pero te marca mucho la ikastola. A mí me parece una pasada».

Blancaren eta Txumaren seme-alabek etxean bazkaltzen dute egunero, inoiz ez dira ikastolan bazkaltzera geratu. Txumarendako hori garrantzitsua da. Ikerrek eta Kattalinek eskolaz kanpoko jarduera batzuk egin dituzte hala ikastolan bertan nola ikastetxetik at. Kattalinek zaldabaia eta munduko dantzak lantzen ditu ikastolan eta ingelesa eta atletismoa hortik lekora «... pero todo con gente de la ikastola, aunque luego haga con más gente, pero inicialmente con gente de la ikastola».

Txumak aitortzen du eskolaz kanpoko jarduetako hizkuntzari ez diotela bereziki begiraritzen: «... ya sabemos que las de aquí [ikastolan antolatzen direnak] son en euskera y sí, entonces sí que es un elemento importante a tener en cuenta. Y lo otro... Es que no sé cómo decirte, o sea, yo le doy muchísima importancia al euskera pero tampoco me... (...) el hecho de decir 'oye, no vamos a esa actividad porque no lo hacen en euskera', tampoco, tampoco, la verdad es que no... Si te dijera lo contrario te mentiría. Ahora, si ahora me dices [Iker] hace esquí y lo hace en euskera. Mejor ¿entiendes? Mejor ¿por qué no? Pero si no, tampoco me quita el sueño. Es así y ya está. Porque no sé... valoro igual más los sentimientos, los... más que andar, no sé cómo decirte, pregonándolo o... no lo necesito. Yo ya sé lo que siento, lo que pienso, lo que tiene que ser, cómo me gusta que estén mis hijos y cómo me gusta vivir, y nada más. Un poco lo que se dice, pero es verdad, un poco desde el respeto y ya está. No hay más. No me quita el sueño, la verdad. Y si hicieran... si llegaran a hacer alguna carrera u otros estudios en euskera, pues mejor, claro que sí que mejor. Y si no ¡qué se le va a hacer! Y al final, yo creo que todo lo que estamos haciendo ahora con ellos va a dejar su peso. También es verdad, independientemente de la decisión que tomen, me parece a mí».

Txumaren anai-arreba gehienek, Sevillan bizi den arreba batek eta Cascanten bizi den bertze batek izan ezik, D ereduak eskolatu dituzte haurrak: «... todos llevamos a los hijos a centros euskaldunes». Hamalau lehengusu-lehengusina dira, hogeita zazpi urte ditu zaharrenak eta lau txikiak, Aimarrek. Txumak arreba bat du D ereduko Iruñeko institutu batean irakasle aritu zena, baina Cascantera ezkondu eta alaba herriko eskolan, erdaraz, eskolatu behar izan dute euskaraz ikasi ahal izateko Tuteraraino eramane behar baitzuten «... pero no les cuadran los horarios de recogida y entonces esta cría sabe euskera porque su madre le habla pero no está escolarizada en euskera». Bertze ilobek bai, euskaraz ikasten dute: «Y todos los demás, mis dos hermanas y mi hermano, los críos sí que estudian [D ereduak]», baina halere, beren artean erdaraz egiten dute: «Quitando las mayores, que han estudiado en Amaiur [ikastola], que esas sí que les hablan a éstos en euskera mucho más, los que son de las edades, castellano, lo mismo que hacen en el patio, igual igual».

Lantokian, tanatorioan, euskara erabiltzen duela dio Txumak: «Asombrosamente muchísimo, muchísimo».

17. familia

Lourdes, Aitziber eta beren hiru seme-alabak, Malen (18 urte), Joana (11 urte) eta Gaizka (6 urte)

Lourdes Lakuntzakoa da eta ostalaritza enpresa bat du (bera izan dut berriemaile). Bi seme-alaba ditu: Joana eta Gaizka. Aitziber Erreterian sortua da eta Malenen ama da. Bi emakumeek eta beren seme-alabek familia bat osatu dute. Beren artean batik bat erdaraz aritzen dira. Iruñeko Donibane auzoan dute bizitokia.

Lourdes 1965ean sortu zen Lakuntzan. Familia osoa bertakoa du, Iribaskoa zen amatxi bat izan ezik. Denak euskaldunak, aita-amak eta aitatxi-amatxik: «Todos, todos euskaldunes. Mis abuelos hablaban en euskera, aquellos no sabían hablar castellano». Halere, ez berak ez eta

bere anaia bakarrak ere, bera baino bi urte zaharragoa denak, ez zuten euskara etxean ikasi: «... no aprendí euskera (...) entiendo pero no lo hablo» eta anaiak ere «... no aprendió euskera. Chapurrea más que yo pero no». Izan ere, Lourdesek dio Lakuntzan belaunaldi oso bat bada-goela euskara ikasi ez zuena: «... en Lakuntza entró mucha industria, ha sido un pueblo de mucha industria. Entonces, claro, entró mucho andaluz, mucho extremeño, y se perdió el euskera. Ha sido de los pocos pueblos de la Barranca que se perdió el euskera. Entonces, ahí estamos una generación de unos diez años o así que no hemos hablado euskera»¹⁸⁵.

Guraso euskaldunek beti egin diote elkarri euskaraz, baina seme-alabei erdaraz: «Mis padres en la misma mesa aún hoy en día entre ellos hablan euskera y a nosotros en castellano. Es muy curioso pero pasa». Aita nekazaritzan aritzen zen eta amak etxean bertan zuten ostatuan jarduten zuen. Bi gurasoak lanean, txikitan anai-arrebak anitzetan izaten ziren aitaren aldeko aitaxi-amatxiren etxean. Euskaldunak izanda ere bilobei erdaraz egiten zieten: «En castellano, a nosotros en castellano. A todos los nietos, sí». Aitaxi-amatxik aita-amekin aldiz, ez, honela dio Lourdesek: «Euskera total, ni una palabra en castellano. Con los nietos todo en castelano. Allí estaremos un abanico de... dieciocho primos somos. Allí estaremos un abanico de unos seis, siete años mayor que yo a unos cinco años menor que yo (...) muy pocos han aprendido después (...) éramos unas diez quintas o así que por lo que sea, por el tema político, porque entró mucho inmigrante en Lakuntza, por lo que sea, pero no se hablaba euskera, no se hablaba».

Hala bada, Lourdes etxean eta plazan lagunekin beti erdaraz aritzen zen: «En la cuadrilla nos relacionábamos todo en castellano. Todo, todo, todo castellano». Herriko eskolan aritu zen, baina fundamendurik gabe, dio Lourdesek: «Yo tenía los aitaxos que tenían el bar, mi padre se dedicaba a la labranza porque no le ha gustado nunca el bar y la ama era el motor de nuestra casa. Ella era la que trabajaba, la que todo. Entonces, claro, yo me he criado en la puerta de mi casa, en la puerta del bar (...) he hablado con todo el mundo y mi casa ha sido la calle. Yo he jugado mucho, he andado mucho y he tenido una infancia muy buena, que claro, por eso no he salido estudiante, ¡cómo iba a estudiar! ¡cómo iba a estudiar si era mucho más fácil jugar! (...). Yo he tenido la escuela de la calle (...) yo de todas formas, para mis hijos quiero que tengan la de estudiar también...».

Herriko eskolan OHOKo 8. maila eginda Iruñera joan zen BBB ikastera. Ugazabandrek baten etxean bizi zen bertze ikasle batzuekin, baina ikasturte erdian bertan behera utzi zituen ikasketak: «Lo mío lo de los estudios no era y entonces, pues ya está, le dije a la ama que no quería estudiar y bueno... ¡un disgusto!». Anaiak ere Iruñean LBH hasi, baina berehala utzi zion ikasteari. Anai-arrebak herrira itzuli eta familiaren ostatua eramaten hasi ziren.

Lourdes gaztea zelarrik herriko euskararen egoera aldatu zen: «Lakuntza lingüísticamente dio un salto impresionante porque, claro, era de hablar todo el mundo castellano, en la escuela se hablaba castellano, los profesores eran castellanos, al entrar el tema de las ikastolas...». Lourdesek kontatzen duenez Lakuntzako herriko eskola publikoan euskarazko irakaskuntza duela hogeita hamar bat urte hasi zen eta herrian gatazka sortu zen horren inguruan: «Ya se puso el modelo D pero hubo mucha bronca en el pueblo. Hubo una división pero clarísima.

¹⁸⁵ Berriemaile hau eta I4.FGko Marcos, biak dira Lakuntzakoak. Marcos I959an sortu zen eta Lourdes I965ean. Biak familia euskaldunetan sortuak, aitaxi-amatxik eta aita-amak euskaldunak zituztela. Marcosen gurasoek euskaraz egin zieten txikitan seme-alabei harik eta behin eskolatuz gero, Marcosen berak etxean erdaraz egiten eta erdaraz egin ziezaioten gurasoei eskatzen hasi artio. Lourdes aldiz, etxean erdaraz hazi zuten (familiak zuen ostatuaren eraginez edo). Agian, sei urteko tarte horretan Lakuntzan haurren hizkuntza soziazioaren gizarte ereduaren aldaketan gaztelaniaren aldera. Sánchez Carrionek (I972: 44-45) iragaiten baten kinkan ikusi zuen Lakuntza: «... se encuentra en una fase de transición, muy inestable, en la que el paso de euskaldun a erdaldun no es más que cuestión de tiempo». Berriemaile hau da Lakuntzan umetan euskaraz aski sozializatu ez eta hizkuntza ikastera iritsi ez zen lehendabiziko belaunaldia. Txepetxek herriko haurren artean euskararen jarraipena ziurtatuko zuen «ikastola» baten beharra ikusi zuen, bertzenaz, «... la recuperación será ya de todo punto imposible y el retroceso adquirirá carácter irreversible» (ibid., 45).

Los de un lado y los de otro (...). Una cosa muy fuerte porque ya se introdujo la política, bueno ya fue un poco un popurrí de muchas cosas».

Anai-arrebak Lakuntzan aritu ziren ostalaritzan zenbait urte eta Iruñean ere zabaldu zuten negozioren bat. Lourdesek hogeita bi urte zituelarik hiriburuko negozioetan bete-betean aritzeko Iruñera aldatzea deliberatu zuen: «... ya desde entonces estoy yo ya ubicada en Pamplona para todo: cuadrilla, pues todo, trabajo, todo, piso, todo... Ya empecé a hacer mi vida en Pamplona ya ahí, a los veintidós». Orduan hasi zen Lourdes bere lehen harremanean eta, horrekin batera, bere gogoko bizitza egiten: «Entonces empecé a salir con la primera chica (...) entonces ya empezaba a ser yo misma. Ya estaba cómoda... Empecé a saber qué es lo que quería, que era muy importante porque hasta entonces claro, en los pueblos yo no sé si nos dábamos cuenta muy bien de lo que éramos, porque claro, como nos decían lo que teníamos que ser... Era lo que habíamos aprendido (...). Entonces nada, a raíz de ahí, empiezo a conocer cosas que en el pueblo no conocía...».

2000. urtean Gizarte Ongizate Departamentura jotzea erabaki zuen adopzioen gaineko informazioa hartzera. Ordutik 2005. urtera artio itxaron behar izan zuen. Bere orduko bikoteki-deak, Maitek, ez zuen umerik nahi eta Lourdes oroitu da jakin bazekiela adopzioarekin aurrera eginez gero agian harremana arriskuan jarriko zuela. Halere, adopzio prozesuari jarraitu zion emakume ezkongabe gisa, guraso bakarreko familia moduan. Prozesu luzea eta neketsua izan zen. Errusiara hiru bidaia Maite eta biak, burokrazia... baina azkenean, dio Lourdesek, «... firmé y entonces me trajeron a la *puzkila* esta [Joana]. Y ya está, pues cuando le vi, pues todo lo que me habían dicho de que si tenía esto, si tenía lo otro, pues ya está, todo olvidado, la gran llorera».

Lourdes oroitzen da Errusiako umezurztegitik atera eta denda handi batera zerbait erostera joan zirelarik Joana negarrez hasi zela: «... y empezó a llorar y a llorar y a llorar. Y yo le decía a la traductora ‘oye ¿qué le pasa? Y me decía ‘se está quejando de que no tiene niños, que a ver a dónde va a ir ella, que a dónde le vamos a llevar...’ (...). Me dio una pena (...) que yo estaba pensando ‘pero ¿qué estoy haciendo yo? ¿yo ya estaré haciendo bien? Sacarle a una niña de su entorno, de su mundo, de su ciudad, de sus costumbres... con dos desconocidas que no sabe ni quiénes somos, ni a dónde vamos, ni a dónde le vamos a llevar, no...’ (...) me dio un bajonazo como para dejarla allá ¡una llorera me pegué! Dije ‘bueno, ¡por Dios! Me daba pena la cría. Y venga a llorar, venga a llorar...’ (...) en un hotel, perdidas en el culo del mundo y ‘¿qué hacemos?’ yo le decía a [Maite] ‘¿qué vamos a hacer? Yo, de verdad, es que no sé si estoy haciendo bien o mal’ ¿Ya estaré haciendo bien? Bueno, ¡una depresión de mucho ciudadano! Así que dije ‘[Maite] vamos a vestirnos, le vestimos a la cría y vamos a salir a la calle (...). Total que venga, salimos a la calle, empezamos a jugar a bolas [elurrezkoak], a bolas que te va, a bolas que te viene, hasta hoy, hasta hoy, jijiji jajaja, hasta hoy. Muy bien, una experiencia muy buena».

Joanak ia sei urte zituen Iruñera etorri zelarik eta Lourdesek neskatikoa non eskolatu erabaki behar zuen: «Cuando yo la traje a [Joana] (...) ¿a esta niña dónde le matriculo? ¿Castellano que es mi idioma o euskera que es un posible idioma que...? Porque nosotros tenemos una casa en Lakuntza, entonces... yo decía ‘¿qué le hago?’. Claro, una niña que no sabe nada de castellano, de euskera, de nada... ‘¿Dónde le meto?’. Bueno, fue un poco el dilema. Entonces fui a consultar, a que me asesoraran un poco. Entonces estuve en la ikastola Alaitz. La orientadora de la ikastola Alaitz me dijo ‘mira, no sé si es lo más importante el idioma o es más importante que le matricules en un sitio donde baje abajo y tenga niños para jugar’. Entonces me dejó un poco en el aire».

Lourdesek Amaiur Ikastolan galdegin zuen eta zuzendariak agian A ereduan matrikulatzea hobe izanen zela erran zion. Lourdesek, halere, ez zuen etsi: «¿Y por qué? Si los críos, si dicen que son esponj... pues ¿por qué no va a aprender? Porque claro, lo que yo tenía muy claro es que con una hora de euskera al día no se aprende. Eso no se aprende. Puedes coger el run-run pero no vas a aprender a hablarlo. Entonces pues me empeciné un poco y fui otra vez a donde Pello [Amaiur Ikastolako zuzendaria]. Entonces Pello me dijo que bueno, que él también había hablado con directores de otras ikastolas, había sacado el tema mío y que bueno,

pues que ya lo veía viable, 'igual sí podríamos intentarlo' y siempre teníamos la cosa de poder echarnos para atrás y poder ir a castellano ¿no? Entonces lo intentamos».

Joana 2006ko martxoan, sei urte zituelarik, hasi zen Amaiur Ikastolan. Hasieran ordu pare bat egunero, gutxinaka gero eta gehiago. Lourdesek Joanaren lehen maistra izandakoak egin zuena balioesten du: «... le tocó una profesora muy buena (...) que además era conocida mía (...). Coincidió por casualidad y aquella chica se volcó por la cría bueno, una cosa exagerada (...). Fui el segundo día a cogerla (...) y dice 'bueno [Lourdes] ¿ya le ves dónde está?'. Estaba jugando con otros niños, saltando (...). Y bueno, nada, le vi allá, nos echamos las dos a reír y dijimos 'nada, pues ya está».

Joanak urtebete Iruñean zeramalarik Lourdesek eta Maitek harremana hautsi zuten: «... yo no sé si ella [Joana] es tan consciente o más o menos consciente, pero yo creo que ella... o sea, se notó, en los estudios, en un brote de rebeldía, de... (...) lo pasó muy mal. Yo también estaba muy mal (...) claro, son niños que, igual hay que tratarlos... que aunque pensemos que son como los de aquí y los tratemos como los de aquí, pues nunca son como los de aquí. No son porque desde pequeños ellos han sufrido un abandono y ellos se han educado sin un beso, sin un abrazo, sin... ellos son un número más en el orfanato».

Handik denbora batera Lourdesek Aitziberrekin hasi zuen bikote harremana. Orduko Lourdesek hasiak zituen bigarren haurra adoptatzeko tramiteak. Mutikoa, Gaizka, ekartzeko prozesua anitzez errazagoa egin zitzaion Lourdesi, zailtasunak zailtasun: «Yo, sí me habría gustado, pues en la asignación pedí una niña dos años menor que ella [Joana] o así. Y me dieron un chico bastante más pequeño (...) yo también quería que el día de mañana serían también los dos hermanitos, que si yo no estoy que se tengan uno al otro (...) me dieron un chico, nos ha venido un llorón y a veces le mataría y otras veces pues me lo comería (...). Y ahí está, ahí estamos la familia». Gaizka 2010eko urtarrilean etorri zen. Eskolatzeko orduan Lourdesek ez zuen zalantzarik izan. Lehen ikasturtearen erdia Alaitz Ikastolan egin zuen Amaiur Ikastolan lekurik ez baitzegoen eta bigarrenean bai, Amaiurren egin zuen arrebarekin batera.

Errusiatik ekarri zutelarik, dio Lourdesek, Joanak «... hablaba ruso como una carretera además, ¡como una carretera! ¡Esta era habladora...! Esta se me enrollaba con todo el mundo». Iruñean hiru hilabete zeramatzarik Lourdesek neskatikoa errusiera eskoletara eramanean zuen hizkuntza ez galtzeko baina orduko Joanak hizkuntza ia galduta zuela dio: «Yo tendría que haber estado más avisilla y verle. Pero claro, tampoco sabía que de la misma manera que cogió un idioma estaba dejando otro. Entonces allí me despisté o lo que sea, llámale como quieras, el tema es que de ruso no sabe nada. Ni ésta ni el otro, ninguno de los dos. Pero cero, además, e, cero, nada, nada de nada». Lourdesek asmoa du hurrekin Errusiar joateko. Orduan ikusiko du han izanda hizkuntza oroitzen ote duten. «Yo por ejemplo (...), el euskera no lo he hablado nunca pero jode, lo que he oído ya sé algo, ¿no? Entonces, no sé si... (...) me daría pena el pensar que puedo hacer algo y que no lo hago», dio Lourdesek.

Izan ere, umetan ez etxean, ez plazan ez eta eskolan ere euskaraz aritu ez bazen ere, txikitan helduei aditzeari esker euskara ez zaio erabat ezezaguna Lourdesi: «Lo que pasa que (...) yo no sé euskera pero lo entiendo porque claro, la gente mayor pues hablaba, o sea, nosotras al oído ya nos hemos hecho a oír euskera, el euskera *zabarra*! El euskera *batua* no. Ese a mí me cuesta a veces entender muchísimo. Entonces ya tenemos hecho el oído, pero yo por ejemplo, a hablar pues no he roto nunca, nunca». Orduan, orain bere seme-alabekin zertxobait egiten die: «A los críos les hablo yo el euskera mío que a veces ésta [Joana] me dice 'ama ¿qué me estás diciendo? ¡Si no se dice así! Nada, con ésta meto la zarría pero hasta hartar, hasta el crío me corrige: 'Ama, horrela ez da esaten!».

Lourdesek bezala txikitan euskara ongi ikasi ez zuten lakuntzar batzuek gero ikasi dute zerbait: «Entonces hay gente que se ha esforzado y hay otra gente que ha tenido críos y que con los críos pues bueno, al final aprendes. Acabas, no dominando el idioma, pero sí chapurreándolo un poco o bastante. Igual no tienen una conversación... Yo siempre digo 'yo sé hablar el euskera con gente que no sabe'. Entonces sí, sé hablar muy bien. Pero con gente que

sabe no puedo llevar una conversación. Entonces empiezas con los críos a decir cuatro palabras que sabes pero claro, conforme van los críos viniendo, si te esfuerzas pues aprendes algo mas ¿no? Yo creo que eso le ha pasado a mucha gente de mi generación, a mucha».

Aitziber Erreterian sortu zen 1967an. Familia euskalduna du. Malerrekara ezkondu zen gazte eta Malen izan zuten. Gero senarrarengandik bereizi zen. Lourdesekin hasi zuen harremana orain lau urte eta erdi. Aitziber eta Malen, ama-alabak, euskaldunak dira.

Halere, orain etxean erdaraz egiten dute. Lourdes harritzen da horretaz: «En mi casa no hay vergüenza», Joana, Gaizka, Aitziber eta Malen euskaldunak izanda «... y en mi casa no se oye hablar una palabra en vasco. La única que no sabe soy yo y soy la que más hablo. Y fíjate que nos lo han pedido, ¡va, que nos lo han pedido!» O sea, los profesores de [Gaizka], todos los que han pasado nos lo han pedido (...), la profesora de apoyo: 'Jode, hablarle en euskera, es que le viene muy bien. Es que interesa que el crío...'. Bueno, pues no hay manera de que suelten una palabra en euskera, y el idioma de ellas (Aitziberrena eta Malenena) es el euskera. Porque [Joana] sabe euskera pero su idioma es el castellano, es el que ha aprendido a hablar conmigo. [Gaizka] puede aprender euskera pero su idioma va a ser el castellano porque es el que habla conmigo, el de la casa, el de la familia. Pero el de [Aitziber] y el de [Malen] que es su hija es el euskera y en casa no dicen una palabra en euskera». Joana eta Gaizka beren artean erdaraz aritzen dira. Malenek ere txikiei erdaraz egiten die.

Astean behin bederen Lakuntzara joaten dira aitatxi-amatxik ikustera. Lakuntzan Joanak bere adineko lagunak ditu, horietako bat Lourdesen lehengusina baten alaba. Herrian Joanak euskaraz egiten du batzuetan. Gainera, Lourdesen lehengusinak haurrei euskaraz eginarazten die: «Además mi prima (...) que como les oiga hablar en castellano tienen buena». «¿A que habláis más euskera allí, verdad?» galdegiten dio amak alabari. «Sí, porque (...) nos obliga» erantzuten du Joanak. «Sí, pero ya se sueltan más en euskera», dio Lourdesek, «Yo diría que un cincuenta por ciento. Porque claro, es que aquí no le vemos hablar en euskera. Aquí en la ikastola y punto, nada más. Allí por lo menos yo les oigo hablando, pues ya está, se preguntan... Dominan más, hablan más». Lakuntzan aitatxi-amatxik erdaraz egiten diete ilobei: «Castellano, castellano. Mis padres lo que han aprendido con nosotros, castellano. Mi madre 'hay que hablarles en euskera!'. Castellano, nada».

Ikastolako lagunekin dena erdaraz: «En el patio castellano todo. Y [Gaizka] también, [Gaizka] más». Mutikoa txikiagoa da eta hizkuntzan nabaritzen da: «[Gaizka] ahora es cuando está dando el salto al euskera, ahora es cuando empieza ya a hacer frases completas. Hasta ahora no. Pero ya nos dice cosas en euskera, y en Lakuntza más. Porque tenemos una prima (...) esa no le deja decir una palabra en castellano. Ya empieza, ya empieza a decir frases...». Lourdesen anaia ezkondu zen. Emazteak ez daki euskaraz. Lau seme-alaba dituzte, zaharrena hamar urtekoa. San Fermin Ikastolan eskolatuta daude. Bere anaiaren familian gertatzen denak ikusarazten dio Lourdesi gurasoak euskadunak izan ezean zaila dela etxean euskaraz egitea: «En la familia de mi hermano... Mi hermano no habla euskera pero ya chapurrea bastante. Entonces claro, él euskaldun... muy curioso (...). En la familia de mi hermano a la madre le llaman *mamá* y al padre *aita*. Quiero decirte positivo con negativo, negativo. Ahí no se habla euskera... ¿cómo se va a hablar euskera si la madre es castellana? No se puede, es muy difícil (...) No se puede, difícilísimo (...). O se hablan los dos euskera y el entorno es euskera o si no es muy difícil». Bi familiak, Lourdesena eta haren anaiarena, elkarren ondoan bizi dira Donibane auzoan: «Las extraescolares tienen distintas pero tenemos muchísima relación, aunque no nos veamos entre semana, luego el fin de semana nos vemos y cuando quiera van estos a casa de los primos, los primos a mi casa, o sea, hay mucha relación». Lehengusu-lehengusinek erdaraz egiten dute beren artean.

Joanak eskolaz kanpo ingelesa, balleta eta margoketa egiten du, erdaraz. Joana oso aktiboa da «... es una niña que no es fácil que se siente a ver la tele. Siempre está haciendo algo, algún dibujo, o una manualidad, o limpiar la habitación o... es una niña que se entretiene muy fácil

solak». Gaizkak, aldiz, telebista (*Clan* eta *Disney Channel* batez ere) eta ordenagailua maite ditu. Uda honetan (2012koan) Joana Irlandako familia batera igorriko du hibatebe batez ingelesa ikasteko.

Haurrek euskaraz gehiagorik ez egiteaz harritzen da Lourdes, baina Iruñean gaztelaniak indar handia duela aitortu du: «En una ikastola donde el entorno es euskera y todo, los profesores, o sea... allí se tiene que respirar el euskera porque los mismos profesores dicen 'nosotros aquí sí que dominamos el euskera, sí que dominamos el euskera y las paredes son euskera y todo, pero claro, salimos a la calle y todas las informaciones son en castellano, que es lo que... (...). Luego, el castellano (...) algo tiene porque en las mismas ikastolas los chavales que hablan todos... Porque ¡jode! Podrían salir a la calle y hablar su idioma, pero en la ikastola deberían hablar todos en euskera! Los profesores, todos los rótulos, todos los decorados... todo en euskera, euskera... En la ikastola no se dice una palabra en castellano y, sin embargo, los hijos de mi prima (...) han aprendido a hablar castellano en la ikastola. ¡Fíjate qué cosas más curiosas! O es difícil, que es muy difícil, en eso yo creo que estamos de acuerdo todo el mundo... o el castellano puede también que sea muy fácil o... siempre tendemos al castellano, el castellano, castellano».

Lourdeseek honela dio: «... yo soy euskaldun sin saber euskera. Entonces me gustaría que lo sepan ellos. Lo que no he hecho yo, lo que no he podido aprender yo, porque a mí me encantaría saber euskera». Gainera, seme-alabek Lakuntzarekin duten lotura kontuan hartuta: «Yo no sé si el día de mañana van a ir o no van a ir a Lakuntza, pero cabe esa posibilidad. Para que ellos no se sientan marginados en Lakuntza tienen que saber euskera (...). No sé, me parece que va a ser una salida, cara a una oposición, a un puesto de trabajo en... a ser funcionaria... a, bueno, pues me parece que en pocos años se va a introducir mucho más y se va a hablar mucho más y... me parece que tiene que ser así».

Lourdeseek kafetegi bat du Iruñeko erdigunean. Lantokian euskara erabiltzen ote duen galdeginda: «... en la cafetería la camarera es de Bera y sabe hablar euskera. Yo chapurreo el euskera y entiendo perfectamente. Pero no tenemos nada en euskera, no hay nada puesto en euskera, nada de nada. Estamos en una zona donde no podemos poner. Si estaríamos en la Txantrea o en la Rotxapea cambiaría todo (...). Eso se palpa en el ambiente, se palpa (...). Es contraproducente, sí (...). En lo nuestro se palpa que el euskera es... (...). En nuestra cafetería no invita, no, por el tipo de gente que nos va».

Asteburuetan Lourdes, Aitziber eta bi txikiak elkarrekin izaten dira, Malen astebururo Malerreka joaten baita.

18. familia

Amelia eta bere alaba, Urtsua (7 urte)

Amelia Iruñekoa da eta bulegari aritzen da (bera izan dut berriemaile). Nestorrekin izan zuen alaba, baina bikotea banandu zen. Haurra bere familia honetan, bai eta aitarenean ere, batik bat erdaraz aritzen da. Amelia eta bere alaba Iruñeko Bigarren Zabalgunean bizi dira.

Amelia, 1967an jaioa, Iturrama auzoan hazi zen aita-amekin eta bera baino bi urte gazteagoa den ahizparekin. Gurasoak Iruñekoak dira baina Errioxan dute jatorria. Amaren aldeko aitatxi-amatxik Harokoak ziren eta aitaren aldeko amatxi Logroñekoa eta aitatxi Iruñekoa.

Bi ahizpak San Fermin Ikastolan eskolatu ziren «... porque era de los pocos colegios mixtos», dio Ameliak: «O sea, yo creo que en principio mis padres no eran nada del euskera porque tampoco... ni en aquellos años, todavía estaba Franco cuando nos escolarizaron. Y ellos venían de padres riojanos, o sea que el tema del euskera no lo tenían muy así. Yo creo que la razón principal fue porque era mixto. Como que no querían un colegio de niñas, ni de monjas, ni de... (...). Luego, conforme ha ido pasando el tiempo sí que se han sensibilizado con todo el tema del euskera y así pero yo creo que la razón inicial de mis padres no fue esa». Ameliak dio bere etxean ez dela inoiz euskara aditu: «En mi casa no se ha oído nunca euskera y es difícil».

Garai hartan Iturrama auzoko haur anitz joaten ziren San Fermin Ikastolara: «Entre las Torres de Huarte y Monasterio de Urdax llenábamos un autobús entero de niños», gogoan du Ameliak, eta eguraldi ona egiten zuelarik, eskola amaituta, Gaztelugibelean aritzen ziren jostetan: «... se bajaba mucho a jugar a la Vuelta del Castillo porque era entonces salvaje, no era como ahora (...) los vecinos eran los de la ikastola (...) coincidías, bueno, por las edades te mezclabas». Baina erdaraz aritzen ziren, hala auzoan jostetan nola ikastolan bertan ere: «En la ikastola también. Sí porque en aquella época muy poco euskaldun zaharra. O sea, todos eran de padres pues, como los míos, que no sabían euskera. Entonces, me parece muy complicado si en casa no se habla euskera, por mucho que en el colegio pretendan que se hable, yo... a mí me parece muy difícil, sobre todo el euskera que me parece una lengua difícil también. Entonces no, en la ikastola San Fermín, ahora no sé pero en mi época desde luego nadie hablaba euskera en el patio». Ameliak ahizparekin ere erdaraz egin du beti.

San Fermin Ikastolan BBBko 2. maila artio ikasi zuen eta apaizgaitegiko ikastetxera jo zuen BBB amaitzeko: «Íbamos todos los rebotados de la ikastola San Fermín al Seminario». Ikasturte horretan erdaraz ikasi zuen eta horrela jarraitu zuen Ermitagañako Navarro Villoslada Institutuan UBI egiten eta gero Dietetika eta Nutrizioa Nafarroako Ospitaleko Eskola Sanitarioan. Ikasketa horiek berriak zirenez ez zuten aterabide askorik izan eta Administrazioiko LBH ikasi zuen eta arlo horretan jardun du lanean beti. Garai horretan, hemezortzi bat urte zituelarik, euskara lantzea erabaki zuen. HEOko 5. maila ateratzeko eskoletara joan zen, baina ahozkoa ez zuen gaintitu: «Pues como yo ya no estudiaba en euskera y en esa época tienes tiempo, como solo estudias. Me acuerdo que 5º eran ya dos horas todos los días o algo así y estuve yendo un año y no aprobé». Ordutik ez du euskara gehiago ikasi.

Lanean hasita bulegoetan eta aseguru-etxeetan aritu da: «En Lagun Aro trabajé, que pedían euskera, aunque luego tampoco se hablaba en euskera en Lagun Aro...». Gero, motxila hartu eta urte batean bidaiatzen aritu zen. Iruñera itzuli eta bertze aseguru-etxe batean lan egin zuen, suhiltzaile izateko oposizioa prestatu zuen...

Amelia eta bere ahizpa gaztetan eskiatzaileak izan dira. Tenis Cluben entrenatzen zuten eta San Cernin Ikastetxean edo San Fermin Ikastolan, batzuek erdaraz eta bertze batzuek euskaraz, ikasten zuten neska-mutilak biltzen ziren. Ameliaren kuadrilla talde horretatik sortu zen: «Hay de la ikastola San Fermin y de las Francesas, en mi cuadrilla somos de los dos». Erdaraz aritzen ziren. Lagun talde horretan ezagutu zuen Nestor.

Nestor 1969an Iruñean sortu eta Iturrama auzoan hazi zen. Aita Iruñekoa du eta ama Madrilen jaioa, Nafarroako jatorria bazuen ere. Familia erdalduna da eta Nestor eta bere anai-arrebak San Cernin Ikastetxean eskolatu ziren, erdaraz.

Ameliak eta Nestorrek harremana gaztetan hasi zuten. Urtsua sortu eta zein hizkuntzatan egin zion galdeginda, honela mintzo da ama: «... yo no le he hablado [euskara]. No le he hablado porque me tocó... Yo me quedé embarazada y [Nestor] se fue con otra. Entonces yo... Era una cría planeada porque llevábamos muchos años. Entonces a mí se me cayó el mundo encima. Entonces yo estaba de pena. Fue un embarazo sola. No elegido, claro. Un embarazo sola, parto sola. Cuando le tuve que empezar a hablar a la niña me estaba recuperando yo. Entonces no tuve fuerza, porque encima yo... en una lengua si no la hablas vas perdiendo (...) yo no tenía facilidad y me costaba un esfuerzo que yo en ese momento no tenía fuerza para... Entonces no le hablé en euskera. Esa es la razón».

Nestorrengandik banandu eta ondoan Amelia gurasoekin bizitzera joan zen: «... mis padres con todo lo de mi separación y el embarazo y todo, pues se volcaron conmigo». Urtsua sortu eta haur eskola aurkitzeko zailtasunak izan zituen. Lehen urtean Ameliak aitatxi-amatxirekin uzten zuen haurra eta urtea bete zuelarik Iturrama auzoko haurtzaindegi batera eraman zuen, erdaraz, euskaraz ez baitzegoen eta «... por comodidad, no sé. No me iba a ir a la Rotxa ni nada de eso». Urtsuak bi urte beteta Amaiur Ikastolako bi urteko gelan eskolatu zuten. Ikastolan eskolatzea Ameliaren hautua izan zen, Nestorrekin adostua: «Casi lo decido yo por-

que yo sí que quería que estudiara en ikastola, yo prefería ikastola, pero si no modelo D (...) tenía que estudiar en euskera (...) porque lo siento así, aunque luego yo no le hablo y eso, me daría mucha pena que no... no sé, me da como nostalgia (...). Creo que siendo de aquí y pudiendo pues que hay que saber, que saber no ocupa lugar (...). [Yo] lo tenía crudillo porque la familia de [Nestor] son fachillas, porque no sé si lo tenía muy claro... Si no nos hubiéramos separado igual hubiera tenido que pelearlo (...). Yo tuve que convencerle a él (...) y coló».

Urtsuak erdaraz egiten du ikastolako lagunekin. «Hablan en castellano. En el patio en castellano» aitortzen du Ameliak eta «... rara vez... una vez le he oído... [euskaraz], que me hace como ilusión». Ameliak dio alaba dela eta ahantzitako euskara berreskuratzen ari dela: «Ahora, yo también estoy recuperando el euskera con ella: pues las tareas, yo cuando hablo con las andereños me dirijo en euskera... Y digo 'me voy a esforzar' pues para coger yo otra vez. Y bueno, ahí estoy, pues recuperando yo también (...). Sí, estoy recuperando la lengua a la vez con ella (...). Pues si le ayudas a estudiar un poco, pues bueno, igual palabras que no te acuerdas pues enseguida las saco por el contexto. O voy al diccionario y las miro. Entonces, pues voy recuperando poco a poco también». Ameliak ikastolan delarik euskaraz egiten dio Urtsuari: «Cuando está dentro de la ikastola le hablo en euskera». Hala aholkatzen diete ikastolako irakasleek: «Nos dicen siempre 'cuando están en el entorno de la ikastola los que sepáis hablad en euskera' (...) Pues yo lo hago. Además es que me sale, ya desde el principio y a los profesores siempre me dirijo en euskera y tal y entonces con ella también. Y ella como está en la ikastola pues eso bien. Luego ya si le hablo fuera '¡qué me hablas ama! ¡qué me hablas en euskera!' (...). Luego, jugando me acuerdo que hubo una temporada 'vamos a hablar todo en euskera' y entonces hablábamos todo en euskera. Pero decía 'ya no', igual estábamos dos días y decía 'oye, ya no e, ya no en euskera'. Ahora va muy bien, dicen que en euskera va muy bien». Amelia poztzen da ikusita Urtsua euskaraz ongi moldatzen dela: «... yo tenía esa cosa de que no le había hablado. Siempre como un cargo de conciencia un poco».

Etxean ama-alaben artean eskolako lanak egiten dituztelarik egiten ohi dute euskaraz: «... cuando estamos haciendo la tarea, desde luego, hablamos en euskera y ya le veo que habla bien y que entiende de todo (...). Pues ahí, en esa circunstancia hablamos euskera, porque claro, si yo le tomo la lección por ejemplo, me lo tiene que decir en euskera y yo me dirijo a ella en euskera. Y entonces ahí no me dice nada. O sea, eso ella lo acepta bien, con la tarea. Y luego, cuando estamos en la ikastola, le hablo en euskera y como estamos en la ikastola, pues también. O sea, es como normal».

Baina eskolako lanak egiteko egoeratik eta ikastolako gunetik kanpo, Urtsuak ez du onartzen amak euskaraz egin diezaion: «... me dice '¿qué me haces hablando en euskera?'. No sabe que podemos, o sea, no le cuadra que podemos hablar en euskera porque nos apetece y porque sí. Sabemos las dos y digo 'pues vamos a hablar en euskera'. No le... Como no le he hablado... Me siento un poco así pero no tenía fuerzas en su día (...). Bastante tenía con... (...). Claro, yo ahora estoy mucho más suelta por ella, porque si las tareas, no sé qué, hablar con las andereños... entonces yo me he soltado un poco. Pero claro, en esa época, recién nacida o un poco más mayor, un año o así, yo tenía el euskera ahí, en el dedo gordo. Me costaba un esfuerzo... ¡pffff! Y en ese momento yo no, no tenía fuerzas. Luego también tengo que decir, yo no he tenido tampoco mucha facilidad (...) a mí el euskera se me ha hecho difícil. Yo por ejemplo, Filosofía, que estudiamos en euskera [ikastolan]. Cuando yo salí al Seminario y estudiaba Filosofía en castellano, digo '¡ostia! ¡Es que me parece la mitad de fácil!¹⁸⁶ (...). Bueno, yo creo que tenía un profesor malísimo también (...) porque luego tuve una profesora en el instituto que me parecía... '¡esto es gloria esta mujer!'. Es que también depende mucho de los profesores. Creo que he tenido profesores de euskera muy malos (...). Entonces, claro, pero es igual porque hay gente que ha salido de la ikastola hablando muy bien euskera y yo he salido más justilla».

Nestorrek bikotekidea du, Nafarroako Erriberako herri batekoa, eta han bizi dira. Nestorrek ez daki euskaraz eta bikotekidearen familia eta herria bera erdaldunak dira. Urtsua

¹⁸⁶ «... la mitad de difícil» erran nahi izan duke.

aitarekin delarik herrian izaten da. Handik itzultzen delarik Erriberako mintzatzeko doinua eta guzti ekartzen du. «Al principio me fastidiaba, luego ya, pues oye, nos ha tocado así, pues nos ha tocado así. Veo que está bien, que la cuidan bien, que hacen cosas en el pueblo que aquí no hacen. Pues tienen huerta, tienen gallinas, tienen... pues bueno, una vida rural que se complementa con lo que yo le doy. Tiene más completa: vive en un pueblo y vive en una ciudad (...). Tiene dos mundos que de momento no mezcla».

Orain, gaztetako adiskideak gutxitan ikusten ditu Ameliak eta elkartzen direlarik lagun euskaldunekin erdaraz egiten ohi du. «Ahora qué pasa también, que tienes más relación aquí, con los padres de aquí [ikastolakoak] igual, que son amigos nuevos que tienen hijos en la ikastola (...) igual por horas estás más con éstos ahora... (...). Por ejemplo, hace poco hemos estado cinco madres en Londres, el año pasado fuimos a Berlín, ahora vamos a Praga... Yo con mi cuadrilla no hago eso ya».

Urtsuak eskolaz kanpo dantza eta plastika egiten ditu ikastolan eta igeriketa, gimnastika erritmikoa eta eskia kanpoan, azken horiek denak erdaraz. Etxean delarik jolasean aritzen da, telebista gutxi ikusten du, baina ikusten duena erdaraz. Ameliak dio bere etxean ez dela irratia edo telebista euskaraz entzuten.

Ameliaren ahizpak ez du umerik. Urtsua izebarekin erdaraz aritzen da.

19. familia

Susana, Fernando eta beren bi seme-alabak, Ilargi eta Oier (4 urtekoak)

Susana Iruñekoa da eta orain etxekoandre aritzen da. Javier Ablitasen sortua, baina Iruñean hazia da eta hiriburuko zaharren egoitza batean egiten du lan (biak izan ditut berrie-maile). Bizkiak dituzte, neska eta mutila, eta Susana haurdun dago. Batik bat erdaraz aritzen den familia da. Iruñeko Etxabakoitz auzoan dute etxebizita.

Fernando 1965ean jaio zen Ablitasen. Hiru anai-arreba dira, bi neska eta bera, erdikoa. Ama eta haren familia Tarazonakoak (Zaragoza) dira eta aita eta harena Ablitaskoak. Fernandok bortz urte zituelarik gurasoek Iruñera lan eske jotzea erabaki zuten. Familia Etxabakoitzen jarri zen bizitzten eta hor hazi zen Fernando. Auzoan bertan eskolatu zen, Nicasio Landa Ikastetxe Publikoan hasieran eta gero Txantrea auzoan segitu zuen UBI artio. Hortik soldaduska egitera joan eta gero lanean hasi zen. Euskararekin izandako lehen harremana honela azaltzen du berak: «La infancia la hemos vivido aquí [Etxabakoitzen] (...). Mi relación con el euskera empezaría con diecisiete, dieciocho años aquí, en las gau-eskolas que había en Etxabakoitz. Pues bueno, empezamos a estudiar (...). Estudié en Arturo Campión, estudié en las aulas del Gobierno de Navarra (...), en Miluze (...), pero bueno, no aprendí del todo. Igual estudié hasta bosgarren urratsa gutxi gorabehera eta gero utzi nuen eta orain hitz egiten dut pixka bat baina asko-asko ez».

Euskaraz ikasten hasteko motibazioaz galdeginda Fernandok orduko giroa eta euskal musika aipatzen ditu: «Pues el ambiente que se vivía en aquellos tiempos, pues no sé, nos motivaba a los amigos (...). Nos apuntamos varios amigos y dábamos clase en el colegio de aquí del Sagrado Corazón (...) eran grupos de AEK (...) empezamos a estudiar y fuimos avanzando poco a poco. Y al final (...) no es que aprendí para hablar hablar (...), a la hora de hablar nos costaba pero sí que aprendimos pues lo que era un poco la base y canciones, mogollón de canciones yo me acuerdo que aprendimos, que te motivaba la música en euskera, pues ya entonces en aquellos tiempos cuando se oían *Itoiz*. .. había un montón de grupos de euskera: *Ertzainak*. .. Entonces pues nos motivaba un poco la música y el hablar euskera». Gero euskara ez ohi du anitzetan erabili, baina lanean hasita aukera izan duelarik bai: «... siempre recuerdo cuando empecé a trabajar en la Misericordia, que tenía veinte, veintiún años, siempre que había algún abuelo, pues siempre hablábamos en euskera con ellos. Y por eso muchas veces yo lo que he dicho es que lo que aprendí, la base que tenía no la he perdido, porque después de... ahora tengo cuarenta y seis años, después

de veinte años que he vuelto un poco a hablar con ellos, con los hijos, pues dije ‘jjo, si aún recuerdo mucho!. Y (...) el año pasado que también estudió [Susana], empezó a estudiar euskera, pues ella me preguntaba y la verdad que recordé muchas cosas con ella. Entonces, sí que me falta el último empujón para hablar bien el idioma, pero por lo menos la base la tengo».

Fernandoren ustez berak euskara ikasteak arreba txikiari bihotz eman zion hizkuntza ikasten hasteko: «Y después con el tiempo empezó a estudiar también mi hermana que ahora está de irakasle en Buztintxuri. Yo creo que yo la motivé a ella y ella aprendió muy bien». Fernandoren arreba Nafarroako Mendialdeko mutil euskaldun batekin ezkondu zen eta bi haur txiki dituzte. Euskaraz aritzen dira: «... su marido es euskaldun zaharra, mi hermana habla muy bien euskera y los hijos muy bien también. Van a la ikastola de la Rotxaepa [Patxi Larrainzar Ikastetxea]».

Susana Iruñean sortu zen 1973an. Aita eta haren familia Estellerrikoak dira eta ama eta harena Tarazonakoak (Zaragoza). Familia Etxabakoitzen bizi zen eta auzoan hazi ziren Susana eta bere hiru anai-arrebak. Susana zaharrena da. Hirugarren arreba senarra euskalduna du, Iruñeko ikastola batean ikasia.

Susana auzoan eskolatu zen, Nicasio Landa Ikastetxean eta gero Erizain laguntzaile LBH ikasketak hasi, baina ez zituen bukatu zahar-etxe batean lan egiteari ekin baitzion. Haur-gaztetan ia ez zuen harremanik euskararekin: «Yo el único contacto que teníamos con el euskera era, a partir de 6º que íbamos de campamento con el colegio y que íbamos a Santesteban y toda esa zona, pero nunca hablamos ni nos enseñaron nada. No había ni extraescolares de euskera como luego hubo. En la época mía no había. Yo contacto con el euskera no he tenido hasta que nacieron éstos [Ilargi eta Oier] y los llevamos a la ikastola». Orduan hasi zen Susana euskara ikasten: «... cuando éstos empezaron con tres años, entonces me apunté yo a aprender un poco, ‘por lo menos’, digo, ‘entender. Lo mínimo pero entender algo’». Ikasturte batez ikasi du euskara eta mintzatzen ez bada ere, «... entender un poco sí, y alguna conversación en el patio pues también cojo», dio.

Fernando eta Susana beren auzoan bizi dira, Etxabakoitzen. Haurrak Amaiur Ikastolako bi urtekoen gelara eramán zituzten. Honela azaltzen du Fernandok: «Lo que nos pasó a nosotros fue que al tener dos, pues la verdad es que era pesado tener dos. Entonces [Susana] aguantó hasta los dos años con ellos, pero claro, ya a partir de los dos años pensamos que era mejor llevarlos al aula de dos años que había en la ikastola para que así empezaran ellos a relacionarse con el euskera y a la vez con los críos (...). Ellos estuvieron muy bien ese año antes de empezar con la ikastola. Y fue como un previo aprendizaje también para ellos. O sea, este ya es el tercer curso que están en la ikastola. Que les ha venido muy bien».

Amaiur Ikastola hautatu izanaren arrazoiaz, «... nos gustaba la cosa de que sería pública y en euskera. Y después, que era la más cercana que teníamos (...) y después, nos hablaron muy bien de Amaiur», dio Fernandok. Susana honela mintzo da: «Y también tenían inglés. Que ya estaban con lo del TIL. Decía ‘yo no quiero que sea... los dos, que no sea todo en inglés. Vamos a meterles también la lengua de aquí y que aprendan las dos cosas. Los tres idiomas, porque al final el castellano también lo aprenden por estar en casa».

Susana eta Fernando ikastolako jostalekuan izaten dira arratsaldez haurrak eskolak akitu eta jolasean gera daitezten. Umeak txikiak baitira oraindik ez dute eskolaz kanpoko jarduerarik egiten. Joan den urtean igeriketara eramán zituzten baina haurrak ez zirenez gogo onez joaten, aurten ikastolako jostalekuan geratzen dira: «... ha sido un otoño tan bueno que han disfrutado un montón, porque desde que salen hasta las seis o siete estamos en el patio con ellos. Los críos se lo pasan muy bien, haces amistad con el resto de padres. La verdad es que es una experiencia muy buena», dio Fernandok. Izan ere, Fernandok goizez izaten du lana eta arratsaldez haurrekin izateko aukera baliatzen du: «... siempre estamos los dos con ellos». Eguerdian Susanak ikastolatik bildu eta etxera eramaten ditu bazkaltzera: «Ellos cargan pilas en casa. Desconectan un poco de las ikastola». Ekonomikoki ere begiratzen dute: «... es también problema económico el hecho de quedarse, y después, que no los veríamos prácticamente», gehitzen du Fernandok.

Etxean erdaraz aritzen dira: «[Ilargi eta Oier] con nosotros de normal no suelen hablar [euskaraz]. Les cuesta también». Haurrek beren artean ez dute euskaraz egiten. «En castellano siempre», dio Fernandok.

Ilargi eta Oierrek izeba-osaba eta lehengusu-lehengusina euskaldunak dituzte. Fernandoren arrebak eta senarrak euskaraz egiten diete Ilargiri eta Oierri, baina haurrek ez ohi diete euskaraz erantzuten: «... cuando nos juntamos con ellos pues siempre hablan en euskera con ellos [Ilargirekin eta Oierrekin], pero éstos escuchan pero no responden [euskaraz]». Susanaren arrebaren senarrarekin gauza bera gertatzen da, «... él les habla, éstos entienden todo pero no les gusta contestarle... Como siempre le oyen hablar castellano, pues pasan de contestarle (...) le contestan en castellano» adierazten du Fernandok. Lehengusu-lehengusinen artean «... entre ellos no suelen hablar de normal [euskaraz]».

Haurren eskuetan paratzen dituzten materialak euskaraz ere izaten dira. Hori zaindu dute: «... ellos aunque no tuvieron una relación con el euskera de hablarlo, de oírlo. Pero sí que les hemos metido los dibujos siempre en euskera, Pirritx eta Porrotx... siempre lo han oído y, de hecho, siempre ellos *aita* eta *ama*, o sea, siempre, desde chiquiticos. Yo por ejemplo, me acuerdo cuando [Oier] tenía cinco meses (...) y estuvo en el hospital ingresado, y me acuerdo que le cantaba en euskera y siempre... (...) le cantaba la de *Lxil-ixilik dago* y se acuerda, se acuerda y ¡fíjate que era cuando tenía cinco meses!».

Etxean ikastolako ordenagailu programa, Txirritx, badute eta haurrak horrekin aritzen dira, Susanak kontatzen duenez: «El año pasado sí que me lo pasaron de la ikastola (...), te dan ellos la oportunidad de grabarlo». Haurrei telebista ikustea kontrolatzen diete. Fernandok, ETBn lehen bezala marrazki bizidunak ikusi ezin izatearena aipatuta, honela dio: «... alguna vez sí que me he acordado yo que dices 'jobar, no les puedes poner en la televisión dibujos animados en euskera, que siempre en castellano. No cabe la posibilidad'. Sí cabe la posibilidad si tendríamos Canal Plus que me parece que suelen dar dibujos en euskera en el canal satélite de la Euskal Telebista, pero como antes teníamos y ahora no tenemos, pues no les ponemos». Susanak ikastolatik emandako web orritik marrazki bizidunak euskaraz jaitsi zituen: «... el año pasado que nos pasaron de la ikastola la página ésta que cerraron, había dibujos en euskera para poder descargar. Yo sí que les descargué y lo grabé. Entonces eso sí que tengo».

Etxean haurrak jostetan aritzen dira beren kabuz, jostailuak haurren eskura paratu dituzte. Susanak noiz edo noiz euskaraz jolasean harrapatu du Ilargi: «... está ella jugando y está haciendo que está en la ikastola y está hablando ella sola en euskera».

Susanak eta Fernandok ikastolako ikaskideen arteko harremana aisialdian bultzatzen dute. Ilargi eta Oier lau urteko gela desberdinetan daude eta senar-emazteek bi geletako haurren gurasoekin harremana baitute, beraiek dira bi ikastaldeen familiak biltzen saiatzen direnak: «... procuramos juntarnos y hacer alguna actividad de vez en cuando para juntarlos», dio Susanak. Fernandok bertze guraso-haurrekin antolatzen dituztenak aipatzen ditu: «Nos solemos juntar más de cuarenta (...). El año pasado fuimos a Lantz [inauterietara], fuimos a Lumbier (...), a lo de Sortzen [Euskal Eskola Publikoaren aldeko besta]. Este año hemos ido a Ollo (...). Entonces nos solemos juntar y hemos hecho bastante amistad con los demás padres que nos dicen que no es tan sencillo que la gente se junte, pero la verdad que nosotros nos hemos juntado y de eso hace mucho lo del patio». Izan ere, ikastolako jostalekuan biltzen dira arratsaldero familiak eta haurrak elkarrekin aritzen dira jostetan: «... se lo pasan en grande. Es que cómo disfrutan ellos, entre ellos, cómo se relacionan. O sea que es importantísimo el quedarse después», dio Fernandok.

Familien arteko harremana balioesten du eta bertze gurasoekin harreman ona izatea oso garrantzitsua da bere ustez: «... tienes una relación, tienes una amistad (...) que no sea solamente que vayan a clase, sino que nos relacionemos un poco todos...». Horregatik pena handia ematen dio guraso batzuek bertze gurasoekin harremanik ez izateak: «... se están perdiendo un veinte, treinta o cuarenta por ciento de lo que es la ikastola. Porque no es el hecho de llevarlos solamente, sino que hay más. E igual ni lo saben ellos que hay más. Porque hay gente

que sí, que no tiene relación por el autobús, pero hay otros que llegan, cogen a los niños y se los llevan a su casa. Y es una pena. Igual no pueden, no lo sé, pero es una pena que eso no lo disfruten». Ikastolako jostalekuan gertazen ohi diren familiek elkar ezagutzen dute eta behar izaten delarik haurrak elkarri zaintzen dizkiote: «Nos conocemos todos. Hacen caso a los otros padres porque al final son pues como de tu cuadrilla», aipatzen du Susanak.

Gurasoak biltzen direlarik guraso euskaldunek euskaraz egiten ohi dute beren artean, haurrek aldiz, ez: «... más en castellano», dio Fernandok eta haurrak ondoan dituela, honela segitzen du: «... pero ellos ya saben que la ikastola la tienen que dar en euskera siempre porque si hablan les dan un cromó». Fernandok honela uste du: «El problema está en que allá lo tienen ya muy claro que tienen que hablar, pero fuera no».

Inauterien bestak hurren daude eta Susanak mozarrotzeko asmoa du: «Este año digo 'hemos de disfrazarnos nosotros también'. Ayer me decía la de éste [Oierren maistrak] '¿Y embarazada te vas a disfrazar?'. Y digo 'A ver, ¿dejo la tripa en casa o...?'. Hay que participar igual. O sea, ellos [Ilargik eta Oierrek] se lo merecen igual, esté yo como esté. Es un día que pasamos con ellos bonito».

20. familia

Raquel, Iñaki eta beren bi alabak, Helena (10 urte) eta Leonor (5 urte)

Raquel Iruñean sortu zen eta liburuzaina da. Iñaki Zangozan hazia da eta lantegi batean jarduten du (biak izan ditut berriemaile). Bi alaba dituzte eta neskatikoak dira etxe horretako euskaldun bakarrak. Familia Iruñeko Arrotxapea auzoan bizi da.

Raquel, 1969an jaioa, Iturrama auzoan hazia da. Gurasoak 1960ko hamarkadan Gaztelatik Iruñera etorri ziren ogibide bila. Aita eta haren familia Madrilgoak dira eta amarena Salamancakoa. Bortz anai-arreba dira, Raquel txikiena eta neska bakarra. Ama etxeko lanetan aritu izan da eta aitak igeltsero jardun du urteetan. Bere enpresa eratu zuen eta Raquelen lau anaiek horren segida hartu dute.

Raquel Iturrama auzoko moja ikastetxe batean eskolatu zen. Lau anaiak, ordea, ikastetxe publikoetara igorri zituzten: «... yo creo que fue cosa como de mi madre (...). '¡Pues [Raquel] que vaya a un colegio de monjas!'. Le parecería en su momento que las monjas... Pues esa mentalidad que había en esa época, ¿no? Las monjas, esa educación un poco más refinada, un poco más... También la enseñanza pública no era como ahora, era distinto. Entonces yo creo un poco en ese sentido. Entonces, por eso siempre... te pones a pensar de mayor, cuando ya han pasado las cosas, de repente, dices '¿y por qué yo nunca he ido con mis hermanos?' ¿Y por qué yo he hecho unas cosas y ellos han hecho otras? Y yo creo que es un poco por eso. Tampoco mi madre me ha dicho nunca eso (...), luego te pones a pensar y descubres... ¡Jo! Igual, cosas que ella no pudo hacer. Cosas que ella no pudo hacer porque la vida no le permitió las ha intentado que yo no las dejara atrás y que fuera para adelante con todo (...) que yo no tuviera esas carencias que ella tenía para que yo no tuviera las dudas que ella ha tenido».

Raquel Iturraman hazi zen. 1970eko hamarkadan auzoa oraindik egiteko zegoen: larriak, etxe hutsak, etxe berrien eraikitze lanak... Hirian baina jolasaldi aske eta basak izan zituen txikitan, oroitenez: «... yo he visto construir [Iturrama]. Yo he conocido todo lo que es ahora Iñigo Arista, los cines Iturrama, toda esa calle. Eso era un trigal cuando yo era pequeña (...). Eso para nosotros era una mina (...), ibas a la campa, ibas a la obra (...). Ahora ¡para rato se suben los mocetes a una obra! Primero que no hay dónde subirse y segundo, que vamos todos a la cárcel: el padre, la madre, la niña».

OHO mojen ikastetxean amaitu eta BBB eta UBI Gurutze Plazako Príncipe de Viana Institutuan egin zituen, dena erdaraz. Gero Historia ikasi zuen NUn eta lehen ikasturtean Iñaki ezagutu zuen.

Iñaki 1970ean sortu zen Zangozan. Aita-amak funtzionarioak ziren herrian bertan. Lau anai-arreba dira, hiru mutil, Iñaki hirugarrena, eta neska bakarra, txikiena. Iñaki Zangozan eskolatu zen eta OHO amaituta herrian ez baitzegoen jarraitzerik Tuterara igorri zuten hango institutuan BBB ikas zezan. Kaputxinoen komentuan bizi zen eta Eguberritan, Aste Santuan eta udan baizik ez zen Zangozara itzultzen. UBI Lizarran egin zuen, han ere kaputxinoen etxean bizi zela. Historia, Geografia espezialitatea, ikasi zuen NUn eta Iruñean finkatu zen. Egun lau anaia-arrebak Iruñean bizi dira. Iñakik Zangozatik hurbileko lantegi batean egiten du lan.

Iñakiren ikasketak erdaraz izan dira beti, «... lo que sí en los capuchinos había una sensibilidad hacia el euskera y sí que nos dieron nociones de euskera pero yo no hice mucho caso».

Raquel eta Iñaki 1999an ezkondu ziren. Arrotxapean hartu zuten pisua. Helena 2001ean sortu zen eta Leonor 2006an. Lehen alaba Iturrama auzoko haurtzaindegi batera eraman zuten, erdaraz, oraindik Amaiur Ikastolan bi urteko gelarik ez baitzegoen. Bigarren alaba bai, bi urte zituelarik ikastolara eraman zuten. Raquelek arratsalde egiten baitu lan, ikastolatik ateratzen direlarik Iñaki arduratzen da alabez.

Amaiur Ikastola hautatu izanaren arrazoiez galdeginda, honela azaltzen du Raquelek: «... pesaba bastante el tema que mis padres vivieran cerca». Berak oraindik lanpostu finkoa ez zuenez eta ordutegi desberdinetan aritu behar zuenez aitatxi-amatxik gertu izatea komeni zitzaion: «Entonces necesitábamos algo fijo que fuera cómodo para mis padres, que no supusiera para ellos un desplazamiento. O sea, era más cómodo Iturrama que la Rochapea». Bertzalde, hizkuntzak ikasteari ere garrantzia ematen zioten: «Yo lo que quería es que aprendiesen idiomas», dio Iñakik. Raquelen hitzetan: «Teníamos claro que en Pamplona y en Navarra el tema del bilingüismo, la única forma que había de encararlo era con el tema del euskera porque no hay otra educación que sea tan bilingüe (...), o sea, que realmente... porque por lo demás, yo tampoco conozco en profundidad, pero lo que percibes es que hay profesores que saben de lo suyo y además saben inglés y bueno, dan clases en inglés pero como que el ambiente y la contextualización de esas clases no es en inglés. Entonces, en la ikastola yo entiendo que eso sí que está mucho más contextualizado, por lo menos dentro de la escuela (...). Entonces el tema del bilingüismo nos parecía importante de cara a la educación luego de las crías (...). Y luego, el euskera, porque realmente era algo que nos atraía, o sea, como cultura que tampoco conocíamos pero como algo que reconocíamos un poco como de nuestro entorno y como que podíamos abrazar y que nos gusta, que entendemos que es parte de una cultura que puedes acercarte o puedes obviarla, y en nuestro caso queríamos acercarnos».

Alabak eskolatu artio ez Raquelen familian ez Iñakirenean ez da euskaldunik izan. Raquelen aldetik Helenak eta Leonorrek zazpi lehengusu-lehengusina dituzte, haiek baina zaharragoak guztiak eta erdaraz eskolatuak. Raquelen aldeko familiarekin elkartzen direlarik giroa erdaraz da: «... normalmente solemos comer los fines de semana con mis padres y nos juntamos (...) pero el entorno es castellano de ellas». Iñakiren aldetik sei lehengusu-lehengusina dituzte. Iñakiren arrebaren senarrak euskaraz badaki, bai eta ingelesa ere (ingeles irakaslea da, gainera), eta bi seme-alabak euskaraz eskolatuta dituzte.

Raquelek dio alabendako erosten dituzten materialak euskaraz ere izan daitezten saiatzen direla: «Procuramos que lea en euskera también. O a la hora de comprarle juegos, pues puzzles o juegos de letras cuando empiezan a leer y a escribir, sí que le procuramos introducir el tema del euskera». Ez Raquel ez Iñaki inoiz ez dira euskara ikasten saiatu. Raquelek buruan izan du baina «... el euskera yo lo desconozco totalmente (...) me requiere un esfuerzo que no estoy dispuesta a hacer». Duela hiru urte liburuzain izateko oposizioak gainditu zituen eta ikasi behar izateagatik familiari denbora kendu eta Iñakiri alaben ardura har zezala eskatzea oso gogorra egin zitzaion.

Raquelek euskara ikastera inoiz animatu ez izanaz hausnarketa hau egiten du: «Yo les he dado el camino a mis hijas y, bueno, yo creo que en ese sentido yo les he facilitado algo que en nuestros tiempos no había y que ahora sí que se lo puedes dar, porque [Helena] con diez años aparte de que pueda tener que limar todavía muchas cosas, pero bueno, tiene dos lenguas muy encarriladas (...) quiero decir que '¿yo no he aportado nada?' Yo creo que he aportado en la medida que he podido, siendo honesta. ¿Que podía haber hecho más? Yo creo que siempre podemos hacer más en casi todos los ámbitos, pero es que la vida da para lo que da (...). Yo veo a padres que van a clase [euskara ikasteko], que saben más, pero también porque han tenido más tradición en casa y eso, quieras que no, pues es un poco partir con un poco de ventaja, entre comillas, pero bueno, por las circunstancias (...). Sí que lo tengo ahí un poco ahí como un run run, como algo pendiente, pero tampoco... mmm lo echo para atrás, sinceramente, no, no, me acobardo».

Alabek hizkuntzak jakitea balioesten du eta honela adierazten dio Helenari: «'[Helena], ¡no sabes la suerte que tienes...!' (...) y [Helena] se me queda como diciendo 'mi madre dice unas cosas más raras...'. Y le digo '¿es que no sabes el esfuerzo que es empezar a aprender euskera!'». Euskaraz egiteko aukera dagoelarik ere alabak bultzatzen ditu erabil dezaten: «Son pequeñas cosas que igual también lo hago por las crías para que vean que realmente es importante y para mí es importante (...). Porque [Helena] no entiende cuando le digo '¡jola, [Helena] hablas en euskera con Paula, con [Raul, Iñakiren arrebaren senarra], con la atezaina... es que tienes...' Y ella, normal, tiene diez años, y como no le ha costado esfuerzo tampoco, lo percibe como algo...».

Neskatikoak beren artean erdaraz aritzen dira: «... el euskera no les sale, les cuesta un poco más (...). Ellas hablan en castellano, pero hay muchas veces que están jugando y juegan en euskera. Las oyes y están en euskera o... A [Leonor] por ejemplo, le encanta: 'mamá, yo soy Ixone y estoy en la ikastola y estoy haciendo fotocopias (...). Y cuando eso hablan en euskera». Raquelen ustez, bere alabek etxean euskaraz jostetan ari direlarik bakarrik egiten dute, «... como parte del juego». Bi neskatikoek, Helenak bereziki, euskara maite dutela dio amak: «... les gusta el euskera, o que lo tienen tan interiorizado como una lengua... es que no sé cómo explicarte, o sea, que para ellas es normal (...). Así como ves a críos que no les gusta o que no la hablan o... no sé por qué porque ya te digo que en casa no..., entonces ellas, aunque no la hablamos nosotros, para ellas es algo normal y les gusta (...) y en casa juegan y a veces eso 'sí, en euskera. No [Leonor], habla en euskera tata que no estás hablando en euskera, que estás hablando en castellano' o lo que sea. Y tienen facilidad y, aparte de facilidad, lo tienen como interiorizado o como bien, para ellas es algo normal».

Raquelek nahi izan duena da bere alabei «... presentarles un instrumento que creo que les va a favorecer a lo largo de los años de formación que tienen, les va a ayudar. Y luego como lengua, como lengua y como instrumento de cultura del entorno en el que viven (...). Sí que me parece importante y es en el sitio donde nos movemos y es una cultura que según voy conociendo, porque hay cosas que no conozco, pues me gusta, aprecio y me parece que es una mina». Dena dela, euskararen erabilera politikoa aipatzen du: «Lo que pasa es que, ya sabes que, a veces, sobre todo aquí, está como un poco... es un tira y afloja el euskera, a veces las implicaciones que tiene o las implicaciones que le dan. Yo no se las doy. Yo creo que es un instrumento y una fuente de cultura y que alguien lo tome como algo suyo para apropiárselo en detrimento de los otros y para lanzarlo contra los otros (...). Y lo que decimos, que la gente se apropie y lo instrumentalice y lo lance contra... 'no, es que tú eres o no eres, o has sido o no has sido...'. A ver, ¡qué! ¿eres mejor que yo?, ¿eres peor que yo?, ¿o soy peor que tú?, ¿por qué? ¿porque tuve una oportunidad?, ¿o porque no la tuve? ¿porque mi padre vino de fuera o porque mi madre no era de aquí?».

Raquelek bere alabekin gauza berriak (musikari edo dantzatzeko moduei loturik) ikasten dituela dio eta «... sobre todo con el tema del euskera y eso sí me parece un hallazgo». Bere alaben ikaste prozesuarekin interesa erakusten du: «Sí, es la aportación, lo que puedo aportar sin el esfuerzo que no quiero poner (...) es una forma también de hacerles ver (...) que yo no lo hablo, que yo no lo tengo, pero que me parece muy importante y me parece muy enriquecedor».

Iñakik honela azaltzen du bere itxarobidea alaben euskara ikaste prozesuaz: «Sí me gustaría que hablasen euskera, lo que sí lo veo muy difícil porque no... entre ellas mismas no... Y yo creo que la lengua que van a usar es el castellano y no dan ese paso de hablar en euskera. En casa que son ellas dos las que saben, hay días que juegan en castellano y hay otros días que juegan en euskera. Y lo que sí espero es que les valga, o como algo que tengan ellas que yo no tengo, por ejemplo, que sí me hubiese gustado y no he tenido esa posibilidad».

Iñakik dio Helena txikia zelarik bai joaten zirela euskarazko jardueretara (ipuin kontakete-tara, antzerkita...), baina Leonor sortzearekin utzi ziotela joateari Raquel hasi baitzen arratsaldez lanean eta Zangozan bigarren etxea erosita, asteburuetan ere herrira joaten hasi baitziren. Orain maiz izaten dira han, udan batik bat, han ematen dute abuztu osoa. Zangozan Iñakiren lagun taldean inork ez daki euskaraz baina batzuek hango ikastolara eramaten dituzte seme-alabak. Halere, haurrek erdaraz egiten dute. Iñakiren koinatuak euskaraz egiten die Helena eta Leonorri eta alaba zaharrenak euskaraz erantzuten dio, baina txikiari «... le da más vergüenza, o sea, le cuesta más (...) se nota que le entiende pero que no le da la gana de contestarle», uste du Iñakik.



10. BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, I. (2001). Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunari buruzko Irizpena. *Eleria Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria* 8, 65-91.
- _____(2003). *Diversidad y convivencia lingüística. Dimensión europea, nacional y claves jurídicas para la normalización del Euskara*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- AIZPURUA, J. & ORTIZ DE LANDALUZE, A. (2012). V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 84, 59-88.
- ALDASORO, E. (2001). La evolución de la enseñanza en euskera en Navarra: una perspectiva pedagógica. *RIEV* 46, 2, 593-624.
- _____(2012). Nafarroako hizkuntza ikasereduen bilakaera. Haur eta Lehen Hezkuntza, 1987–2013. Dokumentu argitaragabea.
- ALEMAN, S. (2008). Berdetik horira. Sarrera-hitzaldia. *Euskera* 53, I, 15-33.
- _____(2010). Nafarroako helduen euskalduntze datuak, 1990-2010. Dokumentu argitaragabea.
- ALLI, J. C. (2001). Perfiles institucionales de la lengua vasca en la Comunidad Foral de Navarra. *Euskera* 46, 2 (2. aldia) (separata), 971-1077.
- ALLI, J. C. & GORTARI, J. (2011). *La transición política en Navarra (1979-1982) (2. lib.)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- ALTAFFAYLLA (1986/2004). *Navarra 1936. De la Esperanza al Terror* (8. argit.) Tafalla: Altaffaylla.
- ALTUNA, O. et al. (2012). Hizkuntzen Kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaizta nagusiak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 84, 31-58.
- ÁLVAREZ ENPARANTZA, J. L. *Txillardegi* (1990). Hizkuntz lurraldetasuna Belgikan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 2, 49-66.
- ANAUT, D. (2000). Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeko dekretua. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 36, 27-33.
- _____(2010). Argiak eta itzalak euskararen lurraldean. Euskararen etxean, gazi gozo. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 74, 17-42.
- ANDERSON, B. (1983/1991). *Imagined Communities. Reflections on the Origin and Spread of Nationalism*. London, New York: Verso.
- ANDRÉS-GALLEGO, J. (2003). *Navarra, cien años de historia. Siglo XX*. Pamplona: Diario de Navarra.
- APAOLAZA, Tx. (1993). *Lengua, etnicidad y nacionalismo*. Cuadernos de Antropología 13. Barcelona: Anthropos.
- _____(1998). Una metáfora. *Cultures revista asturiana de cultura* 8, 37-53.
- APAT-ECHEBARNE, A.: ikus IRIGARAY, A.
- APPEL, R. & MUYSKEN, P. (1987/1990). *Language contact and bilingualism*. London, New York, Melbourne, Auckland: Edward Arnold.

- ARAKO: ikus TESTAUT, C.
- ARBURUA, R. (2005). *1940-1960. Bortzirietako gaztiak*. Zarautz: Alberdania eta Kulturkari.
- ARRIZURIETA, I. (2012ko maiatza). "Ronpitu zait". *Karrika* 159.
- ARRUTI, I. (1997). Euskararen familia bidezko jarraipena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 22/23, 69-110.
- ARTOLA, K. & TELLABIDE, J. (1990). Euskararen muga 1980. urtean. *FLV* 56, 247-260.
- AZCONA, J. (1984). *Etnia y nacionalismo vasco. Una aproximación desde la Antropología*. Barcelona: Anthropolos.
- (zuz.) (1985). *Límites geográfico-sociales del euskera en Navarra*. Txosten argitaragabea.
- AZURMENDI, M. J., BACHOC, E. & ZABALETA, F. (2001). Reversing Language Shift: The Case of Basque. In Fishman, J. A. (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21 Century Perspective* (234.-259. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- BAKHTIN, M. (1981). *The Dialogic Imagination: Four Essays*. M. Holquist (arg.). Austin: University of Texas Press.
- (1986). *Speech genres and others late essays*. Austin: University of Texas Press.
- BARAIBAR, A. & SÁNCHEZ-PRIETO, J. M^a (1999). Las ideas-fuerza de la Transición. II. La controversia Navarra-Euskadi. In Ramírez Sádaba, J. L. (zuz.) et al., *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)* (167.-265. or.). Pamplona: Gobierno de Navarra.
- BARANDIARAN, A. (2003). Euskararen tratamendua Sanzen garaian (1999-2002). *Jakin* 135, 21-48.
- BARRON-HAUWAERT, S. (2004). *Language Strategies for Bilingual Families. The One-Parent-One-Language Approach*. Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- BAYLEY, R. & SCHECTER, S. R. (arg.) (2003). *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies*. Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- BAZTAN IKASTOLA (1995). *Baztango Ikastola. 25 urteurrena 1970/1995*. Iturriak Bilduma 5. Ikastolen Elkartea eta Baztan Ikastola.
- BAZTANGO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA (1999). Conocimiento de euskara en Baztan. Análisis del Censo de Población 1996. Txosten argitaragabea.
- BAZTARRIKA, P. (2010). The evolution of the Basque revival. In Council of Europe, *Minority language protection in Europe: into a new decade. Regional or Minority Languages* 8 (141.-153. or.). Strasbourg: Council of Europe.
- BEHLING, G. (1996). La transmission de la langue et de la culture occitanes. Deux études sur les motivations et les contradictions de la transmission culturelle dans la région Languedoc-Roussillon. *Lengas, Revue de Sociolinguistique* 41, 7-93.
- BENTON, R. & BENTON, N. (2001). RLS in Aotearoa/New Zealand 1989-1999. In Fishman, J. A. (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21 Century Perspective* (423.-450. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- BERNÁRDEZ, E. (2008). *El lenguaje como cultura*. Madrid: Alianza.
- BIDADOR, J. (2001). *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920): testu antologia (I)*. Iruña: Iruñeko Udala.
- (2003). *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1930-1936): testu antologia (II)*. Iruña: Iruñeko Udala.
- BLANCHET, PH. (2000). *La linguistique de terrain. Méthode et théorie. Una approche ethno-sociolinguistique*. Rennes: Presses Universitaires de Rennes.
- BLOOMFIELD, L. (1933/1984). *Language*. Chicago: The University of Chicago Press.
- BONAPARTE, L. L. (1863). Carte de sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euskara et sa division en dialectes, sous-dialectes et variétés. Londres.
- BONNEWITZ, P. (2002). *Pierre Bourdieu, vie, œuvres, concepts*. Paris: Ellipses.
- BOTT, E. (1957/1990). *Familia y red social. Roles, normas y relaciones externas en las familias urbanas corrientes*. Madrid: Taurus.
- BOURDIEU, P. (1982/1989). *Ce que parler veut dire. L'économie des échanges linguistiques*. France: Fayard.
- BOURDIEU, P., CHAMBOREDON, J.C. & PASSERON, J.C. (1968/1983). *Le métier de sociologue* (4. argit.). Berlin, New York, Paris: Mouton.
- BOXER, D. (2002). *Applying Sociolinguistics. Domains and face-to-face interaction*. Amsterdam, Philadelphia: John Benjamins Publishing Company.
- BREZIGAR, B. (2001-I2-I5). Sarean: <www.eurolang.net>

- BUCHOLTZ, M. (1999). "Why be normal?": Language and identity practices in a community of nerd girls. *Language in Society* 28, 2, 203-223.
- BUCHOLTZ, M. & HALL, K. (2004). Language and identity. In Duranti, A. (arg.), *Companion to Linguistic Anthropology* (369.-94. or.). Oxford: Blackwell.
- BURKE, P. (1980/1987). *Sociología e historia*. Madrid: Alianza.
- _____(1993/1996). *Hablar y callar. Funciones sociales del lenguaje a través de la historia*. Barcelona: Gedisa.
- _____(2004/2006). *Lenguas y comunidades en la Europa moderna*. Madrid: Akal.
- BUTLER, J. P. (1990). *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. New York: Routledge.
- BUXÓ, M^a J. (1983). *Antropología Lingüística*. Cuadernos de Antropología 3. Barcelona: Anthropos.
- BUYLE, D. (2000). The organisation of the Brussels-Capital Region. In Deprez, K. & Du Plessis, Th. (arg.). *Multilingualism and Government. Belgium. Luxembourg. Switzerland. Former Yugoslavia. South Africa* (44.-51. or.). Pretoria: Van Schaik.
- CAMINO, I. (arg.) (1992). *Pablo Fermin Irigarai Larreko. Lekukotasuna*. Donostia: Sendoa.
- _____(1997). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- _____(2003). *Hego-Nafarrera*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- CAMIÓN, A. (1907). Segunda defensa del nombre antiguo, castizo y legítimo de la lengua de los Baskos, contra el soñado euzkera. *RIEV* I, 673-98.
- CARO, J. (1941). Retroceso del vascuence. *Atlantis* 16, 35-62.
- _____(1945/1990). *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. San Sebastián: Txertoa.
- _____(1965). *El Carnaval (Análisis histórico-cultural)*. Madrid: Taurus.
- _____(1971/1995). *Los vascos*. Madrid: Istmo.
- _____(1986). *De la vida rural vasca*. Obras completas vascas de Julio Caro Baroja - IV (3. argit.) San Sebastián: Txertoa.
- CARRASCO, S. (2001). La llengua en les relacions interculturals a l'escola. *Articles de Didàctica de la Llengua i de la Literatura* 23. Monografia: *Llengües, ètnies i cultures a l'ensenyament* (29.-40. or.). Barcelona: Graó.
- CASPISTEGUI, F. J. & GARDE, M^a L. (1999). Las ideas-fuerza de la Transición. I. Navarra ¿Reforma o ruptura?. In Ramírez Sádaba, J. L. (zuz.) et al., *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)* (77.-165. or.). Pamplona: Gobierno de Navarra.
- CHAMBERS, J. K. (1995/2003). *Sociolinguistic Theory* (2. argit.). Oxford, New York: Blackwell Publishers.
- CHRISP, S. (2005). Māori intergenerational language transmission. *International Journal of Sociology of Language* 172, 149-181.
- CHUECA, J. (1999). *El nacionalismo en Navarra (1931-1936)*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- CIXOUS, H. (1986). *Entre l'Écriture*. Paris: Des femmes.
- COBREROS, E. (1989). *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*. Oñati: IVAP.
- CODÓ, E. (2008). Interviews and Questionnaires. In Wei, L. & Moyer, M. G. (arg.), *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism* (158.-176. or.). USA, UK, Australia: Blackwell Publishing.
- COLEGIO NACIONAL MIXTO COMARCAL DE ELIZONDO (1979a). Encuesta realizada entre los alumnos de los cursos 5º a 8º de E.G.B. del Colegio Nacional Mixto Comarcal de Elizondo, en Abril de 1979, en relación con el euskera. Dokumentu argitaragabea.
- _____(1979b). Encuesta realizada por los alumnos de los cursos 5º a 8º de E.G.B. del Colegio Nacional Mixto Comarcal de Elizondo entre sus padres, el 9 de Mayo de 1979. Dokumentu argitaragabea.
- COOPER, R. L. (1989). *Language Planning and Social Change*. Cambridge: Cambridge University Press.
- CORCUERA, J. (1979). *Orígenes, ideología y organización del nacionalismo vasco (1876-1904)*. Madrid: Siglo XXI.
- COULMAS, F. (arg.) (1997/2000). *The Handbook of Sociolinguistics*. Oxford: Blackwell Publishers.
- CRYSTAL, D. (2000/2001). *La muerte de las lenguas*. Madrid: Cambridge University Press.
- _____(2004/2007). *Hizkuntzaren iraultza*. Donostia: Erein.
- DAVIES, B. (2005). Communities of practice: Legitimacy not choice. *Journal of Sociolinguistics* 9, 4, 557-581.
- DE ROSELLÓ, C.; GALINDO, M. & VILA, F. X. (2002). Algunes consideracions sobre l'adequació del terme *llengua materna*. *Llengua i Ús. Revista tècnica de política lingüística* 24, 94-101.
- DEL VALLE, T. (1988). *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.

- _____(1997). La memoria del cuerpo. *Arenal* 4/1, 59-74.
- DENISON, N. (1977). Language death or language suicide?. *International Journal of the Sociology of Language* 12, 13-22.
- DIPUTACIÓN FORAL DE NAVARRA (1981). *Legislación de Navarra. Diccionario. Tomo II (1 enero 1969 a 31 diciembre 1978)*. Pamplona: Aranzadi.
- _____(1982). *Situación actual y proyecto de escolarización en Navarra en los niveles de Preescolar y Educación General Básica*. Navarra: Excma. Diputación Foral de Navarra. Dirección de Educación.
- DOIKE ESQUARA TALDEA (2005). *Baztango etxeen telefono gida*. Baztan.
- DORIAN, N. C. (1980). Language shift in community and individual: the phenomenon of the laggard semi-speaker. *International Journal of the Sociology of Language* 25, 85-94.
- _____(1981). *Language Death: The Life Cycle of a Scottish Gaelic Dialect*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- DURANTI, A. (1997). *Linguistic anthropology*. Cambridge: Cambridge University Press.
- ECHAIDE, A. M^a (1966). Regresión del vascuence en el valle de Esteribar (Navarra). In Maluquer de Motes, J. (koord.), *Problemas de la prehistoria y de la etnología vascas*. IV Symposium de Prehistoria Peninsular (257.-259. or.). Pamplona: Diputación Foral de Navarra.
- _____(1968). *Castellano y vasco en el habla de Orio. Estudio sobre lengua tradicional e importada*. Pamplona: Diputación Foral de Navarra. Institución Príncipe de Viana.
- ECHEGARAY, B. (1933). La pérdida del euzkera en Navarra. *Vida Vasca* 10, III.
- ECKERT, P & MACCONNELL-GINET, S. (1999). New generalizations and explanations in language and gender research. *Language in Society* 28, 2, 185-201.
- ECO, U. (1977/1994). *Cómo se hace una tesis. Técnicas y procedimientos de investigación, estudio y escritura*. Barcelona: Gedisa.
- ELGOIBAR, E.; ZUBIZARRETA, B. & GAMINDE, I. (1987). *Euskararen galera Nafarroan (1587-1984)*. Iruñea: Pamiela.
- ELORTZA, X.; MUNGIA, A.; GOIKOETXEA, N. & PIKABEA, I. (2009). Euskararen transmisioa familia bidez indartzeko tailer pilotua Buruntzaldean. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 71, 165-176.
- ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO (1986). San Sebastián: Auñamendi.
- ENÉRIZ, F. J. (1987). El euskera en la Administración Local de Navarra. In Razquin, M. M^a & Larumbe, P. M^a (zuz.), *La Administración Local de Navarra* (307.-328. or.). Pamplona: Aranzadi.
- ERIZE, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863-1936. Soziolinguistika historikoa eta bizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- _____(2001). El discurso contrario a la “normalización” de la lengua vasca en Navarra (1997-2002). *RIEV* 46, 2, 661-682.
- _____(2003). Euskararen “normalizazioaren” aurkako diskurtsoa eta diskurtso euskaltzalea Nafarroan. *Eleria Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria* II, 19-26.
- ESARTE, P. (2006). *Como vivían los baztaneses en el siglo XVI*. Navarra: Baztango Udala, Nabarralde.
- ESNAOLA, I. (1999). *Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- ESTEBAN, M. L. (2004). *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Barcelona: Bellaterra.
- ESTORNÉS, B. (1960). Área lingüística. In zenbaiten artean, *Geografía histórica de la lengua vasca*, I (9.-29. or.). San Sebastián: Auñamendi.
- ESTORNÉS, I. (1983). *La Sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- ESTORNÉS, M. (1963). Los últimos euskaldunes de Izaba (Roncal). *BAP* 19, 93-94.
- ETXEPARE, B. (1545/1987). *Linguae Vasconum Primitiæ* (Edizio kritikoa Patxi Altunak paratua). Bilbao: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA (1977). *El libro blanco del euskera*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____(1978). *Euskararen liburu zuria*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____(1979). *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____(1983). Euskaltzaindiaren adierazpena. *Euskera* 28, I, 137-138.

- (2001). Euskararen egoera Nafarroan: Euskaltzaindiaren adierazpena. *Euskera* 46, I (2. aldia) (separata), 365-366.
- EUSKARABIDEA & NAFARROAKO GOBERNUA (2006). Estudio sociolingüístico de Pamplona y su comarca. Sarean: <http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/pamplona_y_su_comarca_2006.pdf>
- EUSKO JAURLARITZA (1999). *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2005a). *Euskararen erabilera eta transmisioa: Olabide ikastolako (Vitoria-Gasteiz) ikasle obien adibidea: 2004ko iraila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2005b). *Euskararen erabilera eta transmisioa: Santo Tomas Lizeoko ikasle obien adibidea: 2005eko otsaila*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2008a). *EAEko euskararen belaunez belauneko transmisioa. 2001*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2008b). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2010). *Soziolinguistika hiztegia. Euskal Soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2013). *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA, ISEI/IVEI eta SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2013). Arrue proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. Sarean: <http://www.irekia.euskadi.net/assets/a_documents/2802/Arrue_Prentsaurrekoa_eus.pdf?1359118341>
- FAGOAGA, B. (1962). Datos para la geografía histórica del euskera en Navarra. *Euskera* 7, 205-213.
- FASOLD, R. (1984/1995). *The Sociolinguistics of Society*. Oxford, New York: Blackwell Publishers.
- FELLIN, L. (2002). Language ideologies, language socialization and language revival in an Italian Alpine community. *Texas Linguistic Forum* 45, 46-57. Sarean: <<http://studentorgs.utexas.edu/salsa/proceedings/2002/papers/fellin.pdf>>
- FERIRI: ikus IRIGARAY, P. F.
- FERNÁNDEZ, I. (1994). *Oroimenaren hitza. Ikastolen Historia (1960-1975)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- FISHMAN, J. A. (1964). Language maintenance and language shift as fields of inquiry. *Linguistics* 9, 32-70.
- (1965/2000). Who speaks what language to whom and when?. In Wei, L. (arg.), *The Bilingualism Reader* (89.-106. or.). London, New York, Holt: Routledge.
- (1972). *The Sociology of Language. An Interdisciplinary Social Science Approach to Language in Society*. United States of America: Newbury House Publishers, inc.
- (1974/1984). Conservación y desplazamiento del idioma como campo de investigación (reexamen). In Garvin, P.L. & Lastra de Suárez, Y. (arg.), *Antología de estudios de etnolingüística y sociolingüística* (375.-423. or.). México: Universidad Nacional Autónoma de México.
- (1990). Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. In Eusko Jaurlaritza, *Euskal Eskola Publikoaren lehen kongresua / Primer congreso de la escuela Pública Vasca*, I. lib. Ponentziak eta komunikazioak (181.-188. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (1994). On the limits of ethnolinguistic democracy. In Skutnabb-Kangas, T. & Phillipson, R. (arg.), *Linguistic Human Rights. Overcoming Linguistic Discrimination* (49.-61. or.). Berlin: Mouton de Gruyter.
- (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Philadelphia, Adelaide: Multilingual Matters. st
- (arg.) (2001). *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21 Century Perspective*. Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- (2002). Commentary: What a Difference 40 Years Make!. *Journal of Linguistic Anthropology* 12, 2, 144-149.
- FLORISTÁN, A. (1995). *Geografía de Navarra* (3. lib.). Pamplona: Diario de Navarra.
- FRIEDMAN, D. A. (2012). Language Socialization and Language Revitalization. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (631.-647. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.

- GAL, S. (1978a). Peasant men can't get wives: language change and sex roles in a bilingual community. *Language in Society* 7, 1, 1-16.
- _____(1978b). Variation and Change in Patterns of Speaking: Language Shift in Austria. In Sankoff, D. (arg.), *Linguistic Variation. Models and Methods* (227.-238. or.). New York: Academic Press.
- _____(1979). *Language Shift: Social Determinants of Linguistic Change in Bilingual Austria*. New York: Academic Press.
- GALINDO, M. & VILA, X. (2009ko negua). Els factors explicatius dels usos lingüístics informals entre l'alumnat català: llengua inicial, xarxes socials, competència i llengua vehicular d'ensenyament. *Noves SL Revista de Sociolingüística*. Sarean: <http://www6.gencat.cat/llengat/noves/hm09hivern/docs/Galindo_vila.pdf>
- GARCÍA-SANZ, A. (zuz.) (2002). *La Comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia*. Pamplona: Mancomunidad de la Comarca de Pamplona.
- GARCÍA-SANZ, A. et al. (1998). *Diccionario biográfico de los diputados forales de Navarra (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- GARFINKEL, H. (1967). *Studies in ethnomethodology*. Englewood Cliffs, NJ: Prentice-Hall.
- GARRETT, P. B. (2012). Language Socialization and Language Shift. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (515.-535. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- GARRETT, P. B. & BAQUEDANO-LÓPEZ, P. (2002). Language Socialization: Reproduction and Continuity, Transformation and Change. *Annual Review of Anthropology* 31, 339-361.
- GARVIN, P. L. & LASTRA DE SUÁREZ, Y. (1974/1984). *Antología de estudios de etnolingüística y sociolingüística. México: Universidad Nacional Autónoma de México*.
- GIDDENS, A. (1979/1990). *Central Problems in Social Theory. Action, Structure and Contradiction in Social Analysis*. Hong Kong: MacMillan Education LTD.
- GOFFMAN, E. (1959). *The presentation of self in everyday life*. New York: Doubleday Garden City.
- GONZÁLEZ OLLÉ, F. (1970/1972). *Vasque y romance en la historia lingüística de Navarra*. Pamplona: Cofradía Gastronómica del Pimiento Seco.
- GORTARI, J. (1995). *La transición política en Navarra: 1976-1979* (I. lib.). Pamplona: Gobierno de Navarra.
- GRAN ENCICLOPEDIA NAVARRA (1990) (II liburuki). Pamplona: Caja de Ahorros de Navarra.
- GROS, M. (2007). *Recuperación del Euskera en Navarra*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- _____(2009). *El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). Una apuesta por la diversidad lingüística*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- HARRIS, M. (1981/2004). *Introducción a la antropología general* (7. argit.). Madrid: Alianza Editorial.
- HARDING, E. & RILEY, Ph. (1986/1998). *La familia bilingüe. Guía para padres*. Madrid: Cambridge University Press.
- HE, A. W. (1995). Co-constructing institutional identities: The case of student counselees. *Research on Language and Social Interaction* 28, 3, 213-31.
- _____(2012). Heritage Language Socialization. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (587.-609. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- HELLER, M. (2008). Doing Ethnography. In Wei, L. & Moyer, M. G. (arg.), *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism* (249.-262. or.). USA, UK, Australia: Blackwell Publishing.
- HERBERG, M. (1991). *La formación de la nación vasca*. Madrid: Arias Montano.
- HERNÁNDEZ, J. M. (2001). Euskararen transmisioa gaur: ikerketa tresnak eta estrategiak. *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 38, 107-118.
- _____(2007). *Euskara, comunidad e identidad. Elementos de transmisión, elementos de transgresión*. Madrid: Ministerio de Cultura.
- _____(2008). Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik. *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 69, 27-42.
- HORNBERGER, N. H. & KING, K. A. (2001). Reversing Quechua Language Shift in South America. In Fishman, J. A. (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective* (166.-194. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.

- HUA, Z. & DAVID, A. (2008). Study Design: Cross-sectional, Longitudinal, Case, and Group. In Wei, L. & Moyer, M. G. (arg.), *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism* (88.-107. or). USA, UK, Australia: Blackwell Publishing.
- HUDSON, R. A. (1980/1982). *La sociolingüística*. Barcelona: Anagrama.
- HUMBOLDT, W. (1889/1998). *Los vascos*. Roger: Donostia.
- HYMES, D. (1964/1993). Una nueva perspectiva para la antropología lingüística. In Velasco, H. M. (biltz.), *Lecturas de antropología social y cultural. La cultura y las culturas* (217.-233. or.). Madrid: UNED.
- _____(1972). Models of the interaction of language and social life. In Gumperz, J. & Hymes, D. (arg.), *Directions in Sociolinguistics: The Ethnography of Communication* (35.-71. or.). New York: Holt, Reinhart & Winston.
- IBARRA, O. (2011). *Nafar euskaldun gazteen abozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- INE (2011). Sarean: <<http://www.ine.es>>
- INTXAUSTI, J. (1990). *Euskara, euskaldunon bizkuntza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- IÑIGO, A. (2001). Euskararen egungo egoera Nafarroan. *Euskera* 46, I (2. aldia) (separata), 337-345.
- _____(2011) *Perpetua Saraguetia: eskuidatziak eta biztegia*. Nafarroa: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- IÑIGO, A. & SALABERRI, P. (2005). *Jose Mari Satrustegi. Nafarroako euskararen ikurra. Símbolo del euskera en Navarra*. Iruña: Euskara Kultur Elkargoa.
- IRAOLA, J. (2002). *Familia bidezko jarraipena. Pasaiako udalerriko azterketa. Leben zatia: ikerketa kokatzeko oinarriak. Bigarren zatia: Pasaiako udalerriko azterketa*. (2 lib.). Txosten argitaragabea.
- _____(2004). Familia barruko hizkuntza transmisioa soziolinguistikoki konplexuak eta anitzak diren hizkuntza komunitateetan: Pasaiako udalerrira adibide. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 53, 151-163.
- IRIARTE, I. (2000). El legado de los euskaros. El discurso sobre el euskara en el suplemento en vascuence de Príncipe de Viana. In Jimeno Aranguren, R. et al., *El euskera en tiempo de los euskaros* (317.-338. or.). Pamplona: Gobierno de Navarra, Ateneo Navarro.
- IRIBARREN, J. M^a (1984). *Vocabulario navarro* (2. argit. Ricardo Ollaquindiak apailatua eta zabaldua). Pamplona: Comunidad Foral de Navarra, Departamento de Educación y Cultura, Institución Príncipe de Viana.
- IRIGARAI, J. A. (1973). *Euskera eta Nafarroa*. Pamplona: Aranzadi.
- _____(1977). Aspectos de antropología socio-cultural en la evolución diacrónica del euskara. *Munibe* 3/4, 275-303.
- _____(1988). *Euskara bizitzaren kenkan. Orekaren mintzoa*. Iruñea: Pamiela.
- IRIGARAY, A. (1925). El vascuence en Navarra. *Navarra* I, 51.
- _____(1930). El vascuence en Navarra. *Vida Vasca* 7, 233.
- _____(1935). Documentos para la Geografía lingüística de Navarra. *RIEV* 26, 4, 601-623.
- _____(1956). Noticia del estado lingüístico de Navarra en 1935. *Euskera* I, 41-46.
- _____(1974). *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*. Pamplona: Ediciones y Libros.
- IRIGARAY, J. A.: ikus IRIGARAI, J. A.
- IRIGARAY, P. F. (1910-2-26). Del Baztán, *La Voz de Navarra*, 7896. zk., 1-2.
- _____(1916-8-12). Baztandarra-ri. *Napartarra*, 12. In Camino, I. (arg.) (1992). *Pablo Fermin Irigarai Larreko. Lekukotasuna*. Donostia: Senda.
- _____(1924-6-27). Por el euskera, *La Voz de Navarra*, 408. zk., 4.
- IRIZAR, P. (1973a). Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico. *BAP* 29, 3-78.
- _____(1973b). Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo. *ASJU* 7, I, 3-36.
- _____(1981). *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. (2 lib.). Gipuzkoa: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- _____(1997). *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Iruñea: Euskaltzaindia.
- IRULAR: ikus IRIGARAY, A.
- IRUNEKO UDALA (2012). Pirámides de población inmigrante de Pamplona y barrios. Septiembre 2012. Sarean: <<http://www.pamplona.es/verdocumento/verdocumento.aspx?iddoc=247516>>

- IRVINE, J. T. & GAL, S. (2000). Language Ideology and Linguistic Differentiation. In Kroskrity, P.V. (arg.). *Regimes of Language: ideologies, politics & identities* (35.–83. or.). Oxford: James Currey.
- IZETA, M. (1996). *Baztango Hiztegia*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- _____(1999). *Baztango kontuak*. Bilbo: Nafarroako Gobernua eta Labayru Ikastegia.
- IZU, M. J. (2009). *Derecho Parlamentario de Navarra*. Pamplona: Parlamento de Navarra / Nafarroako Parlamentua.
- _____(2013). *El régimen lingüístico de la Comunidad Foral de Navarra*. Donostia: Fundación para el Estudio del Derecho Histórico y Autónomo de Vasconia / Euskal Herriko Zuzenbide Historiko eta Autonomikoa Aztertzeke Fundazioa.
- JAUREGI, P. (2009). Oinarrizko taldeak eta euskara: bihotzaren arrazoiak. Udaltop euskara-zerbitzuen I. topaketetan aurkeztutakoa. Lasarte-Oria. Txosten argitaragabea.
- JAUREGI, P. & SUBERBIOLA, P. (2009). Hizkuntza aldaketa bikoteen harremanean: ikuspegi teorikoa eta ikerketaren ondorioak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 71, 177-191.
- JIMENO ARANGUREN, R. et al. (2000). *El euskera en tiempo de los éuskaros*. Pamplona: Gobierno de Navarra, Ateneo Navarro.
- JIMENO JURÍO, J. M^a (1995). *Historia de Pamplona y de sus lenguas*. Tafalla: Txalaparta.
- _____(1996). La Diputación de Navarra, el Euskera y Euskaltzaindia (1949-1952). *FLV* 73, 509-515.
- _____(1997). *Navarra. Historia del Euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- _____(2006). *Navarra. Historia del Euskera. I. Personalidad y lengua*. Navarra: Pamiela, Udalbide eta Euskara Kultur Elkargoa.
- JIMENO JURÍO, J. M^a & SALABERRI, P. (2006). *Toponimia navarra VIII. Cuenca de Pamplona. Pamplona/Iruña*. Navarra: Pamiela, Udalbide eta Euskara Kultur Elkargoa.
- JONES, H. M. (1995). Mother Tongue Welsh Speakers and Welsh Speaking Couples. Sarean:<<http://www.byig-wlb.org.uk/English/publications/Publications/1394.pdf>>
- _____(2008). The Changing Social Context of Welsh: A Review of Statistical Trends. *The International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 11. lib., 5, 541-557.
- JONES, K. & MORRIS, D. (2009). Issues of gender and parents' language values in the minority languages socialisation of Young children in Wales. *International Journal of the Sociology of Language* 195, 117-139.
- JUNYENT, C. (1992/1997). *Vida i mort de les llengües* (4. argit.). Barcelona: Empúries.
- KASARES, P. (2004). *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian: zer eskubidez ari garen eta zertan diren*. Giza Eskubideei Buruzko Deustu Koadernoak, 31. zk. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- _____(2007). Euskara Nafarroako karrketan. 2006ko kale neurketaren emaitzen azterketa. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 64, 89-107.
- _____(2010). 20 urteko nafar euskaldun hori. Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 101-123.
- KRAUSS, M. (1992). The world's languages in crisis. *Language* 68, 1, 4-10.
- KULICK, D. (1992/2004). *Language Shift and Cultural Reproduction. Socialization, self, and syncretism in a Papua New Guinean village*. Cambridge, United Kingdom: Cambridge University Press.
- LABOV, W. (1972). *Sociolinguistic Patterns*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- LAKAR, M. & TELLETXEA, A. (2006). *Baztan solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*. Iruña: Nafarroako Gobernua eta Baztango Udala.
- LAMARRE, P. & ROSSELL, J. (2003). Growing up Trilingual in Montreal: Perceptions of College Students. In Bayley, R. & Schecter, S. R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (62.-80. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- LAPONCE, J. A. (1990). Irtenbide pertsonalak eta lurralde-irtenbideak estatu eleaniztunaren arazoan aurrean. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 2, 23-47.
- LARRAÑAGA, I. (1986). La situación del euskera en el ámbito familiar: investigaciones realizadas y en proyecto en relación con la transmisión familiar del euskera. San Sebastián: Siadeco.
- _____(1987). Euskal soziolinguistikaren egoera eta bide berriak. *Jakin* 42/43, 7-29.
- LARREKO: ikus IRIGARAY, P. F.

- LEE, T. & MCLAUGHLIN, D. (2001). Reversing Navajo Language Shift, Revisited. In Fishman, J. A. (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21 Century Perspective* (23.-43. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- LIEBERSON, S. (1980). Procedures for improving sociolinguistic surveys of language maintenance and language shift. *International Journal of the Sociology of Language* 25, 11-27.
- LÓPEZ ANTÓN, J. J. (2000). La actitud lingüística de Campión. Catolicismo, tradición y foralidad. In Jimeno Aranguren, R. et al., *El euskera en tiempo de los éuskaros* (63.-104. or.). Pamplona: Gobierno de Navarra, Ateneo Navarro.
- LÓPEZ-GOÑI, I. (2002). *Nafarroa Garaiko ikastolen historia (1963-1982)*. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa.
- _____(2003). La "Sección de fomento de Vascuence" de la Diputación de Navarra (1957-1972): Génesis y actuación. *Gerónimo de Uztariz* 19, 49-73.
- LUYKX, A. (2003). Weaving Languages Together: Family Language Policy and Gender Socialization in Bilingual Aymara Households. In Bayley, R. et al. Schecter, S. R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (25.-43. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- MACKAY, W. (1976). *Bilingualisme et contact des langues*. Paris: Klincksieck.
- MACKAY, W. & CARTWRIGHT, D. (1979). Geocoding language loss from census data. In Mackey, W. & Ornstein, J., *Sociolinguistic Studies in Language Contact: Methods and Cases* (69.-96. or.). The Hague: Mouton.
- MACKINNON, K. (1991). *Gaelic. A Past & Future Prospect*. Edinburgh: Saltire.
- MACKINNON, K. & MACDONALD, M. (1980). *Ethnic Communities: The Transmission of Language and Culture in Harris and Barra*. School of Social Sciences. The Hatfield Polytechnic.
- MAEZTU, V. M. (2002). *Régimen Foral de Navarra en materia educativa (1970-1982)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- MARTÍ, F. et al. (2005). *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2001). Euskal Herriko gaztetxoan hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 40, 47-66.
- _____(2004). Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak. In zenbaiten artean, *Egokitasuna hizkuntza-zen erabilera*. VIII. Jardunaldiak (11.-38. or.). Bilbao: Mendebalde Euskal Kultur Alkartea.
- _____(2012). Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 84, 121-137.
- MAS, A. & MONTOYA, B. (2011). La transmissió lingüística del català: estat de la qüestió i avaluació analítica. *Treballs de Sociolingüística Catalana* 21, 95-103.
- MELIÀ, J. & VILLAVARDE, J. A. (2008). La transmissió intergeneracional del català a Mallorca en les parelles lingüísticament mixtes. *Llengua i ús. Revista tècnica de política lingüística* 42, 62-71. Sarean: <www6.gencat.net/lengcat/liu/42_09.pdf>
- MENDOZA, J. L. (2003a). Hizkuntza Politika Nafarroan. *Jakin* 135, 49-72.
- _____(2003b). Política lingüística en Navarra (1999-2002): historia de un desencuentro. *Hermes* 9, 14-23.
- MICHELENA, L.: ikus MITXELENA, K.
- MILLS, C. W. (1959/1993). *La imaginación sociológica*. Madrid: Fondo de Cultura Económica.
- MITXELENA, K. (1953). Contribución al conocimiento del dialecto roncalés. *BAP* 9, 499-536.
- _____(1961/1990). *Fonética Histórica Vasca*. ASJUren gehigarriak, IV. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- _____(1978). Euskararen bide luze bezain malkarrak. In *Euskaltzaindia, Euskararen liburu zuria* (15.-28. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- MOLLÀ, T. & VIANA, A. (1991). *Curs de Sociolingüística* 3. Alzira: Bromera.
- MONREAL, G. (2001). Origen de la Ley del Vascuence de Navarra. *RIEV* 46, 2, 517-543.
- _____(2003). Nafarroako Euskararen Legearen jatorria. *Eleria Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria* 11, 7-17.
- MONTOYA, B. (1996). *Alacant: la llengua interrompuda*. València: Denes.
- MONTOYA, B. & MAS, A. (2011). *La transmissió familiar del valencià*. València: Publicacions de l'Acadèmia Valenciana de la Llengua.

- MORALES DE RADA, J. (1963). De "re" Vasconica. *Munibe* 1, 2, 3-22.
- MORENO FERNÁNDEZ, F. (1998/2009). *Principios de sociolingüística y sociología del lenguaje* (4. argit.). Barcelona: Ariel.
- MORÍN, A. (2006). Interdiscipliniedad de los estudios lingüísticos. Apuntes de una reflexión. In González Cruz, M. I. (koord.) *Lengua, sociedad y cultura: Estudios interdisciplinarios* (229.-239. or.). Gran Canaria: Universidad de las Palmas de Gran Canaria.
- MORRIS, D. (2005). End of Award: Welsh Language Socialisation within the Family. Report for the Economic & Social Research Council, RES 000-22-0611. Sarean: <<http://www.esrc.ac.uk/my-esrc/grants/RES-000-22-0611/outputs/Read/Iaab3729-b599-4ecd-a417-dbb39f31a5cb>>
- MORRIS, D. & JONES, K. (2008). Language socialization in the Home and Minority Language Revitalization in Europe. In Duff, P. A. and Hornberger, N. H. (arg.), *Encyclopedia of Language and Education* (2. argit.) (8. lib.) (2699.-2715. or.). Boston: Springer Science+Business Media.
- NAHIR, M. (1988). Language planning and language acquisition: The "Great Leap" in the Hebrew revival. In Paulston, C. B. (arg.), *International Handbook of Bilingualism and Bilingual education* (275.-295. or.). Connecticut: Greenwood Press.
- NAFARROAKO GOBERNUA (1988). *Distribución de la población navarra según el nivel de euskera (Padrones Municipales de Habitantes al 1/4/86)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- _____(1995). *Euskararen datu soziolingüistikoak Nafarroan*. Iruña: Nafarroako Gobernu. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.
- _____(2009a). *Euskararen egoera Sakanan. 2007. Azterlan soziolingüistikoak*. Nafarroa: Nafarroako Gobernu. Hezkuntza Departamentua.
- _____(2009b). *Euskararen egoera Nafarroan. 2008. La situación del euskera en Navarra*. Nafarroa: Nafarroako Gobernu. Euskarabidea. Txosten argitaragabea.
- NAFARROAKO GOBERNUKO IMMIGRAZIOZKO BULEGOA (2011). La realidad de la inmigración en Navarra. 2011. Sarean:<<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/84B80583-69D4-4220-B499-95D364DC8148/184I32/Prov2011LaRealidaddelainmigracionenNavarra.pdf>>
- NEKVAPIL, J. (2003). Language biographies and the analysis of language situations: on the life of the German community in the Czech Republic. *International Journal of Sociology of Language* 162, 63-83.
- NELDE, P.; STRUBELL, M. & WILLIAMS, G. (1996). *Euromosaic. Producción y reproducción de los grupos minoritarios de la UE*. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas.
- NIEVA, J. L. (2000). Los éuskaros y la lengua. In Jimeno Aranguren, R. et al., *El euskera en tiempo de los éuskaros* (25.-62. or.). Pamplona: Gobierno de Navarra, Ateneo Navarro.
- NONAKA, A. M. (2012). Language Socialization and Language Endangerment. In Duranti, A.; Ochs, E. & Schieffelin, B. B. (arg.), *The Handbook of Language Socialization* (610.-630. or.). Malden, Oxford, Chichester: Wiley-Blackwell.
- NORTIER, J. (2008). Types and Sources of Bilingual Data. In Wei, L. & Moyer, M. G. (arg.), *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism* (35.-52. or.). USA, UK, Australia: Blackwell Publishing.
- Ó LAOIRE, M. (1996). An Historical Perspective on the Revival of Irish Outside the Gaeltacht, 1880-1930, with Reference to the Revitalization of Hebrew. In Wright (arg.), *Language and State. Revitalization and Revival in Israel and Eire* (51.-75. or.). Clevedon, Philadelphia, Toronto, Adelaide, Johannesburg: Multilingual Matters Ltd.
- Ó RIAGÁIN, P. (1995). Elebitasuna Irlandan 1973tik 1983ra: azterketa soziolingüistiko nazionalen gainbegirada. *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 15, 19-44.
- _____(2001). Irish Language Production and Reproduction¹⁹⁸¹⁻¹⁹⁹⁶. In Fishman (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21 Century Perspective* (195.-214. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- OCHS, E. (1993). Constructing social identity. *Research on Language and Social Interaction* 26, 287-306.
- OCHS, E. & SCHIEFFELIN, B. B. (1984/1992). Language acquisition and socialization. Three developmental stories and their implications. In Shweder, R. A. and LeVine, R. A. (arg.), *Culture Theory. Essays on Mind, Self and Emotion* (276.-320. or.). United States of America: Cambridge University Press.

- (2008). Language socialization: An Historical Overview. In Duff, P. A. and Hornberger, N. H. (arg.), *Encyclopedia of Language and Education* (2. argit.) (8. lib.) (2580.-2594. or.). Boston: Springer Science+Business Media.
- ODRIOZOLA, J.M. & ESNAOLA, I. (2000). Iñaki Larrañagari egindako elkarrizketa. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 35, 115-124.
- OGBU, J. & MATUTE-BIANCHI, G. (arg.) (1993). Understanding sociocultural factors. Knowledge, Identity and School Adjustment. *Beyond Language: Social and Cultural Factors in Schooling Language Minority Students*. Los Angeles: Bilingual Education Office.
- OIHARTZABAL, L. (2000). Los primeros pasos en el aprendizaje de la lectoescritura. In Ruiz Bikandi, U. (argit.). *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria* (249.-272. or.). Madrid: Síntesis.
- OTONDO, A. (2003). *Diccionario histórico biográfico del Valle de Baztán (Navarra)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- PASCUAL, A. (1999). II. La democratización de las Instituciones Forales. In Ramírez Sádaba, J. L. (zuz.) et al., *Democratización y Amejoramiento Foral. Una historia de la Transición en Navarra (1975-1983)* (331.-410. or.). Pamplona: Gobierno de Navarra.
- PAVLENKO, A. (2008). Narrative Analysis. In Wei, L. & Moyer, M. G. (arg.), *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism* (311.-325. or.). USA, UK, Australia: Blackwell Publishing.
- PEASE-ÁLVAREZ, L. (2003). Transforming Perspectives on Bilingual Language Socialization. In Bayley, R. et Schechter, S.R. (arg.), *Language Socialization in Bilingual and Multilingual Societies* (9.-24. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- PÉREZ OLLO, F. (2002). El fondo milenario. In García-Sanz, A. (zuz.), *La comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia* (13.-25. or.). Pamplona: Mancomunidad de la Comarca de Pamplona.
- PRATT, M. L. (1987/1989). Utopías lingüísticas. In Fabb, N.; Attridge, D.; Durant, A. & MacCabe, C. (biltz.), *La lingüística de la escritura. Debates entre lengua y literatura* (57.-74. or.). Madrid: Visor.
- PUJADAS, J. J. (1992). *El método biográfico: El uso de las historias de vida en ciencias sociales*. Cuadernos Metodológicos 5. Madrid: CIS.
- PUJOLAR, J. (2001). *Gender, Heteroglossia and Power*. Berlin, New York: Mouton de Gruyter.
- (2008ko negua). Els joves, les llengües i les identitats. *Noves SL Revista de Sociolingüística*. Sarean: <<http://www6.gencat.net/llengcat/noves/hm08hivern/docs/pujolar.pdf>>
- QUIVY, R. & CAMPENHOUDT, L. V. (1995/1997). *Manual de recerca en ciències socials*. Barcelona: Herder.
- RAMOS, R. (1995). *Nafarroako euskararen egoera demolingüistikoa eta funtzionala*. Bergara: Bergarako Udala.
- RAMPTON, B. (1998). Language crossing and the redefinition of reality. In Auer, P. (arg.), *Code-switching in Conversation: Language, Interaction and Identity* (290.-317. or.). London: Routledge.
- RECLUS, E. (1867/1929). Los vascos. Un pueblo que se va, por Eliseo Reclus (1867). *RIEV* 20, 57-83.
- ROCHER, G. (1969/1995). *Introduction à la sociologie générale* (3. argit.). Québec: Hurtubise HMH Ltée.
- RODRÍGUEZ OCHOA, J. M^a (2001). Aplicación y desarrollo normativo de la Ley Foral del Vasuence en el ámbito de la Administración Foral de Navarra. *RIEV* 46, 2, 545-592.
- (2002). Nafarroako legeria, euskara foru administrazioan erabiltzeari buruz. In zenbaiten artean, *Hizkuntzen Europako urtea. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan* (63.-76. or.). Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa.
- (2003). Euskarari buruzko Foru Legearen aplikazioa eta garapena Nafarroako Foru Administrazioan. *Eleria Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria* 11, 33-37.
- SAGARDOY, P. (2008). EAEko euskararen belaunetaz belauneko familia bidezko transmisioa (2001eko biztanleriaren zentsuko datuak oinarri hartuta). *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 67, 103-116.
- SALABERRI ZARATIEGI, P. (2000). Iruñerriko eta inguruko ibarretako euskararen gainean. *Euskera* 45, 3, 881-920.
- (2002). Acerca del euskera de Pamplona y sus alrededores. In García-Sanz, A. (zuz.), *La comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia* (225.-241. or.). Pamplona: Mancomunidad de la Comarca de Pamplona.
- SALABURU, P. (2002). *Euskararen etxea*. Irun: Alberdania.
- (2005). *Baztango Mintzoa: Gramatika eta Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernu.
- SALVADOR, G. (1983). Sobre la deslealtad lingüística. *Lingüística Española Actual* V, 173-178.

- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra.
- (1981a). La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun. *FLV* 37, 19-99.
- (1981b). *El espacio bilingüe (Aspectos etnolingüísticos del bilingüismo y teoría lingüística de los espacios)*. Pamplona: Eusko Ikaskuntza.
- (1987). *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskera y teoría social de las Lenguas*. San Sebastián: egilearen argitalpena.
- SANTAMARÍA, L. & ONDIKOL, J. M. (2006). *Las cuatro estaciones en el Valle de Baztan (y alrededores). Un almanaque personal e intrasferible*. Navarra: Diario de Noticias, Baztango Herri Unibertsitatea.
- SARASUA, J. (1997). *Txepetxekin solasean biziaren bizkuntzaz*. Bilbo: Gara.
- (2012). Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak. *BAT Soziolingüistika aldizkaria* 83, 11-28.
- SATRUSTEGI, J. M. (2000). *Alexander Tapia Perurena*. Bidegileak bilduma. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- (2003). Euskara Nafarroan atzo eta gaur. *Jakin* 135, 73-81.
- SCHIEFFELIN, B. B. & OCHS, E. (1986). Language Socialization. *Annual Review of Anthropology* 15, 163-191.
- (1996). The microgenesis of competence: methodology in language socialization. In Slobin, D.; Gerhardt, J.; Kyratzis, A. & Guo, J. (arg.), *Social Interaction, Social Context, and Language* (251.-264. or.). Mahwah, NJ: Erlbaum.
- SCHMID, M. (2004). Identity and first language attrition: A historical approach. *Estudios de Sociolingüística* 5, 1, 41-58.
- SIADeco (1975). *Euskal Herri osoan (Nafarroa eta Iparralde barne zirelarik) euskararen azterketa soziolingüistikoa. Egoera eta ekintza programa*. Donostia: Euskaltzaindia.
- (1977). *Estudio sociolingüístico del euskara*. Donostia: Siadeco.
- (1978). *Bases para un futuro plan de actuación a favor de la normalización del uso del euskara*. Donostia: Siadeco.
- (1994a). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Lehen txostena (Siadeco [1978] eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia [1991] ikerketetan bildutako datuen arabera). Txosten argitaragabea.
- (1994b). *Familia bidezko hizkuntza transmisioaren azterketa*. Bigarren txostena (1991eko zentsuko datuen arabera). Txosten argitaragabea.
- SOTES, P., OROZ, N. & VILCHES, C. (2008). *Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren*. Pamplona: UPNA, Ayuntamiento del Valle de Aranguren.
- SOZIOLINGÜISTIKA KLUSTERRA (2009). Bikoteen artean hizkuntza ohituren aldaketa. Ikerketa-lana. Ikerketaren emaitza eta ondorioen laburpena. Sarean: <<http://www.soziolinguistika.org/eu/fitxategiak/643>>
- (2011). *Gazteen hizkuntza erabileran kokatu eta bertan esku-bartzeko gida. Erabileraren GPSa*. Soziolingüistika Klusterra.
- SOZIOLINGÜISTIKA KLUSTERRA, TOPAGUNEA & URTXINTXA (2009). *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua. Emaitzen txostena*. Sarean: <<http://www.soziolinguistika.org/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketa.pdf>>
- SPOLSKY, B. (1996). Conditions for Language Revitalization: A Comparison of the Cases of Hebrew and Maori. In Wright (arg.), *Language and State. Revitalization and Revival in Israel and Eire* (5.-50. or.). Clevedon, Philadelphia, Toronto, Adelaide, Johannesburg: Multilingual Matters Ltd.
- STRAUSS A. L. & CORBIN, J. (1990). *Basics of qualitative research*. Newbury Park: Sage.
- STRUBELL, M. (2001). Catalan a Decade Later. In Fishman, J. A. (arg.), *Can Threatened Languages be Saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21 Century Perspective* (260.-283. or.). Clevedon, Buffalo, Toronto, Sydney: Multilingual Matters.
- SUAY, F. & SANGINÉS, G. (2012). *Sortir de l'armari lingüístic* (2. argit.). Barcelona: Angle.
- SUBIRATS, M. (zuz.); IZQUIERDO, M. J. & MIGUÉLEZ, F. (1991). Transmissió i coneixement de la llengua catalana a l'àrea metropolitana de Barcelona. *Enquesta metropolitana 1986. Condicions de vida i hàbits de la*

- població de l'Àrea Metropolitana de Barcelona. 20. liburukia. Barcelona: Mancomunitat de Municipis de l'Àrea Metropolitana de Barcelona; Institut d'Estudis Metropolitans de Barcelona.
- TEDLOCK, D. (1983). *The Spoken Word and the Work of Interpretation*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press.
- TEJERINA, B. (1992). *Nacionalismo y lengua*. Madrid: CIS.
- TESTAUT, C. (1947). *Dialogando*. Pamplona: Leyre.
- TORREALDAI, J. M. (1982). Euskararen zapalkuntza (1936-1939). *Jakin* 24, 5-73.
- _____(1998). *El libro negro del euskera*. Donostia: Tarttalo.
- _____(2001). Hizkuntz politikaren auzia. *Jakin* 123/124, 11-164.
- UNAMUNO, M. (1884-1936/1968). *Obras completas IV. La raza y la lengua*. Madrid: Escelicer.
- UNESCO (2003). *Language Vitality and Endangerment*. Document adopted by the International Expert Meeting on UNESCO Programme Safeguarding of Endangered Languages. Sarean: <<http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001836/183699E.pdf>>
- URLA, J. (1987). *Being Basque, speaking Basque: The politics of language and identity in the Basque Country (Spain)*. Doktore tesi argitaragabea, University of California, Berkeley, USA.
- URLA, J. & ERREKONDO, J. (2010). Zerain.com: Cultural landscape as a framework for integrating sustainable economic futures, heritage and language preservation. Sarean:<http://works.bepress.com/cgi/viewcontent.cgi?article=1001&context=jacqueline_urla>
- URMENETA, B. (1996). *Navarra ante el vascence. Actitudes y actuaciones (1876-1919)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- URQUIJO, J. (1908). Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores. *RIEV* 2, 1, 215-21, 655-9.
- _____(1910a). ¿Retrocede el vascence?. *RIEV* 4, 1, 137-138.
- _____(1910b). Cartas escritas por el príncipe L.-L. Bonaparte á algunos de sus colaboradores (1) (continuación). *RIEV* 4, 2, 233-97.
- VALLÉS, M. S. (1997). *Técnicas cualitativas de investigación social. Reflexión metodológica y práctica profesional*. Madrid: Síntesis.
- VILA, F. X. (1993). *Transmissió dels idiomes en les parelles lingüísticament mixtes*. Barcelona: Generalitat de Catalunya. Departament de Cultura.
- VILCHES, C. (2002a). *Evolución de las actitudes ante el euskera de los universitarios de Navarra. 1992-2002*. Doktore tesi argitaragabea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- _____(2002b). Euskararen eszenatokiak Nafarroan (1970-2000). In *Euskara Kultur Elkargoa, Hizkuntzen Europako urtea. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan (119.-135. or.)*. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa.
- VINSON, J. (1882). *Les basques et le Pays-Basque. Moeurs, langage et histoire*. Paris: Léopold Cerf.
- VIÑES, H. (1982). Estudio lingüístico y sociológico del euskara en Navarra. *FLV* 40, 539-544.
- WEI, L. & MOYER, M. G. (arg.) (2008). *The Blackwell Guide to Research Methods in Bilingualism and Multilingualism*. USA, UK, Australia: Blackwell Publishing.
- WEINREICH, U. (1953/1979). *Languages in Contact. Findings and Problems* (9. argit.). The Hague: Mouton Publishers.
- WILLIAMSON, R. C. (1991). *Minority Languages and Bilingualism: Case Studies in Maintenance and Shift*. Norwood: Ablex Publishing Corporation.
- WOOLARD, K. (2007). Legitimando lenguas: discursos contrapuestos en torno al contacto lingüístico. Sarean: <http://www.uoc.edu/portal/catala/catedra_multilinguisme/_resources/documents/2.woolard_cat_es.pdf>
- WRIGHT, S. (arg.). (1996). *Language and State. Revitalization and Revival in Israel and Eire*. Clevedon, Philadelphia, Toronto, Adelaide, Johannesburg: Multilingual Matters.
- WURM, S. A. (1996). *Atlas of the world's languages in danger of disappearing*. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.
- _____(2001). *Atlas of the world's languages in danger of disappearing*. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.
- YRÍZAR, P. de: ikus IRIZAR, P.

- ZABALETA, F. (1997). *Nafarroako mapa soziolinguistikoa. 1991. Biztanleria euskaldunaren dinamika eta bilakaera*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- ZABALETA, P. (1990). Vascuence'aren legea. *Jakin* 56, 107-127.
- ZARBIDE, M. (2003). Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio? Sarean: <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1056974834>
- _____(2004). Joshua A. Fishman-en RLS edo HINBE. Sarean: <http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1086087086>
- _____(2009). Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioetan. Udaltop euskara-zerbitzuen I. topaketetan aurkeztutakoa. Lasarte-Oria. Txosten argitaragabea.
- _____(2011). Diglosiaren purgatorioaz. Teoriatik tiraka. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 79/80, 13-152.
- ZARRAGA, A. et al. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia eta Soziolinguistika Klusterra.
- ZELAIETA, E. (2008). *Baztan-Bidasoako bizkeren azterketa dialektologikoa*. Nafarroa: Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- ZENBAITEN ARTEAN (1960). *Geografía histórica de la lengua vasca*. (2 lib.). San Sebastián: Auñamendi.
- _____(1977). *Iruñerria. La cuenca de Pamplona*. Pamplona: Caja de Ahorros Municipal de Pamplona.
- _____(1996). *Etnografía de Navarra* (2. lib.) Pamplona: Diario de Navarra.
- _____(1997). *Iruñean hogeita bortz urte. Iruñeko Arturo Campión euskaltegiaren 25. urteurrena*. Iruña: Arturo Campión Kultur Elkarte IKa.
- _____(2008). *Encuesta 2008. Inmigración en Navarra*. Gobierno de Navarra. Sarean: <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/CCC6D958-A01B-4E45-BE6A-9FE974975936/142799/encuesta_inmigracion_2008.pdf>
- ZIGANDA, J. A. (2008ko abendua). Fomentar nuestro patrimonio. *Ze berri?* 74, 2.
- ZINKUNEGI, J. F. (1995). Euskararen transmisioa Euskal Autonomi Elkartearen. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 15, 75-88.
- ZUAZO, K. (2000/2001). *Euskararen sendabelarrak*. Irun: Alberdania.
- _____(2003). *Euskalkiak, berriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- _____(2008). *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkarlanean.
- ZULAIKA, J. (1996). *Del Cromañon al Carnaval*. Donostia: Erein.



